



Iturria: *Bible Saindua*, Duvoisin (faksimilea). La Gran Enciclopedia Vasca, 1973.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/D/DuvoisinBibleaI.htm>

## **BIBLE SAINDUA (I)** **Testament Zaharra — 1. zathia**

**Jean Pierre Duvoisin**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**BIBLE SAINDUA,**  
edo Testament Zahar eta Berria,  
Duvoisin kapitainak latinezko Bulgatetik  
lehenbiziko aldiko  
Laphurdiko eskarara itzulia.

Luis-Luziano  
Bonaparte printzeak  
argitara emana.

«Jaunaren hitzak, hitz garbiak dira, zilhar suaz ikhartua,  
lurrezko untzian frogatua, zazpi aldiz garaitua». Psal. XI. 7.

**LONDRESEN**



## JENESA

### I. KAP.

1. Hastapenean, Jainkoak ezdeusetarik egin izan zituen zerua eta lurra.
2. Eta lurra zen moldegabea eta buluza, eta ilhunbeak ziren ondarren gain guzian; eta Jainkoaren izpiritua ekharria zen uren gainean.
3. Eta Jainkoak erran zuen: Izan bedi argia. Eta argia egina izan zen.
4. Eta Jainkoak ikhusi zuen argia ona zela, eta berezi izan zuen ilhunbeatarik.
5. Eta argiari izentzat eman zioen eguna, eta ilhunbeei gaua. Eta arratsetik eta goizetik egina izan zen egun bat.
6. Jainkoak erran ere zuen: Ortzia izan bedi uren erdian, eta urak uretarik berez betza.
7. Eta Jainkoak egin izan zuen ortzia, eta ortzi gainaldeko urak azpialdean zirenetarik berezi izan zituen. Eta hola egin izan zen.
8. Eta Jainkoak ortziari izentzat eman zioen zerua: eta arratsetik eta goizetik egina izan zen bigarren eguna.
9. Jainkoak erran zuen gero: Zerupeko urak batera bil ditezela, eta ager bedi leihorra. Eta hala egin izan zen.
10. Eta Jainkoak leihorrari izentzat eman zioen lurra; eta ur bilduei itsasoa. Eta Jainkoak ikhusi izan zuen ona zela hori.
11. Eta erran izan zuen: Lurrak ekhar betza belhar ferdeak eta hazia emanen dutenak, eta zuhamu fruitu ekharleak, emanen dutenak zeinak bere motaren arabera fruitua, eta haren barnean hazia izan bedi lurraren gainean. Eta hori hola izan zen.
12. Eta lurrak ekharri zituen belhar ferdeak eta hazia ematen zutenak zeinak bere motaren arabera, eta zuhamuak fruitu ematen zutenak haziarekin zeinak bere motaren arabera. Eta Jainkoak ikhusi izan zuen hori ona zela.
13. Eta arratsetik eta goizetik egin izan zen hirugarren eguna.
14. Jainkoak erran zuen berriz ere: Zeruko ortzian izan beitez argizagiak, eta gauetik eguna berez bezate, eta balia beitez seinaleztat denboren, egunen eta urtheen ezagutarazteko.
15. Distira bezate zeruko ortzian, eta argi bezate lurra. Eta hala egin izan zen.

16. Eta Jainkoak egin izan zituen bi argizagi handi: bata handiagoa egunari buruz jartzekotzat: eta bertzea ttipiagoa gauari buruz jartzeko: eta izarrak ere egin izan zituen.

17. Eta ezarri izan zituen, zeruko ortzian lurraren gainera argi zezaizentzat,

18. Egunari eta gauari buruz jar zitezentzat, eta argia ilhunbeatarik berez zezatentzat. Eta Jainkoak ikhusi izan zuen ona zela hori.

19. Eta arratsetik eta goizetik egin izan zen laugarren eguna.

20. Jainkoak erran zuen berriz: Urek eman betzate arrain biziak eta hegastinak lurraren gainean zeruko ortzi-pean.

21. Eta Jainkoak egin izan zituen arrain handiak, eta urek zein bere motetan eman zituzten abere bizi eta higitzen diren guziak, eta hegastin guziak zein bere motaren arabera. Eta Jainkoak ikhusi izan zuen ona zela hori.

22. Eta benedikatu zituen, erraten ziotelarik: Berha eta popula zaitzte, eta bethe zatzue itsasoko urak; eta hegastinak lurrean popula beitez.

23. Eta arratsetik eta goizetik egin izan zen bortzgarren eguna.

24. Jainkoak erran zuen berriz: Lurrak eman betza abere biziak zein bere motaren arabera, aziendak eta zierpeak, eta lurreko basabereak zein bere motaren arabera. Eta hola egin izan zen.

25. Eta Jainkoak egin zituen lurreko basabereak zein bere motaren arabera, eta aziendak eta lurreko zierpe guziak beren motetan. Eta Jainkoak ikhusi izan zuen ona zela hori.

26. Eta erran zuen: Gizona egin dezagun gure itxura eta idurira: eta izan beza buruzagitasuna itsasoko arrainen, eta zeruko hegastinen, eta abereen, eta lur guziaren, eta lurrean higitzen diren zierpe guzien gainean.

27. Eta Jainkoak egin izan zuen gizona bere idurira; Jainkoaren idurira egin izan zuen, eta hekiek egin zituen gizonki eta emazteki.

28. Jainkoak benedikatu zituen, eta erran zioten: Berha eta popula zaitzte; bethe zazue lurra eta zuen azpiko ezar zazue, eta nausitasuna har zazue itsasoko arrainen, eta zeruko hegastinen, eta lurraren gainean higitzen diren abere guzien gainean.

29. Jainkoak erran zioten oraino: Huna non eman darozkitzuetan lurraren gainean hazitzen diren belhar guziak, eta zuhamu guziak zeinek bere hazia berekin ekhartzen dutenak, hekiek izan ditezentzat zuen hazkurri.

30. Eta eman ditut lurreko abere guziei, eta zeruko hegastin orori, eta lurrean higitzen eta bizi diren guziei, izan dezatezentzat beren hazkurria. Eta hola egin izan zen.



31. Eta Jainkoak ikhusi zituen berak egin zituen guziak: eta hainitz onak ziren. Eta goizetik eta arratsetik egin izan zen seigarren eguna.

## II. KAP.

1. Horreletan osatuak izan ziren zerua eta lurra beren edergailu guziekin.

2. Eta Jainkoak zazpigarren eguneko osatu zuen bere eskuko lana: eta bere eginkari guzietarik pausu hartu zuen zazpigarren egunean.

3. Eta benedikatu zuen zazpigarren egun hura eta saildutu zuen: zeren hartan gelditu izan baitzen bere egintza guzitik, egitekotzat Jainkoak ezdeusetarik athera zuenetik.

4. Horrelakoak dira zeru-lurren ethorkiak, ezdeusetarik atheratuak izan zirenean, Jainko Jaunak egin zituen egunean zerua eta lurra,

5. Eta kanpotako landare guziak lurretik sorthu gabeen, eta bazterretako belhar guziak berenez hazi gabeen: Jainko Jaunak ezen uririk oraino lurrari etzioen eman, eta gizona etzen lurraren lantzekotzat.

6. Baina lurretik igaiten zen ur bat, lurraren axial guzia ihintzaten zuena.

7. Jainko Jaunak egin izan zuen beraz gizona lurraren orhetik, eta begithartera eman izan zioen bizizko ufako bat, eta gizona egin izan zen bere arima bizian.

8. Bada Jainkoak hastedanik gogozko baratze bat egina zadukan: hartan ezarri zuen bere eskuz egina zuen gizona.

9. Eta Jainko Jaunak lurretik ilkhiarazi zituen zuhamu guziak, ederrak begiko, eta ahoko gozoak: eta baratzearen erdian bizitzeko zuhaitza eta ongiaren eta gaizkiaren jakitateko zuhaitza.

10. Gogozko lekhu hartarik atheratzen zen hibai bat baratzearen urzatzeko, eta gero berezten dena lau burutan.

11. Bata deitzen da Phison: harek inguratzen du Hebilathko lur guzia, non sortzen baita urhea;

12. Eta lur hartako urhea guziz ona da: han kausitzen da bdelioa eta oniz harria.

13. Eta bigarren hibaia Jehon deitzen da: hura da Ethiopiako lurra oro inguratzen duena.

14. Hirugarren hibaiaren izena da Tigris: hura Asiria aldera dihoa. Ufrata da laugarren hibaia.

15. Jainko Jaunak hartu izan zuen beraz gizona eta ezarri gogozko pharabisuan, hura lant eta zain zezantzat.

16. Manu ere eman zioen erraten zioelarik: pharabisuko zuhaitz guzietarik jan zazu.

17. Ordean ez dezazun jan ongiko eta gaizkiko jakitatearen zuhaitzetik. Ezen hartarik janen duzun egunean, heriotzez hilen zare.

18. Jainko Jaunak erran zuen berriz: Ez da on gizona izan dadien bakhar: egin diozogun lagun bat bere idurikoa.

19. Jainko Jaunak lurretik egin ondoan beraz lurreko abere guziak eta zeruko hegastinak oro, erakharri zituen Adamen aitzinera, ikhus zezantzat zer izen emanen zioten: eta Adamek abere bakhotxari eman zuen izena da zinez haren izena.

20. Eta Adamek beren izenak eman ziotzaten azienda guziei, eta hegastin guziei, eta lurreko basabere guziei: baina etzen aurkhitzen Adamentzat bere iduriko lagunik.

21. Jainko Jaunak igorri zioen beraz Adami loadi bat: eta lo zagoelarik khendu zioen saihets-hezur bat, eta haren orde ezarri zioen haragia.

22. Eta Jainko Jaunak Adami khendu zioen saihets-hezurretik egin zuen emaztekoa: eta erakharri zioen Adami.

23. Eta Adamek erran zuen: Huna orai ene hezurretako hezurra eta ene haragiko haragia; hau deithuko da gizema, zeren gizona ganik atheratua baita.

24. Horrengatik gizonak utziko ditu bere ait-amak, eta iratxikiko da bere emazteari, eta bia izanen dira haragi batean.

25. Eta Adam eta bere emaztea buluzgorririk ziren biak: eta etziren ahalketzen.

## III. KAP.

1. Bada sugea zen Jainko Jaunak egin izan zituen lurreko abere guziak baino maltzurragoa. Hunek erran zioen emaztekiari: Zergatik manatu darotzu Jaunak jan ez dezazun pharabisuko zuhaitz guzietarik?

2. Emaztekiak ihardetsi zioen: Pharabisuan diren zuhaitzetako fruituetarik jaten dugu;

3. Baina pharabisuaren erdian den zuhaitzeko fruitutik jan ez dezagun manatu daroku Jainkoak, eta ez dezagun uki ere, hil gaitezen beldurrez.

4. Eta sugeak erran zioen emaztekiari: Etzarete segur heriotzez hilen.

5. Jainkoak ezen badaki hartarik janen duzuen egunean idekiko direla zuen begiak; eta izanen zaretela jainkoak iduri, ongiatz eta gaizkiaz jakintsun.



6. Emaztekiak ikhusi zuen beraz zuhaitz haren fruitua jateko ona zela, ederra begiko eta itxuraz tirriagarria: eta hartu zuen fruitu hartarik eta jan: eta eman zioen bere senharrari, zeinak ere jan izan baitzuen.

7. Eta idekiak izan ziren bien begiak: eta ohariturik buluz-gorriak zirela, josi zituzten piko hostoak, eta egin zituzten gerripekoak.

8. Eta aditu zutenean Jainko Jaunaren boza baratzean zabilalarik arrastiriko haizearen mugan, Adam eta bere emaztea gorde ziren Jainko Jaunaren begithartetik pharabisuko zuhaitzen-pean.

9. Eta Jainko Jaunak deithu zuen Adam, eta erran zioen: Non zare?

10. Adamek ihardetsi zioen: Entzun dut zure mintzoa pharabisuan: bainan lotsatu naiz biluzia naizelakotz, eta gorde izan naiz.

11. Jaunak erran zioen: Eta nondik dakizu biluzia zarela, baizik-ere jan duzulakotz nik debekatu narotzun zuhaitzeko fruitutik?

12. Adamek ihardetsi zioen: Laguntzat eman darotazun emazteak eskaini darot fruitu hortarik, eta jan izan dut.

13. Eta Jainko Jaunak erran zioen emazteari: Zertako egin duzu hori? Ihardetsi zuen: Sugeak enganatu nau, eta jan dut.

14. Eta Jainko Jaunak erraten dio sugeari: Hori egin dukalakotz, madarikatua haiz lurreko azienda eta basabere guzien artean: herrestatuko haiz hire sabelaren gainean, eta lurra janen duk hire biziko egun oroz.

15. Etsaigoa ezarriko diat hire eta emaztekiaren artean, hire umeen eta harenen artean: harek lehertuko darok burua, eta hik maltzurki jazarriko diok haren hindagorari.

16. Emaztekiari ere erran zioen: Usutuko ditut zure gaitzak eta zure izorrak: oinhazetan erdiko zare, eta izanen zare gizonaren eskupeko, eta gizona izanen da zure nausi.

17. Gero erran zioen Adami: Zeren entzun izan duzun zure emaztea, eta jan duzun nik jatea debekatu narotzun zuhaitzeko fruitutik, lurra madarikatua da zure egitatean: zure nekeen bidez janen duzu zure biziko egun guzietan hartarik atherako duzun hazkurria.

18. Elhorriak eta astakhaloak emanen darozkitzu, eta janen duzu lurreko belharra.

19. Zure kopetako izerdian janen duzu ogia, bihur zaitezen arteo lurrera zeintarik izan baitzare atheratua: herrauts zare ezen, eta herrautsetara zare bihurtuko.

20. Eta Adamek bere emazteari izentzat eman zioen Eba; zeren baitzen gizon guzien ama.

21. Jainko Jaunak egin ere izan zituen Adami eta haren emazteari larruzko soinekoak eta hekiek jauntzi izan ziotzoten:

22. Eta erran zuen: Huna Adam gutarik bat iduri egina, ongia eta gaizkia dakizkiela: orai beraz eskua ezar ez dezan bizitzeko zuhaitzaren gainean, har ez dezan hartarik, eta jan, eta bizi ez dadien bethiere.

23. Eta Jainko Jaunak igorri zuen gogozko pharabisutik, lant zezantzat lurra zeintarik atheratua izan baitzen.

24. Eta Adam khendu zuen handik, eta gogozko pharabisuaren aitzinean ezarri zuen kerubin bat, eta ezpata gardun dardararari bat, zaintzekotzat bizitzeko zuhaitzerako bidea.

#### IV. KAP.

1. Bada Adamek ezagutu zuen Eba, bere emaztea, zeina izorra gertatu baitzen eta erdi Kainez, erraten zuelarik: Jainkoaren nahiarekin izan dut gizon bat.

2. Berriz ere haurdun egin zen Abel haren anaiaz. Bada Abel izan zen artzain, eta Kain laborari.

3. Eta handik asko egunen buruan, gerthatu zen Kainek Jaunari dohainak eskaini zituela lurreko fruituetarik.

4. Abelek ere eskaini zioizkien bere arthaldeko lehenbiziko sorthuetarik eta gizenenetarik: eta Jaunak begiratu zioten Abeli eta haren emaitzei.

5. Bainan etzioten begiratu Kaini eta haren emaitzei: eta Kain bortizki sumindu zen, eta erori zen haren begithartea.

6. Eta Jaunak erran zioen: Zertako samurtu zare? eta zertako erori da zure begithartea?

7. Baldin ongi egiten baduzu, ez othe zare sarizatua izanen? eta gaizki egiten baduzu, zure bekhatua ez othe da berehala zure atherako? bainan hartarako lehia zure baithan izanen da, eta zu nausitu behar zaizko.

8. Eta Kainek erran zioen Abel bere anaiari: Ilkhi gaitezen kanpora. Eta kanporatu zirenean, Kain jauzi zitzaioen Abel bere anaiari, eta hil izan zuen.

9. Eta Jaunak erran zioen Kaini: Non da Abel zure anaia? Hunek ihardesten dio: Ez dakit nik. Ni othe naiz ene anaiaren zaina?

10. Eta Jaunak erran zioen: Zer egin duzu? zure anaiaren odola nire lurretik oihuz dagokit.

11. Orai beraz madarikatua izanen zare lurraren gainean, zeina ideki baita hartzeko zure eskutik zure anaiaren odola.

12. Zuk lanthu-eta, ez darozkitzu bere fruituak emanen: lurraren gainean ihes eta lekhuz-lekhu ibiliko zare.



13. Eta Kainek ihardetsi zioen Jaunari: Handiegia da ene bekhatua, nik merezitzekotzat barkhamendua.

14. Huna non egun khentzen nauzun ene lurretik, eta ni gordeko naiz zure begietarik, eta lurrean izanen naiz ibildaun eta ihesdun: beraz hilen nau edozein atzematen nauenak.

15. Eta Jaunak erran zioen: Ez da holakorik izanen: bainan nornahik hil dezan Kain zazpitan gaztigatua izanen da. Eta Jaunak Kaini hatz bat ezarri izan zioen, atzematen zuenak hil etzezantzat.

16. Kain Jaunaren aitzinetik atheraturik ihesdun egon zen Edenetik iguzki-sortze alderako bazterretan.

17. Kainek bere emaztea ezagutu izan zuen; eta hau izarra gerthatu zen, eta erdi zen Henokez: eta hiri bat egin izan zuen eta deithu Henok bere semearen izenetik.

18. Bada Henok aitatu zen Iradez. Irad aitatu zen Mabiliaez. Mabilia aitatu zen Mathusaelez. Mathusael aitatu zen Lamekez.

19. Hunek hartu zituen bi emazte, bat Ada eta bertzea Seia deitzen zirenak.

20. Ada amatu zen Jabelez, zeina izan baitzen olhetan daudezinen eta artzainen aita.

21. Eta haren anaia deitzen zen Jubal: hau izan zen arrabita eta maniura jotzen dutenen aita.

22. Sela ere amatu zen Tubalkainez, zeina izan baitzen harotz eta burdinazko eta letoinezko obra orotan langile. Noema zen Tubalkainen arreba.

23. Eta Lamekek erran zioten Ada eta Sela bere bi emazteei: Lameken andreak, entzun zazue ene boza, adi zazue ene solasa: hil izan baititut gizon bat ene eskutikako sarraskian, eta gizon gazte bat ene eskutikako kazkakoz.

24. Baldin Kainen heriotzea zazpitan izaten bada gaztigatua, Lamekena hiruretan hogoi eta hamazazpi aldiz.

25. Adamek berriz ere ezagutu zuen bere emaztea: eta hunek izan zuen seme bat Seth deithu zuena, erraten zuelarik: Jaunak, Abel Kainek hil zuenaren orde, eman izan darot bertze ondore bat.

26. Sethen ganik ere sorthu zen seme bat Enos deithu zuena: hau hasi izan zen Jaunari dei egiten.

## V. KAP.

1. Huna Adamen ondoregoaren liburua. Jainkoak noizere egin baitzuen gizona, bere iduritara egin izan zuen.

2. Egin zituen gizonki eta emazteki, eta benedikatu izan zituen: eta Adam deithatu hekien egiteko egunean.

3. Adam bizi izan zen ehun eta hogoi eta hamar urthe, eta aitatu zen seme batez dena bere eite eta idurikoa, eta deithatu zuen Seth.

4. Sethez aitatur geroztik, Adam bizi izan zen zortzi ehun urthe: eta izan zituen semeak eta alabak.

5. Eta Adamen biziaren iraupen guzia izan zen bederatzi ehun eta hogoi eta hamar urthe, eta gero hil zen.

6. Seth ere bizi izan zen ehun eta bortz urthe, eta gero aitatu zen Enosez.

7. Eta Enosez aitatur geroztik, Seth bizi izan zen zortzi ehun eta zazpi urthe, eta izan zituen semeak eta alabak.

8. Eta Sethen bizitze guziak iraun zuen bederatzi ehun eta hamabi urthe, eta gero hil izan zen.

9. Enos bizi izan zen lau hogoi eta hamar urthe, eta aitatu zen Kainanez.

10. Hau sorthuz geroztik, bizi izan zen zortzi ehun eta hamabortz urthe, eta izan zituen semeak eta alabak.

11. Eta haren bizi guziak iraun zuen bederatzi ehun eta bortz urthe, eta gero hil izan zen.

12. Kainan ere bizi izan zen hirur hogoi eta hamar urthe, eta aitatu zen Malaleelez.

13. Eta Malaleel sorthuz geroztik, bizi izan zen zortzi ehun eta berrogoi urthe, eta izan zituen semeak eta alabak.

14. Eta Kainanen bizi guziak, iraun zuen bederatzi ehun eta hamar urthe, eta gero hil izan zen.

15. Malaleel bizi izan zen hirur hogoi eta bortz urthe, eta aitatu zen Jaredez.

16. Eta Jaredz aitatur geroztik, bizi izan zen zortzi ehun eta hogoi eta hamar urthe, eta izan zituen semeak eta alabak.

17. Eta Malaleelen bizi guziak iraun zuen zortzi ehun eta lau hogoi eta hamabortz urthe, eta gero hil izan zen.

18. Jared hirur hogoi eta bi urthe bizi izan zen, eta aitatu zen Henokez.

19. Eta Henokez aitatur geroztik, Jared bizi izan zen zortzi ehun urthe, eta izan zituen semeak eta alabak.

20. Eta Jareden bizi guziak iraun zuen bederatzi ehun eta hirur hogoi eta bi urthe, eta gero hil izan zen.



21. Bada Henok bizi izan zen hirur hogoi eta bortz urthe, eta aitatu zen Mathusalemez.

22. Eta Henok ibili zen Jainkoarekin; eta Mathusalemez aitatur geroztik, bizi izan zen hirur ehun urthe, eta izan zituen semeak eta alabak.

23. Eta Henoken bizi guziak iraun zuen hirur ehun eta hirur hogoi eta bortz urthe,

24. Eta ibili zen Jainkoarekin, eta etzen gehiago agertu, Jainkoak eram zuelakotz.

25. Mathusalem ere bizi izan zen ehun eta lau hogoi eta zazpi urthe, eta aitatu zen Lamekez.

26. Eta Mathusalemez aitatur geroztik, bizi izan zen zazpi ehun eta lau hogoi eta bi urthe, eta izan zituen semeak eta alabak.

27. Eta Mathusalemen bizi guziak iraun zuen bederatzia ehun eta hirur hogoi eta bederatzia urthe, eta gero hil izan zen.

28. Lamek bizi izan zen ehun eta lau hogoi eta bi urthez, eta aitatu zen seme batez,

29. Zeina deithu baitzuen Noe, erraten zuelarik: Hunek lagunduko gaitu gure egite eta lanetan, Jaunak madarikatu izan duen lur hunen gainean.

30. Eta Noez aitatur geroztik, bizi izan zen bortz ehun eta lau hogoi eta hamabortz urthe, eta izan zituen semeak eta alabak.

31. Eta Lameken bizi guziak iraun zuen zazpi ehun eta hirur hogoi eta hamabortz urthe, eta gero hil izan zen. Noe, bortz ehun urthetan aita-tu zen Semez, Kamez eta Japhetez.

## VI. KAP.

1. Gizonak hasi zirenean populatzen lurraren gainean eta alabak izan ondoan,

2. Jainkoaren semeek ikhusirik gizonen alabak ederrak zirela, emaztetzat hartu zituzten guzien artean hautatu zituztenak.

3. Eta Jainkoak erran zioten: Ene izpiritua ez da bethi egonen gizonarekin, zeren haragi den, eta haren egunak izanen dira ehun eta hogoi urthez.

4. Bada ordu hetan lurrean baziren diganteak. Ezen Jainkoaren semeak gizonen alaben baithan sarthuz geroztik, haukietarik athera ziren botheretsu eta giza-mendean aiphatuak ziren gizonak.

5. Baina Jainkoak ikhusirik handia zela lurrean gizonen maltzurkeria, eta bethi hekien bihotzeko gogoeta guziak gaizkira ixuriak zaudezila,

6. Urrikitu zitzaioen zeren egin izan zuen gizona lurrean. Eta bihotz-min batek jorik,

7. Erran zuen: Lurraren gainetik xahutuko dut egin izan dudana gizona, gizonetik abereetaraino, zierpetarik zeruko hegastinetaraino: ezen urriki dut hekiek eginik.

8. Baina Noek grazia aurkhitu zuen Jaunaren aitzinean.

9. Huna Noeren ondoreak. Noe izan zen gizon zuzen eta perfet bat bere ondokoen artean, eta Jainkoarekin ibili izan zen.

10. Eta izan zituen hirur seme, Sem, Kam eta Japhet.

11. Baina lurra Jainkoaren begietan galdua zen eta tzarkeriaz bethea.

12. Jainkoak ikhusi zuenean beraz lurra galdua zela (ezen haragi orok zikhindu zuen bere bidea lurraren gainean),

13. Erran zioen Noeri: Ene aitzinean ethorria da haragiaren azken ordua: lurra bethea da hekien tzarkeriez, eta nik xahutuko ditut lurrarekin.

14. Zuretzat arkha bat egizu zur aphainduz: egonlekhuak eginen dituzu arkhan, eta naslikaz ferekatuko duzu barnetik eta kanpotik.

15. Eta huna nola eginen duzun: arkha izanen da luze hirur ehun besoz, zabal berrogoi eta hamarrez, eta gora hogoi eta hamarrez.

16. Arkhan eginen duzu leihoa bat beso baten goratasuna izanen duena: arkhari saihtsetik emanen diozu athea: eta barnean gelak eta hirur selharu eginen dituzu.

17. Huna nik erakharriko ditudala lurraren gainera uholdeko urak, eta hilen dudala haragi zeruaren azpian hatsa dagokan guzia: lurraren gainean diren gauza guziak izan ditezela xahutuak.

18. Eta ene patua zurekin eginen dut: eta zu sarthuko zare arkhan, eta zurekin batean zure emaztea, zure semeak eta beren emazteak.

19. Eta abere mota guzietarik pare bat sarraraziko duzu, urrixa eta orotsa, zurekin bizi ditezentzat.

20. Hegastinetarik beren moten arabera, eta aziendetarik beren moten arabera, eta lurreko zierpetarik beren moten arabera pareak zurekin sarthuko dira, bizi ahal izan ditezentzat.

21. Hartuko duzu beraz zurekin jan ditakeen hazkurri guzietarik, eta ezarriko dituzu arkhan: eta baliatuko dira zuri eta hekiei janharitzat.

22. Noek egin zituen beraz Jainkoak manatu ziozkan guziak.

## VII. KAP.



1. Eta Jainkoak erran zioen: Arkhan sar zaite zu, eta zure etxeko guziak ere: ezen zuzena aurkhitu zaitut ene begietan oraiko giza-mendean.
2. Abere garbi guzietarik har zatzu zazpi eta zazpi, urrix eta orots, eta lohietarik bia eta bia.
3. Eta zeruko hegastinetarik zazpi, eta zazpi, ar eta eme: mota begira dadien lur guziaren hedaduran.
4. Ezen oraino zazpi egun, eta gero uria erorraraziko dut lurraren gainera berrogoi gau-egunez: eta lurraren gainetik ezeztatuko ditut egin izan ditudan guziak.
5. Noek egin zituen beraz Jaunak manatu ziozkien guziak.
6. Sei ehun urthe bazituen uholdeko urek gaindi egin zutenean lurraren gainean.
7. Eta Noe sarthu zen arkhan eta haren semeak, eta haren emaztea eta haren semeen emazteak harekin batean, uholdeko uren gatik.
8. Abereetarik ere, garbietarik eta lohietarik, eta hegastinetarik, eta lurraren gainean higitzen diren guzietarik,
9. Pareak, urrix eta orotsak, Noerekin arkhan sarthu ziren, Jaunak manatu izan zuen bezala.
10. Eta zazpi egunak iragan ondoan, uholdeko urek gaindi egin zuten lurraren gainean.
11. Noeren biziko sei ehungarren urthean, bigarren hilabetehean, hila-bethearen hamazazpigarren egunean, leze handiko ithurri guziak urratu ziren, eta zeruko ur-jauziak zabaldu.
12. Eta berrogoi gau-egunez uria egin zuen lurraren gainera.
13. Egun haren hastean, Noe arkhan sarthu zen, eta harekin Sem, Kam eta Japhet haren semeak, eta haren emaztea, eta haren semeen hirur emazteak.
14. Berak eta edozein basabere bere motaren arabera, eta azienda guziak beren moten arabera, eta lurraren gainean higitzen diren guziak beren moten arabera, eta edozein hegastin bere motaren arabera, xori guziak, eta hegaldatzen diren guziak,
15. Noeren gana arkhan sarthu ziren birazka haragi orotarik hatsa zutenetarik,
16. Eta barneratu ziren orotsak eta urrixak ziren mota guzitakoak, Jainkoak Noeri manatu izan zioen bezala; eta Jaunak Noe hertsu zuen kanpotik.
17. Eta berrogoi egunez uholdea egin zen lurraren gainean: eta urak handitu ziren, eta arkha altxatu zuten lurretik goiti.

18. Muthiriki ezen hedatu ziren, eta lurreko bazter guziak bethe zituzten: bada, arkha zabilan uren gainean.

19. Eta urak hainitz goratu ziren lurraren gainean: eta zeruaren azpian diren mendi gora guziak estaliak izan ziren.

20. Ura, estali zituen mendietarik hamabortz beso gorago igan zen.

21. Eta xahutuak izan ziren lurraren gainean higitzen diren guziak, hegastinak, basabereak, aziendak eta lurraren gainean herrestatzen diren zierpe guziak, gizon guziak;

22. Eta lurraren gainean hatsa zuten guziak hil izan ziren.

23. Eta Jaunak xahutu zituen lurraren gainean ziren guziak, gizone-tik abereraino, hala zierpeak nola zeruko hegastinak: eta lurretik ezeztatuak izan ziren: eta Noe gelditu zen bakharririk, eta harekin arkhan zirenak.

24. Eta urek lurra estalia iduki zuten ehun eta berrogoi eta hamar egunez.

### VIII. KAP.

1. Bainen Jainkoa orhoiturik Noez, eta harekin arkhan ziren basabere eta azienda guziez, haize bat igorri zuen lurrera, eta urak ttipitu ziren.

2. Eta lezeko ithurriak hertsuak izan ziren, eta zeruko ur-jauziak ere bai: eta zerutik jausten ziren uriak athertuak izan ziren.

3. Eta urak haratka eta hunatka ibiliz goan ziren lurretik: eta gutitzen hasi ziren ehun eta berrogoi eta hamar egunen buruan.

4. Eta zazpigarren hilabeteheko hogoi eta zazpigarren egunean, arkha baratu zen Armeniako mendien gainean.

5. Bizkitartean urak bethi ttipituz zihoazin hamargarren hilabete-raino: ezen hamargarren hilabeteheko lehenbiziko egunean, mendi kasko-ak agertu ziren.

6. Berrogoi egun iragan zirenean, Noek, arkhari egin izan zioen leihoa idekirik, igorri zuen belea.

7. Zeina atheratzen baitzen eta ez itzultzen urak lurraren gainean agortu arteo.

8. Haren ondotik, Noek igorri zuen usoa ere ikhustekotzat hea urak goan ziren oraina lurraren gainetik.

9. Bainen hunek ez khausiturik non pausa zangoa, arkhara bihurtu zen Noeren gana: urak ezen hedatuak ziren lur guzian: eta Noek luzatu zioen besoa, hartu zuen eta arkhara sarthu.

10. Begira egonik bertze zazpi egun oraino, arkhatik igorri zuen berriz usoa.





11. Eta hau arratsalde aphalean ethorri zitzaioen, oliba adar bat zakharrela mokoan bere hosto ferdeekin. Noek ezagutu zuen beraz urek lurra utzi zutela.

12. Halere bertze zazpi egun begira egon zen: eta igorri zuen usoa, zeina ez baitzitzaioen gehiago bihurtu.

13. Huneletan, Noeren sei ehun eta batgarren urthean, lehenbiziko hilabeteke lehen egunean, urak gutituak ziren lurraren gainean, eta Noek, arkhako hegaztegia idekirik, begiratu zuen eta ikhusi lurraren azala idortua zela.

14. Bigarren hilabeteke hogoi eta zazpigarren egunean, lurra agortua gelditu zen.

15. Eta Jainkoa Noeri mintzatu zitzaioen, erraiten zioelarik:

16. Ilkhi zaitze arkhatik, zu eta zure emaztea, eta zure semeak, eta zure semeen emazteak zurekin.

17. Eta zurekin diren abere guziak, mota orotakoak, hala hegastinetarik, nola abereetarik eta lurrean herrestatzen diren zierpetarik, eraman zatzu zurekin, eta athera zaitze lurraren gainera; berha eta popula zaitzete haren gainean.

18. Noe ilkhi zen beraz, eta harekin haren semeak eta haren emaztea, eta haren semeen emazteak.

19. Eta basabere guziak, eta aziendak, eta lurraren gainean herrestatzen diren zierpeak, zein bere motaren arabera, athera ziren arkhatik.

20. Eta Noek altxatu zioen aldare bat Jaunari: eta harturik azienda eta hegastin garbi guzietarik holokausta bat eskaini zioen aldarearen gainean.

21. Eta Jaunak urrindatu zuen gogozko usaina, eta erran zuen: Ez dut behinere gehiago lurra madarikatuko gizonen gatik: ezen gizonaren izpiritua eta asmua haurretik gaizkira ekharriak dira: ez ditut beraz gehiago bizi diren guziak joko egin izan dudana bezala.

22. Lurrak diraueno, eraiteak eta biltzeak, hotza eta beroa, uda eta negua, gaua eta eguna, ez dira baratuko.

## IX. KAP.

1. Eta Jainkoak benedikatu zituen Noe eta bere semeak. Eta erran zioten: Berha eta popula zaitzete, eta lurra bethe zazue.

2. Eta lurreko abere guziak eta zeruko hegastin guziak, eta lurraren gainean higitzen diren guziak izan beitez zuen beldurrean eta lotsan: itsasoko arrain guziak ezarri ditut zuen eskuan.

3. Higitzen eta bizi diren guziak izanen dira zuen hazkurri: utzi darozkitzuet guziak hala nola belhar berdatzen direnak.

4. Erresalbu egiten dut ez dezazuen jan haragia odolarekin.

5. Ezen bilhatuko dut zuen biziko odola abere guzien ganik: eta bilhatuko dut gizonaren bizia atzearen edo anaiaren eskutik.

6. Nornahik ixuri izan baituke gizonaren odola, ixuria izanen da harena ere: ezen gizona Jainkoaren idurira egina izan da.

7. Berha zaitzete beraz, zuek, eta popula zaitzete, sar zaitzete lurraren gainera, eta bethe zazue hura.

8. Hau ere Jainkoak erran zioen Noeri eta harekin batean haren semeei:

9. Huna non eginen dudana patu zuekin, eta zuen ondotik zuen ondoregoarekin,

10. Eta zuekin diren abere guziekin, hala hegastinetan, nola aziendetan eta lurreko basabereetan, arkhatik athera izan direnatan, eta lurreko abere guzietan.

11. Ene patua eginen dut zuekin, eta gaurgero ez da haragi bizia uholdeko urez xahutuko guzia, eta hemendik aitzina ez da uholderik izanen lurra hondatuko duenik.

12. Jainkoak erran zuen gero: Huna bethiko mendeetan zuekin dudana batasuneko seinale ematen dudana ene eta zuen artean eta arima bizi guzientzat.

13. Hedoietan ezarriko dut ene arranbela, eta hura izanen da ene eta lurraren arteko patuaren seinalea.

14. Eta zerua hedoi ezarriko dudanean, ene arranbela hedoietan agertuko da;

15. Eta orhoituko naiz ene zuekilako patuaz eta haragia ernatzen duten arima bizi guziekilakoaz: eta ez da gehiago izanen uholdeko urik bizi diren guziak xahutuko dituztenik.

16. Eta hedoietan izanen da arranbela, eta begiratuko diot, eta orhoituko naiz bethiko patu badela Jainkoaren eta lurraren gainean den haragi orotako arima biziaren artean.

17. Eta Jainkoak erran zioen Noeri: Hau izanen da lurraren gaineko haragi ororekin egin izan dudana patuaren seinalea.

18. Beraz arkhatik ilkhi ziren Noeren semeak hirur ziren, Sem, Kam eta Japhet. Bada, Kam zen Kanaanen aita.

19. Horiek ziren Noeren hirur semeak: eta horietarik barriatu izan da bazter orotan gizon iraulgi guzia.

20. Noe laboraria zen eta abiatu zen lurraren lantzen, eta landatu zuen mahastia.



21. Eta arnoa edanik mozkortu zen, eta bere olhan alderdiak agertu zituen.
22. Kam, Kanaanen aitak hori ikhusi zuenean, aitak alderdiak ageri zituela, kanpora bere bi anaiei erratera goan zitzaioten.
23. Bainan Sem eta Japhetek kapa bat ezarri zuten beren sorbaldetan, eta gibelka goanez aitaren alderdiak estali zituzten: eta begitharteak zituzten bertze aldera itzuliak, eta etzituzten aitaren alderdiak ikhusi.
24. Noek, bere mozkorretik atzartzearekin, jakin zuenean zer egin zioen bere bigarren semeak,
25. Erran zuen: Kanaan, madarikatua izan bedi, eta bere anaien sehien sehia.
26. Erran zuen oraino: Benedikatua Semen Jainko Jauna, haren sehi izan bedi Kanaan.
27. Jainkoak hedaraz beza Japhet, eta bere egoitza egin beza Semen olhetan, eta Kanaan izan bedi haren sehi.
28. Bada, uholdeaz gerroz, Noe bizi izan zen oraino hirur ehun eta berrogoi eta hamar urthe.
29. Eta haren adinak hartu zituen bederatzia ehun eta berrogoi eta hamar urthe, eta hil izan zen.

### X. KAP.

1. Huna Noeren seme Sem, Kam eta Japheten ondoreak, eta uholdeaz gerroz sorthu izan zitzaizkoten semeak.
2. Japheten semeak: Gomer, Magog, Madai, Jaban, Thubal, Mosok eta Thiras.
3. Gomerren semeak: Aszenez, Erriphath eta Thogorma.
4. Jabanen semeak: Elisa, Tharsis, Zethim eta Dodanim.
5. Haukiek beren herritzat phartitu zituzten jendaien irlak, zeinak bere mintzaiaren eta ethorkhiaren arabera, beren jendakitan.
6. Kamen semeak: Kus, Mesraim, Phuth eta Kanaan.
7. Kuzen semeak: Saba, Hebila, Sabatha, Erregma, eta Sabataka. Erregmaren semeak: Saba eta Dadan.
8. Bada Kusek izan zuen Nemrod: hau hasi zen botheretsu izaten lurraren gainean.
9. Eta hau izan zen ihiztari handi Jaunaren aitzinean. Hortarik athera zen erran zaharra: Nemrod bezala ihiztari handi Jaunaren aitzinean.
10. Haren erreinuko buru izan zen Babilona eta bertzeak ziren Arak, Akad eta Kalane, Senaarreko lurrean.

11. Lur hartarik athera izan zen Asur, zeinak egin baitzituen Ninibe eta hiriko plazak, eta Kale,
12. Eta Erresen ere, Niniben eta Kalen artean, hura baita hiri handi bat.
13. Mefraim aitatu zen Ludimez, Anamimez, Laabimez eta Nephthuimez,
14. Phetrusimez eta Kasluimez, zeinetarik ilkhi baitira Filistindarrak eta Kaphtorimarrak.
15. Kanaanek izan zituen Sidon, bere seme zaharrena, Hethe,
16. Jebuse, Amorhe, Jerjese,
17. Hebe, Araze, Sine,
18. Aradi, Samare, eta Amathe; eta horietarik barraiatu ziren Kananearren jendaiak.
19. Kanaanek zedarriak izan ziren Sidonetik Jeraramera heldu den bezala Gazaraino, sarthu artekan Sodomak, Gomorhen, Adaman, eta Seboimen Lesaraino.
20. Horra Kamen semeak beren ahaidego, mintzaia, ondorego, lur eta jendakietan.
21. Sem, Heberren seme guzien aita eta Japheten anaia zaharrena ganik sorthu ziren:
22. Semen semeak: Elam, Asur, Arphaksad, Lud eta Aram.
23. Aramen semeak: Us, Hui, Jether eta Mes.
24. Arphaksadek izan zuen Sale, zeinetarik athera baitzen Heber.
25. Heberrek izan zituen bi seme: batek izena zuen Phaleg, lurra haren egunetan phartitua izan zelakotz: eta haren anaiaren izena zen Jektan.
26. Jektanek izan zituen Elmodad, Saleph, Asarmuth, Jare,
27. Aduram, Usal, Dekla,
28. Ebal, Abimael, Saba,
29. Ophir, Hebila eta Jobab; haukiek oro Jektanen semeak.
30. Haukien egon-lekhua zen Mesatik heldu den bezala Sepharreraino, zeina baita iguzki-sorthaldeko mendi bat.
31. Horra Semen semeak, beren ahaidego, mintzaia eta berrien arabera beren jendakietan.
32. Horra Noeren ondokoak beren populu eta jendakietan. Horietarik berezi izan dira lurraren gainean jendaiak uholdearen ondoan.

### XI. KAP.



1. Bada lurrak etzuen hizkuntza bat baizik eta molde berean mintzatzzen ziren oro.
2. Eta gizonak abiatu zirenean iguzki-sorthaldetik, zelhai bat aurkhitu zuten Senaarreko lurrian, eta han egin izan zuten beren egoitza.
3. Eta batak bertzeari erran zioten: Zatozte, adrailuak egin detzagun eta erre detzagun suan. Izan zituzten beraz adrailuak harri orde, eta naslika zimendutzat.
4. Eta erran zuten: Zatozte, guretzat egin detzagun hiri bat eta dorre bat, kaskoaz zerua joko duena: eta ospetan ezar dezagun gure izena, bazter guzietara barraia gaiten baino lehen.
5. Jauna jautsi izan zen bada Adamen semeek egiten zituzten hirien eta dorrearen ikhustera.
6. Eta erran zuen: Huna populu bakhar bat, eta orok mintzaia bera dute; eta hasi dute lan hau, eta ez dute burutik utziko osatu artekan.
7. Zatozte beraz, jauts gaiten, eta hor nahas dezagun horien hizkuntza, batak bertzea adi ez dezantzat.
8. Eta horrela barraiatu zituen Jaunak toki hartarik bazter guzietara, eta utzi zuten hiriaren egitea.
9. Aria hortaz hiriari emana izan zitzaioen izentzat Babel, han nahaia izan zelakotz lur guziko mintzaia: eta Jaunak barraiatu zituen gizonak handik bazter orotara.
10. Hina Semen ondokoak: Semek ehun urthe bazituen Arphaksad izan zuenean, uholdea iragan-eta bi urtheren buruan.
11. Eta Arphaksad izanez geroz, Sem bizi izan bortz ehun urthe, eta izan zituen semeak eta alabak.
12. Arphaksadek hogoi eta hamabortz urthetan izan zuen Sale.
13. Sale izanez geroztik, Arphaksad bizi izan zen hirur ehun urthe, eta izan zituen semeak eta alabak.
14. Salek hogoi eta hamar urthetan izan zuen Heber.
15. Eta Heber izanez geroztik, Sale bizi izan zen lau ehun eta hirur urthe, eta izan zituen semeak eta alabak.
16. Heberrek hogoi eta hamalau urthetan izan zuen Phaleg.
17. Eta Phaleg izanez geroztik, Heber bizi izan zen lau ehun eta hogoi eta hamar urthe, eta izan zituen semeak eta alabak.
18. Phalegek hogoi eta hamar urthetan izan zuen Erreu.
19. Eta Erreu izanez geroztik, bizi izan zen berrehun eta bederatzi urthe, eta izan zituen semeak eta alabak.
20. Erreuek hogoi eta hamabi urthetan izan zuen Sarug.

21. Eta Sarug izanez geroztik, Erreu bizi izan zen berrehun eta zazpi urthe, eta izan zituen semeak eta alabak.
22. Sarugek hogoi eta hamar urthetan izan zuen Nakor.
23. Eta Nakor izanez geroztik, Sarug bizi izan zen berrehun urthe, eta izan zituen semeak eta alabak.
24. Nakorrek hogoi eta bederatzi urthetan izan zuen Thare,
25. Eta Thare izanez geroztik, Nakor bizi izan zen ehun eta hemeretzi urthe, eta izan zituen semeak eta alabak.
26. Thare bizi izan zen hirur hogoi eta hamar urthe, eta izan zituen Abram, Nakor eta Aran.
27. Huna zein diren Thareren ondokoak: Tharek izan zituen Abram, Nakor eta Aran. Bada Aranek izan zuen Lot.
28. Eta Aran hil izan zen Thare bereaita baino lehen, bere sortherrian, Ur Kaldeakoan.
29. Abram eta Nakor ezkondu izan ziren: Abramem emaztea deitzen zen Sarai, eta Nakorrena Melka, Aranek alaba, eta Aran zen Melkaren eta Jeikaren aita.
30. Bada Sarai agorra zen eta etzuen haurrik.
31. Tharek hartu zituen Abram bere semea, Lot bere ilobasoa eta Aranek semea, eta Sarai bere erreina, bere seme Abramem emaztea, eta ilkhi zituen Ur Kaldeakotik, Kanaango lurrera goanaraztekoztat: eta ethorri ziren Haraneraino eta han egin izan zuten beren egoitza.
32. Eta Thare bizi izan zen berrehun eta bortz urthe, eta hil izan zen Haranen.

## XII. KAP.

1. Bainen Jaunak erran zioen Abrami: Ilkhi zaite zure lurretik, eta zure ahaidegotik, eta zure aitaren etxetik, eta zato nik erakhutsiren darotzutuan lurrera.
2. Zutarik atheratuko dut jendaia handi bat, benedikatuko zaitut, eta handietsiko dut zure izena, eta benedikatua izanen zare.
3. Benedikatuko ditut benedikatzeko zaituztenak, eta madarikatuko ditut madarikatzeko zaituztenak, eta zu baithan benedikatuak izanen dira lurreko jendaki guziak.
4. Jaunak manatu izan zioen bezala, Abram ilkhi izan zen beraz, eta Lot goan zen harekin. Abramek hirur hogoi eta hamabortz urthe zituen Haranetik athera zenean.



5. Hartu zituen Sarai bere emaztea eta Lot bere anaiaren semea, eta zituzten ontasun guziak, eta Haranen sorthu izan zitzaizkoten haurrak; eta ilkhi ziren Kanaango lurrera goatekotzat. Hartara heldu izan zirenean,

6. Abramek trebesatu zuen tokia Sikemgo lurreraino, eta haran Ospetsuraino: Kananearra zagoen orduan ephaitza hekietan.

7. Bada Jauna agertu zitzaioen Abrami, eta erran zioen: Lur hau emanen diotet zure ondoreei. Eta Abramek lekhu hartan altxatu zioen aldare bat Jaunari, zeren han agertu baitzitzaioen.

8. Eta handik iraganik mendi batera, Betheldik iguzki-sorthaldera zenera, han jarri zuen bere olha, Bethel zuela iguzki-sartzera eta Hai iguzki-atheratzera: han ere altxatu zioen aldare bat Jaunari, eta dei egin zioen haren izenari.

9. Gero Abram goan zen aitzinat, urrunago jotzen zuelarik hegoaldera.

10. Bainan gosete bat egin zen toki hartan: eta Abram jautsi izan zen Egiptora, han ibiltzekotzat, ezen gosetea nausitua zen herrian.

11. Eta Egiptoan sartzera zihoalarik, erran zioen Sarai bere emazteari: Badakit emazte eder bat zarela;

12. Eta Egiptoarrek ikhusiko zaituztenean erranen dute: Horren emaztea da: eta hilen naute, eta zu atxikiko zaituzte.

13. Errazu beraz, othoi, ene arreba zarela: ontsa gertha dakidan zu gatik, eta bizia zure ariaz begira dezadantzat.

14. Bada Abram Egiptoan sarthu zenean, Egiptoarrek ikhusi zuten emazteki hura hainitz ederra zela.

15. Eta aitzindariak jakintsun egin zuten Faraon eta haren baithan espantu egin zuten Saraiez: eta andre hori eramana izan zen Faraonen etxera.

16. Bainan Abrami ongi egin zioten haren ariaz: eta izan zituen ardiak, idiak, astoak, muthilak eta neskatoak, asto urrixak eta kameluak.

17. Bainan Jaunak gaitz handiz jo zituen Faraon eta haren etxeoak, Sarai Abramen emaztearen ariaz.

18. Faraonek deithu zuen Abram, eta erran zioen: Zer da niri egin darotazun hau? zertako ez darotazu erran zure emaztea zela?

19. Zer ariaz erran darotazu zure arreba zela, gero nik andretzat har nezan? Orai bada horra zure emaztea, har zazu, eta zoazi.

20. Eta Faraonek Abramen gainean eman ziotzaten bere gizonei manuak: eta haukiek Egiptoan kanpora eraman zuten hura, haren emaztea eta haren puska guziak.

### XIII. KAP.

1. Abram igan zen beraz Egiptotik hegoaldera, bera, eta bere emaztea, bere puska guziekin, eta Lot harekin.

2. Bada Abram hainitz aberats zen urhezko eta zilharrezko ontasunez.

3. Eta itzuli zen ethorri bidez, hegoaldetik Bethelera, lehenago Bethel eta Hai artean bere olha jarri izan zuen lekhura,

4. Aldarea lehenago altxatu izan zuen tokira, eta han deithu zuen Jaunaren izena.

5. Bainan Lot Abramekin zenak ere ardi eta idi arthaldeak bazituen eta olhak ere bai.

6. Lekhua etzen aski zabala bientzat batean, ezen hekien ontasuna hain zen handia non elkharrekin ezin egon baitzitazkeen.

7. Hortarik athera zen eskatima bat Abramen eta Loten artzainen artean. Bada orduan Kananearra eta Pherezearra egoten ziren aurkhintza hartan.

8. Abramek erran zioen beraz Loti: Zure eta ene artean, zure artzainen eta eneen artean, eztadiela, othoi, khimerarik izan: ezen anaiak gare guziak.

9. Huna lurra oro non dagoen zure aitzinean: berez zaite, othoi, ni ganik: ezker balin bazoazi, nik hartuko dut eskuin: eskuina hautatzen baduzu, nik eginen dut ezker.

10. Lotek beraz begiak altxaturik, begiratu zioen Jordan hegiko bazterriari, zeina, Jaunak Sodoma eta Gomorra xahutu baino lehen, guzia urztatua baitzen, baratze bat iduri eta Egipto bezala, Segorrera deraman bidean.

11. Eta Lotek beretzat hautatu zuen Jordan inguruko bazterra, eta goan zen iguzki-sortaldetik: eta anaiak elkharganik berezi ziren.

12. Abram egon zen Kanaango lurrean: Lot baratu zen Jordan inguruko hirietan, eta bere egoitza egin zuen Sodomari.

13. Bada Sodomarrak gizon tzarrak ziren eta bekhatoros handiak Jainkoaren aitzinean.

14. Eta Jaunak erran zioen Abrami, Lot haren ganik berezi izan zen ondoan: Altxa zatzu begiak, eta begira zazu zaren tokitik ipharrera eta hegoara, iguzki-sortaldera eta etzinaldera.

15. Begiratzen diozun lur hori guzia emanen dut zuri eta zure ondokoei eguneta-bethiko,



16. Zure ondoregoa populatuko dut lureko herrautsa bezala: gizonek balin bada lureko herrautsa khonda dezakeenik, khondatuko ahal ere du zure ondoregoa.

17. Xuti zaite beraz, iragan zazu lur hori luzean eta zabalean; ezen zuri ematekotan naiz hori.

18. Abram beraz, bere olha aldaraturik, ethorri zen egotera Manbreko haran ondora, Hebron denera: eta han aldare bat altxatu zioen Jaunari.

#### XIV. KAP.

1. Ordu hartan gerthatu zen Amraphel, Senaarreko erregek, Ariok Ponteko erregek, Kodorlahomor Elamitarren erregek, eta Thadal jendaiaren erregeak

2. Gerla eman zutela Bara Sodomako erregeri, Bersa Gomorhako erregeri, Senaab Adamako erregeri. Semeber Seboimgo erregeri, eta Balako erregeri: Bala eta Segor biak bat dira.

3. Haukiek bildu ziren guziak Oihanetako haranera, zeina baita orai Itsas-gazia.

4. Bada hamabi urthez izanak ziren Kodorlahomorren azpiko, eta hamahirugarren urthean aldaratu ziren haren ganik.

5. Beraz hamalagarren urthean Kodorlahomor ethorri zen berekin zituen erregeekin: eta jo zituzten Erraphaimarrak Astarothkarnaimen, eta Zuzimarrak hekiekin, eta Emimarrak Sabe-Kariathaimen,

6. Eta Korrearrak Seirreko mendietan, Pharan, mortuan deneko zelhaietaraino.

7. Eta gibelerat itzulirik ethorri ziren Mispateko ithurrira, Misphat baita Kades, eta xehatu zituzten Amalektarren tokiak eta Amorhearrena zeinak baitzauden Asasonthamarren.

8. Eta Sodomako errege, Gomorhako, Adamakoa, Seboimgoa eta Bala edo Segorrekoa athera ziren eta beren armada erakharri zuten Oihanetako haranera hekien kontra;

9. Erran nahi da Kodorlahomor Elamitarren erregearen kontra, Thadal jendaiaren erregearen kontra, Amraphel Senaarreko erregearen kontra, eta Ariok Ponteko erregearen kontra: lau errege bortzen kontra.

10. Bazen bada Oihanetako haranean hainitz nastika putzu. Sodomako erregek eta Gomorhakoak ihesari eman zuten eta putzu hekie-tara erori ziren: eta gelditu zirenek mendira ihes egin zuten.

11. Eta garailleek eraman zituzten Sodomako eta Gomorhako ontasunak oro, eta jateko on ziren guziak, eta goan ziren.

12. Bere puskekin eraman ere zuten Lot, Abram anaiaren semea, Sodomako zagoena.

13. Eta huna itzuri zirenetarik batek jakintsun egiten duela Abram Hebrearra, zeina baitzagoen Manbre Amorhear, Eskolen anaiaren eta Anerren anaiaren haranean: ezen haukiek patuz josiak ziren Abramekin.

14. Abramek hori aditu zuenean, erran nahi Lot bere anaia hartua zuela, berezi zituen hirur ehun eta hemezortzi bere etxeko sehi biphilnetarik, eta jarraiki zen Daneraino.

15. Eta bere lagunak phartiturik, etsaien gainera erori zen gabaz, jo zituen eta jarraiki zitzaizoten Hobaraino, zeina baita Damaseko ezkerrean.

16. Eta gibelera ekharri zituen ontasun guzia, Lot bere anaia bere puskekin, emaztekiak ere eta jendea.

17. Sodomako errege athera zitzaioen bidera, itzuli zenean deseginik Kodolahomor eta harekin ziren erregeak Sabeko haranean, zeina baita Erregeren harana,

18. Melkhisedek bada, Salengo erregeak, ogia eta arnoa eskaintzen zituelarik, ezen Jainko gorenaren apeza zen,

19. Abram benedikatu zuen, zioelarik: Zerua eta lurra ezdeusetarik egin dituen Jainkoak benedika dezala Abram;

20. Eta benedika bedi Jainkoa, zeinaren laguntzaz etsaiak erori baitira zure eskuetara. Eta Abramek orotarik eman ziotzan hamarrenak.

21. Bada, Sodomako erregek erran zioen Abrami: Indatzu niri jendeak, eta har zatzu gainerakoak.

22. Abramek ihardetsi zioen: Eskua altxatzen dut Jainko zeru-lurren nausia gana,

23. Soinekoen haritik oinetakoen lokharriraino eztudala zure puska guzietarik deusere onhetsiko, erran ez dezazun: Nik aberastu dut Abram.

24. Ez naiz sartzen gazteriak jan duenean, eta enekin ethorri diren gizonei, Anerri, Eskoli eta Manbreri dagokiotenean; horiek hartuko dituzte beren zuzenak.

#### XV. KAP.

1. Horiek hola gerthatu ondoan, Jauna ikhuspen batean mintzatu zitzaioen Abrami, erraten zioelarik: Ez izan beldurrik, Abram, ni izanen naiz zure gerizatzalea eta zure sari guziz handia.

2. Abramek ihardetsi zioen: Jainko Jauna, zer emanen darotazu niri? hilen naiz ni haurrik gabe, Damask da Eliezer ene etxe-gizonaren semea.

3. Eta erran zuen oraino: Ez darotazut ondorerik eman; eta horra ene sehi bat izanen dela ene premu.



4. Ordu berean Jaunak ihardetsi zioen, erraten zioelarik: Ez da hori izanen zure premua, bainan zutarik atherako dena izanen duzu premu.
5. Eta kanpora ilkhiazirik, erran zioen: Begiak ematzu zerura, eta izarrak khonda zatzu, ahal baduzu. Eta erran zioen: Horrela izanen dira zure ondoreak.
6. Abamek sinhetsi zuen Jainkoa baithan, eta hori iratxikia izan zitzaioen zuzentasunerakotz.
7. Eta Jainkoak erran zioen: Ni naiz Jauna, Ur Kaldeakotik erakharri zaitudana, zuri emateko lur hau eta goza dezazuntzat.
8. Abamek erran zioen: Jainko Jauna, zertarik ezagut dezaket, huntuaz gozatuko naizela?
9. Eta Jauna ihardetsi zioen, erraten zioelarik: Har zatzu enetzat hirur urthetako behi bat, hirur urthetako ahuntz bat, eta hirur urthetako ahari bat, ttorttoila bat eta uso bat.
10. Abamek harturik hekiek guziak, egin zituen erdiz-erdi eta bi zat-hiak bi aldetara parrean-par ezarri: bainan xoriak osorik utzi zituen.
11. Eta hegastinak jautsi ziren hilikien gainera, eta Abamek haizatzten zituen.
12. Bainan iguzki sartzean, loa jautsi zen Abramena gainera, eta lastura handi beltz batek hartu zuen.
13. Eta errana izan zitzaioen: Jakin zazu aitzinetik zure ondoregoa ibildaun izanen dela atze lurretan, eta azpikotu dutela, eta lau ehun urthez zer jasan emanen diotela.
14. Bizkitirtean nik juiatuko dut jendaia, zeinaren azpiko izanen baita: eta gero ilkhiko dira ontasun handiekin.
15. Bainan zu, zahartze gozo batean hilik, bakean zure arbasoetara goanen zare.
16. Eta zure ondokoak laugarren gizamendean bihurtuko dira hunat: ezen Amorhearren gaixtakeriek ez dute orai arteo neurria bethe.
17. Bada iguzkia etzan-eta, ilhunbe beltz bat egin izan zen; sute khesu bat agertu zen, eta suzko kriselu bat haragi zathituen artetik iragaiten zena.
18. Egun hartan Jaunak egin zuen patu Abamekin, erraten zuelarik: Zure ondokoei emanen diotet lur hau Egiptoko hibaietik Ufrateko hibai-  
ra arteo;
19. Zinearrak, Zenezearrak, Zedmonearrak,  
20. Hethearrak, Pherezearrak, eta Erraphaimarrak ere,  
21. Amorhearrek, Kananearrak, Jerjefearrak, eta Jebusearrak.

21. Amorhearrek, Kananearrak, Jerjefearrak, eta Jebusearrak.

## XVI. KAP.

1. Beraz Sarai, Abramena emazteak, etzuen haurrik izatu; bainan neskato egiptoar bat bazuen, Agar deitzen zena,
2. Eta erran zioen bere senharrari: Huna non Jaunak hertsu nauen, ez amatzekotzat: Su zaite ene neskatoaren gana, hea hartarik bederen izan dezakedan semerik. Eta Abamek onhetsi zuenean haren othoitza,
3. Saraiek hartu zuen Agar, bere neskato Egiptoarra, Kanaango lurrean egoten hasiz geroztik hamar urtheren buruan, eta eman zioen bere gizonari andretzat.
4. Abram sarthu zen Agarren gana. Bainan hunek ikhusingur haurdun zela, erdeinatu zuen bere etxekandrea.
5. Eta Saraiek erran zioen Abrami: Gaizki zabilta ene gainean. Nerorrek ezarri darotzut ene neskatoa zure besoetan, eta hunek ikhusingur haurdun dela, erdeinutan naduka: Jaunak jua beza zure eta ene artean.
6. Abamek ihardetsi zioen: Huna zure neskatoa non duzun eskue-tan; egiozu nahi duzuna. Saraiek beraz jasanarazten ziolakotz, Agar eman zen ihesari.
7. Eta Jaunaren aingeruak atzeman zuenean eremuan, Surreko bidean, mortuan den ithur-uraren aldean,
8. Erran zioen: Agar, Saraie neskatoa, nondik heldu zare? eta nora zoazi? Ihardetsi zioen hunek: Sarai ene etxekandrearen begietarik ihes nabila.
9. Eta Jaunaren aingeruak erran zioen: Itzul zaite zure etxekandrea gana eta gurt zaite haren eskuaren azpian.
10. Eta berriz: Populatuko dut eta populatuko zure ondoregoa, eta ezin khondatua izanen da bere ostea gatik.
11. Eta erran zioen oraino: Huna non amatu zaren, eta erdiko zare seme batez; eta deithuko duzu Ismael, zeren Jaunak entzun baitu zure atsekabea.
12. Gizon muthiria izanen da; eskua altxatuko diote guziei, eta guziek altxatuko diote berari; eta bere olhak landatuko ditu bere anaia guzien ephaitzetan.
13. Orduan Agarre berari mintzo zitzaioen Jaunaren izenari dei egin zioen: Zu zare ni ikhusingur nauzun Jainkoa. Erran zuen ezen: Ikhusingur dut segurki niri gibeletik begira zagotana.
14. Hori gatik deithu zuen putzu hura, Bizi denaren eta niri begira dagoenaren putzua. Kadesen eta Baraden artean da.



15. Eta Agar seme batez erdi zitzaioen Abrami, zeinak deithu baitzuen Ismael.

16. Abramek lau hogoi eta sei urthe zituen, Agar Ismaelez erdi zitzaioenean.

### XVII. KAP.

1. Abram lau hogoi eta hemeretzigarren urthean sarthu ondoan, Jauna agertu zitzaioen, eta erran zioen: Ni naiz Jainko guziz botheretsua, ibil zaite ene aitzinean, eta izan zaite osoki xahu.

2. Ene patua ezarriko dut zure eta ene artean, eta populatuko zaitut ikharagarriki.

3. Abram ahuspeka erori zen.

4. Eta Jainkoak erran zioen: Ni naiz, eta ene patua zurekin, eta izanen zare asko jendaian aita.

5. Eta etzare gehiago deithuko Abram en izenaz; bainan deithuko zare Abraham, zeren ezarri baitzaitut hainitz jendaian aita.

6. Popularaziko zaitut ikharagarriki, eta ezarriko zaitut jendaian artean buruzagi, eta erregeak atherako dira zutarik.

7. Eta jarriko dut ene patua ene eta zure artean, eta zure ondoregoaren artean zure ondotik, bere gizaldietan, bethiko fedez; izan nadientsat zure Jainkoa, eta zure ondotik, zure ondokoena.

8. Eta emanen darotzuet zuri eta zure odolekoei zure erromeriako lurra, Kanaango lur guzia, bethi gozatzeko, eta izanen naiz zure eta hekien Jainkoa.

9. Jainkoak berriz erran zioen Abrahami: Eta zuk beraz begiratuko duzu enekilako patua, eta zure ondokoek ere bai zure ondotik beren gizaldietan.

10. Hau da ene patua, begiratuko duzuen ene eta zuen artean, eta zure ondokoek zure ondotik: Zuetarikako muthikoki guziak izanen dira ingurebakiak.

11. Eta ingurebakiko duzue buztan-mokoan haragia hori, izan nadientsat ene eta zuen arteko patuaren seinalea.

12. Zuen artean zortzi egunetako muthikokiak oro ingurebakiak izanen dira izaldi guzietan; eta sehia, nahiz etxean sorthua, nahiz eresia, ingurebakia izanen da, ez balitz ere zuen odoletik.

13. Eta ene patua zuen haragian izanen da bethiko batasunetan.

14. Eta muthilkia, zeinaren buztan-mokoan haragia ingurebakia izanen ez baita, heriotzez khendua izanen da populuaren artetik, zeren hautsi izan duen ene patua.

15. Jainkoak erran zioen oraino Abrahami: Sarai zure emaztea ez duzu deithuko Sarai, bainan bai Sara.

16. Eta benedikatuko dut hura, eta haren ganik emanen darotzut seme bat benedikatuko dudana, eta gora izanen da jendaietan, eta populuaren erregeak atherako dira haren ganik.

17. Abraham ahuspez erori zen, eta irri egin zuen, bere bihotzean erraten zuelarik: Uste dukezu ehun urthetako gizonari sorthuko zaioeala semerik? eta lau hogoi eta hamar urthetan Sarak eginen duela haurrik?

18. Eta erran zioen Jainkoari: Oxala Ismael bizi baledi zure aitzinean.

19. Eta Jainkoak erran zioen Abrahami: Sara zure emazteak emanen darotzu seme bat, Isaak deithuko duzuna, eta eginen dut harekin patu bat bethi iraunen duen batasunerako, eta haren ondotik haren ondoregoarekin.

20. Entzun zaitut Ismaelen gainean ere. Huna non benedikatuko dudan, eta hainitz berhatuko eta populatuko dut: hamabi aitzindari sorthuko dira haren ganik, eta bere ezarriko dut jendaia handi baten gainean.

21. Bainan ene patua hedatuko dut Isaaki zeintaz bertze urthean, urthemugan erdiko baita Sara.

22. Eta Jainkoak akhitu zuenean harekilako solasa, altxatu zen Abraham utzirik.

23. Orduan Abrahamek hartu zituen Ismael bere semea, eta bere sehi guziak, etxean sorthuak eta kanpotik erosiak, eta bere etxeko gizon guziak: eta berehala ingurebaki zioten egun berean buztan-mokoko haragia, Jainkoak manatu izan zioen bezala.

24. Abrahamek lau hogoi eta hemeretzi urthe zituen bere buruari buztan-mokoko haragia ingurebaki zioenean.

25. Eta Ismael haren semeak hamahirur urthe betheak zituen ingurephaitzako orduan,

26. Abraham eta Ismael bere semea egun berean izan ziren ingurebakiak;

27. Eta haren etxeko gizonki guziak ere, hala etxean sorthu sehiak, nola erosiak eta lekhu arrotzetan sorthuak, orobat izan ziren ingurebakiak.

### XVIII. KAP.

1. Bada, Abraham, egun batetako beroan, jarria zagoelarik bere olhao athean, Manbreko haranean, Jauna agertu zitzaioen.



2. Eta begiak altxatu zituenean, hurbilean xutik hirur gizon agertu zitzaizkon: ikhusi orduko, olhako athetik laster egin zuen hekien bidera, eta lurrera gurthuz adoratu zituen.

3. Eta erran zuen: Jauna, grazia zure begietan aurkhitu balin badut, etzaitela iragan zure zerbitzaria ganik urrunago.

4. Ekharriko darotzuet ur xorta bat zuen zangoen garbitzeko, eta pausa zaitezte zuhaitzaren azpian.

5. Ekharriko dut ogi pozi bat, eta barnea hazkartuko darotzuet: aitzina goanen zarete gero, hortakotzat ezen ethorri zareteke zuen zerbitzaria gana. Haukiek erran zioten: Egizu mintzatu zaren bezala.

6. Abrahamek herresakan egin zuen bere olhara Sararen gana, eta erran zioen: Higi zaite, gaitzeru bat irin orha zazu, eta ophilak hautspear erre zatzu.

7. Berriz, berak laster egin zuen aziendetara, eta handik hartu zuen aratxe guri-on bat, eta eman zioen muthil bati zeinak berehala errearazi baitzuen.

8. Hartu zituen burra eta esnea eta errearazi zuen aratxea eta pausatu zituen arrotzen aitzinean: bera xutik zagoen hekien aldean zuhaitzaren azpian.

9. Eta jan izan zutenean, erran zioten: Non da Sara zure emaztea? Ihardetsi zuen: Huna, olhan da.

10. Batek erran zioen: Gibelerakoan ethorriko natzaitzu urthemugan, bizirik izanen zare, eta Sara zure emazteak seme bat izanen du. Hori aditurik, Sara irriz egon zen olhako athe gibelean.

11. Biak ezen zaharrak ziren eta adin handitan, eta astagaitzak geldituak ziren Sara baithan.

12. Sarak ixilik irri egin zuen, zioelarik: Zahartu naizen ondoan eta ene jauna ere hautsi, atseginari biderik emanen diot?

13. Baina Jaunak erran zioen Abrahami: Zertako irri egin du Sarak, dioelarik: Atsotu-eta, haurrik egiazki egin othe dezaket?

14. Othe da deusere gaitzik Jainkoarentzat? erran bezala itzuliko naiz urthemugan zu gana, bizirik izanen zare, eta Sarak izanen du seme bat.

15. Sarak ukhatu zuen, zioelarik: Ez dut irririk egin, izialdurak hartua nintzen. Baina Jaunak erran zioen: Ez da hori hola, irri egin duzu.

16. Arrotzek, xutitu zirenean begiak eman zituzten Sodomako alde-  
ra: eta Abraham hekiekin batean, hekien lagun zihoan.

17. Eta Jaunak erran zuen: Egin gogo dudana gorde othe dezoket Abrahami,

18. Izan beharra delarik jendaia handi eta hazkar baten buru, eta lurreko jendaki guziak hunen baithan benedikatzekoak direnaz geroz?

19. Badakit ezen manatuko diotela bere semeei, eta bere etxeko guziei bere ondotik, begira dezaten Jaunaren bidea, eta iduk dezaten zuzena eta zuzentasuna, Jaunak Abrahamen alderat bethe dezantzat berrari aiphatu diozkan guziak.

20. Jaunak erran zioen beraz: Sodomako eta Gomorhako deihadarra berhatu da, eta hekien bekhatua hainitz gaixtatu.

21. Jautsiko naiz eta ikhusiko dut hea beren egintzaz osatu dutenez niri heldu izan zaitan deihadarra: jakin dezadan hala den, edo ez den.

22. Itzuli ziren handik, eta goan ziren Sodomara; baina Abraham gelditua zagoen oraino Jaunaren aitzinean.

23. Eta hurbildurik erran zioen: Zuzena gaixtaginarekin galduko duzu?

24. Balin badira berrogoi eta hamar zuzenak hiri hortan, galduko dire bertzeekin? eta lekhu horri ez diozu barkhatuko berrogoi eta hamar zuzenen gatik, hor aurkhitzen badira?

25. Urrun da zu ganik, eginen baituzu holako lana, eta hilen baituzu zuzena gaixtaginarekin; ez da hori zurea: lur guzia juiatzen duzuna, ez duzu zuk holako juiamendurik emanen.

26. Eta Jaunak ihardetsi zioen: Sodomako hirian aurkhitzen badituz berrogoi eta hamar zuzen, lekhu guziari barkhatuko diot hekien ariaz.

27. Abraham mintzatu zitzaioen berriz, erraten zioelarik: Behin hasi naizenaz geroz, mintzatu naiz ene Jaunari, herrauts eta hauts naizen arren.

28. Berrogoi eta hamar zuzenetara bortz eskaz balira, hiri guzia xahu zinezake berrogoi eta bortzen gatik? Jaunak ihardetsi zioen: Ez dut xahutuko, han aurkhitzen badituz berrogoi eta bortz.

29. Berriz ere Abrahamek erran zioen: Baina berrogoi aurkhitzen badira, zer eginen duzu? Ihardetsi zuen: Ez dut joko berrogoien ariaz.

30. Abrahamek erran zioen: Jauna, etzaitzela, othoi, samur, mintzatu banaiz oraino ere: Eta hor hogoi eta hamar aurkhitzen badituz? Ihardetsi zuen: Ez dut eginen, hor atzematen badituz hogoi eta hamar.

31. Abrahamek erran zuen: Behin abiatu naizenaz geroztik, mintzatu naiz ene Jaunari. Zer eginen duzu hogoi khausitzen badituz hor? Ihardetsi zuen: Ez dut hilen hogoi ariaz.

32. Berriz ere Abrahamek erran zioen: Errekeitzen zaitut, Jauna, etzaitzen hasarre oraino mintzaten banaiz behin: Eta hor aurkhitzen





badituzu hamar, zer eginen duzu? Eta ihardetsi zuen: Hamarren gatik ez dut xahutuko.

33. Abrahami mintzatzetik gelditu-eta, Jauna goan zen: eta Abraham itzuli zen bere lekhura.

### XIX. KAP.

1. Ilhuntzean bi aingeru ethorri ziren Sodomara, Lot hiriko atheetan jarria zagoelarik. Ikhusi zituenean, xutitu zen, eta bidera goan zitzaioten: lurrera gurthurik adoratu zituen,

2. Eta erran zioten: Othoizten zaituztet, jaunak, zatozte zuen muthilaren etxera, eta han egon zaizte: garbi zatzue zangoak eta lothuko zaizte berriz zuen bideari bihar goizean. Haukiek ihardetsi zuten: Ez, egonen gare plazan.

3. Hertsatu zituen bazterraztekotzat bere etxera: eta etxean sarthu zirenean, xuxendu zuen onthuruntza, eta ophil airisak erre; eta jan zuten.

4. Baina ohera goan baino lehen, hiriko gizonak inguratu zuten etxea, haurretik gizon zaharreraino, populu guziak batean.

5. Eta deithu zuten Lot, eta erran zioten: Non dira gaur zure etxean sarthu izan diren gizonak? erakhar zatzu hunat, ezagut detzaguntzat.

6. Lot ilkhi zen hekietara, athea bere giblean hersten zuelarik, eta erran zioten:

7. Ene anaiak, ez, othoi, holako gaizkirik egin.

8. Baditut bi alaba, gizonik oraino ezagutu ez dutenak: erakharriko darozkitzuet, eginen duzue hekietaz nahi duzuen, gizon horiei gaizkirik ez egitekotan, zeren sarthuak baitira ene hegaztegiaren itzalean.

9. Baina ihardetsi zioten: Habil hemendik. Eta berriz erran zioten: Sarthu haiz hemen arrotz bezala; gure juiatzera ethorri haiz? heroni hekiek baino hobeki ehoko hagu. Eta Loti muthiriki bortxa egiten zioten: eta jadanik athearen jauzarazteko heinean ziren,

10. Eta arrotzek eskua heldu zioten, Lot sarthu zuten beren ganat, eta athea hertsu;

11. Eta itsutu zituzten kanpoan zirenak, ttipienetik handieneraino, hala non athea ezin kausi baitzezaketan gehiago.

12. Erran zioten gero Loti: Baduzu hemen ahaide zenbait, suhi, edo seme, edo alaba? hiri huntarik ilkhiaraz zatzu zureak diren guziak;

13. Ezen lekhu hau xahutuko dugu, horien heia gora igan delakotz Jaunaren aitzinera, eta Jaunak igorri gaitu horien galtzera.

14. Lot athera zen beraz, mintzatu zen bere suhigaiei, bere alabekin ezkondu beharrak zituenei, eta erran zioten: Jaiki zaitezte eta ilkhi toki

huntarik: zeren Jaunak hiria xahutzera derama. Baina uste izan zuten trufakerietan bezala mintzo zela.

15. Argia urratzen hasi zenean, aingeruek ertxatzen zuten, erraten ziotelarik: Jaiki zaite, eta har zatzu zure emaztea eta alaba biak, gal etzadientzat orobat zu ere hiri tzar hunekin batean.

16. Eta nola luzatzen baitzuen, hartu zuten eskutik eta haren emaztea eta bi alabak ere, Jainkoak barkhatzen zioelakotz.

17. Eta eraman zuten eta hiritik kanpo ezarri, eta han mintzatu zitzaizkon huneletan: Salba zazu zure bizia: ez dezazula gibelerat begira, eta etzaitzela bara inguru haukietan: baina ihes egizu mendira, bertzeekin gal etzaitzetzat.

18. Lotek ihardetsi zioten: Ene Jauna, othoi,

19. Zure sehiak zure aitzinean grazia aurkhitu duenaz geroz, eta ene gainean izan duzun urrikalmendua erakhutsi duzunaz geroz, ene bizia salbatzekotzat, ez naiteke mendira hel, gaitzak atzeman gabe, eta hilen naiz.

20. Bada ondo huntan hiri bat, zinetara ihes egin baitezaket; ttipia da, eta salbatuko naiz hartan: ez othe da ttipia eta ene biziaren begiratze-ko aski?

21. Eta Jaunak erran zioen: Huna non onhetsi dudan hortan ere zure othoizta, xahu ez dezadan hiria zeinaren alde mintzatu baitzaizkit.

22. Higi zaite eta salba hor, zeren deusik ezin badut eginen zu hor sarthu arteo. Hori gatik izan zen deithu hiri hura Segor.

23. Iguzkia lurraren gainera athera zen, eta Lot sarthu zen Segorren.

24. Jaunak beraz jautsarazi zuen zerutik Jauna ganik sufrezko eta suzko uria.

25. Eta hondatu zituen hiri hekiek, inguruko bazter guziarekin, eta hirietako egoiliar guziak, eta lurrean berdatzen zeren guziak.

26. Lothen emazteak gibelerat begiraturik, gatz mokhortu zen.

27. Bada, Abraham goizetik jaikirik, lehenago Jaunarekin egon zen tokira,

28. Begiratu zioten Sodomari, Gomorhari eta inguru hartako bazter guziari: eta khe bat ikhusi zuen lurretik igaiten labe khea iduri.

29. Ezen, noizere Jaunak xahutzen baitzituen toki hartako hiriak, orhoit izan zen Abrahamez eta salbatu zuen Lot egon izan zen hirietako xahupenetik.

30. Eta Lot igan zen Segorretik, eta egon zen mendian eta haren bi alabak harekin (ezen beldur izan zen Segorren egoteko), eta egon zen zil-hoka batean eta haren bi alabak harekin.



31. Eta zaharrenak gazteenari erran zioen: Gure aita zaharra da, eta ez da lurrean gizon bat ere gelditu guri hurbil dakikegunik lur guziko ohitzaren arabera.

32. Zato, arnoz mozkorraraz dezagun, eta lo egin dezagun hunekin, galtzera ez uztekoztat gure aitaren odola.

33. Eman zioten beraz beren aitari gau hartan arnoa edatera: zaharrena sarthu zen eta lo egin zuen aitarekin: eta hau etzen ohartu noiz alaba etzan zen, ez-etare noiz jaiki zen.

34. Bertze egunean ere zaharrenak erran zioen gazteenari: Horra barda lo egin dut aitarekin, eman dezogun gaur ere arnoa edatera, eta lo eginen duzu harekin, begira dezaguntzat gure aitaren ganik hazia.

35. Gau hartan ere beren aitari arnoa eman zioten edatera; eta alaba gazteena sarthurik, lo egin zuen harekin, eta hau etzen orduan ere ohartu noiz etzan zen alaba, edo noiz jaiki zen.

36. Huneletan Loten alabak amatu ziren beren aitaren ganik.

37. Zaharrena erdi zen seme batez eta deithu zuen Moab: hau da Moabitarren aita, egungo eguna arteo iraun dutenena.

38. Gazteena ere erdi zen seme batez, eta deithu zuen Amon, erran nahi baita, ene populuaren semea: hau izan zen Amonitarren aita egun oraino ikhusten ditugunena.

## XX. KAP.

1. Abraham handik goanik hegoaldeko lurrera, egon zen Kadesen eta Surren artean, eta ibili zen Jeraran.

2. Eta erran zuen Sara bere emazteaz: Ene arreba da. Abimelek, Jerarako erregek igorri zituen gizonak, eta eraman zuen Sara.

3. Baina Jainkoa Abimeleki agertu zitzaioen ametsetan, eta erran zioen: Horra hilen zare eraman duzun emaztekoa gatik: ezen senharra badu.

4. Abimelekek, bada, etzuen hura ukitu, eta erran zuen: Jauna, hilen othe duzu jende jakitategabea eta zuzena?

5. Horrek berak ez othe darot erran: Ene arreba da: eta berak ere: Ene anaia da? Egin dut hori ene bihotzeko lañotasunean, eta eskuetako garbitasunean.

6. Jainkoak ihardetsi zioen: Badakit bihotz lañoan egin duzula: horren gatik begiratu zaitut bekhatuenean, eta alderat etzinezan egin, eta etzaitut utzi haren ukitzera.

7. Orain beraz bihur zozu emaztea senharri, zeren profeta baita: eta othoitz eginen du zuretzat, eta biziko zare: baina ez baduzu bihurtu nahi, jakin zazu heriotzez hilen zaretela zu eta zureak diren guziak.

8. Abimelekek, gauaz berehala jaikirik, deithu zituen bere sehi guziak: eta solas horiek oro erran ziotzaten, eta gizon guziak ikharatu ziren.

9. Abimelekek deithu zuen Abraham ere, eta erran zioen: Zer egin darokuzu? Zer gaizki egin darotzugu, erorrazteko hanbateko gaitza ene eta ene erresumaren gainera? behar etzinduena egin darokuzu.

10. Eta berriz ere auhendatuz erran zuen: Zer ikhusi duzu hola egiteko?

11. Abrahamek ihardetsi zuen: Gogoetan egotu naiz ene baithan, erraten dudalarik: Lekhu huntan ez da beharbada Jainkoaren beldurrik, eta hilen naute ene emaztea gatik:

12. Bertzelaz-ere ene arreba da egiazki, ene aitaren alaba, eta ez ene amarena, eta emaztetzat hartu dut.

13. Bada, Jainkoak ene aitaren etxetik ilkhiazi nauenean, erran diot ene emazteari: Egin dizadazu ikhustate hau: Sarthuko garen toki guzietan erranen duzu zure anaia naizela.

14. Abimelekek eman zioizkien beraz Abrahami ardiak eta idiak, eta muthilak eta neskatoak: eta bihurtu zioen Sara bere emaztea,

15. Eta erran zioen: Lurra zuen aitzinean dago; zaude atsegin dukesun tokian.

16. Eta Sarari erran zioen: Huna non eman diotzadan mila zilharrezko zure anaiari, hori da bela bat izan dezazuntzat begien gainean gerthitzen zaren guzien aitzinean; eta orhoit zaite ibiliko zaren toki orotan izan zarela harrapatua.

17. Gero Abrahamek othoitz eginik, Jainkoak sendatu zuen Abimelek eta haren emaztea eta haren neskatoak, eta amatu izan ziren:

18. Ezen Jaunak agortu zituen Abimeleken etxeko emazteki guzia, Sara Abrahamen emaztea gatik.

## XXI. KAP.

1. Jaunak begietsi zuen Sara agindu izan zuen bezala: eta bethe zuen bere hitza.

2. Eta Sara bere zahartzean amatu zen eta erdi Seme batez, Jainkoak lehenago erran izan zuen mugan,

3. Eta Abrahamek Isaak deithu zuen Sarak egin, zuen semea:



4. Eta ingurebaki zuen zortzigarren egunean Jainkoak manatu izan zioen bezala,
5. Ehun urthe bethe zituen ondoan: ezen aitak adin hura zuen Isaak sorthu zenean.
6. Eta Sarak erran zuen: Jainkoak bozteko bide eman darot: hau entzunen duten guziak boztuko dira enekin.
7. Eta erran zuen berriz: Nork sinhetsiko zuen Abrahamek entzun behar zuela Sarak hazten zuela bere esnez seme bat, hari emana noiz-ere jadanik agudetua baitzen?
8. Haurra larritu zen, eta izan zen higuindua: eta Abrahamek, higuintzeko egunean egin zuen barazkari handi bat.
9. Sarak ikhusirik Agar egiptoarraren semea dostatzen Isaak bere semearekin, erran zioen Abrahami:
10. Kanporat ematzu neskato hori eta bere semea: ezen zure neskatoaren semea, ez da premu izanen Isaak ene semearekin.
11. Abrahamek hau gogor atzeman zuen bere semearentzat.
12. Jainkoak erran zioen: Haurraren eta zure neskatoaren gaineko solas hori ez bekizu latz iduri: edozein gauza erran dezazun Sarak, entzun zazu haren hitza: ezen Isaaken ganik hartuko du zure ondoregoak bere izena.
13. Baina zure neskatoaren semea ezarriko dut jendaia handi baten buru, zeren den zaganikakoa.
14. Abraham jaiki zen beraz goizean-goizik, eta ogi bat eta zahagi bat ur harturik, Agari bizkarrean ezarri ziozkan, haurra eman zioen, eta igorri zuen etxetik. Agar atheratu ondoan, bazterrez bazter zabilan Bersabeko mortuan.
15. Eta zahagiko ura akhitu zenean, haurra utzi zuen han ziren zuhaitzetarik baten azpian.
16. Eta goan zen eta jarri balazta tiramen batean; eta erran zuen: Ez dut ikhusiko ene haurra hiltzen; eta han jartzean, eman zen auhenari eta nigarrari.
17. Bada Jainkoak entzun zuen haurraren boza: eta Jainkoaren aingeru batek zerutik deithu zuen Agar erraten zioelarik: Zer hari zare, Agar? ez izan beldurrik: Jainkoak entzun du haurraren boza, bera utzia den tokitik.
18. Xuti zaite, har zazu haurra eta iduk zazu eskutik: zeren eginen baitut jendaia handi baten buru.
19. Eta Jainkoak ideki ziotzan begiak: Agarrekin ikhusirik ur-putzu bat, goan zen, eta zahagia bethe zuen, eta haurrari edatera eman.

20. Eta Jainkoa izan zen Ismaelekin, zeina handitu baitzen eta mortuan egon, eta egin zen gizon-gazte balaztari bat.
21. Eta egon zen Pharango mortuan, eta bere amak emaztea harrazi zioen Egiptoko lurretik.
22. Denbora hartan, Abimelekek, Phikol bere armadako buruzagiarekin, erran zioen Abrahami: Jainkoa zurekin da egiten dituzun guzietan.
23. Jainkoaz zin egidazu bada ez darokuzula bidegaberik eginen ez niri, ez ene hurrei, ez-etare ene ondokoei: bainan zuretzat izan dudana ikhustate berarekin eginen darotazula niri eta lurrari zeintan arrotz bezala izatu baitzare.
24. Eta Abrahamek erran zuen: Zin eginen dut nik.
25. Eta Abimeleki egin ziotzan bere kuintak haren sehiek bortxaz khendu zioten ur-putzu batez.
26. Eta Abimelekek ihardetsi zioen: Ez dut jakin nork egin darotzun gaizki hori, bainan ez darotazu albisterik eman, eta nik ez dut egun arteo aditu.
27. Abrahamek hartu zituen beraz ardiak eta idiak, eta eman ziozkan Abimeleki: eta biek batasun egin zuten.
28. Eta Abrahamek bazterredera eman zituen bere arthaldetik zazpi antxu.
29. Abimelekek erran zioen: Zer erran nahi dute bazterredera emanarazi dituzun zazpi antxu horiek?
30. Eta hunek ihardetsi zuen: Ene eskutik hartuko dituzu zazpi antxu horiek, izan dakizkidan lekhukotasuntzat nik zilhatua dela putzu hau.
31. Horren gatik lekhu hura deithua izan zen Bersabe: zeren han biek zin egin baitzuten,
32. Eta batasun egin zineko putzuaren ondoan.
33. Gero Abimelek xutitu zen, Phikol bere armadako buruzagiarekin, eta itzuli ziren Palestindarren lurrera. Baina Abrahamek oihan bat landatu zuen Bersaben, eta han deithu zuen Jainko Jaun bethierekoaren izena.
34. Eta luzez bizi izan zen Palestindarren lurrean.

## XXII. KAP.

1. Horiek hola iragan ondoan, Jainkoak frogatu zuen Abraham, eta erran zioen: Abraham, Abraham. Hunek ihardetsi zioen: Hemen naiz.
2. Jainkoak erran zioen: Har zazu zure seme bakhar maite duzuna Isaak, eta zoazi Ikhuspeneko lurrera: eta han eskainiko darotazu holo-kaustetan erakhutsiko darotzudan mendi baten gainean.



3. Abrahamek beraz, gauaz jaikirik, xuxendu zuen bere astoa, eta eraman zituen berekin bi muthil gazte eta Isaak bere semea: eta egin zuenean holokaustarako egurra, goan zen Jainkoak manatu izan zioen lekhura.

4. Eta hirugarren egunean, begiak altxaturik, urrunera ikhusi zuen lekhua.

5. Eta erran zioten bere muthilei: Zagozte hemen astoarekin: ni eta ene semea haraxeraino goazi, eta adoratu ondoan, bihurturen gare zuen gana.

6. Hartu ere zuen holokaustako egurra, eta eman zioen Isaaki soine-ra: eta berak sua eta marrauza eramaten zituen eskuetan. Elkharrekin zihozilarik,

7. Isaakek erran zioen bere aitari: Aita. Abrahamek ihardetsi zioen: Zer nahi duzu, semea? Isaakek erran zuen: Huna sua eta egurra, baina holokaustako bitima non da?

8. Abrahamek ihardetsi zioen: Jainkoak berak artha hartuko du, semea, holokaustako bitimaz. Beraz aitzina zoazen biak;

9. Eta heldu izan ziren Jainkoak erakhutsi tokira. Abrahamek han altxatu zuen aldare bat eta xuxendu egurra haren gainean; eta Isaak, bere semea, ezarri zuen estekaturik aldarean xuxendua zuen egurraren gainean.

10. Eta eskua hedatu zuen eta lothu zen marrauzari bere semearen imolatzeko.

11. Eta huna Jaunaren aingeruak oihu egiten dioela zerutik: Abraham, Abraham. Abrahamek ihardetsi zioen: Huna non naizen.

12. Aingeruak erran zioen: Ez heda eskua haur horren gainera, eta ez diozozula egin minik: ezagutu dut orai Jainkoaren beldurra baduzula, eta ez duzu ni gatik guphidetsi zure seme bakharra.

13. Abrahamek itzuli zituen begiak eta bere gibelean ikhusi zuen ahari bat adarretarik laharretan atzemana; eta harturik, holokaustetan eskaini zuen bere semearen orde.

14. Eta lekhu hura deithu zuen, Jaunak ikhusten du. Hortarik erraten da oraino egungo egunean: Jaunak ikhusiko du mendian.

15. Eta Jaunaren aingeruak berriz deithu zuen Abraham zerutik, erraten zioelarik:

16. Ene buruaz zin egin dut, dio Jaunak: zeren hori egin duzun, eta ez baituzu zure seme bakharra guphidetsi ni gatik,

17. Benedikatuko zaitut, eta populatuko dut zure hazia zeruko izarrak bezala, eta itsas-bazterrean den legarra bezala: zure ondoregoa izan da bere etsaien atheen jabe.

18. Eta zure ondoregoan benedikatuak izanen dira lurreko jendaia guziak, zeren ene hitzen manuko egin zaren.

19. Abraham itzuli zen bere muthiletara, eta goan ziren Bersabera, eta han gelditu zen egoitzaz.

20. Horiek hola gerthatu ondoan, ethorri ziren Abrahami erratera Melkak ere semeak eman ziotzala haren anaia Nakorri,

21. Hus zaharrena, Buz hunen anaia, eta Kamuel Siriarren aita,

22. Eta Kased, eta Azau, Pheldas ere, eta Jedlaph,

23. Eta Bathuel, zeintarik sorthu baitzen Errebeka: zortzi seme horiek eman ziozkan Melkak Abrahamen anaia Nakorri.

24. Haren ohaide, Erroma deitzen zenak ere, eman ziotzan Tabee, Gaham, Thahas eta Maaka.

### XXIII. KAP.

1. Sara bizi izan zen ehun eta hogoi eta zazpi urthe,

2. Eta hil izan zen Arbeeko hirian, zeina baita Hebron, Kanaango lurrean: eta Abraham ethorri zen haren deithoratzerara eta hari nigar ematera.

3. Eta deithoretik altxatu zenean, mintzatu zen Sethen semeei, erraten ziotelarik:

4. Arrotz eta bideante bat naiz zuen lekhuan: indazue zuen artean hobi baten zuzena ehortz dezadan ene hila.

5. Hethen semeek ihardetsi zuten, ziotelarik:

6. Entzun gaitzatzu, Jauna, gure artean zare Jainkoaren aitzindari bat: zure hila gure hobi hautatuetan ehortz zazu: nihork ezin debekatuko darotzu zure hila bere hobian ezartzea.

7. Abraham xutitu zen eta gurthu lekhu hartako jendearen aitzinean, zeina Hethen ganik jausten baita:

8. Eta erran zioten: Ongi bazaitzue ehortz dezadan ene hila, entzun nezazue, eta enetzat bitharteko hel zakiozkite Efron Seorren semeari,

9. Eman dezadan bere landa-zolan duen har-zilo bikhuna: bere balio ederrean utz diezadan zuen aitzinean eta ezar nezan hobi baten jabe.

10. Efron Hethen semeen artean egoten zen. Eta ihardetsi zioen Abrahami, hiri hartako athera biltzen ziren guziek aditzen zutela, erraten zuelarik:

11. Ene Jauna, ez da hori hola izanen, baina hobeki entzun zazu erraten darotzudana: Ematen darotzut ene landa eta hartan den har-ziloa, ene populuaren semeak lekhuko: ehortz zazu zure hila.

12. Abraham gurthu zen toki hartako jendearen aitzinean.



13. Eta guzien erdian mintzatu zitzaioen Efroni: Othoizten zaitut entzun nezazun; emanen darotzut dirua landarentzat: har zazu, eta hola ehortziko dut han ene hila.

14. Eta Efronek ihardetsi zioen:

15. Ene Jauna, entzun nezazu: Galdegiten duzun lurra lau ehun zilharrezko siklo balio ditu, hori da zure eta ene arteko prezioa: bainan zer da hori? ehortz zazu zure hila.

16. Hori aditu zuenean, Abrahamek, phisarazi zuen Efronek galdatu dirua, Hethen semeak lekhuko, lau ehun zilharrezko siklo, diru ezagutua,

17. Eta ageria eginga izan zen, aitzinean Efronena zen landa, zeintan baitzen har-zilo bikhuna, Manbreri begira zagoena, hala landa nola har-ziloa eta inguruan hartako mugarrietan ziren zuhaitz guziak,

18. Abrahamen eskuko egiten zirela, Hethen semeak eta hiri hartako athetik sartzen ziren guziak lekhuko.

19. Eta holetan Abrahamek ehortzi zuen Sara bere emaztea landako har-zilo bikhunean, zeina Manbreri baitago begira: hau da Hebron Kanaango lurra.

20. Eta landa eta hartan zen zilhoa Hethen semeek ageritan ezarriak izan ziren Abrahamen eskuko hobitzat.

#### XXIV. KAP.

1. Bada, Abraham zaharra zen eta adin handikoa, eta Jaunak benedikatu zuen gauza guzietan.

2. Eta erran zioen bere etxeko sehi zaharrenari, bere ontasun guzien buruko zuenari: Ezar zazu zure eskua ene ixterraren gainean,

3. Jaunaz, zeru-lurren Jainkoaz zin egin dezazun ez duzula ene semearentzat emaztetzat onhetsiko Kanaan, ni nagoen tokiko alabarik;

4. Bainan goanen zarela ene herri eta ene ahaidegora, eta handik hartuko duzula Isaak ene semearentzat emaztea.

5. Sehiak ihardetsi zioen: Emaztekirik ez bada enekin toki huntara ethorri nahi denik, bihurtu behar dut zure semea ilkhi zaren lekhura?

6. Abrahamek erran zioen: Begira duzula ene semea behinere hara bihurraztetik.

7. Jainko Jaun zerukoak ene aitaren etxetik eta ene sor-lekhutik atheratu nauenak, niri mintzatu eta zinekin erran darotanak: Zure ondoregoari emanen diot lur hau; berak igorriko du aingeru bat zure aitzinean, eta handik hartuko duzu emazte bat ene semearentzat.

8. Bainan emaztekoa ez balitzaitzu jarraiki nahi, zinaz etzintazke heratsua: baxharrik ez bihurraz harat ene semea.

9. Sehiak beraz eskua ezarri zuen Abraham bere nausiaren ixterraren gainean, eta zin egin zioen solas horren gainean.

10. Eta hartu zituen hamar kamelu bere nausiaren arthaldetik, eta haren ontasun guzietarik harturik berekin, bideari eman zen, eta iragan Mesopotamia barna Nakorren hirira.

11. Eta ilhantzean kameluak gurrarazi zituenean hiritik hurbil, putzu baten aldean, emaztekiak urketara atheratzen ohi diren tenorean, erran zuen:

12. Jauna, Abraham ene nausiaren Jainkoa, hel zakizkit, othoi, egun, eta ikhustate izan zazu Abraham ene nausiarentzat.

13. Huna non naizen ithurri baten ondoan eta hiri hortako egoiliarren alabak ilkhiko dira urketara.

14. Beraz neskaxa zeinari erranen baitiot: Makhur dizadazu zure pegarra edan dezadantzat, eta ihardetsiko darotana: Edan zazu, eta zure kameluei ere emanen diotet edatera: hura izan bedi Isaak zure zerbitzariarentzat berezi dukezuna: eta hortarik ezagutuko dut ikhustate izan duzula ene nausiarentzat.

15. Solas horiek bere baithan iragan zituen orduko, huna Errebeka, Melka Abrahamen anaia Nakorren emaztearen seme Bathuelen alaba, ilkhitzen zela, pegarra soin gainean ekhartzen zuela.

16. Neskaxa bat zen hainitz gogaragarria, eta dontzella osoki ederra, gizonik ezagutugabea: ithurrian izaturik eta pegarra betherik, gibelera itzultzen zen.

17. Sehia aitzinera goan zitzaioen eta erran zioen: Indazu zure pegarretik ur xorta bat edatera.

18. Ihardetsi zioen: Edan zazu, Jauna: eta arinki pegarra besoetara jautsirik, eman zioen edatera.

19. Eta edan zuenean, neskaxak erran zioen: Atheratuko diotet ura zure kameluei ere, guziek edan arteo.

20. Eta pegarra asketara husturik, laster egin zuen berriz putzura ur atheratzera, eta eman zioten kamelu guziei.

21. Sehia bizkitartean ixilik zagoen begira, jakin nahiz hea Jaunak bidaia on egin othe zioen, ala ez.

22. Beraz kameluek edan izan zutenean, gizon horrek eman ziotzan urrezko beharrietakoak, bi siklo phisu zutenak, eta bi eskumuthurreko, hamar siklo phisu zutenak.

23. Eta erran zioen: Noren alaba zare? erradazu niri, bada egon-lekhurik zure aitaren etxean?



24. Ihardetsi zioen: Bathuelen alaba naiz, eta hura Melka eta Nakor haren senharraren semea.
25. Eta erran zioen oraino: Bada gure etxean lasto eta belhar hainitz eta egonlekhu nasaia.
26. Gizona gurthu zen, eta adoratu zuen Jauna,
27. Erraten zuelarik: Abraham ene nausiaren Jainko Jauna, ene nausia ez duzu gabetu zure ikhustateaz eta egiaz, eta bide zuzenaz eraman nauzu ene nausiaren anaiaren etxera.
28. Neskatzak beraz laster egin zuen etxera amaren gana, eta aditu guziak erran zioizkien.
29. Bada, Errebekak anaia bat bazuen Laban deitzen zena, zeina herresakan athera baitzen gizonaren gana, ithurria zen lehura.
30. Eta ikhusi zituen ondoan beharrietakoak eta eskumuthurrekoak bere arrebaren eskuetan, eta entzun solas guziak arrebak ekharri ziotzananak erraten zuelarik: Hunela mintzatu zait niri gizona: ethorri zen gizona gana zeina xutik baitzagoen kameluen aldean eta ithurri ondoan.
31. Erran zioen: Sar zaite, Jaunaren benedikatua: zertan zaude kanpoan? antolatu dut etxea eta kameluen tokia.
32. Eta sarrarazi zuen atherbera: kameluak hustu zituen eta eman zioizkiten lastoa eta belharra, eta berari ura, garbi zitzan zangoak, eta harekin ethorri ziren gizonek ere bai.
33. Eta aitzinera eman zioen ogi bat. Hunek erran zuen: Ez dut janen, ene solasak egin ditzadan arteo. Labanek ihardetsi zioen: Mintza zaite.
34. Eta hunek erran zuen: Abrahamen sehi naiz:
35. Eta Jaunak benedizione nasaiak ixuri ditu ene nausiaren gainera zeina handi egin baita, eta eman dioizki ardi eta idi, zilhar eta urhe, mut-hil eta neskato, kamelu eta asto.
36. Eta Sara ene nausiaren emazteak seme bat eman dio ene nausiari bere zahartzean, eta zituen guziak eman dioizki.
37. Eta ene nausiak zin eragin darot, erraten zarotalarik: Ez diozu ene semeari emazterik onhetsiko ni nagoen lurreko Kananeanren alabatarik:
38. Bainan goanen zare ene aitaren etxera, eta ene ahaidegotik hartuko diozu emazte bat ene semeari.
39. Eta nik ihardetsi diot: Bainan neskatzak ez badu ethorri nahi?
40. Erran darot: Jaunak, zeinaren aitzinean bainabila, igorriko du bere aingerua zurekin, eta bidatuko zaitu zure bidean, eta emazte bat hartuko diozu ene semeari ene ahaidegotik eta ene aitaren etxetik.

41. Ene burhotik xahu izanen zare, baldin ene ahaidetara goan-eta, ez badarotzute ematen.
42. Ethorri naiz beraz egun ithur-urera, eta erran izan dut: Abraham ene nausiaren Jainko Jauna, zuk bidatu banauzu orai nik deramadan bidean,
43. Huna non naizen ithur-ondoan; dontzella urketara atheratuko dena eta ni ganik adituko duena: Indazu ur xorta bat edatera zure pegarretik,
44. Eta erranen darotana: Edan zazu eta zure kameluei atheratuko diotet ura: hura bera izan bedi Jaunak ene nausiaren semeari berezi dioen emaztea.
45. Eta horiek ene baithan iragaiten nituelarik, Errebeka agertu da soin gainean ekhartzen zuen pegar batekin: eta jausti da ithurrira, eta atheratu du ura. Eta erran diot: Indazu xorta bat edatera.
46. Eta arinki soinetik jausti du pegarra, eta erran darot: Edan zazu, eta edaranen ditut zure kameluak. Edan dut, eta edaran ditu kameluak.
47. Eta galdeak egin diozkat, eta erran diot: Noren alaba zare? Eta ihardetsi darot: Nakor eta Melkaren seme Bathuelen alaba naiz. Hargatik ezarri dioizkit beharrietakoak bere begithartearen edertzeko eta eskumuthurrekoak ukharaietan.
48. Eta gurthurik adoratu dut Jauna, benedikatzan dudalarik Abraham ene nausiaren Jainko Jauna, bide zuzenaz bidatu nauena, ene nausiaren semearentzat har nezan haren anaiaren alaba.
49. Horren gatik baldin ikhustate zinez izan gogo baduzue ene nausiaren aldera, erradazue niri: bainan bertzerik baduzue gogoan, erradazue hura ere, itzul nadien eskuinera edo eskerrera.
50. Eta Labanek eta Bathuelek ihardetsi zuten: Jauna ganik athera da solas hori; ez dezakegu deusere iharduk zurekin haren gogoaz kanpo denik.
51. Huna Errebeka zure aitzinean: har zazu, eta zoazi, eta Jauna mintzatu izan den bezala, izan bedi zure nausiaren semearen emazte.
52. Abrahamen sehiak aditu zuenean hori, lurrera eroririk adoratu zuen Jauna.
53. Gero atheraturik zilharrezko eta urhezko untziak eta soinekoak, dohainetan eman ziotzan Errebekari; emaitzak egin ziotzaten ere haren anaiei eta amari.
54. Onthuruntza hasirik, jaten eta edaten egon ziren han elkharrekin. Sehia, goizean jaikirik, mintzatu zen: Utz nezazue gibelera goan nadien ene nausia gana.



55. Errebekaren anaiek eta amak ihardetsi zioten: Neskak gurekin egon bedi hamar bat egun bedere, eta gero goanen da.

56. Erran zuen: Ez nezazuela, othoi, iduk, zeren Jaunak bidatu bainau ene bidean: utz nezazue gibelera, goan nadien ene nausia gana.

57. Eta ihardetsi zuten: Deith dezagun neskak eta berari galda diogun zer nahi dukeen.

58. Deithu-eta ethorri zenean, galdatu zioten: Nahi duzu goan gizon hunekin? Ihardetsi zuen: Goanen naiz.

59. Igorri zituzten beraz Errebeka eta bere unhidea, eta Abrahamen sehia, eta haren lagunak,

60. Eta agiankatzen ziotelarik zori on bat beren arrebari, eta erraten ziotelarik: Gure arreba zare, mila eta mila ondoregoz berhatuko zare balin ba; zure ondoregoa izan bedi bere etsaien athez nausi.

61. Errebeka eta bere neskak iganik beraz kameluen gainera, jarraiki ziren gizonari, zeina zalhu itzultzen baitzen bere nausia gana.

62. Muga berean, Isaak pasaietan zabilan Bizi denaren eta ikhusten duenaren izena ekhartzen duen putzuko bidean: ezen hegoaldeko lurrian egoten zen.

63. Eta atheratua zen ilhuntean bere gogoeten erabiltzera landetan: eta begiak altxatzearekin, ikhusi zituen urrunera kameluak heldu zirela.

64. Errebeka ere, Isaak ikhustearrekin, jautsi zen bere kamelutik,

65. Eta erran zioen sehiari: Nor da landa gaindi gure bidera heldu den gizon hori? Eta ihardetsi zioen: Ene nausia bera da. Errebekak, hariturik berehala bere bela, estali zuen bere burua.

66. Sehiak bizkitartean Isaaki erran ziozkan bere eginkari guziak.

67. Isaakek sarrarazi zuen Errebeka Sara bere amaren olhan, eta emaztetzat hartu zuen: eta hanbat maithatu zuen non jabaldu baitzioen bere amaren hiltzetik ethorria zuen bihotzmina.

## XXV. KAP.

1. Bada, Abrahamek hartu zuen bertze emazte bat Zetura deitzen zena,

2. Zeina erdi baitzen Zamranek, Jeksanez, Madanez, Madienez, Jesbokez eta Suez.

3. Jeksan izan zen Sabaren eta Dadanen aita. Dadanen seme izan ziren Asurim, Latusim eta Loomim.

4. Madianen ganik athera ziren Epha, Opher, Henok, Abida eta Eldaa: horiek guziak Zeturaren umeak.

5. Eta Abrahamek bere onthasun guziak Isaaki eman ziozkan.

6. Bainan dohainak egin ziotzaten ohaideen semeei, eta bera bizi zelarik oraino, berezi zituen Isaaken ganik iguzki sorthaldeko bazterrerara.

7. Bada, Abrahamen bizitzeko urtheak izan ziren ehun eta hirur hogoi eta hamabortz.

8. Eta ahituz hil izan zen zahartze gozo batean, adin handian, eta egunez bethea: eta batu zen bere populuari.

9. Eta Isaak eta Ismael bere semeek ehortzi zuten Efron, Seorren seme, Hetherraren landan den har-zilo bikhunean, Manbre aldean,

10. Hethen semeei erosi ziotena: han izan zen ehortzia Sara bere emaztearekin.

11. Hura hil ondoan, Jainkoak benedikatu zuen Isaak haren semea Bizi den eta ikhusten duenaren putzuko aldean egoten zena.

12. Huna Ismael, Abrahamen seme, Agar egiptoar, Sararen neskatoa ganik izanaren ondoregoak:

13. Eta hauiek dira haren semeen izenak beren deithura eta ondoregoetan. Ismaelen seme zaharrena Nabaioth, gero Zedar, eta Adbeel, eta Mabsam,

14. Masma ere, eta Duma, eta Masa.

15. Hadar, eta Thema, eta Jethur, eta Naphis, eta Zedma.

16. Horiek dira Ismaelen semeak: eta izen horiek hekien gaztelu eta hirienak, hekien hamabi leinuen buruak.

17. Eta Ismaelen bizitzeko urtheak izan ziren ehun eta hogoi eta hamazazpi, eta ahituz hil zen, eta batu zen bere populuari.

18. Eta bere egoitza izan zuen Hebilatik eta Surreraino, zeina Egiptoari begira baitago, Asirian sartzean; bere anaia guzien aitzinean hil zen.

19. Hauiek dira orobat Isaak Abrahamen semearen ondoregoak: Isaak izan zen Abrahamen seme;

20. Eta berrogoi urthetara heldu zenean, emaztetzat hartu zuen Errebeka, Bathuel Mesopotamiako Siriarraren alaba, eta Labanen arreba.

21. Isaakek Jauna othoiztu zuen bere emaztearentzat, zeren baitzen barreta: eta Jaunak entzun zuen, eta Errebekari eman zioen haurbidea.

22. Bainan bi ume gudukatzen ziren haren sabelean; eta erran zuen: Hau hola gerthatzekoa bazitzaitan, zer zen beharrik haurdu gertha nindadien? Eta goan zen Jaunaren kontsultatza.

23. Jaunak ihardetsi zioen: Bi jendaia dira zure sabelean, eta bi populuak bi aldetara jarriko dira zure sabeletik beretik; eta populuak populua garaituko du, eta zaharrena gazteenaren azpiko izanen da.

24. Orduko, erditzeko muga ethorri zen, eta huna bi biritxi kausitu zirela haren sabelean.



25. Lehenbizikorik atheratu zena, gorrasta zen, eta guzia abere larru bat bezala ilez bethea: eta deithua izan zen Esau. Bigarrena atheratu zen berehala; anaiaren zangoa eskuz atxikitzen zuen: eta horren gatik deithu zuen Jakob.

26. Isaak hirur hogoi urthetan zen haur horiek sorthu zitzaizkonean.

27. Morroindu zirenean, Esau ihiztari antzetsu athera zen, eta bazterretan zabilana: baina Jakob, gizon lañoa, olhetan egoten zen.

28. Isaakek Esau maite zuen, zeren haren ihizietarik jaten baitzuen: baina Jakob zen Errebekaren bihotzekoa.

29. Bada, Jakobek xuxendu zuen jakia: Esau kanpotik nekhatua ethorri zenean haren gana,

30. Erran zioen: Indazu niri jateko gorrast hori, zeren hainitz nekhatua bainaiz. Horren gatik eman zioten izena Edom.

31. Jakobek ihardetsi zioen: Sal dizadazu zure premutasuna.

32. Esauk erran zioen: Huna non hiltzen naizen; zertako duket premutasuna?

33. Zin egidazu beraz, dio Jakobek. Esauk zin egin zioen, eta premutasuna saldu.

34. Eta hola ogia eta dilista azpila harturik, jan zuen, eta edan, eta goan zen, hanbat grinatu gabe zeren saldu zuen bere premutasuna.

## XXVI. KAP.

1. Bada, gosete bat atheraturik lurraren gainera, Abrahamen egunetan gerthatu zen agortasun haren ondotik, Isaak goan zen Abimelek, Jeraran Palestindarren errege zenaren gana.

2. Eta Jauna agertu zitzaioen eta erran zioen: Etzaitela jauts Egiptora, baina geldi zaite nik erranen darotzutan lurrean.

3. Bidaia bat egizu hartara, eta zurekin izanen naiz, eta benedikatuko zaitut: ezen zuri eta zure ondokoei erranen darozkitzuet lekhu haukiek oro, Abraham zure aitari egin izan diodan zinari bere bidea ematen diodalarik.

4. Eta berhatuko dut zure hazia zeruko izarrak bezala: eta lekhu haukiek oro emanen diotzatet zure ondokoei, eta zure hazian benedikatuko dira lurreko jendaki guziak,

5. Zeren Abrahamek obeditu baitu ene erranari, eta begiratu baititu ene ordena eta manuak, eta iduki zeremoniak eta legeak.

6. Isaak egon zen beraz Jeraran.

7. Eta tokiko gizonak galdegin ziotenean bere emazteaz, ihardetsi zuen: Ene arreba da: ezen lotsa zen aithortzeko eskontzaz batua zela harekin, beldurrez-eta hil zezaten haren edertasuna gatik.

8. Eta zenbait egunen buruan eta han zagoelarik, Abimelek Palestindarren erregeak leihotik behatzean, ikhusi zuen bere emazte Errebekarekin dostatzen hari zela.

9. Eta ekharrarazi zuen, eta erran zioen: Ageri da zure emaztea dela: nolaz gezurra erran duzu zure arreba dela: Ihardetsi zuen: Horren gatik hil beldur nintzen.

10. Eta Abimelekek erran zioen: Zertako enganatu gaituzu? Norbait gertha zaitekeen populutik zure emaztearekin ibiliko zenik, eta bekhatu handi bat erorraziko zinduen gure gainera. Eta manamendu egin zuen populuari, erraten zuelarik:

11. Gizon horren emaztea ukituko duena heriotzez hila izan bedi.

12. Eta Isaakek eraintza egin zuen lur hartan, eta urthe berean bildu zuen batentzat ehun: eta Jainkoak benedikatu zuen.

13. Eta gizona goritu zen, eta berhatuz eta aberaztuz zihoan osoki handi egin zedin arteo.

14. Bazituen ere hainitz ardi eta idi, eta etxeko jende. Palestindarrek, hortaz bekhaitzurik,

15. Lurrez bethe eta tapatu zituzten Abraham haren aitaren sehiek zilhatu zituzten putzu guziak haren denboran;

16. Hainbertzetaraino non Abimelekek berak Isaaki erran baitzioen: Urrun zaite gu ganik ezen gu baino hainitz botheretsuago egin zare.

17. Eta hura gibelera itzuli zen Jerarako errekarara ethortzeko eta han egoteko:

18. Eta berriz zilhatu zituen Abraham bere aitaren sehiek zilhatu izan zituzten bertze putzu batzuek, eta gero, hura hil ondoan, Palestindarrek tapatu izan zituztenak: eta aitak lehenago eman ziotzaten izen berak eman ziotzaten berak ere.

19. Errekan ere zilhoak egin zituzten, eta ur bizia kausitu zuten.

20. Baina han ere makhurra biztu zioten Jerarako artzainek Isaakenei, erraten zutelarik: Gurea da ur hori. Aria hortaz, putzuari eman zioen han gerthatu zenetik izena Gezur-lekhu.

21. Gero zilhatu zuten bertze bat, eta hartaz ere bilhatuak izan ziren, eta deithu zuen Etsai-lekhu.

22. Handik goanik zilhatu zuen bertze putzu bat, zeintaz makhurrik ez baitzuten izan: hartako deithu zuen Zabal-lekhu, zioelarik: Jaunak orai zabalera eman gaitu, eta berharazi gaitu lurraren gainean.





23. Gero toki hartarik igan zen Bersabera,
24. Non Jauna agertu baitzitzaien gau berean, erraten zioelarik: Ni naiz Abraham zure aitaren Jainkoa; ez izan beldurrik zeren zurekin bainaz: benedikatuko zaitut, eta popularaziko dut zure ondoregoa Abraham ene serbitzariaren ariaz.
25. Horren gatik han altxatu zuen aldare bat: eta Jaunaren izena deiturik, hedatu zuen bere olha, eta bere sehiei manatu zioten egin zezaten putzu bat.
26. Toki hartara Jeraratik ethorri ziren Abimelek, Okozath haren adiskidea eta Phikol soldadoen buruzagia,
27. Eta Isaakek erran zioten: Zertan heldu zaitze higuin duzuen eta zuen artetik khendu duzuen gizon baten gana?
28. Ihardetsi zioten: Ikhusi dugu Jauna zurekin dela, eta horren gatik erran dugu: Zina izan bedi gure artean, eta batasun egin dezagun;
29. Gaizkirik batere egin ez dizaguzuntzat, guk zure phusketarik deusere ukitu ez dugun bezala eta zuri damuegitekorik egin ez dugun bezala; bainan bakean igorri zaitugu Jaunaren benedizioneaz gainditua.
30. Eman zioten beraz barazkari bat; eta jan eta edan ondoan,
31. Goizean jaikirik, zin egin zuten elkharri, eta Isaakek bakezki igorri zituen beren tokira.
32. Huna bada egun berean Isaaken sehiak ethorri zitzaizkoela zilhatu zuten putzuaren berriekin, ziotelarik: Atzeman dugu ura.
33. Hartarik deithu zuen hura Nasai-lekhu; eta hiriak, orduan harturik, orai arteo ekharri du Bersaberen izena.
34. Bada, Esauk berrogoi urthetan hartu zituen bi emazte, Judith, Beer hethearraren alaba, eta Basemath, Eton lekhu berekoaren alaba.
35. Bi neskatxa horiek damuztatu zituzten Isaaken eta Errebekaren bihotzak.

### XXVII. KAP.

1. Bada, Isaak zahartu zen, eta begiak lanbrotu zitzaizkon, eta etzeakeen ikhus: deithu zuen Esau bere Seme zaharrena, eta erran zioen: Seme. Ihardetsi zuena: Huna.
2. Aitak erran zioen: Ikhusten duzu zahartu naizela eta eztakidala ene hiltzeko eguna.
3. Har zatzu zure harmak, gezi-untzia eta balazta, eta athera zaitte kanpora; eta ihizi zerbait atzeman dukezunean,

4. Egin dizadazu hartarik jaki bat nik maite dudala dakizuna, eta ekhar dizadazu jan dezadan, eta ene arimak benedika zaitzan, hil nadien baino lehen.

5. Errebekak hori aditurik, eta Esau kanpora goan zenean bere aitarren manuaren bethetzera,

6. Erran zioen Jakob bere semeari: Aditu dut zure aita mintzaten zure anaia Esaurekin, erraten zioela:

7. Ekhar dizadazu zure ihizitik, eta xuxen ditzadatzu jakiak jan detzadan, eta benedika zaitzadan Jaunaren aitzinean hil baino lehen.

8. Orai beraz, ene semea, ene erranei begira zaitte:

9. Eta arthaldera goanik, ekhar dizadatzu bi pittika hobeena, hekiarik egin detzadan zure aitari lakhet zaizkoen jakiak.

10. Eta aitzinera emanen diotzatzunean, eta jan dukeenean, benedika zaitzala hil baino lehen.

11. Jakobek ihardetsi zioen: Badakizu Esau ene anaia gizon iletsua dela, eta ni leguna.

12. Aitak uki banintza eta ezagut, beldur naiz uste izan dezan enganatu nahi izan dudala, eta benedizionearen orde, burhoa bil dezadan ene gainera.

13. Amak erran zioen: Ene gainera jauts bedi, ene semea, burho hura: bakharririk niri begira zaitte, zoazi eta ekhar dizadazu nik errana.

14. Goan zen, ekharri zuen eta amari eman. Hunek jakiak xuxendu zituen Jakobek aitak lakhet zituela zakien bezala.

15. Eta etxean zituen Esauen soinekorik ederrenak jauntzi ziozkan Jakobi.

16. Eta eskuak inguratu ziozkan pittika-larruz eta estali lephoko ageriak.

17. Eta eman ziotzan jakia eta ogi errearazi zituenak.

18. Hekiek eramanik, Jakobek erran zuen: Ene aita. Isaakek ihardetsi zuen. Badantzut. Nor zare, ene semea?

19. Eta Jakobek erran zioen: Esau zure seme zaharrena naiz ni: zuk manatu bezala egin dut, jaiki zaitte, jar zaitte, eta jan zazu ene ihizitik gero benedika nezan zure arimak.

20. Eta berriz erran zioen Isaakek bere semeari: Nola hunen laster atzeman ahal izan duzu, ene semea? Ihardetsi zioen: Jainkoaren nahia izan da laster aitzinera ethor zakidan nahi nuena.

21. Eta Isaakek erran zioen: Hurbil zakizkit hunat, uki zaitzadan, ene semea, eta ezagut dezadan hea ene seme Esau zaren, ala ez.



22. Eta Jakob hurbildu zitzaioen aitari, eta Isaakek, ukitu ondoan hura, erran zuen: Mintzoa egiazki, Jakoben mintzoa da, bainan eskuak, Esauren eskuak dira.

23. Eta etzuen ezagutu, zeren haren esku iletsuek anaia zaharrenaren eskuen itxura hartu baitzuten. Benedikatzen zuelarik beraz,

24. Erran zioen: Zu zare ene seme Esau? Ihardetsi zuen: Bai, ni naiz.

25. Aitak erran zioen: Ene semea, ekhar dizadatzu zure ihizitikako jakiak, benedika zitzan ene arimak. Eskainiak jan zituenean, Jakobek eskaini zioen arnoa ere: hura edan-eta,

26. Aitak erran zioen: Hurbil zakizkit, eta indazu musu bat, ene semea.

27. Hurbildu zen eta musu eman zioen. Eta haren soinekoei zarioten urrin gozoa usnatu zuen bezain laster, aitak, benedikatzten zuelarik erran zioen: Ene semearen usaina da Jaunak benedikatu duen landa bethe bate-na bezala.

28. Jainkoak zeruko ihintzaz eta lurreko goritasunaz eman dezazula ogiaren eta arnoaren nasaizia.

29. Populuek zerbitza zaitzabela eta leinuek adora: izan zaite zure anaien jaun, eta zure amaren semeak gur beitez zure aitzinean; madarikatzen zaituena, bera izan bedi madarikatua: eta benedikatzten zaituena, izan bedi benedizionez bethea.

30. Isaakek bere solasa akhabatu bezain sarri, eta Jakob ilkhi zenean, Esau ethorri zen.

31. Eta bere ihizitikako jaki erreak ekharri ziotzan, erraten zioelarik: Jaiki zaite, aita, eta jan zazu zure semearen ihizitik, benedika nezan zure arimak.

32. Isaakek erran zioen: Nor zare bada zu? Hunek ihardetsi zuen: Esau naiz ni, zure seme zaharrena.

33. Isaak harridura gaitzean jarri zen; eta sinhets daitekeen baino gehiago miretsirik, erran zuen: Nor da bada orantxe bere ihizi atzemanetik ekharri darotana, eta jan baitiot orotarik zu ethorri baino lehen? eta benedikatu dut, eta benedikatua izanen da.

34. Esauk aditu zituenean aitaren solasak, marruma handi bat egin zuen: eta bihotz guzia eroririk, erran zuen: Benedika nezazu ni ere, aita.

35. Isaakek ihardetsi zuen: Amarrukerian ethorri zait zure anaia, eta hartu du zure benedizionea.

36. Eta Esauk erran zioen oraino: Zuzenki emana izan zaio Jakoben izena: ezen bigarren aldian jauzarazi nau ene lekhotik: ene premutasuna eramán darot lehen, eta orai bigarrenekotz atzeman darot ene benedizio-

nea. Eta berriz-ere aitari erran zioen: Enetzat ere ez duzu begiratu benedizionerik?

37. Isaakek ihardetsi zuen: Ezarri izan dut zure jaun, eta bere anaia guziak azpikotu diozkat; ogiaz eta arnoaz jarri dut, eta geroztik, ene semea, zer eginen dut gehiago zuretzat?

38. Esauk erran zioen: Aita, ez othe duzu benedizione bakhar bat ere? othoizten zaitut benedika nezazun ni ere. Eta orroaz nigar egiten baitzuen,

39. Isaakek, ukiturik, erran zioen: Zure benedizionea izanen da lurra- ren goritasunean eta zeruko ihintzean.

40. Biziko zare ezpataz, eta zure anaiaren zerbitzuko izanen zare: bainan ethorriko da ordua non iharrosiren eta khenduko baituzu uztarria zure lephotik.

41. Esauk gaitzirizkoan zadukan beraz bethi Jakob aitak eman zioen benedizionea gatik: eta egin zuen bere baithan: Ethorriko dira ene aitaren doluko egunak, eta hilen dut orduan ene anaia Jakob.

42. Errebeka hortaz jakintsun egina izan zen: ekharrarazirik Jakob bere semea, erran zioen: Huna Esau zure anaia dixiduz non hari den hilen zaituela.

43. Orai beraz, ene semea, adi zazu ene solasa, eta jaikirik ihes-egizu Haranera Laban ene anaia gana:

44. Eta harekin egonen zare zenbait egun, zure anaiaren hasarrea jabal dadin arteo.

45. Hauts dadin haren gaitzialdia, eta ahantz detzan arteo egin diozkatzunak: norbait igorriko darotzut gero, eta ekharraraziko zaitut handik huna. Zertako galduko ditut ene bi semeak batean?

46. Eta Errebekak erran zioen Isaaki: Ene bizia higuintzen dut Hethen alabak gatik: baldin Jakobek lekhu huntako odoletik hartzen badu emazte, ez dut bizi nahi gehiago.

## XXVIII. KAP.

1. Isaakek beraz deithu zuen Jakob, eta manatu zuen, erraten zioelarik: Ez dezazun har emazterik Kanaango odoletik;

2. Bainan egizu hemendik, eta zoazi Mesopotamia Siriakora, Bathuel zure amaren aitaren etxera, eta handik har zazu emazte bat Laban zure osabaren alabetarik.

3. Eta Jainko guziz botheretsuak benedika zaitzala, berharaz eta popularaz zaitzala, izan zadientsat jendaia askoren buru.



4. Eta eman detzatzula zuri eta zure ondotik zure ondokoei Abrahamen benedizioneak: goza dezazun zure erromeriako lurra, zure aitasori agindua izan dena.

5. Eta Isaakek igorri zuenean, goan zen Mesopotamia Siriakora, Laban Bathuel siriarraren seme eta Errebeka bere amaren anaia gana.

6. Bainan Esauk ikhusirik aitak benedikatu zuela Jakob, eta igorri zuela Mesopotamia Siriakora, handik emazte har zezantzat; eta benedizioea eman-eta, manatu zuela erraten zioelarik: Ez duzu emazterik hartuko Kanaango neskatxetarik:

7. Eta Jakob ere, bere burhasoei obeditzeko, Siriara goan zela:

8. Eta ikhusirik oraino aitak etziotela gogo onez begirutzen Kanaango neskatxei:

9. Goan zen Ismaelen gana, eta emaztetzat hartu zuen, aitzmean zituenez bertzalde, Maheleth, Ismael Abrahamen semearen alaba, Nabaiiothen arreba.

10. Jakob beraz Bersabetik atheraturik bazihoan Haranera.

11. Eta heldu izan zenean toki batetara, eta nola han phausatu nahi baitzuen iguzkia etzan ondoan, han zauden harrietarik hartu zuen, eta buruaren azpian ezarririk, lekhu berean lo egin zuen.

12. Eta ametsetarik ikhusi zuen zurubi bat muthur batez lurraren gainean eta bertzeaz zerua ukitzen zuela: eta Jainkoaren aingeruak hartan goiti eta beheiti zabilzan,

13. Eta Jauna zurubi buruan bermatua, erraten zioela: Ni naiz Abraham zure aitaren Jainko Jauna, eta Isaaken Jainkoa: zuri eta zure ondokoei emanen darotzuet lurra zeintan lo baitzaude.

14. Eta zure ondoregoa izanen da lurreko herrautsa iduri: hedatuko zare iguzkiaren ilkhialdetik sarralderaino eta ipharretik hegoaraino: eta lurreko leinu guziak izanen dira zu baithan eta zure ondoregoa baithan benedikatuak.

15. Eta zure zaintzailea izanen naiz goanen zaren toki guzietan, eta berriz erakharriko zaitut lur huntara: etzaitut utziko erran ditudan guziak bethe arteo.

16. Eta lotarik atzarri zenean, Jakobek erran zuen: Egiazki Jauna lekhu huntan da, eta nik ez nakien.

17. Eta lotsatzen zelarik, erran zuen: Zeinen den lekhu hau ikharragarria! ez da hau bertzerik, baizen Jainkoaren etxea eta zeruko athea.

18. Jakobek beraz goizean jaikirik, hartu zuen buru-azpian ezarri izan zuen harria, eta olio gainera ixuririk, xutik ezarri zuen orhoitpenetako.

19. Eta Bethel izentzat eman zioen, lehenago Luza deitzen zen hiriri.

20. Eta botu ere egin zuen, erraten zuelarik: Baldin Jainkoa enekin egoten bada, eta zaintzen banau orai deramadan bidean, eta ematen bada-rozkit ogia jateko, eta soinekoak jaunzteko,

21. Eta zorionekin itzultzen banaiz ene aitaren etxera: Jauna izanen da ene Jainkoa.

22. Eta orhoitpenetan landatu dudan harri hau, deithuko da Jainkoaren etxea; eta eskainiko darozkitzut, Jauna, zuk niri emanen dakizkedatzun guzieren hamarrenak.

## XXIX. KAP.

1. Jakob lothurik beraz bideari, ethorri zen iguzki-sorthaldeko lurrera.

2. Eta ikhusi zuen putzu bat landa batean, eta hirur ardi-arthalde ondo hartan etzanak: ezen putzu hartarik edaraten ziren aziendak, eta harri handi batez tapatzen zen putzuko ahoa.

3. Ohitza zen, ardi guziak bildu-eta, harria altxatzea, eta arthaldeak ase-ta, putzuko ahoan berriz ezartzea.

4. Eta Jakobek erran zioten artzainei: Anaiak, nongoak zarete? Ihardetsi zuten: Haranekoak.

5. Galdegin zuen berriz: Ezagutzen duzue Laban, Nakorren semea? Erran zuten: Ezagutzen dugu.

6. Ongi da? —Osagarri du; eta horra Errakel haren alaba non heldu den bere arthaldearekin.

7. Jakobek erran zioten berriz: Iguzkia gora da oraino eta ez da arthaldeak bordetara erakhar ordu: emozuete beraz lehenago ardiei edatera, eta gero alhatzera bihurraziren ditutzue.

8. Ihardetsi zuten: Ez dezakeguke, azienda guziak bil ditezen arteo, eta harria putzuko ahotik khendu arteo, arthaldeen edaratekotzat.

9. Oraino mintzo zuelarik, huna Errakel heltzen hari zela bere aitararen ardiekin: ezen, Errakelek berak alhatzen zuen arthaldea.

10. Jakobek ikhusi zuenean, eta nola baitzakien kusi lehena zuela, eta ardiak bere osaba Labanek, altxatu zuen putzua estaltzen zuen harria.

11. Eta arthaldearen edanarazirik, musu eman zioen; eta mintzoa goraturik, nigar egin zuen,

12. Eta jakintsun egin zuen haren aitaren anaia zela, eta Errebekaren semea: eta hau arinik goan zen bere aitari erratera.

13. Labanek jakin zuenean Jakob bere arrebaren semea heldu zitzaioela, bidera laster egin zioen: eta besarkaturik, eta asko musu emanik, eraman zuen bere etxera. Eta entzunik bidaiako ariari,



14. Ihardetsi zioen: Ene hezurra zare eta ene haragia. Eta hilabete batetako egunak iragan zirenean,
15. Erran zioen: Ene anaia zarelakotz, urrurik behar othe nauzu zerbitzatu? erradazu zer sari hartuko duzun.
16. Bada, Labanek bazituen bi alaba: zaharrena deitzen zen Lia, eta gazteena Errakel.
17. Bainan Liak begiak zituen bethirintsu: Errakel begithartez ederra zen, eta begira gogaragarri.
18. Jakobek, hau maite baitzuen, erran zuen: Errakel zure alaba gazteenarentzat zerbitzatu zaituzte.
19. Labanek ihardetsi zioen: Hobe dut zuri eman dezadan bertze bati baino: zaude ene etxean.
20. Jakobek beraz Errakelentzat zerbitzatu zuen zazpi urtez; eta egun laburrak iduritzen zaizkoen, bere amodioaren handia gatik.
21. Eta erran zioen Labani: Indazu ene emaztea, ezen harekin ezkontzeko ephea bethea da.
22. Labanek adiskide moltzo handi bat deithurik barazkari batera, egin zituen ezteiak.
23. Bainan arratsean Lia bere alaba sarrarazi zuen Jakobean gana,
24. Neskato bat emanik Zelpha deitzen zena. Jakob ohi den bezala hurbildu zitzaioen, eta goiza ethorri zenean Lia ikhusi zuen.
25. Eta erran zioen bere aitagarrebari: Zer egin nahi izan duzu? Ez othe zaituzte Errakelentzat zerbitzatu? zertako enganatu nauzu?
26. Labanek ihardetsi zioen: Ez da gure lekhuaz aztura, gazteenak lehenik ezkontzaz emateko.
27. Bete zazu Liarekilako astea: eta Errakel emanen darotzute bertze zazpi urtheren lanarentzat.
28. Jakobek galdea onhetsi zuen: eta astea iragan-eta, ezkondu zen Errakelekin,
29. Zeinari aitak neskatotzat eman baitzioen Bala.
30. Azkenekotz Jakobek bere hautuko ezkontza egin eginik, bigarren hau gogoanago izan zuen, bertze zazpi urtez Laban zerbitzatzeko zuelarik.
31. Bainan Jaunak ikhusirik Lia erdeinatzen zuela, ideki zuen hunen haur-untzia, Errakel agor gelditzen zelarik.
32. Lia seme batez amatu zen beraz, eta deithu zuen Erruben, erraten zuelarik: Jaunak ikhusi izan du ene aphalkuntza; maithatuko nau orai ene gizonak.

33. Berriz ere amatu zen, eta seme batez erdi, eta erran zuen: zeren Jaunak ikhusi baitu erdeinu banuela, eman izan darotzute hau ere; eta izen eman zioen Simeon.

34. Eta hirugarren aldiko amatu zen eta erdi zen bertze seme batez; eta erran zuen: Orai ere hurbilduko zait ene senharra, zeren eman diotzadan hirur seme; eta hartakotz deithu zuen Lebi.

35. Laugarren aldiko amatu zen, eta erdi zen seme batez, eta erran zuen: Orai goretziko dut Jauna, eta hargatik haurra deithu zuen Juda; eta gelditu zen haur egitetik.

### XXX. KAP.

1. Errakelek ikhusirik agor zagoela, bekhaiztu zitzaioen bere ahizpari, eta bere senharrari erran zioen: Indatzu haurrak niri ere, hilen naiz bertzela.

2. Jakobek samurturik ihardetsi zioen: Ni othe naiz Jainkoa bezala zeinak gabetu baitzaitu sabeleko fruitutik?

3. Eta Errakelek erran zioen: Badut neskato bat, Bala: hurbil zakizko, erdi dadientzat ene altoan, eta haren ganik izan detzadan haurrak.

4. Eta eman zioen ezkontzaz Bala: hau,

5. Gizona hurbildurik, amatu zen, eta erdi seme batez.

6. Eta Errakelek erran zuen: Jaunak erabaki du ene alde, eta entzun du ene boza, seme bat niri ematean; eta horren gatik deithu zuen Dan.

7. Eta berriz ere amaturik, Balak egin zuen bertze seme bat,

8. Zeinetaz Errakelek erran baitzuen: Jainkoak erkhatu nau ene ahizpari eta garai gelditu naiz; eta haurra deithu zuen Nefthali.

9. Liak ezagaturik haur egitetik gelditu zela, eman zioen Jakobik Zelpha bere neskatoa,

10. Zeina amatu baitzen eta Seme batez erdi,

11. Liak erran zuen: Zorionean; eta hargatik eman zioen Gad izentzat.

12. Zelphak egin zuen bertze seme bat ere,

13. Eta Liak erran zuen: Hori ene dohatsutasunerako; ezen dohatsua erranen naute emaztekiek: horren gatik haurra deithu zuen Aser,

14. Bada, Erruben landetara atheratu zen batez ogi-ephaitzetan, atzeman zituen urrilo bihiak eta ekharri ziozkan bere ama Liari: Eta Errakelek erran zioen ahizpari: Indazu zure semearen urrilo bihiatarik.

15. Hunek ihardetsi zioen: Ez othe zaitzu aski iduri senharra eramatea niri, ene semearen urrilo bihiak eraman gabe? Errakelek erran zioen: Zure semearen urriloen truk, gaur lo egin beza Jakobek zurekin.



16. Eta Jakob arratsean landatik heldu zelarik, bidera atheraturik Liak erran zioen: Zato gaur ni gana, zeren ardietsi baitzaitut ene semearen urri-loen sari. Eta gau hartan lo egin zuen Liarekin.

17. Eta hunen othoitzak entzun zituen Jainkoak, eta amatu zen eta bortzgarren semeaz erdi.

18. Eta erran zuen: Jainkoak sariztatu nau zeren ene neskatoa eman diodan ene senharrari: eta haurra deithu zuen Isakar.

19. Berriz ere izorra gerthaturik, egin zuen seigarren seme bat,

20. Eta erran zuen: Dohain onez dohatu nau Jainkoak: aldi huntan ere ene senharra enekin egonen da, sei semeren aita egin dudalakotz: eta hargatik haurra deithu zuen Zabulon.

21. Hunen ondotik izan zuen alaba bat Dina deithua.

22. Errakelez ere orhoitu izan zen Jauna, entzun zuen, eta ideki zioen haur-untzia.

23. Errakel izorra gerthatu zen eta erdi zen seme batez, erraten zuelarik: Jainkoak khendu darot ene laidoa.

24. Eta haurra Josep deithu zuen, erraten zuelarik: Jaunak eman biatzat oraino bigarren seme bat.

25. Josep sorthu ondoan, Jakobek erran zioen bere aitagarrebari: Utz nezazu bihurtzera ene herrira eta ene sor-lekhura.

26. Indatzu, goan nadien, ene emazteak eta ene haurrak, zeinen iza-teko zerbitzatu baitzaitut: badakizu nola zerbitzatu zaitudan.

27. Labanek erran zioen: Grazia ardietsi biatzat zure aitzinean, ezen frogantzaz ezagutu dut Jainkoak zu gatik benedikatu nauela.

28. Zerorrek xeda zazu eman behar darotzudan saria.

29. Jakobek ihardetsi zuen: Badakizu nolatan zerbitzatu zaitudan, eta zure ontasuna zer egin den ene eskuetan.

30. Guti zinduen ni ethorri aitzinean, eta orai aberats egina zare, eta Jaunak benedikatu zaitu ni sarthu naizen ordutik. Zuzen da beraz nik ere noizbait hotseman diozotedan ene egitekoei.

31. Eta Labanek erran zioen: Zer emanen darotzut? Jakobek ihardetsi zuen: Ez dut deusere nahi: bainan egiten baduzu nik galdatzen dudana, alhatuko eta zainduko ditut berriz ere zure aziendak.

32. Ikhar zatzu zure arthalde guziak, eta berez zatzu nabardurarik eta ilean pintarnarik duten ardiak oro; eta uherrik, pintarnaturik eta nabarrak ethorriko diren guziak nahiz ardietan, nahiz ahuntzetan, izanen dira ene sari.

33. Eta geroan ene zuzentasunak ihardetsiko du enetzat, ethorriko zaitzunean ene sariaren emateko ordua: eta nabarrak, pintarnatuak edo uherrak izanen ez diren ardi eta ahuntz guziek jazarriko darotet ohointzaz.

34. Eta Labanek ihardetsi zioen: Onhesten dut zure galdea.

35. Eta egun berean berezi zituen ahuntz, eta ardi, eta akher, eta ahari nabar eta pintarnatuak: eta kolore batetako arthalde guzia, erran nahi da oro xuri edo beltza zena, eman zuen bere semeen eskuetara.

36. Eta hirur egunen bidea ezarri zuen bere eta bere suhiaren artean zeinak alharazten baitzituen gainerako arthaldeak.

37. Jakobek beraz harturik burzuntz, amanda, eta albo zaharo heze batzuek azala khendu zioten zenbaiti: eta azala khendu ondoan larrutuak izan zirenetan, xuria agertu zen: bainan oso utzi zituenak ferde gelditu ziren: eta holetan kolore bat baino gehiago egin zen.

38. Eta ezarri zituen asketan zeinetara ixurtzen baitzen ura, arthaldeek edatean begien azpian izan zetzatentzat zaharoak, eta begien aitzinean ernal zitezentzat.

39. Eta gerthatu zen ardiek zaharoei begiratzen ziotela estal-orduan, eta ume pintarnatuak, nabarrak eta asko karantzetakoak egiten zituztela.

40. Eta Jakobek berezi zuen arthaldea, eta zaharoak ezarri zituen asketan aharien begien azpian: eta zuriak eta beltzak ziren guziak, Labanenak ziren, gainerakoak berriz Jakobek, elkharren artean arthaldeak berezi ondoan.

41. Beraz ardiak estaltzen ziren lehenbiziko aroan, Jakobek zaharoak asketan ezartzen zituen ardien eta aharien aitzinean, ernal zitezentzat hekiei begira zaudelarik.

42. Bainan estaltze berantiarra zenean eta azken ernalaldia, zaharoak etzitzen ezartzen. Eta egin zen beranteko umeak zirela Labanenak, eta goixtiarrak Jakobek.

43. Holetan gizona aberastu zen ohi ez den bezala, eta izan zituen arthalde hainitz, neskato eta muthil, kamelu eta asto.

### XXXI. KAP.

1. Bainan gero aditu zituen Labanen semeen solasak erraten zutela: Jakobek hartu ditu gure aitarenak ziren guziak, eta haren ahalaz bera egin da jaun handi.

2. Ohartu ere zen Labanen begithartea etzela haren aldera ez atzo, ez herenegun bezala:

3. Eta oroz gainetik Jaunak hari erranik: Itzul zaite zure aitzinekoen lurrera, eta zure ahaidegora, eta ni zurekin izanen naiz.



4. Igorri zuen Errakelen eta Liaren bilha eta deithu zituen arthaldeak alhatzen zituen tokira.
5. Eta erran zioten: Ikhusten dut zuen aitaren begithartea ez dela ene aldera ez atzo, ez herenegun bezala: bainan ene aitaren Jainkoa izan da enekin.
6. Eta zerorrek badakizue ene indar oroz zerbitzatu dudala zuen aita.
7. Bainan zuen aitagenganatu nau, eta hamar aldiz ganbiatu du ene saria: eta bizkitartean Jainkoak ez du utzi niri bidegabe egitera.
8. Erran izan badu: Bildots nabarrak izanen dira zure sari: ardi guziek egiten zituzten ume nabarrak: bertzaldera erran duenean: Xuriak hartuko dituzu saritzat; arthalde guziek ume xuriak egin dituzte.
9. Eta Jainkoak zuen aitari khendu dio ontasuna niri emateko.
10. Ezen ernaltzeko aroa ethorri ondoan, altxatu ditut begiak, eta ametsetan ikhusi ditut urrixen gainera igaiten ziren orotsak pintarnatuak eta nabarrak zirela.
11. Eta Jainkoaren aingeruak erran izan darot ametsetan: Jakob. Eta nik ihardetsi diot: Huna non naizen.
12. Erran darot: Altxa zatzu begiak eta ikhus zatzu urrixen gainera igaiten diren orots guziak asko karantzetakoak eta pintarnatuak. Ikhusi ditut ezen Labanek egin darozkitzun guziak.
13. Ni naiz Bethelgo Jainkoa, non harria gantzutu baitzinduen eta niri botu egin. Orai beraz jaiki zaite, eta athera lur huntarik, zure sor-lek-hura itzultzeko.
14. Eta Errakelek eta Liak ihardetsi zioten: Ez othe dugu gure aitareren etxeko onetan eta zuzenean ondarrik ere hartzeko?
15. Ez othe gaitu erakhutsi atze batzuek bezala? ez othe gaitu saldu, eta gure balioa ez othe du jan?
16. Bainan Jainkoak hartu ditu gure aitaren onak, eta eman darozkitzugu guri eta gure semeei; egizkitzu beraz Jainkoak zuri manatu guziak.
17. Jakob xutitu zen beraz; eta haurrak eta emazteak kameluen gainean ezarririk, goan zen.
18. Eta eraman zituen bere izate guziak, eta arthaldeak, eta Mesopotamian irabazi zituen guziak, egiten zuelarik bere aita Isaaken gana, Kanaango lurrera.
19. Ordu hartan Laban goana zen ardien moztera, eta Errakelek ebatsi zituen bere aitaren jainkordeak.
20. Eta Jakobek etzioen nahi izan aithortu bere aitagarrebari ihes zihoala.

21. Beraz goan zenean bera bere zuzeneko zituen guziekin, eta ibaia iraganik Galaadeko mendiari buruz zihoalarik,
22. Hirugarren egunean Laban jakintsun egina izan zen Jakobek ihes egin zuela.
23. Bere anaiak harturik, jarraiki zitzaioen zazpi egunez eta atzeman zuen Galaadeko mendian.
24. Eta ametsetan ikhusi zuen Jainkoa zeinak erraten baitzioen: Begira zaite Jakobi deusere gogorrik erratetik.
25. Eta jadanik Jakobek mendian hedatua zuen bere olha: eta Labanek jarraikirik bere anaiekin atseman zuenean, harek ere bere olha landatu zuen mendi berean.
26. Eta Jakobi erran zioen: Zertako haritu zare horrela, ixilka eramateko ene alabak, ezpataz bildu gathibuak iduri?
27. Zertako nik jakin gabean nahi izan duzu ihes egin, eta erran gabe, lagun zintzantzat bozkarioz, kantuz eta atabalak eta maniurrak joz?
28. Ez nausu utzi ene semei eta alabei musu baten ematera: zoro batek bezala egin duzu: eta orai segur
29. Ene eskuak bihur ahal dizazuke gaizkia: bainan zure aitaren Jainkoak erran darot atzo: Begira zaite Jakobi gogorkiegi mintzatzetik.
30. Naski zure ahaideetara goatera gutizian zinen eta zure aitaren etxera lehian; bainan zertako ebatsi darozkidatzu ene jainkoak?
31. Jakobek ihardetsi zioen: Zuk jakin gabean abiarazi nauena da zure alabak bortxaka eraman zinaitzan beldurra.
32. Bainan ebasko jazartzen darotasunaz: noren ere eskuetan atzemanen baitira zure jainkoak, eta hura hila izan bedi gure anaien aitzinean. Bilha zaite; eta zurerik ene baithan atzemanen duzun guzia, har zazu. Horiek erratean, etzakien Errakelek ebatsiak zirela jainkordeak.
33. Beraz Jakobek eta Liaren olhetan, eta bi neskatoenetan sarthurik, Labanek etzituen aurkhitu. Bainan Errakelen olhan sarthu zenean,
34. Hunek zalhuki gorde zituen jainkordeak kamelu baten ihaurkina- ren azpian, eta gainean jarri zen: Labanek olha guzia ikhartzen zuelarik eta deusik ez aurkhitzen,
35. Errakelek erran zioen: Ez bedi samur, ene jauna, berorren aitzinean zeren ezin xuti banaiteke: ezen emaztekiei ethorri ohi zaiotena gertatu zait niri. Hola enganatu zuen bilhatzailearen artha.
36. Orduan sumindurik, Jakobek erran zioen larderiarekin Labani: Zer hoben, edo zer gaizki nik eginik berotu zare hola ene ondotik,



37. Eta ikhartu dituzu ene puska guziak? Zer khausitu duzu zure etxeko on guzietarik? Mintza zaite hemen ene anaien eta zureen aitzinean, eta erabak bezate zure eta ene artean.

38. Hortakotzat izatu naiz hogoi urthez zurekin? zure ardiak eta ahuntzak ez dira barret egon; ez ditut jan zure arthaldeko ahariak:

39. Ihiziek eramana ez, darotzut erakhutsi, eta kalte guzia neronek estaltzen nuen: ohorgoz galdu den guziaz ordaina behartzen zinduen ni ganik.

40. Egunaz beroak erretzen ninduen, eta gabaz hotzak hormatzen, eta loa ihes zabilan ene begietarik.

41. Horrela zerbitzatu izan zaitut zure etxean hogoi urthez, hama-lueuz zure alabentzat, eta feiez zure arthaldeentzat: ene saria ere ganbiatu duzu hamar aldiz.

42. Abraham ene aitaren Jainkoak eta Isaaken beldurrak lagundu ez banindute, biluz-gorririk beharbada igorriko ninduzun: Jainkoak ene atsekabeari eta ene eskuetako lanari begiratu diote, eta atzo jazarri izan darotzu.

43. Labanek ihardetsi zioen: Ene alabak eta semeak eta zure arthaldeak, eta ikhusten dituzun guziak eneak dira: zer egin dezoketet ene alabei eta ilbasoei?

44. Zato beraz, eta batasun egin dezagun: zure eta ene artean lekhukotasunetan izan dadientzat.

45. Hartako Jakobek hartu zuen harri bat eta xutik ezarri orhoipenetan;

46. Eta erran zioten bere anaiei: Ekhar zatzue harriak. Eta bildurik munho bat egin zuten, eta haren gainean jan zuten:

47. Labanek hura deithu zuen Lekhukoaren munhoa, eta Jakobek Lekhukotasuneko meta, zeinek bere mintzaiako ariaren arabera.

48. Eta Labanek erran zuen: Munho hau izanen da egun zure eta ene artean lekhuko; eta horren gatik deithua izan da Galaad, erran nahi da, Lekhukoaren munhoa.

49. Jainkoak begira bezagu eta erabaki beza gure artean, zeinek gure aldera egin dukegunean,

50. Baldin atsekaberik ematen badiozute ene alabei, eta haukien gainera bertze emazterik hartzen baduzu: gure solasak ez du lekhuko bertzerik Jainkoa baizik zeina begira baitagoku.

51. Eta Jakobi erran zioen berriz: Huna munho hau, eta harria zure eta ene artean xutik landatu dudana,

52. Lekhuko izanen dira: munho hau, diot, eta harria izan beitez lekhuko, baldin nik hau iragaiten badut zure ganako aldera, edo zuk iragaiten baduzu, ene gaitza burutan duzularik.

53. Abrahamen Jainkoak eta Nakorren Jainkoak, hekien aitaren Jainkoak erabak beza gure artean. Jakobek beraz zin egin zuen Isaak bere aitaren beldurrak.

54. Eta bitimak imolaturik, deithu zituen bere anaia ogia jan zeza tentzat. Jan ondoan, haukiek baratu ziren han berean.

55. Bainan gabaz jaikirik, Labanek musu eman zioten bere seme-alabei, eta benedikatu zituen: gero itzuli zen bere lekhuetara.

## XXXII. KAP.

1. Jakobek ere egin zuen abiatua zen bideaz: eta Jainkoaren aingeruak ethorri zitzaizkon aitzinera.

2. Hekiek ikhusi zituenean, erran zuen: Hemen dira Jainkoaren kanpak; eta deithu zuen lekhu hura Mahanaim, erran nahi baita, kanpak.

3. Eta bere aitzinean mandatariak igorri zituen bere anaia Esauri Seirreko lurrera, Edomen aurkhintzara;

4. Eta manu egin zioten, erraten ziotelarik: Huneletan mintzatuko zarete Esau ene jaunari: Huna zer dioen Jakob zure anaia: Arrotz bezala izatu naiz Labanen baithan, eta han egotu naiz orai arteo.

5. Baditut idiak, eta astoak, eta ardiak, eta muthilak, eta neskatoak: eta egun igortzen ditut mandatariak ene jaunari, grazia aurkhi dezadantzat berorren aitzinean.

6. Eta Jakobek gana bihurtu ziren mandatariak, erraten zutelarik: Izatu gare Esau zure anaia baithan, eta huna herresakan heldu zaitzula bidera lau ehun gizonekin.

7. Jakob beldurtu zen hainitz; eta bere izialduran, ezarri zituen bi multzotan berekin zuen jendea, eta arthaldeak, ardi, idi eta kamelu,

8. Erraten zuelarik: Esau heldu bada multzo batetara eta hura jo dezan, bertze gelditua, itzuriko da.

9. Eta Jakobek erran zuen: Abraham ene aitaren Jainkoa, eta Isaak ene aitaren Jainkoa, Jauna, zeinak erran izan baitarotazu: Itzul zaite zure lurrera, eta zure sor-lekhura, eta benedikatu zaitut.

10. Ez ditut merezi zure urrikalmenduak, ez-etare zure zerbitzariari iduki diozun zintasuna. Ene makhilarekin iragan izan dut Jordaneko ur hori, eta orai bihurtzen naiz bi multzorekin.

11. Itzur nezazu ene anaia Esauren eskuari, zeren hainitz bainaiz haren lotsa, beldurrez ethorririk jo dezan ama bere haurrekin.



12. Zuk erran izan darotazu benedikatuko nauzula, eta ene ondoreak usutuko dituzula itsasoko legarra bezala, eta ezin khondatuak izanen direla beren oste handia gatik.

13. Eta gau hura han lo egin ondoan, bere izatean berezi zituen emaitzak bere anaia Esarentzat,

14. Berrehun ahuntz, hogoi akher, berrehun ardi, eta hogoi ahari,

15. Hogoi eta hamar kamelu urrix beren umeekin, berrogoi behi eta hogoi zezen, hogoi asto urrix eta hamar astokume.

16. Eta igorri zituen bere sehiez arthalde bakhotxa berez, sehiei erraten ziotelarik: Zoazte ene aitzinean, eta arte bat utz zazue arthalde bate-tik bertzera,

17. Eta manatu zuen lehenbizikoa, erraten zioelarik: Bidean aurkhitzen baduzu ene anaia Esau, eta galde egiten badarotzu: Norena zare? edo: Nora zoazi? edo: Norenak dira eragiten diozuten azienda horiek?

18. Ihardetsiko diozu: Zure zerbitzari Jakobena: emaitzetan igorzen diozka Esau bere jaunari: bera ere gure ondolik heldu da.

19. Manu bera eman zioten bigarrenari eta hirugarrenari eta arthaldeen eragile guzietan, erraten ziotelarik: Hitz berez, mintzatuko zarete Esauri atzematen duzuean.

20. Eta erranen diozue oraino: Jakob zure zerbitzaria ere gure bideari jarraikitzen da. Zioen ezen: Aitzinean igortzen ditudan emaitzez eztituko dut hura, eta gero ikhusiko dut: beharbada begitharte eginen darot.

21. Emaitzak goan ziren beraz aitzinean; bainan bera kanpetan gelditu zen gau hartan,

22. Eta goizik jaikirik, hartu zituen bere bi emazteak, eta bekien bi neskatoak, bere hameka semeekin, eta iragan zuen Jabokeko ubia.

23. Eta zituenak oro iraganarazirik,

24. Bakharrik gelditu zen: eta huna gizon bat harekin borroka hari zela goiza arteo.

25. Eta gizonak ikhusi zuenean ezin garhait zezakeela, ukitu zioen ixtazaina, eta ihartu zitzaioen berehala,

26. Eta erran zioen Jakobi: Utz nezazu goatera, ezen orai kotz goratua da argizkorria. Ihardetsi zioen: Etzaitut utziko, non ez nauzun benedikatzin.

27. Hunek erran zioen: Zer da zure izena? Ihardetsi zioen: Jakob.

28. Eta hunek erran zioen: Gaurgoiti etzare deithuko Jakob, bainan bai Israel: zeren hazkar izan bazare Jainkoaren kontra, hanbatenez gehiagun nausituko zare gizonen kontra.

29. Jakobek galdatu zioen: Erradazu, zer duzu izena? Ihardetsi zuen: Zertako duzu ene izenaz galde? Eta benedikatu zuen han berean.

30. Eta Jakobek deithu zuen lekhu hura Phanuel, erraten zuelarik: Ikhusi dut Jainkoa bekhoz bekho, eta begiratu dut ene bizia.

31. Eta iguzkia atheratu zitzaioen Phanuel iragan-eta berehala: bainan zango batez maingu egiten zuen.

32. Aria hortaz Israelen semeek ez dute oraiko eguna arteo jaten Jakobena ixterrean ihartu zen zainetik: zeren ixtazain hura ukitua izanik, elkortu baitzen.

### XXXIII. KAP.

1. Gero Jakobek begiak altxatzen zituelarik, ikhusi zuen Esau heldu zela, eta harekin lau ehun gizon: eta Liaren, Errakelen eta bi neskatoen haurrak berezi zituen.

2. Eta ezarri zituen bi neskatoak beren haurrekin aitzinean: gero Lia eta bere haurrak ondolik: eta Errakel Josepekin azken buruan.

3. Eta bere aitzina goanik, lurrera gurthu eta adoratu zuen zazpi aldiz bere anaia hurbildu arteo.

4. Esauk bada laster egiten zuelarik haren gana, besarkatu zuen; eta lephoa tinkatzen zioelarik eta musu ematen, abiatu zen nigarrez.

5. Begiak altxatu-eta, ikhusi zituen emaztekiak eta hekien haurrak, eta erran zuen: Zer nahi dute horiek? ala zureak dira? Ihardetsi zuen: Jainkoak niri zure zerbitzariari eman dituen umeak dira.

6. Eta hurbildurik, neskatoak eta hekien haurrak gurthu ziren.

7. Lia ere hurbildu zen bere haurrekin: eta orobat adoratu zutenean, Josepek eta Errakelek adoratu zuten azkenik.

8. Eta Esauk erran zuen: Zer dira bidean atzeman ditudan multzo hekiek? Jakobek ihardetsi zuen: Grazia khausi nezan ene jaunaren aitzinean.

9. Eta hunek erran zioen: Anaia, ontasun asko badut; iduk zatzu zureak zure.

10. Eta Jakobek ihardetsi zioen: Ez, othoi, zure begietan grazia aurkhitu badut, ene eskuetarik onhets zazu emaitza ttipi hori: ezen zure begithartea ikhusi dut, hala nola ikhusi izan banu Jainkoarena; alde izan zakizkit,

11. Eta onhets zazu ekharri darotzutan benedizioa, Jainko ooren emaile denak eman izan darotana. Esauk, anaia oren othoizetara nekez onhetsirik emaitzak,

12. Erran zuen: Goazen elkharrekin eta izanen naiz zure bideko lagun.





13. Eta Jakobek ihardetsi zioen: Badakizu, Jauna baditudala haur xeheak, ardiak eta behi ernariak enekin; nekharazten badituz usuago ibilarriz, egun batean hilen zaizkit arthaldeak.

14. Ene jauna, goan bedi bere zerbitzariaren aitzinean; eta ni jarraiki-ko naiz emeki haren urhatsari, ikhusiz ene haur ttipien ahala, heldu arteo Seirra ene jaunaren gana.

15. Esau ihardetsi zuen: Enekin diren gizonetarik, zure bideko lagun zenbait bederen othoi geldi beitez. Jakobek erran zioen: Ez da pre-miarik: hau da beharretan naizen gauza baxharra, khausi dezadan, jauna, grazia zure aitzinean.

16. Esau itzuli zen beraz egun berean ethorri bideaz Seirra.

17. Eta Jakob ethorri zen Sokothera, eta han etehe bat eta olhak eginik, lekhu hura deithu zuen Sokoth, erran nahi da, Olhak.

18. Eta iragan zen Salem, Sikimitarren hirira, zeina baita Kanaango lurrian, Mesopotamia Siriakotik bihurtu ondoan; eta bere egoitza egin zuen hiriaren aldean.

19. Eta ehun bildots truk erosi zuen bere olhetako bazterraren zathi bat Hemorren semeei, eta Hemor zen Sikemen aita.

20. Eta han aldare bat eginik, haren gainean dei egin zioen Israelen Jainko guziz hazkarrari.

#### XXXIV. KAP.

1. Bada, Dina, Liaren alaba, ilkhi zen lekhu hartako emaztekiek ikhustera.

2. Ikhusi zuenean Sikemek, Hemor hebearren, lekhu hartako buruzagiaren semeak, maithatu zuen, eta ebatsi eta harekin lo egin zuen, dontzellari bortxa egiten zioelarik.

3. Eta bihotza josi zitzaioen hari, eta bere lausenguez eztitu zuen haren goibeldura.

4. Eta bere aita Hemorren gana goanik, erran zioen: Onhets dizada-zu neskatxa hori emaztetzat.

5. Jakobek hori aditu zuenean, semeak kanpoan zituelarik azienden alhatzen, ixilik gelditu zen hekiek bihurtu arteo.

6. Eta Hemor, Sikemen aita ilkhi zelarik Jakobi mintzatzeko,

7. Huna non Jakobek semeak heldu ziren kanpotik; eta aditu zute-nean zer zen gerthatu, hasarre handitan eman ziren, zeren gauza itsusia gerthatu zen Israelen, eta Jakobek alaba bortxatzea, gauza debekatua egin zelakotz.

8. Hemor beraz mintzatu zitzaioen: Sikem ene semea bihotzez josi da zuen alabari, emozue emaztetzat;

9. Eta ezkontzez bat gaitezen: igutzue zuen alabak, eta har zatzue gure alabak;

10. Egizue zuen egoitza gurekin, lurra zuen eskuko da; lant zazue, salerositan hari zaitezte, eta lurra goza zazue.

11. Sikemek ere erran zioten Dinaren aitari eta anaiei: Grazia aurkhi bezat zuen aitzinean, eta erabakitzen duzuen guzia emanen dut:

12. Berha zazue dotea eta emaitzak galda, eta gogo onez emanen dituz galdatuak: indazue baxharrik neskatxa hau emaztetzat.

13. Jakobek semeek, beren arrebari egin izan zitzaioen bortxaren hisiaz, ihardetsi zioten Sikemi eta bere aitari maltzurkeria gogoan zerabilatelarik:

14. Ez dezakegu egin zuek galdegiten duzuen, ez-etare eman gure arreba gizon ingurebakia ez den bati; hori gauza zilhegi ez dena eta tzarra delakotz gu-tartean.

15. Bainan hortan batasun egin dezakegu, baldin egin nahi bazarete gure bardin, eta ingurebakitzen badira zuen arteko gizonki guziak.

16. Orduan emanen ditugu eta hartuko, zuek zuen alabak, eta guk gureak: eta egonen gare zuekin, eta populu bat izanen gare.

17. Bainan ingurebakiak ez baduzue izan nahi, hartuko dugu gure alaba, eta hemendik goanen gare.

18. Eskaintza hori izan zen Hemorren eta haren seme Sikemen gogarako;

19. Eta gizon-gazte horrek etzuen luzatu non galdegina etzuen berehala bethetzen: ezen hainitz zuen maite neskatxa; eta bera hainitz ikhusia zen bere aitaren etxean.

20. Eta hiriko athera sarthurik, mintzatu ziren populari:

21. Gizon hauiek baketiarrak dira, eta nahi dute egon gurekin: salerositan hari beitez lur huntan, lant bezate, hedatua eta zabala da eta langilez eskas da: hartuko ditugu horien alabak emaztetzat, eta horiei emanen diotzotegu gureak.

22. Gauza baxhar bat da on handi hori gibelatzen duena: ingurebakitzen baditugu gure gizonkiak, jendaki horren ohitzaren arabera egiteko,

23. Horien onak, arthaldeak eta dituzten guziak gureak izanen dira: onhets diotzotegun hori bera, eta elkharrekin egoten garelarik populu baxhar bat eginen dugu.

24. Oro hitz berera ethorri ziren, gizonki guziak ingurebakirik.



25. Eta huna non, hirugarren egunean, sarraskien oinhazea minean zenean, Jakoben bi seme, Simeon eta Lebi, Dinaren anaiak, ausarki sarthu ziren hirian ezpatekin: eta gizonki guziak hilik,

26. Hemor eta Sikem orobat hil zituzten, eramaten zutelarik Dina, beren arreba, Sikemen etxetik.

27. Horiek atheratu zirenean, Jakoben bertze semeak jauzi ziren hilen gainera, eta hiria xahutu zuten bortxa eginaren asperkudentan.

28. Hekien ardi, eta idi eta astoak harturik, etxeetan eta kanpoetan ziren gauza guziak xahuturik,

29. Haur tipiak ere eta emazteak gathibu eraman zituzten.

30. Horiek ozarki egin zituzten ondoan, Jakobek erran zioten Simeoni eta Lebiri: Asaldutan ezarri nauzue, eta lur huntan dauden Kananean eta Pherezearrei hastiarazi. Gu guti gare; hekiek, bildurik elkarretara, ehoko naute, xahutuak izanen gare ni eta ene etxea.

31. Ihardets zuten: Neska tzar baten arara erabili behar zuten gure arreba?

### XXXV. KAP.

1. Bizkitartean Jainkoa mintzatu zitzaioen Jakobi: Xuti zaite, eta igan Bethelera, eta zaude han; eta egiozu aldare bat zure anaia Esaturen ihes zinohazinean agertu zitzaizun Jainkoari.

2. Bada, Jakobek bildurik bere etxeko guziak, erran zuen: Arthikatzue zuen artean diren jainko arrotzak, garbi egin zaitezte eta xahu zatzue zuen soinekoak.

3. Jaiki zaitezte, eta igan gaiten Bethelera, han aldare bat altxatzeko-tzat ene egun gaitzean entzun nauen Jainkoari eta ene bideko lagun izan denari.

4. Eman ziotzaten beraz jainko arrotz zituzten guziak, eta hekien beharrietan ziren beharrietakoak: eta harek ehortzi zituen Sikemgo hiriarren gibelean den tirrimint-ondoaren azpian.

5. Eta abiatu zirenean, Jainkoaren lasturak harritu zituen inguruko hirietako jendeak, eta nihor etzen ausartatu goailiarrei jarraikitza ondotik.

6. Jakob ethorri zen beraz Luzara, zeina baita Kanaango lurrean, eta izengoitiz Bethel deithua: bera eta bere populu guzia berekin.

7. Eta han egin zuen aldare bat, eta deithu zuen toki hura Jainkoaren etxea: ezen han agertu izan zitzaioen Jainkoa anaiaren ihes zihoanean.

8. Muga berean hil izan zen Debora Errebekaren unhidea, eta ehortzia izan zen Bethelgo ondoan, haritz baten azpian: eta toki hura deithua izan zen Nigar-haritz.

9. Bada Jainkoa berriz ere agertu izan zitzaioen Jakobi Mesopotamia Siriakotik bihurtuz geroztik, eta benedikatu izan zuen,

10. Erraten zioelarik: Hemendik aitzina etzare Jakob deithuko, bainan zure izena izanen da Israel. Eta hura deithu zuen Israel.

11. Eta erran izan zioen: Ni naiz Jainko guziz ahalduna, berha eta popula zaite: jendaia eta jendakietako populuak ilkhiko dira zu ganik, eta erregeak atheratuko dira zure erraierarik.

12. Eta Abrahami eta Isaaki eman izan diotedan lurra, emanen darotzut zuri, eta zure ondotik zure ondokoei.

13. Eta goan zen haren ganik.

14. Eta Jakobek, Jainkoa mintzatu izan zitzaioen lekhuan orhoitpeneko harri bat landatu zuen, arno eskaintzak eginik eta olioia ixuririk;

15. Toki hura deitzen zuelarik Bethel.

16. Handik goan ondoan, ethorri zen uda-haspeneko Efraterateko lurrera, zeinetan Errakel haur-minetan zelarik,

17. Ezin erdiz jarri baitzen hiltzeko menea. Eta emaginak erran zioen: Ez izan beldurrik, zeren hau ere seme bat izanen baituzu.

18. Bainan bizia baitzihoakien oinhazez eta jadanik hil hurran baitzen, bere semea deithu zuen Benoni: erran nahi baita, ene oinhazeko semea; bainan aitag deithu zuen Benjamin, erran nahi da, eskuineko semea.

19. Hil zen beraz Errakel, eta ehortzia izan zen Efraterako bidean, hura baita Beteleme.

20. Eta Jakobek ezarri zuen haren hobiaren gainean orhoitpeneko iskribu bat, egungo eguna arteo dirauena.

21. Handik ilkhirik, olha jarri zuen Arthaldearen dorreaz haindian.

22. Aurkhintza hartan zagoelarik, Erruben goan zen eta lo egin zuen bere aitaren ohaide Balarekin: eta hori etzen den-gutiena gordea egotu. Bada, Jakoben semeak ziren hamabi.

23. Liaren semeak: Erruben zaharrena, eta Simeon, eta Lebi, eta Juda, eta Isakar, eta Zabulon.

24. Errakelen semeak: Josep eta Benjamin.

25. Errakelen neskato, Balaren semeak: Dan eta Nefthali.

26. Liaren neskato, Zelfharen semeak: Gad eta Aser: horiek dira Jakoben seme Mesopotamia Siriakoan sorthuak.

27. Jakob ethorri zen gero bere aita Isaaken gana Manbrera, Arbeeko hirira, zeina baita Hebron, eta zeinetan arrotz egotu baitziren Abraham eta Isaak.

28. Eta Isaaken egunak bethe ziren ehun eta lau hogoi urthez.



29. Eta adinak ahiturik hil zen: eta zahartua, eta egunez bethea batu zen bere populuari; eta Esau eta Jakob bere semeek ehortzi izan zuten.

### XXXVI. KAP.

1. Haukiek dira Esaturen ondokoak, hura bera baita Edom.
2. Esau hartu izan zituen emazteak Kanaango alabetarik: Ada, Elon hetherraren alaba, eta Oolibama Anaren alaba, zeina baitzen Sebeon hebeerraren alaba.
3. Hartu zuen Basemath ere Ismaelen alaba, Nabaiiothen arreba.
4. Ada erdi zen Eliphazez: Basemath amatu zen Errahuelez.
5. Oolibama amatu zen Jehusez, eta Ihelonez, eta Korez. Horiek dira Esaturen seme Kanaango lurtean sorthuak.
6. Bada Esau hartu zituen bere emazteak, eta semeak, eta alabak eta bere etxeko jende guziak, eta abereak, eta Kanaango lurtean izan ahal zituenak: eta goan zen bertze ephaitza batera, eta berezi zen bere anaia Jakob ganik.
7. Ezen hainitz aberats ziren, eta etzaizteken elkarrekin egon, beren ibilbidetako lurak ere ezin jasan zetzazkeen arthaldeen ostea gatik.
8. Eta Esauk egin zuen bere ogoitza Seirgo mendian: hura bera da Edom.
9. Haukiek dira Esau, Edomen aitaren ondokoak, Seirgo mendian.
10. Eta haukiek dira haren semeen izenak: Eliphaz, Esaturen emazte Adaren semea; Errahuel ere, haren emazte Basemathen semea.
11. Eta Eliphazen semeak izan ziren: Theman, Omar, Sepho, eta Gatham, eta Zenez.
12. Bada, Thamna zen Esaturen seme Eliphazen ohaidea, zeina erdi baitzen Amalekez. Horiek dira Esaturen emazte, Adaren semeak.
13. Orai Errahuelen semeak: Nahath eta Zara, Sama eta Meza. Horiek dira Esaturen emazte, Basemathen semeak.
14. Haukiek ziren Esaturen emazte Oolibamaren semeak, zeina baitzen Anaren alaba eta hau Sebeonena. Amatu zen Jehusez eta Ihelonez, eta Korez.
15. Haukiek dira Esaturen semeen buruzagiak: Esaturen seme zaharren, Etiphazen semeak: Theman aitzindaria, Omar aitzindaria, Sepho aitzindaria, Zenez aitzindaria.
16. Kore aitzindaria, Gatham aitzindaria, Amalek aitzindaria: horiek dira Eliphazen semeak Edomen lurtean, eta Adaren semeak.
17. Eta haukiek dira Esaturen seme, Errahuelen semeak: Nahath aitzindaria, Zara aitzindaria, Sama aitzindaria, Meza aitzindaria: horiek dira

Errahuet ganikako aitzindariak Edomen lurtean: horiek berak Esaturen emazte, Basemathen semeak.

18. Eta haukiek dira Esaturen emazte Oolibamaren semeak: Jehu aitzindaria, Ihelon aitzindaria, Kore aitzindaria: horiek dira Esaturen emazte eta Anaren alaba Oolibamaren ganikako aitzindariak.
19. Horiek dira Esaturen semeak eta horietako aitzindariak, eta Esau da Edom.
20. Haukiek dira Seir horrearraren semeak, lurreko egoiliarrik: Lotan, Sobal, Sebeon, Ana,
21. Dison, Eser, eta Disan: horiek dira horrearr aitzindariak, Seirren semeak, Edomen lurtean.
22. Lotanen semeak izan ziren: Hori eta Heman. Eta Thamna zen Lotanen arreba.
23. Eta haukiek Sobalen semeak: Alban, Manahat, Ebal, Sepho eta Onam.
24. Eta haukiek Sebeonen semeak: Aia eta Ana. Ana hunek aurkhitu zituen ur beroak mortuan, bere aita Sebeonen astoak alhatzen zituelarik.
25. Eta izan zuen seme bat, Dison, eta alaba bat, Oolibama.
26. Eta haukiek Disonen semeak: Hamdan, Eseban, Jethran eta Karan.
27. Eta haukiek Eserren semeak: Balaan, Zaban eta Akan.
28. Disanek izan zituen bi seme: Hus, eta Aram.
29. Haukiek Horrearren aitzindariak: Lotan aitzindaria, Sobal aitzindaria, Sebeon aitzindaria, Ana aitzindaria,
30. Dison aitzindaria, Eser aitzindaria, Disan aitzindaria: horiek dira Horrearren aitzindariak Seirgo lurtean manatu izan dutenak.
31. Haukiek dira erregeak Edomen lurtean erreginatu direnak, Israelen semeek errege bat izan zuten baino lehen:
32. Bela, Beorren semea, eta haren hiria deitzen zen Denaba.
33. Bada, Bela hil izan zen, eta haren orde erreginatu zen Jobab, Zara Bosrakoaren semea.
34. Eta Jobab hil zenean, haren orde erreginatu zen Flusam, Themantarren lurrekoa.
35. Hau ere hilik, hunen orde erreginatu zen Adad, Badaden semea, zeinak desegin baitzuen Madian Moaben lurtean: eta haren hiria deitzen zen Abith.
36. Adad hil ondoan, haren orde erreginatu zen Semla Mafrekakoa.
37. Hau ere hilik, hunen lekhuan erreginatu zen Saul Errobotheko hibai-aldekoa.



38. Hori ere hil-eta, erreinuko ondoregoa izan zuen Akoborren seme Balananeke.

39. Hau ere hilik, hunen orde erreginatu zen Adar, eta haren hiriaren izena zen Phau: eta haren emaztea deitzen zen Meetabel, Matreden alaba eta Matred zen Mezaaben alaba.

40. Horiek dira beraz Esauenganikako aitzindariak beren iraulgietan, lekhuetan eta izenetan: Thamna aitzindaria, Alba aitzindaria, Jetheth aitzindaria,

41. Oolibama aitzindaria, Ela aitzindaria, Phinon aitzindaria,

42. Zenez aitzindaria, Theman aitzindaria, Mabsar aitzindaria,

43. Magdiel aitzindaria, Hiram aitzindaria: horiek dira Edomganikako aitzindariak haren manuko lurrian egonak, eta Edom Esau da Idumearren aita.

### XXXVII. KAP.

1. Bada, Jakobek egin zuen egoitza Kanaango lurrian zeinetan arrotz ibili baitzen haren aita.

2. Eta hauiek dira haren ondokoen helkariak. Josepek, hamasei urtetan, bere anaiekin alhatzen zituen arthaldeak haurra zelarik oraino; eta zen bere aitaren emazte Balaren eta Zelfharen semeekin; eta bere aitaren baithan jazarri zuen bere anaiek gaixtakeria handi bat egin zutela.

3. Bada Israelek bere seme guzien gaineratik maite zuen Josep, zeren bere zahartzean izatu zuen; eta egin zioen soineko karantzakatu bat.

4. Bainan anaiek ikhustez aitak bertze seme guziak baino maiteago zuela, higuindu zuten, eta hari edozein gauza ezitiki erran etzezoketen.

5. Gerthatu ere zen bere anaiei khondatu ziotela ametsetako ikhuskari bat, hori izan zen herra handiago baten aria.

6. Erran izan zioten: Adi zazue ikhusi dudane ametsa.

7. Uste nuen espal lotzen hari ginela landa batean; eta ene espala jaitzitzen bezala zela, eta xutik gelditzen, eta zuen espalek inguruan jarririk adoratzeko zutela ene espala.

8. Ihardetsi zuten haren anaiek: Gure errege izan behar othe zare? ala zure azpiko izanen gare? Amets eta solas horietako aria izan zen beraz bekhaizgo eta herrakunde itxindi.

9. Bertze amets bat ere ikhusi zuen; eta hura khondatzean anaiei erran zuen: Ametsetan ikhusi dut iduri iguzkia, ilhargia eta hameka izar adoratzeko nindutela.

10. Hori bere aitari eta anaiei khondatu ziotenean, larderiatu zuen bere aitak, eta erran zioen: Zer erran nahi du amets horrek? nik eta zure amak eta zure anaiek adoratu othe zaitugu lurraren gainean?

11. Bekhaizgotan zagozkon berez bere anaiek: bainan aitak begiesten zuen gauza mintzatu gabetarik.

12. Eta haren anaiek Sikemen zaudelarik arthaldeen alhatzen,

13. Israelek erran zioen: Zure anaiek ardiak alhatzen dituzte Sikemen: zato, igorriko zaitut hekietara. Ihardetsirik hunek,

14. Huna non naizen, aitak erran zioen: Zoazi, eta ikhuzazu hea guziak ongi doazen zure anaientzat eta aziendentzat: eta erakharriko darozkidatzu berriak zer iragaiten den. Hebrongo haranetik igorria izanik, ethorri zen Sikemera.

15. Eta gizon batek atzeman zuen bazterrez bazter zabilala, eta galdatu zioen hea zer bilhatzen zuen.

16. Josepek ihardetsi zuen: Ene anaiek bilhatzen ditut; erakhutz dizadazu non alhatzen dituzten arthaldeak.

17. Eta gizonak erran zioen: Goan dira toki huntarik: bainan aditu ditut elkharri erraten: Goazen Dothainera. Josep goan zen beraz bere anaiei ondolik, eta atzeman zituen Dothainen.

18. Urrunera hauiek ikhusi zutenean, hura hurbildu baino lehen, egin zuten haren hiltzeko asmua.

19. Eta elkharri erraten zuten: Huna non heldu den gure ametsegilea.

20. Zatozte, hil dezagun, eta arthik urtegi zahar hortara, eta erranen dugu: Basabere gaixto batek iretsi du: eta orduan ikhuliko du zerentzat baliatu zaizkoen bene ametsak.

21. Bainan Errubenek, hori aditurik, eginahalaz han zen haren atheratzerak hekien eskuetarik, eta erraten zuen:

22. Ez diozozuela bizia khen, eta ez ixur odolik: bainan arthikazue mortuan den urtegi hortara, eta idukatzue zuen eskuak garbi: eta hola mintzo zen, Josep hekien eskuetarik athera nahiz, eta hura bere aitari bihurtzea gatik.

23. Beraz Josep heldu izan zen bezain laster bere anaietara, biluzi zuten bere soineko luze karantzatutik,

24. Eta arthiki zuten urtegi zaharrera, zeina agortua baitzen.

25. Eta jarriak zaudelarik ogiaren jateko, ikhusi zituzten Ismaeldar bidaiariak ethortzen Galaatetik, eta hekien kameluak, baltsamuak, arraxina eta mina zaramazkitenak Egiptora.

26. Judak beraz erran zioten bere anaiei: Zer baliatuko gare gure anaia hiltzaz, eta haren odola gordetzeaz?



27. Hobe da saltzea Ismaeldarrei, eta gure eskuak ez khutsatzea: ezen gure anaiak eta gure haragia. Anaiak erori ziren haren hitzetara.

28. Eta hura urtegitik atherarik, iragaiten ziren Madiantar tratulariei, hogozi zilharrezkotan saldu zuten Ismaeldarrei, zeinek Egiptora eraman baitzuten.

29. Eta Erruben itzulirik urtegitara, etzuen kausitu haurra:

30. Soinekoak urratu zituen eta bene anaietara goanik, erran zioten: Haurra ez da ageri eta norat egingen dut nik?

31. Bainan hartu zuten Josepen soinekoa, eta hil zuten pittika baten odolean gorritu zuten.

32. Gizonak igorri zituzten aitari hura eramatera, eta erraitera: Hau aurkhitu dugur: ikhusazu hea den zure semearen soinekoa, ala ez.

33. Aitak ezagutu zuenean, erran zuten: Ene semearen soinekoa da: basabere gaixto batek jan du hura; basabereak iretsi du Josep.

34. Eta soinekoak urraturik, jauntzi zuten zurdatza, denbora handiz auhendatzen zuelarik bere semea.

35. Eta haren haur guziak bildurik aitaren atsekabearen gozatzeko, etzuen gozagailurik nahi izan onhetsi, bainan erran zuten: Ene semea auhendatzen dudalarik jautsiko naiz ifernura. Eta zirauelarik bere nigarreran,

36. Madiantarrek saldu zuten Josep Putifar, Faraonen ebaki, soldadoetako buruzagiari.

### XXXVIII. KAP.

1. Ordu berean, Juda bere anaien ganik jautsirik, Hiras deitzen zen gizon odolamtar baten gana aldaratu zen.

2. Eta han ikhusi zuten Sue deitzen zen kananear gizon baten alaba: eta emaztetzat harturik, sarthu zen haren gana.

3. Eta hau haundundu zen, eta erdi seme batez, eta deithu zuten Her.

4. Eta berriz haundundurik, Onan deithu zuten sorthu zitzaioen semea.

5. Eta berriz ere erdi zen hirugarren batez, zeina deithu baitzuen Sala; hau sorthu-eta, gelditu zen haur egitetik.

6. Bada Judak Her bere seme zaharrenari harrarazi zioen emazte bat, Thamar deitzen zena.

7. Eta Her, Judaren seme zaharrena, izan zen gaixtagin bat Jaunaren aitzinean: eta Jaunak hil izan zuten.

8. Judak erran zioen beraz bere seme Onani: Sar zaitezi zure anaiaren emaztea gana, eta bat zaitezi harekin, ondoreak eragiteko zure anaiari.

9. Hunek baitzakien, bere anaiaren emaztea gana sarthuz, etzitzaizkola berari sorthuko haurrak, hazia ixurtzen zuten lurrera, bere anaiaren izeneko haurrik sort etzadientzat.

10. Eta horren gatik jo zuten Jaunak, zeren gauza hastiagarria zuten egiten.

11. Judak erran zioen beraz bere erreina Thamarri: Zaude alhargun zure aitaren etxean, ene seme Sela handi dadien arteo: beldur zen ezen hura ere hil zadien bere anaiak bezala. Thamar goan zen eta egon bere aitaren etxean.

12. Bada asko egun iragan ondoan, hil zen Sueren alaba, Judaren emaztea: Juda, deithorearen ondoan, gozagailu harturik, igaiten zen bere ardi-moztaileetara, Thamnasera; bere eta bere arthaldeko artzain Hiras odolamtarra.

13. Thamarri berria ekharri zioten bere aitagarreba Thamnasera igaiten zela ardien motzaraztera.

14. Bere alhargun soinekoak utzirik, theristroa hartu zuten: eta jaunzkura ganbiaturik, jarri zen Thamarrerako bide-juntan Sela handitua zelakotz, eta etziotelakotz senhartzat eman.

15. Judak, hura ikhusi izan zuenean, uste izan zuten neska galdu zenbait zela, ezen bere begithartea gordea zadukan beldurrez-eta ezagutua izan zedin.

16. Eta hurbildurik, erran zioen: Utz nezazu zure baithara: etzakien ezen bere erreina zuela. Hunek ihardetsi zioen: Zer ematen darotazu nitaz baliatzeko?

17. Erran zioen igorriko darotzut pittika bat arthaldeetarik. Berriz ere hunek erran zioen: Jasanen dut zuk nahi duzuna, ematen badarotazu bahi bat, agindua igorri artekan.

18. Judak erran zioen: Zer nahi duzu ematea bahitzat? Ihardetsi zuten: Zure erreztuna, eta eskumuthurrekoa, eta eskuan dadukazun makhila. Beraz behingo uki-alditik emaztekoa izorra gerthatu zen.

19. Eta xutiturik goan zen: gero utzirik hartu izan zuten jaunzkura, jauntzi zituen alhargun-soinekoak.

20. Bizkitartean Judak igorri zuten pittika odolamtar artzainarekin, gibelerat har zezan emaztekiari eman zioen bahia: artzainak hura ez aurkhiturik,

21. Galdegin zioten tokiko gizonei: Non da bide-juntan jarria zen emaztekoa? Orok ihardetsi zuten: Ez da lekhu hortan izatu ema galdurik.



22. Bihurtu zen Juda gana, eta erran zioen: Ez dut aurkhitu, eta hango gizonak erran ere darotate ez dela toki hartan egundaino jarri izan neska tzarrik.

23. Judak erran zuen: Atxik beza beretzat, segurki gezurtika ez deza-kegu jazar: nik igorri dut agindu nuen pittika, eta zuk ez duzu bera aurk-hitu.

24. Bainan huna non hirur hilabetheren buruan berria ekharri zioten Judari, erraten ziotelarik: Thamar, zure erreina, gizonkiarekin erabili izan da, eta ageri da haren sabela loditzen hari dela. Eta Judak erran zuen: Athera zazue erretzeko.

25. Erretzera zaramatarik, bidali zuen bere aitagarreba gana, erra-ten zuelarik: Izorra naiz haina ganik zeinarenak baitira haukiek: ezagut zatzu norenak diren erretzun hau, eskumuthurrekoa eta makhila.

26. Judak bahiak ezaguturik, erran zuen: Ni baino zuzenagoa da, zeren ez baitut eman ene seme Selari. Guziarekin ere etzuen handik-harat Thamar ezagutu gehiago.

27. Erditzeko menean agertu izan zen biritxiak zituela sabelean: eta haurren egitean, batek atheratu zuen eskua, zeinetan emaginak lothu bai-tzuen gorri bat, erraten zuelarik:

28. Hau ilkhiko da lehenik.

29. Bainan harek bildu zuen eskua gibelerat, eta bertze haurra ilkhi zen: eta emaztekiak erran zuen: Zertako zu gatik hautsi da trenkada? eta aria hortaz eman zioen izena Pharez.

30. Gero atheratu zen haren anaia, zeinaren eskuan baitzen gorria: eta deithu zuen Zara.

### XXXIX. KAP.

1. Josep eramana izan zen beraz Egiptora, eta harat ekharri zuten Ismaeldarren eskuetarik erosi zuen Putifarrek, zeina baitzen Faraonen ebakia, armadako buruzagia eta egiptoarra.

2. Eta Jauna harekin izan zen eta gauza guzietan ongi heltzen zen; eta egoten zen bere nausiaren etxean.

3. Eta nausiak arras ongi bazakien Jauna zela harekin, eta harek egi-ten zituen guziak, Jaunak erabiliak zirela haren eskuan.

4. Eta Josepek grazia aurkhitu zuen bere nausiaren aitzinean, eta zer-bitzatzen zuen; eta ezarria izanik guzien buruko, gobernatzan zuen fida-tua izan zitzaioen etxea, eta eskuetara emanak zitzaizkoen guziak.

5. Eta Jaunak Josepen gatik benedikatu zuen Egiptoarraren etxea, eta nahiz hirian, nahiz bazterretan handitu zituen haren ontasanak.

6. Eta Putifarrek jaten zuen ogia baizik etzuen ezagutzen. Bada Josep zen ahurpegi ederrekoa, eta gogaragarria begira.

7. Horren gatik asko egunen buruan etxekandreak begiak arthiki zituen Josepen gainera, eta erran zioen: Lo egizu enekin.

8. Hunek gauza tzar hori etzuen onhetsi eta erran zioen: Huna non ene nausiak, ene eskuetara guziak utzirik, ez daki zer duen bere etxean:

9. Ez da deusere ene eskuko ez denik, edo niri eman ez darotanik, zutaz landan, zeina baitzare haren emaztea: nola bada nik egin dezaket gaizki hori, eta ene Jainkoaren aitzinean bekhatu?

10. Egun oroz, horrelako solasez emazteki harek bilhatzen zuen gizon gaztea, eta hau tzarkeriari ukhoan zagoen.

11. Bada, egun batez, Josep gerthatu zen etxean sartzera, eta zerbaiten egitera lekhukorik gabe:

12. Eta andreak, soineko petrailetik lothurik, erran zioen: Lo egizu enekin. Kapa haren eskuetan utzirik, Josepek ihes egin zuen, eta atheratu zen kanpora.

13. Emaztekiak ikhusi zuenean kapa bere eskuetan, eta erdeinatua zela,

14. Deithu zituen etxeko gizonak, eta erran zioten: Horra, gizon hebrear hori ekharri dute hunat guri eskarnio egiteko: sarthu da ene gana, nitaz baliatu nahiz: eta ni oihuz hasi naizenean,

15. Eta ene izkiritua entzunik, utzi darot eskuz nadukan kapa, eta ihes egin du kanpora.

16. Bere zintasunaren frogatzat beraz erakhutsi zioen senharrari, etxera bihurtu zenean, atxiki zuen kapa,

17. Eta erran zioen: Erakharri duzun gathibu hebrearra sarthu da ni gana, nitaz irri egin nahiz:

18. Eta oihuz aditu nauenean, utzi du atxikitzen nioen kapa, eta kan-pora ihes egin du.

19. Horiek aditurik, eta emaztearen solasen gainean sinhets-beregia, nausia hasarretu zen borthizki:

20. Eta Josep erran zuen, erregeren presonerak zaintzen ziren pre-sondegian, eta han hertsia zen.

21. Bainan Jauna Josepekin izan zen, eta hartaz urrikaldurik, grazia eman zioen presondegiko buruzagiaren aitzinean.

22. Hunek eskura eman ziozkan zaintzeko zituen presoner guziak: eta egiten ziren gauza guziak Josepen manutik zihozten.



23. Eta buruzagiak, oro haren eskura utzirik, etzuen deuseren ardurarik hartzen: ezen Jauna Josepekin zen, eta haren eginkari guziak bidatzen zituen.

#### **XL. KAP.**

1. Horiek hola egin zirenean, gerthatu zen bi ebakik, Egiptoko erregeren edaraleak eta ogi-emaileak damuztatu zutela beren nausia.

2. Eta Faraon hekien aldera hasarreturik (ezen bata edaraleen buruzagi zen eta bertzea ogi-emaileena),

3. Igorri zituen soldadoetako aitzindariaren presondegira, zeinetan baitzen Josep hertsia.

4. Eta presondegiko zainak ezarri zituen Josepen eskuetan eta hunek zerbitzatzen zituen. Denbora aphur bat iragan zen eta haukiek zainduak zauden.

5. Eta gau batez biek izan zuten amets bana zeinaren argipena baitzihoakioten bakhotxari.

6. Goizean Josep hekien gana sarthu zenean, eta ilhun ikhusirik,

7. Bilhatu zituen, erraten ziotelarik: Zuen begitharteak zertako dira egun ohi baino ilhunago?

8. Haukiek ihardetsi zioten: Amets bat izan dugu, eta ez da nork haren argitasuna emanen darokunik. Josepek erran zioten: Agitasuna ez othe da Jainkoaganikakoa? Erradazue zer ikhusi duzuen.

9. Lehenbizikoak, edaraleen buruzagiak, khondatau zioen bere ametsa: Ene aitzinean ikhusten nuen mahats-ondo bat,

10. Zeinetan baitziren hirur aldaska emeki-emeki botea ematen zutenak, eta loreen ondolik mahatsak ontzen ziren:

11. Eta Faraonen basoa ene eskuan zen: hartu ditut beraz mahatsak, eta lehertu ditut eskuan nadukan untzira, eta eman diot Faraoni.

12. Josepek ihardetsi zioen: Hau da ametsaren argipena: Hirur aldaskak dira, heldu diren hirur egunak,

13. Zeinen ondoan Faraon orhoituko baita zure zerbitzuaz, eta bihurtuko zaitu zure leheneko kargura; eta emanen diozu basoa zure eginbidearen arabera, aitzinean egiten ohi zinduen bezala.

14. Bakharririk orhoit zaite nitaz, zorion dukezunean, eta urrikari izan nezazu, Faraoni adiaraziz, ilkhiazaraz nezan presondegi hunetarik:

15. Zeren maulaz altxatua izatu bainaiz Hebrearren lurretik, eta hobenik gabe sarthua izan toki hunetan.

16. Ogi-emaileen buruzagiak ikhusirik umoki argitu zuela ametsa, erran zuen: Eta nik amets izatu dut hirur saski irin banituela buruaren gainean:

17. Eta saski batean, gorenena zenean, ekhartzen nituela, okhintzan egiten diren jateko orotarik, eta xoriek jaten zutela handik.

18. Josepek ihardetsi zuen: Hau da ametsaren argipena: Hirur saskiak dira hirur egun oraino,

19. Zeinen ondoan Faraonek khenduko baitarotzu burua, eta dilindan ezarriko zaitu gurutze batetarik, eta hegastinekin zirtzikatuko dituzte zure haragiak.

20. Handik hirugarren eguna zen Faraonen sort-eguna: barazkari handi bat ematen ziotelarik bere sehi guziei, janaren artetik orhoitu zen edaraleen buruzagiak eta ogi-emaileen aitzindariak.

21. Bata bihurtu zuen bere lekhura, aitzina eman zezontzat basoa;

22. Eta bertzea habetik dilindan ezarri zuen, asmatzailearen egia frogatuz.

23. Bizkitartean gauza guziak ongi zihoazkon edaraleen buruzagiari, bainan ahantzi zuen bere argi-emailea.

#### **XLI. KAP.**

1. Handik bi urtheren buruan Faraonek izan zuen amets bat. Uste zuen xutik zagoela hibai bazter batean,

2. Zeintarik atheratzen baitziren zazpi behi, ederrak eta arras gizenak, eta alhatzen ziren lekhu aintziratsuetan.

3. Bertze zazpi ere atheratzen ziren hibaietik; itsusiak ziren eta meherrokituak, eta alhatzen ziren ur-hegian berean, toki berdatsuetan.

4. Eta iretsi zituzten bertzeak, zeinen itxura eta gizentasuna ederresgarriak baitziren. Faraon atzarririk,

5. Lokhartu zen berriz, eta ikhusi zuen bertze amets bat: Zazpi ogi-buru, betheak eta ederrak, atheratzen ziren ondo batetarik:

6. Bertze hainbertze ogi-buru ere meharrak eta lanhadurak joak,

7. Iresten zutela lehenbizikoen edertasun guzia. Faraon atzarririk bere phausutik,

8. Eta goiza egin zenean, izialdurak hartua, igorri izan zuen Egiptoko asmatzaile guzietara, eta jakintsun orotara: eta erakharrarazirik khondatau zioten ametsa, bainan etzen nihor argi zezakeenik hura.

9. Orduan edaraleen buruzagiak, noizbait orhoiturik, erran zuen: Aithortzen dut ene hutsa.



10. Erregek samurturik bere zerbitzarien kontra, manatu zuen ni eta ogiemaileen buruzagia hertsia izan ginatezen soldadoen aitzindariaren presondegian:

11. Han biek gau batez izan ginduen amets bana, geroa erakhusten zutena.

12. Bazen han hebrear gizon gazte bat, soldadoen aitzindari beraren sehia, zeinari khondaturik gure ametsak,

13. Entzun ginduen gerthakariak ondoan frogatu zuen guzia: ezen ni bihurtua izatu naiz ene kargura, eta ene laguna gurutzetik dilindan ezarria.

14. Berehala erregeren manuz Josep atheratu zuten presondegitik: eta ileak mozturik eta jaunzkura aldaturik, erakharri zioten Faraoni.

15. Hunek erran zioen: Izatu ditut bi amets eta nihor ez da hekiek argi detzakeenik: aditu dut ametsen asmatzen guziz jakina zela.

16. Josepek ihardetsi zuen: Jainkoak ni gabe Faraoni erranen diozka berri onak.

17. Faraonek khondatau zuen beraz zer ikhusi izan zuen: Uste nuen ur-hegian xutik nindagoela,

18. Eta zazpi behi hainitz ederrak eta gizenak hibaietik atheratzen zirela, aintzirako belharra alhatzen zutela.

19. Eta huna bertze zazpi behi jarraitzen zitzaizkotela hain itsusiak eta meheak, non egundaino Egiptoko lurretan ez baitut halakorik ikhusi:

20. Eta haukiek lehenbizikoak iretsirik eta janik,

21. Etzuten aseak zirelako iduririk batere ematen; bainan bere mehetasun eta itsusitasun berean tontotuak zauden. Atzarririk, eta berriz loak harturik,

22. Izatu dut bertze amets bat: Zazpi ogi-buru, betheak eta hainitz ederrak ilkhitzen ziren ondo bakhar batetarik.

23. Bertze zazpi ere meharrak eta erredurak joak, atheratzen ziren ondo bakhar batetarik:

24. Iretsi zuten lehenbizikoen edertasuna. Khondatau diotet ametsa asmatzaileei, eta nihor ez da izan argitu duenik.

25. Josepek ihardetsi zuen: Erregeren ametsa bat da: Jainkoak Faraon zer gerthatuko den erakhutsi dio.

26. Zazpi behi ederrak, eta zazpi ogiburu betheak, dira zazpi nasai-ziazko urthe: eta bi ametsak indar bera dadukate.

27. Zazpi behi mehe eta khabartuak ere, hekien ondolik igan direnak, eta zazpi ogi-buru mehar eta haize erregarriak joak, dira gosetezko zazpi urthe.

28. Horiek betheko dira hunelako aldietan:

29. Huna nasaizia handizko zazpi urthe atheratuko direla Egiptoko lur guzian:

30. Hekiei jarraikiko dira bertze zazpi urthe, agortasun hanbatetakoak, non aitzineko nasaizia guzia ahantziko baita: ezen goseteak iretsiko du lurra oro.

31. Eta eskasaren handiak galduko du nasaiziaren handia.

32. Bainan bigarren aldian ikhusi izan duzun ametsak, gauza berari darraikolarik, erakhusten dut segurtasun bat, Jainkoaren hitza obratuko eta laster betheko dela.

33. Orai beraz erregek hauta beza gizon zuhur eta antzetsu bat, eta ezar beza Egiptoko lurraren buruko.

34. Hunek gizonak ezar betza aurkhintza guzietan: eta fruituen bortzgarrena, nasaiazko zazpi urthe

35. Jadanik haiera dihoazinetan, bil beza bihitegietara: eta ogi guzia ezarria izan bedi Faraonen eskuko eta begiratua hiritetan,

36. Eta goititua izan bedi ethortzekoak diren gosetezko zazpi urthe-heatarkotz, arren-eta lurra ez dadien izan eskasaz xahutua.

37. Kontseilu hori izan zen Faraonen eta haren-peko buruzagien gogarako:

38. Errege mintzatu zitzaioten: Jainkoaren izpirituaz bethea den halako gizon bat aurkhi othe dezaguke?

39. Erran zioen beraz Josepi: Jainkoak erakhutsi izan darozkitzunaz geroztik erran dituzun guziak, non khausi dezaket zu baino zuhurragorik eta zu bezalakorik ere?

40. Izanen zare ene etxearen buruko, eta zure ahoko manuari gurt-huko da populu guzia: errege alkhiaz baizik ez naiz zu baino aitzinago izanen.

41. Eta Faraonek Josepi erran zioen berriz: Huna non ezarri zaitudan Egiptoko lur guziko buruzagi.

42. Eta hartu zuen bere eskuko erreztuna eta ezarri zuen haren eskuan, eta jauntzi zioen liho harizko soin bat eta lephoa urhezko gathe batez inguratu.

43. Eta iganarazi zuen bere bigarren orga-lasterrera, kridatzaileak oihi egiten zuelarik, orok belhauna lurrera eman zezaten haren aitzinean, eta jakin zezaten Egiptoko lur guziko buruzagi ezarria zela.

44. Erran zioen ere Josepi erregek: Ni naiz Faraon: zure manuaz landan nihork Egiptoko lur guzian ez du higituko ez besorik ez zangorik.





45. Eta aldatu zuen haren izena eta egiptoaraz deithu zuen, Munduko Salbatzailea. Eta emaztetzat eman zioen Aseneth, Heliopoliseko aphez Putifarren alaba. Josep athera zen beraz Egiptoko lurrera.

46. (Bada, hogoi eta hamar urthe zituen Faraonen aitzinera agertu zenean): eta Egiptoko aurkhitza guziak inguratu zituen.

47. Eta ethorri zen zazpi urtheen gorra: eta uztak espaletan ezarri zirenean bilduak izan ziren Egiptoko bihitegiatar.

48. Eta fruituetako gaindia bildua izan zen hiri bakhotxera.

49. Eta bihiaren nasaizia hain izan zen handia, non itsasoko legarrien bardin, eta neurriz goragokoa baitzen.

50. Bada gosetea ethorri baino lehen Josepi sorthu zitzaizkoen bi seme zeinetaz erdi baitzen Aseneth, Heliopoliseko aphez Putifarren alaba.

51. Zaharrena deithu zuen Manase, erraten zuelarik: Jainkoak ahan-tzarazi darozkit ene nekhe guziak, eta ene aitaren etxea.

52. Bigarrena berriz deithu zuen Efraim, erraten zuelarik: Jainkoak berharazi nau ene behartasuneko lurrean.

53. Egiptoan izan ziren nasaiziazko zazpi urtheak iragan-eta,

54. Josepek aitzinetik erran zituen zazpi urthe hutsak ethortzen hall ziren: eta mundu guzian gosetea nausitu zen, bainan ogia bazen Egiptoko lurrean.

55. Harek eskas eginik, populuak jateko galdez oihu egin zuen Faraoni. Errege ihardetsi zioten: Zoazte Josepen gana, eta edozein gauza erran dezazuen, egizue.

56. Bizkitartean gosetea handitzen zen lur guzian: eta Josepek ideki zituen oihitegi guziak, eta ogia saltzen zuen Egiptoarrei, ezen goseak hertsatu zituen.

57. Eta herri-alde guzietarik Egiptora heldu ziren jateko erostera, eta gabearen gaitza ematzera.

## XLII. KAP.

1. Bada, Jakobek nabaditurik jatekoak Egiptoan saltzen zirela, erran zioten bere semeei: Zertako etzarete ernatzen?

2. Aditu dut ogia Egipton saltzen dela: jauts zaizte, eta erosazue behar dena, bizi ahal gaitezen, eta gabeak irets ez gaitzan.

3. Beraz Josepen hamar anaia Egiptora jautsi ziren ogi erostera:

4. Benjamin etxean idukia izan zen Jakobez, zeinak erran baitzioten haren anaiei: Ez dakioen bidean zerbaiz astrugaitz gertha.

5. Egiptoko lurrean sarthu ziren erostera zihoazen bertze batzuekin. Ezen gosetea zen Kanaango lurrean.

6. Eta Josep zen Egiptoko lurrean buruzagi, eta haren manua gabe etzen ogia saltzen. Eta bere anaia gurthu zitzaizkonean,

7. Ezagutu zituen, eta gogorkiango mintzatzen zitzaioeten arrotz batzuei bezala, galdegiten ziotelarik: Nondik heldu zarete? Ihardetsi zuten: Kanaango lurretik, bizitzeko behar denaren erostera.

8. Eta bizkitartean anaia ezagutzen zituelarik, hekiek etzuten eza-gutu.

9. Eta orhoiturik bertze orduz izan zituen ametsez, erran zioten: Ikhusketari batzuek zarete, lur huntako alde minberenen ikhustera ethorriak.

10. Haukiek erran zuten: Jauna, ez da holakorik; bainan zure zerbitzariak ethorri dira jateko erostera.

11. Guziak gizon baten seme gare: baketiar heldu gare, eta zure zerbitzariak ez derabilkate deusere gaixtorik.

12. Josepek ihardetsi zioten: Ez da hori, lur hunetaka lekhu hazkartugabeen ikhustera ethorriak zarete.

13. Eta haukiek: Zure zerbitzari hamabi anaia gare, aita baten umeak Kanaango lurrean: ttipiena gure aitarekin da, eta bertzea ez da lurraren gainean.

14. Josepek erran zioten: Hori da nik erran dudana: ikhusketariak zarete.

15. Bada orai eginen dut zuekilako frogapena: ala Faraon! etzarete hemendik ilkhiko, zuen anaia ttipiena ethorri arteo.

16. Igorrazue zuetarik bat, eta erakhar beza: zuek ordean burdinetan egonen zarete zuen solasak egiazkoak edo gezurrezkoak diren froga ditzeten artean; bertzela, ala Faraon ikhusketariak zarete.

17. Beraz eman zituen zaintzera hirur egunez.

18. Bainan hirugarren egunean presondegitik atherazirik, erran zioten: Egizue nik errana, eta biziko zarete: ezen badut Jainkoaren beldurra.

19. Baketiarrak bazarete, zuen anaia bat geldi bedi preso: eta bertzeak zoazte, eta erosi duzuen ogia eramazue zuen etxetara;

20. Eta erakhar darotazue zuen anaia ttipiena, zuen solasak froga detzakedantzat, eta hil etzaiztezentzat. Harek erran bezala egin zuten.

21. Eta batek bertzeari erran zuten: Zuzenbidean jasaiten dugu hau, zeren bekhatu egin baitugu gure anaiaren baithan, ikhusten ginuelarik haren bihotz-hestura; errekeitzen gintuelarik, ez dugu entzun izan: horren gatik atzeman gaitu ordu gaitz hunek.



22. Eta Erruben, hekiatarik batek erraten zioten: Ez othe narotzuen erran: Ez dezazuela bekhatu egin haurraren baithan: eta ez nauzue entzun? horra non bilhatua den orai haren odola.

23. Bada, etzakiten Josepek aditzen zuela hekien mintzaia: zeren arartekotz solas egiten baitzuen hekiekin.

24. Eta aldaratu zen aphur bat, eta nigar egin zuen; eta bihurturik mintzatu zitzaizoten.

25. Eta Simeon harturik, eta begien aitzinean lokharriz amarraturik, manatu zioten bere azpiko aitzindariet bethe zetzaten hekien zakhuak ogiz, eta bakhotxari bere dirua ezar zezoten bere zakhuan, gainerako emanik bideko jatekoak: eta hola egin zuten.

26. Eta hekiek goan ziren, ogiak astogainetan zaramazkietela.

27. Eta batek zakhua idekirik astoari zaldarea emateko ostatuan, dirua ikhusi zuen zakhuaren ahoan.

28. Eta harriturik eta asalaturik, elkhari erran zuten: Zer da Jainkoak egiten darokun hau?

29. Eta ethorri ziren beren aita Jakobek gana Kanaango lurrera, eta khondatu ziozkaten gerthatu zitzaizkoten guziak, erraten zutelarik:

30. Lekhu hartako jauna mintzatu izan zaiku gogorki, eta uste izan du Egiptoaren ikhustaileak ginela.

31. Ihardetsi diogu: Baketiarrak gare, eta zimarkhurik ez derabilagu.

32. Hamabi anaia gure aita batenganikakoak; bat ez da bizi, bertzea gure aitarekin da Kanaango lurrean.

33. Harek erran daroku: Hola frogatuko dut hea baketiarrak zareten: zuen anaia bat utzazue enekin, eta har zatzue zuen etxetako behar diren jatekoak, eta zoazte;

34. Eta zuen anaia ttipiena erakhar darotazue, jakin dezadan etzare-tela ikhusketariak; eta preso den hau gibelerat har ahal dezazuentzat; eta handik aitzina zilhegi izan zaitezentzat nahi duzenaren erostera.

35. Horiek erran ondoan, ogiak hustean, zeinek bere diruak atzeman zituzten zakhuen sartzean: eta batean laztuak zaudelarik,

36. Aita Jakobek erran zioten: Haurrik gabe ezarri nauzue, Josep hila da, Simeon preso idukia, eta Benjamin eramaten darotazue: gaitz horiek oro erori dira ene gainera.

37. Errubenek ihardetsi zioen: Ene semeetarik bia hil zatzu, hori ez badarotzut gibelerat ekhartzen: indazu hori eskuetara, eta nik bihurtuko daroztut.

38. Eta Jakobek zioen: Ene semea ez da jautsiko zuekin; horren anaia hil da, eta hori bakharrik gelditu: helkari txar zerbait gertha balakio

zohazten tokian, ene buru zuritua bihozminekin hobian sarraraziko duzue.

### XLIII. KAP.

1. Bizkitartean goseteak borthizki hertsatzen zuen Kanaango lurra,

2. Eta akhiturik Egiptokik ekharri izan zituzten jatekoak, Jakobek erran zioten bere semeei: Bihur zaitezte, eta eros guzue jateko aphur bat.

3. Judak ihardetsi zioen: Gizon harek erran izan daroku, zin egiten darokularik: Ez duzue ene begithartea ikhusiko, ez baduzue zuekin erakhartzen zuen anaia ttipiena.

4. Beraz nahi baduzu hori gurekin bidali, goanen gare elkharrekin, eta erosiko darotzugu behar duzuna.

5. Bainan nahi ez baduzu, ez gare goanen: ezen gizona, maiz erran dugun bezala, garbiki mintzatu zaiku, diolarik: Ez duzue ikhusiko ene begithartea zuen anaia ttipiena gabe.

6. Israelek erran zioten: Ene zorigaitzetan jakintsun egin duzue bertze anaia bat baduzuela.

7. Eta ihardetsi zuten: Gizonak galdatu darozku aldizka gure ethorkiko berriak: hea aita bizi ginduenetz; hea baginduen anaia bertze bat: eta guk ihardetsi diogu bere galdeen arabera: nondik jakin ginezakeen erranen zarokula: Erakhar darotazue zuen anaia zuekin?

8. Judak erran zioen oraino bere aitari: Igor zazu haurra enekin, goan gaitezen, eta bizi ahal gaitezen, ez gaitezen hil gu eta gure haur gaixoak.

9. Nik hartuko dut muthikoa; niri galda diadazu; ez badut gibelerat erakhartzen, eta zuri bihurtzen ez badarotzut, gaixtoki hobendun izanen naiz zure aldera egun-eta-bizian.

10. Gibelamendurik izatu ez balitz, hemen ginitazkeen jadanik bigarren aldiko.

11. Beraz beren aita Israelek erran zioten: Hola premia bada, egizue nahi duzuen; har zazue zuen untzietan lurreko fruitu hoberenatarik, eta gizonari eraman zotzue emaitzak, arraxina, ezti, estoraks-nigar, mirra eta amanda aphur bat.

12. Dirua ere eraman zazue lehenekoan bezalako bia: eta zuen zakhuetan kausitu duzuen eraman zazue gibelerat, beldurrez-eta huts egirik gerthatu diakeen hori.

13. Eta har zazue zuen anaia ere, eta zoazte gizonaren gana.

14. Ene Jainko guziz botheretsuak berati eragin dezazuela; eta preso dadukan zuen anaia eta Benjamin hau bihur betza zuekin batean. Ni anartean egonen naiz zurtz bezala haurrik gabe.



15. Hartu zituzten beraz gizonarentzat emaitzak, dirua lehen bezalako bia eta Benjamin: jautsi ziren Egiptora, eta xutik eman ziren Josepen aitzinean.

16. Hunek ikhusi zituenean, eta Benjamin hekiekin, manu egin zioen bere etxe-arthatzaileari, erraten zioelarik: Etxean sarrarazkitzu gizon hauek, eta bitimak hil zatzu eta barazkaria zuxent, ezen eguerditan enekin jan behar dute.

17. Hunek manatua egin zuen, eta etxera sarrarazi zituen gizonak.

18. Eta han, iziturik, elkharri erran zuten: Lehenago gure zakhuetan gibelerat eraman dugun dirua gatik sarraraziak gare: gezurra baliaraz dezantzat gure gainean eta bortxaz gathibu eragin eta gure astoez jabe dadientzat.

19. Aria hortaz etxe-gizonaren gana athelasera hurbildurik,

20. Mintzatu zitzaizkon: Othoizten zaitugu, jauna, entzun gaitzatzun. Jadanik lehenago jautsi izan gure jateko erostera:

21. Hekiek erosirik, ostatura goan garenean, ideki izan ditugu gure zakhuak, eta dirua atzeman dugu zakhuen ahoan: orai hura phisu berean gibelerat ekharri dugu.

22. Eta bertze diru bat ekhartzen dugu behar dugunaren erosteko: ez da gure jakitatean norik ezarri duen hura gure zakhuetan.

23. Bainan hunek ihardetsi zioten: Bakea dela zuekin, ez izan beldurrik: zuen Jainkoak, zuen aitaren Jainkoak eman darozkitzue aberastasuak zuen zakhuetan: ezen niri eman darotazuen dirua, emantzat dadukat. Eta Simeon erakharri zuen hekietara.

24. Eta etxean sarrarazirik, ekharri zioten ura, eta zangoak garbitu zituzten eta bazka eman zioten hekien astoei.

25. Hekiek emateko zituztenak xuxentzen zituzten, Josep eguerditan sar zedin artean: ezen adituak ziren han jan behar zutela ogia.

26. Josep sarthu zen beraz bere etxean, eta eskuetan zaduzkaten erraitzak eskaini ziozkaten, eta lurrean ahuspez emanik adoratu zuten.

27. Bainan hunek eztiki agurra bihurturik, galde egin zioten, erraten ziotelarik: Ongi da zuen aita zahar, aiphatu darotazuena? bizi da oraino?

28. Ihardetsi zuten: Ongi da gure aita, zure zerbitzaria: bizi da oraino. Eta gurthurik adoratu zuten.

29. Josepek begiak altxatzean, ikhusi zuen Benjamin bere anaia ama beraganikakoa, eta erran zuen: Hau da aiphatu darotazuen anaia gazte, hura? Eta gero erran zuen: Jainkoa urrikalkizun izan bekizu, ene semea.

30. Eta laster egin zuen, zeren barneak gaindi egiten baitzioen bere anaiaren gainera, eta nigarra jauzten zitzaioen: eta etzateko lekhuan sarturik nigar egin zuen.

31. Eta berriz begihartea garbiturik, ilkhi zen, atxiki zuen bere burua, eta erran: Ekhar zatzue ogiak.

32. Eta ogiak ezarriak izan ondoan, berezirik Josepentzat, eta berezirik anaientzat, eta berezirik batean jaten zuten Egiptoarrentzat ere (ezen Egiptoarrei etzaiote zilhegi Hebrearrekin jatea, eta horrelako onthuruntza bekhatu dadukate);

33. Jarri ziren haren aitzinean, zaharrena bere premtasunak agintzen zioen bezala, eta gazteena bere adinaren arabera. Eta hainitz miresten ziren,

34. Hartu zituztenean Josepen ganik izan zituzten zathiak: eta zathirik handiena erori zitzaioen Benjamin, hala non bortzaldiz xitxen baitzuen. Eta edan eta ase ziren Josepekin.

#### XLIV. KAP.

1. Bada Josepek manu egin zioen bere etxe-gizonari, erraten zioelarik: Ogiz atxik-ahala bethe zatzu haukien zakhuak: eta bakhotxari dirua ezar zozute zakhu gainean.

2. Bainan gazteenaren zakhuaren sartzean ezar zazu ene zilharrezko basoa eta ogiarentzat eman duen dirua. Eta hola egina izan zen.

3. Eta goiza ethorri zenean, igorri zituzten beren astoekin.

4. Eta jadanik hiritik atheratuak ziren eta aphur bat urrunago goanak: orduan Josepek ekharrarazirik bere etxe-gizona, erran zioen: Xuti zaite eta jarraik zakiozkite gizon horiei: eta atzeman ondoan, errozute: Zertako ongiarentzat bihurtu, duzue gaizkia?

5. Ebatsi duzuen basoa da ene nausiak edateko erabiltzen duen bera, eta hartan ohi du asmu egiten: gauzarik tzarrena egin duzue.

6. Harek egin zuen manatua zen bezala; eta atzemanik mintzatu zitzaioten manuaren arabera.

7. Haukiek ihardetsi zuten: Zertako mintzo da hola gure jauna, zure zerbitzariak egin balute bezala horrenbertzeko itsuskeria?

8. Zakhu buruetan aurkhitu dugun dirua, gibelerat ekharri dugu Kanaango lurretik; eta nola daiteke ebatsi dugula zure nausiaren etxetik urhe edo zilharra?

9. Zure zerbitzarietarik edozeinen baithan kausituko baita bilhatzen duzuna, eta haina hila izan bedi, eta gu izanen gare zure nausiaren gathibu.



10. Hunek erran zioten: Egin bedi zuen hitzaren arabera: zeinaren baithan kausituko baita, eta haina izan bedi ene gathibu; bertzeak garbi izanen zarete.

11. Beraz berehala zakhuak lurrera jautsirik, baxhotxak berea ideki zuen.

12. Etxe-gizonak, handienetik hasirik ttipieneraino ikhartu zituen, eta basoa aurkhitu zuen Benjaminen zakhuan.

13. Orduan haukiek, soinekoak urraturik eta astoak berriz kargaturik, hirira itzuli ziren.

14. Eta Juda bere anaiekin lehenbizikorik sarthu zen Josepen gana (ezen etzen oraino leheneko lekhitik atheratua), eta guziek bardin arthiki zituzten haren aitzinean beren buruak lurrera.

15. Hunek erran zioten: Zertako nahi izan duzue holako lana egin? ala ez dakizue asmatzeko jakitatean ez dudala parerik?

16. Judak erran zioen: Zer ihardetsiko dugu ene jaunari? edo zer erranen dugu, edo zer aitzakia dezakegu zuzenki? Jainkoak atzeman du zure zerbitzarien gaixtakeria: huna non garen guziak ene Jaunaren gathibu, gu eta haina zeinaren zakhuan aurkhitu baita basoa.

17. Josepek ihardetsi zuen: Urrun ni ganik holakorik eginen baitut: basoa ebatsi duena, bera izan bedi ene gathibu; bainan zuek zoazte librorik zuen aitaren gana.

18. Bada Judak, hurbilago goanik, erran zioen lotsarik gabe: Othoizten zaitut, ene jauna, zure zerbitzariak solas egin ahal dezan zure beharrira, eta ez betzaizko samur zure muthilari; ezen Faraonen ondotik zare zu,

19. Ene Jauna. Lehenik galdegin diozute zure zerbitzariari: Baduzue aita edo anaia bat?

20. Eta guk ihardetsi dugu gure jaunari: Badugu aita bat zaharra, eta anaia gaztetto bat, zahartzean sorthu zaiोजना, zeinaren ama beraganikako anaia hila baita; hura bakharra da bere amarenganikakoa, eta aitak xitki du maite.

21. Eta erran diozute zure zerbitzariari: Erakhar darotazue: eta ene begiak ezarriko ditut haren gainean.

22. Guk, ene jauna, ihardetsi darotzugu: Haurrak ez dezake utz bere aita: ezen utz baleza, aita hil laiteke.

23. Eta erran diozute zure zerbitzariari: Zuen anaia ttipiena ez bada zuekin heldu, ez duzue gehiago ikhusiren ene begithartea.

24. Beraz igan garenean zure zerbitzari gure aita gana, khondatau diozkagu gure jaunak erran guziak.

25. Eta gure aitak ihardetsi izan du: Bihur zaitezte, eta guri eros bihi aphur bat.

26. Guk erran izan diogu: Goan ez gaitezke: gure anaia ttipiena jaus ten bada gurekin, emanen gare bidetari: bertzela ez gaitezke ausarta Egiptoko buruzagiaren begietara agertzera.

27. Horri ihardetsi dio aitak: Badakizue ene emazteak bi seme eman darozkidala.

28. Bat ilkhi izan zen, eta erran darotazue: Basabere batek iretsi du: eta ez da oraidinokoan ageri.

29. Hau ere eramaten baduzue, eta bidean zerbait gerthatzen bazaio, atsekabetan jautsaraziko duzue ene buru zuritua hobira.

30. Agertzen banaiz beraz zure zerbitzari den ene aitaren aitzinera, eta haurra ez balin bada han (nola haren bizia hunenari baitatxeko),

31. Eta ikhusten badu hori ez dela zurekin, hilen da, eta zure muthilek igorriko dute haren buru zuritua atsekabetan hobira.

32. Lehenago izan benedi zure gathibu ni, zeinak hartu baitut haurra ene fedearen gain eta hitzeman baitut, diodalarik: Gibelerat bihurtzen ez badut, gaixtoki ene aitaren alderat hobendun izanen naiz egun-eta-bizian.

33. Beraz muthikoaren orde, geldituko naiz zure gathibu ene nausiaren zerbitzuan, eta muthikoa igan bedi bere anaiekin.

34. Ezen ez naiteke bihur, haurra gabe, ene aitaren gana, beldurrez-eta ene aita lehertuko duen helkaitzaren lekhuo gertha nadien.

#### XLV. KAP.

1. Josepek etzezakeen luzezago bortxa bere burua begira zagoen jende multzuren aitzinean: horren gatik manatu zuen guziak athera zitezten kanporat, elkharrekilako ezagutpenean atzerik nihor gertha etzedintzat.

2. Eta nigar-marraska bat egin zuen, Egiptoarrek eta Faraonen etxe guziak aditu zutena.

3. Eta erran zioten bere anaiei: Josep naiz ni: ene aita bizi da oraino? Anaiek, laztura gaitzak jorik, ezin zezokoten ihardets.

4. Bainan hunek gozotasunekin erran zioten: Hurbil zakizkidate. Eta ondora hurbildu zitzaizkonean, erran zioten. Ni naiz Josep zuen anaia, Egiptora saldu izan duzuen.

5. Etzaitezela izi eta ez bekizue gogor iduri zeren saldu nauzuen herri haukietara: ezen zuen salbatzera igorri nau Jainkoak zuen aitzinean Egiptora.



6. Bi urthe baditu ezen gosetea abiatua dela lurrean: eta gelditzen dira oraino bortz urthe, zeinetan lurra ezin lanthuko baita ez-etare uzta-rik bilduko.

7. Eta Jainkoak aitzinetik igorri nau, begira zaiteztentzat lurraren gainean, eta jatekoak bizitzeko izan ahal dezazuentzat.

8. Ez zuen xedetik, baina Jainkoaren nahitik igorria izatu naiz hunat: eta harek egin nau Faraonen aita bezala, horren etxeko nausi, eta Egiptoko lur guziko buruzagi.

9. Laster egizue eta igan zaizte ene aita gana, eta errozue: Hau gaztiatzen darotzu zure seme Josepek: Jainkoak egin nau Egiptoko lur guzi-ko jaun; jauts zaite ene gana, ez bezazu luza:

10. Eta egoitza eginen duzu Jefengo lurrean; eta izanen zare ene aldean zu, eta zure semeak, eta zure semeen semeak, zure ardiak eta abereak, eta dituzun gauza guziak.

11. Eta han haziko zaitut (ezen oraino gelditzen dira gosetezko bortz urthe), gal etzadientzat zu, eta zure etxea, eta dituzun guziak.

12. Huna zuen begiek eta Benjamin ene anaiaren begiek ikhusten dute ene ahoz mintzo natzaitzuela.

13. Eraman zozue ene aitari ene ospe guziaren eta Egiptoan ikhusi ditutzuen ororen berriak: higi zaizte, eta erakhar darotazue ene gana.

14. Eta bere anaia Benjamini lephotik besarka lothu zenean, nigar egin zuen; eta hau ere orobat nigarrez zagoen lephotik lothurik.

15. Eta Josepek musu eman zioten bere anaia guziei, eta bakhoxaren gainean nigar egin zuen: gero ausartatu zitzaizkon solas ematera.

16. Eta jakina izan zen eta haro handitan barraiatu zuten erregeren gortean: Josepen anaia ethorri dira; eta Faraon boztu zen, eta haren etxe guzia ere bai.

17. Eta erran zioen Josepi manu egin zezotela bere anaiei, erranez: Karga zatzue zuen astoak, eta zoazte Kanaango lurrera.

18. Eta handik har zatzue zuen aita eta etxekoak, eta zatozte ni gana: eta nik emanen darozkitzuet Egiptoko on guziak, lurak dadukan gogo hobeenetik haziak izan zadieztentzat.

19. Mana zozute ere har detzaten orgak Egiptoko lurretik, beren haurren eta emazteen ekhartzeko, eta errozute: Har zazue zuen aita, eta egizue lehen-bai-lehen ethortzera.

20. Etzazuela zuen pusketarik utz deusere: zeren Egiptoko ontasan guziak zuenak baitira.

21. Eta Israelen semeek egin zuten manatua izan zitzaioetena. Josepek eman ziotzaten orgak Faraonen manuaren arabera, eta bideko jatekoak.

22. Manatu zuen ere bakhoxari eman ziotzoten bira soineko: baina Benjamini eman ziozkan hirur ehun zilharrezko bortz soineko ederrenekin.

23. Bertze hainbertze diru eta soineko igorri zituen bere aitari hamar astorekin, Egiptoko ontasunetarik eramaten zutenak, eta berme hainbertze asto urrixekin bideko bihia eta ogiak zaramazkitenak.

24. Igorri zituen beraz bere anaia, eta abiatzean erran zioten: Etzaitzela samur bidean.

25. Egiptotik iganik, ethorri ziren Kanaango lurrera bere aita Jakobena gana.

26. Eta berri eman zioten, erraten zutelarik: Josep zare semea bizi da, eta hura bera da Egiptoko lur guziko buruzagi. Hori aditu zuenean, Jakobek, lo dorphe batetarik atzartzen balitz bezala, etzioten bizkitartean sinheterik ematen.

27. Haukiek aitzitik khondatzen zioten nola eta nola zen gauza. Baina ikhusi zituenean orgak, eta Josepek igorri ziozkien guziak, bihurtu zitzaioen bere tentua,

28. Eta erran zuen: Ene seme Josep bizi bada oraino, aski dut: goanen naiz, eta ikhusiko dut hil nadien baino lehen.

## XLVI. KAP.

1. Eta Israel abiatu, zituen guziekin, ethorri zen Zineko putzura; eta han bitimak hilik bere aita Isaaken Jainkoari,

2. Entzun zuen hura ikhuspenez gauaz deitzen zuela, eta erraiten zioela: Jakob, Jakob. Ihardetsi zioen: Huna non naizen.

3. Jainkoak erran zioen: Ni naiz zure aitaren Jainko guziz hazkarra: ez izan beldurrik, jauts zaite Egiptora, zeren han ezarriren baitzaitut jendaki handi baten buruko.

4. Ni harat jautsiko naiz zurekin, eta nik gibelerat erakharrien zaitut handik: Josepen eskuek hertsiko ere darozkitzute begiak.

5. Jakob jaiki zen beraz Zineko putzutik: eta semeek eraman zuten hurrekin eta beren emazterkin Faraonek igorri zituen orgetan gizonzaharraren ekhartzeko,

6. Kanaango lurrean zituen puska guziekin: eta Egiptora ethorri zen bere ondorego guziarekin,

7. Seme, eta ilobaso, alaba eta ondoko guziak elkarharrekin.



8. Hautxek dira Israelen semeen izenak, Egiptoan sarthu zirenak, bere eta bere haurrak. Zaharrena Errubena.
9. Errubenen semeak: Henok, eta Phalu, eta Hefron, eta Karmi.
10. Simeonen semeak: Jamuel, eta Jamin, eta Ahod, eta Jakin, eta Sohar, eta Saul Kananearraren semea.
11. Lebiren semeak: Jerson, eta Kaath, eta Merari.
12. Judaren semeak: Her, eta Onan, eta Sela, eta Phares, eta Zara; baina Her eta Onan hil ziren Kanaango lurlean. Pharesi sorthu semeak ziren: Hefron eta Hamul.
13. Isakarren semeak: Thola, eta Phua, eta Job, eta Semron.
14. Zabulonon semeak: Sared, eta Helon, eta Jahelel.
15. Horiek dira Liaren semeak, Mesopotamia Siriakoan, izan zituenak, bere alaba Dinarekin: seme eta alaba, orotara hogoi eta hamahiru zituen.
16. Gaden semeak: Sephion, eta Hagi, eta Suni, eta Esebon, eta Heri, eta Arodi, eta Areli.
17. Aserren semeak: Jamne, eta Jesua, eta Jesui, eta Beria, Sara ere hekien arreba. Beriaren semeak: Heber eta Melkiel.
18. Horiek dira Zelpharen semeak, Labanek Liari eman izan zioenarenak; haren ganik hamasei haur horiek izan zituen Jakobek.
19. Errakel bere emazteaganikako semeak: Josep eta Benjamin.
20. Eta Egiptoko lurlean Josepi sorthu izan zitzaizkon semeak, Heliopoliseko Aphez Putifarren alaba Asenethen ganik izan zituenak: Manase eta Efraim.
21. Benjaminen semeak: Bela eta Bekor, eta Abel, eta Jera, eta Nasman eta Eki, eta Erros, eta Mophim, eta Ophim, eta Ared.
22. Horiek dira Errakelek Jakobi eman izan ziozkien haurrak: orotara hamalau:
23. Danen semeak: Hufim.
24. Nefthaliren semeak: Jafiel, eta Guni, eta Jefer, eta Salem.
25. Horiek dira Balaren semeak, Labanek bere alaba Errakeli eman zinenarenak. Haren ganik zazpi horiek izan zituen Jakobek.
26. Jakobekin Egiptoan sarthu ziren guziak eta haren belhaunetik ilkhak, ziren, haren semeen emazteak gabe, hirur hogoi eta sei.
27. Eta Josepen semeak, Egiptoko lurlean sorthu zitzaizkoenak, bia. Jakoben etxeko guziak Egiptoan sarthu zirenak izan ziren hirur hogoi eta hamar.
28. Bada, Jakobek bore aitzinean Juda igorri zioen Josepi, berria eraman zezon eta ethor zadiantzat haren bidera Jefen-herrira.

29. Jakob haran heldu izan zenean, Josepek zaldiak bere orga-lasterri uzarturik, igan zen bere aitaren bidera, lekhu berera: eta ikhustearrekin hura, jauzi zitzaioen lephora, eta besarka zadukalarik nigar egin zuen.

30. Eta aitak erran zioen Josepi: Gaurgeroz hilen naiz bozik, zeren ikhus baitut zure begithartea, eta bizirik uzten baitzaitut.

31. Eta Josep mintzatu zitzaioten bere anaiei, eta bere aitaren etxeko guziei: Iganen naiz, eta berria emanen diot Faraoni, eta erranen: Ene anaiak eta ene aitaren etxekoak, Kanaango lurlean zirenak, ethorri dira ene gana;

32. Eta dira ardi zaintzaile, eta arthalde hazten haritzen dira: berekin erakharri dituzte beren ardi eta idi eta izan ahal dituzten guziak.

33. Eta deithuko zaituztenean eta erranen darotzuenean: Zer da zuen lana?

34. Ihardetsiko diozue: Zure zerbitzari gare, artzainak haurretik orai arteo, gu eta gure aitzinekoak. Hori errozue, zuen egoitza egin ahal dezauentzat Jefengo lurlean: zeren Egiptoarrek higuin baitituzte ardi zaintzaile guziak.

#### XLVII. KAP.

1. Josep goanik beraz Faraonen aitzinera berria eman zioen, erraten zioelarik: Ene aita eta anaiak, beren ardi eta idi eta dituzten guziekin, Kanaango lurretik ethorri dira; eta huna non gelditzen diren Jefengo lurlean.

2. Bere anaietarik ere bortz agerrarazi zituen erregeren aitzinera:

3. Hunek galdegin zioten: Zer lan duzue? Ihardetsi zuten: Zure zerbitzuko, ardi zaintzaileak gare, gu eta gure aitzinekoak.

4. Bidaietan ethorri gare zure lurretara, zeren, gosetea borthizten hari delakotz, Kanaango lurlean belharrik ez baita arthaldeentzat: eta galdatzen dugu mana dezazun zure zerbitzariak egon ditezen Jefengo lurlean.

5. Horren gatik erregek Josepi erran zioen: Zure aita eta zure anaiak ethorri dira zure gana.

6. Aitzinean duzu Egiptoko lurra oro; tokirik hobeanean eginaraz zozute egoitza, eta emozute Jefengo lurra. Ezagutzen baduzu horien artean gizon antzesturik badela, ezar zatzu ene arthaldeen buruko.

7. Gero Josepek sarrarazi zuen bere aita erregeren gana, eta ezarri zuen haren aitzinean: Jakobek benedikatu zuen hura.

8. Eta erregek galdegin zioen: Zer adin ekhartzen dute zure bititze-kor urtheek?



9. Ihardetsi zioen: Ene erromeriako egunak dira ehun eta hogoi eta hamar urthe, aphurrak eta txarrak, eta ez dira heldu izan ene arbasoek beren erromerian iragan dituztenetara.

10. Eta errege benedikaturik, kanpora ilkhi izan zen.

11. Josepek beraz bere aita eta anaiei eman zioten, Egipton, tokirik hobeanean, Erramesesko lurra, Faraonek manatu izan zuen bezala.

12. Eta hazten zituen hekiek, eta bere aitaren etxe guzia, bakhotxari jatekoak emanez.

13. Ezen ogia mundu guzian eskas zen; goseteak xahutzen hari zuen lurra, gehienik Egiptoia eta Kanaan-herria.

14. Ogi saltzetik Josepek bildu zuen lekhu hekietako diru guzia, eta ekharri zuen erregeren khutxara.

15. Eta diruak erosleei eskas egin ziotenean, Egipto guzia ethorri zen Josepen gana, zioelarik: Iguzu ogia; zertako zure aitzinean hiltzen han gure diru eskasez?

16. Hunek ihardetsi zioten: Ekhar zatzue zuen abereak, eta hekien truk jateko emanen darotzuet, dirurik ez baduzue.

17. Ekharri zituztenean, eman zioizkiten jatekoak beren zaldi, ardi, idi eta astoetan truk: eta azienda truk hazi zituen urthe hartan.

18. Ethorri ziren bigarren urthean ere, eta erran zioten: Ez diogu gure jaunari gordeko, diruak eskas eginik, aziendek orobat eskas egin darokutela; etzare jakin gabe gure gorphutzaz eta lurrar landan, deusere ez dugula.

19. Zertako beraz hilen gare zure begien aitzinean? gu eta gure lurra zureak izanen gare; eros gaitzatzu erregeren zerbitzuko, eta igutzu haziak, beldurrez-eta, nekhazalea hilik, lurra mortu bilhaka dadien.

20. Josepek erosi zuen beraz Egiptoko lur guzia, batbederak bere bazterrak saltzen zituelakotz gosetearen handiz. Eta Faraon egin zuen jabe lurrar,

21. Eta sende guziaz, Egiptoaren buru bateko zedarrietarik bertze buruko mugetaraino,

22. Aphezen lurrar landan, erregek hekiei emana izan zitzaioetenaz; erabakia zen jatekoa ematen zitzaioeten herriko bihitegiatarik, eta hola etziren beren ontasunen saltzera behartuak izan.

23. Josepek erran zioten beraz populuei Huna, ikhusten duzuen bezala, Faraon zuen buruen eta zuen lurraren jabe da: har zatzue haziak eta erain zatzue landak,

24. Fruituak izan ahal dezazuentzat. Erregeri bortzgarrena emanen diozue; gainerako lauak uzten darozkitzuet hazitako eta zuen etzekoen eta haurren hazteko.

25. Haukiek ihardetsi zuten: Zure eskuetan da gure bizia; bakharrrik gure jaunak begithartez ikhus beikitza, eta gogotik zerbitzatu dugu errege.

26. Ordutik oraidino, Egipto guziko lurrean, erregeentzat berezten da bortzgarrena, eta hori egina da legetan bezala, lekhat aphez lurra, zeina holako zorretik garbi utzia izan baitzen.

27. Israelek beraz izan zuen bere egoitza Egipton, erran nahi baita, Jefengo lurrean, eta izan zen hartaz jabe; eta hainitz berhatu eta populatu zen.

28. Eta han bizi izan zen hamazazpi urthez; eta haren bizitzeko egun guziak igan ziren ehun eta berrogoi eta zazpi urthetara.

29. Eta ikhustearekin hurbiltzen hari zitzaioela heriotzeko eguna, deithu zuen bere seme Josep, eta erran zioen: Grazia aurkhitu izan badut zure aitzinean, ezar zazu zure eskua ene iterraren gainean; eta egidazu urrikalpen eta zintasunez agintza, ez nauzula Egipton hortziko:

30. Bainan lo eginen dudala ene arbasoekin, eta eramanen nauzula lur huntarik eta ezarriko aitzinekoen hobian. Josepek ihardetsi zioen: Eginen dut zuk manatua.

31. Eta Jakobek erran zioen: Beraz zin egidazu niri. Josepek zin eginik, Israel itzuli zen burukita-aldera eta Jainkoa adoratu zuen.

## XLVIII. KAP.

1. Horiek hola iragan ondoan, Josepi ekharri zioten berria aita eri zuela: hunek bere bi semeak, Manase eta Efraim harturik, bideari eman zen.

2. Gizon-zaharrari erran zioten: Huna Josep zure semea non heldu den zure gana. Jakob hazkarturik ohean jarri zen.

3. Eta Josepi, sarthu zenean, erran zioen: Jainko guziz ahalduna agertu zait Luzan, zeina baita Kanaango lurrean; eta benedikatu nau,

4. Eta erran izan darot: Berhatuko eta populatuko zaitut, eta ezarriko zaitut jendaia askoren buruko: eta lur hau emanen darotzut zuri, eta zure ondoan zutarikakoei, behin-bethiko gozamenetan.

5. Beraz zure bi semeak, Egiptoko lur huntan sorthu zaizkitzunak, ni zure gana ethorri baino lehen, eneak izanen dira: Efraim eta Manase, Erruben eta Simeon bezala ene izeneko ekharriak izanen dira.



6. Bainan horien ondotik izanen dituzun bertzeak, zureak izanen dira eta beren anaien izenetan deithuak izanen dira beren izantzetan.

7. Ezen Mesopotamiatik heldu nintzelarik, bidearen beraren gainean hil izan zitzaitan Erruhel Kanaango lurtean, eta uda-hastea zen; eta Efratan sartzen nintzen, eta ehortzi nuen Efratako bide bazterrean, zeina bertze izenez Beteleme deitzen baita.

8. Hanbatekin haren semeak ikhusirik, Josepi erran zioen: Nor dira haukiek?

9. Ihardetsi zuen: Ene haurrak dira, Jainkoak lekhu hunetan eman izan darozkidanak. Erran zioen: Ene gana hurbilarazkitzu, benedikata detzantzatzat.

10. Ezen Israelen begiak lanbrotuak izen bere adin handia gatik, eta etzezakeen ikhus garbiki. Eta hekiek hurbilarazirik bere gana, musu emanik, eta besarkaturik,

11. Erran zioen bere semeari: Ez naiz zure begithartez izan gabetua, bertzalde Jainkoak erakhutsi izan darozkit zure umeak.

12. Josepek hekiek aldaratu ondoan bere aitaren besoetarik, ahuspez lurrean jarririk adoran eman zen.

13. Eta ezarri zuen Efraim bere eskuinean, hori baita Israelen ezkerrean: eta Manase bere ezkerrean, edo aitaren eskuinean, eta biak ondora hurbilarazi zioizkien.

14. Israelek esku eskuina hedaturik, ezarri zuen Efraim, anaia gazteenaren buruaren gainean: eta eskuak gurutzatuz, ezkerre ezarri zuen Manase, sortzez zaharrena zenuen buruaren gainean.

15. Eta Jakobek Josepen semeak benedikatu zituen, eta erran: Jainkoak, zeinuen aitzinean ibili baitira ene aita Abraham eta Isaak, Jainkoak, zeinak hazi bainau ene haurretik oraidinokoan:

16. Aingeruak, gaitz orotarik begiratu nauenak, benedikata betza haur haukiek: eta deithua izan bedi haukien gainera ene izena, eta ene aita Abraham eta Isaaken izenak ere bai, eta osteka berha beitez lurraren gainean.

17. Bainan Josepek ikhusirik bere aitak esku eskuina ezarri zuela Efraimen buruaren gainean, gaitzitu zitzaioen: eta aitaren eskua harturik, egin zuen haren goititzera Efraimen buruaren gainetik, eta Manaseren buruaren gainera eramatera,

18. Eta aitari erran zioen: Ez da hola behar, aita: zeren hau baita zaharrena, ezar zazu eskuina hunen buru gainean.

19. Bainan Jakobek etzuen nahi izan eta erran zuen: Badakit, ene semea, badakit: hau ere populuen buruan izanen da, eta populatuko da:

bainan anaia gazteena hau baino handiago izanen da, eta hunen ondoregoa berhatuko da jendakietan.

20. Eta orduan benedikatu zituen, zioelarik: zutan benedikatua izanen da Israel, eta erranen da: Jainkoak egin dezazula Efraimi bezala, eta Manaseri bezala. Eta jarri zuen Efraim Manaseren aitzinean.

21. Eta erran zioen Josep bere semeari: Huna non hiltzen naizen, eta Jainkoa izanen da zuekin, eta bihurturen zaituzte zuen aiten lurrera.

22. Ematen darotzut zure anaiei baino gehiago, ezpatarekin eta ene balaztarekin Amorhearren gainean irabazi dudana ontasuna.

### XLIX. KAP.

1. Bada Jakobek deithu zituen bere semeak, eta erran zioten: Bil zaitzte, oraitik erran dezazuetan zer zaitzuen gerthatuko azken egunetan.

2. Bil zaitzte, eta adi zazue, Jakobek semeak, adi zazue Israel zuen aita:

3. Erruben ene seme zaharrena, zu ene indarra, eta ene atsekabearen hastapena: lehena behar zinen ene emaitzetan; handiena manamenduan.

4. Ixuri izan zare ura bezala, etzare berhatuko: zeren igan zaren zure aitaren ohera, eta lohitu baituzu haren etzauntza.

5. Simeon eta Lebi anaia: gaixtakeriazko gerl-untziak.

6. Horien xede-hartzean ez bedi sar ene anima! ez-eta horien bilkuan izan ene ospea! zeren beren hasarrean hil baitute gizona, eta beren nahitara eragotzi harrasia.

7. Madarikatua horien hasarrea, zeren iraun duen; eta horien gaitzidura, zeren izan den gogorra: zathituko ditut Jakob baithan eta barriatuko Israelen.

8. Juda, laudaturen zaituzte zure anaiek: zure eskua izanen da zure etsaien buruen gainean, gurthuko zaizkitzu zure aitaren semeak.

9. Judak iduri du lehoinaren umea; ene semea, igan zare harrapatu ihiziaren gainera; phausatzean etzan zare lehoina iduri, eta lehoin urrixa iduri, nork hura atzar?

10. Ez da khenduko Juda ganik errege-makhila, ez eta buruzagia haren belhaunetik, ethor dadien arteo igorria izan behar dena eta hura izanen da jendaien igurikitza.

11. Bere astokumea lothuko du mahats-ondoari, eta, oi ene semea, asto-urrixa aihenari. Arnoan garbituko du bere soinekoa eta mahatsaren odolean bere kapa.

12. Arnoa baino ederragoak dira haren begiak, eta hortzak esnea baino zuriagoak.





13. Zabulonek egoitza eginen du itsas-hegian eta untzien bara-lekuan, Sidoneraino hedatzen delarik.
14. Isakar, asto hazkarra iduri, etzanan da bere mugen artean.
15. Ikhusi du deskantsua ona dela, eta lurra nihon den hobeena; eta bere soin gaina jautsi du bizkarka eramateko, eta egin da zerga pagatzaile.
16. Danek juiatuko du bere populua, hala-nola et-ere bertze leinuak Israelen.
17. Dan izan bedi sugea bidean, zerasta bidexkan, zaldiari hatza asidiodiena, igailea gibelera eror dadientzat.
18. Nik, Jauna, zu ganik igurikiko dut ene salbagarria.
19. Gad harmaturik gudukatuko da bere aitzinaldera; eta gibelerat ere harmatuko da.
20. Aserren ogia, ogi gorria, eta gozo emanen diote erregeei.
21. Nefthali, oren itzuria, eta hitzari edertasun emaille.
22. Josep ene semea berhatuz dihoa, eta begiko ederra baita, neskatxek laster egin dute harrasi gainera.
23. Bainan ixterbegiek suminduran sarrarazi dute, eta liskar eman diote, eta bekhaizgo ekharri, harmak eskuetara harturik.
24. Bainan hazkarrean jarri da haren balazta, eta haren besoetako eta eskuetako lokharriak urratuak izan dira Jakobean Jainko botheretsuaren eskuz; handik athera da artzaina, Israelgo harria.
25. Zure aitaren Jainkoa izanen da zure laguntzailea, eta Guziz-Ahaldunak benedikatuko zaitu, zeruko benedizioez gainetik, behereko lezeko benedizioez azpitik, bulharretako eta sabeleko benedizioez.
26. Zure aitaren benedizioek hazkarragoak dira haren aitenak baino; bethitikako munho gainen lehia ethorri arteo; egin beitez Josepen buruaren gainean, eta Nazaretarraren buru gainean bere anaiei artean.
27. Benjamin otso harraparia; goizean janen du atzeman duena, eta arratsean phartituko ditu hari khendu puskak.
28. Horiek oro dira Israelgo hamabi leinuen buruak; horrela mintzatu zitzaizoten beren aita, eta benedikatu zituen batbederari zagokioen benedizioez.
29. Eta manu egin zioten, zioelarik: Ehortz nezazuen ene aitekin Efron hethearraren landan den zilhoka bikhunean,
30. Manbreri begira dagonean Kanaango lurrean, zeina erosi baitzuen landarekin Abrahamek Efron hethearrari, hobi baten izateko.
31. Han ehortzi zituzten hura, eta Sara haren emaztea; han ehortzia izan da Isaak bere emazte Errebekarekin; eta han ezarria dago Lia ere.

32. Eta akhabaturik manamenduak zeinetaz bere semeak argitzen baitzituen, zangoak bildu zituen ohe gainean, eta hil zen; eta bere populuari batua izan zen.

## L. KAP.

1. Hori ikhustearrekin, Josep jauzi zen bere aitaren begithartera, nigarez eta musuka.
2. Bere zerbitzuko midikuei manatu zioten aita baltsamuzta zezoten.
3. Berrogoi egun eman zituzten manu horren bethetzen; ezen hori zen hilen baltsamuztatzeo ohitza, eta Egiptoak Jakob deithoratu zuen hirur hogoi eta hamar eguez.
4. Deithoreko ephetik lekhora, Josep mintzatu zen Faraonen etxekoei: Grazia aurkhitu badut zuen aitzinean, mintza zaizte Faraonen beharrietara:
5. Zeren ene aita zin-eragin zarotadan, zioelarik: Huna non hiltzen naizen; ehortziko nauzu Kanaango lurrean enetzat egin izan dudana hobian. Iganen naiz beraz, eta ehortziko dut ene aita, eta bihurturen naiz gero.
6. Eta Faraonek erran zioen: Igan zaite eta zin egin duzun bezala ehortz zazu zure aita.
7. Josep igaitean, Faraonen etxeko zaharrak oro eta Egiptoko lurreko lortze handieneko guziak goan ziren harekin;
8. Josepen etxea ere bai bere anaiekin, bainan ez haurrak, ardiak eta abereak, zeinak utzi baitzituzten Jefengo lurrean.
9. Ahakuan ere baziren orga-lasterrak eta zaldizkoak: eta egin zen oste bat ttipia etzena.
10. Eta ethorri ziren Atadeko larrainera, zeina Jordanez bertzaldean baita: han hilotsen egiten deithore handi eta minekin eman zituzten zazpi egun.
11. Hori ikhusirik, Kanaango lurreko egoiliarrek erran zuten: Hori deithore handia dute Egiptorrek. Eta horren gatik toki hura deithua izan zen, Egiptoko deithore-lekhu.
12. Jakobean semeek egin zuten beraz manatua izan zitzaizoten bezala;
13. Eta hura eramane Kanaango lurrera, ehortzi zuten zilhoka bikhunean, zeina Abrahamek erosi baitzen landarekin Efron hethearrari Manbre begian, hobi baten izateko.
14. Eta Josep bihurtu zen Egiptora bere anaiekin, eta lagun guziekin, aita ehortzi ondoan.



15. Jakob hil-eta, Josepen anaiak beldurtu ziren, eta elkharri erraten zuten: Orhoit balitz jasan duen bidegabeaz, eta bihur balezagu egin diogun gaizki guzia.

16. Eta gaztiatu zioten, erraten zutelarik: Zure aitak hil aitzinean manatu daroku,

17. Erran detzagutzun haren hitz kaukiek: Othoizten zaitut ahantz dakizun zure anaiek zure gainean erabili dituzten gaixtakeria, gaizki eta maltzurkeria; guk ere othoizten zaitugu tzarkeria hori barkha dezozuten zure aitaren Jainkoaren zerbitzariari. Horiek aditurik, Josepek nigar egin zuen.

18. Eta anaiak ethorri zitzaizkon; eta ahuspez, lurrean emanik adora-tzen zutelarik, erran zioten: Zure zerbitzariak gare.

19. Hunek ihardetsi zioten: Ez izan beldurrik: Jainkoaren nahiari gogor egin othe dezakeguke?

20. Enezat asmu gaixtotan zinabiltzaten: bainan hori Jainkoak onera bihurtu izan du, ene goratzeko, orai ikhusten duzuen bezala, eta asko populuren salbatzekotzat.

21. Ez izan beldurrik: nik haziko zaituztet eta zuen haurrak ere bai: eta gogo eman zioten, eta mintzatu zitzaizkien ezteki eta emetasunekin.

22. Eta Egiptoan egon izan zen bere aitaren etxeko guziekin, eta bizi izan zen ehun eta hamar urthe. Eta ikhusi zituen Efraimen semeak hirugarren belhauneraino. Manaseren seme, Makirren haurrak ere sorthu ziren Josepen altzoan.

23. Horiek gerthatu ondoan, mintzatu zen bere anaiei: Ni hil-eta, Jainkoa ikhustera ethorriko zaitzue, eta herri hautarik iganaraziko zaituzte Abrahami, Isaaki eta Jakobi zin eginez agindu dioten lurrera.

24. Eta zin-eraginik, erran zioten ondoan: Jainkoa ikhustera ethorriko zaitzue: ene hezurak lekhu haukietarik zuekin eramait zatzue,

25. Hil izan zen, bere biziko ehun eta hamar urthe betherik. Eta balsamuzaturik, ezarria izan zen hil-khutxan Egipton.

## EKSODOA

### I. KAP.

1. Huna Israelgo semeen izenak, Jakobekin Egipton sarthu zirenak, zein bere etxekoekin:

2. Erruben, Simeon, Lebi, Juda,

3. Isakar, Zabulon eta Benjamin,

4. Dan eta Nefthali, Gad eta Aser.

5. Jakoben belhaunetikako guziak ziren beraz hirur hogoi eta hamar: bada, Josep Egiptoan zen ordukotz.

6. Hau hil ondoan, eta hunen anaia guziak eta ahaidegoa ere bai,

7. Israelgo semeak berhatu ziren, eta muskila bezala populatu: eta hainitz hazkarturik, estali zuten lurra.

8. Bizkitartean errege berri bat, Josep ezagutzen etzuen, jaiki zen Egiptoaren gainera.

9. Eta erran zioen populuari: Huna Israelgo semeen populua ostetan igana, eta gu baino hazkarrago.

10. Zatozte, zuhurki egiteko zapha dezagun, popula dadien beldu-rrerz: eta gure gainera gerla bat heldu bada, bat egin dadien gure etsaiekin, eta gu garhaiturik ilkhi dadien Egiptotik.

11. Hortarakotz ezarri zituen hekien gainean lanetako aitzindariak, nekheen-pean hekien lehertzeko: eta Faraoni egin izan ziozkaten Tabernakleako hiriak, Phitom eta Errameses.

12. Bainan zenbatenez zaphatuago eta hanbatenez populatzen eta berhatzenago ziren

13. Eta Egiptoarrek higuin zituzten Israelgo semeak, eta eskarniatuz gaizki erabiltzen zituzten:

14. Eta bizitze garratza iraganarazten zioten lohi, eta adrailuetako lan gogorrez eta bertze zerbitzu guziez, zeinetaz lur lanetan leherrarazten baitzituzten.

15. Eta Egiptoko erregek erran zioten Hebrearren emaginei, zeineta-rik bat Sefora deitzen baitzen, eta bertzea Phua,

16. Manu egiten ziotelarik: Erdiko dituzuenean hebrear emaztekiak, eta haurraren sortzeko orduan, muthikokia bada, hil zazue: nexka bada, begira zazue.



17. Bainan emaginak Jainkoaren beldur izan ziren, eta etzuten egin Egiptoko erregeren manuaren arabera, bainan begiratzten zituzten muthikokiak.

18. Erregek erakharrarazirik erran zioten: Nolaz begiratu dituzue muthikoak?

19. Ihardetsi zuten: Hebrear emaztekiak ez dira Egiptoarrak bezala: berek ezen emagintzan badakite; eta gu hekien ganatu baino lehen, egiten dituzte haurrak.

20. Jainkoak beraz ongi egin zioten emaginei: eta populua berhatu eta hazkartu zen hainitz

21. Eta Jainkoak, emaginak haren beldur izan zirelaketz, altxatu zituen hekien etxeak.

22. Faraonek manu egin zioen beraz bere populuari, erraten zioelarik: Sorthuko diren muthikokiak oro arthik zatzue ura-behera: nexkak begira zatzue.

## II. KAP.

1. Horien ondoan, ilkhi zen Lebiren etxeko gizon bat, eta hartu zuen bere leinuko emazte bat.

2. Hau amatu zen eta erdi seme batez: eta ederra zela ikhusirik, gorde izan zuen hirur hilabetez.

3. Eta gehiago ezin gorde zezakeenean, hartu zuen ihizko xaxkito bat, eta ferekatu zuen naslikaz eta bikhez: eta haurttoa ezarri zuen barnean, eta urhegiko ihien artean utzi zuen,

4. Haurraren arrea urrundani zagoela, zer gerthatuko zen begira.

5. Huna bada, Faraonen alaba jausten zela urean garbitzera: eta haren neskatxak ur-hegiz zihoazen. Eta xaxkitoa ikhusi zuenean ihiztorkan, bere ondokoetarik bat igorri zuen: eta ekharri zioten xaxkitoa.

6. Idekitezan eta ikhustearekin haur ttipi bat barnean marrakaz, hartaz urrikaldurik, erran zuen: Hebrearren haurretarik da hau.

7. Haurraren arrebak erran zioen: Nahi duzu goan nadien, eta deit dezazudan hebrear emazteki bat, haur ttipia haz dezakeena?

8. Ihardetsi zioen: Zoazi. Nexka goan zen eta deithu zuen bere ama.

9. Faraonen alabak erran zioen huni: Har zazu haur hau, eta haz darotazu: nik zuri emanen darotzut zure saria. Emaztekiak hartu eta hazi zuen haurra: eta tarrotu zenean, eman zioen Faraonen alabari.

10. Hunek onhetsi zuen bere semeorde, eta izendatu zuen Moise, zioelarik: Zeren uretik hartu dudana.

11. Handitu zen ondoko egunetan, Moise atheratu zen bere anaietara, eta ikhusi zuen hekien atsekabea, eta Egiptoar aitzindari bat bere anaia Hebrearretarik baten jotzen.

12. Eta bazterretara begiraturik, ikhusi zuenean nihor etzela lekhuko, Egiptoarra hilik gorde zuen legarrean.

13. Eta atherarik bertze egunean, ikhusi zituen bi Hebrear liskarrean: eta erran zioen gaizki hari zenari: Zertako jotzen duzu zure laguna?

14. Hunek ihardetsi zuen: Nork ezarri hau gure gainean buruzagi eta juie? ala hil nahi nauk, Egiptoarra atzo hil dukan bezala? Moise beldurtu zen, eta erran zioen: Nola agertu da solas hori?

15. Eta Fanon jakintsun egin zen hitz horietaz eta Moise hil beharrez zabilan: hunek ihes eginik haren begietarik, baratu zen Madiango lurtean, eta jarri putzu baten aldean.

16. Bada, Madiango aphezak bazituen zazpi alaba, zeinak ur atheratzera ethorri baitziren eta askak betherik edaran nahi zituzten beren aitareren arthaldeak.

17. Artera artzainak ethorri ziren, eta neskatxak haizatu zituzten: eta Moise jaiki zen, eta hekien aldea harturik, edaran ziozkaten ardiak.

18. Eta itzuli zirenean beren aita Erraguelen gana, hunek erran zioten: Nolaz ethorri zarete ohi baino lasterrago?

19. Ihardetsi zuten: Egiptoar gizon batek ilkhi gaitu artzainen eskuetarik: eta gehiago dena, ura atheratu du gurekin, eta ardiei edatera eman diote.

20. Eta aitak erran zioten: Non da? zertako utzi duzue gizona? deith zazue ogiaren jatara.

21. Moisek beraz zin egin zuen harekin egonen zela. Eta emaztetzat hartu zuen Sefora haren alaba:

22. Hunek eman zioen seme bat, Jersam deithu zuena, zioelarik: Arrotz izatu naiz atze-lurrean. Gero eman zioen bertze bat, Eliezer deithu zuena, zioelarik: Ene aitaren Jainkoak ezen, ene laguntzaileak, itzuri nau Faraonen eskutik.

23. Bada, asko denboren buruan, hil izan zen Egiptoko errege: eta auhonetan, Israelgo semeek deihadar egin zuten beren nekheak gatik: eta hekien nekheetarikako deihadarra igan zen Jainkoa gana.

24. Eta entzun zuen hekien quinta, eta orhoitu zen Abrahamekin, Isaakekin eta Jakobekin egin izan zuen batasunaz.

25. Eta Jaunak begiratu zioten Israelen semeei, eta ezagutu zituen.



### III. KAP.

1. Bada, Moisek alhatzen zituen Jethro bere aitagarreba, Madianeko aphezaren ardiak: eta mortu barrera eraman zituen batez, ethorri zen Horeben, Jainkoaren mendia.

2. Eta Jauna agertu zitzaioen, sasi baten erditik atheratzen zen su-gar batean: eta Moisek ikhusten zuen sasia sutan zela, eta ez erretzen.

3. Moisek erran zuen beraz: Goanen naiz, eta ikhusiko dut agerkuntza handi hori, nolaz sasia ez den erretzen.

4. Bainan Jaunak ikhusirik hurbiltzen zela begiratzekotzat, deithu zuen sasiaren erditik, eta erran zioen: Moise! Moise! Hunek ihardetsi zuen: Huna non naizen.

5. Eta Jaunak erran zioen: Etzaitezila hunat hurbil: Khen zatzu oinetakoak zangoetarik: ezen zu zauden tokia lur saildua da.

6. Eta erran zuen berriz: Ni naiz zure aitaren Jainkoa, Abrahamen Jainkoa, Isaaken Jainkoa, eta Jakobena Jainkoa. Moisek gorde zuen begit-hartea: ezen etzen ausartatzen Jainkoaren aldera begiratzera.

7. Jaunak erran zioen: Ikhusi izan dut ene populua Egiptoko atsekabea, eta haren deihadarra entzun dut haren lanetako aitzindarien gogortasuna gatik.

8. Eta jakinez haren oinhazea, jautsi naiz haren atheratzera Egiptoarren eskuetarik, eta eramatera lur hartarik lur on eta zabal batera, esne eta ezti darioen lur batera, Kananear, eta Hethear, eta Amorhear, eta Pherezear, eta Hebear, eta Jebusearren lekhetara.

9. Israelen semeen deihadarra heldu izan da beraz ni gana: eta ikhusi dut Egiptoarrek jasanarazten dioten atsekabea.

10. Bainan zato, eta igorriren zaitut Faraonen gana, Egiptotik erakhar dezazun ene populua, Israelen semeak.

11. Eta Moisek erran zioen Jainkoari: Nor naiz ni goatekotzat Faraonen gana, eta Egiptotik erakhartzeko Israelen semeak

12. Ihardetsi zioen: Ni zurekin izanen naiz: eta hori dukezu seinalea nik igorria zarella: Ene populua Egiptotik atheratu dukezun ondoan, Jainkoari imolatuko diozu mendi hunen ganean.

13. Moisek erran zioen Jainkoari: Huna non goanen naizen ni Israelen semeetara, eta erranen diotet zuen arbasoen Jainkoak igorri nau zuen gana. Eta erranen badarotate: Zer du izena? zer erranen diotet nik?

14. Jainkoak erran zioen Moisi: Ni naiz naizena. Erran zioen oraino: Hula mintzatuko zare Israelen semei: Denak igorri nau zuetara.

15. Jainkoak erran zioen Moisi berriz: Hau erranen diozute Israelen semei: Zuen arbasoen Jainko Jaunak, Abrahamen Jainkoak, Isaaken

Jainkoak, eta Jakobena Jainkoak igorri nau zuetara: hori da bethikotzat ene izena, eta hori da ene orhoitkizuna mendeen mendetako.

16. Zoazi, eta bil zatzu Israelgo zaharrak eta errozute: Zuen arbasoen Jainko Jauna agertu zait niri, Abrahamen Jainkoa, Isaaken Jainkoa, eta Jakobena Jainkoa, dioelarik: Ene begiz ikhustera ethorri natzaitzue, eta ikhusi ditut Egiptoan gerthatu zaizkitzuen guziak.

17. Eta mintzatu naiz zuen Egiptoko atsekabetik athera zaitzatedan Kananearren, eta Hethearren, eta Amorhearren, eta Pherezearren, eta Hebearren, eta Jebusarren lurrera, esne eta ezti darioen lurrera.

18. Eta entzunen dute zure boza: eta goanen zarete zu eta Israelgo zaharrak Faraonen aitzinera, eta erranen diozu: Hebearren Jainko Jaunak deithu gaitu: hirur egunen bidean goanen gure mortura, gure Jainko Jaunari imolatzera.

19. Bainan badakit nik Egiptoko erregek etzaitzute goatera utziko, beso hazkarraren bidez ezpada.

20. Hedatuko dut ezen ene eskua, eta Egiptoa joko du ene sendagaila orotan, zeinak eginen baititut heklen erdian: utziren zaitzute gero.

21. Eta Egiptoarren aitzinean emanen diot populu hari ene grazia: eta ilkhitzen zaiztenean, etzarete hutsik atheratuko.

22. Bainan emaztekiak galdeginen dioizki bere hauzoari eta bere etxekandreaki zilharrezko eta urhezko untziak, eta soinekoak: eta hekiek ezarriko dituzue zuen seme-alaben bizkarrean, eta Egiptoa biluziko duzue.

### IV. KAP.

1. Ihardestean Moisek erran zuen: Ez darotate sinheste emanen, eta ez dute ene boza entzunen, bainan erranen dute: Etzaik agertu Jauna.

2. Jaunak erran zioen beraz: Zer da eskuan duzun hori? Ihardetsi zuen: Zigorra.

3. Eta Jaunak erran zioen: Arthik zazu lurrera. Arthiki zuen, eta suge bilhakatua izan zen, hala non Moisek ihesari eman baitzuen.

4. Eta Jaunak erran zioen: Heda zazu eskua, eta loth zakitzo buzta-netik. Hedatu zuen, eta atxiki, eta zigor bilhakatua izan zen.

5. Sinhets dezaten, zioen Jaunak, agertu zaitzula hekien arbasoen Jainko Jauna, Abrahamen Jainkoa, Isaaken Jainkoa, eta Jakobena Jainkoa.

6. Eta berriz Jaunak erran zioen: Ezar zazu zure eskua Golkhoan. Golkhoan sarthu ondoan, atheratu zuen legenez betherik, elhurrez bezala.

7. Berriz ere erran zioen: Itzul zazu zure eskua Golkhora. Bihurtu zuen eta bigarren aldian atheratu, eta gainerako haragiak bezala zen.



8. Ez bazaituzte sinhesten, zioen, eta ez badute entzuten lehenbiziko seinalearen solasa, sinhetsiko dute ondoko seinalearen hitza.

9. Baldin bi seinale horiei ez balute ere sinheste eman nahi, eta ez balezate entzun zure boza: har zazu ibaietik ura, eta ixur zazu leihorrera, eta ibaietik athera dukezun guzia, odol bilhakatu da.

10. Moisek erran zuen: Othoi, Jauna, ez atzotik, ez herenegundik ez naiz hizdun eder: eta zure zerbitzariari mintzatu zarenaz geroztik trabaugo eta uzkurrago dut mihia,

11. Jaunak erran zioen: Nork egin du gizonaren ahoa? edo nork egin ditu mutua eta gorra, argia eta itsua? Ez othe naiz ni hura?

12. Zoaz beraz, eta ni izanen naiz zure ahoan: nik irakhatsiko darotz zer erran behar dukezun.

13. Eta harek ihardetsi zuen: Othoi, Jauna, igor zazu igorri behar duzuna.

14. Moisen alderat samurturik, Jaunak erran zioen: Badakit zure anaia Aaron lebitarra hizdun eder dela: horra non bera atheratzen zaitzun bidera, eta zu ikhustearekin boztuko da bihotzez.

15. Mintza zakizko, eta ezar zatzu ene solasak haren ahoan: eta ni izanen naiz haren ahoan eta zurean, eta erakhutsiko darotzuet zer duzuen egiteko.

16. Zure orde hura mintzatu da populuari, eta zure ahoa izanen da: eta zu izanen zakizko hari Jainkoari dagokiote gauzetan.

17. Har ere zazu eskuan zigor hori, zeinetaz sendagailak eginen baitituzu.

18. Moise goan zen, eta itzuli bere aitagarreba Jethroren gana, eta erran zioen: Goanen naiz eta bihurtuko Egiptora ene anaietara, ikhustera hea bizi diren oraino. Jethrok ihardetsi zioen: Zoaz bakean.

19. Jaunak erran zioen beraz Moisi Madian-herrian: Zoaz, eta itzuli zaite Egiptora; ezen hilak dira zure biziaren ondoan zabilzan guziak.

20. Moisek beraz hartu zituen bere emaztea eta semeak, eta ezarri zituen asto baten gainean, eta bihurtu zen Egiptora, Jainkoaren zigorra eskuan.

21. Eta Egiptora bihurtzen zelarik, Jaunak erran zioen: Orhoit zaite Faraonen aitzinean egitera zure eskuan ezarri ditudan ikhustari guziak: gogortuko dut nik haren bihotza, eta populua ez du goatera utziko.

22. Eta erranen diozu: Hau dio Jaunak: Israel da ene seme zaharrena.

23. Nik hiri erran izan daroat: Utzak ene semea, zerbitza nezantzat; eta hik ez duk nahi izan utzi: huna nik non hilen dudan hire seme zaharrena.

24. Eta bidean zelarik, Jauna atheratu zitzaioen ostatu batera, eta semea hil nahi zioen.

25. Seforak hartu zuen berehala harri bat zorrotzenetarik, eta ingurubaki zuen bere semearen buztan-mokoa, eta ukitu zituen Moisen zangoak eta erran zioen: Odoletako senhar bat zaizkit.

26. Eta utzi izan zuen, erran ondoan: Odoletako senharra, ingurebakiaren ariaz.

27. Bada, Jaunak erran zioen Aaroni: Zoazi Moisen bidera mortura. Hau goan zen bidera Jainkoaren mendira, eta eman zioen musu.

28. Eta Moisek Aaroni khondatu ziozkan Jaunaren hitz guziak, zeinetaz igorri izan baitzuen, eta manatu ziozkien sendagailak.

29. Eta elkharrekin ethorri ziren, eta bildu zituzten Israelgo semeetako zaharrak.

30. Eta Aaronek erran ziozkiten Jaunak Moisi erran solas guziak: eta sendagailak egin zituen populua aitazinean,

31. Eta populua sinheste eman zuen. Eta ezagutu zuten Jauna ethorri izan zela Israelgo semeen ikhustera, eta begiratu zioela hekien atseka-beari: eta lurrera eroriirik adoratu zuten.

## V. KAP.

1. Gero Moise eta Aaron goan ziren Faraonen aitzinera, eta erran zioten: Hau dio Israelgo Jainko Jaunak: Utzak ene populua mortuan sakrifizio egitera.

2. Baina hunek ihardetsi zuen: Nor da Jauna, nik haren boza entzuteko, eta Israel uzteko? Ez dut Jaunik ezagutzen, eta ez dut Israel utziko.

3. Eta erran zioten: Hebrearren Jainkoak deithu gaitu, goan gaitezen hirur egunen bidean mortuan, eta sakrifika dezogun gure Jainko Jaunari: beldurrez izurriak edo ezpatak jazar dizaguten.

4. Egiptoko erregek erran zioten: Moise eta Aaron, zertako harrotzen duzue populua bere lanetarik? zoazte zuen egitekoetara.

5. Eta Faraonek erran zuen: Populu hori berhatua da: ikhusten duzue osteak goiti egin duela: zenbatez gehiago bere nekeetarik hatsarte ematen badiozute.

6. Egun hartan manu egin zioten beraz lanetako aitzindariei eta populua gainean zirenei, erraten zuelarik:

7. Ez duzue gehiago populuari aitzinean bezala lastorik emanen adrailuen egiteko: baina goan beitez berak lasto biltzera.

8. Eta emanen diozute egiteko aitzinean egiten zuten bezenbat adrailu, eta ez duzue batere gutituko: ezen alfer daude, eta horren gatik



oihuka hari dira, diotelarik: Goazen, eta sakrifizio egin diozogun gure Jainkoari.

9. Lanen-pean lehertuak izan beitez, eta xedatua bethe bezate, onhets ez detzaten gezurrezko solasak.

10. Ilkhi ziren beraz lanetako aitzindariak eta popularen gainekoak, eta erran zioten populuari: Hunela dio Faraonek: Ez darotzuet lastorik ematen.

11. Zoazte, eta bil zazue ahal duzuen tokian, eta zuen lanetik etzaitzue batere gutitua izanen.

12. Eta populua barraiatu zen Egiptoko lur guzian lastoketara.

13. Lanetako aitzindariak ere hertsatzen zituzten, ziotelarik: Akhaba zazue zuen eguneko lana, aitzinean egiten ohi zinduten bezala, lasto ematen zarotzuetenean.

14. Eta Faraonentzat popularen gainean zirenek azotatu zituzten Israelgo semeen lanetako aitzindariak, ziotelarik: Zertako ez atzo, ez egun ez duzue egin lehen bezenbat adrailu?

15. Eta ethorri ziren Israelgo semeen aitzindariak, eta Faraoni oihuz erratan zioten: Zertako hari zaizkote horrela zure zerbitzariet?

16. Lastorik ez darokute ematen, eta adrailuak orobat manatzen darozkigute: huna zure muthilak non garen azotatuak, eta bidegabeki erabilia da zure populua.

17. Hunek erran zioten: Alfer zaudete, eta horren gatik diozue: Goazen, eta sakrifizio egin diozogun Jaunari.

18. Zoazte beraz, eta egiozu lanari: lastorik etzaitzue emanen, eta bihurtuko duzue ohi bezenbat adrailu.

19. Eta Israelgo semeen aitzindariak ikhusten zuten gaizki zirela, errana zitzaioetenaz geroz: Etzaitzue egun bakhotxekotzat adrailuetarik batere gutitua izanen.

20. Eta Faraonen ganik atheratzen zirelarik, buruz-buru egin zituzten Moise eta Aaron, bertze aldetik, hekien begira zaudenak:

21. Eta erran zioten: Jaunak ikhus eta erabak beza, zeren usain txarretan ezarri baikaituzue Faraonen aitzinean gu eta haren zerbitzariak, eta ezpata eskura eman diozuelakotz gure biltzeko.

22. Eta Moise itzuli zen Jaunaren alderat, eta erran zuen: Jauna, zeta-ko atsekabeztatu duzu populu hau? zertara igorri nauzu ni?

23. Ezen Faraonen aitzinera agertu naizenaz geroztik, zure izenean mintzatzera, atsekabe eman dio zure populuari: eta zuk ez dituzu atheratu.

## VI. KAP.

1. Eta Jaunak erran zioen Moisi: Orai ikhusiko duzu zer egitera nohan Faraoni: ezen esku hazkarrak utzaraziko dioizki, eta bere lurretik esku indardunera emanen ditu.

2. Eta Jauna Moisi mintzatu zitzaioen, zioelarik: Ni naiz Jauna,

3. Abrahami, Isaaki eta Jakobi agertu natzaiotena, Jainko guziz-ahaldua bezala: eta Adonai ene izena ez diotet ezagutarazi.

4. Eta hekiekin batasun egin izan dut, hekiei ematekotzat Kanaango lurra, beren erromeriako lurra, zeinetan arrotz bezala egon izan baitira.

5. Entzun dut nik Israelgo semeen auhena, zeinetaz hestutu baituzte Egiptoarrek: eta orhoitu naiz ene patuaz.

6. Aria hortaz errozute Israelgo semeei: Ni naiz Jauna, Egiptoarren presondegitik atheratuko, eta gathibutasunari itzuriko zaituztedana, eta ene besoaren hazkarrak eta erabakien handiaz berrerosiren zaituztedana.

7. Eta hartuko zaituztet ene populutzat, eta izanen naiz zuen Jainkoa: eta jakinen duzue ni naizela zuen Jainko Jauna Egiptoarren presondegitik athera zaituztedana,

8. Eta sarthuko zaituztet lur hartan, zeinaren gainean besoa altxatu baitut haren emateko Abrahami, Isaaki eta Jakobi, eta hura emanen darotzuet goratzera, nik Jaunak.

9. Moisek beraz guziak khondatu ziozkaten Israelgo semeei: haukiek etzuten onhetsi, beren gogoko hesturaren eta hunen gogorraren ariaz.

10. Eta Jauna mintzatu zitzaioen Moisi, zioelarik:

11. Ager zaite eta mintza Faraon Egiptoko erregeri, bere lurretik utz ditzan Israelgo semeak.

12. Moisek ihardetsi zuen Jaunaren aitzinean: Huna non Israelgo semeek ez nauten entzuten: eta nola entzunen nau. Faraonek, ni guziz ezpainak ebaki gabeak ditudana?

13. Eta Jauna mintzatu zitzaioen Moisi eta Aaroni, eta manu egin zioten goan zitezen Israelgo semeen gana, eta Faraon Egiptoko erregeren gana, Israelgo semeak ilkhiazteko Egiptoko lurretik.

14. Haukiek dira etxetako buruzagiak, familiaka: Israelen seme zaharren Errubenen semeak: Henok eta Phalu, Helion eta Karmi: Horra Errubenenganikako adarrak.

15. Simeonen semeak: Jamuel, eta Jamin, eta Ahod, eta Jakin, eta Sohar, eta Saul, kananear emazte baten semea: horra Simeonen umeak.

16. Eta haukiek dira Lebiren semeen izenak eta ondoregoen buruak: Jerson, eta Kaath eta Merari. Bada Lebiren biziko urtheak izan ziren seietan hogoi eta hamazazpi.



17. Jersonen semeak: Lobni eta Semei ondorego buruak.

18. Kaathen semeak: Amram eta Isaar, eta Hebron eta Oziel. Kaathen biziko urtheak ere izan ziren seietan hogoi eta hamar.

19. Merarien semeak: Moholi eta Musi: horiek dira Le birenganikako ethorkiak familiaka.

20. Bada Amramek emaztetzat hartu zuen Jokabed, bere kusi lehena, zeinak eman baitzizkan Aaron eta Moise. Amramen biziko urtheak izan ziren seietan hogoi eta hamazazpi.

21. Isaarren semeak ere: Kore, eta Nepheg, eta Zekri.

22. Ozielen semeak ere: Misael, eta Elisaphan eta Sethri.

23. Bada, Aaronek emaztetzat hartu zuen Elizabeth Aminadaben alaba, Nahasonen arreba, zeinak eman baitzizkan Nadab, eta Abiu, eta Eleazar, eta Ithamar.

24. Koeeen semeak ere: Aser eta Elkana, eta Abiafaph: horra Koretarren iraulgiak.

25. Bada, Eleazar, Aaronen semeak emaztetzat hartu zuen Phutielen alabetarik: zeinak eman baitzioen Phinees; horra Lebitarren familietako buruzagiak beren iraulgien arabera.

26. Aaron eta Moise dira Jaunak manatu zituenak, Egiptoko lurretik eramateko Israelgo semeak zein bere andanetan.

27. Honek dira Egiptoko errege Faraoni mintzatzen direnak, Israelgo semeak Egiptotik eramateko, Moise eta Aaron dira,

28. Jauna Moisi mintzatu zen egunean, Egiptoko lurtean.

29. Eta Moisi mintzatu zen Jauna, zioelarik: Nik Jaunak: erroztzu Faraoni nik zuri erraten darozkitzudan guziak.

30. Eta Moisek erran zuen Jaunaren aitzinean: Huna non naizen ezpain ebakigabe bat, nola entzunen nau Faraonek?

## VII. KAP.

1. Eta Jaunak erran zioen Moisi: Huna non ezarri zaitudan Faraonen Jainko: eta zure anaia Aaron izanen da zure profeta.

2. Zuk hari erranen diozkatzu nik zuri manatu guziak: eta hura mintzatu da Faraoni, utz ditzan bere lurretik Israelgo semeak.

3. Bainan nik gogortuko dut haren bihotza, eta bat-bertzearen gainzka eginen ditut ene sendagailak eta ikhuskariak Egiptoko lurtean.

4. Eta Faraonek etzaitzute entzunen: eta hedatuko dut ene besoa Egiptoaren gainera, eta atheratuko ditut Egiptoko lurretik erabaki gogorenez ene armada eta populua, Israelgo semeak.

5. Eta Egiptoarrek jakinen dute ni naizela Jauna, ene eskua hedatu dudana Egiptoaren gainera, eta hekien erditik Israelgo semeak atheratu ditudana.

6. Moisek beraz eta Aaronek nola manatu baitzuen Jauna, hala egin zuten.

7. Bada Moisek lau hogoi urthe zituen eta Aaronek lau hogoi eta hirur Faraoni mintzatu zirenean.

8. Eta Jaunak erran zioten Moisi eta Aaroni:

9. Faraonek erranen darotzuetenean: Erakhuts diaztatzue seinaleak, zuk, Moise, errozu Aaroni: Har zazu zure zigorra, eta arthikazu Faraonen aitzinean, eta zigorra suge bilhakatuko da.

10. Moise eta Aaron goan ziren beraz Faraonen aitzinera, eta egin zuten Jaunak manatu izan zioten bezala; eta Aaronek hartu zuen zigorra Faraonen eta haren zerbitzarien aitzinean, eta suge bilhakatu zen.

11. Bainan Faraonek deithu zituen bere jakinak eta sorginkeria egileek: eta haukiek ere orobat egin zuten Egiptoko sorginkeria eta jakitate ixilen bidez.

12. Arthiki zituzten beren zigorrak, zeinak suge bilhakatu baitziren: bainan Aaronen zigorrak hekienak iretsi zituen.

13. Eta Faraonen bihotza gogortu zen, eta etzituen entzun, Jaunak manatu izan zuen bezala.

14. Bada, Jaunak erran zioen Moisi: Dorphetua da Faraonen bihotza, ez du populua goatera utzi nahi.

15. Zoazi goizetik haren gana: hara non atherako den urera: eta egonen zare haren bidean hibaia bazterrean: eta eskuan har zazu suge bilhakatu izan den zigorra.

16. Eta erranen diozu Faraoni: Hebrearren Jainko Jaunak igorri nau zu gana, dioelarik: Utzak ene populua, mortuan niri sakrifizio egitera; eta orai arteo ez duk nahi izan entzun.

17. Hau dio beraz Jaunak: Huntarik jakinen duk Jauna naizela: huna non joko dudan eskuan dudan zigorrak hibaieko ura, eta odoletara bihurturen da.

18. Eta hibaiean diren arrainak ere hilen dira eta urak ustelduko, eta hibaieko uretik edanen duten Egiptoarrak erituko dira.

19. Jaunak erran ere zioen Moisi: Errozu Aaroni: Har zazu zure zigorra, eta heda zazu zure eskua Egiptoko uren gainera, eta hekien hibai, lats, aintzira eta ur-mael guzien gainera, odoletara bihur ditezen: eta odola izan bedi Egiptoko lur guzian, hala zurezko untzietan nola harrizkoetan.



20. Eta Moisek eta Aaronek egin zuten Jaunak manatu bezala: eta zigorra goititurik, Aaronek Faraonen eta haren zerbitzarien aitzinean jo zuen hibaieko ura, zeina odol bilhakatu baitzen.

21. Eta hibaiean ziren arrainak hil izan ziren: eta hibaia usteldu zen; eta Egiptoarrek ezin edan zezaketen hibaieko uretik, eta odola zen Egiptoko lur guzian.

22. Egiptoko sorginkeria egileek orobat egin zuten beren gaizkinke-riez eta Faraonen bihotza gogortu zen, eta etzituen entzun Jaunak mana-tu izan zuen bezala.

23. Eta urrundu zen, eta sarthu bere etxera, eta aldi hartan ere etzio-  
en bere bihotzari amorrik eragin.

24. Bada, Egiptoar guziek zilhoak egin zituzten hibai inguruetan ura-  
ren edateko; ezen etzezaketen edan hibaieko uretik.

25. Eta zazpi egun bethe ziten, Jaunak hibaia joz geroztik.

### VIII. KAP.

1. Jaunak erran zioen berriz Moisi: Sar zaite Faraonen gana, eta erro-  
zu: Hau dio Jaunak. Utzak ene populua goatera, niri sakrifizio bat egin  
dezadan.

2. Baina ez badituk utzi nahi, hire eremu guziak betheko ditiat ige-  
lez.

3. Eta hibaia igelez irakituko da: eta igelak goiti atheratuko dira, sart-  
huko dira hire etxean, eta hire etzateko gelan, eta hire ohean, eta hire zer-  
bitzarien etxeetan, eta hire populuaren baithan, eta hire labeetan, eta hire  
jatekoen ondarretan:

4. Eta igelak sarthuko dira hire gana eta hire populuaren gana, eta  
hire zerbitzarien gana.

5. Eta Jaunak Moisi erran zioen: Errozu Aaroni: Heda zazu zure  
eskua hibaiera eta latsetara eta aintziretara, eta ilkhi zatzu igelak Egiptoko  
lurraren gainera.

6. Eta Aaronek eskua hedatu zuen Egiptoko uren gainera, eta igelak  
igan ziren eta Egiptoko lurra estali zuten.

7. Eta sorginkeria egileek orobat egin zuten beren gaizkinke-riez, eta  
igelak iganarazi zituzten Egiptoko lurraren gainera.

8. Bada Faraonek deithu zituen Moise eta Aaron, eta erran zioten:  
Othoitz zazue Jauna igelak khi detzan ni ganik eta ene populua ganik:  
eta populua utziko dut Jaunari sakrifizio egitera.

9. Eta Moisek ihardetsi zioen Faraoni: Berez dizadazu eguna zeine-  
tan othoitz eginen baitut zuretzat, eta zure zerbitzari eta zure populua-

rentzat, igelak urrun ditin zutarik, eta zure etxetik, eta zure zerbitzarieta-  
rik eta zure populutik: eta hibaiean baizik ez ditezen geldi.

10. Hunek ihardetsi zuen: Bihar. Eta Moisek erran zioen: Zuk galda-  
tua eginen dut, jakin dezazun ez dela gure Jainko Jauna bezalakorik.

11. Eta igelek gibel eginen dute zu ganik, eta zure etxetik, eta zure  
zerbitzarien eta zure populuaren ganik: eta baxharrik geldituko dira  
hibaiean.

12. Beraz Moise eta Aaron ilkhi ziren Faraonen ganik: eta Jaunari  
oihu egin zuen Moisek Faraoni igelen gainean egin zioen agintza gatik.

13. Eta Jaunak egin izan zuen Moisen hitzaren arabera: eta etxeetako,  
hiritako eta bazterretako igelak hil izan ziren.

14. Eta bildu zituzten ikharagarriko metetan, eta lurra usteldu zen.

15. Baina Faraonek ikhususirik gogoa emana zitzaioela, dorphetu  
zuen bere bihotza, eta Moise eta Aaron etzituen entzun, Jaunak manatu  
zuen bezala.

16. Eta Moisi erran zioen Jaunak: Errozu Aaroni: Heda zazu zure  
zigorra eta jo zazu lurreko herrautsa: eta ulitxaz bethe bedi Egiptoko lurra  
oro.

17. Eta hala egin zuten. Eta Aaronek hedatu zuen eskua, zigorra  
zadukalarik: eta jo zuen lurreko herrautsa, eta ulitxak jarri ziren gizonetan  
eta aziendetan: lurreko herrauts guzia ulitxa bilhakatu zen Egiptoko lur  
guzian.

18. Eta sorginkeria egileak orobat abiatu ziren ulitxak atherarazi  
beharrez, eta ezin egin izan zuten: eta ulitxak lothuak ziren hala gizone-  
tan nola aziendetan.

19. Eta sorginkeria egileek erran zioten Faraoni: Jainkoaren erhia  
hemen da: baina Faraonen bihotza gogortu zen, eta Jaunak manatua zen  
bezala etzituen entzun.

20. Jaunak berriz erran zioen Moisi: Jaiki zaite argi-zirrintatik, eta  
zaudezi Faraonen bidean: ezen urera ilkhiko da, eta errozu: Hau dio  
Jaunak: Populua utzak niri sakrifizio baten egitera.

21. Baldinetaria uzten ez baduk, huna non igorriko dudan hitara, eta  
hire zerbitzari, eta hire populu, eta hire etxeetara zer-nahi uli: eta uli mota  
guziez betheko dira Egiptoarren etxeak, eta hekiek izanen diren lurra oro.

22. Eta egun hartan miresteko gauza eginen diat Jefengo lurrean, zei-  
netan baita ene populua, han ulirik izanen ez baita: eta jakin dezakan ni  
naizela Jauna lurraren erdian.

23. Eta zedarri bat ezarriko diat ene populuaren eta hire populuaren  
artean: bihar izanen da sendagaila hori.





24. Eta Jaunak hala egin zuen. Eta uliketa gaixtoena ethorri zen Faraonen eta haren zerbitzarien etxeetara, eta Egiptoko lur guzira: eta uli molde hortaz lurra usteldua izan zen.

25. Eta Faraonek deithu zituen Moise eta Aaron, eta erran zioten: Zoazte eta zuen Jainkoari sakrifika zazue lur huntan.

26. Eta Moisek ihardetsi zioen: Ez daite hola egin: ezen Egiptoarrentzat izigarri dira guk imolatzen ditugunak; Egiptoarrek adoratzten dituztenak hiltzen baditugu begien aitzinean, harrika phorrokatu-ren gaituzte.

27. Hirur egunen bidean sarthuko gare mortuan: eta sakrifikatuko diogu gure Jainko Jaunari, manatu darokun bezala.

28. Eta Faraonek erran zuen: Utziko zaituztet zuen Jainko Jaunari mortuan sakrifikatza: ez ordean goan urrunago, othoitz egizue enetzat.

29. Eta Moisek ihardetsi zioen: Zure ganik ilkhi-eta, othoitz eginen diot Jaunari: eta bihar uliak gibel eginen du Faraonen ganik, eta haren zerbitzarietarik, eta haren populutik: baina ez engana gehiago, populua ez uzteko Jaunari sakrifikatza.

30. Eta Faraonen ganik ilkhirik; Moisek othoitz egin zioen Jaunari.

31. Jaunak onhetsi zuen haren hitza, eta uliak khendu zituen Faraonen ganik, eta haren zerbitzarietarik, eta haren populutik: bat bakharra ere etzen gelditu.

32. Baina Faraonek dorphetu zuen bere bihotza, hala non aldi har-tan ere ez baitzuen utzi populua.

## IX. KAP.

1. Bada Jaunak Moisi erran zioen: Ager zaite Faraonen aitzinera, eta errozu: Hau dio Hebrearren Jainko Jaunak: Utzak populua sakrifikatza niri.

2. Baldinetaria oraino ukhora egiten baduk eta atxikitzen badituk,

3. Huna non ene eskua izanen den hire landen gainean: eta izurrite latz bat hire zaldi, eta asto, eta kamelu, eta idi eta ardien gainean.

4. Eta miresgarri dena eginen du Jaunak Israelen izantzen eta Egiptoarren izantzen artean, Israelen semeenak direnetarik ez baita deusere galduko.

5. Eta Jaunak ordua berezi du, diolarik: Jaunak bihar obratuko du hitz hori lurraren gainean.

6. Jaunak beraz hitz hori obratu zuen bihamunean: eta Egiptoarren abere guziak hil ziren; eta bat bakharra ere ez Israelgo semeen aberetarik.

7. Eta Faraonek igorri izan zuen ikhustera: baina Israelenak zirenetarik etzen batere hilik. Eta dorphetu zen Faraonen bihotza eta etzuen utzi populua goatera.

8. Eta Jaunak erran zioten Moisi eta Aaroni: Eskuak bethe zatzue sute-giko hautsetik, eta Moisek hura arthik beza zerura Faraonen aitzinean.

9. Eta herrautsa hel bedi Egiptoko lur guzira: ezen zauriak eta trunpilo hantzen direnak eginen dira gizonetan eta aziendetan Egiptoko lur guzian.

10. Eta hartu zuten sute-giko hautsetik, eta eman ziren Faraonen aitzinean, eta Moisek hautsa arthiki zuen zerura: eta zauriak eta trunpilo hantzen zirenak egin ziren gizonetan eta aziendetan.

11. Eta sorginkeria egileak ezin agertu ziren Moisen aitzinera hekie-tan ziren zauriak gatik, eta Egiptoko lur guzian.

12. Eta Jaunak gogortu zuen Faraonen bihotza, eta hunek etzituen entzun, Jaunak Moisi erran izan zioen bezala.

13. Eta Jaunak erran zioen Moisi: Goizik jaiki zaite, eta Faraonen aitzinean eman, eta erranen diozu: Han dio Hebrearren Jainko Jaunak: Utzak ene populua niri sakrifikatza.

14. Ezen aldi huntan ene zauriak oro igorriren ditut hire bihotzaren gainera, eta hire zerbitzari, eta hire populua gainera: jakin dezakan ene idurikorik ez dela lur guzian.

15. Ezen orai eskua hedatzen dudalarik, izurritz joko haut hi eta hire populua ere, eta lurretik ezeztaturen haiz.

16. Zeren-eta hi ezarri izan baihaut, ene indarra ager dadientzat hire gainean, eta ene izena lur guzian apha dadientzat.

17. Idukitzen duk oraino ene populua, eta ez duk utzi nahi goatera?

18. Huna non bihar, oren huntan berean erorraziko dudan harriabar bat gaitza, nolakorik Egiptoan izan ez baita, Egiptoa Egipto denetik egungo eguna artean.

19. Igor zak beraz orai berean hire azienden eta kanpoan ditukan guzien biltza: ezen gizon eta azienda, eta kanpoan atzemanak izanen diren guziak, landetarik bildu-gabe, harria eroriko zaiote gainera, eta hilen dira.

20. Faraonen zerbitzarietarik Jaunaren hitzaren beldur izan zenak etxeetara ihes eginarazi zioten bere sehi eta aziendei:

21. Baina Jaunaren hitzaz ardurarik egin etzuenak, utzi zituen bere sehiak eta aziendak bazterretan.



22. Eta Jaunak Moisi erran zioen: Heda zazu eskua zerura, Egipto guzian harria eror dadien gizonen gainera, eta azienden gainera, eta Egiptoko lurrean den bazterretako belhar guziaren gainera.

23. Eta Moisek hedatu zuen zigorra zerura, eta Jaunak igorri zituen ihurtzuriak, harria eta ximistak lurraren buru batetik bertzera jotzen zutenak: eta Jaunak harri-abarra erorrarazi zuen Egiptoko lurraren gainera.

24. Eta harria eta sua nahasteka bardin ekharriak ziren: eta halako handitasunekoa izan zen, non hura bezalakorik ez baitzen Egiptoko lur guzian agertu jendaki hura han jarria zenaz geroztik.

25. Eta harriak jo zituen Egiptoko lur guzian kanpoetan ziren guziak, gizonetarik aziendetaraino: eta harriak jo zuen bazterretako belhar guzia, eta xehakatu zuen tokiko zuhamu guzia.

26. Bakharrik Jefengo lurrean, non baitziren Israelgo semeak, harri-rik etzen erori.

27. Eta Faraonek igorri zuen, eta deithu zituen Moise eta Aaron, erraten ziotelarik: Oraikoan ere egin dut bekhatu: Jauna zuzena da: ni eta ene populua gare gaixtaginak.

28. Othoitz egiozue Jaunari bara ditezen Jainkoaren ihurtzuriak eta harria: zuek utz zetzatedantzat goatera, eta hemen gehiago egon etzaizte-zentzat.

29. Moisek ihardetsi zioen: Hiritik ilkhiko naizenean, hedatuko ditut eskuak Jaunaren gana, eta geldituko dira ihurtzuriak, eta harririk ez da izanen, jakin dezazuntzat lurra Jaunarena dela.

30. Badakit, bada, zu eta zure zerbitzariak etzaretera oraino Jainko Jaunaren beldur.

31. Bada, lihoa eta garagarra dainatuak izan ziren, zeren garagarra ferdutzen hari baitzen eta lihoa hostatzen.

32. Baina ogia eta bertze bihiak etziren galdu, berankorrangoak zire-lakotz.

33. Atheraturik Faraon baitharik eta hiritik, Moisek hedatu zuen eskua Jauna gana: eta gelditu ziren ihurtzuriak eta harria, eta etzuen gehi-go uririk egin lurraren gainera.

34. Baina Faraonek ikhustearekin uria, harria eta ihurtzuriak baratu zirela, berhatu zuen bere bekhatua:

35. Eta dorphetu zen haren bihotza eta haren zerbitzariena ere bai, eta hainitz gogortu: eta etzitzen Israelgo semeak utzi, Jaunak Moisen arartekoz manatu zuen bezala.

## X. KAP.

1. Eta Jaunak erran zioen Moisi: Ager zaite Faraonen aitzinera: nik ezen gogortu dut haren bihotza eta haren zerbitzariena: ene sendagaila haukiek haren gainean egiteko ariaz,

2. Eta khondatuko diozkatzute zure semeari eta zure ilbasoei zenbat aldiz zafratu ditudan Egiptoarrak, eta ene sendagailak egin hekien gainean; eta jakin dezazuentzat ni naizela Jauna.

3. Moise eta Aaron sarthu ziren beraz Faraonen aitzinera, eta erran zioten: Hau dio Hebrearren Jainko Jaunak: Noiz arteo ez darotak amor eman nahiko? utzak goatera ene populua niri sakrifizio baten egitera.

4. Baina gogor egiten baduk, eta hura ez baduk utzi nahi, huna non bihar xartala sarraraziko dudan hire eremuetan.

5. Estaliko du lurraren gaina, deusik ageriko ez den bezala, eta harriak utziak janen ditu: ezen iretsiko ditu bazterretan heldu diren zuhamu guziak.

6. Eta betheko dituzte hire etxeak, eta hire zerbitzariena, eta Egiptoar guziena: hire aitek, ez arbasoak halakorik ez baitute ikhusi lurrera sorthuz geroztik egungo eguna arteo. Eta itzuli zen, eta goan Faraonen ganik.

7. Bada, Faraonen zerbitzariak erran zioten erregeri: Noiz arteo jasanen dugu gaizbide hau? utzkitzu gizon horiek beren Jainko Jaunari sakrifikatza: ez duzu ikhusten Egiptoaxahutzen hari dela?

8. Eta berriz deithu zituzten Moise eta Aaron Faraonen gana, zeinak erran baitzioten: Zoazte, sakrifika zazue zuen Jainko Jaunari: nor dira goatekoak?

9. Moisek erran zuen: Goanen gare gure hurrekin eta gizon-zaharrek, semeekin eta alabekin, ardiekin eta idiekin: ezen gure Jainko Jaunaren besta-burua da.

10. Eta Faraonek ihardetsi zuen: Holetan Jauna zuekin izan bedi; zer nik zuek eta zuen haurrak utziko zaituztedala! Nori zaio dudako zimarku tzarrena derabilkazuela gogoan?

11. Ez da horrelakorik izanen, baina zoazte gizonak bakharrik, eta sakrifika zazue Jaunari: ezen hori da zuek galdegiten duzuen. Eta ordu berean iratzia izan ziren Faraonen aitzinetik.

12. Baina Jaunak erran zioen Moisi: Heda zazu zure eskua xartala deitzeko, gainera igan dadien, eta iretsi dezan harriak utzi duen belhar guzia.



13. Eta Moisek zigorra hedatu zuen Egiptoko lurraren gainera, eta Jaunak igorri zuen egun hartan guzian eta ondoko gauean haize bat erretzen zuena: eta goiza ethorri zenean, haize beroak ekharri zituen xartalak,

14. Zeinak igan baitziren Egiptoko lur guzira: eta jarri ziren Egiptoko bazter orotan hanbateko metetan, non halakorik ez baitzen egundaino izatu, eta geroan ere ez baita izanen.

15. Eta estali zuten lurraren azal guzia, oro xahutzen zituztelarik. Belhar guzia iretsia izan zen beraz, eta harriak utzi zituen zuhaitzetako fruitu guziak ere: eta deusere berderik etzen gelditu lurreko zuhaitz eta belharretan, Egipto guzian.

16. Horren gatik berehala Faraonek deithu zituen Moise eta Aaron, eta erran zioten: Bekhatu egin dut zuen Jainko Jaunaren alderat eta zuen alderat.

17. Bainan aldi huntan ere barkha dizadazue ene bekhatua, eta othoitz egiozue zuen Jainko Jaunari, izurri hori urrun dezan ni ganik.

18. Moisek beraz, Faraonen aitzinetik ilkhirik, othoitz egin zioen Jaunari.

19. Jaunak mendebaletik igorri zuen haize bat hazkarrenetarik, zeinak hartu baitzituen xartalak eta itsaso Gorrira arthiki: eta hekietarik bakar bat ere etzen gelditu Egiptoko bazter orotan.

20. Eta Jaunak gogortu zuen Faraonen bihotza, eta erregek etzituen utzi Israelgo semeak.

21. Bainan Jaunak erran zioen Moisi: heda zazu eskua zerura: eta ilhunbeak egin beitez Egiptoko lurreen hain lodiak non eskuz uki izan ahal baitekez.

22. Eta Moisek hedatu zuen eskua zerura: eta ilhunbe izigarriak egin ziren hirur egunez Egiptoko lur guzian.

23. Eta nihork etzuen ikhusi bere anaia, eta nihor etzen higitu zagoen tokitik: bainan argi zen Israelgo semeek egoitza egiten zuten lekhuetan.

24. Eta Faraonek deithu zituen Moise eta Aaron, eta erran zioten: Zoazte, sakrifika zazue Jaunari: baxharrik zuen ardiak eta idiak geldi beitez; zuen haurrak ere goan beitez zuekin.

25. Moisek ihardetsi zuen: Emanen darozkigutzu bitimak eta holo-kaustak, gure Jainko Jaunari eskaintzeko.

26. Gure arthalde guziak ethorriko dira gurekin: hekietarik ez da aztaparreko behatz bat ere geldituko; premia dira gure Jainko Jaunari bihurtzen zaizkon ohoretako: bereziki ez dakigunean zer den behar imolatu, lekhuera berera hel gaitezen artean.

27. Bada Jaunak gogortu zuen Faraonen bihotza, eta goatera etzituen utzi nahi izan.

28. Eta Faraonek erran zioen Moisi: Habil ene ganik, eta begira hadi gehiago agertzetik ene begien aitzinera: ezen agertuko haizen egunean, hilen haiz.

29. Moisek ihardetsi zuen: Biz erran duzun bezala, ez dut gehiago zure begithartea ikhusiko.

## XI. KAP.

1. Eta Jaunak erran zioen Moisi: Izurri batez oraino joko ditut Faraon eta Egipto, eta gero utziko zaituzte, eta goatera hertsatuko.

2. Errozu beraz populu guziari, gizonak galda diotzola bere adiskideari, eta emaztekiak bere hauzoari, urhezko eta zilharrezko untiak.

3. Bada Jaunak grazia emanen dio bere populuari Egiptoarren aitzinean. Eta Moise hainitz gizon handia izan zen Egiptoko lurreen, Faraonen zerbitzarien aitzinean eta populu guziaren aitzinean.

4. Eta erran zuen: Hau dio Jaunak: Gauaren erdian sarthuko naiz Egiptoan:

5. Eta Egiptoarren lurreen hilen da lehen-sorthu guzia, Faraonen seme zaharren, haren tronuaren gainean jartzen denetik hasirik, ihara harriaren itzultzen hari den neskatoaren seme zaharrenean, eta abereetako ume lehen-sorthu guziak.

6. Eta deihadar handi bat jauziko da Egiptoko lur guzian, halakorik aitzinean ez baita izan, eta geroan ere ez izanen.

7. Bainan Israelgo semeen baithan gizonetik azindaraino, xakhur batek ere ez du intzirina bat eginen, jakin dezazuentzat nolako mirakuluz Jaunak berezten duen Israel Egiptoarretarik.

8. Eta zure zerbitzari horiek oro jautsiko dira ni gana, eta adoratu nauten, diotelarik: Ilkhi zaite zu eta zure azpiko den populu guzia; eta gero ilkhiko gare.

9. Eta Moise athera zen Faraonen ganik hasarre handitan. Bada Jaunak erran zioen Moisi: Faraonek etzaitzute entzunen, sendagaila hainitz egin ditezen Egiptoko lurreen.

10. Bada Moisek eta Aaronek egin zituzten iskribatuak diren ikhuskari guziak, Faraonen aitzinean. Bainan Jaunak gogortu zuen Faraonen bihotza, eta bere lurretik etzituen utzi Israelgo semeak.

## XII. KAP.

1. Jaunak erran zioten berriz Moisi eta Aaroni Egiptoko lurreen:



2. Hilabethe hau izanen da zuentzat hilabetheen hastera, eta urtheko hilabetheetan lehenbizikoa.
3. Mintza zaizte Israelgo semeen bilkhu guziari, eta errozuete: Hilabethe huntako hamargarren egunean norkberak har beza bildots bat familia eta etxe arauka.
4. Bainan hain guti badira etxe batean, non ez baitirateke aski bildotsaren jateko, etxearen aldeko hauzoa deith bezate, bildotsaren jateko aski ditakeen moltxoaren arabera.
5. Bada, bildotsa izanen da nothagabea, orotsa, eta urthekoa: molde berean hartuko duzue pittika bat.
6. Eta begiratuko duzue hilabethe huntako hamalagarren eguna arteo: eta Israelgo semeen oste guziak hura hilen du arratsean.
7. Eta hartuko dute haren odoletik, eta ezarriko dute jaten duten etxeetako bi athe-habeetan eta athaburuetan.
8. Eta janen dituzte haragiak suan errerik, eta ogi airisak letxura basekin.
9. Eta hartarik ez duzue deusere janen gordinik, ez-etare urean ego-sirik, bainan bakharririk suan errerik: janen duzue burua bere zango eta sabelekin.
10. Eta hartarik ez da batere geldituko biharamuneko; ondarririk balin bada suan erreko duzue.
11. Huna nola janen duzuen hura: Zuen gerriak tinkatuko dituzue, eta oinetakoak jauntziak izanen dituzue, makhilak eskuetan dituzuelarik, eta herresakan janen duzue, ezen Jaunaren Bazkoa da, erran nahi da, iragaitza.
12. Eta gau hartan iraganen naiz Egiptoko lurra gaindi, eta joko dut Egiptoko lurtean lehen-sorthu guzia gizonetik aziendaraino: eta ene erabakiak emanen ditut Egiptoko jainko guzien gainean, nik Jaunak.
13. Eta odola izanen da seinalea zein etxetan izanen zareten: eta ikhusiko dut odola, eta iraganen zaituztet, eta izurria ez da zuen xahutzera ethorriko, joko dudanean Egiptoko lurra.
14. Egun hura ordean idukiko duzue orhoitpenetan: eta hura bestaburu atherako diozue Jaunari, bestatuz bethi eta bethi giza-mende guzietan.
15. Zazpi egunez janen duzue ogi airisa: eta lehen egunetik ez da altxagarririk izanen zuen etxeetan: edozeinek, lehenbiziko egunetik zazpiarren eguneraino, jaten badu ogi altxatua, haina galduko da Israeldik.
16. Lehenbiziko eguna izanen da saindu eta besta-buru, eta zazpigarrena besta beraz ohoratzekoa: egun hekietan ez duzue eginen deusere lanik, janari dagokionaz landan.

17. Eta begiratuko duzue ogi airisen besta: ezen egun hartan berean eramanen dut zuen armada Egiptoko lurtekin, eta egun hura begiratuko duzue, bethi eta bethi bestatuz zuen giza-mendeetan.

18. Lehenbiziko hilabethean, hilabetheko hamalagarren egunean ilhuntean, abiatuko zarete ogi airisaren jaten, hilabethe bereko hogoi eta batgarren eguneko ilhuntea arteo.

19. Zazpi egunez ez da altxagarririk aurkituko zuen etxeetan: ogi altxatua janen duena, haina galduko da Israelgo bilkhutik, izan dadien, nahiz arrotzetarik, nahiz tokiko jendeetarik.

20. Ez duzue deusere janen altxaturik: zuen egoitza guzietan airisa janen duzue.

21. Bada Moisek deithu zituen Israelgo semeetako zahar guziak, eta erran zioeten: Zoazte bildots baten hartzera zuen familia bakhotxeko, eta Bazkoa imola zazue.

22. Hisopo ahurtara bat athelaseko odolean gorri zazue, eta hartaz busti athaburua eta bi habeak: zuetarik nihor ez bedi ilkhi athetik kanpora goiza arteo.

23. Ezen iraganen da Jauna Egiptoarrak jotzen dituela: eta ikhusiko duenean odola athaburuetan, eta bi athe-habeetan, etxe-sartzea iraganen du, eta joilea ez du utziko sartzera zuen etxeetara eta zuei bidegabe egitera.

24. Hitz hau begira zazu zuretzat eta zure semeentzat lege zuzen bat bezala bethi eta bethiraino.

25. Eta Jaunak agindu bezala emanen darotzuen lurtean sartuak zareztekeenean, begiratuko dituzue zeremonia horiek.

26. Eta erranen darotzuetenean zuen hurrek: Zer da zeremonia hori?

27. Ihardetsiko diozue: Hori da Jaunaren iragaitzako bitima, iragan zenean Israelgo semeen etxeen gainetik Egipton, Egiptoarrak jotzen zituelarik, eta gure etxeak libratzen. Orduan populua gurthurik adoran jarri zen.

28. Israelgo semeak goan ziren eta egin zuten Jaunak Moisi eta Aaroni manatu zioeten bezala.

29. Bada, gerthatu zen gauaren erdian, Jaunak jo zituela lehen-sortuak oro Egiptoko lurtean, hasirik Faraonen seme zaharren, haren tro-nuan jartzen zenetik, preso zagoen emazteki gathibuaren seme zaharrenean, eta aziendetako ume lehen-sorthu guziak.

30. Eta Faraon gauaren erdian jaiki zen, eta haren zerbitzariak ere, eta Egipto guzia: eta marraska handi bat jauzi zen Egiptoan: ezen etzen etxerik zeinetan hil bat etzana etzagoenik.



31. Eta Faraonek gauaz deithurik Moise eta Aaron, erran zioeten: Jaiki zaizte eta ilkhi ene populuaren artetik, zuek eta Israelgo semeak: zoazte, eta Jaunari imola zozue zuen erranaren arabera.

32. Har zatzue zuen ardiak eta abereak galdatu duzuen bezala, eta goatean benedika nezazue.

33. Eta Egiptoarrek populua hertsatzen zuten beren lurretik laster atheratzera, zioetelarik: Guziak hilen gare.

34. Populuak hartu zuen beraz irin bustia altxatu-gabean: eta kapetan lothurik, bizkarrera eman zuen.

35. Eta Israelgo semeek egin zuten Moisek manatu bezala, eta Egiptoarrei galdegin ziotzaten urhezko eta zilharrezko untziak, eta soineko hainitz.

36. Bada, Jaunak populuari grazia eman zioen Egiptoarren aitzinean maileguz eman zezatentzat hari: eta biluzi zituzten Egiptoarrak.

37. Eta Israelgo semeak Erramesetik abiatu ziren Sokothera, sei ehun mila gizon oinezkoren ingurua, haurrak khondatu gabe.

38. Eta ezin-khondatuzko nahas-mahaseko jende oste bat igan zen hekiekin, ardiak eta idiak eta askoazienda motetako meta bat gaitza.

39. Eta erre zuten Egiptotik hartu zuten irin orhatua, eta egin zituzten hautspeko ophil airisak: ezen etzituzten altxarazi ahal izan Egiptoarrek ilkhitzera hertsatzen zituztelakotz, eta epherik batere etzioetelakotz eman nahi: eta etzituzten utzi jatekorik batere xuxentzera.

40. Bada, Israelgo semeak Egiptoan egon izan ziren urtheak, lau ehun eta hogoi eta hamar ziren.

41. Urthe hekiek bethe ondoan, egun berean Jaunaren armada guzia ilkhi zen Egiptoko lurretik.

42. Gau hura Jaunari da kontsekratua, zeinetan Israelgo semeak ilkhi baitzituen Egiptoko lurretik: hura begiratu behar dute guziek ondokoendoko.

43. Eta Jaunak erran zioten Moisi eta Aaroni: Hori da Bazko-besta: Arrotzak ez du Bazkotik jan behar.

44. Bainan gathibu erosi ingurebakia izanen da, eta haletan janen du.

45. Bainan arrotzak eta sarizaleak ez dute hartarik janen.

46. Bildotsa janen da etxe batean, eta ez duzue haren haragietarik kanpora eramanen, ez-eta haren hezurrik hautsiren.

47. Israelgo semeen balderna guziak eginen du hori.

48. Bainan arrotz zenbaitek zuen baldernako sarthu nahi badu, eta Jaunaren Bazkoa egin, ingurebaki bedi lehenik harekilako gizonki guzia, eta orduan besta zelebratuko du, eta izanen da lekhuko umea bezala: bai-

nan ingurebakia izan ez denik balin bada norbait, harek Bazkotik ez du janen.

49. Lege bera izanen da lekhuko umearentzat eta zuen artean arrotz ibiliko denarentzat.

50. Eta Israelgo seme guziek egin zuten Jaunak Moisi eta Aaroni manatu zioeten bezala.

51. Eta egun hartan berean Jaunak andanaka ilkhiarazi zituen Israelgo semeak Egiptoko lurretik.

### XIII. KAP.

1. Eta Moisi mintzatu zitzaioen Jauna, zioelarik:

2. Niri kontsekra diaztatzu Israelgo semeetan amaren sabela lehen-bizikorik idekiko duten guziak, nahiz gizonetan, nahiz abereetan: ezen oro eneak dira.

3. Eta Moisek erran zioen populuari: Orhoit bekizue egun hau zeinetan ilkhi baitzarete Egiptotik eta gathibutasuneko etxetik, zeren Jaunak esku hazkarraz atheratu baitzaituzte lekhu hortarik: ez dezazuen jan ogi altxatua.

4. Egun ilkhitzen zarete fruitu berrietako hilabethean.

5. Eta, oi Israel, Jaunak sarraraziko zaituenean Kananearraren, Hethearraren, Amorearraren, Hebearraren eta Jebusearraren lurrean, zeina zuri emanen darotzula zin egin baitu zure aitei, esnea eta ezitia darioen lurra, hilabethe hunetan zelebratuko duzu ohitza sakratu hau.

6. Zazpi egunez janen duzu ogi airisa: eta zazpigarren egunean izanen da Jaunaren besta-burua.

7. Ogi airisa janen duzu zazpi egunez: eta deusere altxatua denik ez da ageriko zure etxean, ez-etare zure eremuetan.

8. Eta khondatuko diozu zure semeari egun hartan, diozularik: Hau da Jaunak niri egin darotana, Egiptotik ilkhi naizenean.

9. Eta hau izanen da seinale bat bezala zure eskuan, eta orhoitpen bat bezala zure begien aitzinean; eta Jaunaren legea izan dadientzat bethi zure ahoan, ezen esku hazkarraz Egiptotik ilkhi zaitu Jaunak.

10. Erran den bezalako besta hau begiratuko duzu urthetik urthera, ordu berezian.

11. Eta, noiz-eta-ere Jaunak sarraraziko baitzaitu Kananearraren lurrean, zuri eta zure aitei zin egin izan dioten bezala, eta hura emanen baitarotzu,



12. Jaunarentzat bereziko duzu amaren sabela idekitzen duen guzia eta aziendaren lehen-sorthua: Jaunari kontsekratuko diozu izanen duzun ordoski guzia.

13. Astoaren lehen-sorthua trukatuko duzu ardira: eta berrerosten ez baduzu, hilen duzu. Ordean dirutan berrerosiko duzu zure semeetarika-ko gizonaren lehen-sorthua.

14. Eta gerora zure semeak galde egingen darotzunean, dioelarik: Zer da hori? ihardetsiko diozu: Bere eskuaren hazkarraz Jaunak athera gaitu Egiptoko lurretik, gathibusuneko etxetik.

15. Ezen Faraon gogortua zagoenean, eta ez gintuenean goatera utzi nahi, Jaunak hil zituen Egiptoko lurtean lehen-sorthu guziak gizonaren lehen-sorthutik azienden lehen-sorthuraino: hargatik imolatzen diot Jaunari sabela idekitzen duen ordoski guzia, eta berrerosten ene semeen lehen-sorthuak oro.

16. Hau izanen da beraz seinale bat bezala zure eskuan, eta dilindan dagoen zerbait bezala orhoitzapenetan zure begien aitzinean: zeren bere eskuaren hazkarraz Jaunak ihardoki gaituen Egiptotik.

17. Bada, Faraonek populua igorri zuenean, Jaunak etzituen eraman hauzo diren Filistindarren lurrerako bidetik: beldurrez-eta gerla ikhusten bazuten beren kontra altxatzen, urriki zakioeten eta gibelerat bihur Egiptora.

18. Bainan inguruan eraman zituen mortuko bide, itsaso Gorriaren aldean denetik: eta Israelgo semeak harmaturik igan ziren Egiptoko lurretik.

19. Eta Moisek berekin eraman zituen Josepen hezurak, zeren Josepek zin eginarazi zioeten Israelgo semeei, erraten ziotelarik: Jainkoa ikhustera ethorriko zaitzue, eramazkitzue hemendik ene hezurak zuekin.

20. Eta Sokothetik abiatu kanpatu ziren Ethamen, mortuko azken mugetan.

21. Bada Jauna begien aitzinean zihoan bidearen erakhusteko, egunaz hedoeizko habe batean, eta gauaz suzko habearen: bide-emaile izan zadien-tzat gauaz eta egunaz.

22. Behinere populua aitzinetik etzen eskastu egunaz hedoeizko habearen, eta suzkoa gauaz.

#### XIV. KAP.

1. Bada Jauna Moisi mintzatu zen, erraten zioelarik:

2. Mintza zakitzote Israelgo semeei: Itzulirik, kanpa beitez Phihahirotheko aurkhintzan, zeina baita Magdalumen eta itsasoaren

an, Beelsephonen parrean: haren aitzinean ezarriko dituzu kanpak itsas-hegian.

3. Eta Faraonek erranen du Israelgo semeez: Hestutuak dira lurtean, mortuko hertsitu dituzte.

4. Eta gogortuko dut haren bihotza, eta hekien ondotik emanen da: eta ospatua izanen naiz Faraon gatik eta haren armada guzia gatik, Egiptoarrek jakin dezaten ni naizela Jauna. Eta Israeldarrek hala egin zuten.

5. Eta Egiptoko erregeri erran zioten ihes egin zuela populuak: eta Faraonen bihotza eta haren zerbitzariena ganbiatua izan zen populuaren gainean, eta erran zuten: Zer egin nahi izan dugu Israel uzteaz, ez gaitzan gehiago zerbitza?

6. Zalduak uztarrarazi ziozkien beraz bere orga-lasterrari, eta bere populu guzia hartu zuen berekin.

7. Eta hartu zituen sei ehun orga-laster hautatu, eta Egiptoan ziren orga-laster guziak: eta bere armada guziko aitzindariak.

8. Eta Jaunak gogortu zuen Faraon Egiptoko erregearen bihotza, eta Faraon eman zen Israelgo semeen ondotik: bainan goratikako eskuak ilkhiaziaz ziren haukiek.

9. Eta nola Egiptoarrak aitzinean zihoazinen hatzei jarraitzen baitziren, kanpetan atzeman zituzten itsas-hegian; Faraonen zaldieria eta orga-laster eta armada guzia Phihahirothen ziren Beelsephonen parrean.

10. Eta Faraon hurbildua izan zenean, Israelgo semeak, begiak altxatzearekin, ohartu ziren Egiptoarrak gibelean zituztela; eta hainitz izitu ziren, eta deihadarka Jaunari eman ziren.

11. Eta Moisi erran zioten: Ez othe zen hobirik Egipton, horren gatik erakharri gaituzu mortuan hiltzera: zer nahi izan duzu egin gu Egiptotik ilkhiazirik?

12. Ez othe da hau Egipton ematen ginarotzun solasa, erraten ginartozunean: Urrun zaite gu ganik zerbitza detzagun Egiptoarrak? ezen hainitez zen hobe hekien zerbitzatzea, ezenez mortuan hiltzea.

13. Eta Moisek populuari erran zioen: Ez izan beldurrik; zaudete, eta ikhusatzue Jaunak egun egingen dituen sendagaila handiak; ezen orai ikhusten dituzuen Egiptoarrak, ez dituzue egun-eta-bizian gehiago ikhusiko.

14. Jauna gudukatuko da zuen alde, eta zuek, ixilik egonen zarete.

15. Eta Jaunak Moisi erran zioen: Zertako egiten darotazu oihu? Mintza zaite Israelgo semeei abia ditezentzat.



16. Eta zuk, altxa zazu zure zigorra, eta heda zazu eskua itsasoaren gainera eta berez zazu hori Israelgo semeak idorrean ibil ditezen itsasoaren erdian.

17. Eta nik gogorturen dut Egiptoarren bihotza, arren-eta eman ditezen zuen ondotik; eta ospatua izanen naiz Faraonen baithan eta haren armada guzia baithan, eta haren orga-laster eta zaldierian.

18. Eta Egiptoarrek jakinen dute ni naizela Jauna, ospatua izanen naizean Faraon baithan eta haren orga-laster eta zaldieriaren gainean.

19. Eta Israelgo kanpen aitzinean zihoan Jaunaren aingerua, altxaturik goan zen bekien gibelera; eta harekin orobat hedoeizko habea, aitzinak utzirik, gibelera

20. Jarri zen Egiptoarren eta Israelgo kanpen artean; eta hedoa zen beltza, eta argitzen zuen gauaz, halako moldez non armadak gau guzian elkharri ezin hurbil baitzitazkeen.

21. Eta Moisek eskua hedatu zuenean itsasoaren gainera, Jaunak urratu zuen hura haize borthitz eta erregarri gau guzia iraun zuen batez, eta itsasoa agortu zuen, eta ura berezi.

22. Eta Israelgo semeak idorrik sarthu ziren itsasoaren erdia gaindi; ezen ura harrasia bezala zagoen hekien eskuinetik eta ezkerretik.

23. Eta Egiptoarrak jarraitzean sarthu ziren hekien ondotik, Faraonen zaldizko guziak, eta orga-lasterrak, eta zaldiak, itsasoaren erdira.

24. Eta jadanik ethorria zen goizaldeko beila, eta huna non Jaunak suzko eta hedoeizko habetik begiraturik Egiptoarren kanpei, hil zuen hekien armada.

25. Eta uzkaile zituen orgetako arrodak, eta osinera eramanak ziren. Egiptoarrek erran zuten beraz: Israeli ihes egiogun, ezen horien alde Jauna gudukatzen da gure kontra.

26. Eta Jaunak erran zioen Moisi: Heda zazu eskua itsasoaren gainera, arren-eta urak bihur ditezen Egiptoarretara, horien orga eta zaldien gainera.

27. Eta Moisek eskua hedatu zuenean itsasoko aldera, ura argi-urrazean itzuli zen leheneko lekhura; eta Egiptoarrak ihes zihoazelarik, ura jauzi zitzaioten, eta Jaunak inguratu zituen uhinen erdian.

28. Eta urek bihurturik estali zituzten Faraonen armada guziko orga eta zaldizkoak, jarraitzean itsasoan sarthu zirenak; eta hekiatarik bat bakharra etzen gelditu.

29. Bainan Israelgo semeak idorrik goan ziren itsasoaren erdia barna, eta urak zituzten harrasizat bezala eskuinetik eta ezkerretik.

30. Eta Jaunak egun hartan Israel atheratu zuen Egiptoarren eskue-tarik.

31. Eta Israelgo semeek ikhusi zituzten Egiptoarrak hilak itsas-bazterrean, eta hekien kontra Jaunak hedatu zuen esku borthitza; eta populua eman zen Jaunaren beldurrean, eta sinheste hartu zuen Jauna baithan eta haren zerbitzari Moise baithan.

## XV. KAP.

1. Orduan Moisek kantatu zuen, eta Israelgo semeek harekin, kantu hau: Kantu egin diozogun Jaunari; ezen ospetsuki goretsi du bere burua, zaldia eta gainekoa, biak itsasora arthiki ditu.

2. Jauna da ene indarra eta ene laudorioa, eta ene salbatzaile egin da; hura da ene Jainkoa, eta ospatuko dut nik; ene aitaren Jainkoa da, eta goretsiko dut nik.

3. Jaunak iduri du gerlari gizona, Ahalorotakoa da haren izena.

4. Itsasora arthiki ditu Faraonen orga-lasterrak eta haren armada; itsaso Gorrian ithoak izan dira haren aitzindari hautak.

5. Tirainek estali dituzte, harri bat bezala jautsi dira ondora.

6. Jauna, zure eskuina ospatu da bere indarrean; Jauna, zure eskuinak eho du etsaia.

7. Eta zure ospearen handiaz lurreratu dituzu zuri jazar-egileak; igorri duzu zure hasarrea, eta iretsi ditu lastoa bezala.

8. Eta zure suliaren hatsak moltzatu ditu urak; baratu da zurrutan zohan uhina, tirainak moltzatu dira itsaso-erdian.

9. Etsaiak erran du: Joko dut ondotik, eta lothuko naiz, phartituko ditut buluzkinak, aseko da ene gogoa; atheratuko dut ene marrauza, ene eskuak puskatuko ditu.

10. Abiatu da zure hatsa, eta itsasoak estali ditu; itho dira beruna ur muthirietan bezala.

11. Hazkarren artean zein da zure idurikorik, Jauna? nor da zure idurikorik, saindutasunez handi zarena, lazgarri eta laudagarri zarena, sendagaila harritzekoak egiten ditutzuna?

12. Hedatu duzu eskua, eta lurak iretsi ditu.

13. Zure urrikalpenean, izatu zare berrerosi duzun populuaren bide-maile; eta zure indarrean ekharri duzu zure egoitza saindura.

14. Populuak igan dira, eta sumindu; oinhazea sarthu da Filistindarren bihotzetan.

15. Orduan asalatu dira Edomen buruzagiak, ikharak hartu ditu Moaben hazkarrak, Kanaandarra lastua gelditu da.



16. Beldurra eta izialdura loth bekiozkite zure besoaren indarraren aitzinean; harri-mokhorra bezala geldi beitez, zure populua iragan arteo, Jauna, eskura hartu izan duzun zure populu hau iragan dadien arteo.

17. Sarraraziko dituzu eta jarriko zure primantzako mendian, zuretzat egin duzun egoitza guziz hazkarrean, Jauna; zure eskuek gohortu duten sainduteagian, Jauna.

18. Jauna erreginatuko da bethi guzian, eta handik harat ere.

19. Ezen itsasoan sarthu da Faraonen zaldia haren orga-laster eta zaldieria guziarekin; eta Jaunak gainera bihurtu diozkite itsasoko urak; baina Israelgo semeak oinak idorrik ibili dira haren erdian.

20. Beraz Maria profetesak, Aaronen arrebak, eskura hartu zuen gatamore bat; eta emazteki guziak ilkhi ziren haren ondotik gatamoreekin eta kantari-andanetan.

21. Lehenbizikorik kantatzen zuen hunela: Kantu egin diozogun Jaunari; ezen ospetsuki goretsi du bere burua, zaldia eta gainera biak itsasora arthiki ditu.

22. Moisek, bada, atheratu zuen itsaso Gorritik Israel, eta sarthu ziren Surreko mortuan; hirur egunez ibili ziren eremuan eta etzuten urik aurkitzen.

23. Eta ethorri ziren Marara, baina etzezaketen edan Marako uretarik, kharatsak zirelakotz; horren gatik eman zioen lekhuari zihokoien izena, deitzen zuelarik Mara, erran nahi baita kharastasuna.

24. Eta populua marmaraz haritu zen Moisen kontra, zioelarik: Zer edanen dugu?

25. Baina Moisek oihu egin zioen Jaunari, zeinak erakhutsi baitziren egur bat, eta hura urera arthiki zuenean, urak ezti bihurtu ziren. Han Jainkoak eman ziozkan manamendu eta erabaki batzuek, eta bere frogapenean ezarri,

26. Erraten zioelarik: Zure Jainko Jaunaren boza entzuten baduzu, eta haren begietan zuzen dena egiten baduzu, eta haren manuak bethetzen badituzu, eta haren manamendu guziak begiratzen, ez dut zure gainera igorriko Egiptuari eman izan ditudan ahiduretarik batere; ezen ni naiz Jauna zure sendatzailea.

27. Eta Israelgo semeak ethorri ziren Elimera, non baitziren hamabi ithurri, eta hirur hogoi eta hamar palmondo; eta kanpatu ziren uren aldean.

## XVI. KAP.

1. Eta Israelgo semeen ostea oro, Elimetik abiatuturik, ethorri zen, Egiptoko lurretik atheratu eta bigarren hilabeteke hamabortzgarren eguneko, Sineko mortura, zeina baita Elimen eta Sinairen artean.

2. Eta Israelgo semeen oste guzia erasian haritu zen eremuan Moisen eta Aaronen kontra.

3. Eta Israelgo semeek erran izan zioten: Oxala hil izan bagina Jaunaren eskutik Egiptoko lurtean, jartzen ginenean haragizko duphinen aldean, eta ogiz ase ginduenean zertako erakharri gaituzue mortu huntara, guziak gosez hilaraztera?

4. Baina Jaunak erran zioen Moisi: Huna non eroraraziko darotzedan nik ogia zerutik; populua ilkhi bedi, eta bil beza egunean eguneko dina; froga dezadan hea ene bidean dabilan, ala ez.

5. Baina seigarren egunean iduk bezate ekharriko dutena, eta hura izan bedi egun bakhotxean biltzen ohi zuten bezalako bia.

6. Moisek eta Aaronen erran zioten Israelgo seme guzietan: Gaur jakinen duzue Jaunak atheratu zaituztela Egiptoko lurretik.

7. Eta bihar goizean ikhusiko duzue Jaunaren ospea; entzun du ezen zuen erasia haren kontra: gu ordean zer gare, gure kontra erasian hari zaiztezentzat?

8. Eta Moisek erran zuen: Jaunak emanen darotzute gaur haragia jatera, eta bihar goizean ogiz ase: hori zeren aditu baititu zuen erasiak, zeinetaz haren kontra marmaran haritu baitzarete: ezen, zer gare gu? zuen erasia ez da gure kontra, baina bai Jaunaren kontra.

9. Moisek erran ere zuen Aaroni: Errozu Israelgo semeen baldarna guziari: Hurbil zaizte Jaunaren aitzinera: ezen aditu du zuen erasia.

10. Eta Aaron Israelgo semeen bilkhu guziari mintzo zelarik, begiratu zuten eremuko aldera: eta hara non agertu zen Jaunaren ospea hedoi batean.

11. Bada Jauna mintzatu zen Moisi, erraten zioelarik:

12. Aditu ditut Israelgo semeen erasiak: errozute: Gaur janen duzue haragia, eta bihar goizean aseko zarete ogiz: eta jakinen duzue ni naizela zuen Jainko Jauna.

13. Bada, gerthatu zen arrats aphalean, kalla iganik, estali zituela kanpak: ihintza ere goizean hedatua zen kanpen inguruan.

14. Eta estali izan zuenean lurraren axala, eremuan agertu zen bihi xehe bat, xurruan joa balitz bezala, izotza iduri lurraren gainean.





15. Hori ikhusi zutenean, Israelgo semeek elkharri erran zuten: Manhu? erran nahi baita; Zer da hori? ezen etzakiten zer zen hura. Moisek erran zioten: Hori da ogia zuei Jaunak jateko eman darotzuetena.

16. Hau da Jaunak manatzen darotzuen solasa: Batbederak bil beza hortarik jateko dina: gomor bat buru bakhotzeko, olhan dagoezinen jende arauka, hola altxatuko duzue.

17. Eta Israelgo semeek hala egin zuten: eta bildu izan zuten, batzuek gehiago, eta bertzeek gutiago.

18. Eta neurtu zuten gomorreko neurrian: eta gehiago bildu zuenak, etzuen gaindirik izatu: eta gutiago bildu zuenak, etzuen eskasik atzeman: bainan batbederak bildu zuen jaten ahal zuenaren arabera.

19. Eta Moisek erran zioeten: Nihork ez beza huntarik utz behar goizeko.

20. Etzuten aditu nahi izan, bainan batzuek atxiki zuten goiz arteo, eta abiatu zen harrez irakitzen, eta usteldu zen; eta Moise samurtu zitzaizoten.

21. Geroztik batbederak jan-ahala biltzen zuen goiz bakhotxean: eta iguzkia berotzearekin, urtzen zen.

22. Bainan seigarren egunean biltzen zituzten jatekoak bikhunean, erran nahi da, bi gomor gizon bakhoxka: eta populuko aitzindari guziak ethorri ziren eta Moisi khondata zioten.

23. Hunek erran zioeten: Hori da Jaunak erran izan duena: Bihar larunbateko phausua Jaunari kontsekratua zaio; egiteko direnak, egizkitzue: eta erretzekoak, erre zatzue: eta gelditzen dena, bego goiz arteo.

24. Eta egin zuten Moisek manatu bezala: eta etzen usteldu, eta etzen hartan harrik aurkhitu.

25. Eta Moisek erran zuen: Jan zazue hori egun, zeren Jaunaren larunbata baita; egun ez da kanpoan aurkhituko.

26. Bil zazue sei egunez: bainan zazpigarren egunean Jaunaren larunbata da; horren gatik ez da aurkhituko.

27. Eta ethorri zen zazpigarren eguna, eta populutik biltzera ilkhi zirenek, aurkhitu etzuten.

28. Bainan Jaunak erran zioen Moisi: Noiz arteo ez dituzue ene manamenduak eta ene legea begiratu nahiko?

29. Iklusazue nola Jaunak eman izan darotzuen larunbata, eta horren gatik seigarren egunean jatekoak ematen darozkitzueten bikhunean: norbera geldi bedi bere egoitzan, nihor ez bedi ilkhi bere lekhitik zazpigarren egunean.

30. Eta populua larunbata egin zuen zazpigarren egunean.

31. Eta Israelgo etxeak janhari hura deithu zuen Mana: koriandraren hazi xuria bezalakoa zen, eta gostua zuen irin eztiarekin orhatuak bezala.

32. Bada, Moisek erran zuen: Hau da Jaunak manatu izan duen solasa: Gomor bat manaz bethe zazu, eta begiratua izan bedi gerorat ethortzekoak diren gizaldietan; ezagut dezatentzat zer ogiz hazi zaituztedan mortuan, Egiptoko lurretik erakharriak izan zaretenean.

33. Eta Moisek erran zioen Aaroni: Untzi bat har zazu, eta hartan mana ezar zazu, gomor batek atxik-ahala: eta Jaunaren aitzinean phausa zazu, ethorri behar diren zuen gizaldientzat begiratzeko,

34. Jaunak Moisi manatu izan dioen bezala. Eta Aaronek hura tabernaklean ezarri zuen gerokotzat.

35. Bada, Israelgo semeek manatik jan zuten berrogoi urthez, heldu arteo egonkidin zen lurrera: janhari hortaz hazi ziren Kanaango lurreko mugak ukitu arteo.

36. Bada, gomorra ephiaren hamargarrena da.

## XVII. KAP.

1. Israelgo semeen oste guzia goan zen beraz Sineko mortutik, zoin bere andanetan, Jaunaren hitzaren arabera, eta kanpatu ziren Erraphidimen, non populuarentzat urik ez baitzen edateko.

2. Populuak, Moisi jazarritz, erran zioen: Iguzu ura edatera. Moisek ihardetsi zioten: Zer jazartzen darotzue? zertako bilhatzen duzue Jauna?

3. Egarriz egon zen beraz han populua ur-eskasa gatik, eta erasian haritu zen Moisen kontra, erraten zuelarik: Zertako ilkhiarazi gaituzu Egiptotik, egarriz hiltzeko eta, gure haurrak eta gure aziendak?

4. Bainan Moisek oihu egin zioen Jaunari, erraten zuelarik: Zer eginen diot populu huni? oraino aphur bat gehiago, eta harrikatuko nau.

5. Eta Jaunak erran zioen Moisi: Zoazi populuaren aitzinean, eta har zatzu zurekin Israelgo zaharretarik: eskuan har zazu ibaiaren jotzeko erabili duzun zigorra, eta zoazi.

6. Hara non izanen naizen ni han zure aitzinean, Horeboko harriaren gainean: eta harria joko duzu, eta hartarik ura jauziko da, populua edatekotzat. Moisek hola egin zuen Israelgo zaharren aitzinean.

7. Eta toki hura deithu zuen Froga-lekhu, Israelgo semeen jazargoa gatik, eta zeren Jauna bilhatu zuten erraten zutelarik: Gu baithan othe da Jauna, ala ez?

8. Bada, Amalek ethorri zen, eta gudu ematen zioen Israeli Erraphidimen.



9. Eta Moisek erran zioen Josueri: Hauta zatzu gizonak; eta atheraturik, guduka zaite Amaleken kontra: bihar ni egonen naiz mendixka-bizkarrean, Jaunaren zigorra eskuan.

10. Josuek egin zuen Moisek errana, eta Amaleken kontra gudu egin zuen: bainan Moise, eta Aaron eta Hur igan ziren mendixkaren bizkarrera.

11. Eta Moisek eskuak altxatzen zituenean, Israelek garhaizia zaraman: ordean aphur bat beheititzen zituenean, Amalek nausitzen zen.

12. Bainan Moisen eskuak phisatuak ziren: Aaronek eta Hurrek harturik beraz harri bat, haren azpian ezarri zuten, eta jarri zen gainean: eta biek bi aldeetarik eskuak idukitzen ziozkaten. Eta hala gerthatu zen haren eskuak etzirela nekhatu iguzki sartzea arteo.

13. Eta Josuek ihes ezarri zuen Amalek, eta ezpataren ahoan haren populua.

14. Eta Jaunak erran zioen Moisi: Orhoitgarri iskribuz eman zazu hau liburu batean, eta adiaraz zozu Josueri: ezen Amaleken otsa ezeztatuko dut zeruaren-pean.

15. Eta Moisek aldare bat altxatu zuen: eta haren izena eman zuen, Jauna ene gorespina, zioelarik:

16. Zeren Jaunaren eskua tronutik eta Jaunaren gerla mendetik mendera Amaleken kontra izanen baitira.

### XVIII. KAP.

1. Jethrok, Madiango aphez eta Moisen aitagarrebak, aditu zituenean Jainkoak Moisentzat eta Israel bere populuarentzat egin izan zituen guziak, eta Jaunak nola atheratu zuen Israel Egiptotik:

2. Hartu zuen Sefora, Moisen emaztea, gibelerat senharrak igorria izan zena,

3. Eta haren bi semeak, zeinetarik bat Jersam deithua izan baitzen, aitak erraten zuelarik: Arrotz izatu naiz atze-lurrean;

4. Eta bertzea Eliezer, Moisek erran baitzuen: Ene aitaren Jainkoa izatu da ene laguntzaile, eta itzuri nau Faraonen ezpatari.

5. Jethro, Moisen aitagarreba, ethorri zen beraz haren seme eta emaztearekin, Moisen gana mortura, non kanpatua baitzen Jainkoaren mendiaren ondoan.

6. Eta gaztiatu erraten zuelarik: Ni Jethro, zure aitagarreba, heldu natzaitzu zure emaztearekin eta bere bi semeak harekin.

7. Moise, bere aitagarrebari bidera atheraturik, gurthu zitzaioen eta besarkatu zuen: eta elkharri eman zioten agurra bakezko solasekin. Eta olhan sarthu zirenean,

8. Moisek bere aitagarrebari khondatau ziozkan Jainkoak Israelen gatik egin ziozkaten guziak Faraoni eta Egiptoarrei: eta bidean izan zuten nekhe guzia; eta nola libratu zituen Jaunak.

9. Jethro boztu zen Jaunak Israeli egin ziotzan ongi guziez, haren itzurtzeko Egiptoarren eskuari.

10. Eta erran zuen: Benedikatua Jauna zuek Egiptoarren eskuetarik eta Faraonen eskutik atheratu zaituztena, eta bere populua Egiptoaren eskudantziari itzuri duena.

11. Jauna handia dela bertze jainko guzien gainean ezagutu dut orai, Egiptoarrek hanpurutsuki jazarri ziotenetik Israelgo semeei.

12. Beraz Jethrok, Moisen aitagarrebak, Jainkoari eskaini ziozkan holokaustak eta bitimak: eta Aaron eta Israelgo zaharrak ethorri ziren harekin ogiaren jatera Jainkoaren aitzinean.

13. Bada, biharamunean Moise jarri zen juiatzeko populua, zeina goizetik-arrats Moisen aitzinean baitzen.

14. Aitagarrebak ikhusi zuenean hori, erran nahi da populua baithan egiten zituen guziak, erran zioen: Zer hari zare hola populuan? zertako jartzen zare bakharrik eta populu guzia goizetik-arrats begira dago?

15. Moisek ihardetsi zioen: Populua ene gana heldu da Jainkoaren erabakiaren galdez.

16. Eta makhur zerbait gerthatzen zaiotenean, ethortzen zaizkit beren artean erabak dezotedantzat, eta irakhats detzotedan Jaunaren manamenduak eta haren legeak.

17. Bainan Jethrok erran zioen: Etzare ongi hari.

18. Lan eragabean akhitzen zarete zu eta zurekin den populu hau: egiteko hori zure indarrez goitikoa da, bakharrik ezin jasanen duzu.

19. Bainan entzun zatzu ene solasak eta kontseiluak, eta Jainkoa zurekin izanen da. Zu izan zakizko populuari Jainkoari dagozkioten gauzetan, Jaunari eramateko haren galdeak:

20. Eta irakhats zotzu populuari zeremoniak eta ohore emateko moldeak, eta bidea zeina-barna sarthu behar baitira, eta egin behar dituzten lanak.

21. Bainan populu guzitik berez zatzu gizon larderiakoak eta Jainkoaren beldur direnak, zeinen baithan aurkhituko baita zintasuna; eta jaramankeria higuin izanen dutenak: eta hekiatarik jar zatzu buruzagi, batzuek mila gizonen, bertze batzuek ehunen, bertze batzuek berrogoi eta hamarren, eta bertzeak hamarren.



22. Hekiek juia bezate populua ordu oroz: bainan egiteko handirik balin bada, ekharriko dituzte zu gana, eta berek ttipiagoak xoilki juiatuko dituzte: eta karga zathiturik bertzeetara, arinagoa izanen da zuretzat.

23. Hori egiten baduzu, Jainkoaren manamendua betheko duzu eta haren manuei ihardetsiko ahal diozute: eta populu hau guzia bakearekin itzuliko da bere lekhetara.

24. Horiek aditurik, Moisek egin zituen Jethrok bururatu ziozkan guziak.

25. Eta Israel guzitik hautaturik gizon larderiadunak, jarri zituen populuaren buruzagi, mila gizonen, ehunen, berrogoi eta hamarren, eta hamarren gaineko.

26. Haukiek edozein orduz juiatzen zuten jendea: bainan egiteko handienak ekhartzen zituzten Moisen gana, bakharrik errexenak erabakitzen zituztelarik.

27. Gero Moisek utzi zuen bere aitagarreba, zeina bihurturik goan baitzen bere lurrera.

### XIX. KAP.

1. Israel Egiptoko lurretik ilkhi ondoko hirugarren hilabeteanean, egun berean ethorri ziren Sinaiko mortura.

2. Ezen Erraphidimetik abiaturik eta Sinaiko morturaino heldurik, kanpatu ziren toki hartan berean, eta Israelek olhak jarri zituen mendiaren parrean.

3. Moise ordean igan zen Jainkoa gana, eta Jaunak deithu zuen menditik, eta erran zioen: Hau erranen diozu Jakobon etxeari, eta huntaz jakintsun eginen dituzu Israelgo semeak:

4. Zerorrek ikhusi duzue zer egin diotedan Egiptoarrei, nola ekharri zaituztedan arrano hegalean gainean, eta ene gana bildu.

5. Baldin beraz entzuten baduzue ene boza, eta begiratzen enekilako patua, izanen zarete enetzat populu guzien artetikako mozkin bat bezala: alabainan lurra enea da oro.

6. Eta izanen zarete enetzat aphez-erresuma bat bezala, eta jendaki saildu bat; horiek dira hitzak Israelgo semeek erranen dituztunak.

7. Moise ethorri zen, eta bilarazirik populuko zaharrenak adinez, aitzinera eman ziozkaten Jaunak manatu solas guziak.

8. Eta populu guziak batean ihardetsi zuen: Eginen ditugu Jaunak erranak oro. Eta Moisek Jaunari bihurtu ziozkanean populuaren hitzak,

9. Jaunak erran zioen: Huna, ethortzera nihoakizu hedoi batez itzalirik, populuak entzun nezan zuri mintzatzen; eta bethi-guzian sinheste eman dezazun. Moisek beraz Jaunari ekharri ziozkan populuaren hitzak.

10. Jaunak erran zioen: Zoazi populuaren gana, eta sailduets zatu egun eta bihar, eta xuri betzate beren soinekoak,

11. Eta xuxenduak izan beitez hirugarren eguneko: ezen hirugarren egunean jautsiko da Jauna populu guziaren aitzinean Sinaiko mendiaren gainera.

12. Eta populuari zedarriak ezarriko diozkatzu inguruan, eta erranen diozu: Begira zaitze igaitetik mendira, eta ukitzetik hango mugarriak: mendia ukitzen duen edozein heriotzez hilen da.

13. Baina ez du eskuak ukiko, bainan izanen da harrika lehertua, edo geziz zilhatua: izan dadien edo aberea, edo gizona, ez da biziko. Turuta jotzen abiatzen denean, orduan iganen dira mendira.

14. Eta Moise menditik jautsi zen populuaren gana, eta sailduetsi zuen. Eta beren soinekoak xuritu zituztenean,

15. Moisek erran zioten: Zaudezte xuxenduak hirugarren egunerako, eta etzaitzela hurbil zuen emazteei.

16. Eta jadanik hirugarren eguna ethorri zen, eta goiza argitu, eta huna non ihurtzuriak abiatu ziren burrunbaz, eta simistak dirdiratzten, eta mendia hedoirik lodienaz estaltzen, eta turutak durrundatzen zuen mut-hiriki: eta kanpetan zen populua ikharatu zen.

17. Eta Moisek kanpa-lekhetik ilkhiazi zituen Jainkoaren aitzinera, baratu ziren mendiaren oinean.

18. Sinaiko mendia guzia khetan zagoen, zeren gainera jautsi baitzen Jauna su batean, eta hartarik khea igaiten baitzen labetik bezala: eta mendia guzia ikharagarria zen.

19. Eta turutaren durrunda emeki-emeki handituz zihoan eta urrunago helduz: Moise mintzatzen zen, eta Jaunak ihardesten zioen.

20. Eta Jauna jautsi zen Sinaiko mendira, mendi-bizkarrera berera, eta Moise deithu zuen hartako kaskora. Igan zenean,

21. Jaunak erran zioen: Jauts zaitze, eta mana zazu populuak, zedarrien iragaitea ez dezan egin Jaunaren ikhusteko, beldurrez-eta hekietarik oste handia gal dadien.

22. Jaunari hurbiltzen diren aphezak ere sailduets beitez, Jaunak jo detzan beldurrez.

23. Eta Moisek erran zioen Jaunari: Jendea ezin iganen da Sinaiko mendira, ezen zure hitzaz lekhekotasun egin da, eta manatu duzu, dio-



zularik: Ezar zatzu zedarriak mendiaren inguruan, eta sainduets zazu hura.

24. Jaunak ihardetsi zioen: Zoazi, jauts zaite; igan zaite gero zu, eta Aaron zurekin; bainan aphezek eta populuak zedarriak iragan ez betzate, eta ez beitez igan Jauna gana, hil ez detzan beldurrez.

25. Eta Moise jautsi zen populua gana, eta oro erran zioizkien.

## XX. KAP.

1. Eta Jaunak atxiki zituen solas haukiek guziak.
2. Ni naiz hire Jainko Jauna, Egiptoko lurretik, gathibutasuneko etxetik ilkhi hautana.
3. Ez duk izanen Jainko atzerik ene aitzinean.
4. Ez duk eginen eskuzko jainkorik, ez-etare itxurarik zeru gainean diren gauzenik, ez lurraren gainean direnenik, ez uretan luphean direnenik.
5. Ez dituk hekiek adoratu, ez-etare zerbitzatu: ni naiz hire Jainko Jaun hazkarra, bekhaizkorra, aiten gaixtaginkeria bilhatzen dudana semeetan, ni gaitzirizkotan nadukatenen hirugarren eta laugarren belhau-neko haurretan;
6. Eta miletan ondokoen-ondoko miseriordia egiten dudana ni maithatzen nautenei eta ene manamenduak begirutzen dituztenei.
7. Ez duk alferki erabiliko hire Jainko Jaunaren izena: Jaunak ezen ez du hobengabe idukiko haren izena gauza hutsetan erabiliko duena.
8. Orhoit hadi larunbata sainduesteaz.
9. Sei egunez hariko haiz lanean, eta eginen dituk hire lan guziak.
10. Bainan zazpigarren egunean duk hire Jainko Jaunaren larunbata: ez duk egun hartan lanik eginen batere, ez hik, ez hire semeak, ez hire alabak, ez hire muthilak, ez hire neskatoak, ez hire abereak, ez hire etxean den arrotzak.
11. Jaunak alabainan sei egunez egin izan zituen zeru-lur-itsasoak eta heketan diren guziak, eta phausatu zen zazpigarren egunean: horren gatik Jaunak benedikatu eta sainduetsi du larunbata.
12. Ohoratzak hire ait-amak, luzeki bizi hadientzat, Jainko Jaunak emanen darokan lurraren gainean.
13. Ez duk hilen.
14. Ez haiz lohikerian khutsatuko.
15. Ez duk ohorgorik eginen.
16. Ez duk hire lagunaren kontra lekhukotasun gezurrezkorik eginen.

17. Ez diok hire lagunaren etxeari irristsik ekharriko; ez duk gutizia-tuko haren emaztea, ez muthila, ez neskatoa, ez idia, ez astoa, ez eta deusere harena denik.

18. Bada populu guziak aditzen zituen azantzak eta turutaren durrundak, eta ikhusten argiak eta mendia khetan: eta izituak eta ikhara-tuak urrundik egon ziren,

19. Moisi erraten ziotelarik: Zu mintza zakizkigu, eta entzunen zaitugu: Jauna ez bekigu mintza guri, hil ez gaitezen beldurrez.

20. Eta populuari erran zioen Moisek: Ez izan beldurrik; ezen zuen frogatzera ethorri da Jauna, eta haren beldurra zuen baithan izan dadientzat eta ez dezazuentzat bekhatu egin.

21. Eta populua egon zen urrundik. Moise ordean hurbildu zen Jainkoa zagoen lanhora.

22. Jaunak Moisi erran zioen oraino: Hau erranen diozute Israelgo semeei: Ikhusi duzue zerutik mintzatu natzaitzuela.

23. Ez duzue eginen zilharrezko jainkorik, eta urhezko jainkorik ez duzue eginen.

24. Lurrezko aldare bat eginen darotazue, eta haren gainean eskainiko zuen holokausta eta bakezko bitimak, zuen ardiak eta idiak, ene izenaren aiphamena izanen den lekhu guzietan: ethorriko naiz zure gana, eta benedikatu zaitu.

25. Baldin aldarea harrizkoa egiten badarotazu, ez duzu hura harri pikatuz eginen: ezen baldin pikoa altxatzen baduzu haren gainera, khutsatua izanen da.

26. Etzare mailetarik izanen ene aldarera, itsusi denik zutan ager ez dadien.

## XXI. KAP.

1. Haukiek dira aitzinera emanen diozkatzuten erabakiak.
2. Hebrear gathibu bat erosten baduzu, sei urtez zerbitzatu zaitu: eta zazpigarrenean ilkhiko da urrurik libro.
3. Nolako soinekoarekin sarthu baititake, halakoarekin ilkhiko da: emaztedun bazen, emaztea harekin ilkhiko da.
4. Bainan nausiak eman badio emaztea, eta semeak eta alabak izan baditu, emaztekoa eta haurrak nausiarenak izanen dira, bainan bera bere soinekoarekin atheratuko da.
5. Gathibuak erran baleza: Maite ditut, ene nausia, eta ene emaztea, eta ene haurrak, ez naiz librorik ilkhiko;



6. Nausiak agerraraziko du juieen aitzinera, eta hurbilaraziko du atheari eta habeei, eta beharria eztenaz zilhatuko dio: eta behin-bethiko haren gathibu izanen da.

7. Norbaitek alaba sehitzat sal baleza, ez da bertze neskatoek ohi duten bezala atherako.

8. Eman izan zaioen nausiaren begiko desgogara egin badu, nausiak utziko du: baina jendaia atzeari saltzeko eskurik ez du izanen, berak narda egin badio.

9. Baina bere semeari ezkontzaz eman badio, neskatxei ohi den bezala eginen du harentzat.

10. Bertze emazte bat onhesten badio, ezkonaraziko du neskatxa, eta ez dioizki ukhatuko soinekoak eta ahalkearen prezioa.

11. Hirur horiek ez baditu egiten, ilkhiko da urrurik dirurikan gabe.

12. Nork-ere hiltzekotan joko baitu gizona, heriotzez hila izanen da.

13. Ez baditu ordean zelatak erabili, baina Jainkoak hura eskuetara eman badio, erakhutsiko darotzut lekhua zeinetara ihes egin beharko baitu.

14. Norbaitek zimarkhuz eta zelatak eginez hiltzen badu bere laguna, bera hiltzeko khenduren duzu ene aldaretik.

15. Aita edo ama jo dituzkeena, heriotzez hila izan bedi.

16. Nork-ere gizona ebasi eta saldu baituke, gaizkia frogatu-eta, heriotzez hila izan bedi.

17. Bere aitari edo eman burhoa arthikiko dioena, heriotzez hila izan bedi.

18. Bi gizon liskarrean haritu badira, eta batek laguna jo badu harriaz edo ukharai-muloaz, eta hau hil ez bada, baina ohatua gelditu:

19. Jaikitzen bada, eta kanpoan ibiltzen makhilaren gainean, joilea hobengabe izanen da, hula bizkitartean non bihurtuko baitioizki bere lan sariak eta midikuetako gastuak.

20. Norbaitek sehia edo neskatoa zaharo ukhaldika jotzen badu, eta hiltzen bazaizko eskuetan, hobenez hobendun izanen da.

21. Irauten badu ordean egun bat edo bia, ez da gaztigu meneko izanen, zeren gathibua haren dirua baita.

22. Gizonak liskarrean sartzen badira, eta norbaitek jotzen badu emazteki izarra bat, eta haurra gaizki eragiten badio, bera bizi izanik ere: hainak bidegabea onthuko du, emaztekiaren senharrak galdeginen eta gizonak xedatuko duten bezenbat.

23. Ordean emaztekiaren heriotzea ondolik balin badarraio, joileak emanen du bizia biziarentzat,

24. Begia begiarentzat, hortza hortzarentzat, eskua eskuarentzat, zangoa zangoarentzat,

25. Errea errearentzat, sakhia sakhiantzat, uspela uspelarentzat.

26. Norbaitek jotzen badu bere muthil gathibuaren begia edo neskatoren eta okhertzen baditu, libro utziko ditu khendu duen begia gatik.

27. Hortz bat ere khentzen badiote bere muthilari edo neskatoari, orobat utziko ditu libro.

28. Idi batek adarraz jotzen badu gizon bat edo emazteki bat, eta hiltzen badira, harrika hila izanen da, eta haren haragiak ez dira janen: eta idiaren nausia ere hobengabe izanen da.

29. Idia atzotik eta herenegundik adarraz emailea bada, eta haren nausiari hortaz lekhukotasun egin badiote eta harek idia ez hertsu, eta hunek hiltzen badu gizona edo emaztekia: idia harrikatua izanen da, eta nausia hila.

30. Baina bidegabearen ontzeaz behartzen badute, galdegin guzia emanen du bere biziaren ordain.

31. Gizon-gaztea ere edo neskatxa adarraz jotzen badu, erabaki beraren peko izanen da.

32. Muthilari edo neskatoari jokhatu bada, nausiak emanen ditu hogoi eta hamar siklo zilharrezko; baina idia harrika lehertua izanen da.

33. Norbaitek urtegi bat idekitzen badu edo berri bat zilhatzen eta ez apatzen, eta idi bat edo asto bat hartara eror badadi,

34. Urtegiaren nausiak bihurtuko du aziendaren balioa; ordean azienda hila bere izanen du.

35. Gizon baten idiak bertze batena sakhitzen badu, eta hiltzen bada hau: sal bezate idi bizia eta dirua erditik egin; ordean hila ere elkarren artean zathi bezate.

36. Baina nausiak balin bazakien idia adarraz emaile zela atzotik eta herenegundik, eta ez bazuen zaindu, bihur eza idia idiarentzat, eta hila osorik hartuko du.

## XXII. KAP.

1. Idi bat edo ardi bat ebasi duenak, eta hil edo saldu badu, bihurtuko ditu, bortz idi batentzat, eta lau ardi batentzat.

2. Etxe baten hausten edo zilhatzen atzema dena, eta hiltzen bada hartu duen sakhia batetarik, joilea ez da odolaz hobendun izanen.

3. Baina hori iguzkia atheratuz geroztik egin badu, gizon hiltzeketa bat egin duke, eta hila izanen da bera. Ohoinak ez badu bere ohointzaren ordaina zertaz bihur, saldua izanen da bera.



4. Baldin ebatsi duena etxean atzemaña bazaio, bizirik, nahiz idia, nahiz astoa, nahiz ardia; bikhunean bihurtuko du.
5. Bidegabe eginen duenak landa batean, edo mahasti batean, eta bere azienda bertzean ontasunean alhatzera utzi badu, bere landan edo mahastian duen hobeena bihurtuko du, bidegabearen prezamenaren alderat.
6. Su atheratu batek elhorriak atzematen baditu, eta bihi-espal meta bati lotzen bada, edo landetan xutik diren uztei, sua bizitu duenak bidegabea onthuko du.
7. Norbaitek bere adiskideari zaintzera eman badio dirua edo untzi bat, eta hartu duenari ebasten badiote; ohoina atzemaña bada, bikhunean bihurtuko du.
8. Agertzen ez bada ohoina, etxeko nausia hurbilduko da juietara, eta zin eginen du ez duela eskua hedatu lagunaren gauzaren gainera,
9. Maula egiteko, hala idian nola astoan, edo ardi, edo soinekoan, edo zer-nahitan bidegabe ekhar dezakeen gauzan; bataren eta bertzearen ikhustekoa juien aitzinera ethorriko da: eta haukiek erabakitzen badute, zaintzaileak bikhunean bihurtuko dio bere lagunari.
10. Norbaitek bere lagunari zaintzera eman badio idi, ardi edo bertze edozein azienda, eta hura hil badadi, edo ahul, edo etsaiak harrapa badeza, eta nihork hori ez ikhusi;
11. Zinari bide emateko izanen zaio, nola zaintzaileak, eskua ez duen hedatu bere lagunaren gauzaren gainera; jabeak zina onhetsiko du, eta bertzea ez da bihurtzera behartua izanen.
12. Bainan ohorgoz ebatsia izan bada, jabeari onthuko dio bidegabea.
13. Ihizi batek jana izan bada, jabeari hilikitik ekharriko dio, eta ez du bihurtuko.
14. Norbaitek azienda horietarik maileguz ordain egitekotan galdatzen badu, eta ahultzera edo hiltzera heldu bada, jabea han ez delarik, mailegu-egilea bihurtzera bortxatua izanen da.
15. Bainan ez du bihurtuko, jabea han bazen, beregainki azienda bere lanaren saritan erakharria bazen.
16. Neskatxa dontzella bat, ezkontzaz hitzemaña ez dena oraino, enganatu duenak, eta harekin lo egin badu, dotatuko du, eta emazte izanen du.
17. Neskatxaren aitak ez badio eman nahi, neskatxek dotetzat har ohi duten bezenbat diru muthilak emanen du.
18. Ez duzu jasanen sorginkeria egileak bizi ditezen.
19. Aziendarekin lohikeria eginen duena, heriotzez hila izan bedi.
20. Jaunaz bertze jankoei imolatuko duena, hila izan bedi.

21. Nahigaberik ez gaizkirik ez egin arrotzari: zeronek ezen arrotz izatu zarete Egiptoko lurrean.
22. Ez duzue bidegaberik eginen alhargunari eta umezurtzari.
23. Damurik eginen badiozute, deihadar eginen darotet niri, eta nik entzunen dut hekien oihua.
24. Eta ene hasarrea jauziko da, eta marrauzaz joko zaituztet, eta zuen emazteak alhargun izanen dira, eta zuen haurrak umezurtz.
25. Dirua maileguz ematen badiozute ene populu beharrari, zuekin dagoenari, ez duzue zerga-biltzaileak bezala ertxatuko, ez-eta lukuruz lehertuko.
26. Zure lagunari soinekoa bahitzat hartzen badiozu, iguzkia sarthu baino lehen bihurtuko diozu.
27. Alabainan bere larruaren estaltzeko hura du soineko bakharra, eta bertzerik ez du zeinen barnean lo egin baitezake: ni gana oiher eginen badu, entzunen dut, zeren urrikalmendutsua bainaz ni.
28. Juieez etzare gaizki mintzatuko, eta zure populuko buruzagia ez duzu madarikatuko.
29. Hamarrenen eta pikainen bihurtzera ez duzu luzatuko: emanen darotazu zure semeetarik lehen-sorthua.
30. Idietarik ere eta ardietarik orobat eginen duzu: ume lehen-sorthua zazpi egunez egonen da bere amarekin, eta zortzigarrenean bihurtuko darotazu niri.
31. Saindu izanen zarozkidate: aziendek hasirikako haragitik ez duzue janen, bainan arthikiko diozute zakhurrei.

### XXIII. KAP.

1. Ez duzu onhetsiko gezurrezko solasa: eta zure eskua ez duzu batu-ko gaixtaginaren alde lekhukotasun faltsuaren ekhartzeko.
2. Etzare moltzoari jarraikiren gaizkiaren egiteko: eta juiamendutan, ez duzu gehienen erabakia onhetsiko, egiatik aldaratzeko.
3. Beharrari ere etzaizkio urrikalduren zure juiamenduetan.
4. Aurkhitzen baduzu zure etsaiaren idia, edo astoa errebelatua, bihurtuko diozu.
5. Ikhusten baduzu zure ixterbegiaren astoa kargaren azpian eroria, etzare aitzina goanen, bainan xutituko duzu harekin.
6. Etzare uzkur izanen beharrari bere zuzenbidea ematera.
7. Gezurrari ihes eginen diozu. Hobengabea eta gizon zuzena ez dituzu hilen, zeren hastio baitu gaixtagina.



8. Ez duzu emaitzarik onhetsiko, zeren gizon umoak ere itsutzen baitituzte eta gizon zuzenen solasak makhurtzen.
9. Etzare txar izanen arrotzaren alderat, badakizue guziek ezen arrotzen bizia, zeren Egiptoko lurtean arrotz izan baitzarete.
10. Sei urtez erainen duzu zure lurra, eta uztak bilduko.
11. Baina zazpigarren urtean utziko duzu eta phausaraziko, zure populuko erromesek jateko aurki dezatentzat, eta ihiziek ondarrak jan dezaten: orobat eginen duzu zure mahastian eta olibadian.
12. Sei egunez hariko zare lanean: zazpigarrenean geldituko zare, zure idia eta astoa phausa ditezentzat: eta zure neskatoaren semea eta arrotza freska diten.
13. Begira zatzue ene erran guziek. Ez duzue zin eginen jainko atzeen izenaz, eta hura ez bedi athera zuen ahotik.
14. Hirur aldiz urthe bakhotxean bestak niri zelebratuko daroztatzue.
15. Ogi airisen besta-burua idukiko duzu, zazpi egunez janen duzu ogi airisa, manatu izan darotzudan bezala, fruitu berrietako hilabetearen mugan, zeinetan Egiptotik ilkhi baitzare: etzare ene aitzinean eskuak hutsik agerturen.
16. Idukiko duzu uztako, eta zure laneko pikainen, eta landetako eraintza guzien besta-burua, eta urthe-ondarreko besta-burua ere, zure landako fruitu guziak bildu dituzketzunean.
17. Urtean hiruretan zure gizonki guziak agertuko dira zure Jainko Jaunaren aitzinera.
18. Ez duzu imolatuko ene bitimaren odola altxagarriaren gainean, eta ene besta-buruko urina ez da egonen goiza arteo.
19. Zure lurteko fruituen pikainak ekharriko dituzu zure Jainko Jaunaren etxera. Ez duzu pittika erreko bere amaren esnean delarik.
20. Huna non igorriko dudan ene aingerua, zeina zure aitzinean ibiliko baita, eta bidean begiratuko baitzaitu eta sarraraziko nik xuxendu darotzutan lekhu.
21. Gur zakizko, eta entzun zazu haren boza, haren erdeinatzaera ez abia; zeren bekhatu hortara erortzen zarenean, ez darotzun barkhatuko, eta haren baithan den ene izena.
22. Entzuten baduzu ene boza, eta nik diotzadan guziak egiten, zure etsaien etsai izanen naiz, eta nahigabe ematen darotzutenei nahigabe emanen diotet.
23. Eta ene aingerua goanen da zure aitzinean, eta sarraraziko zaitu Amorhearraren baithan, eta Hethearraren, eta Pherezearraren, eta

- Kananearraren, eta Hebearraren, eta Jebusearraren baithan, eta zathituko ditut nik.
24. Ez dituzu adoratuko hekien jainkoak, ez-etare zerbitzatuko: etzare hekien lanetan hariko, baina ezeztaturen dituzu, eta hautsiko hekien moldeak.
25. Zerbitzatuko duzue zuen Jainko Jauna, benedika detzatzuedantzat zuen ogia eta zuen ura, eta gaitza khen dezadan zuen artetik.
26. Ez da zure lurtean izanen, ez emazte sabel aberatseko izanen ez denik, ez-etare agorrik: osatuko ditut zure bizitzeko egunak.
27. Ene ikhara igorriko dut goan dadien zure aitzinean eta hilen dut edozein jendaki zeinen baithan sarthuko baitzare; eta ihes zure aitzinean eraginen diotet zure etsai guziei:
28. Lehenik igorriko listorak, zeinek Hebearra, eta Kananearra, eta Hethearra ihes bidaliko baitituzte, zu sarthu aitzinean.
29. Ez ditut lehen urtean zure aitzinetik khenduko, lurra ez dadientzat larre goan, eta ihiziak ez ditezen zure kontra popula.
30. Emeki-emeki iraziko ditut zure aitzinetik, popula zaitezen eta lurra bethe dezazun arteo.
31. Zure zedarriak ezarriko ditut itsaso Gorritik, Palestindarren itsasoraino, eta mortutik hibaieraino: zuen eskuetara emanen ditut lur hartako egoiliarak, eta iraziko ditut zuen aitzinetik.
32. Ez duzu hekiekin batasunik eginen, ez-etare hekien jainkoekin.
33. Ez beitez egon zure lurtean, beldurrez-eta ene kontra bekhatu eginaraz dezazuten, hekien jainkoak zerbitzaten badituzu: hori bailitake segurki zuretzat gaizbidetan.

#### XXIV. KAP.

1. Moisi halaber erran zioen: Igan zaizte Jauna gana, zu, Aaron, Nadab, Abiu, eta Israelgo hirur hogoi eta hamar zaharrak, eta adoratuko duzue urrundik.
2. Eta Moise iganen da bakharrak Jauna ganaino, eta bertzeak etzaizkio hurbilduko: eta populua ere ez da iganen harekin.
3. Moise ethorri zen beraz eta populu guziari ekharri ziozkan Jaunaren hitzak eta erabakiak: eta populu guziak ihardetsi zuen boz batez: Eginen ditugu Jaunak erranak oro.
4. Bada, Moisek iskribuz eman zituen Jaunaren solas guziak; eta goizik jaikirik, aldare bat egin zuen mendi beherean, eta hamabi orhoipeneko harri landatu zituen Israelgo hamabi leinuen arabera.



5. Eta igorri zituen Israelgo gizon-gazteak; eta eskaini zituzten holo-kaustak, eta Jaunari imolatu aratxeak, bakezko bitimak.

6. Eta Moisek hartu zuen odolaren erdia eta xata batzuetan ezarri zuen: eta gainerakoa ixuri zuen aldare gainera.

7. Eta harturik legeko liburua, irakurtu zuen populuak entzuten zuelarik, eta orok ihardetsi zuten: Jaunak erran guziak eginen ditugu, eta ethordun izanen gare.

8. Beraz Moisek odola hartu eta ixuri zuen populuaren gainera, eta erran zuen: Hau da Jaunak zuekin egin duen batasuneko odola, erran haukien guzien gainean.

9. Eta Moise eta Aaron, Nadab eta Abiu, eta Israelgo hirur hogoi eta hamar zaharrak igan ziren.

10. Eta ikhusi zuten Israelgo Jainkoa, eta haren oinpekoa, zafirrezko tresna bat iduri zuena, eta zerua arraso denean bezala.

11. Eta Jainkoak etzituen bere eskuaz jo Israelgo semeetarik urrun aitzinago heldu izan zirenak, eta Jainkoa ikhusi zuten, eta jan zuten, eta edan zuten.

12. Bada Jaunak erran zioen Moisi: Igan zaite hunat, ene gana mendi gainera, eta zaude hemen: eta emanen darozkitzut harrizko lauzak, eta legea eta manamenduak iskribatu ditudanak irakhats detzatzuntzat populuari.

13. Xutitu ziren Moise eta Josue, horen zerbitzaria: eta igaiten zelarik Jainkoaren mendira, Moisek

14. Zaharrei erran zioeten: Begira hemen zaudete zuetara bihur gaitezen arteo. Aaron eta Hur izanen dituzue zuekin. Makhurrik sortzen bada, horiei begiratuko zarete:

15. Eta Moise igan zenean, lanhoak estali zuen mendia.

16. Eta Jaunaren gloria egotu zen Sinaiaren gainean, sei egunez estaltzen zuela hedoi batez: eta zazpigarren egunean Jainkoak Moise deithu zuen lanhoaren erditik.

17. Bada, Jaunaren gloria mendiaren kasko gainean agertua zagoen, su-khalda bat iduri, Israelgo semeen begien aitzinean.

18. Eta Moise sarthurik lanhoaren erdira, mendi gainera igan zen: eta han egotu zen berrogoi gau-egunez.

## XXV. KAP.

1. Eta Jauna mintzatu zen Moisi, erraten zioelarik:

2. Errozute Israelgo semeei, ekhar detzatedan pikainak niri, eta hartuko dituzu bere oldetara ekharriko dituzten guzien ganik.

3. Bada, haukiek dira onetsi behar dituzunak: urhea, zilharra, eta kobrea,

4. Moredina eta purpura, eskarlata bietan thindatua, eta liho hauta, ahuntz-ilea,

5. Eta ahari-larruak gorritz thindatuak, eta larru gorrimoreak, eta setim zurak,

6. Olioa kriseluei argiarazteko, baltsamuak urrindatzeko, eta usain oneko isentsagaiak,

7. Oniz harriak eta bertze harri baliosetarik soingainekoaren eta bulharretakoaren ederztatzeke.

8. Eta eginen darotate saildutegi bat, eta egonen naiz horien artean,

9. Erakhutsiko darotzudan tabernaklearen eta han zerbitzatzeko untzien iduri osoaren arabera: hula eginen duzue.

10. Setimezko zurez egizue arkha bat, zeinaren luzetasuna izanen baita bi beso eta erdi, zabaltasuna beso bat eta erdi, goratasuna bardin beso bat eta erdi.

11. Eta barnetik eta kanpotik urheztatuko duzu urhe garbienetik: eta gainean eginen diozu urhezko khoro bat inguru guzian,

12. Eta lau urhe-erretun, arkharen lau izkinetan ezarriko dituzunak: bi erretun sahets batetik eta bia bertzetik.

13. Halaber eginen dituzu hagak setim zurez, eta urhez estaliko dituzu:

14. Eta sarthuko dituzu arkharen sahetsetan diren erretunetarik, arkha hekietan erabiltzekotzat.

15. Hagak egonen dira bethi erretunetan, eta ez dira hekietarik behin-ere atheratuko.

16. Eta arkhan ezarriko duzu nik zuri emanen darotzudan lekhukotasuna.

17. Eta eginen duzu propiziatorio bat urhe garbienetik: izanen da bi beso eta erdi luze, eta beso bat eta erdi zabal.

18. Orobat eginen dituzu urhe beratik bi kerubin propiziatorioaren bi buruetan.

19. Kerubin bat izan bedi sahets batean, eta bertzea bertzean.

20. Eta estal betzate propiziatorioaren bi sahetsak, hegalak hedatuz, eta oraklea itzaliz, eta elkharri begira bezate, begithartek itzuliz propiziatoriora zeinak estaliko baitu arkha,

21. Eta huntan ezarriko baituzu nik emanen darotzudan lekhukotasuna.

22. Eta handik manatuko dut, eta propiziatorioaren gainetik, eta lekhukotasuneko arkharen gainean izanen diren bi kerubinen artetik, erra-





nen darozkituz Israelgo semei, zure arartekoz, gaztiatuko diozkatedan guziak.

23. Eta setim zurez eginen duzu mahain bat, bi beso luze, beso bat zabal, eta beso bat eta erdi gora izanen dena.

24. Eta hura urhezkatuko duzu urhe garbietetik: eta eginen diozu inguruan urhezko ezpain bat,

25. Eta ezpainean berean khoroadura zizelatu bat lau erhi gora izanen dena, eta haren gainean bertze khoro bat urhezkoa.

26. Xuxenduko dituzu bertze lau urhe-erretzun eta ezarriko dituzu mahain beraren lau izkinetan zango bakhotxean.

27. Urhe-erretzunak izanen dira khoroaduraren azpiko aldean, hagak hekietan sartzeko, eta mahaina erabilia izan ahal dadientzat.

28. Eta hagak berak ere eginen dituzu setim zurez, eta inguratuko dituzu urhez mahainaren erabiltzeko.

29. Halaber urhe garbietetik eginen dituzu azpilak eta gorgoilak, isentsuntziak eta xatak zeinetan ezkaini behar baitira, libazioneak.

30. Eta ezarriko dituzu mahainaren gainean proposizioneko ogiak ene aitzinean bethi.

31. Urhe beratik eta garbietetik eginen dituztu ganderailu bat eta girthain, adar, xatatto, sagar eta hartarik ilkhiko direnak.

32. Sei adar atheratuko dira haren sahetsetatik, hirur batetarik eta hirur bertzetik.

33. Adar bakhoxka izanen dira hirur xatatto heltzauraren moldean bezala, eta sagar bat eta lili bat elkharrekin; eta orobat hirur xata heltzaur iduriak bertze adarrean, eta hekiekin sagarra eta lilia: hori izanen da girthainetik ilkhiko diren sei adarretako lana.

34. Bainan ganderailuak berak izanen ditu lau xata heltzaurra bezalakoak, sagarra eta lilia bakhotxarekin.

35. Hirur tokitan izanen dira hirur sagar zeinetarik ilkhiko baitira bakhotxetik bi adar, orotara sei, girthain beretik atherako direnak.

36. Eta sagarrak beraz eta adarrak batetarik izanen dira, guziak urhe garbietetik mailukatuak.

37. Eginen dituzu zazpi kriselu ere, eta ezarriko dituzu ganderailuaren gainean, parrean-par argi dezatentzat.

38. Halaber eginen dituzu muketak, eta mukiaren hil-tokiak urhe garbietetik.

39. Ganderailuak bere untzi guziekin pisu izanen du talendu bat urhe garbietetik.

40. Begira zazu, eta egizu mendi gainean zuri erakhutsi moldearen arabera.

## XXVI. KAP.

1. Bada, huneletan eginen duzu tabernaklea: hamar erridau liho hari bihurtuzkoak, moredinez eta purpuraz eta eskarlata bi aldiz thindatuz eginen dituzu, eta lorekatzailearen eskuz mudantzatuak.

2. Erridau bakhotzak izanen ditu hogoi eta zortzi beso luze, eta lau zabalean. Oihaleria hori guzia izanen da neurri berekoa.

3. Bortz erridau izanen dira elkharri lothuak eta bertze bortz elkharri iratxikiren dira molde berean.

4. Ezarriko diozkatzute moredin lokharriak bi sahetsetarik eta bazterretan, elkharri iratxik ahal ditezentzat.

5. Erridauak izanen ditu bazter bakhotxetik berrogoi eta hamar lokharri, halako molde sarthuak, non lokharria lokharriaren parrean ethorriko baita, bata bertzeari iratxikiko ahal den bezala.

6. Eginen ere dituzu berrogoi eta hamar urhe-erretzun, zeinetaz erridauen oihalak elkharri lothuko baitira, tabernakle bakhar bat egin dadientzat.

7. Eginen dituzu bertzalde hameka saihal ahuntz-ilez, tabernakle gainaren estaltzeko.

8. Bakharrak izanen ditu hogoi eta hamar beso luzera, eta lau zabalea; eta neurri bera izanen dute guziek.

9. Hekietarik bortz elkharri batuko dituzu andana batean, eta sei elkharri iratxikiren dituzu, seigarrena gainetik aitzin-aldera jautsaraziko duzun bezala.

10. Eginen dituzu berrogoi eta hamar lokharri saihal bakharraren bazterretan, bertzeari loth ahal dadientzat: eta berrogoi eta hamar lokharri bertze saihalaren bazterretan lehenbizikoari iratxik ahal dadientzat.

11. Eta eginen dituzu berrogoi eta hamar hersgailu kobrezkoak, zeinetaz iratxikiak izanen baitira lokharriak, estalgi guzietarik bat bakharra eginen den bezala.

12. Eta tabernaklearen gaina estaliko duten saihal hekietarik gelditzen dena, hura baita saihal bat gainerako, haren erdiaz estaliko duzu tabernaklearen gibela.

13. Eta saihalen luzetasunaren soberakinetik beso bat dilindan izanen da alde batetik eta bertze hainbertze bertze aldetik, tabernaklearen bi sahetsak begiratzen dituztela.



14. Eta gainari eginen diozu bertze estalgi bat ahari-larru gorrituz; eta haren gaineko berriz bertze estalgi bat larru moregorriz.

15. Eta eginen dituzu oholak setim zurez tabernakleari xutik ezartzeko,

16. Hekietarik bakhotxak izanen dituen bezala hamar beso luzera eta beso bat eta erdi zabalera.

17. Oholek sahetsetan izan betzate bi mihi, zeinen bidez ohol bat iraxikiko baita bertzeari.

18. Hekietarik hogoi izanen dira eguerdi-aldetik zeina itzulia baita hegoara.

19. Urthuko dituzu berrogoi zango zilharrezko, bi zango ezarriak izan ditezentzat ohol bakhotxaren azpian bi izkinetan.

20. Tabernaklearen bigarren sahetsetik ere zeina ipharrari baitago, izanen dira hogoi ohol,

21. Hogoi zango izanen dituztenak, bi zango ohol bakhotxaren azpian.

22. Bainen tabernaklearen mendebalaldetik eginen dituzu sei ohol,

23. Eta berriz bertze bia izkinetan xutik ezarriak izanen direnak tabernaklearen gibelean.

24. Eta elkhari josiak izanen dira azpitik gaineraino, eta uztardura batek idukiko ditu guziak. Izkinetan ezarri behar diren oholei ere baliatuko zaiote molde bereko iraxikidura bat.

25. Eta orotara izanen dira zortzi ohol eta hamasei zango, bi zango ohol bakhotxaren azpian.

26. Eta eginen dituzu setim zurez bortz haga, tabernaklearen sahets bateko oholen idukitzeko,

27. Eta bertze bortz bertze sahetseko, eta bertze hainbertze mendebal-aldeko;

28. Eta ezarriak izanen dira oholen trebesean buru batetik bertze bururaino.

29. Halaber urhezkatuko dituzu ohol hekiek, eta urthuko dituzu hekietan urhe-errezkunak, zeinen bidez hagek atxikiko baitituzte oholak; hagak estaliko dituzu urhe-xafraz.

30. Eta xutik ezarriko duzu tabernaklea, mendi gainean erakhusia izan zaitzun molde bezala.

31. Eta eginen duzu bela bat moredin, eta purpura eta eskarlata, bietan thindatuz, eta liho hari bihurtuz, lorekatzailearen eskuz eta mudantza ederrekin ehoa.

32. Hura dilindan ezarriko duzu setim zurezko lau habeen aitzinean; habeak berak urhezkatuak izanen dira; buruak izanen dituzte urhez, bainen oinak zilharrez.

33. Eta bela izanen da errezkunaz lothua, haren erdian ezarriko duzu lekhukotasuneko arkha, eta harek bereziko du saindutegia, saindu-saindutegitik.

34. Eta propiziatorioa ezarriko duzu lekhukotasuneko arkha gainean sainduren sainduan;

35. Eta mahaina belatik kanpo; eta mahainaren parrean ganderailua, tabernaklearen eguerdi-aldetik; mahaina ezen ipharretik izanen da.

36. Bertze bela bat eginen duzu tabernaklearen sartzean, moredin, purpura, eskarlata bietan thindatu eta liho hari bihurtuz, lorekatzailearen eskuz,

37. Eta urhezkatuko dituzu setim zurezko bortz habe, zeinen aitzinean ezarriko baita bela; eta habeen buruak izanen dira urhez, eta oinak kobrez.

## XXVII. KAP.

1. Eta setim zurez eginen duzu aldare bat, bortz beso luze izanen dena, eta bertze hainbertze zabal, erran nahi da, luze bezain zabal, eta hirur beso gora.

2. Eta adarrak ilkhiko dira haren lau izkinetarik, eta hura kobrez estaliko duzu.

3. Eta haren zerbitzuko eginen dituzu untziak hautsen altxatzeko, eta trukesak, eta suhatsak, eta su-untziak; tresna horiek oro eginen dituzu kobrez.

4. Eginen duzu berriz krisel bat zare moldean, zeinak lau izkinetan izanen baititu kobre-errezkunak.

5. Aldareko sutegiaren azpian ezarriko dituzu: eta krisela ethorriko da aldarearen erditaraino.

6. Eta aldarearentzat bi haga eginen dituzu setim zurez; kobrez estaliko dituzu.

7. Eta sarthuren dituzu aldarearen bi sahetsetako errezkunetan haren erabiltzeko.

8. Aldarea eginen duzu ez barne bethearekin, bainen barne huts eta kopatuarekin, mendian erakutsi zaitzun bezala.

9. Eta eginen duzu tabernaklearen lorioa, zeinak izanen baititu eguerdiko aldetik liho hari bihurtuzko erridauak; alde bakharra izanen da ehun beso luze.



10. Ezarriko diozkatzu hogoi habe beren oinekin, oro kobrez, eta buruak beren edergailuekin izanen dituzte zilharrez.

11. Orobat ipharreko aldetik erridauak izanen dira ehun beso luze, hogoi habe eta bertze hainbertze oin kobrezko, eta buruak beren edergailuekin zilharrezkoak.

12. Eta mendebalera begira dagoen lorioaren luzetasunean izanen dira berrogoi eta hamar besoko erridauak, hamar habe, bertze hainbertze oinekin.

13. Iguzki-atheratzeko aldeari begiratzen duen lorioaren luzetasunean izanen dira berrogoi eta hamar beso.

14. Hekietan ezarriko dira hamabortz besoko erridauak alde batetik, hirur habe eta bertze hainbertze oin.

15. Eta bertze aldetik ere izanen dira hamabortz besoko erridauak, hirur habe eta bertze hainbertze oin.

16. Bainan lorio sartzean eginen da hogoi besoko erridau bat moredinez, purpuraz, eskarlata bietan thindatuz eta liho hari bihurtuz, lorekatzailerearen eskuz: habeak izanen ditu lau, bertze hainbertze oinekin.

17. Lorioko habe guziak izanen dira zilhar-xaflaz inguratuak, buru zilharrezkoekin eta kobrezko oinekin.

18. Lorioak luzetasunean hartuko ditu ehun beso, zabaltasunean berrogoi eta hamar, goratasunean bortz: oihaleria izanen da liho hari bihurtuz, eta oinak kobrezkoak.

19. Kobrez eginen dituztu tabernakleko untzi guziak zerbitzu eta zeremonia guzietako, eta hartako hesaulak nola loriokoak ere orobat.

20. Israelgo semeei mana zozute ekhar dezazuten oliba ondoetako olio garbientetik xurruan ehorik, kriseluak biztuak egon ditezen bethi,

21. Lekhukotasuneko tabernaklean, lekhukotasuna gordetzen duen oihalaren aitzinean. Eta Aaronek eta bere semeek ezarriko dute hura, goiza arteo argi dezantzat Jaunaren aitzinean. Gur horrek iraunen du bethi ondokoen-ondoko Israelgo semeetan.

### XXVIII. KAP.

1. Israelgo semeen artetik bil zatzu halaber zu gana Aaron zure anaia bere semeekin, aphezatasuneko eginbideak bethe ditzatedan: Aaron, Nadab, eta Abiu, Eleazar, eta Ithamar.

2. Eta zure anaia Aaroni eginen diozu aldagarri saindu bat ospearean eta edertasunaren ariaz.

3. Eta erranen diozute bihotzez zuhur diren guziei nik umotasuneko izpirituz bethe ditudanei, Aaroni egin detzotela aldagarriak, hekietan sainduetsirik bere eginbideak bethe detzantzat ene aitzinean.

4. Haukiek dira eginen dituzten soinekoak: bulharretakoa, soingainekoa, athorra eta athorra hertsia, burukoa eta gerrikoa. Soineko saindu horiek eginen diozkate Aaroni eta bere semeei, aphezatasuneko eginbideak bethe detzaten ene aitzinean.

5. Eta hartuko dituzte urhea, moredina, purpura, eskarlata bietan thindatua, eta liho ederra.

6. Eta lorekatuz eginen dute soingainekoa urhez, eta moredinez, eta purpuraz, eta eskarlata bietan thindatuz, eta liho hari bihurtuz.

7. Gaineko bi buruetan izanen ditu bi arteka, bata bertzeari dihoazek, batera bil ditezentzat.

8. Oihalaren ehodura ere eta lanaren mudantzadura guzia eginak izanen dira urhearekin, moredinarekin, purpurarekin, eskarlata bietan thindatuarekin, eta liho hari bihurtuarekin.

9. Eta hartuko dituzu bi oniz harri, eta hekietan bernuzatuko dituzu Israelen semeen izenak:

10. Sei izen harri baten gainean; eta gainerako seiak bertzean, hekien sort-lerroan.

11. Bernuzatzailearen eskuz eta harriginaren zizeladuraz bernuzatuko dituzu hekietan Israelen semeen izenak, harriak urhean sarthurik eta urhez bazterretan inguraturik.

12. Eta ezarriko dituzu soingainekoaren bi aldeetan, Israelen semeen orhoitzapenetan. Eta Aaronek ekharriko ditu hekien izenak Jaunaren aitzinean, bi sorbaldetan, orhoitzapena gatik.

13. Eta eginen dituzu urhezko gantxoak,

14. Eta bi gathetto urhe garbientetik, elkharri iratxikiak, zeinak gantxoetan sarthuko baitituzu.

15. Erabakiko bulharretakoa ere eginen duzu lorekaturik soingainekoaren ehodura bezala; urhez, moredinez, eta purpuraz, eta eskarlata bietan thindatuz, eta liho hari bihurtuz.

16. Lau izkinetakoa izanen da eta bikhuna: zehe bat izanen du nahiz luzara, nahiz zabalera.

17. Ezarriko diotzatzu lau harri lerro: lehenbiziko lerroan izanen da sardioa, topaza eta esmeralda;

18. Bigarreanean, eskarbukla, zafirra eta jaspea;

19. Hirugarrenean, ligura, agata eta ametista;



20. Laugarrean, krisolita, oniz harria eta beriloa. Urhean sarthuak izanen dira beren lerroaren arabera.
21. Eta izanen dituzte Israelen semeen izenak: hamabi izenak hekie-tan bernuzatuak izanen dira, bat harri bakhotxaren gainean, leinuak zain bere lerroan.
22. Bulharretakoari urhe garbietetik eginen diozkatzu gathettoak, elkharri datxikotenak,
23. Eta bi urhe-erretzun, bulharretakoaren gaineko bi mokoetan ezarriko dituztunak:
24. Eta urhe gatheak lothuko dituzu bulharretakoaren bazterretako erreztunei:
25. Eta gathe hekien beren mokoak sarthuko dituzu, bulharretakoari begira dagoen soingainekoaren bi sahetsetako gantxoetan.
26. Bertzalde eginen dituzu bi urhe-erretzun, ezarriko dituztunak bulharretakoaren behereko mokoetan, soingainekoaren aldera daudezin eta haren gibelari begiratzen dutenetan.
27. Eginen dituzu oraino bertze bi urhe-erretzun, ezarri beharko direnak soingainekoaren bi sahetsetan azpitik, bulharretakoaren behereko erreztunei begiratzen dutenetan, bulharretakoa soingainekoari loth ahal dadientzat.
28. Eta bulharretakoa iratxikiko da bere erreztunez soingainekoaren erreztunei moredinezko xerrenda batez, lot-gura xinterutu bat geldi dadientzat, eta bulharretakoa soingainekoaren ganik berez ahal ez dadien.
29. Eta Aaronek erabakiko bulharretakoan ekharriko ditu Israelen semeen izenak bere bulharren gainean, saildutegian sarthuko denean, bethiko orhoipentzat Jaunaren aitzinean.
30. Bada, ezarriko dituzu erabakiko bulharretakoaren gainean Irakhaspena eta Egia, zeinak izanen baitira Aaronen bulharren gainean, Jaunaren aitzinera sarthuko denean: eta ekharriko du bethi bere bulharren gainean Israelen semeen erabakia, Jaunaren aitzinean.
31. Eta soingainekoaren athorra eginen duzu guzia moredinez.
32. Haren erdian eta gainean izanen da buruarentzat sarbidea, eta sarbidearen bazterra ehoa inguruan egiten ohi den bezala soinekoen bazterretan, ez dadientzat errexki urra.
33. Eta athorra beraren azpitik, inguruan, eginen dituzu mingranak bezala moredinez, purpuraz eta eskarlata bietan thindatuz, arteetan xilintxe-kin,
34. Halako moldez non urhezko xilintxa bat izanen baita, eta gero mingrana bat, eta berriz ere urhezko xilintxa bat eta gero mingrana.

35. Eta Aaronek, bere karguko eginbideko, jauntziko du hura, harra-botsa entzun dadientzat saildutegian sartzen denean Jaunaren aitzinera eta handik atheratzen denean, eta hil ez dadientzat.
36. Eta eginen duzu urhe garbietetik xafla bat, zeintan bernuzaria-ren eskuz bernuzatuko baituzu, Saildutasuna Jaunari.
37. Eta hura moredinezko xingola batez lothuko duzu, eta burukoa- ren gainean izanen da,
38. Aphez-handiaren belhar aitzinean. Eta Aaronek ekharriko ditu Israelgo semeek egin gaizki guziak eskaintzen eta sailduesten dituzten emaitza eta dohain guzietan. Eta xafla izanen da bethi haren belharrean, Jauna jabol dakiotentzat.
39. Eta liho hariz eginen duzu athorra hertsia, eta burukoa ere liho hariz, eta gerrikoa lorekatzailearen eskuz.
40. Bada, xuxenduko diozkatzute Aaronen semeei liho harizko athor-rak, gerrikoak eta burukoak, ospearean eta edertasunaren ariaz.
41. Eta horiek oro jauntziko diozkatzute zure anaia Aaroni, eta haren semeei harekin batean. Eta guzien eskuak kontsekratuko dituzu, eta berak sailduetsiko dituzu, apheztasuneko eginbideak bethi detzaten ene aitzinean.
42. Eta eginen ditutzu galtza motxak liho hariz gerritik ixterretarai- no gorde diotzatatentzat itsusi diren alderdiak.
43. Eta Aaronek eta haren semeek hekiek erabiliko dituzte, lekhuko- tasuneko tabernaklean sarthuko direnean, edo aldareari hurbiltzen dire- nean, saildutegiko eginbideen bethetzera, beldurrezeta gaizkiz hobendun hil ditezen. Hori lege izanen da Aaronentzat eta haren ondotik haren semeentzat bethi guzian.

## XXIX. KAP.

1. Eta bada, huna zer eginen duzun hekiek niri apheztasunean kon- tsekratzeko. Har zazu aratxe bat arthaldetik eta bi ahari nothagabeak,
2. Eta ogi airisak, ogi ehigor bat, altxagarrigabea eta olio- z bustia, ophilak ere airisak eta olio- z bustiak: oro eginen dituzu ogi-irin ederrenetik:
3. Eta saski batean ezarriko eskainiko daroztatuz: eta erakharriko ditutzu aratxea ere eta bi ahariak.
4. Eta lekhukotasuneko tabernaklearen sartzera hurbilaraziko ditutzu Aaron eta bere semeak. Eta urean garbitu dukezunean aita bere semeekin,
5. Aaroni jauntziko diotzatzu bere soinekoak, erran nahi da athorra hertsia, athorra, soingainekoa eta bulharretakoa, gerrikoaz lothuko duzuna.



6. Eta ezarriko duzu burukoa haren buruan, eta xasta saildua burukoan.
7. Eta gantzudurako olioia ixuriko duzu haren buru gainera, eta hola-ko moldez sakratua geldituko da.
8. Haren semeak ere hurbilaziko dituzu, eta jauntziko diotzatzute liho harizko athorrak, eta gerrikoaz inguratuko dituztu,
9. Erran nahi da Aaron eta bere semeak, eta burukoak ezarriko diotzatzute: eta ene aphez izanen dira, ohoreak niri bihurtzeko bethi. Hekien eskuak gantzutu ditukezun ondoan,
10. Aratxea ere hurbilduko duzu lekhukotasuneko tabernaklearen aitzinera. Eta Aaronen eta bere semeek eskuak ezarriko dituzte haren buruaren gainean,
11. Eta hura hilen duzu Jaunaren aitzinean, lekhukotasuneko tabernaklearen sartzean.
12. Eta aratxearen odola harturik, zure erhiaz hartarik ezarriko duzu aldareko adarretan, eta gainerako odola ixuriko duzu aldarearen oinetan.
13. Sabel-barnea estaltzen duen gizen guzia, eta gibelaren sarea, eta bi gibelerraiak, eta hekien gainean den gizen guzia hartuko dituztu, eta eskainiko duzu isentsua aldarearen gainean.
14. Bainan aratxearen haragiak, larrua, eta gorotza kanpetarik kanpoan erreko dituztu, zeren hori bekhatuaren alderat emana baita.
15. Hartuko duzu ahari bat ere, zeinaren buru gainean Aaronen eta bere semeek ezarriko baitituzte eskuak.
16. Hura hil dukezunean, hartuko duzu haren odoletik eta ixuriko duzu aldarearen inguruan.
17. Gero aharia zathitan ezarriko duzu: eta sabela garbiturik eta zangoak ezarriko dituztu haragi zathituen eta buruaren gainean.
18. Eta aharia oro eskainiko duzu aldarearen gainean erre: hori da Jaunari dihoakoen eskaintza, Jaunaren bitimaren usain gozoena.
19. Hartuko duzu bertze aharia ere, zeinaren buru gainean Aaronen eta bere semeek eskuak ezarriko baitituzte.
20. Hura imolatu dukezunean, hartuko duzu haren odoletik, eta ezarriko Aaronen eta haren semeen eskuineko beharri mokoan, eta hekien eskuineko eskuaren eta eskuineko zangoko erhi-pototsen gainean, eta odola ixuriko duzu aldare gainean inguruan.
21. Eta hartu ondoan aldare gainean den odoletik, eta gantzudurako oliotik, ihinzatuko dituztu Aaron eta bere soinekoak, semeak eta beren soinekoak. Hekiek eta hekien soinekoak kontsekraturik,

22. Hartuko duzu ahariaren bilgorra, eta buztana, eta alderdiak estaltzen dituen bilgorra, eta gibelaren sarea, eta bi gibelerraiak, eta hekien gainean den bilgorra eta eskuineko sorbalda, zeren-eta hura den kontsekratzioneko aharia:
23. Eta hartuko dituztu ogi zathi bat, ogi xigor olioiz bustia, ophil bat airisetako saskitik, zeina baita ezarria Jaunaren aitzinean.
24. Eta ezarriko dituztu guziak Aaronen eta bere semeen eskuetan, eta hekiek sailduetsiko dituztu Jaunaren aitzinean altxatuz.
25. Gero hartuko dituztu oro hekien eskuetarik, eta erreko dituztu aldare gainean holokaustatzat, usainik gozoena atheratzeko Jaunaren aitzinean, zeren-eta hori baita harenganako eskaintza.
26. Hartuko duzu halaber ahariaren bulhar aitzina, Aaronen kontsekratzeko baliatu dena, eta sailduetsiko duzu Jaunaren aitzinean altxaturik, eta hura eroriko da zure phartera.
27. Eta sailduetsiko dituztu kontsekratua izatu den bulhar aitzina, eta aharitik berezi duzun sorbalda,
28. Zeintaz kontsekratuak izatu baitira Aaron eta bere semeak, eta eroriko dira Aaronen eta haren semeen pharte, bethiko zuzenean, Israelgo semeen ganik: zeren hekien bitima bakezko Jaunari eskaintzen diozkatenen pikainak eta zathi hautak baitira.
29. Aaronen erabiltzen duen soineko saildua, haren semeek izanen dute haren ondotik, hartan gantzutu ditezentzat, eta hekien eskuak kontsekratu dituen.
30. Zazpi egunez erabiliko du hura Aaronen seme, haren ondotik aphez-handi ezarria izanen denak, eta lekhukotasuneko tabernaklean sartuko denak, bere eginbideen egiteko saildutegian.
31. Eta hartuko duzu kontsekratzioneko aharia, eta haren haragiak erreko dituztu lekhu sailduan.
32. Aaronen eta bere semeek janen dituzte. Halaber janen dituzte, tabernakleko sartzean saskian diren ogiak,
33. Sakrifizioa jabolgarri izan dadientzat, eta saildu ditezten eskaintzaileen eskuak. Arrotzak ez du hekietarik janen, sailduak direlaketz.
34. Baldin haragi kontsekratuetarik, edo ogietarik gelditzen balitz biharamun goiza arteo, ondarrak erreko dituztu: ez dira janak izanen, zeren sailduetsiak baitira.
35. Nik manatu guziak eginen dituztu Aaronen eta haren semeen gainean. Zazpi egunez kontsekratuko dituztu hekien eskuak.



36. Egun bakhotxean aratxe bat eskainiko duzu bekhatuarentzat haren xahutzeko. Eta aldarea garbituko duzu, imolatzen duzunean xahupeneko bitima, eta gantzuko sailduespenetan.

37. Zazpi egunez xahutuko eta sailduetsiko duzu aldarea, eta izanen da sailduren saildu: edozein hura ukituko duena, sailduetsia izanen da.

38. Huna zer eginen duzun aldarean: egun oroz hutsik gabe imolatu-ko ditutzu bi bildots urthekoak,

39. Bildots bat goizean, eta bertzea arratsean;

40. Eskainiko duzu bildots batekin, olio joarekin orhatua den irinaren hamargarrena, olio delarik hin baten laugarrena, eta arnotik neurri bera libazionetako,

41. Eta bertze bildotsa eskainiko duzu arretsaldean goizeko eskaintzako molde berean, eta erran dugunaren arabera gozotasuneko usainetan.

42. Hori da Jaunaganako sakrifizio eskainiko duzuen bethi ondoko-ondoko, lekhukotasuneko tabernakle sartzean Jaunaren aitzinean, non-ere zuri mintzatzera ethorriko bainaiz.

43. Han emanen diotzatet ene manuak Israelgo semeei, eta aldarea sailduetsia izanen da ene ospean.

44. Sailduetsiko dut lekhukotasuneko tabernaklea ere aldarearekin, eta Aaron bere semeekin, aphezetasuneko eginbideak bihur detzatedan niri.

45. Eta ene egoitza eginen dut Israelgo semeen erdian, eta izanen naiz hekien Jainkoa:

46. Eta jakinen dute ni naizela hekien Jainko Jauna, hekiek Egiptoko lurretik atheratu ditudana, hekien artean egoteko, ni beren Jainko Jauna.

### XXX. KAP.

1. Setim zurez eginen duzu aldare bat baltsamuen erretzeko,

2. Duelarik beso baten luzetasuna, eta bertze baten zabaltasuna, erran nahi da luze bezain zabala; eta izanen da bi beso gora. Adarrak ilkhiko dira hartarik beretik.

3. Eta urhe garbienarekin estaliko dituzu hura, hala haren gaina, nola lau sahetsak inguruan eta adarrak. Eta eginen diozu urhezko khoro bat birundan,

4. Eta bi urhe-erretzun khoroaren azpian bi aldeetarik, hekietan hagak sartzeko eta aldarearen erabiltzeko.

5. Haga hekiek ere setim zurez eginen dituzu eta urheztatuko.

6. Eta aldare hori ezarriko duzu lekhukotasuneko arkharen aitzinean jausten den belaren parrean, propizatorioaren aitzinean, zeinak estaltzen baitu lekhukotasuna, non-ere zuri mintzatu bainatzaitzu.

7. Eta Aaronek urrin gozoa igortzen duen isentsua erreko du goitzetan haren gainean. Kriseluak xuxentzen ditueanean erreko du hura.

8. Eta arratsean hekiek bizten ditueanean, isentsua erreko du, Jaunaren aitzinean, eta hori ondokoen-ondoko eginen duzue bethi guzian.

9. Ez duzu aldare horren gainean eskainiko bertze moldeko baltsamurik, ez-etare eskaintza eta bitimarik, eta libazionerik ez duzu eginen.

10. Eta urthean behin Aaronek errekeimenduak eginen ditu horren adarren gainean, bekhatuarentzat eskainirikako odolean, eta Jauna ematu-ko du horren gainean zuen ondoregoaren alderat. Hori sailduren saildu izanen zaio Jaunari.

11. Jauna mintzatu zitzaioen oraino Moisi, erraten zioelarik:

12. Altxatu dukezunean zenbat diren Israelgo semeak beren non-brearen arabera, bakhotxak bere arimaren saria emanen dio Jaunari; eta khondatuak izanen direnaz geroztik, ez da hekietan zauririk atherako.

13. Khondutan hartuak izanen diren guziek, emanen dute siklo erdi bana tenploko neurriaren arabera. Sikloak hogoi obola ditu. Siklo erdia eskainiko zaio Jaunari.

14. Khondutan sarthuak diren, hogoi urthetako eta handik goitiko-ek, emanen dute beren saria.

15. Aberatsak ez dio siklo erdiari berhatuko, eta beharrak ez dio bate-re gutituko.

16. Eta Israelgo semeen ganik altxaturikako dirua harturik, ezarriko duzu lekhukotasuneko tabernaklearen zerbitzuko, hekien orhoipenetan izan dadientzat Jaunaren aitzinean, eta balia dakioten hekien arimei.

17. Eta Jauna mintzatu zitzaioen oraino Moisi, erraten zioelarik:

18. Halaber eginen duzu kobrezko untzi bat bere azpikoarekin, hartan garbitzekotzat: eta hura ezarriko duzu lekhukotasuneko tabernaklearen eta aldarearen artean. Eta urez bethe ondoan,

19. Aaronek eta bere semeek hartan garbituko dituzte beren eskuak eta oinak,

20. Lekhukotasuneko tabernaklean sarthu behar direnean, eta hur-biltzekotan direnean aldarera, hartan Jaunari baltsamuen eskaintzekotzat,

21. Beldurrez-eta hil ditezen. Manamendu hunek iraunen du bethi guzian Aaronentzat eta haren odoletikakoentzat ondokoen-ondoko.

22. Eta Jauna mintzatu zen berriz Moisi,



23. Erraten zioelarik: Har zatzu baltsamuak, mirra lehenbizikotik eta hautatik bortz ehun siklo, zinamomatik erdia, erran nahi da berrehun eta berrogoi eta hamar siklo, eta khanaberatik orobat berrehun eta berrogoi eta hamar siklo,

24. Kanelatik bortz ehun siklo, saindutegiko phisura, eta oliba oliotik hin baten bethe.

25. Eta gantzutzeko olio saindu bat eginen duzu, baltsamu bat baltsamuginaren eskuz;

26. Eta hartaz gantzutuko dituzu lekhukotasuneko tabernaklea eta lekhukotasuneko arkha,

27. Eta mahaina bere untziekin, eta ganderailua bere tresnekin, eta baltsamuetako aldarea,

28. Eta holokaustetako eta Jaunaren eginbidetan erabiltzen diren puska guziak.

29. Eta sainduetsiko dituzu oro, eta izanen dira sainduen saindu: hekiek ukituko dituenain saindutua izanen da.

30. Gantzutuko dituzu Aaron eta bere semeak eta sainduetsiko dituzu, ene aitzinean bethe detzatentzat aphezatasuneko eginbideak.

31. Erranen ere diozute Israelgo semeei: Gantzutzeko olio saindu hori enetzat izanen da begiratua zuen ondore guziez.

32. Ez da gizonaren haragirik hortarik gantzutuko, eta hori bezala ez duzue bertzerik aphainduko, ezen sainduetsia da, eta saindu izanen da zuentzat.

33. Edozein gizon holakorik aphainduko duena, eta arrotzari emanen dioena, xahutua izanen da bere populuaeren erditik.

34. Eta Moisi erran zioen Jaunak: Har zatzu baltsamuak, estaktea eta oniza, galbano usain gozokoa eta isentsu argiena: orotarik phisu bardina behar da,

35. Eta eginen darotazu baltsamu bat baltsamuginaren eskuz, arthatsuki nahasia, garbia, eta bere sainduespenak hainitz merezdun bihurtua.

36. Eta herrauts xehe-xehetan ezarri dituketzonean oro, hartarik emanen duzu lekhukotasuneko tabernaklearen aitzinean, ni agertuko natzaitzun tokian. Baltsamu hura izanen zaitzue sainduen saindu.

37. Halakorik ez duzue eginen zuentzat, zeren den saindu Jaunaren aitzineko.

38. Edozein gizon halakorik eginen duena, haren usainaren usnatze-ko, galduko da bere populutik.

### XXXI. KAP.

1. Jauna berriz ere Moisi mintzatu zitzaioen, erraten zioelarik:

2. Huna non bere izenez deithu dudan Beseleel, Urien semea, Uri baita Hurren semea, Judako leinutik;

3. Eta Beseleel bethe dut Jainkoaren izpirituz, zuhurtziaz, adimenduz eta lan orotako jakitatez,

4. Asmatzekotzat urhetik, zilharretik eta kobretik egin daitekeen edozein gaina,

5. Marmolatik, harri baliosetarik, eta zuhamu edozeintarik.

6. Eta lagun eman diot Ooliab, Akisameken semea, Danen leinukoa. Eta zuhurtzia ezarri dut langile jakin guzien bihotzean, nik zuri manatu guziak egin detzatentzat:

7. Batasuneko tabernaklea, lekhukotasuneko arkha, haren gainean den propiziatorioa eta tabernakleko untzi guziak;

8. Mahaina eta hartako untziak, ganderailua urhe garbienetik bere tresnekin, eta baltsamuetako aldarea;

9. Holokaustetako aldarea eta bere tresna guziak, garbitzeko untzia eta bere azpikoa;

10. Soineko sakratuak Aaron aphezarentzat eta bere semeentzat zere-  
monia sainduetan bethe detzaten aphezatasuneko eginbideak;

11. Gantzutzeko olio eta usain oneko baltsamuak tabernakleko: egin betzate nik zuri manatu guziak.

12. Jauna mintzatu zen oraino Moisi huneletan:

13. Mintza zaitte Israelgo semeei eta errozute: Artha emazue ene larunbataren begiratzeaz: hori da ezen zuen eta ene arteko seinalea gero-  
ko zuen ondorego guzian, jakin dezazuentzat ni naizela Jauna, zuek sain-  
duesten zaituztedana.

14. Begira zazue ene larunbata, zeren saindu izan behar zaitzue hura: hura narriotuko duena, heriotzez hilen da: norbait lanean haritzen bada egun hartan, haren arima galduko da bere populuaeren artetik.

15. Sei egunez hariko zare lanean: zazpigarren eguna da larunbata, Jaunari dagokioen phaisu saindua: nornahi egun hartan lanean hariko dena, hilen da.

16. Israelgo semeek begira bezate larunbata, eta besta bezate hura ondoko-ondoko. Bethiko patu bat da

17. Ene eta Israelgo semeen artean, eta bethiko seinale bat. Jaunak sei egunez egin ditu zeru-lurrak, eta zazpigarrenean lanetik baratu da.



18. Eta Jaunak, akhabaturik horrelako solasak Sinaiko mendi gainean, Moisi eman ziozkien lekhukotasuneko harlauzak, Jainkoaren erhiz iskribatuak.

### XXXII. KAP.

1. Bada, populuak ikhustenez Moisek luzatzen zuela menditik jaustea, bildu zen Aaronen kontra, eta erran zioen: Jaiki zaite, egin ditzagutzu jainkoak gure aitzinean ibiliko direnak: ezen ez dakigu zer gerthatu zaioen Moisi, Egiptotik atheratu gaituen gizon hari.

2. Eta Aaronen erran zioten: Zuen emazteen, eta semeen, eta alaben beharrietarik khen zatzue urhezko beharrietakoak, eta ekharzkitzue niri.

3. Eta populuak manatua egin zuen, Aaroni beharrietakoak ekhartzen zituelarik.

4. Hekiek hartu ondoan, Aaronen urtharazirik egin zuen aratxe bat, eta Israeldarrek erran zuten: Israel, huna zu Egiptoko lurretik ilkhi zaituzten zure jainkoak.

5. Aaronen ikhusi zuenean hori, aldare bat egin zuen aratxearen aitzinean, eta kridatzaile batez oihu eginarazi zuten: Bihar da Jaunaren bestaburua.

6. Eta goizean goizik jaikirik eskaini zituzten holokaustak eta bakezko bitimak, eta populua jarri zen jateko eta edateko, eta xutitu ziren dos-tatzeko.

7. Bada Jauna mintzatu zen Moisi, erraten zioelarik: Zoazi, jaustea zaite: Egiptotik atheratu duzun zure populuak bekhatu egin du.

8. Laster bastertu dira zuk erakhutsi izan diozuten bidetik: eta egin dute aratxe urthu bat, eta adoratu dute; eta bitimak imolatzeko dituztelarik, erran dute: Israel, huna Egiptoko lurretik ilkhi zaituzten zure jainkoak.

9. Eta berriz Jaunak erran zioen Moisi: Populu hori ikhusten dut buruz gogorra dela.

10. Utz nezazu, ene sumindura bitz dadien horien kontra, eta xahu detzadan, eta zu eginen zaitut populu handi baten buruzagi.

11. Bainan Moise othoizka zagoen bere Jainko Jaunari, erraten zioelarik: Jauna, zertako bizten da zure sumindura zure populuaren kontra, zeina Egiptoko lurretik atheratu baituzu, indar handiz eta esku hazkarraz?

12. Egiptoarrek, othoi, ez bezate erran: Amarruz ilkhi ditu horiek, mendietan hiltzekotzat eta lurretik xahutzeko: bara bedi zure sumindura, eta jabal zaite zure populuaren hoben beltzaren gainean.

13. Orhoit zaitezi Abraham, Isaak eta Israel, zure zerbitzariez, zeinei zin egin baitiozute zure buruaz, erranez: Populatuko dut zuen hazia zeru-

ko izarrak bezala: eta aiphatu darotzuetan lur hura guzia emanen diot zuen ondoregoari, eta hura gozatuko duzue bethi.

14. Orduan ematu zen Jauna, eta bere populuaren gainera erran izan zuen gaitza arthikitzetik gibelatu zen.

15. Eta Moise jautsi zen menditik, bere eskuan zakharzkiela lekhukotasuneko bi har-lauzak, bi aldeetarik iskribatuak,

16. Eta Jainkoaren eskuz eginak: iskribua ere Jainkoak bernuzatua zen lauzen gainean.

17. Josuek aditzearekin populuak marrumaka egiten zuen harraman-tza, erran zioen Moisi: Guduko garrasiak entzuten dira kanpetan.

18. Hunek ihardetsi zioen: Ez da hori gudura berotzaileen oihua, ez-etare ihes-igorleen deihadarra: bainan kantarien boza entzuten dut nik.

19. Eta hurbildu zenean kanpetara, ikhusi zituen aratxea eta dantzak: eta borthizki samurturik, arthiki zituen eskutik lauzak, eta hautsi zituen mendiaren oinetan:

20. Eta hekiek egin aratxea harturik, erre zuen eta jo herraustu arte; herrautsa arthiki zuen urera, eta hartarik edatera eman zioten Israelgo semeei.

21. Eta erran zioen Aaroni: Zer egin darotzu populu hunek, zuk jautsaraztekotzat hunen gainera bekhaturik handiena?

22. Aaronen ihardetsi zioen: Ez bedi hasarre ene jauna: zuk ezen populu hau ezagutzen duzu; badakizu gaizkira ekharria dela.

23. Erran izan darotate niri: Egizkigutzu jainkoak, gure aitzinean ibiliko direnak: ezen ez dakigu zer gerthatu zaioen, Egiptoko lurretik atheratu gaituen Moise hari.

24. Ihardetsi diotet: Zein da zuetan urheren jabe? Ekharri dute urhea eta eman darotate: nik arthiki dut sura, eta aratxe hau ilkhi da.

25. Moisek beraz ikhustenez populua buluzia zela (ezen Aaronen larrutu zuen hura izigarrikeria itsusi hartaz, eta buluzia ezarri etsaien erdian),

26. Xutik zagoelarik kanpetako athean, erran zuen: Jaunaren alde denik balin bada nihor, bil bedi ni gana. Eta haren gana bildu izan ziren Lebiren seme guziak.

27. Moisek erran zioten: Huna zer dioen Israelgo Jainko Jaunak: Gizonak ezpata ezar beza bere sahetsean; kanpen erditik zoazte eta bihur zaitezte athe batetarik bertzeraino, eta bakhotxak hil beza anaia, adiskidea eta bere laguna.

28. Eta Lebiren semeek egin izan zuten Moisen erranaren arabera, eta egun hartan hogoi eta hirur mila gizon bezalatsu hilak izan ziren.





29. Eta Moisek erran zuen: Egun Jaunari kontsekratu dioizkitzue zuen eskuak, zeinek bere semean eta anaian, benedikzione emana izan betzaitzuentzat.

30. Bada, biharamuna ethorri zenean, Moisek erran zioen populuari: Bekhaturik handienaz egin izan duzue bekhatu: iganen naiz Jauna gana, hea niholere ardiets othe dezakedan zuen izigarrikeriaren barkhamendua.

31. Eta bihurturik Jauna gana erran zioen: Othoizten zaitut, bekhaturik handienaz bekhatu egin du populu horrek, urhezko jainkoak egin izan ditu beretzat: baina barkha zozute hoben hori,

32. Edo ez baduzu egin nahi, ezezta nezazu iskribatu izan duzun zure liburutik.

33. Jaunak ihardetsi zioen: Zeinak ere bekhatu egin baituke ene alde-rat, hura ezeztatuko dut ene liburutik.

34. Baina zu zoaz, eta eramazu populu hori nik erran darotzudan lekhura: ene aingerua ibiliko da zure aitzinean. Eta nik jazarpeneko egunean bilhatuko dut horien bekhata.

35. Jaunak jo izan zuen beraz populu Aaronek egin zioen aratxearen bekhata gatik.

### XXXIII. KAP.

1. Eta Jauna mintzatu zitzaioen Moisi, erraten ziolarik: Zoazi; lekhu hortarik zu, eta Egiptoko lurretik erakharri izan duzun zure populua, igan zaitze, nik Abrahami, Isaaki eta Jakobi zinekin agindu izan diotedan lurre-ra, erranez: Zure ondoregoari emanen diot hori.

2. Eta ene aingerua igorriko dut zure aitzinean, eragotz detzadan Kananearra, eta Amorhearra, eta Hetbearra, eta Pherezearra, eta Hebearra, eta Jebusearra,

3. Eta esne eta ezti darioen lurrera sar zaitezentzat. Ezen ez naiz zurekin iganen, populu buru gogorrekoa zarelakotz: beldurrez-eta xahu zaitzadan bidean.

4. Solas borthitz hori aditzearekin, populua nigarrari eman zen: eta nihork etzituen jauntzi ohiko bere edergailuak.

5. Ezen Jaunak Moisi erran izan zioen: Errozute Israelgo semeei: Buru gogorreko populua zare; behin heldu banaiz zure erdira, xahutuko zaitut. Utzkitzu beraz orai berean zure edergailuak, jakin dezadan zer egin zuri.

6. Israelgo semeek utzi izan zituzten beraz beren edergailuak Horebgo mendiaren ondoan.

7. Moisek ere, tabernaklea harturik, jarri zuen kanpetarik urrun eta izendatu zuen patuko tabernaklea. Eta populuko guziak, zerbait galde egi-teko zutenak, kanpetarik ilkhitzen ziren patuko tabernaklera.

8. Eta Moise tabernaklera ilkhitzen zenean, jende guzia xutitzen zen, eta bakhotxa egoten zen xutik bere olhako sartzean, eta Moisi gibeletik begira, tabernaklean sar zedin arteo.

9. Eta hura tabernaklean sartu-eta, hedoi habea jausten zen, eta sartzean baratzen, eta Jauna mintzatzen zen Moisekin,

10. Orok ikhusten zutelarik hedoi habea landatua zagoela tabernakle-sartzean. Eta berak ere gelditzen ziren xutik, eta beren olhetako atheetarik adoran ematen ziren.

11. Eta Jauna Moisi mintzatzen zitzaioen bekhaz-bekho, gizon bat bere adiskideari mintzatzen ohi den bezala. Eta Moise tabernakletik kanpetara bihurtzen zenean, haren muthila, Josue gaztea, Nunen semea, etzen tabernakletik urruntzen.

12. Bada, Moisek erran zioen Jaunari: Manatu darotazu populu hau eramane dezadan hemendik, eta ez darotazu erakhusten nor igorri-gogo duzun enekin, nahiz erran izan darotazun: Ezagutzen zaitut zure izenez, eta grazia aurkhitu duzu ene aitzinean.

13. Baldin beraz grazia aurkhitu badut zure aitzinean, erakhuts dizadazu zure begithartea, ezagut zaitzadantzat, eta grazia aurkhi dezadan zure begien aitzinean: begi onez begira zozu zure populu jendetze huni.

14. Eta Jaunak erran zioen: Ene begithartea goanen da zure aitzinean, eta phausua emanen darotzut zuri.

15. Eta Moisek erran zioen: Ez bazare zu zeroni aitzinean ibiltzen, ez gaitzatzula ilkhiaz tuki huntarik.

16. Ezen zertarik jakinen ahal izanen dugu nik eta zure populuak grazia aurkhitu dugula zure aitzinean, ez balin bazare gurekin ibiltzen, ospatuak izan gaitezentzat lurraren gainean dauden populu guziez?

17. Bada, Jaunak erran zioen Moisi: Zuk galdatu hori ere egingen dut: ezen grazia aurkhitu duzu ene aitzinean, eta zeroni zure izenez ezagutzen zaitut.

18. Moisek erran zioen: Erakhuts dizadazu zure gloria.

19. Jaunak ihardetsi zuen: Erakhutsiren darozkitzut ontasan guziak, eta deithuko dut zure aitzinean Jaunaren izena: eta urrikari izanen dut nahi dudana, eta berati izanen naiz atsegin dudanaren alderat.

20. Eta Jaunak erran zuen oraino: Ezin ikhusiko duzu ene begithartea: ezen ni ikhusiko nauen gizona ez daiteke bizirik geldi.



21. Eta berriz ere erran zioen: Horra non den lekhu bat ene ikhusteko, eta egonen zare harriaren gainean.
22. Eta ene gloria iragaitean, ezarriko zaitut harri artean, eta ene esku eskuinak begiratuko zaitu iragan nadien arteo:
23. Gero altxatuko dut ene eskua, eta gibeletik ikhusiko nauzu: baina ezin ikhusiko duzu ene begithartea.

#### XXXIV. KAP.

1. Eta erran zuen gero: Xuxen zatzu bi har-lauza lehenekoak bezalakoak, eta hekien gainean iskribatuko ditut hautsi dituzun lauzek zituzten hitzak.
2. Goizik prest izan zaite, berehala Sinaiko mendira igaiteko, eta enekin egonen zare mendi gainean.
3. Nihor ez bedi igan zurekin, eta mendi guzian nihor ez bedi ager: idiaki ere eta ardiak ez beitez alha par hartan.
4. Moisek beraz ebaki zituen bi harlauzak lehenekoak izan ziren bezalakoak: eta gauaz jaikirik, igan zen Sinaiko mendira, Jaunak manatu izan zioen bezala, lauzak berekin zakhartzala.
5. Eta Jauna jautsi zenean hedoi baten erdian, Moise gelditu zen harekin, Jaunaren izena deitzen zuela.
6. Eta Jauna haren aitzinean iragaitean, erran zuen: Jaunen Jauna, Jainko Jauna, urrikalmendutsua eta beratia, jasankorra eta asko urrikalpenetakoa, eta zina,
7. Urrikalmendua begiratzin duzuna mila gizaldietaraino; gaixtake-riak, tzarkeriak eta bekhatuak ezeztatzen ditutzuna, zeinaren baithan nihor ez baita berenez hutsgabe; aiten gaizkia semei eta ilobasoei bihurtzen diotuzena, hirugarren eta laugarren belhauneraino.
8. Eta Moise laster gurthu zen ahuspez lurrera, eta adoratzin zuelarik,
9. Erran zioen: Jauna, grazia aurkhitu badut zure aitzinean, ibil zaite, othoi, gurekin (ezen populua buru gogorrekoa da), eta gure gaixtake-riak eta bekhatuak ezezta zatzu, eta har gaitzatzu zuretzat.
10. Jaunak ihardetsi zuen: Orok ikhusten dutela, eginen dut patu zurekin, eta eginen ditut sendagailak egundaino lurraren gainean ikhusi han ez direnak, ez-etare nihongo jendakietan: populu horrek, zeinaren erdian baitzare, ikhus dezantzat egitera nohan Jaunaren eginkari lazgarria.
11. Begira zatzu nik egun zuri manatzen darozkitzudan guziak: neronek eragotziko ditut zure begien aitzinean Amorhearra, eta Kananearra, eta Hethearra, eta Pherezearra ere, eta Hebearra, eta Jebusearra.

12. Lur hortako egoiliarrekin adiskidantzarik behin-ere egitetik begira zaite, zeren hori zure galgarri bailitate:
13. Bainan hekien aldareak eragotz zatzu, jainko-moldeak zathika eta lukuak ondolik ebaki.
14. Beira zaite jainko arrotzik adoratzetik. Jaunak ekhartzen du beka-zaizkorren izena, maithatua bakharrik izateaz ardura hartzen du.
15. Etzazula toki hekietako gizonekin batasunik egin; beldurrez-eta, beren jainkoekin lohitu diren ondoan, eta hekien itxurak adoratu dituzketenean, norbaitek deith zaitzan haragi imolatuatarik jatera.
16. Hekien alabetarik emaztetzat zuen semei ez diozue onhetsiko: beldurrez-eta, beren buruak neskatzek lohitu dituzten ondoan, lohiarzat detzaten beren jainkoetan zuen semeak.
17. Ez duzu jainko urthurik eginen.
18. Airisetako besta-burua idukiren duzu. Zazpi egunez, uzta berrietako hilabetheko mugan, janen duzu ogi airisa, manatu izan darotzudan bezala:
19. Amaren sabela lehenbizikorik idekitzen duen muthikokia, enea izanen da; azienda guzietako orotsa, nahiz abel-gorrietarik, nahiz ardiatarik, enea izanen da.
20. Ardiak berrerosiko duzu astoaren lehen ume orotsa: bainan haren ordaina ematen ez baduzu, bera duzu hilen. Zure seme zaharrena berrerosiko duzu: eta etzare ene aitzinean eskuak hutsik agertuko.
21. Sei egunez lanean hariko zare, zazpigarren egunean geldituko zare irauldetik eta biltzetik.
22. Asteetako besta-burua eginen duzu ogi biltzetako fruituen pikainak eskainiz, eta uzta eginen besta, urthe berriko mugan guziak biltzen direnean.
23. Urtheke hirur ordutan zure gizonki guziak agertuko dira Israelgo Jainko Jaun guziz-ahaldunaren aitzinera.
24. Ezen jendaiak zure aitzinetik eragotzi ditukedanean, eta zure mugak zabaldu ditudan ondoan, nihork ez du zimarkhurik baliatuko zure lurraren gainean, urthean hirerutan igaiten bazare eta agertzen zure Jainko Jaunaren aitzinera.
25. Ez duzu ene bitimaren odola altxagarriaren gainean imolatuko, eta Bazko besta-buruko bitimatik ez da biharamun goiza arteo geldituren.
26. Zure lurreko fruituen pikainak eskainiko dituzu zure Jainko Jaunaren etxean. Ez duzu pittika erreko bere amaren esnean delarik.
27. Eta Jaunak erran zioen Moisi: Iskriba zatzu solas horiek, zeinen gainean eta zurekin, eta Israelekin egin izan baitut patu.



28. Moise Jaunarekin han egon zen beraz berrogoi gau-egunez: etzuen ogirik jan, ez-etare urik edan; eta Jaunak iskribatu zituen lauzetan batasuneko hamar solasak.

29. Eta Moise Sinaiko menditik jautsi zenean, lekhukotasuneko bi lauzak eskuetan zaduzkan, eta etzakien bere begitharteak dirdirutzen zio-ela Jaunarekin solasera bildurik egon zenaz geroztik.

30. Bainan Aaronek eta Israelgo semeek ikhusririk, Moisen begitharteak dirdirutzen zuela, lotsa ziren hari hurbiltzera.

31. Eta harek deithurik, Aaron eta sinagogako buruzagiak bihurtu ziren. Eta hekiei mintzatu zen ondoan,

32. Halaber ethorri zitzaizkon Israelgo seme guziak; zeinei manatu baitziotzaten Jaunaren ganik Sinaiko mendian entzun izan zituenak oro.

33. Eta solasak akhabatu zituenean, bela bat ezarri zuen bere begithartearen gainean.

34. Jaunaren gana sarthu-eta, eta harekin mintzatzean, khentzen zuen bela athera zedin arteo, eta orduan Israelgo semeei erraten ziozkaten berari manatuak izan zitzaizkoen guziak.

35. Israelgo semeek ikhusten zuten Moisen begitharteak argitzen zuela kanporakoan, bainan hunek berriz estaltzen zuen, hekiei mintzatzeko bazuenean.

### XXXV. KAP.

1. Bilarazirik beraz Israelgo semeen oste guzia, Moisek erran zioten: Haukiek dira Jaunak egiteko manatu dituenak.

2. Lanean hariko zarete sei egunez: zazpigarrena izanen da zuentzat saildu, larunbata, Jaunaren phausua: hartan lanik eginen duena, izanen da heriotzetan emana.

3. Ez duzue zuen egoitzetan surik batere biztuko larunbatean.

4. Moisek erran zuen oraino Israelgo semeen bilkhu guziari: Hau da Jaunak manatu duena, dioelarik:

5. Jaunari berez zotzute pikainak zuen etxeetan. Batbederak, bere nahitara eta gogo onez, Jaunari eskaini betza urhea, zilharra eta kobrea,

6. Moredina eta purpura, eskarlata bietan thindatua, liho hauts, ahuntz-ilea,

7. Eta larruak moredinez eta gorrimorez thindatuak, setim zurak,

8. Eta olioia kriseluen antolatze eta gantzugarrien egiteko, eta balsamurik gozoenak,

9. Oniz harriak eta harri baliosak soingainekoaren eta bulharretakoaren ederztatzeko.

10. Zuen artekorik jakinak diren oro ethor beitez, eta Jaunak manatuak egin betzate:

11. Erran nahi baita tabernaklea, eta haren hegaztegia eta estalgia, erreztunak eta oholak hagekin, hesaulak eta oinak;

12. Arkha eta hagak, propiziatorioa eta haren aitzinean hedatzen den bela;

13. Mahaina hagekin eta untziekin, eta proposizioneko ogiekin;

14. Kriseluak jasan behar dituen ganderailua, hartako unti eta kriseluak, eta argien mantentzeko olioia;

15. Baltsamuetako aldarea, eta hagak, eta gantzutzeko olioia, eta usain gozoko baltsamuak, eta tabernakle-sartzeko bela;

16. Holokaustetako aldarea, eta hartako kobrezko krisela, bere haga eta untziekin; garbitzeko untzia eta haren oina;

17. Lorioko erridauak habeekin eta oinekin, ezkabatz-sartzeko bela;

18. Tabernakleko hesaulak eta loriokoak beren lokharriekin;

19. Saindutegian erabiltzeko diren jaunzkurak, Aaron aphez-handiaren eta haren semeen soinekoak, apheztasuneko eginbideak bethe detzarentzat ene aitzinean.

20. Eta Israelgo semeen oste guzia Moisen aitzinetik goanik,

21. Jaunari gogotik berehala eta jainkotiarki, eskaini ziozkaten pikainak egitekotzat lekhukotasuneko tabernakleko lana, ohoreen bihurtzeko eta soin sakratuetako behar ziren guziak.

22. Gizonek emaztekiekin eskaini zituzten beren gathe, beharrietako, erreztun eta eskumuturrekoak: urhezko unti guziak Jaunari emaitza egiteko izan ziren baztertera ezarriak.

23. Norbaitek balin bazuen moredin, purpura, eskarlata bietan thindatu, liho hauta, ahuntz-ile, ahari-larru gorriak, eta gorrimorerik,

24. Zilharrik eta kobre menastarik, Jaunari eskaini ziozkan eta halaber setim zurak asko zerbitzutako.

25. Emazteki antzedunek eman zuten irun zuten moredina, purpura, eskarlata eta liho hauts,

26. Eta ahuntzen ilea, guziak beren oldetara ematen zituztelarik.

27. Aitzindariak eskaini zituzten oniz harriak eta harri baliosak soingainekoarentzat eta bulharretakoarentzat,

28. Baltsamugaiak eta olioia kriseluen mantentzeko, eta gantzugarriaren egiteko, eta baltsamu usain gozoeneko aphaintzeko.

29. Gizonek eta emaztekiek, guziek jainkotiarki eskaini zituzten beren emaitzak egitekotzat Jaunak Moisen ahoz manatu izan zituen lanak. Israelgo seme guziek Jaunari egin ziozkaten beren gogoz emaitzak.



30. Eta Moisek erran zioten Israelgo semeei: Huna non Jaunak bere izenez deithu duen Beseleel, Urien semea, Uri baita Hurren semea, Judako leinutik.

31. Eta hura bethe du Jainkoaren izpirituz zuhurtziaz eta adimenduz, jakitatez eta irakaskari osoaz,

32. Asmatzeko eta egitekotzat urhearekilako, eta zilharrarekilako eta kobrearekilako lana;

33. Harrien zizelatzeke, eta zurgin lanetako; antzeak khausi ahal detzaz-keenak oro

34. Eman izan diozka burura: Ooliab ere, Akisameken semea, Danen leinukoa, deithu du Jaunak,

35. Biak antzez bethe ditu, zurgin, ehaile eta lorekatzaile lanak, moredinez eta purpuraz, eskarlata bietan thindatuz eta liho hautaz, ehunean egiten diren lan guziak egin detzaten, eta berriak ere khausi.

### XXXVI. KAP.

1. Lanari lothu ziren beraz Beseleel eta Ooliab, eta gizon antzetsu Jaunak jakitatez eta aditzaz bethe zituenak, jakin zezatentzat egiten mainarekin saildutegiko premia zirenak eta Jaunak manatu izan zituenak.

2. Eta Moisek deithu zituenean hekiek eta gizon jakinak oro zeinei Jaunak eman baitzioten jakitatea, eta zeinek beren baitharik lanaren egiteko eskaini baitzituzten beren buruak,

3. Eskura eman ziozkaten Israelgo semeen emaitza guziak. Haukiek lanari hari zirelarik, populuak egun oroz goizetan ekhartzen zituen eskaintza berriak.

4. Horren gatik ofizialeak ethorri behar izan ziren,

5. Eta Moisi erran zioeten: Populuak eskaintzen du behar den baino gehiago.

6. Moisek beraz manatu zuen kridatzaileak oihu egin zezan: Ez gizonak, ez emaztekiak, nihork ez beza gehiago deusere eskaint saildutegiaren egiteko. Hola baratu ziren emaitza eskaintzetik,

7. Zeren eskainiak aski eta sobera baitziren.

8. Eta tabernakleko lanaren egiteko jakinak ziren gizon guziek, egin zituzten hamar erridau, ehunaren gainean lana mudantzaturik eta lorekatu-rik hari bihurtuz, eta moredinez, eta purpuraz, eta eskarlata bietan thindatuz.

9. Hekietarik bakharrak bazituen hogoi eta zortzi beso luzera eta lau zabalera; erridau guzien neurria bardina zen.

10. Beseleleek erridauetarik bortz bata bertzeari lothu zituen, eta bertze bortzak ere iratxiki zituen elkharri.

11. Erridau bati bi bazterretarik egin ziozkan moredinezko lokharriak, eta bertze erridauari ere orobat,

12. Lokharriak bata bertzearen parrera heldu ziren bezala, eta elkharri loth zitezentzat.

13. Hortako urthu zituen berrogoi eta hamar urhe-erretzun, erridauetako lokharriek lotzekoak, eta hola tabernakle bakharrak egin zedintzat.

14. Eta egin zituen ahuntz-ilez hameka sailhal tabernakleko hegaztegiaren estaltzeko.

15. Saihaletarik bakharrak bazituen hogoi eta hamar beso luzera, eta zabalera lau: sailhal guziak neurri batetakoak ziren.

16. Hekietarik bortz lothu zituen elkharrekin alde bat, eta bertze seiak bertzera.

17. Eta sailhal bakharrari bazterretan egin ziozkan berrogoi eta hamar lokharri, eta bertze sailhalari ere berrogoi eta hamar, bata bertzeari lot-huak izan zitezentzat.

18. Eta urthu zituen kobrezko berrogoi eta hamar hersgailu, zeinetaz tinkatu behar baitzen hegaztegia, sailhal guzietarik estalgi bakharrak egin zedintzat.

19. Egin zuen oraino ahari-larru gorrituz tabernaklearen estalgi bat, eta bertze bat gainetik larru gorrimorez.

20. Setim zurez egin zituen tabernakleko oholak, xutik landatuz.

21. Ohol bakharraren luzetasuna hamar besoetakoa zen: eta zabal-tsunak bazadukan beso bat eta erdi.

22. Bi mihiztadura baziren ohol bakharka, bata bertzeari iratxikiak izan zitezentzat. Orobat egin zuen tabernakleko ohol guzietatik.

23. Hekietarik hogoi ziren eguerdialdetik hegoari begira zaudenak,

24. Berrogoi zilharrezko oinekin. Bi oin ezartzen ziren ohol bakharraren azpian, bi izkinetan, non-ere akhabatzen baitzen izkinetan sahetsen mihiztadura.

25. Ipharrari begiratzen duen aurkhintzan ere egin zituen hogoi ohol,

26. Berrogoi zilharrezko oinekin, bi oin ohol bakhoxka.

27. Bainan iguzki-etzinaldetik, hori da tabernakleak itsasoari begiratzen duen alderditik, sei ohol egin zituen,

28. Eta bertze bia izkina bakhotxean tabernaklearen gibeletik:

29. Azpitik gaineraino elkharri josiak ziren, eta orobat uztardura bakharrak batean jarriak ziren. Bi aldeetarik izkinetan halako moldez egin zuen,



30. Non zortzi ohol baitziren batean, eta hamasei oin zilharrezko baitzituzten, erran nahi da bi oin ohol bakhotxaren azpian.

31. Eta setim zurez egin zituen bortz haga, tabernaklearen sahets bateko oholen idukitzeko,

32. Eta bertze bortz bertze sahetseko oholak elkharri uztartzeko; eta horietaz bertzalde, bertze bortz haga tabernaklearen mendebal-aldearentzat, itsas-aldetik.

33. Halaber egin zuen bertze haga bat, oholen erditik izkina batetik bertzeraino heltzekoa.

34. Ohol guziak urheztatu zituen, urthu ondoan hekien zilharrezko oinak. Eta urhez egin zituen hekien erreztunak, hagak erditik sar ahal zitazkeen bezala: haga hekiek berak urhe-xaflaz estali zituen.

35. Eta bela bat egin zuen moredinez eta purpuraz, eskarlataz eta liho hari bihurtuz, lorekaduraz mudantzatua eta edertzatua.

36. Egin zituen setim zurez lau habe, zeinak beren buruekin urheztatu baitzituen, hekien oin zilharrezkoak urthu ondoan.

37. Eta tabernakle-sartzean egin zuen bela bat moredinez, purpuraz, eskarlataz eta liho bihurtuz, guzia lorekatua.

38. Eta egin zituen beren buruekin bortz habe, zeinak urhez estali baitzituen, eta hekien oin kobrezkoak urthu zituen.

### XXXVII. KAP.

1. Beseleek halaber setim zurez egin zuen arkha, zeinak baitzituen bi beso eta erdi luzera, beso bat eta erdi zabalera; goratasuna ere beso bat eta erditakoa izan zuen; eta hura estali zuen kanpotik eta barnetik urhe garbienarekin.

2. Eta inguruan egin zioen urhezko khoro bat,

3. Urtzen zituelarik lau urhe-erretzun lau izkinentzat, bi erreztun sahets bateko, eta bia bertzeko.

4. Setim zurez egin zituen halaber lau haga urhez estali zituenak,

5. Eta zeinak sarthu baitzituen, arkharen sahetsetan, haren erabiltzeko ziren erreztunetan.

6. Egin ere zuen propizatorioa, hura baita oraklea, urhe garbienetik, bi beso eta erditakoa luzera, eta beso bat eta erditakoa zabalera.

7. Urhe beratik egin zituen bi kerubin, zeinak ezarri baitzituen propizatorioaren bi aldeetan;

8. Kerubin bat alde bateko buruan, eta bertze kerubina bigarren aldeko buruan; bi kerubinak propizatorioaren buru bakhotxetan,

9. Hegalak hedatzen zituztela, eta propizatorioa estaltzen, eta elkharri eta hari begiratzten.

10. Egin zuen oraino mahain bat setim zurez, bi besoetako luzera, eta beso bateko zabalera, eta zuen beso bat eta erdi gora:

11. Inguratu zuen hura urhe garbienetik, eta urhezko ezpain bat egin zioen inguruan,

12. Eta ezpainari berari urhezko khoro zizelatu bat, lau erhi gora, eta haren beraren ginean bertze urhezko khoro bat.

13. Halaber urthu zituen lau urhe-erretzun, ezarri zituenak lau izkinetan, mahainaren zango bakhotxean,

14. Khoroaren azpitik: eta hekietan sartu zituen hagak, mahaina erabilia izan ahal zedintzat.

15. Haga hekiek berak ere egin zituen setim zurez, eta urhez inguratu.

16. Eta urhe garbitik egin zituen mahaineko zerbitzu guzietako untziak, azpilak, gorgoilak, isentsuntziak eta xatak, zeinetan eskaini behar baitziren libazioneak.

17. Eta urhe garbienetik mailukatu zuen ganderailua, zeinaren girthainetik sortzen baitziren adarrak, xatattoak, sagarrak eta liliak;

18. Sei adar bi aldeetarik, hirur batetik, eta hirur bertzetik;

19. Hirur xatatto heltzaurrak bezala adar bakhoxka, eta hekiekin batean sagarrak eta liliak. Ganderailuaren girthainetik sortzen ziren sei adarrek orobateko lana zuten guziek,

20. Bainan girthainean berean baziren lau xatatto heltzaurrak bezalakoak, eta bakhotxarekin sagar bat eta lili bat;

21. Eta girthainak hirur tokitan bazituen hirur sagar, eta sagar bakhotxetik ilkhitzen ziren bi adar, orotara sei adar girthain bakharetik sortzen zirenak.

22. Beraz sagarrak eta adarrak hartarik beretik ziren, guziak mailukuak urhe garbienetik.

23. Orobat egin zituen zazpi kriselu beren muketekin, eta muki khen-duen hil-untziak, urhe garbienetik.

24. Ganderailuak bere untzi guziekin bazuen urhetan talendu baten phisua.

25. Eta setim zurez egin zuen baltsamuetako aldarea, luzera eta zabalera beso bat zuena eta bia gorara; haren izkinetarik sortzen ziren adarrak.

26. Eta urhe garbinez estali zuen hura bere krisela, bazter eta adarrekin.



27. Eta inguruan egin zioen urhezko khoro bat, eta khoroaren azpian bi aldetarik bira urhe-errez tun, hekietan hagak sartzeko, aldarea erabilia izan ahal zedintzat.

28. Eta haga hekiek egin zituen setim zurez, eta estali urhe xaflaz.

29. Eta aphaindu zuen kontsekratzeko gantzuduren egiteko olioia, eta baltsamuak gayrik garbienetarik, baltsamuginen moldera.

### XXXVIII. KAP.

1. Beselelek egin zuen oraino setim zurez holokaustetako aldarea, zeinak baitzuten borts besoz luzera eta zabalera, eta hirur gorara.

2. Izkinetarik sortzen ziren haren adarrak, eta hura estali zuen kobrex xaflaz.

3. Eta hartako zerbitzuko tresnak, hauts-untziak, trukesak, suhatsak, makoak eta su-untziak, kobrez egin zituen.

4. Kobrez sarea bezala egin zuen hartako krisela, eta haren azpian sutegei bat aldarearen erdian.

5. Urthu zituen lau errez tun kriselaren lau izkinetako, hekietan sartze-kotzat erabiltzeko hagak.

6. Hagak egin zituen setim zurez eta estali kobrez.

7. Eta aldarearen sahetsetan agertzen ziren errez tunetan sarthu zituen. Bada aldareak etzuen barnea bethea, baina oholez landan barnean deusere gabe eta hutsa.

8. Garbitzeko untzi bat ere kobrez egin zuen bere azpikoarekin, tabernakle-sartzean beilan egoten ziren emaztekin mirailaz.

9. Egin zuen lorioa zeinaren alderdi hegoaldekoan baitziren liho hari bihurtuz, ehun besotan erridauak,

10. Eta hogoi kobrezko habe beren oinekin; haben buruak eta zizel lan guzia zilharrez ziren.

11. Iphar-aldeko erridauak, habeak, oinak eta haben buruak orobat ziren neurri, lan eta gai beretakoak;

12. Iguzki-sartzeari begiratzen duen aldean ehun besotan ezarriak izan ziren erridauak, hamar habe beren kobrezko oinekin, eta haben buruak eta zizel lana zilharrezkoak;

13. Bada iguzki-ilkhitzeari, ezarri zituen berrogoi eta hamar besotan erridauak,

14. Zeinetarik hamaborts besok, eta hirur habek beren oinekin idukitzen baitzuten alderdi bat;

15. Eta bertze alderdian (ezen bien artean egin zuen tabernakleko sartzea), ziren orobat hamaborts besoz erridau, hirur habe eta bertze hainbertze oin.

16. Lorioko oihaleria guzia liho hari bihurtuz eho izan zuen.

17. Habeen oinak kobrez eginak izan ziren, baina buruak zilharrez beren obradura guziekin: baina lorioko habeak berak zilharrez estali zituen.

18. Lorio-sartzean erridau bat egin zuen lorekatuz moredinez, purpuraz, eskarlataz eta liho hari bihurtuz; hogoi besoz zituen luzera eta borts gorara, lorioko bertze erridau guziek zuten neurriaren arabera.

19. Sartzean baziren lau habe beren kobrezko oinekin; buruak eta zizeladurak zilharrez.

20. Kobrez egin zituen tabernaklearen eta lorioaren inguruko hesuak ere.

21. Horiek dira lekhukotasuneko tabernakleko tresnak, lebitarrei khonduak izan zirenak Moisen manuz, Aaron aphez-handiaren seme Ithamarren bidez;

22. Eta Beselelek, Urien semeak, Uri baitzen Hurren semea Judako leinutik, egin zituenak, Jaunak manaturik Moisen ahoz.

23. Laguntzat izan zuen Ooliab, Akisameken semea Danen leinutik, hainitz ederki aditzen zena zuren lantzen eta oihalen mudantzatzan eta lorekatzen moredinez, purpuraz, eskarlataz eta liho hari hautatuz.

24. Saindutegiaren egiteko ezarri zen urhe guzia, eta emaitzaz eskainia, izan zen hogoi eta bederatzi talendu eta zazpi ehun eta hogoi eta hamar siklo saindutegiko phisura.

25. Hori emana izan zen khondutan sarthu izan ziren hogoi urtheta-ko eta handik goitiko gizonez, zeinak baitziren sei ehun eta hirur mila, borts ehun eta berrogoi eta hamar harmatu.

26. Izan ziren bertzalde ehun talendu zilhar, zeinetarik urthuak izan baitziren saindutegiko oinak, eta bela hedatua zagoen tokiko sartzekoak ere.

27. Ehun oin atheratu ziren ehun talendutarik, talendu bakharreko oin bat khondatuz.

28. Hamazazpi ehun eta hirur hogoi eta hamaborts siklo zilharrezkotarik Beselelek egin zituen haben buruak, eta habeak berak zilharrez estali.

29. Kobretik ere eskainiak izan ziren hirur hogoi eta hamar talendu eta bi mila eta lau ehun siklo,



30. Heketarik urthuak izan baitziren lekhukotasuneko tabernaklearen sartzeko oinak, eta kobrezko aldarea bere krisela eta zerbitzuko tresna guzietan;

31. Eta lorioko oinak, nahiz ingurukoak, nahiz sartzekoak, eta tabernakleko hesaulak eta loriokoak.

### XXXIX. KAP.

1. Beseleek moredinez, eta purpuraz, eskarlataz eta liho hautaz egin zituen, Aaronek jauntzi behar zituen soinekoak bere eginbideak Sainduteagian bethetzeko, Jaunak Moisi manatu zioen bezala.

2. Egin zuen beraz soingainekoa urhez, moredinez, purpuraz, eskarlata bietan thindatuz eta liho hari bihurtuz,

3. Lana karantzatuz; ebaki zituen urhe hostoak eta haritan ezarri, izatekotzat hekien ehotzeko ahala hari karantzatuen irazkian.

4. Eta soingainekoaren bi bazterrak elkharri lotzen ziren gaineko bi mokoetan:

5. Eta gerrikoa egin zuen karantza berekin, Jaunak Moisi manatu izan zuen bezala.

6. Xuxendu zituen bi oniz harri, urhean tinkaturik eta sarthurik, eta harriginaren antzearekin hekietan bernuzaturik Israelen semeen izenak;

7. Eta hekiek ezarri zituen soingainekoaren bi aldeetan, Israelen semeen orhoitzapenetan, Jaunak Moisi manatu izan zioen bezala.

8. Eta bulharretakoa egin zuen karantzak mudatuz, soingainekoaren lana bezala, urhez, moredinez, purpuraz, eskarlata bietan thindatuz eta liho-hari bihurtuz;

9. Lau izkinetakoa egin zuen, bikhuna eta zehe baten neurrikoa.

10. Eta hartan ezarri zituen lau harri balios lerro lehenbiziko andanan ziren sardioa, topaza eta esmeralda;

11. Bigarreanean, eskarbukla, zafirra eta jaspea;

12. Hirugarrenean, ligura, agata eta ametista;

13. Laugarrenekoan, krisolita, oniz harria eta beriloa; guziak urhean sartuak eta hartaz inguratuak, zein bere lerroan.

14. Eta Israelgo hamabi leinuen izenak hamabi harri hekietan bernuzatuak ziren, bakhotxaren gainean bat.

15. Eta urhe garbietetik bulharretakoari egin ziozkaten bi gathetto elkharri iraxkitzen zirenak,

16. Eta bi gantxo eta bertze hainbertze urhe erreztun. Erreztunak ezarri zituzten bulharretakoaren bi bazterretan.

17. Hekietarik jautsarazi zituzten bi urhe gatheak, zeinak iraxkitzen baitzuten soingainekoaren izkinetan agertzen ziren gantxoak.

18. Horiek hain ongi zihoazkiten elkharri, nahiz aitzinetik, nahiz gibeletik, non soingainekoa eta bulharretakoa bat eginak baitzuden,

19. Gerri ondoan tinkatuak, eta hazkarki lothuak erreztunekin, zeinak iraxkitzen baitzuten moredinezko xingola batek, bulharretakoa eta soingainekoa laxorik goan etzitezentzat, eta elkhar ganik etzitezen higi, Jaunak Moisi manatu izan zioen bezala.

20. Halaber egin zuten soingainekoaren athorra, guzia moredinez,

21. Eta gainean, erditik, buruaren sarbidea, eta haren inguruan ehupazterra;

22. Eta beheanean, zangoetarako aldetik, mingranak moredinez, purpuraz, eskarlataz eta liho-hari bihurtuz;

23. Eta xilintzak urhe garbietetik, zeinak ezarri baitzituzten mingranen artean, athorraren beheko inguruan,

24. Lehenik urhezko xilintxa eta gero mingrana; eta aphez-handia hekiek jauntzirik goaten zen bere eginbideak bethetzen zituenean, Jaunak Moisi manatu izan zioen bezala.

25. Egin zituzten berriz ehunean liho-harizko athorrak Aaronen eta bere semeentzat,

26. Burukoak beren khorottoekin liho-hariz,

27. Galtza motzak ere liho-hariz,

28. Eta gerrikoa liho-hari bihurtuz, moredinez, purpuraz, eskarlata bietan thindatuz, antzetsuki lorekatuz, Jaunak Moisi manatu izan zioen bezala.

29. Eta urhe garbietetik egin zuten ohoratzeko den xasta sakratua zinetan iskribatu baitzuten bernuzatuz: Saindutasuna Jaunari;

30. Eta xafla hura lothu zuten burukoari moredinezko xingola batez, Jaunak Moisi manatu izan zioen bezala.

31. Tabernaklearen lan guzia eta lekhukotasunaren itzalkariarena akhabatuak izan ziren beraz; eta Israelgo semeek egin zituzten Jaunak Moisi manatu izan ziozkan guziak.

32. Eta eskaini zituzten tabernaklea, eta estalgia, eta puska guziak: erreztunak, oholak, hagak, habeak eta oinak,

33. Ahari-larru gorrituzko estalgia, eta bertze estalgi larru moregorrizkoa;

34. Bela, arkha, hagak, propiziatorioa;

35. Mahaina bere untziekin eta proposizioneko ogiekin;

36. Ganderailua, kriseluak, eta hekietako tresnak olioarekin;



37. Urhezko aldarea, gantzutzeko olioa, eta baltsamu, gaietarik aphainduak;

38. Eta tabernakle-sartzeko bela;

39. Kobrezko aldarea, krisela, hagak, eta hartako bertze tresna guziak; garbitzeko untzia bere azpikoarekin; lorioko, erridauak eta habeak beren oinekin;

40. Lorio-sartzeko bela eta haren lokharriak eta hesaulak. Tabernakleko eginbideetako eta batasuneko etxekotzat egitea manatuak izan ziren tresnetarik etzen batere eskastu.

41. Soinekoak ere, zeinetaz saildu egian zerbitzatzeko baitira aphezak, erran nahi da Aaron eta bere semeak,

42. Eskainiak izatu ziren Israelgo semeek, Jaunak manatu izan zuen bezala.

43. Eta Moisek ikhusi zuenean osorik zirela guziak, benedikatu zituen.

#### **XL. KAP.**

1. Gero Jauna Moisi mintzatu zitzaioen, zioelarik:

2. Lehenbiziko hilabetekeko lehen egunean, lekhukotasuneko tabernaklea jarriko duzu,

3. Eta barnean ezarriko diozu arkha, eta hunen aitzinean bela hedatuko duzu.

4. Eta mahaina ekharriko, manatuak gainean ezarriko diozkatu errana den bezala. Ganderailua bere kriseluekin,

5. Eta urhezko aldarea, zeinaren gainean erreko baita isentsua, emanak izanen dira xutik lekhukotasuneko arkhaen aitzinean. Tabernakle-sartzean hedatuko duzu bela,

6. Eta haren aitzinean ezarriko duzu holokaustetako aldarea.

7. Aldarearen eta tabernaklearen artean emanen duzu garbitzeko untzia, urez betherik.

8. Lorioa eta lorio-sartzea inguratuko dituzu erridauak.

9. Eta gantzutzeko olio harturik, tabernaklea bere untxiekin gantzutuko duzu, sailduetsiak izan ditezentzat.

10. Holokaustetako aldarea bere tresna guziekin,

11. Garbitzeko untzia bere azpikoarekin, oro olio gantzutzekoaz gantzutuzen dituzu, sailduen saildu izan ditezentzat.

12. Hurbilaraziko dituzu Aaron eta bere semeak lekhukotasuneko tabernakle-sartzerako, eta urez garbiturik,

13. Jauntziko diozkatuzete soineko sailduak, beren eginbideak bethetzatentzat ene alderat, eta hekien gantzupena heda dadientzat bethirako aphezetasunera.

14. Eta Moisek Jaunak manatu guziak egin zituen.

15. Beraz bigarren urteko lehenbiziko hilabetekean, hilaren lehen egunean, jarria izatu zen tabernaklea.

16. Eta Moisek landatu zuen hura, eta ezarri zituen oholak, oinak eta hagak, eta xutik eman zituen habeak;

17. Eta tabernaklearen gainera hedatu zuen hegaztegia, hunen gainean ezarriko estalgia, Jaunak manatu izan zuen bezala.

18. Lekhukotasuna eman zuen arkhaen barnean, hagak sahetsetan sarthurik, eta oraklea gainean.

19. Eta arkha tabernaklera ekharri ondoan, haren aitzinean hedatu zuen bela, Jaunaren manua bethetzekotzat.

20. Eta mahaina ezarri zuen lekhukotasuneko tabernaklean, ipharreko aldetik, belaz kanpoan,

21. Proposizoneko ogiak Jaunaren aitzinean xuxendurik, Jaunak Moisi manatu izan zioen bezala.

22. Eta ganderailua eman zuen lekhukotasuneko tabernaklean, mahainaren parrean, hegoako aldetik,

23. Kriseluak behar bezala xuxendurik, Jaunaren manuren arabera.

24. Urhezko aldarea ere lekhukotasuneko tabernaklean jarri zuen, belaren parrean,

25. Eta haren gainean erre zuen usain gozoko isentsua, Jaunak Moisi manatu izan zioen bezala.

26. Eta hedatu zuen bela lekhukotasuneko tabernakle-sartzean,

27. Lekhukotasuneko ezkaratzean ezarri zuen holokaustetako aldarea, haren gainean eskaintzen zituelarik holokausta bat eta sakrifizioak, Jaunak manatu izan zen bezala.

28. Halaber lekhukotasuneko tabernaklearen eta aldarearen artean jarri zuen garbitzeko untzia, urez bethetzen zuelarik.

29. Eta Moisek eta Aaronek bere semeekin eskuak eta zangoak garbitu zituzten,

30. Batasuneko tabernaklean sartzerakoan eta aldarera hurbiltzerakoan, Jaunak Moisi manatu izan zioen bezala.

31. Lorioa ere jarri zuen leku tabernaklearen eta aldarearen inguruan, eta lorio-sartzean bela hedatu. Noiz-etare guziak akhabatuak izan baitziren,





32. Lanho batek estali zuen lekhukotasuneko tabernaklea, eta hura bethe zuen Jaunaren gloriak.

33. Eta Moise batasuneko tabernaklean ezin sar zaitheken, lanhoak guziak estaltzen zituelakotz, eta Jaunaren ospeak dirdirutzen zuelakotz, zeren lanhoak oro estali baitzituen.

34. Lanhoak tabernaklea uzten zuenean, Israelgo semeak bideari ematen ziren araldeka;

35. Baratzen bazen tabernaklearen gainean, hekiek ere gelditzen ziren han berean.

36. Ezen Jaunaren hedoa egunaz zagoen tabernaklearen gainean, eta gabaz su bat zen, Israeldar guziek beren egoitzetarik ikhusten zutena.

## LEBITIKOA

### I. KAP.

1. Bada, Jaunak Moise deithu zuen, eta lekhukotasuneko tabernakletik mintzatu zitzaioen, erraten zioelarik:

2. Mintza zaite Israelgo semeei eta errozute: Zuetarik norbaitek Jaunari eskainiko dioenean aziendetarik bitima bat, hori da idi edo ardietarik bitimak eskaintzean,

3. Haren eskaintza holokausta balin bada eta abere gorrietarik, orotsa eta narriogabea eskainiko du lekhukotasuneko tabernakle-sartzean, bere alderat jabalarazteko Jauna:

4. Eta eskua ezarriko du bitimaren buruaren gainean, eta onhesgarri izanen da, eta xahupenetan baliatuko dena.

5. Eta aratxea Jaunaren aitzinean imolatuko du, eta Aaronen seme aphezek eskainiko dute haren odola, ixurtzen dutelarik tabernakle-sartzearen aitzinean den aldarearen inguruan.

6. Eta bitimari larrua khendu ondoan, puskatuko dituzte haren menbroak.

7. Eta sua ezarriko dute aldarean, lehenik egur meta xuxendu-eta;

8. Eta gainean antolatzen dituztelarik ebakiak diren menbroak, erran nahi da burua, eta gibelari datxikoten guziak.

9. Sabela eta zangoak urean garbiturik, aphezak erreko ditu aldare gainean, holokaustetan eta usain onetan Jaunari.

10. Eskaintza azienda xurietarik balin bada, holokausta ardi edo ahuntzetarik, orotsa eta narriogabea hautatuko du eskaintzaileak.

11. Eta Jaunaren aitzinean imolatuko du aldarearen sahets ipharrari dagoenean: eta Aaronen semeek ixuriko dute haren odola aldare gainean inguruan:

12. Eta ebakiko dituzte menbroak, burua eta gibelari datxikotenak oro, eta ezarriko dituzte, sua azpitik izan behar duten egurren gainean:

13. Bainan sabela eta zangoak urean garbituko dituzte. Aphezak, eskaini guziak erreko ditu aldarearen gainean holokaustetan eta usainik gozoenetan Jaunari.

14. Bainan Jaunari egiten den holokaustaren eskaintza hegastinetarik balitz, ttorttoiletarik edo usokumetarik,

15. Aphezak eskainiko du hura aldare ondoan, burua lephotik bihurturik, eta sakhiko urraduratik odola ixuriko du aldare bazterraren gainera.



16. Paparoa eta hegatsak arthikiko ditu aldarearen sahetsera iguzki-sortzeko aldera, hautsak ixurtzen ohi diren lekhura.

17. Hegalak trenkatuko ditu, eta bitima ez du ebakiko, ez-etare burdinazko tresnaz zathituko, eta erreko du aldarearen gainean, sua azpitik emanikako egurrekin. Hori da holokausta bat eta eskaintza bat usainik gozoenekoa Jaunari.

## II. KAP.

1. Norbaitek Jaunari egiten dioen sakrifizioaren eskaintza, ogi-irin zethabatua izanen da haren eskaintza: eta gainera ixuriko dio olio eta isentsua emanen,

2. Eta ekharriko diote Aaronen seme aphezai: haukietarik batek hartuko du ahurren bethe irin eta oliotik, eta isentsu guzia, eta ezarriko du orhoitzapenetan erretzen aldarearen gainean, Jaunari gozoen zaioen usain bat bezala:

3. Eta sakrifiziotik geldituko den gainerakoa, Aaronentzat eta bere semeentzat izanen da, sainduren saildu Jaunari eginikako eskaintzetarik.

4. Bainan ogi-labeen erreko sakrifizioa eskaintzen baduzu, izan behar da irin zethabatutik, erran nahi da ogi altxagarri gabeak, olio zuzenak, eta ophil airisak, olio zuzenak.

5. Zarthaginan aphaindutik egiten baduzu zure eskaintza, izan beharko da irin zethabatutik olioan orhatua eta altxagarririk gabe,

6. Poxikatuko duzu, eta gainera olio ixuriko.

7. Eta kriselatik heldu bada zure eskaintza, orobat izan beharko da irin zethabatutik eta olio zuzenak.

8. Hura Jaunari ekharriko diozu eta emanen aphezari,

9. Aphezak hura eskaini dukeen, sakrifizioari khenduko dio orhoipeneko zathia, eta aldarearen gainean erreko du, Jaunari hainitz gozo zaioen usain bat bezala.

10. Bainan gainerakoa izanen da Aaronentzat eta bere semeentzat, sainduren saildu Jaunari eginikako eskaintzetatik.

11. Jaunari ekhartzen zaizkoen eskaintza guziaz, altxagarririk gabe izan beharko dira, eta ez da Jaunari sakrifiziotan erreko ez altxagarririk ez eta ezirik.

12. Bakharrik, ekharriko dituzu hekietarikako pikainak eta emaitzak: bainan ez dira aldare gainean ezarriko erretzen usain gozotan.

13. Edozein gauza ekhar dezazun sakrifiziora, patzez onthuko duzu, eta zure sakrifizioa ez duzu utziko zure Jaunarekilako batasuneko gatzak gabe. Zure eskaintza guzietan ekharriko duzu gatzak.

14. Jaunari eskaintzen badiozu zure uzten pikaina, ogi-buru oraino onthuk ez direnetarik, suan xigortuko dituzu, ogia bezala xehatuko dituzu, eta hula egiten duzu zure pikainen eskaintza Jaunari:

15. Olio ixurtzen diozutelarik gainera, eta isentsua gainean ezartzen, zeren den Jaunaganako eskaintza.

16. Aphezak erreko du, eskaintzaren orhoitzapenetan, ogi xehatutik eta oliotik zerbait bat, eta isentsu guzia.

## III. KAP.

1. Norbaitek bakezko bitimetarik eskaintza egiten badu, abelgorrietarik nahi badu erakharri, izan dadien orotsa edo urrixa, narriogabea ekharriko du Jaunaren aitzinera.

2. Eta bere bitimari eskua ezarriko dio buruaren gainean, eta imolatuko du lekhutotasuneko tabernakleko sartzean, eta Aaronen seme aphezak odola ixuriko dute aldarearen inguruan.

3. Eta Jaunari bakezko bitimatik eskaintza egiten diote gibel-erriak estaltzen dituen bilgorraz, eta barneko gizen guziaz,

4. Bi geltzurrinekin, sahetzak estaltzen dituen gantzarekin, eta gibela-aren sareaz geltzurrinekin.

5. Eta hekiek holokaustetan erreko dituzte aldare gainean, egurrei azpitik su emanik, Jaunari gozoenik zaioen usaineko eskaintzetan.

6. Egiten duen eskaintza azienda xurietarik balin bada eta bakezko bitima, ekhar dezan orotsa edo urrixa, narriogabea izan beharko da.

7. Bildotsa eskaintzen badu Jaunaren aitzinean,

8. Ezarriko du eskua bitimaren buruaren gainean zeina imolatua izanen baita lekhukotasuneko tabernakle-sartzean, eta Aaronen semeek haren odola ixuriko dute aldarearen inguruan.

9. Eta bakezko bitimatik sakrifiziotan Jaunari eskainiko diozkate bilgorra eta buztana osorik,

10. Geltzurrinekin, sabela eta gibelerraiak oro estaltzen dituen gizenarekin, bi geltzurrikin, sahetzak estaltzen dituen gantzarekin, eta gibela-aren sarea geltzurrinekin.

11. Eta aphezak hekiek erreko ditu, suaren eta Jaunaganako eskaintzaren mantenu.

12. Eskaintza ahuntz bat balin bada, eta hura eskaintzen badio Jaunari,

13. Eskua ezarriko du bitimaren buruaren gainean, eta imolatuko du lekhukotasuneko tabernakle-sartzean. Eta Aaronen semeek odola ixuriko dute aldarearen inguruan.



14. Eta bitimatik, Jaunaren suaren mantentzeko, harturen dituzte sabela estaltzen duen bilgorra eta gibel-errai guziak estaltzen dituenen,

15. Bi geltzurrinak hekien gainean sahetsetaraino den sarearekin, eta gibelaren gantza geltzurrinekin.

16. Eta aphezak aldare gainean erreko ditu suaren eta usain gozoe-naren mantu. Urin guzia Jaunarena izanen da,

17. Bethiko zuzen bat bezala gizamende guzietan eta zuen egoitza orotan: eta ez duzue batere janen ez odolik ez-etare urinik.

#### IV. KAP.

1. Eta Jauna Moisi mintzatu zen, zioelarik:

2. Errozute Israelgo semeei: Norbait jakingabez bekhatuta erori bada, eta egin badu zerbait Jaunak egitea debekatu izan duenetarik:

3. Baina, gantzutua izan den apheza balin bada eta hobendundu bada, populua hutsera erorrarazten duelarik; bere bekhatuarentzat aratxe narriogabeko bat eskainiko dio Jaunari:

4. Eta hura erakharriko du lekhukotasuneko tabernakle-sartzera Jaunaren aitzinera, eta ezarriko dio eskua buruaren gainean, eta imolatu-ko du Jaunari.

5. Halaber hartuko du aratxearen odoletik, eta eramanen du lekhukotasuneko tabernaklera.

6. Eta erhia odolean busti ondoan, zazpitan hartaz ihintzadura eginen du Jaunaren aitzinean saindute-giko belaren parrean.

7. Eta Jaunari hainitz gozo zaizkoen baltsamuetako aldare, lekhukotasuneko tabernaklean denaren adarretan ezarriko du odol hartarik: eta gainerako odol guzia ixuriko du holokaustetako aldarearen oinetan, tabernakle-sartzean.

8. Eta bekhatuaren xahupeneko hartuko du aratxearen bilgorra, hala gibel-erraiak estaltzen dituenen, nola barnean den guzia,

9. Bi geltzurrinak eta hekien gainean den sarea sahetsetaraino, eta gibelaren bilgorra geltzurrinekin,

10. Khentzen diren bezala aratxe bakezko bitimatik; eta erreko ditu holokaustetako aldarearen gainean.

11. Baina larrua eta haragi guziak, buru, zango, sabel, ongarrri,

12. Eta gainerako gorphutz guziarekin, eramanen ditu kanpetarik lekhu garbi batera, hautsak ixurtzen ohi diren tokira: eta su emanen diotuzte egur-zamaren gainean ezarriarik, eta erreko dira hauts ixurien tokian.

13. Ordean ezagutza eskasa Israelgo baldarna guziari gerthatu bazaio, eta Jaunaren manamenduaren kontrako zerbait jakingabez egin balin badu,

14. Eta gero nabaditu badu bere bekhatua, bere bekhatuarentzat aratxe bat eskainiko du, eta hura erakharriko du tabernakle-sartzera,

15. Eta populuaren arteko zaharrenek haren buruaren gainean ezarriko dute eskua Jaunaren aitzinean. Eta aratxea Jaunaren aitzinean imolaturik,

16. Gantzutua izan den aphezak haren odoletik ekharriko du lekhukotasuneko tabernaklera,

17. Eta erhia bustirik, zazpitan ihintzadura eginen du belaren parrean.

18. Eta Jaunaren aitzinean lekhukotasuneko tabernaklean den aldarearen adarretan ezarriko du odol hartarik beretik: ordean odol gainerakoa ixuriko du lekhukotasuneko tabernakle-sartzean den holokaustetako aldarearen oinetan:

19. Eta bilgor guzia hartuko du eta aldare gainean erreko:

20. Aratxe hortaz ere egiten duelarik, bertzeaz aitzinean egin izan duena: eta aphezak othoitz egitearekin Israelgo semeentzat, eztituko da Jauna hekien alderat.

21. Aphez-handiak gero kanpetarik atheratuko du aratxea, eta lehen-bizikoa bezala erreko du, zeren den baldarnaren bekhatuarentzateko bitima.

22. Aitzindari batek bekhatu egin badu, eta Jaunaren legeak debekutzen duenetarik zerbait egin badu jakingabean,

23. Eta gero nabaditu badu bere bekhatua, bitima bat eskainiko dio Jaunari, akher narriogabe bat, ahuntz arthaldetik harturik.

24. Eta eskua buruaren gainean ezarriko dio: eta imolatu dukeenean, holokaustak Jaunaren aitzinean hiltzen ohi diren tokian, zeren den bekhatuarentzatekoa,

25. Aphezak erhia bustiko du bekhatuarentzateko bitimaren odolean, ukitzen dituelarik holokaustetako aldarearen adarrak, eta gainerakoa ixurtzen aldarearen oinetan.

26. Baina aldare gainean erreko du bilgorra, bakezko bitimetan egiten ohi den bezala: eta aphezak othoitz eginen du aitzindariarentzat eta haren bekhatuarentzat, eta barkhatuko zaio.

27. Ordean populuaren arteko norbaitek bekhatu egiten badu jakingabez, eta hobenduntzen bada Jaunaren legeak debekutzen dituenetik zerbait eginez,



28. Eta bere bekhatua ezagutu balin badu, ahuntz narriogabe bat eskainiko du,

29. Eta bekhatuarentzateko bitimaren buruaren gainean ezarriko du eskua, eta hura hilen du holokaustetako lekhuana.

30. Eta aphezak odoletik hartuko du bere erhian: eta holokaustetako aldarearen adarrak ukitzen dituelarik, gainerakoa aldarearen oinetan ixuriko du.

31. Eta bilgor guzia khendurik, bakezko bitimek khentzen ohi zaioten bezala, hura erreko dio Jaunari usain gozotan: eta hobendunarentzat othoitz eginen du, eta barkhatuko zaio hobena.

32. Bainen azienda xurietarik eskaintzen balin badu bekhatuarentzateko bitima, ardi narriogabe bat ekharriko du,

33. Eskua ezarriko dio buruaren gainean, eta imolatuko du holokaustetako bitimak hiltzen ohi diren tokian,

34. Eta aphezak bere erhiaz hartuko du haren odoletik, eta holokaustetako aldarearen adarrak ukitzen dituelarik, gainerakoa aldarearen oinetan ixuriko du.

35. Bilgor guzia ere hartzen duelarik, bakezko bitimatzen imolatu diren aharien bilgorra hartzen ohi den bezala, aldare gainean erreko dio Jaunari usain gozotan: eta othoitz eginen du hobendunarentzat eta haren bekhatuarentzat, eta barkhatuko zaio.

## V. KAP.

1. Nork-ere bekhatu egin baituke gizon bat zin egiten entzunik, eta lekhuko izatu bada edo ikhustez, edo jakinez, eta ez badu lekhukotasun eman izan, jasanen du bere tzarkeria.

2. Nork-ere ukitu baituke zerbait lohirik, edo azienda ihiziak hilikoa, edo bere baitharik hila, edo zernahi bertze zierpe; ahantzia ere balu bere lohidura, hobendun da eta hutsera eroria.

3. Eta ukitu badu gizonaren lohi zerbait, likhisten ohi duten lohikeria edozeintarik, eta behin ez oharturik, gero ezagutu badu, hobenaren azpian eman da.

4. Nork-ere zin egin baituke eta bere ahoz agindu zerbait onik, edo tzarrik, eginen duela, eta bere agintza bere hitzaz eta zinaz gogortu badu, eta ahantzirik, gero ohartu bada bere hutsari,

5. Penitentzia egin beza bere bekhatuarentzat:

6. Eta bere arthaldeetarik eskaint antxu bat edo ahuntz bat; eta aphezak othoitz eginen du harentzat eta haren bekhatuarentzat:

7. Bainen aziendaren eskaintzeko ahalik ez badu, Jaunari eskaint betza bi ttorttoila edo bi usokume, bat bere bekhatuarentzat, eta bertzea holokaustetan.

8. Eta emanen diozki aphezari, zeinak lehenbizikoa eskaintzean bekhatuarentzat, burua hegaletako aldera bihurtuko baitio, lephoari datxikoen bezala eta arras hautsi gabe.

9. Eta aldarearen sahetsa bustiko du haren odolaz: eta gainerako guzia ixuriko du aldarearen oinetara, zeren bekhatuarentzat den.

10. Bertzea ordean holokaustetan erreko du, ohitza den bezala: eta aphezak othoitz eginen du harentzat eta haren bekhatuarentzat, eta barkhatuko zaio.

11. Ez badetzazke eskeint bi ttorttoila edo bi usokume, bere bekhatuarentzat eskainiko du irin zethabatua, ephi baten hamargarrena: ez du hartan ezarriko oliorik ez-etare gainean isentsurik, zeren den bekhatuarentzat.

12. Eta hura emanen dio aphezari, zeinak ahurtara bat harturik, erreko baitu aldare gainean eskaintzailearen orhoitzapenetan.

13. Eta harentzat othoitz egiten duelarik eta garbitzen duelarik, gainerakoa beretzat izanen du saritako.

14. Eta Jauna oraino mintzatu zitzaioen Moisi, erraten zioelarik:

15. Nork-ere Jaunari kontsekratuak zaizkoen zeremonietan oharka bez hutsegirik bekhatu eginen baitu, bere hobenarentzat eskainiko du arthaldetako ahari bat narriogabea, bi sikloren baliokoa, saildutegiko phisura;

16. Eta onthuko du ekharri duen bidegabea, eta ezarriko du bortzarren bat gehiago, ematen dioelarik aphezari, zeinak, aharia eskeintzean, othoitz eginen baitu harentzat, eta barkhatuko zaio.

17. Norbaitek jakingabea bekhatu egiten badu, Jaunaren legeak debekatzen dituenetarik zerbait eginez, eta hobendunak ezagutzen badu bere bekhatua,

18. Aphezari erakharriko dio arthaldetako ahari bat narriogabea, hobenaren prezamenaren heinekoa: aphezak harentzat othoitz eginen du, zeren jakingabez huts egin duen; eta barkhatuko zaio,

19. Oharkabeko hutsa egin dioelakotz Jaunari.

## VI. KAP.

1. Jauna berriz ere Moisi mintzatu zitzaioen, zioelarik:



2. Nork-ere bekhatu egin baituke, eta Jauna erdeinatuz, bere lagunari ukhatu baitioke zaintzera fidatua izan zaioen gauza, edo bortxaz zerbait khendu baituke, edo amarruz atzeman,

3. Edo gauza galdua khausitu baituke, eta ukhatzean zina gainera egin baituke, eta egin baituke bertze zerbait gauza, zeinetan gizonak bekhatutan erortzen ohi baitira,

4. Gaizkia frogatu-eta, bihurtuko ditu

5. Maulaz ardietsi nahi izan dituen guziak, osorik, eta bortzgarren bat gehiago jabeari, zeinari bidegabea ekharri izan baitio.

6. Bada, bere bekhatuarentzat arthaldetik eskainiko du ahari narriogabe bat, eta hura emanen dio aphezari, gaizkiaren prezamenaren eta neurriaren arabera.

7. Aphezak Jaunaren aitzinean othoitz eginen du harentzat, eta barkatuko zaizko egin dituen gaizkiak.

8. Eta Jauna mintzatu izan zitzaioen oraino Moisi, erraten zioelarik:

9. Manamendu hau egiozute Aaroni eta bere semeei: Huna holokaustako legea: gau guzian goizalderaino holokausta erretzen egonen da aldarean: eta aldare beretik izanen da sua.

10. Aphezak jauntziko ditu athorra eta liho-harizko galtzak: hartuko ditu, suak, oro erre ondoan, utzi dituen hautsak; eta aldarearen sahetsean ezarri dituenen,

11. Erauntziko ditu lehenbiziko soinekoak, eta bertze batzuek jauntzirik, kanpetarik hautsak atheratuko ditu, eta toki arras garbi batean errearaziko ditu azken phindarreraino.

12. Bainan aldarean khaldan egonen da bethi sua, zeina haziko baitu aphezak, egun guziz goizetan egurrak emanaz; eta holokausta ezarririk, gainean erreko du bitima bakezkoen bilgorra.

13. Hori da bethi iraunen duen sua, behinere aldarean iraungitzera utziko ez dena.

14. Huna Aaronen semeek Jaunaren aitzinean eta aldarearen aitzinean eskainiko dituzten sakrifizioetako eta libazionetako legea:

15. Aphezak olio bustia den irin zethabatutik ahur bat hartuko du, eta irinaren gainean den isentsu guzia; eta hura aldare gainean erreko du, Jaunari usain gozoneneko zaioen orhoitzapen bat bezala:

16. Ordean gainerako irina, Aaronen semeekin janen du altxagarririk gabe; eta hura janen du lekhu sainduan, tabernakleko lorioan.

17. Altxagarririk ez da ezarriko, zeren hartarik pharte isentsu bezala Jaunari eskaintzen baitzaio. Sainduen saindu izanen da, bekhatuarentzat eta hobenarentzateko bitima bezala.

18. Aaronen odoleko gizonkiek bakharririk hartarik janen dute. Hori lege bat Jaunaren fakrifizioen gainean bethikoa izanen da zuen ondoregoa guzian. Hortan khutsatuko dena sainduetsiko da.

19. Jauna oraino-ere Moisi mintzatu zitzaioen, erraten zioelarik:

20. Hau da Aaronen eta bere semeek Jaunari eskaini behar diotena beren gantzuegunean. Bethiereko sakrifiziotan eskainiko dute irin zethabatutik ephi baten hamargarrena, erdia goizean eta erdia arratsean,

21. Olio bustirik zarthagin frigitua izanen da. Eta hura berorik usain gozonenetan Jaunari eskainiko dio

22. Aphezak, zeina zuzenbidean bere aitaren ondoko jarria baita; eta guzia erreko du aldare gainean.

23. Ezen suak oso-oso iretsi behar du aphezen sakrifizioa, eta nihork ez du hartarik janen.

24. Gero Jauna Moisi mintzatu zitzaioen, zioelarik:

25. Errozute Aaroni eta bere semeei: Hau da bekhatuarentzateko bitimako legea: Jaunaren aitzinean imolatua izanen da, holokausta eskaintzen den tokian. Sainduen saindu da.

26. Eskeintzen duen aphezak, hura janen du lekhu sainduan, tabernakleko lorioan.

27. Haren haragiak ukituko dituen sainduetsiko da. Haren odoletik zortak jautzen balira soineko baten gainera, lekhu sainduan xahutua izanen da.

28. Haren erretzeko erabili den lurrezko untzia hautsia izanen da; untzia kobrezkoa balin bada, thorratua izanen da eta urez garbitua.

29. Aphez odoleko gizonki guziek haren haragietarik janen dute, zeren sainduen saindu baita.

30. Ezen bekhatuarentzat hiltzen den bitima, zeinaren odola lekhu-kotasuneko tabernaklera eramaten baita, saindutegian egitekotzat xahupena, ez da jana izanen, bainan bai suaz ahitua.

## VII. KAP.

1. Halaber hau da hobenarentzateko bitimako legea, sainduen saindu baita.

2. Hortakotzat, holokausta imolaten den lekhu hila izanen da hobenarentzateko bitima ere: haren odola ixuria izanen da aldarearen inguruan.

3. Hartarik eskainiko dira buztana eta gibel-erriak estaltzen dituen bilgorra,



4. Bi geltzurinak eta sahetsen ondoan den gantza, eta gibelaren sarea geltzurinekin.
5. Eta aphezak aldare gainean erreko ditu: hori da Jaunaganako isentsua hobenarentzat.
6. Aphez odoleko gizonki guziek lekhu sainduan janen dute haragi horietarik, sainduren saindu direlaketz.
7. Bitima bekhatuarentzat eskaintzen den bezala, orobat eskainia izanen da hobenarentzat: bi bitimentzat lege bera izanen da: bitima izanen da eskaintzen duen aphezarentzat.
8. Holokaustako bitima eskaintzen duen aphezak izanen du haren larrua.
9. Eta irinezko sakrifizio guziak, labean eta kriselan erretzen direnak edo zarthaginan xuxentzen, eskaintzen dituen aphezarentzat izanen dira.
10. Izan ditezen olio bustiak, edo idorrak, Aaronen seme guzien artean bardinki phartituak izanen dira.
11. Hau da Jaunari eskaintzen zaizkoen bakezko bitimen legea:
12. Esker-onezko eskaintza balin bada, eskainiko dira ogi altxagarri-gabeak olio bustiak, eta ophil airisak olio gantzutuak, eta irin zethabatu errerik, eta kauserak olioarekin orhatuak;
13. Eta ogi altxatuak ere, esker-onezko bitima, bakezko sakrifiziotzat imolatzen denarekin:
14. Hekietarik bat Jaunari pikaintzat eskainiko zaio, eta bitimaren odola ixurtzen duen aphezarentzat izanen da.
15. Egun berean janen dira bitimaren haragiak, eta hekietarik ez da biharamun goiz arteo batere geldituko.
16. Norbaitek botuz edo bere oldetara bitima bat eskaintzen badu, hura ere egun berean janen da: baina biharamuneko gelditzen bada zerbait, jatea haizu da;
17. Baina hirugarren egunean khausitzen den guzia, suaz ahitua izanen da.
18. Norbaitek bakezko bitimaren haragietarik hirugarren egunean jaten badu, eskaintza alfer bilhakatuko da, eta eskaintzaileari etzaio baliatuko: baina aitzitik, holako jakiaz lohitu dena, lege haustez hobendun izanen da.
19. Lohi den zerbait ukituko duen haragia, ez da jana izanen, baina bai suaz ahitua: xahu denak janen du bakezko bitimatik.
20. Nork-ere, khutsatua delarik janen baitu Jaunari eskainia den bakezko bitimatik, xahutua izanen da bere populuaren artetik.

21. Gizon edo aberearen lohia edo khutsa dezakeen zerbait ukiturik, halere horrelako haragietarik janen duena, bere populuaren artetik xahutua izanen da.
22. Eta Jauna Moisi mintzatu zitzaioen, zioelarik:
23. Errozute Israelgo semeei: Ez duzue janen ardiaren, idiaren eta ahuntzaren bilgorretik.
24. Bertze asko gauzetako erabiliren duzue hilikiaren edo ihiziak atzeman duen aziendaren bilgorra.
25. Jaunari usain gozotan eskaini behar zaioen bilgorretik janen duena, bere populuaren artetik xahutua izanen da.
26. Halaber abereen odoletik, nahiz hegastinenetik, nahiz aziendeneetik, ez duzue jateko harturen.
27. Nork-ere odola janen baitu, bere populuaren artetik xahutua izanen da.
28. Eta Jauna Moisi mintzatu zitzaioen, zioelarik:
29. Mintza zaite Israelgo semeei, erraten diozularik: Jaunari bakezko bitima eskainiko duenak, hanbatekin eskaint beza sakrifizioa ere, erran nahi da, hartako libazioneak.
30. Eskuetan idukiko ditu bilgorra eta bulhar-arte: eta biak eskainiz, Jaunari kontsekratu dituenen, emanen diozka aphezari,
31. Zeinak erreko baitu bilgorra aldare gainean: baina bulhar-arte izanen da Aaronen eta bere semeentzat.
32. Bakezko bitimen eskuineko sorbalda ere, pikain bezala, aphezari eroriko zaio.
33. Aaronen semeetarik, odola eta bilgorra eskaini dituenak, sorbalda eskuina ere bere pharte izanen du.
34. Ezen hartu ditut Israelgo semeen ganik, hekien bakezko bitimetarik, ene aitzinean altxatzen den bulhar-arte, eta ebakitzen den sorbalda, eta Aaron aphezari eta haren semeei eman ditut, bethi iraunen duen lege batez Israelgo populu guzia baithan.
35. Hori da Jaunaren zeremonietan Aaronen eta bere semeen gantzupeneko zuzena, Moisek erakharri zituen egunetik apheztasuneko egimbideak bethe zetzatentzat:
36. Eta hori da Jaunak manatu duena emana izan zakioten Israelgo semeez ondoko bethiko lege baten bidez.
37. Horrelakoa da bekhatuarentzateko eta hobenarentzateko holokaustako eta sakrifizioko legea, eta kontsekratonekoa, eta bakezko bitimetakoa,



38. Jaunak Moisi eman izan dioena Sinaiko mendian, Israelgo semeei gaztiatu zioetenean, Jaunari egin ziotzaten beren eskaintzak Sinaiko mortuan.

### VIII. KAP.

1. Jauna Moisi mintzatu zitzaioen, erraten zuelarik:
2. Har zatzu Aaron bere semeekin, hekien soinekoak eta gantzutze-ko olioia, bekhatuarentzateko aratxea, bi ahari eta saskia airisekin,
3. Eta baldarna guzia bilaraziko duzu tabernakle-sartzera.
4. Moisek egin zuen Jaunak manatu bezala. Eta tabernakleko athe aitzinera bilarazirik oste guzia,
5. Erran zuen: Hau da Jaunak egitea manatu duena.
6. Eta ordu berean erakharri zituen Aaron eta haren semeak. Eta hekiek garbitu ondoan,
7. Aphez-handiari jauntzi zioen liho-harizko athorra, gerrikoaz tinkatzen zuelarik eta jaunzten zioelarik athorra gorrimorea; eta soinera eman zioen soingainekoa,
8. Eta lokharriaz tinkatzen zuelarik, lothu zioen bulharretakoari zeinaren gainean iskribatuak baitziren hitz haukiek: Irakhaspena eta Egia.
9. Burukoa ere ezarri zioen buruan, eta hartan, belharraren gainean urhezko xafla izen sainduaz kontsekratua, Jaunak berari manatu zioen bezala.
10. Eta hartu zuen gantzutze-ko olioia, eta hartaz ferekatu zuen tabernaklea eta hartako tresneria guzia.
11. Eta aldarea sainduestean, zazpi aldiz ihinzatu ondoan, gantzutu zituen hura eta hartako tresna guziak; eta garbitzeko untzia bere azpiko-arekin olioaz sainduetsi zuen.
12. Aaron gantzutu eta kontsekratu zuen olioia ixuriz haren buruaren gainera.
13. Haren semeak ere erakharririk, jauntzi ziozkaten liho-harizko athorrek, eta errikoak ezarri, eta burukoak jauntzi, Jaunak manatu izan zuen bezala.
14. Gero bekhatuarentzat eskaini zuen aratxe bat: eta Aaronen eta haren semeek eskuak ezarri ondoan aratxearen buruaren gainean,
15. Moisek imolatu zuen hura, odola biltzen zuelarik; eta erhia bustirik, aldareko adarrak inguruan ukitu zituen; eta aldarea xahu eginik eta sainduetsirik, haren oinetara ixuri zuen odol gainerakoa.
16. Eta gibel-erriak estaltzen zituen bilgorra, eta gibelaren sarea, eta bi geltzurrinak beren gizenarekin, erre zituen aldare gainean:

17. Aratxea, bere larru, haragi eta gorotzarekin, erretzen zuelarik kanpetarik kanpoan, Jaunak manatu izan zuen bezala.
18. Ahari bat ere holokaustetan eskaini zuen: Aaronen eta bere semeek haren buruaren gainean eskuak ezarri ondoan,
19. Moisek hura imolatu zuen, eta haren odola aldarearen inguruan ixuri.
20. Eta aharia bera puskaturik, haren burua, menbroak eta bilgorra suan erre zituen,
21. Lehenik sabela eta zangoak garbiturik; eta ahari guzia batean erre zuen aldare gainean, zeren zen holokausta bat, Jaunari usainik gozoeneko, Jaunak manatu izan zioen bezala.
22. Bigarren aharia eskaini zuen aphezen kontsekratzioneko: Aaronen eta bere semeek eskuak ezarri zituzten haren buruaren gainean:
23. Hura imolatu ondoan, Moisek, odoletik harturik, ukitu zituen Aaronen eskuineko beharri-gingilaren mokoa, esku eskuineko erhi pototsa, eta orobat zangokoa.
24. Aaronen semeak ere aitzinera erakharri zituen; eta ahari imolatuaren odolarekin ukitu ziotzaten ondoan batbederari eskuineko beharri-gingilaren mokoa, eskuineko esku eta zangoko erhi pototsak, ixuri zuen gainerako odola aldarearen inguruan:
25. Bainan berez ezarri zituen buztana, sabela estaltzen duen bilgor guzia, eta gibelaren sarea, eta bi geltzurrinak beren gizenarekin eta eskuineko sorbalda.
26. Eta Jaunaren aitzinean zen airisetako saskitik harturik ogi altxagarrigabeko bat, olioaz bustirikako kausera bat, eta ophil bat, ezarri zituen bilgorren eta eskuineko sorbaldaren gainean,
27. Guziak batean ematen zituelarik Aaroni eta bere semeei, zeinek gero altxatu baitzituzten Jaunaren aitzinean.
28. Moisek hartu zituen berriz hekien eskuetarik eta holokaustetako aldarean erre, zeren hura baitzen kontsekratzioneko eskaintza, sakrifizio-ko usain gozoa Jaunari.
29. Eta Jaunaren aitzinean altxatzen zuelarik kontsekratzioneko aharirik bulhar-arte, bere phartetzat hartu zuen, Jaunak manatu izan zioen bezala.
30. Gero harturik gantzugarria eta aldare gainean zen odola, ihinzatuta egin zuen Aaronen eta bere soinekoen gainera, haren semeen eta beren soinekoen gainera.
31. Eta sainduetsi zituenean beren soinekoetan, manatu zioten, erra-ten ziotelarik: Erre zatzue haragiak tabernakleko athe aitzinean, eta hor



jan zatzue: saskian ezarriak diren kontsekratzioneko ogiak ere jan zatzue, Jaunak niri manatu izan darotan bezala, zioelarik: Aaronek eta bere semeek janen dituzte hekiek:

32. Baina haragitik eta ogietarik geldituko den gainerako guzia, suaz ahitua izanen da.

33. Halaber tabernakleko sartzetik etzarete zazpi egunez ilkhiren, zuen kontsekratzioneko ephea betheko den eguna arteo: ezen zazpi egunez osatzen da kontsekratzioa,

34. Oraietan egin den bezala, sakrifizioko zeremonien bethetzekotzat.

35. Gau eta egun tabernaklean egonen zarete, Jaunaren manamenduak begiratu, beldurrez-eta hil zaitezten: ezen hola izan zait niri manatua.

36. Eta Aaronek eta bere semeek egin zituzten Jaunak Moisen ahoz erran zituen guziak.

### IX. KAP.

1. Bada, zortzigarren eguna ethorri-eta, Moisek deithu zituen Aaron eta haren semeak eta Israelgo zaharrenak, eta Aaroni erran zioen:

2. Arthaldetik aratxe bat har zazu bekhatuarentzat, eta ahari bat holokaustako, biak narriogabeak, eta Jaunaren aitzinean eskaini zatzu.

3. Eta errozute Israelgo semeei: Har zatzue akher bat bekhatuarentzat, eta urtheko aratxe eta bildots bat, eta narriogabeak, holokaustako,

4. Idi bat eta ahari bat bakezko bitimatatzat: eta hekiek imola zatzue Jaunaren aitzinean, sakrifizio bakhotxean eskaintzen duzuelarik irin zehabatua olio z bustia: zuei ezen egun agertuko zaitzue Jauna.

5. Moisek manatu guziak erakharri zituzten beraz tabernakle-sartze-  
ra: eta oste guzia han xutik zagoelarik,

6. Moisek erran zuen: Hau da Jaunak manatu duena: egizue eta agertuko zaitzue haren gloria.

7. Eta erran zioen Aaroni: Hurbil zaite aldareari, eta imola zazu zure bekhatuarentzat: holokausta eskaini zazu, eta othoitz egizu zuretzat eta populuarentzat; eta hil dukezunean populuaren bitima, othoitz egizu harentzat, Jaunak manatu izan duen bezala.

8. Berehala aldarera hurbildurik, Aaronek aratxe bat imolatu zuen bere bekhatuarentzat:

9. Bere semeek haren odola aitzinera eman zioten; hartan erhia bustitzu zituen aldarearen adarrak, eta gainerakoa ixuri aldarearen oinetan.

10. Eta bilgorra eta geltzurinak eta gibelaren sarea, bekhatuarentzat direnak, erre zituen aldare gainean, Jaunak Moisi manatu izan zioen bezala.

11. Baina haragiak eta larrua kanpez haindian suan ahiazi zituen.

12. Gero imolatu zuen holokaustako bitima; eta bere semeek aitzinera eman zioten haren odola, zeina ixuri baitzuen aldarearen inguruan.

13. Bitima bera ere pusketan ezarririk, buruarekin eta menbro bakhotarekin aitzinera eman ziozkaten, eta guziak aldare gainean suan erre zituen,

14. Lehenik urean garbitu ondoan sabela eta zangoak.

15. Eta populuaren bekhatuarentzat akher bat hil izan zuen, eta aldarearen xahupena egin ondoan,

16. Holokausta eskaini zuen,

17. Iratxikitzen zituelarik libazione orobat eskaintzen direnak, eta hekiek erretzen zituelarik aldare gainean, goizeko holokaustako zeremoniez bertzalde.

18. Eta imolatu zituen idia eta aharia, populuaren bakezko bitimak; eta bere semeek aitzinera eman zioten odola, zeina ixuri baitzuen aldarearen gainean inguru guzian.

19. Idiaren bilgorra ordean, eta ahariaren buztana, eta geltzurinak beren gizenekin, eta gibelaren sarea,

20. Ezarri zituzten bitimen bulharren gainean: eta bilgorrak erre izan zirenean aldare gainean,

21. Aaronek berezi zituen hekien bulharrak eta eskuineko sorbaldak, Jaunaren aitzinean altxatzen zituelarik, Moisek manatu izan zuen bezala;

22. Eta populuaren alderat hedaturik eskua, benedikatu zuen. Eta horrela bekhatuarentzateko bitimen eta holokausten, eta bakezko bitimen eskaintzeak eginik, jautsi izan zen.

23. Orduan Moise eta Aaron lekhukotasuneko tabernaklean sarthurik, eta gero ilkhirik, benedikatu zuten populua. Eta Jaunaren ospea oste guziari agertu zen;

24. Eta hara non su bat jauzi zen Jauna ganik, eta iretsi zituen aldare gainean ziren holokausta eta bilgorrak. Populuak hori ikhusi zuenean, ahuspez eroririk, goretsi zuen Jauna.

### X. KAP.

1. Eta Aaronen seme Nadabek eta Abiuk isentsuntziak harturik, ezarri zuten hekietan sua, eta haren gainean isentsua, Jaunaren aitzinean eskaintzen zutelarik su atzea: hori zen manatua izan etzitzaitena.





2. Eta Jauna ganik su bat ilkhirik, iretsi zituen, eta hil ziren Jaunaren aitzinean.
3. Eta Moisek erran zioen Aaroni: Hau da Jaunak errana: Sainduetsia izanen naiz niri hurbiltzen direnen baithan, eta goretsia izanen naiz populu guziaren aitzinean. Hori aditzearekin, Aaron ixildu zen.
4. Bada, Moisek deithurik, Aaronen osaba Ozielen semeak, Misael eta Elisaphan, erran zioten: Zoazte eta har zatzue zuen anaia taberna-klearen aitzinetik, eta eraman zatzue kanpez haindira.
5. Eta berehala goanik, hartu zituzten lurreen hilak zaudezinak, beren liho athorrek soinean, eta manatu bezala arthiki zituzten kanpora.
6. Orduan Moisek erran zioten Aaroni eta haren seme Eleazarri eta Ithamarri: Begira zaitezte burukoen khentzetik, eta etzatzuela zuen soinekoak phorroka, beldurrez-eta hil zaitezten, eta baldarna guziaren gainera jauz dadien Jaunaren hasarrea. Zuen anaiek eta Israelen etxe guziak deithora bezate Jaunak sorrarazi duen su-khalda.
7. Zuek ordean tabernakletik ez betzaizte athera, bertzenaz xahutuak izanen zarete: ezen gainean duzue gantzadura sailduko olio. Haukiek oro egin zituzten Moisen manuaren arabera.
8. Aaroni halaber erran zioen Jaunak:
9. Arnorik, ez-eta hordi dezakeen bertze edaririk ez duzue edanen, ez zuk ez-eta zure semeek, lekhukotasuneko taberneklean sarthuko zarentean, hil etzaiztezentzat: zeren hori baita manamendu bat bethi iraunen duena zuen ondorego guzientzat,
10. Jakin dezazuen ezagutzen zer den saildu, eta zer profano, zer den lohi, eta zer xahu;
11. Eta Israelgo semeei irakhats diotzotzueten ene lege guziak, Jaunak Moisen arartekoz hekiei emanak.
12. Eta Moisek erran zioten Aaroni eta haren seme Eleazar eta Ithamar, gelditu zirenei: Har zazue Jaunari egin eskaintzatik gelditu den sakrifizioaren ondarra, eta jan zazue altxagarririk gabe aldare-ondoan, zeren den sailduren saildu.
13. Bada, lekhu sailduan janen duzue, zeren zuri eta zure semeei emana izan baitzaitzue Jaunari eginikako eskaintzetarik, niri manatua izan zaitan bezala.
14. Eskainia izan den bulhar-arte ere, eta berezia den sorbalda, toki-rik xahuenean janen dituzue, zuk eta zure semeek, eta zure alabek zurekin. Zuretzat ezen eta zure haurrentzat bazterrerat ezarriak izan dira Israelgo semeen bitima bakezkoetarik;

15. Zeren sorbalda, bulharra eta bilgorra aldarean erretzen direnak, Jaunaren aitzinean altxatu baitituzte, eta zureak eta zure semeenak baitira, bethiko lege batez, Jaunak manatu izan duen bezala.

16. Bizkitartean, Moisek bilhatzean bekhatuarentzat eskainia izan zen akherra, kiskailia khausitu zuen; eta samurtu zitzaizoten Eleazarri eta Ithamarri, Aaronen seme gelditu zirenei, eta erran zioten:

17. Zertako ez duzue jan lekhu sailduan bekhatuarentzateko bitima, sailduren saildu dena, eta emana izan zaitzuen a jasan dezazuentzat populuaren gaizkia, eta harentzat othoitz egin dezazuen Jaunaren aitzinean,

18. Guziz ez denaz geroztik bitima horren odoletik ekharri saildute-gira, eta hori jan izan behar baitzinduten lekhu sailduan, niri manatua izan zaitan bezala?

19. Aaronek ihardetsi zuen: Bekhatuarentzateko bitima eta holo-kausta egun Jaunaren aitzinean eskainiak izan dira; bainan ikhusten duzuna gerthatu zait niri: nola jan nezakeen hori, edo nola zeremonietan Jaunari atsegin egin nezakeen ene bihotzeko beltzatasunarekin?

20. Hori entzutearekin, Moisek onhetsi zuen solasa.

## XI. KAP.

1. Moisi eta Aaroni mintzatu zen Jauna, zioelarik:
2. Errozute Israelgo semeei: Lurreko abere guzietarik hautxek dira jan behar dituztuenak.
3. Lau hatzetako abereetarik janen dituzte hatzeko behatza urratua dutenak eta ausnarrean haritzen direnak.
4. Ordean ausnarrezaletarik, behatza duena bainan ez urratua, hala nola kamelua eta gainerakoak, ez duzue hura janen, eta lohien arteko idukiren duzue.
5. Sagarroia, ausnarrezalea delarik behatza urratua ez duena, lohia da.
6. Erbia ere bai: ezen ausnarrezalea da, bainan ez du behatza urratua.
7. Eta urdea, behatz urratuarekin delarik, ez da ausnarrezalea.
8. Abere horien haragietarik ez duzue janen, eta ez duzue horien hili-kia ukutuko, zeren lohi diren zuentzat.
9. Haukiek dira urean sortzen direnak eta jatea sori direnak: hegalak eta ezkatat dituzten guziak, nahiz itsasoan, nahiz hibaletan eta ur-maeletan, janen dituzte.
10. Bainan urean dabilzan eta bizi direnetan, hegalik eta ezkatarik ez dituztenak, hatsat iduki



11. Eta higuintzetan izan behar dituzue: ez duzue janen hekien hara-gietarik, eta hekien hilikiari bazter eginen diozue.
12. Uretan hegal eta ezkata gabe diren guziak lohi izanen dira.
13. Hegastinetan, haukiek dira jan behar ez dituzuenak eta ihes egin behar diozuetenak: arranoa, grifoina eta itsas-arranoa;
14. Mirua eta saia, eta beren motakoak;
15. Bele mota guziak;
16. Ostruka, huntza, maloina, astorea eta beren motakoak;
17. Huntz oihularia, puianta eta ibisa;
18. Zina, pelikanoa eta porfiriona;
19. Amiamokoa, karadriona eta beren motakoak, basoilarra ere eta gau-ainhara;
20. Hegaldaka eta hanbatean lau hatzen gainean ibiltzen diren guziak hats izanen zaizkitzue.
21. Ordean lau hatzen gainean dabilana, bainan gibekeko zangarrak luzeagoak dituelarik hekiekin lurraren gainean jauzika ibiltzen dena
22. Jaten ahal duzue, hala nola brukoa, atakoa, ophiomakoa eta xartala, zein bere motaren arabera.
23. Bainan hegaldaka dabilzanetan, lau hatz baizik ez dituztenak hats izanen zaizkitzue.
24. Eta edozein hekien hilikia ukituko duena, khutsatuko da eta lohi egonen arrats arteo:
25. Eta hekien hilikitik zerbaiten erabiltzeko premian izan baledi, garbituko ditu bere soinekoak, eta lohi izanen da iguzkia sarthu arteo.
26. Edozein abere, hatzean behatza duena, bainan urratugabea, eta ausnarrean haritzen ez dena, lohi izanen da; eta hura ukitzen duena khutsatuko da.
27. Lau hatzen gainean dabilzan abere guzien arteko, eskuen gainean ibiltzen dena, lohi izanen da; haren hilikia ukituko duena khutsatua izanen da arrats arteo.
28. Halako hilikirik erabiliko duenak, soinekoak garbituko ditu, eta arrats arteo lohi izanen da, zeren halako abere guziak zuentzat lohi izanen baitira.
29. Lurraren gainean dabilzan abereetan hautxek ere lohitzat iduki-ko dituzue; anjerejerra, sagua eta krokodila, zein bere motaren arabera.
30. Armiarma-sagua, kameleoina, estelioa, muskerra eta sathorra:
31. Horiek oro lohiak dira. Horien hilikia ukituko duena, arrats arteo lohi izanen da:

32. Eta horien hilikitik edozein gauzetara zerbait eror badadi, khutsatua izanen da, nahiz zurezko untzi, nahiz soineko, larru edo marrega: eta zerbait lanetan erabiltzen diren untziak, urean garbituko dira, eta lohi izanen dira arrats arteo; eta gero xahu eginak izanen dira.

33. Bainan lurrezko untzia zeinetara holakorik zerbait eroriko baita, khutsatuko da, eta horren gatik hausteko da.

34. Halako untzitik zure jatekora urik erortzen bada, jatekoa lohi izanen da; eta halako untziko edari guzia, lohi izanen da,

35. Eta hiliki hekietarik zerbait erortzen bada, ukitua lohituko du: nahiz su-untziak, nahiz duphinak, lohi izanen dira, eta hautsiko dira.

36. Bainan ithurriak, urtegiak eta urbildegi guziak xahu izanen dira. Erran hilikia ukituko duena izanen da lohi.

37. Hekietarik zerbait erortzen bada haziaren gainera, ez du khutsatuko.

38. Bainan norbaitek hazia urez busti badu, eta gero hilikiz ukitua bada, ordutik khutsatua da.

39. Jatea zilhegi zaitzuen abereetarik bat bere baitarik hiltzen bada, haren hilikia ukituko duena, arratseraino lohi izanen da.

40. Hartarik janen edo ekharriko duenak, soinekoak garbituko ditu, eta arrats arteo lohi izanen da.

41. Lurrean herrestaka dabilan guzia, hats izanen da, eta ez da jateko harturen.

42. Ez duzue janen lau hatzetako eta gehiagoko abere bulharraren gainean dabilana, edo lurrean herrestatzen dena, zeren-eta hats baita.

43. Etzatzuela notha zuen arimak, eta etzazuela hekietarik batere uki, lohi izan etzaiztezentzat.

44. Ezen ni naiz zuen Jainko Jauna: saildu izan zaitezte, zeren saildu naizen ni. Etzatzuela khutsa zuen arimak lurraren gainean higitzen diren zierpeez.

45. Ni naiz ezen Jauna Egiptoko lurretik atheratu zaituztedana, zuen Jainkoa izan nadientzat. Saildu izan behar duzue, saildu naizelakotz ni.

46. Hau da legea, azienda, hegastin, urean dabilzan eta lurrean herrestatzen diren abere mota guzien gainekoa,

47. Ezagut dezazuentzat zer den xahu eta zer lohi, eta jakin dezazuen zer behar duzuen jan eta zer utzi.

## XII. KAP.

1. Moisi berriz ere Jauna mintzatu zitzaioen hunela:



2. Mintza zaite Israelgo semeei, eta hau errozute: Emazteki, izorra gerthatu ondoan, muthikokiaz erdiko dena, lohi izanen da zazpi egunez, bere hilabethetako berezgoaren egunetan bezala.

3. Haurra zortzigarren egunean ingurebakiko da.

4. Bera ordean hogoi eta hamahirur egunez egonen da bere xahupeneko odolean. Ez du deusere saildu denik ukituko, eta ez da saildutegian sarthuren bere xahupeneko egunak bethe arteo.

5. Bainan nexka batez erdi bada, lohi izanen da bi astez, bere odol-galtzetan ohi den bezala, eta hirur hogoi eta sei egunez egonen da bere xahupeneko odolean.

6. Eta bere xahupeneko egunak bethe ditueanean semearentzat, edo alabarentzat, urtheko bildots bat holokaustetako ekharriko du, eta usokume edo ttorttoila bat, bekhatuarentzat, lekhukotasuneko tabernakle-sartzera, eta emanen diozka aphezari;

7. Eta hunek eskainiko ditu Jaunaren aitzinean, eta haren bekhatuarentzat othoitz eginen du, eta hola xahutuko da bere odol ixurtzetik. Hori da muthikokiaz edo nexkaz erditzen denaren legea.

8. Eta ez badu khausitzen eta ez badezake eskeint bildotsa, hartuko ditu bi ttorttoila edo bi usokume, bat holokaustetako, eta bertzea bekhatuarentzat; aphezak harentzat eginen du othoitz, eta hola xahutuko da.

### XIII. KAP.

1. Gero Jauna mintzatu zen Moisi eta Aaroni, erraten ziotelarik:

2. Gizona, zeinari larruan eta haragian atheratuko baitzaio kara mudazkorik edo bixikarik, edo zerbait argidura bezalatsukorik, erran nahi da legen-zauria, eramana izanen da Aaron aphezaren aitzinera edo haren semeetarik baten gana.

3. Hunek ikhusten duenean legena larruan, eta ileak zurira mudatuak, eta legenaren itxura den tokia sarthuagoa dela larrua baino eta bertze haragia baino, lehenaren zauria da, eta aphezaren erabakitik gizona lagunetarik berezia izanen da.

4. Bainan zuritasun argi hura larruan bada, eta bertze haragia baino sarthuagoa ez bada, eta ileak leheneko karan badaude, aphezak gizona zazpi egunez hertsia idukiko du,

5. Eta zazpigarren egunean begiratuko dio: eta baldin legena ez bada gehiago handitu, eta ez baditu larruan aitzineko neurriak iragan, berriz bertze zazpi egunez hertsiko du.

6. Eta zazpigarren egunean begiratuko dio: eta legena ilhunago bada, eta ez bada larruan hedatu, xahutuko du gizona, zeren zaragarra baita: gizonak garbituko ditu bere soinekoak, eta xahu izanen da.

7. Baldin aphezak ikhusia izan ondoan, eta xahu atheratua, legena berriz hedatzen balitz, gizona aphezaren gana bihurtua izanen da,

8. Eta lohitzat atheratua izanen da.

9. Legenaren zauria gizon baten baithan gerthatzen balin bada, haina aphezaren gana erakharriko da,

10. Eta hunek ikhusiko du. Eta larrua zuritua denean, eta ileen itxura mudatua, eta haragi bizia ere ageri,

11. Legena zaharkitua eta larruari jota dela erabakiko da. Horren gatik aphezak lohitzat atheratuko du gizona, eta ez du hertsiko, zeren haren lohitasuna agerikoa baita.

12. Bainan legena barriatuz hostatzen bada, burutik zangoetaraino, begiek ikhus ahal detzazketen guziak estaltzen baditu,

13. Aphezak begiratuko dio, eta erabakiko du legenik xahuena duela, guzia zuritu duelakotz, eta hortako xahu izanen da.

14. Bainan haragi bizia agertuko zaioenean,

15. Orduan aphezaren erabakitik lohi atheratuko da, eta lohien arteko idukia izanen da; ezen haragi biziarekin nahastekatzen den legena, lohi da.

16. Baldin berriz zurira bihurtzen bada, eta gizona osoki estaltzen badu,

17. Aphezak begiratuko dio, eta xahutzat atheratuko du.

18. Baldin norbait haragian edo larruan zauri bat sorthu bazaio eta sendatu,

19. Eta zauri-lekhuan agertzen bada orbain bat zuria edo gorrastkara, gizona aphezaren gana erakharriko da.

20. Hunek ikhusiko duenean legenaren tokia bertze haragia baino sarthuagoa, eta ileak zurituak, haina lohitzat atheratuko du; ezen legenaren zauria ilkhi da orbainean.

21. Ileak leheneko kara balin badu eta orbaina uhersko, eta inguruko haragia baino ez bada sarthuagoa, aphezak gizona hertsiko du zazpi egunez.

22. Eta berhatzen bada, legena dela erabakiko du.

23. Bainan bere lekhuan baratzen bada, zauriaren orbaina da, eta gizona xahu izanen da.

24. Bainan suz erroerik sendatu diren haragiak eta larruak orbaina zuri edo uher badute,



25. Aphezak begiratuko dio, eta zurira bihurtu bada, eta haren lekhuia larru gainerakoa baino sarthuagoa; lohitzat atheratuko du gizona, zeren legenaren zauria orbainean sorthu baita.

26. Ileen kara hala-hala egon bada, eta zauria ez bada gainerako haragia baino sarthuagoa, eta legenaren ithura gobela balin bada, aphezak gizona hertsiko du zazpi egunez,

27. Eta zazpigarren egunean begiratuko dio: legena barraiatu bada larruan, gizona lohitzat atheratuko du.

28. Bainan zuritasuna bere lekhuian egon bada garbia izan gabe, erretzapeneko zauria da: eta horren gatik gizona xahutzat atheratuko da, zeren orbaina erredurarena baita.

29. Gizona edo emaztekoa, zeinari buruan edo bizarrean hazi baitzaio legena, ikhusiak izanen dira aphezaz.

30. Eta lekhuia sarthuagoa bada bertze haragia baino, ilea horasta eta ohi baino meharragoa, aphezak hainak lohitzat atheratuko ditu, zeren legena burukoa eta bizarrekoa baita.

31. Bainan ikhusten badu plaparen tokia inguruko haragiarekin bardinena dela eta ilea beltz, gizona hertsiko du zazpi egunez,

32. Eta zazpigarren egunean begiratuko dio. Baldin plapa hedatu ez bada, eta ilea bere karako badago, eta zauriaren tokia bertze haragiarekin bardin,

33. Gizona murriztuko dute lekhat plaparen tokian, eta bertze zazpi egunez hertsia izanen da.

34. Baldin zazpigarren egunean ikhusten bada zauria bere lekhuian egon dela, eta ez dela bertze haragia baino sarthuagoa, aphezak xahu atheratuko du, eta xahu izanen da bere soinekoak garbitu ondoan.

35. Bainan xahutu-eta, plapa hedatzen bada oraino larruan,

36. Ez du gehiago bilhatuko hea ilea horitu denez, zeren den ageriki lohia.

37. Bada, plapa baratu bada, eta ileak beltz badira, ezagut beza gizona sendatua dela, eta ausarki xahutzat athera beza.

38. Gizon edo emazteki, larruan zuria agertzen zaioenari,

39. Aphezak begiratuko zuritasun ubelak argitzen duela larruan khausitzen badu, jakin beza ez dela legena, bainan plapa zuri bat, eta gizona xahua dela.

40. Gizona, zeinari ileak burutik erortzen baitzaizko, khartzoil da eta xahu:

41. Eta belharretik erortzen bazaizko ileak, aitzinez khartzoil da eta xahu.

42. Bainan khartzoil du tokian, aitzinean edo gibelean, plapa zuri edo horirik sorthu bada,

43. Aphezak ikhusi-eta, eikirik gabe erabakiko du legena dela, toki khartzoilduan sorthua.

44. Beraz legena joa, eta aphezaren erabakiz berezia den nor-nahik,

45. Soinekoak urratuak idukiko ditu, burua has, begithartea soinekoaz itzalia, eta oihuz egonen da khutsatua eta lohi dela.

46. Legentsu eta lohi izanen den ephe guzian, egonen da bakharrik kanpetarik kanpo.

47. Soineko ilezko edo lihozkoa legena duena

48. Irazkian eta forraduran, edo larruzkoa bada, edo larrukiz egina den zerbait,

49. Plapa zuriaz edo gorrastaz thonatua bada, plapa hura legentzat ekharria izanen da, eta aphezari erakhutsiko zaio.

50. Hunek, begiratu-eta, zazpi egunez hertsiko du.

51. Eta zazpigarren egunean berriz begiraturik, berhatu dela atzematzen badu, dirauen legena da, soinekoa khutsatua dela erabakiko du, eta thonekin kausitu diren gauza guziak ere bai;

52. Eta horren gatik suan erreko dira.

53. Ikhusten badu thona ez dela berhatu,

54. Manatuko du, eta garbituko dute legena duen gauza, eta aphezak hura bertze zazpi egunez hertsiko du.

55. Eta ikhusten duenean leheneko itxura ez dela bihurtu, nahiz legena ez den berhatu, lohitzat erabakiko du, eta suan erreko, legena jarri delakotz soinekoaren axalean, edo barnera ere sarthu.

56. Bainan soinekoa garbitu ondoan legenaren tokia ilhunago bada, ebakiko du puska eta gainetakotik bereziko.

57. Geroago agertzen bazaio, aitzinean thonatuak etziren lekhuetan, legen ezbaieko dabilan bat, suan erre behar da.

58. Legena gelditu bada, urean xurituko dira berriz garbi direnak, eta xahu izanen dira.

59. Hori da legenaren legea soineko ilezkoetan eta lihozkoetan, oihailean eta forraduran, eta larruzko puska guzietan, nola behar diren xahu edo lohitzat atheratu.

#### XIV. KAP.

1. Eta Jauna Moisi mintzatu zen, ziolarik:

2. Huna legentsuaren legea xahutzat atheratzekotan denean: Aphezaren aitzinera erakharriko da:



3. Hunek, kanpetarik ilkhirik, atzematen duenean legena sendatua dela,
4. Xahupenetan denari manatuko dio bere buruarentzat eskeint ditzan bizirik bi etxe-xori zeinetarik jatea zilhegi baita, zedro zurkia, eskarlatakia eta hisopoa.
5. Manatuko du etxe-xorietarik bat imolatua izan dadien lurrezko untzian, ur biziaren gainean:
6. Eta bertzea, bizirik dena, zedrokiarekin, eskarlatarekin eta hisoporekin, imolatua izan den etxe-xoriaren odolean bustiko du.
7. Odol hartaz zazpi aldiz ihinzatuko du xahutzekotan dena, lege xahutua izan dadientzat: eta bertze etxe-xoria bizirik utziko du goatera, bazterretan hegaldaka ibil dadientzat.
8. Eta gizonak garbitu ditukeenean bere soinekoak, bere gorputzeko ile guziak murriztuko ditu, eta urez garbituko da: eta xahutua sarthuko da kanpetan, egoten delarik halabedere zazpi egunez bere olhatik kanpo,
9. Eta zazpigarren egunean murriztuko ditu buruko ileak, bizarra, bephuruak eta gorputz guziko ileak. Eta berriz garbiturik soinekoak eta gorputza,
10. Zortzigarren egunean hartuko ditu bi bildots narriogabeak, urheko antxu nothagabe bat, eta irin zethabatutik hirur hamarren sakrifiziokotzat, olio z bustirik, eta bertzalde laurden bat olio.
11. Gero aphezak xahutzen duelarik gizona, horiekin guziekin ezarri dukeenean Jaunaren aitzinean lekhukotasuneko tabernakle-sartzean,
12. Bildots bat hartuko du eta hobenarentzat eskeiniko laurden olioarekin: eta guziak Jaunaren aitzinean eskaini ondoan,
13. Bildotsa imolatuko du, bekhatuarentzateko bitima eta holokausta imolatzen ohi diren tokian, erran nahi da lekhu sainduan. Ezen nola bekhatuarentzateko bitima, hala hobenarentzatekoa aphezarena da: sainduren saildu da.
14. Eta aphezak hobenarentzat imolatua den bitimaren odoletik harturik, hartarik ezarriko du xahutzen hari denaren eskuineko beharri-gingilaren mokoan, eta eskuineko eskukuko eta zangoko erhi pototsetan:
15. Eta laurden oliotik ere ixuriko du bere ezkerreko eskura,
16. Eta eskuineko erhia bustiko du olioan, eta zazpitan eginen du ihinzadura Jaunaren aitzinean;
17. Eta ezkerreko eskuan gelditu den olio ia ixuriko du xahutzen hari denaren eskuineko beharri-gingilaren mokora eta eskuineko eskuko eta zangoko erhi pototsetara, eta bekhatuarentzat ixuria den odolaren gainera,

18. Eta gizonari buru gainera.

19. Harentzat othoitz eginen du Jaunaren aitzinean, eta bekhatuarentzateko sakrifizioa eginen du: orduan imolatuko du holokausta,

20. Eta hura ezarriko du aldare gainean bere libazioneekin, eta gizona behar-den-bezala xahutua ditake.

21. Bainan beharra balin bada, eta erran direnak ezin badetzazke atzeman, hobenarentzat hartuko du bildots bat eskaintzetako, aphezak harentzat othoitz egin dezan, eta hamargarren bat irin zethabatu, eta laurden bat olio,

22. Eta bi ttorttoila edo bi usokume, zeinetarik bat bekhatuarentzat eta bertzea holokausteko:

23. Eta xahupeneko zortzigarren egunean aphezari eskeiniko diozka lekhukotasuneko tabernakle-sartzean, Jaunaren aitzinean.

24. Aphezak bildotsa hobenarentzat hartzen duelarik, eta olio laurdena, batean altxatuko ditu;

25. Eta bildotsa imolaturik, haren odoletik ezarriko du xahutzen denaren eskuineko beharri-gingilako mokoan eskuineko esku eta zangoko erhi pototsetan:

26. Bere esku ezkerrean emanen du oliotik,

27. Hartan esku eskuineko erhia bustiz, zazpitan ihinzadura eginen du Jaunaren aitzinean;

28. Eta ukituko ditu xahutzen hari denaren eskuineko beharri-gingilako moko eta eskuineko esku eta zangoko erhi pototsak, hobenarentzat ixuria izan den odolaz bustiak izatu diren tokian;

29. Eta esku ezkerrean gelditu zaioen gainerako olio ia, xahutua denari buru gainera ixuriko dio, Jauna haren alderat begithartez jar dadientzat.

30. Eta eskeiniko du ttorttoila edo usokumea,

31. Bat hobenarentzat eta bertzea holokaustetan bere libazioneekin.

32. Bere xahupenekotzat behar dituen guziak ezin izan detzazkeenean sakrifizioa hori da.

33. Jauna oraino ere Moisi eta Aaroni mintzatu zitzaioeten hunela:

34. Sarthu zaiztekeenean Kanaango lurrean, zeina gozatzeraren emanen baitarotzuet, legenarekilako etxerik balin bada,

35. Etxearen jabea aphezari goanen zaio eta erranen dio: Iduritzen zait ene etxean badela legenaren zauria bezalako bat.

36. Orduan aphezak manatuko du athera detzaten etxeko puska guziak, bera barnera sar dadien baino lehen eta ikhus dezan hea legendsua denez, beldurrez-eta etxeko gauzak oro lohi bilhaka ditezen. Eta gero sarthuko da etxeko legenaren ikhustera.



37. Eta ikhusten dituenean hango harrasietan errekaguneak bezala ubelduraz edo gorrastduraz itsustuak, eta gainerako azala baino sarthua-goak,

38. Etxetik ilkhiko da, eta berehala hertsiko du zazpi egunentzat.

39. Zazpigarren egunean itzulirik, begiratuko dio: legena berhatu dela atzematzen badu,

40. Manatuko du athera detzaten legendun harriak, eta hiritik kanpoan arthik detzaten lekhu lohi batera;

41. Etxea bera kharrakatua izan dedin barnetik inguruka, eta kharrakaturatik heldu den herrautsa arthikia izan dedin hiriz kanpoan lekhu lohi batera,

42. Eta bertze harri batzuek ezar detzaten khenduen orde, eta bertze buztin batez zartatua izan dadien etxea.

43. Bainan harriak eta kharrakak khendu ondoan, eta etxea buztin berriz zartatu-eta,

44. Aphezak sarthurik ikhusten badu legena bihurtua, eta harrasiak zaflaka plapatuak, legen dirauena da, eta etxea lohia.

45. Etxe hura arthikiko da berehala lurrera, eta hartako harriak, zurak eta phorroska guziak hiriz kanpoan lekhu lohi batera arthikiko dira.

46. Etxe hura hertsia dagoenean, barnera sarthuko dena, lohi izanen da arrats arteo;

47. Eta han lo eginen duenak, eta zerbait janen, garbituko ditu bere soinekoak.

48. Aphezak sartzean ikhusten badu legena ez dela etxean berhatu, berritan zartatua izan denaz geroztik, sasualdutzat xahutuko du:

49. Eta xahupenaren egiteko harturen ditu bi etxe-xori, zedro zura, eskarlata eta hisopoa;

50. Eta etxe-xori bat imolaturik lurrezko untzian ur bizien gainean,

51. Hartuko ditu zedro zura, hisopoa, eskarlata eta etxe-xori bizia, eta oro bustiko ditu etxe-xori imolatuaren odolean eta ur bizietan, eta zazpi aldiz ihinztatuko du etxea,

52. Eta hura xahutuko du hala etxe-xoriaren odolaz nola ur biziez, eta etxe-xori biziaz, eta zedro zuraz, eta hisopoaz eta eskarlataz.

53. Eta utzi duenean etxe-xoria kanpoan librokiko hegaldatzera, othoitz eginen du etxearentzat, zeina legez xahutua izanen baititake.

54. Hori da legenaren eta gaitz gaixto guzien gaineko legea,

55. Eta soinetakoetako eta etxeetako legenarena,

56. Orbainena eta jauzten diren uderrena, plapa argitzen dutenena, eta asko kara moten mudantzena;

57. Jakin ahal izan dadientzat noiz den gauza bat edo xahu, edo lohi.

## XV. KAP.

1. Jauna berriz Moisi eta Aaroni mintzatu zen hunela:

2. Mintza zaizte Israelgo semeei, eta errozuet: Hazi jaria jasaiten duen gizona, lohi izanen da.

3. Eta ezagutuko da gaitz hori baduela, noizetare zorne urrindu bat lothuko baita noiznahiden haren haragiari eta bethi berhatuko.

4. Ohe guziak zeinetan lo egin baituke eta jarri den tokia ere lohi izanen dira.

5. Haren ohea ukituko duen gizonak, bere soinekoak xurituko ditu; eta bere burua urean garbitu-eta, arratseraino lohi egonen da.

6. Hura jarri den tokian jarriko denak ere bere soinekoak xurituko ditu; eta urez garbitu ondoan, arratseraino lohi izanen da.

7. Haren haragia ukitu duenak, xurituko ditu bere soinekoak; eta urez garbitu ondoan, arratseraino lohi izanen da.

8. Horrelako gizonak ahogozoa arthiki badu xahu denaren gainera, hunek xurituko ditu bere soinekoak; eta urean garbitu ondoan, arratseraino lohi izanen da.

9. Harbalda zeinaren gainean jarriko baita, lohi izanen da.

10. Eta hazi jaria duen gizonaren azpian gerthatu ditakeen guzia, arratseraino lohi izanen da. Halakorik zerbait erabili duenak xurituko ditu bere soinekoak; eta urean garbitu den ondoan, arratseraino lohi izanen da.

11. Hola denak, eskuak garbitu gabe ukitzen badu norbait, hunek xurituko ditu bere soinekoak; eta urean garbitu-eta, arrats arteo lohi izanen da.

12. Ukituko duen lurrezko untzia, hautsiko da; zurezkoa bada ordean, urez garbituko da.

13. Horrelako gaitza duena sasualtzen bada, bere xahupenetik zazpi egunen buruan, bere soinekoak eta gorphutz guzia ur bizietan garbiturik, xahu izanen da.

14. Bainan zortzigarren egunean hartuko ditu bi ttorttoila edo bi usokume, eta Jaunaren aitzinera ethorriko da lekhukotasuneko tabernaklesartzera eta hekiek emanen diozka aphezari,

15. Zeinak imolatuko baitu bat bekhatuarentzat, eta bertzea holokaustetan; eta harentzat othoitz eginen du Jaunaren aitzinean, xahu dedintzat bere hazi jariatik.



16. Gizonak zeinari hazia ilkhiko baitzaio emaztearekilako eginbidetan, bere gorphutz guzia urean garbituko du, eta arrats arteo lohi izanen da.

17. Bere soinekoa eta orduan zuen larrua urez garbituko ditu eta lohi izanen dira arrats arteo.

18. Emaztekoa, zeinarekin erabili baita, urean garbituko da, eta lohi izanen da arrats arteo.

19. Emaztekoa, hilabete-buruan bere odol jaustearekin dena, berezia izanen da zazpi egunez.

20. Hura ukituko duena lohi izanen da arratseraino.

21. Eta lo egin duen tokia eta jarri izan den lekua bere berezpeneko zazpi egunetan, lohi izanen dira.

22. Haren ohea ukitu dukeenak, xurituko ditu bere soinekoak, eta bere burua urean garbiturik, arratseraino lohi izanen da.

23. Hura jarri den alkhia ukitu duenak xurituko ditu bere soinekoak; eta bere burua urean garbitu ondoan khutsatua izanen da arratseraino.

24. Hari, bere astagaitzetako orduan, hurbildu izan zaioen gizona, zazpi egunez lohi izanen da; eta lo egiteko hartuko duen etzauntza khutsatua da.

25. Emaztekoa, zeinak asko egunez odol jaustea jasaiten baitu astagaitzetako ordutik kanpo, edo zeinari astagaitzen ondotik odol aria ezbaiztaio gelditzen, gaitz hori jasaiteko dueno lohi izanen da, astagaitzak baliu bezala.

26. Harek lo eginikako etzauntza eta jarri izan den alkhia, khutsatuak dira.

27. Eta hekietarik ukitu duenak xurituko ditu bere soinekoak; eta bere burua urean garbitu ondoan lohi izanen da arrats arteo.

28. Odola baratu balitz eta jaustetik gelditu, emaztekiak bere xahupeneko hondatuko ditu zazpi egun,

29. Eta zortzigarren egunean bere buruarentzat ekharriko diozka aphezari bi torttoila edo bi usokume lekhukotasuneko tabernakle-sartzera.

30. Aphezak bat imolatuko du bekhatuarentzat eta bertzea holokaustetan, eta Jaunaren aitzinean othoitz eginen du harentzat eta haren jauste lohiarentzat.

31. Irakhatsiren diozute beraz Israelgo semeei begira ditezen lohi-keriatik eta beren likhiskerietan hiltzetik, khutsatu duketenean ene tabernakle zuen artean dena.

32. Hori da legea hazi jaria dutenentzat, edo emaztekiarekin khutsatzen direnentzat,

33. Eta astagaitzetako orduan berezten den emaztekiarentzat, edo odol jaria jarraikia duenarentzat, eta harekin lo egin duen gizonarentzat.

## XVI. KAP.

1. Jauna mintzatu izan zitzaioen Moisi, Aaronen bi semeen heriotzearen ondoan, su arrotza eskaintzen zutelarik hilak izan zirenean:

2. Eta manamendu egin zioen, erraten zioelarik: Errozu zure anaia Aaroni, edozein orduz ez dedin sar saindutegian, zeina baita belaren barneko aldean, arkha estaltzen duen propizatorioaren aitzinean, beldurrez eta hil dadien (ezen lanho batean agertuko naiz oraklearen gainean),

3. Ez baditu lehenik egiten hautxek: aratxe bat eskainiko du bekhatuarentzat, eta ahari bat holokaustetan.

4. Liho-harizko athorra jauntziko du, ahalkesun direnak galtzekin estaliko ditu, liho-harizko gerrikoaz tinkatuko da, burukoa ezarriko du buruan, ezen soineko horiek sainduak dira: xahutu den ondoan, jauntziko ditu guziak.

5. Israelgo semeen balderna guzia ganik hartuko ditu bi akher bekhatuarentzat eta ahari bat holokaustetako.

6. Eta aharia eskaini dukeenean, eta othoitz egin beretzat eta bere etxearentzat,

7. Bi akherrak jarraraziko ditu Jaunaren aitzinean lekhukotasuneko tabernakle-sartzean;

8. Eta hekien gainera zortea atheraturik, bat Jaunarentzat izateko eta bertzea akher bidalkintzat.

9. Zeinere zortea Jaunari atheratuko baitio, eta hura imolatuko du bekhatuarentzat;

10. Zeinere atheratuko baita akher bidalkintzat, eta hura bizirik ezarriko du Jaunaren aitzinean, haren gainera ixurtzeko bere othoitzak, eta gero mortura igortzeko.

11. Horiek behar-bezala egin ondoan, eskainiko du aratxea; eta beretzat eta bere etxearentzat othoitz egiten duelarik, imolatuko du hura;

12. Eta isentsuntzia harturik, aldareko ikhatzez bethe ondoan, eskuan hartuko ditu isentsutako xuxenduak diren baltsamuak, eta belaz barnera saindutegira sarthuko da;

13. Baltsamuak suaren gainean ezarriarik, hekien lanhoak eta hatsak estal dezan lekhukotasunaren gainean den oraklea, eta hil eztadien bera.

14. Halaber hartuko du aratxearen odoletik eta erhiaz zazpi aldiz ihintzadura eginen du propizatorioaren parrean iguzki-sorthaldera.



15. Eta akherra hil dukeenean populuaren bekhatuarentzat, haren odola eramanen du belaren barneko aldera, aratxearen odolarentzat manatua izan den bezala, ihintzaduraren egiteko oraklearen aitzinean,

16. Eta saildutegiaren xahutzeko Israelgo semeen likhiskerietarik, hekien lege-hauspenetarik eta bekhatu guzietarik. Molde berean eginen du lekhukotasuneko tabernaklearentzat, zeina hekien artean, hekien egoitzako likhiskerien erdian jarria baita.

17. Nihorrere tabernaklean izan ez bedi, aphez handia saildutegian sartzen denean othoitz egitera beretzat eta bere etxearentzat eta Israelgo balderna guziarentzat, hura ilkhi arteo.

18. Eta atheratuko denean Jaunaren aitzinean den aldarera, othoitz egin beza beretzat; eta harturik aratxearen eta akherraren odola, inguruan ixur beza aldareko adarren gainera;

19. Eta erhiaz zazpitan ihintzadura egiten duelarik, saildutegia xahutuko du eta saildutuko Israelgo semeen likhiskerietarik.

20. Saildutegiaren, tabernaklearen eta aldarearen xahupena egin ondoan, orduan eskaint beza bizi den akherra.

21. Eta bi eskuak emanik haren buruaren gainera, aithor betza Israelgo semeen gaixtakeria, hoben eta bekhatu guziak; eta oro haren buruaren gainera deitzen dituelarik, igor beza mortura, hartako berezia den gizon batez.

22. Eta akherrak hekien gaixtakeria guziak eraman ditukeenean basa lekhuetan barna, eta mortuan utzia izan den ondoan,

23. Aaron bihurtuko da lekhukotasuneko tabernaklera, eta aitzinean saildutegian sartzerakoan jauntzi zituen soinekoak erauntzirik, eta han utzirik,

24. Bere burua garbituko du lekhu sailduan, eta bere soinekoak jauntziko ditu. Eta ilkhirik bere holokausta eta populuarena eskaini ondolan, othoitz eginen du hala beretzat nola populuarentzat;

25. Eta bekhatuentzat eskainia den bilgorra erreko du aldare gainean.

26. Eta akher bidalkinaren eramaten izatu denak, bere soinekoak eta gorputza urean garbituko ditu, eta hala sarthuko da kanpetara.

27. Bekhatuarentzat imolatuak izan diren aratxea eta akherra, zeinen odola saildutegira eramana izan baita xahupenaren egiteko, kanpetarik kanporat eramanean izanen dira eta suan erreak beren larru, haragi eta gorotzarekin:

28. Eta edozeinek erre detzan hekiek, bere soinekoak eta gorputza urean garbituko ditu, eta hala sarthuko da kanpetara.

29. Eta hori izanen da zuentzat lege bethikotzat. Zazpigarren hila-bethean, hilabetek hamargarren egunean, atsekabeari emanen dituzte zuen arimak, eta lanik den-gutiena ez duzue eginen, ez herrikoak, ez eta zuen artean dabilan arrotzak.

30. Egun hartan izanen da zuen xahupena, eta zuen garbitzea zuen bekhatu guzietarik: Jaunaren aitzinean xahutuko zarete.

31. Ezen phausuko larunbata da; eta zuen buruak atsekabetan ezarriko dituzte bethiko erlijionezko legez.

32. Xahupen hori eginen du gantzutua izan den aphezak, eta zeinaren eskuak kontsekratuak izan baitira aphezetasuneko eginbideen bethetzeko bere aitaren orde: eta jauntziko ditu liho-harizko athorra eta soineko sailduak,

33. Eta xahutuko ditu sailduteggia, lekhukotasuneko tabernaklea eta aldarea, eta aphezak ere eta populu guzia.

34. Eta hori izanen zaitzue bethiko lege bat, urthean behin othoitz egin dezazuentzat Israelgo semeentzat eta hekien bekhatu guzientzat. Moisek egin zuen beraz Jaunak manatu bezala.

## XVII. KAP.

1. Eta Jauna mintzatu zen Moisi, erraten zioelarik:

2. Mintza zaitte Aaroni eta bere semeei, eta Israelgo seme guziei, eta errozute: Hau da Jaunak manatu duena, dioelarik:

3. Israelgo etxeko edozein gizonek idi bat, ardi bat edo ahuntz bat hiltzen badu kanpen barnean edo kanpoko aldean,

4. Eta bere eskaintza ez badu ekhartzen tabernakle-sartzera, odolez hobendun da: nola odola ixuri balu, hala galduko da bere populuaren erditik.

5. Horren gatik Israelgo semeek aphezari erakharri behar diozkate kanpoan hiltzen dituzten bitimak, Jaunari kontsekratuak izan ditezentzat lekhukotasuneko tabernaklearen sartzean, eta bakezko bitima hekiek imola detzoten Jaunari.

6. Eta aphezak ixuriko du odola Jaunaren aldarearen gainean, lekhu-kotasuneko tabernaklearen sartzean, eta bilgorra erreko du, Jaunari gozo zaioen usainetan:

7. Eta ez dituzte batere gehiago beren bitimak imolatuko debruei, zeinekin lohitu izan baitira lege hau bethi guzian begiratuko dute berek eta beren ondokoek.





8. Eta erranen diozute oraino: Israelgo etxeko edo zuen artean dabil-tzan arrotzetarik edozeinek holokausta bat edo bitima bat eskaintzen badu,

9. Eta hura lekhukotasuneko tabernaklearen sartzera erakhartzen ez badu, Jaunari eskainia izan dadientzat, bere populatik galduko da.

10. Israelgo etxetik edozeinek, edo hekien artean dabil-tzan arrotze-tarik norbaitek odola jaten badu, ene begithartea baratuko dut haren kon-tra, eta hura xahutuko dut ene populutik,

11. Ezen haragiaren bizia odolean da: eta odola eman izan darotzuet hartaz aldare gainean ardiets dezazuen zuen arimen xahupena, eta balia dadientzat zuen arimei sakrifizio xahugarritzat.

12. Horren gatik erran diotet Israelgo semeei: Ez zuetarik, ez zuen artean dabil-tzan arrotzetarik nihork ez beza jan odola.

13. Israelgo semeetarik eta zuen artean dabil-tzan arrotzetarik zenbai-tek ihizin edo sarean atzematen badu jatea zilhegi den abere edo xori bat, haren odola ixur eta lurrez estal beza.

14. Ezen edozein haragiren bizia odolean da: horren gatik erran dio-tet Israelgo semeei: Nolanahiko haragiaren odola janen ez duzue, zeren haragiaren bizia odolean baita; eta hartarik janen duena hilen da.

15. Herrikorik edo arrotzetarik nihork jaten badu abere bera hila edo ihiziak atzemana, urean garbituko ditu bere soinekoak eta bere burua, eta khutsatua izanen da arrats arteo, eta hola eginen da xahu.

16. Bere soinekoak eta gorphutza garbitzen ez baditu, jasanen du bere gaixakeria.

### XVIII. KAP.

1. Jauna Moisi mintzatu zen, erraten zioelarik:

2. Mintza zaitte Israelgo semeei, eta errozute: Ni naiz zuen Jainko Jauna:

3. Ez duzue eginen ez zuek egon zareten Egiptoko lurreko azturen arabera, ez-etare zuek sarraraztera nohan Kanaan-herrikoen arabera, etzarete hekien legeei jarraikiren.

4. Ene erabakien arabera eginen duzue, eta begiratuko ditutzue ene manamenduak; hekien arabera ibiliren zaizte. Ni naiz zuen Jainko Jauna.

5. Begira zatzue ene legeak eta erabakiak: hekien arabera egiten duen gizona, hekien bidez biziko da. Ni naiz Jauna.

6. Gizona etzaio hurbilduko bere odoleko emakume hurkoari, haren baithako ahalkeriazko alderdien agertzera. Ni naiz Jauna.

7. Ez dituzu agertuko zure aita baithan eta ama baithan ahalkesun direnak: ama, ama duzu; ez diozu ahalkea emanen.

8. Ez dituzu agertuko zure aitaren emaztea baithako ahalkesun dire-nak; ezen zure aitari ahalkea ematea laiteke.

9. Aitaganikako edo amaganikako zure arreba, etxean edo kanpoan sorthua denari ahalkatzeko alderdiak ez diozkatzu agertuko.

10. Zure semearen alaba baithan edo zure alabaganikako alaban ez duzu ahalkatzekorik agertuko, zeren zure ahalkea bailitake.

11. Ez diozu ahalkea agertuko zure aitaren emazteak zure aitari eman dioen alabari, ezen zure arreba da.

12. Ez diozu ahalkea agertuko zure aitaren arrebari, ezen zure aitaren haragia da.

13. Ez diozu ahalkea agertuko zure amaren ahizpari, alabainan zure amaren haragia da.

14. Ez diozu ahalkea agertuko zure aitaren anaiari, eta etzare hurbil-duko haren emazteari, zeinaren ahaidegoan sorthua baitzare.

15. Ez duzu agertuko zure erreinaren ahalkea, zeren zure semearen emaztea baita, eta ez duzu agertuko haren baithan itsusi dena.

16. Ez diozu ahalkea agertuko zure anaiaren emazteari, zeren zure anaiaren ahalkea bailitake.

17. Ez diozute ahalkea agertuko zure emazteari eta haren alabari: ez dituzu hartuko ez zure semearen alaba, ez zure alabaren alaba, hekien baithan ahalkesun direnen agertzeko, zeren zure emaztearen haragia bai-tira, eta horrelako hurbiltzeak odoleko khutsatzeak baitira.

18. Ez duzu zure emaztearen ahizpa haren ohaidetasunetan hartuko, eta hura bizi delarik ahizparen baithan ahalkea ez duzu agertuko.

19. Astagaitzekin den emaztekiari etzare hurbilduko, eta ez duzu agertuko haren lohitasuna.

20. Etzare zure lagunaren emazteari hurbilduko, eta ez duzu harekin nahaskeria likhitsik eginen.

21. Zure umetarik ez duzu emanen Moloken idolari kontsekratzeko, eta ez duzu Jainkoaren izena lizunduko. Ni naiz Jauna.

22. Etzare gizonkiari hurbilduko emaztekiari bezala, zeren-eta iziga-rrikeria bat baita.

23. Etzare aziendari hurbilduko, ez-eta harekin khutsatuko. Emaztekoa ez da aberearen azpian jarriko, ez harekin baltsaturen, zeren tzarkeria gaitza baita.

24. Etzarete lohituko zuen aitzinean eragotziren ditudan jendaki guziak khutsatuak diren itsuskerietan,



25. Eta zeinetaz lizundu baita lurra. Neronek begietsiko ditut hekien tzarkeriak, lurrak berak irazi ditzan bere egoiliarrak.

26. Begira zatzue ene legeak eta erabakiak, eta horrelako izigarrikeriarik ez bezazue egin ez herrikoek ez zuen tokietan dabiltzan kanpotarrek.

27. Alabainan zuen aitzinean izatu diren lurreko egoiliarrek egin izan dituzte gaitzesgarrikeria horiek oro, eta lurra lohitu dute.

28. Berautzue beraz, halakorik egiten baduzue, zuen aitzinean izatu den jendakia bezala zuek ere orobat irazi zetzazten.

29. Horrelako izigarrikeriarik eginen duena, galdua izanen da bere populuaren erditik.

30. Begira zatzue ene manamenduak. Berautzue egin zuen aitzinean izatu direnek egin dutena; ez betzaizte halakoz khutsa. Ni naiz zuen Jainko Jauna.

### XIX. KAP.

1. Jauna Moisi mintzatu zen hunela:

2. Mintza zaitte Israelgo semeen balderna osoari, eta errozute: Saindu izan zaitze, zeren saindu bainaiz ni zuen Jainko Jauna.

3. Batbederak ekhar beza ait-amen beldurra. Begira zazue ene larunbata. Ni naiz zuen Jainko Jauna.

4. Berautzue jainkordetara bihurtzetik, eta jainko urthurik ez bezazue egin. Ni naiz zuen Jainko Jauna.

5. Jaunari, jabalgarri izan dakizuentzat, imolatzen badiozue bakezko bitimarik,

6. Imolatu egunean eta biharamunean janen duzue, eta erreko duzue suan hirugarren egunekotzat gelditu guzia.

7. Hartarik nihork jaten badu bi egunen buruan, lohi izanen da eta inpiokeriaz hobendun;

8. Eta jasanen du bere gaizkia, zeren lizundu duen Jaunaren saildua, eta galduko da bere populutik.

9. Zure bazterrean uzta egiten duzunean, ez duzu murriztuko lurren azaleraino, eta gelditzen diren burukak ez dituzu bilduko.

10. Zure mahastian ere erortzen diren molkhoak eta bihikak ez dituzu bilduko, baina beharrei eta arrotzei hartzera utziko diozkatzute. Ni naiz zuen Jainko Jauna.

11. Ez duzu ohorgorik eginen. Ez duzu gezurrik erranen, eta nork bere laguna ez du enganatuko.

12. Ez duzu ene izenean gezurrez zin eginen, eta ez duzu lizunduko zure Jainkoaren izena. Ni naiz Jauna.

13. Zure lagunari laidorik ez diozu eginen, eta ez duzu zure indarraren azpian ehoa idukiko. Saritako langilearen lana ez da zure baithan biharanun goiza arteo sari gabe egonen.

14. Etzare gorraz gaizki mintzatu, eta ez duzu itsuaren bidean behaztopagailurik ezarriren: baina izanen duzu zure Jainko Jaunaren beldurra, zeren ni bainaiz Jauna.

15. Gaizkia ez duzu eginen, eta ez duzu erabakiko zuzenari bidegabe eginez. Etzare begiratu behartasunari, eta etzare aberatsari begithartez jarriko. Zure lagunari emanen diozu zuzenbideko erabakia.

16. Etzare populuaren izanen ez aitzinetik jazarle, ez gibelatik jale. Etzare oldartuko zure lagunaren biziari. Jauna ni naiz.

17. Zure anaiari ez diozu zure bihotzean gaitzirizkorik ekharriko, baina agerian erranen diotzotzu zure erraitekoak, ez dezazuntzat haren gainetik bekhatu egin.

18. Ez duzu aspertzea bilhatuko, eta etzare orhoituren zure herritarren ganikako irainaz. Zure adiskidea maithatuko duzu zure burua bezala. Ni naiz Jauna.

19. Begira zatzu ene legeak. Zure azienda ez duzu estalaraziko bertze mota batetako abereaz. Ez duzu asko haziz erainen zure landa. Ez duzu jauntziko bi hari motetarik ehoa den soinekoa.

20. Gizona etzaten bada emaztekiarekin eta harekin baltsatzen, emaztegia gathibu bada eta heldua, eta bizkitartean ez oraino dirutan berrerrosia, ez eta libro utzia; azotatuak izanen dira biak, eta ez dira hilen, zeren emaztegia gathibu baitzen.

21. Baina bere hobenarentzat ahari bat eskainiko dio Jaunari lekhu-kotasuneko tabernaklearen sartzean.

22. Apezak othoitz eginen du harentzat eta haren bekhatuarentzat Jaunaren aitzinean, eta Jauna jabalduko zaio, eta bere bekhatua barkatua izanen zaio.

23. Agindu lurrean sarthuak izanen zaretenean, han landatzen badi-tutzue fruitutako zuhamuak, ninikak ebakiko diozkatzute; ethortzen diren fruituak lohi izanen zaizkitzute, eta ez duzue hekietarik janen.

24. Baina laugarren urthean hekien fruitu guziak Jaunaren ospetan kontsekratu dira.

25. Eta bortzgarren urthean, ekhartzen dutena bildurik, janen dituzue hekien fruituak. Ni naiz zuen Jainko Jauna.



26. Ez duzue deus janen odolarekin, ezarete asmagintzan hariko ez-eta amets argitzen.

27. Ileak ez dituzue inguruan ebakiko, ez-eta bizarra moztuko.

28. Hilen deithoratzean ez duzue zuen haragiari ebakidurarik eginen, eta ez duzue zuen gorphutzetan seinalerik edo ozkarik eginen. Jauna ni naiz.

29. Ez duzu zure alaba lohikeriari emanen, lurra ezta dien khutsa eta tzarkeriaz bethe.

30. Ene larunbata begira zazue, eta ikharan egon zaizte ene saindu-tegiaren aitzinean. Jauna ni naiz.

31. Etzarete gaizkinen alderat itzuliko, eta ez diozute aztiei deusere galdeginen, hekiez khutsatzeko zuen buruak. Ni naiz zuen Jainko Jauna.

32. Buru zurutuaren aitzinean xuti zaizte, ohora zazue gizon-zaharra: zuen Jainko Jaunaren beldurra izan zazue. Jauna ni naiz.

33. Zuen lurrean eta zuen artean arrotzik balin badago bizitzez eta egoitzaz, ez hari egin irainik;

34. Bainan zuen artean izan bedi herrikoa bezala, eta zuetarik balitz bezala maitha zazue: zuek ere alabainan arrotz izatu zarete Egiptoko lurrean. Ni naiz zuen Jainko Jauna.

35. Berautzue zuzen ez denak egin erabakian, legebidean, phisuan, neurrian.

36. Zuzenak izan beitez zuen balentzak eta phisuak, gaitzerua eta laurdena. Ni naiz zuen Jainko Jauna Egiptoko lurretik atheratu zaituzte-dana.

37. Begira zatzue ene manamendu guziak eta erabaki guziak, eta beren bidea emanen diozute. Ni naiz Jauna.

## XX. KAP.

1. Bada, Jauna Moisi mintzatu zen huneletan:

2. Hautxek erranen diozkatzute Israelgo semeei: Israelgo semeetarik eta Israelen daudezin arrotzetarik batek bere umeetarik Moloken idolari ematen badio, heriotzez hila izan bedi; lekhuko jendeak harrika beza.

3. Eta nik ene begithartea bihurturen dut haren kontra; eta ezeztatu-ko dut bere populuaren erditik, zeren bere umeetarik eman duen Moloki, lohitu duen ene saindutegia eta lizundu ene izen saindua.

4. Bainan baldin lekhuko populuak ardurarik ez badu hartzen eta ene manamenduaren ezaxolaz bezala, Moloki bere umeetarik eman duen gizona uzten badu, eta ez badu hil nahi,

5. Ene begithartea bihurturen dut gizon haren kontra eta haren odolaren kontra, eta kalituren ditut populuaren erditik bera eta Moloekin bere lohikeria onhetsi dioten guziak.

6. Norbait gaizkinetara eta aztietara bihurtzen bada, eta hekiekin khutsatu, haren kontra bihurturen dut ene begithartea, eta heriotzez khenduko dut bere populuaren erditik.

7. Sainduets zaitezte eta izan zaizte saindu, zeren ni bainaiz zuen Jainko Jauna.

8. Ene manamenduak begira eta bethe zatzue. Ni naiz Jauna zuek saindutzen zaituztedana.

9. Bere aitari edo amari burhoa arthiki diokena, heriotzez hila izan bedi: aitari eta amari burho arthiki diote, gainera hel bekio haren odola.

10. Norbait baltsatu bada bertzeen emaztearekin, eta lohikeriako bekhatua jauki badu bere Jaunaren emaztearekin, lohitzaillea eta lohitua biak heriotzez hilak izan beitez.

11. Norkere lo egin baituke bere amaizunarekin eta bere aitaren ahal-kea agertu baituke, bi lohiak heriotzez hilak izan beitez: beren odola gainera bekiote.

12. Norbaitek lo egin badu bere erreinarekin, biak hilak izan beitez, ezen tzarkeria handia egin dute: beren odola gainera bekiote.

13. Gizonak gizonarekin lo egin badu eta emazteki bati bezala hur-bildu bazaio, biek egin dute gaizki handia; biak heriotzez hilak izan beitez, eta beren odola gainera bekiote.

14. Alabarekin ezkondu eta haren ama ere emaztetzat hartuko duenak, bekhatu handia egin du: bizirik hekiekin erre bedi, eta horrenbertze-ko gaizkia geldi ez bedi zuen artean.

15. Aberearekin eta aziendarekin lohitutako dena, heriotzez hila izan bedi: azienda ere hil zazue.

16. Aberearen azpian jarriko den emaztekia, harekin batean hala izan bedi: eta beren odola gainera bekiote.

17. Hartuko duenak bere arreba, bere aitarenganikakoa edo bere amarenganikakoa, eta ikhusi baituke haren ahalkea, eta arrebak begiratu baitioke anaiaren laidoari, biek gauza tzarra egin dute: beren herritarren aitzinean hilak izanen dira, zeren elkharri agertu diozkatzen beren laidoak, eta beren tzarkeria jasanen dute.

18. Emazteki astagaitza darioenarekin baltsatu dena eta haren ahal-kea agertu duena, eta harek berak ere erakhutsi badu bere odolaren ithurria, biak beren populuaren erditik hilak izan beitez.



19. Ez duzu agertuko zure amaren ahizparen baithan eta aitaren arre-baren baithan ahalkesun dena: hori egin dukeenak bere haragiko laidoa agerian ematen du: biek jasanen dute beren tzarkeria.

20. Aitaganikako edo amaganikako osabaren emaztearekin baltsatu denak, eta bere ahaidearen laidoa agertu duenak, biek jasanen dute beren bekhatua, eta haurrik gabe hilen dira.

21. Bene anaiaren emaztearekin ezkontzen denak, haizu ez den gauza egiten du, bere anaiaren ahalkesuna agertzen du: haurrik gabe egonen dira.

22. Begira zatzue ene manamenduak eta erabakiak eta hekiek bethe, beldurrez-eta iraz zaitzaten lurak zeintan sartzekotan eta egotekotan baitzarete.

23. Berautzue ibiltzetik zuen aitzinean eragoztera nohan jendakien legeetan. Ezen horiek guziak egin dituzte, eta gorrototan ditut.

24. Bainan zuei mintzo natzaitzue: Goza zazue hekien lurra, zuei primantzatan emanen darotzetadana, esne eta ezti darioen lurra. Ni naiz zuen Jainko Jauna bertze jendakietarik berezi zaitzutedana.

25. Berez zatzue beraz zuek ere abere xahua hala ez denetik, hegastin xahua xahu ez denetik; beldurrez-eta zuen arimak lizun detzatzuen, azienda, eta xori, eta lurraren gainean higitzen diren eta zuei lohi erakhusi darozkitzuedanetan.

26. Izanen zakizkidate saildu, zeren saildua bainaiz ni Jauna, eta bertze jendakietarik berezi baitzaitzudet, eneak izan zaiteztentzat.

27. Gizon edo emaztekoa gaizkinkeriako eta aztikeriako izpiritua izanen duena, heriotzez hil beitez: harrika kali betzate; beren odola beren gain izan bezate.

## XXI. KAP.

1. Halaber Jaunak erran zioen Moisi: Mintza zaite Aaronen seme aphezei, eta errozute: Apheza ez bedi khutsa hiltzen zaizkoen herritarren deithoreetan,

2. Baizik-ere ez bada bere ahaideenetan eta hurbilekoenetan, erran nahi da aita, ama, seme, alaba eta anaiarentzat ere,

3. Eta arreba dontzella, gizonari ezkondua izan ez denarentzat.

4. Bainan ez da bertzela khutsatuko, balitz-ere bere populuko aitzindariarentzat.

5. Aphezek ez dituzte beren buruak murriztuko, ez bizarra ebakiko, ez beren haragitan ozkarik eginen.

6. Saildu egonen zaizko beren Jainkoari, eta ez dute lizunduren haren izena: isentsua ezen Jaunari, eta ogiak beren Jainkoari eskaintzen dituzte, eta horren gatik izanen dira saildu.

7. Ez dute ezkontzaz hartuko ez ema galdu, ez neska tzarrik, ez-etare bere senharrak igorri duen emazterik, zeren baitira beren Jainkoari kontsekratuak,

8. Eta eskaintzen baitituzte proposizoneko ogiak. Beraz izan beitez saildu, zeren-eta saildu bainaiz ni, Jauna, hekiek sailduesten ditudana.

9. Lohikerian atzemana den aphez alaba, eta bere aitaren izena laidoztatu duena, suan errea izan bedi.

10. Pontifizioak, erran nahi da bere anaien artean aphez handi denak, zeinaren buruaren gainera gantzudurako olioia ixuria izan baita, eta zeinaren eskuak aphezetasuneko eginbideetakotzat kontsekratuak izan baitira, eta soineko sailduak jauntziak dituenak, ez du agerturen bere burua, ez-eta soinekoak hautsiko;

11. Eta ez da batere edozein hili hurbilduko, bere aitaren deithorean ez-eta amarenean ez du bere burua likhistuko.

12. Eta ez da ilkhiko lekhu sailduetarik, beldurrez-eta lizun dezan Jaunaren saildutegia, zeren Jainkoaren gantzadura sailduko olioia haren gainean baita. Ni naiz Jauna.

13. Birjina batekin ezkonduko da.

14. Ez da ezkonduko ez alhargunarekin, ez bere senharrak igorri duen emaztekiarekin, ez neskatxa lohitu batekin, ez neska galdu batekin, bainan bai bere herritarretarikako neskatxa xahu batekin:

15. Nahas ez dezantzat bere iraulgiko odola bere tokiko edozein neskatxekin, zeren ni bainaiz hura sailduesten dudana Jauna.

16. Jauna mintzatu zen oraino Moisi, zioelarik:

17. Errozu Aaroni: Zure odoleko familietan gizonik balin bada zer-bait narrio bere gorphutzean duenik, ez ditu ogiak eskainiko bere Jainkoari;

18. Eta ez da haren aphezetasuneko eginbideetara hurbilduko, baldin itsua bada, maingua bada, sudur murriztekoa, edo handikoa, edo makhur-rekoa bada,

19. Eskua edo zangoa hautsia badu,

20. Konkorra bada, bethirintsua, begian xuriduna, eta baldin bethiko zaragarra, negal bizia gorputzean, edo sabel ttipia eroria baditu.

21. Aaron aphez handiaren odoletikako edozein narriodun dena ez da hurbilduko Jaunari bitimak, ez-etare ogiak bere Jainkoari eskaintzera.

22. Bizkitartean janen du saildutegian eskainiak diren ogietarik,



23. Bakharrik halaz non ez baita belaren barneko aldera sarthuko, ez-eta aldarera hurbilduko, narrioa baduelakotz, eta ene saildutegia ez due-lakotz behar khutsatu. Ni naiz hekiek sailduesten ditudan Jauna.

24. Moisek beraz manatuak izan zitzaizkoen guziak erran ziozkaten Aaroni eta haren semeei eta Israel guziari.

## XXII. KAP.

1. Halaber Jauna Moisi mintzatu zen, ziolarik:

2. Mintza zaitte Aaroni eta bere semeei, begira ditezentzat Israelgo semeek niri kontsekratu gauza guzietarik, eta lohi ez detzaten, berek eskainirik niri kontsekratuak direnak.

3. Errozute berei eta bere ondokoei: Zuen odoleko edozein gizon lohi delarik hurbilduko dena niri kontsekratuak eta Israelgo semeek eskainiak diren gauzetara, galduren da Jaunaren aitzinean. Ni naiz Jauna.

4. Aaronen odoleko gizonak, legentsu izanen denak edo hazi jariarekin, ez du, sasualdu arteo, janen niri kontsekratuak zaizkitanetarik. Hilak lohitua eta hazi jariaduna ukitu duena,

5. Edo zierpe bat ukitu duena, eta zernahi gauza lohi, zeinaren ukiak khutsatzen baitu,

6. Arratseraino lohi izanen da, eta kontsekratuak direnetarik ez du janen: bainan bere gorphutsa urean garbitu dukeenean,

7. Eta iguzkia sarthu ondoan, xahu eginik, orduan janen du eskaintza kontsekratuetarik, zeren hekiek baitira haren janhariak.

8. Aaronen semeek ez dute janen bere hilikako edo ihiziak atzemanikako haragitik, halakoz khutsa ez ditezentzat. Ni naiz Jauna.

9. Begira betzate ene manamenduak, ez erortzeko bekhatuta, eta hil ez ditezen ene saildutegian, hura lizundu ondoan. Ni naiz Jauna hekiek sailduesten ditudana.

10. Arrotzetarik nihork ez du janen gauza kontsekratuetarik, ez aphezarekin dagoenak, ez sarizaleak ez dute hekietarik janen.

11. Bainan aphezak eresia edo haren etxean sorthua denak, janen dute hekietarik.

12. Aphez alabak populutik hartu badu senharra, ez du janen ez gauza kontsekratuetarik, ez eta pikainetarik.

13. Bainan alhargundurik, edo senharrak igorriarik, eta haurrik gabe itzuli bada bere aitaren etxera, aitaren jatekoetarik haziko da neskatzagazte zenean bezala. Arrotzek ez dute hekietarik jateko eskurik.

14. Jakingabean gauza kontsekratuetarik jan dukeenak, bortzgarren bat ezarriarik jan duenaren gainera, aphezari emanen dio saildutegian.

15. Ez dituzte lizunduko Israelgo semeek kontsekraturikako gauzak, Jaunari eskaintzen direnak,

16. Beldurrez-eta jasan dezaten beren hobenaren tzartusuna gauza kontsekratuetarik jan ondoan. Ni naiz hekiek sailduesten ditudan Jauna.

17. Jauna Moisi mintzatu zen berriz, zioelarik:

18. Mintza zaitte Aaroni eta bere semeei eta Israelgo seme guziei, eta errozute: Israelgo etxeko norbaitek, edo zuen artean bizi diren arrotzetarik batek, bere eskaintza egiten badu, edo botu baten bethetzeko, edo bere gogo onez, edozein gauza ekhar dezan Jaunaren holokaustetako,

19. Zuetaz eskainia izatekotzat, orots narriogabea izanen da idietarik, ardiatarik eta ahuntzetarik:

20. Narrio zerbait balin badu, ez duzue eskainiren, eta ez da onhes-tekoa izanen.

21. Bakezko bitima bat Jaunari eskainiko dioen gizonak, edo botu baten bethetzeko, edo bere gogo onez, nahiz idietarik, nahiz ardiatarik, narriogabea eskainiko du, onhesgarri izan dadientzat: hartan ez da narriorik behar.

22. Itsua bada, zerbait hautsirik duena, udertsua, orbainduna, zargartsua, edo negalduna; ez diozue Jaunari eskainiko, eta halakoetarik ez duzue deusere Jaunaren aldare gainean erreko.

23. Eskain dezakezu zure oldetara idi eta ardi beharri-motza eta buztan-motza, bainan halakoez botu bat ezin bethe dezazuke.

24. Ez diozue Jaunari eskainiko abererik potroak bihurtuak, edo lehertuak, edo ebakiak eta khenduak dituztenetarik, eta ez duzue zuen lurrean deusere holakorik eginen.

25. Arrotzaren eskutik ez diozue zuen Jainkoari eskainiko ez ogirik, ez eta eman nahi lukeen bertzerik; zeren galduak eta narriotuak baitira haren eskutikako guziak: ez dituzte hartuko.

26. Berriz ere Jauna mintzatu zitzaioen Moisi, zioelarik:

27. Idia, ardia eta ahuntza, sorthu ondoan zazpi egunez egonen dira amaren errapean: bainan zortzigarren egunean eta handik goiti eskaint ditazke Jaunari.

28. Behia edo ardia ez dituzue egun berean beren umeekin imolatuko.

29. Imolatzen badiozue bitima bat esker onetan Jaunari, jabalkizun izan ahal dakizuentzat,

30. Egunean berean janen duzue bitima, eta ez da hartarik den-gutiena biharamun goizeko geldituren. Ni naiz Jauna.

31. Begira eta bethe zatzue ene manamenduak. Ni naiz Jauna.



32. Berautzue lizun ene izen saildua, sailduetsia izan nadien Israelgo semeen erdian. Ni naiz zuek sailduesten zaituztedan Jauna,

33. Eta Egiptoko lurretik atheratu zaituztedana, zuen Jainko iduk nezazuentzat. Ni naiz Jauna.

### XXIII. KAP.

1. Eta Jauna Moisi mintzatu zitzaioen huneletan:

2. Mintza zait Israelgo semeei, eta errozute: Haukiek dira Jaunaren besta-buruak, sailduak deithuko dituzuenak.

3. Sei egunez hariko zarete lanean: zazpigarren eguna deithuko da saildua, zeren den larunbateko phausua. Ez duzue orduan lanik batere eginen: Jaunaren larunbata da egoten zaretan toki orotako.

4. Haukiek dira beraz Jaunaren besta-buru sailduak, zein bere orduan zelebratu behar dituzuenak.

5. Lehenbiziko hilabethean, hamalagarren egunean, ilhuntean, Jaunaren Bazkoa da:

6. Eta hilabethe bereko hamabortzgarren egunean, Jaunaren airisen besta da. Zazpi egunez janen duzue ogi altxatugabea,

7. Lehenbiziko eguna idukiko duzue saildu eta ospe handitakotzat: ez duzue orduan eginen sehi lanik batere;

8. Baina zazpi egunez Jaunari eskainiko diozue surako sakrifizioa. Zazpigarren eguna ordean izanen da ospetsuago eta sailduago: hartan ez duzue eginen sehi lanik batere.

9. Jauna mintzatu zen oraino Moisi, zioelarik:

10. Mintza zait Israelgo semeei, eta errozute: Sarthu zaitzetekeenean nik emanen darotzuetan lurrean, eta uzta egin dukezuean, aphezari ekharriko diozkatzue bihi espalak, zuen uztako pikainak:

11. Hunek sabbat biharamunean, espal bat altxaturen du Jaunaren aitzinean, onhesgarri izan dakizuentzat, eta sailduetsiren du hura.

12. Espala kontsekratuko den egun berean, Jaunari holokaustetan hilen zaio urthea duen bildots narriogabe bat.

13. Harekin libazionetan eskainiko dira, bi hamargarren irin zethabatu olioiz bustiak Jaunaren isentsutzat eta usain gozonenkoentzat; arnozko eskaintza bat ere, hinaren laugarrena.

14. Ez duzue uztatik janen ez ogirik, ez irin xigorrik, ez ahirik, pikainak zuen Jainkoari eskaini dituzuen arteo. Manamendu hori da bethikotzat, ondokoen ondoko eta zuen egoitza guzietan begiratzekoa.

15. Sabateko bigarren egunetik, zeinetan eskainiko baituzue pikainetako espala, khondatuko dituzue beraz zazpi aste oso,

16. Zazpi asteak bethe diren biharamuneko eguna arteo, erran nahi baita berrogoi eta hamar egun; eta sakrifizio berri bat Jaunari eskainiko diozue hunela:

17. Egoitza orotarik, pikainetako bi ogi altxatu baxhotxa bi hamargarrenez egina irin zethabatutik, Jaunaren pikainetako erreko dituzuenak.

18. Eta ogiekin eskainiko dituzue zazpi bildots narriogabeak urthebanakoak, eta arthaldeko aratxe bat, eta bi ahari, eta beren libazioneeekin holokaustetan Jaunari eskainiak izanen dira usain gozonenkotzat.

19. Imolatuko dituzue halaber akher bat bekhatuarentzat, eta bi bildots urthebanakoak bakezko bitimatzat.

20. Eta aphezak hekiek altxatu dituen ondoan Jaunaren aitzinean, beretzat eroriko zaizkio.

21. Eta egun hura deithuren duzue guziz ospetsua eta guziz saildua: ez duzue orduan eginen sehi lanik batere. Ondokoen ondoko eta zuen egoitza guzietan bethi idukiren duzue lege hau.

22. Zure lurreko uzta bilduko duzuean, ez duzu ondo-ondotik ebakiko; gelditzen diren burukak ez dituzu bilduko, baina beharrei eta arrotzei utziko diozkatzu. Ni naiz zure Jainko Jauna.

23. Eta Jauna mintzatu zen huneletan Moisi:

24. Errozute Israelgo semeei: Zazpigarren hilabethean, hilabethearen lehenbiziko eguna izanen da zuentzat orhoitzapeneko sabata; turutek durrundaturen dute, eta deithuko da egun saildua.

25. Ez duzue egun hartan sehi lanik eginen, eta Jaunari holokausta bat eskainiren diozue.

26. Jauna mintzatu zen oraino Moisi, eta erran zioen:

27. Hilabethe hartako hamargarren eguna izanen da xahupenetako egun guziz ospetsua, eta deithuren da saildua: atsekabetan sarthuren dituzue orduan zuen arimak, eta Jaunari holokausta bat eskainiren diozue.

28. Egund hartan guzian ez duzue sehi lanik eginen batere, zeren egun hura baita deietako eguna, begithartez jar dakizuentzat zuen Jainko Jauna.

29. Egund hartan atsekabea sarthu ez dena, galduko da bere populutik;

30. Eta zerbait lan egin duena, xahutuko dut bere populutik.

31. Ez duzue beraz batere lanik eginen orduan: lege hau bethi guzian begiratu duzue ondokoen ondoko eta zuen egoitza orotan.

32. Egund hura phausuko larunbata da, eta zuen arimak atsekabea ezarriko dituzue hilabethearen bederatzigarren egunean. Arratsetik arratsera zelebraturen dituzue zuen larunbatak.



33. Jauna Moisi berriz mintzatu zen, zioelarik:

34. Errozute Israelgo semeei: Zazpigarren hilabete hartako hamabortzgarren egunetik, zazpi egunez izanen dira Tabernakletako bestak Jaunarentzat.

35. Lehenbiziko eguna deithuko da guziz ospetsua eta guziz saindua: ez duzue egun hartan sehi lanik batere eginen.

36. Eta zazpi egunez Jaunari holokaustak eskainiko dituzue. Zortzigarren eguna ere guziz ospetsua eta guziz saindua izanen da, eta Jaunari holokausta bat eskainiko duzue: batzarra ezen eta bilkhua orduan idukiko dira: egun hartan ez duzue sehi lanik batere eginen.

37. Horiek dira Jaunaren besta-buru, guziz ospetsuak eta guziz sainduak deithuko dituzuenak, eta hekietan Jaunari eginen dituzue eskaintzak, holokaustak eta libazioneak, egun bakhotxekotzat manatuak diren bezala,

38. Jaunaren larunbatez, botuz edo zuen gogo onez Jaunari eginen dituzuen eskaintzez bertzalde.

39. Holetan zazpigarren hilabete hamabortzgarrenetik, bildu dituzuenan zuen lurreko fruitu guziak, zazpi egunez zelebratuko dituzue Jaunaren bestak; lehenbiziko egunean eta zortzigarrenan izanen da larunbata, erran nahi da phausua.

40. Eta lehenbiziko egunean hartuko dituzue zuhaitzen fruiturik ederrenak, palma-gandoak, zuhaitz-adar hostotsuak eta errekoak zumelikak, eta boztuko zarete zuen Jainko Jaunaren aitzinean.

41. Urthe oroz besta handi hori zazpi egunez zelebratuko duzue: manamendu hori bethi guzian ondokoen ondoko begiratuko duzue. Zazpigarren hilabete zelebratuko duzue besta,

42. Eta itzalpeetan egonen zarete zazpi egunez: Israelen odoletik diren guziak olhetan egonen dira:

43. Zuen ondokoek jakin dezatentzat, olhetan egonarazi ditudala Israelgo semeak, Egiptoko lurretik erakhartzen nituenean. Ni naiz zuen Jainko Jauna.

44. Moisek horiek erran ziozkaten Israelgo semei Jaunaren besta-buruen gainean.

#### XXIV. KAP.

1. Bada, Jauna Moisi mintzatu zen huneletan:

2. Israelgo semei mana zozute oliba olio garbienetik eta argienetik ekhar dezazuten, kriseluen bethi mantentzeko,

3. Lekhukotasuneko belaren kanpoko aldean batasuneko tabernaklean. Eta Aaronen ezarriko ditu hekiek arratsetik goizeraino Jaunaren aitzinean, eta eginbide hori bethi guzian zuen ondoregoa guzian betha izanen da.

4. Jaunaren aitzinean ezarriko dira bethi urhe garbieneko ganderailuan.

5. Halaber hartuko duzu irin zethabatua, eta hartarik erreko dituztu hamabi ogi, bakhotxak bi hamargarren irin dutenak.

6. Ezarriko dituztu Jaunaren aitzinean, mahain guziz garbiaren gainean sei alde batetik eta sei bertzetik:

7. Eta hekien gainean ezarriko duzu isentsu argienetik, ogia izan dadientzat Jaunari egiten zaioken eskaintzaren orhoitgarri.

8. Larunbat oroz Jaunaren aitzinean ganbiatuak izanen dira Israelgo semeen ganik harturik bethiko batasunez:

9. Eta izanen dira Aaronen eta bere semeentzat, lekhu sainduan jateko: zeren baitira sainduen saindu Jaunaren sakrifiziotarik bethiko zuzen batez.

10. Bizkitartean israeldar emazteki baten semea, egiptoar gizon batenganikakoa, atheratu zen Israelgo semeen artera, eta aharratu zen kanpetan israeldar gizon batekin.

11. Eta nola burhoztatu eta madarikatu baitzuen Jaunaren izena, erakharri zuten Moisen aitzinera. (Haren ama deitzen zen Salumith, Dabrien alaba, Danen leinukoa.)

12. Eta preso sarthu zuten jakin arteo zer manatuko zuen Jaunak,

13. Jauna mintzatu zen, Moisi,

14. Eta erran zioen: Kanpetarik ilkhiaz zazu burho-egile hori, eta entzun duten guziek buruaren gainean ezar betzote eskuak, eta gero populu guziak harrika beza.

15. Eta erranen diozute Israelgo semeei: Norkere maldizio arthikiko baitio bere Jainkoari, jasanen du bere bekhatua;

16. Eta Jaunaren izenari burho arthikiko dioena, heriotzez hila izan bedi: izan dadien herritarra edo arrotza, populuak kali beza harrika. Jaunaren izenari burho arthikiko dioena, heriotzez hila izan bedi.

17. Norkere gizona jotzen eta hiltzen baitu, heriotzez hila izan bedi.

18. Abere bat hiltzen duenak ordaina bihurtuko du, erran nahi da aberea aberearentzat.

19. Norkere bere herritarretarik edozeini gaizki egin baitioke, nola berak egin duen, hala eginga izanen zaio;



20. Hauskura haskurentzat, begia begiarentzat, hortza hortzarentzat ordainez bihurtuko zaio: egin izan duen bezalako gaizkiaren jasaitera bortxatuko da.

21. Azienda hil duenak berme bat bihurtuko du. Gizona hiltzen duena, bera hila izan bedi.

22. Hobenduna izan dadien, nahiz herritarra, nahiz arrotza, erabakia zuzena izan bedi zuen artean: zeren ni bainaiz zuen Jainko Jauna.

23. Eta Moise mintzatu ondoan Israelgo semeei, burho-egilea atzerazi zuten kanpetarik, eta harrika lehertu zuten. Jaunak Moisi manatu bezala egin zuten Israelgo semeek.

### XXV. KAP.

1. Eta Sinaiko mendian Jauna Moisi mintzatu zitzaioen hunela:

2. Mintza zaite Israelgo semeei eta errozute: Nik emanen darotzuetan lurrean sarthuak izanen zaretenean, larunbata bestatuko diozue Jaunari.

3. Sei urthez erainen duzu zure lurra, eta sei urthez moztuko duzu zure mahastia, eta hango fruituak bilduko.

4. Baina zazpigarren urthean izanen da lurraren larunbata, Jaunaren phausua: landa ez duzu erainen, ez-eta mahastia moztuko.

5. Lurrak bere baitharik ematen duena ez duzu bilduko, eta zure pikainetako mahatsak ez ditutzu bilduko, mahats-biltzetan bezala, ezen lurraren phausuko urthea da.

6. Baina lurrak berenez ematen duena janharitzat baliatuko zaitzue zuri, zure muthil-neskatoei, saritako zure langileari eta zure tokietan dabilan arrotzari;

7. Eta heldu diren guziak baskatzat baliotuko dira azienda eta artaldeei.

8. Khondaturen dituzu halaber urthezko zazpi aste, erran nahi da zazpitan zazpi, orotara egiten dutenak berrogoi eta bederatzi urthe;

9. Eta zazpigarren hilabeteke hamargarren egunean, turuta joko duzu zure lur guzian, jabalpeneko orduan.

10. Eta sainduetsiko duzu berrogoi eta hamargarren urthea, eta deituhuren duzu bihurpena lurreko egoiliar guzientzat, ezen hura da bozkariozko urthea. Guziak bihurtuko dira beren onthasunetara, eta ohiko familietara.

11. Zeren berrogoi eta hamargarren urthea baita bozkariozko urthea. Ez duzue lurra erainen, eta bere baitharik heldu dena ez duzue bilduko, mahatsetako pikainak ez ditutzue altxaturen,

12. Jubilauaren sainduespenetan, baina atzemana han berean janen duzu.

13. Jubilaueko urthean nor bere onthasunera bihurtuko da.

14. Zerbait salduko duzunean zure herritarri, edo zerbait erosiko diozunean, ez egin bidegaberik zure anaiari; baina erosiko diozu begiratuz jubilauerako urtheei,

15. Eta urthe arauka fruituak salduko darozkitzu.

16. Zenbat ere urthe gehiago izanen baita iragaiteko jubilauaren ondotik, eta hanbatez goratuko da prezioa; eta zenbat gutiago izanen baita ephe, eta hanbatez gutiagotan egingen da erospena; ezen gogoaren ephea salduko darotzu.

17. Berautzue atsekaberik eman zuen leinutarrei; baina batbedera bere Jainkoaren beldur izan bedi, zeren ni bainaiz zuen Jainko Jauna.

18. Iduk zatzue ene manamenduak, begira zatzue ene erabakiak eta bethe zatzue, lotsarik batere gabe bizi ahal zaiteztenzat lurraren gainean,

19. Eta lurrak eman detzatzuentzat bere fruituak, zeinetarik ase arteo janen baituzue, nihork bortxa egiteko beldurrik gabe.

20. Erraten baduzue: Zer janen dugu zazpigarren urthean, baldin erain ez badugu, eta gure fruituak bildu ez baditugu?

21. Ene benedizioea emanen darotzuet seigarren urthean, eta fruituak erakharriko ditu hirur urtherentzat:

22. Eraintzak egingen dituzue zortzigarren urthean, eta halere fruitu zaharretarik janen duzue bederatzigarren urthea arteo: fruitu berriak ethorri arteo, zaharrak janen dituzue.

23. Halaber lurra ez duzue bethikotzat salduko, zeren enea baita, eta zuek ene arrotzak eta etxetiarrak zarete.

24. Horren gatik zuen gozameneko bazterra, ez duzue berrerospeneko erresalbutan baizik salduko.

25. Baldin, beharrak jorik, zure anaiak saltzen badu bere lur puxka, eta ahaide hurbilekoak nahi badu, harek saldu duena berreros dezake.

26. Ordean ahaide hurbilik ez badu, eta berreresateko dirua khausi ez badezake;

27. Saldu duen ordutik goan diren uztak khondatuko dira, eta gainerakoa bihurtuko dio erostunari, eta hola berriz sarthuko da bere gozamenean.

28. Khausi ez badezake bihurtzeko dirua, erostunak idukiko du erosi duena bozkariozko urthea arteo. Ezen orduan salpen guziak itzuliko dira nausiari, ohiko jabeari.





29. Hiriko harrasten barnean etxea saldu duenak, berrerosteko eskua izanen du urthea bethe dadien artean.

30. Ez badu gibelerat hartu, eta urthe osoa iragan bada, erosteak eta bere ondokoek gozatuko dute bethiko, eta ezin berrerosia izanen da jubilauean ere.

31. Bainan etxea harrasirik ez duen herri batean balin bada, bazterraldetako zuzenean salduko da; ez bada lehenago berrerosia izaten, jubilauean bihurtuko zaio nausiar.

32. Hiri barnetan diren lebitarren etxeak bethi berreros ditazke.

33. Ez badira berrerosiak izatu, jubilauean bihurtuko dira beren nausiei, ezen lebitarrek dituzten hirietako etxeak dira hekien izantzak Israelgo semeen artean.

34. Bainan hekien hiripeak ez dira salduko, zeren bethiko gozamenetan baitituzte.

35. Zure anaia behartu balin bada, eta eskuetarik hebaindu, eta hartu baduzu arrotza eta bideanta bezala, eta zurekin bizi bada,

36. Haren gainean irabazirik eginen ez duzu, ez-etare eman baino gehiago atheratuko. Izan zazu zure Jainkoaren beldurra, zure anaia bizi ahal dedientzat zure etxean.

37. Ez diozu dirurik irabazitan emanen, eta ez diozu galdutuko eman fruitutik gehiago.

38. Ni naiz zuen Jainko Jauna, Egiptoko lurretik atheratu zaituztedana, zuei emateko Kanaango lurra, eta zuen Jainkoa izateko.

39. Zure anaiak, beharrak bortxaturik, bere burua zuri saltzen bada-rotzu, ez diozu gathibuaren zerbitzu dorphea jasanaraziko,

40. Bainan saritako langile bat bezala eta etxetiar bat bezala izanen da; zure etxean bozkariozko urthea arteo lanean hariko da;

41. Eta gero bere hurrekin ilkhiko da, eta itzuliko da bere ahaidetara eta bere arbasoenganikako ontasunera.

42. Ezen ene zerbitzariak dira, eta nik atheratu ditut Egiptoko lurretik: eta ez beitez sal gathibu bezala.

43. Zure anaia ez diozu zure indarraz atsekaberik emanen, bainan izan zaite zure Jainkoaren beldur.

44. Muthil-neskatoak har zatzue zuen ingurutako jendakietan.

45. Halaber sehiak hartuko ditutzue zuen tokietan dabiltzan arrotzetan, edo hekien ganik zuen lurrean sorthurikako umetan:

46. Eta ondoregoazko zuzenez utziren ditutzue zuen ondokoei, eta hekietaz gozatuko zarete bethi: bainan etzatzuela indarka hertsu zuen anaia Israelgo semeak.

47. Baldin arrotza edo zuen tokietan dabilan kanpotarra aberastu bada, eta baldin zuen anaietarik batek, beharrak azpiraturik, bere burua saldu badu hari edo haren odoleko norbaiti,

48. Salduz geroztik, berreros daiteke. Bere anaietarik nahi duenak berrerosiko du,

49. Edo bere osabak, edo bere osabaren semeak, edo bere ahaide batek, edo bere ahaideen ahaideak. Eta berak ahala balin badu, bere burua berrerosiko du,

50. Khondatuz bakharrik saldu den ordutik urtheak bozkariozko urthe-raino, salpeneko dirua eta zerbitzatu den urtheetako saria sarizaleek ohi dutenetik.

51. Asko urthe gelditzen bada jubilaue-raino, hekien arabera bihurtuko du dirua.

52. Gutiak badira, hekien arabera khondatuko du nausiarekin eta bihurtuko dio gelditzen diren urtheen saria,

53. Zerbitzatu den urtheetako sariak khondaturik: nausiak ez beza zure aitzinean erabil gogorki.

54. Horreletan berreros ezin baditake, bozkariozko urthean ilkhiko da bere hurrekin.

55. Ezen ene zerbitzariak dira Egiptoko lurretik atheratu ditudan Israelgo semeak.

## XXVI. KAP.

1. Ni naiz zuen Jainko Jauna: ez duzue eginen jainkorderik, eta molde zizelaturik; ez duzue hargin obrarik ez orhoitzapeneko harririk zuzenduko zuen lurrean, haren adoratzeko. Ezen ni naiz zuen Jainko Jauna.

2. Iduk zatzue ene larunbatak eta ikharan alfer zaizte ene saindute-gira. Ni naiz Jauna.

3. Ene manamenduetan ibiltzen bazarete, ene manuak begiratzen eta bethetzen badituzte, uriak beren orduetan emanen darozkitzuet;

4. Eta lurak emanen du bihia, eta zuhaitzak fruituz betheko dira.

5. Uzta-biltzeak atzemanen du mahats-biltzea eta mahats-biltzeak hazien aroa: ogiz nahi bezala aseko zarete, eta beldurrik gabe biziko zarete zuen lurrean.

6. Bakea ezarriko dut zuen eremuetan: lo eginen duzue nihork asal-durik eman gabe; urrunduko ditut ihizi gaixtoak, eta ezpata ez da iraganen zuen lurretan.

7. Joko duzue zuen etsaien ondotik eta trunbilka eroriko dira zuen aitzinean.



8. Zuetarik borts jarraikiko zarete ehuni, eta zuetarik ehun hamar milari: zuen etsaiak ezpataren azpira eroriko dira zuen aitzinean.
9. Begi onez begiratuko darotzuet eta berharaziko zaituztet: ostetan iganen zaizte eta idukiko dut zuekilako ene patua.
10. Bihi zaharra izanen duzue jateko, eta berria ethorririk zaharra bazterrerat arthikiak duzue.
11. Ene tabernaklea ezarriko dut zuen erdian, eta ene gogoak etzaituztete iraziko.
12. Zuen artean ibiliko naiz, eta izanen naiz zuen Jainkoa, eta zuek izanen zarete ene populua.
13. Ni naiz zuen Jainko Jauna Egiptoarren lurretik atheratu zaituztedana, hekien gathibu etzinteztentzat izan, eta zuen lephoetako gatheak hautsi ditudana, burua gorarik ibil zaiteztentzat.
14. Baldin entzuten ez banauzue eta ez badituzue begiratzen ene manamendu guziak,
15. Arbuiazten badituzue ene legeak, eta ene erabakiak erdeinatzen, nik manatuak ez egin nahiz, eta enekilako patua alfer bilhakarazten baduzue,
16. Huna nik ere zer eginen darotzuetan: laster agertuko natzaitzue behartasunaz eta khalda batez zuen begiak idortuko eta zuen barneak erreko dituenaz. Alferretan erainen duzue hazia, zeren etsaiak iretsiko baitute.
17. Ene begithartea zuen kontra itzuliko da, eta eroriko zarete zuen etsaien aitzinean, eta gaitzets zaituztenen azpiko eroriko zarete: ihesari emanen duzue nihor ondotik izan gabetarik.
18. Bainan halere ez bazaizte ene alderat ethorduntzen, zazpitan berhatuko ditut zuen zigorradak zuen bekhatuen gatik,
19. Eta hautsiko dut zuen gogortasunaren hanpuruskeria. Eta zuentzat zerua eginen dut burdina iduri eta lurra kobrea bezala.
20. Zuen lana alferretan iraungiko da; lurra ez du bihia haziko, eta zuhaitzek ez dute fruiturik ekharriko.
21. Oraino ere ene kontra bazabiltzate, eta ez banauzue entzun nahi, zazpitan berhatuko ditut zuen gaitzak zuen bekhatuen gatik:
22. Eta zuen gainera igorriko ditut ihizi basak, zuek eta zuen azien-dak janen zaituztenak, eta guziak ezdeusetara ekharriko, eta zuen bideak mortu bilhakaraziren dituztenak,
23. Halarik ere ez baduzue amor eman nahi, eta ene kontra bazabiltzate,

24. Ni ere zuen kontra ibiliko naiz, eta zazpitan azoteaz emanen darotzuet zuen bekhatuen gatik
25. Eta zuen gainera erakharriko dut ezpata ene batasunaren asper-tzailea. Eta hirietara ihes egin dukezuenean, izurritea igorriko dut zuen erdira, eta zuen etsaien aztaparretara arthikiak izanen zarete,
26. Nik hautsi ondoan zuen giderra, hura baita ogia, halako moldez non hamar emaztekin labe bakhar batean erreko baitute laborea eta pisatuz emanen gero: eta janen duzue eta etzarete aseko.
27. Bainan horien ondotik ere ez banauzue entzuten, eta ene kontra bazabiltzate,
28. Ni ere zuen kontra ibiliko naiz, zuen suliori ene sulia bihurtuz, eta zehatuko zaituztet bertze zazpi gaitzez zuen bekhatuen gatik,
29. Halako moldez non janen baituzue zuen semeen eta alaben haragia.
30. Herrautsiko ditut zuen lekhu gorak eta jainkordeak. Eroriko zarete zuen jainkordeen pusken artera, eta gaitzirizkotan idukiko zaituzte ene arimak
31. Hanbateraino, non mortu eginen baititut zuen hiriak, eta mortu zuen lekhu sainduak, eta ez dut gehiago onhetsiren usain gozorik.
32. Xahutuko dut zuen lurra, eta hari begira zuen etsaiak harrituak egonen dira, hango egoiliar egin ondoan.
33. Eta zuek barraiatuko zaituztet jendaien artean, eta ezpata buluziko dut zuen ondotik, larre goanen dira zuen bazterrak, eta lurrera zuen hiriak.
34. Orduan lurra bozturen da phausutan gelditzeaz mortu egoten den ephean: izanen zaretenean
35. Etsai lurretan, besta izanen da harentzat, eta phausuan egonen da mortu izatearekin, zeren phausurik ez baitu hartu zuen larunbatetan, han egoten zineztenean.
36. Eta zuetarik gelditzen direnei ikhara sarthuren diotet bihotzetan, beren etsaien lurrean, airean dohan hosto baten harrabotsak lazturen ditu, eta ihes igorriko ditu ezpata balitz bezala: lurrera eroriko dira, nihor ondotik izan gabe,
37. Elkharren gainzka eroriko dira gudutik ihes dohazinak bezala; zuetarik nihor ez da etsaiari oldartzera ausartatuko.
38. Hilten zarete jendaien artean, eta lur etsaiak iretsiko zaituzte.
39. Eta hekietarik bakhar zenbait gelditzen badira, bere gaixtakerietan hiratuko dira beren etsaien lurrean, eta atsekabearen azpian egonen dira beren bekhatuen eta beren aitenen gatik;



40. Aithor detzaten arteo beren gaixtakeriak eta beren arbasoenak, ene legearen haustekak, eta ene kontra erabili urhatsak.

41. Beraz neroni goanen naiz hekien kontra, eta eramanen ditut lur etsaiera, ahalketan sar dadien arteo hekien bihotz ingurebakigabea: orduan othoitz eginen dute beren tzarkerientzat.

42. Eta orhoituko naiz Jakobekin, Isaakekin eta Abrahamekin egin izan dudana batasunaz. Halaber orhoituko naiz lurraraz,

43. Zeina, hekiek utzi ondoan, boztuko baita bere phausuan, hekien gatik jasaiten duelarik larre goana izatea. Berek ordean othoitz eginen dute beren bekhautentzat, ene erabakiak irazi eta ene manamenduak erdeinatu dituztelakotz.

44. Eta guziarekin ere, etsai-lurrean zirelarik, ez ditut alde bat irazi, eta ez ditut hala erdeinatu non arras iraungi baitira, eta alferretara bihurtu baita hekiek in egin nuen batasuna. Ezen ni naiz hekien Jainko Jauna.

45. Eta orhoituko naiz ohiko ene batasunaz, Egiptoko lurretik athera nituenean eginaz izateko hekien Jainkoa, jendaia guzien aitzinean. Ni naiz Jauna. Horiek dira erabakiak, manamenduak eta legeak Jaunak ezarriak bere buruaren eta Israelgo semeen artean Sinaiko mendian Moisen arartekoz.

## XXVII. KAP.

1. Eta Jauna mintzatu zen Moisi huneletan:
2. Mintza zaite Israelgo semeei eta errozute: Botu bat egin duenak, eta bere arima Jainkoari agindu dioenak, estimutik emanen du balioa.
3. Gizonkia balin bada, hogoi urthetarik hirur hogoi artekoa, emanen ditu berrogoi eta hamar zilharrezko siklo saindutegiko phisura.
4. Emaztekoa balin bada, hogoi eta hamar.
5. Bortz urthetarik hogoi garrena artean, gizonkiak emanen ditu hogoi siklo, emaztekiak hamar.
6. Hilabete batetarik bortzgarren urthea artean, muthikokiarentzat emanen dira bortz siklo; nexkarentzat hirur.
7. Hirur hogoi urthetako eta handik goitiko gizonkiak emanen ditu hamabortz siklo, emaztekiak hamar.
8. Beharra balin bada, eta estimua eman ez badezake, agertuko da aphezaren aitzinera: hunek erabaki eta eman dezakeela ikhusi duen bezenbat emanen du.
9. Baldin norbaitek botu egiten badu, Jaunari imola daitekeen abere batez, saindu izanen da azienda hura,

10. Eta ezin ganbiatuko da, erran nahi da ona txarrera, ez-eta txarra onera: baldin ganbiatzen badute, ganbiatua eta ganbiatzeko baliatu dena, biak Jaunari kontsekratuak izanen dira.

11. Norbaitek botuz eman badu, Jaunari imola ez daitekeen abere lohia, aphezaren aitzinera erakharriko da,

12. Hunek erabakirik ona den edo ez, prezamena eginen du.

13. Eskaintzaileak diru hura eman nahi badu, bortzgarren bat emanen du estimutik gehiago.

14. Norbaitek bere etxea botuz ematen badu eta Jaunari kontsekratzen, aphezak begiratuko dio ona ala txarra denez, eta emanen dioen balioaren arabera saldua izanen da:

15. Bazik-eta botu-egileak berrerosi nahi badu, bortzgarren bat emanen du estimuaren gainera, eta etxea beretzat izanen du.

16. Baldin bere gozameneko landa botuz eman badu eta Jaunari kontsekratu, bihi eraintzatik hartuko da balioa: hogoi eta hamar gaitzeru garagarrezko eraintzen lurra balin bada, berrogoi eta hamar siklo zilharrezkotan salduko da.

17. Jubilau hasteko urthetik berehala landaz egin bada botu, zenbatero balio baituke, hanbat estimatuko da.

18. Bainan aphur bat geroago balin bada, aphezak balioa khondatuko du gelditzen diren urtheen arabera jubilaueraino, eta estimua aphilago ezarriko du

19. Botu-egileak landa berrerosi nahi badu, estimuaren gainera bortzgarren bat emanen du, eta lurra gozatuko du aitzina.

20. Bainan ez badu berrerosi nahi, eta bertze norbaiti saldua izan bada, botu egileak ezin gehiago berrerosiko du;

21. Zeren bozkariozko eguna ethorri ditakeenean, lur hura Jaunari kontsekratua izanen baita, eta gauza kontsekratua aphezen zuzenari baitagokio.

22. Jaunari kontsekratu zaioen landa, errosia balin bada eta ez aitzinekoen eskutik ethorria,

23. Aphezak estimua emanen dio jubilauerainoko urtheen arabera, eta botu-egileak hura pagatuko dio Jaunari;

24. Bainan bozkariozko urthean landa bihurtuko da ohiko nausiari, zeinak saldu izan baitzuen, eta zeinari ondoregoz iraulgia baitzen.

25. Estimua guziak jarraikiren dira Saindutegiko sikloaren phisuari: sikloa hogoi obolaz egiten da.

26. Nihork ezin kontsekratuko eta botuz emanen ditu lehen-sortuak, zeinak Jaunarenak baitira: nahiz idia, nahiz ardia, Jaunarenak dira.



27. Aberea lohia balin bada, eskaintzaileak berrerosiko du zure estimutik, eta gainera emanen du bortzgarrena; berrerosi nahi ez badu, bertze bati salduko da zuk eman estimuan.

28. Jaunari kontsekratzen dena, nahiz gizona, nahiz aberea, nahiz landa, ez da salduko, eta ezin berreros daiteke. Edozein gauza behin kontsekratua izan dena, Jaunaren sailduren saildu geldituko da.

29. Gizonak kontsekratzen duena ez da berrerosiko, bainan bere heriotzez hilen da.

30. Lurreko hamarren guziak, nahiz bihietarik, edo zuhaitzen fruituetarik, Jaunarenak dira eta hari kontsekratuak.

31. Bainan norbaitek bere hamarrenak berrerosi nahi baditu, bortzgarren bat emanen du gainetik.

32. Idien, ardien eta ahuntzen hamarren guziak, artzainaren zaharoren azpian iragaiten direnak, hamargarren heldu diren guziak, Jaunari kontsekratuko dira.

33. Ez da, ez onik, ez txarrik hautstuko, ez berme batera trukatu. Baldin norbaitek trukutzen badu, trukezkoa eta trukatu, biak Jaunari kontsekratuak izanen dira, eta ez dira berrerosiak izanen.

34. Horiek dira Jaunak Moisi Israelgo semeentzat Sinaiko mendian eman manamenduak.

## NONBREAK

### I. KAP.

1. Jauna Moisi mintzatu zitzaioen Sinaiko mortuan, batasuneko tabernaklean Egiptotik ilkhi ondoko urthean, bigarren hilabetean, eta erran zioen:

2. Altxa zazue Israelgo semeen balderna guziko nonbrea ahaidegoka, etxeka, eta bakhotxaren izenka, zenbat gizonki diren,

3. Hogoi urthetako eta goitiko gizon egin guziak Israelen, eta zuk eta Aaronen hekiek khondatuko dituzue beren andanetan,

4. Eta leinuetako buruzagiak eta etxetakoak beren ahaidegotan, zuekin izanen dira.

5. Huna hekien izenkk: Errubenen leinutik, Elisur Sedeurren semea.

6. Simeonen leinutik, Salamiel Surisadairan semea.

7. Judaren leinutik, Nahason Aminadaben semea.

8. Isakarren leinutik, Nathanael Suarren semea.

9. Zabulonen leinutik, Eliab Helonen semea.

10. Josepen semeetarik, Efraimen leinutik, Elisama Amiuden semea; Manaseren leinutik, Galamiel Phadasurren semea.

11. Benjaminen leinutik, Abidan Jedeonen semea.

12. Danen leinutik, Ahiezer Amisadairan semea.

13. Aserren leinutik, Phegiel Okranen semea.

14. Gaden leinutik, Eliasaph Duelen semea.

15. Nefthaliren leinutik, Ahira Enanen semea.

16. Horiek ziren osteko buruzagi deithatuenak leinuka eta ahaidegoka, eta Israelgo armadako aitzindariak.

17. Moisek eta Aaronen hartu zituzten osteko jende xehe guziarekin:

18. Eta bigarren hilabeteke lehenbiziko egunean bilarazi zituzten, khondatzen zituztelarik ahaidegoka, etxeka, familiaka, buruka eta izenka, hogoi urthetakoak eta goitikoak,

19. Jaunak Moisi manatu izan zioen bezala. Khondatuak izan ziren Sinaiko mortuan.

20. Erruben Israelen seme zaharrena ganik iraulgika, familiaka, etxeka eta batbederaren izenka, hogoi urthetako eta goitiko gizonki guziak, gerlara zihoazenak, ziren

21. Berrogoi eta sei mila eta bortz ehun.



22. Simeonen semeetarik iraulgika, familiaka eta hekien ahaidegoen etxeka, khonduak izan ziren izenka eta buruka, hogoi urthetako eta goitiko gizonki guziak, gerlara zihoazanak,

23. Berrogoi eta hemeretzi mila eta hirur ehun.

24. Gaden semeetarik, iraulgika, familiaka eta hekien ahaidegoen etxeka, khonduak izan ziren izenka, hogoi urthetarik eta handik goiti, gerlara zihoazanak oro,

25. Berrogoi eta bortz mila sei ehun eta berrogoi eta hamar.

26. Judaren semeetarik, iraulgika, familiaka eta beren ahaidegoen etxeka, izenka, hogoi urthetakoak eta goitikoak, gerlara goan zitazkeen guziak,

27. Khonduak izan ziren hirur hogoi eta hamalau mila eta sei ehun.

28. Isakarren semeetarik, iraulgika, familiaka eta beren ahaidegoen etxeka, izenka, hogoi urthetakoak eta goitikoak, gerlara zihoazen guziak,

29. Khonduak izan ziren berrogoi eta hamalau mila eta lau ehun.

30. Zabulonen semeetarik, iraulgika, familiaka eta beren ahaidegoen etxeka, khonduak izan ziren izenka, hogoi urthetakoak eta goitikoak, gerlara goan ahal zitazkeenak oro,

31. Berrogoi eta hamazazpi mila eta lau ehun.

32. Josepen semeetan, Efraimen semeetarik, iraulgika, familiaka eta beren ahaidegoen etxeka, khonduak izan ziren izenka, hogoi urthetakoak eta goitikoak, gerlara goan zitazkeen guziak,

33. Berrogoi mila eta bortz ehun.

34. Bada, Manaseren semeetarik, iraulgika, familiaka eta beren ahaidegoen etxeka, khonduak izan ziren izenka, hogoi urthetarik eta handik goiti, gerlakotzat on ziren guziak,

35. Hogoi eta hamabi mila eta berrehun.

36. Benjaminen semeetarik, iraulgika, familiaka eta beren ahaidegoen etxeka, khonduak izan ziren izenka, hogoi urthetakoak eta goitikoak, gerlakotzat on ziren guziak,

37. Hogoi eta hamabortz mila eta lau ehun.

38. Danen semeetarik, iraulgika, familiaka eta beren ahaidegoen etxeka, khonduak izan ziren izenka, hogoi urthetakoak eta goitikoak, gerlakotzat on ziren guziak,

39. Hirur hogoi eta bi mila eta zazpi ehun.

40. Aserren semeetarik, iraulgika, familiaka, eta beren ahaidegoen etxeka, khonduak izan ziren izenka, hogoi urthetakoak eta goitikoak, gerlakotzat on ziren guziak,

41. Berrogoi eta bat mila eta bortz ehun.

42. Nefthaliren semeetarik, iraulgika, familiaka eta beren ahaidegoen etxeka, khonduak izan ziren izenka, hogoi urthetakoak eta goitikoak, gerlakotzat on ziren guziak,

43. Berrogoi eta hamahirur mila eta lau ehun.

44. Horiek dira Moisek eta Aaronen, eta Israelgo hamabi buruzagiek khonduak zituztenak, zein bere ahaidegoaren etxeka.

45. Eta Israelgo seme guziak etxeka eta, familiaka, hogoi urthetakoak eta goitikoak, gerlara goan ahal zitazkeenak, ziren

46. Sei ehun eta hirur mila bortz ehun eta berrogoi eta hamar.

47. Bainan lebitarrak etziren hekiekin khonduak izan beren familetako leinuan.

48. Ezen Jauna Moisi mintzatu zen, zioelarik:

49. Ez dezazula khonda Lebiren leinua, eta ez duzu atherako hekien khondua Israelgo semeenarekin.

50. Bainan ezar zatzu lekhukotasuneko tabernaklearen, hartako untzien eta zeremonietan erabiltzen diren puska guzien zaintzeko. Berek erabiliko dituzte tabernaklea eta hartako tresna guziak: eginbide horiek betheko dituzte, eta tabernaklearen inguruan kanpatuko dira.

51. Abiatzerakoan, lebitarrek jautsiko dute tabernaklea: kanpatzerakoan zuzenduko dute. Atzerik norbait hurbiltzen bada, hila izanen da.

52. Ordean Israelgo semeak kanpatuko dira, zein beren andanetan, araldetan eta armadan.

53. Bada, lebitarrek beren olhak jarriko dituzte tabernaklearen inguruan, beldurrez-eta Jaunaren hasarrea jauts dedin Israelgo semeen gainera, eta lekhukotasuneko tabernaklearen zain atzarririk egonen dira.

54. Israelgo semeek egin zituzten beraz Jaunak Moisi manatu guziak.

## II. KAP.

1. Jauna Moisi eta Aaroni mintzatu zen, erraten ziotelarik:

2. Israelgo semeak batasuneko tabernaklearen inguruan kanpatuko dira, zein beren andanetan, ezagutgailuka, banderaka eta ahaidegoen etxeka.

3. Judak iguzki-sorthaldera landatuko ditu bere olhak, bere armada-ko araldean arabera; eta haren umeen aitzindari izarien da Nahason, Aminadaben semea.

4. Eta haren odoleko gerla-gizonen moltzo guzia heltzen da hirur hogoi eta hamar mila eta sei ehunetara.

5. Haren aldean kanpatuko dira Isakarren leinukoak, zeinen aitzindari izanen baita Nathanael, Suarren semea:



6. Eta hekietako gerla-gizonen andana guzia heltzen da berrogoi eta hamalau mila eta lau ehunetara.
7. Eliab, Helonen semea, aitzindari izanen da Zabulonon leinuan.
8. Eta odol hartako gudularien armada guzia heltzen da berrogoi eta hamazazpi mila eta lau ehunetara.
9. Eta Judaren kanpetako khondatuak izatu direnak oro heltzen dira bederatzitan hogoi eta sei mila eta lau ehunetara, eta lehenak ilkhiko dira zein beren andanetan.
10. Eguerdi-aldeko aurkhintzan, Errubenen semeen kanpetan, aitzindari izanen da Elisur, Sedeurren semea:
11. Eta haren armada guziko gudulari khondatuak izan direnak heltzen dira berrogoi eta sei mila eta borts ehunetara.
12. Haren aldean kanpatuko dira Simeonen leinukoak, zeinen aitzindari izarien baita Salamiel Surisadairen semea.
13. Eta haren armada guziko gudulari khondatuak izan direnak heltzen dira berrogoi eta hemeretzi mila eta hirur ehunetara.
14. Gaden leinuan aitzindari izanen da Eliasaph, Duelen semea:
15. Eta haren armadako gudulari khondatuak izan direnak heltzen dira berrogoi eta borts mila sei ehun eta berrogoi eta hamarretara.
16. Errubenen kanpetan khondatuak izan direnak oro heltzen dira zazpitan hogoi eta hameka mila lau ehun eta berrogoi eta hamarretara, zein beren andanetan: bigarrenekorik ilkhiko dira.
17. Lebitarren arthaz eta hekietako araldean eskuz altxatua izanen da lekhukotasuneko tabernaklea; nola altxatu, hala phausatuko dute. Goanen dira zein beren lekhu eta lerrotan.
18. Mendebaleko aurkhintzan izanen dira Efraimen semeen kanpak, eta aitzindari izanen da Elisama, Amiuden semea:
19. Haren armada guziko gudulari khondatuak izan direnak heltzen dira berrogoi mila eta borts ehunetara.
20. Hekiekin izanen dira Manaseren leinukoak, zeinen aitzindari izanen baita Gamaliel, Phadasurren semea.
21. Eta haren armada guziko gudulari khondatuak izan direnak heltzen dira hogoi eta hamabi mila eta berrehunetara.
22. Benjaminen leinuko semeen aitzindari izanen da Abidan, Jedeonen semea:
23. Eta haren armada guziko gudulari khondatuak izan direnak heltzen dira hogoi eta hamaborts mila eta lau ehunetara.

24. Efraimen kanpetako khondatuak izan direnak heltzen dira ehun eta zortzi mila eta ehunetara, zein beren andanetan: hirugarrenekorik ilkhiko dira.
25. Ipharraldean kanpatuko dira Danen semeak: hekien aitzindari izanen da Ahiezer, Amisadairen semea.
26. Haren armada guziko gudulari khondatuak izan direnak heltzen dira hirur hogoi eta bi mila eta zazpi ehunetara.
27. Haren aldean jarriko dituzte olhak Aserren leinukoek, zeinen aitzindari izanen baita Phegiel, Okranen semea:
28. Haren armada guziko gudulari khondatuak izan direnak heltzen dira berrogoi eta bat mila eta borts ehunetara.
29. Nefthaliren leinuko semeen aitzindari izanen da Ahira, Enanen semea:
30. Haren armada guziko gudulari khondatuak izan direnak heltzen dira berrogoi eta hamahirur mila eta lau ehunetara.
31. Danen kanpetako khondatuak izan direnak oro heltzen dira zazpitan hogoi eta hamazazpi mila eta sei ehunetara: eta azkenik ilkhiko dira.
32. Israelgo semeen armada hori, andanaka berezia, zein bere etxe eta ahaidegoaren arabera, igaiten zen sei ehun eta hirur mila borts ehun eta berrogoi eta hamarretara.
33. Lebitarrak ordean etziren Israelgo semeen artean khondatuak izan: Jaunak ezen hala manatu zioen Moisi.
34. Eta Israelgo semeek egin zuten Jaunak manatu guzien arabera. Kanpatu ziren zein beren andanetan, eta bideari eman familiaka eta beren aiten etxeka.

### III. KAP.

1. Huna Aaronen eta Moisen ondokoak, Jauna Moisi Sinaiko mendian mintzatu izan zen egunean.
2. Eta hautxek dira Aaronen semeen izenak: Nadab haren seme zaharrena, gero Abiu, eta Eleazar, eta Ithamar.
3. Horiek dira izenak Aaronen Seme aphezenak, zeinak izan baitziren gantzutuak, eta zeinen eskuak izan baitziren betheak eta kontsekratuak apheztasuneko eginbideen bethetzekotzat.
4. Hil izan ziren bada haurrik gabe Nadab eta Abiu, su atzea Jaunaren aitzinean eskaintzen zutelarik Sinaiko mortuan: Eleazarrek eta Ithamarrek apheztasuneko eginbideak bethe zituzten beren aita Aaronen aitzinean.
5. Eta Jauna Moisi mintzatu zen, zioelarik:



6. Hurbilaraz zazu Lebiren leinua eta jarraraz zazu Aaron aphezaren aitzinean, zerbitza dezaten eta zain egon ditezentzat,

7. Eta begira detzaten, populuak lekhukotasuneko tabernaklearen aitzinean bihurtu behar dituen ohorei deratxikoten guziak,

8. Eta zain ditzaten tabernakleko untziak, hango eginbideak bethetzen dituztelarik.

9. Eta emaitzaz emanen diozkatzute lebitarrak,

10. Aaroni eta bere semeei, zeinei utziak izan baitira Israelgo semeez. Bainan Aaron eta bere semeak ezarriko dituzu aphezatasuneko eginbideetarako. Eginbide horietara hurbilduko den arrotza hilen da.

11. Eta Jauna Moisi mintzatu zen, zioelarik:

12. Nik lebitarrak hartu ditut Israelgo semeen artetik, Israelgo semeetan amaren sabela idekitzen duen lehen-sorthu guziaren orde; eta lebitarrak eneak izanen dira.

13. Ezen lehen-sorthu guziak eneak dira, lehen-sorthuak jo ditudan ordutik Egiptoko lurtean: enetzat sainduetsi ditut Israelen lehen-sorthuak oro, gizonetik abereetaraino, eneak dira. Jauna naiz ni.

14. Eta Jauna Moisi mintzatu zen Sinaiko mortuan, zioelarik:

15. Athera zazu zenbat diren Lebiren semeak, beren aiten etxeka eta familiaka, gizonki hilabete batekoak eta handik goitiko guziak.

16. Moisek khondatu zituen Jaunak manatu bezala,

17. Eta Lebiren semeak khausitu ziren beren izenen arabera, Jerson, eta Kaath, eta Merari.

18. Jersonen semeak: Lebni eta Semei.

19. Kaathen semeak: Amram eta Jesaar, Hebron eta Oziel.

20. Merariren semeak: Moholi eta Musi.

21. Jersonen ganik ilkhi ziren bi familia, Lebnirena eta Semeirena:

22. Zeinetarikako gizonkiak, harturik hilabete batekoak eta goitikoak, baitziren zazpi mili eta bortz ehun.

23. Haukiek tabernakle giblean kanpatuko dira iguzki-sartzetik,

24. Laelen seme, Eliasaph aitzindariaren azpian.

25. Eta batasuneko tabernaklean zain egonen dira,

26. Begiratzeko tabernaklea bera eta hartako estalgia, batasuneko hegaztegiko athearen aitzinean hedatzen den bela, eta lorioko erridauak: tabernakleko lorio sartzean hedatzen den bela ere, eta aldareko zerbitzuko direnak oro, tabernakleko sokhak eta hartako tresna guziak.

27. Kaathen ondoregoan dira Amramtarrak, Jesaartarrak, Hebrontarrak eta Ozieltarrak. Horiek dira Kaatharren familiak, beren ize-nez khondatuak:

28. Hilabete bateko eta goitiko gizonki guziak dira zortzi mila eta sei ehun: saindutegian zain egonen dira,

29. Eta kanpatuko dira eguerdi-aldetik.

30. Elisaphan, Ozielen semea, izanen dute aitzindari:

31. Eta zainduko dituzte arkha, mahaina eta ganderailua, aldareak eta Saindutegiko untzi, hango eginbidetan erabiltzen direnak, bela eta horrelako bertze gauza guziak.

32. Bada, Aaron aphezaren seme, Eleazar, lebitarretako aitzindarien buruzagia, izanen da saindutegia begiratzeko duten zaintzaileen gaineko.

33. Merarirenganikakoak dira Moholitarrak eta Musitarrak, beren izenez khondatuak:

34. Hilabete bateko eta goitiko gizonki guziak, sei mila eta berrehun.

35. Hekien aitzindari izanen da Suriel, Abihaielen semea; kanpatuko dira ipharretik.

36. Hekiek zaindu beharrak izanen dira tabernakleko oholak, hagak, habeak, haben oinak, eta hekiei darraizkoten guziak:

37. Lorioko habeak inguruan beren oinekin, eta hesaulak sokhekin.

38. Moisek eta Aaronek bere semeekin zaindu behar baitute saindutegia Israelgo semeen erdian, kanpatuko dira batasuneko tabernaklearen aitzinean, erran nahi baita iguzki-atheratzeko aldean: hurbilduko den edozein arrotz, hilen da.

39. Moisek eta Aaronek, Jaunaren manamenduaren arabera khondatu izan zituzten lebitar guziak, familiaka, hilabete bateko eta goitiko gizonkiak izan ziren hogoi eta bi mila.

40. Eta Jaunak erran zioen Moisi: Khonda zatzu Israelgo semeetako gizonki lehen-sorthuak hilabete batekoak eta goitikoak, eta atherako duzu hekien nonbrea.

41. Eta hartuko daroztatzu lebitarrak Israelgo semeen lehen-sorthu guzien orde. Jauna naiz ni: eta lebitarren aziendak izanen dira Israelgo semeen aziendetako lehen-sorthuen orde:

42. Moisek, Jaunak manatu bezala, khondatu zituen Israelgo semeen lehen-sorthuak:

43. Eta gizonkiak beren izenez, hilabete batekoak eta goitikoak, izan ziren hogoi eta bi mila berrehun eta hirur hogoi eta hamahirur.

44. Eta Jauna Moisi mintzatu zen, zioelarik:

45. Har zatzu lebitarrak Israelgo semeen lehen-sorthuen orde, eta lebitarren abereak hekien abereen orde; eta lebitarrak izanen dira eneak. Jauna naiz ni.



46. Eta lebitarren nonbrea xitzen duten Israelgo semeetako berrehun eta hirur hogoi eta hamahirur lehen-sorthuen saritzat,

47. Hartuko dituzu buru bakhotxeko bortz siklo saildutegiko phisura. Sikloak hogoi obola ditu.

48. Eta diru hori Aaroni eta bere semeei emanen diozute, goitiko direnen saritzat:

49. Beraz goitiko zirenen dirua, lebitarren ganik berrerosi zituztene-na, hartu zuen Moisek,

50. Israelgo semeetako lehen-sorthuen orde, mila hirur ehun eta hirur hogoi eta bortz siklo saildutegiko phisura;

51. Eta diru hori eman zioten Aaroni eta haren semeei Jaunak manatu izan zuenaren arabera.

#### IV. KAP.

1. Eta Jauna Moisi eta Aaroni mintzatu zen, zioelarik:

2. Lebitarren artetik athera zazu zenbat diren Kaathen semea etxeka eta familiaka,

3. Hogoi eta hamar urthe dituztenak eta gehiago berrogoi eta hamar urthetaraino, batasuneko tabernaklean egotera eta beren eginbideen egiterra sartzen diren guziak.

4. Huna Kaathen semeen eginbideak: batasuneko tabernaklean eta sailduren sailduan

5. Sarthuko dira Aaron eta bere semeak, kanpak higitzekoak izanen direnean, eta athearen aitzinean hedatua den bela jautsiko dute, eta hartaz inguratuko dute lekhukotasuneko arkha.

6. Eta berriz estaliko dute larru gorrimorezko estalgi batez, eta gainean hedatuko dute sailhal bat guzia moredina, eta hagak sarthuko dituzte.

7. Eta proposizioneko mahaina inguratuko dute sailhal moredin batez, eta harekin ezarriko dituzte isentsuntziak eta xurruttoak, xatak eta libazioneen egiteko untziak: ogiak izanen dira bethi hekien gainean:

8. Eta gainetik hedatuko dute sailhal eskarlat bat, eta berriz estaliko dute larru gorrimorezko estalgi batez eta hagak sarthuko diozkate.

9. Hartuko dute halaber sailhal moredin bat, zeintaz estaliko baitute ganderailua bere kriselu, suhats, muketa eta olio-untzi guziekin, argien xuxentzeko behar direnekin:

10. Eta guzien gainetik ezarriko dute larru gorrimorezko estalgi bat, eta hagak sarthuko dituzte.

11. Urhezko aldarea ere inguratuko dute oihal moredin batez, eta gainetik hedatuko dute larru gorrimorezko estalgi bat, eta hagak sarthuko dituzte.

12. Saildutegian erabiltzen diren untzi guziak sailhal moredin batez inguratuko dituzte, gainetik hedatuko dute larru gorrimorezko estalgi bat, eta sarthuko dituzte hagak.

13. Aldarea ere hautsetarik garbituko dute, eta purpurazko oihal batez inguratuko;

14. Harekin ezarriko dituzte hartako eginbideetan erabiltzen diren tresna guziak, erran nahi da su-untziak, suhatsak, hiruhortzekoak, makoak eta phalak. Aldareko tresna guziak batean estaliko dituzte larru gorrimorezko estalgi batez, eta hagak sarthuko dituzte.

15. Kanpak altxatzean, Aaronek eta bere semeek inguratu dituzketenean saildutegia eta hartako tresna guziak, orduan Kaathen semeak sarthuko dira tresna biribilkatu hekien eramateko: eta ez dituzte saildutegiko untziak ukitutuko, hil ditezen beldurrez. Horiek dira batasuneko tabernaklean Kaathen semeek eraman beharrak.

16. Aphez-handi Aaronen seme Eleazar izanen da hekien gaineko; hari dagokio artha kriseluen xuxentzeko olioarena, isentsu aphainduarena, bethi eskaintzen den sakrifizioarena, gantzutzeko olioarena, tabernakleko eginbidei dagokioten gauza guziena, eta saildutegian diren tresna ororena.

17. Eta Jauna Moisi eta Aaroni mintzatu zen, zioelarik:

18. Begira zaitzete Kaathen semeak galaraztetik lebitarren artetik:

19. Bainan artha emozuete bizi ditezin eta ez hil ukitzen balute sailduren saildua. Aaron eta bere semeak sarthuko dira barnera, berek erakutsiko dituzte bakhotxaren egitekoak, eta bereziko nork zer eraman behar duen.

20. Bertzeek kuriostasunez ez bezote begira saildutegian diren gauzei, biribilkatuak diren baino lehen, bertzenaz hilen dira.

21. Eta Jauna Moisi mintzatu zen, zioelarik:

22. Athera zazu halaber etxeka, familiaka eta ahaidegoka zenbatetara heltzen diren Jersonen semeak,

23. Hogoi eta hamar urthetarik eta handik goiti berrogoi eta hamar urthetaraino. Khonda zatzu batasuneko tabernaklean sartzen eta zerbitzatzan diren guziak.

24. Huna zer diren Jersondarren familiaren eginbideak:





25. Ekharriko dituzte tabernakleko erridauak, batasuneko hegaztegia, bigarren estalgia, eta guzien gaineko sailal gorrimorea, eta batasuneko tabernaklearen sartzean hedatzen den bela,

26. Lorioko erridauak, eta sartzean, tabernaklearen aitzinean den bela. Aldareari deratxikozten guziak, sokhak eta zerbitzuko untziak

27. Ekharriko dituzte Jersonen semeek, Aaronen eta haren semeen manuen azpian: eta bakhotxa jakintsun izanen da zeren gainean eskua ezarri behar duen.

28. Horra Jersondarren familiaren eginbidea batasuneko tabernaklean; Aaron aphezaren seme Ithamarren eskupeko izanen dira.

29. Merariren semeak ere zenbat diren atherako duzu familiak eta beren aiten etxeka,

30. Hogoï eta hamar urthetarik eta handik goiti berrogoï eta hamar urthetaraino, beren eginbideen bethetzera eta batasuneko lekhukotasunaren zerbitzura sartzen diren guziak.

31. Huna hekien haxeak: Ekharriko dituzte tabernakleko oholak eta hartako hagak, habeak eta hekien oinak,

32. Lorio inguruko habeak ere beren oin, hesaul, eta sokhekin. Untzi eta tresna guziak khondaturik hartuko dituzte, eta hala ekharriko dituzte.

33. Horra Meraritarren familiaren eginbidea eta zerbitzua batasuneko tabernaklean: eta Aaron aphezaren seme Ithamarren eskupeko izanen dira.

34. Moisek, Aaronen eta sinagogako aitzindariak Kaathen semeak khondatu zituzten beraz ahaidegoka eta beren aiten etxeka,

35. Hogoï eta hamar urthetarik eta goiti berrogoï eta hamargarren urtheraino, batasuneko tabernakleko zerbitzuan sartzen ziren guziak;

36. Eta khausitu ziren bi mila zazpi ehun eta berrogoï eta hamar.

37. Horra zenbat ziren Kaathen familatik batasuneko tabernaklearen zerbitzuan sartzen zirenak: Moisek eta Aaronen hekiek khondatu zituzten, Jaunak Moisen arartekoz manatu izan zuen bezala.

38. Jersonen semeak ere khondatuak izan ziren ahaidegoka eta beren aiten etxeka,

39. Hogoï eta hamar urthetarik eta goiti berrogoï eta hamargarren urtheraino, batasuneko tabernaklean zerbitzatzera sartzen ziren guziak:

40. Eta khausitu ziren bi mila sei ehun eta hogoï eta hamar.

41. Horra zenbat ziren Jerfondarren familatik Moisek eta Aaronen khondatuak, Jaunak manatu bezala.

42. Halaber khondatuak izan ziren Merariren semeak ahaidegoka eta beren aiten etxeka,

43. Hogoï eta hamar urthetarik eta goiti berrogoï eta hamargarren urtheraino, batasuneko tabernakleko eginbideen bethetzera sartzen ziren guziak:

44. Eta khausitu ziren hirur mila eta berrehun.

45. Horra zenbat ziren Merariren semeak Moisek eta Aaronen khondatu zituztenak, Jaunak Moisen arartekoz eman zuen manuren arabera.

46. Lebitarretarik khondatuak izan ziren guziak, eta Moisek, Aaronen eta Israelgo aitzindariak hartu zituztenak izenez, ahaidegoka eta beren aiten etxeka,

47. Hogoï eta hamar urthetarik eta goiti berrogoï eta hamargarren urtheraino, tabernakleko zerbitzuan eta haxeketan sartzen zirenak,

48. Oro batean ziren zortzi mila bortz ehun eta laur hogoï.

49. Jaunaren hitzaren arabera Moisek khondatu zituen, zeini bere lan eta egitekoak bereziz, Jaunak manatu izan zioen bezala.

## V. KAP.

1. Eta Jauna Moisi mintzatu zen, erraten zioelarik:

2. Mana zozute Israelgo semeek kanpetarik iraz detzaten legentsu, hazi-jariadun eta hilikia ukiturik lohitu guziak:

3. Kanpetarik iraz zazue hala gizonkia nola emaztekoa, beldurrez-eta khutsa dezaten ni zuekin nagoen tokia.

4. Eta hala egin zuten Israelgo semeek, eta hekiek irazi zituzten kanpetarik, Jaunak Moisi erran zioen bezala.

5. Eta Jauna Moisi mintzatu zen, zioelarik:

6. Errozute Israelgo semeek: Gizonak edo emaztekiak egin dukeen gizonen gerthatzen ohi zaioten bekhatuetarik, eta ardura eskasez hautsi duketenean Jaunaren manamendua, eta hobendun egin direnean,

7. Aithortuko dute beren bekhatua, hartu guzia bihurtuko dute, eta bortzgarren bat gainerako, hainari zeini bidegabe egin baitiote.

8. Bainan nihor ez bada hartzeko, Jaunari emanen diote, eta aphezarentzat izanen da, lekhaturik xahupenerako eskaintzen den aharia, bitima jabalgarri izan dadientzat.

9. Israelgo semeek eskaintzen dituzten pikain guziak halaber aphezarenak dira:

10. Eta bakhotxak saindutegian eskaintzen duen edozein gauza, eta aphezaren eskuetara ematen, hunena izanen da.

11. Eta Jauna Moisi mintzatu zen, zioelarik:

12. Mintza zaite Israelgo semeek eta errozute: Gizonak, zeinaren emaztea makhurtu baita, eta senharraz narda eginik,



13. Lo egin baituke bertze gizon batekin, eta senharrak hori ezin atzeman baituke, bainan nahaste likhits hori estalia badago, eta lekhukoz ezin froga badaiteke, zeren emaztekoa ez baita bere bekhatuan atzeman izatu;

14. Bekhaizgoko asmuek sutatzen badute senharra emaztearen kontra, zeina izanen baita edo khutsatua, edo aiheru behargabekoz bilhatua,

15. Aphezari eramanen dio emaztea, eta hunentzat eskaintza eginen du garagar-irinetik sato baten hamargarrena: ez dio gainera ixuriko oliorik, ez-eta isentsurik gainean ezarriko, zeren sakrifizioa den bekhaizgozkoa, eta eskaintza den emazte-hutsaren bilhaketaria.

16. Aphezak eskainiko du hura, eta Jaunaren aitzinean ezarriko du.

17. Eta lurrezko untzi batean hartuko du ur saindutik, eta emanen dio tabernakleko galtzadatik lur izpi bat.

18. Eta emaztekoa xutik eman denean Jaunaren aitzinean, aphezak agertuko dio burua, eta eskuetan ezarriko dio orhoitzapenerako sakrifizioa eta bekhaizgozko eskaintza: berak ordean idukiko ditu kharastasuneko urak, zeinetara burhoka arthiki baititu madarizioneak.

19. Errekeituko du emaztekoa, eta erranen dio: Baldin gizon arrotzak lo egin ez badu zurekin, eta khutsatu ez bazare senharraren etzauntza utzirik, ez darozute kalterik ekharriko kharastasuneko ur haukiek, zeinetara arthiki baitituz madarizioneak.

20. Bainan zure senharra ganik makhurtu bazare, eta khutsatua bazare, eta bertze gizon batekin etzan bazare,

21. Madarizione haukien azpian geldituko zare. Jaunak madarizionetan eta guzien ikhugarrri ezar betzaitza bere populuari: ustelaraz beza zure ixterra, eta hanturik zure sabelak leher egin beza.

22. Zure sabelera sar beitez ur madarikatuak, eta sabela hantzearekin ustel bekizu ixterra. Eta emaztekiak ihardetsiko du: Halabiz, halabiz.

23. Eta aphezak madarizione hekiek iskribatuko ditu liburu batean, eta ezeztatuko ditu kharastasuneko urez, zeinetara madarizioneak bildu baititu,

24. Eta emaztekiari edatera emanen diozka. Hunek iretsi dituen ondoan,

25. Aphezak eskutik hartuko dio bekhaizgozko sakrifizioa, altxatuko du Jaunaren aitzinean, eta aldare gainean ezarriko: hula bizkitartean non lehenik

26. Ahurtara bat hartuko baitu sakrifiziokotzat eskainia denetik, eta aldare gainean erreko baitu: eta hola kharastasuneko urak emaztekiari emanen diozka edatera.

27. Hunek edan ditukeenean, baldin khutsatua bada, eta senharrak narda eginik, nahasteka likhitsez hobendun jarria, madarizionezko urek iraganen dute, eta sabela hanturik, ustelduko zaio ixterra: eta emaztekoa madarizionetan eta ikhugarritan izanen da populu guziarentzat.

28. Baldin khutsatua izatu ez bada, xahu atherako da, eta haurrak izanen ditu.

29. Hola da bekhaizgoko legea. Baldin bere senharra ganik emaztea makhurtu bada eta khutsatu bada,

30. Eta bekhaizgozko asmuz subermaturik, senharrak hura ekharri badu Jaunaren aitzinera, eta aphezak egin badio ilkribatuak diren guzien arabera:

31. Senharra hobengabe izanen da, eta emazteak jasanen du bere tzarkeria.

## VI. KAP.

1. Eta Jauna Moisi mintzatu zen, zioelarik:

2. Mintza zaite Israelgo semeei, eta errozute: Gizonak edo emaztekiak botu egin duketenean beren buruak sainduesteko, eta kontsekratu nahi izan badira Jaunari,

3. Begiratuko dira arnotik eta hordi dezaketen guzietarik. Ez dute edanen, arnotik edo beren zer-nahi edaritarik egin den minagretik, eta mahatsetik atheratzen den edaritarik ez dute edanen: ez dute janen ez mahats freskorik, ez merlaturik.

4. Jaunari botuz kontsekratuak diren ephe guzian, mahats merlatutik pipitaraino deusere ez dute janen mahastitik ethor daitekeenik.

5. Berezgoako ephe guzian bizarnabala ez da iraganen hekien buruan, Jaunari kontsekratuak diren azken eguna bethe arteo. Baina, ilea buruan handitzen hari zaiouelarik, saindu izanen da.

6. Bere kontsekrazioneko ephe guzian ez da hilari hurbilduko;

7. Ez da khutsatuko bere aitarenean, ez bere amarenean, anaiarenean eta arrebarenean ehorztetan, zeren bere Jainkoaren kontsekrazionea duen buruarenean gainean.

8. Berezgoako ephe guzian saindu izanen zaio Jaunari.

9. Bainan norbait terrepentean hiltzen bada haren aitzinean, haren buruan kontsekrazionea lohitua izanen da: berehala bere xahupeneko egun berean ilea murriztuko du, eta zazpigarren egunean berriz.

10. Bainan zortzigarren egunean bi ttorttoila edo bi usokume eskainiko diozka aphezari lekhukotasuneko tabernakle-sartzean.



11. Eta aphezak imolatuko ditu bekhatuarentzat bat eta holokaustetan bertzea, eta othoitz eginen du harentzat zeren hobendundu den hila-ren gainean: eta egun hartan sailduetsiko du haren burua:

12. Eta Jaunari kontsekratuko diozka haren berezgoako egunak, bekhatuarentzat eskainiz urtheko bildots bat: halako moldez bizkitartean non aitzineko egunak alfer bilhakatuko baitira, zeren lohitua izan den haren kontsekratzioa.

13. Hori da kontsekratzioeko legea. Botuz hartu egunak betheko direnean, aphezak gizona eramanen du batasuneko tabernakleko sartzera,

14. Eta Jaunari eskainiko dio haren eskaintza, urtheko bildots narriogabe bat holokaustetan, urtheko antxu narriogabe bat bekhatuarentzat, eta ahari narriogabe bat bakezko bitimetan;

15. Halaber saski bat ogi airis olioz bustiak izanen direnak, ophil altxarrigabeak olioz gantzutuak, eta bakhotxaren libazioeak,

16. Aphezak Jainkoaren aitzinean eskainiko ditu, eta bitima sakrifika-tuko du bekhatuarentzatekoa nola holokaustetako.

17. Bertzalde aharia, bakezko bitima, Jaunari imolatuko dio, batean eskaintzen dituelarik airisetako saskia eta ohitzaz zor diren libazioeak.

18. Orduan nazarearrari batasuneko tabernaklearen athe aitzinean murriztuko zaio bere kontsekratzioeko ilaia: aphezak hartuko ditu haren ileak, eta bakezko bitimen azpiko suaren gainean ezarriko ditu.

19. Eta hartuko ditu ahariaren sorbalda errea, ophil altxagarrigabe bat saskitik, eta bixkotxa airis bat, eta nazarearrari eskuetan ezarriko diozka, haren burua murriztua izan den ondoan.

20. Eta berriz haren ganik harturik, altxatuko ditu Jaunaren aitzinean: eta sailduetsiz geroztik, aphezarenak izanen dira, hala nola berezteko manatua den bulhar-arte, eta azpia ere. Gero nazarearrak arnoa edan dezake.

21. Hori da nazarearraren legea, bere eskaintza Jaunari botuz eman dukeenean bere kontsekratzioaren epeko, bere baitharikako eskaintzez bertzalde. Bere gogoz botutan emateko egin duenaren arabera, hola eginen du bere kontsekratzioaren osatzekotzat.

22. Eta Jauna Moisi mintzatu zen, zioelarik:

23. Errozute Aaroni eta bere semeei: Huneletan benedikatuکو dituzue Israelgo semeak, eta erranen diozue:

24. Jaunak benedika eta zaint betzaitza.

25. Jaunak bere begithartea erakhuts bezazu, eta urrikal bekizu.

26. Jaunak zu gana itzul beza bere begithartea, eta eman bezazu bakea.

27. Eta ene izena Israelgo semeen gainera deithuko dute, eta nik benedikaturen ditut.

## VII. KAP.

1. Moisek tabernaklea akhabatu zuenean, eta xutik ezarri, eta gantzutu eta sailduetsi zuenean bere untzi guziekin, eta aldea orobat eta hartako tresnak ere,

2. Israelgo aitzindariak eta leinu bakhotxean ziren familietako buruzagi, khonduak izan zirenen manatzaileek eskaini zituzten

3. Emaitzak Jaunaren aitzinean, sei orga estali hamabi idirekin. Bi aitzindarik eskaini zuten orga bat eta idi bana, eta eskaintza tabernakle aitzinean egin zuten.

4. Orduan Jaunak erran zioen Moisi:

5. Har zotzute tabernaklearen zerbitzuko balia ditezentzat, eta emoztute lebitarrei hekien zerbitzuak galdatzen duenaren arabera.

6. Moisek harturik beraz idiak eta orgak, lebitarrei eman ziozkaten.

7. Bi orga eta lau idi eman ziozkaten Jersonen semeei, zuten behar-raren arabera.

8. Bertze lau orga eta zortzi idi Merariren semeei eman ziozkaten, beren kargu eta egitekoaren arabera, Aaron aphezaren seme Ithamarren manuen azpian.

9. Bainen Kaathen semeei etzioten eman ez orga, ez idirik, saildu-tegian zerbitzatzen dutelakotz, eta beren soin gainetan ekhartzen dituzte-lakotz haxeak.

10. Beraz aitzindariak, aldarearen dedikazionekotzat, egin zituzten beren eskaintzak aldarearen aitzinean, hura gantzutua izan zen egunean.

11. Eta Jaunak erran zioen Moisi: Aitzindari bakhotxak egun banetan eskain betzate beren emaitzak aldarearen dedikazionekotzat.

12. Lehenbiziko egunean, Nahason, Aminadaben semeak, Judaren leinukoak, egin zuen bere eskaintza:

13. Eta hartan ziren zilharrezko azpil bat, ehun eta hogoi eta hamar siklotakoa phisura, zilharrezko untzi bat, hirur hogoi eta hamar siklo zituena saildutegiko phisu, eta biak betheak irin zethabatuz, olioz bustirik, sakrifiziokotzat;

14. Xurrutto bat, hamar urrezko siklotakoa, isentsuz bethea;

15. Idi bat arthaldetik, eta ahari bar, eta urtheko bildots bat, holo-kaustetan;

16. Akher bat bekhatuarentzat,



17. Eta bakezko bitimen sakrifizioko, bi idi, bortz ahari, bortz akher eta urtheko bortz bildots: hori da Nahason, Aminadaben semearen eskaintza.

18. Bigarren egunean, Nathanael, Suarren semeak, Isakarren leinuko aitzindariak eskaini zituen

19. Zilharrezko azpil bat, ehun eta hogoi eta hamar siklo phisu zituena, zilharrezko untzi bat, hirur hogoi eta hamar siklo zituena saildutegiko phisura, eta biak irin zethabatuz betheak olioiz bustirik, sakrifiziokotzat;

20. Xurrutto bat, hamar urhezko siklotakoa, isentsuz bethea;

21. Idi bat arthaldetik, ahari bat eta urtheko bildots bat, holokaustetan;

22. Akher bat bekhatuarentzat;

23. Eta bakezko bitimen sakrifizioko, bi idi, bortz ahari, bortz akher, eta bortz bildots urthekoak: hori izan zen Nathanael, Suarren semearen eskaintza.

24. Hirugarren egunean, Zabulonon semeen aitzindariak, Eliab Helonen semeak

25. Eskaini zituen zilharrezko azpil bat, ehun eta hogoi eta hamar siklo phisu zituena, zilharrezko untzi bat, hirur hogoi eta hamar siklo zituena saildutegiko phisura, biak irin zethabatuz betheak, olioiz bustirik, sakrifiziokotzat:

26. Urhezko xurrutto bat, hamar siklo phisu zituena, isentsuz bethea;

27. Idi bat arthaldetik, ahari bat eta urtheko bildots bat, holokaustetan;

28. Akher bat bekhatuarentzat;

29. Eta bakezko bitimen sakrifizioko, bi idi, bortz ahari, bortz akher, eta bortz bildots urthekoak: horra Eliab, Helonen semearen eskaintza.

30. Laugarren egunean, Errubenen semeen aitzindariak, Elisur, Sedeurren semeak

31. Eskaini zituen zilharrezko azpil bat, ehun eta hogoi eta hamar siklo phisu zituena, zilharrezko untzi bat, hirur hogoi eta hamar siklo zituena saildutegiko phisura, biak irin zethabatuz betheak, olioiz bustirik, sakrifiziokotzat;

32. Urhezko xurrutto bat, hamar siklo phisu zituena, isentsuz bethea;

33. Idi bat arthaldetik, ahari bat eta urtheko bildots bat, holokaustetan;

34. Akher bat bekhatuarentzat;

35. Eta bakezko bitimatza, bi idi, bortz ahari, bortz akher eta bortz bildots urthekoak: hori izan zen Elisur, Sedeurren semearen eskaintza.

36. Bortzgarren egunean, Simeonen semeen aitzindariak, Salamiel, Surisadairan semeak

37. Eskaini zituen zilharrezko azpil bat, ehun eta hogoi eta hamar siklo phisu zituena, zilharrezko untzi bat, hirur hogoi eta hamar siklo zituena saildutegiko phisura, biak irin zethabatuz betheak, olioiz bustirik, sakrifizioko,

38. Urhezko xurrutto bat, hamar siklo phisu zituena, isentsuz bethea;

39. Idi bat arthaldetik, ahari bat eta urtheko bildots bat, holokaustetan;

40. Akher bat bekhatuarentzat;

41. Eta bakezko bitimatza, bi idi, bortz ahari, bortz akher, eta bortz bildots urthekoak: horra zer izan zen Salamiel, Surisadairan semearen eskaintza.

42. Seigarren egunean, Gaden semeen aitzindariak, Eliasaph, Duelen semeak

43. Eskaini zituen zilharrezko azpil bat, ehun eta hogoi eta hamar siklo phisu zituena, zilharrezko untzi bat, hirur hogoi eta hamar siklo zituena saildutegiko phisura, biak irin zethabatuz betheak, olioiz bustirik, sakrifizioko;

44. Urhezko xurrutto bat, hamar siklo phisu zituena, isentsuz bethea;

45. Idi bat arthaldetik, ahari bat, eta urtheko bildots bat, holokaustetan;

46. Akher bat bekhatuarentzat;

47. Eta bakezko bitimatza, bi idi, bortz ahari, bortz akher, eta bortz bildots urthekoak: horra nolakoa izan zen Eliasaph, Duelen semearen eskaintza.

48. Zazpigarren egunean, Efraimen semeen aitzindariak, Elisama, Amiuden semeak

49. Eskaini zituen zilharrezko azpil bat, ehun eta hogoi eta hamar siklo phisu zituena, zilharrezko untzi bat, hirur hogoi eta hamar siklo zituena saildutegiko phisura, biak irin zethabatuz betheak, olioiz bustirik, sakrifizioko;

50. Urhezko xurrutto bat, hamar siklo phisu zituena, isentsuz bethea;

51. Idi bat arthaldetik, ahari bat, eta urtheko bildots bat, holokaustetan;

52. Akher bat bekhatuarentzat;

53. Eta bakezko bitimatza, bi idi, bortz ahari, bortz akher, eta bortz bildots urthekoak: hori izan zen Elisama, Amiuden semearen eskaintza.

54. Zortzigarren egunean, Manaseren semeen aitzindariak, Galamiel, Phadasurren semeak

55. Eskaini zituen zilharrezko azpil bat, ehun eta hogoi eta hamar siklo phisu zituena, zilharrezko untzi bat, hirur hogoi eta hamar siklo zituena saildutegiko phisura, biak irin zethabatuz betheak, olioiz bustirik, sakrifizioko;



56. Urhezko xurrutto bat, hamar siklo phisu zituena, isentsuz bethea;  
 57. Idi bat arthaldetik, ahari bat, eta urtheko bildots bat, holokaustetan;  
 58. Akher bat bekhatuarentzat;  
 59. Eta bakezko bitimatzat, bi idi, bortz ahari, bortz akher eta bortz bildots urthekoak: hori izan zen Galamiel, Phadasurren semearen eskaintza.  
 60. Bederatzigarren egunean, Benjaminen semeen aitzindariak, Abidan, Jedeonen semeak  
 61. Eskaini zituen zilharrezko azpil bat, ehun eta hogoi eta hamar siklo phisu zituena, zilharrezko untzi bat, hirur hogoi eta hamar siklo zituena saildutegiko phisura, biak irin zethabatuz betheak, olioiz bustirik, sakrifizioko;  
 62. Urhezko xurrutto bat, hamar siklo phisu zituena, isentsuz bethea;  
 63. Idi bat arthaldetik, ahari bat, eta urtheko bildots bat, holokaustetan;  
 64. Akher bat bekhatuarentzat;  
 65. Eta bakezko bitimatzat, bi idi, bortz akher, eta bortz bildots urthekoak: hori izan zen Abidan, Jedeonen semearen eskaintza.  
 66. Hamargarren egunean Danen semeen aitzindariak, Ahiezer, Amisadairen semeak  
 67. Eskaini zituen zilharrezko azpil bat, ehun eta hogoi eta hamar siklo phisu zituena, zilharrezko untzi bat, hirur hogoi eta hamar siklo zituena saildutegiko phisura, biak irin zethabatuz betheak, olioiz bustirik, sakrifizioko;  
 68. Urhezko xurrutto bat, hamar siklo phisu zituena, isentsuz bethea;  
 69. Idi bat arthaldetik, ahari bat, eta urtheko bildots bat, holokaustetan;  
 70. Akher bat bekhatuarentzat;  
 71. Eta bakezko bitimatzat, bi idi, bortz ahari, bortz akher, eta bortz bildots urthekoak: hori izan zen Ahiezer, Amisadairen semearen eskaintza.  
 72. Hamekagarren egunean, Aserren semeen aitzindariak, Phegiel, Okranen semeak  
 73. Eskaini zituen zilharrezko azpil bat, ehun eta hogoi eta hamar siklo phisu zituena, zilharrezko untzi bat, hirur hogoi eta hamar siklo zituena saildutegiko phisura, biak irin zethabatuz betheak, olioiz bustirik, sakrifizioko;  
 74. Urhezko xurrutto bat, hamar siklo phisu zituena, isentsuz bethea;  
 75. Idi bat arthaldetik, ahari bat, eta urtheko bildots bat, holokaustetan;  
 76. Akher bat bekhatuarentzat;

77. Eta bakezko bitimatzat, bi idi, bortz ahari, bortz akher, eta bortz bildots urthekoak: hori izan zen Phegiel, Okranen semearen eskaintza.  
 78. Hamabigarren egunean, Nefthaliren semeen aitzindariak, Ahira, Enanen semeak  
 79. Eskaini zituen zilharrezko azpil bat, ehun eta hogoi eta hamar siklo phisu zituena, zilharrezko untzi bat, hirur hogoi eta hamar siklo zituena saildutegiko phisura, biak irin zethabatuz betheak, olioiz bustirik, sakrifizioko;  
 80. Urhezko xurrutto bat, hamar siklo phisu zituena, isentsuz bethea;  
 81. Idi bat arthaldetik, ahari bat, eta urtheko bildots bat, holokaustetan;  
 82. Akher bat bekhatuarentzat;  
 83. Eta bakezko bitimatzat, bi idi, bortz ahari, bortz akher, eta bortz bildots urthekoak: hori izan zen Ahira, Enanen semearen eskaintza.  
 84. Israelgo semeen aitzindariak horiek izan ziren eskainiak aldarearen dedikazionean, aldarea kontsekratua izan zen egunean: hamabi azpil zilharrezko, hamabi untzi zilharrezko, eta hamabi xurrutto urhezkoak;  
 85. Azpil bakharrak ehun eta hogoi eta hamar zilharrezko siklo zituen bezala, eta unziak hirur hogoi eta hamar siklo: erran nahi baita zilharrezko untzi guziek batean bazituztela bi mila eta laur ehun siklo, saildutegiko phisura;  
 86. Hamabi urhezko xurrutto isentsuz betheak, hamarna siklo zutenak, saildutegiko phisura: erran nahi baita batean ehun eta hogoi urhezko siklo;  
 87. Hamabi idi arthaldetik holokaustetako, hamabi ahari, hamabi bildots urthekoak eta beren libazioneak; hamabi akher bekhatuarentzatekoak.  
 88. Bakezko bitimetako, hogoi eta lau idi, hirur hogoi ahari, hirur hogoi akher eta hirur hogoi bildots urthekoak. Horiek izan ziren eskainiak aldarearen dedikazionean, gantzutua izan zenean.  
 89. Eta Moise batasuneko tabernaklean sartzen zenean, oraklearen kontsultatzerako, propiziatoriotik mintzatzen zitzaionaren boza aditzen zuen, propiziatorioa baitzen lekhukotasuneko arkharen gainean bi kerubinen artean, eta handik heldu zitzaion Moisi mintzoa.

## VIII. KAP.

1. Eta Jauna huneletan mintzatu zen Moisi:
2. Mintza zaitte Aaroni eta errozu: Zazpi kriseluak ezarri dituzun ondoan, ganderailua xutik ezarria izan bedi eguerdi-aldean. Mana zazu beraz kriseluek, ipharrari buruz dagoen tokitik, begira dezaten proposi-



zionaoko ogien mahainari; ganderailuak begiratzten dioen alderdia beharko dute argitu.

3. Eta Aaronek egin zuen, eta kriseluak anderailuaren gainean ezarri zituen, Jaunak Moisi manatu bezala.

4. Bada, ganderailua egina zen urhe beratzez, nahiz erdiko habea, nahiz bi sahetsetarik sortzen ziren adarrak: eta Jaunak Moisi erakhutsi zioen moldearen arabera, hala egina zen ganderailua.

5. Eta Jauna Moisi mintzatu zen, zioelarik:

6. Lebitarrak har zatzu Israelgo semeen erditik, eta hekien xahupena eginen duzu

7. Hulatzeko moldetan: xahupeneko urez ihinzatuak izan beitez, eta beren haragiko ile guziak murriz betzate. Eta beren soinekoak xuritu dituzketen ondoan, eta xahutuak direnean,

8. Hartuko dute idi bat arthaldeetarik, eta haren libazionea irin olioz bustia: bainan zuk bertze idi bat hartuko duzu arthaldetik bekhatuarentzat:

9. Eta lebitarrak hurbilaraziko dituzu batasuneko tabernaklearen aitzinera, Israelgo semeen oste guzia bilarazi ondoan.

10. Eta lebitarrak Jaunaren aitzinean izanen direnean, Israelgo semeek eskuak ezarriko dituzte hekien gainean.

11. Eta Aaronek lebitarrak Jaunaren aitzinean eskainiko ditu Israelgo semeenganikako emaitza bat bezala, haren eginbideetan zerbitzatzeko.

12. Lebitarrek ere eskuak idien buruen gainean ezarriko dituzte: bat imolatuko duzu bekhatuarentzat, eta bertzea holokaustetan Jaunari, hekientzat errekeipen egiteko.

13. Gero ekharriko dituzu lebitarrak Aaronen eta bere semeen aitzinera, eta Jaunari eskainirik, kontsekratuko dituzu,

14. Eta Israelgo semeen ganik bereziko dituzu, eneak izan ditezentzat;

15. Eta gero batasuneko tabernaklean sarthuko dira ene zerbitzatzeko. Horrela xahutuko eta kontsekratuko dituzu eskaintzetan Jaunari: zeren emaitzetan emanak izan zaizkitan niri Israelgo semeez.

16. Hartu ditut Israelen amaren sabela lehenik idekitzen duten guzien orde.

17. Eneak dira ezen Israelgo semeen lehen-sortuak oro, nahiz gizonetarikakoak, nahiz abereetarikakoak. Hekiek enetzat sailduetsi ditut, lehen-sorthu guziak Egiptoko lurtean jo izan ditudan egunetik:

18. Eta lebitarrak hartu ditut Israelgo lehen-sorthu guzien orde:

19. Eta emaitzaz eman ditut, populuaren erditik, Aaroni eta bere semeei, Israelen orde zerbitza nezatentzat batasuneko tabernaklean, eta

othoitz egin dezatentzat hekientzat, beldurrez-eta gaitza eror dadien populura, ausartatzen balitz saildutegiari hurbiltzera.

20. Eta Moisek, Aaronek eta Israelgo semeen oste guziak lebitarren gainean egin zuten, Jaunak Moisi manatu zioena:

21. Eta xahutuak izan ziren, eta xuritu zituzten beren soinekoak. Eta Aaronek hekien altxapena egin zuen Jaunaren aitzinean, eta othoitz egin zuen hekientzat,

22. Xahutu ondoan, beren eginbideetara sar zitezentzat Aaronen eta bere semeen aitzinean batasuneko tabernaklean. Jaunak Moisi lebitarren gainean manatu bezala, hala egina izan zen.

23. Jaunak erran zioen Moisi:

24. Hori da lebitarren legea: hogoi eta bertz urthetan eta handik goiti sarthuko dira batasuneko tabernaklean zerbitzatzera.

25. Eta beren adineko berrogoi eta hamargarren urthea bethe ondoan, zerbitzatzetik geldituko dira:

26. Eta beren anaien laguntzeko izanen dira batasuneko tabernaklean, arthatzera emanak izan zaizkotenen zaintzeko: bainan ez dituzte eginen leheneko eginbide berak. Horrela bereziko dituzu lebitarrak zein beren zaintzetan.

## IX. KAP.

1. Egiptoko lurretik athera ondoko bigarren urthean, lehenbiziko hilabetehean, Jauna Moisi mintzatu zen Sinaiko mortuan, erraten zioelarik:

2. Israelgo semeek Bazkoa egin bezate bere orduan,

3. Hilabete huntako hamalagarren egunean ilhuntean, zeremonia eta manamendu guzien arabera.

4. Eta Moisek Israelgo semei manatu zioten Bazkoa egin zezaten.

5. Haukiek egin zuten bere orduan, hilabetehean hamalagarren egunean ilhuntean, Sinaiko mendian. Israelgo semeek egin zuten Jaunak manatu guzien arabera.

6. Bada, zenbaitek, gizon hilaz lohiturik, etzezaketan Bazkoa egun hartan egin; Moisi eta Aaroni hurbildurik,

7. Erran zioeten: Gizon hilaz lohituak gare; zertako gibelatua izanen gure Jaunari egitetik eskaintza bere orduan Israelgo semeekin?

8. Moisek ihardetsi zioten: Zaudezte Jauna kontsulta dezadan zer manatuko duen zuetaz.

9. Eta Jauna Moisi mintzatu zen, zioelarik:

10. Errozute Israelgo semei: Zuen artekorik norbait gizon hilaz lohitu bada, edo bidaiaz urrun gertha badadi, egin beza Jaunaren Bazkoa.



11. Bigarren hilabetea, hilabetearen hamalagarren egunean ilhuntzean, Bazkoa jan beza airisekin eta basa letxurekin;

12. Hartarik ez dute deusere utziko biharamun goiza arteo, eta hartako hezurrik ez dute hautsiko: begiraturen dituzte Bazkoko zeremonia guziak.

13. Baldin norbaitek, xahu delarik, eta ez bidaian izan, eta halarik-ere Bazkoa ez badu egiten, galdua izanen da bere populuaeren erditik, zeren ez dioen Jaunari sakrifizioa eskaini bere orduan: berak jasanen du bere bekhatua.

14. Halaber zuen arthean gerthatzen badira arrotzak eta kanpotarrak, Jaunari eginen diote Bazkoa bere zeremonia eta bideen arabera, lege bera izanen da zuen artean hala arrotzarentzat nola lekhuko umearentzat.

15. Bada, tabernaklea xutik jarria izan zen egunean, hedoi batek estali zuen hura. Baina arratsetik goizerraino su bat iduri zagoen olharen gainean.

16. Hala egiten zen hutsarterik gabe. Egunaz hedoiak estatzen zuen hura, eta gabaz sua bezalako batek.

17. Eta tabernaklea estaltzen zuen hedoia bazohanean, orduan Israelgo semeak bideari lotzen ziren: eta non-ere gelditzen baitzen hedoia, han kanpatzen ziren.

18. Jaunaren manamendura, bideari lotzen ziren, eta haren manamendura, tabernaklea xutik ematen zuten. Hedoia tabernaklearen gainean gelditua zagoen egun guziz, lekhu berean bazauden.

19. Eta gerthatzen bazen epe luzea ematen zuela haren gainean, Israelgo semeak bazauden Jaunari begira, eta etziren abiatzen,

20. Hedoia tabernaklearen gainean zagoeno. Jaunaren manamendura hedatzen zituzten kanpak, eta haren manamendura jausten zituzten.

21. Baldin hedoia arratsetik goizerraino balin bazagoen, eta argitzean berehala uzten bazuen tabernaklea, abiatzen ziren: eta egun baten eta gau baten buruan goaten bazen, biltzen zituzten kanpak.

22. Baina bi egun, edo hilabete bat, edo epe luzeagoz egoten bazen tabernaklearen gainean, Israelgo semeak toki berean zauden, eta etziren abiatzen: ordea hura goan bezain sarri, kanpak altxatzen zituzten.

23. Jaunaren hitzaren gainean landatzen zituzten kanpak, eta haren hitzaren gainean abiatzen ziren bideari: eta Jaunari begira egoten ziren, hark Moisen arartekoz eman manamenduaren arabera.

## X. KAP.

1. Eta Jauna huneletan Moisi mintzatu zen:

2. Zilhar beratzez zuretzat egizkitzu bi turuta, zeinetaz deithuko ahal izanen baituzu ostea, kanpak altxatzekoak izanen direnean.

3. Eta turutak jotzen dituzunean, oste guzia zu gana bilduko da bata-suneko tabernaklearen aitzinera.

4. Baldin behin jotzen baduzu, Israelgo populuaeren aitzindariak eta buruzagiak ethorriko dira zu gana.

5. Baina turutak luzeago eta jazarteka durrundatzen badu, iguzki-haize aldean direnek altxatuko dituzte kanpak lehenik.

6. Turutaren bigarren haitean eta molde bereko durrundaldian, eguerdi-aldean direnek altxatuko dituzte kanpak, eta gainerakoek molde berean egunen dute, turutek abiaraztekoztat joko dutenean.

7. Baina populu guziak bildu beharko duenean, turutek astiki joko dute, eta ez jazarteka.

8. Bada, Aaronen seme aphezek joko dituzte turutak: eta lege hunek bethi iraunen du zuen ondokoetan.

9. Zuen lurretik gerlara atheratzen bazarete gudukatzen zaituzten etsaien kontra, durrundatuz joko dituzte turutak; eta zuetako orhoitzapena zuen Jainko Jaunaren aitzinean izanen da, etsaien eskuetarik iraz zetzatentzat.

10. Barazkari bat duzue, besta egunetan, eta hilabete hasteetan, turutak joko dituzte holokausten eta bakezko bitimen gainera, zuen Jainkoaren orhoitzapenetan izan ditezentzat. Ni naiz zuen Jainko Jauna.

11. Bigarren urthean, bigarren hilabetea, hilabetearen hogoigarren egunean, hedoia goratu zen batasuneko tabernaklearen gainetik;

12. Eta Israelgo semeak beren andanetan goan ziren Sinaiko mortutik, eta hedoia berriz Pharango eremuan baratu zen.

13. Eta Jaunak Moisen arartekoz eman manamenduaren arabera, lehenbizikorik higitu zituzten kanpak

14. Judaren semeek, beren andanetan: Nahason, Aminadaben semea zen hekien aitzindaria.

15. Isakarren semeen leinuan, Nathanael, Suarren semea zen aitzindari.

16. Zabulonen leinuan, Eliab, Helonen semea zen aitzindari.

17. Eta tabernaklea jaustia izan zen, eta hura soinean ilkhi ziren Jersonen eta Merariren semeak.

18. Eta Errubenen semeak bideari eman ziren beren andana eta lerrotan. Helisur, Sedeurren semea zen hekien aitzindaria.

19. Salamiel, Surisadairen semea zen aitzindari Simeonen semeen leinuan.



20. Eliasaph, Duelen semea zen aitzindari Gaden leinuan.
21. Eta Kaatharrak bideari eman zi-ren saindutegia soinean. Tabernaklea eramana zen xutik ezartzeko tokira heldu arteo.
22. Efraimen semeek ere kanpak higitu zituzten beren andanetan: Elisama, Amiuden semea zen hekien armadako aitzindari.
23. Galamiel, Phadasurren semea zen Manaseren semeen leinuko aitzindari.
24. Abidan, Jedeonen semea zen Benjaminen leinuko aitzindari.
25. Kanpetarik azkenik goan zirenak, ziren Danen semeak beren andanetan: Ahiezer, Amisadairen semea zen hekien armadako aitzindari.
26. Phegiel, Okranen semea zen Aserren semeen leinuko aitzindari.
27. Nefthaliren semeen leinuan, Ahira, Enanen semea zen aitzindari.
28. Horra nola ziren Israelgo semeen kanpatzeak eta abiatzeak beren andanetan ilkhitzen zirenean.
29. Eta Moisek erran zioen bere koinatari, Hobab, Erragucl Madiantarraren semeari: Bagoazi Jaunak guri eman gogo darokun lekhu-  
ra: zato gurekin, ongi egin dezazuguntzat, ezen Jaunak ontasun agindu dio Israeli.
30. Hunek ihardetsi zioen: Ez naiz zurekin goanen, bainan itzuliko naiz sorthu naizen ene lurrera.
31. Moisek erran zioen: Ez gaitzatzula utz, ezen zuk badakizkitzu zer tokitan mortua gairi gure kanpak behar ditugun phausatu, eta gure bidari izanen zare.
32. Eta gurekin ethorri ondoan, emanen darotzugu Jaunak guri ematera dohakigun ontasunetarik hoberena den guzia.
33. Abiatu ziren beraz Jainkoaren menditik hirur egunen bidean, eta Jaunarekilako batasuneko arkha goaten zen begien aitzinean, hirur egun hekietan kanpa-lekhuak bereziz.
34. Jaunaren hedoi bat ere hekien gainean egoten zen egunaz, bidean zihoazenean.
35. Eta arkha goratzen zutenean, Moisek erraten zuen: Jaiki zaite, Jauna; haizatuak izan beitez zure etsaiak, eta higuin zaituztenek ihes egin bezate zure begithartetik.
36. Eta arkha phausatzen zutenean, erraten zuen: Jauna, itzul zaite Israelgo armadako oster.

## XI. KAP.

1. Bizkitartean Jaunaren kontra atheratu zen populutik erasia bat, nekheaz arranguratzen zirenean iduri. Jaunak hori entzunik, hasarretu

zen. Jaunaren su bat biztu zen hekien artean, eta iretsi zuen kanpen azken burua.

2. Eta populuak Moisi oihu eginik, Moisek Jaunari othoitz egin zuen, eta iraungi zen sua.

3. Eta toki hura deithu zuen: Errelekhu, zeren han biztu zen hekien kontra Jaunaren sua.

4. Gero jende nahas-mahas bat, Egiptotik hekiekin igan zena, gutiziaz hurrandu zen, jarririk ematen zela nigarrari, Israelgo semeetarik ere orobat haren gana bildurik, eta erran zuen: Guri nork emanen daroku haragia jatera?

5. Orhoit gure Egipton urrurik jaten gintuen arrainez: gogora heldu zaizku hango konkonbreak, meloinak, phorruak, tipulak, baratxuriak.

6. Agor da gure barnea; gure begiek manaz bertzerik ez dute ikhusten.

7. Bada, manak iduri zuen koriandra eta bdelioaren kara zuen:

8. Eta populua goaten zen inguruetara, eta hartarik bildurik, iharan ehaiten zuen edo xurruan ehehatzen, eta eltzean egosirik, hartarik egiten zituen ophiltto batzu, ahoan ogi olioztatua iduri zutenak.

9. Gabaz ihintza kanpen gainera erortzen zenean, mana ere jausten zen orobat.

10. Moisek beraz populua entzun zuen nigarrez familiaka, zein bere olhako athean. Jaunaren hasarrea borthizki jauzi zen: bainan Moisi ere gauza ezin jasana iduritu zitzaioen.

11. Eta erran zioen Jaunari: Zertako eman diozu atsekabe zure mut-hilari? zertako ez dut zure aitzinean grazia aurkhitzen? eta zertako ene gainera eman duzu populu hunen guziaren karga?

12. Ala eneganikakoa othe da oste hau guzia, ala ni naiz hunen aita, niri erratekotzat: Zure galtzarrean ekharzkitzu unhideak haurttoa ekhar-tzen ohi duen bezala, eta eramane zatzu zinekin horien aitei agindu diotedan lurrera?

13. Nondik izanen dut horrenbertzeko osteari emateko haragi? Nigarrez daude ene kontra, diotelarik: Iguzu haragia jatera.

14. Bakharrik ezin egar dezaket populu hau guzia, karga dorpheegia delakotz enetzat.

15. Bertzela iduritzen bazaitzu zuri, othoizten zaitut hilaraz nezazun, eta grazia aurkhi dezadan zure begietan, leher ez nadienzat hanbateko gaitzenpean.

16. Eta Jaunak erran zioen Moisi: Bilarazkidatzu hirur hogoi eta hamar gizon Israelgo zaharretarik, dakizkitzunak direla populuko zaha-





rrak eta burukoak: erakhar zatzu batasuneko tabernakle-sartzera, eta han geldiaraz zatzu zurekin.

17. Eta jautsiko naiz eta mintzatuko natzaitzu: eta hartuko dut zure baithan den izpiritutik, eta hekiei emanen diotet, zurekin batean jasan dezaten populuaren karga, eta ez dadien guzia zure gainean izan.

18. Populuari ere erranen diozu: Xahu zatzue zuen buruak, bihar janen duzue haragia. Ezen nik aditu zaituztet erraten: Nork emanen darozkigu haragizko jakiak? ongi ginen Egipton. Jaunak emanen darotzue haragia eta janen duzue,

19. Ez egun batez, edo biez, ez bortzez, ez hamarrez, ez-etare hogoiez;

20. Bainan hilabete oso batez, athera dakizuen arteo sudur-mizpiritarik, eta goiti bihur dakizuen arteo, zeren arbuaiatu duzuen Jauna, zuen artean dena, eta nigarrez egon zareten haren aitzinean, ziniotelarik: Zertako ilkhi gare Egiptotik?

21. Eta Moisek erran zioen: Sei ehun mila oinezko badira populu huntan; eta diozu: Hilabete oso batez emanen diotet haragia jatera.

22. Ardien eta idien ostea hil beharko othe da, jakirik aski izateko? ala itsasoko arrain guziak batera bilduak izanen othe dira horien asetzeko?

23. Jaunak ihardetsi zioen: Indargabea othe da Jaunaren eskua? Orai berean ikhusiko duzu heia ene solasa obratuko den.

24. Moise ethorri zen beraz eta populuari khondatu ziozkan Jaunaren solasak, biltzen zituelarik hirur hogoi eta hamar gizon Israelgo zaharretarik, eta ezarri zituen tabernaklearen ondoan.

25. Eta Jauna hedoi batean jautsi zen, eta Moisi mintzatu zitzaioen, harmen zuelarik haren baithan zen izpiritutik eta ematen ziotelarik hirur hogoi eta hamar gizoniei. Eta izpiritua hekien baithan baratu zenetik, profetisatu zuten, eta handik aitzina etziren gelditu.

26. Bada, bi gizon, bata Eldad deitzen zena, eta bertzea Medad, kanpetan gelditu ziren; izpiritua hekien gainean baratu zen: ezen hekiek ere bereziak izanak ziren, bainan etziren atheratu tabernaklera.

27. Eta kanpetan profetisatzen zutelarik, muthil gazte batek laster egin zuen, eta berria ekharri zioen Moisi, erraten zioelarik: Eldadek eta Medadek profetisatzen dute kanpetan.

28. Ordu berean Josue, Nunen semeak, Moisen zerbitzari, askoren artetik hautatuak, erran zioen: Moise, ene jauna, debeka zatzu.

29. Bainan Moisek ihardetsi zioen: Ni gatik zertako zare bekhaizten? oxala norbaitek eman baleza populu guziak profetisa dezan, eta Jaunak eman balezo bere izpiritua!

30. Gero Moise bihurtu zen kanpetara, eta Israelgo zaharrak ere bai.

31. Orduan haize bat atheratu zen Jauna ganik; kallak itsasoz haindik harturik ekharri zituen eta erorrarazi kanpetara eta kanpen inguru guzira, egun batez egin daitekeen bidean, eta lurretik bi beso goretan zabiltzan airean hegaldaka.

32. Populuak beraz jaikirik, egun guzian, gabaz, eta biharamuneko egunean kallak bildu zituen, gutienik zuenak hamar koro: eta idorrarazi zituzten kanpen ingurutan.

33. Haragiak hortzetan zituzten oraino, eta jaki mota hori etzuten akhitua, eta huna non Jaunaren hasarredura jauzi zen populuaren kontra, eta non jo zuen gaitz handi batez.

34. Eta toki hura deithua izan zen Zalekeriako ehorts-lekhu: ezen han ehortzia izan zen lehietan sarthu zen populua. Eta Zalekeriako ehorts-lekhotik atherarik, Haserothera ethorri ziren eta han baratu.

## XII. KAP.

1. Eta Maria eta Aaron mintzatu ziren Moisen kontra haren emaztea Ethiopiarra zelakotz.

2. Eta erran zuten: Jauna ez othe da Moisez baizik mintzatu? ez othe da guri ere orobat mintzatu? Jaunak hori entzunik,

3. (Ezen Moise zen lurraren gainean dauden gizon guzietarik eztena,)

4. Berehala mintzatu zen Moisi, Aaroni eta Mariari: Entzun zatzue ene solasak: Zoazte hirurak bakharrik batasuneko tabernaklera. Eta goan zirenean,

5. Jauna lanhozko habean jautsi zen, eta tabernakle-sartzean gelditurik, deithu zituen Aaron eta Maria. Hurbildu zirenean,

6. Erran zioeten: Norbait zuen artean Jaunaren profeta denik balin bada, agerkuntza batean ethorriko natzaio, edo ametsetan mintzatuko.

7. Bainan ez da halakoa ene zerbitzari Moise, zeina ene etxe guzian baita guziz fidela:

8. Ezen ahotik ahora mintzo natzaio; eta Jauna garbiki ikhusten du, eta ez alegiaka eta itxurapenka. Nolaz beraz etzaizte beldur izan Moise ene zerbitzariaren gutiesteko?

9. Eta hekien kontra samurturik, goan zen.

10. Tabernaklearen gainean zen hedoia ere itzuli zen: eta hara non Maria agertu zen legenez zuritua elhurra iduri. Aaronek begiratu zioenean, eta legenez estalia ikhusi zuenean,

11. Moisi erran zioen: Othoi, ene jauna, etzazula gure gainean ezar zoroki egin dugun bekhatu hau.



12. Zure arrea ez bedi bilhaka hil bat bezala, eta amaren sabeletik arthikitzen den hilori bat bezala: horra jadanik leganak non jan dioen bere haragien erdia.

13. Eta Moisek Jaunari oihuz egin zioen: Jainkoa, hau othoi senda zazu.

14. Jaunak ihardetsi zioen: Baldin bere aitak begithartera thu egin izan balio, ez othe zukeen zazpi egunez bederen ahalkez urthua egun beharko? Zazpi egunez kanpetarik aldaratua izan bedi, eta bihurraziko da gero.

15. Hartarakotz Maria kanpetarik khendua izan zen zazpi egunentzat: eta populua etzen lekhu hartarik higitu Maria bihurtu arteo.

### XIII. KAP.

1. Eta populua goan zen Haserotheretik, eta Pharango mortuan jarri zituen kanpak.

2. Eta han Jauna huneletan mintzatu zen Moisi:

3. Israelgo semei ematera nihoakoten Kanaango lurraren ikhuskatze-  
ra igor zatzu gizonak, leinu bakhotxeko aitzindariarik bakhotxa.

4. Moisek egin zuen Jaunak manatua, Pharango mortutik igorritz  
lehenbiziko aitzindariak, zeinen izenak hautxek baitira:

5. Errubenen leinutik, Samua, Zekurren semea;

6. Simeonen leinutik, Saphat, Huriren semea;

7. Judaren leinutik, Kaleb, Jephonen semea;

8. Isakarren leinutik, Igal, Josepen semea;

9. Efraimen leinutik, Ose, Nunen semea;

10. Benjaminen leinutik, Phalti, Erraphuren semea;

11. Zabulonen leinutik, Jediel, Sodiren semea;

12. Josepen leinutik, Manaseren aldetik, Gadi, Sufiren semea;

13. Danen leinutik, Amiel, Jemaliren semea;

14. Aserren leinutik, Esthur, Mikaelen semea;

15. Nefthaliren leinutik, Nahabi, Bapsiren semea;

16. Gaden leinutik, Guel, Makiren semea.

17. Horiek dira Moisek lekhu ikhustera igorri zituen gizonen izenak:  
eta Ofe, Nunen semea deithu zuen Josue.

18. Moisek igorri zituen beraz Kanaango lurra begiz hartzera, eta  
erran zioeten: Hegoaldeko lurretarik igan zaitezte; eta mendietara heldu  
zaretekeanean,

19. Begizta zazue lurra, zerika den; zer populu dagoen han, ala den  
hazkarra, ala erphila; ostea ttipia den, ala handia;

20. Lurra bera, ona, ala txarra den; nolako hiriak diren, harrasiz ingu-  
ratuak, ala harrasirik gabeak;

21. Lurra gizena, ala agorra den, oihantsua, ala zuhaitzik gabea.  
Emazue bihotzez, eta ekharzkigutzue lurreko fruituetarik. Bada, hura zen  
mahats berrien jateko muga.

22. Eta igan zirenean, lurra begiztatu zuten Sineko mortutik  
Errohoberaino, Ematheko sartzeraino.

23. Eta hegoaldera igan ziren eta ethorri Hebronera, han egoten bai-  
tziren Enaken semeak, Akiman, Sisai eta Tholmai; ezen Hebron, Tanis,  
Egiptoko hiria baino zazpi urthe lehenago egina zen.

24. Eta goanik Mahats-mulkhoko errekaraino, aihen bat moztu zuten  
bere mulkhoarekin, eta bi gizonak haga batean eraman zuten. Hartu  
zituzten orobat toki hartako mingranetarik eta pikoetarik:

25. Lekhu hura deithua izan zen Neheleskol, erran nahi da Mahats-  
mulkhoko erreka, Israelgo semeek handik ekharri zutelakotz mahats-  
mulkhoa.

26. Eta lur ikhusliarrak, inguru guzia eginik, bihurtu ziren berrogoi  
egunen buruan.

27. Ethorri ziren Moisen, Aaronen eta Israelgo semeetako baldarna  
guzia gana, Pharango mortura, zeina Kades-aldean baita. Eta mintzaturik  
hekiei eta oste guziari, erakhutsi ziozkaten lurreko fruituak:

28. Eta solas haukiek khondatu zituzten: Izatu gare zuek igorri  
lurrean, zeinari egiazki baitario esnea eta ezta, fruitu haukietarik ezagut  
daitekeen bezala;

29. Bainan jende guziz hazkarrak ditu, eta hiriak handiak eta harrasiz  
inguratuak. Enaken odola ikhusi dugu han.

30. Amalek egoten da hegoaldean; Hetearra, Jebusearra eta  
Amorhearra mendietan; eta Kananearra dago itsas-hegian eta  
Jordanearen bazterretan.

31. Bizkitartean Kalebek, jabaltzeko populuak Moisen kontra abia-  
tzen zuen erasia, erran zuen: Goazen, jabe gaitezen lur hartaz, ezen har-  
taz nausi gaitezke.

32. Bainan harekin izatu ziren bertzeek erraten zuten: Nihondik ez  
gure populu hari atheratzeko gai, ezen gu baino hazkarrago da.

33. Eta Israelgo semeen baithan haritu ziren begiztatu zuten lurraren  
kontra, ziotelarik: Guk ikhuskatu dugun lurra iresten ditu bere egoilia-  
rrak; ikhusi dugun populua irazki larrikoa da.

34. Han ikhusi ditugu munstro batzu Enaken semeetarik digante  
odolekoak: hekien aldean xartalak iduri ginduen.



#### XIV. KAP.

1. Oste guzia beraz oihuka eta nigarrez egon zen gau hura:
2. Eta Israelgo seme guziak Moisen eta Aaronen kontra erasian haritu ziren, ziotelarik:
3. Oxala Egipton hil izan baginade! oxala mortu zabal huntan xahu bagintzezi, Jaunak gu ez eramateko lur hartara, beldurrez-eta ezpataren azpian eror gaitezen, eta gure emazteak eta haurrak gathibu eramanak izan ditezten! Ez othe dugu hobe Egiptora bihurtzea?
4. Eta batak bertzeari erran zuten: Aitzindari bat ezar dezagun gure buruko, eta Egiptora bihur gaitezen.
5. Hori aditurik, Moise eta Aaron lurrerat ahuspez erori ziren Israelgo semeen oste guziaren aitzinean.
6. Bainan Josue, Nunen semeak, eta Kaleb, Jephonen semeak, zeinek berek ere begiz ikhusi baitzuten Kanaango lurra, phorrokatu zituzten beren soinekoak,
7. Eta Israelgo semeen oste guziari erran zioten: Guk inguratu dugun lurra hainitz ona da.
8. Eta Jauna alde badugu, hartan sarraraziko gaitu, eta emanen daroko esnea eta ezti darioen lurra.
9. Berautzue bihurriarena egitetik Jaunaren kontra, eta ez izan lur hartako populuaren lotsarik, ezen nola ogia, hala irets detzakkeguke: ezen geriza guzia gibelatu da hekien ganik: gurekin da Jauna, beldurrik ez izan.
10. Bainan nola oste guzia izkolaka baitzagoen, eta harrika nahi baitzituen hekiek xahutu, Jaunaren gloria batasuneko tabernaklearen gainean agertu zen Israelgo seme guziei.
11. Eta Jaunak Moisi erran zioen: Noiz arteo populu hau gaizki mintzatuko da nitaz? Noiz arteo ez nau sinhetsiko, horien aitzinean egin izan ditudan sendagaila guzien ondoan?
12. Izurritez joko ditut beraz, xahutuko ditut; eta zu, ezarriko zaitut populu handi eta hau baino hazkarrago baten buruzagi.
13. Eta Moisek erran zioen Jaunari: Nahi othe zinduke Egiptoarrek, zeinen erditik atheratu baituzu populu hau,
14. Eta lur hortako egoiliarrek, zeinek aditu baitute, oi Jauna, populu hunen erdian zarella, bekhoz bekho agertzen zarella, zure hedoiak gerizatzen duela, hedoi habean haukien aitzinean goaten zarella egunaz, eta suzko habean gabaz,
15. Ikhus dezaten hunelako ostea gizon bakhar bat bezala hil duzula, eta erran dezaten:

16. Etzezazkeen sarraraz zinekin agindu zioten lurrean: hargatik hil ditu mortuan.
17. Goretsia izan bedi beraz Jaunaren indarra zinekin erran izan duzun bezala:
18. Jauna jasankor eta urrikalpen handitakoa da, ezeztatzen ditu tzarkeriak eta gaixtakeriak, hobendunik ez du batere uzten gaztigu gabe, aiten bekhatuak hirugarren eta laugarren belhauneraino bilhatzen ditu.
19. Barkha zazu, othoi, populu hunen bekhatua, zure urrikalpenaren handitasunaren arabera, begithartetsu izan zitzaioen bezala Egiptotik athera denetik eta hunat arteo.
20. Eta Jaunak ihardetsi zioen: Barkhatu diot zure galdearen arabera.
21. Bizi naiz ni: eta lurra oro bethea izanen da Jaunaren gloriar.
22. Bizkitartean ene ospea eta egin ditudan sendagailak Egipton eta mortuan, ikhusi dituzten gizon guziek, eta halarik-ere hamar alditaraino frogetara behartu nautenek, eta ene bozari behatu ez direnek
23. Ikhusiren ez dute nik zinekin hekien aitei agindu lurra, eta niri irain egin darotedanetarik bakhar batek ere ez du haren gainean begia ezarriko.
24. Kaleb ene zerbitzaria, zeina bertze izpiritu batez bethea jarraiki baita niri, sarraraziko dut inguratu duen lurrean, eta hartaz gozatuko da harenganikako ondoregoa.
25. Amalektarrak eta Kananearrak baitaude haranetan, bihar kanpak higituko ditutzue, eta mortura bihurtuko zare itsaso Gorriko bidez.
26. Eta Moisi eta Aaroni Jauna mintzatu zen huneletan:
27. Noiz arteo ene kontra erasian egonen da oste guziz gaixto hori? Aditu ditut Israelgo semeen arrangurak.
28. Errozute beraz: Bizi naiz, dio Jaunak: nola-ere mintzatu baitzarete, aditzen zaituztedalarik, hala eginen darotzuet.
29. Zuen gorphutzak mortu hortan hilik geldituko dira. Hogoi urt-hetako eta goitiko khonduak izan zarezen guziak, eta ene kontra erasian haritu zaretenak
30. Etzarete, Kaleb Jephonen semeaz, eta Josue Nunen semeaz landan, sarthuko lur hortan, zeinaren gainean altxatu bainuen ene eskua horko egoiliar eginen zintuztedala.
31. Bainan zuen haur xumeak, zeinen gatik erran baituzue etsaiaren puska izan zirela; sarraraziko ditut ikhus dezatentzat desgogaran hartu duzen lur hori.
32. Zuen gorphutzak eremuan hilik hedatuko dira.



33. Zuen semeak berrogoi urthez mortuan ibildaun izanen dira eta zuen bekhatua jasanen dute, beren aiten gorputzak mortuan suntsitu arteo,

34. Lur horri begira egon zaretan berrogoi egunetako nonbrearen arabera; urthea egunekotzat emanen da. Eta berrogoi urthez egarriko ditutzue zuen gaixtakeriak, eta jakinen duzue nolakoa den ene asperkunda.

35. Zeren, nola erran hala eginen diot ene kontra jaiki den oste guziz gaixto horri guziari: mortu hortan urthuko eta hilen da.

36. Beraz, Moisek lur begizatzaera igorri zituen guziak, eta gibelerat itzuli zirenean, oste guzia haren kontra erasietan ezarri zutenak, lurra baiatuz, tzarra zelakoan,

37. Joak izan ziren eta hil ziren Jaunaren aitzinean.

38. Eta lurraren begizatzen izatu ziren orotarik, Josue, Nunen semea, eta Kaleb, Jephonen semea, bizirik gelditu ziren.

39. Eta solas horiek oro Moisek Israelgo seme guziei ekharri ziozkaten, eta populua deithore handitan egon zen.

40. Eta hara biharamunean goizean-goizik jaikirik mendi bizkarrera igan zirela, eta erran zuten: Jaunak erran lekhura igaitera gaude, ezen bekhatu egin dugu.

41. Moisek erran zioeten: Zertako zoazte Jaunaren hitzaren gainetik, ez baitzaitzue ontsa atherako?

42. Utzazue igaiteko asmua, ezen Jauna ez da zuekin; berautzue eror zuen etsaien aitzinean.

43. Aitzinean dituzue Amalektarrak eta Kananearrak; hekien ezpataren azpira eroriko zarete, duzelakotz onhetsi nahi izan Jaunari, eta Jauna ez da zuekin izanen.

44. Bainan hekiek itsutuak ziren eta igan ziren mendi gainera. Bainan Jaunaren lehukotasuneko arkha eta Moise etziren kanpetarik ilkhi.

45. Mendian zauden Amalektarrak eta Kananearrak jautsi ziren; eta Israeldarrak jotzen eta puskatzen zituztelarik, jarraiki zitzaizkoten Hormaraino.

## XV. KAP.

1. Eta Jauna huneletan mintzatu zitzaioen Moisi:

2. Israelgo semeei mintza zaitte eta errozute: Egon behar zaretan eta nik emanen darotzuetan lurrean sarthuak izanen zaretenean,

3. Eta Jaunari holokausta edo bitima eskainiko diozuenean, botuen bethetzeko, edo zuen oldez emaitzak eskaintzean, edo zuen besta-burue-

tan gozotasuneko urrina Jaunari erretzean, idietarik edo bertzela ardiatarik,

4. Edozeinek imola dezan bitima, eskainiko du, irin zethatuzko sakrifizioa, ephiaren hamargarren bat, bustirik olioiz, zeina izanen baita hin laurdeneko neurriaren bethe;

5. Eta arnotik, libazioneen egiteko, neurri bera emanen du nahiz holokaustarentzat, nahiz bitimarentzat. Bildots baxhotxarentzat

6. Eta ahariantzat irinaren sakrifizioa izanen da bi hamargarrenatekoa, hinaren heren bat olioiz bustirik;

7. Eta Jaunari gozotasuneko urrintan libazioneako arnoa eskainiko du neurri beraren herena.

8. Bainan idietarik eginen duzunean holokausta edo bitima, botu bethetzeko edo bakezko bitimatat,

9. Idi bederaka emanen dituzu hirur hamargarren irin zethabatu, olioiz bustirik, zeina izan beharko baita hinaren neurriaren erdia.

10. Eta libazione egiteko arnoa neurri berekoa izanen da, Jaunari usain gozoeneko eskaintzetan.

11. Hola eginen duzu

12. Idi, ahari, bildots eta pittika bederaka.

13. Nahiz lekhuko umeek, nahiz arrotzek

14. Zeremonia beretan eskainiko dituzte sakrifizioak.

15. Manamendu bakhar bat eta lege bat baizik ez da izanen nola zuentzat hala bertze tokitarik ethorrientzat.

16. Jauna Moisi mintzatu zen, zioelarik:

17. Mintza zaitte Israelgo semeei, eta errozute:

18. Emanen daiotzuetan lurrera ethorriak izanen zaretenean,

19. Eta toki hartako ogitik jan dukezuenean, Jaunari bereziko diozkatzue pikainak

20. Zuen jatekoetarik, larrainetik pikainak berezten dituzuen bezala,

21. Orobat Jaunari pikainak emanen diozkatzue zuen orheetarik ere.

22. Jakin gabez zerbait utzi baduzue Jaunak Moisi erran horietarik,

23. Eta zuei haren ararteko gaztiatu darotzuenetarik, manamendu ematen hasi zaitzuen egunetik eta geroztik,

24. Eta egitea ahantzi bazaio osteari, arthaldetik aratxe bat eskainiko du holokaustatzat usain guziz onetan Jaunari, eta haren sakrifizioa eta libazioneak, zeremoniek galdegiten duten bezala, eta akher bat bekhatuarentzat.

25. Eta aphezak othoitz eginen du Israelgo semeen baldarna guzia-  
rentzat, eta barkhatua izanen zaiote, zeren ez duten berariaz egin bekha-



tu: eta halere berentzat, beren bekhatuarentzat eta ahanztearentzat eskainiko dute isentsua:

26. Eta barkhatua izanen zaiote Israelgo semeen populu guziari, eta hekiein artean dabilzan arrotzei, zeren populu guziaren hutsa den ustekabezkoa.

27. Norbaitek bakharrrik jakin gabea bekhatu egin badu, urtheko ahuntz bat eskainiko du bere bekhatuarentzat:

28. Eta aphezak harentzat othoitz eginen du, ez-jakinez bekhatu egin duelakotz Jaunaren aitzinean: eta barkhamendua ardietsiko dio, eta barkhatua izanen zaio.

29. Nahiz lekhuko umeentzat, nahiz arrotzentzat lege bat izanen da ustekabetan bekhatu egiten duten guzientzat.

30. Bainan zeinak-ere hanpuruskeriaz zerbait bekhatu egin baituke, izan dadien herrikoa edo arrotza (zeren Jaunari bihurtu zaioen), galduko da bere populutik.

31. Ezen Jaunaren hitza erdeinatu du, eta alferu du haren manamendua: hargatik galduko da eta jasanen du bere gaixtakeria.

32. Bada, gerthatu zen, Israelgo semeak mortuan zirelarik, gizon bat egur biltzen atzeman zutela larunbatean.

33. Erakharri zioeten Moisi, Aaroni eta baldarna guziari.

34. Haukiek preso ezarri zuten, ez-jakinez zer egin behar zen hartaz.

35. Eta Jaunak Moisi erran zioen: Heriotzez hila izan bedi gizon hori; kanpen haindian oste guziak harrika kali beza.

36. Eta kanpetarik atheraturik, harrika lehertu zuten, eta hila izan zen Jaunak manatu bezala.

37. Halaber Jaunak erran zioen Moisi:

38. Mintza zaitte Israelgo semeei eta errozute, litsak egin detzatela beren kapen izkinetan, xingola gorrimoreak ezarriz hekietan,

39. Hekiek ikhustearekin, orhoit ditezentzat Jaunaren manamendu guziez, eta jarraik ez ditezentzat beren gogoeta eta begiei, zeinak gauza hainitzetan lohitzten baitira;

40. Bainan edergailu hekiek gehiago orhoitaraz ditzaten Jaunaren manamenduez, eta saindu izan ditezen bere Jainkoaren aitzinean.

41. Ni naiz zuen Jainko Jauna, Egiptoko lurretik atheratu zaituztedana, zuen Jainkoa izan nadiantzat.

## XVI. KAP.

1. Hara bada non Kore Isaarren semea, Kaathen semea, Lebiren semea, eta Dathan eta Abiron, Eliaben semeak, halaber Hon, Phelethen semea, Errubenen semeatarik,

2. Jaiki ziren Moisen kontra, eta hekiekin Israelgo semeatarik bertze berrehun eta berrogoi eta hamar gizon sinagogako handietarik, eta zeinak batzarreko egunetan beren izenez deitzen baitziren.

3. Eta Moisi eta Aaroni buruz jarri zirenean erran zioeten: Aski izan bekizue, zeren den saindu oste guzia, eta hekiekin baita Jauna. Zertako altxatzen zarete Jaunaren populuaren gainera?

4. Hori aditurik, Moise erori zen ahuspez lurrera:

5. Eta erran zioeten Koreri eta oste guziari: Bihar goizean Jaunak ezagutaraziko du zein diren harenak, eta sainduak bere gana bilduko ditu: eta hautatu ditukeenak hurbilduko zaizko hari.

6. Hau egizue beraz: bakhotxak bere isentsuntzia har beza, zuk, Kore, eta zurekilako guziek:

7. Eta bihar sua harturik, usain onak gainera ematzue Jaunaren aitzinean: eta zeina izanen baita hautatua, hura bera daiteke saindu. Lebiren semeak, gora hari zarete.

8. Eta berriz Koreri erran zioen: Adi zazue, Lebiren semeak:

9. Gutu othe zaitzue Israelgo Jainkoak zuek populu guzitik berezi izatea, eta berari batu izatea bere tabernakleko eginbideetan zerbitzatzeko, populuaren bilkhuaren aitzinean egoteko, eta Jaunaren zerbitzua egiteko?

10. Hortako bere gana hurbilarazi othe zaituzte, zu, eta Lebiren seme anaia guziak, apheztasuna ere eskuaperatzekotzat,

11. Eta zure bilduma guzia jar dadiantzat Jaunaren kontra? Zer da ezen Aaron, horren kontra eraunts dezazuentzat?

12. Moisek igorri zuen beraz Eliaben semeen, Dathanen eta Abironen deitzera. Haukiek ihardetsi zuten: Ez gare ethorriko.

13. Gutu othe zaitzu gu ilkhiarazi izatea esnea eta ezitia zarioen lur bate-tik, hil gaitzatzun mortu batean, eta oraino gure jaun egin nahi baitzare?

14. Sarrarazi gaituzu naski esnea eta ezitia zurrustan dohazen lurrean, eta eman darozkigutzu naski landak eta mahastiak gozatzera? ala nahi darozkigutzu begiak athera? Ez gare heldu.

15. Moisek, borthizki samurturik, erran zioen Jaunari: Ez bekiozute begira horien sakrifizioei: zuk badakizu egundaino ez dudala horien esku-tik astokume bat ere hartu, eta horietarik bakhar bati ez diotala eman atsekabe.

16. Eta erran zioen Koreri: Biharko egunean xutik eman zaitze Jaunaren aitzinean, zu eta zure bilduma guzia alde batetik, eta Aaron bertzetik berezki.

17. Har zatzue bakhotxak zuen isentsuntziak, eta isentsua hekietan ezar zazue, Jaunari eskaintzen diozuela berrehun eta berrogoi eta hamar isentsuntzi: Aaronek ere iduk beza bere isentsuntzia.



18. Hori egin zutenean, Moisen eta Aaronen aitzinean,  
 19. Eta populu guzia bilarazi zuten ondoan hekien parrera taberna-  
 kle-sartzera, Jaunaren gloria orori agertu zen.  
 20. Eta Jauna mintzaturik Moisi eta Aaroni, erran zioten:  
 21. Bazter zaitezte bilkhu horren erditik, guziak xahu detzadan orai  
 berean.  
 22. Moise eta Aaron ahuspez erori ziren, eta erran zuten: Haragi  
 guziko izpirituen Jainko guziz hazkarra, batek bekhatu eginik, guziei jaza-  
 rriko othe diote zure hasarreak?  
 23. Eta Jaunak erran zioen Moisi:  
 24. Mana zozu populu guziari bazter dadien Koreren, Dathanen eta  
 Abironen olhetarik.  
 25. Eta Moise xutitu zen eta goan zen Dathanen eta Abironen gana:  
 eta Israelgo zaharrenak jarraitzen zitzaizkiolarik,  
 26. Osteari erran zuen: Gibela zaitezte gizon gaixto horien olhetarik,  
 eta berantzue uki horien gauzatarik, beldurrez-eta sarthuak izan zaitezten  
 horien bekhatuetan.  
 27. Eta inguruan gibelatu zirenean hekien olhetarik, Dathan eta  
 Abiron atheratuak xutik zauden beren kanpetako sartzean beren emaz-  
 teekin eta haurrekin, eta beren lagun guziekin.  
 28. Eta Moisek erran zuen: Huntan jakinen duzue Jaunak igorri  
 nauela ni ikhusten dituzuen guzien egitera, eta ez ditudala ene burutarik  
 atheratu.  
 29. Gizonen ohiko heriotzez hiltzen badira haukiek, eta heldu  
 bazaiote bertzeei ethortzen ohi zaioten izurri bat, ez nau Jaunak igorri ni:  
 30. Bainan baldin sendagail berri batez Jaunak egiten badu lurrak  
 idek dezan bere ahoa eta irets detzan haukiek eta haukienak diren guziak,  
 eta bizirik jausten badira ifernura, jakinen duzue burhoztatu dutela Jauna.  
 31. Beraz solasetik baratu zen bezain sarri, lurra urratu zen hekien  
 oinen azpian;  
 32. Eta ahoa idekirik, iretsi zituen hekiek beren olha eta puska guzie-  
 kin.  
 33. Eta lurrak estalirik, bizi-biziak jautsi ziren ifernura, eta galdu  
 ziren ostearen erditik.  
 34. Eta Israel guzia, inguruan xutik zagoena, galtzen hari zirenen  
 marraskara, ihesari eman zen, zioelarik: Ez ahal gaitu gu ere lurrak iretsiko.  
 35. Hanbatekin, su batek, Jaunaren ganik ilkhirik, hil zituen isentsua  
 eskaintzen zuten berrehun eta berrogoi eta hamar gizonak.  
 36. Eta Jauna mintzatu zen Moisi, erraten zioelarik:

37. Aaron aphezaren seme Eleazarri mana zozu altxa dezan garren  
 erdian eroriak gelditu diren isentsuntziak, eta hekietako sua bazterretara  
 barraia dezan, zeren sainduetsiak izan baitira

38. Bekhatoreen heriotzeetan; eta hostotan ezar ditzan, eta aldareari ira-  
 txik, Jaunari hekietan isentsua eskainia izan delakotz, eta sainduetsiak direla-  
 kotz, Israelgo semeek hekiek ikhustekotzat seinale eta oharrazpenetan.

39. Eleazar aphezak beraz bildu zituen kobrezko isentsuntziak, zei-  
 netaz suak iretsi zituenek eskaini izan baitzuten isentsua, hostotan ezarri  
 zituen eta aldareari iratxiki,

40. Israelgo semeek ethorkizunean izan zezatentzat zerk orhoitaraz,  
 arrotzik, ez Aaronen odoleko ez denik hurbil ez dadien Jaunari isentsu  
 eskaintzera, beldurrez-eta jasan dezaten Korek eta bere lagun guziek jasan  
 duten bezalako heriotzea, Jaunak Moisi erran zioen bezala.

41. Bainan ondoko egunean, Israelgo semeen oste guzia erauntsiaka  
 haritu zen Moisen eta Aaronen kontra, zioelarik: Zuek hiltzen duzue  
 Jaunaren populua.

42. Bainan nola bihurritza atheratzen hari baitzen eta harramantza  
 handituz baitzohan,

43. Moisek eta Aaronek ihes egin zuten batasuneko tabernaklera.  
 Hartan sarthu zirenean, hedoiak estali zituen, eta agertu zen Jaunaren gloria.

44. Eta Jaunak erran zioen Moisi:

45. Athera zaitezte oste hortarik, ezen orai berean xahutzera dara-  
 makit. Eta lurreean ahuspez zaudezelarik,

46. Moisek Aaroni erran zioen: Har zazu isentsuntzia, eta aldaretik  
 sua emanik, isentsua gainera ezar zazu, eta laster egizu populuaren gana  
 harentzat othoitz egitera: ezen jadanik atheraia da Jaunaren hasarrea, eta  
 izurriak jotzen hari du.

47. Aaronek, hori eginik, laster egin zuenean ostearen erdira, suak  
 jadanik xahutzen hari zuen; usain gozoa eskainirik,

48. Xutik hilen eta bizien artean, populuarentzat othoitz egin zuen,  
 eta gelditu zen izurria.

49. Joak izan zirenak baziren hamalau mila eta zazpi ehun, Koreren  
 bihurripenean hil izan zirenez bertzalde.

50. Eta Aaron Moisen gana itzuli zen batasuneko tabernakleko sartzera,  
 heriotzea baratu zen ondoan.

## XVII. KAP.

1. Eta Jauna Moisi mintzatu zitzaioen huneletan:



2. Mintza zait Israelgo semei, eta hekien ganik har zazu zaharo bana hekien ahaidegoka, leinuetako buruzagi guzietarik hamabi zaharo; eta bakhotxaren izena iskriba zazu bere zaharoaren gainean.

3. Bainan Aaronen izena Lebiren leinuarenean izanen da, eta zaharo bakhotxean berez izanen da leinu bakhotxaren izena.

4. Zaharoak ezarriko dituzu batasuneko tabernaklean lekhukotasunaren aitzinean, non ere mintzatuko bainatzaiztu.

5. Hekietarik hautatu dukedanaren zaharoa muskilduko da; eta ni ganik eragotziko ditut Israelgo semeen arrangurak zeinetaz eraunsten baitute zuen kontra.

6. Eta Moise mintzatu zen Israelgo semei: eta buruzagi guziek zaharoak eman ziozkaten leinu bakhoxka: eta baziren hamabi zaharo, Aaronen zaharoa gabe.

7. Moisek hekiek ezarri ondoan Jaunaren aitzinean batasuneko tabernaklean,

8. Biharamunean bihurtu zenean, khausitu zuen muskildu zela Aaronen zaharoa Lebiren etxean; eta ninikak goriturik, loreak atheratu ziren, eta hostak zabaldu, loreak amanda bilhakatu.

9. Moisek beraz Israelgo seme guziei Jaunaren aitzinetik ekharri ziozkaten zaharo guziak: eta ikhusi zituzten eta hartu zeinek bere zaharoa.

10. Eta Jaunak Moisi erran zioen: Aaronen zaharoa bihur zazu lekhukotasuneko tabernaklera, han zerbitza dadientzat Israelgo semeen bihurrialdiaren orhoitzapeneko, eta ni ganik bara ditezen hekien kuintak, hil ditezen beldurrez.

11. Eta Moisek egin zuen Jaunak manatu bezala.

12. Bainan Israelgo semeek erran zioeten Moisi: Huna non xahutuak garen, galtzen hari gare guziak.

13. Edozein hurbil dadien Jaunaren tabernakleari, hiltzen da; guziak, bat utzi gabe, xahutuak izanen othe gare bizia galtzeraino?

### XVIII. KAP.

1. Eta Jaunak Aaroni erran zioen: Zuk, eta zure semeek, eta zure aitaren etxeak zurekin, egarriko duzue saildutegiaganako gaixtaginkeria; eta zuk, eta zure semeek batean, jasanen ditutzue zuen apheztasuneko bekhatuak.

2. Halaber zurekin har zatzu zure anaia Lebiren leinukoak, eta zure aitaren etxeokak, han izan beitez, eta zerbitza betzazte zu: ordean zuk eta zure semeek betheko ditutzue lekhukotasuneko tabernakleko eginbideak.

3. Lebitarrak atzarriak egonen dira zure manuetara eta tabernakleko lan guzietara, halako moldez bizkitartean non saildutegiko untzietara eta aldareari ez baitira hurbilduko, beldurrez-eta hil ditezen hekiek, eta zuek hekiekin batean gal etzaitezten.

4. Zurekin izan beitez, eta atzarriak egon tabernaklearen zaintzetan eta hango zeremonia guzietan. Arrotzik ez da zuetara baltsatuko.

5. Atzarriak zaudezte saildutegiaren zaintzean eta aldareko eginbidean, ene hasarrea jauz dadien beldurrez Israelgo semeen gainera.

6. Nik eman darozkitzuet zuen anaia lebitarrak Israelgo semeen erditik, eta emaitzetan eman diozkat Jaunari, haren tabernakleko egitekoetan zerbitza ditezentzat.

7. Ordean zuk eta zure semeek begira zazue zuen apheztasuna: eta aldareko zerbitzuari dagozkioten guziak, eta belaz barnean direnak, aphezzen eskuz xuxendu beharko dira; baldin edozein arrotz hurbil baledi, hila izan bedi.

8. Eta Jaunak erran zioen Aaroni: Huna non eman darotzudan ene pikainen zainpena. Israelgo semeek sailduesten dituzten guziak eman darozkitzuet zuri eta zure semei apheztasuneko kargua gatik bethiko zuzenetan.

9. Hautxek beraz hartuko dituzu sailduetsiak diren eta Jaunari eskainiak direnetarik. Edozein eskaintza eta sakrifizio, eta edozein gauza bekhatuaren gatik eta hobenaren gatik niri bihurtzen dena, eta sailduren saildu erortzen, zu. rea izanen da eta zure semeena.

10. Saildutegian janen duzu: bakharrak gizonkiek janen dute hartarik, zuzentzat delakotz berezia.

11. Bainan Israelgo semeek botuz eman eta eskaini pikainak eman darozkitzuet zuri eta zure seme alabei bethiko zuzenetan: zure etxekorik xahu denak jan beza hekietarik.

12. Hoberen den guzia oliotik, eta arnotik, eta ogitik, pikainetako Jaunari eskaintzen den guzia, zuri eman darotzut.

13. Lurrak sortzen dituen fruitu guzien pikainak, eta Jaunari ekharriak direnak, zuzentzat eroriko dira: zure etxekorik xahu denak hekietarik jan beza.

14. Israelgo semeek botu ariaz niri emanen darotetan guzia zurea da.

15. Edozein haragiren sabeletik lehenik ilkhitzen den zein-nahi, Jaunari eskaintzen diotena, izan dadien gizonetarik edo aziendetarik, zure zuzeneko izanen da: haletan bizkitartean non gizonaren lehen-sorthuarentzat onhetsiko baituzu balioa, eta berrerosaziren baitituzu lohi diren abere guziak,



16. Zeinen berrerospena eginen baita hilabete baten buruan bortz siklo zilharrezkoz, saildutegiko phisura. Sikloak hogoi obola ditu.

17. Bainan ez dituzu berrerosaraziko behiaren, ardiaren eta ahuntzaren lehen-sorthuak, Jaunari sailduetsiak zaikozkoelakotz. Bakharrik, aldaire gainean hekien odola ixuriko duzu, eta Jaunari usain guziz onetan erreko dituzu bilgorrak.

18. Haragiak ordean zuretzat eroriko dira; hala nola bulhar-arte konsekratua eta eskuineko sorbalda, zureak dira.

19. Saildutegiko pikain guziak, Israelgo semeek Jaunari eskaintzen diozkatena, eman darozkitzuet zuri eta zure seme-alabei, bethiko zuzenetan. Gatz-patua behin-bethirakoa da Jaunaren aitzinean zuretzat eta zure semeentzat.

20. Eta Jaunak erran zioen Aaroni: Israelgo semeen lurrean etzarete deuseren jabe izanen, eta hekien artean ez duzue zathirik izanen: ni naiz zure zathia eta ondoretasuna Israelgo semeen erdian.

21. Lebiren semei ordean berentzat eman diozkatet Israelgo hamarren guziak, batasuneko tabernaklean egiten darotedan zerbitzuaren sari;

22. Israelgo semeak ez ditezen gehiago tabernakleari hurbil, eta ez dezaten egin herioa dakharken bekhatua;

23. Bainan Lebiren semeek bakharrik zerbitza nezaten tabernaklean, eta egar detzazten populuaren bekhatuak: lege hori bethikotzat izanen da zuen ondokoetan. Ez dira berme deuseren jabe izanen;

24. Askiko izanen zaizkote hamarrenak, zeinak hekien behar eta premietako berezi baitituz.

25. Eta Jauna hunela mintzatu zen Moisi:

26. Lebitarrei mana zozute eta erran: Israelgo semeen eskutik hartuko dituzuenan nik zuei emanikako hamarrenak, hekien pikainak eskainiko diozkitzue Jaunari, erran nahi da hamarrenen hamargarrena,

27. Hala larrainetako nola lakoetako pikaintzat idukiak izan dakitzuentzat;

28. Eta hartuko dituzuen gauza guzien pikainak eskaini zozute Jaunari, eta Aaron aphezari emotzute.

29. Hamarrentarik eskainiko dituzuen guziak, eta Jaunari emaitzatzat bereziko dituzuenak, izanen dira hoberen-hoberenak eta hautak.

30. Erranen diozute oraino: Baldin hamarrentarik eskaintzen badi-tuzue zer-ere baita ederrenik eta hoberenik, idukia izanen zaitzue pikainak larrainetik eta lakotik eman bazinituzte bezala:

31. Eta hamarrenak janen dituzue zuen lekhu orotan, hala zuek nola zuen familiek, zeren diren lekhukotasuneko tabernaklean egiten duzuen zerbitzuaren saria.

32. Eta hekien gainean ez duzue bekhatu eginen ederrenak eta gizenak zuentzat begiratuz, narria ez detzatzuentzat Israelgo semeen eskaintzak, eta hil zaitezten beldurrez.

## XIX. KAP.

1. Eta Jauna Moisi eta Aaroni mintzatu zen huneletan:

2. Hau da bitimaren zeremonia Jaunak ezarri duena. Israelgo semei mana zozute erakhar dezazuten adin ederreko behi bat, gorra, bairik batere gabea eta uztarrria erabili ez duena.

3. Eta emanen diozute Eleazar aphezari, zeinak, kanpetarik eramanik, imolatuko baitu guzien aitzinean:

4. Eta erhia haren odolean bustirik, zazpi aldiz eginen du ihintadurra tabernakleko athearen parrean.

5. Eta orok ikhusten dutela, behia erreko du, surat emanik hala larrua, eta haragiak, nola odola eta ongarrria.

6. Aphezak behia erretzen duen garrera arthikiko du zedro egurra ere, hisopoa eta eskarlata bietan thindatua.

7. Eta azkenekotz, bere soinekoak eta gorputza garbitu ondoan, kanpetara sarthuko da eta arrats arteo khutsatua geldituko da.

8. Behia erre duenak ere, garbituko ditu bere soinekoak eta gorputza, eta arrats arteo lohi izanen da,

9. Eta xahu den gizon batek bilduko ditu behiaren hautsak, eta arthikiko ditu kanpez haindian toki guziz xahu batera, Israelgo seme guziek zain ditazentzat ihintzatzeko urarentzat, behia bekhatuarentzat errea izan delakotz.

10. Eta behiaren hautsak eraman zituenak garbitu dituzkeenean bere soinekoak, arrats arteo lohi izanen da. Israelgo semeek eta hekien artean dauden arrotzek manamendu hau saildu idukiko du bethiko zuzenez.

11. Gizon hila ukitu dukeena, eta horren gatik zazpi egunez lohi izanen dena

12. Ur hartarik ihintzatu dute hirugarren eta zazpigarren egunean, eta hola xahu eginen da. Baldin hirugarren egunean ihintzatu izan ez bada, zazpigarrenean ezin xahutuko da.

13. Edozeinek gizon baten hilikia ukitu duenak, eta nahasteka hartaz ihintzatu izatu ez denak, khutsatuko du Jaunaren tabernaklea, eta Israeldik galduko da: xahupeneko uraz ihintzatu ez dena, lohi izanen, eta bere lohitasuna bere gainean egonen zaio.

14. Hau da bere olhan hiltzen den gizonaren legea: haren olhan sartzen diren guziak, eta han diren untziak oro lohi izanen dira zazpi egunez.





15. Estalgirik izanen ez duen untzia eta gainetik lothu gabea, lohi izanen da.

16. Baldin norbaitek kanpoan ukitu badu bertzeek hilikako edo berez hil den gizon baten gorputza, edo haren hezur bat, edo hobia, lohi geldituko da zazpi egunez.

17. Eta hartuko dute bekhatuarentzat errerikako behiaren hautsetarik, eta hekien gainera ur bizia ixuriko dute untzi batera:

18. Eta xahu den gizon batek hartan hisopoa busti ondoan, hartaz ihinzatuko ditu olha eta tresna guziak, eta khutsu mota hortaz lohituak diren gizonak:

19. Eta horreletan xahuak lohia xahutuko du hirugarren eta zazpigarren egunean: eta zazpigarren egunean xahutua izan denak, garbituko ditu bere gorputza eta bere soinekoak, eta lohi izanen da arrats arteo.

20. Baldin norbait horrelako moldez xahutua izan ez bada, haren bizia galduko da baldarnaren erditik: zeren Jaunaren saildutegia khutsatu baitu, eta xahupeneko uraz ez baita ihinzatua izatu.

21. Manamendu hau izanen da bethi guzian lege. Urezko ihinzadurara egin duenak ere, garbituko ditu bere soinekoak. Edozeinek uki dezan xahupeneko ura, arrats arteo tohi izanen da.

22. Lohi denak ukitu guzia lohi eginen da; eta halakorik zerbait ukitu duena, lohi izanen da arrats arteo.

## XX. KAP.

1. Eta Israelgo semeak eta one guzia Sineko mortura ethorri ziren lehenbiziko hilabethean, eta populua Kadesen gelditu zen. Han hil zen Maria, eta lekhu berean ehortzi zen.

2. Eta populuari urak eskas egin zioenean, bildu ziren Moisen eta Aaronen kontra:

3. Eta bihurri eginik, erran zuten: Oxala gure anaiekin galdu izan bagina Jaunaren aitzinean

4. Zertako erakharri duzue Jaunaren baldarna mortura, gu eta gure aziendak hil gaitzentzat?

5. Zertako Egiptotik iganarazi gaituzue eta erakharri lekhu tzarrenen hunetara, zeina ez baititeke erain, zeinak ez baitu ekhartzen ez piko, ez mahats, ez mingrana, eta ooren gainerako urik ez baitu edateko?

6. Eta ostea utzirik, Moise eta Aaron sarthu ziren batasuneko tabernaklera, eta arthiki zituzten beren buruak ahuspez, eta erran zuten: Jainko Jauna, entzun zazu populu hunen oihua eta idek zozu zure aberastasune-

ko khutxa, ur bizizko ithurri bat, ase ditezentzat eta bara dadien horien erauntsia. Eta Jaunaren gloria agertu zen hekien gainean.

7. Eta Jauna huneletan mintzatu zen Moisi:

8. Har zazu zure zigorra; zuek eta zure anaia Aaronen bilaraz zazue populua, eta harriari mintza zaite begien aitzinean, eta emanen darotzu ura. Eta harritik ura ilkhiazi dukezunean, one guziak edanen du, eta abereek ere bai.

9. Moisek hartu zuen beraz Jaunaren aitzinean zen zigorra, manatua izan zitzaioen bezala;

10. Eta ostea bilarazirik harriaren aitzinera, erran zioeten: Adi zazue, gizon makhur eta sinhetsgaitzak: zuei harri huntarik ura atherako ahal izanen othe dugu?

11. Eta Moisek eskua altxaturik, bi aldiz harria jo zuen zigorraz, eta ur nasaienak jauzi ziren, halako moldez non populuak edan ahal izan baitzuen eta abereek ere bai.

12. Eta Jaunak erran zioten Moisi eta Aaroni: Zeren ez darotzuen sinheste eman, ene sailduesteko Israelgo semeen aitzinean, ez dituzue populu haukiek sarraraziko emanen diotedan lurrean.

13. Hura da jazargoako ura, Israelgo semeek Jaunari jazarri zioten lekhuak, eta non sailduetsia izan baitzen hekien baithan.

14. Bizkitartean Moisek Edomeko erregeri Kadesetik mandatariak igorri ziozkan erratera: Hau gaztiazten darotzu zure anaia Israelek: Badakizu zer lanak atzeman gaituen gu;

15. Nola gure aitak jautsi izan ziren Egiptora, nola han egotu garen asko urthez, eta atsekabeztatu gaituzten Egiptoarrek gu eta gure aitak;

16. Eta nola oihu egin diogun Jaunari, nola entzun gaituen eta bidali darokun aingeru bat, Egiptotik athera gaituena. Huna non zure azken mugetan den Kadeseke hirian geldituak,

17. Othoizten zaitugun zure lurretik iragaitera utz gaitzatzun. Ez gare goanen ez zure landak gaindi, ez zure mahastiak barna; ez dugu zure putzuetako ura edanen, baina bide-bidetik ibiliko gare, ez eskuin, ez ezker makhurtu gabe zure mugez bertze aldera iragan arteo.

18. Edomek ihardetsi zioen: Ez haiz ene eremuatarik iraganen; bertzela harmekin atheratuko natzaik hiri.

19. Israelgo semeek erran zuten: Bide jotik ibiliko gare: eta guk eta gure aziendek zure uretarik edaten badugu, zuzen dena emanen dugu: saria ez da makhurrik batere izanen; bakharrik zalhuki iragaitera utz gaitzatzu.



20. Bainan hunek ihardetsi zuen: Ez haiz iraganen. Eta berehaha bidera atheratu zitzaioeten gizon elementia batekin eta indar gogorrekin;
21. Eta bere eremuetarik bidea uzteko othoizten zuenari etzioen galdea nahi izan onhetsi: hargatik Israel baztertu zen haren ganik.
22. Eta kanpak higiturik Kadesetik, ethorri ziren Horreko mendira, zeina baita Edomen lurreko mugetan.
23. Han Jauna mintzatu zen Moisi,
24. Eta erran zioen: Aaron bihoa bere populuetara; ezen ez da sartuko Israelgo semeei eman diotedan lurrean, zeren-eta Jazargoako uretan sinhets-gogor izatu den ene hitzari.
25. Har zazu beraz Aaron eta haren semea harekin, eta eraman zatzu Horreko mendira.
26. Eta aitari soinekoa khendurik, ezarriko diozu haren seme Eleazarri: eta Aaron bildua izanen da, eta han hilen da.
27. Moisek egin zuen Jaunak manatu bezala; eta oste guziaren aitzinean igan ziren Horreko mendira.
28. Eta Aaroni bere soinekoak khendurik, hekietaz jauntzi zuen Eleazar haren semea.
29. Aaron mendi-kaskoan hil zen ondoan, Moise jautsi zen Eleazarrekin.
30. Ikhusirik Aaron hil izan zela, oste guziak hogoi eta hamar egunez deithorea egin zioen bere familia guzietan.

## XXI. KAP.

1. Hori entzun zuenean Arad errege Kananearrak, hegoaldean egoten zenak, erran nahi da Israel ethorri zela ikhusketarien bidez, gudu eman zioen, eta garaitiar atheraturik, buluzkin eraman zuen haren ganik.
2. Bainan Israelek botu hartuz Jaunaren alderat, erran zuen: Baldin populu hori ene eskuetara ematen baduzu, herrautsiko ditut horren hiriak.
3. Jaunak aithor eman zioeten Israelen othoitzei, eskuetara eman zioenen Kananearra; eta hura hilik, Israelek herrautsi zituen haren hiriak; eta lekhu hura deithu zuen Horma, erran nahi da anathema.
4. Gero abiatu ziren Horreko menditik itsaso Gorrira daraman bidez, Edomen lurraren ingurua egiteko. Eta populua unhatzen hasi zen bidez eta nekheaz.
5. Eta Jainkoaren eta Moisen kontra mintzatuz, erran zuen: Zertako ilkhiarazi gaituzu Egiptotik, mortuan hiltzera? Ogia eskas da, urik ez da; jan ahul hunek goiti eragiten dio gure barneari.

6. Horren gatik populua gainera igorri zituen suge sudun batzuek, zeinek askori eman zauri eta heriotzeen gatik
7. Moisen gana ethorri ziren, eta erran zioten: Bekhatu egin dugu, zeren garen mintzatu Jaunaren eta zure kontra: othoitz egiozu sugeak khen ditzan gu ganik. Moisek populuaentzat othoitz egin zuen,
8. Eta Jaunak erran zioen: Egizu kobrezko suge bat, eta seinaleztat ezar zazu: ukitua denak begiratzen badio, biziko da.
9. Moisek egin zuen beraz kobrezko suge bat, eta seinaleztat ezarri zuen: asikiak zirenek hari begiratzen bazioten, sendatuak ziren.
10. Israelgo semeak bideari emanik, kanpatu ziren Obothen.
11. Handik ilkhirik, kanpak landatu zituzten Jeabarimen, Moabi begiratzen duen mortuan, iguzkiko ephaitza alderat.
12. Eta handik higiturik, ethorri ziren Zaredoko erreka,
13. Zeina utzirik, kanpatu ziren Arnonen parrean, hura baita mortuan, eta Amorhearren mugetan altxatzen baita: ezen Arnon da Moaben mugan, Moabitarrak eta Amorharrak berezten dituelarik.
14. Hortarik da errana Jaunaren gerletako liburuan: Nola egin baitu itsaso Gorrian, hala eginen du Arnongo erreketan.
15. Erreketako harkadiak gurtu dira, Arren phausa ditezentzat, eta etzan Moabitarren mugetan.
16. Toki hartarik lekhora agertu zen putzua, zeintaz Jaunak erran baitzioen Moisi: Bilaraz zazu populua eta emanen diot ura.
17. Orduan kantatu zuen Israelek kantu hau: Igan bedi putzua. Kantatzen zuten:
18. Huna buruzagiek zilhatu duten putzua, eta aitzindariak xuxendu dutena lege emalearen manuz eta beren makhilez. Mortutik populua ethorri zen Mathanara;
19. Mathanatik Nahalielera; Nahalieletik Bamothera;
20. Bamothetik, Moaben eremuko haranera, Phasgako basaburuan, zeina mortuari begira baitago.
21. Bada, Moisek mandatariak igorri ziozkan Sehon, Amorhearren erregeari, zioelarik:
22. Othoizten zaitut haizu utz nezazun zure lurretik iragaitera; ez gare makhurtuko ez landetara, ez mahastietara; ez ditugu edanen putzue-tako urak, errege bidez joko dugu zure mugez haindira iragan arteo.
23. Hunek etzuen nahi izan Israel utzi bere eremuetarik iragaitera: eta gehiago dena, armada bat bildurik, bidera atheratu zen mortura, Jasara ethorri eta Israeli gudu eman.



24. Israelek iragan zuen ezpataren ahoan, eta haren lurraz nausitu zen Arnonetik Jebokeraino eta Amonen semeen eremuraino: ezen Amontarren mugak gogorki zainduak ziren.

25. Israelek hartu zituen beraz Sehonon hiri guziak, eta egoitza egin zuen Amorhearren hirietan, erran nahi da Hefebonen, eta Hefebongo herrietan.

26. Hefebongo hiria zen Sehonena, Amorhearren erregearena, zeinak gudukatu baitzuen Moabeko errege, eta hartu harenpeko eremu guzia Arnoneraino.

27. Horren gatik da erran zaharra: Zatozte Hefebonera, lurretik xuti eta osa bedi Sehonon hiria.

28. Sua atheratu da Hefebonetik, garra Sehonon hiritik, eta iretsi ditu Ar Moabitarrena eta Amongo bizkarretan zaudenak.

29. Zorigaitz hiri, Moab! galdu haiz, Kamosen populua. Kamosek ihes igorri ditu haren semeak eta alabak gathibu eman Sehoni, Amorhearren erregeari.

30. Hefebonetik Dibonera suntsitu da Moabitarren uztarrria: leher-tuak goan dira Nophera eta Medabaraino.

31. Israelek egoitza egin zuen beraz Amorhearren lurrean.

32. Eta Moisek gizonak bidali zituen Jazerren ikhulkatzera, eta hartu zituzten hango herriak, eta egoiliarrez jabetu ziren.

33. Gero bazterrerat egin zuten Basango bideaz, eta atheratu zitzaioeten Og, Basango errege, bere populua guziarekin, Edraien gudu ematera.

34. Eta Jaunak erran zioen Moisi: Ez izan horren beldur, zeren zure eskura arthiki baititut hori eta horren populua eta lurra; eta horri eginen diozu egin duzuna Sehoni Amorhearren errege, Hefebonen egoten zenari.

35. Hiltzeraino jo zituzten beraz Og bere semeekin eta haren populua guzia, eta nausitu ziren haren lurraz.

## XXII. KAP.

1. Eta handik goanik, kanpatu ziren Moaben zelhaietan, non Jordanez haindian jarria baita Jeriko.

2. Bainan Balakek, Sefhorren semeak, ikhustenez Israelek Amorhearrari egin ziozkan guziak,

3. Eta Moabitarrek haren beldur handi zirela, eta ezin jasanen zutela haren oldarra,

4. Erran zioten Madiango zaharrei: Populu horrek hala xahutuko ditu gure mugetan daudezin guziak, nola idiak belharra erroetaraino baitu murrizten. Hura bera zen orduan errege Moaben.

5. Mandatariak igorri zituen beraz Balaami, Beorren seme aztiari, zeina egoten baitzen Amonen semeen lurreko hibai-hegian, erakhar zezatentzat eta erran zezoten: Huna Egiptotik non ilkhi den populu bat, zeinak estali baitu lurraren gaina, kanpatzen dela ene parrean.

6. Zato beraz, eta madarika zazu populu hau, zeren ni baino hazkarrago baita; heian niholazere jo eta iraz dezakedan ene lurretarik; ezagutu dut ezen benedikatua dela zuk benedikatzen duzuna, eta madarikatua zuk madarikatzen duzuna.

7. Moabeko eta Madiango zaharrenak goan ziren, eskuetan zutela aztiaren saria. Eta Balaamen gana heldu izan zirenean, eta Balaken solas guziak heldu ziozkatenean,

8. Balaamek ihardetsi zioeten: Zaudezte hemen gau huntan, eta ihardetsiko darotzuet Jaunak erranen darotan guzia. Gelditu ziren Balaamen baithan Jainkoa ethorri zen, eta erran zioen:

9. Zer nahi dute hire etxean diren gizon horiek?

10. Balaamek ihardetsi zuen: Balak, Sefhorren seme Moabitarren erregeak, ni gana bidali du,

11. Dioelarik: Huna Egiptotik ilkhirikako populu batek estali duela lurraren gaina: zato madarika zazu, heian nihondik-ere gudukatuz iraz dezakedan.

12. Eta Jainkoak erran zioen Balaami: Berauk horiekin goan, eta ez bezak madarika populu hura, zeren benedikatua baita.

13. Balaamek, goizean jaikirik, erran zioten aitzindarii: Zoazte zuen lurrera, zeren Jaunak debekatu baitarot zuekin goatea.

14. Gibelerat itzulirik, aitzindariak Balaki erran zioeten: Balaamek ez du nahi izatu ethorri gurekin.

15. Hunek berriz ere bidali ziozkien lehen igorri zituen baino mandatari hainitz gehiago eta sortze handiagokoak;

16. Zeinek, Balaamen gana heldu zirenean, erran zuten: Hula mintzo da Balak, Sefhorren semea: Ez bezazu luza ni gana ethortzera:

17. Zuri ohore ekhartzera nago, eta nahi dukezuna emanen darotzut: zato, eta madarika zazu populu hura.

18. Balaamek ihardetsi zuen: Balakek eman balezat ere bere etxea urhez eta zilharrez betherik, ezin aldatuko nuke ene Jainko Jaunaren hitza, ez gehiago ez gutiago errateko.

19. Othoizten zaituztet gau hau hemen eman dezazuen, jakin ahal dezadan zer ihardetsiko darotan berriz Jaunak.



20. Beraz Jainkoa gabaz ethorri zitzaioen Balaami, eta erran zioen: Baldin gizon horiek hire deitzera ethorri badira, xuti hadi eta habil horiekin: halaz bizkitartean, non nik manatuko daroana eginen baituk.

21. Balaam jaiki zen goizean, eta bere asto urrixari harbalda ezarririk, goan zen mandatariekin.

22. Eta Jainkoa hasarretu zen. Eta Jaunaren aingerua aitzinean jarri zitzaioen bidean Balaami, zeina asto gainean jarria baitzen, eta bi sehi bazituen berekin.

23. Astoak aingerua bidean xutik ikhustenez, ezpata buluzirik zaiola, baztertu zen bidetik, eta larretik zihoan. Nola Balaamek jotzen baitzuen eta nahi baitzuen bidera bihurrazazi,

24. Aingerua xutik eman zen mahasti batzu hersten zituzten bi harrasiarten artean.

25. Hura ikhustearrekin astoa harrasiari josi zen, eta bizkarrean jarria zuenaren zangoa harraskatu zuen. Balaamek aldiz berritan jotzen zuen.

26. Bizkitartean aingerua toki hertsu batera goanik, zinetan ezin hauts baitzitakeen ez eskuin ez ezker, astoari bidean jarri zitzaioen.

27. Astoak aingerua gelditua ikhusi zuenean, erori zen gainean zuenaren zangoen azpira: hunek samurturik, borthizkiago makhilaz jotzen zituen astoaren sakhatsak.

28. Eta Jaunak ideki zuen astoaren ahoa, eta astoa mintzatu zen: Zer egin darotzut zuri? Zertako jotzen nauzu? ja huna hirugarren aldia.

29. Balaamek ihardetsi zuen: Merezitu baitun, eta trufatu baihaiz nitaz: oxala marrauz bat banu hire jotzeko!

30. Astoak erran zuen: Ez othe naiz zure aberea zeinaren gainean egun arteo jarri ohi baitzare? errazu heian egundaino egin darotzudan holakorik. Behin ere! ihardetsi zuen Balaamek.

31. Jaunak ordu berean begiak ideki ziozkan Balaami: hunek aingerua ikhusi zuen bidean ezpata buluziarekin, eta adoratu zuen lurrean ahuspez emanik.

32. Aingeruak erran zioen: Zergatik jo duk hire astoa hiruretan? Ni ethorria nauk hiri trebes egitera, zeren hire bidea tzarra duk eta niri alde-gaitz egiten darotana.

33. Eta hire astoa bidetik baztertu ez balitz, lekhu bihur-egileari utziz, hilen hindutan, eta hura biziko zukan.

34. Balaamek ihardetsi zioen: Bekhatu egin dut ene zeiberrean jarria zinela jakingabez: eta orai gaitzi bazaitzu goan nadien, bihurturen naiz.

35. Aingeruak erran zioen: habil horiekin, eta begira hadi erratetik nik manatuko daroanaz bertzerik. Goan zen beraz aitzindariekin.

36. Balakek aditu zuenean heldu zela, bidera atheratu zitzaioen Moabitarren hiri, Arnongo azken mugetan denera.

37. Balakek erran zioen: Mandatariak igorri izan ditut zure deitzeko, zertako etzare berehala ethorri ene gana? ala ezin bihur dezazudalakoan zure ethortzeari bere saria?

38. Balaamek ihardetsi zioen: Huna non naizen: erran othe dakikezut bertzerik ezenez Jainkoak ene ahoan ezarriko duena?

39. Goan ziren beraz elkharrekin, eta Balaken erreinuko azken muge-tan zen hiri batera ethorri ziren.

40. Eta Balakek idiak eta ardiak hil ondoan, emaitzak igorri ziozkanen Balaami eta harekin ziren aitzindariak.

41. Eta biharamun goizea ethorri zenean, Balaam eraman zuen Baalen lekhu goretara, eta erakhutsi zioen Israelgo oso-osoa.

### XXIII. KAP.

1. Balaamek erran zioen Balaki: Egin dizadatzu hemen zazpi aldare eta xuxent hainbertze aratxe eta bertze hainbertze ahari.

2. Eta Balaamek erran bezala egin zuenean, ezarri zituzten aratxe bat eta ahari bat elkharrekin aldare bakhotxaren gainean.

3. Eta Balaamek erran zioen Balaki: Zaude aphur bat zure holokaustaren ondoan goan nadien arteo heian Jauna ethorriko zaroan, eta zer-ere manatuko baitarot, hura zuri erran dezazudantzat.

4. Eta arin goan zen ondoan, Jainkoa ethorri zitzaioen. Balaam mintzatu zitzaioen eta erran zioen: Zazpi aldare altxatu ditut, eta aratxe eta ahari bana gainean ezarri diozkatet.

5. Bainan Jaunak solasa ezarri zuen haren ahoan, eta erran zioen: Balaken gana bihur hadi, eta hori erranen diok.

6. Itzuli zenean, Balak khausitu zuen bere holokaustaren ondoan, eta Moabitarren buruzagi guziak harekin.

7. Eta bere profeta-mintzoa harturik, erran zuen: Aramdik, iguzki-aldeko mendietarik erakharri nau Balakek Moabitarren erregek. Erran du: Zato, eta madarika zazu Jakob: laster egizu, eta burhoka zazu Israel.

8. Nola madarikaturen dut Jainkoak madarikatu ez duena? Nolaz burhokaturen dut Jaunak burhokutzen ez duena?

9. Gerenden gainetik ikhusiren dut, eta bizkarretarik begira egonen natzaio. Populu horrek bakhartasunean eginen du bere egoitza, ez da bertze jendakien arteko ekharria izanen.



10. Nork khondaturen ahal du Jakoben herrautsa? nork ezaguturen ahal du Israelen umeen nonbrea? Zuzenen heriotzez hil benedi, eta ene azken orduak izan beitez hekienak iduri.

11. Eta Balakek erran zioen Balaami: Zer hari zare hola? Deithu zaitut ene etsaien madarikatzera: eta zuk aitzitik benedikatzen ditutzu.

12. Hunek ihardetsi zioen: Bertzerik erran othe dezaket, ezenez Jaunak manatua?

13. Balakek erran zioen beraz: Zato enekin bertze toki batera, nondik-ere ikhusiko baituzu Israelen pharte bat, eta guzia ezin ikhusiren ahal baituzu: handik madarika zazu.

14. Eta hura eraman zuenean lekhu gora batera, Phasgako mendi bizkarrean, Balaamek egin zituen zazpi aldare, eta aratxe eta ahari bana gainean ezarririk,

15. Balaki erran zioen: Zaude hemen zure holokaustaren ondoan, Jaunaren bidera goan nadien arteo.

16. Eta Jauna atheratu zitzaioenean, ahoan solasa ezarririk, erran zioen: Bihur hadi Balaken gana eta hori errok.

17. Itzulirik atzeman zuen Balak xutik bere holokaustaren aldean, eta Moabitarretako buruzagiak harekin. Balakek erran zioen: Zer erran darotzu Jaunak?

18. Eta hunek bere profeta-mintzoa harturik, erran zuen: Zaude xutik, Balak, eta beharria emazu; adi zazu Sefhorren semea.

19. Jainkoa ez da gizona bezala gezurrez mintzatzeko, ez-eta gizase-mea bezala aldaka haritzeko. Erran du bada, eta ez othe du eginen? mintzatu da, eta ez othe du betheko?

20. Benedikatzaera erakharria naiz; ez dut benedizioearen debekatzeko ahalik.

21. Ez da jainkorderik Jakob baithan, eta ez da jainkoaizun itxurape-nik ikhusten Israel baithan. Haren Jainko Jauna harekin da, eta haren bait-han dira erregeren garhaiziako otsak.

22. Jainkoak hura erakharri du Egiptotik; haren indarra da errinoze-roarena bezala.

23. Ez da asmu-atheratzailerik Jakob baithan, ez-eta aztirik Israel baithan. Bere orduan erranen zaiote Jakobi eta Israeli zer egin dukeen Jainkoak.

24. Huna populua lehoin urrixa bezala jaikiko dena eta lehoin orotsa bezala xutituko dena: harrapakina iretsi arteo ez da etzanen, eta hil ditue-nen odola edanen du.

25. Eta Balaami erran zioen Balakek: Etzazula ez madarika, ez benedikika.

26. Eta Balaamek ihardetsi zuen: Ez othe darotzut erran Jaunak manatuko zaroan guzia eginen nuela?

27. Eta Balakek erran zioen: Zato, eta eramanen zaitut bertze lekhu batera, ikhusteko heian Jainkoak atsegin dukeen madarika detzatzun handik.

28. Eta eraman izan zuenean Phogorreko mendi bizkarrera, zeina mortuari begira baitago,

29. Balaamek erran zioen: Egin dizadatzu hemen zazpi aldare, eta xuxent hainbertze aratxe eta bertze hainbertze ahari.

30. Balakek egin zuen Balaamek errana, eta ezarri zituen aratxeak eta ahariak aldare bakhotxaren gainean.

#### XXIV. KAP.

1. Eta Balaamek ikhustenez Jaunaren atsegina zela Israel benedikika zezan, etzen aitzinean bezala asmu bilhatzera goan; bainan begithartea mortu-aldera azuli zituen,

2. Eta begiak altxatzean Israel ikhusi zuen kanpetan zagoela leinuka jarria: eta Jainkoaren izpiritua jauzi zen haren baithan,

3. Eta profeta-mintzoa harturik erran zuen: Dio Balaamek, Beorren semeak; dio begia hertsia duen gizonak;

4. Dio Jainkoaren solasaren entzuleak, Guziz-Botheretsuaren ager-pena ikhusi duenak, erortzen denak, eta hala begiak idekitzen zaizkoenak:

5. Zeinen diren eder zure olhak, oi Jakob zeinen diren eder zure kanpak, oi Israel!

6. Haran oihantsuak iduri, baratze urztatuak hibaien bazterretan bezala, Jaunak landatu olhak bezala, zedroak ur-hegietan iduri.

7. Ura turrustan jautsiko da horren suilatik, eta horren hazia berhatuko da hibai handiak bezala. Horren errege irazia izanen da Agagen gatik, eta khenduko diote erreinua.

8. Jainkoak ilkhiarazi du Egiptotik haina hura, zeinaren indarra baita errinozeroarena iduri. Iretsiak izanen dira haren etsai diren jendaiak, hekien hezurak hautsiak izanen dira, eta geziz zilhatuak.

9. Etzanik lo dago lehoin orotsa bezala eta lehoin urrixa iduri zeinaren atzartzera nihor ez baita ausartatuko. Zu benedikatzen zaituena, bera ere benedikatua izanen da: madarikatzen zaituena, madarikatutzat ekharriko da.



10. Eta Balaamen kontra samurturik, Balakek eskuak jorik, erran zuen: Ene etsaien madarikatzera deithu zaitut, eta aitzitik hirur alditaraino benedikatu ditutzu:

11. Itzul zaite zure lekhura. Zu ederki sariztatzeko asmua egina nuen, bainan zureztat berezi sariaz Jaunak gabetu zaitu.

12. Balaamek ihardetsi zioen Balaki: Ez othe diotet erran zuk igorri daroztatzun mandatariei:

13. Balakek eman balezat ere bere etxea urhez eta zilharrez betherik ezin iraganen nuke ene Jainko Jaunaren solasa, ez onik, ez txarrik ene burutarik atheratzeko: bainan Jaunak erranen duen guziaz erranen dut?

14. Halarik-ere ene herrira bihurtzerakoan atzar-emanen darotzut zure populuak egin diozokeenaz populu horri azken buruan.

15. Berriz profeta-mintzoa harturik, erran zuen: Dio Balaamek, Beorren semeak; dio begia tapatua duen gizonak;

16. Dio Jainkoaren solasen entzuleak, Guziz-Goraren gogoia ezagutzen duenak, Guziz-Ahaldunaren agerpenak ikhusten dituenak, begiak ideki zaizkoenak erortzean:

17. Ikhusiren dut hura, bainan ez orai; begira egonen natzaio, bainan ez laster. Izar bat ilkhiko da Jakobean ganik eta aldaska bat atheratuko da Israelen ganik; eta joko ditu Moaben aitzindariak, eta larrutuko Sethen seme guziak.

18. Idumea harena izanen da; Seirren lurra bere etsaien eskuetara eroriko da: eta Israelek indar handia egingen du.

19. Jakobean ganik atheratuko da nausi jarriko dena, eta hiriaren ondarrak xahutuko dituena.

20. Eta Amalek ikhustearekin, Balaamek profeta-mintzoa hartuz, erran zuen: Amalek jendaien buruzagia, zeina azkenean galduko baita.

21. Zinearra ere ikhusi zuen: eta profeta-mintzoa harturik erran zuen: Egiaz hazkarra duk hire egonlekhua: bainan harkadian ezarri baduk ere hire ohantzea,

22. Eta Zinen odoletik hautatua bahaiz ere, zenbat iraunen ahal duk? ezen Asurrek harturen hau.

23. Eta profeta-mintzoa harturik, berriz mintzatu zen: Ai! nor biziko da, Jainkoak horiek egingen dituenean?

24. Untzitan ethorriko dira Italiatik, Asiriarrak garhaituko dituzte, eta Hebrearrak larruturik ezarriko.

25. Gero Balaam jaiki zen, eta bere herrirat itzuli. Balak ere ethorri bidez bihurtu zen.

## XXV. KAP.

1. Ordu hartan Israel Setimen egoten zen, eta populua Moaben alabekin khutsatu zen.

2. Haukiek deithu zuten beren sakrifizioetara, eta jan zuen eta adoratu zituen hekien jainkoak.

3. Eta Israelek onhetsi zuen Belphegorren legea: eta samurturik, Jaunak

4. Erran zioen Moisi: Har zatzu populuko buruzagi guziak, eta ezar zatzu urkabeatarik dilindan, ene hasarrea aldarra dadien Israelen ganik.

5. Eta Moisek erran zioeten Israelgo juieei: Nork-berak hil betza bere hurbileko Belphegorren legean sarthu direnak.

6. Eta hara Israelgo semeatarik bat non sarthu zen bere anaien aitzinean madiantar ema galdu baten gana, ikhusten zituztelarik Moisek eta Israelgo semeen oste guziak, zeinak nigarrez baitzauden tabernakleko athean.

7. Hori ikhusi zuenean Phineesek, Eleazarren semeak, Aaron aphezaren ilobasoak, jaiki zen ostearen erditik, eta puñal bat harturik,

8. Sarthu zen israeldar gizonaren ondolik lekhu tzarrera, eta sabelpetik zilhatu zituen biak batean, erran nahi da gizona eta emaztekoa. Eta izurria gelditu zen Israelgo semeatarik.

9. Eta hogoi eta lau mila gizon hilak izan ziren.

10. Eta Jaunak erran zioen Moisi:

11. Phineesek, Eleazarren semeak, Aaron aphezaren ilobasoak, ene hasarrea aldaratu du Israelgo semeen ganik, zeren hekien kontra enegako kharrez izatu den sutua, neorrek ene kharrean xahu ez netzan Israelgo semeak.

12. Horren gatik mintza zakizko: Huna non ematen diodan ene bata-suneko bakea,

13. Eta aphezetasuna izanen da nola haren baithan, hala haren ondo-rego guzian bethiereko patu batez, zeren sutu den bere Jainkoaren alde, eta xahutu duen Israelgo semeen gaixtakeria.

14. Bada Madiantarrarekin hila izan zen israeldar gizonaren izena zen Zambri, Saluren semea, ahaidegoko buruzagi eta Simeonen leinukoa.

15. Eta orobat hila izan zen madiantar emaztekoa deitzen zen Kozbi, Surren alaba, Sur baitzen Madiantarretan aitzindari sortze guziz handitakoa.

16. Eta Jauna Moisi mintzatu zen, zioelarik:

17. Madiantarrek ezagut bezate etsaiak zaituztela, eta ezpataz jo zatzue.



18. Zeren-eta berek etsai arara egin baitarotzuet, eta beren zelatetan erorrarazi baitzaituzte Phogarreko jainkordeaz, eta beren arreba Kozbiz, Madiango aitzindariaren alaba, izurriteko egunetan hila izan denaz Phogorreko sakrilia gatik.

### XXVI. KAP.

1. Hobendunen odola ixuria izan zen ondoan, Jaunak erran zioeten Moisi eta Eleazar aphezari, Aaronen semeari:

2. Athera zazue zenbat diren Israelgo seme guziak, hogoi urthetarik eta goiti, etxeka eta beren ahaidegoka, gerlara goan ditazkeen guziak.

3. Hargatik Moise eta Eleazar apheza Moabeko zelhaietan, Jordane gainean, Jerikoko parrean, mintzatu ziren,

4. Jaunak manatu bezala, hogoi urthe eta goitikoei, zeinen nonbrea hau baita:

5. Erruben Israelen seme zaharrena; hunen semea Henok, zeinaren ganik Henoktarren familia; eta Phalu, zeinaren ganik Phalutarren familia:

6. Eta Hefron, zeinaren ganik Hefrontarren familia; eta Karmi zeinaren ganik Karmitarren familia.

7. Horiek dira Errubenen errotikako familiak, zeinen nonbrea khau-situ baitzen berrogoi eta hirur mila zazpi ehun eta hogoi eta hamar.

8. Phaluren semea Eliab.

9. Hunen semeak, Namuel, eta Dathan, eta Abiron; hauiek dira Dathan eta Abiron populuko aitzindari, Moisen eta Araronen kontra jaiki zirenak Koreren bihurritzan, Jainkoaren kontra bihurtu zirenean:

10. Eta lurrak ahoa idekiz iretsi zuen Kore, asko hiltzen zirelarik, suak berrehun eta berrogoi eta hamar gizon erre zituenean. Eta senda-gaila handi bat gerthatu zen,

11. Non Kore galtzean, haren semeak ez baitziren galdu.

12. Simeonen semeak beren ahaidegoka: Namuel, hunen ganik Namueltarren familia; Jamin, hunen ganik Jamintarren familia; Jakin, hunen ganik Jakintarren familia;

13. Zare, hunen ganik Zaretarren familia; Saul, hunen ganik Saultarren familia.

14. Horiek dira Simeonen errotikako familiak, zeinen nonbre guzia izan baitzen hogoi eta bi mila eta berrehun.

15. Gaden semeak beren ahaidegoka: Sefhon, hunen ganik Sefhontarren familia; Agi, hunen ganik Agitarren familia; Suni, hunen ganik Sunitarren familia;

16. Ozni, hunen ganik Oznitarren familia; Her, hunen ganik Hertarren familia;

17. Arod, hunen ganik Arodtarren familia; Ariel, hunen ganik Arieltarren familia.

18. Horiek dira Gaden familiak, zeinen nonbre guzia izan baitzen berrogoi eta bortz mila eta bortz ehun.

19. Judaren semeak, Her eta Onan, biak Kanaango lurrean hil zirenak.

20. Judaren bertze semeak beren ahaidegoka: Sela, zeina ganik Selatarren familia; Phares, zeina ganik Phareskarrenfamilia; Zare, zeina ganik Zaretarren familia.

21. Eta Pharesen semeak: Hefron, zeina ganik Hefrontarren familia; eta Hamul, zeina ganik Hamultarren familia.

22. Horiek dira Judaganikako familiak, zeinen nonbrea izan baitzen hirur hogoi eta hamasei mila eta bortz ehun.

23. Isakarren semeak beren ahaidegoka: Thola, zeina ganik Tholatarren familia; Phua, zeina ganik Phuatarren familia;

24. Jasub, zeina ganik Jasubtarren familia; Semran, zeina ganik Semrantarren familia.

25. Horiek dira Isakarganikako familiak, zeinen nonbrea izatu baitzen hirur hogoi eta lau mila eta hirur ehun.

26. Zabulonon semeak beren ahaidegoka: Sared, zeina ganik Saredtarren familia; Elon, zeina ganik Elontarren familia; Jalel, zeina ganik Jaleltarren familia.

27. Horiek dira Zabulonenganikako familiak, zeinen nonbrea izatu baitzen hirur hogoi mila eta bortz ehun.

28. Josepen semeak beren ahaidegoka: Manase eta Efraim.

29. Manaseren ganik ilkhi zen Makir, zeina ganik Makirtarren familia. Makirrek izatu zuen Galaad, zeina ganik Galaadtarren familia.

30. Galaadek izatu zituen sei seme: Jezer, zeina ganik Jezertarren familia; Helek, zeina ganik Helektarren familia;

31. Asriel, zeina ganik Asrieltarren familia; Sekem, zeina ganik Sekemtarren familia;

32. Semida, zeina ganik Semidarren familia, eta Hephher, zeina ganik Hephertarren familia.

33. Bada Hephher izatu zen Salphaaden aita, zeinak ez baitzuen seme-rik, baina bakharrik alabak; hauiek dira hekien izenak: Maala, Noa, Hegla, Melka eta Thersa.



34. Horiiek dira Manaserenganikako familiak, eta hekien nonbrea berrogoi eta hamabi mila eta zazpi ehun.
35. Eta Efraimen semeak beren ahaidegoka, hautxek izan ziren: Suthala, zeina ganik Suthalarren familia; Beker, zeina ganik Bekertarren familia; Thehen, zeina ganik Thehentarren familia.
36. Suthalaren seme izan zen Heran, zeina ganik Herantarren familia.
37. Horiiek dira Efraimen semeen familiak, zeinen nonbrea izatu baitzen hogoi eta hamabi mila eta bortz ehun.
38. Horiiek dira Josepen semeak familiak. Benjaminen semeak beren ahaidegoetan: Bela, zeina ganik Belarren familia; Asbel, zeina ganik Asbeltarren familia; Ahiram, zeina ganik Ahiramtarren familia;
39. Supham, zeina ganik Suphamtarren familia; Hupham, zeina ganik Huphamtarren familia.
40. Belaren semeak: Hered eta Noeman. Hereden ganik Heredtarren familia; Noeman ganik Noemantarren familia.
41. Horiiek dira Benjaminen semeak beren ahaidegoka, zeinen nonbrea izatu baitzen berrogoi eta bortz mila eta sei ehun.
42. Danen semeak beren ahaidegoka: Suham, zeina ganik Suhamtarren familia; horiiek dira Danen ahaidegoak familiak.
43. Guziak ziren Suhamtarrak, zeinen nonbrea baitzen hirur hogoi eta lau mila eta laur ehun.
44. Aserren semeak beren ahaidegoka: Jemna, zeina ganik Jemnarren familia; Jesui, zeina ganik Jesuitarren familia; Brie, zeina ganik Brietarren familia.
45. Brien semeak: Heber, zeina ganik Hebertarren familia; eta Melkiel, zeina ganik Melkieltarren familia.
46. Sara zen Aserren alabaren izena.
47. Horiiek dira Aserrenganikako ahaidegoak, eta hekien nonbrea berrogoi eta hama hirur mila eta laur ehun.
48. Nefthaliren semeak beren ahaidegoka: Jesiel, zeina ganik Jesieltarren familia; Guni, zeina ganik Gunitarren familia;
49. Jefer, zeina ganik Jefertarren familia; Selem zeina ganik Selemtarren familia.
50. Horiiek dira Nefthaliren semeen ahaidegoak beren familiak: hekien nonbrea berrogoi eta bortz mila eta laur ehun.
51. Hau da khondatauak izatu ziren Israelen semeen nonbre osoa, sei ehun eta bat mila zazpi ehun eta hogoi eta hamar.
52. Eta Jauna Moisi mintzatu zen, zioelarik:

53. Horiiek gozatzera zathituko zaiote lurra izenen nonbre arauka.
54. Gehienek direnei emanen diozute zathi handiagoa, eta gutienek ttipiagoa: bakhotxari gozatzera emanen zaio orai egin den khonduaren arabera:
55. Halako moldez bizkitartean, non zorteak bereziko baitiote aurk-hintza leinuei eta familiei
56. Zer-ere ukituko baitu zorteak, hura hartuko dute nahiz gehienek, nahiz gutienek.
57. Halaber hau da Lebiren semeen nonbrea beren familiak: Jerson, zeina ganik Jersondarren familia; Kaath, zeina ganik Kaatharren familia; Merari, zeina ganik Meraritarren familia.
58. Haukiek dira Lebiren familiak: Lobniren familia, Hebroniren familia, Moholiren familia, Musiren familia, Koreren familia. Bada, Kaathek izatu zuen Amram,
59. Zeinak emaztetzat izatu baitzuen Jokabed, Lebiren alaba, Egipton sorthu zitzaioena. Hunek eman ziozkan Amram bere senharrak haurrak, Moise eta Aaron, eta Maria hekien arreba.
60. Aaronen ganik atheratu ziren Nadab, Abiu, Eleazar eta Ithamar,
61. Zeinetarik Nadab eta Abiu hil baitzuen, su atzea Jaunaren aitzinean eskaini zutenean.
62. Eta khondatauak izan ziren guziak heltzen ziren hogoi eta hirur mila gizonkietara, hilabete batetakoak eta goitikoak: ezen etziren khondatauak izatu Israelgo semeen artean, eta etzitzaioeten bertzeekin lurrik eman.
63. Hori da Israelgo semeen nonbre Moisek eta Eleazar aphezak atheratua Moabeko zelhaietan, Jordane gainean, Jerikoren parrean.
64. Hekien artean etzen batere izatu Moisek eta Aaronek lehenago Sinaiko mortuan khondatau zituztenetarik.
65. Jaunak ezen aitzinetik erran zuen mortuan hilen zirela guziak. Hekietarik nihor etzen gelditu, lekat Kaleb Jephonen semea, eta Josue Nunen semea.

## XXVII. KAP.

1. Bada ethorri ziren Salphaaden alabak; Saalphaad baitzen Hepherren seme, Hopher Galaaden, Galaad Makirren, Makir Manaseren, eta Manase Josepena. Neskatxa hekien izenak ziren Maala, Noa, Hegla, Melka eta Thersa.
2. Eman ziren Moisen, Eleazar aphezaren, eta populuko buruzagi guzien aitzinean, batasuneko tabernakle-sartzean eta erran zuten:





3. Gure aita mortuan hil da; etzen Jaunaren kontra, Kore buruko, biztua izan zen bihurrialdian, bainan bere bekhatuan hil da. Ez du seme-rik izatu. Zertako galduko da haren izena haren familatik, ez duelakotz seme-rik izan? Iguzue guri ere ontasun zathi bat gure aitaren ahaideen artean.

4. Eta Moisek erakharri zuen hekien egitekoa Jaunaren erabakira.

5. Eta Jaunak erran zioen:

6. Gauza zuzena galdegiten dute Salphaaden alabek: emozuete ontasun bat beren aitaren ahaideen artean, eta haren ondotik haren ondore izan beitez.

7. Bada, hau errozuete Israelgo semeei:

8. Gizon bat hiltzen denean seme-rik gabe, haren ondoregoa iraganen da haren alabara.

9. Alabarik ez badu, anaiak izanen ditu ondore.

10. Anaiarik ere ez badu, ondoregoa emanen diozuete aitaren anaiei.

11. Bainan aita-aldeko osabarik ez badu, ondoregoa haren ahaide hurbilenei emana izanen zaiote: eta hau saindu idukia izanen da Israelgo semeez, bethi guziko legetan, Jaunak Moisi manatu dioen bezala.

12. Halaber erran zioen Jaunak Moisi: Abarimgo mendi hortara igan zaite, eta hortik begiets zazu Israelgo semeei ematera nihoakoeten lurra.

13. Eta hura ikhusi dukezunean, zu ere zure populura goanen zare, zure anaia Aaron goan izan den bezala:

14. Zeren damu egin darotazuen Sineko mortuan, populuaren jazar-goko orduan, eta haren aitzinean ez nauzuen sainduetsi nahi izatu uren gainean: hekiek dira Jazargoako urak Kadesen, Sineko mortuan.

15. Moisek ihardetsi zioen:

16. Jaunak, gizon guzien izpirituetakoa Jainkoak berez beza populu hunen buruzagi izateko,

17. Haukien aitzinean ilkhiko eta sarthuko ahal izanen dena, haukiek ilkhiaraziko eta bihurraziko dituen, beldurrez-eta Jaunaren populua izan dadien ardi artzain gabeak iduri.

18. Eta Jaunak erran zioen: Har zazu Josue Nunen semea, gizon bat zeinaren baithan baita Izpiritua, eta haren gainean ezar zatzu eskuak.

19. Emanen da Eleazar aphezaren eta populu guziaren aitzinean,

20. Eta, orok ikhusten dutela, emanen diozkatzu manamenduak eta zure gloriatik pharte bat, Israelgo semeen baldarna guziak entzun dezan-tzat.

21. Hargatik, zerbait egiteko izanen denean, Eleazar aphezak konsultatuko du Jauna, eta haren erranetik ilkhiko eta sarthuko da Josue, eta Israelgo seme guziak eta populu guzia harekin.

22. Moisek egin zuen Jaunak manatu bezala. Eta Josue harturik, ezarri zuen Eleazar aphezaren eta populuko baldarna guziaren aitzinean,

23. Eta eskuak gainean ezarri ondoan, xehatu zituen Jaunak manatu guziak.

## XXVIII. KAP.

1. Halaber Jaunak erran zioen Moisi:

2. Mana zozute Israelgo semeei eta erranen diozuete: Beren orduetan eskain daroztatzue ene eskaintza eta ogiak, eta usain guziz oneko isentsua.

3. Haukiek dira eskaini behar dituzuen sakrifizioak: urtheko bi bildots nariogabeak egun oroz bethirako holokaustetan;

4. Bat eskainiko duzue goizean, eta bertzea arratsaldean;

5. Ephiareen hamargarren bat irin zethabatu, olio guziz garbiz eta hin baten laurdena izanen duenaz bustirik.

6. Hori da bethirako holokausta Sinaiko mendian eskaini diozuen, isentsuaren usain guziz gozotan Jaunari.

7. Eta hin laurden bat arnoz libazionea egingen duzue bildots bakharka Jaunaren saindutegian.

8. Belize bildotsa orobat eskainiko duzue arratsaldean, goizeko sakrifizioko zeremonia guzien arabera eta libazioneak, Jaunari guziz gozo zaioen usaineko eskaintzetan.

9. Bainan larunbatean eskainiko dituzue urtheko bi bildots nariogabeak, eta bi hamargarren irin zethabatu, olio z bustiak sakrifizioko, eta libazione

10. Larunbat guziz bethirako holokaustetan ixurtzen ohi direnak.

11. Eta hilabetheko lehenbiziko egunean Jaunari holokaustetan eskainiko diozkatzue bi aratxe arthaldetik, ahari bat, urtheko zazpi bildots nariogabeak,

12. Eta aratxe bakharka, hirur hamargarren irin zethabatu olio z sakrifizioko; eta ahari bakharka, bi hamargarren irin zethabatu olio z bustia;

13. Eta bildots bakharka oliotik sakrifiziotzat irin zethabatuko hamargarrenaren hamargarrena. Hori zaio Jaunari usain guziz gozoko eta isentsuzko holokausta.



14. Bitima baxhotxarentzat ixuri behar diren arnozko libazioneak haukiek dira: hin baten erdia aratxe bakharka, herena ahariarentzat, laurdena bildotsarentzat. Hori izanen da holokausta urthearen itzulian elkharri darraitzan hilabethe orotakoa.

15. Akher bat ere eskainia izanen da bekhatuarentzat Jaunari bethirako holokaustetan bere libazioneekin.

16. Eta lehenbiziko hilabethean, hilabethearen hamalagarren egunean izanen da Jaunaren Bazkoa.

17. Eta hamabortzgarrenean besta-burua: zazpi egunez ogi airisa janen da.

18. Egun hekietarik lehen izanen da gurgarri eta saindu: hartan ez duzue esku-lanik eginen.

19. Eta Jaunari eskainiko diozkatzue sakrifiziozko holokaustatzat bi aratxe arthaldetik, ahari bat, eta urtheiko zazpi bildots narriogabeak;

20. Eta baxhotxaren sakrifizioak irin zethabatu, olio z bustitik, hirur hamargarren aratxe baxhotxeko, eta bi hamargarren ahariko,

21. Eta hamargarrenaren hamargarrena bildots baxhotxeko, erran nahi da zazpi bildotsetako;

22. Eta akher bat bekhatuarentzat, xahupena ardiets dezazuentzat,

23. Goizeko holokaustaz landan, zeina eginen baituzue bethi.

24. Hola eginen duzue zazpi egunetarik baxhotxean suaren bazteko, eta usain Jaunari guziz gozotan, zeina holokaustatik eta bitima baxhotxaren libazioneetarik altxatuko baita.

25. Zazpigarren eguna ere ospe handitako eta saindu izanen zaitzue: eta hartan esku-lanik ez duzue batere eginen.

26. Pikainetako eguna ere, Jaunari fruitu berriak eskainiko ditutzue: nean, asteak bethi diren ondoan, gurgarri eta saindu izanen da: eta hartan esku-lanik batere ez duzue eginen.

27. Eta eskainiko ditutzue holokaustatzat, usain Jaunari guziz gozotan, bi aratxe arthaldetik, ahari bat eta urtheiko bildots narriogabeak zazpi,

28. Eta hekien sakrifiziotzat, irin zethabatu olio z bustia, hirur hamargarren aratxe bakharka, bia aharika,

29. Eta hamargarrenaren hamargarrena bildots bakharka, zeinak zazpi baitira orotara; akher bat ere

30. Xahupenarentzat hiltzen dena, bethiko holokaustaz eta bere libazionez landan.

31. Guziak narriogabeak eskainiko ditutzue beren libazioneekin.

## XXIX. KAP.

1. Zazpigarren hilabetheko lehenbiziko eguna halaber izanen zaitzue gurgarri eta saindu; ez duzue egun hartan esku-lanik batere eginen, zeren den durrundako eta turutetako eguna.

2. Eta eskainiko ditutzue holokaustatzat, usain Jaunari guziz gozotan, aratxe bat arthaldetik, ahari bat, eta urtheiko bildots narriogabeak zazpi;

3. Eta hekien sakrifizioetan hirur hamargarren irin zethabatu olio z bustirik aratxe baxhotxarentzat, bi hamargarren ahariarentzat,

4. Hamargarren bat bildotska, zeinak orotara zazpi bildots baitira;

5. Eta bekhatuarentzat akher bat, zeina populuaren xahupeneko eskaintzen baita,

6. Hilabethe hasteko holokaustaz landan bere libazioneekin, eta bethiereko holokaustaz landan ohiko libazioneekin. Eskainiko ditutzue zere- monia berekin, Jaunari erretzen zaioen usain guziz onetan.

7. Zazpigarren hilabethe hartako hamargarren eguna ere saindu eta gurgarri izanen zaitzue, eta zuen arimak atsekabetan ezarriko ditutzue; egun hartan ez duzu esku-lanik batere eginen.

8. Eta eskainiko ditutzue holokaustatzat, usain Jaunari guziz gozotan, aratxe bat arthaldetik, ahari bat, eta urtheiko bildots narriogabeak zazpi;

9. Eta hekien sakrifizioetan, hirur hamargarren irin zethabatu olio z bustirik aratxe baxhoxka, bi hamargarren ahariarentzat,

10. Eta hamargarrenaren hamargarrena bildots baxhoxka, zeinak orotara baitira zazpi bildots;

11. Eta bekhatuarentzat akher bat, hobenarentzat xahupeneko eskaintzen ohi direnez bertzalde, eta bethiereko holokaustaz landan beren sakrifizio eta libazioneekin.

12. Zazpigarren hilabetheko hamabortzgarren egunean, zeina saindu eta gurgarri izanen baitzaitzue, ez duzue esku-lanik batere eginen, bainan Jaunaren besta-burua zazpi egunez zebratuko duzue.

13. Eta eskainiko ditutzue holokaustatzat, usain Jaunari guziz gozotan, hamahirur aratxe arthaldetik, bi ahari, urtheiko bildots narriogabeak hamalau,

14. Eta hekien libazioneetan, hirur hamargarren irin zethabatu olio z bustirik aratxe baxhoxka, zeinak hamahirur izanen baitira orotara; eta bi hamargarren ahari baxhoxka, erran nahi da orotara bia diren ahariarentzat,

15. Eta hamargarrenaren hamargarren bat bildots baxhoxka, zeinak orotara baitira hamalau bildots;



16. Eta bekhatuarentzat akher bat, bethiereko holokaustaz bertzalde bere sakrifizio eta libazioneekin.
17. Biharamunean eskainiko ditutzue hamabi aratxe arthaldetik, bi ahari, urtheko bildots narriogabeak hamalau,
18. Eta behar den bezala eskainiko ditutzue sakrifizioak eta libazio-neak aratxe, ahari eta bildots bakhoxka,
19. Eta bekhatuarentzat akher bat, bethiereko holokaustaz bertzalde, bere sakrifizio eta libazioneekin.
20. Hirugarren egunean eskainiko ditutzue hameka bildots, bi ahari, urtheko bildots narriogabeak hamalau,
21. Sakrifizioak eta libazioneak behar den bezala eskainiko ditutzue aratxe, ahari eta bildots bakhoxka;
22. Eta bekhatuarentzat ahari bat, bethiereko holokaustaz bertzalde bere sakrifizio eta libazioneekin.
23. Laugarren egunean eskainiko ditutzue aratxeak hamar, ahariak bia, urtheko bildots narriogabeak hamalau;
24. Sakrifizioak eta libazioneak behar den bezala eskainiko ditutzue aratxe, ahari eta bildots bakhoxka,
25. Eta bekhatuarentzat akher bat, bethiereko holokaustaz bertzalde bere sakrifizio eta libazioneekin.
26. Bortzgarren egunean eskainiko ditutzue bederatzi aratxe, bi ahari, urtheko bildots narriogabeak hamalau;
27. Sakrifizioak eta libazioneak behar den bezala eskainiko ditutzue aratxe, ahari eta bildots bakhoxka,
28. Eta bekhatuarentzat akhera, bethiereko holokaustaz bertzalde bere sakrifizio eta libazioneekin.
29. Seigarren egunean eskainiko ditutzue aratxeak zortzi, ahariak bia, urtheko bildots narriogabeak hamalau;
30. Sakrifizioak eta libazioneak behar den bezala eskainiko ditutzue aratxe, ahari eta bildots bakhoxka,
31. Eta bekhatuarentzat akher bat, bethiereko holokaustaz bertzalde bere sakrifizio eta libazioneekin.
32. Zazpigarren egunean eskainiko ditutzue aratxeak zazpi, ahariak bia, urtheko bildots narriogabeak hamalau;
33. Sakrifizio eta libazioneak behar den bezala eskainiko ditutzue aratxe, ahari eta bildots bakhoxka,
34. Eta bekhatuarentzat akher bat, bethiereko holokaustaz bertzalde bere sakrifizio eta libazioneekin.

35. Zortzigarren egunean, zeina baita ospetsuena, ez duzue esku-lanik batere eginen.

36. Eskainiko ditutzue holokaustatzat, usain Jaunari guziz gozotan, aratxe bat, ahari bat eta urtheko bildots narriogabeak zazpi;

37. Eta behar den bezala eskainiko ditutzue sakrifizio eta libazioneak aratxe, ahari eta bildots bakhoxka,

38. Eta bekhatuarentzat akhera, bethiereko holokaustaz bertzalde bere sakrifizio eta libazioneekin.

39. Horiek eskainiko ditutzue Jaunari bere besta-buruetan, bertzalde direlarik botuzko eta zuen oldezko eskaintzak holokausta, sakrifizio, libazione eta bakezko bitimetan.

### XXX. KAP.

1. Eta Moisek Israelgo semei erran ziozkaten Jaunak manatu guziak:

2. Eta erran zioten Israelgo semeen leinuetako buruzagiei: Huna zer manatu duen Jaunak:

3. Baldin gizon batek botu bat egin badio Jaunari, edo zin eginez bere burua hertsu badu, ez du alferretara bihurraraziren bere hitza, bainan agindu guzia betheko du.

4. Emazteki batek botu egin badu, eta bere burua zin eginik hertsu badu, bere aitaren etxean balin badago, eta nexka gaztea oraino: baldin aitak ezagutu badu harek egin botua, eta zina zeinetaz bere burua baitu premian ezarri, eta ixilik egon bada, alaba botuaz behartua da.

5. Eta egintzaz betheko du botuaz eta zinaz agindu duena.

6. Baldin ordean, aditu bezain laster, aitak ezetz erran badu, alabaren botuak eta zinak alferrak izanen dira, eta aginduaz ez da hobendun idukia izanen, aitak ez duelakotz onhetsi.

7. Baldin senhardun jabe balin bada, eta behin hitza ahotik atheratuz bere burua zinaz premiatu badu:

8. Eta senharrak, aditu duen egunean, enferra egin ez badio, botuaz hertsia da, eta agindu guzia eginen du.

9. Bainan senharrak aditu orduko ezetz erran badu, eta alfer bilhakarazi baditu haren agintzak eta hitzak zeinetaz bere burua premietan ezarri baitzuen, Jaunak barkhatuko dio.

10. Emazte alhargunak eta bere senharrak iraziak, botu eginak betheko dituzte.

11. Emazte batek, bere senharraren etxean, bere burua hertsu badu botuaz eta zinaz,



12. Eta senharrak aditu badu eta ixilik egon, eta agintzari trebes jarri ez bada, agindu duen guzia idukiko du.

13. Bainan senharra berehala trebes eman bada, ez da agintzaz hobendun idukia izanen, zeren senharra zeiherrera jarri zaioen, eta Jaunak barkhatuko dio.

14. Botuaz eta zinaz bere burua hertsu badu, baruraz edo zerbait gauzetarik begiraturuz, atsekabe emanen dioela bere buruari, egin dezan, edo ez dezan, hori senharraren eskuko da.

15. Gauza aditurik, gizona ixilik egotu bada, eta erabakia biharamuna arteo utzi badu; emazteak zertaz-ere botu egin baitu, eta zer-ere agindu baitu, egin beharko du, zeren aditu-eta berehala senharra ez baita mintzatu.

16. Bainan senharra aldegaiztatu jarri bada jakin duen ondoan, berak jasanen du bere gaizkia.

17. Horiak dira legeak Jaunak Moisi emanak senharren eta emaztearen arteko, aitaren eta alabaren arteko, hau oraino nexka gaztea balin bada, edo bere aitaren etxean egoten dena.

### XXXI. KAP.

1. Eta Jauna Moisi huneletan mintzatu zen:

2. Asper zatzu lehenik Israelgo semeak Madiantarretarik, eta gero bildua izanen zare zure populura.

3. Eta ordu berean Moisek erran zuen: Zuetarik gizonak harma zatzue gudurako, Madiantarretarik athera ahal izan dezatentzat Jaunaren asperkundera.

4. Israeldik mila gizon leinu bakhotxetik hautatuak izan beitez gerlara igortzeko.

5. Eta eman zituzten mila gizon leinu bakhotxetik, erran nahi da hamabi mila gizon gudurako ekharriak.

6. Moisek bidali zituen Eleazar aphezaren seme Phineesekin; eman ziozkan halaber untzi sailduak, eta turutak durrundatzeko.

7. Eta Madiantarrak gudukatu eta garhaitu ondoan, hil zituzten gizonki guziak,

8. Eta hekien erregeak, Ebi, Errezem, Sur, Hur eta Errebe, populuko bortz buruzagiak: Balaam ere Beorren semea ezpatatz hil izan zuten.

9. Eta hartu zituzten hekien emazteak eta haur xeheak, abere eta puska guziak: xahutu zituzten hekien izateak oro.

10. Suak iretsi zituen hala hiriak, nola herriak eta gazteluak,

11. Eta hartu zituzten buluzkinak eta harrapatu zituzten guziak, nahiz gizonetarik, nahiz aziendetarik,

12. Eta erakharri zituzten Moisen, Eleazar aphezaren eta Israelgo seme guzien aitzinera; eta gainerako puskek eraman zituzten Moabeko zelhaietan ziren kanpetara, Jordane gainean Jerikoren parrean.

13. Bada, Moise, Eleazar apheza eta sinagogako buruzagi guziak kanpetarik ilkhi ziren hekien bidera.

14. Eta armadako buruzagiei eta mila gizonen eta ehun gizonen aitzindariak samurturik, Moisek erran zioeten:

15. Zertako begiratu dituzte emaztekiak?

16. Ez othe dira horiek Israelgo semeak linburarazi dituztenak, Balaamek bururaturik, eta Jaunari huts egitera ekharri zaituztenak Phogorreko bekhatuaz, zeinaren gatik populua joa izatu baita?

17. Hil zatzue beraz gizonki mota guzia, haur xeheetan ere; eta gizonarekin khutsatu diren emazteki guzietan, zintzurak egiozkitzute;

18. Bainan zuentzat begira zatzue nexkak eta xahu diren neskatxa guziak;

19. Eta kanpetan sarthu gabe zazpi egunez zaudezte. Gizona hil duena, edo hila ukitu dukeena xahutuko da hirugarren eta zazpigarren egunean.

20. Eta buluzkin guziak, nahiz soineko, edo untzi, edo zerbaitetako xuxenduak direnak, ahuntz-larru eta ileetarik eta zuhamukietarik, oro xahu egin beharko dira.

21. Armadako gizon guduak izatu zirenei Eleazar apheza halaber hunela mintzatu zen: Hauze da legera manamendua Jaunak Moisi emana:

22. Urhea, zilharra, kobrea, burdina, beruna, ezteinua,

23. Eta garrean iragan ditazkeen guziak, suaz xahu egin behar dira; bainan sua ezin jasan dezaketenen oro, xahupeneko uraz sailduetsi behar dira;

24. Zuen soinekoak zazpigarren egunean garbituko dituzte, eta gero xahu eginik sartuko zarete kanpetara.

25. Halaber Jaunak erran zioen Moisi:

26. Zuk, Eleazar aphezak eta populuko aitzindariak athera zazue zer den atzemanik gizonetik aziendaraino;

27. Zathituko diozkatzute bardinean buluzkinak guduak izatu direnei eta gerlara atheratu direnei eta gainerako osteari;

28. Eta gudukatu direnen ganik eta gerlan izatu direnen ganik Jaunari zathia bereziko diozu, bortz ehunetarik bat, nahiz gizonetarik, nahiz idietarik, asto eta ardietarik,



29. Eta zathi hura Eleazar aphezari emanen diozu, zeren hekiek baitira Jaunaren pikainak.
30. Israelgo semeen pharte erditik ere hartuko duzu berrogoi eta hamargarren burua gizonetarik, idietarik, astoetarik, ardietarik eta azienda guzietarik, eta emanen diozkatzue Jaunaren tabernaklearen zain dau-dezin lebitarrei.
31. Eta Moisek eta Eleazarrek egin zuten Jaunak manatu bezala.
32. Bada, armadak harrapatu buluzkina izan zen sei ehun eta hirur hogoi eta hamabortz mila ardi,
33. Hirur hogoi eta hamabi mila idi,
34. Hirur hogoi eta bat mila asto,
35. Eta gizona ezagutu etzuten neskatxetarik hogoi eta hamabi mila arima.
36. Eta guduan izatu zirenei emana izan zen erdia, hirur ehun eta hogoi eta hamazazpi mila eta bortz ehun ardi,
37. Zeinetarik Jaunaren phartetzat khondatu ziren sei ehun eta hirur hogoi eta hamabortz ardi;
38. Eta hogoi eta hamasei mila iditarik, hirur hogoi eta bi idi;
39. Hogoi eta hamar mila eta bortz ehun astotarik, hirur hogoi eta bat asto;
40. Hamasei mila neskatxetarik, hogoi eta hamabi erori ziren Jaunaren pharte.
41. Eta Moisek Eleazar aphezari Jaunaren pikainen nonbrea eman zioen. manatua zitzaioen bezala,
42. Israelgo seme guduan izatu zirenei berezi zioten pharte erditik.
43. Eta gainerako osteari erori pharte erditik, erran nahi da hirur ehun eta hogoi eta hamazazpi mila eta bortz ehun arditarik,
44. Hogoi eta hamasei mila iditarik,
45. Hogoi eta hamar mila eta bortz ehun astotarik,
46. Eta hamasei mila neskatxetarik,
47. Moisek hartu zuen berrogoi eta hamargarren burua, eta eman Jaunaren tabernaklearen zain zauden lebitarrei, Jaunak manatu bezala.
48. Eta armadako buruzagiek, eta mila gizonen eta ehun gizonen aitzindariak, Moisen gana hurbildurik, erran zioten:
49. Guk, zure muthilek, atheratu dugu gudularien nonbrea, gure esku azpiko izatu direnena; eta bat bakharra ez da eskatu.
50. Horren gatik bakhotxak Jaunari emateko ekhartzen ditugu buluzkinetan atzeman ahal izan ditugun urhezko gauza guziak, zangarretako

errezkun, erhi errezkun, esku-muthurreko, eta lephoko gatheak, othoitz egin dezazun guretzat Jaunari.

51. Moisek eta Eleazar aphezak hartu zituzten asko motetako urheria horiek oro,
52. Hamasei mila zazpi ehun eta berrogoi eta hamar siklo phisu zutenak, mila gizonen eta ehun gizonen aitzindarien eskuetarik.
53. Ezen bakhotxak berea zuen buluzkinean atzeman zuena.
54. Eta Moisek eta Eleazarrek lekhukotasuneko tabernaklean ezarri zuten hartu zuten urhea, Israelgo semeen orhoitzapentzat Jaunaren aitzinean.

### XXXII. KAP.

1. Bada, Errubenen eta Gaden semeek arthalde hainitz bazuten, eta hekiena zen nihonereko aberezko ontasuna. Eta ikhusi zutenean Jazer eta Galaad azienda hazteko lekhu onak zirela,
2. Ethorri ziren Moisen, Eleazar aphezaren eta populuko aitzindarien gana, eta erran zuten:
3. Ataroth, Dibon, Jazer, Nemra, Hekhon, Eleale, Saban, Nebo eta Beon,
4. Jaunak Israelgo semeen aitzinean jo duen lurra, ephaitza guziz gorria da azienden alhapidetzat: eta guk, zure muthilek, abere hainitz badugu;
5. Grazia aurkhitu badugu zure aitzinean, othoizten zaitugu iguzun guri, zure muthilei, lur hau gozatzera eta ez darokiguzun iraganaraz Jordaneko ura.
6. Moisek ihardetsi zioeten: Zuen anaiak goanen othe dira gudura, eta zuek hemen jarriko?
7. Zertako asaldatzen ditutzue Israelgo semeen gogoak, ausarta ez ditezentzat iragaitera Jaunak ematera dihoazkoten lekhura?
8. Ez othe zuten hola-hola egin zuen aitek Kadesbarnetik igorri nituenean lurraren begiztatzera?
9. Eta heldu izan ondoan Mahats-mulkhoko haranera, lekhu guzia ikhusirik, lotsatu zuten Israelgo semeen bihotza, sar etzitezen Jaunak hekiei eman eremuetan.
10. Eta Jaunak samurturik zin egin zuen, zioelarik:
11. Egiptotik igan diren gizon horiek, hogoi urtheko eta goitikoek, ez dute ikhusiko Abrahami, Isaaki eta Jakobi zin eginik agindu diotedan lurra, zeren etzaizkitan nahi izan jarraiki,



12. Lekhat Kaleb, Jephone Zenezarraren semea, eta Josue, Nunen semea: horiek ene nahia bethe dute.
13. Eta bere samurrean Israelen alderat, Jaunak berrogoi urthez mortuan inguruka erabili du, xahu zedin arteo haren aitzinean gaizkia egin zuen gizaldi guzia.
14. Eta huna, zioen Moisek, non jaikitzen zareten zuen aiten orde, gizon bekhatoros batzuen iraulgi eta ume, berharaztera Jaunaren hasarrea Israelen alderat.
15. Jaunari ez baduzue jarraiki nahi, populua mortuan utziko du, eta zuek izanen zarete ororen heriotzearen eragile.
16. Bada, hurbilago ethorritz, erran zuten: Hespilak eginen ditugu ardiertzat, eta heiak abereentzat, eta gure haurrentzat ere hiri hazkarrak:
17. Gu ordean harmak soinean eta gerriak tinkaturik gudura goanen gare Israelgo semeen aitzinean, ezar ditzagun arteo beren egonlekhuetan. Gure haur xeheak eta ditugun guziak geldituko dira hiri harrasiztatuetan, tokiko egoiliarren maltzurkerien beldurrez.
18. Ez gare gure etxeetara bihurtuko, Israelgo semeak beren ondoregoaren gozamenen sarthu arteo:
19. Eta ez dugu Jordanez haindian deusere bilhatuko, zeren jadanik uraz iguzki-alderat baitugu gure izantza.
20. Moisek erran zioeten: Egiten baduzue agintzen duzuen, eta Jaunaren aitzinean goaten bazarete gudurat abian,
21. Eta gerlako gizon guziek harmaturik iragaiten badute Jordaneko ura, Jaunak bere etsaiak herrauts ditzan arteo,
22. Eta lekhu guzia hari azpikotua izan dadien arteo: orduan izanen zarete hobengabe Jaunaren eta Israelen aitzinean, eta ardietsiren dituzue Jaunaren aitzinean nahi dituzuen ephaitzak.
23. Bainan erraten duzuen ez baduzue egiten, garbiki ikhusia da bekhatu eginen duzuela Jaunaren alderat: eta jakizue zuen bekhatuak harrapatuko zaituztela.
24. Egiokiztuzte beraz hiriak zuen hurrei, hespilak eta heiak zuen ardi eta abereei: eta hitzeman duzuen bethe zazue.
25. Gaden eta Errubenen semeek erran zioeten Moisi: Zure muthilak gare, eginen dugu gure Jaunak manatzen darokuna.
26. Galaadeko hirietan utziko ditugu gure haurrak, gure emazteak, arthaldeak eta abereak;
27. Gu ordean, zure muthilak, xuxendurik gerlara goanen gare guziak, zuk, Jauna, diozun bezala.

28. Moisek beraz manu eman zioeten Eleazar aphezari, eta Josue Nunen semeari, eta Israelgo leinu bakhotxeko familietako buruzagiei, erraten ziotelarik:
29. Baldin Gaden eta Errubenen semeek iragaiten badute Jordaneko ura zuekin harmaturik gerlara Jaunaren aitzinean, eta azpikotzen baduzue lekhu, hekiei emozuete goatzera Galaad.
30. Bainan ez balute zuekin harmaturik iragan nahi Kanaango lurrera, beren egonlekhua zuen artean har betzate.
31. Gaden semeek eta Errubenen semeek ihardetsi zuten: Jaunak bere muthilei erran bezala, hala eginen dugu.
32. Geror harmaturik goanen gure Jaunaren aitzinean Kanaango lurrera, eta aithorra ematen dugu gure gozameneko lurra jadanik hartua dugula Jordanez hunaindian.
33. Hargatik Moisek eman zioeten Gaden eta Errubenen semei, eta Josepen seme Manaseren leinu erdiari, Sehon, Amorhearren erregeren erresuma, eta Og, Basango erregeren erresuma, eta hekien lurra bere hiriekin inguruan.
34. Beraz Gaden semeek altxatu zituzten Dibongo, Atarotheko eta Aroergo hiriak,
35. Etroth, Sophan, Jazer eta Jegbaa,
36. Bethnemra eta Betharan, hiri hazkartuak, eta hespilak egin zituzten beren arthaldeentzat.
37. Aldiz Errubenen semeek altxatu zituzten Hefebon, Eleale eta Kariathaim,
38. Nabo eta Baalmeon eta Sabama ere, izenak itzuliz eta berriak emanez altxatu zituzten hiriei.
39. Bada, Manaseren seme Makirren umeak sarthu ziren Galaad herrian eta bazterrak xahutu zituzten, han zauden Amorhearrak hilik.
40. Moisek beraz Galaadeko lurra eman ziren Makirri, Manaseren semeari, zeinak han egin baitzuen bere egoitza.
41. Jair ere, Manasaren semea, goan zen eta nausitu zen herri batzuek, zeinak deithu baitzituen Habeth Jair, erran nahi da Jairren herriak.
42. Nobe goan zen halaber, hartu zuen Kanath bere herrixkekin, eta deithu zuen bere izenetik Nobe.

### XXXIII. KAP.

1. Haukiek dira Israelgo semeen egonaldiak, Egiptotik beren andanetan ilkhi zirenean Moisen eta Aaronen eskupean.



2. Moisek iskribatu zituen kanpa-lekhuka zeinetaz aldatzen baitziren Jaunaren manuz.
3. Israelgo semeak abiatu ziren beraz Erramesestik, lehenbiziko hila-bethean, hilabethearen hamabortzgarren egunean, Bazko biharamunean, Jaunaren eskupe indartsuan, Egiptoar guziek ikhusten zituztela,
4. Haukiek beren lehen-sorthuen ehorzten hari zirelarik, Jaunak jo zituen ondoan (ezen bere asperkundera hedatu zuen hekien jainkoen gainerraino).
5. Israelgo semeak kanpatu ziren Sokothena.
6. Eta Sokothetik ethorri ziren Ethamera, zeina baita mortuko buruburuan.
7. Handik ilkhirik, ethorri ziren Phihahirotheko parrera, zeina Beelsephoni begira baitago, eta kanpatu ziren Magdalumen aitzinean.
8. Phihahirothetik abiatu ziren iragan ziren itsasoaren erditik mortura; eta hirur egunez Ethamgo mortua gaindi ibilirik, kanpatu ziren Maran.
9. Eta Maratik abiatu ziren ethorri ziren Elimera, non baitira hamabi ithurri eta hirur hogeit hamar palma-ondo; eta han kanpatu ziren.
10. Handik ere atheraturik, kanpak landatu zituzten itsaso Gorriaren bazterrean. Itsaso Gorritik goanik,
11. Kanpatu ziren Sineko mortuan.
12. Handik ilkhirik, ethorri ziren Daskara.
13. Daskatik abiatu ziren kanpatu ziren Alusen.
14. Eta Alusetik atherarik, kanpak landatu zituzten Erraphidimen, non edateko ura populuari eskatu baitzitzaioen.
15. Erraphidimetik goanik, Sinaiko mortuan kanpatu ziren.
16. Sinaiko mortutik ilkhirik, ethorri ziren Zalekeriako ehorts-lekhura.
17. Zalekeriako ehorts-lekhutik atherarik, kanpatu ziren Haserotheren.
18. Haserotheretik ethorri ziren Errethmara.
19. Errethmatik goanik, kanpatu ziren Erremonpharesen.
20. Handik ilkhirik, ethorri ziren Lebnara.
21. Lebnatik Erresara kanpatzera goan ziren.
22. Erresatik atheraturik, ethorri ziren Zeelathara.
23. Handik abiatu ziren kanpatu ziren Sephergo mendian.
24. Sephergo menditik jautsirik, egin zuten Aradara.
25. Handik kanpatzera goan ziren Mazelothera.
26. Mazelotheretik abiatu ziren ethorri ziren Thahathara.
27. Thahathatik Tharera goan ziren kanpatzera.
28. Handik ilkhirik, Methkan landatu zituzten kanpak.
29. Methkatik Hesmonara goan ziren kanpatzera.

30. Hesmonatik abiatu ziren ethorri ziren Moserothera.
31. Moserotheretik kanpatzera goan ziren Benejaakanera.
32. Benejaakanetik egin zuten Galaadeko mendira.
33. Handik goanik, kanpatu ziren Jetebathan.
34. Jetebathatik ethorri ziren Hebronara,
35. Hebronatik ilkhirik, kanpatu ziren Asiongaberren.
36. Handik abiatu ziren ethorri ziren Sineko mortura, hura baita Kades.
37. Kadesetik atherarik, kanpatu ziren Horgo mendian, Edomen lurreko azken mugetan.
38. Eta Jaunak manaturik, Aaron apheza igan zen Horgo mendira: eta han hil izan zen Israel Egiptotik atherarikako berrogoigarren urthean, bortzgarren hilabethean, hilabethearen lehen egunean,
39. Seietan hogoi eta hirur urthe zituelarik.
40. Arad, errege Kananearrak, hegoaldean zagoenak, aditu zuen Israelgo semeak Kanaango lurrera heldu zirela.
41. Eta Horgo menditik jautsirik, Salmonan kanpatu ziren.
42. Handik ilkhirik, ethorri ziren Phunonera.
43. Phunondik Obothera kanpatzera goan ziren.
44. Obothetik ethorri ziren Ijeabarimera, zeina baita Moabitarren mugetan.
45. Ijeabarimetik goanik, kanpak landatu zituzten Dibongaden.
46. Handik atherarik, kanpatu ziren Helmondeblathaimen.
47. Helmondeblathaimetik ilkhirik, ethorri ziren Abarimgo mendietara, Naboko parrera.
48. Abarimgo mendietarik abiatu ziren iragan ziren Moabeko zelhaietara, Jordane gainean, Jerikoko parrean:
49. Eta kanpatu ziren Bethsimothetik Abelsatimeraino Moabitarren lekhu ordokienetan,
50. Non Jaunak Moisi erran baitzioen:
51. Manu emozuete Israelgo semeei, eta errozuete: Jordaneko ura iraganen duzue egunean, Kanaango lurrean sartzeko,
52. Xahu zatzue lekhu hortako egoiliarak oro; hauts zatzue orhoipeneko harriak, xehaka zatzue jainkomoldeak, eta debuila zatzue toki gorak,
53. Lurra xahu eginez han egoteko, ezen nik hori eman darotzuet goza dezazuentzat;
54. Eta zortean zathituko duzue zuen artean. Gehiago emanen diozue hainitz direnei, eta gutiago guti direnei. Zortea nola erortzen den,



hala batbederari iratxikiko zaio bere phartea, leinuka eta familiaka zathitua izanen da lurra.

55. Bainan ez bazintuzte hil nahi lekhuko egoiliarak, geldituko direnak izanen ditutzue itzeak begietan bezala, eta lantzak gerruntzeetan bezala, eta bihurtuko zaizkitzue zuen egonlekhuko lurtean.

56. Eta zerorriri eginen darotzuet horiei egiteko gogoan hartu nuena.

#### XXXIV. KAP.

1. Eta Jauna huneletan mintzatu zitzaioen Moisi:

2. Manu egiozue Israelgo semeei, eta errozue: Izanen zaretenean Kanaango lurrera sarthuak, eta zorteak berezirikako ontasunaz jabe, huna non geldituko diren mugak:

3. Hegoako aldea hasiko da Sineko mortutik, zeina baita Edomen ondoan, eta zedarrizat izanen du iguzkiko aldetik itsaso Gazia.

4. Mugek inguratuko dute hegoako ephaitza Harrobiaren bizkarra gaindi, Senan iragaiten diren bezala, eta hegoatik heltzen Kadesbarneraino, nondik zedarriak atherako baitira Adar deitzen den herrira, eta hedatuko Asemonaraino.

5. Eta muga goanen da inguruan Asemonatik Egiptoko errekaraino, eta itsaso handiaren bazterrean baratuko da.

6. Mendebaleko aldea berriz hasiko da itsaso handian, eta muga beraz hertsiko da.

7. Ipharreko ephaitzan berriz, mugak hasiko dira itsaso handitik, mendi gorenera heltzen direla,

8. Handik jautsiko dira Emathera, Sedadako mugetaraino,

9. Eta goanen dira Zephronara eta Enango herriraino: horiek izanen dira mugak ipharraldetik.

10. Handik mugek hartuko dute iguzkiko alderdia, Enango herritik Sephamaraino,

11. Eta Sephamatik zederrak jautsiko dira Erreblara, Daphningo ithurriaren parrera: handik helduko dira iguzkialdean Zeneretheko itsasora,

12. Eta hedatuko dira Jordaneraino, eta azken buru hertsia izanen dira itsaso Gaziaz, lur hori izanen duzue mugaz inguruan.

13. Eta Moisek manu eman zioten Israelgo semeei, erraten ziotelarik: Hori da lurra zorteka izanen duzuen, eta Jaunak ematea manatu duena bederatzit leinuri eta leinu erdi bati.

14. Ezen Errubenen semeen leinuak bere familiaka, eta Gaden semeen leinuak bere ahaidegoetako nonbrearen arabera, eta Manaseren leinuaren erdiak ere,

15. Erran nahi da bi leinu eta erdik, beren zathia hartu dute Jordanen hunaindian, Jerikoren parrean, iguzki-aldeetik.

16. Eta Jaunak Moisi erran zioen:

17. Lurra zuei bereziko darotzueten gizonen izenak haukiek dira: Eleazar apheza, Josue Nunen semea,

18. Eta leinu bakhotzeko buruzagi bakhotxa,

19. Zeinen izenak haukiek baitira: Judaren leinutik, Kaleb Jephonen semea,

20. Simeonen leinutik, Samuel Amiuden semea;

21. Benjaminen leinutik, Elidad Kaselonon semea;

22. Danen leinutik, Bokzi Jogliren semea;

23. Josepen umetarik, Manaseren leinutik, Haniel Ephoden semea;

24. Efraimen leinutik, Kamuel Sefthanen semea;

25. Zabulonon leinutik, Elisaphan Phamaken semea;

26. Isakarren leinutik, Phaltiel aitzindaria, Ozanen semea;

27. Aserren leinutik, Ahiud Salomiren semea;

28. Nefthaliren leinutik, Phedael Amiuden semea;

29. Horiek dira Jaunak manatu zituenak Israelgo semeei zathitzeko Kanaango lurra.

#### XXXV. KAP.

1. Jaunak hautzek ere erran ziozkan Moisi Moabeko zelhaietan, Jordaneko gainean, Jerikoko parrean:

2. Israelgo semeei mana zozuete, beren izanetarik, Lebitarri eman detzoten

3. Hiriak egoteko, eta hiripeak inguruan, berak hirietan egon ditezen, eta hiripeak arthaldeentzat eta abereentzat izateko;

4. Hiripeak hirietako harrasietarik kanpora inguruan hedatuko dira mila urhats.

5. Iguzki-aldera izanen dira bi mila beso, eta hegoako aldera orobat bi mila beso; itsasoko alderat ere, zeina mendebalari begira baitago, neurri bera izanen da, eta ipharreko alderdia hola-holako mugaz xedatuko da; eta erdian izanen dira hiriak, eta kanpoan hiripeak.

6. Bainan lebitarrei emanen diozkatzueten hiri horietarik, sei berezikk izanen dira ihesliarren laguntzeko, odola ixuri duenak harat ihes egin dezantzat: eta hekiez bertzalde, izanen dira berrogoi eta bi hiri,

7. Hori da, orotara berrogoi eta zortzi hiri beren hiripeekin.

8. Eta Israelgo semeen izantzetarik emanak izanen diren hiri horietarik, gehiena khendua izanen zaiote gehienik dutenei, eta gutiena gutie-





nik dutenei; eta baxhotxak bere izanaren arabera hiriak emanen diozkate lebitarrei.

9. Jaunak erran zioen Moisi:

10. Mintza zaite Israelgo semeei, eta errozute: Jordaneke ura Kanaango lurrera iragan dukezuenan,

11. Berez zatzue ihes-lekhu izan behar diren hiriak odola nahi gabe ixuri duten ihesliarrentzat.

12. Ihesliarra hekietan sarthuz geroz, hura ezin hil ahal dezan hilaren ahaideak, ager dadien arteo popularen aitzinera, eta haren egitekoa juiatua izan dadien arteo.

13. Eta ihes-lekhatzat bereziko diren hiri horietarik,

14. Hirur izanen dira Jordanez hunaindian eta hirur Kanaango lurrean,

15. Harat ihes egin dezan odola nahi gabe ixuri duenak, ixurtzailea izan dadien Israelgo semeetarik edo hekien artean dabilzan arrotzetarik.

16. Baldin norbaitek burdinaz jotzen badu, eta joa dena hil bada, hiltzeketaz hobendun izanen da, eta bera ere hila izanen da.

17. Baldin harria arthikitzen badu, eta joa dena hiltzen bada, bera orobat gaztigatua izanen da.

18. Egurraz joa izanik hil dena, joilearen odolaz aspertua izanen da.

19. Hilaren ahaideak hiltzailea hilen du: hilen du atzeman bezain sarri.

20. Baldin norbaitek herrakundez bulkhatu badu gizona, edo malzurkeriaz gainera zerbait arthiki badio,

21. Edo haren etsai izanez, eskuaz jo badu, eta hura hil bada, joilea hiltzeketaz hobendun izanen da: hilaren ahaideak atzeman orduko, zintzurra eginen dio.

22. Baldin gerthakariz, herrarik

23. Eta etsaitasunik gabe, horietarik zerbait egin badu,

24. Eta hori popularen aitzinean frogatua izan bada, eta odolezko egitatea xurritua izan bada hiltzailearen eta ahaidearen artean,

25. Hobengabe atheratua izanen da aspertzailearen eskuetarik, erabakiz bihurtua izanen da bere ihes-lekhuko hirira, eta han egonen da olio sainduaz gantzutua izan den aphez-handia hil dadien arteo.

26. Desterratuei erakhutsiak diren hirien mugetarik kanpo hiltzailea

27. Atzimana balitz, eta joa balitz odolaren aspertzaile denaz, hura hil lukeena hoben gabe litake.

28. Ezen ihesliarrak hirian egon behar zuen aphez-handia hil zedien arteo: baina hau hil den ondoan, heriotzegina bihurtuko da bere lurrera.

29. Manamendu haukiek bethi iraunen dute eta lege izanen dira egonen zaretan toki guzietan.

30. Heriotze-egilea, lekhukoak entzun ondoan, gaztigatua izanen da: nihor ez da kondenatuko lekhuko baxhar baten lekhukotasunaren gainean.

31. Odolaz hobendun denaren ganik ez duzue hartuko odol-saririk; bera izanen da berehala hila.

32. Desterratuak eta ihesliarrak niholaz-ere ezin bihurtuko dira beren hirietara, aphez-handia hil dadien aitzinean,

33. Beldurrez-eta khutsa dezazuen zuen egonlekhuko lurra, zeina nothatua izanen baita hobenik gabekoen odolaz: eta ez daiteke bertzela xahutua izan baizik-ere bertzeren odola ixuri duenaren odolaz.

34. Eta horrela xahu eginen da zuen lurra, eta ni egonen naiz zuekin. Ezen ni naiz Israelgo semeen artean nagoen Jauna.

### XXXVI. KAP.

1. Bada, Galaadeke familietako buruzagiak, Makirren semeak, zeina Manaseren semea baitzen, Josepen errotikakoa, hurbildu ziren eta Moisi mintzatu Israelgo buruzagien aitzinean, eta erran zuten:

2. Jaunak zuri, gure jaun zarenari, manatu darotzu lurra zortezaz zathi diozozuten Israelgo semeei, eta Salphaad gure anaiaren alabei eman diozozuten hekien aitari zorrikako ontasuna.

3. Baldin bertze leinu bateko gizonak hartzen badituzte emazte, beren ontasuna jarraikiko zaiote, eta bertze leinu batera iraganik, gure ondoregotik gutituko da.

4. Eta horreletan gerthatuko da, bozkariozko urthea ethortzen denean, erran nahi da bihurkundeko berrogoi eta hamargarren urthea, zorteen berezpena nahasiko dela, eta batzuen ona bertzeetara goanen dela.

5. Moisek ihardetsi zioeten Israelgo semeei, eta Jaunaren manuz erran zioeten: Josepen semeen leinua zuzen mintzatu da.

6. Eta lege hau ezarri du Jaunak Salphaaden alaben gainean: Ezkon beitez nahi dutenekin, baxharrak egin ditezen ber-beren leinuko gizonekin,

7. Israelgo semeen ondoregoa nahas ez dadien leinutik leinura. Ezen gizon guziek emazteak hartuko dituzte beren leinu eta ahaidegoan;

8. Eta emazteki guziek beren leinuko, senharrak hartuko dituzte, ondoregoa geldidientzat familietan,

9. Eta leinuak elkharren artean nahas ez ditezentzat, baina bai egon hala,



10. Nola Jaunaz bereziak izatu baitira. Salphaaden alabek egin zuten manatua izan zitzaioeten bezala,

11. Eta Maala, Thersa, Hegla, Melka eta Noa eskondu ziren beren aita-aldeko osabaren semeekin,

12. Manaseren familiatikakoak, zeina Josepen seme baitzen, eta hekiei emana izatu zen ontasuna gelditu zen hekien leinuan eta aitaren familian.

13. Horiak dira manamenduak eta erabakiak, Jaunak Moisen ararteko Israelgo semei igorriak, Moabeko zelhaitan, Jordane gainean, Jerikoko parrean.

## DUTERONOMA

### I. KAP.

1. Haukiek dira solasak Moisek Israel guziari erran ziozkanak Jordanez haindian, mortuko ordokian, itsaso Gorriaren parrean, Pharanen, Thophelen, Labanen eta Haserothern artean, urhe hainitz den tokian,

2. Horebetik hameka egunen bidean, Kadesbarneraino, Seirgo mendia gaindi ethortzean:

3. Berrogoigarren urthean, hamekagarren hilabethean, hilabethearen lehen egunean, Moisek erran ziozkaten Israelgo semei Jaunak hekiei errateaz manatu ziozkan guziak.

4. Jo zituen ondoan Sehon, Amorthearren errege, Hefebonen egoten zena, eta Og, Basango errege, Astarothern eta Edrain egoten zena,

5. Jordanez haindian, Moaben lurtean, Moise hasi zen legearen xehatzen, eta erraten:

6. Gure Jainko Jauna Horeben mintzatu zaiku, erraten darokularik: Aski egotu zarete mendi huntan.

7. Bihur zaitezte, eta zatozte Amorhearren mendira eta hari hurbil diren bertze lekhu zelhai, menditsu eta beheragoetara, eguerdi-aldera, eta itsas-bazterra gaindi, Kananearen lurterra eta Libango aurkhintzara Ufrateko hibai handiraino.

8. Eta erran zuen: Horra, eskuetara eman darotzuet, sar zaizte eta goza zazue lur hori, zeina zin eginez Jaunak, agindu baitiote zuen aitei, Abrahami, Isaaki eta Jakobi emanen ziotela berei eta beren ondokoei beren ondotik.

9. Eta nik orduan erran darotzuet:

10. Etzezaketet baxharrik egar, zeren zuen Jainko Jaunak berhatu baitzaitzute, eta egun bazarete zeruko izarrak bezenbat.

11. (Zuen arbasoen Jainko Jaunak oraino berha beza zuen nonbrea asko milaka, eta benedika betzaitzate erran duen bezala.)

12. Ez naiz baxharrik gai jasaiteko zuen egitekoak, karga eta makhurrak.

13. Indatzue zuetarik gizon zuhurrak eta jakinak, zeinen bizitzea frogatua izan baita zuen leinuetan, ezar detzatzuentzat zuen buruko.

14. Orduan ihardetsi darotazue: Ona da zuk egin nahi duzuna.



15. Eta zuen leinuetarik hartu ditut gizon zuhurrak eta ikhusiak, eta ezarri ditut zuen aitzindari, mila gizonen, ehunen, berrogoi eta hamarren, eta hamarren buruko, zuen argitzeko gauza bakhotxaren gainean.

16. Eta huneletan manu eman diotet: Entzun zatzue haukiek, eta zuen dena erabaki zazue, haina izan dadien herritarra edo arrotza.

17. Ez da ikhustaterik behar batetik bertzera, ttipia hala entzunen duzue nola handia; etzarete begiratuko nor nor den, zeren Jaunaren erabakia doha. Zerbait gaitzik ikhusten baduzue, ekhar zazue ene gana, eta entzunen dut nik.

18. Manatu narozkitzuen egin beharko zintuzten guziak.

19. Abiarurik beraz Horebetik, iragan ginen ikhusi duzuen mortu handi eta ikharagarria barna, Amorhearraren mendiko bidez, gure Jainko Jaunak manatu izan zarokun bezala. Eta Kadesbarnera heldu izan ginean,

20. Erran naroztuen: Helduak zarete Amorhearraren mendira, zeina eman gogo baitaroku gure Jainko Jaunak.

21. Ikusazue zuen Jainko Jaunak ematen darotzueten lurra; igan zaizte eta goza zazue, gure Jainko Jaunak zuen arbasoei erran dioten bezala: ez izan beldurrik, deusek-ere ez betzazte harri.

22. Orduan hurbildu zinezten guziak ni gana eta erran zinarotedan: Igor detzagun gizonak lurraren begiztatzera; eta erakhuts biazagute zein bidetarik igan behar garen eta zein hiritara egin behar dugun.

23. Eta nola solas hori ene gogarako baitzen, igorri nituen zuetarik hamabi gizon, leinu bakhotxetik bat,

24. Zeinak bideari lothurik eta mendietara iganik, goan baitziren Mahats-mulkhoko haraneraino; eta lurra begiz jo ondoan,

25. Hango fruituetarik harturik, erakhustekotzat lurraren aberastasu-na, gutara ekharri zituzten eta erran zarokuten: Ona da gure Jainko Jaunak eman gogo darokun lurra.

26. Eta etzinenen igan nahi izatu, baina gure Jainko Jaunaren hitzari sinhetsgaitz,

27. Zuen olhetan erauntsiaka haritu zineten, eta erran zintuten: Jaunak higuin gaitu, eta hargatik erakharri gaitu Egiptoko lurretik, gure arthikitzeke Amorhearraren eskura eta gure xahutzeko.

28. Norat iganen gare? mandatariek laztu dute gure bihotza, erranez: Oste gaitza da han, eta irazkiz gu baino larriagoa; hiriak handiak dira eta zeruraino hazkartuak: han ikhusi ditugu Enaken semeak.

29. Eta erran naroztuen: Ez betzazte izi, eta ez izan hekien beldurrik.

30. Jainko Jauna, zuen bidari dena, bera zuen alde gudukaturen da, Egipton egin den bezala, guzien agerian.

31. Eta mortuan (zerorreke ikhusi duzue), zuen Jainko Jaunak ekharri zaituztete, gizon batek besotan ekhartzen ohi duen bezala bere haur ttipia, ibili zareten bide guzian, toki huntara heldu izan zareten arteo.

32. Eta halere etzinduten sinhetsi zuen Jainko Jauna,

33. Bidean zuen buruan ibili dena, eta zuen kanpak landatu behar zinduzten tokia berezi duena, gabaz zuei bidea erakhusten zuelarik suaz, eta hedoiezko habeaz egunaz.

34. Eta Jaunak aditu zuenean zuen erasietako haroa, samurturik zin egin zuen eta erran:

35. Gizaldi guziz gaixto huntako gizonetarik nihork ez du ikhusiren lur on, zin eginez zuen arbasoei agindu nuen hori.

36. Lekhat Kalebek Jephonen semeak; ezen harek ikhusiren du, eta hari emanen diot oin-petan erabili duen lurra eta haren semei ere, zeren jarraiki izan den Jaunari.

37. Eta ez da harrizterik populuaren alderako gaitzidura hortaz, ene alderat ere zuen gatik samurturik erran duenaz geroz: Ez-eta zu ere etzaze han sarthuko;

38. Baina Josue Nunen semea, zure zerbitzaria, sarthuko da zure orde; gogo bero zozu, hazkar zazu, ezen harek Israeli zortera zathituko dio lurra.

39. Zuen ilobasoak, zeinetaz erasi baituzue gathibu eramatekoak direla, eta zuen Seme, onetik gaizkirako adimendua egun oraino ez dute-nak, horiek sarthuko dira agindu lurrean; eta bereri emanen diotetet eta gozatuko dute.

40. Baina zuek bihur zaizte; mortura zoazte itsaso Gorriko bidez.

41. Orduan ihardetsi zinarotedan: Jaunaren alderat bekhatu egin dugu; iganen gare eta gudukaturen, gure Jainko Jaunak manatu duen bezala. Eta nola harmaturik mendia gora baitzinhazteten,

42. Jaunak erran zarodan niri: Errozute: Ez igan, eta ez guduka, ezen ez naiz zuekin; beldur izan zaizte erortzeko zuen etsaien aitzinean.

43. Mintzatu nintzen, eta ez ninduzuen entzun: baina Jaunaren manuari bihurri eginez, eta hanpuruskeriaz betheak, mendia gora goan zinezten.

44. Hargatik, mendietan zagoen Amorhearra ilkhirik, eta zuei bidera atheraturik, jarraiki zitzaitezuen erleak jarraikitzen ohi diren bezala; eta Seirretik Hormaraino hilka eraman zintuzteten.



45. Eta itzulirik nigarrez zinauztenean Jaunaren aitzinean, etzintuz-teten entzun, eta etzituen onhetsi nahi izan zuen othoitzak.

46. Luzez egotu zinezten beraz Kadesbarnen.

## II. KAP.

1. Eta handik abiatu, ethorri ginen itsaso Gorrira deraman mortura, Jaunak niri erran zarotan bezala, eta luzez ibili ginen Seirgo mendia-  
ren inguruan.

2. Eta Jaunak erran zarotan:

3. Aski ingurakatu duzue mendi hori; zoazte ipharraldera.

4. Eta populuari manu-egiozu, erraten diozularik: Iraganen zarete Seirren dauden Esaturen seme zuen anaian mugak gaindi, eta zuen beldur izanen dira.

5. Artharekin begira zaizte beraz hekiei jazarrik egitetik; ezen hekien lurretik ez darotzuet emanen oinak egin dezakeen hatza bera ere, zeren Esauri eman baitiot Seirgo mendia gozatzera.

6. Jatekoak dirutan erosiko eta janen dituzue; ura erosirik hartuko duzue, eta edanen.

7. Zure Jainko Jaunak benedikatu zaitu zure eskuetako egintza guzi-tan; ezagutu du zure bidea, nola iraganen zinduen mortu handi hau, berrogoi urthez zurekin zagoelarik zure Jainko Jauna, eta deus etzauzu eskastu.

8. Eta iragan gintuenean gure anaia Esaturen semeak, Seirren zaude-zinak, Elatheko eta Asiongaberreko bide zelhaia barna, ethorri ginen Moabeko mortura deraman bidera.

9. Eta Jaunak erran zarotan: Ez bezazu gudu eman Moabitarrei, eta ez egin horiei gerlarik: ez darotzut ezen batere emanen horien lurretik, zeren Lothen semeei eman baitiotet Ar gozatzera.

10. Emitarrak izan ziren horko lehenbiziko egoiliarak, populu larria eta hazkarra, eta Naiz gorak nola Enaken odolekoak,

11. Digantetzat iragaiten ziren, eta Enaken semeak bezalakoak ziren. Horren gatik Moabitarrek deitzen dituzte Emitarrak.

12. Seirren ordean lehenbizitik egotu dira Horhearrak, zeinak irazi-rik eta xahaturik, han jarri ziren Esaturen semeak, Israelek egin duen beza-la bere gozameneko lurrean, zeina Jaunak eman baitio.

13. Jaikirik beraz Zaredeko erreka iragaiteko, hartara ethorri ginen.

14. Bada, Kadesbarnetik Zaredeko erreka iragan-lekhuraino ibili garen denbora, izatu da hogoi eta hemezortzi urthe: orduko gerlarien gizaldia kanpetarik ezeza zedien arteo, Jaunak zin egin izan bezala:

15. Haren eskua hekien kontra izatu da, galarazteko zat kanpen erditik.

16. Eta gudutako gizonak oro hil izan ziren ondoan,

17. Jauna mintzatu zarotan, zioelarik:

18. Egun iraganen dituzu Moabeko mugarriak eta Ar deitzen den hiria.

19. Eta hurbiltzearekin Amonen semeen hauzora, begira zaite hekiei gudu ematetik, eta ez abia gudura: ezen ez darotzut emanen Amonen semeen lurretik, zeren hura Lothen semeei eman baitiotet gozatzera.

20. Digante lur aiphatua da: eta beihala hartan egotu dira diganteak, Amontarrek Zomzomtarrek deitzen zituztenak.

21. Populu larria eta saihera handikoa, eta irazkiz Enaktarrak bezain luzea, zeina Jaunak Amontarren aitzinetik xahutu baitzuen, eta hekiek jarrazazi haren orde,

22. Seirren zauden Esaturen semeen alde egin izan zuen bezala, Horhearrak xahutuz, eta hekien lurra emanen Esaturen semeei, zeinek gozaten baitute oraidinokoan.

23. Hebearrak ere, Haserimen Gazaraino zaudenak, iraziak izatu ziren Kapadoziarrez, zeinek Kapadoziatik ilkhirik, xahutu baitzituzten, eta hekien lekhuan jarri baitziren.

24. Jaiki zaizte, eta iragan zazue Arnongo erreka: horra non zure eskura eman dudan Sehon, Hefebongo Amorhearren errege, eta has zaizte haren lurraren gozaten, eta haren kontra gudu emazue.

25. Egun abiatuko naiz zure beldurraren eta ikhararen hedatzen zeru guziaren azpian dauden populuen gainera: zure izena entzutearekin izi ditezentzat, eta erditzeko minekin direnak bezala laztuak eta oinhazeak josiak egon ditezen.

26. Kademotheko mortutik mandatariak igorri nituen beraz bakezko solasekin Sehon Hefebongo erregeri, niolarik

27. Iraganen gare zure lurretik, bide handiz ibiliko gare, ez gare mak-hurtuko ez eskuin ez ezker.

28. Jatekoak dirutan salzkigutzu, jan dezaguntzat: iguzu dirutan ura, eta haletan edanen dugu. Ez dugu galdegiten iragaitera utz gaitatzun baizik,

29. Esaturen seme, Seirren daudenak, eta Arren dauden Moabitarrek egin duten bezala, Jordanera hel gaitezen arteo, eta iragan gaitezen gure Jainko Jaunak eman gogo darokun lurrera.



30. Sehon, Hefebongo erregek etzarokun eman nahi izatu iragan bidea, zeren zure Jainko Jaunak gogortu baitzuen haren izpiritua eta hazkartu haren bihotza, hura zure eskuetara ezartzea gatik orai ikhusten duzun bezala.

31. Eta Jaunak erran zarotan niri: Horra non hasi naizen Sehon eta bere lurraren zuri eskuetara ematen; abia zaitezi lur horren gozaten.

32. Eta Sehon bere populu guziarekin aitzinera ilkhi zarokun Jasan gudu ematera.

33. Eta gure Jainko Jaunak eskuetan ezarri zarokun: jo ginduen hura bere seme eta populu guziarekin.

34. Eta orduan hartu izan gintuen hiri guziak, hango egoiliarrak hilik, gizon, eta emazteki, eta haur; ez ginduen hekietan bakhar bat ere utzi,

35. Aziendez landan, zeinak erori baitziren gudularien eskuko, eta hirietako buluzkin hartu gintuenez landan.

36. Aroertik, zeina baita Arnongo erreken bazterrean, haranean jarria den hiri bat, Galaaderaino ezen izatu ez herririk ez biririk gure eskuei itzuri zenik: gure Jainko Jaunak eskuetaratu zarozkun guziak,

37. Lekhat Amonen semeen lurra, zeinari ez baikare hurbildu izan, eta Jebokeko errekarari dauden guziak, eta mendietako hiriak, eta gure Jainko Jaunak debekatu darozkun lekhuak oro.

### III. KAP.

1. Itzulirik beraz, igan ginen Basango bideaz: eta Og, Basango errege, ilkhi zen gure aitzinera bere populu guziarekin Edrain gudu ematera.

2. Eta Jaunak erran zarotan niri: Ez izan horren beldur, zeren zure eskuan ezarria baita bere populu guziarekin eta bere lurrarekin: eta horri eginen diozu, Sehon, Amorhearren errege, Hefebonen egotu denari egin izan diozun bezala.

3. Gure Jainko Jaunak eskuetaratu zarozkun beraz Og ere, Basango errege eta haren populu guzia; eta hiltzeraino jo gintuen,

4. Ordu berean xahutzen gintuelarik hango hiri guziak. Hiri bakhar bat etzitzaikun itzuri, hirur hogoi hiri, Argobeko bazterra oro, Ogenpekoa Basanen.

5. Hiri guziak harrasi gaitzez hazkartuak ziren, athe eta hagekin, aip-hatu gabe hiri harrasirik etzutenak khonda ahal baino gehiago.

6. Eta hil gintuen egoiliarrak, Sehon, Hefebongo erregeri egin ginerozkien bezala, herrausten gintuelarik hiri guziak, gizon, emazteki eta haurrak hilez:

7. Eraman gintuen ordean aziendak eta hirietako buluzkinak.

8. Ordu hartan jabetu ginen beraz lurraraz, Jordanez hunaindian ziren Amorhearren bi erregeen eskutik, Arnongo errekatik Hermongo mendiraino,

9. Zeina Sidoniarrek deitzen baitute Sarion, era Amorhearrek Sanir: 10. Hartu gintuen ordokiko hiri guziak, eta Galaadeko eta Basango lur guzia, Selkaraino eta Edrairaino zeinak baitira Ogen-peko hiriak Basanen.

11. Og, Basango errege, bakharrak ezen gelditua zen diganteen odoletik. Erakhusten dute haren burdinazko ohea, zeina baita Errabathen, Amonen semeen hirian: luzera ditu bederatzi beso, eta zabalera lau, gizonaren ukharaieko besoaren neurritik.

12. Eta lurraren gozamenetan sarthu ginen orduan Aroertik, zeina baita Arnongo erreken bazterrean, Galaadeko mendiaren erdiraino: eta Errubeni eta Gadi eman niozkaten hango hiriak.

13. Galaadeko bertze zathia ordean, Basan guzia, Ogen-pekoa, eta Argobeko lurra oro eman nituen Mansferen leinu erdiari. Eta Basan guzia deitzen da Diganteen lurra.

14. Jair, Manaseren semeak gozaten du Argobeko lurra oro Jesuriko eta Makatiko mugetaraino. Eta Basan deithu zuen bere izenetik Haboth Jair, erran nahi baita Jairen herriak, egungo eguna arteo.

15. Halaber Makirri eman nioen Galaad.

16. Eta Errubenen eta Gaden leinuetakoei eman niotzaten Galaadeko lurretik Arnongo errekarari, erreken erdiraino, eta mugak Jebokeko errekaraino, zeina baita Amonen semeen zedarria;

17. Eta mortuko zelhaia, eta Jordanea, eta Zeneretheko mugak Mortuko itsasoraino, zeina baita guziz guzia, Phasgako mendi azpian iguzki-haize alderat.

18. Ordu hartan manu eman narotzuen, niolarik: Zuen Jainko Jaunak lur hau ematen darotzute ondokoen ondoko; gizon hazkar guziak zoazte harmaturik Israelgo seme zuen anaien aitzinean,

19. Zuen emazte, haur eta aziendak utzirik. Badakit ezen abere hainitz baditutzuela, eta egon beharko dira nik eman darozkitzuetan hirietan,

20. Jaunak zuen anaiei eman dezoten arteo phausua, zuei eman izan darotzueten bezala, eta berek ere goza dezaten arteo Jaunak Jordanez haindian eman gogo dioten lurra: orduan norbera itzuliko da nik zuei eman lurraren gozatzeraz.

21. Josueri halaber ordu hartan eman nioen manu, erraten niolarik: Zure begiek ikhusi izan dute errege horiei bie zer egin izan dioeten zuen



Jainko Jaunak orobat eginen dioete erreinu guzietara iragan beharrrak baitzare.

22. Ez bezedi izan hekien beldur: ezen zuen Jainko Jauna zuen alde gudukaturen da.

23. Ordu hartan othoitz egin izan nioen Jaunari, niolarik:

24. Jainko jauna, abiatu zare zure sehiari erakhesten zure handitasuna eta zure esku guziz hazkarra: ezen ez da ez zeruan ez lurrean bertze Jainko bat zure egintzak egin detzakeenik, ez-etare zure indarrari hurbiltzeko denik.

25. Iraganen naiz beraz, eta ikhusiren ditut Jordanez haindiko lur guziz on hura, eta mendi guziz eder hura eta Libana.

26. Eta Jauna samurtu zitzaitan zuen gatik; ez ninduen entzun izan, bainan erran zarotan: Aski da zuri; ez niri gehiago hortaz aipha.

27. Igan zaite Phasgako gainera, eta zure begiak inguruan erabil zatzu mendebalera eta ipharrera, hegoara eta iguzki haizera, eta begira zazu; ezen ez duzu iraganen Jordaneko ur hori.

28. Manu emozu Josueri, hazkar eta borthitz zazu hura; ezen hura bera goanen da populu hunen aitzinean, eta harek zathituko dioete ikhus-tera zoazen lurra.

29. Eta haranean egotu izan ginen, Phogorreko tenploaren parrean.

#### IV. KAP.

1. Eta orai, Israel, entzun zatzu nik irakhasten darozkitzutan manamendu eta erabakiak, haukiek bethez bizi zaitezentzat, eta sarthurik goza dezazuntzat zuen aiten Jainko Jaunak ematera dohakizuen lurra.

2. Ez duzue berhatuko nik erraten darotzuetan hitzari, eta ez diozue khenduko: begira zatzue zuen Jainko Jaunaren manamendu nik ematen darozkitzuetanak.

3. Ikhusi dituzte zuen begiek Jaunak egin dituen guziak Beelphegorren kontra, nola zuen erditik xahutu dituen haren adoratzai-leak oro.

4. Bainan zuek, zuen Jainko Jaunari iratxikiak zaudeztenak, guziak egungo eguna arteo bizi zarete.

5. Badakizue manamenduak eta erabakiak zuei irakhatsi darozkitzue-tala, ene Jainko Jaunak niri manatu bezala: hola betheko ditutzue gozatze-  
ra zohazten lurrean.

6. Eta begiratuko eta egitatez betheko ditutzue. Hau da ezen zuen zuhurtzia eta adimendua populuen aitzinean, non entzunik lege haukiek

oro, erranen baitute: Horra populu bat zuhurra eta adimendutakoa, jendaki bat handia.

7. Ez da bertze jendaia bat hain handia, zeinak baitituke jainkoak hurbiltzen zaizkoenak, gure Jainkoa gure othoitz guzietan lekhuko den bezala.

8. Ezen non da bertze jendaia bat hain ederretsia, non baitituzke zeremonia, erabaki zuzen eta lege bat osoa, nik egun zuen begien aitzinean ezarriko dudana bezalakoa?

9. Arduratsuki begira zatzu beraz zure burua eta zure arima. Ez ahantz zure begiek ikhusi izan dituzten gauzak, eta ez beitez gal zure gogotik zure bizitzeko egun orotan. Irakhatsiren diozkatzute zure seme eta ilobasoei,

10. Zure Jainko Jaunaren aitzinean Horeben jarri zinen egunetik, Jauna niri mintzatu izan zenean, zioelarik: Populua ene aitzinera bilaraz zazu, orok entzun detzaten ene hitzak lurraren gainean bizi diren guziko ikhas dezaten ene beldur izaten, eta beren semeei ere irakhats diotzotenzat.

11. Eta mendia sutan zagoelarik zeruetaraino, hurbildu zineten haren oinetara: eta han ziren ilhunbeak, hedoiak eta gobela.

12. Eta suaren erditik mintzatu zitzaizuen Jauna. Aditu izan zinuten haren solasetako mintzoa, eta moldurarik batere ikhusi etzinuten.

13. Eta erakhutsi zarotzueten begiratzeko manatu zarotzuen batasuna, eta hamar manamenduak ere, har-lauzetan iskribatu izan zituenak.

14. Eta orduan manatu zarotan irakhats netzatzuen zeremonia eta erabakiak begiratu beharko zinituztenak gozatze-  
ra zohazten lurrean.

15. Arduratsuki zain zatzue beraz zuen arimak. Ez duzue idurikeriari-  
rik batere ikhusi izan, Horeben suaren erditik Jauna zuei mintzatu zen egunean:

16. Beldurrez-eta lilurakeriaz zuentzat egin zinezaten giza edo ema iduri edo itxura zerbeit,

17. Edo lurraren gainean diren edozein abereena, edo zeru-pean hegaldatzen diren hegastinena,

18. Edo lurrean herrestatzen diren zierpeena, edo luphean uretan egoten diren arrainen:

19. Eta beldurrez, begiak zerurat altxatu-eta, ikhus zinetzaten iguzkia, ilhargia eta zeruko izarrak oro, eta enganioak liluraturik hekiek adora zinetzaten, eta gur egin zinezaten Jaunak zeru-pean diren jendaki guzientzat egin izan dituen argizagiei.



20. Bada zuek Jaunak hartu zaituzte eta atheratu Egiptoko burdinazko sutegitik, izatea gatik bere primantzako populu bat, egungo egunean den bezala.

21. Eta Jauna ene kontra samurtu da zuen erasien gatik, eta zin egin du ez dudala Jordaneke ura iraganen, eta ez naizela sarthuko zuei ematera dihoakizuen lur guziz onean.

22. Huna bada hiltzen naizela toki huntan eta ez dudala iraganen Jordanea; zuek iraganen duzue, eta gozatuko zarete lur eder hartaz.

23. Israel, berautzu behinere ahantz zure Jainko Jaunak zurekin egin duen batasuna: berautzu egin Jaunak egitetik debekatu darozkitzun hekien itxura bernuzaturik;

24. Zeren zure Jainko Jauna su erregarri bat, Jainko bekhaizkor bat baita.

25. Semez eta ilobasoz aitatzen bazarete, eta lur hartan egoten, eta zoraturik egiten baduzue itxura zerbait, gaizkia zuen Jainko Jaunaren aitzinean eginez, hura hasarrera jauzarazteko;

26. Zerua eta lurra egun lekhuko galdegiten ditut, laster xahutuak izanen zaretela, Jordanea iraganik gozatzera zohazten lurretik; etzarete han luzez egonen, bainan ezeztatuko zaituztete Jaunak,

27. Eta barraiatuko jendaia guzietara, eta gutiak geldituko zarete jendaien artean, zeinetara eramanen baitzaituzte Jaunak.

28. Eta han zerbitzatuko ditutzue jainkoak gizonen eskuz eginak zurez eta harriz, ikhusten ez dutenak, aditzen ez dutenak, jaten ez dutenak, usnatzen ez dutenak.

29. Eta han zuen Jainko Jauna bilhatzen duzuenan, aurkhituren duzue, baldin hargatik bilhatzen baduzue zuen bihotz oroz eta zuen ari-mako atsekabe guziz.

30. Aitzinetik erranak zaizkitzuen guziek atzeman zaituzteten ondolan, noizbait bihurtuko zarete zuen Jainko Jauna ganat, eta entzunen duzue haren boza,

31. Zeren zuen Jainko Jauna, Jainko urrikalmendutsu bat baita: etzaituztete utziko, ez-eta alde bat xahutuko, ez-etare ez du ahantziko zuen aitekin zin eginikako batasuna.

32. Galde egizu beihalako egunez, zure aitzinean izatu direnez, Jainkoak lurraren gainean gizona egin izan zuenetik, heian zeruaren buru batetik bertzeraino horrelakorik nihoiz egin izan den, edo egundaino ikhusi,

33. Populu batek aditzeko suaren erditik mintzatzen den Jainkoaren mintzoa, zuek aditu duzuen bezala, eta bizi zarete oraino;

34. Heian Jainkoak egin izan duen sarthu dela eta beretzat hartu duela jendaki bat jendaien erditik frogapenez, seinalez eta sendagailaz, guduz, esku hazkarrez eta beso zabalez, eta izigarriko agerpenez, zuentzat zuen Jainko Jaunak Egipton egin izan duen bezala, zuen begien aitzinean;

35. Jakin dezazuentzat Jauna bera dela Jainkoa, eta hartaz bertzerik ez dela.

36. Zerutik adiarazi darotzue bere mintzoa, zuen argitzeko, eta lurraren gainean erakhutsi darotzue bere su guziz handia, eta haren hitzak aditu ditutzue suaren erditik,

37. Zeren zuen aitak maithatu baititu, eta hekien ondolik hautatu duen hekien ondoregoa. Eta Egiptotik atheratu zaituztete zuen aitzinean ziholarik bere indar handian,

38. Zuen sarpenean xahu zetzantzat jendaia guziz handiak eta zuek baino azkarragoak; eta sarraraz zetzaztentzat, eta gozatzera eman zetzazuen hekien lurra, egungo egunean ikhusten duzuen bezala.

39. Jakin zazue beraz egun eta gogoan har zazue Jauna bera dela Jainkoa zeru gainean eta lur behean, eta bertzerik ez dela.

40. Begira zatzue beraz orai nik ematen darozkitzuetan haren manu eta manamenduak, ongi gertha dakizuen zuei, eta zuen semeei zuen ondolik, eta luzez egon zaitetzen zuen Jainko Jaunak eman gogo darotzueten lurrean.

41. Orduan Moisek berezi zituen Jordanez haindian hirur hiri iguzkihaize alderat,

42. Hekietarat itzur zedintzat bere lagunari ustekabeko heriotzea eman ziokeena, hura bere etsai izatu gabetarik ez egun bat ez eta bi egun lehenago, eta hiri hekietarik batera ihes egin ahal zezantzat.

43. Hiri hekiek ziren Bosor mortukoa, zeina baita Errubenen leinuko lur ordokian; Erramoth Galaadekoa, zeina baita Gaden leinuan; eta Golan Basangoa, zeina baita Manaseren leinuan.

44. Hori da legea Moisek Israelgo semeen aitzinean ekharri zuena,

45. Eta horiek dira lekhukotasunak, zeremoniak eta erabakiak Israelgo semeei erran ziozkatenak, Egiptotik atheratu zirenean,

46. Jordanez haindian, Phogorreko tenploaren parreko haranean, Hefebonen egotu eta Moisek jo izan zuen Sehon Amorhearren erregeren lurrean. Eta Israelgo semeek, Egiptotik ilkhirik,

47. Gozatu zuten haren lurra eta Og Basango erregearena, horiek baitziren Amorhearren bi erregeak, Jordanez haindian zaudenak iguzkihaize alderat,



48. Aroerdik, zeina baita Arnongo erreka bazterrean, Siongo mendiraino, zeina orobat deitzen baita Hermon,

49. Ordoki guzia Jordanez haindian, iguzki-haize alderat, Mortuko itsasoraino, eta Phasgako mendi azpiraino.

### V. KAP.

1. Eta Moisek deithu izan zuen Israel guzia, eta erran zioen: Adi zatzu, Israel, zeremonia eta erabaki nik zuen beharrietara heltzen ditudanak: ikhas zatzue eta obretan ezar.

2. Gure Jainko Jaunak gurekin Horeben batasun egin izan du.

3. Ez du gure aitekin egin patu, bainan bai gurekin, orai hemen garen eta bizi garenekin.

4. Mendian bekhos bekho suaren erditik mintzatu izan zaiku.

5. Orduan Jaunaren eta zuen artean ni izatu naiz ararteko eta bitarteko, haren solasak zuei ekhartzeko; ezen suaren lotsa zineten, eta etzineten igan, eta erran zuen:

6. Ni naiz zure Jainko Jauna, Egiptoko lurretik eta gathibutasuneko etxetik atheratu zaitudana.

7. Ez duzu jainko arrotzik ene aitzinean izanen.

8. Ez duzu zuretzat eginen eskuzko jainkorik ez-etare itxurarik zeru gainean diren gauzenik, ez lur behean direnenik, ez-eta uretan luphean direnenik.

9. Ez ditutzu hekiek adoratu, ez-etare zerbitzatu. Ni naiz ezen zure Jainko Jauna, Jainko bekhaizkorra, aiten gaixtakeria haurretan bilhartzten dudana hirugarren eta laugarren belhaunean ere ni gaitzirizkotan nadukatenen baithan,

10. Eta mila miletan ondokoen-ondoko guphidesten ditudana ni maite nautenak eta ene manamenduak begiratzten dituztenak.

11. Ez duzu alferretan erabiliko zure Jainko Jaunaren izena: zeren ez baita gaztigurik gabe geldituko haren izena gauza hutsetan erabiliko duena.

12. Begira zazu larunbateko eguna, haren sainduesteko, zure Jainko Jaunak manatu izan darotzun bezala.

13. Sei egunez hariko zare lanean, eta eginen ditutzu zure egiteko guziak.

14. Zazpigarren eguna larunbatekoa da, erran nahi da zure Jainko Jaunaren phausua. Hartan ez duzu lanik batere eginen, ez zuk, ez zure semeak, ez alabak, ez muthilak, ez neskatoak, ez idiak, ez astoak, ez edo-

zein aziendak, ez zure atheen barnean den arrotzak: zure muthil-neskatoak zu bezala phausa ditezentzat.

15. Orhoit bekizue zerorrek Egipton gathibu egotu zaretela, eta handik zuen Jainko Jaunak ilkhi zaituztela esku hazkarrak eta beso zabalaz. Horren gatik manatu darotzue begira dedazuen larunbateko eguna.

16. Hora zatzu zure ait-amak, zure Jainko Jaunak manatu darotzun bezala, luzez bizi zaiten, eta ongi gertha dakizuntzat zure Jainko Jaunak eman gogo darotzun lurrean.

17. Ez duzu hilen.

18. Etzare linburkerian khutsatuko.

19. Ez duzu ohointzarik eginen.

20. Ez duzu lagunaren kontra gezurrezko lekhukotasunik erranen.

21. Ez duzu irrisik ekharriko lagunaren andreari, etxeari, landari, muthilari, neskatoari, idiari, astoari, eta haren edozein gauzari.

22. Horiek dira hitzak Jaunak mendian suaren erditik zuen oste guziaren aitzinean goraki erran zituenak, gehiagokorik gabe: eta horiek iskribatu zituen niri eman zarozkitan bi har-lauzen gainean.

23. Bainan zuek mintzoa ilhunbeen erditik aditurik, eta mendia sutan ikhusirik, ni gana hurbildu zinezten leinuetako buruzagiak, eta adinez zaharrenak, eta erran zinarotetan:

24. Horra non gure Jainko Jaunak erakhutsi darozkun bere maiestatea eta handitasuna: haren mintzoa suaren erditik entzun dugu; eta frogapen egun egin izan dugu, Jainkoa gizonari mintzaturik, gizona bizirik gelditu dela.

25. Zertako beraz hilen gare eta iretsiko gaitu su guziz handi horrek? Ezen baldin berriz aditzen badugu gure Jainko Jaunaren mintzoa, hilen gare.

26. Zer da edozein haragi, suaren erditik mintzatzten den Jainko biziaren mintzoaren entzuteko, eta bere bizi ahal izatekotzat gero?

27. Hobekitzat zu hurbil zaitezi: eta adi zatzu gure Jainko Jaunak erranen darozkitzun guziak: gero guri erranen darozkigutzu, eta guk entzun-eta, hekiek eginen ditugu.

28. Hori entzun zuenean Jaunak, erran izan zarotan: Aditu izatu dut populu horrek zuri erran dituen solasetako mintzoa; ongi erranak dira guziak.

29. Nork eginen du izan dezaten halako gogo bat, non ene beldur izanen baitira, eta ordu oro begiratuko baitituzte ene manamendu guziak, ongi hel ditezen bethi guzian berak eta beren semeak?

30. Zoaz eta errozue: Bihur zaitezte zuen olhetara.





31. Eta zu zaude enekin, eta erranen darozkitzut zuri ene manamenduak, zeremoniak eta erabakiak; zeinak irakhatsiren baitiozkatzue, bethe detzatentzat nik goatzera eman gogo diotedan lurrean.

32. Begira zatzue beraz eta egin Jainko Jaunak zuei manatu dituenak: etzarete ez eskuinera ez ezkerrera makhurtuko:

33. Bainan zuen Jainko Jaunak manatu bidez ibiliko zarete, bizi zaitentzat, ongi gertha dakizuen, eta zuen egunak luza ditezen zuen gozameneko lurrean.

## VI. KAP.

1. Haukiek dira manamendu, zeremonia eta erabakiak zuen Jainko Jaunak manatu dituenak, nik zuei irakhasteko, eta zuek bethetzeko goatzera orai zohazten lurrean:

2. Zuen Jainko Jaunaren beldurra izan dezazuentzat, eta begira detzatzuen haren manu eta manamendu guziak, nik mezutzen darozkitzuetanak zuei, zuen semeei eta ilbasoei, zuen biziko egun orotako, luza ditezentzat zuen egunak.

3. Adi zazu, Israel, eta begira, Jaunak zuri manatuak egin detzatzun, eta ontsa gertha dakizuntzat, eta berhatuz goan zaitentzat, zure arbasoen Jainko Jaunak agindu darotzun bezala esne eta ezti darioen lurra.

4. Adi zazu, Israel: Gure Jainko Jauna, Jaun bakharra da.

5. Zure Jainko Jauna maithatuko duzu zure bihotz guziaz, zure arima guziaz, zure indar guziaz.

6. Eta zure bihotzean izanen dira egun nik manamendutan ematen darozkitzutan hitz haukiek:

7. Eta erranen diozkatzu zure semeei, eta zure gogoa haukietan erabiliren duzu zure etxean jarria zaudezinean, bidean zabiltzanean, lotarakoan eta atzartzean.

8. Eta lothuko dituzu orhoitgailu bat zure eskuan bezala, izanen eta erabiliko dira zure bi begien artean;

9. Eta iskribatuko dituzu zure etxeko athelasean eta atheetan.

10. Eta zure Jainko Jaunak zure arbaso Abrahami, Isaaki eta Jakobi zin eginez agindu dioeten lurrean sarrarazi zaitukeenean; eta eman darozkitzukeenean zuk egingabeko hiri handi eta guziz onak,

11. Zuk egingabeko etxe onthasun guziez betheak, zuk zilhatugabe-ko urtegiak, zuk landatugabe-ko mahasti eta olibadiak;

12. Eta jan dukezuean, eta asea zaretekeenean:

13. Arduratsuki begira zaitte ahanztetik Jauna, Egiptoko lurretik, gathibusuneko lurretik ilkhi zaituena. Zure Jainko Jaunaren beldur izanen zare, hura bakharrik zerbitzatuko duzu, eta zin haren izenaz eginen duzu.

14. Zuen inguruan diren edozein jendakiren jainko atzean ondolik ibiliko etzarete,

15. Ezen Jainko bekhaizkorra da, zure erdian den Jainko Jauna, beldurrez-eta zure kontra suta dadien Jaunaren hasarrea, eta khen zaitzan lurraren gainetik.

16. Ez duzu frogapenetan ezarriko zure Jainko Jauna Froga-lekhun egin izan duzun bezala.

17. Begira zatzu zure Jainko Jaunaren manamenduak, lekhukotasun eta zeremonia mezutu darozkitzunik;

28. Eta egizu Jaunaren aitzineko on eta gogaragari dena, ontsa gertha dakizun, eta sarthurik goza dezazun lur guziz on hura, zeinetaz Jaunak zin egin baitu zure arbasoei,

19. Zure etsai guziak zure aitzinean xahutuko dituela, erran izan duen bezala.

20. Eta geroan zure semeak galde eginen darotzunean, dioelarik: Zer erran nahi dute lekhukotasun horiek, zeremonia eta erabaki gure Jainko Jaunak mezutu darozkigunek?

21. Erranen diozu: Faraonen gathibu ginen Egipton, eta Jaunak esku hazkarrean eraiki gaitu Egiptotik;

22. Ikhuskari eta sendagaila handiak eta gogorrenak Egipton egin izan ditu gure begien aitzinean Faraonen eta haren etxe guziaren kontra,

23. Eta handik eraiki gaitu, sararazirik eman zezagun lurra, zeinaren gainean zin egin baitzuen gure aitei.

24. Eta Jaunak manatu daroku begira detzagun lege horiek oro, eta gure Jainko Jaunaren beldur izan gaitezen, ontsa hel gaitentzat gure bizitzeko egun guzietan, egun gerthatzen den bezala.

25. Eta gure alderat urrikalmendutsu izanen da, baldin begiratzen eta bethetzen baditugu haren manamendu guziak gure Jainko Jaunaren aitzinean, manatu izan darokun bezala.

## VII. KAP.

1. Eta goatzera sarthuko zaren lurrera zure Jainko Jaunak barnertuko zaituenean, eta zure aitzinean xahutuko dituean jendaki asko, Hetharrak, eta Jerjesarrak, eta Amorhearrak, Kananearrak, eta Pherezarrak, eta Hebearrak, eta Jebusearrak, zazpi jendaia zu baino osle hainitz handiagokoak eta hazkarragoak;



2. Eta zure Jainko Jaunak zuri eskura emanen darozkitzunean, joko dituzu heriotzeraino. Ez duzu hekiekin batasunik eginen, eta etzazkiote urrikalduko;

3. Eta ez duzu hekiekin ezkontzarik josiko. Ez diozu zure alabarik haren semeari emanen, eta ez duzu haren alabarik zure semeari onhetsiko,

4. Zeren-eta zure semea bilduko baitu niri ez jarraikitza, eta nahia-go izatera jainko atzeak zerbitzatu; eta jauziko da Jaunaren hasarrea, eta ordu berean xahutuko zaitu.

5. Aitzitik lehenago hau eginen diozu: lurrerat arthikatzu haren alda-reak, phorroka zatzu haren jainkomoldeak, ebak lukuak, eta erre itxura bernuzatuak;

6. Zeren baitzare zure Jainko Jaunari sainduetsi populu bat. Zure Jainko Jaunak zu hautatu zaitu, izan zakiozkientzat populu bere-berea lurraren gainean diren populu guzien artetik.

7. Jauna ez da zuei batu, eta etzaitzute hautatu bertze populu guziak ostetan xitzen zintuztelakotz, bertze populuak oro baino aphurra-goak zineztenean:

8. Bainan bai zeren Jaunak maithatu baitzaitzute eta begiratu baitu zuen arbasoei egin zioeten zina: eta esku hazkarrean eraiki zaitzute, eta gathibusuneko etxetik berrerosi, Faraon Egiptoko erregeren eskutik.

9. Eta jakinen duzu nola zure Jainko Jauna bera den Jainko hazkar eta fidela, bere patua eta urrikalpena mila gizalditaraino begiratzen diotena bera maite dutenei eta bere manamenduen zaintzailei:

10. Eta berehala bihurtzen diotena gaitzirizkotan dadukatenei, hale-tan non ezeztatzen baititu, eta luzatzen ez baitu, han berean merezitua bihurtuz.

11. Begira zatzu beraz manamendu, zeremonia eta erabaki nik egun bethetzeaz mezutzen darozkitzutanak.

12. Baldin erabaki haukiek entzun ondoan, idukitzen eta bethetzen badituzu, zure Jainko Jaunak ere begiratu darozkitzu batasuna eta zure arbasoei zin eginez agindurikako urrikalpena;

13. Eta maithatuko zaitu, eta berhatuko, eta benedikatuko ditu zure sabeleko fruitua, eta zure lurreko fruitua, ogia eta mahatsa, olioia eta abere larriak, eta ardi-arthaldeak, lur hartan, zeina zuri emanen zarotzula zin egin baitiote zure arbasoei.

14. Benedikatua izanen zare populu guzien artean. Zure baithan ez da izanen urrix-orotsetan agorrik, ala gizonetan, ala abereetan.

15. Jaunak zu ganik urrunduko ditu ahuldura guziak; ez ditu zure gainera ekharriko ezagutu dituzun Egiptoko gaitz guziz gaixtoak, bainan helduko ditu zure etsai guzien gainera.

16. Iretsiko ditutzu zure Jainko Jaunak eskuetaratu darozkitzun populu guziak. Zure begiak ez ditu guphidez utziko, eta ez ditutzu hekien jainkoak zerbitzatu, zure galbide izan ez ditezentzat.

17. Egin bazineza zure baithan: Jendaia horiek ni baino ostez gehia-go dira, nola xahutuko ahal ditut?

18. Ez lotsa, bainan orhoit bekizkitzu zure Jainko Jaunak Faraoni eta Egiptoar guziei egin diotena,

19. Zure begiek ikhusi dituzten izurri gaitzak, eta ikhusariak, eta sendagailak, eta esku hazkarra, eta beso zabala, zure Jainko Jaunak erabiliak zure eraikitze, lotsatzen zaituzten populu guziei hala-hala eginen diote.

20. Gainerako, zure Jainko Jaunak listorak ere igorriko ditu hekien gainera, oro xahu detzaneraino, eta gal detzaneraino zuri itzuriak eta gorde ahal izan direnak.

21. Etzare hekien beldur izanen, zeren zure erdian baita zure Jainko Jauna, Jainko handi eta ikharagarria.

22. Jendaia hekiek berak urthuko ditu zure aitzinean emeki-emeki eta zathika. Ezin xahutuko ditutzu oro batean, beldurrez-eta lurreko basa ihi-ziak berha ditezen zure kontra.

23. Eta zure Jainko Jaunak eskuetara emanen darozkitzu, eta herioz joko ditu arras xahutuak izan ditezen arteo.

24. Eta hekien erregeak eskuetaratu darozkitzu, eta zeruen-petik ezeztatuko ditutzu hekien izenak: nihork ezin buru eginen darotzu hekiek zathikatu dituzun arteo.

25. Hekien obra bernuzatuak suz erreko dituzu: ez duzu irrtsik izanen urhe eta zilhar halako egiten erabiliarentzat; eta hekietarik ez duzu zuretzat deusere hartuko, etzedientzat hobendun jar, zeren-eta hats baitzaizko zure Jainko Jaunari.

26. Eta idolatik ez duzu den-gutiena zure etxean sarthuko, anathema bilhaka etzedientzat, hura bera den bezala. Higuin izanen duzu hala nola-nola puska zikhin bat, eta gauza khutsakor, eta satsu bat bezala hats izanen zaitzu, zeren den anathema.

## VIII. KAP.

1. Ardurarekin zaude egun nik manatzen darozkitzudan manamendu guzien begiratzera, bizi ahal izan zaitezentzat, eta berha zaitezten, eta sart-hurik goza dezazun lurra, zeintaz Jaunak zure arbasoei zin egin izan baitu.



2. Eta orhoituren zare bide guziaz zeintaz Jaunak berrogoi urthez mortua barna erakharri baitzaitu, zure gaztigatzeko, eta frogatzeko, eta agerian ezartzeko zure bihotzaren barnean zagoena, heian haren manamenduak zainduko zintuen, ala ez.

3. Jateko eskasiaz jo zaitu, eta mana, zuk eta zure aitek ezagutzen etzindutena, hazkurritzat eman izan darotzu, zuri erakrustekotzat gizona ez dela ogi hutsean bizitzen bainan Jaunaren ahotik ilkhitzen den hitz guzitan.

4. Huna berrogoi urthe, larrua estaltzen zarotzun soinekoa, ez dela behinere ihetxeduraz hautsi, eta zure oinetakoak ez direla phorrokatu:

5. Zure gogoan iharduk dezazuntzat, gizonak bere semea argitzen duen bezala, orobat argitu zaituela zure Jainko Jaunak;

6. Begira detzatzuntzat zure Jainko Jaunaren manamenduak, eta haren bidean ibil zaitezen, eta haren beldurra izan dezazun.

7. Ezen zure Jainko Jaunak sarraraziko zaitu lur on batean, laes eta ur eta ithurrietako lurrean, zeinetako mendi zelhaietara erausten baitira ibaien sorth-buruak:

8. Ogi, garagar eta mahats lurrean, zeintan sortzen baitira pikoak, mingranak eta olibak: olioaren eta eztiaren lurrean;

9. Zeintan eskasiarik batere gabe janen baituzu zure ogia, eta gauza guzietako nasaiziaz gozatuko baitzare; zeintako harriak burdinak baitira eta zeintako mendietarik atheratzen baitira kobre mokhorrak:

10. Jan eta ase ondoan, benedika dezazuntzat zure Jainko Jauna eman darotzun lur guziz ona gatik.

11. Atzar emazu eta begira zaite behinere ahanztetik zure Jainko Jauna, eta uztetik haren manamendu, erabaki eta zeremonia, nik egun manatzen darozkitzutanak,

12. Beldurrez-eta jan eta ase ondoan, etxe ederrak egin dituzketzunean, eta hekietan zaudezinean,

13. Idi-arthalde eta ardi-arthalde, zilhar eta urhe, eta gauza ooren nasaizia dukezunean,

14. Hant dadien zure bihotza, eta ez dadien orhoit zure Jainko Jaunaz, Egiptoko lurretik eta gathibusuneko etxetik atheratu zaituenaz;

15. Zure bidari izatu denaz mortu zabal eta ikharagarrian, zeinetan baitziren suge hatsaz erretzen zuena, harrobia eta dipsa, eta urik baterez; harri gogorrenetik ur turrustak jauzarazi dituenaz,

16. Eta mortuan hazi zaituenaz manarekin, zeina ez baitzuten zure aitek ezagutzen. Eta gaztigatu eta frogetan ezarri zaituen ondoan, azke-  
nean urrikaldu zaitzu,

17. Erran etzinezan zure gogoan: Ene hazkartasunak eta besoko indarrak eskuratu darozkit niri haukiek guziak:

18. Bainan orhoit zaitezen zure Jainko Jaunaz, zeren berak eman daro-  
akitzun indarrak bethetzekotzat berekilako patua, zeinaren gainean zin egin izan baitiote zure arbasoei, egungo egunak erakusten duen bezala.

19. Bainan zure Jainko Jauna ahantzirik, jainko atzeei jarraitzen bazare, eta zerbitzatzen eta adoratzen badituztu, huna non orai aitzinetik erraten darotzudala guziz-guzi galduko zarela,

20. Jaunak zure sartzean jendaiak xahutu dituen bezala, hala-hala zuek ere galduko zarete, baldin zuen Jainko Jaunaren bozari ethordun ez bazarete izaten.

## IX. KAP.

1. Adi zazu, Israel, egun iraganen duzu Jordaneko ura, jabe zaitezentzat jendaki handinez eta zu baino hazkarragoez, hiri handi eta zeruraino harrasiztatuez,

2. Populu larri eta irazkiz gaitz, Enaken seme, ikhusi eta aditu dituztuzenez, zeinei nihork buru egin ez baitezokete.

3. Jakinen duzu beraz egun zure Jainko Jauna bera zure aitzinean iraganen dela, su jale eta erregarri bat iduri, zeinak hekiek herraustuko, xahutuko eta galduko baititu aphur batez zure begien aitzinean, berak erran izan darotzun bezala.

4. Zure Jainko Jaunak zure aitzinean xahutu ditukeenean, ez bezazu erran zure bihotzean: Ene zuzentasuna gatik Jaunak sarrarazi nau lur hunen gozatzera, beren inpiokerien gatik xahutuak direnaz geroz jendaia haukiek.

5. Ezen etzare zure zuzena gatik eta zure bihotzeko zuzentasuna gatik sarthuko lur horien gozatzera: bainan zu sartzean, xahutuak izanen dira, zeren inpioki bizi izan diren; eta Jaunak bethe dezantzat bere hitza, zinekin aginduz emana zuen arbasoei, Abrahami, Isaaki eta Jakobi.

6. Jakizu beraz zure Jainko Jaunak ez darotzula zure zuzenen bidez gozaterat emanen lur guziz on hori, buru gogorreko populu bat zarenaz geroztik.

7. Orhoit zaitezi eta ez bekizu ahantz, nola hasarretzera erakharri izan duzun zure Jainko Jauna mortuan. Egiptotik ilkhi zaren egunetik lekhu huntaraino bethi Jaunaren kontra erasiaka haritu zare:

8. Ezen-eta narritatu duzu Horeben, eta hasarreturik xahutu nahi zintuen.



9. Mendi gainera igan nintzanean hartzera har-lauzak, Jaunak zuekin egin zuen batasuneko har-lauzak; eta mendian egon nintzen berrogoi gau-egunez, ogirik jaten eta urik edaten ez nuelarik.

10. Eta Jaunak eman zarozkitan bi har-lauza Jainkoaren erhiaz iskribatuak, eta zaduzkatenak mendian suaren erditik erran zituen solas guziak, populuko baldarna bildua zagoenean.

11. Berrogoi egun eta bertze hainbertze gau iragan zirenean, Jaunak erran zarozkitan bi har-lauza, batasuneko lauak,

12. Eta erran zarotan: Xuti zaite, eta hemendik laster jauts zaite, zeren Egiptotik erakharri duzun zure populua laster makhurtu baita erakhutsi diozun bidetik, eta beretzat jainkorde urthu bat egin baitu.

13. Eta berriz Jaunak erran zarotan: Ikhusten dut populu hori buruz gogorra dela:

14. Utz nezazu xehaka dezadan, eta horren izena zeruaren-petik ezeztat dezadan, eta hori baino handiagoa eta hazkarragoa den populu baten gainean ezarriko zaitut.

15. Eta sutan zagoen menditik jausten nintzelarik, eta batasuneko bi lauak bi eskuez naduzkalarik;

16. Eta ikhusi nuenean bekhatu egin zinetela zuen Jainko Jaunaren kontra, eta egin zinetela zuentzat aratxe urthu bat, eta laster makhurtu zinetela haren bide erakhutsi zarotzuenetik,

17. Arthiki nituen lauak eskuetarik, eta hautsi nituen zuen aitzinean.

18. Eta lehen bezala, ahuspez erori nintzen Jaunaren aitzinean, berrogoi gauegunez ogirik jaten eta urik edaten ez nuelarik, Jaunaren kontra egin zintuzten bekhatu guzien gatik, eta zeinetaz hura hasarretzera erakharri baitzinduten.

19. Ezen lotsatu ninduten haren sumindurak eta hasarreak, zeinak zuen kontra subermaturik, xahutu nahi baitzintuzteten. Eta aldi hartan ere Jaunak entzun izan ninduen.

20. Aaronen kontra ere borthizki hasarreturik, nahi zuen xahutu, eta harentzat halaber errekeitu nuen.

21. Hartu nuen gero zuen bekhatugailu egin zindutena, erran nahi da aratxea eta suan erre nuen; eta puskaturik, eta dena herrautsetan ezarririk, arthiki nuen menditik jausten zen ur-errekara.

22. Erre-lekhun ere, eta Froga-lekhun, eta Zalekeriako ehortz-lekhun narritatu zinduten Jauna.

23. Eta noiz-etare Kadesbarnetik igorri baitzintuzten, zioelarik: Zoazte eta goza zaizte nik zuei eman lurraz, erdeinatu duzue orduan ere

zuen Jainko Jaunaren manua, ez diozue sinheste hartu, eta ez duzue entzun nahi izan haren boza:

24. Bainen bihurri izatu zarete bethi, ezagutzen hasi zaituztedan egunetik.

25. Eta ahuspez egon nintzen Jaunaren aitzinean berrogoi gau-egunez, zeinetan errekeitzuz errekeitzen bainuen, zuek ez xahutzeko, dixidatu zuen bezala;

26. Eta othoiztuz erran nioen: Jainko Jauna, ez bezazu xahu zure populua, eta zure primantza zure indarraren handiaz berrerosi duzuna, Egiptotik esku hazkarrean eraiki dituztunak.

27. Orhoit bekizkitzu zure zerbitzari Abraham, Isaak eta Jakob: ez bezedi begira populu hunen gogortasunari, inpiokeriari eta bekhatuari,

28. Beldurrez-eta gu eraiki gaituzun tokiko egoiliarrek erran dezaten: Jaunak agindu zioeten lurrean ezin sarraraz zetzakeen, eta gaitzets zituen: horren gatik eraiki ditu mortuan galarazteko zat.

29. Haukiek zure populu eta primantza dira, zure indarraren handiz eta besoko zabaltasunaz eraiki dituztunak.

## X. KAP.

1. Ordu hartan Jaunak erran izan zarodan: Aphaint zatzu bi har-lauza lehenekoak ziren bezala, eta ene gana mendira igan zaite: eta zurezko khutxa bat eginen duzu;

2. Eta lauzetan iskribatuko ditut lehenago hautsi dituztunetan ziren hitzak, eta gero khutxan ezarriko dituztu.

3. Khutxa beraz setim zurkiz egin nuen. Eta bi har-lauza aphaindu nituenean lehenekoak bezala, hekiek eskuetan, igan nintzen mendira.

4. Eta Jaunak lauzen gainean iskribatu zituen, aitzinean egin izan zuenaren arabera, hamar manamenduak, zuei mendian suaren erditik adiarazi zarozkitzuenak, populua bildua zagoenean: eta eman zarozkitan niri.

5. Eta itzuli nintzen eta menditik jautsi, eta egin nuen arkhan ezarri nituen lauak, zeinak orai arteo han egon baitira, Jaunak niri manatu bezala.

6. Bada, Israelek kanpak higitu zituen Berothetik, Jakanen semeena zenetik, Moserara, non hil eta ehortzi baitzen Aaron, zeinaren orde, apheztasuna jauntzi baitzuen haren Seme Eleazarrek.

7. Handik ethorri ziren Gadgadera: toki hortarik abiatuak kanpatu ziren Jeteathan, uretako eta erreketako lurrean.

8. Ordu hartan Jaunak berezi zuen Lebiren leinua Jaunaren batasuneko arkharren erabiltzeko, eta haren aitzinean jartzeko eginbidetan, eta haren izenean benedikatzeko haritzeko eguna arteo.



9. Horren gatik Lebig ez du izatu ez zathirik ez ontasunik bere anaiekin, zeren Jauna bera baita haren ontasuna, zure Jainko Jaunak agindu zioen bezala.

10. Bada, ni mendian egotu nintzen, aitzinean bezala, berrogoi gauegunez: eta Jaunak aldi hartan ere entzun ninduen, eta etzintuen galdu nahi izan.

11. Eta erran zarotan niri: Zoazi, eta popularen buruan ibil zaite, sar ditezen eta goza dezaten lurra, zeina emanen diotedala zin egin baitiotet horien aitei.

12. Eta orai, Israel, zer galdatzen darotzu zure Jainko Jaunak, baizikere izan dezazun zure Jainko Jaunaren beldurra eta ibil zaitezen haren bideetan, maitha eta zerbitza dezazun zure Jainko Jauna zure bihotz oroz eta zure arima guziz,

13. Eta begira detzatzun Jaunaren manamendu eta zeremonia nik egun mezutzen darozkitzutanak, ongi hel dakizuntzat?

14. Ikhusten duzu zure Jainko Jaunarenak direla zerua, eta zeruko zerua, lurra eta lurrean diren guziak:

15. Eta bizkitartean zure aitekin bat egin da Jauna, eta maithatu ditu, eta hautatu ditu hekien ondokoak hekien ondotik, erran nahi da zuek, populu guzien artetik, egun froga egiten den bezala.

16. Ingrebak ezazue beraz zuen bihotza eta ez bezazue gogor gehiago zuen burua;

17. Zeren zuen Jainko Jauna baita jainkoen Jainkoa, jaunen Jauna, Jainko handi, ahaldun eta ikharagarria, zeina nor nor den, ez-eta emaitzei begiratzen ez baita.

18. Alhargunari eta umezurtzari zuzena bihurtzen diote, maite du arrotza eta ematen dio jatekoa et jaunztekoa.

19. Eta zuek ere beraz maitha zatzue, arrotzak, zeren zerorrek ere arrotz izatu zareten Egiptoko lurrean.

20. Zure Jainko Jaunaren beldur izanen zare, eta hura bakharra zerbitzatuko duzu: hari berari iratxikia egonen zare, eta haren izenaz zin egingin duzu.

21. Hura bera da zure ospea eta zure Jainkoa, zure begiek ikhusi dituzten sendagaila handi eta ikharagarriak egin dituen.

22. Zure aitak hirur hogoi eta hamar arima ziren Egiptora jautsi zirenean: eta orai huna non zure Jainko Jaunak berhatu zaituen zeruko izarrak bezala.

## XI. KAP.

1. Maitha zazu bada zure Jainko Jauna eta begira zatzu haren manamenduak, zeremonia eta erabakiak bethi eta bethi.

2. Ezagut zatzue egun zuen hurrek ez dakitena, ikhusi ez dituztelakotz zuen Jainko Jaunaren azurrialdiak, haren sendagailak, esku hazkarra eta beso zabala,

3. Ikhusariak eta egintzak Egiptoaren erdian egin izan dituenak Faraonen eta haren eremu guziaren,

4. Egiptoarren armada guziaren, zaldien eta orga-lasterren gainean: nola estali zituzten itsaso Gorriko urek, zuen ondotik jarraitzen zirelarik, eta nola Jaunak xahutu zituen, egungo egunean oraino ageri den bezala.

5. Orhoit zaitezte zuen alderateko haren egintzez mortuan, lekhu huntara heldu izan zareten arteo;

6. Eta Dathanez eta Abironez, Errubenen seme Eliaben semeez; zeinak iretsi baitzituen lurra bere ahoa idekirik, Israelen erdian zituzten etxe, olha eta puska guziekin.

7. Zuen begiek ikhusi dituzte Jaunak eginikako egintza handi guziak,

8. Begira detzatzuentzat nik egun mezutzen darozkitzuetan haren manamenduak oro, eta abala izan dezatzuentzat barneratzeko, eta gozatzeko lurra zeintan sartzen baitzarete,

9. Eta luzez bizi zaitezentzat lur hartan, zeinari esnea eta ezta baitario, eta zeina Jaunak zin eginez agindu baitu zuen aitei eta hekien ondolikakoei.

10. Ezen zuek gozatzeko sarthuko zareten lurra ez da zuek ilkhi zareten Egiptoko lurra iduri, zeinetan hazia arthiki ondoan, urzatzeko urak erakhartzen baitira, baratzetako egiten ohi den bezala:

11. Bainan da menditsu eta ordokitsua, zeruko urien begira egoten dena,

12. Zeina bethi ikhuskatzen baitu zure Jainko Jaunak, eta hunen begiak urtheburu batetik bertzera haren gainean daude.

13. Erortzen bazarete beraz nik egun ematen darozkitzuetan manamenduetara, zuen Jainko Jauna maithatuz eta zerbitzatuz zuen bihotz oroz eta arima guziz,

14. Harek zuen lurrari emanen dio goizaroko uria eta berantarokoa, bil dezazuen ogi, arno, olio,

15. Sorho-belhar azienda bazkatzeko, eta zerorrek jan dezazuen eta ase zaitezten.

16. Berautzue zora ez dadien zuen bihotza, eta gibela zaitezten Jauna ganik, zerbitza eta adora detzatzuen jainko atzeak;



17. Beldurrez Jaunak herts dezan zerua, uriak eror ez ditezen, eta lurrak eman ez dezan bere fruitua, eta laster gal zaizten Jaunak ematera dihoakizuen lur guziz on hartarik.

18. Hitz haukiek sarkitzue zuen bihotzetan eta arimetan; orhoitgailu bat bezala eskuetarik eman zatzue dilindan, eta ezar zatzue bi begien artean.

19. Zuen semeek gogotan haukiek erabil detzatentzat, irakats zotzue-te jarriko zaretenean zuen etxean, bidean zihoaztenean, etzanen eta jaiki-ko zaretenean;

20. Iskriba zatzu zure etxeko atheetan eta athe-habeetan,

21. Berha ditezentzat zure egunak eta zure semeenak lur hartan, zeina Jaunak zin eginez zuen aitei agindu baitiote emanen diotela, zeruak lurra estaltzen dueno.

22. Ezen nik ematen darozkitzuetan manamenduak begiratzen eta bethetzera badituzue, zuen Jainko Jauna maithatuz, eta haren bideetan ibiliz, hari iratxikiak egoten zareztelarik,

23. Jaunak xahutuko ditu jendaia horiek oro zuen begien aitzinean, eta nausituko zarete zuek baino gehiago eta hazkarrago direnez.

24. Zuen oinak oinkatuko duen lur guzia zuena izanen da. Zuen mugak izanen dira mortutik eta Libanetik, Ufrateko ibai handitik iguzki-sartzeko itsasoraino.

25. Nihork ez du zuen aitzinean ihardukiko: zuen Jainko Jaunak zuen beldurra eta ikhara hedatuko ditu oinkatzera zihoazten lur ooren gainean, zuei erran izan darotzuen bezala.

26. Huna non egun zuen aitzinean ematen ditudan benedizioea eta madarizioea;

27. Benedizioea, baldin ethordun izaten bazarete zuen Jainko Jaunaren manamenduei, egun nik mezutzen darozkitzuetanei;

28. Madarizioea, baldin zuen Jainko Jaunaren manamenduei bihurri egiten badiozue, ilkhitzen bazarete nik egun erakhusten darotzuetan bidetik, eta ezagutzen ez dituzuen jainko arrotzen ondolik ibiltzen bazarete.

29. Bada, zuen Jainko Jaunak sarraraziko zaituztenean egoteko zihoazten lurrean, benedizioea atheratuko duzue Garizimgo mendi gainean, madarizioea Hebalgo mendian,

30. Zeinak baitira Jordanez haindian, iguzki-sartzera dohan bidearen bertze aldean, Galgalako parrean zelhaitan dagoen Kananearren eremuan, eta Galgala da urrunera bedatzen eta sartzen den haran baten bazterrean.

31. Zuek ezen iraganen duzue Jordaneke ura, gozatzekotzat zuen Jainko Jaunak ematera dihoakizuen lurrean, hartako jabe eta gozatzaille izan zaitezten.

32. Iklusazue beraz bethe detzatzuen nik egun zuen aitzinean ezarriko ditudan zeremoniak eta erabakiak.

## XII. KAP.

1. Jauna bethe behar dituzuen manamendu eta erabakiak zuen aiten Jainko Jaunak eman gogo darotzuen lurrean, hura goza dezazuentzat lurraren gainean ibiliren zaretan egun guzietako.

2. Azpikoaz-gora ezar zatzue lekhu guziak zeinetan nausitzera zihoazten lurreko jendeek adoratu baitituzte beren jainkoak mendi goretan eta munhoetan, eta zuhaitz hostotsu guzien azpian.

3. Xehaka zatzue hekien aldareak, porroska giza-moldeak, suz erre lukuak, eta idolak zathika: hekien izenak ezezta zatzue lekhu hekietarik.

4. Halakorik ez diozu eginen zure Jainko Jaunari:

5. Bainan ethorriko zarete zuen Jainko Jaunak zuen leinu orotarik hautatu duen lekhurat han bere izenaren ezartzeko eta bere egoitzaren egiteko;

6. Eta lekhu hartan eskainiko dituzue zuen holokaustak eta bitimak, zuen eskuetako lanen fruituetako hamarrenak eta pikainak, zuen botu eta emaitzak, idietako eta ardietako lehen-sorthuak.

7. Eta han janen duzue zuen Jainko Jaunaren aitzinean, eta boztuko zarete, zuek eta zuen etxekoak, zuen Jainko Jaunak benedikatu dituen zuen eskuetako lan guziez.

8. Han ez duzue eginen guk orai hemen egiten duguna, batbederari zuzen iduri zaiotena.

9. Ezen etzarete oraino heldu phausura eta zuen Jainko Jaunak eman gogo darotzuen gozamenera.

10. Jordaneke iraganen duzue, eta zuen egoitza eginen duzue zuen Jainko Jaunak ematera dihoakizuen lurrean, inguruko zuen etsaietarik gerizan phausa zaitezten eta beldurkunderik batere gabe egon zaiteztentzat.

11. Zuen Jainko Jaunak hautatu dukeen lekhuan han izan dedientzat haren izena; harat ekharriko dituzue manatzen darozkitzuetan guziak, holokausta, bitima, hamarren, zuen lanetako fruituen pikain, eta Jaunari botuz emanen darozkitzuen emaitzetako gauza hautak.

12. Han eginen dituzue zuen Jainko Jaunaren aitzinean bozkariozko barazkariak, zuek, zuen seme eta alabek, muthilek eta neskatok, eta zuen



hirietan egoten den lebitarrak; ezen ez du zuen artean bertze pharterik ez ontasunik.

13. Berautzu zure holokaustak eskaintzetik ikhusiko duzun edozein lekhotan,

14. Bainan Jaunak zure leinuetarik batean hautatu dukeen lekhotan eskainiko ditutzu zure bitimak, eta nik manatzen daruzkitzutan guziak eginen ditutzu.

15. Baizik-eta jan nahi baduzu eta lakhet bazarotzu haragizko janharria, hil zazu eta jan zure Jainko Jaunak zure hirietan eman darotzun benedizionearen arabera; aberea izan dedien lohia, hori da, narriotua eta erkitua; edo xahua, erran nahi da osasuneko eta narriogabea, eskaintzea zilhegi dena, ahuntza eta orena bezala, jan zazu;

16. Bakharrik ez jan odola, zeina ura bezala lurrerat ixuriko baituzu.

17. Zure hirietan ezin janen ahal ditutzu zure ogi, arno eta olioaren hamarrena, idietako eta arthaldeetako lehen-sorthuak, botu eginikako guziak eta zure oldetara eskaini nahiko ditutzunak, eta zure lanetikako fruituen pikainak:

18. Bainan zure Jainko Jaunaren aitzinean janen ditutzu, zuk, zure seme-alabek, muthil-neskatoek, eta zure hiritan dagoen lebitarrak, zure Jainko Jaunak berezi dukeen tokian; eta zure Jainko Jaunaren aitzinean boztuko eta onthuruntzatuko zare, eskua hedatuko diotzuten guziekin.

19. Berautzu lurraren gainean zaudeno lebitarra bazterrerat uztezik.

20. Zure Jainko Jaunak zabaldu ditukeenean zure mugak, agindu izan darotzun bezala, eta jan nahiko ditutzunean zure barnea tirriatzen den haragietarik;

21. Bainan zuen Jainko Jaunak hautatu dukeen lekhotan, haren izena han izan dadien, urrun balitz, dituzun idietarik eta arthaldeetarik hilen duzu nik manatu bezala, eta janen duzu zure hirietan, atsegin duzun bezala.

22. Hartarik janen duzu, ahuntzkia eta orenkia jaten den bezala: eta lohiak eta xahuak batean janen dute.

23. Huntarik bakharrik begira zaitte, odola jan ez dezazun, ezen hekien odola da hekien bizia: eta horren gatik ez duzu bizia jan behar haragiekin:

24. Bainan lurrerat ixuriko duzu ura bezala,

25. Ontsa hel zaitzentzat zu eta zure semeak zure ondotik, egin dukezunean Jaunaren begietan gogaragarri dena.

26. Bainan sainduetsi eta Jaunari botuz berezi diozuna, hartuko duzu, eta ethorriko zare Jaunak hautatu lekhotan,

27. Eta zure eskaintzak, haragia eta odola, zure Jainko Jaunaren aldarrean gainean eskainiko ditutzu; odola aldare inguruan ixuriko duzu, eta zerorrek janen ditutzu haragiak.

28. Begira eta adi zatzu nik zuri manatzen darozkitzutan guziak, ongi gertha dakizun zuri eta zure semeei zure ondotik bethi guzian, egin dukezunean on eta gogaragarri dena zure Jainko Jaunaren aitzinean.

29. Zure Jainko Jaunak zure begien aitzinean xahutu ditukeenean jendaia zeinetara sarthuko baitzare nausitzeko, eta nausitu zaretekeenean, eta hekien lurretan izanen duzunean zure egoitza;

30. Berautzu hekiek bezala egin, zure sartzean xahutuak izan diren ondoan, eta galda hekien zeremoniez, diozularik: Jendaki horiek adoratu dituzten bezala beren jainkoak, hala eginen dut nik ere.

31. Ez diozu orobat eginen zure Jainko Jaunari. Ezen izigarrikeria guziak Jaunak gaitzesten dituenak egin izan dituzte beren jainkoei, eskainiz semeak eta alabak, eta suan errez.

32. Nik manatzen darotzudana, hori bakharrik egiozu Jaunari; ez berha, ez guti deusere.

### XIII. KAP.

1. Zure erdian altxatzen bada profetarik, edo dioenik ametsetan zerbait agerpen ikhusi duela, eta aitzinetik erranen duenik zerbait ikhuskari eta sendagaila,

2. Eta gerthatzen balitz harek errana, eta erran balezazu: Goazen eta jarraik gaitezen ezagutzen ez dituzun jainko arrotzei, eta zerbitza detzagan:

3. Ez entzun profeta edo ametsegile haren solasak, zeren zuen Jainko Jauna baitabila zuek zertan froga, agerian izan dadientzat heian maite duzuen ala ez, zuen bihotz oroz eta arima guziz.

4. Zuen Jainko Jaunari jarraik zaitzte, haren beldurra izan zazue, haren manamenduak begira zatzue, eta haren mintzoa entzun: hura bera zerbitzatuko duzue, eta hari berari iratxikiren zarete.

5. Profeta hura ordean edo amets-sortzaile hura hila izan bedi, zeren den mintzatu zuen gibelatzeko zuen Jainko Jauna ganik, zeinak Egiptoko lurretik eraiki eta gathibusuneko etxetik berrerosi baitzaituzte, zuek makhurrarazteko zuen Jainko Jaunak manatu darotzueten bidetik: eta holetan gaizkia zuen artetik iraziren duzue.

6. Baldin zure anaia zure amaren semeak, edo zure semeak, edo alabak, edo zure emazte bihotzean duzunak, edo zure adiskide zure burua bezain maite duzunak amainatu nahi bazintu, beharrira erranez: Goazen



eta zerbitza detzagun zuk eta zure aitek ezagutzen ez dituzten Jainko arrotzak,

7. Urrunetik edo hurbiletik lurraren buru batetik bertzera gure inguruan diren jendaki guzientz;

8. Ez bezedi haren erranetara eror, ez bezazu entzun, eta zure begiak ez bezo barkha etzakizkioentzat urrikal eta gorde ez dezazun,

9. Bainan han berean hil zazu; zure eskua izan bedi lehena haren gainean, eta gero Loth bekio populu guziarena.

10. Harrika leherturik hilen da, zeren nahi izan zaituen irazi zure Jainko Jauna ganik, Egiptoko lurretik eta gathibusuneko etxetik atheratu zaituena ganik:

11. Hori aditzean Israel guzia lotsa dadientzat, eta nihork ez dezan gehiago halakorik egin.

12. Zure Jainko Jaunak zure egoitzaren egiteko emanen darozkitzun hirietarik batean aditzen badituzu zenbaitak erraten:

13. Belialen semeak zure erditik ilkhi dira, eta beren hiriko egoiliarrek makhurrarazi dituzte, eta erran diotete: Goazen eta zerbitza detzagun ezagutzen ez dituztuen jainko arrotzak:

14. Artha eta ardurarekin bilha zaite: gauzaren garbitasuna atheratu ondoan, aurkhitzen baduzu diotena kautu dela, eta izigarrikeria hori zinez egina izan dela,

15. Ezpataren ahoaz joko ditutzu berehala hiri hartako egoiliarrek; eta hiria, eta hartan diren guziak abereetaraino xahutuko dituzu.

16. Han daitekeen tresneria ere bilduko duzu hango plazen erdira, eta hiriarekin berarekin su emanen diozu, zure Jainko Jaunari oro erreko diotzatun bezala, eta bethi guzian hobi bat izan dadien: ez da hartarik gehiago hiririk eginen,

17. Eta anathema hartarik ez da zure eskuetan den-gutiena geldituko, Jauna bere hasarrearen hatsetik jabol dadientzat, eta urrikal dakizun, eta berha zaitzan zure arbasoei zin eginez agindu dioten bezala,

18. Zure Jainko Jaunaren boza entzunen duzuno, nik egun mezutzen darozkitzudan manamendu guziak begiratzuz, zure Jainko Jaunaren aitzinean gogaragarri denaren egiteko.

#### XIV. KAP.

1. Izan zaizte zuen Jainko Jaunaren seme: ez duzue zuen buruei ebaditurarik eginen, eta ileak ez ditutze deithoretan murriztuko;

2. Zeren zakizkioen zure Jainko Jaunari populu bat saindua, eta lurraren gainean diren jendaia guzien artetik hautatu zaituen izan zaitzan populu bere-bere bat.

3. Lohi diren gauzatarik janen ez duzue.

4. Haukiek dira jan behar dituztuen abereak, idia, ardia eta ahuntza,

5. Orena, eta orkhatza, bafidia, orenahuntza, basahuntza, oriza, jirafa.

6. Janen duzue edozein abere hatza bi aldetara urratua duena, eta ausnarrean haritzen dena.

7. Bainan ausnarrezaletarik, behatza urratua ez dutenatarik ez duzue jan behar, hala-nola kamelutik, erbitik, sagarroitik: haukiek zeren ausnarrean haritzen diren eta behatza urratua ez duten, lohi izanen zaizkitzute.

8. Urdea ere, zeren behatza urratua duen eta ausnarrezale ez den, lohi izanen da; horien haragirik ez duzue janen, eta hilikiak ukituren ez dituzue.

9. Uretan daudezen arrain guzietarik haukiek janen dituztue: jan zatue hegalak eta ezkatat dituztenak.

10. Bainan hegal eta ezkatagabekorik ez jan, lohiak direlakotz.

11. Hegastin xahu guziak jan zatue.

12. Lohiak ez jan, erran nahi da arranoa, grifoia, eta itsas-arranoa,

13. Iksiona, saia eta mirua, bere motaren arabera;

14. Bele mota guzia;

15. Ostruka, huntza, maloiña eta aztorea bere motaren arabera;

16. Amiamokoa, zina eta ibisa;

17. Puianta, porsiriona eta huntza,

18. Pelikanoa, karadriana, zein bere motan; basoilarra ere eta gauainhara.

19. Eta lurraren gainean herrestatzen diren eta hegalak dituzten guziak lohi izanen dira eta ez da hekietarik janen.

20. Xahu diren guziak jan zatue.

21. Bainan bere baitarik hil dena, ez hartarik jan. Zure atheen barnean den arrotzari emozu jateko, edo sal zozu; zeren zu baitzare zure Jainko Jaunaren populu saindua. Ez duzu pittika erreko bere amaren esnean.

22. Urthe bakhotx, bereziko duzu lurrean sortzen diren zure fruitu guzien hamargarrena.

23. Lure Jainko Jaunaren aitzinean, bere izena deithua izateko hautatu dukeen tokian, janen dituzu zure ogi, arno eta olioaren hamargarrena, eta idietako eta ardietako lehen-sorthuak, ikhas dezazun zure Jainko Jaunaren izenaren noiznahiden beldur izaten.





24. Bainan bidea luzeegi, eta zure Jainko Jaunak hautatu duen lekhua urrunegi ditakeenean, eta zure Jainko Jaunak zu benedikatu, eta zuk hari erran guziak ezin eraman,

25. Oro salduko ditutzu eta dirutara bihurtuko, eta dirua eskuan goazen zure Jainko Jaunak hautatu dukeen lekhura:

26. Eta diru hartan erosiko duzu nahi duzuna, edo idi, edo ardi, orobat arnoa eta buztinoa eta gura zaren guzia: eta janen ditutzu zure Jainko Jaunaren aitzinean, eta atsegin hartuko duzue zuk eta zure etxeak,

27. Eta zure atheen barnean den lebitarrak: berautzu utz hura, zeren ez baitu bertze ikhustekorik zure ontasunean.

28. Hirur urthetarik bertze hamarren bat bereziko duzu orduan sortuko zarozkitzun guzietarik, eta berez ezarriko duzu zure etxean.

29. Eta ethorriko dira lebitarra, zeinak bertze zuzenik eta ikhustekorik zure izanean ez baitu, eta arrotza, eta umezurtza eta alharguna zure atheen barnean direnak, eta janen dute, eta aseko dira, zure Jainko Jaunak benedika zaitzan eginen ditutzun esku-lan orotan.

## XV. KAP.

1. Zazpigarren urthean eginen duzu bihurtzapena,

2. Zeina hulako moldez baita zebraturen: adiskidearen, edo lagunaren edo anaiaren baithan hartzeko duenak, gibelerat ezin galdeginen diote, zeren den Jaunaren bihurtzapean urthe.

3. Arrotza eta kanpotarra premiatuko ditutzu, bainan herritarrari eta lagunari gibelerat galdatzeko eskurik ez duzu izanen.

4. Zuen artean beharrik eta eskalerik ez da batere izanen, benedika zaitzan zure Jainko Jaunak gozatzera eman gogo darotzun lurrean.

5. Bizkitartean zure Jainko Jaunaren mintzoa entzuten baduzu, eta begiratzen harek manatu eta nik egun zuri mezutu guziak, benedikaturen zaitu agindu darotzun bezala.

6. Asko jendaiari maileguz emanen duzu, eta zerorrek nihoren ganik ez hartuko. Asko jendaien nausi eginen zare eta nihor etzaitzu zuri nausituko.

7. Zure anaietarik bat, zure hiri berean daudezinetarik, zure Jainko Jaunak ematera dihoakizun lurrean, behartzera heldu balitz, ez duzu gogortuko zure bihotza, ez-etare hertsiko zure eskua;

8. Bainan beharrari zabalduko diozu, eta maileguz emanen diozu eskas duela ikhusiko duzuna.

9. Berautzu lerra dakizun gogoeta tzar bat, eta zure bihotzean erran dezazun: Zazpigarren urthea bihurtzapeneko hurbiltzen hari da: eta alda-

ra detzatzun zure begiak zure anaia beharra ganik, ez nahiz hari galdatzen duena maileguz eman: beldurrez-eta Jaunari oihu egin dezan zure kontra, eta bekhatutzat jazarria izan dakizun.

10. Bainan emanen diozu, eta ez duzu amarrukeriarik erabiliren haren beharren arintzean, zure Jainko Jaunak benedika zaitzan bethi guzian eta eskurat hartuko ditutzun egiteko orotan.

11. Beharrak ez dira eskas izanen zure egoitzako lurrean: hargatik manatzen darotzut eskua idek diozozun zure anaia eskasian eta beharretan denari, zurekin lur berean dagoenari.

12. Zure anaia Hebrearra edo arreba Hebrearra saldua izaten zaitzunean, eta sei urthez zerbitzatu zaitzunean, zazpigarren urthean libro igoerriko duzu,

13. Eta ez duzu jasanen libro uzten duzuna eskuak hutsik goan dadien;

14. Bainan bidekoa emanen diozu arthaldetik, selharutik eta lakotik, zeinetan benedikatu baitzaitu zure Jainko Jaunak.

15. Orhoit zaitenzi zeror gathibu izatu zarela Egipton, eta zure Jainko Jaunak atheratu zaituela, eta hargatik orai ematen darotzut nik manamendu hau.

16. Zure sehiak ordean erraten badarotzu: Ez dut ilkhi nahi, zeren maite zaituztedan zu eta zure etxea; eta zure etxean ontsa dela atzematen badu:

17. Ezten bat hartuko duzu eta haren beharria zilhatuko zure etxean athean, eta bethi guziko zure sehi izanen da. Neskatoari ere orobat eginen diozu.

18. Libro igoerri ditukezunean, ez dituzu zure begiak hekien ganik baztertuko, zeren zerbitzatu baitzaituzte sei urthez sarizale batek egin zukeen bezala, zure Jainko Jaunak benedika zaitzantzat hari zaren lan guzietan.

19. Zure abere gorrietarik eta ardietarik, lehenbizi sortzen diren guziak, nahiz orots, nahiz urrix, sainduetsiko diozkatzu zure Jainko Jaunari. Abere gorriaren lehen-sorthua ez duzu lanean erabiliko, eta ardiarenari ez diozu ilea moztuko.

20. Zure Jainko Jaunaren aitzinean janen ditutzue zuk eta zure etxe-koek urthe oroz, Jaunak berezi dukeen lekhuan.

21. Eta lehen-sorthuak balu narrio bat, edo maingu, edo itsu, edo bertze nonbaitik markhets edo erphil balitz, ez da zure Jainko Jaunari imolatuko.



22. Bainan hura janen duzu zure hiriaren barnean: lohiak edo xahuak orobat janen dute halakoetarik orkhazkia eta orenkia bezala.

23. Bakharrrik huntarik begiratuko zare, janen ez baituzu hekien odola: bainan ura bezala lurrera ixuriko duzu.

### XVI. KAP.

1. Begiratuko dituzu fruitu berrietako hilabetea eta uda lehena, Bazkoa zure Jainko Jaunari egiteko, zeren hilabete hartan gauaz zure Jainko Jaunak ilkhi zaituen Egiptotik.

2. Eta zure Jainko Jaunari Bazkoa imolatuko diozu ardietarik eta idietarik zure Jainko Jaunak hautatu dukeen lekhuhan, han egon dedientzat haren izena.

3. Ez duzu janen orduan ogi altxaturik: zazpi egunez janen duzu altxagarririk gabe, atsekabeko ogia, ikharan ilkhi zarelakotz Egiptotik, baik eta Egiptotikako zure ilkhipeneko egunaz orhoit zaitezzen zure biziko egun oroz.

4. Zazpi egunez zure eremu guzietan ez da altxagarririk agertuko, eta lehenbiziko eguneko arratsean imolatu den bitimaren haragietarik ez da batere geldituko goizeraino.

5. Bazkoa ezin imolaturen duzu Jaunak ematera dihoazkitzun hirietarik edozeintan;

6. Bainan bai zure Jainko Jaunak hautatu duen lekhuhan, haren izena han egon dedientzat: eta Bazkoa imolatuko duzu arratsaldean iguzki-sartzean, Egiptotik ilkhi zaren tenorean.

7. Eta erreko eta janen duzu zure Jainko Jaunak hautatu dukeen lekhuhan: eta goizean jaikiz, itzuliko zure olhetara.

8. Sei egunez janen ditutzu airisak: eta zazpigarren egunean, zeren den zure Jainko Jaunaren bilkhuko eguna, ez duzu eginen esku-lanik.

9. Zazpi aste khondatuko ditutzu, ihitegia uztan ezarri dukezun egunetik:

10. Eta zure Jainko Jaunari zelebratuko diozu Asteetako besta-eguna, zure eskuko eskaintza zure oldetara eskainiz zure Jainko Jaunaren benedizionearen arabera:

11. Eta zure Jainko Jaunaren aitzinean, zuk eta zure seme-alabek, muthil-neskatoek, zure atheen barnean den lebitarrak, eta zuekin daudezin arrotzak, umezurtz eta alhargunak eginen ditutze bozkariozko barazkariak zure Jainko Jaunak hautatu duen lekhuhan, haren izena han egon dedientzat.

12. Eta orhoituko zare zeror gathibu izatu zarella Egipton; eta mana-tuak direnak begiratuko eta eginen ditutzu.

13. Tabernakletako besta-burua ere zazpi egunez zelebratuko duzu, larrinetik eta lakotik zure fruituak bilduko ditutzunean;

14. Eta besta hartan bozkariozko barazkariak eginen ditutze, zuk eta zure seme-alabek, muthil-neskatoek, lebitarrak ere eta arrotzak, umezurtz eta alhargunak, zure atheen barnean direnek.

15. Zure Jainko Jaunari zazpi egunez besta zelebratuko diozu Jaunak hautatu dukeen lekhuhan: eta benedikatuko zaitu zure Jainko Jaunak zure fruitu orotan, eta zure eskuetako lan guzietan, eta bozkariotan izanen zare.

16. Urthean hiruretan zukanikako gizonki guziak agertuko dira zure Jainko Jaunaren aitzinera, hautatu dukeen lekhuhan: Airisetako besta-buruz, Asteetako besta-buruz eta Tabernakletako besta-buruz. Ez dira Jaunaren aitzinera agertuko eskuak hutsik:

17. Bainan norkberak eskainiko du duenaren ereduz, bere Jainko Jaunaren benedizioneak eman izan dioenaren arabera.

18. Juieak eta kargudunak ezarriko dituzu, zure Jainko Jaunak, leinu bakhoxka, emanen darozkitzun hirietako atheetan; populua juia dezaten erabaki zuzenez,

19. Eta zuzen ez denera makhur ez beitez. Ez nor nor den ez-eta emaitzei etzare begiraturen: zeren emaitzek gizon zuhurren begiak itsutzen baitituzte, eta itzulikatzen zuzenen solasak.

20. Zuzenki jarraikiko zare zuzen denari, bizi zedintzat eta goza dezazun zure Jainko Jaunak eman izan darotzukeen lurra.

21. Ez duzu lukurik ez-eta zuhaitzik landatuko zure Jainko Jaunaren aldarearen aldean.

22. Ez duzu zuretzat eginen ez-etare altxatuko jainko-moldurarik, zeren gaitzirizkotan baitaduka zure Jainko Jaunak.

### XVII. KAP.

1. Ez diotzatzu zure Jainko Jaunari imolatuko narrio edo zerbait baia duten ardia eta idia, hori zaiolakotz izigarrikeria bat zure Jainko Jaunari.

2. Zure herritan, zure Jainko Jaunak emanen darozkitzun hirietarik batean, atzemanak izanen direnean gizon edo emazteki, gaizkia Jainko Jaunaren aitzinean egiten dutenak eta harekilako patua hausten,

3. Goanez eta zerbizatuz jainko arrotzak, eta adoratzuz hekiek, iguzkia, ilhargia eta zeruko izarren oste guziak, nik manatu ez dudana;



4. Eta hortaz jakintsu egin bazaituzte, eta entzutearekin arduratsuki bilhatu bazare, eta aurkhitu egia dela eta izigarrikeria hori Israelen egin izan dela:

5. Zure hiriko atheetara ilkhiren ditutzu gauzarik tzarrena egin izan duten gizon eta emaztekoa, eta harrika lehertuak izanen dira.

6. Hiltzen dena, bi edo hirur lekhukoren ahotik galduko da. Nihor ez da hila izanen lekhukotasun bakhar baten gainean

7. Lekhukoen eskua abiatuko zaio lehenik hiltzera, eta gero populu gainerakoarena lothuko zaio, gaizkia zure erditik khien dezazuntzat.

8. Zutan erabaki bat nekea eta itsua ikhusiko duzunean odolean eta odolean, egitekoan eta egitekoan, legenean eta legenean; eta ikhusiko ditutzunean zure hiriko atheetako juieen bozak ez daudezila alde berera; jaiki zaite eta igan zure Jainko Jaunak hautatu dukeen lekhura.

9. Ethorriko zare Lebiren odoletikako aphezen gana, eta orduan juie denaren gana: galdatuko diozute eta hekiek erakhutsiko darotzute erabakiko egia.

10. Eta egizu Jaunak hautatu dukeen lekhuan buruko direnek erran eta irakhatsi guzia.

11. Jaunaren legearen arabera, eta hekien erabakiari jarraikiko zare, ez eskuin ez ezker makhurtu gabe.

12. Bainan hanpuruskerian sarthuko dena, eta ordu hartan zure Jainko Jauna zerbitzatzen duen aphez-handiaren manua eta juiearen erabakia onhetsi nahiko ez duena, hila izan bedi gizon hura, eta gaizkia Israeldik khien zazu:

13. Eta entzutearekin populu guzia izituko da, eta gerorat nihor hanpuruskeriaz haz ez bedi.

14. Zure Jainko Jaunak ematera dihoakizun lurrean sarthua zaitekeenean, eta hartaz gozatzen, eta han egoten, erraten baduzu: Errege bat ezarriko dut ene gainean, inguruko jendaki guziek duten bezala:

15. Zure Jainko Jaunak zure anaien artetik hautatu dukeena ezarriko duzu. Ezin eginen duzu errege bertze jendaki batetikako gizon bat, zure anaia ez dena.

16. Eta ezarria izan ondoan, ez du zalditze handi bat bilduko, eta ez du populua Egiptora bihurraziziko, bere zalditze handiaren laguntzarekin, bereziki Jaunak manatu darotzuenean gehiago bide beraz ez itzultzeko.

17. Ez ditu asko emazte izanen haren gogoa bilduko dutenak, ez-eta zilhar eta urhe meta gaitzik.

18. Bainan bere erreinuko alkhian jarri ondoan iskribatuko du liburu batean beretzat lege huntako Duteronoma, Lebiren leinuko aphezen ganik harturik kopia bat:

19. Eta berekin izanen du, eta irakurtuko du bere biziko egun oroz, ikhas dezan bere Jainko Jaunaren beldur izaten, eta haren manamendu eta zeremonia legean manatuak direnen begiratzen.

20. Eta haren bihotza hanpuruskerian goiti ez bedi bere anaien gainean, eta makhur ez bedi ez eskuin aldera ez ezkerrera, luzez erregina ditezen Israelen gainean bera eta bere semeak.

### XVIII. KAP.

1. Aphezek, lebitarrek eta leinu hortako bereko diren guziek ez dute pharterik ez primantzarik izanen bertze Israeldarrekin, zeren jaten baititutze Jaunari eginikako sakrifizio eta eskaintzak:

2. Eta bertzerik deusere ez dute hartuko beren anaien ontasunetik; ezen Jauna da bera hekien primantza, berak erran izan dioeten bezala.

3. Hau izanen da aphezen zuzena populuaren eta bitimak eskaintzen dituztenen baithan: imola dezaten edo idia, edo ardia, aphezari emanen diote sorbalda eta sabel-xumea,

4. Ogiko, arnoko eta olioko pikainetarik, eta ardi moztetikako ileetarik pharte.

5. Ezen zure Jainko Jaunak zure leinu guzietarik hura hautatu du, Jaunaren aitzinean egoteko eta haren izenari eginbideak bethetzeko, harek eta haren semeek bethi guzian.

6. Lebitar bat ilkhitzen balitz zure hiri Israel guzian diren batetik, eta nahi balu ethorri Jaunak hautatu dukeen lekhuan egotera,

7. Bere Jainko Jaunaren izenean eginbideak betheko ditu, orduan Jaunaren aitzinean egonen diren bere anaiek bezala.

8. Jatekoetan bertzeen pharte bera izanen du: bertzalde delarik bere hirian aitaren ondoregoz zor zaioena.

9. Sarthua zaitekeenean zure Jainko Jaunak emanen darotzun lurrean, berautzu jendaia bekien izigarrikeriei jarraiki nahi izatetik.

10. Eta zu baithan ez bedi aurkhi, semea edo alaba suan iraganaraziz xahu egin nahiko duenik, edo aztiei galdeka hariko denik, ametsei eta zelatei begira egonen denik, ez-eta gaizkin izanen denik,

11. Ez-eta xarmatzailerik, ez-eta laminei galdeka hariko denik, ez-eta asmu-atheratzailerik, edo hilen ganik egia jakin beharrez ibiliko denik:



12. Ezen horiek oro gaitzets ditu Jaunak, eta horrelako tzarkerien gatik xahutuko ditu, zuen sartzean, populu hekiek.

13. Osoki garbi eta itzalik gabe izanen zare zure Jainko Jaunarekin.

14. Jendaki horiek, zeinen lurra gozatuko baituzu, zelatariak eta asmatzaileak entzuten dituzte: zu ordean bertzela irakhatsia izatu zare zure Jainko Jaunaz.

15. Zure Jainko Jaunak, zure jendakitik eta zure anaietarik ni bezala eraikiko darotzu profeta bat: hura entzunen duzu,

16. Zure Jainko Jaunari Horeben galdatu zinaroen bezala, baldarna bildua izan zenean, eta erran zinduenean: Ez bezat gehiago adi Jainko Jaunaren mintzoa, eta ez bezat gehiago ikhus su ikharagarri hori, hil ez nadientsat.

17. Eta Jaunak erran zarotan niri: Oro ontsa erranak dira.

18. Zu bezalako profeta bat eraikiko diotet beren anaien artetik: eta ene hitzak ezarriko ditut haren ahoan, eta nik hari manatuko diozkadan guziak erranen diozkate.

19. Zeinak ere entzun nahiko ez baititu ene izenean erranen ditue-nak, ni atheratuko natzaio aspertzale.

20. Bainan hanpuruskeriaz galdurikako profeta batek ene izenean erran nahi balitu nik hari manatu gabeko solasak, edo jainko arrotzen ize-nean mintzatu nahi balitz, hila izan bedi.

21. Zure gogoan ixilik egiten bazindu: Nola ezagutuko dut Jaunak erran ez duen hitza?

22. Izanen duzu ezagutkari hau: profeta harek Jaunaren izenean aitzinetik errana gerthatzen ez bada, ez da hura Jaunak errana, bainan profetak bere izpirituko hanpuruskeriaz asmatua: eta horren gatik etzare haren bel-dur behar

### XIX. KAP.

1. Noiz-ere zure Jainko Jaunak xahutu baitituzke jendaiak zeinen lurra eman gogo baitarotzu, eta hura gozatuko baituzu, eta hango hiri eta etxetan egonen baitzare;

2. Zure Jainko Jaunak gozatzeraren emanen darotzun lurraren erdian hirur hiri bereziko ditutzu,

3. Bidea artharekin xuxenduz; eta zure lurreko eremu guzia hirur zat-hitan bardin ezarriko duzu, gizona hil duen ihesliarrak hauzoan aurkhi dezan norat ihes egin.

4. Huna legea gizon hiltzaile ihesliarrarena, zeinari ez baitzaio bizia khendu behar: norbaitek ustekabez bere laguna jo badu, eta frogatzen bada ez atzotik ez-eta herenegundik gaitzirizkorik etzuela harentzat,

5. Bainan harekin lañoki goan zela oihanera egur ebakitzera, eta egur-ren haustean haizkora eskutik jauzi zitzaiola, eta burdinak, giderretik atheraturik, jo eta hil dioela bere adiskidea; aitzinean erranikako hirietarik batera ihes egingen du, eta biziko da;

6. Beldurrez-eta odola ixuria duenaren ahaide hurbilena, minak har-turik, jarraiki dakioen, eta atzeman dezan bidea luzeegia bada, eta jo dezan heriotzea merezitu ez duena, zeren ez baita erakhutsia hila denaren alderako gaitzirizkorik batere bazuela.

7. Hargatik manatzen darotzut hirur hiri hekiek batetik bertzera bar-din urrun ezar detzatzun.

8. Bainan zure Jainko Jaunak hedatu ditukeenean zure mugak zure arbasoei zin egin dioeten bezala, eta hekiei agindu lur guzia eman daro-kezunean,

9. (Baldin bizkitartean begiratzen badituztu haren manamenduak, eta egiten baduzu nik egun mezutzen darotzudana, hura baita zure Jainko Jauna maithatzea eta bethi haren bidetan ibiltzea), berhatuko dituztu bertze hirur hiri, eta aitzinean erranikako hirur hirien nonbrea bikhunduko duzu;

10. Hobengabearen odola ez dadientsat ixur zure Jainko Jaunak gozatzeraren emanen darotzun lurrean, eta etzadientsat odolez hobendun izan.

11. Bainan baldin norbaitek, bere lagunaren alderako gaitzirizko due-larik, zelatak hedatu baditu haren biziari, eta atheraturik jo badu eta hil, eta ihes egin erran diren hirietarik batera,

12. Hiri hartako zaharrek igorriko dituzte gizonak, khenduko dute ihes-lekhutik, eta zeinaren odola ixuria izan baita hainaren ahaide hurbil-enaren eskuetara emanen dute, eta hila izanen da.

13. Etzakizkio urrikalduko, eta hobenik etzuen odola xahutuko duzu Israelen gainetik, zuri ongi gertha dakizuntzat.

14. Ez dituzu atheratuko eta nihorat eramanean zure lagunaren zedarri aitzinekoek landatu dituztenak zure Jainko Jaunak emanen darotzun lurrean, zeina gozatzeko hartuko baituzu.

15. Lekhuko bat ez da askiko norbaiten kontra, nola-nahiko gaizki eta gaixtakeria gatik: bainan bi edo hirur lekhukoren ahoan izanen da gar-bitasun osoa.

16. Baldin lekhuko gezurti bat atheratzen bada gizon baten kontra, legea hautsi duela jazarritz,



17. Xuritzeko duten biak agertuko Jaunaren aitzinera, orduko aphezen eta juieen aitzinean.

18. Eta artha handienarekin bilhatzean, aurkhitzen badute lekhuko faltsua gezurrez mintzatu dela bere anaiaren kontra,

19. Hala bihurtuko diote nola bere anaiari egitea asmatu baitzuen, eta gaizkia khenduko duzu zure erditik,

20. Bertzeek, hori aditzearekin, beldurra izan dezatentzat, eta nihoiz ez ditezen ausarta horrelakorik egitera.

21. Etzakizkio urrikalduko, bainan behartuko diozu bizia biziaren, begia begiaren, hortza hortzaren, eskua eskuaren, zangoa zangoaren.

## XX. KAP.

1. Gerlara atheratzen bazare zure etsaien kontra, eta ikhusten badi-tutzu hekien zaldieria eta orga-lasterrak eta zuk duzuna baino gaitzagoa dela etsaiaren armadako ostea, ez izan hekien beldur, zeren zure Jainko Jauna Egiptoko lurretik atheratu zaituena zurekin baita.

2. Eta gudua ja hurbildua denean, aphez-handia agertuko da armadaren aitzinera, eta hula mintzatuko da populuari:

3. Adi zazu, Israel: egun ematen diozue gudu zuen etsaiei, ez bedi lotsa zuen bihotza; ez izan beldurrik; berautzue amor egin; ez betzaitzate ikhara;

4. Zeren zuen erdian baita zuen Jainko Jauna, eta zuen alde gudukatu-tuko baita zuen etsaien kontra galtzeko zoritik zuen atheratzeko.

5. Aitzindariak ere, armadak aditzen dituela, zeinek beren andanetan oihu eginen dute: Nor da gizona etxe berri bat egin eta hartan egoten hasi ez dena? bihoa, eta itzul bedi bere etxerat, beldurrez-eta gerlan hil dadien, eta bertze bat lehenik jar dadien haren etxean.

6. Nor da gizona mahasti bat landatu duena, eta oraino arduratu ez duena, orok hartarik jan dezakaten bezala? bihoa, eta itzul bedi bere etxera, beldurrez-eta gerlan hil dadien, eta bertze gizon batek egin dezan haren eginbidea.

7. Nor da gizona emaztegai batekin hitzmana, eta oraino hartu ez duena? bihoa eta itzul bedi etxerat, beldurrezeta bertze gizon batek har dezan hura.

8. Horiek erran ondoan, erranen dute goitiko, eta populuari mintzatu-tuz: Nor da gizon beldurtia eta bihotzez izipera? bihoa, eta itzul bedi etxerat, beldurrezeta lotsaraz detzan bere anaien bihotzak, bera izialduraz harritua den bezala.

9. Eta armadako aitzindariak ixildu ondoan, eta solasa akhabatu dutenean, zeinek bere ezkardak guduko xuxenduko dituzte.

10. Hiri baten hartzeko hurbilduko zatzaioenean, lehenik bakea eskainiko diozu.

11. Onhesten badu, eta atheak idekitzen badarozkitzu, han den populu guziak bizia izanen du, eta zerbitzatuko zaitu figoa pagatuz.

12. Ez badu ordean paturik egin nahi, eta gerla ematen hasten bazaitzu, sethiatuko duzu.

13. Eta zure Jainko Jaunak eskuetaratu darotzunean, han diren gizonki guziei ezpataren ahoaz emanen diozute,

14. Utziz emaztekiak, haurrak, abereak eta hirian diren bertzeak. Atzeman guzia armadari zathituko diozu, eta zure Jainko Jaunak eman darozkitzun etsai buluzkinetarik janen duzu.

15. Horrela eginen diozute zu ganik hainitz urrun diren hiri guziei eta gozatzeko hartu behar dituzunetarik ez direnei.

16. Ordean zuretzat emanen zaizkitzun hirietan nihori ez diozu bizia utziko:

17. Bainan ezpataren ahoaz hilen ditutzu, erran nahi da Hethearra, Amorhearra, Kananearra, Pherezearra, Hebearra eta Jebusearra, zure Jainko Jaunak manatu darotzun bezala,

18. Beldurrez-eta beren jainkoentzat egin dituzten izigarrikeria guziak egiten irakhats detzatzueten, eta bekhatu zuen Jainko Jaunaren alderat egin dezazuen.

19. Luzez sethiatuko duzunean hiri bat, eta hartzekotzat hura tren-txadaz inguratuko duzunean, ez ditutzu ebakiko zuhaitzak zeinen fruituak jan baitezaketzu, eta ez duzu inguruan haizkoraz bazterrak xahutu behar, zeren-eta zuhaitza zur bat baita eta ez gizon bat, eta gerlarien ostea zure kontra ez baitezake berha.

20. Bainan zuhaitza ez denean fruitutakoa bainan bai larreakoa eta bertze askotako on dena, ebak zazu, eta egizkitzu tresnak, hartu arteo zure kontra gudukatzen den hiria.

## XXI. KAP.

1. Zure Jainko Jaunak eman gogo darotzun lurrean atzematzen denean gizon hil baten gorphutza, eta jakina ez bada nor den hiltzeketaz hobendun,

2. Adinez zaharrenak eta zure juieak ilkhiko dira, eta hila den lekhu-tik neurtuko dute zenbat den inguruko hirietaraino.



3. Eta orotarik hurbilena zein den ezagutu duketenean, hiri hartako zaharrenek hartuko dute arthaldetik miga bat uztarria erabiligabea eta lurra goldeaz urratu ez duena;

4. Eta eramanen dute haran basa eta harritsu egundaino iraulia eta eraina izan ez den batera, eta hall burua moztuko diote migari:

5. Eta hurbilduko dira Lebiren seme aphezak, zure Jainko Jaunak hautatu ditukeenak berari bethe detzotenzat eginbideak, beraren izenean eman dezaten benedizioea, eta hekien ahoko hitzetik erabaki ditezen egiteko guziak, eta xahu ala lohi diren gauzak oro:

6. Eta hiri hartako sortzez zaharrenak ethorriko dira hilera, eta garbituko dituzte eskuak haranean joa izan den migaren gainera,

7. Eta erranen dute: Ez dute gure eskuek ixuri odol hau, eta gure begiek ez dute ikhusi.

8. Begitharte egiozu, Jauna, Israelgo zure populu berrerosi duzunari, eta ez bezazu haren gain eman Israelgo zure populuaren erdian ixuria izan den odol hobengabea. Eta hekien gainetik khendua izanen da odolaren hobena.

9. Eta zu, egin dukezunean Jaunak manatua, garbi izanen zare ixuria izatu den odol hobengabetik.

10. Atheratu bazare zure etsaien kontra gudura, eta zure Jainko Jaunak eskuratu badarozkitzu, eta presonierak eramatean,

11. Hekien artean ikhusi baduzu emazteki eder bat, eta maithatzen baduzu eta emaztetzat nahi,

12. Sarraraziko duzu zure etxerat: moztuko ditu bere ileak eta behatzak;

13. Eta utziko du soinekoa zeinarekin atzemaia izan baita, eta zure etxean jarririk, hilabete batez deithoratuko ditu bere ait-amak, eta gero hurbilduko zatzaio, harekin lo egingen duzu eta zure emazte izanen da:

14. Baina gerorat ez bada zure gogarako, libro igorriko duzu, dirutan ezin salduko duzu, ez-eta zure gaihentziaz zaphatuko, ahalkea eman diezulakotz.

15. Gizon batek balin baditu bi emazte, bata maite eta bertzea higuin dituenak, eta biek haren ganik izan badituzte haurrak, eta higuinaren semea balin bada lehenik sorthua;

16. Eta aitag bere semeen artean nahi balu bere ontasuna zathitu, maite duen emaztearen semea ezin egingen du premu, ez-eta ezarriko ahal higuinaren semearen aitzinean;

17. Baina premutzat ezagutuko du higuinaren semea, eta oro bikhunean emanen diozka dituen izatetarik, ezen hura da haurretarik lehenbizikoa eta hari zaio zor premutasuna.

18. Gizon batek balin badu seme bat bihurria eta ozarra, bere aitamen manua aditzen ez duena, eta erantzuna izan ondoan, nardatzen baita hekiei begiratzeaz,

19. Hartuko dute, eta hiri hartako zaharrenei eramanen erabakietako athera,

20. Eta hekiei erranen dute: Gure seme hau ozarra eta bihurria da, narda du gure erantzukien entzuteaz, galdukerian, lizunkerian eta aseetan dabila.

21. Hiriko populuak harrikatuko du, eta hilen da, gaizkia zuen erditik khen dezazuentzat, eta Israel guzia, hori aditzean, ikharan jar dadien.

22. Gizon batek heriotzea merezi duen gaizkia egin duenean, eta hiltzera kondenaturik, urkhabetik dilindan ezarria izan denean,

23. Haren gorputza ez da habean egonen, baina egun berean ehortziko da, habetik dagoena Jainkoaz delakotz madarikatua, eta ez duzu behinere khutsatuko zure Jainko Jaunak gozatzera emanen darotzun lurra.

## XXII. KAP.

1. Zure anaiaren idia edo ardia errebelatua ikhusi-eta, etzare aitzina goanen, baina bihurtuko diozu.

2. Zure anaia ez balitz ere zure ahaidea, eta ezagutzen ez baduzu, abereak zure etxerat eramanen dituzu, eta han egonen dira zure anaiak bilha eta har ditzan arteo.

3. Halaber egingen duzu asto, soineko, eta zure anaiaren edozein gauza galdua denaz atzematen baduzu, ez duzu bazterrerat utziko, ez delakoan zurea.

4. Baldin zure anaiaren astoa edo idia bidean erori dela ikhusi baduzu, etzare axolagabe goanen, baina xutitzen lagunduko duzu.

5. Emaztekiak ez du gizon soinekorik jauntziko, eta gizonak ez du emazteki soinik erabiliko: ezen holakorik egiten duena higuingarri zaio Jainkoari.

6. Bidean zoazelarik, zuhaitz batean edo lurrean aurkhitzen baduzu xori ohantze bat, eta ama umeen edo arroitzeen gainean badago, ama ez duzu umeekin idukiko;

7. Baina utziko duzu goatera, umeak atxikitzen ditutzularik, ongi gertha dakizuntzat, eta luzez bizi zaitez.



8. Etxe berri bat egin dukezunean, teilatuari inguruan eginen diozu harrasittoa bat, beldurrez odola ixur dadien zure etxean, eta hobendun izan zaitezzen norbait erortzen bada, eta gain-behera anbiltzen.

9. Ez bezazu bertze hazirik erain zure mahastian, beldurrez erain duzun hazitik eta mahastitik sorthuko direnak orobat sainduetsiak izan ditezen.

10. Etzare idiarekin eta astoarekin batean iraultzen hariko.

11. Ilearekin eta liho-hariarekin ehorikako soinekorik ez duzu jauntzi-ko.

12. Zure soineko kapari lau izkinetan eginen diotzatzu litsak soka mehez.

13. Gizonak emazte bat hartzen badu eta gero higuintzen,

14. Eta hura zertaz utz estakuruketa balin badabila, hari iratxikiz lelorik tzarrena, eta erraten badu: Emazte hau hartu izan dut, eta hurbildu natzaionean, ez dut dontzella aurkhitu:

15. Ait-amek hartuko dute beren alaba, eta berekin eramanen diozkate haren dontzellatasuneko hatzak hiriko atxean dauden zaharrei;

16. Eta aitak erranen du: Horri eman diot ene alaba emazte; zeren higuintzen duen,

17. Lelorik tzarrena ematen dio, erranez: Ez dut zure alaba dontzella aurkhitu; eta huna haukiek dira ene alabaren dontzellatasuneko hatzak. Hiriko zaharren aitzinean hedatuko dute soinekoa:

18. Eta hiri hartako zaharrek gizona hartuko dute eta azotatuko,

19. Kondenatzen dutelarik bertzalde ehun siklo zilharrezko ematera neskatzaren aitari, zeren lelorik tzarrena hedatu duen Israelgo dontzella baten gainean; eta emaztetzat izanen du, eta bere bizian ezin utziko du.

20. Baizik-eta haren errana egia bada, eta neskata ez bada dontzella aurkhitu,

21. Iraiziko dute bere aitaren etxeko atletik kanpora, eta hiri hartako gizonak harrikatuko dute, eta hilen da; zeren itsuseria egin duen Israelen, bere aitaren etxean bere burua lohituz: eta gaizkia khenduko duzu zure erditik.

22. Gizon batek bertze baten emaztearekin lo egin badu, biak hilen dira, erran nahi da gizon eta emazteki elkarrekin likhistu direnak: eta gaizkia Israeldik khenduko duzu.

23. Neskata dontzella bat hitzemana bada gizon batekin, eta norbaiten hirian atzematen badu, eta harekin etzaten bada,

24. Biak erakharriko ditutzu hiri hartako athera, eta harrika lehertuak izanen dira: neskata, zeren hirian izan-eta, deihadar egin ez duen: gizo-

na, zeren ahalkea eman dioen bere lagunaren emazteari, eta gaizkia zure erditik khenduko duzu.

25. Bainan gizonak hitzemana den neskata kanpoetan atzeman badu, eta lothurik, harekin etzan bada, bera bakharririk hilen da:

26. Neskatak ez du deusere jasaiteko izanen: zeren nola ohoin bat jauzten baitzaio bere anaia eta hiltzen baitu, hala neskata ere bortxatua izatu da:

27. Bakharririk zen kanpoan: deihadar egin du, eta nihor etzaio libratzera heldu izan.

28. Gizonak atzematen badu gizonairik ez duen neskata dontzella bat, eta lothurik, harekin etzaten bada, eta gauza hori juietara ekharria bada.

29. Neskatarekin lo egin duenak haren aitari berrogoi eta hamar siklo zilharrezko emanen diozka eta hura emaztetzat izanen du, zeren ahalkea eman dioen; eta bere bizi guzian ezin utziko du.

30. Gizonak ez du hartuko bere aitaren emaztea, eta ez dio agertuko gordetzeko dena.

### XXIII. KAP.

1. Jaunaren baldarnan ez da sarthuko ebakirik, potroak lehertuak edo ebakiak dituenik, edo buztana moztua duenik.

2. Hamargarren belhauneraino ez da Jaunaren baldarnan sarthuko manzerra, erran nahi da neska tzarraren semea.

3. Amontarra eta Moabitarra hamargarren belhaunaren ondotik ere ez dira behinere sarthuko Jaunaren baldarnan;

4. Zeren ez baitira zuen bidera ogiarekin eta urarekin nahi izan ethorri, Egiptotik atheratu zaiztenean, eta zeren zuen kontra Mesopotamia Sirkotik erakharri duten Balaam Beorren semea, zuen madarikatzera:

5. Eta zure Jainko Jaunak ez du entzun nahi izan Balaam, eta haren madariziona zure benedizionetara bihurtu izan du, maite zintuelakotz.

6. Ez duzu hekiekin bakerik eginen, eta menderen mende egun eta bizian ez diozute deusetan ongirik bilhatuko.

7. Ez duzu gaitzirizkotan idukiko Idumearra, zeren zure anaia baita, ez-eta Egiptoarra zeren haren lurrean arrotz izatu baitzare.

8. Horietarik sorthu ditazkeenak, hirugarren belhaunean sarthuko dira Jaunaren baldarnan.

9. Gudura zure etsaien kontra ilkhiko zarenean, zure burua gauza tzar guzietarik begiratuko duzu.



10. Zuen artean balin bada gizonik gauaz ametsetarik lohitu denik, kanpetarik ilkhiko da,

11. Eta ez da bihurtuko ilhuntean urez garbitu baino lehen: eta iguzkia etzan ondoan sarthuko da berriz kanpetara.

12. Kanpez haindian izanen duzu lekhu bat, zeintara ilkhiko baitzare zure egin-beharretara,

13. Gerrian duzularik hesaul bat; eta jartzen zarenean, inguruan lurra zilhatuko duzu, eta ongarria lurrez estaliko,

14. Xutitu ondoan (ezen zure Jainko Jauna kanpen erdian dabila, zure itzurtzea gatik eta zuri eskuetaratzeko zure etsaiak): eta zure kanpak saindu izan beitez, eta han ez bedi zikhinkeriarik ager, beldurrez Jaunak bazterrerat utz zaitzan.

15. Ez duzu bere nausiaren eskuetara emanen zure gana ihes egin duen gathibua.

16. Nahi duen lekhuaren egonen da zurekin, eta sosegua aurkhituko du zure hirietarik batean: ez hari eman atsekaberik.

17. Ez da Israelgo alabetan putarik izanen, ez-eta putazalerik Israelgo semeetan.

18. Zure Jainko Jaunaren etxean ez duzu eskainiko puta saririk, ez-eta xakhur saririk, zer-nahi botu egina izan dezazun, zeren bat eta bertzea izigarrikeriak baitira zure Jainko Jaunaren aitzinean.

19. Ez diozu zure anaiari maileguz lukurantzian emanen dirurik, ez fruiturik, ez berme zer-nahi gauza,

20. Bainan arrotzari bai. Zure anaiari ordean eskas duena lukureriarik gabe maileguz emanen diozu, benedikata zaitzan zure Jainko Jaunak zure lan orotan, gozatzekotan sarthuko zaren lurrean.

21. Botu bat egin diokezunean zure Jainko Jaunari, ez duzu luzatuko haren bethetzea: zeren zure Jainko Jaunak hartaz eginen baitarotzu galde; eta gibel bazaude bekhatutzat iratxikia izanen zaitzu.

22. Agindu nahi ez baduzu, bekhatu gabe izanen zare.

23. Bainan zure ezpainetarik behin atheratu dena, begira zazu, eta egonen duzu zure Jainko Jaunari agindu diozun bezala, eta zure oldetara eta zure ahotik mintzatu zaren bezala.

24. Zure lagunaren mahastian sarthu-eta, jan zazu nahi duzun bezenbat mahats: bainan ez eraman zurekin kanporat.

25. Zure adiskidearen uztan sartzen bazare, buruak hauts eta eskuz leher zatzu: bainan ez ebak ihitegiarekin.

## XXIV. KAP.

1. Gizon batek emazte bat hartu badu, eta izan ondoan ez bada haren gogoan sarthu zerbait baia itsusiren gatik, senharrak iskribatuko du uzteko ageri bat, eskura emanen dio, eta bere etxetik igorriko du

2. Eta ilkhi ondoan, berme senhar bat hartzen badu,

3. Eta hunek ere higuintzen badu, eta uzteko ageria ematen badio, eta bere etxetik igortzen badu, edo bertzela hil bada;

4. Lehenbiziko senharrak ezin hartuko du emaztetzat, lohitu delakotz, eta Jaunaren aitzinean gaitzesgarri egina: ez jasanaraz horretako bekhatua zure Jainko Jaunak gozatzera emanen darotzun lurrari.

5. Gizon bat ezkonberri denean, ez da gerlara goanen, eta ez diote herriko karguetarik gainera emanen, bainan bere etxean egonen da hobetik gabe, boz dadientzat urthe batez bere emaztearekin.

6. Ez duzu bahi orde hartuko ez gaineko ihara-harria ez azpikoa: ezen emaileak bere bizia bahi ematen darotzu.

7. Gizon bat atzemaña bada bere anaia Israelgo semeetarikakoari zelata hedatzen; eta hura saldurik, saria hartu badu, hila izanen da eta gaizkia khenduko duzu zure erditik.

8. Artharekin begira zaite legenaren gaitzeko bidetara egitetik, bainan egizu zer-ere irakhatsiko baitarotzute Lebiren odoleko aphezek, nik manatu diotedanaren arabera, eta ardurakin bethe zazu.

9. Orhoit bekizue Mariari zuen Jainko Jaunak egin zioenaz bidean, Egiptotik ilkhi zinetenean.

10. Zure lagunari galdatuko diozunean zor darotzun zerbait, etzare haren etxean sarthuko bahi hartzera;

11. Bainan egonen zare athean, eta duena berak emanen darotzu.

12. Beharra bada ordean bahiak ez du gaurik emanen zure etxean,

13. Bainan iguzkia etzan aitzintxean bihurtuko diozu; bore soinekoan lo egiten duelarik, benedikata zaitzan, eta zuzen aurkhitua izan zaitezen zure Jainko Jaunaren aitzinean.

14. Ez diozu zorra ukhatuko zure anaia noharroin beharrari, edo arrotz zurekin dagoenari zure tokian eta zure atheen barnean;

15. Bainan egun berean, iguzkia etzan gabe bihurtuko diozu bere lanaren saria; zeren beharra baita, eta hartarik behar baitu bere burua mantenatu; beldurrezeta zure kontra Jaunari oihu egin diozun, eta zuri bekhatutako iratxikia izan dakizun.

16. Aitak ez dira semeen orde hilak izanen, ez-eta semeak aiten orde: bainan nor-bere gaizkia gatik hilen da.





17. Ez diozute zuzena hautsiko arrotzari eta umezurtzari, eta ez diozu alhargunari bahitzat soinekoa hartuko.

18. Orhoit bekizu Egipton gathibu izatu zarela, eta zure Jainko Jaunak atheratu zaituela handik. Hargatik manatzen darotzut egin dezazun gauza hori.

19. Uzta zure landan egin dukezunean, eta ahantzirik eskumen bat utzi baduzu, etzare itzuliko haren bilha; bainan arrotza, umezurtza eta alharguna utziko ditutzu hartzera, zure Jainko Jaunak benedikata zaitzan zure eskuetako lan guzietan.

20. Oliben fruituak bildu badituzu, ondoen gainean gelditu direnen biltzera etzare itzuliko; bainan utziko diotzatzuete arrotzari, umezurtzari eta alhargunari.

21. Bildu duzunean zure mahastia, ez ditutzu bilduko gelditu diren mulkhoak, bainan eroriko dira arrotzaren, umezurtzaren eta alhargunarentzat.

22. Orhoit zaite zerorri Egipton gathibu izatu zarela, eta hargatik manatzen darotzut gauza hori.

## XXV. KAP.

1. Baldin batzuen artean makhur bat atheratu bada eta juieei buruz goan badira: zein-ere ikhusi baitukete zuzenbidean, hari emanen diote irabazi; zein-ere inpiokerian, eta hura inpiotzat kondenatuko dute.

2. Bainan hobendunak zaharoz merezi duela ikhusten badute, lurrean etzanaraziko dute eta zafraraziko. Bekhatua nolako, zafraldia halako izanen da:

3. Halako moldez bizkitartean non zafrak ez baitira berrogoietan iraganen; zure anaia ez dadientzat goan zure aitzinean itsuski phorrokatu.

4. Ez diozu ahoa lothuko larrinean zure bihiak tapikatzen dituen idiari

5. Bi anaia elkharrekin bizi izan badira, eta bat hil haurrik gabe, zeneduaren emaztea ez da bertzerekin ezkonduko, baizik-ere bere senhar zena anaiarekin, zeinak hartuko baitu eta bere anaiari ondokoak emanen;

6. Eta emazte harenganikako seme zaharrena deithuko du bere anaiaren izenaz, haren izena ez dadien gal Israeldik.

7. Bainan anaiaren emaztea, legeaz zor zaioena, ez badu hartu nahi, hiriko athera egingen du emaztekiak, eta zaharrei buruz goanen da, eta erranen diote: Ene gizonaren anaia ez du bere anaiaren izena eraiki nahi Israelen eta ez nau hartu nahi emaztetzat.

8. Eta berehala hurbilaraziko dute, eta galdeak egingen diozkate. Ihardesten badu: Ez dut emaztetzat hartu nahi,

9. Emaztekoa hurbilduko zaio zaharren aitzinean, khenduko dio oinetakoa zangotik, eta thu egingen dio begithartera, eta erranen dio: Hola egingen zaio bere anaiaren etxea eraiki nahi ez duenari.

10. Eta haren etxearen izena Israelen izanen da Ointhustuaren etxea.

11. Bi gizonak elkharren artean makhur bat izaten badute, eta bat bertzeari liskartzen abiatzen bazaio, eta bertzearen emazteak bere senharra atheratu nahiz hazkarragoaren aztaparretarik, eta eskua ematen badu, eta ahalkesun diren lekhuetarik lotzen bada,

12. Moztuko diozu eskua, eta etzare haren urrikariz hautsiko.

13. Ez dituzu xaxaxtan phisu desbardinak izanen, bata handiagoa eta bertzea ttipiagoa;

14. Eta zure etxean ez dira izanen bi gaitzeru, handiagoa eta ttipiagoa.

15. Phisu bat izanen duzu zuzena eta egiazkoa, eta gaitzeru bat bardina eta egiazkoa, luzez bizi zaitezentzat zure Jainko Jaunak emanen darotzun lurrean.

16. Ezen zure Jainko Jaunak gaitzets du holakorik egingen duena, eta gaitzirizkotan daduka zuzenbide ez den guzia.

17. Orhoit zaite Amalekek zer egin zarotzun bidean, Egiptotik ilkhitzen zinelarik,

18. Nola atheratu zarotzun, eta nola hil zituen zure armadako azkenak, zeinak akhiduraz jarriak baitzauden, goseak eta nekheak ehoa zinelarik, eta etzen Jainkoaren beldur izatu.

19. Beraz zure Jainko Jaunak phausua eman darotzukeenean, eta zuri azpikotu darozkitzukeenean jendaia guziak inguruan, agindu darotzun lurrean, Amaleken izena zeru-petik ezeztatuko duzu. Berautzu ahantz dakizun.

## XXVI. KAP.

1. Zure Jainko Jaunak gozatzeko ematera dihoakizun lurrera sarthuko zarenean, eta hartuz jabetu zaitekeenean, eta han egin dukezunean zure egoitza,

2. Hartuko dituzu zure fruitu guzietako pikainak, saski batean ezarriko dituzu, eta goanen zure Jainko Jaunak hautatu dukeen lekhura, haren izena han deithua izateko.



3. Eta orduan izanen den aphezari hurbilduko zare, eta erranen diozu: Aithor dut egun zure Jainko Jaunaren aitzinean sarthu naizela gure arbasoei zin eginez emanen zarokula agindu zioeten lurrean.

4. Eta aphezak saskia zure eskuetarik hartuz, ezarriko du zure Jainko Jaunaren aldarearen aitzinean.

5. Eta erranen duzu zure Jainko Jaunaren aitzinean: Siriarra goan zen ene aitaren ondotik, zeina jautsi baitzen Egiptora, eta han arrotz ibili hainitz jende gutirekin; eta berhatu zen populu handi, hazkar eta nihonereko oste bat egiten zuela.

6. Eta Egiptoarrek atsekabe eman eta jazarri zarokuten, lan gogorrenak gainera emanez.

7. Eta deihadar egin ginaroen gure arbasoen Jainko Jaunari, seinak entzun baikintuen, eta itsusi zituen gure atsekabea, nekheak eta hestura,

8. Eta bere esku hazkar eta beso zabalaz Egiptotik atheratu gintuen lastura gaitzaren, ikhuskari eta sendagaila handien erdian;

9. Eta sarrarazi gaitu lekhu hunetan, eta eman daroku esnea eta ezitia darioen lurra.

10. Horren gatik eskaintzen ditut orai Jaunak eman darotan lurreko fruituen pikainak. Eta hekiek utziko ditutzu zure Jainko Jaunaren aitzinean, eta zure Jainko Jauna adoraturik,

11. Bozkariotan onthuruntzatuko zarete, zu, eta zure etxe guzia, eta lebitarra, eta zurekin den arrotza, zure Jainko Jaunak eman izan darozkitzun ontasan guzien erdian.

12. Bethe dukezunean zure fruitu guzien hamarrena, hamarrenen hirugarren urthean emanen ditutzu lebitarrari, arrotzari, umezurtzari eta alhargunari, jan dezaten zure atheen barnean eta ase ditezen:

13. Eta erranen duzu zure Jainko Jaunaren aitzinean: Khendu dut ene etxetik sainduetsia dena, eta eman diotet lebitarrari, eta arrotzari, eta umezurtzari eta alhargunari, zuk manatu izan darotazun bezala; ez ditut bazterrat utzi zure manuak, eta ez dut zure manamendua ahantzi.

14. Hamarren hekietarik ez dut jan ene deithoreko orduan, ez ditut berezi edozein gauza lohitako, ez dut hekietarik xahutu deithoreetan. Ethorkor izatu naiz ene Jainko Jaunaren hitzari, eta guziak egin ditut zuk manatu bezala.

15. Begira dizadazu zure saindutegitik eta zeruetako zure egonlekhu goratik, eta benedika zazu zure Israelgo populua eta eman izan darokuzun lurra, gure arbasoei zin egin zinaroeten bezala, esnea eta ezitia darioen lurra.

16. Egun zure Jainko Jaunak manatzen darotzu bethe detzatzun haren manamendu eta erabakiak, begira detzatzun eta bethe zure bihotz oroz eta arima guziz.

17. Egun Jauna hautatu duzu, izan dadien zure Jainkoa, ibil zaitezen haren bidetan, zain detzatzun haren zeremonia, manamendu eta erabakiak, eta ethordun izan zaitezen haren manuei.

18. Eta Jaunak egun hautatu zaitu izateko haren populu berezia, berak erran izan darotzun bezala, eta begira detzatzun haren manamendu guziak;

19. Eta zu ezartzeko, bere laudorio, izen eta ospetan egin dituen jendaia guziak baino gorago, izan zaitezentzat, erran darotzun bezala, zure Jainko Jaunaren populu saildua.

## XXVII. KAP.

1. Bada, Moisek eta Israelgo zaharrek populuari manu egin zioeten, erraten zutelarik: Begira zatzue nik egun emanen darozkitzuetan manamendu guziak.

2. Jordango ura iraganen duzue zure Jainko Jaunak emanen darotzun lurrera, landatuko ditutzu harri handi batzuek eta khisuztatuko ditutzu,

3. Hekietan iskriba ahal detzatzun lege huntako hitz guziak, Jordanea iragan-eta zure Jainko Jaunak emanen darotzun lurrera sartzeko, esne eta ezti darioen lurrera, zure arbasoei zin egin izan dioteten bezala.

4. Jordanea iraganen duzue beraz, nik egun manatzen darozkitzudan harri hekiek altxatuko ditutzu Hebalgo mendiaren gainean, eta khisuztatuko ditutzu.

5. Eta han zure Jainko Jaunari eginen diozu aldare bat burdinak ukitu ez dituen harriz,

6. Bainan harri muger eta legundugabeez, eta haren gainean zure Jainko Jaunari holokaustak eskeiniko diozkatzu.

7. Eta bakezko bitimak imolatuko ditutzu, eta han lanen duzu, eta zure Jainko Jaunaren aitzinean eginen duzu bozkariozko barazkaria.

8. Eta lege huntako hitz guziak harrien gainean iskribatuko ditutzu garbiki eta ageriki.

9. Eta Moisek eta Lebiren odoleko aphezak Israel guziari erran zioten: Atzar zaite Israel, eta adi zazu; egun egin zare zure Jainko Jaunaren populua:

10. Entzun zazu beraz haren mintzoa, eta begira zatzu haren manamendu eta erabaki, nik zuri mezutzen darozkitzudanak.



11. Eta egun hartan Moisek populuari manu egin zuen, zioelarik:
12. Hautxek xutik egonen dira Garizingo mendiaren gainean, Jordanea iragan-eta, populuaren benedikatzeko: Simeon, Lebi, Juda, Isakar, Josep eta Benjamin.
13. Eta bertze aldetik, madarikatzeko Hebalgo mendian xutik izanen dira haukiek: Erruben, Gad, Aser, Zabulon, Dan eta Nefthali.
14. Eta lebiarrek deiagora eginen dute, eta Israelgo gizon guziei erranen diote goraki:
15. Madarikatua gizona egiten duena jainko-itxura bernuzatua eta urthua, Jaunaren gaitzigarrikeria, ofizialearen esku-lana, eta hura lekhu gordean ezartzen duena. Eta populu guziak ihardetsiko du, eta erranen du: Biz.
16. Madarikatua bere ait-amei ohore bihurtzen ez diotena. Eta populu guziak erranen du: Biz.
17. Madarikatua bere lagunaren mugarriak aldaratzen dituena. Eta populua guziak erranen du: Biz.
18. Madarikatua itsua bidetik makhurraziko duena. Eta populu guziak erranen du: Biz.
19. Madarikatua arrotzaren, umezurtzaren eta alhargunaren zuzena zehihertzen duena. Eta populu guziak erranen du: Biz.
20. Madarikatua bere aitaren emaztearekin lo egiten duena eta haren oheko estalgia agertzen duena. Eta populu guziak erranen du: Biz.
21. Madarikatua edozein abererekin lo egiten duena. Eta populu guziak erranen du: Biz.
22. Madarikatua lo egiten duena bere arrebarekin, bere aitaren edo amaren alaba denarekin. Eta populu guziak erranen du: Biz.
23. Madarikatua bere amagarrebarekin lo egiten duena. Eta populu guziak erranen du: Biz.
24. Madarikatua bere anaia ixilean jotzen duena. Eta populu guziak erranen du: Biz.
25. Madarikatua hobengabe den odolaren ixurtzeko emaitzak hartzen dituena. Eta populu guziak erranen du: Biz.
26. Madarikatua lege huntako hitzetan egoten ez dena eta egintzetan ezartzen ez dituena. Eta populu guziak erranen du: Biz.

### XXVIII. KAP.

1. Entzuten baduzu ordean zure Jainko Jaunaren mintzoa, bethetzen eta begiratzen badituzu haren manamendu guziak, nik egun mezutzen

darozkitzudanak, zure Jainko Jaunak gorago ezarriko zaitu lurraren gainean hedatzen diren jendaki guziak baino.

2. Eta benedizione hautxek guziak zure gainera ethorriko dira eta iratxikiko zaizkitzu, baldin bizkitartean haren manamenduei begiratzen bazare.

3. Benedikatua zu hirian, eta benedikatua bazterretan.

4. Benedikatuak zure sabeleko fruituak, zure lurreko fruituak, zure azienden fruituak, zure abere larrizko arthaldeak, eta zure hespiletako ardiak.

5. Benedikatua zure selharua, eta benedikatua zure manka.

6. Benedikatua izanen zare sartzean eta ilkhitzean.

7. Jaunak trunbilka zure aitzinean erorraziko ditu zure kontra jai-kiko diren etsaiak: bide batez ethorriko dira zure kontra, eta zazpiz eginen dute ihes zure begitharteari.

8. Jaunak benedizionea igorriko du zure arnotegiaren gainera, eta zure eskuetako lan guzien gainera, eta hartuko duzun lurrean benedikatuko zaitu.

9. Jaunak beretzat zutan eraikiko du populu bat saindua, zin egin izan darotzun bezala, baldin zure Jainko Jaunaren manamenduak begiratzen badituzu, eta haren bideetan ibiltzen bazare.

10. Eta lurreko populu guziek ikhusiko dute Jaunaren izena deithua dela zure gainera, eta zure beldur izanen dira.

11. Jaunak gaindiaraziko zaitu ontasun guziz, zure sabeleko fruituez, zure azienden fruituez, eta zure aitei zin eginez zuri emateaz agindu zioten lurreko fruituez.

12. Jaunak idekiko du bere aberastasun handienetako khutxa, zerua, lurrari uriaren emateko bere aroan; eta benedikatuko ditu zure eskuetako lan guziak. Eta asko jendakiri maileguz emanen duzu, eta nihoren ganik ez duzu maileguz hartuko.

13. Jaunak ezarriko zaitu buruan, eta ez buztanean; eta bethi gainean izanen zare, eta ez azpian; baldin bizkitartean entzuten badituzu zure Jainko Jaunaren manamenduak, nik egun mezutzen darozkitzudanak, begiratzen badituzu eta bethetzen,

14. Eta hekietarik ez bazare makhurtzen, ez eskuin ez ezker, eta ez bazare jainko arrotzei jarraikitzen, eta zerbitzatzen ez badituzu.

15. Bainan entzun nahi ez baduzu zure Jainko Jaunaren hitza begiratzeko eta bethetzeko haren manamendu, eta zeremonia, nik zuri egun mezutzen darozkitzudanak, madarizone haukiek oro ethorriko dira zure gainera, eta iratxikiko zaizkitzu.



16. Madarikatua izanen zare hirian, madarikatua bazterretan.
17. Madarikatua zure selharua, eta madarikatua zure manka.
18. Madarikatuak zure sabeleko fruitua eta zure lurreko fruitua, zure idiarthaldeak eta ardi-arthaldeak.
19. Madarikatua izanen zare sartzean, eta madarikatua ilkhitzean.
20. Jaunak zure gainera igorriko ditu gosetea eta erromeseria, eta madarizionea ezarriko du eginen dituzun lan guzietan, leher eta laster gal zaitzan arteo, zure egitate guziz tzarren gatik, zeinetaz bazterrerat utzi bainazu.
21. Jaunak iratxik bezazu izurritea, gozatzeraz sarthu zaren lurretik suntsiaraz zaitzan arteo.
22. Jaunak jo bezaitza erromestasunaz, sukharraz eta hotzaz, beroaz eta saphaz, aire ustelaz eta herdoaz, eta ondotik jarraik bekizu, gal zaitezzen arteo.
23. Zure gainean den zerua izan bedi kobrez, eta oinkatzen duzun lurra burdinaz.
24. Jaunak zure lurrari uritzat eman bezo herrautsa, eta zerutik zure gainera hautsa eror bedi, leher zaitezzen arteo.
25. Trunbilka zure etsaien aitzinean erortzen zarela, Jaunak hekien eskuetara eman bezaitza; bide batez ilkhi bezedi hekien kontra, eta zazpiz ihes egin bezazu, eta barraiatua izan bezedi lurreko erresuma guzietan.
26. Zure hilikia izan bedi zeruko hegastinen eta lurreko abere basen hazkurri, eta hekiek haizatuko dituenik nihor izan ez bedi.
27. Jaunak jo bezaitza Egiptoko zauriaz, zaragarrez eta hatzez zure gorphutzeko alderdi zeintarik ilkhitzen baitzaitzu ongarria, halai non ezin sendatuko baitzare.
28. Jaunak jo bezaitza zorotasunaz, itsutasunaz eta izpirituko erhotasunaz;
29. Eta eguerditan haztaka ibil bezedi itsua bere ilhunbeetan ibiltzen ohi den bezala, eta ez betzatzu zure bideak atzeman. Bizi guzian beltzatua izan bezedi eta bortxaren-pean zaphatua, eta nork libra izan ez bezazu.
30. Emazte har bezazu, eta zutaz bertze batek harekin lo egin beza; etxea egin bezazu, eta ez bezedi hartan egon; mahastia landa bezazu, eta zuk mahatsa ez bezazu bil.
31. Zure idia zure aitzinean imolatua izan bedi, eta zu ez bezedi izan hartarik jale; zure astoa har bezazute aitzinetik, eta ez bezaitzu bihurtua izan, zure ardiak emanak izan beitez zure etsaiei, eta nork lagun ez bezazu khausi.

32. Zure semeak eta alabak bertze populu bati emanak izan beitez, zure begiek ikhusten dituztelarik eta hekien begira iraungiak daudezelarik egunaren buru batetik bertzeraz, eta zure eskuan indarririk izan ez bedi.
33. Ez dakizun populu batek irets betza zure lurreko fruituak eta zure nekhe guziak; eta bethi izan bezaitze kalomniaren jasaile, eta zaphatua egun oroz,
34. Eta zure begiek ikhusiko dituzten guzien beldurrak harrutia.
35. Jaunak zauririk gaixtoenaz jo bezaitza belhaunetan eta aztaletan, eta ezin senda bezedi oin zolatik buru kaskoraino.
36. Jaunak eramanen zaituzte zu eta zure gainean ezarri dukezun erregea zuk eta zure arbasoek ez dakizuen jendaki batera: eta han zerbitzatuko dituzu jainko arrotzak, zura eta harria.
37. Eta izanen zare galdua, errankizun eta irrigarri bat populu guzientzat, zeinetara eramanen baitzaitu Jaunak.
38. Hazi hainitz arthikiko duzu lurrera, eta guti bilduko, zeren xartalek iretsiko baitituzte oro.
39. Mahastia landatuko duzu eta haitzurtuko, eta ez duzu arnorik edanen, ez-eta hartarik deusere bilduko, zeren harrek xahutuko baitute.
40. Olibak izanen dituzu zure eremu guzietan, eta etzare olioiz gantzutuko. zeren ixuriko eta galduko baitira.
41. Semeak eta alabak izanen dituzu, eta etzare hekietaz gozatuko, zeren gathibu eramanak izanen baitira.
42. Herdoak iretsiko ditu zure zuhaitz guziak eta zure lurreko fruituak.
43. Zurekin lur berean dagoen arrotza iganen da zure gainera, eta gorago izanen da; zu ordean jautsiko zare eta izanen zare beherago.
44. Zuk hari maileguz hartuko diozu, eta ez diozu maileguz emanen. Hura izanen da buruan, eta zu izanen zare buztanean.
45. Eta madarizione horiek guziak ethorriko dira zure gainera, jarraikiko zaizkitzu eta iratxikiko xahu zaitezzen arteo, zeren ez duzun nahi izan entzun zure Jainko Jaunaren hitza eta begiratu mezutu darozkitzun manamenduak eta zeremoniak.
46. Eta zure baithan eta zure ondoregoa baithan mendeen mendetaino izanen dira ikhuskari eta sendagaila harrigarriak,
47. Zeren zure Jainko Jauna zerbitzatu ez dukezun bozkariotan eta zure bihotzeko goiheratasunean, gauza orotako nasaizia gatik.
48. Jaunak igorriko darotzun etsaia, gosean, egarrian, buluztasunean, eta eskasia orotan zerbitzatuko duzu, eta burdinazko uztarri bat ezarriko du zure lephoaren gainean leher zaitzan arteo.



49. Jaunak urrundarik eta lurraren bertze burutik zure gainera erak-harriko du jendaia bat, hegaldaka oldarrean heldu den arranoa iduri, eta zeinaren mintzaia ezin entzunen baituzu;

50. Jendaia guziz ozarra, ikhustaterik izanen ez duena zaharrentzat, ez-eta urrikalmendurik haurttoarentzat;

51. Eta iretsiko dituenak zure azienden fruitua eta zure lurreko fruituak, leher egin dezazun arteo; eta utziko ez darotzuna ez ogirik, ez arnorik, ez oliorik, ez idi-arthalderik, ez ardi-arthalderik, gal zaitzan arteo,

52. Eta xahu zaitzan zure hiri guzietan, eta lurrerat arthikiak izan ditezen zure harrasi hazkar eta gorak, zeinetan baitzinduen zure sinhestea zure lur guzian. Zure Jainko Jaunak emanen darotzun lurreko hiri guzietan sethiatua izanen zare;

53. Eta zure etsaiak jasanaraziko darozkitzun hestura, hagoetan, janen duzu zure sabeleko fruitua, eta zure Jainko Jaunak zuri emanikako semeen eta alaben haragietarik.

54. Zure baithako gizon beratz eta guziz atseginkeriazalea bekhaitz izanen zaiote bere anaia eta bere bulharraren gainean lo egiten dioen emazteari,

55. Eta ez diote eman nahiko bere semeen haragietarik, zeinetarik berak janen baitu, bertzerik ez izanez, zure etsaiak zure hiri guzietan jasanaraziko darozkitzun sethio, gosetetan.

56. Emazteki minbera eta beratza, lurrean ibil etzaitkeena eta zango lurraren gainean eman etzezakeena, bere gurikeriaren eta minberata-sunaren handiz, aldean lo egiten dioen senharrari bekhaitz izanen zaio bere seme, alaben haragietarik,

57. Eta ixtapetik atheratzen diren ondokoen zikinkerietarik, eta orduan sorthuko zaizkoen haurren haragitik: ezen ixilka janen dituzte gauza guzien eskasiaz, zure etsaiak zure hirietan jasanaraziko darozkitzun sethio, hagoetan.

58. Zaintzen eta bethetzen ez badituztu liburu huntan iskribatua den lege huntako hitz guziak, eta haren izen ospetsu eta ikharagarriaren, erran nahi da zure Jainko Jaunaren beldur ez bazare,

59. Jaunak berhatuko ditu zure zauriak, zure ondoregoaren zauriak, zauri handiak eta iraupenkoak, gaitz guziz gaixtoak eta akhabantzagabeak.

60. Eta lastu zaituzten Egiptoko izurri guziak bihurtuko ditu zure gainera, eta iratxikiko zaizkitzu.

61. Gainerako, erkhidura guziak, eta lege huntako liburuan iskribatuak ez diren zauriak, Jaunak zure gainera jautsaraziko ditu, herrauts zaitzan arteo:

62. Eta guttito geldituko zarete, zuek lehenago zeruko izarrak bezenbat zinetenak zuen osteaz, zeren ez duzun entzun zure Jainko Jaunaren mintzoa.

63. Eta nola lehenago Jaunak zuen gainean atsegin hartu baitzuen, zuei ongi eginez eta zuek berhatuz, hala atsegin hartuko du zuen xahutzen eta galtzen, ezeza zaitzaten gozatera zihoazten lurretik.

64. Jaunak barraiatuko zaitu populu guzietan, lurraren bazter batetik bertzera; eta han zerbitzatuko dituzte jainko arrotz, zuk eta zure arbasoek ezagutzen ez dituzuenak, zura eta harria.

65. Jendaki hekietan ere ez da zuretzat sosegurik izanen, ez-eta zure oinhatzarentzat sesurik. Jaunak ezen emanen darotzu bihotz ikharati bat, eta begi iraungitzen diren batzuek, eta grima bat atsekabez hiratua.

66. Eta zure bizia izanen da dilindan bezala zure aitzinean. Beldurretan egonen zare gau eta egun, eta bizi zarea etzaitzu idurituko.

67. Goizean erranen duzu: Nork emanen darot niri arratsa? Eta arratsean: Nork emanen darot niri bihar-goiza? zure bihotzeko izialdurak ikharan idukiko zaituena gatik, eta zure begiek ikhusiko dituztenak gatik.

68. Jaunak untzitan bihurtuko zaitu Egiptora, zeintarako bideaz erran izan baitarotzu hura zure begiz ez duzula gehiago ikhusiko. Han zure etsaiei saldua izanen zare muthiltzat eta neskatotzat, eta nork eros ez da izanen.

## XXIX. KAP.

1. Haukiek dira hitzak Jaunak Moisi Israelgo semeekin egiteaz manatu zioen batasunekoak Moabeko lurrean, Horeben hekiekin egin izan zuen batasunaz bertzalde.

2. Eta Moisek Israel guzia deithu zuen, eta erran zioten hekiei: Ikhusi izan dituzte Jaunak zuen aitzinean Egiptoko lurrean egin diozkanak oro Faraoni, haren zerbitzari guziei eta lur guziari;

3. Zuen begiek ikhusi dituzte frogapen handiak, ikhuskari hekiek eta sendagaila gaitz hekiek;

4. Eta Jaunak ez darozkitzute orai arteo eman aditzen duen bihotza, ikhusten duten begiak, eta entzun dezaketen beharriak.

5. Berrogoi urthez mortuan bidatu zaituztete: zuen soinekoak ez dira hautsiak, ez-eta zuen oinetakoak ihetxeduraz higatuak.

6. Ez duzue jan ogirik, ez edan arnorik eta buztinorik, jakin zinezaten ni naizela zuen Jainko Jauna.

7. Eta ethorri zarete lekhu huntara: Sehon, Hefebongo errege, eta Og, Basango errege atheratu dira guri gudu ematera. Eta jo ditugu,



8. Eta hartu dugu hekien lurra, eta gozatzera eman diotegu Errubeni, Gadi eta Manaseren leinu erdiari.
9. Begira zatzue beraz eta bethe patu huntako hitzak: adi detzazuentzat egiten dituztuen guziak.
10. Egun zuen Jainko Jaunaren aitzinean zarete guziak, zuen aitzindariak, leinuetako zabarrak eta irakhasleak, Israelgo populu guzia,
11. Zuen haurrek eta emazteak, eta zuekin kanpetan dagoen arrotza, egur-egileez eta urketariez berme guziak,
12. Iragan zaitezentzat zure Jainko Jaunaren batasunera, eta zure Jainko Jaunak egun zurekin jotzen duen zinera,
13. Zutarik egiteko bere populua, eta bera izateko zure Jainkoa, agindu darotzun bezala eta zin egin zioeten bezala zure arbaso Abraham, Isaak eta Jakobi.
14. Eta jotzen dudan patu hau, eta berritzen dudan zin hau, ez dira zuentzat bakharrik,
15. Bainan hemen direnen eta ez direnentzat.
16. Zuek ezen badakizue nola egotu izan garen Egiptoko lurtean, eta nola iragan garen jendaien erditik, zeinetarik iragaitean,
17. Ikhusi baitituztue izigarrikeriak eta lohikeriak, erran nahi da, adorraten zituzten jainkorde, zur, harri, zilhar eta urheak.
18. Ez bedi beraz zuen artean izan gizon edo emazteki, familia edo leinu, zeinaren bihotza egun makhurtuko baita gure Jainko Jauna ganik, goateko jendaia hekien jainkoen zerbitzatzera, eta zuen artean izateko khelderra eta khirestasuna sorthuko dituen erroa.
19. Eta aditu ondoan zin hunetako hitzak, bere bihotzean nihork ez bezo bere buruari gozo egin, erranez: bakea izanen dut, eta ibiliko naiz ene bihotzeko tzartasunean: beldurrez-eta hordiak egarri dena bere dezan.
20. Eta Jaunak ez dio halakoari barkhatuko; baina orduan khetan emanen dira haren hasarre gaitza eta haren kharra halako gizonaren kontra, eta halakoaren gainean jar beitez liburu huntan iskribatuak diren madarizone guziak, eta Jaunak zeru-petik ezezta beza haren izena;
21. Eta bethikotzat xahu beza Israelgo leinu guzien artetik lege huntako eta batasuneko liburuak daduzkan madarizoneen arabera.
22. Eta erranen dute ondoko gizaldiak, eta gerorat sorthuko diren haurrek, eta urrundik ethorriko diren arrotzek, ikhustenez lur hortako zauriak eta Jaunak arthiki dioizkien gaitzak,
23. Sufrez eta gatzaren suz erroerik, halaz non ez baita erainen, eta berderik deusere ez baitu ekharriko, xahutua dela Sodoma, Gomorha,

Adama eta Seboim bezala, zeinak herrautsi baitzituen Jaunak bere hasarrean eta sulian;

24. Eta jendaia guziek erranen dute: Zertako Jaunak lur horri egin izan dio holakorik? zer da haren suliaren hasarre gaitz hau?
25. Eta ihardetsiko zaoete: Zeren bazterrerat utzi duten Jaunak horien arbasoekin egin izan zuen patua, Egiptoko lurretik eraiki zituenean;
26. Zeren zerbitzatu dituzten Jainko arrotzak eta adoratu etzakizkietanak eta zeinentzat ez baitziren bereziak;
27. Horra zergatik sutatu den Jaunaren sulia lur horren kontra, jautsarazko horren gainera liburu huntan iskribatuak diren madarizone guziak:
28. Eta bere hasarrean, eta sulian eta gaitzidura ikharagarrian beren lurretik irazi ditu horko egoiliarak, eta lekhu arrotzera arthiki ditu, egun ageri den bezala.
29. Gure Jainko Jauna baithan gordeak zaudenak, agertuak zaizku guri eta gure semeei behin-bethiraino bethe ditzaguntzat lege huntako hitzak oro.

### XXX. KAP.

1. Gerthatu ditazkeenean beraz erran horiek oro zuen gainean, benediziona edo madariziona zuen aitzinean ezarri ditudanak: eta Jainko Jaunak barriatu zaituzken jendaien erdian bihotzeko urrikiak jorik,
2. Itzuliko zarenean haren gana, eta ethordun eginen haren manuei, nik egun mezutzen zaitudan bezala, zure semeekin, zure bihotz oroz eta arima guziz:
3. Zure Jainko Jaunak bihurraraziko zaitu zure gathibusunetik, eta urrikalduko zaitzu, eta lehenago barriatu zintuen populu guzietarik berriz bilduko zaitu.
4. Zeruko azken bazterretaraino haizatua bazina ere, zure Jainko Jaunak handik gibelerat ekharriko zaitu.
5. Eta hartuko zaitu eta sarthuko zure arbasoek gozatu duten lurtean, eta ardietsiko duzu hura: eta Jaunak zu benedikatu, eginen du oste handiagoan izanen zarea zure arbasoak izatu diren baino.
6. Zure Jainko Jaunak ingurebakiko ditu zure bihotza eta zure haurren bihotza, maitha dezazun zure Jainko Jauna zure bihotz oroz eta arima guziz, bizi ahal izateko.
7. Ordean madarizone haukiek oro bihurtuko ditu zure etsaien gainera eta higuintzen zaituztenen eta jasanarazten darotzutenen gainera.



8. Zu berriz, itzuliko zare, entzunen duzu zure Jainko Jaunaren mintzoa eta betheko ditutzu nik egun mezutzen darozkitzutan haren manamendu guziak.

9. Eta zure Jainko Jaunak goriaraziko zaitu zure eskuetako lan guzietan, zure sabeleko haurretan, eta zure abereen fruituetan, zure lurraren aberastasunean, eta gauza guzien nasaizian. Ezen Jauna itzuliko da, atsegin hartzeko ontasun oroz zu gainditzen, zure arbasoekin atsegin hartu izan zuen bezala:

10. Baldin bizkitartean entzun badezazu zure Jainko Jaunaren mintzoa, eta begira badezatzu lege huntan iskribatuak diren manamendu eta zeremoniak, eta bihurtzen bazare zure Jainko Jauna gana zure bihotz oroz eta arima guziz.

11. Egun mezutzen darotzudan manamendu hau ez da zutaz gaindikoa, ez-eta zutarik urrun.

12. Ez dago zeruan, zuk erran ahal izateko: Gutarik nor igan daiteke zerura, hori ekhartzeko guri, entzun dezaguntzat eta bethe gure egintzaz?

13. Ez dago itsasoz haಿಂದian, zuk aitzakia egiteko eta errateko: Gutarik nork iragan dezake itsasoa hori gu ganaraino ekhartzekotzat, entzun eta egin ahal izateko manatua dena?

14. Bainan manamendu hori zure aldealdean da, zure ahoan eta zure bihotzean, bethe dezaguntzat hori.

15. Behemazu egun zure aitzinean ezarri ditudala bizia eta ongia, eta bertaldetik herioa eta gaizkia,

16. Maitha dezaguntzat zure Jainko Jauna, eta ibil zaitezten haren bideetan, eta begira dezatzun haren manamendu, zeremonia, erabakiak, eta bizi zaitezten, eta berha, eta gozatzeko sartzera zihoazen lurrean benedikaitzan.

17. Baldin ordean bertzaldera balago zure bihotza, eta entzun ez bazindu nahi, eta zoramenduak bereturik adoratzen eta zerbitzatzen bazintu jainko arrotzak:

18. Aitzinetik erraten darotzut egun, galduko zarela, eta Jordanea iraganik, gozatzera zihoazen lurrean aldi laburra eginen duzula.

19. Lekhuko deitzen ditut egun zerua eta lurra aitzinera eman darozkitzudala bizia eta herioa, benedizioea eta madarizioea. Hauta zazu beraz bizia, bizi zaiteztentzat, zu eta zure hazia;

20. Maitha dezazun zure Jainko Jauna, ethordun izan zaitezten haren bozari, eta hari iratxik zaitezten (ezen bera da zure bizia eta zure egunetako luzetasuna), zure egoitza egin dezaguntzat lur hartan, zeintaz Jaunak zin egin baitu zure arbaso Abraham, Isaak eta Jakobi, hura emanen ziotela.

### XXXI. KAP.

1. Goan zen beraz Moise, eta solas horiek oro erran ziozkan Israel guziari,

2. Eta erran zioen: Egun baditut ehun eta hogoi urthe; ez naiteke gehiago ez ilkhi, ez sar, bereziki Jaunak erran darotanaz geroz: Jordaneko ur hori iraganen ez duzu.

3. Zure Jainko Jauna iraganen da beraz zure aitzinean; berak zure begien aitzinean xahutuko ditu jendaki horiek, eta zuretuko ditutzu; eta Josue hau goanen da zure buruan, Jaunak erran duen bezala.

4. Jaunak horiei eginen diote, Sehon eta Og Amorhearren erregei eta hekien lurrari egin izan diotena, eta xahutuko ditu.

5. Beraz horiek eskuetaratu darozkitzuetenean, halaber eginen diozute nola nik manatu baitarotzuet.

6. Gizonki emazue, eta hazkar zaitezte bihotzez; ez izan beldurrik; ez betzaizte horien aitzinean ikhara, zeren zuen Jainko Jauna bera baita zuen bidari, etzaituzte hastanduko ez-eta bazterrerat utziko.

7. Eta Moisek deithu zuen Josue, eta erran zioen Israel guziaren aitzinean: Egiozu bihotzari eta zaude hazkarretik; ezen zuk eramanen duzu populu hau Jaunak haukien aitei zin eginez emanen ziotela agindu lurrera, eta hura zortean zathituko diozute.

8. Eta zuen bidari izanen den Jauna, bera zurekin izanen da: etzaitu hastanduko, ez-eta utziko; ez izi, ez ikhara.

9. Moisek iskribatu zuen beraz lege hau, eta eman zioeten Lebiren seme aphezei, zeinek erabiltzen baitzuten Jaunaren batasuneko arkha, eta Israelgo zahar guziei.

10. Eta manu eginez, erran zioeten: Zazpi urtheren buruan, bihurtzaren peneko urthean, Tabernaketako besta-buruan,

11. Israeldik guziak biltzen direnean, zure Jainko Jaunaren aitzinera agertzeko Jaunak hautatu dukeen lekhura, lege huntako hitzak irakurtuko ditutzu Israel guziaren aitzinean, orok aditzen dituztelarik,

12. Eta batera bildu ondoan populu guzia, nola gizonak hala emaztekiak, haurrak eta zure hirietan diren arrotzak, entzutearekin ikhas detzaztentzat, eta zuen Jainko Jaunaren beldur izan ditezen, eta lege huntako hitz guziak begira eta bethe detzaten;

13. Eta hekien semeek ere orai ez dakitzatenek, adi ahal detzaztentzat, eta beren Jainko Jaunaren beldur izan ditezen egoten diren egun oroz lur hortan, zeintaz jabetzera baitzihoazte, Jordanea iraganik.



14. Eta Jaunak Moisi erran zioen: Huna non hurbil den zure hiltze-ko eguna; deith zazu Josue, eta eman zaizte lekhukotasuneko tabernaklearen aitzinean, ene manuak eman detzodantzat. Moise eta Josue goan ziren beraz, eta gelditu ziren lekhukotasuneko tabernaklearen aitzinean;

15. Eta Jauna han agertu zen, tabernakle-sartzean baratu zen hedoi habe batean.

16. Eta Jaunak erran zioen Moisi: Huna bada lo egingen duzula zure arbasoekin, eta populu hori jaikirik lohituko da jainko arrotzen ondotik, sarthuko den lurrean bere egoitzaren egiteko: han utziko nau, eta alferretara bihurtuko du horrekin egin dudan batasuna.

17. Eta egun hartan ene hasarrea sutatuko da horren kontra; eta bazterrerat utziko dut, eta ene begithartea horren ganik gordeko, eta etsaiaren hortzetan egonen da; gaitz eta atsekabe guziek atzemanen dute, halaz non egun hartan erranen baitu: Egiazki zeren ez den Jainkoa enekin gaitz haukiek atzeman naute.

18. Ni bada itzaliko naiz eta gordeko dut ene begithartea egun hartan, egin dituen gaizki guzien gatik, zeren jainko arrotzei jarraiki baita.

19. Hargatik iskriba zazue kantika hau zuentzat, eta irakhats zozuete Israelgo semeei, gogoz ikhas dezatentzat eta ahoz kanta: eta kantu hau lekhukotasunetan izan bekit Israelgo semeen artean.

20. Ezen sarraraziko ditut zin eginez horien aitei agindu izan diotedan lurrean, zeinari baitario ezti eta esne. Jan duketenean, eta ase eta gizendu ondoan, makhurtuko dira jainko arrotzetara eta hekiek dituzte zerbitzatuko; eta ene kontra mintzatuko dira, eta alfer eragingen dute enekilako patua.

21. Eta gaitzen eta atsekabeen uharra gainera eroriko zaiotenean, kantika hunek ihardetsiko diote lekhukotasun batek bezala, zeina ahanterik ez baita izanen galaraziko duenik hekien ondokoen ahotik. Badakizkit ezen hekien gogoetak, zer egingen duten egun agindu diotedan lurrean sarraraz ditzadan baino lehen.

22. Moisek iskribatu zuen beraz kantika eta irakhatsi zioeten Israelgo semeei.

23. Eta Josue, Nunen semeari manu egin zioen, erraten zioelarik: Egiozu bihotzari eta zaude hazkarretik; ezen zuk sarraraziko ditutzu Israelgo semeak agindu diotedan lurrean, eta ni zurekin izanen naiz.

24. Moisek lege huntako hitzak liburuan iskribatu zituen ondoan, eta akhabatu zuenean,

25. Manu egin zioeten lebitarrei, zeinek ekhartzen baitzuten Jaunaren batasuneko arkha, zioelarik:

26. Har zazue liburu hau eta ezar zazue zuen Jainko Jaunaren batasuneko arkharren sahetsean, hor egon dadientzat zure kontra lekhuko.

27. Badakizkit ezen zuen hisia eta buru-gogortasun gaitza. Ni bizi izan-eta, zuekin ibilki, etzarete baratu hesiaka haritzetik Jaunaren kontra; zenbat gehiago ni hil ondoan!

28. Bilarazkitzue ene gana zuen leinuetako adinez zaharren guziak, eta irakhasleak; eta aditzen nautela erranen diozkatet hitz horiek, eta hekien kontra deithuko ditut zerua eta lurra.

29. Badakit ezen ni hil ondoan gaizki ibiliko zaretela, eta laster makhurtuko zaretela nik zuei mezutu bidetik, eta azkenekotz izurriak ethorriko zaizkitzue gainera, noiz-ere gaizkia Jaunaren aitzinean egingen baituzue, sumindu dukezuenean zuen eskuetako egintzez.

30. Moisek beraz, Israelgo baldarna guziak aditzen zuela, erran zituen kantika huntako hitzak, eta azkeneraino akhabatu zuen.

## XXXII. KAP.

1. Zeruak, entzun zazue zer diodan: lurra, adi zak ene ahoko hitza.

2. Ene irakaskuntza gogor bedi uria hormatzen den bezala, ene hitzak eror beitez ihintza bezala, uria belharraren gainera bezala, uri-xortak sorropilaren gainera bezala.

3. Ezen deithuko dut Jaunaren izena: handiets zazue gure Jainkoa.

4. Jainkoaren egintzak osoak dira eta haren bide guziak zuzenak: Jainkoa hitzekoa da, itzalgabea, zuzena, zorrotza.

5. Damu egin diote, etziren haren seme beren lizunkerietan: iraulgi zabarra eta galdua.

6. Hori da hire ezagutza Jaunari, populu zoro, erhoa? Jauna ez othe da hire aita, eskuan haukana, egin eta ezdeusetarik atheratu hauena?

7. Orhoit hadi beihalako egunez, gogora ekharzikik gizaldi guziak: galdeka abia hakio hire aitari, eta jakintsun egingen hau; galda zak hire arbasoei eta argituren haute.

8. Jaun guziz gorenak jendaiak bereztean, Adamen semeak zein bere alde igortzean, populuen mugarriak xedatu zituen Israelen semeen non-brearen arabera.

9. Bainan Jaunaren zathia izan zen haren populua: Jakob izan zen haren primantzako lokharria.

10. Jaunak khausitu zuen lekhu basa batean, lekhu izigarri eta mortu zabalean; asko ingurutan lagundu zuen eta argitu zuen; eta bere begiko ninika bezala zaindu zuen.





11. Arrano bere umeak airatzera deitzen dituenak eta hekien gainean hegaldaka dabilanak bezala, hedatu ditu bere hegalak, eta hartu du eta bere soin gainean eraman.

12. Jauna bakharrik izatu da haren bidari; eta jainko arrotzik etzen harekin.

13. Lur gora batean ezarri du, jan zetzan landetako fruituak, altxa zetzan ezitia harritik eta olioak malkhar gogorrenetik,

14. Burra behietarik eta esnea ardietarik, bildotsen bilgorrarekin eta Basanen semeen aharienarekin, eta pittikak ogiaren mamiarekin, eta edan zezan mahatsaren arno garbiena.

15. Populu maithatua goritu da eta bihurtu: loditu denean, gizendu, zabaldu denean, utzi du Jainko bere egilea, eta gibelatu da Jainko bere salbatzailea ganik.

16. Sumindu dute jainko arrotzez, beren izigarrikeriez jauzarazi dute haren hasarrea.

17. Ez Jainkoari, bainan debruei imolatu dituzte bitimak, ezagutzen etzituzten jainkoazunei: ethorri zaizkote jainko berri batzuek horien aitek adoratu ez dituztenak.

18. Bazterrerat utzi duk sorthu hauen Jainkoa, ahantzi duk ezdeuse-tarik egin hauen Jauna.

19. Jaunak ikhusi du eta jauzi da haren hasarrea, ezen sumindu dute bere seme-alabek.

20. Eta erran du: Gordeko diotet ene begithartea, eta begizatuko dut horien azken ordua: iraulgi tzarra, seme arnegatuak baitira.

21. Tarritatu naute gezurrezko jainkoz, eta sumindu naute beren egitate ergelez; eta nik tarritaturen ditut enea ez den ez populu batez, eta suminduren populu zoro batez.

22. Ene hasarreari lothu zaio su, eta ifernu zolaraino oro erreko ditu: iretsiko du lurra bere zothalarekin, mendien erroak sutan egonen dira.

23. Izurriak bilduko ditut hekien gainera, eta hekien gainera hustuko ditut ene geziak.

24. Goseteak xahutuko ditu, hegastinen moko zorrotzak janen ditu: igorriko diotet basa ihizen hortza, sugeen eta lurreen herrestatzen diren zierpeen errabia.

25. Kanpoan ezpatak, barnean izialdurak xahutuko ditu gizon-gaztea eta neskatxa, bulharreko haurra eta gizon-zaharra.

26. Erran dut: Non dira? ezeztatuko dut gizonetarik hekien orhoitza.

27. Bainan etsaien gaitzirizkoa gatik luzatu dut, haz ez ditentzat horien etsaiak, eta erran ez dezaten: Ez Jaunak, bainan gure esku borthitzak egin ditu horiek oro.

28. Ez oharrenik, ez umotasunik ez du jendaki horrek.

29. Oxala zuhur baleitez, nabadi balezate, azken buruari aitzinetik ohart baleitez!

30. Nolaz batek aitzinean igortzen ditu mila, eta biek ihes igortzen hamar mila? Ez othe da beren Jainkoak saldu eta Jaunak hertsi dituztelakotz?

31. Ezen gure Jainkoa ez da hekien jainkoak iduria, eta gure etsaiak juie dira.

32. Horien mahastiak dira Sodomako eta Gomorhako hiripeetako mahastietarik: horien mahatsa, khelder mahatsa, molkhoak guziz kharatsak;

33. Horien arnoa erainsugearen mina eta aspikaren phozoin hilgarria.

34. Ez othe dira jakitate horiek guziak ni baithan, eta ene khutxetan zigilatuak?

35. Aspertzea niri da, eta ordu izanen denean zorra pagatuko diotet, behaztopa dakioeten zangoa: hurbil da galpeneko eguna, ordua lasterrez heldu da.

36. Jaunak juiatuko du bere populua, eta urrikalduko zaiote bere zerbitzariei: ikhusiko du besoak herbaldurela, sethiatuak iraungi eta ondarrak ezeztatu.

37. Eta erranen du: Non dituzte beren sinhesteko jainko hekiek?

38. Zeinen bitimen bilgorrak jaten baitzituzten eta libazionetako arnoa edaten? Jaiki beitez, laguntza ekhar bezazuete, zuen behar orduan geriza betzaitzate.

39. Ikhusazue bakharra naizela, ez dela nitaz bertze Jainkorik. Nik hilaraziko, nik bizi-araziko dut; nik joko, nik sendatuko dut, eta ez da nihor ene eskuari itzur daitekeenik.

40. Hedatuko dut eskua zerura eta erranen dut: Ni naiz bizi naizena bethitik-bethira.

41. Ene ezpata simista bezala zorrotzen badut, ene eskua juiamenduari lotzen bada, asperkundera bihurturen diotet ene etsaiei, eta gaitzirizkotan nadukatenei emanen diotet beren saria.

42. Odolez hordituko ditut ene geziak, eta ene ezpatak iretsiko ditu haragiak; aseko da ene etsai hilen odolaz, eta boztuko da gathibusunera buru has dihoazinez.



43. Jendaiak, lauda zazue haren populua, zeren aspertuko duen bere zerbitzarien odola, eta asperkunde atherako duen hekien etsaien gainean, eta begithartez egonen den bere populua lurrari.

44. Moise ethorri zen beraz, eta kantika huntako hitz guziak erran zituen populua beharrietara, berak eta Josue, Nunen semeak.

45. Solas horiek oro akhabatu zituen, Israel guziari mintzatuz,

46. Eta erran zioeten: Iratxik zatzue zuen bihotzak hitz haukietan orotan zeintaz egun lekhukotasun egiten baitarotzuet, mana dezozueten zuen semei horiek begira eta egin detzatela, eta bethe lege huntako liburuan iskribatuak diren guziak;

47. Etzaizkitzue ezen ezdeusetako emanak, baina bai horiez batbedera bizi dedientzat: horiek bethez luzez iraunen duzue, Jordanea iraganik gozatzeraz zihozten lurrean.

48. Egun berean Jauna Moisi mintzatu zen, erraten zioelarik:

49. Igan zaitezi Abaringo, erran nahi da Iragaitzetako mendi hortara, Nebo mendin, Moabeko lurrean, Jerikoko parrean; begia emozu Kanaango lur, Israelgo semei gozatzeraz emanen diotedanari, eta mendian hil zaitezi.

50. Hori igaitean batua izanen zare zure populuei, zure anaia Aaron Horreko mendian hil eta batu den bezala bere populuei,

51. Zeren ene kontra bekhatu egin duzuen Israelgo semeen erdian, Jazarlekhuko uretan, Kadesen, Sineko mortuan; eta zeren ez nauzuen sailduetsi Israelgo semeen erdian.

52. Eta zure parrean ikhusiko duzu Israelgo semei nik emanen diotedan lurra, eta etzare barnera sarthuko.

### XXXIII. KAP.

1. Hau da benedizioea Moisek, Jainkoaren gizonak, hil aitzinean Israelgo semei eman ziotena.

2. Eta erran zuen: Jauna Sinaitik ethorri da, eta Seirretik ilkhi zaroku; Pharango menditik agertu da, eta sailduak milaka harekin. Haren esku eskuinean da suzko legea.

3. Maithatu ditu populuak, saildu guziak haren eskuan daude; eta haren oinetara hurbiltzen diren guziak argituko dira haren irakhaspenaz.

4. Moisek mezutu daroku legea, Jakob en iraulgiaren primantza.

5. Guziak zuzena denaren baithan errege izanen da, populua aitzindariak Israelgo leinuekin bilduak izan diren ordutik.

6. Bizi bedi Erruben, ez bedi hil, baina moltxo ttipian izan bedi.

7. Hau da Judaren benedizioea: Jauna, adi zazu Judaren mintzoa, eta sarraraz zazu bere populua: horren eskuak gudukatuko dira Israelen alde, eta haren gerizataile izanen da etsaien kontra.

8. Lebiri, berriz, erran zioen: Jauna, zure perfetasuna eta irakhas-kuntza zor zaizkio gizon sailduari, zeina frogapenez frogatu eta Jazar-lekhuko uretan juiatu baituzu,

9. Zeinak erran baitioe bere ait-amei: Etzaitzuet ezagutzen; eta bere anaiei Ez dakit nor zareten; eta ez dituzte ezagutu beren semeak ere. Haukiek begiratu dute zure errana, eta iduki zure patua,

10. Zure erabakiak, oi Jakob, eta zure legea, oi Israel: haukiek eskainiko dute isentsua zure hasarreari eta holokaustak zure aldarean.

11. Benedika zazu, Jauna, hunen indarra, eta onhets hunen eskuetako egintza. Jo zazu hunen etsaien bizkarra, eta ez beitez xuti hau higuintzen dutenak.

12. Eta Benjamini erran zioen Moisek: Jaunaren guzi-maithatua gogo zabalez egonen da hunen baithan; ezkont-ohean bezala egonen da egun osoa, eta hunen bulharren artean sosegu hartuko du.

13. Josepi ere erran zioen: Hunen lurra bethe bedi Jaunaren benedizioeaz, zeruko fruituez, ihintzaz eta lupheko ithurriez,

14. Iguzkiaren eta ilhargiaren fruituez,

15. Mendi zaharren mazelako, eta bethiereko bizkargainetako fruituez,

16. Lurreko fruituez eta haren nasaitasunaz. Sasian agertu izan denaren benedizioea jauts bedi Josepen buruaren gainera, eta Nazarearren buru gainera bere anaien artean.

17. Hunen edertasuna da zezenaren lehenbiziko umearena iduri, hunen adarrak errinozeroarenak bezala dira: hekiez bulkhatuko ditu jendaiak lurraren bertze bazterreraino. Holakoak dira Efraimen osteak eta Manaseren milakak.

18. Gero erran zioen Zabuloni: Boz zaitezte, zu Zabulon, zure ilkhialdian, eta zu, Isakar, zure olhetan.

19. Populuak deithuko dituzte mendira; han imolatuko dituzte zuzenbidezko bitimak. Esnea bezala edoskiko dituzte itsasoko ontasuntzeak eta legarrean gordeak diren aberastasunak.

20. Eta Gadi erran zioen: Gad zabalki benedikatua da, lehoina iduri phausuan dago, et hartu ditu besoa eta burua.

21. Eta ikhusi du bere lehentasuna, zeren bere zathian baitu etzana irakhaslea, zeina izatu baita populuko aitzindariekin, zeinak egin baititu Jaunaren zuzenbideak eta haren erabakia Israelekin.



22. Eta Dani erran zioen: Danek iduri du lehoinaren umea; Basandik urrun hedatuko da.

23. Nefthaliri erran zioen: Nefthali nasaiziaz gozatuko da, eta Jaunaren benedizioenez bethea izanen da: itsasoa eta hegoaldea bereak izanen ditu.

24. Aserri, berriz, erran zioen: Aser bere semeetan benedikatua, bere anaien gogarako izan bedi, eta bere oina olioan busti beza.

25. Burdinaz eta kobrez izanen du oinekoa. Zure gaztetasuneko egunak iduri izanen dira zure zahartzekoak ere.

26. Ez da Jainkorik guziz zuzenaren Jainkoa bezalakorik, zeru gainera igaiten dena da, zure laguntzailea. Haren indarraren handiz derabiltza hedoiak.

27. Haren egoitza gainean da eta haren beso bethidanikoa behean: zure aitzinetik irazituko du etsaia, eta erranen dio: Herrauts egin hadi.

28. Israelen eginen du bere egoitza bakharrik eta gogoa zabalik. Ogi-arnotako lurreen izanen da Jakoben begia, zeruak estaliko du bere ihintzaz.

29. Dohatsu zare, oi Israel! nor da zure idurikorik, populu Jauna baithan salbatzen zarena? Hura da zure laguntzako erredola, zure ospearen ezpata. Ukhatuko zaituzte zure etsaiek, eta zuk, zangoa ezarriko diozute lephoaren gainean.

#### XXXIV. KAP.

1. Moise igan zen beraz Moabeko zelhaietarik Neboko mendira, Phasgako gainean, Jerikoko parrean; eta Jaunak erakhutsi zioen Galaadeko lur guzia Daneraino,

2. Eta Nefthali guzia, Efraimen eta Manaseren lurra, eta Judaren lur guzia azken itsasoraino,

3. Eta eguerdi-aldea, Jeriko palmetako hiriko zelhaiak, Segorreraino.

4. Eta Jaunak erran zioen: Hori da lurra zeintaz zin egin baitiotet Abrahami, Isaaki eta Jakobi, niolarik: Zure iraulgiari emanen diot hori. Ikhusi duzu zure begiz, eta etzare horrat iraganen.

5. Eta Jaunak manaturik, han hil izan zen Moise, Jaunaren zerbitzaria, Moab-herrian.

6. Eta Jaunak ehortzi zuen Moab-herriko haran batean, Phogorreko parrean: eta egungo eguna arteo ez da gizonik izan haren hobia ezagutu duenik.

7. Moisek, hil zenean, ehun eta hogoi urthe zituen; haren begia etzen lanbrotu, ez-eta haren hortzak etziren higitu.

8. Eta Israelgo semeek hogoi eta hamar egunez deithoratu zuten Moabeko zelhaietan, eta bethe ziren Moisen deithoreko egunak.

9. Bada, Josue, Nunen semea, bethea izan zen zuhurtziatzko izpirituz, zeren Moisek haren gainean ezarri baitzituen eskuak. Eta Israelgo semeak haren alderat ethordun izatu ziren eta egin zuten Jaunak Moisi manatu izan zioen bezala.

10. Eta Israelen handik-harat etzen Moise bezalako profetarik jaiki, Jaunak bekhoz bekho ezagutu zuenik;

11. Ez-eta egin zuenik halako ikhuskari eta sendagailarik nola Jaunak eginarazi baitzioizkien Egiptoko lurreen Faraonen, haren zerbitzari guzien eta lur guziaren kontra;

12. Ez-etare beso hain hazkarra erabili zuenik eta hain gauza handi, harrigarriak egin zituenik nola Moisek Israel guziaren aitzinean.



## JOSUE

### I. KAP.

1. Eta Moise, Jaunaren zerbitzaria, hil ondoan, gerthatu zen Jauna mintzatu zela Josue, Nunen seme, Moisen manu-bethetzaileari, eta erran zioen:

2. Hil da Moise ene zerbitzaria: jaiki zaitte, eta Jordaneko ur hori iragan zazue zuk eta populu guziak zurekin, nik Israelgo semeei emanen diotedan lurrera.

3. Zuen oin-hatzak oinkaturen duen lekhu guzia emanen darotzuet, Moisi erran izan diodan bezala.

4. Mortutik eta Libanetik Ufratako hibai handiraino, Hethearren lur guzia itsaso handiraino iguzki-sartzerat, zuen eremu izanen da.

5. Zure bizi guzian nihork ezin buru egingen darozuete; nola izatu bainaz Moisekin, hala izanen naiz zurekin; etzaitut khenduko ez-eta bazterrerat utziko.

6. Egizu bihotzez eta hazkarretik: zuk ezen zortean zathituko diozu populu horri lurra, zeina zuen arbasoei zin eginez agindu baitiotet emanen diotedala.

7. Egizu beraz bihotzez eta hazkarrenetik, Moise ene zerbitzariak mezutu darotzun legearen begiratzeko eta bethetzeko; etzaitzela makhur hartarik ez eskuinera ez ezkerrera, jakin dezazun zer hari zaren.

8. Lege huntako liburua ez bedi zure ahotik itzur; bainan gau-egun erabil zazu zure gogoan, begira eta egin zatzu hartan iskribatuak diren guziak: orduan zure bidea zuzen eta ezagutuki eramanen duzu.

9. Nik orai manatzen darotzut, izan zaitte bihozduen, izan zaitte hazkar. Ez lotsa, ez izan beldur; ezen zertara-nahi egin dezazun, zurekin izanen da zure Jainko Jauna.

10. Eta Josuek populuko aitzindariari manu eman zioeten, erraten zioetelarik: Kanpak gaindi iragan zaitetzte, mana zazue populua eta errozue:

11. Xuxent zatzue zuen jatekoak, zeren hirugarren egunaren buruan iraganen baitutzue Jordanea, eta zuen Jainko Jaunak eman gogo darotzuen lurraren gozatzerat sarthuko baitzarete.

12. Errubentarrei ere eta Gadtarrei eta Manaseren leinu erdiari erran zioeten:

13. Orhoit zaitetzte Moise Jaunaren zerbitzariak eman zarotzueten manamenduaz, zioelarik: Zuen Jainko Jaunak eman darotzuetesesua eta lur hau oro.

14. Zuen emazteak, alabak eta aziendak egonen dira Moisek Jordanez hunaindian eman izan darotzueten lurrean: bainan zuek harmaturik iragan zaizte zuen anaiei aitzinean, esku bizkorreko guziak, eta hekien alde guduka zaizte,

15. Jaunak zuen anaiei sesua eman dezoten arteo zuei eman izan darotzueten bezala, eta hekiek ere goza dezaten zuen Jainko Jaunak ematera dihoakioten lurra: eta horrela itzuliko zarete zuen gozameneko lurrera, eta zuen egoitza egingen duzue Moise, Jaunaren zerbitzariak eman darotzueten eremuan Jordanez hunaindian iguzki-sorthaldera.

16. Eta Josueri ihardetsi zioeten eta erran: Guri manatu darozkigutzun guziak egingen ditugu, eta norat-nahi igor gaitzatzun, goanen gare.

17. Nola Moisi orotan jautsi baikare, hala jautsiko gare zuri ere: bakharrik, izan bedi zurekin zure Jainko Jauna Moisekin izatu den bezala.

18. Zure ahoko hitzari bihurtuko dena, eta egingen diozkatzun manu orori ethordun izanen ez dena, hila izan bedi: bakharrik, zuk egizu gothorki eta bihotzez.

### II. KAP.

1. Josue, Nunen semeak beraz Setimetik ixilik igorri zituen bi ikhustiar, eta erran zioeten: Zoazte eta begizta zatzue lurra eta Jerikoko hiria. Haukiek goan ziren eta sarthu ziren Errahab deitzen zen ema galdu baten etxean, eta haren baithan phausu hartu zuten.

2. Hori heldua izan zen Jerikoko erregeri, eta errana izan zitzaioen: Huna bi gizon Israelgo semeetarik gauaz hemen sarthu direla tokiaren ikhusteko.

3. Eta Jerikoko erregek Errahaben gana igorri zuen, zioelarik: Zure gana ethorri diren eta zure etxean sarthu diren gizonak ikhiaz zatzu: ezen ikhusketariak dira, eta lekhu guziaren begizatzerat ethorri dira.

4. Emazteki harek gizonak harturik gorde zituen, eta erran zuen: Aithor dut, ethorri izan dira ni gana, bainan ez nakien nongoak ziren.

5. Eta ilhunean athea hersten hari zelarik, hekiek ere halaber ilkhi dira, ez dakit norat egin duten: laster zoazkiote ondotik eta atzemanen ditutzue.

6. Bada, berak gizonak iganarazi zituen bere etxe gaineko zabaltzara, eta han liho-jastoz estali zituen.



7. Ordean igorriak izan zirenak, hekien ondotik goan ziren Jordaneko ubira daraman bidez; eta hekiek ilkhi zirenean, athea hertsia izan zen berehala.

8. Gordeak zaudezenak etziren oraino lohak artuak, eta huna emaztekoa hekietara igaiten dela, eta erraten diote:

9. Badakit Jaunak lur hau eman darotzuetela; ezen zuen beldurra gure baithan sarthu da, eta tokiko egoiliarak oro iraungidurretan dira.

10. Adituak gare nola Jaunak agortu dituen, zuek sartzean, itsaso Gorriko urak, Egiptotik ilkhi zaretenean; eta zer egin diozueten Jordanez haindian ziren Amorrearren bi erregeei, Sehoni eta Ogi, zeinak hil baitituzte.

11. Eta horiek aditurik, izitu gare, eta erori zaiku bihotza, eta zuen sartzean gogoa galdu zaiku: ezen zuen Jainko Jauna, bera da Jainko zeru gainean eta lur-beherean.

12. Orain beraz niri Jaunaz zin egin darotazue, nik nola zuetaz urrikalmendu hartu baitut, orobat zuek ere urrikalmendu hartuko duzuela ene aitaren etxeaz; eta indazue ezagutgailu on bat,

13. Salbatuko dituzuela ene ait-amak, anai-ahizpak, eta hekien izate guziak, eta begiratuko gaituzuela heriotzetik.

14. Haukiek ihardetsi zioten: Gure biziak ihardets beza zuenaz, baldin haratik saltzen ez bagaituzu: eta Jaunak lekhua gure eskuetara eman dukeen, zure baithan agerraraziko ditugu gure urrikalpena eta zintasuna.

15. Sokha batez hekiek leihotik igorri zituen beraz, ezen haren etxeak hiriko harrasiari zatxikon.

16. Eta erran zioeten: Mendietara igan zaizte, beldurrez-eta buruzburu egin detzatueten gibelerakoan zuen bilhariak; eta han gorde zaizte hirur egunez, gibelerat itzul ditezen arteo, eta hola goanen zarete zuen bidean.

17. Haukiek erran zioten: Eragin darokuzun zinaz ez gare hobendun jarriko;

18. Baldin, hemen sartzen garenean, agertzen baduzu eskarlatatzko sokhatto hau eta estekatzen baduzu gu igorri gaituzun leihoan; eta zure aita eta ama, eta anaiak, eta ahaidego guzia bilarazi baduzu zure etxera.

19. Zure etxeko atletik ilkhiko denak izanen du bere odola bere buruaren gain, eta gu izanen gare garbi. Baina etxean zurekin izanen diren guzien odola eroriko da gure buruaren gain, baldin norbaitek hekiek ukitzen baditu.

20. Baldinetaria saldu nahi bagaituzu, eta solas hau bertzei salhatu, garbi izanen gare galdatu darokuzun zin huntarik.

21. Eta hunek ihardetsi zuen: Erran duzuen bezala egina izan bedi; eta hekiek goatera uztean, leihotik dilindan ezarri zuen eskarlatatzko sokhattoa.

22. Hekiek, berriz, bidetara lothurik, mendietara heldu izan ziren, eta han egotu ziren hirur egunez, hekien ondotik goan zirenak bihurtu arteo: ezen bide guzian bilhaturik, etzituzten nihon atzeman.

23. Hirira sarthu zirenean, ikhusketariak jautsi ziren menditik eta gibelerat egin zuten, eta Jordanea iraganik, ethorri ziren Josue Nunen semea gana, eta erran ziozkaten gerthatu zitazkoeten guziak.

24. Erran zioten oraino: Jaunak lur hori guzia gure eskuetara eman du, eta izialdurak ehortziak daduzka horgo egoiliarak oro.

### III. KAP.

1. Beraz gauaz jaikirik, Josuek kanpak higitu zituen, eta hura eta Israelgo seme guziak Setimetik atheraturik, ethorri ziren Jordanera, eta han egon hirur egunez.

2. Hekien buruan, kridatzaileak iragan ziren kanpen erditik,

3. Eta oihuz abiatu ziren: Zuen Jainko Jaunaren batasuneko arkha eta hura daramaten aphez Lebiren odolekoak ikhusiko dituztuenean, zuek ere jaiki zaizte eta aitzinean dihoazenei jarraik zakizkiote,

4. Eta arkharen eta zuen artean izan bedi bi mila besoren hutsa, urrunera ikhus ahal dezazuentzat, eta jakin dezazuen zer bidez goan behar zireten, zeren aitzinean ez baitzaizte hartan gaindi ibili: eta berautzue arkhari hurbiltzetik.

5. Eta Josuek erran zioen populuari: Saindu zaitezte, ezen bihar Jaunak zuen artean miresteko direnak egingen ditu.

6. Eta aphezei erran zioeten: Har zazue batasuneko arkha eta zoazte popularean aitzinean. Haukiek manua bethez, arkha hartu zuten eta goan ziren guzien aitzinean.

7. Eta Jaunak erran zioen Josueri: Egun abiatuko naiz zure gordien Israel guziaren aitzinean, jakin dezatentzat nola bainintzen Moisekin, hala naizela zurekin ere.

8. Zuk ordean manu emozute batasuneko arkha daramaten aphezei eta errozute: Jordaneko uraren erdira sarthu zaretekeenean, geldi zaizte han.

9. Eta Josuek erran zioeten Israelgo semei: Hurbil zaizte hunat, eta adi zazue zuen Jainko Jaunaren hitza.

10. Eta berriz erran zioeten: Hunarik ezagutuko duzue zuen Jainko Jaun bizia zuen erdian dela, eta zuen aitzinean xahutuko dituela



Kanearra eta Hetharra, Hebearra eta Pherezearra, Jerjearra ere, eta Jebusearra, eta Amorearra.

11. Horra non lur guziko Jaunaren batasuneko arkha zuen aitzinean goanen den Jordanea barna.

12. Berezirik iduk zatzue hamabi gizon Israelgo leinuetarik, leinu bakhoxka bat.

13. Eta lur guziko Jainko Jaunaren arkha daramaten aphezak zangoak ezarri dituzketenean Jordaneke uretan, beherago diren urak aitzinat eginen dute eta agorra eginen dute: bainan gaineko aldetik heldu direnak, meta batean geldituko dira.

14. Populua olhetarik ilkhi zen beraz Jordanearen iragaiteko, eta batasuneko arkha zaramaten aphezak haren aitzinean zihoazen.

15. Eta Jordanean sarthu zirenean, eta hekien zangoak urez bustitzen hasi zirenean (bada Jordaneak uztaroan bere erreka baxterrak bethe zituen),

16. Gain-behera heldu ziren urak toki batean baratu ziren, eta hantuz mendi bat bezala, urrunera ageri ziren Adom deitzen den hiritik Sarthanen izena ekhartzen duen lekhuraino: beherago zirenak berriz, jautsi ziren Mortuko itsasora (zeina orai itsaso Hila deitzen baita), azken xorta agortzeraino.

17. Bada, populua Jerikori buruz zihoan, eta Jaunaren batasuneko arkha zakharten aphezak leihor idorrean Jordanearen erdian xutik zauden, eta populu guziak erreka idorrean iragaiten zuen.

#### IV. KAP.

1. Oro iragan zirenean, Jaunak erran zioen Josueri:

2. Hauta zatzu hamabi gizon, bat leinu bakhotxetik,

3. Eta mana zozuete Jordaneke erreken erditik har detzaten aphezak baratu diren tokian hamabi harri gogorrenetarik, zeinak ezarriko baitutzu gau huntan olhak landatuko dituzun kanpalekhuak.

4. Eta Josuek deithu zituen Israelgo semeetarik hautatu zituen hamabi gizonak, bat leinu bakhotxetik;

5. Eta erran zioeten: Zoazte arkhaen aitzinera Jordanearen erdira, eta handik zuen soin gainetan ekhar zazue haur handi bana, Israelen semeen nonbrearen arabera

6. Orhoitgarri izan dadien zuen arteko: eta zuen semeek galdatuko darotzetenean, dioetelarik: Zer erran nahi dute harri horiek?

7. Ihardetsiko diozute: Jordaneke urek gibelerat egin izan dute Jaunaren batasuneko arkhaen aitzinean, hibaia iragaiten zuenean: hargat

tik harri horiek ezarriak izatu dira egun eta bethiko Israelgo semeen orhoitgailutzat.

8. Israelgo semeek egin zuten beraz Josuek manatu bezala; Jordaneke erreken erditik, Josueri Jaunak manamendu egin zioen bezala, hamabi harri ekharri zituzten, Israelen semeen nonbrearen arabera, kanpatu ziren lekhuraino, eta han phausatu zituzten.

9. Halaber bertze hamabi harri Josuek ezarri zituen Jordaneke erreken erdian, arkha zaramaten aphezak gelditu ziren tokian; eta han dira oraino egungo eguna arteo.

10. Bada, arkha zakharten aphezak Jordanearen erdian zauden, Jaunak Josueri manatu zioizkienak populuari errateko eta Moisek erran zioizkienak oro betheak izan zitezen arteo. Eta populua ernatu zuen urhatsa eta iragan zen.

11. Eta guziak iragan ondoan, Jaunaren arkha ere iragan zen, eta aphezak bazoazen populuaen aitzinean.

12. Errubenen eta Gaden semeak ere eta Manaseren leinu erdia, hartaturik zihoazen Israelgo semeen buruan, Moisek manu eman zioeten bezala;

13. Eta berrogoi mila gerlari zihoazen andana eta moltzoka Jerikoko hiriko zelhaiak eta bazterrak barna.

14. Egund hartan Jaunak Josue goretsi zuen Israel guziaren aitzinean, har zezatentzat haren larderia, Moisea, bizi zelarik, hartu izan zuten bezala.

15. Eta Jaunak erran zioen Josueri:

16. Batasuneko arkha dakharten aphezai mana zozuete Jordanetik ilkhi ditezela.

17. Josuek manatu zituen, zioelarik: Ilkhi zaitezte Jordanetik.

18. Eta igan zirenean Jaunaren batasuneko arkha soinean, eta leihor idorraren oinkatzen hasi zirenean, urak bihurtu ziren beren erreka, eta bazoazen aitzinean ohi zuten bidean.

19. Bada, populua Jordanetik igan zen lehenbiziko hilabetearen hamargarren egunean, eta kanpatu ziren Galgalan, Jerikotik iguzki-haize alderat.

20. Jordaneke erreken erditik hartu zituzten hamabi harriak ere, Josuek Galgalan phausatu zituen.

21. Eta erran zioeten Israelgo semeek: Gerorat zuen semeek beren aitei galdatuko eta erranen diotenean: Zer erran nahi dute harri horiek?

22. Argituko dituzue eta erranen diozute: Israelek Jordane hortako erreka idorrik iragan du,



23. Zuen Jainko Jaunak urak agorturik zuen begien aitzinean, zuek iragan arteo;

24. Lehenago egin izan zuen bezala itsaso Gorrian iragan gintezen arteo,

25. Lurreko populu guziek ezagut dezatentzat Jaunaren beso guziz hazkarra, eta zuek ordu oroz zuen Jainko Jaunaren beldur izan zaitezten-tzat.

### V. KAP.

1. Jordanez haindian mendebal-aldeko aurkhintzan egoten ziren Amorhearren erregeek, eta itsaso handiko ephaitzak gozatzen zituzten Kanaango errege guziek entzun ondoan beraz, Jaunak agortu zuela Jordaneko gaia Israelgo semeen aitzinean, iragan zitezen arteo, bihotza urthu zitzaioeten, eta gogo guzia galdu zuten Israelgo semeen sartzeari ikharan zaudenek.

2. Ordu hartan, Jaunak erran zioen Josueri: Egizkitzu harrizko kani-betak, eta Israelgo semeak ingurebak zatzu bigarren aldiko.

3. Jaunak manatua egin zuen, eta Ebaki-munhon ingurebaki zituen Israelgo semeak.

4. Eta huna bigarren ingurephaitza horren aria: Egiptotik ilkhi ziren populu guziko gizonkiak, gerla-gizonak oro, bideko itzul-inguru guziz luzeetan hil izan ziren:

5. Hekiek ingurebakiak ziren guziak. Bainan mortuan sorthu zen populua,

6. Mortu guziz zabaleko bidean berrogoi urthez, ingurebakigabea gelditu zen; hil zitezen arteo Jaunaren hitza entzun nahi izan etzutenak, eta zeinei lehenago zin egin baitzioeten etzietola erakhutsiko esne eta ezti zarioen lurra.

7. Hekien semeak jarri ziren aiten orde, eta Josuez ingurebakiak izan ziren, zeren sorthu bezala, oso baitziren, eta bidean nihork ez baitzitueng ingurebaki.

8. Guziak ingurebakiak izan ondoan, kanpa-lekhu berean egotu ziren sendatu arteo.

9. Orduan Jaunak Josueri erran zioen: Egun khendu darotzuet Egiptoko laidoa, lekhu hura deithua izan zen Galgala, egungo eguna arteo.

10. Eta Israelgo semeak Galgalan egotu ziren, eta hilabetekeo hama-laugarren egunean ilhuntzean Bazkoa egin izan zuten Jerikoko zelhaian;

11. Eta biharamunean jan zituzten lurreko fruituak, ogi airisak, eta urthe bereko irina.

12. Eta lurreko fruituetarik jan zutenetik, mana gelditu zen, eta Israelgo semeak etziren gehiago janhari hartaz zerbitzatu; bainan jan zituzten urthe hartako Kanaano lurreko fruituak.

13. Bada, Josue Jerikoko hiriko bazterretan zagoelarik, begiak altxatu zituen eta ikhusi zuen bere aitzinean gizon bat xutik, ezpata buluzia zadukala; goan zitzaioen eta erran zioen: Guretarik zare, ala etsaietarik?

14. Hunek ihardetsi zioen: Ez; bainan ni naiz Jaunaren armadako buruzagia, eta orai heldu naiz.

15. Josue erori zen ahuspez lurrera, eta adoratzu erran zioen: zer dio ene Jaunak bere zerbitzariari?

16. Ihardetsi zioen: Oinhtus zaite, ezen saindua da zu zauden lek-hua. Eta Josuek egin zuen manatua izan zitzaioena.

### VI. KAP.

1. Bada, Jeriko hertsia zen eta harrasiz inguratua Israelgo semeen beldurrez, eta nihor etzen ausartatzen ez atheratzera ez-eta sartzera.

2. Eta Jaunak erran zioen Josueri: Huna non eman dudan zure esku-  
ra Jeriko, bere errege, eta gizon hazkar guziekin.

3. Gerlako gizon guziek egunean behin egizue hiriaren ingurua: sei egunez eginen duzue hola.

4. Bainan zazpigarren egunean aphezek har betzate jubilauean erabil-tzen diren zazpi turutak, eta goan beitez batasuneko arkharen aitzinean; zazpitan eginen duzue hiriaren ingurua, eta aphezek joko dituzte turutak.

5. Eta turutak ots eginen duenean luzekiago eta hautsiz, eta zuen beharrietan durrundatuko duenean, populu guziak eginen du orroa gaitz bat, eta hiriko harrasiak lehertuko dira gainetik beherera, eta batbedera sarthuko da bere parrean duen tokitik.

6. Josue, Nunen semeak deithu zituen beraz aphezak, eta erran zio-eten: Har zazue batasuneko arkha, eta bertze zazpi aphezek har betzate jubilauetako zazpi turutak, eta boazi Jaunaren arkharen aitzinean.

7. Populuari ere erran zioen: Zoazte eta hiriaren ingurua egizue har-maturik eta Jaunaren arkharen aitzinean ibiliz.

8. Eta Josuek akhabatu zuenean bere solasa, zazpi aphezek jotzen zituztelarik zazpi turutak Jaunaren batasuneko arkharen aitzinean,

9. Eta armada guzia zihoalarik buru-buruan, gainerako populu xehea jarraitzen zen arkhari, eta bazter orok ihardesten zuten turuten durrunda.



10. Bada, Josuek manu hau emana zuen populuari: Ez duzue oihurik eginen eta zuen mintzoa ez da entzunen, eta ez da zuen ahotik hitz bat ere ilkhiko, ethor dedien arteo egina zeintan erranen baitarotzuet: Egizue oihu eta marruma.

11. Beraz Jaunaren arkhak hiria inguratu zuen egunean behin, eta kanpetara itzulirik, han gelditu zen.

12. Eta Josuek gauaz jaikirik, aphezek hartu zuten Jaunaren arkha,

13. Eta hekietarik zazpi hartu zituzten jubilauean erabiltzen diren zazpi turutak, eta bazoazen Jaunaren arkhaeren aitzinean, ibiltzean durrundaraziz turutak; eta begien aitzinean zihoan populu harmatua, eta arkharri jarraitzen zen gainerako populu xehea, eta turutak jotzen zituen.

14. Eta bigarren egunean hiria inguratu zuten behin eta itzuli ziren kanpetara. Hola egin zuten zazpi egunez.

15. Bainan zazpigarren egunean, argi zirrintan jaikirik, hiriaren inguru egin zuten, manatua zen bezala, zazpi aldiz.

16. Eta zazpigarren inguraldian aphezek turutak jotzen zituztelarik, Josuek erran zioen Israel guziari: Egizue orroa handi bat, ezen Jaunak eskuetaratu darotzuet hiria;

17. Eta hiri hau izan bedi anathema, eta huntan diren gauza guziak izan beitez Jaunarentzat: Errahab lilitxoak bakharrik geldi bedi bizirik, berekin etxean dituenekin, ezen gorde izan ditu guk igorri ikhusketariak.

18. Zuek ordean berautzue debekatuak zeraizkitzuenetarik deusere ukitzetik, beldurrez-eta lege hauspenez hobendun egin zeraizteten, eta Israelgo kanpa guziak bekhatuaren azpian eta nahasmendutan jar ditezen.

19. Bainan urhe eta zilhar den guzia, eta kobrezko eta burdinazko untziak izan beitez Jaunari kontsekratuak eta haren khutxetan ezarriak.

20. Beraz populu guziak oihu egiten zuelarik, eta turutek durrundatzean, otsak eta durrundak jo ondoan ostearen beharriak, harrasiak ordu berean lehertu ziren, eta batbedera igan zen bere parrean zuen tokitik, eta hiria hartu zuten,

21. Eta hil zituzten han ziren guziak, gizonetik emaztekiraino, eta haurretik gizon-zaharreraino. Idiak ere, eta erdiak, eta astoak ezpataren ahotik iragan zituzten.

22. Bainan ikhulketara igorriak izan ziren bi gizonei Josuek erran izan zioeten: Sar zaizte emazteki lilitxoaren etxera eta ilkhiaraz zazue bere puska guziekin, zin egin izan diozuen bezala.

23. Eta bi gizon-gazteek sarthurik, erakharri zuten Errabab, eta haren burhasoak, anaiak ere, eta haren puska guziak eta ahaideak, eta Israelgo kanpen kanpoko aldean egonarazi zituzten.

24. Ordean hiria eta hartan ziren gauza guziak erre zituzten, lekhat urhea eta zilharra, kobrezko eta burdinazko untziak, zeinak Jaunaren khutxako kontsekratu baitzituzten.

25. Bainan Josuek begiratu zituen Errahab lilitxoak eta haren aitaren etxea, eta zituen puska guziak, eta Israelen erdian egin izan dute beren egoitza egungo eguna arteo, gorde izan zituelakotz, Jerikoren ikhuskatzerat igorri zituen mandatariak. Orduan Josuek arthiki zuen burho bat, zioelarik:

26. Jaunaren aitzinean madarikatua izan bedi, Jerikoko hiria altxatuko eta berrituko duen gizona. Hartako asentuak eror beitez haren seme lehenaren gainera, eta hartako atheak haren azken semearen gainera.

27. Jauna izan zen beraz Josuerekin, eta haren izena barraiatu izan zen lur guziaren gainean.

## VII. KAP.

1. Bada, Israelgo semeek hautsi izan zuten manamendua, eta eskueratu zuten anathema ziren gauzetarik. Ezen Akanek, Karmiren semeak, Zabdiren semeak, Zare, Judaren leinukoaren semeak anathema zirenetarik zerbait hartu zuen; eta Jauna hasarretu zen Israelgo semeen kontra.

2. Josuek Jerikotik gizonak igortzean Hairen kontra, zeina baita Bethabenen aldean, Bethelgo hiriaren iguzki-haizeko aurkhintzan, erran izan zioeten: Igan zaizte eta begizta zazue lekhua. Haukiek manuak bethetzen zituztelarik, ikhuskatu zuten Hai.

3. Eta bihurturik erran zioeten Josueri: Populu guzia ez bedi igan, bainan boazi bi edo hirur mila gizon, eta xahu bezate hiria: Zertako alferretan nekharaz populu guzia etsai aphur baten kontra?

4. Hirur mila gudulari igan ziren beraz. Haukiek berehala ihesari emanik,

5. Joak izan ziren Haieko hiriko gizonez, eta hogoi eta hamaseiek lurrerat egin zuten. Etsaiak jarraiki zitzaizkoten beren athetik Sabarimeraino, eta gainbehera ihes zihoazelarik erori ziren hogoi eta hamaseiek. Eta populuairen bihotza izitu zen, eta ura bezala urthu zen.

6. Bada, Josuek soinekoak hautsi zituen, eta ahuspez eroria egon zen Jaunaren arkhaeren aitzinean arrats arteo, hala bera nola Israelgo zahar guziak, eta herrautsez estali zituzten buruak.

7. Eta Josuek erran zuen: Ai, Jainko Jauna, zertako nahi izan diozu populu huni iraganarazi Jordaneko hibaia, gu Amorrearraren eskura emateko, eta gure galtzeko? oxala egotu izan bagina, hasi bezala, Jordanez haindian





8. Ene Jainko Jauna, zer erranen dut, Israel ikhustean etsaiari gibelaz itzultzen?
9. Kananearrak eta lur huntan daudezen guziek adituko dute, eta elkar harturik inguratuko gaituzte, eta gure izena ezeztatuko dute lurretik: eta zer eginen diozu zure izen handiari?
10. Eta Jaunak erran zioen Josueri: Xuti zaite, zertako zaude lurrerat eroria?
11. Israelek bekhatu egin du eta hautsi enekilako patua: anathema zenetik hartu dute, ohointza egin eta gezurra erran, eta ebatsia beren pusken artean gorde dute.
12. Eta Israelek ezin ihardukiko du bere etsaien aitzinean, eta ihes eginen dioete zeren anatheman khutsatu den: ez naiz gehiago zuekin izanen xahu dezazuen arteo gaixtakeria hortaz hobendun jarri dena.
13. Jaiki zaite, saindu zazu populua eta errozu: Saindu zaitezte bihar, ezen hau dio Israelgo Jainko Jaunak: Anathema hire erdian da, Israel: ezin ihardukiko duk hire etsaien aitzinean, hi ganik xahu dezakan arteo tzarkeria hortaz hobendun jarri dena.
14. Eta bihur goizean ethorriko zarete zein zuen leinuan, eta zorteak khausitzen duen leinua hurbilduko da bere ahaidegoka, eta ahaidegoa etxeka, eta etxea gizonka.
15. Eta edozein atzemana izan dedien tzarkeria hortaz hobendun, suan errea izanen da bere izate guziarekin, zeren hautsi duen Jaunarekilako patua, eta tzarkeria handia egin Israelen.
16. Hargatik goizean jaikirik Josuek leinuka hurbilarazi zuen Israel, eta Judaren leinua atzemana izan zen zortiaz.
17. Hau agertu zenean familiaka, Zareren familia khausitua izan zen. Hau orobat etxeka agertzean, aurkhitua izan zen Zabdi,
18. Zeinaren etxea gizonka bereztean harrapatua izan zen Akan, Karmiren semea, Zabdiren semea, Zareren semea, Judaren leinukoa.
19. Eta Josuek erran zioen Akani: Ene semea, ospe bihur zozu Israelgo Jainko Jaunari; aithor eta erakhuts dizadazu zer egin izan duzun, berautzu gorde.
20. Eta Akanek ihardetsi zioen Josueri eta erran zioen: Egiazki nik bekhatu egin dut Israelgo Jainko Jaunaren alderat, eta hula eta hula egin dut.
21. Ezen buluzkinen artean ikhusi izan dut eskarlatatzko kapa bat hainitz ona, eta berrehun zilharrezko siklo, eta berrogoi eta hamar siklo-tako erregela bat urhezkoa; eta lehiaturik hartu izan ditut eta lurrean gorde ene olharen erditsuan, eta dirua orde dut lurrean zilho bat eginik.

22. Josuek igorri zituen beraz gizonak, zeinek laster eginik Akanen olhara, atzeman baitzituzten guziak gordeak zaudela lekhu berean, eta dirua ere orobat.

23. Eta olhatik harturik, eraman ziozkaten Josueri eta Israel guziari, eta arthiki zituzten Jaunaren aitzinean.

24. Hargatik Josuek, eta Israel guziak harekin, harturik Akan, Zareren semea, eta dirua, eta kapa, eta urhezko erregela, haren semeak ere eta alabak, idiak, eta astoak, eta ardiak, eta olha bera, eta puska guziak, eraman zituzten Akorreko haranera:

25. Eta han Josuek erran zioen: Zeren asaldutan ezarri gaitukan, Jaunak asalda behaza egun huntan. Eta Israel guziak harrikatu zuen, eta harenak ziren guziak suz erreak izan ziren.

26. Eta haren gainera bildu zuten harri meta handi bat, zeinak baitirau egungo eguna arteo. Eta hekien ganik aldaratu zen Jaunaren hasarrea: eta lekhu hura deithua izan zen orai arteo Akorreko harana.

### VIII. KAP.

1. Bada, Jaunak erran zioen Josueri: Ez izi, ez ikhara; har zazu zurekin gudutako oste guzia, eta jaikirik igan zaite Haieko hirira. Huna non eman ditudan zure eskura hango erregea, eta populua, hiria eta lurra.

2. Eta Haieko hiriari eta erregeri eginen diozute Jerikori eta hango erregeri egin izan diozueten bezala: bainan zuentzat hartuko dituzue harrapakina eta abere guziak. Zelatak heda zatzu hiriari haren gibelean.

3. Eta Josue jaiki zen, eta gudularien armada guzia harekin Haira igaitekotzat: eta gauaz igorri zituen hogoi eta hamar mila gizon biphiletarik hautatuak.

4. Eta manu eman zioten, erraten ziotelarik: Zelatak heda zatzue hiriaren gibelean; ez urrun hanbat, eta zaudete erne.

5. Eta ni, eta enekin den oste guzia, hirira hurbilduko gare bertze alderditik. Eta gure kontra ilkhiko direnean, lehen bezala eginen dugu, ihesari emanen gare eta gibela erakhutsiko dugu,

6. Gure ondotik jarraitzen direnak hiritik urrun eramanak izan ditezen arteo; ezen usteko dute aitzinean bezala ihes goazila.

7. Beraz ihes goazilarik eta bertzeak jarraitzen, atheratuko zarete zuen zelatetarik, eta xahutuko duzue hiria; eta zuen Jainko Jaunak ezarriko du zuen eskuetan.

8. Eta hartu dukezuenean, su emozuete, eta guziak egizkitzue nik manatu bezala.



9. Eta igorri zituen eta goan ziren zelatatze lekhura, eta jarre ziren Bethelen eta Hairen artean, Haieko hiritik mendebal-alderat: bainan gau hartan Josue gelditu zen popularen erdian;

10. Eta argi urratzean jaikirik, begitan iragan zituen bere lagunak, eta igan zen zaharrekin armadaren buruan, gerlarien laguntzaz inguratua.

11. Eta ethorri zirenean eta igan hiriaren bertze aldetik, gelditu ziren Haieko ipharraldeko alderdian, eta haran bat zen hekien eta hiriaren artean.

12. Bainan Josuek bortz mila gizon hautatuak zituen eta zelatetan ezarriak Bethelen eta Hairen artean, hiri beraren mendebal-aldeetik.

13. Bada, gainerako armada guziak lerroak hartzen zituen ipharralderat, halaz non oste hartako azkenak heltzen baitziren hiriaren mendebal-alderaino. Goan zen beraz Josue gau hartan, eta baratu zen haranaren erdian.

14. Haieko erregek ikhusi zuenean hori, higitu zen goizik, eta atherarik hiriko armada guziarekin, mortuko alderat harrarazi zioeten lerroei, jakin gabez zelatak gibelean gordeak zituela.

15. Bada Josuek eta Israel guziak hustu zuten lekhua alegia beldur, eta ihes egiten zutela mortuko bidez.

16. Bainan bertzeek oihu egiten zutelarik orok batean eta elkhar berotzen zutelarik, eman ziren hekien ondotik. Eta hiritik atheratu zirenean,

17. Bat bakharra gelditu etzelarik Haieko hirian eta Bethelen, goan etzenik Israelen ondotik (nola jauzi baitziren hiriak idekiak utziz),

18. Jaunak erran zioen Josueri: Goiti zazu eskuan duzun erredola Haieko hiriaren kontra, zeren eskuetaratu baitarotzut.

19. Eta erredola goititu zuenean hiriaren kontra, hanbatean jaiki ziren zelatetan gordeak zaudezenak; eta hirirat eginik, hartu zuten eta sutan ezarri.

20. Bada, hiriko gizonek, Josueren ondotik zihoazenek, begiraturik eta hiriko khea zeruraino igaiten ikhusirik, ezin ihes egin zuten ez alde batera ez bertzera, bereziki alegia ihes zihoazanak eta mortu-aldera egiten zutenak, jarraikitzailei borthizki bihurtu zitzaizkotenean.

21. Eta Josuek eta Israel guziak ikhustenez hiria hartua zela, eta hiriko khea goiti igaiten, itzuli ziren eta jo zituzten Haieko gizonak.

22. Ezen hiria hartu eta erre zutenak, hiritik atheraturik beren lagun alderat, hasi ziren arteko etsaien jotzen. Eta beraz nola etsaiak bi aldeetarik hiltzen baitzituzten, halako ostetik etzen bakhar bat itzuri.

23. Haieko hiriko errege ere bizirik atzeman zuten, eta eraman zioeten Josueri.

24. Beraz hilak izan ziren ondoan Israeli jarraiki ziren guziak mortuko alderat egiten zuenean, eta han berean ezpataren ahotik iraganak, Israelgo semeek bihurturik hiria jo zuten.

25. Egun hartan galdu zirenak gizonetik emaztekiraino, Haieko hiriko guziak, izan ziren hamabi mila gizon.

26. Eta Josuek etzuen behehititu zuen eskua erredolarekin, Haieko egoiliar guziak hilak izan zitezen arteo.

27. Bainan Israelgo semeek abereak eta hiriko harrapakina beren artean zathitu zituzten, Jaunak Josueri manatu bezala.

28. Josuek erre zuen hiria, eta hartarik egin izan zuen bethiko munt-hoin bat:

29. Hango erregea ere dilindan ezarri zuen habetik arrats arteo, iguzki-sartzeraino. Eta Josuek manaturik, haren gorputza jautsi zuten gurutzetik, eta arthiki zuten hiriko sartzean, haren gainera bildurik harri murru handi bat, zeinak baitirau egungo eguna arteo.

30. Orduan Josuek altxatu zuen Hebalgo mendian aldare bat Israelgo Jainko Jaunari,

31. Moisek, Jaunaren zerbitzariak, Israelgo semeei manatu izan zioeten bezala, eta Moisen legeko liburuan iskribatua den bezala, aldare bat beraz harri muger burdinak ukitu gabekoz: eta haren gainean eskaini zituen holokaustak Jaunari eta imolatu bakezko bitimak.

32. Eta harrien gainean iskribatu zuen Moisen legeko Duteronomia, Moisek Israelgo semeen aitzinean eman izan zuena.

33. Bada, populu guzia, eta adinez zaharrenak, et aitzindariak, eta juieak, arrotza hala nola herritarra, xutik zauden arkharen bi aldeetarik, Jaunaren batasuneko arkha zakharten aphezen aitzinean. Hekien erdia zen Garizimgo mendiaren ondoan, eta bertze erdia Hebalgo mendiaren ondoan, Moise, Jaunaren zerbitzariak manatu izan zuen bezala. Eta Josuek benedikatu zuen lehenbizikorik Israelgo populua.

34. Gero irakurtu zituen benedizionetako eta madarizionetako hitzak oro eta legeko liburuan iskribatuak ziren guziak.

35. Moisek manatu zituenetarik deusere etzuen ukitu gabe utzi, bainan oro errepikatu zituen Israelgo oste guziaren aitzinean, emazteki, haur eta hekien artean zauden arrotzen aitzinean.

## IX. KAP.

1. Horiek entzunik, Jordanez hun-haindiko errege guziak, mendietan eta zelhaietan zaudezenak, itsas-lurretan eta itsaso handiko hegian,



Libango ondoan zaudezenak ere, Hethearra eta Amorhearra, Kanearra, Pherezearra, Hebearra et Jebusearra,

2. Batera bildu ziren, Josueren eta Israelen kontra gudukatzeko bihotz batez eta xede berarekin.

3. Bainan Gabaonen zaudenek, aditurik Josuek Jerikori eta Hairi egin izan ziozkitenak oro,

4. Amarru asmatu zuten; hartu zituzten jatekoak, astoen gainetan ezarriz zakhu zahar batzuek, eta arno zahagiak hautsiak eta osatuak,

5. Eta oinetako zaharkituak, zeinak puskekin baitziren osatuak, hekien zahartasunaren erakusteko; soineko ihetxez jauntziak ziren; bideko ekhartzen zituzten ogiak ere, gogorrek ziren eta puskaka hautsiak.

6. Eta egin zuten Josueren gana, zeina orduan baitzagoen Galgalako kanpetan, eta erran zioeten eta batean Israel guziari: Urrungo lurretik heldu gare, zuekin bake egin nahiz. Eta Israelgo gizonek ihardetsi zioeten eta erran:

7. Beharbada guri zortean eman behar zaukun lurreen egoten zarete, eta ez dezakegu zuekin batasunik egin.

8. Bainan hekiek erran zioeten Josueri: Zure muthil gare. Josuek berriz: Nor zarete zuek? eta nondik heldu zarete?.

9. Ihardetsi zuten: Hainitz lekhu urrunetik ethorri dira zure muthilak, zure Jainko Jaunaren izenean. Entzun ditugu ezen haren botherearen omena eta egin dituen guziak Egipton,

10. Eta Jordanez haindian ziren bi errege Amorhearrenei, Sehon, Hefebongo erregeri, eta Og, Basango errege, Astarothen zenari:

11. Eta gure zaharrek eta gure tokiko egoiliar guziek erran izan darokute: Jatekoak har zatzue bide hanbat luzeko, zoazte hekien bidera, eta errozuete: Zuen muthil gare, egizue gurekin batasun.

12. Huna bero-beroak hartu ditugun ogiak gure etxeetarik ilkhi garenan zuen ganat ethortzeko; orai idortuak dira eta zaharregiz puskatuak.

13. Zahagi berriak arnoz bethe ditugu, orai lehertuak eta urratuak dira; gure soineko jauntzia eta zangoetan ditugun oinetakoak, bide luzearen luzez hautsiak eta higatu hurranak dira.

14. Israelgo aitzindariak hartu zuten beraz hekien jatekoetarik eta etziren Jaunaren ahotik argitu.

15. Eta Josuek egin zuen hekiekin bakea, eta batasun eginik, agindu zioeten etzirela hilak izanen; populuko aitzindariak ere orobat zin egin zioeten.

16. Bainan batasun egin eta hirur egunen buruan, aditu zuten hauzoan egoten zirenak zirela, eta hekietara sartzekotan zirela.

17. Eta Israelgo semeek kanpak higitu zituzten, eta hirur egunen buruko heldu izan ziren hekien hirietara, zeinen izenak haukiek baitira: Gabaon, eta Kaphira, eta Beroth, eta Kariathiarim.

18. Eta etzituzten jo, zeren populuko aitzindariak zin egin baitzieten Israelgo Jainko Jaunaren izenean. Hargatik jende xehe guzia erauntsiaka haritu zen aitzindarien kontra.

19. Haukiek ihardetsi zioeten: Zin egin izan diotegu Israelgo Jainko Jaunaren izenean, eta hori delakoz ezin uki detzazkeguke.

20. Bainan hau eginen diotegu: utziko diotegu bai bizia, gure kontra jautz ez dadientzat Jaunaren hasarrea, baldin hitza jaten bagindu,

21. Ordean hula biziko dira, populu guziarentzat egurketa eta urketa haritzeko. Horiek erraten zituztelarik,

22. Josuek deithu zituen Gabaontarrak eta erran zioeten: Zertako nahi izan gaituzue maulaz enganatu, guri errateko: Zuen ganik hainitz urrun gaudezi, gure erdian zaretelarik?

23. Horren gatik madarizionearen azpian izanen zarete, eta zuen odolekorik nihor ez da izanen hariko ez denik egur hausten eta urketa ene Jainkoaren etxera.

24. Haukiek ihardetsi zuten: Berria ekharria izan zarokun guri zure muthilei, zure Jainko Jaunak agindu izan zioela bere zerbitzari Moisi zuei emanen zarotzuetela lur hau guzia eta xahutuko zituela hemengo egoiliarak oro. Izialdura handitan sarthu gare beraz; zuen beldurak ekharri gaitu gure bizien begiratzeko zerbait bide hartzera, eta asmu hori egin izan dugu.

25. Orai, bada, zure eskuan gare; on eta zuzen iduritzen zaitzuna egizu gutaz.

26. Josuek egin zuen beraz erran izan zuen bezala, eta Israelgo semeen eskuetarik atheratu zituen hilak izan etzitezentzat.

27. Eta egun hartan erabaki zuen izanen zirela populu guziaren eta Jaunaren aldarearen zerbitzuko Jaunak hautatu tokian, egur hausten eta urketa haritzeko, egungo egunean ikhusten diren bezala.

## X. KAP.

1. Jerusalemeko errege Adonisedekek aditu zituenean horiek, erran nahi da Josuek Hai hartu eta herrautsi zuela (ezik nola egin baitzioen Jerikori eta hango erregeri, halaber egin zioeten Hairi eta hango erregeri), eta Gabaontarrek ihes egin zutela Israeldarretara eta hekiekin batasunean jarri zirela,



2. Beldurtu zen hainitz; Gabaon ezik hiri handia zen, errege-hirieta-rik bat, eta Hai baino hiri handiagoa, eta hango gerlari guziak hazkarre-ntarik.

3. Adonisedekdek beraz bidali zioeten Oham Hebrongo erregeri, eta Pharam Jerimothgo erregeri, eta Japhiari ere, Lakisgo erregeri, eta Dabir Eglongo erregeri, zioelarik:

4. Igan zaizte ni gana eta ekhar zazue laguntza Gabaonen hartzeko, zeren iragan den Josueren gana eta Israeldarretara.

5. Beraz Amorhearren borts errege horiek, Jerusalemeko errege, Hebrongo errege, Jerimothgo errege, Lakisgo errege eta Eglongo errege, igan ziren beren armadekin eta kanpatu ziren Gabaonen inguruan, hiria sethiatzen zutela.

6. Bada Gabaongo hiri sethiatuko egoiliarrek igorri zuten Josueren gana, zeina orduan baitzagoen Galgalako kanpetan, eta erran zioten: Ez gibela zure eskuak zure muthilen laguntzatik; igan zaite laster, hestura hunetarik athera gaitzatu, inguzu laguntza: ezen mendietan dauden Amorhearren errege guziak gure kontra bildu izan dira.

7. Eta Josue Galgalatik igan zen, eta harekin gerlarien armada guzia, hainitz gizon hazkarrak.

8. Eta Jaunak erran zioen Josueri: Ez izan horien beldur, ezen zure eskuetan ezarri ditut, hekietarik nihork ezin buru eginen darotzu.

9. Eta Josue gau guzian Galgalatik iganez, oharkabean erori zitzaio-eten gainera.

10. Eta Jaunak asaldutan ezarri zituen Israelen aitzinean; eta sarraski handia egin zioten Gabaonen, ondotik jarraikiz Bethoronera igaiten den bidez, eta jo zituen Azekaraino eta Mazedaraino.

11. Eta Israelgo semeen ihes zihoazelarik eta Bethorongo jaustean zirelarik, Jaunak zerutik igorri ziozkaten harri handi batzuek Azekaraino; eta harri abarrak hilak hainitz gehiago ziren, ezenez Israelgo semeen ezpatak hilak.

12. Orduan Josue mintzatu zen Jaunari, Israelgo semeen eskuetara Amorhearra ezarri zuen egunean, eta hekien aitzinean erran zuen: Iguzkia, ez higi Gabaonen parretik, eta, ilhargia, Ayalongo haraneko parretik.

13. Eta iguzkia eta ilhargia baratu ziren populua bere etsaietarik aspertu arteo. Hori ez othe da Zuzenen liburuan iskribatua? Iguzkia gel-ditu zen beraz zeru-erditan, eta egun oso batez etzuen egin etzatera.

14. Lehenago ez geroago ez da izatu hain egun luzerik, Jauna gizon baten erranera jautsiz eta Israelen alde gudukatuz.

15. Eta Josue Israel guziarekin itzuli zen Galgalako kanpetara.

16. Ezen borts erregeek ihes egin zuten eta gorde ziren Mazedako hiriko lur-zilhoka batean.

17. Eta Josueri gaztiatua izan zitzaioen borts erregeak atzemanak izatu zirela Mazedako hiriko lur-zilhoka batean gordeak.

18. Hunek manatu zioten bere lagunei, eta erran: Anbil zatzue harri handi batzuek zilhoaren ahora, eta gizon asmutakoak ezar zatzue hertsiaik direnen zaintzen.

19. Zuek ordean ez geldi, bainan jarraik zakiozkite etsaiei, eta ihes dihoazenak azkeneraino hil zatzue: etzatzuela utz sartzera beren hirietako gazteluetan, Jainko Jaunak eskuetara eman darozkitzuenaz geroztik.

20. Etsaiak eroririk beraz sarraski handian eta gutiz-gehienak hiltze-rainokoan xahuturik, Israeli itzuri ahal izan zirenak sarthu ziren hiri haz-kartuetan.

21. Eta armada guzia bihurtu izan zen, minik gabe eta osorik, Josueren gana Mazedara non baitziren orduan kanpak: nihor-ere etzen ausartatu hint baten atheratzera Israelgo semeen kontra.

22. Eta Josuek manu egin zuen, zioelarik: Idekazue zilhoko ahoa, eta ene aitzinera erakhar zatzue hor gordeak daudezen borts erregeak.

23. Eta zerbitzariak egin zuten manatua zitzaiotena; eta erakharri ziozkaten zilhokatik borts erregeak, Jerusalemeko errege, Hebrongo errege, Jerimothgo errege, Lakisgo errege, eta Eglongo errege.

24. Eta erakharriak izan zitzaizkoenean, deithu zituen Israelgo gizon guziak, eta berekin zituen armadako aitzindariei erran zioten: Zoazte, eta zangoa ezar zazue errege horien lephoaren gainean. Haukiek goan zire-nean, eta zangoaren-pean zaduzkatelarik erregeen lephoak,

25. Josuek erran zioten berriz: Ez izan beldurrik, ez lotsa, har zazue bihotz eta egizue hazkarretik: ezen horrelaxe eginen diote Jaunak zuen etsai gudukatuko ditutzuen guziei.

26. Gero Josuek jo eta hil zituen erregeak eta dilindan ezarri zituen borts habetarik, eta dilindan egotu ziren arrats arteo.

27. Eta iguzkia etzaterakoan, bere lagunei manatu zioten jauts zetzatela habeetarik. Jautsi zituztenean arthiki zituzten gordeak egotu ziren zil-hokara, eta hartako ahoan ezarri zituzten harri handi batzuek, egungo egunean oraino han berean dirautenak.

28. Josuek halaber egun berean hartu izan zuen Mazedara, eta ezpata-ren ahotik iragan zuen; hango errege ere eta egoiliar guziak hil zituen: etzuen hiri hartan bakhar bat ere bizirik utzi. Mazedako erregeri egin zioten Jerikoko erregeri egin izan zioena.



29. Bada Mazedatik Israel guziarekin iragan zen Lebnara, eta gudukatzen zen haren kontra,

30. Zeina Jaunak eman baitzuen bere erregearekin Israelen eskuetara: eta hiria eta hango egoiliar guziak jo zituzten ezpataren ahoaz; etzuten hiri hartan bakhar bat ere bizirik utzi. Eta Lebnako erregeri egin zioten Jerikoko erregeri egin izan ziotena.

31. Josue Lebnatik Israel guziarekin iragan zen Lakisera, eta armada inguruan jarrarazirik, sethiotan zadukan.

32. Jaunak Lakis eman zuen Israelen eskuetara, eta Josuek hiria hartu zuen biharamunean, eta jo zuen ezpataren ahoaz, eta han ziren arima guziak erebai, Lebnan egin izan zuen bezala.

33. Ordu hartan berean igan zen Horam, Gazergo errege, Lakisi laguntza ematera; baina Josuek jo eta hil izan zuen bere populu guziarekin.

34. Eta Lakistik iragan zen Eglonera eta inguratu zuen.

35. Egun berean hartu izan zuen, eta ezpataren ahotik iragan zituen hango arima guziak, Lakisen egin izan zuen bezala.

36. Halaber Israel guziarekin igan zen Eglondik Hebronera, eta gerla eman zioen;

37. Hartu zuen eta ezpataren ahoaz jo, hango errege ere eta haren aurkhintzako hiriak oro, eta hekietan egoten ziren anima guziak: etzuen hekietan nihor utzi bizirik: nola egin izan baitzuen Eglonen, hala egin zuen Hebronon, ezpatan iraganez han khausitu zituen guziak.

38. Handik bihurtu zen Dabirra,

39. Hartu eta xahutu zuen; hango errege ere eta inguruko hiri guziak ezpataren ahoaz jo zituen; etzuen hekietan nihor utzi bizirik: nola egin izan baitzuen Hebroni eta Lebnari, eta hekietako erregeei, hala egin zioen Dabirri eta hango erregeri.

40. Josuek jo zuen beraz lurra oro, basaburukoa, hegoaldekoa eta zelhaiekkoa, eta Asedoth bere erregeekin; etzuen han nihor utzi bizirik, baina hata zukeen guzia hil zuen Israelgo Jainko Jaunak manatu izan zioen bezala,

41. Kadesbarnetik Gazaraino. Gosengo lur guzia Gabaoneraino,

42. Eta errege guziak eta hekien eremuak, oldar-aldi batez hartu eta xahutu zituen: Israelgo Jainko Jauna gudukatzen zen ezik haren alde.

43. Eta Israel guziarekin bihurtu izan zen Galgalako kanpa-lekhura.

## XI. KAP.

1. Jabin, Asorgo erregek entzun zituenean horiek, bidali zuen Jobal, Madongo errege gana, eta Semerongo errege gana eta Aksapheko errege gana,

2. Halaber ipharraldeko errege mendietan eta Zenerothen hegoalderen parreko ordokian zaudezen gana eta bazter-aldetan eta Dorgo aurkhintzetan itsas-hegiraino zaudezen gana ere;

3. Orobat iguzki-sorthaldeko eta etzinaldeko Kananearra gana, Amorhearra gana, Hethearra gana, Pherezearra gana, eta mendietara Jebusearra gana; halaber Hermon azpian Maspheko lurtean zagoen Hebearra gana.

4. Eta atheratu ziren guziak beren saiherekin, populu bat nihonerekoa, itsasbatterean den legarra iduri, zaldi eta orga-laster oste ikharagarri bat ere hekiekin.

5. Eta errege horiek oro batera bildu izan ziren Meromgo uretan, Israeli gudu emateko.

6. Eta Jaunak Josueri erran zioen: Ez izan horien beldur, ezen bihar tenore huntan berean horiek oro sarraskitzera emanen ditut Israelen aitzinean; zainak ebakiko diozkatzute hekien zaldiei, eta orgak suz erreko ditutzu.

7. Eta hekien kontra Josue eta armada guzia harekin terrepentean goan ziren Meromgo uretara, eta jauzi zitzaizkoten gainera.

8. Eta Jaunak eman zituen Israelgo semeen eskuetara. Haukiek jo zituzten, eta jarraiki zitzaizkoten Sidon handiaraino, Maserephoteko uretaraino, eta Maspheko bazterretaraino, zeinak baitira haren iguzki-haize aldetik. Horrela jo zituen guziak, eta etzuen hekietarik nihor utzi bizirik;

9. Eta egin zuen Jaunak manatu izan zioen bezala, zainak ebaki ziotzaten hekien zaldiei, eta orgak suz erre zituen.

10. Eta berehala itzulirik, hartu zuen Asor, eta hango errege ezpatan iragan zuen. Asor zen ezik aspaldi hartan erre-suma hekien ooren buruzagitasuna zadukana.

11. Eta han zaudezen arima guziak jo zituen: etzuen hekietarik bakhar bat ere bizirik utzi, baina hiltzeraino guziak xahutu zituen, eta hiria bera suaz herrautsi zuen.

12. Eta inguruneke hiri guziak eta hekien erregeak hartu, jo eta xahutu zituen, Moisek, Jaunaren zerbitzariak manatu izan zioen bezala.

13. Eta bizkargunetan eta munhoetan jarriak ziren hiriez bertze guziak erre zituen Israelek: Asor bakharrik hainitz hazkartua zena suz herrautsia izan zen.

14. Eta Israelgo semeek beren artean zathitu zituzten hiri hekietako buluzkina eta abereak, gizon guziak hil ondoan.

15. Nola Jaunak manatu izan baitzioen bere zerbitzari Moisi, hala Moisek manatu zioen Josueri, eta hunek guziak bethe zituen: manatu



uzietarik etzuen iragaitera utzi, ez-eta Jaunak Moisi mezutu izan zioen hitz bakhar bat ere.

16. Josue jabetu zen beraz basaburuaz eta hegoaldeko eremuaz, Gosengo lurraz eta zelhaiaz, mendebal-aldeko aurkhintzaz, Israelgo mendiaz eta ordokiaz,

17. Eta Seirgo aldera igaiten den mendiaren zathi batez Baalgaderaino, Liban-go zelhaia gaindi Hermongo azpitik: hango errege guziak hartu, jo eta hil zituen.

18. Josue luzez gudukatu izan zen errege hekien kontra.

19. Etzen hiri bat izatu bere baitharik Israelgo semeei eman zenik, Hebearraz landa, zeina Gabaonen baitzagoen: ezen oro gudukatuz hartu zituen.

20. Ezik Jaunaren erabakia izan zen gogortuko zituztela beren bihotzak, gudukatuko zirela Israelen kontra, eroriko zirela, gozotasunik etzuztela batere merezituko, eta xahutuak izanen zirela Jaunak Moisi manatu izan zioen bezala.

21. Egun hekietan Josue ethorri zen eta hil zituen Enaktarrak Hebrongo, Dabirgo eta Anabeko mendietakoak eta Judako eta Israelgo mendi guzikoak, eta herrautsi zituen hekien hiriak.

22. Enaken odolekorik etzuen bakhar bat utzi Israelgo semeen lurrean, lekhat Gazako, Jetheko eta Azoteko hirietan, zeinetan bakharrik utziak izan baitziren.

23. Josue jabetu zen beraz lur guziaz, Jaunak Moisi agindu izan zioen bezala, eta gozatzer eman zioten Israelgo semeei beren pharteen eta leinuen arabera; eta lurra guduatarik sesutan gelditu zen.

## XII. KAP.

1. Haukiek dira erregeak Israelgo semeek jo zituztenak, eta zeinen lurra gozatu baitzuten Jordanez haindian, iguzki-sorthaldera, Arnongo errekatik Hermongo mendiraino, eta iguzki haizeko ephaitza guzia mortuari begira dagoena:

2. Sehon Amorhearren errege, Hefebonen zagoena, zeina erregina-tu baitzen Aroerdik, Arnongo errekahegian jarria denetik, eta haranaren erditik, eta Galaadeko erditik, Jabokeko errekaraino, zeina baita Amonen semeen muga;

3. Eta mortutik, iguzki-sortzearen parrean Zenerotheko itsasoraino, eta Mortuko itsasoraino, zeina baita itsaso Gazia, iguzki-sorthaldeko ephaitzara Bethsimothera daraman bidez; eta hegoako aurkhintzatik, zeina baita Asedotheko azpialdean, Phasgaraino.

4. Og, Basango errege, Erraphaimen odoletik azkenetarik Astarothen eta Edrain egotu zenaren eremua hedatzen zen Hermongo mendian eta Salekan eta Basan guzian,

5. Jesuriko, Makatiko eta Galaaden erdiaren mugetaraino, zeinak baitziren Sehon Hefebongo erregeren mugak.

6. Moise Jaunaren zerbitzariak eta Israelgo semeek jo zituzten errege horiek, eta Moisek hekien lurra gozatzer eman zioten Errubentarrei, Gadarrei eta Manaseren leinu erdiari.

7. Haukiek dira lurreko erregeak Josuek eta Israelgo semeek jo zituztenak Jordanez hunaindian mendebaleko alderdira, Baalgad Libango ordokian denetik, Seirraera pharte igaiten den mendiraino: Josuek lur hura eman izan zioten gozatzer Israelgo leinuei, zeini bere zathia,

8. Hala mendietan nola zelhaietan eta bazter-aldetan. Asedothen, mortuan eta hegoaldean izatu ziren Hethearra eta Amorhearra, Kananearra eta Pherezearra, Hebearra eta Jebusearra.

9. Jerikon errege bat; Hain, zeina baita Bethelen sahetsean, errege bat;

10. Jerusalemgo errege bat; Hebrongo errege bat;

11. Jerimothgo errege bat; Lakifgo errege bat;

12. Eglongo errege bat; Gazergo errege bat;

13. Dabirgo errege bat; Gadergo errege bat;

14. Hermako errege bat; Heredgo errege bat;

15. Lebnako errege bat; Odulamgo errege bat;

16. Mazedako errege bat; Bethelgo errege bat;

17. Taphuako errege bat; Ophereo errege bat;

18. Aphekgo errege bat; Sarongo errege bat;

19. Madongo errege bat; Asorgo errege bat;

20. Semerongo errege bat; Aksapheko errege bat;

21. Thenakeko errege bat; Maiedoko errege bat;

22. Kadesko errege bat; Karmeleko Jakanango errege bat;

23. Dorgo eta Dorgo herrialdeko errege bat; Galgalako jendaien errege bat;

24. Thersako errege bat; orotara hoeta hameka errege.

## XIII. KAP.

1. Josue zahartua eta adin handitan zen, eta Jaunak erran zioen: Zahartu zare eta adinetan sarthu, eta lekhu guziz zabal bat gelditua da, oraino zortez berezigabea;

2. Erran nahi da Galilea, Filistinherria eta Jefuri guzia;



3. Egiptoa urtzaten duen hibai lohitsuak Akarongo mugeara, ipharrera; Kanaango lurra, Filistindarren bortz erregettoen artean zathitzen dena, Gazarrak, Azotarrak, Askalondarrak, Jetharrak eta Akarondarrak.

4. Hegoaldera dira Hebearrak, Kanaango lur guzia, eta Sidondarren Maara, Aphekeraino eta Amorhearren mugetaraino,

5. Eta mugakhidetaraino: Libango bazterrak ere, iguzki-haize alde-  
rat; Baalgadik, Hermongo azpian, Emathen sar zaitezen arteo;

6. Mendian egoten diren guziak, Libanetik Maserephotheko ureta-  
raino, eta Sidondar guziak. Ni naiz hekiek xahutuko ditudana Israelgo  
semeen aitzinetik. Oro eror beitez beraz Israelen primantzaren phartera,  
nik manatu izan dudana bezala.

7. Eta orai lurra zathi diozozuete gozatzeko bederatzi leinuei eta  
Manaseren leinu erdiari,

8. Zeinarekin Errubenek eta Gadek gozamenetan hartu baitute  
Jaunaren zerbitzari Moisek Jordaneke uraz haindian eman izan dioteten  
lurra iguzkihaizeko aurkhintza-alderat,

9. Aroerdik, zeina jarria baita Arnongo erreka-  
ren hegian, eta haranaren erdian, eta Medabako zelhaiak oro Diboneraino,

10. Eta Hefebonen erreginatatu den Sehon, errege Amorhearren hiri  
guziak, Amonen semeen mugetaraino;

11. Eta Galaad, eta Jesuriko eta Makatiko eremua, eta Hermongo  
mendi guzia eta Basan guzia Salekaraino;

12. Eta Astarothen eta Edrain erreginatatu den Erraphaimen azken  
odoletikakoetarik zen Ogen erresuma guzia Basanen: eta Moisek jo eta  
xahutu zituen.

13. Eta Israelgo semeek etzituzten nahi izan xahutu Jesuritarrak eta  
Makatiarrak, eta Israelen erdian daude egungo arteo.

14. Ordean Moisek Lebiren leinuari etzioen lurrik eman gozatzera:  
bainan Israelgo Jainko Jaunaren sakrifizio eta bitimak dira haren priman-  
tza, Jaunak berak erran dioen bezala.

15. Errubenen leinuko semei, beren familien arabera, lurra gozatzere  
eman zioten beraz Moisek:

16. Eta hekien eremua izan zen Aroerdik, zeina jarria baita Arnongo  
erreka-  
ren bazterrean, eta Arnongo erreka haranaren erdian, Medabara  
daraman zelhai guzia,

17. Hefebon eta hango bazter-aldean diren herri guziak; Dibon ere,  
Bamothbaal eta Baalmaongo hiria,

18. Jasa, Zedimoth, Mephaath,

19. Kariathaim, Sabama eta Sarathasar Haraneko mendian;

20. Bethphogor, Asedoth, Phasga eta Bethiesimoth,

21. Eta ordokiko hiri guziak, eta Sehon errege Amorhearren erre-  
suma guziak, Hefebonen erreginatatu zenarenak eta Moisek jo zuenarenak,  
Ebi, Errezem, Sur, Hur eta Errebe, Madiango aitzindariekin, zeinak bai-  
tziren Sehon lurreko egoiliarren buruzagiak.

22. Israelgo semeek ezpatatzaraskitu zuten bertze hilekin Balaam  
aztia ere, Beorren semea.

23. Eta Jordaneke hibaia Errubenen semeen muga egina izan zen.  
Horiek dira hiri eta herriak Errubentarren gozamenekoak bekien familien  
arabera.

24. Eta Moisek Gaden leinu eta semei beren familien arabera eman  
zioeten gozamina, zeinaren xehatzapena hau baita:

25. Jasergo bazterra, Galaadeke hiri guziak, eta Amonen semeen  
lurraren erdia Aroerreraino, zeina baita Erraba alderat;

26. Hefebondik, Erramoth, Masphe eta Betonimeraino; eta  
Manaimdik, Dabirreke mugetaraino;

27. Betharango, Bethnemrako, Sokhotheko eta Saphongo haranean  
ere, Sehon Hefebongo erregeren erresumaren gainerakoa: haren muga  
Jordanea da halaber, Zeneretheko itsasoaren azken bururaino, Jordanez  
haindian, iguzki-sorthalderat.

28. Horiek dira lurra, hiriak eta herriak Gaden semeen gozameneko-  
ak beren familien arabera.

29. Moisek eman zioten Manaseren leinu erdiari ere eta semei beren  
familien arabera, gozamen bat,

30. Zeinaren hastea hau baita: Manaimdik Basan guzia; Og, Basango  
erregeren erresuma guziak, eta Jairren herrialdea, zeina baita Basanen,  
hirur hogoi hiritakoa;

31. Eta Galaaden erdia, eta Astaroth eta Edrai, Ogen erresumako  
hiriak Basanen, Manaseren seme Makirren haurrei, erran nahi da  
Makirren semeen erdiari beren familien arabera.

32. Moisek berezpen hori egin izan zuen Moabeko zelhaietan,  
Jerikoko parrean iguzki-sorthalderat.

33. Bainan Lebiren leinuari gozamenik etzioen eman, zeren Israelgo  
Jainko Jauna bere baita haren gozamina, erran izan dioen bezala.

#### XIV. KAP.

1. Huna zer gozatu duten Israelgo semeek Kanaango lurrean, zeina  
hekiei eman izan baitzioeten Eleazar aphezak, Josue Nunen semeak eta  
Israelgo leinu bakhotzeko familietako buruzagiak,



2. Guziak zortean bereziz bederatziz leinu eta erdiri, Jaunak Moisen arartekoz manatu izan zuen bezala.
3. Ezen Moisek bi leinu eta erdiri Jordanez haindian eman zioeten beren gozamina, lebitarrak gabe, zeinek lurrik batere izan ez baitzuten beren anaiei artean.
4. Bainan hekien orde ondoregotan jarri ziren Manase eta Efraim, bi leinutan bereziak; eta lebitarrek etzuten lurrean bertze pharterik hartu baizik-ere hiriak beren egoitzen egiteko eta hiripeak bere abere eta art-haldeen hazteko.
5. Jaunak nola manatu, hala egin zuten Israelgo semeek, lurra zathitu zuten.
6. Hargatik Judaren semeak hurbildu zitzaizkoen Josueri Galgalan; eta Jephonen seme Zenezearra, Kaleb mintzatu zitzaioen: Badakizu Jaunak zutaz zer erran izan dioen Moisi, Jainkoaren gizonari, Kadesbarnen.
7. Berrogoi urthe nituen Moisek, Jaunaren zerbitzariak Kadesbarnetik igorri ninduenean lurraren begiztatzera, eta berriak ekharri nioizkien, nola egiak iduritzen baitzeraizkidan eta hala.
8. Bainan enekin igan izan ziren anaiek bihotza galarazi zioten populuari: ez nintzen gutiago jarraiki ene Jainko Jaunari.
9. Eta egun hartan Moisek zin egin izan zuen, zioelarik: Zure zangoak oinkatu duen lurra zure gozameneko eta zure semeeneko izanen da bethi guziko, zeren jarraiki izan zaren ene Jainko Jaunari.
10. Jaunak, agindu izan zuen bezala, onhetsi darot beraz bizia egungo eguna arteo. Berrogoi eta bortz urthe ditu Jaunak hitz hori erran izan zioela Moisi, Israel mortua barna zihoalarik: egun laur hogoi eta bortz urthetan naiz,
11. Hain hazkar, nola bainintzen ikhusketara bidalia izan nintzenean: orduko indarrak dirau ene baithan egundinokoa, nahiz gerlarako eta nahiz biderako.
12. Indazu beraz niri, Jaunak, zerorrek entzuten duzularik, agindu izan darotan mendi hori, zeintan baitira Enaktarrak eta hiri handi eta hazkarrak, ikhus dezadan heia Jauna enekin den eta hekiek xahutuko ahal othe ditudan, niri hitzeman darotan bezala.
13. Eta Josuek benedikatu zuen, eta Hebron eman zioen gozatzera.
14. Eta hartaz geroz Hebron Kalebena, Jephonen seme Zenezearrena izatu da egungo eguna arteo, jarraiki izan zelakotz Israelgo Jainko Jaunari.

15. Aitzinean Hebron deitzen zen Kariatharben izenaz. Adam handia han dago ehortzia Enaktarren artean: eta lurra hustu zen guduetarik.

## XV. KAP.

1. Hau izan zen beraz Judaren semeen zortea beren familien arabera. Edomen mugatik, Sineko mortua hegoaldera, eta hegoaldeko aurkhintzaren bertze bururaino.
2. Haren hastapena da itsaso Gaziko burutik eta hegoaldeari begira dagoen zerrendaraino.
3. Eta handik ilkhitzen da Harrobiaren patarreraino, eta iragaiten da Sinan; igaiten da Kadesbarnera eta heltzen Efronera, igaiten delarik Adarrera eta inguratzen duelarik Karkaa,
4. Eta handik iragaiten delarik Asemonan eta heltzen Egiptoko erre-kara: eta izanen dira haren mugak itsaso handian. Han izanen da hegoaldeko aurkhintzaren akhabantza.
5. Bada iguzki-sorthaldetik, hastea izanen da itsaso Gazian Jordaneko azken bururaino: eta ipharrera begira dagoena, itsaso-zerrendatik Jordaneko hibai bereraino.
6. Eta muga igaiten da Beth Haglara, eta ipharretik iragaiten da Betharabara, igaiten delarik Errubenen seme, Boenen harrira,
7. Hedatzen delarik Deberako mugetaraino Akorreko haranean, ipharrera begiratzen duelarik Galgalari, zeina baita Adomimigo igaitearen parrean, errekarren hegoako aldetik; eta iragaiten ditu urak Iguzkithurri deithuak, eta haren akhabantza izanen da Erroiello ithurrian.
8. Gero igaiten da Enom semeren harana gaindi hegoaldera Jebusearraren sahetsetik, hura baita Jerusaleme; eta handik goititzen delarik mendi bizkarrera, zeina baita Jeenomen parrean mendebalerat Erraphaimen haraneko buruan ipharrari begira,
9. Mendi gaisetarik iragaiten da Nephtoako ithur-uretaraino; heltzen da Efrongo mendiko herrietaraino, eta, jausten da Baalara, zeina baita Kariathiarim, erran nahi da Oihanetako hiria;
10. Eta Baalalik ingurua egiten du mendebal-aldera, Seirgo mendiraino; eta iragaiten da Jarimgo mendiaren sahetsetik, iparrari buruz, Kestonera; jausten da Bethsamera, iragaiten Thamnan,
11. Heltzen da Akarongo sahetsera ipharretik, eraisten da Sekronara, iragaiten du Baalako mendia, heltzen da Jebneelara, eta hertsia da mendebaletik itsaso Handiko bazterraz.
12. Horiek dira Judaren semeen mugak inguruan beren familien arabera.





13. Bainan Josuek Kalebi, Jephonen semeari eman zioen, Jaunak manatu bezala, Judaren semeen erdian bere pharte Kariatharbe, Enaken aitareen hiria, hura bera baita Hebron.

14. Eta Kalebek hartarik xahutu zituen Enaken hirur semeak, Sesai, Ahiman eta Tholmai, Enaken odolekoak.

15. Eta handik iganez ethorri zen Dabirgo egoiliarretara, hiri hura aitzinean deitzen baitzen Kariath Sepher, erran nahi da Iskribauen hiria.

16. Eta Kalebek erran zuen: Norkere joko eta hartuko baitu Kariath Sepher, eta hainari emaztetzat emanen diot ene alaba Aksa.

17. Eta Othonielek, Zenezen semeak, (Zenez baitzen Kaleben anaia gazteagoa) hartu zuen hiria, eta Kalebek eman zioen bere alaba Aksa emaztetzat.

18. Eta elkharrekin zihoazelarik, Aksa bildua izan zen bere senharraz aitari galda zezon landa bat, eta nola asto baten gainean jarria baitzen, hasbeherapenka hasi zen. Kalebek erran zioen: Zer duzu?

19. Eta alabak ihardetsi zuen: Indazu zure benedizioa: eman izan darotazu lur bat eguerdiari dagoena eta agorra, indazu bertze bat urztatua dena. Hargatik Kalebek eman zioen lur bat gainetik beherera urztatua zena.

20. Huna Judaren semeen gozamina beren familien arabera.

21. Judaren semeen bureburuko aurkhintzetan, Edomen mugen aldean, hegoatik, hiriak ziren Kabseel, Eder eta agur;

22. Zina, Dimona eta Adada;

23. Kades, Asor eta Jethnam;

24. Ziph, Telem eta Baloth;

25. Afor-bem, Kariath, eta Hefron, hura baita Asor;

26. Aman, Sama eta Molada;

27. Asergada, Hasemon eta Bethphelet;

28. Hasersual, Bersabee eta Baziothia;

29. Baala, Jim eta Esem;

30. Eltholad, Zestl eta Harma;

31. Sizeleg, Medemena eta Sensena;

32. Lebaoth, Selim, Aen eta Erremon: orotara hogoi eta bederatzir hiri, eta beren herriak.

33. Eta zelhaietan, Estaol, Sarea eta Asena;

34. Zanoë, Enganim, Taphua eta Enaim;

35. Jerimoth, Adulam, Soko eta Azeka;

36. Saraim, Adithaim, Jedera eta Jederothaim: hamalau hiri eta beren herriak.

37. Sanan, Hadasa eta Magdalgad;

38. Deleam, Masepha eta Jekthel,

39. Lakis, Baskath eta Eglon,

40. Kebon, Leheman eta Zethlis;

41. Jideroth, Bethdagon, Naama eta Mazedá: hamasei hiri eta beren herriak.

42. Labana, Ether eta Asan;

43. Jejrha, Esna eta Nesib;

44. Zeila, Akzib eta Maresa: bederatzir hiri eta beren herriak.

45. Akaron bere herri eta herrixkekin;

46. Akarondik itsasoraino Azoterateko aurkhintza bere herrixkekin;

47. Azot bere herri eta herrixkekin; Gaza bere herri eta herrixkekin, Egiptoko errekaraino, eta itsaso Handia da haren muga.

48. Eta mendian: Samir, Jether eta Sokoth;

49. Dana, Kariathsena, zeina baita Dabir,

50. Anab, Illemo eta Anim;

51. Gosen, Olon eta Jilo; hameka hiri eta beren herriak.

52. Arab, Erruma eta Esaan;

53. Janum, Bethihaphua eta Apheka;

54. Athmatha, Kariatharbe, zeina baita Hebron, eta Sior: bederatzir hiri eta beren herriak.

55. Maon, Karmel, Ziph eta Jota;

56. Jezrael, Jukadam eta Zanoë;

57. Akain, Gabaa eta Thamna: hamar hiri beren herriekin.

58. Halhul, Besur eta Jedor;

59. Mareth, Bethanoth eta Eltekon: sei hiri eta beren herriak.

60. Kariathbaal, zeina baita Kariathiarim Oihanetako hiria, eta Areba: bi hiri eta beren herriak.

61. Mortuan: Betharaba, Medin eta Sakaka;

62. Nebsan, Gatzeko hiria eta Engadi: sei hiri eta beren herriak.

63. Bainan Judaren semeek ezin xahutu izan zituzten Jebusearrak Jerusalemen zaudezenak: eta Jebusearrak orai arteo Judaren semeekin egotu izan dira Jerusalemen.

## XVI. KAP.

1. Halaber Josepen semei zortean erori zitzaioeten Jordanetik, Jerikoren parretik, eta hibaieko uretarik iguzki-haizera, Jerikotik Bethelgo mendira igaiten den mortua;



2. Eta Bethetik atheratzen da Luzara, iragaiten Arkiko mugan gain-di Atarotheko alderat,
3. Jausten mendebalera Jephletiko mugaz Bethoron-behereko et Gazerreko mugetara, eta haren eremuak akhabatzen dira itsaso Handian.
4. Hori da Josepen seme, Manasek eta Efraimek, gozatu dutena:
5. Efraimen semeen muga egina izan zen hekien familien arabera: eta Ataroth Adarretik iguzki-haizera zen hekien lurra Bethoron gaineraino,
6. Eta mugak baratzen dira itsasoan; eta Makmethathetik mugak ipharrera begiratzen du eta ingurua egiten du iguzki-sorthaldera Thanathselora; iguzki-sorthaldetik iragaiten da Janoera;
7. Janoetik jausten da Atarothera eta Naarathar, heltzen da Jerikora eta Jordanean gelditzen.
8. Taphuatik iragaiten da itsasoari buruz Khanaberetako haranean eta baratzen itsaso Gazian; hori da Efraimen semeen gozamina beren familien arabera.
9. Eta Manaseren semeen gozameneko lurretan hiri batzuek beren herriekin bereziak izan zitzaizkoten Efraimen semeei.
10. Efraimen semeek etzituzten hil Gazerren ziren Kananearrak, eta Kananearrak orai arteo egotu izan dira Efraimen erdian figoaren azpian.

## XVII. KAP.

1. Hau da zorteak eman zioena Manaseren leinuari, (Manase zen ezik Josepen seme zaharrena) Manaseren seme zaharrenari, Makir Galaaden aitari, zeina izatu baitzen gizon gurlari bat, eta Galaad eta Basan gozatze-ra izatu zituen,
2. Eta Manaseren bortze haurrei, beren familien arabera, Abiezerren semeei, Heleken semeei, Esrielen semeei, Sekemen semeei, Hepherren semeei, eta Semidaren semeei: horiek dira Josepen seme Manaseren haurrak, gizonkiak, beren familiaka.
3. Bada, Salphaad, Hepherren semearen (Hepher baitzen Galaaden semea, Galaad Makirrena, Makir Manaserena) haurrak etziren semeek baizik-ere alabak: huna hekien izenak Maala, Noa, Hegla, Melka eta Thersa,
4. Eta ethorri ziren Eleazar aphezaren, Josue Nunen semearen eta aitzindarien aitzinera, ziotelarik: Jaunak manatu izan du, Moisen ararteko, guri emateko gure zathia gure anaien artean. Eta Josuek eman zioeten, Jaunaren manuren arabera, gozamina beren aitaren anaien artean.
5. Holetan hamar zathi erori ziren Manaseri, aiphatu gabe Galaadeko eta Bafango lurra Jordanez haindian.

6. Ezik Manaseren alabek primantza gozatu zuten haren semeen artean. Bada, Galaadeko lurra zortean erori zitzaioten Manaseren gaine-rako haurrei.
7. Manaseren muga izan zen Aserretik Makmethathera, zeina Sikemi begira baitago, eta eskuinera atheratzen zen Taphuako ithurriko egoiliarren bazterraz.
8. Ezen Taphuako lurra Manaseri zortean erori izan zitzaioen; bainan Taphua, zeina baita Manaseren mugen aldean, Efraimen semeena zen.
9. Muga jausten zen Khanaberetako haranera, hegoaldera Efraimen hirietako errekatik, zeina baita Manaseren hirien aldean: Manaseren muga da errekarren ipharraldetik eta ilkhitzen da itsasora,
10. Halaz non Efraimen lurra baita hegoaldekoa, eta Manaserena ipharraldekoa, eta itsasoak hersten ditu biak eta batzen dira Aserren leinuari ipharrean eta Isakarren leinuari iguzki-sorthaldean.
11. Manasek izatu zituen gozamenetan Isakarren eta Aserren lurretan Bethsan eta bere herriak, Jebalam bere herriekin, Dorgo egoilarrak eta hiriak; Endorgo egoilarrak ere eta herriak; eta halaber Thenakeko egoilarrak eta herriak, Maiedoko egoilarrak eta herriak, eta Nophetheko hiriko hirugarren phartea.
12. Eta Manaseren semeek ezin xahutu zituzten hiri hekiek, bainan Kananearra hasi zen lekhu hartan egoten.
13. Israelgo semeek ordean, nausitu zirenean, berenpekotu zituzten Kananearrak, eta figoaren pagatzera bortxatu zituzten, bainan etzituzten hil.
14. Eta Josepen semeak Josueri mintzatu ziren eta erran zioten: Zertako ez darotazu eman zortean gozamen bat baizik eta pharte bakhar batetakoa, oste hanbat handitakoa naizenaz geroz eta Jaunak benedikatu nauenaz geroz?
15. Josuek ihardetsi zioten: Populu Naiz oste handitakoa bazare, igan zaite oihanera, eta lekhu egizu zuhaitzak ebakiz Pherezearren eta Erraphaimtarren lurrean, Efraimen mendiko gozamina hertsiegia zaro-tzunaz geroztik.
16. Josepen semeek ihardetsi zioten: Ezin iganen gure basaburueta-ra, zeren burdinazko orga-lasterrez zerbitzatzen baitira zelhaiean daude-zen Kananearrak, eta zelhai hartan dira Bethsan bere herriekin eta Jezrael haranaren erdian jarria.
17. Josuek erran zioten Efraimi eta Manaseri, Josepen etxeari: Populu handi bat zare eta indar handikoa, ez duzu aski izanen pharte bat;
18. Bainan mendira goanen zare, ebakiko dituzu zuhaitzak eta lekhu garbituko duzu zure egoitzarentzat; eta urrunago ere helduko ahal zare,



xahutu dukezunean Kananearra, zeinak, diozunaz, baititu burdinazko orga-lasterrak, eta zeina guziz hazkarra dela baitiozu.

### XVIII. KAP.

1. Israelgo seme guziak Silora bildu izan ziren; han jarri zuten lekhu-kotasuneko tabernaklea, eta lurra izan zen hekien menpeko.

2. Bada, geldituak ziren Israelgo semeetan zazpi leinu, beren gozameneko lurra oraino izatu gabe.

3. Josuek erran zioeten: Noiz arteo nagikerian totalduak egonen zarete, eta zuen arbasoen Jainko Jaunak eman darotzueten lurraren gozatzera etzarete sarthuko?

4. Hauta zatzue leinu bakhotxetik hirur gizon, igor detzadan, goan ditezen, inguraka dezaten lurra, xeda dezaten oste bakhotxeko nonbreen arabera, eta niri erran dezadatedan nola xedatu duketen.

5. Lurra zuen artean zazpi zathi egizue: Juda egon bedi bere zedarrietan hegoaldetik, eta Josepen etxea ipharretik.

6. Hekien artean den lurra zazpi zathi egizue, eta ethorriko zarete hunat ene gana, zortea hemen athera dezadazuentzat zuen Jainko Jaunaren aitzinean:

7. Zeren ez baita zuen artean lebitarren phartea, bainan Jaunaren aphezatasuna da hekien primantza. Bada, Gadek, Errubenek eta Manaseren leinuaren erdiak, jadanik beren gozamenak hartu izan zituzten Jordanez haindian iguzki-haize alderat, Moisek emanik, Jaunaren zerbitzariak.

8. Eta gizon hekiek jaiki zirenean goateko lurraren xedatzera, Josuek manu egin zioten erranez: Ingura zazue lurra eta xeda, eta itzul zaitze ene gana, hemen Silon Jaunaren aitzinean athera dezadazuentzat zortea.

9. Goan ziren beraz, eta lurra ikhuskatuak, zazpi zathitan berezi zuten eta iskribatu zituzten liburu batean. Eta Josueren gana bihurtu ziren Siloko kanpetara.

10. Josuek zorteak atheratu zituen Silon Jaunaren aitzinean eta lurra berezi zioten zazpi zathitan Israelgo semeei.

11. Eta lehenbiziko zortea atheratu zen Benjaminen semeena (zeinak familiaka baitziren), gozatzeko Judaren semeen eta Josepen semeen arteko lurra.

12. Eta hekien muga ipharraldera izan zen Jordanetik, goaten zela Jerikoren ipharraldeko sahetsetik, igaiten handik mendebal-aldera basaburuetara eta heltzen Bethabengo mortura;

13. Gero iragaiten zen hegoara Luzaren aldetik (hura bera da Bethel), eta jausten Ataroth Adarrera, Bethoron-behereren eguerdian den mendiararen ondora;

14. Eta jausten da inguruan itsasoari buruz, hegoatik Bethoroni begiratzen duen mendiararen eguerdira; eta haren burua da Kariathbaalen, zeina orobat deitzen baita Kariathiarim, Judaren semeen hiria. Hori da haren eremua itsas-aldera mendebaletik.

15. Hegoatik muga atheratzen da Kariathiarimetik itsasoari buruz eta heltzen da Nephtoako ithur-uretaraino;

16. Jausten da. Enomen semeen haranari begira dagoen mendi-alderdira, zeina baita ipharrean Erraphaimgo haranaren buru-buruan; jausten da gero Jeenomera (hura baita Enomen harana), Jebusearren sahetzaldean eguerdi-aldera, eta heltzen da Erroiengo ithurrira,

17. Iragaiten delarik ipharrari buruz eta atheratzen Ensemesera, hura baita Iguzkithurri;

18. Iragaiten da gero Adomingo patarraren parrean diren munhoetaraino, jausten Abenboenera, hura da Errubenen seme Boenen harria, iragaiten ipharretik bazterraldeetara eta jausten ordokira;

19. Gero badoha ipharrari buruz Bethhagglaren haindira, eta akhabatzen da itsaso Gaziko zerrendaren muthurrean ipharretik Jordanearen beheko buruan eguerdi-alderat.

20. Hibai hura da haren muga iguzkihaizetik ere. Hori da Benjaminen semeen gozameneko eremua mugaz muga inguruan eta hekien familien arabera.

21. Eta hango hiriak ziren Jeriko, Bethhagla, Kasisgo harana,

22. Betharaba, Samaraim, Bethel,

23. Abim, Aphara, Ophera,

24. Emonahiri, Ophni eta Gabee: hamabi hiri eta beren herriak.

25. Gabaon, Errama, Beroth,

26. Mesphe, Kaphara, Arnosa,

27. Errezem, Jarephel, Tharella,

28. Seia, Eleph, Jebus, zeina baita Jerusalem, Gabaath eta Kariath: hamalau hiri eta beren herriak. Horiek dira Benjaminen semeen gozameneko tokiak, beren familien arabera.

### XIX. KAP.

1. Eta bigarren zortea atheratu zen Simeonen semeena, zeinak familiaka baitziren, eta hekien primantza izan zen



2. Judaren semeen gozameneko lurren erdian, Bersabee, Sabee, Molada,
3. Hasersual, Baia, Asem,
4. Eltholad, Bethul, Harma,
5. Sizeleg, Bethmarkaboth, Haferspsa,
6. Bethlebaoth eta Sarohen: hamahirur hiri eta beren herriak;
7. Ain, Erremon, Athar eta Asan: hau hiri eta beren herriak;
8. Herrixka guziak hiri horien inguruan Baalath Beer Erramatheraino hegoaldetik. Hori da Simeonen semeen primantza, beren familien arabera,
9. Judaren semeen gozameneko eta zortheko lurrean, zeren handiegia baitzen; eta horren gatik hekien primantzaren erdian Simeonen semeek izatu zituzten beren lurak.
10. Eta hirugarren zorthea erori zen Zabulonon semeena, zeinak familiaka baitziren, eta hekien gozamenaren muga egina izan zen Sarideraino;
11. Eta igaiten da itsasotik eta Meralatik, eta heltzen da Debasethera, Jekonamgo parrean den errekaraino;
12. Eta bihurtzen da Saridetik iguzkihaizera Zeselethhaborgo mugetan, atheratzen Daberetheko aldera, eta igaiten Japhieko parrera;
13. Handik iragaiten da Jethhepher eta Thakasinen iguzki-sorthaldeko alderdiraino, eta atheratzen da Erremonera, Amtharrera eta Noara;
14. Ingurua egiten du ipharrari buruz Hanathonera; eta akhabatzen da Jefthaelgo haranean,
15. Barne direlarik Kateth, Naalol, Semeron, Jedala, eta Bethlehene hamabi hiri eta beren herriak.
16. Hori da Zabulonon semeen primantza, beren familien arabera, hiriekin eta hekietako herriekin.
17. Isakarren zorthea ilkhi zen laugarrena, bere familien arabera.
18. Eta haren primantzako ziren Jezrael, Kasaloth, Sunem,
19. Hapharaim, Seon, Anaharath,
20. Erraboth, Zefion, Abes,
21. Errameth, Enganim, Enhada eta Bethpheses:
22. Eta haren muga heltzen da Thaborrera, Sehesimara eta Bethsameseraino, eta akhabatzen da Jordanean: barne direlarik hamasei hiri eta beren herriak.
23. Hori da Isakarren gozameneko lurra, bere familien arabera, hiriekin eta hekietako herriekin.

24. Bortzgarren zorthea atheratu zen Aserren semeena, zeinak familiaka baitziren.
25. Hekien muga izan zen Halkathik, Xalitik, Betendik, Aksaphtik,
26. Elmeleketik, Amaadik eta Mesaldik, eta heltzen da itsasoko Karmeleraino, Sihorrera eta Labanathera,
27. Eta itzultzen da iguzki-haizeari buruz Bethdagonera; iragaiten da Zabuloneraino eta Jefthaelgo haraneraino, ipharrera, Bethemekeraino eta Nehielerraino, eta atheratzen da Kabulgo ezkererra,
28. Abranera, Errohobera, Hamonera eta Kanara, Sidon handia jo arteo;
29. Gero bihurtzen da Hormara Tirreko hiri guziz hazkarturaino eta Hosaraino, eta akhabatzen da itsasoan Akzibatik hurbil.
30. Eta Ama, Aphék eta Errohob barne, baziren hogoi eta bi hiri eta beren herriak.
31. Horiék dira Aserren semeen, beren familien arabera, gozameneko lurra, hiriak eta herriak.
32. Seigarren zorthea erori zen Nefthaliren semeena, zeinak familiaka baitziren.
33. Muga hasten da Helephetik eta goaten Saanarren Elonera, Adamira, zeina baita Nezeb, eta Jebnaelera Lekumeraino, eta akhabatzen da Jordanean;
34. Itzultzen da gero mendebalari buruz Azanothaborrera, atheratzen Hukukara, iragaiten Zabulonera hegoari buruz, Aserrera mendebalari buruz, eta Judara Jordane bazterrez iguzki-haizeari buruz.
35. Ziren hiri guziz hazkarrak, Asedim, Ser, Emath, Errekath, Zenereth,
36. Edema, Arama, Asor,
37. Zedes, Edrai, Enhazor,
38. Jeron, Magdalel, Horem, Bethanath eta Bethsames, hemeretzi hiri eta beren herriak.
39. Horiék ziren Nefthaliren leinuko semeen, beren familien arabera, gozameneko lurra, hiriak eta herriak.
40. Zazpigarren zorthea atheratu zen Danen leinuko semeena, zeinak familiaka baitziren.
41. Leinu horren gozameneko eremuan ziren Saraa, Esthaol, Hirsemes, erran nahi da Iguzki-hiri,
42. Selebin, Ayalon, Jethela,
43. Eton, Themna, Akron,
44. Eltheze, Jebethon, Balaath,



45. Jud, Bane, Barak, Jethremon,

46. Meiarkon eta Arekon, Joperi begira dagoen ephaitzarekin,

47. Eta muga beraz hersten da. Eta Danen semeak igan ziren, gerla eman zioten, Lesemeri, hartu zuten, eta ezpataren ahoan iragan; gozatu zuten eta han egin beren egoitza, deitzen zutelarik Lesem Dan bere aitararen izenetik.

48. Horiek dira Danen leinuko haurren, beren familien arabera, gozameneko lurra, hiriak eta herriak.

49. Josuek akhabatu ondoan lurraren berezpena zortheka leinu bakhoxari, Israelgo semeek eman zioten Josue Nunen semeari gozatzera beren erdian,

50. Jaunaren manamenduaren arabera, galdegin zioeten hiria, Thamnath Saraa Efraimgo mendian: eta hiria altxatu zuen eta hartan egin zuen bere egoitza.

51. Horiek dira lurra zorthean berezi zituztenak Eleazar aphezak, Josue Nunen semeak eta Israelgo semeen familietako eta leinuetako buruzagiek, Silon, Jaunaren aitzinean, lekhukotasuneko tabernakle-sartzean, eta lurra zathitu zuten.

## XX. KAP.

1. Eta Jauna Josueri mintzatu zen, zioelarik: Mintza zaite Israelgo semeei eta errozute:

2. Berez zatzue ihesliarren hiriak, nik aipatu darozkitzuedanak Moisen arartekoz,

3. Hekietara ihes egin dezan gizona oharkabean hil dukeenak eta itzur ahal dedintzat odolaren aspertzaille den ahaidearen hasarreari.

4. Hiri hekietarik batera ihes egin dukeenean, egonen da biriko athearen aitzinean, eta hiri hartako zaharrei erranen diote zerk-ere hobengabe erakhusten duen: eta horrela hartuko dute eta egonlekhu bat eman diote.

5. Eta odol aspertzaillea heldu balekio ere ondotik, ez diote eskuetara emanen, zeren oharkabean hil baitu haren ahaidea, eta ez delakotz frogatua haren etsai zela bi edo hirur egun aitzinean.

6. Eta hiri hartan egonen da juieen aitzinera ager dadien arteo bere egitatearen ethorkiaz argi bihurtzera, eta hil dadien arteo orduko aphezhandia: orduan hiltzailea itzuliko da eta sarthuko hirira eta bere etxera zeintarik ihes egin izan baitzuen.

7. Ihes-lekhutzat erakhutsi zituzten beraz Zedes Galilean, Nefthaliren mendian, Sikem Efraimen mendian, eta Kariatharbe, hura bera baita Hebron, Judaren mendian.

8. Jordanez haindian berriz, Jerikotik iguzki-sorthaldera berezi zituzten Bosor, mortuko zelhaiean jarria dena, Errubenen leinukoa; Erramoth Galaaden, Gaden leinukoa, eta Gaulon Basanen, Manaseren leinukoa.

9. Hiri horiek ezarriak izan ziren Israelgo seme guzientzat, eta hekien artean egoten ziren arrotzentzat, horietara ihesegin zezantzat oharkabean gizona hil zukeenak, eta etzedin hil odola aspertu nahi zuen ahaidearen eskutik, ager ahal zedin arteo populuairen aitzinera, bere egintza begietarat ematekotzat.

## XXI. KAP.

1. Eta Lebiren familietako buruzagiak hurbildu ziren Eleazar aphezari, Josue Nunen semeari eta Israelgo semeen leinu bakhotzeko familietako buruzagiei,

2. Eta mintzatu zitzaizkieten Silon, Kanaango lurrean, eta erran zioeten: Jaunak Moisen arartekoz manatu izan du guri emanak izan gatzazkigun hiriak egoitzetako eta hekietako hiripeak abereen hazteko.

3. Eta Israelgo semeek eman ziozkaten beren gozamenetarik, Jaunaren manamenduaren arabera, hiriak eta hekietako hiripeak.

4. Eta zorthea atheratua izan zen Aaron aphezaren seme Kaathen familiaren gainera, eta izatu zituen hamahirur hiri Judaren, Simeonen eta Benjaminen leinuetan.

5. Eta Kaathen bertze semeei, erran nahi da gelditu izan ziren lebitarrei, ethorri zitzaizkoten hamar hiri Efraimen eta Danen leinuetarik eta Manaseren leinu erditik.

6. Zorthea atheratua izan zen Jersonen semeentzat hamahirur hiri hartzeko Isakarren, Aserren eta Nefthaliren leinuetarik eta Manaseren leinu erditik Basanen;

7. Eta Merariren semeentzat, beren familien arabera, hamabi hiri Errubenen, Gaden eta Zabulonon leinuetarik.

8. Eta Israelgo semeek lebitarrei eman izan ziozkaten hiriak eta hekietako hiripeak, Jaunak manatu bezala Moisen arartekoz, bakhotxari zorthean atheratuz.

9. Josuek eman ziozkaten Judaren eta Simeonen semeen leinuetarik hiriak, zeinen izenak haukiek baitira:

10. Aaronen semeei, Kaath lebitar odoletikakoaren familiei (ezen lehenbiziko zorthea hekiei atheratua zen),



11. Kariatharbe, Enaken aitaren hiria, zeina deitzen baita Hebron, Judaren mendian, eta hartako hiripeak inguruan.
12. Bainan hango landak eta herriak emanak zituen gozatzera Kalebi, Jephonen semeari.
13. Eman zituen beraz Aaron aphezaren semeei Hebron, ihes-lekhu-ko hiria, eta hartako hiripeak, Lobna bere hiripeekin,
14. Jether, Estemo,
15. Holon, Dabir,
16. Ain, Jeta eta Bethsames, beren hiripeekin: bederatzi hiri bi leinuetarik errana izan den bezala;
17. Benjaminen semeen leinutik, Gabaon, Gabae,
18. Anathoth eta Almon beren hiripeekin: lau hiri;
19. Hamahirur hiri orotara beren hiripeekin, Aaron aphezaren semeentzat.
20. Eta lebitar odoleko Kaathen bertze semeei familiaka gozamen hau emana izan zitzaieten:
21. Efraimen leinutik, ihes-lekhotako hiriak, Sikem bere hiripeekin, Efraimen mendian; Gazer,
22. Zibsaim eta Bethoron, beren hiripeekin, lau hiri;
23. Halaber Danen leinutik, Eltheko, Gabathon,
24. Ayalon eta Jethremon beren hiripeekin, lau hiri;
25. Eta Manaseren leinu erditik, Thanak eta Jethremon beren hiripeekin, bi hiri.
26. Hamar hiri orotara eta hekietako hiripeak emanak izan ziren Kaathen seme bigarren urhatsekoei.
27. Halaber Josuek eman ziozkaten lebitar odoletikako Jersonen semeei, Manaseren leinu erditik, ihes-lekhotako hiriak, Gaulon Basanen eta Bosram beren hiripeekin, bi hiri;
28. Isakarren leinutik, Zefion, Dabereth,
29. Jaramoth eta Enganim beren hiripeekin, lau hiri;
30. Aserren leinutik; Masal, Abdon,
31. Helkath eta Errohob beren hiripeekin, lau hiri;
32. Halaber Nefthaliren leinutik ihes-lekhotako hiriak, Zedes Galilean, Hamoth Dor eta Karthan beren hiripeekin, hirur hiri.
33. Jerfonen familien hiri guziak ziren hamahirur beren hiripeekin.
34. Bada, Merariren seme, lebitar bigarren urhatsekoei beren familia-ka emanak izan zaizkoten Zabulonon leinutik, Jeknam, Kartha,
35. Damna eta Naalol, lau hiri beren hiripeekin;

36. Errubenen leinutik, Jordanez haindian, Jerikoko parrean, ihes-lekhotako hiriak, Bosor mortuan, Misor, Jaser, Jethson eta Mephaath, lau hiri beren hiripeekin;
37. Gaden leinutik, ihes-lekhotako hiriak, Erramoth Galaaden, Manaim, Hefebon eta Jaser, lau hiri beren hiripeekin.
38. Merariren semeen hiri guziak hekien familiaka eta ahaidegoka, ziren hamabi.
39. Horreletan lebitarren hiri guziak Israelgo semeen gozameneko lurretan izan ziren berrogoi eta zortzi
40. Beren hiripeekin, eta izan zitzaizkoten familiaka phartituak.
41. Eta Jainko Jaunak Israelgo semeei eman zioeten hekien aitei zin eginez agindu izan zioeten lur guzia, eta gozatu zuten eta han egotu ziren.
42. Eta bakea eman zioten inguruko jendaki guziekin, eta etsaietarik nihor etzitzaioten buru egitera ausartatu, bainan oro hekien azpiko eginak izan ziren.
43. Eta etzen eiki Jaunak egiteko agindu zituenetarik hitz bakhar bat ere alfer gelditu, bainan guziak egintzaz izan ziren betheak.

## XXII. KAP.

1. Ordu hekietan Josuek deithu zituen Errubentarrak, Gadtarrak eta Manaseren leinu erdia,
2. Eta erran zioeten: Egin ditutzue Moisek, Jaunaren zerbitzariak, manatu darozkitzuen guziak: ene alderat ere gauza guzietan ethordun izatu zarete,
3. Eta zuen anaiak ez ditutzue utzi hunenbateko ephean egungo eguna arteo, begiratzen duzuelarik zuen Jainko Jaunaren manua.
4. Beraz zuen Jainko Jaunak bakea eta deskantsua eman dioizkitenaz geroztik zuen anaiei, agindu izan zuen bezala, bihur zaitezte eta zoazte zuen olhetara eta zuen gozameneko lurrera, Moisek, Jaunaren zerbitzariak, Jordanez haindian eman izan darotzuetenera;
5. Halaz bizkitartean non atzarriki begiratuko baititutzue, eta egin-tzaz betheko manamendua eta legea Moise, Jaunaren zerbitzariak eman izan darozkitzuenak, maitha dezazuentzat zuen Jainko Jauna, ibil zaitezten haren bide guzietan, begira detzatzuen haren manamenduak, hari iratxikiak egon zaitezten eta zerbitza dezazuen zuen bihotz oroz eta arima guziz.
6. Eta Josuek benedikatu eta igorri zituen. Haukiek itzuli ziren beren olhetara.



7. Bada, Moisek, Manaseren leinu erdiari Basanen eman izan zioen bere gozameneko lurra; eta hargatik Josuek gelditu zen bertze erdiari bere lurra eman zioen gainerako beren anaien artean Jordanez hunaindian mendebalerat. Eta beren olhetara igorri zituenean eta benedikatu,

8. Erran zioeten: Ontasundun eta aberats itzuliko zarete zuen tokietara, zilhar, urhe, kobre, burdina eta asko soinekorekin: etsaiaganikako buluzkina pharti zazue zuen anaiekin.

9. Eta Errubenen eta Gaden semeak eta Manaseren leinu erdia itzuli eta goan ziren Israelgo semeen ganik Silotik, zeina Kanaango lurtean baita, sartzekotzat Galaaden beren gozameneko lurtean, Moisen ganik ardietsi zutenera Jaunaren manamenduaren arabera.

10. Eta ethorri zirenean Jordaneke bizkarretara Kanaango lurtean, Jordanearen ondoan altxatu zuten aldare bat ikharagarri handia.

11. Israelgo semeek hori aditu zutenean, eta berri-ekharle segurek heldu ziotenean Errubenen eta Gaden semeek eta Manaseren leinu erdiak aldare bat altxatu zutela Kanaango lurtean, Jordaneke bizkarretan, Israelgo semeen parrean,

12. Guziak bildu ziren Silora, igitzeko eta hekiei gudu emateko.

13. Eta bizkitartean igorri zuten hekien gana Galaadeko lurrera Phinees, Eleazar aphezaren semea,

14. Eta hamar aitzindari harekin, leinu bakhotxetik bat.

15. Haukiek ethorri ziren Errubenen eta Gaden semeetara eta Manaseren leinu erdia gana, Galaadeko lurrera, eta erran izan zioeten:

16. Hau gaztiazten du Jaunaren populu guziak: Zer da lege hauste hori? Zertako utzi duzue Israelgo Jainko Jauna, sakrifiozko aldare bat altxatuz, eta Jaunaren erlijionetik gibelerat eginez?

17. Ala guti zaitzue Beelphegorren egin izan duzuen bekhatua, eta egungo eguna arteo gure gainean baitirau tzarkeria haren nothak, hanbat gizon hil izan diren ondoan?

18. Eta zuek egun uzten duzue Jauna, eta haren hasarreak jazarriko dio bihar Israel guziari.

19. Baldin uste baduzue lohia dela zuen gozameneko lurra, iragan zaitezte Jaunaren tabernaklea dagoen lurrera, eta zaudete gure artean: bakharrik Jauna ganik eta gure lagunkhidetasunetik ez bezazue gibelerat egin, aldare bat altxatuz gure Jainko Jaunaren aldarearen kontra.

20. Akanek, Zareren semeak, ez othe zuen hautsi Jaunaren manamendua, eta gero haren hasarrea hedatu baitzen Israelgo populu guziaren gainera? Eta hura gizon bat zen, eta oxala bera bakharrik galdu izan balitz bere tzarkeriarekin

21. Errubenen eta Gaden semeek eta Manaseren leinu erdiak iharde-tsi zioten Israelek igorri aitzindariak:

22. Jainko Jaun guziz hazkarrak, Jainko Jaun guziz hazkarrak badaki, eta Israelek ere jakinen du: baldin legearen hausteko gogoz egin izan badugu aldare hori, Jaunak ez begatzaizka geriza, bainan bai gaztiga orai berean;

23. Eta holokausta, sakrifizio eta bakezko bitimak horren gainean ezartzeko gogoz egin izan badugu, Jaunak berak bilha eta juia begatzaizka.

24. Eta ez hortaz hanbat, bainan gogoratu zaikuna eta gure artean iharduki duguna da erran izan dugula: Gerorat zuen semeek erranen diote gure semei: Zer ikhusteko da zuen eta Israelgo Jainko Jaunaren artean?

25. Oi Errubenen eta Gaden semeak, Jaunak Jordaneke hibaia zedarri ezarri izan du zuen eta gure artean: eta horren gatik pharterik ez duzue Jauna baithan. Eta bide hortaz zuen semeek gure semeak makhurraraziko dituzte Jaunaren beldurretik. Beraz uste izan dugu hobeki egin,

26. Eta erran dugu: Egin dezagun aldare bat, ez holokausta eta bitima eskaintzeko,

27. Bainan lekhukotasunetan zuen eta gure arteko, eta gure haurren eta zuenen arteko, zerbitza dezagun Jauna, eta gure zuzenean izan dedin holokausten, sakrifizioen eta bakezko bitimen eskaintzea; eta ethorkizunean zuen semeek gure semei erran ez dezoten: Pharterik ez duzue Jauna baithan.

28. Holakorik erran nahi balute, ihardetsiko diotete: Huna Jaunaren aldarea gure aitek egin izan dutena, ez holokaustetako eta sakrifizioetako, bainan zuen eta gure arteko lekhukotasunetan.

29. Urrun da gu ganik horretako tzarkeria gu gibelatuko garela Jauna ganik, eta utziko baititugu haren urhatsak, aldare bat altxatuz holokausta eta sakrifizio eta bitima eskaintzeko, gure Jainko Jaunaren, aldare haren tabernaklearen aitzinean egina izan denaz kanpo.

30. Horiek aditurik, Phinees apheza, eta harekin ziren aitzindari Israelek igorriak, jabaldu ziren; eta Errubenen eta Gaden semeen eta Manaseren leinu erdiaren solasak hainitz ongi hartu zituzten.

31. Eta Phinees aphezak, Eleazarren semeak, erran zioeten: Orai badakigu gurekin dela Jauna, zeren garbi baitzarete holako lege-haustetik, eta atheratzen baitituzte Israelgo semeak Jaunaren jazarritik.

32. Gero bihurtu zen bertze aitzindariekin Errubenen eta Gaden semeen ganik, Galaadeko lurretik, Kanaango eremuetara, Israelgo semeen gana, eta berri horiek eman ziozkaten.



33. Solas horrek atsegin egin zioeten aditzaile guziei. Goretsi zuten Jauna; etzuten gehiago erran iganen zirela hekien kontra, gerla emanen zutela eta xahutuko hekien gozameneko lurra.

34. Eta Errubenen eta Gaden semeek egin zuten aldarea deithu zuten: Gure lekhukotasuna Jauna bera dela Jainkoa.

### XXIII. KAP.

1. Bada, asko denbora iragan ondoan, Jaunak Israeli bakea emanez geroztik, jendaki guziak inguruan heziak izanik, eta Josue ordukotz zaharra eta adin handitan zelarik,

2. Josuek deithu zuen Israel guzia, adinez zaharrenak, aitzindariak, buruzagiak eta kargudunak, eta erran zioeten: Lahartu naiz eta adin handitan sarthu.

3. Ikhusten duzue zuen Jainko Jaunak zer egin izan dioten inguruko jendaki guziei, nola bera zuen alde gudukatu den;

4. Eta orai nola zorthean zathitu darotzuen lur hau oro Jordaneko iguzki-sorthaldeko aurkhintzatik itsaso Handiraino, eta gelditzen direla oraino asko jendaki.

5. Zuen Jainko Jaunak khenduko ditu zuen aitzinetik, eta lur hau oro gozatuko duzue, agindu darotzueten bezala.

6. Bakharrik, egizue hazkarretik, eta izan zaitezte arduratsu Moisen legeko liburuan iskribatuak diren guzien begiratzerara, eta hekietarik ez eskuin ez ezker ez betzaiztete makhur;

7. Beldurrez-eta zuen artean izanen diren jendakietara sarthu ondoan, zin egin dezazuen hekien jainkoen izenean, zerbitza eta adora detzatzuen.

8. Bainan, egungo eguna arteo egin duzuen, zuen Jainko Jaunari iraxikiak zaudete.

9. Eta orduan zuen Jainko Jaunak zuen aitzinetik khenduko ditu jendaia handi eta guziz hazkar horiek, eta nihork ezin eginen darotzueten buru.

10. Zuetarik batek lasterkatuko ditu etsaietarik mila, zeren zuen Jainko Jauna zuen alde gudukatuko baita, agindu duen bezala.

11. Huntaz bakharrik artha handiena har zazue, maithatzeaz zuen Jainko Jauna.

12. Baldin zuen artean dauden jendaki horien errebelamenduei iraxiki, ezkontzaz horiekin nahasi eta adiskidantzaz josi nahi bazinete;

13. Jakizue oraidanik zuen Jainko Jaunak ez dituela zuen aitzinetik xahutuko, bainan zuentzat izanen direla zilho bat bezala, arte bat bezala,

adar bat bezala zuen sahetsean, zotz bat bezala zuen begietan, khen eta xahu zaitzazten arteo eman darotzueten lur guziz on huntarik.

14. Huna, bada, orai sartzen naizela gizon guziek iragan behar duten bidean, eta zuek osoki ezagut zazue Jaunak, zuei emanen zarotzuetela agindu darozkitzuen hitz orotarik, bat bakharra ez dela alferra atheratu.

15. Beraz nola egintzetan ezarri baitu agindu duena, eta oro ontsa atheratu baitira, hala erakharriko ditu zuen gainera dixidatu darozkitzueten gaitz guziak, khen eta xahu zaitzazten arteo eman izan darotzueten lur guziz on huntarik.

16. Baldin hausten baduzue zuen Jainko Jaunarekin egin patua, zerbitzazten eta adoratzazten badituzte Jainko arrotzak, orduan eta laster jai-kiko da zuen gainera Jaunaren hasarrea, eta eman izan darotzueten lur guziz on huntarik khenduko zaitzuzte.

### XXIV. KAP.

1. Eta Josuek Israelgo leinu guziak bilarazi zituen Sikemera; deithu zituen adinez zaharrenak, aitzindariak, juieak eta kargudunak, eta jarri ziren Jaunaren aitzinean.

2. Eta hula mintzatu zen populuari: Hau dio Israelgo Jainko Jaunak: Hibaiaz haindian hastetik egin izan dute beren egoitza zuen arbasoek eta Tharek, Abrahamen eta Nakorren aitak, eta jainko arrotzak zerbitzatu dituzte.

3. Hartu nuen beraz Abraham zuen aita Mesopotamiako lurretik, erakharri nuen Kanaango lurrera, berhatu nuen haren ondoregoa,

4. Eman nioen Isaak, eta Isaaki berriz eman niozkien Jakob eta Esau. Haukietarik, Esauri gozatzerara eman nioen Seirgo mendia: Jakob ordean eta bore haurrak Egiptora jautsi izan ziren,

5. Eta igorri nituen Moise eta Aaron, eta Egiptoja jo nuen asko ikhukari eta sendagailaz.

6. Eta erakharri zintuztetan zuek eta zuen aitak Egiptotik, eta ethorri zinezten itsasora eta Egiptoarrak zuen aitei jarraiki ziren orga-laster eta zaldiekin itsaso Gorriraino.

7. Bainan Israelgo semeek deihadar egin zuten Jauna ganat; eta Jaunak ilhunbeak ezarri zituen zuen eta Egiptoarren artean, itsasoa ekharri zuen hekien gainera eta estali zituen. Zuen begiek ikhusi dituzte Egipton egin izan ditudan guziak, eta luzez egotu zarete mortuan:

8. Sarrarazi zaituztet gero Amorhearraren lurrean, Jordanez haindian zagoenarenean. Eta gudukatzen zintuztetenean eskuetaratu darozkitzuet, eta hekien lurra gozatzen duzue, eta berak hil izan dituzte.





9. Bada, Balak, Sephorren semea, Moabeko errege, jaiki zen eta gudu eman zioen Israeli. Igorri zuen Beorren seme Balaamen gana eta deithu zuen, zuen madarikatzeko.

10. Eta nik ez nuen nahi izan hura entzun, baina aitzitik hartaz benedikatu eta haren eskutik atheratu zaituztet.

11. Iragan izan duzue Jordanea eta ethorri zaizte Jerikora. Hiri hartako gizonak, Amorhearra eta Phezearra, Kanearra eta Hethearra, Jerjesearra, Hebearra eta Jebusearra, gudukatu dira zuen kontra, eta eskuetaratu darozkitzuet guziak.

12. Eta zuen aitzinean igorri izan ditut listorak: eta beren tokietarik irazi ditut bi errege Amorhear, eta ez zuen ezpataz eta arranbelaz.

13. Eta eman izan darozkitzuet zuek lanthua etzen lurra eta zuek eginak etziren hiriak, hekietan egon zinteztentzat eta landatu etzintuzten mahastiak eta olibadiak.

14. Orai beraz izan zaizte Jaunaren beldur, eta zerbitza zazue bihotz garbi eta zin batekin: irai zatzue zuen aitek Mesopotamian eta Egipton zerbitzatu dituzten jainkoak, eta Jauna zerbitza zazue.

15. Baina iduri balin bazaitzue gaizki dela zerbitza dezazuen Jauna, hauta emana zaitzue: egun hauta zazue atsegin duzuen, zein-ere beharrrago duzuen zerbitzatu, ala zuen aitek Mesopotamian adoratu dituzten jainkoak, ala Amorhearrenak zeinen lurrian baituzue zuen egoitza: baina nik eta ene etxeak Jauna zerbitzatuko dugu.

16. Populuak ihardetsi eta erran zuen: Urrun gu ganik Jaunaren uztea eta jainko arrotzak zerbitzatzea.

17. Gure Jainko Jaunak berak atheratu gaitu gu eta gure aitek Egiptotik, gathibusuneko etxetik; eta gure begien aitzinean egin ditu ikhaskari handiak; eta ibili garen bide guzian eta iragan ditugun populu guzian artean begiratu gaitu.

18. Iraizi ditu jendaia guziak eta Amorhearra, sarthu garen lurrian zagoena. Zerbitzatuko dugu beraz Jauna zeren bera baita gure Jainkoa.

19. Josuek erran zioen populuari: Ezin zerbitzatuko duzue Jauna, ezen Jainko saildu, hazkar eta bekhaizkor bat da, eta zuen tzarkeriak eta bekhatuak ez darozkitzuate barkhatuko.

20. Baldin Jauna uzten baduzue, eta ematen bazarete jainko arrotzen zerbitzaten, ifrentziatuko da, azurriatuko zaituztete, eta hanbat ongi egin daroztuen ondoan xahutuko zaituztete.

21. Eta populuak erran zioen Josueri: Ez da zuk diozun bezala izanen, baina Jauna zerbitzatuko dugu.

22. Eta Josuek populuari ihardetsi zioen: Lekhuko zarete zerorrek hautatu duzuela Jauna, haren zerbitzatzeko. Eta ihardetsi zuten: Lekhuko gare.

23. Eta berriz, erran zuen: Orai beraz zuen artetik khen zatzue jainko arrotzak, eta gurth zatzue zuen bihotzak Israelgo Jainko Jaunaren aitzinean.

24. Eta populuak erran zioen Josueri: Gure Jainko Jauna zerbitzatuko dugu, eta ethordun izanen gare haren manamenduei.

25. Egun hartan beraz Josuek berritu zuen batasuna, eta populuari aitzinera Sikemen eman ziozkan manamendu eta erabaki Jaunarenak.

26. Orduko erran horiek guziak ere isribatu zituen Jaunaren legeko liburuan: eta hartu zuen harri handi bat, eta Jaunaren saildutegian zen haritz baten azpian ezarri zuen.

27. Eta erran zioen populu guziari: Huna harri hau lekhuotasunetan izanen duzuela nola aditu dituen Jaunak erran darozkitzueten solas guziak, beldurrezeta gerorat ukhatzeko eta zuen Jainko Jaunaren gezurtzeko izan dezazuen nahikaria.

28. Eta populuak igorri zuen, zein bere gozamenara.

29. Eta gero hil izan zen Josue, Nunen semea, Jaunaren zerbitzaria, ehun eta hamar urthetan.

30. Eta ehortzi izan zuten bere gozameneko eremuan, Thamnathsaren, zeina baita Efraimen mendian, Gaasko mendiaren ipharreko alderdian.

31. Israelek zerbitzatu zuen Jauna Josueren egun orotan, bai-eta-ere Josuek geroztik luzez bizi izan ziren zahar, Jaunaren egintza guziak Israelen zakizkitenen egunetan.

32. Josepen hezurak ere Israelgo semeek Egiptotik ekharriak ehortzi zituzten Sikemen, Hemor Sikemen aitaren semei Jakobek ehun antxutan erosi izan zuen landa puskan, zeina gelditu baitzen Josepen semeen izantzako.

33. Eleazar, Aaronen semea ere hil izan zen, eta ehortzi zuten Gabaathen, zeina haren seme Phineesena baitzen, Efraimgo mendian hari emana.



## JUYEAK

### I. KAP.

1. Josue hil ondoan, Israelgo semeek Jauna kontsultatu zuten, erraten ziotelarik: Nor iganen da gure aitzinean Kananearraren kontra, eta izanen da gerlako aitzindari?

2. Eta Jaunak ihardetsi zuen: Juda iganen da; huna non ezarri dudan lurra haren eskuan.

3. Eta Judak erran zioen bere anaia Simeoni: Igan zaite enekin zorthean izatu dudan lurrera, eta guduka zazu Kananearra, ni ere zurekin goan nadien zure zortheko lurrera. Eta Simeon goan zen harekin.

4. Eta Juda igan zen, eta Jaunak hekien eskuetara eman zituen Kananearra eta Pherezearra, eta hamar mila jo zituzten Bezek.

5. Eta Bezek aurkhitu zuten Adotubezek, eta gudukatu zuten eta jo zituzten Kananearra eta Pherezearra.

6. Bada, Adonibezeke ihesari eman zen; eta ondotik jarraikirik atzeman zuten, eta moztu ziozkaten esku eta zangoetako muthurrak.

7. Adonibezeke erran zuen: Hirur hogoi eta hamar erregek, esku eta zango-muthurrak moztuak izanik, ene mahainaren azpian biltzen zituzten jateko hondarrak: nola egin izan baitut, hala niri ere bihurtu darot Jainkoak. Eta eraman zuten Jerusalemara, eta han hil izan zen.

8. Bada, Judaren semeek, Jerusalemeko sethiaturik, hartu zuten eta ezpataren ahoaz jo, hiri guzia sutan ezartzen zutelarik.

9. Eta gero jautsirik, gudu eman zioten mendietan eta hegoako aldean eta zelhaietan zagoen Kananearrari.

10. Eta Juda goanik Hebron (zeinaren izena behiala baitzen Kariatharbe) zagoen Kananearraren kontra, jo zituen Sesai, Ahiman eta Tholmai.

11. Eta handik abiatu, goan zen Dabirra, zeinaren izen zaharra baitzen Kariath Sepher, erran nahi baita Iskribauen hiria.

12. Eta Kalebek erran zuen: Nork ere Kariath Sepher joko eta xahutuko baitu, hainari emaztetzat emanen diot ene alaba Aksa.

13. Eta Othonielek, Zenez, Kaleben ondoko anaiaren semeak hiria hartu zuenean, Kalebek eman zioen Aksa bere alaba emaztetzat.

14. Hau bidean zihoalarik, bere senharrak bururat eman zioen landa bat galda zezola bere aitari. Aksa asto gainean jarri abiatu zen hasberapenka. Kalebek erran zioen: Zer duzu?

15. Eta hunek ihardetsi zioen: Indazu zure benedizioa; zeren lur agor bat eman baitarotazu, indazu urez bustitzen den bat ere. Kalebek eman zioen beraz lur bat gainetik beherera urztatu.

16. Bada, Zinearrak, Moisen ahaideak, Palmetako hiritik igan ziren Judaren semeekin haukiei zorthean erori izan zitzaioeten mortura, zeina baita Aradetik hegoarat, eta haukiekin egotu ziren.

17. Bada, Juda goan zen bere anaia Simeonekin, eta biek jo eta hil zuten Sephaathen zagoen Kananearra. Eta hiria deithua izan zen Horma, erran nahi da anathema.

18. Eta Judak hartu zituen Gaza bere eremuekin, Askalon eta Akaron beren eremuekin.

19. Eta Jauna izan zen Judarekin, eta basaburuez nausitu zen: eta ezin xahutu zituen haranetan zaudezenak, bazituztelakotz hainitz orga-laster segatzatu.

20. Eta Moisek erran bezala, Hebron eman zioten Kalebi, zeinak handik xahutu baitzituen Enaken hirur semeak.

21. Baina Benjaminen semeek etzuten hil Jebusearra, Jerusalemeko zagoena, eta Jebusearra Benjaminen semeekin dago Jerusalemeko egungo arteo.

22. Josepen etxea ere igan zen Bethelera, eta Jauna harekin izatu zen.

23. Ezen sethiatzen zutelarik hiria, zeina lehenago Luza deitzen baitzen,

24. Ikhusi zuten gizon bat hiritik atheratzen, eta erran zioten hari: Erakhuts dizaguzu hiriko sartzea, eta urrikaltzapenetan hartuko zaitugu.

25. Eta hunek erakhutsi ziotenean, hiria jo zuten ezpataren ahoaz, baina utzi zituzten gizon hura eta bere ahaidego guzia.

26. Utzi zuten gizonak, egin zuen Hethingo lurrera, eta han altxatu zuten hiri bat Luza deithu zuena: izen hori bera dakhar egungo eguna arteo.

27. Manasek ere etzuten xahutu Bethsan eta Thanak beren herriekin, ez-etare Dorgo, Jeblaamgo eta Maiedoko egoiliarrak hango herriekin, eta Kananearra hasi zen egiten harekin bere egoitza.

28. Baina Israelen, hazkartu zenean, ezarri zituen figoaren azpian eta etzuten hil nahi izan.

29. Efraimek halaber etzuten hil Gazerren zagoen Kananearra, baina harekin egin zuen bere egoitza.

30. Zabulonek etzuten hil Zetrontarrak eta Naaloltarrak, baina haren erdian egotu zen Kananearra zeina figoaren-peko egina izan baitzitzaioen.



31. Aserrek orobat etzituen hil Akoko, Sidongo, Ahalabeko, Akazibgo, Helbako, Aphekeko eta Errohobgo egoiliarrak;

32. Eta egoitza egin zuen lur hartan zagoen Kananearraren erdian, eta etzuen hil.

33. Nefthalik bardin etzituen hil Bethsamestarrak eta Bethanatharrak: egotu zen hango Kananearraren erdian eta Bethsametarrek eta Bethanatharrek pagatu zioten figoa.

34. Amorhearrak hertsitasunean iduki zituen Danen semeak mendian, eta etzioten utzi lekhu zelhaiagoetara jausteko biderik.

35. Eta egotu zen Haresgo mendian, erran nahi baita buztin-mendi, Ayalonen eta Salebimen. Eta Josepen etxearen eskua dorphetu zen, eta Amorhearra ezarria izan zen figoaren-pean.

36. Eta Amorhearraren muga izan zen Harrobiaren patarretik Petra eta goragokolekhuak.

## II. KAP.

1. Eta Jaunaren aingerua ethorri zen Galgalatik Nigarti-lekhura eta erran zuen: Atheratu zaituztet Egiptotik eta sarrarazi zin eaginez zuen aitei agindu diotedan lurrera, eta hitzeman darotzuet ez dudala egun-eta-behinere ene zuekilako patua alferretara hihurraraziko;

2. Halaz bizkitartean non ez baitzinduten batasunik eginen lur hunktako egoiliarrekin, baina hekien aldareak lurrerat arthikiko baitzintuzten; eta ez duzue entzun nahi izatu ene mintzoa: zertako egin duzue hori?

3. Horren gatik hekiek ez ditut nahi izan zuen aitzinetik xahutu, izan zintzaztentzat etsaiak, eta hekien jainkoak izan zitezentzat zuen galgarri.

4. Eta Jaunaren aingeruak hitz horiek erraiten Israelgo seme guziei, oro nigar eta marraskaz hasi ziren.

5. Eta toki hura deithua izan zen Nigarti-lekhu edo Nigar-lekhu: eta han bitimak imolatu ziozkaten Jaunari.

6. Bada, Josuek igorri zuen populua eta Israelgo semeak goan ziren, zein bere gozamenera, hartaz jabetzekotzat.

7. Eta Jauna zerbitzatu zuten Josueren eta haren ondotik luzez bizi izan ziren zahar, Jaunak Israelen alde eginak oro zakizkitenen egun guzietan.

8. Eta Josue, Nunen seme, Jaunaren zerbitzaria, hil izan zen ehun eta hamar urthetan.

9. Ehortzi izan zuten bere gozameneko eremuetan, Thamnathsaren, Efraimgo mendian Gaasko mendiaren ipharreko alderdian.

10. Eta gizaldi hura guzia bildua izan zen bere arbasoetara, eta azpitik-gora ethorri ziren bertze batzu, Jauna eta harek Israelen alde eginak ezagutu etzituztenak.

11. Eta Israelgo semeek gaizkia egin zuten Jaunaren aitzinean, eta Baal zerbitzatu zuten.

12. Eta beren arbasoen Jainko Jaunak, Egiptoko lurretik hekiek atheratu zituenak utzi zituen; eta jainko arrotzei jarraiki ziren, hekien ingurutana egoten zirenen jainkoei, eta adoratu zituzten, eta Jauna hasarretzera ekharri zuten,

13. Hura utziz eta Baal eta Astaroth zerbitzatu.

14. Jauna Israelen kontra samurturik, arthiki zituen jazartzen ziotenen eskuetara: haukiek hartu eta inguruan egoten ziren etsapei saldu zituzten: eta Israeldarrek ezin buru egin zioten beren etsaiei.

15. Baina edozein aldetara itzultzera egin zezaten, Jaunaren eskua hekien gainean zen, erran eta zin egin zioeten bezala: eta garrazki atseka-beztatuak izan ziren.

16. Eta Jaunak eraiki zituen juieak, larrutzen zituztenen eskuetarik hekien atheratzeko; baina etzituzten aditu ere nahi izan,

17. Aitzina khutsatzen zirelarik jainko arrotzekin eta hekiek adoratzen zituztelarik, laster baztertu ziren hekien aitak ibili ziren bidetik; eta aditzen zituztelarik Jaunaren manamenduak, oro bertzaldera egin zituzten.

18. Jaunak juieak eraikitzen zituenean, hekien egunetan urrikalmentutara erortzen zen, entzuten zituen atsekabetan zirenen auhenak, eta larrutzen zituztenen ezpataren azpitik atheratzen zituen.

19. Baina juiea hil ondoan, bihurtzen ziren eta beren aitek baino tzarkeria hainitz handiagoak egiten zituzten, jainko arrotzei jarraikiz, hekiek zerbitzatu eta adoratu. Etzituzten utzi beren asmu tzarrak eta bide gaitza zeinetarik ibili ohi baitziren.

20. Eta Jaunaren hasarrea jauzi zen Israelen gainera, eta erran zuen: Zeren jendaki horrek alferretara bihurrarazi duen horien aitekin egin nuen patua, eta erdeinu duelakotz ene bozaren entzuteaz,

21. Nik ere ez ditut xahutuko Josuek hil denean utzi dituen jendaia,

22. Hekien bidez froga dezadan Israel, heian badagoen, ala ez, Jaunaren bidean eta hartaz dabilan, arbasoek egin izan duten bezala.

23. Jaunak utzi zituen beraz jendaia hekiek oro, eta etzituen berehala xahutu nahi izan, eta etzituen Josueren eskura eman.



### III. KAP.

1. Haukiek dira jendaiak Jaunak utzi zituenak hekien bidez argi zitezentzat Israel eta Kananearekilako gerlak ezagutu izan etzituzten guziak,

2. Gerorako hekien semeek ikhas zezatentzat etsaiekin gudukatzen, eta izan zezaten gerlako ohikundea:

3. Filistindarren bortz satrapak, Kanear guziak, Sidondarrak, eta Libango mendian Baalhermongo menditik Ematheko sartzeraino egoten ziren Hebearrak.

4. Jaunak utzi zituen, hekien bidez frogatzekotzat Israel, heian entzuten zituen, ala ez, haren arbasoei Moisen arartekoz Jaunak eman ziozkaten manamenduak.

5. Hargatik Israelgo semeek izatu zuten beren egoitza Kananearraren, Hethearraren, Amorhearraren, Pherezearraren, Hebearraren eta Jebusearraren artean:

6. Eta hekien alabak eskontzaz hartu zituzten eta berek ere alabak hekien semei eman ziozkaten, eta zerbitzatu zituzten hekien jainkoak.

7. Gaizkia egin zuten Jaunaren aitzinean eta ahantzi zuten beren Jainkoa, Baal eta Astaroth zerbitzatzeko zituztelarik:

8. Eta Jaunak, Israelen alderat hasarreturik, arthiki zituen Kusan Errasathaim, Mesopotamiako erregeren eskuetara, eta harenpeko izatu ziren zortzi urtez.

9. Deihadar egin zuten Jauna ganat, zeinak eraiki baitzioten salbatzaile bat, libratu zituena; hura zen Othoniel, Kaleben ondoko anaia Zenezen semea.

10. Haren baithan izan zen Jaunaren izpiritua, eta izatu zen juie Israelen. Atheratu zen gerlarat; Jaunak eskuetara eman zioen Kusan Errasathaim, Siriako errege, eta zebatu zuen.

11. Lurra bakean egotu zen berrogoi urtez, eta hil izan zen Othoniel, Zenezen semea.

12. Eta Israelgo semeek berriz ere egin zuten gaizkia Jaunaren aitzinean, zeinak, zeren egin zioten bere aitzinean gaizkia, hekien kontra indar eman baitzioen Egloni, Moabeko erregeri.

13. Amonen eta Amaleken semeak batu ziozkan Egloni; eta Eglon goan zen, jo zuen Israel eta nausitu zen Palmetako hiriaz.

14. Eta Israelgo semeak hemezortzi urtez izatu ziren Eglon, Moabeko erregerenpeko.

15. Gero deihadar egin zuten Jauna ganat, zeinak igorri baitzioten salbatzaile bat, Aod deitzen zena, Jeminiren seme Jeraren semea, bi

eskuez bardin eskualde zena. Israelgo semeek harekin emaitzak igorri ziozkaten Eglon, Moabeko erregeri.

16. Aodek egin zuen ezpata bat bi aldetarik zorroztua, buruan zuena ahurraren heineko gider bat, eta hura gerrian, soinekoaren azpian ezarri zuen eskuineko ixterraren aldetik.

17. Moabeko errege Egloni eraman ziozkan emaitzak. Bada, Eglon gizenegia zen.

18. Aodek emaitzak eskainirik, gibelerat egin zuen harekin ethorri lagunekin.

19. Bainan Galgalatik, idolak ziren lekhutik itzulirik, erregeri erran zioen: Oi errege, solas bat badut zuri buruz-buru egitekoa. Erregek ixiltasuna manatu zuen: eta haren inguruan ziren guziak atheraturik,

20. Aod hurbildu zitzaioen. Bada, errege jarria zagoen bakharrik udako bere gelan, eta Aodek erran zioen: Jainkoaren hitz bat dut zuretzat. Berehala errege tronutik jautsi zen.

21. Aodek esku ezkerra luzatu, hartu eskuin aldean zuen ezpata, eta sabelean sarthu zioen

22. Hain hazkarki, non giderra ezpatarekin sakhian sarthu baitzen, eta gelditu josia gantzaren loditasunean. Aodek etzuen ezpata handik atheratu, bainan sarthu bezala gorphutzean utzi zuen; eta ordu berean sabeleko ongarriak beren bidetik jauzi ziren.

23. Gelako atheak zalhuki hertsirik eta hagaz seguraturik, Aod

24. Gibeleda atheratu ilkhi zen. Erregeren zerbitzariak ethorri zirenean, gelako atheak hertsia ikhusi zituzten, eta erran zuten: Bere beharren egiten hari da naski udako gelan.

25. Eta luzez, ahalkatieko heineraino begira egonik, eta ikhustenez nihork etzuela idekitzen, gakhua hartu zuten: eta idekitzearekin, beren nausia hila atzeman zuten lurrean zabal-zabala.

26. Bainan Aodek, hekiek asaldutan zabiltzalarik, ihes egin eta iragan zuen Idola-lekhu, nondik aitzintzean bihurtu baitzen. Ethorri zen Seirathera,

27. Ela berehala turuta jo zuen Efraimgo mendian; eta harekin, bera buru-buruan, jautsi ziren Israelgo semeak.

28. Erran zioeten: Jarraik zakizkidate, ezen Jaunak eskuetara eman darozkigu gure etsai Moabitarrak. Jautsi ziren beraz haren ondotik, Moabera daramaten Jordaneko ubiak hartu zituzten, eta etzuten nihor iragaiterat utzi;



29. Bainan ordu berean jo zituzten Moabitarrak, hamar milaren ingurutsua, guziak gizon hazkar eta bihotzetakoak. Hekietarik bakhar bat ezin itzuri zen.

30. Moab egun hartan aphaldua izan zen Israelen eskuaren azpian; eta lurra laur hogoi urthez izatu zuen bakea.

31. Aoden ondotik izatu zen buruzagi Samgar, Anathen semea, zeinak golde batekin eho baitzituen sei ehun Filistindar, eta halaber bera izatu zen Israelen geriza.

#### IV. KAP.

1. Aod hil ondoan Israelgo semeak aitzina haritu ziren gaizkiaren egiten Jaunaren aitzinean.

2. Eta Jaunak Jabini, Kanaango errege Azorren erreginatua zenari eskuetarar arthiki ziozkan. Jabinek bere armadako buruzagi zuen Sisara, eta bera egoten zen jendaiaren Harosethen.

3. Israelgo semeek Jauna sana deihadar egin zuten: Jabinek ezik bazituen bederatzia ehun orga-laster segatzatu, eta hogoi urthez hestura gaitzean iduki zituen Israeldarrak.

4. Bada, bazen profetes bat, Debora, Lapidothern emaztea, populua ordu hartan juiatzen zuena.

5. Eta haren izena ekhartzen zuen palma baten azpian jartzen zen, Erramaren eta Bethelen artean, Efraimgo mendian; eta Israelgo semeak haren ganat igaiten ziren beren makhur guzien juiaraztera.

6. Deborak igorri zuen Baraken deitzera, zeina Abinoemen semea baitzen, Zedes Nefthalikoan egoten zena; eta erran zioen: Huna Israelgo Jainko Jaunak manatzen darotzuna: Zoazi, armada eraman zazu Thaborreko mendira, eta zurekin har zatzu hamar mila gerla-gizon Nefthaliren eta Zabulonon semeetarik.

7. Nik berriz, Zisongo errekararak erakharriren darotzut Sisara, Jabinen armadako buruzagia, haren orga-laster eta oste guzia, eta eskuetara emanen darozkitzut.

8. Barakek Deborari ihardetsi zioen: Heldu bazare enekin, goanen naiz; enekin ez baduzu ethorri nahi, ez naiz goanen.

9. Hunek erran zioen: Goanen naiz segur zurekin, bainan aldi hontan garhaizia ez da zure izeneko aiphatuko, emazteki baten eskuetara emana izanen delakotz Sisara. Hargatik Debora jaiki zen, eta Barakekin goan zen Zedesera.

10. Zabulon eta Nefthali deithurik, Barak igan zen hamar mila gerlariarekin, Debora bere lagunaren artean zuelarik.

11. Bada, Haber Zinearra beihala atheratu zen bere bertze anaia Zinearretarik, Moisen ahaide Hobaben semeetarik: eta bere olhak zituen hedatuak Senim deitzen den haraneraino, eta zen orduan Zedesko ondoan.

12. Berria heldua izan zitzaioen Sisarari, Barak, Abinoemen semea, Thaborreko mendira igan zela.

13. Eta jendaiaren Harosethetik Zisongo errekararak bildu zituen bederatzia ehun orga-laster segatzatuak eta armada guzia.

14. Deborak erran zioen Balaki: Jaiki zaite, ezen hau da eguna non Jaunak zure eskuetara arthiki baitu Sisara: huna Jauna bera non den zure bidari. Barak jautsi zen beraz Thaborreko menditik, eta hamar mila gerlariak harekin.

15. Jaunak harritu zituen Sisara, haren orga-lasterak oro eta armada guzia, eta Balaken aitzinean erorarazi ezpataren ahora, hunenbateraino, non Sisarak, bere orga-lasterretik jauzi eginik, oinez ihesi goan baitzen;

16. Eta Barakek jendaiaren Harosetheraino ondotik egin zioten orga-lasterrei eta armadari, eta etsaien oste guzia lurrerat hila goan zen.

17. Bada, ihes zihoalarik Sisara heldu izan zen Haber Zinearren emazte Jahelen olhara. Bakea zen alabainan Jabin, Azorgo erregeren eta Haber Zinearren etehearen artean.

18. Jahelek beraz, Sisarari bidera ilkhirik, erran zioen: Jauna, sar zaite ene olhan, ez izan beldurrik. Hau sarthu zen olhan, eta Jahelek kapaz estali zuen.

19. Sisarak erran zioen: Indazu, othoi, ur xorta bat zeren egarri handia baitut. Jahelek ideki zuen zahagi bat esne, edaterat eman zioen eta estali zuen.

20. Sisarak erran zioen: Zaude olhako athe aitzinean: eta norbait ethortzen denean zuri galdeka eta erranez: Bada nihor barne hortan? ihardetsiko duzu: Ez da nihor.

21. Bada, Jahelek, Haberren emazteak, hartu zuen olha itze bat; mailu bat ere halaber hartu zuen; eta gordeka eta ixilik barnera sarthurik, itzea Sisarari ezarri zioen buruko oloan, eta mailuaz jorik landatu zuen burfui-netarik lurreraino: eta heriotzeko loak harturik, Sisara iraungi eta hil izan zen.

22. Eta hara Balak Sisararen ondoan heldu zela: eta Jahel atheratu zitzaioen bidera, erraten zuelarik: Zato, erakhutsiko. darotzut zuk bilhartzun gizona. Haren olhan sarthu zenean, Barakek ikhusi zituen Sisara hila etzana zagoela eta itzea haren oloan landatua.

23. Jaunak egun hartan aphaldu zuen beraz Jabin, Kanaango errege, Israelgo semeen aitzinean.



24. Haukiek egunetik egunera berhatuz zihoazin, eta hazkarki her-tsatzen zuten Jabin, Kanaango errege, azkenekotz xahutu zuten arteraino.

## V. KAP.

1. Egun hartan, Deborak eta Balakek, Abinoemen semeak, kantatu zuten, ziotelarik:

2. Oi Israelgo semeen artekoak, zuen buruak zuen oldetara galtzeko zoriari atheratu dituzuenak, benedika zazue Jauna.

3. Erregeak, entzun zazue; buruzagiak, heda zatzue beharriak. Ni naiz, ni naiz, Jauna kantatuko dudana, ospatuko dut Israelgo Jainko Jauna.

4. Oi Jauna, Seirretik ilkhitzen zinenean, Edomen eremuetarik iragaiten zinenean, ikharatu zen lurra; zeruak eta hedoiak urithu ziren.

5. Mendiak urmariatu ziren Jaunaren begithartearen aitzinean, Sinai Israelgo Jainko Jaunaren aitzinean.

6. Samgar, Anathen semearen egunetan, Jahelen egunetan, gure bidexkak alfer zaudezen; eta hekiek gaindi sartzen ohi zirenak, zeiber bidez ibili dira.

7. Israeldik galduak ziren gerlari hazkarrak; phausuan higatzen ziren, Debora jaiki zen orduko, ama bat Israelen jaiki zeneko.

8. Gerla berriak hautatu ditu Jaunak, eta berak erauzten ditu etsaien atheak. Erredola eta lantza agertu dira Israelgo berrogoi mila gerlarien artean.

9. Ene bihotzak maithatzen ditu Israelgo buruzagiak: oi zuek, galmentara zuen oldez laster egin duzuenak, benedika zazue Jauna.

10. Asto ederren gainera igaiten zaretenak, juieen alkhian jartzen zaretenak, bideari buruz zihoaztenak, mintza zaizte.

11. Orga-lasterrak phorrokatuak izan diren lekhuak, etsaien armada ehoa izan den tokian, goretsiak izan beitez Jaunaren erabakiak eta haren urrikaria Israelgo hazkarren alderat. Orduan jautsi da populua etsaiaren atheetara, orduan nausi gelditu da.

12. Jaiki, jaiki, Debora; jaiki, jaiki, eta kanta kantika bat. Jaiki, Barak; Abinoemen semea, loth hire gathibuei.

13. Salbatuak dira populuaren ondarrak: Jaunak garhaitu ditu hazkar zirenak.

14. Efraimez xahutu ditu etsaiak Amalek baithan, eta gero Benjaminez hire populuetan, oi Amalek; Makirren ganik atheratu dira buruzagiak, eta Zabulonon ganik armada gudura eraman dutenak.

15. Isakarren aitzindariak Deborarekin ziren; jarraiki dira Balaken urhatsari, eta Barak galtzeko zorira lezera bezala, zurrunbilora bezala

jauzi da. Orduan aldebandaka zagoen Erruben, khimera zabilan haren gerlari bihozduen artean.

16. Zertan hago hire zedarrietan, ala hire ardien marraken entzuten. Aldebandaka dago Erruben; khimera dabila haren gerlari bihozduen artean.

17. Galaad deskantsuz zagoen Jordanez haindian; Danek untzietan zituen bere lanak; Aser itsas-hegian gelditua zen, portuetan phausuz zagoen.

18. Bainan Zabulonek eta Nefthalik heriorari eskaintzen zituzten beren buruak Merome-herrian.

19. Ethorri dira erregeak, eta gudu eman dute; Kanaango erregeak gudukatu dira Thanaken, Maiedoko uren aldean; harrapaketa zabilzan, eta halere deusik ezin eraman dute

20. Zerutik jazarri izan zaiote: izarrak, beren lerroak eta urhatsak hautsi gabe, gudukatu dira Sisararen kontra.

21. Zisongo latsak anbilkatu ditu hekien gorphutz hilak, Kadumimgo latsak, Zisongo latsak. Oi ene arima, oinen azpian erabilzkik hazkarrak.

22. Hekien zaldiei hautsi zaizkote hatz-behartzak ihes zihoazinen tarrapatan, etsai hazkarrenak gain-beheitika anbiltzean.

23. Madarika zazue Merozgo lurra, zioen Jaunaren aingeruak; mada-rika zatzue hango egoiliarrak, zeren ez diren Jaunaren laguntzera ethorri, haren gerlari hazkarrenen laguntzara.

24. Benedikatua emaztekien artean Jahel, Haber Zinearraren emaztea; benedikatua izan bedi bere olhan.

25. Ura galdatzen zioenari eman dio esnea, burra eskaini dio aitzindarien untzian.

26. Esku ezkerrez hartu du itzea eta eskuinaz langileen mailua; sarraskitzeko tokia bilhatu du buruan, jo du Sisara, oloa hazkarki zilhatu dio.

27. Zalapartaka zerabilan haren oinen artean; iraungi eta hil da; anbilka zihoan haren oinen aitzinean, eta hatsa galdurik, lander zagoen lurrean etzana.

28. Leihotik begira, orroaz zagoen haren ama; bere gelatik zerasan: Zertan dago gibel haren orga-lasterra? zertako ez dira ageri haren zaldiak?

29. Sisararen emaztetarik zuhurrenak hitz haukiek ihardesten diozka bere amaginarrebari:

30. Beharbada orai zathitzen ditu buluzkinak, eta emaztekirik edere-rena berezten diote; asko karantzetako soinekoak ematen diozkate harra-pakinetik, eta oihal lorekatuak biltzen dituzte haren bulharren aphaindu-ratzat.



31. Horrela gal beitez zure etsai guziak, Jauna; bainan zu maite zaituztenek, nola iguzkiak jaikitzean argitzen baitu, hala dirdira bezate.
32. Gero lurra phausutan egotu zen berrogoi urthez.

## VI. KAP.

1. Bainan Israelgo semeek gaizkia egin zuten Jaunaren aitzinean, eta Jaunak ezarri zituen zazpi urthez Madianen eskuetan.
2. Madiantarrek gogorki zaphatu zituzten. Eta mendietan egin zituzten zilhoak eta gordegailuak, ihardesteko lekhurik gaitzenetan.
3. Israelek eraintzak egin zituenean, Madian, Amalek eta berme iguzki-aldeko jendaiak igaiten ziren;
4. Israelen landatzen zituzten beren olhak, eta nola eraintzak beharretan baitziren, oro xahutzen zituzten Gazako sartzeraino; eta bizitzeko behar zenik deusere etzuten uzten Israelen, ez ardi, ez idi, ez asto.
5. Alabainan berak eta beren arthalde guziak ethortzen ziren beren olhekin, eta iduri xartalak bethetzen zituzten bazter guziak; nihonereko gizon eta kamelu elemenia batek ukitu guzia xahutzen zuen.
6. Eta Israel hainitz aphaldua izatu zen Madianen aitzinean.
7. Deihadar egin zuen Jauna ganat, Madiantarren kontra laguntza galdeginez.
8. Jaunak igorri zioten gizon profeta bat, zeinak erran baitzioten: Hau dio Israelgo Jainko Jaunak: Nik iganarazi zaituztet Egiptotik, eta nik ilkhiarazi zaituztet gathibusuneko etxetik:
9. Atheratu zaituztet Egiptoarren eta atsekabeztatzen zinituzten etsai guzien eskutik; zuen sartzean iraitzi ditut eta eman izan darotzuet hekien lurra.
10. Eta erran izan dut: Ni naiz zuen Jainko Jauna; Amorhearren lurrean duzue zuen egoitza, bainan ez izan hekien jainkoen beldurrik. Eta ez duzue entzun nahi izan ene boza.
11. Bada ethorri zen Jaunaren aingerua eta jarri zen haritz baten azpian, zeina baitzen Efran, eta Ezriren familiako buruzagi Joasena baitzen. Eta haren seme Jedeonek dolharean jotzen eta garbitzen zuelarik ogia, Madiani ihes egiteko,
12. Agertu zitzaioen Jaunaren aingerua, eta erran zioen: Jauna dela zurekin, oi gizonik hazkarrena.
13. Eta Jedeonek ihardetsi zioen: Othoi, ene jauna, baldin Jauna gurekin bada, nolaz atzeman gaituzte hestura haukiek? non dira haren sendagailak, gure aitek khondatzen zarozkigutenak, erraten zarokutelarik:

Jaunak atheratu izan gaitu Egiptotik? Bainan orai utzi gaitu Jaunak, eta Madianen eskuetara eman gaitu.

14. Eta Jaunak begiratu zioen eta eman: Zoazi duzun zure indar huntan, eta atheratuko duzu Israel Madianen eskutik: jakizu nik igorria zarela.
15. Jedeonek ihardetsi zioen: Othoi, ene jauna, nola atheratuko dut Israel? Ikhuzazu ene familia Manase baithan aphalena dela, eta ni ene aitaren etxean ttipiena.
16. Jaunak erran zioen: Ni izanen naiz zurekin, eta joko duzu Madian gizon bakhar bat bezala.
17. Eta Jedeonek erran zioen: Grazia aurkhitu badut zure aitzinean, indazu ezagutgailu bat enekin zarela, zu niri mintzo zarena.
18. Ez bezedi urrunt hemendik, bihur nadien arte zu gana, ekhartzen dudalarik sakrifizio bat eta zuri eskaintzen. Aingeruak ihardetsi zioen: Egonen naiz zure ethortzeari iguri.
19. Jedeon sarthu zen beraz etxera eta erre zituen pittika bat, eta ogi airisak gaitzeru bat irinetarik. Haragiak ezarririk saski batean eta gesala eltze batean, ekharri zituen guziak haritzaren azpira, eta eskaini ziozkan Jaunari.
20. Jaunaren aingeruak erran zioen: har zatzu haragiak eta ogi airisak, ezar zatzu harri hunen gainean eta gesala gainera ixur zozute. Jedeonek hori egin zuenean,
21. Jaunaren aingeruak hedatu zuen eskuan zadukan zigorraren mokoak, ukitu zituen haragiak eta ogi airisak, eta harritik ilkhi zen su bat, haragiak eta ogi airisak iretsi zituenak; eta Jaunaren aingerua suntsitu zen haren begietarik.
22. Jedeonek ikhusirik Jaunaren aingerua zela, erran zuen: Ai! ene Jainko Jauna, bekhaz bekho ikhusi baitut Jaunaren aingerua!
23. Eta Jaunak erran zioen: Bakea dela zurekin; ez izi, etzare hilen.
24. Jedeonek han altxatu zioen beraz aldare bat Jaunari eta deithu zuen Jaunaren Bake-lekhu, orai arteo izendatua den bezala. Eta oraino zelarik Efran, zeina Ezriren familiarena baita,
25. Jaunak erran zioen gau hartan: Har zatzu zure aitaren zezena eta bertze zezen bat zazpi urthetikoak, lurrerat arthikazu Baalen aldarea, zure aitarena dena; eta ebak zazu haren inguruan den oihana:
26. Eta zure Jainko Jaunari aldare bat altxatuko diozu harri haren muthurrean, zeinaren gainean lehenago ezarri baituzu sakrifizioa: hartuko duzu bigarren zezena, eta holokaustetan eskainiko duzu oihanetik ebaki dukezun egurraren gainean.



27. Jedeonek harturik beraz hamar gizon bere sehietarik, egin zuen Jaunak manatu zioen bezala. Bainan bere aitaren etxekoen eta hiri hartako gizonen beldurrez, etzuen egunaz egin nahi izan, bainan gabaz egin zituen oro.

28. Goizean jaiki zirenean haren hiriko gizonak, ikhusi zuten Baalen aldarea xehakatu, lukua ebakia, eta bigarren zezena ezarria orduan egina zen aldarearen gainean.

29. Eta elkhari erran zuten: Nork egin du hori? Eta lanaren egilearen bilha zabiltzalarik, errana izan zen: Jedeonek, Joasen semeak egin ditu horiek oro.

30. Eta erran zioten Joasi: Athera zaguk hunat hire semea, hil dadien, zeren hautsi duen Baalen aldarea eta ebaki oihana.

31. Hunek ihardetsi zioeten: Ala zuek zarete Baalen aspertzaila, harentzat gudukatzeko? Haren etsai dena hil bedi bihar goiza argitu gabe. Baal Jainko bada, bere aldarea hautsi dioenaz bera asper bedi.

32. Egun hartarik harat Jedeon deithua izan zen Jerobaal, Joasek erran zuelakotz: Baal asper bedi bere aldarea hautsi dioenaz.

33. Bizkitartean Madian guzia, Amalek eta iguzki-haizeko populuak batera bildu ziren, eta Jordanea iraganik, Jezraelgo haranean kanpatu ziren.

34. Bada, Jaunaren izpirituak hartu zuen Jedeon, zeinak turuta joz, bildu baitzuen Abiezerren etxea, jarraiki zakioentzat.

35. Eta mezulariak igorri zituen Manase guzira, mina orobat jarraiki baitzitzaioen; bertze batzu igorri zituen Aserrera, Zabulonera eta Nefthalira, zeinak aitzinera ilkhi baitzitzaizkoen.

36. Orduan Jedeonek erran zioen Jaunari: Baldin agindu bezala, ene eskuaz athera gogo baduzu Israel,

37. Ardi-ile hau ezarriko dut larrainean: baldin ihintza ilearen gainean bada baxharrik, eta agortasuna lur guziaren gainean, jakinen dut ene eskuz, erran duzun bezala, atheratuko duzula Israel.

38. Eta hala egina izan zen. Eta gabaz jaikirik, Jedeonek marruskatu zuen ilea, eta ophor bat bethe zuen ihintzez.

39. Eta berriz erran zioen Jainkoari: Zure hasarrea ez bedi jauz ene kontra, baldin oraino behin froga bat egiten badut, ile hunen gainean galdatuz bertze ezagutkari bat. Othoizten zaitut ile hau baxharrik izan dadien idor, eta lur guzia ihintza darioela.

40. Eta Jaunak egin zuen gau hartan harek galdatzen zuena: eta agortasuna izan zen baxharrik ilean, eta ihintza lur guzian.

## VII. KAP.

1. Beraz Jerobaal, hura baitzen Jedeon, gabaz jaikirik, eta populu guzia harekin, ethorri zen Harad deitzen den ithurrira. Bada, Madianen kanpak ziren haran batean, bizkar handi baten ipharreko alderdian.

2. Jaunak erran zioen Jedeoni: Jendetze handia duzu zurekin, ez dut Madian horren eskuetarar emanen beldurrez Israel handika has dadien ene kontra, eta erran dezan: Ene indarrak atheratu nau hesturetirik.

3. Mintza zaite populuari, eta goraki errozute guziek aditzen zaituztela: Beldurti eta uzkur diren guziak bihur beitez gibelerat. Eta Galaadeko menditik gibelerat egin zuten eta itzuli ziren hogoi eta bi mila gizon populutik, eta hamar mila gelditu ziren baxharrik.

4. Jaunak erran zioen berriz Jedeoni: Sobera jende da oraino. Eraman zatzu urera, eta frogatuko ditut han; eta zeinetaz erranen baitarotzut dihoala zurekin, haina bihoa: zein-ere debekatuko baitut goatetik, hura itzul bedi.

5. Eta populua urera jautsi zenean, Jaunak erran zioen Jedeoni: Zeinek-ere ura mihi az bilduko baitute zaxhurrek egiten ohi duten bezala, hekiek ezarriko dituzu berezirik: ordean belhauniko edanen dutenak izanen dira bertze alderdian.

6. Beraz ahurraz ahora ekharriz ura edan zutenak izan ziren hirur ehun gizon; bainan gainerako oste guziak belhaunikaturik edan zuen.

7. Eta Jaunak erran zioen Jedeoni: Ura milikatu duten hirur ehun gizon horietaz libratuko zaituztet, eta eskuetara arthikiko darotzut Madian: itzularaz zazu beraz bere tokietara gainerako oste guzia.

8. Hargatik Jedeonek jatekoak eta turutak harturik berekilakoentzat, bertze guziei manatu zioten bihur zitezin beren olhetara: eta bera hirur ehun gizonekin gudukatzera goan zen. Bada Madianen kanpak behearen ziren haranean.

9. Gau berean Jaunak erran zioen: Jaiki zaite, eta kanpetara jauts zaite, zeren Madiantarrak eman ditut zure eskuetara.

10. Bainan baxharrik goateko lotsa bazare, zurekin jauts besi Phara, zure muthila.

11. Eta entzun dukezunean zer dioten Madiantarrek, orduan hazkartuko dira zure besoak, eta bihotzez seguragorik jautsiko zare etsaien kanpetara. Bera eta Phara bere muthila jautsi ziren beraz kanpetako alderdira zeinetan baitziren armadako zainak.

12. Bada, Madian, Amalek eta iguzki-haizeko populu guziak nahaste-ka etzanak zauden haranean, xartala-oste bat iduri; nihonereko kameluketara ere han zen, legarra itsas-bazterrean bezala.





13. Eta Jedeon hurbildu zenean, norbaitek bere lagunari khondatzen zioen amets bat, eta huneletan erraten zuen zer ikhusi zuen: Ametsetarik ikhusi dut, eta iduritzen zarotan hautspean erre garagarrezko ogia bezalako bat phirripitaka jausten Madianen kanpetara; eta olha batera heldu zenean, jo zuen, eta uzkaile, eta lurrean zabal-zabala ezarri.

14. Zeinari ere mintzo baitzen, hainak ihardetsi zioen: Hori ez da bertzerik, baizik-ere Jedeonen marrauza, Joas israeldarraren semearena; ezen Jaunak haren eskuetara arthiki ditu Madian eta bere kanpa guziak.

15. Jedeonek entzun zituenean ametsa eta haren argipena, adoratu zuen Jauna: itzuli zen Israelgo kanpetara eta erran zuen: Jaiki zaizte, ezen Jaunak gure eskuetara eman ditu Madianen kanpak.

16. Hirur ehun gizonak ezarri zituen hirur andanetan; eskuetara eman ziozkaten turutak, gorgoila hutsak, eta gorgoilen barnean argiak;

17. Eta erran zioten: Nik egiten dudala ikhusten duzuen, egizue zuek ere: sarthuko naiz kanpen alderdi batean, eta han egizue nik bezala.

18. Turutak ene eskuan joko duenean, zuek ere kanpen inguruan durrunda zazue, eta oiuhu egizue: Jaunari eta Jedeoni!

19. Jedeon eta hirur ehun gizonak harekin sarthu ziren kanpen alderdi batean, gauherdiko beilak hastean; eta zainak ohartu ondoan, hasi ziren turuten durrundatzen eta gorgoilez elkharri koskaka.

20. Eta kanpen inguruan hirur lekhotan durrundatu zutenean eta untziak hautsi zituztenean, argiak atxiki zituzten esku ezkerrez, eskuinaz jotzen zituztelarik turutak, eta oiuhu egin zuten: Jaunaren eta Jedeonen marrauza

21. Bakhotxa bere lekhotan zagoelarik etsaien kanpen inguruan. Hargatik kanpa guziak asalдутan sarthu ziren, eta oro orroaka eta marrumaka ihesari eman ziren.

22. Eta halere hirur ehun gizonak aitzina hari ziren turuten durrundatzen. Eta Jaunak ezpata igorri zuen kanpa guziatara, eta etsaiek batak bertzea sarraskitzen zuten,

23. Ihes egiten zutelarik Bethsetaraino eta Abelmehularen hegiraino Tebathen. Bainan Israelgo gizonak Nefthalitik, Aserdik eta Manase guzitik, Madiani izkolaka zihoazkiten ondolik.

24. Eta Jedeonek berri-eramaileak igorri zituen Efraimgo mendiguzira, zioelarik: Jauts zaizte Madianen bidera, eta har zatzue urak eta Jordaneko hibaia Bethberaraino. Oiuhu batek jo zuen Efraim guzia, eta hartu zituzten urak eta Jordanea Bethberaraino.

25. Eta atzemanik Madiango bi aitzindari Oreb eta Zeb, Oreb hil zuten Orebharrin, eta Zeb Zebeu dolharean. Eta Madiani jarraiki ziren

Oreben eta Zebeu buruak ekhartzen ziozkatarik Jedeoni Jordanez haindira.

## VIII. KAP.

1. Eta Efraimgo gizonak erran zioten: Zer da hau? zer egin nahi izan duzu, ez gu deitzeko Madiani gudu ematera zinhozazinean? Eta muthiriki bilhatzen zuten, eta bortxara goateko heineraino.

2. Jedeonek ihardetsi zioten: Zer egin ahal izan dut, zuek egin duzuen bezalakorik? Efraimgo mahats-mulkho bat ez othe da hobe Abiezerren mahats-biltze guziak baino?

3. Jaunak zuen eskuetara eman ditu Madiango buruzagiak, Oreb eta Zeb. Zer egin ahal izan dut zuek bezalakorik? Horiek erran ziozkaten, jabaldu zen haren kontra subermatzen zituen izpiritua.

4. Eta Jedeon Jordanera heldu izan zenean, ura iragan zuen berekin zituen hirur ehun gizonekin, eta nekhatuaren nekhatuz ezin jarraik zitazkeen ihesliarren ondolik.

5. Jedeonek erran zioten Sokotharrei: Ogia emozuete, othoi, enekin diren gizonen, zeren arras ahulduak baitira; jarraik ahal gakiokiten Zebeeri eta Salmanari, Madiango erregeei.

6. Sokotheko buruzagiek ihardetsi zuten: Eskuetan dituzu behar bada Zebee eta Salmana, eta horren gatik galdatzen darokuzu ogia eman diozogun zure armadari.

7. Jedeonek erran zioten: Jaunak, bada, ene eskuetara ematen dituean Zebee eta Salmana, zuen haragiak xehakatu ditut mortuko elhorri eta lapharrekin.

8. Eta handik igan zen; ethorri zen Phanuelera, eta hango jendei erran zioeten gauza bera: Hekiek ere Sokothekoek bezala ihardetsi zioten.

9. Hargatik Jedeonek erran zioeten hekieri ere: Garaitiar eta bakean bihurtuko naizenean, dorre hori lurrerat emanen dut.

10. Bada, Zebee eta Salmana phausan zauden beren armada guziarekin; ezen hamabortz mila gizon geldituak ziren iguzki-aldeko populuen saihera guziatarik, hilak izan ziren ondoan ehun eta hogoi mila gizon oro gudulari ezpata zerabilkatenak.

11. Eta Jedeon igan zen Nobeko eta Jegbaako iguzki-haizeko alderdian olhetan egoten zirenen bidetik, eta jo zituen beren buruak segurean zaduzkaten etsaiak eta deuseren beldur izatekorik uste etzutenak.

12. Zebee eta Salmana ihesari eman ziren eta hekien armada guzia asalдутan sarthua zen. Ondolik goanik, Jedeonek atzeman zituen.

13. Eta gudutik bihurtzen zelarik, iguzkia athera gabe,



14. Sokotharretako gizon-gazte bat hartu zuen, galdegin ziozkan Sokotheko buruzagien eta zaharren izenak, eta hirur hogoi eta hamazazpi gizon iskribuz hartu zituen.

15. Sokothera jo zuen eta erran zioeten: Huna Zebee eta Salmana, zeinen gainean eskarnio egin baitarotazue, ziniotelarik: Eskuetan dituk beharbada Zebee eta Salmana, eta horren gatik galdegiten darokuk ogi eman dezoguten nekhatuak eta ahituak diren gizonei.

16. Hartu zituen beraz hiriko zaharrak eta mortuko elhorriak eta lap-harrak, eta hekietaz zafratu eta phorrokatu zituen Sokotheko gizonak.

17. Halaber Phanuelgo dorrea lurrerat arthiki zuen, hirian zaudenak hilik.

18. Eta erran zioten Zebeeri eta Salmanari: Nolakoak ziren Thaborren hil dituztuen gizonak? Ihardetsi zuten: Zu bezalakoak, eta batek iduri zuen errege semea.

19. Jedeonek erran zioeten: Ene anaiak, ene amaren semeak ziren; ala Jauna! bizia utzi baziniote, etzintuztedan hilen.

20. Eta erran zioen Jether, bere seme zaharrenari: Jaiki hadi eta hilzik. Hunek etzuen ezpata atheratu, alabainan gaztea zen eta izitzen zen.

21. Zebeek eta Salmanak erran zioten Jedeoni: Zu, jaiki zaite eta jo gaitzatzu, ezen gizonak adinaren araberrako indarra du. Jedeon xutitu zen eta hil zituen Zebee eta Salmana, eta hartu zituen punpuilak eta edergailuak zeinetaz aphaiztzen ohi baitira errege kameluak.

22. Israelgo gizon guziek Jedeoni erran zioten: Gure jaun izan zaizte, zu, zure semea, eta semearen semea, zeren gaituzun Madianen eskutik atheratu.

23. Jedeonek ihardetsi zioten: Ez naiz izanen zuen gaineko, eta ene semea ere ez da hala izanen, baina Jauna izanen da zuen gaineko.

24. Erran zioeten berriz: Galde bakhar bat egiten darotzuet: Indatzue zuen harrapakineko beharrietakoak. Ismaeldarrek ezen urhezko beharrietakoak izaten ohi zituzten.

25. Ihardetsi zuten: Gogo hobeenarekin emanen ditugu. Eta lurrean kapa bat hedaturik, hartara arthiki zituzten harrapakineko beharrietakoak.

26. Eta beharrietako galdatuen phisua izan zen hamazazpi ehun siklo urhezkoak, sarthu gabe hartan edergailu, lephoko gathe, purpurazko soineko, Madiango erregeek erabiltzen ohi zituztenak, eta bertzalde kame-luen urhezko usteiak.

27. Jedeonek hekietaz egin zuen soingaineko bat Efrako bere hirian ezarri zuena. Eta haren ariara linburtu zen Israel guzia, eta hartarik ethorri zen Jedeonen eta bere etxe guziaren xahutzea.

28. Madian aphaltua izan zen beraz Israelgo semeen aitzinean, eta ezin altxatu zuen gehiago burua; baina lurrak bakea izan zuen berrogoi urthez, zeinetan Jedeon buruzagi izatu baitzen.

29. Goan zen beraz Jerobaal, Joasen semea, eta bere etxean egotu zen.

30. Izatu zituen hirur hogoi eta hamar seme, oro bere belhaunetika-koak, zeren baitzituen asko emazte.

31. Eta Sikemen zuen ohaide batek seme bat izan zuen Abimelek deitzen zena.

32. Jedeon, Joasen semea, hil izan zen zahartze gozo batean, eta ehortzia izan zen bere aita Joasen hobian, Efrako hirian, zeina Ezriren familiarena baitzen.

33. Baina Jedeon hil ondoan, Israelgo semeek makhurrerat egin zuten: Baalekin khutsatu ziren, eta harekin batasun egin zuten, hura izateko hekien jainkoa.

34. Etziren orhoitu beren Jainko Jaunaz, zeinak atheratu baitzituen beren etsai guzien eskuetarik inguruan:

35. Eta etzuten guphidetsi Jerobaal Jedeonen etxea, harek Israeli egin ziozkan ongi guzien arietan.

## IX. KAP.

1. Bada Abimelek Sikemera goan zen, bere amaren anaietara, eta bere amaren aitaren ahaidego guzira, eta huneletan mintzatu zitzaioeten:

2. Errozuete Sikemgo gizon guziei: Zer zarotzue hobe, ala hirur hogoi eta hamar gizon, oro Jerobaalen semeak, izan ditezen zuen nausi, ala gizon bakhar bat izan dezazuen gaineko? eta hanbatekin gogoan harzazue zuen hezurra eta zuen haragia naizela.

3. Eta haren amaren anaiek solas horiek oro erran izan ziozkaten Sikemgo gizon guziei, eta hekien bihotza Abimeleken alderat bildu zuten, erranez: Gure anaia da.

4. Eman ziozkaten hirur hogoi eta hamar siklo zilharrezko Baalberithen tenplotik. Diru harekin Abimelekek bereganatu zituen gizon erromes, ibildaun batzuek, eta jarraiki ziren hari.

5. Eta ethorrirek Efrara, bere aitaren etxera, hil zituen harri baten gainean bere anaiak, hirur hogoi eta hamar gizon Jerobaalen semeak. Jerobaalen seme gazteena, Joatham gelditu zen eta gorde.

6. Bada Sikemeko gizonak oro eta Meloko familia guziak bildu ziren, goan ziren eta Abimelek errege ezarri zuten, Sikemen zen haritzaren ondoan.



7. Berri hori ekharri ziotenean Joathami, goan zen, eta xutik eman zen Gaziringo mendi bizkarrean, eta boza altxatuz, erran zuen: Entzun nezazue Sikemeko gizonak, hala nola Jainkoak adi betzaitzate.

8. Zuhaitzak bildu ziren errege baten hautatzeko, eta olibari erran zioten: Mana gaitzatu.

9. Olibak ihardetsi zuen: Utz othe dezaket ene olioaren gorria, zeinetaz baliatzen baitira jainkoak eta gizonak, ethortzeko zuhaitzen artean gaineko jartzera?

10. Zuhaitzek erran zioeten pikoari: Zato, eta gure gaineko erregetasuna onhets zazu.

11. Pikoak ihardetsi zioten: Utz othe detzaketa ene gozotasuna eta ene fruitu guziz gozoak, ethortzeko bertze zuhaitzen artean gaineko jartzera?

12. Zuhaitzek erran zioten mahatsari: Zato eta mana gaitzatu.

13. Mahatsak ihardetsi zioten: Utz othe dezaket ene arnoa Jainkoa eta gizonak bozten dituen, bertze zuhaitzen artean gaineko jartzera ethortzeko?

14. Eta zuhaitz guziek erran zioten elhorriari: Zato eta mana gaitzatu.

15. Elhorriak ihardetsi zioten: Baldin zinez ezartzen banauzue errege, zatozte eta ene itzalaren azpian phausa zaitezte: ordean nahi ez baduzue, sua ilkhi bedi elhorritik, eta erre betza Libango zedroak.

16. Ikhusazue beraz orai heian zuzenki eta bekhaturik gabe zuen gainean Abimelek ezarri duzuen errege; heian behar bezala egin diozuen Jerobaali eta haren etxeari, eta bihurkunde on egin diozueten hainaren ongieginei zeina zuentzat gudutan haritu baita,

17. Eta bere burua galtzeko zoritan ezarri baitu, zuek Madianen eskuatarik atheratzea gatik,

18. Zuek, egun jaiki zaretenak ene aitaren etxearen kontra, eta haren semeak, hirur hogoi eta hamar gizon harri baten gainean hil dituzuenak, eta Abimelek, haren neskatoaren semea Sikemtarren gainean errege ezarri duzuenak, zuen anaia delakoan;

19. Baldin beraz zuzenbidean eta makhurrik gabe egin baduzue Jerobaalekin eta haren etxearekin, boz zaizte egun Abimelekekin, eta hura boz bedi zuekin.

20. Bainan baldin tzarkeria egin baduzue, sua ilkhi bedi Abimeleken ganik, eta erre betza Sikemtarrek eta Meloko hiria: Sikemtarretarik eta Meloko hiritik ilkhi bedi sua eta Abimelek erre beza.

21. Horiek erran zituenean, ihes egin zuen, goan zen Berara, eta han egotu zen bere anaia Abimeleken beldurraren ariaz.

22. Horreletan Abimelek Israelen gainean erreginatu zen hirur urtehez.

23. Jaunak izpiriturik gaixtoena igorri zuen Abimeleken eta Sikemtarren artera, zeinak abiatu baitziren haren hastiatzen,

24. Eta beren anaia Abimeleken eta hura lagundu zuten bertze Sikemtar aitzindarien gain ezartzen Jerobaalen hirur hogoi eta hamar semeen heriotzeko gaixtakeria eta hekien odolaren ixurtzea.

25. Eta haren kontra zelatak hedatu zituzten mendien gainean: eta haren ethorriaren begira zaudelarik, ohointzan hari ziren, bideanteei zituztenak khenduz. Berri hori ekharria izan zen Abimeleki.

26. Bada, Gaal, Obeden semea, bere anaiekin ethorri zen, eta iragan zen Sikemen. Hura ethortzearekin, Sikemtarrek beroturik,

27. Ilkhi ziren bazterretara, larrutzen zituztela mahastiak, eta mahatsak zangoen azpian lehertzen; eta kantuz eta antzan moltzoka jarriarik, sarthu ziren beren jainkoaren tenploan, eta bozkariozko jan-edanetan erdian madarikatzen zuten Abimelek,

28. Obeden seme Gaalek oiuhu egiten zuela: Zer da Abimelek? eta zer da Sikem, gu Abimeleken azpiko izatekotzat? ez othe da Jerobaalen semea, eta ez othe du harek ezarri buruzagi Zebul, bere muthila, Sikemen aitaren Emorren etxearen gainean? Zertako beraz egonen gare haren azpiko?

29. Oxala norbaitek ezar baleza populu hau ene manuko, hunen erditik xahutzekotzat Abimelek! Eta Abimeleki errana izan zitzaioen: Bil zazu armada handi bat, eta zato.

30. Ezen Zebulek, hiriko buruzagiak entzun zituen Gaal, Obeden semearen solasak, eta borthizki hasarretu zen,

31. Eta berri-eramaileak Abimeleki igorri ziozkan ixilik, zioelarik: Huna Gaal, Obeden semea bere anaiekin ethorri dela Sikemera, eta hiria zure kontra eskuratzen du.

32. Hori gatik jaiki zaite gabaz zurekin den populuarekin, eta gorde zaite landetan;

33. Eta goiz lehenean, iguzkia atheratzean, jauz zakizkio hiriari. Eta Gaal atheratuko denean bere populuarekin zure kontra, egiozu egin-ahala.

34. Abimelek gabaz jaiki zen beraz bere armada guziarekin, eta lau tokitan zelatak hedatu zituen Sikemeko ondoan.

35. Gaal, Obeden semea, atheratu zen, eta jarri zen hiriko atheko sartzean. Bada, Abimelek jaiki zen, eta haren armada guzia harekin, zelate-tako lekhutik.



36. Gaalek ikhusi zuenean jendetze hura, Zebuli erran zioen: Hara mendietarik oste bat non jausten den. Zebulek ihardetsi zioen: Mendietako itzalak ikhusten ditutzu gizon buruak iduri, eta horrek engatzen zaitu.

37. Gaalek erran zioen berriz: Hara jendetze bat jausten hari lurreko erditik, eta andana bat heldu da haritzari begiraten dioen bidetik.

38. Zebulek ihardetsi zioen: Non dituk orai espantu hekiek, erraten huenean: Nor da Abimelek guk hura zerbitzatzeko? Ez othe duk hori hik arbiatzen huen populua? Athera hadi, eta gudu emok.

39. Gaal goan zen beraz, Sikemeko populua begira zagoelarik, eta gudu eman zioen Abimeleki,

40. Zeinak ihes igorrik, jarraiki baitzitzaioen eta hirira bulkhatu baitzuen; eta haren gizonetarik askok lurra jo zuten hiriko atheraino.

41. Gero Abimelek baratu zen Erruman: baina Zebulek hiritik irazi zituen Gaal eta bere lagunak, eta etzuen jasan han egon zitezen gehiago.

42. Biharamunean beraz populua atheratu zen kanpora. Abimelekek jakin zuenean berri hori,

43. Hartu zuen bere armada, berezi zuen hirur andanetan, eta zela-tak hedatu zituen landetan. Eta ikhusirik populua hiritik atheratzen zela, xutitu zen, eta jauzi zitzaioeten gainera,

44. Bere andanarekin jotzen zituelarik eta hiria sethiatzen; eta bertze bi andanak bazterretara barraiatuak, etsaiei jarraikitzen ziren.

45. Bada, Abimelekek egun hura guzia sethioan iduki zuen hiria; hartu zuen, eta hango jendeak hilik, xahutu zuen erroraino, hain ongi non gatza erain baitzuen haren gainera.

46. Sikemtarren dorrean egoten zirenek aditu zutenean hori, sarthu ziren beren jainko Berithen tenploan, non harekin batasun egin izan baitzuten, eta hartarik zuen bere izena lekhuak, zeina gogorki hazkartua baitzen.

47. Abimelekek ere aditurik Sikemtarren dorreko gizonak batera bilduak zirela,

48. Selmongo mendira igan zen bere populu guziarekin: eta haizkora bat harturik, adar bat moztu zuen, eta eramaten zuelarik bizkarrean harturik, lagunei erran zioeten: Egiten ikhusten nauzuena, laster egizue zuek ere.

49. Zuhaitzetarik beraz zein-lehenka adarrak ebakiz, jarraiki ziren beren buruzagiari. Inguraturik gaztelua, su eman zioten: eta halako moldez egin zen, non kheak eta suak hil baitzituzten mila gizon, gizon eta emazteki Sikemgo dorrean zaudezenak.

50. Bada, Abimelek handik goanik, ethorri zen Thebesko hirira, zeina inguratu eta sethiatu baitzuen bere armadarekin.

51. Eta bazen hiriaren erdian dorre gora bat, zeinetara elkharrekin ihes egin baitzuten gizonak eta emaztekiek eta hiriko buruzagi guziek, athea hazkarki hertsirik, eta dorrearen gainean zirrituetarik zaudezen.

52. Eta Abimelek dorrearen ondora ethorrik, hazkarki gudukatzen zen; eta atheari hurbilduz, sua eman nahiz hari zen.

53. Eta huna non emazteki batek ihara-harri puska bat arthikirik, jo zuen Abimelek buruan, eta burfuinak lehertu ziozkan.

54. Abimelekek berehala deithu zuen bere ezkutaria, eta erran zioen: Athera zak hire ezpata eta jo nezak, ez dadien errana izan emazteki batek hil nauela. Hunek manatua egin zuen, eta hil zuen errege.

55. Hura hil ondolan, Israeldik harekin ziren guziak itzuli ziren beren tokietara.

56. Jaunak bihurtu zioen Abimeleki bere aitari egin izan zioen gaizkia, hil zituenean bere hirur hogoi eta hamar anaiak.

57. Sikemtarrei halaber pagatua izan zitzaioeten egin zuten lana, eta heldu zitzaioeten Joatham, Jerobaalen semearen madarizioea.

## X. KAP.

1. Abimeleken ondotik, Israelen buruzagitzat atheratu zen Thola, Phuaren semea, Phua baitzen Abimeleken osaba aita-aldekoa, Isakarren leinutik, eta Thola Samirren egoten zen, Efraimgo mendian.

2. Israel juiatu zuen hogoi eta hirur urthez, eta hil izan zen, eta ehortzi zuten Samirren.

3. Haren ondoko izan zen Jair Galaadtarra, zeinak juiatu baitzuen Israel hogoi eta bi urthez.

4. Bazituen hogoi eta hamar seme, hogoi eta hamar astokumeren gainean jartzen zirenak, eta zirenak buruzagi Galaad-herrian hogoi eta hamar hiritan, zeinak haren izenetik orai arteo deithuak baitira Habetho Jair, erran nahi da Jairren hiriak.

5. Eta Jair hil izan zen, eta ehortzi zuten Kamon deitzen den lekuan.

6. Baina Israelgo semeek, bekhatu zaharrei berriak iratxikiz, gaizkia egin zuten Jaunaren aitzinean; zerbitzatu zituzten Baalen eta Astarothen idolak, Siriako, Sidoneko, Moabeko, Amonen semeen eta Filistindarren jainkoak; utzi zuten Jauna, eta etzuten gehiago adoratu.

7. Jauna hekien kontra hasarreturik, arthiki zituen Filistindarren eta Amonen semeen eskuetara.



8. Eta Jordanez haindian egoten ziren guziak Amorhearraren lurrean, zeina baita Galaaden, hemezortzi urthez atsekabeztatuak eta gogorki zaphatuak izan ziren;

9. Hanbatetaraino, non Amonen semeek, Jordanea iraganik, larrutu baitzituzten Juda, Benjamin eta Efrain: eta hestura handitan izan zen Israel.

10. Eta Jauna gana deihadar eginez, erran zuten: Zure alderat bekhatu egin dugu, zeren utzi dugun gure Jainko Jauna eta Baal zerbitzatu.

11. Jaunak erran zioeten: Egiptoarrek, Amorhearrek, Amonen semeek eta Filistindarrek,

12. **Sidondarrek** ere, eta **Amalekek**, eta **Kanaanek** etzaitzute **beihalan zaphatu?** eta oihu egin duzuenan niri, etzaitzute hekien eskuetarik **atheratu?**

13. Eta halere utzi nauzue eta zerbitzatu dituzue jainko arrotzak. Hargatik ez naiz gehiago zuen libratzen hariko.

14. Zoazte, eta dei egiozute hautatu dituzuen jainkoei; berek athe-ra betzazte hesturako orduan.

15. Eta Israelgo semeek Jaunari erran zioten: Bekhatu egin dugu: ordainez egiguzu atsegin dukezuna, bakharrik orai libra gaitzatu.

16. Hori erraitearekin, beren eremu guzietarik arthiki zituzten jainko arrotzen itxurak, eta zerbitzatu zuten Jainko Jauna, zeina ukitua izan baitzen hekien zorigaitzez.

17. Bizkitartean Amonen semeek oihuka landatu zituzten beren kanpak Galaaden; eta hekien kontra bildurik, Israelgo semeak kanpatu ziren Masphan.

18. Eta Galaadeko aitzindari bakhotzak bere hurbilekoei erran zaroeten: Gutarik lehena Amonen semeen kontra guduan hasiko dena, haina izanen da Galaadeko popularen buruzagi.

## XI. KAP.

1. Ordu hekietan bizi zen gizon bat guziz hazkar eta gerlaria, Jephthe Galaadtarra, neskaxa lilitxo baten semea, Galaaden ganik sorthua.

2. Bada, Galaadek izatu zuen bere emaztea, zeina ganik haurrak izatu baitzituen. Haukiek, handitu ondoan, Jephthe kanporat eman zuten, ziotelarik: Ez haiteke izan gure aitaren ondore, bertze ama batenganikakoa haizelakotz.

3. Jephthe hekiei iheska eta bazter eginez egotu zen Tobeko lurrean. Haren gana bildu ziren gizon erromes eta ohorgoan hari ziren batzuek, eta buruzagi bati bezala jarraikitzen zitzaizkoen hari.

4. Egun hekietan zuten gerla Amonen semeek Israelen kontra.

5. Eta borthizki hertsatzen zutelakotz, Galaadeko zaharrak goan ziren Jephtheren erakharraraztera beren laguntzara Tobeko lurretik.

6. Eta erran zaroeten: Zato, gure buruzagi izan zare, eta guduka zatzu Amonen semeak.

7. Jephthe ihardetsi zaroeten: Ez othe zarete zuek ni higuintzen nauzuenak eta ene aitaren etxetik khendu nauzuenak, eta orai beharraren beharrez heldu zarete ene gana?

8. Galaadeko aitzindariak erran zuten: Hargatik heldu gare orai zu gana, gurekin bideari eman zaitezentzat, guduka zaiten Amonen semeen kontra, eta Galaaden egoten diren guzien buruzagi izan zaitezten.

9. Jephthe berriz erran zaroeten: Egiazki heldu bazarete zuentzat guduka nadien Amonen semeen kontra, eta Jaunak eskuetarik ematen balin badarozkit, izanen naiz zuen buruzagi?

10. Ihardetsi zuten: Haukiek entzuten dituen Jauna, bera da bitharteko eta lekhuko, aginduak eginen ditugula.

11. Jephthe goan zen beraz Galaadeko aitzindariekin, eta populu guziak egin zuen bere buruzagi. Jephthe Masphan erran zituen Jaunaren aitzinean bere errateko guziak.

12. Eta bidalkinak igorri zituen Amonen semeen erregeri, erran zezotenzat: Zer da zure eta ene artean, ethorri baitzare ene kontra, ene lur guziaren xahutzera?

13. Erregek ihardetsi zaroeten: Ethorri naiz zeren Israelek hartu darotan ene lurra, Egiptotik igan denean, Arnongo mugetarik Jabokeraino eta Jordaneraino: orai beraz bakezki hura bihur biazazut.

14. Jephthe gizon berez gaztiatu zuen berriz, eta manatu zaroeten erran zezoten Amongo erregeri:

15. Hau dio Jephthe: Israelek ez du hartu ez Moaben lurrik, ez-etare Amonen semeenik:

16. Bainan Egiptotik igan denean, mortuz ibili da itsaso Gorriraino, eta ethorri da Kadesera;

17. Eta bidalkinak igorri izan diozka Edomi, zioelarik: Utz nezazu zure lurretik iragaitera. Ez ditu onhetsi nahi izan gure othoitzak. Halaber Moabeko erregeri igorri dio, eta hunek ere erdeinuka ez du eman nahi izan iragan-bidea. Gelditu da beraz Kadesen;

18. Eta ingurua egin du Edomen eta Moaben lurren sahetsetik; ethorri da Moaben iguzki-haizeko aurkhintzaren parrera, eta kanpatu da Arnenez hunaindian. Ez du nahi izan sarthu Moaben eremuetan, ezen Arnon da Moaben lurreko mugakidea.



19. Hargatik Israelek bidalkinak igorri diozka Sehoni, Amorhearren erregeri, Hefebonen zagoenari, eta erran zaroen: Zure lurretik iragaitera utz gaitzazu hibairaino.

20. Harek ere Israelen solasak erdeinatuz, ez du iragaiterat utzi bere eremuatarik: bainan nihonereko gizontzea bildurik, haren kontra atheratu da Jasara, eta hazkarki bihurtzen zaroen;

21. Bainan Jaunak arthiki du bere armada guziarekin Israelen eskue-tara, zeinak jo baitu, eta jabetu da lekhu hartan zagoen Amorhearraren lurraz,

22. Eta haren eremu guziez Arnondik Jabokeraino, eta mortutik Jordaneraino.

23. Horreletan Israelgo Jainko Jaunak xahutu du Amorhearra, haren kontra haren Israelgo populuak gudu emanaz, eta orai zu nahi zare haren lurrean nausitu?

24. Etzaizkitzu zuzenbidean zor Kamos, zure jainkoak gozaten dituen lurrak? Orobat gure Jainko Jaun garaitiarrak ardietsi dituenak, gure gozamenara erortzen dira.

25. Hobeia othe zare Moabeko errege, Balak Sephorren semea baino? ala erakhuts dezazuke Israelen kontra arranguratu eta gudukatu dela,

26. Israel egotu denean Hefebonen eta hango herrietan, Aroerren eta hango herrietan, edo Jordanearen hegiko hiri guzietan, hirur ehun urt-hez? Nolaz horrenbertzeko ephe luzean ez duzue horren gainean bilhaterat egin?

27. Ez darotzut beraz nik hoben egiten, bainan zu zerabiltza ene kontra gaizki, zuzena ez den gerla bat niri biztuz. Jaunak, egun hunen juieak juia beza Israelen eta Amonen semeen artean.

28. Amonen semeen erregek etzituen onhetsi nahi izan Jephtek bere bidalkinez gaztiatu ziozkan solasak.

29. Eta Jaunaren izpiritua jarri zen Jephteren gainean, zeinak inguratzen zituelarik Galaad, Manase, eta Galaadeko Maspha ere, eta handik iragaiten Amonen semeetara,

30. Jaunari botu egin zuen, zioelarik: Baldin Amonen semeak ematen badituzu ene eskuetara,

31. Edozein ilkhi dadien ene etxeko athetik, eta ene bidera ethor dadien Amonen semeetarik bakearekin bihurtuko naizenean, haina holo-kaustetan eskainiko diot Jaunari.

32. Gero Jephthe iragan zen Amonen semeetara, hekien gudukatze-ko; eta Jaunak ezarri zituen haren eskuan.

33. Eta sarraski gaitzaz jo zituen hogoi hiri Aroerdik Menithera hel arteo, eta Abeleraino, zeina baita mahastien erdian; eta Amonen semeak Isrealgo semeez aphaltuak izan ziren.

34. Bainan Masphatik bere etxera itzultzen zelarik Jephthe, atabala joz eta dantzan bidera ethorri zitzaioen bere alaba baxharra, ezen bertze haurrik etzuen.

35. Hura ikhusi zuenean, Jephthe phorrokatu zituen bere soinekoak: Ai enea! enganatu nauzu, ene alaba, eta enganatu duzu zure burua: ezen Jaunari ideki diot ene ahoa, eta bertzerik ezin ginen duket.

36. Alabak ihardetsi zioen: Ene aita, Jaunari ideki badiozu ahoa, edozein gauza agindu diozun, egizu ene gainean, emanak izan zarozkitzunaz geroztik zure etsaien gainean asperkunde eta garhaizia.

37. Eta oraino erran zioen aitari: Othoizten zaitudan gauza bakhar bat onhets darotazu: utz nezazu mendietara bi hilabetez goatera, ene dontzellatasuna deithora dezadan ene lagunekin.

38. Jephthe ihardetsi zioen: Zoazi. Eta utzi zuen bi hilabetez. Eta goaten zenean bere lagun eta adiskideekin, bere dontzellatasuna deithoratzten zuen mendietan.

39. Bi hilabeteak iragan-eta, bihurtu zen bere aitaren gana, eta Jephthe nola botua egin, hala bethe zuen bere alaba gizona ezagutu etzuenaren gainean. Handik hedatu zen aztura Israelen, eta ohitza begiratua da oraino,

40. Israelgo alabak elkharretara urthe buruan biltzekoa, Jephthe Galaadtarraren alaba lau egunez deithoratzeko.

## XII. KAP.

1. Bada, huna non bihurrialdi bat sortu zen Efraimen; ezen ipharral-dera iraganik, hango gizonen erran zioten Jephtheri: Nolaz gudu ematera zinhoazilarik Amonen semeei, ez gaituzu deithu nahi izan, gu ere zurekin goan gintezen? Erreko dugu beraz zure etxea.

2. Jephthe ihardetsi zioten: Makhurretan ginen ni eta ene populua Amonen semeekin; deithu zaituztet laguntza eman zinezatedan niri, eta ez duzue nahi izan egin.

3. Hori ikhustenez, ene bizia ezarri dut ene eskuen menturan, iragan naiz Amonen semeetara, eta Jaunak arthiki ditu ene eskuetara. Zer huts egin dut, ene kontra gudura altxa zaiztezentzat?

4. Hargatik bere gana deithurik Galaadeko gizon guziak, gudukatu zen Efraimen kontra; eta Galaadtarreko jo zuten Efraim, zeren zuen erran:



Galaad Efraimgo ihesliar bat da, eta bizi da Efraimen eta Manaseren artean.

5. Eta Galaadtarrek hartu zituzten Jordaneko ubiak, zeinetarik bihurtu behar baitzen Efraim. Eta Efraimtarretarik norbait ethortzen zenean ihes eta erraten zuela: Utz nezazue, othoi, iragaitera; Galaadtarrek erraten zioten: Efraimtarra haiz? ihardestearekin: Ez naiz hala;

6. Erraten zioeten: Errak beraz Siboleth, zeinak erran nahi baitu ogi-burua. Hunek ihardesten zuen Siboleth; ogi-buruaren letra bera ezin trenkatuz. Berehala hartzen zuten, eta Jordaneko iragan-tokian berean zintzurra egiten zioten. Eta aldi hartan, berrogoi eta bi mila Efraimtarrek lurra jo zuten.

7. Jephthe Galaadtarrak sei urthez juiatu zuen beraz Israel; hil izan zen gero, eta ehortzi zuten Galaadeko bere hirian.

8. Haren ondotik Abesan Bethlehemgoak juiatu zuen Israel.

9. Bazituen hogoi eta hamar seme eta hogoi eta hamar alaba; alabak kanporat igorriarik, ezkondu zituen, eta seme zuen bezenbat neskakxa etxerat harturik, emaztetzat onhetsi ziozkaten. Zazpi urthez juiatu zuen Israel.

10. Hil zen gero, eta Bethlehemen ehortzi zuten.

11. Haren ondoko izatu zen Ahialon Zabulontarra, eta Israel juiatu zuen hamar urthez.

12. Hil izan zen gero, eta ehortzi zuten Zabulonon.

13. Haren ondotik, Abdon, Ielen seme Pharathontarrak juiatu zuen Israel.

14. Hunek izatu zituen berrogoi seme, eta hekietarik hirur hogoi eta hamabortz ilobaso, hirur hogoi eta hamabortz astokumeren gainera igaiten zirenak, eta Israel juiatu zuen zortzi urthez.

15. Hil izan zen gero, eta ehortzi zuten Pharathonen, Efraimgo lurrean, Amaleken mendian.

### XIII. KAP.

1. Berriz ere Israelgo semeek gaizkia egin zuten Jaunaren aitzinean, zeinak Filistindarren eskuetara eman baitzituen berrogoi urthez.

2. Bazen orduan Saraako gizon bat, Danen errotikakoa, Manue deitzen zena, eta emaztea agorra zuena.

3. Jaunaren aingerua agertu zitzaioen emazteki hari, eta erran zioen: Agorra zare eta haurrik gabea; baina amatuko zare eta seme batez erdiko.

4. Berautzu beraz arnorik eta sagarnorik edan, eta zerbait lohirik jan,

5. Zeren amatuko eta erdiko baitzare seme batez, zeinaren burua ez baitu ukituko bizarnabalak; ezen haurretik eta amaren sabeletik izanen da Jainkoaren Nazarearra, eta bera abiatuko da Filistindarren eskuetarik Israelen atheratzen.

6. Bere senharraren gana goan zenean, erran zaroen: Jainkoaren gizon bat ethorri da ni gana, aingeru begitharte bat zuen, guziz lazgarria. Galdegain diodanean nor zen, nondik heldu zen eta zer izen zuen, ez darot erran nahi izatu.

7. Baina hau ihardetsi izan darot: Huna non amatuko eta erdiko zaren seme batez: berautzu arnorik edan ez sagarnorik, ez-etare jan deusere lohirik; ezen haurra, ttipitik, eta bere amaren sabeletik bere heriotzeko eguneraino, Jainkoaren Nazarearra izanen da.

8. Hargatik Manuek othoiztu zuen Jauna, eta erran zaroen: Jauna, othoi, Jainkoaren gizon bidali izan duzuna, berriz ethor bedi eta irakhats bezagu sortzekoa den haurraz zer egin behar dugun.

9. Jaunak onhetsi zuen Manueren othoizta, eta berriz agertu zen aingerua haren emazteari, landan jarria zagoenari. Bada, Manue, haren senharra, etzen harekin. Emazteak aingerua ikhusi zuenean,

10. Higitu zen, eta laster egin zuen bere senharra gana, eta berria ekharri zaroen, zioelarik: Huna agertu zarotala aitzinean ikhusi izan nuen gizona.

11. Manue xutitu zen eta bere emazteari jarraiki, eta gizonaren ganat ethorriarik, erran zioen: Zu zare ene emazteari mintzatu zarena? Eta harek ihardetsi zuen: Ni naiz.

12. Manuek erran zaroen: Zure errana bethea ditakeenean, zer nahi duzu egin dezagun haurraz? edo zertarik beharko du bere burua begiratu?

13. Jaunaren aingeruak ihardetsi zaroen: Bere burua begira beza zure emazteari aiphatu diotzadan guzietarik;

14. Mahastitik sortzen den edozein gauzetarik jan ez beza; ez beza edan arnorik ez sagarnorik, ez beza jan deusere lohirik: eta nik manatzen diodana bethe eta begira beza.

15. Manuek erran zaroen Jaunaren aingeruari: Ene othoitzak onhetsi daroaztatzu, othoi; utz gaitzatzu gure ahuntzetarik pittika bat xuxentzera zuri.

16. Aingeruak ihardetsi zioen: Zenbat-nahi hertxa nezazun, ez dut zure ogitik janen: baina baldin nahi baduzu holokausta bat egin, Jaunari hura eskain zozu. Eta Manuek etzakien Jaunaren aingerua zela.

17. Eta erran zaroen: Zer da zure izena, ohora ahal diazakeguntzat, baldin bethetzen bada zure hitza?



18. Aingeruak ihardetsi zaroen: Zertako bilhatzen duzu ene izena, zeina baita espantagarri.

19. Hargatik Manuek bere ahuntzetarik hartu zuen pittika bat, eta libazioneak; harri baten gainean ezarri eta eskaini zituen Jaunari, zeinak egiten baititu sendagailazko gauzak: eta bera eta bere emaztea begira zaudetzen.

20. Eta garra aldaretik zerura igaiten zelarik, Jaunaren aingerua ere garrean igan zen. Hori ikhusi zutenean, Manue eta bere emaztea lurrera ahuspez erori ziren.

21. Jaunaren aingerua etzitzaioeten gehiago agertu. Eta Manuek eza-gutu zuen berehala Jaunaren aingerua zela;

22. Eta bere emazteari erran zaroen: Heriotzez hilen gare, zeren ikhusi dugun Jainkoa.

23. Emazteak ihardetsi zaroen: Baldin Jaunak hil nahi izan bagintu, etzuen gure eskuetarik holokausta eta libazionerik onhetsiko; etzarozki-gun horiek oro erakhutsiko, ez-eta ethorri behar direnak erranen.

24. Seme batez erdi zen beraz, eta hari izena eman zaroen Sanson. Handitu zen haurra, eta Jaunak benedikatu zuen.

25. Eta Jaunaren izpiritua harekin izaten hasi zen Danen kanpetan, Saraaren eta Esthaolen artean.

#### XIV. KAP.

1. Sanson jautsi zen beraz Thamnathara; eta han ikhusirik emazteki bat Filistindarren alabetarik,

2. Igan zen, eta berria ekharri zaroeten bere ait-amei, zioelarik: Thamnathan emazteki bat ikhusi izan dut, Filistindarren alabetarik: othoizten zaituztet emaztetzat onhets dizadazuen.

3. Bere ait-amek ihardetsi zioten: Ez othe da emaztekirik ene anaien alabetan eta ene populu guzian, emazte bat hartu nahi izateko ingurebakigabeak diren Filistindarretarik? Eta Sansonek erran zioen bere aitari: Hori onhets dizadazu, zeren ene begiei khausitu baitiote.

4. Bada, haren burhasoek etzakiten Jaunak egiten zuela gauza hori, eta Filistindarren kontra gerthakari baten bilha zabilala; ezen ordu hekie-tan Filistindarra jaundua zabilan Israeli.

5. Hargatik Sanson bere ait-amekin Thamnathara jautsi izan zen. Eta heldu zirenean hiriko mahastietara lehoin ume ikharagarri bat agertu zen, eta orroaz atheratu zitzaioen Sansoni.

6. Bainan Jaunaren izpiritua jauzi zen Sansonen baithan, eta deusik-ere eskuetan etzuelarik, urratu zuen lehoina, pittika bat puskakatzen balu bezala; eta hori etzioten erakhutsi nahi izan bere ait-amei.

7. Jautsi zen gero eta mintzatu haren begiei atzeman zioten emazte-kiari.

8. Eta zenbait egunen buruan itzulirik harekin ezkontzeko, baztertu zen lehoinaren hilikiaren ikhustera, eta hara erle-moltzo bat jarria zela lehoinaren ahoan, eta ezti-breska bat ere bazela.

9. Hura hartu ondoan, bidean hartarik jaten zuen; eta bere ait-ame-tara ethorri zenean, puska bat eman zioten, eta hekiek ere jan zuten: etzioten bizkitartean ikhusterat eman lehoinaren gorphutzetik hartu zuela ezti-a.

10. Haren aita goan zen beraz neskatxaren etxera, eta Sanson bere semeari barazkari bat egin zaroen, ezen gizon-gazteek hala egiten ohi zuten.

11. Toki hartako hiritarrek ikhusi zutenean Sanson, hogoi eta hamar lagun eman ziozkaten harekin izateko.

12. Sansonek erran zioten: Aitzinera emanen darotzuet asmakari bat; eta argitzapena egiten ahal badarotazue estei haukietako zazpi egunetan, emanen darozkitzuet hogoi eta hamar soin eta bertze hainbertze soinpeko.

13. Bainan ezin argi badezazueke, zuek emanen daroztatzuet niri hogoi eta hamar soinak eta bertze hainbertze soinpeko. Haukiek iharde-tsi zioten: Ager zazu zure asmakaria adi dezagun.

14. Sansonek erran zioeten: Jaletik atheratu da jatekoa eta borthitze-tik eztitasuna. Hirur egunez ezin argitu zuten asmakari hori.

15. Eta zazpigarren eguna hurbiltzen hari zelarik, erran zioten Sansonen emazteari: Lausenga zazu zure senharra eta eskura zazu ager dezazun zer erran nahi duen haren asmakariak: hori ez baduzu egin nahi, erreko zaitugu zu eta zure aitaren etxea: ala zuen esteietara deithu gaitu-zue gure biluzteko?

16. Emazteki hori nigarrez urtzen zen Sansonen aitzinean eta min-dirikatzen, zioelarik: Higuin nauzu eta ez maite, eta horren gatik ez daro-tazu agertu nahi ene populuko semei eman diozuten asmakaria. Eta Sansonek ihardetsi zioen: Ene ait-amei ez daroet erran nahi izan, eta zuri agertuko othe darotzut?

17. Ezteietako zazpi egunetan beraz nigarrez zagoen haren aitzinean. Azkenekotz zazpigarren egunean, nola bakerik ez baitzioen uzten, agertu zioen. Hunek berehala salhatu zioten bere herritarrei.





18. Zazpigarren egunean, iguzkia etzan aitzinean gizon-gazteek Sansoni erran zioten: Zer da gozoagorik ezta baino eta borthitzagorik lehoina baino? Sansonek ihardetsi zioten: Ez bazindute irauli ene migarekin, etzinduten atzemanen ene asmakaria.

19. Ordu berean Jaunaren izpiritua jautsi zen haren baithara; Askalonera goan zen Sanson, eta han hil zituen hogoi eta hamar gizon, zeinei khendurik soinekoak, asmakaria argitu zutenei eman baitziozkaten. Eta hasarre handiz, goan zen bere aitaren etxera.

20. Bada, haren emazteak senhartzat hartu zuen haren adiskide eta ezkont-lagunetarik bat.

### XV. KAP.

1. Handik denbora aphur baten buruan, ogien biltzeko egunak hurbilduak zirelarik, Sanson goan zen bere emaztearen ikhustera, eta eraman zuen bere ahuntzetarik pittika bat. Eta nola ohi bezala sarthu nahi baitzuen haren gelan, haren aitak debekatu zuen, zioelarik:

2. Uste izan dut bigundu zinduela, eta hargatik zure adiskide bati eman diot; bainan badu ahizpa bat bera baino gazteagoa eta ederragoa; izan bedi haren ordainez zure emazte.

3. Sansonek ihardetsi zioen: Egun huntarik ez da ene baithan izanen Filistindarren alderateko hutsa; ezen emanen diotet jasaitera.

4. Goan zen; atzeman zituen hirur ehun hazeri, buztanez buztan lothu zituen, eta erdian estekatu argiak;

5. Eta argiak suarekin bizturik, hazeriak haizatu zituen, alde orotara laster egin zezaten. Haukiek berehala goan ziren Filistindarren ogietara. Hekiei su emanik, erreak izan ziren bilduak eta oraino xutik ziren fruituak hanbataraino non mahastiak eta olibadiak ere garras ahituak izan baitziren.

6. Eta Filistindarrek erran zuten: Nork egin du lan hori? Eta erran zioten: Hori Sansonek egin du Thamnatharraren suhiak, zeren khendu dioen bere emaztea eta bertze bati eman. Eta Filistindarrak igan ziren eta erre zituzten hala emaztekoa nola haren aita.

7. Sansonek erran zioten: Hori egin duzuen arren, oraino, bada, asperkunde atherako dut zuetaz, eta orduan phausatuko naiz.

8. Eta izurri handi batez jo zituen, halaz non ixter bat bertzearen gainera emanez baldituak gelditu baitziren. Eta jautsirik Sanson egotu zen Etamgo harriko zilhoan.

9. Filistindarrak beraz Judako lurrera iganik, kanpatu ziren, gerorat Lekhi deithua izan zen tokian, horrek erran nahi baitu Matraila-lekhu, non ere hekien armada izan baitzen ihes igorria.

10. Eta Judako leinukoek erran zioten: Zertako igaiten zarete gure kontra? Ihardetsi zuten: Sansonen estekatzera ethorri gare, eta hari egin dagokunaren bihurtzera.

11. Jautsi ziren beraz hirur mila gizon Judako leinutik Etamgo harriko zilhora, eta Sansoni erran zioten: Ez dakizu Filistindarrek manatzen darokutela? Zertako egin nahi izan diozute hori? Ihardetsi zioten: Nola egin baitarotet niri, hala egin izan diotet bereri.

12. Hekiek erran zioten: Ethorri gare zure estekatzera eta Filistindarren eskuetara ematera. Sansonek ihardetsi zioten: Hitz eman eta zin egin dizadazuet ez nauzuela hilen:

13. Ihardetsi zuten: Etzaitugu hilen, bainan bai estekaturik emanen. Eta estekatu zuten bi sokha berriz eta atheratu Etamgo harritik.

14. Matraila-lekhura heldu izan zirenean, eta Filistindarrak marrumaka ethorri zirenean, Jaunaren izpiritua jauzi zen haren baithan; eta nola suaren indarrera ahitzen ohi baita lihoa, hala urratuak eta hautsiak izan ziren hura estekatzin zuten lokharriak.

15. Eta lothurik lurrean harrapatu zuen matraila-hezur bati, erran nahi asto-matraila bati, hartaz hil zituen mila gizon.

16. Eta erran zuen: Asto-matraila batez, astokume baten matrailaz xahutu ditut, eta mila gizon hil.

17. Eta hitz horiek kantatu ondoan, eskutik arthiki zuen matraila, eta lekhu hura deithu zuen Erramathleki, horrek erran nahi baitu Matraila-munho.

18. Eta egarri handi baitzagoen, Jaunari oihu egin zioen eta erran: Zuk ezarri duzu zure muthilaren eskuan salbatze harrigarri hau eta garhaizia; eta huna non egarriz hiltzen hari naizen, eta eroriko naiz ingurebakigabeen eskuetara.

19. Hargatik Jaunak ideki zuen astomatrailan hagin bat, eta hartarik atheratu ziren urak. Hekietarik edanik, bihotza biztu zitzaioen eta hartu zituen indarrak. Hargatik lekhu hura orai arteo deithua da Matrailatik galdatzen duenaren ithurria.

20. Eta Sansonek juiatu zuen Israel hogoi urthez, Filistindarren egunetan.

### XVI. KAP.

1. Gazarat ere goan zen, eta han ikhusirik emazteki lilitxo bat, sartu zen haren gana.

2. Hori aditu zutenean Filistindarrek, eta barraiatu zenean hekietan Sanson hirian sarthu zela, inguratu zuten, hiriko athean zainak ezarririk;



eta han gau guzia ixil-ixilak begira egonez, goizaldera ilkhitzen zenean haren hiltzeko.

3. Bada Sansonek lo egin zuen gauherditaraino, eta jaikirik handik, hartu zituen bi athe alderdiak beren habe eta hagekin, eta bizkarrean ezarririk eraman zituen Hebroni begira dagoen mendi kaskoraino.

4. Gero maithatu zuen emazteki bat Sorekeko haranean egoten zena, eta Dalila deitzen zena.

5. Eta haren gana ethorri ziren Filistandarren buruzagiak eta erran zioten: Engana zazu eta haren ganik jakin zazu zertan duen hanbateko indarra; nola garhait dezakegun, eta jasanaraz dezokegun estekatu ondoan. Hori egin nahi baduzu, bakhotxak emanen darozkitzugu hameka ehun zilharrezko.

6. Dalilak erran zioen beraz Sansoni. Erradazu, othoi, zertan datza zure indar gaitz hori, eta zertaz behar zintazke estekatu zuk ezin ihes egiteko?

7. Sansonek ihardetsi zioen: Estekatzen banindute zainezko zazpi sokha, ez oraino idortuak, baina zimailduak direnez, bertze gizonak bezala herbal izan nindaiteke.

8. Filistindarren satrapek ekharri ziozkaten Dalilari zazpi sokha, erran zuen bezalakoak, eta hekietaz estekatu zuen Sanson.

9. Etxean gordeak zituelarik zelatariak, gela batean gauzaren akhabantzari begira zaudezenak, oiuhu egin zioen: Sanson, gaingan dituk Filistindarrak! Sansonek hautsi zituen lokharriak, hala nola ixtupazko hari bat xabillaz bihurtua hauts bailitake, suaren hatsa hartzen duenean. Eta etzuten ezagutu zertan zatzen haren indarra.

10. Dalilak erran zioen: Huna trufatu zarela nitaz, eta gezurrez mintzatu zare: orai bederen erakhuts dizadazut zertaz behar zaren estekatu.

11. Sansonek ihardetsi zioen: Esteka banindezate sokha berriz egundaino erabiliak izan ez direnez, herbal eta bertze gizonak iduri izan nindaiteke.

12. Halakoz estekatu zuen berriz Dalilak, eta gelan zelatariak ezarririk, oiuhu egin zuen: Sanson, Filistindarrak gaingan! Sansonek lokharriak trenkatu zituen oihaal-hari batzuek bezala.

13. Dalilak erran zioen berriz ere: Noiz arteo enganatuko nauzu eta gezurrez mintzatuko zare? erakhuts dizadazut zertaz behar zaren estekatu. Sansonek ihardetsi zioen: Baldin ene buruko zazpi ile bilbeko hariarekin ezpartzatzen baditutzu, eta itze bat horietaz estekatua lurrean landatzen baduzu, herbal izanen naiz.

14. Hori egin ondoan, Dalilak erran zioen: Sanson, Filistindarrak gaingan! Sansonek, lotarik jauztean, atheratu zuen itzea bere ile eta hariarekin.

15. Eta Dalilak erran zioen: Nola diozu maite nauzula, zure bihotza ez delarik enekin? Hiruretan gezurra erran darotazu, eta ez darotazu nahi izan erran, zertan datzan zure indar gaitza.

16. Eta nola zihitaka hari baitzitaioen, asko egunez bethi ondolik deskantsu aphur bat utzi gabe, haren bihotzak amor eman zuen, eta hiltzeko heineraino erkhitu zen.

17. Orduan egia agertuz, Sansonek erran zioen Dalilari: Bizarnabala ez da egundaino igan ene buruaren gainera, zeren naizen Nazarearra, erran nahi da ene amaren sabeletik Jainkoari kontsekratua naizela: murrizten balitz ene burua, ene indarra ene ganik goan laiteke, herbal nindaiteke eta bilhaka bertze gizonak bezala.

18. Dalilak, ikhusririk bere barneko berri guzia aithortu zioela, igorri zuen Filistindarren aitzindarietara eta gaztiatu zioten: Igan zaizte behin oraino, zeren ideki baitarot orai bere bihotza. Haukiek igan ziren, berekin harturik agindu zuten dirua.

19. Dalilak bere altzoan lokharrarazi zuen Sanson eta burua makhurrarazi zioen bere bulharren gainera. Deithu zuen bizar-egilea eta murriztarazi ziozkan haren zazpi ile ezpartzuak, eta abiatu zen haren khentzen eta bulkhatzen; ezik ordu berean goan zitzaioen bere indarra;

20. Eta erran zioen: Sanson, Filistindarrak gaingan! Lotarik jauztean, Sansonek egin zuen bere baithan: Atherako naiz lehenago egin dudan bezala, eta ene burua libratuko dut; ez baitzakien bere ganik goan zitaioela Jauna.

21. Filistindarrekin hartu zutenean, irazi ziozkaten berehala begiak, eta gathez lothurik, eraman zuten Gazara; eta presondegi batean hertsirik, irin ehaiten hariarazi zuten.

22. Jadanik haren ileak berriz handitzen hasiak ziren,

23. Eta Filistindarren aitzindariak elkhar gana bildu ziren bitima ederrinak Dagon, beren jainkoari imolatzeko, eta barazkari handi baten egiteko, ziotelarik: Gure jainkoak eskuratu daroku Sanson, gure etsaia.

24. Eta populuak ere ikhustenez hori, goresten zuen bere jainkoa, solas berak erranez: Gure jainkoak eskuetara eman daroku gure etsaia, gure lurra xahutu eta hainitzak hil dituena.

25. Eta barazkaritan boztuz, onthuruntzaren ondoan, manatu zuten deithua izan zedin Sanson, hekien irrigarri izateko. Sanson presondegitik



erakharririk, hekien aitzinean dostagailutzat erabilia zen, eta xutik ezarri zuten bi haberen erdian.

26. Hunek erran zioen bere urhatsetan bidatzen zuen muthilari: Utz nezazu ukitzera habeak zeinen gainean baitago etxe guzia, horien gainean berma nadien eta aphur bat phausa.

27. Bada, etxea gizonen eta emaztekiz bethea zen, eta han ziren Filistindarren aitzindari guziak, eta hegaztegitik eta gaineko salhatik begira zaudenak Sansonen dostetari baziren, gizon eta emazteki, hirur milaren ingurua.

28. Sansonek Jaunari dei eginik erran zuen: Jainko Jauna, orhoit zaite nitaz; ene Jainkoa bihur dizadazu orai ene leheneko indarra, ene Jainkoa, asper nadien ene etsaietarik, eta ene bi begien galtzapenarentzat asperraldi bat athera dezadan.

29. Eta lothurik bi habeei, zeinen gainera baitzagoen etxea, bat zadukalarik esku eskuinaz eta bertzea ezkerrez,

30. Erran zuen: Filistindarrekin gal bedi ene bizia. Eta habeak hazkarki iharrosirik, etxea erori zen aitzindari guzien eta han zen bertze ostearen gainera; eta bera hiltzean, hainitz gehiago xahutu zuen gizon, aitzinean bizi zelarik hil zuen baino.

31. Haren anaiak eta ahaidego guzia jautsi ziren; hartu zuten haren gorphutza, eta Saraaren eta Esthaolen artean ehortzi zuten bere aita Manueren hobian: eta juiatu zuen Israel hogoi urthez.

### XVII. KAP.

1. Ordu hekiez, baten Efraimgo mendian gizon bat Mikas deitzen zena.

2. Bere amari erran zioen: Bazterrerat eman zintuen hameka ehun zilharrezkoak, eta zeinetaz ene aitzinean arneguka haritu baitzare, hemen ditut, ene baithan dira. Hunek ihardetsi zioen: Jaunak benedika bezaitza, ene semea.

3. Hekiek bihurtu ziozkan beraz bere amari, zeinak erran baitzioen: Diru hori Jaunari kontsekratu eta botuz eman diot, ene semeak ene eskutik har dezan, eta egin dezan itxura zizelatu, eta urthu bat; eta ematen darotzut orai.

4. Mikasek bihurtu ziozkan beraz bere amari, zeinak hartu baitzituen berrehun zilharrezko eta eman zilhargin bati, hekietarik egin zezan itxura zizelatu eta urthu bat, zeina egotu baitzen Mikasen etxean.

5. Mikasek han tenplotto bat berezi zioen halaber jainkoari, eta egin zituen ephodoa eta theraphimak, erran nahi da aphez-soinekoea eta idolak: eta bethe zuen bere semeetarik baten eskua, eta egin zuen haren aphez.

6. Orduko egunetan etzen erregerik Israelen, bainan bakhotxak, zer ere zuzen iduritzen baitzitzaioen, hura egiten zuen.

7. Bazen orobat bertze gizon-gazte bat Bethlehemgoa Judan, ahaidago hartakoa: berenez lebitarra zen, eta han zagoen.

8. Eta Bethlehendik atherarik, nahi izan zen ibili lakhet atzemanen zuen edozein tokitan. Eta bide egitearekin, heldu izan zenean Efraimgo mendira, baztertu zen aphur bat Mikasen etxera.

9. Mikasek galdatu zioen nondik heldu zen. Hunek ihardetsi zioen: Lebitarra naiz Bethlehemgoa Judan, eta banoha ahal dudan, eta enetzat on dela ikhusiko dudan tokian egotera.

10. Mikasek erran zioen: Zaude ene etxean, eta balia zakizkit aitatatz eta aphezatz. Emanen darozkitzut, urthe bakhotx, hamar zilharrezko, bi soineko eta bizitzeko behar direnak.

11. Lebitarrak on-hartu zuen eta egotu zen gizon haren etxean, zeinak bere semeetarik bat bezala iduki baitzuen.

12. Mikasek bethe zuen haren eskua, eta aphez bezala izan zuen gizon-gaztea etxean,

13. Zioelarik: Orai badakit Jainkoak benedikatuko nauela, lebitar odoleko apheza badudanaz geroztik.

### XVIII. KAP.

1. Ordu hekietan, erregerik etzen Israelen, eta Danen leinua lurketa zabilan, han egotekotzat; ezen egun huradino ezin eskuratu zuen bertze leinuen artean bere zortheko eremua.

2. Danen semeek beraz igorri zituzten Saraatik eta Esthaoletik bortz gizon biphilenetarik lurraren ikhuskatzera eta artharekin begizatzaera, eta erran zioeten: Zoazte eta begiz har zazue lurra. Haukiek, bidean zihoazelarik, heldu zirenean Efraimgo mendira, sarthu ziren eta phausatu Mikasen etxean.

3. Ezagaturik lebitar gaztearen mintzoa, eta haren ostatu beraz baliatzen zirelarik, erran zioten: Nork erakharri zaitu hunara? zer hari zare hemen? zer ariaz nahi izan duzu hunat ethorri?

4. Harek ihardetsi zuen: Hau eta hau egin darot Mikasek, eta saritan hartu nau, balia nakioen aphezatz.

5. Othoiztu zuten beraz Jauna kontsulta zezan jakiteko heian bidaia ona egingen zuten eta heian gauzak izanen zuen ondorio.



6. Ihardetsi zioeten: Zoazte bakean, Jaunak begiaz daduka zuen urhatsa eta zuek daramazuen bidea.
7. Bideari lothurik, bortz gizonak jo zuten beraz Laisera, eta ikhusi zuten han zagoen populua, beldurkunderik batere gabe zela, Sidondarren azturaren arabera, deskantsuan eta phausuan, nihork ez baitzioen bihurrik egiten, eta onthasun handiak bazituela, urrun zela Sidonetik eta bertze gizon guzietarik aldaratua.
8. Eta beren anaien gana Saraara eta Esthaolera itzuli zirenean, zer egin zuten galdatu ziotenei ihardetsi zuten:
9. Jaiki zaizte, igan gaiten hekien gana; ezen ikhusi dugu lur bat hainitz aberatsa eta gorria; berautzue nagikeria eta luzamenduetarik. Goazen eta hartaz nausi gaitezen, ez da gaitz izanen.
10. Beren eremu zabalean deskantsu direlarik sarthuko gatzazkote, eta Jaunak emanen daroku lekhu hura, zeinetan ez baita lurrean sortzen diren gauzetarik deuseren eskasik.
11. Sei ehun gizon bideari eman ziren beraz gerlako harmak soinean Danen leinutik, erran nahi da Saraatik eta Esthaoletik.
12. Igan ziren Kariathiarimera, Judan, eta han baratu. Ordutik lekhu harek hartu zuen Danen kanpen izena, eta da Kariathiarimen giblean.
13. Handik Efraimgo mendira iragan ziren. Mikasen etxera heldu izan zirenean,
14. Laisgo lurraren begiztatzer aitzinean igorriak izan ziren bortz gizonak erran zioeten beren bertze anaiei: Badakizue etxe hortan badirela ephodo bat, theraphimak eta itxura zizelatatu eta urthu bat: ikhusazue zer nahi duzuen egin.
15. Eta aphur bat aldaraturik, sarthu ziren Mikasen baithan zagoen lebitar gaztearen etxean; eta agur egin zioten bakezko solasekin.
16. Bizkitartean sei ehun gizonak, ziren bezala harmatuak, athe aitzinean zauden xutik.
17. Eta gizon-gaztearen etxean sarthu zirenak, ephodoaren, theraphimen eta itxura urthuaren hartzera hari ziren, eta apheza athe aitzinean xutik zagoen, sei ehun gizon hazkarrak handik ez urrun begira zaudelarik.
18. Sarthu zirenek hartu zituzten beraz ephodoa, idolak eta itxura zizelatua eta urthua. Aphezak erran zioten: Zer hari zarete?
19. Ihardets zioten: Zaude ixilik eta erhia ezar zazu ahoaren aitzinean; zato gurekin, aitatat eta apheztat izan bezaitzagun. Zer da zuretzat hobe, ala izan zaitezen gizon bakhar baten etxean aphez, ala leinu batean eta Israelgo familian?

20. Hori aditu zuenean, onhetsi zituen hekien solasak, hartu zituen ephodoa, idolak eta itxura zizelatua, eta goan zen Dantarrekin.
21. Bidean zihoazelarik, beren aitzinean igorrik haurrak, abereak eta phuska balios guziak,
22. Eta jadanik Mikasen etxetik urrun zirelarik, Mikasen etxean egoten zirenak argudioan jarraiki zitzaizkoeten.
23. Eta gibeletik oihuz hasi ziren. Haukiek ikhusi zituztenean, erran zioten Mikasi: Zer nahi duzu? zertako zaude oihuz?
24. Ihardetsi zuen: Ene jainkoak, enetzat egin ditudanak, apheza eta ditudan guziak eraman dituzte, eta diozue: Zer duzu?
25. Danen semeek erran zioten: Berautzu guri gehiago mintza, beldurrez gizonak, gogoia minkhaizturik, bihur dakizkitzun, eta zeror gal zaitezzen zure etxe guziarekin.
26. Hola berriz bideari lothurik, goan ziren. Mikasek, bada, ikhustenez hazkarrago zirela, itzuli zen bere etxera.
27. Sei ehun gizonak eraman zituzten beraz apheza eta aitzinean erran izan ditugunak; ethorri ziren Laisera, populu deskantsuz eta phausuan zagoen baten gana, eta ezpataren ahotik iragan zituzten, eta hiriri su eman zioten,
28. Nihork-ere laguntzarik hangoei ekharri gabe, Sidonetik urrun egoten zirelaketz, eta nihorekin etzutelaketz ez lagunkhidetasunik, ez har-emanik. Eta hiri hura zen Errohobeko aurkhintzan jarria: Danen semeek berritu zuten eta han egin zuten beren egoitza.
29. Aitzinean Lais deitzen zena, deithu zuten Dan beren aita, Isaaken semearen izenetik.
30. Eta han ezarri zuten jainkorde zizelatua eta Jonathan, Moisen seme Jersamen semea, eta haren semeak apheztat, beren gathibusuneko eguneraino.
31. Eta Mikasen jainkordea hekien baithan egotu zen Jainkoaren arkha Silon egotu zen denbora guzian. Etzen ordu hekietan erregerik Israelen.

## XIX. KAP.

1. Bazen lebitar gizen bat Efraimgo mendiko mazela batean zagoena, Judako Bethlehemen hartu zuena emazte.
2. Hunek utzi zuen bere senharra, eta Bethlehamera bere aitaren etxera itzuli zen, eta lau hilabetez egotu zen aitaren baithan.
3. Senharra, berekin harturik muthil bat eta bi asto, jarraiki zitzaioen, harekin nahiz baketu eta lausenguka berekin gibelerat erakharri.



Emazteak ongiethorri egin zioen eta sarrarazi zuen bere aitaren etxean. Hori aditu zuenean haren aitagarrebak eta ikhusi zuenean, bozkariorekin ethorri zitzaioen aitzinera,

4. Eta besarkatu zuen. Suhia bere aitagarrebaren etxean egotu zen hirur egun, jaten eta edaten zuelarik lainoki harekin.

5. Bainan laugarren egunean, gabaz jaikirik, nahi izan zuen abiatu; aitagarrebak atxiki zuen, eta erran zioen: Jan zazu lehenik ogi puxka bat, eta barnea hazkar zazu, eta hola goanen zare.

6. Jarri ziren elkharrekin; jan eta edan zuten, eta neskatzaren aitak erran zioen bere suhiari. Egun hau, othoi, emazu gurekin, boz gaitezen guziak batean.

7. Bainan hau xutiturik, goan nahiz abiatu zen. Eta halarik-ere aitaginarrebak errekeika atxiki zuen, eta bere etxean geldiarazi.

8. Goiza ethorri zenean ordean, lebitarra biderako xuxentzen zen. Aitaginarrebak erran zioen berriz: Othoizten zaitut jan dezazun zerbait, eta indarrak harturik, eguna zabaltzen den artean, goanen zare gero. Jan zuten beraz elkharrekin.

9. Eta gizon-gaztea xutitu zen, bideari lotzeko bere emaztearekin eta muthilarekin. Berriz ere aitaginarrebak erran zioen: Ikhusazu eguna hari dela aphaltzen, eta arratsa heldu dela: zaude egun ere enekin, eta bozkariozko egun bat iragan zazu, eta bideari lothuko zare bihar zure etxera goateko.

10. Suhiak etzuen nahi izan onhetsi haren errana, bainan eman zen berehala bideari, eta ethorri zen Jebuseko ondora, zeina bertze izenez Jerusalem deitzen baitzen, berekin erakhartzen zituela bi astoak kargatuak eta bere ohaidea.

11. Eta jadanik ziren Jebusetik hurbil, eta eguna gauera bihurtzen hari zen, eta muthilak erran zioen bere nausiari: Zato, othoi, eta aldara gaitezen Jebusearren hirira eta hor geldi gaitezen.

12. Nausiak ihardetsi zioen: Ez naiz sarthuko jendaki arrotz Israelgo semeetarikakoa ez den baten hirira, bainan goanen naiz Gabaaraino;

13. Eta hara heltzen naizean, han egonen gare, edo bederen Erraman.

14. Iragan zuten beraz Jebus; hartu bidez aitzina zihoazen, eta iguzkia etzan zitzaioeten Gabaako ondoan, zeina Benjaminen leinuan baita.

15. Eta harat aldaratu ziren, han gelditzeko. Barnera sarthu ondoan, jarriak zauden hiriko plazan, eta nihork etzioten leihorra eman nahi izatu.

16. Eta hara non gizon-zahar bat agertu zen, landatik eta bere lanetik bihurtzen zela arratsean; eta gizon hura ere Efraimgo mendikoa zen,

eta arrotz bezala zagoen Gabaan. Bada, lekhu hekietako gizonak Jeminiren semeak ziren.

17. Eta begiak altxaturik, gizon-zaharrak ikhusi zuen lebitarra bere puxkattoekin hiriko plazan jarria; eta erran zioen: Nondik heldu zare? eta nora zohazi?

18. Harek ihardetsi zioen: Abiatu gare Bethlehem Judakotik, eta goazi gure tokira, zeina baita Efraimgo mendiko mazela batean; handik ethorri ginen Bethlehemera; orai Jaunaren etxera goazi, eta nihork ez gaitu hartu nahi bere leihorrera,

19. Nahiz lastoa eta belharra badugun gure astoen bazkatzeko, eta ogia eta arnoa enetzat, zure neskatoarentzat eta enekin den muthilarentzat: ez dugu deusere eskas baizik-ere leihorra.

20. Gizon-zaharrak ihardetsi zioen: Bakea dela zurekin, nik emanen darozkitzut premia zaizkitzun guziak: bakharrak othoizten zaitut etzaitzen plazan egon.

21. Eta sarrarazi zuen bere etxera; astoei bazka eman zioeten, eta zangoak garbitu zituztenean, onthuruntzara deithu zituen.

22. Jaten hari zirelarik, eta bideko nekhearen ondotik, janaz eta edanaz beren buruak hazkartzten zituztelarik, ethorri ziren hiri hartako gizon batzuek, Belialen semeak (erran nahi da zer-nahitara jarriak), eta gizon-zaharraren etxea inguraturik, hasi ziren atheari joka, etxeko nausiari oiuhka, eta erranez: Ilkhiaraz zazu zure etxerat sarthu den gizona, egin diozgun nahi duguna.

23. Gizon-zaharra atheratu zen hekietara eta erran zioeten: Berautzue, anaiak, berautzue holako gaizkirik egin; ezen gizon hau arrotz bezala sarthu da ene atherbera, eta utzazue zorokeria hori.

24. Badut alaba bat dontzella, eta gizon horrek badu ohaidea; erakharriko darozkitzuet; emanen diozue ahalkea, eta aseko duzue zuen lehia; bakharrak othoizten zaituztet gizon hunen gainean egin ez dezazuen gizonari ez dihoakioen izigarrikeria.

25. Etzituzten onhetsi nahi haren erranak. Lebitarrak hori ikhsurik, atheratu zioeten bere ohaidea, eta eman hartaz dosta zitezentzat. Hartaz nahi zutena egin ondoan gau guzian, utzi zuten goizaldera.

26. Emaztekoa, ilhuna goatearekin, ethorri zen bere senharra zuen etxeko athera, eta han erori zen.

27. Argitu zenean, lebitarra jaiki zen, eta ideki zuen athea, abiatu bidaiaren akhabatzeko; eta hara non zagoen haren emaztea athe aitzinean etzana, eskuak athelaser hedatuak.



28. Listez lo zagoen, senharrak erraten zioen: Jaiki zaitte eta goazen. Deusik ez baitzuen ihardesten, ezaguturik hila zela, hartu zuen, asto baten gainean ezarri, eta itzuli zen bere etxera.

29. Sarthu zenean, hartu zuen marraza bat, eta emaztearen gorputza bere hezurrekin hautsirik hamabi phusketan, zathi bana igorri zioen Israelgo leinu bakhotxari.

30. Hori ikhusi zutenean, guziak oihuka hasi ziren: Ez da egundaino holakorik Israelen gerthatu, gure arbasoak Egiptotik ethorri diren egunetik eta orai arteo: erabaki zazue, eta guziek batean ikhusazue zer den egiteko.

## XX. KAP.

1. Hargatik Israelgo seme guziak ilkhi ziren, eta batera bildu ziren gizon bakhar bat bezala Danetik Bersaberaino eta Galaaderaino, Masphera, Jaunaren aitzinera.

2. Populuetakoko buruzagiak oro eta Israelgo leinu guziak bildu ziren Jainkoaren batzarrera, lau ehun mila gurlari oinezko.

3. (Eta Benjaminen semeak etziren jakin gabe gelditu Israelgo semeak Masphara iganak zirela.) Emazteki hilaren lebitar senharrari galdegin zioten nola gerthatu zen hanbateko beltzkeria,

4. Ihardetsi zuen: Benjamineko Gabaara heldu izan naiz ene emaztearekin, eta harat aldaratu naiz;

5. Eta hara non hiri hartako gizonen gabaz inguratu duten ni nindagoen etxea, ni hil nahiz, eta ene emazteari jazarritz ezin-sinetsizko lohike-riako errabiarekin, azkenekotz hil den arteo.

6. Harthurik, pusketan ezarri dut, eta zathiak igorri ditut zuen eremu guzietara, zeren ez baita egundaino Israelen gerthatu horrenbertzeko izigarrikeria eta beltzkeriarik.

7. Israelgo semeak, hemen zarete guziak, ikhusazue zer behar duzuen egin.

8. Eta han zen populu guziak, gizon bakhar bat izan balitz bezala, ihardetsi zuen: Ez gare gure olhetara bihurtuko, nihor ez da bere etxean sarthuko,

9. Non ez dugun batean hau egiten Gabaaren kontra:

10. Hautatuak izan beitez Israelgo leinu guzietan hamar gizon ehunetarik, ehun miletarik, mila hamar miletarik, eta armadari ekhar betzozte jatekoak, guduka ahal gaitezen Benjamineko Gabaaren kontra, eta merezitu duena bihur diozogun bere tzarkeriaren arabera.

11. Eta Israel guzia hiri haren kontra bildu zen, gizon bakhar bat bezala, gogo berarekin eta xede bakhar batean.

12. Benjaminen leinu guziari bidali ziozkaten mandatariak, zeinek erran baitzuten: Zertako atzeman da horrenbertzeko tzarkeria zuen bait-han?

13. Eskuetara igutzue Gabaako gizon beltzkeria hori egin izan dutenak, hil ditezentzat eta gaizkia khen dadien Israeldik. Benjamintarrek etzuten aditu nahi izan beren anaia Israelgo semeek gaztiatu solasa:

14. Bainan beren eremuko hiri guzietarik bildu ziren Gabaara laguntza ekhartzeko eta Israelgo populu guziaren kontra gudukatzeke.

15. Eta Benjamindik khausitu ziren hogoi eta bortz mila ezpata ekhartzten zutenak, Gabaako egoiliarrez bertzalde.

16. Haukiek zazpi ehun gizon guziz hazkarrak, ala eskuinaz, ala ezker-raz bardin gudukatzen zirenak, eta habalaz harriak haien xuxen arthikitzen zituztenak, non ile bat ere jo baitzezaketen, eta harriaren kaska ez baitzen den-gutiena nihorat makhurtuko.

17. Israelen ere, Benjaminen semeak gabe, khausitu ziren lau ehun mila ezpatadun, gudura jarriak.

18. Haukiek jaikirik, ethorri ziren Jainkoaren etxera, erran nahi da Silora; Jainkoa kontsultatu zuten, eta erran zioten: Nor izanen da gure armadan guduko buruzagi Benjaminen semeen kontra? Jaunak ihardetsi zioeten: Juda izan bedi zuen aitzindari.

19. Israelgo semeak goizean berehala jaikirik, kanpatu ziren Gabaako ondoan.

20. Eta handik abiatuik Benjaminen semeen gudukatzerara, hasi ziren hiriaren sethiatzen.

21. Gabaatik atheraturik, Benjaminen semeek hil zituzten egun hartan Israelgo semeetarik hogoi eta bi mila gizon.

22. Israelgo semeak, beren indarraren eta oste handiaren gainean sinhestea ezarritz, aitzinean gudukatu ziren tokian jarri ziren lerrotan berriz ere;

23. Halaz bizkitartean non lehenik igan baitzuren eta nigarrez egon Jaunaren aitzinean ilhuntzeraino: eta kontsultatu zuten eta erran zioten: Behar othe dugu gehiago gudukatzerat egin Benjaminen seme, gure anaien kontra, ala ez? Ihardetsi zioten: Igan zaizte eta gudu egizue.

24. Eta biharamunean, Israelgo semeek gudurat egin zutenean Benjaminen semeen kontra,



25. Benjaminen semeak jauzi ziren Gabaako atheetarik, eta hekien aitzinera laster eginik, hanbateko zalapartak erabili zituzten sarraskika, non hemezortzi mila ezpatako gizoni lurra joarazi baitzioeten.

26. Hargatik Israelgo seme guziak ethorri ziren Jainkoaren etxera, eta jarririk zauden nigarrez; barur egin zuten egun hartan ilhuntzeraino, eta Jaunari eskaini ziozkaten holokaustak eta bakezko bitimak.

27. Eta beren plantaren gainean kontsultatu zuten. Toki hartan zen orduan Jainkoaren batasuneko arkha.

28. Eta Phineesek, Eleazarren semeak, Aaronen ilobasoak zuen Jaunaren etxeko kargua. Kontsultatu zuten beraz Jauna, eta erran zioeten: Behar othe gare gehiago gudura atheratu Benjaminen seme, gure anaien kontra, ala gelditu behar gare? Jaunak ihardetsi zioeten: Igan zaizte eta behar emanen ditut zuen eskuetara.

29. Israelgo semeek zelatak ezarri zituzten Gabaako hiriaren inguruan;

30. Eta hirugarren aldiko, lebenbizikoan eta bigarrean bezala, armada atheratu zuten Benjaminen kontra.

31. Bainan Benjaminen semeak ere ausartasun handirekin jauzi ziren hiritik, eta etsaiek ihes eginik, luzez jarraiki zitzaizkoten, halaz non hekie-tarik sakhitu baitzituzten lehenbiziko eta bigarren egunean bezala, eta hil baitzuten ihes zoazinetarik bi bidez, zeietarik batek Bethelera baiterama eta bertzeak Gabaara, eta hogoi eta hamar gizonen ingurutsuari lurra joarazi zioeten;

32. Ezen uste izan zuten, ohi bezala amor egiten zutela. Alegiaka ihes zihoazenek asmua zuten egina hekiek hiritik urrunaraztekoa, eta iduri ihesi, hekiek erran diren zelatetara erakhartzekoa.

33. Hargatik Israelgo seme guziak jarriak ziren tokietarik jaikirik, lerrotan eman ziren Baalthamar deitzen den lekhu batean. Hiriaren inguruan jarriak ziren zelatariak ere emeki-emeki hasi ziren agertzen,

34. Eta mendebal-aldetik hiriari hurbiltzen. Halaber hamar mila gizonak, Israel guzitik, hiritarrak gudura deitzen zituzten. Eta guduko hestura gaitzak inguratu zituen Benjaminen semeak, eta etzuten ezagutu herioa alde orotarik gainera heldu zitzaioetela.

35. Jaunak jo zituen Israelgo semeen aitzinean, zeinek egun hartan hekietarik hil baitzituzten hogoi eta bortz mila gizon, oro gerlariak eta ezpatadunak.

36. Bada, Benjaminen semeek ezagutu zutenean gai etzirela, hasi ziren ihes egiten. Hori ikhustearekin, Israelgo semeek ihes goateko lekhu

utzi zioeten, eror zitezentzat xuxendu zelatetara, zeinak hiriaren ondoan baitziren.

37. Haukiek brastakoan jaiki ziren beren gordegailuetarik, eta Benjamin gibelaz itzultzen zelarik hilka hari zitzaizkotenei, sarthu ziren hiriari eta jo zuten ezpataren ahoaz.

38. Bada Israelgo semeek zelatetan ezarri zituztenei ezagutkaritzat eman zioeten sutan ezar zezaten, hiria hartu ondoan, eta keha goiti igaitearekin erakhutsiko zutela hartua zela hiria.

39. Guduan sarthuak ziren Israelgo semeak horri ohartu zirenean (ezen Benjaminen semeek uste izan zuten ihes zihoazela, eta hekien armadatik hogoi eta hamar gizon hilik, bizikiago ondotik emanak ziren),

40. Ikhusi zuten khezko habe bat bezala hiritik igaiten. Benjaminek gibelerat begiraturik, ezagutu zuenean hiria hartua zeta eta garra goiti zihoala;

41. Lehenago alegiaka ihes egin zutenak, aitzinaz itzulirik, bihurtzen ziren hazkarkiago. Hori ikhustearekin, Benjaminen semeak ihesari eman ziren,

42. Eta hartu zuten mortuko biderat, haran ere estaiak ondotik zituztelarik: bainan hiriari su eman ziotenak atheratu zitzaizkoeten aitzinera.

43. Eta halaz gerthatu zen, non etsaiak bi aldeetarik hilka hari baitzitzaizkoeten, eta sarraskia baratu gabe baitzihoan, lurra jo zuten eta etz-nak gelditu ziren Gabaako hiriaren iguzki-haize alderat.

44. Bada, lekhu hartan berean bizia galdu zutenak, ziren hemezortzi mila gizon, oro gudulari hazkarrenetarik.

45. Hori ikhusirik, gelditu ziren Benjamintarrek mortura ihes egin zuten, eta hartu zuten harkadi batera, zeinaren izena Erremon baita. Ihes hortan ere barraiatuak eta asko aldetara hedatuak baitziren, Israelgo semeek hil zituzten bortz mila gizon; eta urrunago goanik, hil zituzten oraino bi mila.

46. Eta hula gerthatu zen, non asko tokitan erori ziren Benjamintarrak baitziren hogoi eta bortz mila gerlari, guduko hoberenetarik.

47. Horreletan Benjaminen oste guzitik gelditu ziren, itzuri ahal izan zirenak eta mortura ihes egin, sei ehun gizon; eta lau hilabetez egotu ziren Erremongo harkadian.

48. Bada, gibelerat itzulirik, Israelgo semeek hiriko ondar guziak, gizonetarik abereetaraino, ezpataz jo zituzten, eta gar goseak erre zituen Benjaminen hiri eta herriak oro.



## XXI. KAP.

1. Israelgo semeek Masphan zin ere egin zuten eta erran: Gutarik nihork ez du Benjaminen semeei bere alabetarik emanen emaztetzat.

2. Eta guziak ethorri ziren Jainkoaren etxera Silora, eta haren aitzinean jarririk arrats arteo, altxatu zuten boza, eta hasi ziren nigarrez eta marraskaz, zioetelarik:

3. Israelgo Jainko Jauna, zertako gerthatu da zorigaitz handi hau zure populuan, non egun leinuetarik bat ezeztatzen baita gutarik?

4. Eta biharamunean, argi-urratzean jaikirik, aldare bat egin zuten; eskaini zituzten han holokaustak eta bakezko bitimak, eta erran zuten:

5. Nor da Israelgo leinu guzietarik Jaunaren armadara igan ez dena? Ezen Masphan zirelarik, zin handi batez hertsu zituzten beren buruak, hilen zituztela huts eginen zutenak.

6. Eta urrikiak jorik Benjamin beren anaiaren gainean, Israelgo semeak abiatu ziren erraten: Leinu bat Israeldik ebakia da.

7. Nondik hartuko dituzte emazteak? zin egin dugu ezen guziek batean, ez diotzotegula gure alabak emanen.

8. Hargatik erran zuten: Nor da Israelgo leinu guzietarik Jauna gana igan ez dena Masphara? Eta hara non khausitu zen Jabes Galaadekoak armada hartan etzirela izatu.

9. (Israelgo semeak Silon ziren orduan, Jabesetik etzen hekiekin nihor khausitu.)

10. Hargatik igorri zituzten hamar mila gizon hazkarrenetarik, eta manu eman zioeten: Zoazte eta Jabes Galaaden daudezenak ezpataren ahotik iragan zatzue, beren emazte eta haur ttipiekin.

11. Eta huni behar zarete ohartu: Gizonki guziak eta gizona ezagutu duten emaztekiak hil zatzue, baina birjinak begira.

12. Jabes Galaaden khausitu ziren lau ehun birjina gizonaren ohea ezagutzen etzutenak, eta erakharri zituzten kanpetara, Silora, Kanaango lurrera.

13. Eta Benjaminen seme, Erremongo harrian zirenei, manaturik onhets zetzaten bakera, berriketariak igorri ziozkaten.

14. Orduan Benjaminen semeak ethorri ziren, eta emazteak eman zitzaizkoeten Jabes Galaadeko alabetarik; baina molde berean emateko etzen bertzerik khausitu.

15. Israel guzia damu minetan eta urrikitan sarthu zen Israelgo leinu baten hiltzeaz.

16. Eta zaharrek erran zuten: Zer egin diotegu emazterik izan ez duten gainerakoei? Benjamingo emazteki guziak hilak dira.

17. Grina handi batekin eta gogo behartuz, Israeldik leinu bat gal ez dadien bideak hartzeko ditugu.

18. Ezik gure alabak ezin eman detzozkegute, hertsia garelakotz zinaz eta arthiki dugun burhoaz, ginioean: Madarikatua bere alabetarik Benjamini emaztetzat emanen dioena.

19. Asmu bat egin zuten beren artean eta erran zuten: Huna Jaunaren besta-burua urthe oroz zebratzen dena Silon, zeina jarria baita Betheldik ipharrerat, eta Betheldik Sikemera dohan bidetik iguzki-haizerat, eta Lebonako hiritik hegoarat.

20. Manatu zioten beraz Benjaminen semeei, eta erran: Zoazte eta mahastietan gorde zaitzete.

21. Eta ikhusiko dituztuenean Siloko neskatxak, ohitzaren arabera, dantzetara abiatzen, bet-betan athera zaitzete mahastietarik, baxhotxak hekiatarik har zazue emaztetzat bana, eta zoazte Benjamingo lurrera.

22. Eta hekien aitak ethorriko direnean, eta zuen kontra hasiko direnean arranguratsen eta jazartzen, erranen diotegu: Urrikal zakizkiote; ezik ez dira hekiei lothu gerlako eta garhaiziako zuzenez, baina othoizka gal-datu darozkitzueten ondoan, eta ez diozkatzute eman, eta zuen ganik ethorri da bekhata.

23. Nola manatu, hala egin zuten Benjaminen semeek. Beren non-brearen arabera, emazte bana berentzat hartu zuten dantzan heldu ziren neskatxetarik, eta goan ziren beren tokietara: han egin zituzten hiriak eta hekiatan egotu ziren.

24. Israelgo semeak ere leinuka eta familiaka bihurtu ziren beren olhetara. Orduko egunetan erregerik etzen Israelen, baina baxhotxak, zer-ere ongi iduritzen baitzitzaioen, eta hura egiten zuen.





## ERRUTH

### I. KAP.

1. Juie baten egunetan, juieak buruzagi zirelarik, gosete bat gerthatu zen lurrera. Eta gizon bat goan zen Bethlehem Judakotik, Moab-herrira arrotz, bere emaztearekin eta bi haurrekin.

2. Bera deitzen zen Elimelek, eta emaztea Noemi; eta bi semeak, bat Mahalon eta bertzea Kelion. Ephratarrak ziren Bethlehem Judakoak. Eta Moab-herrian sarthurik, han egoten ziren.

3. Hil izan zen Elimelek, Noemiren senharra; eta Noemi bera gelditu zen bere bi semeekin;

4. Haukiek Moabitar emazteak egin zituzten; bat deitzen zen Orpha, bertzea Erruth. Han egotu ziren hamar urthez;

5. Eta biak hil izan ziren, erran nahi da Mahalon eta Kelion; eta Noemi gelditu zen bere bi haurrez eta senharraz gabetua.

6. Eta jaiki zen bere herrialdera goateko bere bi erreinekin, Moab-herritik; aditu zuen ezik Jaunak begitharte egin zioela bere populuari, eta jatekoa eman.

7. Hargatik bere bi erreinekin atheratu zen arrotz egotu zen lekhitik; eta jadanik bidean zelarik Judako lurrera bihurtzeko,

8. Erran zioeten: Itzul zaitezte zuen amaren etxera: Jauna urrikal-mendutsu izan bekizue, zuek hil direnen alderat eta ene alderat izatu zareten bezala.

9. Phausua eman bezazuete hartuko dituztuen senharren etxetan. Eta besarkatu zituen. Eta hekiek nigar marraskaz hasi ziren,

10. Erraten zutelarik: Zurekin goanen gare zure populua gana.

11. Noemik ihardetsi zioeten: Bihur zaitezte, ene haurrak; zertako ethor enekin? ene sabelean othe da gehiago semerik, zuek ni ganik igurikitzeke senharrik?

12. Itzul zaizte, ene haurrak, eta zoazte: ezen jadanik adinak azpian naduka, ez naiz ezkontzako lokharriaz gai; gaur amatzen ahal banintz ere, eta bi semez erditzen,

13. Baldin hekien begira egon nahi bazindute, hekiek handitu eta morroindu arteo, berriz ezkondu baino lehen xahartto egin zintezkete. Ez holakorik, othoi, ene haurrak, ezen zuen atsekabeak enek baino gehiago nau hestutzen: Jaunaren eskua ene kontra ilkhia da.

14. Berriz eman ziren nigar marrasketan. Orphak bere amaginarreba besarkatu zuen, eta gibelerat itzuli zen; Erruth josi zen bere amaginarrebari.

15. Noemik erran zioen: Horra non zure ahizpa bihurtu den bere herritarretara eta bere jainkoetara; zu ere zoazi horrekin.

16. Erruthek ihardetsi zuen: Ez bezaizkit trebes jar, utz zaitzadan eta goan nadiantzat; ezen norat-nahi egin dezazun, haratko naiz; eta non-ere geldituko baitzare, ni geldituko naiz halaber. Zure populua ene populua izanen da, zure Jainkoa ene Jainkoa.

17. Zein lurrek hartuko baitzaitu hiltzen zarenean, hartan hilen naiz ni ere, hartan izanen da ene hobia. Edozein gaitzez jo beneza Jaunak, eta egin bezat gehiago oraino, baldin deusek-ere, herioaz landan, berezten banau zu ganik.

18. Noemik ikhusririk beraz gogo sendo batekin hartu zuela harekin goateko asmua, etzuen nahi izan zeiber jarri, ez-eta gehiago aipatu bere herritarretara bihurtzeaz.

19. Bideari batean eman ziren eta ethorri Bethlehemera. Hirira sartu zirenean, berriak laster jo zuen orotara; eta emaztekiek erraten zuten: Hau da behialako Noemi.

20. Noemik erran zioeten: Ez benezazue deith Noemi (erran nahi da ederra), bainan deith nezazue Mara (erran nahi da uherra), zeren uherdura handiz bethe bainau Ahalorotakoak.

21. Bethea ilkhi naiz, eta hutsa bihurrazten nau Jaunak. Zertako beraz deitzen duzue Noemi Jaunak aphaldu duena, Ahalorotakoak atsekabez bethe duena?

22. Horreletan ethorri zen Noemi bere erromeriako lurretik, bere erreina Erruth Moabitarrarekin; eta Bethlehemera bihurtu zen garagarra- ren ephaiten hasiak zirenean.

### II. KAP.

1. Bada, ahal handiak eta onthasun hainitz zuen gizon bat bazen, Elimeleken ahaidea, Booz deitzen zena.

2. Erruth Moabitarrak bere amaginarrebari erran zioen: Zuk nahi baduzu, goanen naiz landetara, eta uztazaleari itzuri burukak bilduko ditut, atzemanen dudan lekhu guzietan bihotz-oneko aita familiako bat, begitharte eginen darotana. Noemik ihardetsi zioen: Zoazi, ene haurra.

3. Goan zen beraz, eta burukak biltzen zituen uztazaleen gibeletik. Gerthatu zen, bada, landa haren nausia zela Booz, Elimeleken ahaidea.



4. Eta hara non bera Bethlehetik ethortzen zen, eta uztazaleei erran zioeten: Jauna bedi zuekin. Haukiek ihardetsi zioten: Jaunak benedikata bezaitza.

5. Uztazaleen buruko zen gizon gazte bati erran zioen Boozek: Norena da neskata hori?

6. Harek ihardetsi zuen: Noemirekin Moab-herritik ethorri den Moabitarra da hori.

7. Othoiztu gaitu utz dezazun gelditzen diren buruken biltzera, uztazaleen ondotik; eta goizetik hunat landan da, eta ez da aphur bat ere etxera bihurtu.

8. Boozek erran zioen Erruthi: Adi zazu, neskata, ez bezedi nihora goan buruka biltzera, bainan zaude landa huntan, eta zoazi ene neskate-tara,

9. Eta jarraik zaitezi uzta egin duketen tokietara. Manatu diotet ezen ene muthilei, nihork ez dezazun nahigaberik eman: eta egarritzen bazina ere, zoazi untziak diren lekhura, eta edan zazu ene muthilek edaten duten uretarik.

10. Ahuspez eroririk eta lurean adoratzen zuelarik, Erruthek erran zioen: Nondik dathorkit grazia zure begien aitzinean aurkhitu dudala, eta nardatu gabe jausten zarela ene ezagutzera, ni arrotz gaixoa?

11. Boozek ihardetsi zioen: Zure senharra hil ondoan, zure amaginarrebarentzat egin dituzun guzien berriaz jakina naiz; nola utzi dituzun zure ahaideak eta zure sorlekhoa, ezagutzen etzinduen populu batera ethortzeko,

12. Bihur bezazu Jaunak zure egintzaren arabera; sari oso bat ardiets dezazula Israelgo Jainko Jauna ganik, zeinaren gana ethorri baitzare eta zeinaren hegalen azpira ihes egin baituzu.

13. Erruthek erran zioen: Grazia aurkhitu dut zure begien aitzinean, jauna, zu, kontsolatu nauzuna, eta mintzatu zarena zure sehiaren bihotzari, ez naizelarik zure sehietarik baten bethe.

14. Boozek erran zioen: Jateko tenorea ethorri ditakeenean, zato hunat, jan zazu ogia, eta zure ahamena minagrea busti zazu. Jarri zen beraz uztazaleen sahetsean, garagar xigorretik hartu zuen beretzat, jan zuen eta ase zen eta ondarrak begiratu zituen.

15. Eta handik jaiki zen, ohi bezala buruken biltzeko. Bada, Boozek manu hau eman zioten bere muthilei: Zuekin biltzen hari nahi balu ere, ez bezazue debeka.

16. Zuen eskumenetarik ere berariaz arthik zatzue, eta utz gibelerat, ahalkerik gabe bil detzan, eta biltzen dituenen nihork ez bezo gaizkirik erran.

17. Arrats arteo haritu zen beraz landan biltzen; eta bildu zuena zaharo batekin jorik eta iharrosirik, khausitu zuen ephi baten inguruaren garagarra, erran nahi da hirur gaitzeru.

18. Hekiek soinean, itzuli zen hirira; erakhutsi ziozkan bere amaginarrebari; bertzalde aitzinera ekharri eta eman ziozkan, ase-ta begiratu zituen jateko ondarretarik.

19. Amaginarrebak erran zioen: Non haritu zare egun biltzen? non haritu zare landan? Benedikatua izan bedi zutaz urrikaldu dena. Erruthek erran zioen noren baithan haritu zen lanean; erran zioen gizonaren izena, zeina Booz deitzen baitzen.

20. Noemik ihardetsi zioen: Jaunaz benedikatua izan bedi, zeren biziei erakhutsi izan dioeten begitharte bera begiratu baitiote hilei ere. Eta berriz erran zuen: Gure ahaide hurbila da gizon hura.

21. Erruthek erran zuen: Hau ere manatu darot, haren uztazaleetara goan nadiela, uzta guziak bildu arteo.

22. Amaginarrebak ihardetsi zioen: Hobe duzu, ene haurra, haren neskatekin uztatzera ilkhi zaitez, nahigaberik izan ez dezazun bertze baten landan

23. Hargatik Boozen neskatekin ibili zen, eta hekiekin biltzen haritu zen, garagarra eta ogiak barnera sarthu arteo.

### III. KAP.

1. Bada, itzuli zenean bere amaginarrebaren gana, haren ganik entzun zuen solas hau: Ene haurra, phausua bilhatuko darotzut, eta zure ongi izateko bideak hartuko ditut.

2. Booz hura, zeinaren neskatekin landan ibili baitzare, gure ahaide hurbila da, eta gau huntan haizatzen du garagarra bere larrinean.

3. Jaiki zaite beraz, gantzu zaite, eta zure soineko ederrenak jauntz zatzu; zoazi larrainera: Boozek ez bezaitza ikhus, bere jan-edanak egin dituen arteo.

4. Ordean lotara goanen denean, begietan har zazu non lo egingen duen; goanen zare, agertuko duzu haren zangoen gaineko kapa, etzanen zare eta hedatua han egonen. Gero berak erranen darotzu zer egin behar duzun.

5. Erruthek ihardetsi zuen: Zuk erran guzia egingen dut.



6. Eta larrainera jautsi zen, eta amaginarrebak manatu-ziozkanak oro egin zituen.

7. Jan eta edan ondoan, Booz arraiago egin zenean, lotara goan zen espal meta baten ondora; Erruth orduan ethorririk emekitto, kapa agertu zuen zangoen aldetik eta etzan zen.

8. Eta hara non gauherdi gainean Booz lastu eta asaldu zen, eta emaztekoa ikhusi zuen bere oinetan etzana.

9. Eta erran zioen: Nor zare? Harek ihardetsi zuen: Zure neskato, Erruth naiz; heda zazu zure kapa zure sehiaren gainera, ezen ahaide hurbila zare.

10. Boozek erran zioen: Jaunaz benedikatua zare, haurra, zure urri-kaltzapan bigarrenak txitzen du lehenbizikoa, zeren ez baitituzu bilhatu gizon-gazteak, nahiz beharrak, nahiz aberatsak.

11. Ez izan beraz beldurrik, baina erran darotazun guzia eginen dut; ezen badaki hiri huntako atheen artean dagoen populu guziak emazteki berthutetsu bat zarela.

12. Ez dut erraten ez naizela ahaide hurbila, baina bada bertze bat hurbilagoa dena.

13. Phausa zaite gau huntan; eta goiza ethorri denean, harek nahi bazaitu iduki ahaidetasuneko zuzenez, gauza ongi egina da; baina harek nahi ez badu, segurki hartuko zaitut nik, zin egiten dut Jaunaz. Lo egizu goiza arteo.

14. Haren oinetan lo egin zuen beraz argitze arteo. Jaiki zen gizonen elkhar ezagut zezaketen baino lehen, eta Boozek erran zioen: Berautzu nihork jakin dezan hunat ethorri zarela.

15. Erran zioen berriz: Heda zazu zure soineko kapa, eta bi eskuez atxik zazu. Erruthek kapa hedatua zadukalarik, Boozek neurtu ziozkan sei gaitzeru garagar eta hartan ezarri. Hekiek soinean, Erruth hirira sartu zen.

16. Goan zen bere amaginarreba gana, zeinak erran baitzioen: Haurra, zer egin duzu? Erruthek khondatu ziozkan Boozek harentzat egin zituen guziak.

17. Eta erran zuen: Huna, sei gaitzeru garagar eman darozkit, zioelarik: Ez dut nahi zure amaginarreba gana hutsik itzul zaitezen.

18. Noemik erran zioen: Zaude, haurra, ikhusi arteo zer atheratuko den huntarik: ezik Boozek ez du onik izanen erran dituenak bethe arteo.

#### IV. KAP.

1. Booz goan zen beraz hiriko athera eta han jarri zen. Eta iragaiten ikhusi zuenean aitzinean aiphatu den ahaidea, bere izenaz deitzen zuelarik, erran zioen: Zaude aphur bat, eta jar zaite hemen. Hau aldaratu zen eta jarri.

2. Bada, Boozek hamar gizon harturik hiriko zaharretarik, erran zioeten: Jar zaizte hemen.

3. Jarri zirenean, hunela mintzatu zen bere ahaideari: Gure anaia Elimeleken landaren zathi bat saltzera darama Noemi, Moab-herritik itzuli denak.

4. Nahi izan zaitut hortaz jakintsun egin eta zuri erran hemen jarriak diren guzien eta ene herritarretako zaharren aitzinean. Baldin gozatu nahi baduzu ahaidetasuneko zuzenez, eros zazu eta goza; baina hori ez bada zure gogara, mintza zaite, jakin dezadan zer dudan egiteko; ezen ez da ahaiderik, baizik-ere zu lehenbiziko zarena eta ni bigarren naizena. Hunek ihardetsi zuen: Nik erosiko dut landa.

5. Boozek erran zioen: Noemiren eskutik landa erosi dukezunean, ezkontzaz beharko ere duzu hartu Erruth Moabitarra, hil denaren emazte izatua, zure ahaidearen izena biziarazteko haren primantzan.

6. Hunek ihardetsi zuen: Uzten dut ahaidetasuneko zuzena, ezen ez dut galdu behar ene familiako leinua. Zu balia zaitezi ene zuzen berezia, zeinetaz gogo onez biluzten naizela aithorra ematen baitut.

7. Bada, hau zen Israelen aztura zaharra ahaideen arteko, non bataik bertzeari ematen zioenean bere zuzena, emaitza ona izatekotzat, emaileak khentzen zuen bere oinetakoa, eta bere ahaideari ematen zioen: hori zen, Israelen, emaitzaren lekhukotasuna.

8. Boozek erran zioen beraz bere ahaideari: Khen zazu zure oinetakoa. Eta hunek khendu zuen berehala zangotik.

9. Boozek erran zuen zaharren eta populu guziaren aitzinean: Lekhuko zarete egun, Elimelekenak, Kelionenak eta Mahalonenak izatu diren guziez jabetzen naizela Noemiren eskutik;

10. Eta ezkontzaz hartzen dudala Erruth Moabitarra, Mahalonen emaztea, haren izena biziaraz dezadan haren primantzan, eta haren deiturura gal ez dadien haren familatik, anaietarik eta populutik. Zuek, diot, gauza horren lekhuko zarete.

11. Athean zen populu guziak eta zaharrek ihardetsi zuten: Lekhuko gare: Jaunak, zure etxean sartzen den emazteki hori eragin beza iduri Errakel eta Lia, zeinek sorthu baitute Israelen etxea, Efratan izan



dadientzat berthutezko ikhugarri bat, eta haren izena deithatua izan dadien Bethlehemen.

12. Phares, Thamarrek Judari eman semearen etxea iduri egin bedi zure etxea, Jaunak neskaxa horren ganik emanen darozkitzun umeatarik.

13. Boozek Erruth hartu zuen beraz eta bere emazte egin. Sarthu zen haren gana, eta Jaunak eman zioen izorra gertha eta seme batez erdi zedin.

14. Eta hango emaztekiek Noemiri erraten zioten: Benedika bedi Jauna, zeinak ez baitu jasan gal zedin zure familiako ondorea, eta zure izena deithua etzedin Israelen,

15. Izan dezazuntzat nork kontsola zure anima eta nork haz zure zahartzea: ezen zure erreina maite zaituena ganik sorthu da seme bat; eta hainitez hobe da zuretzat ezenez zazpi seme bazintu.

16. Noemik haurra harturik, ezarri zuen bere altzoan, eta unhidearen eta haurzainaren eginbideak bethetzen zituen.

17. Hauzoko emaztekiek berriz, bozten zirelarik, erraten zuten: Noemiri sorthu zaio seme bat. Deithu zuten Obed. Hura izan da Isairen aita, eta Isai Dabidena.

18. Huna Pharesen ondoregoa: Pharsek izan zuen Efron,

19. Efronek izan zuen Aram, Aramek Aminadab,

20. Aminadabek Nahason, Nahasonek Salmon,

21. Salmonek Booz, Boozek Obed,

22. Obedek Isai, Isaik izan zuen Dabid.

## ERREGEAK I. LIBURUA

### I. KAP.

1. Bazen gizon bat Erramathaimsophingoa, Efraimgo mendian. Elkana deitzen zen; Jerohamen Seme zen, Jeroham Eliuren, Eliu Thohuren eta Thohu Suphen seme. Efraimtarra zen.

2. Izan zituen bi emazte, zeinak deitzen baitziren, bat Ana, eta bertzea Phenena. Phenenak bazituen semeak, baina Anak etzuen haurrik.

3. Eta gizon hura bere hiritik igaiten zen, egun manatuetan, Silora armadetako Jaunaren adoratzera, eta hari sakrifizioen eskaintzera. Bada, han ziren Heliren bi seme, Ophni eta Phinees, Jaunaren aphezak.

4. Elkana beraz ethorri zen egun batez, imolatu zuen bitima, eta eman ziozkaten Phenena, bere emazteari, eta bere seme-alaba guziei beren zathiak;

5. Baina Anari eman zioen zathi bakhar bat, gogoa ilhunik, zeren maite baitzuen Ana. Bada, Jaunak agor utzi zuen.

6. Phenenak ere, bekhaitzez, nahigabe ematen zioen, eta borthizki jasanarazten, hanbatetaraino, non eskarnioka baitzerabilkan, Jaunak agor utzi zuelakotz.

7. Eta horrela egiten zuen urthe oroz, muga ethorririk, Jaunaren tenplora igaiten zirenean; horrela jazartzen zioen; eta Ana nigarrari ematen zen eta janharirik etzuen hartzen.

8. Elkana bere senharrak erran zioen beraz: Ana, zertako egiten duzu nigar? zertako ez duzu jaten? zertako eritzen da zure bihotza? Ez othe natzaitzu hobe ezenez hamar seme?

9. Bada, Silon jan eta edan ondoan, Ana jaiki zen. Eta Heli apheza Jaunaren tenploko athean bere alkhian jarria zagoelarik,

10. Nola Anak bihotza zaurthua baitzuen, Jaunari othoitz egin zioen, nigarretan urtzen zelarik;

11. Eta botu egin zuen; zielarik: Armadateko Jauna, zure neskatoari begiratuz, ikhusten baduzu ene bihotzmina, orhoitzen bazare nitaz, ez bazaitzu ahanzten zure sehia, eta zure neskatoari seme bat ematen badiotzu, hura bere bizitzeko egun guzietako emanen diot Jaunari, eta bizarna-bala ez da haren buru gainean iraganen.

12. Bada, nola othoitz eta othoizka hari baitzen Jaunaren aitzinean, gerthatu zen Heli ohartu zela haren aho higitzei;



13. Ezen Ana bihotzez mintzo zen; haren ezpainak bakharrik higitzen ziren, eta haren ganik hitz bat etzen aditzen. Helik uste izan zuen beraz mozkorra zela,

14. Eta erran zioen: Noiz arteo egonen zare hordi? Utzazu aphur bat iragaitera ahotik dariozun arno hori.

15. Anak ihardetsi zioen: Ez, jauna; emazteki guziz dohakabe bat naiz; ez dut arnorik edan, ez-etare mozkor dezaketen edarietarik batere, bainan ene bihotza ixurtzen dut Jaunaren aitzinean.

16. Ez bezazu uste izan zure neskatoa dela Belialen alaben iduriko, ezen ene bihotzminaren eta atsekabeen handiak mintzarazi nau orai arteo.

17. Helik erran zioen orduan: Zoazi bakean; Israelgo Jainkoak emanen darotzu othoizka galdatu diozuna.

18. Anak ihardetsi zuen: Oxala zure sehiak grazia aurkhi baleza zure begien aitzinean! Eta emaztekoa goan zen bere bidean; jan zuen, eta haren begithartea etzen gehiago alde orotara ifrentziatu.

19. Biharamun goizean jaiki ziren guziak, adorazionea egin zuten Jaunaren aitzinean, eta gero bihurtu ziren eta etxerat ethorri Erramathara. Bada Elkanak bere emaztea ezagutu zuen, eta Jauna orhoitu zen hartaz.

20. Handik egunak bethe zirenean, gerthatu zen Ana amatu zela eta seme batez erdi, eta deithu zuen Samuel, zeren Jaunari galdatu zioen.

21. Bada, Elkana, haren senharra, eta etxe guzia igan ziren bestetako bitimaren imolatzeko, eta bere botuaren bethetzeko.

22. Ana etzen igan, ezik erran zioen bere senharrari: Ez naiz ni goanen haurra higuindua izan dedien arteo; gero eramanen dut, alfer dadien-tzat Jaunaren aitzinean eta han egon dadien bethi.

23. Elkana, bere senharrak, erran zioen: Egizu ongi zaitzun bezala, eta zaude haurra higuindu arteo; othoizten dut Jauna bethe dezan bere hitza. Anak hazi zuen beraz bere semea eta etxean egotu zen hari bulharrak khendu arteo.

24. Higuindu zuenean, hartu zituen hirur xahal, hirur gaitzeru irin eta pitxer bat arno, eta bere semea eraman zuen Jaunaren etxera, Silora. Bada, haurra oraino xumettoa zen.

25. Imolatu zuten xahal bat eta haurra Heliri aitzinera erakharri zioten.

26. Anak erran zioen: Jauna, nola hemen bizirik baitzare, hain egia da ni naizela zure aitzinean Jaunari othoitzez egotu zen emazteki hura.

27. Haur hunentzat othoiztu dut, eta Jaunak onhetsi darot egin diodan galdea.

28. Hargatik nik ere Jaunari eman diot Jaunak emanen diozkan egun guzietako. Eta han adoratu zuten Jauna. Eta Anak othoitz egin zuen, erraten zuelarik:

## II. KAP.

1. Ene bihotza bozkarioz jauzi da ene Jauna baithan, eta ene ospea goratu da ene Jainkoa baithan; ene ahoa ideki da ene etsaien gainera, zeren goiheretu bainaz zure eskuko laguntzan.

2. Ez da saindurik Jauna bezalakorik, ezen saindurik ez da zutaz landan, eta hazkarrik ez da nola baita gure Jainkoa.

3. Ixil beitez zuen solas hanpurutsuak, oi zuen buruen espantatzen hari zaretanak; zuen ahotik gibela beitez ohiko elheak; zeren Jauna baita jakitate guziak dituen Jainkoa, eta harek daki gogoeta guzien berri.

4. Kraskatu da hazkarren balazta, eta herbalak indarrez gerrikatuak izan dira.

5. Ontasunez lehen gaintuak zirenak, alokarioan jarri dira jan truk, eta goseak zaudezenak ase dira; agorra zen emaztekiak izan ditu asko haur, eta asko zituna agor egin da.

6. Jaunak khentzen eta ematen du bizia; ifernuetara arthikitzen du eta handik ilkhitzen.

7. Jaunak dema beharra, dema aberastasuna; harek aphaltzen, harek goititzen du.

8. Herrautsetik atheratzen du noharroina, ongarririk erromesa, jar dadien aitzindariekin eta iduk dezan ospezko alkhia. Ezen Jaunarenak dira lurraren habeak eta hekien gainean jarri du mundua.

9. Begiratuko ditu bere sainduen oinak, eta gaixtaginak ixilik egonen dira beren ilhunpeetan, ezen gizona, bere indar guziarekin, herbal geldituko da.

10. Jaunaren etsaiak ikharan egonen dira haren beldurrez; Jaunak hekien gainera ihurtzuria karraskaraziko du zeruetarik; Jaunak juiatuko ditu lurreko lau izkinak, erreinua emanen dio bere eskuko erregeari eta altxatuko du bere Kristoren botherea.

11. Gero Elkana goan zen Erramathara, bere etxera; haurra ordean zerbitzatzen zen Jaunaren aitzinean, Heli aphezaren begien azpian.

12. Bada, Heliren semeak, Beliaten seme ziren, eta etzuten Jauna eza-gutzen,

13. Ez-etare aphezen eginbideak populuaren alderat; bainan edozeinek imola zezan bitima bat, aphezaren semea heldu zen, haragiak egosten hari zirelarik, hiruhortzekotto bat eskuan,



14. Eta hura sartzen zuen bertz handian edo ttipian, eltzean edo duphinan; eta biruhortzekoaz altxatzen zuen guzia, aphezak bazeraman bereztat. Hola egiten zioten Silora heldu ziren Israeldar guziei.

15. Orobat bilgorra erre baino lehen, aphezaren semea heldu zen, eta imolatzeko zuenari erraten zioen: Indazu haragia, aphezarentzat erre dezadan, ezen ez dut zure ganik haragi errerik hartuko, bainan bai gordina.

16. Imolatzeko zuenak erraten zioen: Bilgorra egun erre bedi lehenik ohitzaren arabera, eta gero hartuko duzu nahi duzun bezenbat haragi. Hunek ihardesten zioen: Ez, orai emanen darotazu, bertzela bortxaz hartuko dut.

17. Aphezaren semeen bekhatua guziz handia zen beraz Jaunaren aitzinean, zeren gizonak gibelatzen baitzituzten Jaunaren sakrifiziotik.

18. Bada, Samuel, muttikottoa zerbitzatzen zen Jaunaren aitzinean, liho-harizko ephodo bat soinean.

19. Eta bere amak egiten zioen athorra xume bat, ekhartzen zioena bestetako egun berezietan, bere senharrarekin igaiten zenean bestako bitimaren imolatzera.

20. Helik benedikatu zituen Elkana eta bere emaztea, eta Elkanari erran zioen: Jaunak emazteki hunen ganik bihur betzatu haurrak, Jaunari eman diozun bahiaren kariaz. Gero itzuli ziren beren etxera.

21. Jaunak egin zioen beraz ikhustate Anari, zeina amatu eta erdi baitzen hirur semez eta bi alabaz; eta Samuel haurra handitzen zen Jaunaren aitzinean.

22. Bada, Heli adin handitan zen. Nabaditu zituen bere semeek Israel guziari egiten ziozkatena oro, eta nola lo egiten zuten tabernakleko sartzean beilatzen zuten emaztekiekin.

23. Eta erran zaroeten: Zertako egiten duzue holakorik, populu guziaren ganik aditzen ditudan gauza itsusiak?

24. Berautzue, ene semeak, horietarik; ezen ez da ona nik entzuten dudana leloa, Jaunaren populuari hautsarazten diozuela legea.

25. Gizonak gizonaren kontra bekhatu egiten badu, Jainkoa jabalaraz daiteke hobendunaren alderat: bainan Jaunaren kontra egiten badu, nork harentzat eginen du othoitz? Eta etzuten entzun izan beren aitaren boza, zeren Jaunak hil nahi baitzitu.

26. Bada, Samuel haurra egiten eta handitzen hari zen, eta zen halaber Jaunaren eta gizonen gogarako.

27. Bizkitartean Jainkoaren gizon bat ethorri zen Heli gana, eta erran zaroen: Hau dio Jaunak: Ez othe naiz garbiki agertu zure aitaren etxeari Egipton zirenean Faraonenpeko?

28. Hura berezi dut Israelo leinu guzien artean aphez izateko, igan zadien ene aldarera, niri erre zezan isentsua, eta ephodoa erabil zezan ene aitzinean; eta zure aitaren etxeari eman izan diozkat Israelgo semeen sakrifiziotarikako guziak.

29. Zertako ostikatu ditutzu ene bitima eta enetzateko emaitzak nik tenploan eskeintzeko manatuak? eta zertako niri baino ohore gehiago ekharri diozute zure semeei, hekiekin janez Israelgo ene populuaren sakrifizio guzietako pikainak?

30. Hargatik huna zer dioen Israelgo Jainko Jaunak: Ene ahoz erran izan dut zure etxeak eta zure aitaren etxeak bethi guzian zerbitzatuko zuela ene aitzinean. Bainan orai Jaunak dio: Urrun hori ni ganik; haina goretsiko dut zeinak goretsiko bainau; bainan laidatzen nautenak, berak izanen dira laidagarri.

31. Huna non dathortzen egunak zeinetan ebakiren baititut zure besoa eta zure aitaren etxeko besoa, ez baita zaharrik atheratuko zure etxean.

32. Eta ikhusiko duzu tenploan bertze bat zure orde jarria, Israel izanen delarik zorion guzien erdian; eta ethorkizun guzian zaharrik zure etxean izanen ez da.

33. Orogatik ez dut alde bat khenduko zure odola ene aldaretik; bainan eginen dut iraungi ditezen zure begiak, eta ihar dadien zure arima; eta zure etxetik hainitzak hilen dira gizon adinerat direneko.

34. Ezagutkarizat hau izanen duzu, zure bi semeei Ophni eta Phineesi gerthatuko zaroetana, biak egun berean hilen baitira.

35. Eta eraikiko dut enetzat aphez bat zirritua, ene bihotzaren eta ene arimaren gogara eginen duena, eta nik eginen diot etxe bat sendoa, eta egun oroz ibiliko da ene Kristoren aitzinean.

36. Gerthatuko da, bada, orduan zure etxekorik gelditu ditakeena, ethorriko dela beretzat othoitz eske, eta eskainiko dituela zilhar-dirutto bat eta ogi-ophil bat, eta erranen duela: Indazu, othoi aphez-zathi bat, jan dezadan ogi-ahamen bat.

### III. KAP.

1. Bada, Samuel haurra Jaunaren aitzinean zerbitzatzen zen Heliren begien azpian, eta orduko egunetan Jaunaren hitza bakhandua zen, etzen agerkhuntza garbirik.

2. Gerthatu zen, bada, egun batez, Heli bere lekhuaren etzana zagoe-la, eta lanbrotuak ziren haren begiak, eta etzezakeen ikhus.



3. Jainkoaren argia hil zedin baino lehen, Samuel lo zagoen, Jaunaren tenploan, zeinetan baitzen Jainkoaren arkha;
4. Jaunak deithu zuen Samuel. Hunek ihardetsi zuen: Huna ni.
5. Eta jo zuen Heliren gana eta erran zioen: Huna non naizen, ezik deithu nauzu. Helik ihardetsi zioen: Etzaitut deithu, itzul zaite eta lo egizu. Goan zen eta loak hartu zuen.
6. Eta Jauna berriz abiatu zen Samuelen deitzen. Samuel jaikirik, goan zen Heli gana, eta erran zioen: Huna non naizen, zeren deithu bainauzu. Helik ihardetsi zioen: Etzaitut deithu, ene haurra, itzul zaite eta lo egizu.
7. Bada, Samuelek etzuen oraino ezagutzen Jauna, eta Jaunaren hitza etzitzaioen agertu.
8. Eta Jauna berriz abiatu zen eta oraino deithu zuen Samuel hirugarren aldiko. Samuel jaikirik, goan zen Heli gana,
9. Eta erran zioen: Huna non naizen, zeren deithu bainauzu. Helik ezagutu zuen beraz Jaunak deitzen zuela haurra, eta erran zioen Samueli: Zoaz eta lo egizu, eta gehiago deitzen bazaituzte, erranen duzu: Mintza zaite, Jauna, zeren zure zerbitzariak entzuten baitzaitu. Samuel goan zen beraz, eta bere lekhuana lokhartu zen.
10. Jauna ethorri zen, eta gelditurik, deithu zuen, lehen bezala bietan: Samuel, Samuel. Eta Samuelek erran zuen: Mintza zaite, Jauna, zeren zure zerbitzariak entzuten baitzaitu.
11. Eta Jaunak erran zioen Samueli: Huna solas bat daramat Israelen; edozeinek adi dezan, xixtuka hasiko baitzaizko bere bi beharriak.
12. Egun hartan Heliren kontra eraikiko ditut haren etxeaz erran ditudan guziak: hasiko naiz eta akhabatuko dut.
13. Ezen aitzinetik jakintsun egin dut haren etxearen bethiko juiatze-kotan nintzela, hango tzarkeria gatik, zeren eta baitzakien itsuski zabilzkiola bere semeak, eta ez baititu gaztigatu.
14. Hargatik zin egin izan diot Heliren etxeri, ez dela haren etxeko tzarkeria behinere guzian, ez bitimez, ez eta emaitzez xahutuko.
15. Bada, Samuelek goizeraino lo egin zuen, eta ideki zituen Jaunaren etxeko atheak. Bainan lotsa zen Heliri erakhusterat ematea izan zuen agerkuntza.
16. Helik deithu zuen beraz Samuel, eta erran zioen: Samuel, ene haurra. Hunek ihardetsi zioen: Huna non naizen.
17. Helik galdatu zioen: Zer da solasa Jaunak erran darotzuna? Othoizten zaitut, ez bezadazut gorde. Hau egin bezazu Jainkoak, eta hori

gainetik, baldin hitz bat estaltzen badarotazu erranak izan zaizkitzun solas guzietarik.

18. Hargatik Samuelek agertu ziozkan solas guziak, eta etzioen bate-re estali. Helik ihardetsi zuen: Jauna da, egin beza bere begietan ongi zaio-ena.
19. Bada, Samuel handitu zen, eta Jauna harekin zen, eta Jaunaren solas guzietarik bat etzen lurrera erori.
20. Eta Danetik Bersabeeraino, Israel guziak ezagutu zuen Samuel Jaunaren egiatzko profeta zela.
21. Eta berriz ere Jauna agertu zen Silon, ezik Jauna Silon agertu zitzaioen Samueli, Jaunaren hitzaren arabera. Eta Samuelek Israel guziari errana gerthatu izan zen.

#### IV. KAP.

1. Bada, orduko egunetan gerthatu zen Filistindarrak bildu zirela gerlara. Israel gudukatzera ilkhi zen Filistindarren bidera eta kanpatu zen Laguntza-harrin. Eta Filistindarrak Aphekera ethorri ziren,
2. Eta armada lerrotan ezarri zuten Israelen kontra. Bainan gudua hasi ondoan Israelek ihes egin zioten Filistindarrei, eta bazterretan horemeka hilak izan ziren gudu hartan lau mina gizonen ingurutsua.
3. Populua itzuli zen kanpetara, eta Israelgo zaharrenek erran zuten: Zertako Jaunak jo gaitu egun Filistindarren aitzinean? Jaunaren batasuneko arkha Silotik gutara ekhar dezagun, eta gure erdira ethor bedi, athera gaitzan gure etsaien eskuetarik.
4. Populuak igorri zuen beraz Silora, eta handik ekharri zuten armadetako Jaun, kerubinen gainean jarria dagoenaren batasuneko arkha; eta Heliren bi semeak, Ophni eta Phinees, ziren Jainkoaren batasuneko arkharekin.
5. Eta Jaunaren batasuneko arkha kanpetara ethorri zenean, Israel guziak oihu handi bat egin zuen, eta lurak ihardetsi zuen.
6. Filistindarrek oihu hori aditu zuten, eta erran zuten: Zer da oihu handi hori Hebrearren kanpetan? Eta ezagutu zuten Jaunaren arkha ethorri zela kanpetara.
7. Filistindarrak lotsatu ziren, ziotelarik: Jainkoa kanpetara ethorri da. Eta auhnetan eman ziren, ziotelarik:
8. Zorigaitz guri, ezen etziren horrenbateko bozkalentzian, ez atzo, ez herenegun! zorigaitz guri! Nork gu athera Jainko ikharagarri horien eskutik? horiek, dira Jainkoak Egipto guzia mortuan zer-nahi izurriz jo izan dutenak.



9. Filistindarrak, altxa bihotzak, eta izan zaizte gizon; ez betzatzue zerbitza Hebrearrak, hekiek gu zerbitzatu gaituzten bezala. Altxa bihotzak eta guduka!

10. Filistindarrak gudukatu ziren beraz. Israel sarraskitua izan zen, eta baxhotzak bere olhara ihes egin zuen; eta sarraski gaitza egina izan zen; hogoi eta hamar mila oinezkok Israeldik lurra jo zuten.

11. Jainkoaren arkha hartua izan zen eta Heliren bi semeak ere, Ophni eta Phinees hilak izan ziren.

12. Bada egun berean Benjamintar bat armadatik lasterka ethorri zen Silora, soinekoa xehakatu eta burua herrautsez estalia.

13. Eta gizon hori ethorri zenean, Heli bere alkhian jarria zagoen bideko aldera begira. Ezen haren bihotza Jainkoaren arkharentzat ikharan zagoen. Bada, sarthu zen ondoan, gizonak hiriarri eman zioen berria, eta hiri guzia marrasketan jarri zen.

14. Helik aditu zituen heigora hekiek, eta erran zuen: Zer da harra-mantz hortako deihadarra? Eta Benjamintarra berehala ethorri zitzaioen eta berria ekharri zioen Heliri.

15. Bada, Helik orduan bazituen lau hogoi eta hemezortzi urthe; haren begiak lanbrotuak ziren, eta etzezakeen ikhus.

16. Benjamintarrak erran zioen: Ni naiz gudutik ethorri naizena eta ni naiz egun armadatik itzuri naizena. Helik erran zioen: Zer gerthatu da egun, ene semea?

17. Berri-ekharleak ihardetsi zioen: Israelek ihes egin du Filistindarraren aitzinean, eta galtze gogorra egin da populuari: bertzalde zure bi semeak ere, Ophni eta Phinees, hil dira; eta Jainkoaren arkha hartua da.

18. Eta Jainkoaren arkha aphaitu zuenean, Heli alkhitik erori zen gibelerat atheari buruz, eta burfuinak leherturik, hil izan zen; zaharra zen ezik eta adin handitan, eta Israel juiatu izan zuen berrogoi urthez.

19. Bada, haren erreina, Phineesen emaztea, izorra zen eta erditzeko heintsutan; eta aditurik Jainkoaren arkha hartua zelako berria, eta aitagi-narriba eta senharra hilak zituela, gurthu zen eta erdi; ezen erditzeko minak jauzi zitzaizkon.

20. Eta hiltzera zihoalarik, haren inguruan zauden emaztekiek erran zioten: Ez lotsa, ezen seme batez erdi zare. Etzioten ihardetsi, eta etzen ohartu ere.

21. Eta izena eman zioen Ikabod bere semeari, zioelarik: Bere aitagi-narriba gatik eta senharraren gatik bertzetaratu da Israelen ospea, zeren hartua baita Jainkoaren arkha.

22. Eta erran zuen: Ospea Israeldik bertzetaratu da, Jainkoaren arkha hartua zelakotz.

## V. KAP.

1. Bada Filistindarrek hartu zuten Jainkoaren arkha, eta Laguntza-harritik Azotera eramán zuten.

2. Filistindarrek Jainkoaren arkha hartu zuten, eman zuten Dagonen tenploan eta Dagonen aldean ezarri.

3. Azotarrak biharamun argi hastean jaiki zirenean, hara non Dagon lurrean hedatua zagoela Jaunaren arkharen aitzinean; eta Dagon hartu zuten eta berriz bere lekhuari ezarri.

4. Biharamunago goizean berriz ere jaikitzearekin, Dagon atzeman zuten mustupilka lurrean hedatua Jaunaren arkharen aitzinean; bainan Dagonen burua eta bi eskuak moztuak athelasean zauden.

5. Dagonen gorputza baxharrik zen bere lekhuari. Aria hortaz Dagonen aphezek eta haren tenploan sartzen diren guziek ez dute egungo eguna arteo oinaz ukitzen Dagonen athelasa Azoten.

6. Bada, Jaunaren eskua dorphetu zen Azotarren gainera, eta xahutu zituen; gibelesko lekhurik gordeenean zaurthu zituen Azotarrak eta hekien eremuetakoak. Eta arratoinak sorthu ziren eta toki hartako herri eta bazterrak halakoz irakitu ziren, eta heriotzeketa handiz hiria deubilatua izan zen.

7. Azotarrek ikhustearrekin horrelako izurria, erran zuten: Israelgo Jainkoaren arkha ez bedi gutartean egon, zeren haren eskua dorphe baita gure gainean eta gure jaiko Dagonen gainean.

8. Eta igorrik, beren gana bilarazi zituzten Filistindarren satrapa guziak, eta erran zuten: Zer egingen dugu Israelgo Jainkoaren arkhaz? Jetharrek ihardetsi zuten: Israelgo Jainkoaren arkha inguruka erabilia izan bedi. Eta inguruka erabili zuten Israelgo Jainkoaren arkha.

9. Eta inguruka zerabilkatarik, Jaunaren eskuak heriotzeketa handia hedatzen zuen hiri baxhotxaren gainera; hiri baxhotxeko gizonak, ttipitik handiraino, zaurtzen zituen; eta atheratzen eta usteltzen zitzaizkoten sabelesko bertzeak. Jetharrek, hortaz beren artean egonik, larruzko jarlekuak egin zituzten.

10. Eta igorri zuten beraz Akaronera Jainkoaren arkha. Eta Jainkoaren arkha Akaronera heldu izan zenean, Akarontarrak oihuz hasi ziren ziotelarik: Israelgo Jainkoaren arkha gutara ekharri dute, gu eta gure populuaren hilarazteko.





11. Hargatik igorri zituzten gizonak, eta Filistindarren satrapa guziak bilarazi zituzten. Haukiek ihardetsi zuten: Utz zazue Israelgo Jainkoaren arkha, eta boha bere tokira, hil ez gaitzan gure populuairekin.

12. Ezik herioaren beldurra jartzen zen hiri bakhotxean eta Jainkoaren eskua gorgorki dorphetzen zen hekien gainera; hil etziren gizonak ere, gibelego lekhurik gordeenean joak ziren, eta hiri bakhotxeko heiagora igaiten zen zerura.

## VI. KAP.

1. Jaunaren arkha egotu zen beraz zazpi hilabete Filistin-herrian.

2. Filistindarrek aphezak eta aztiak deithu zituzten, ziotelarik: Zer egingen dugu Jaunaren arkhas? Erakhuts dizaguzue noletan bihurtuko dugun bere lekhura. Haukiek ihardetsi zuten:

3. Baldin Israelgo Jainkoaren arkha bihurtzen baduzue, ez bezazue hutsa utz, baina zor duzuen bihur zozue bekhatuarentzat, eta orduan sendatuko zarete eta jakinen duzue zertako haren eskua ez den zuen ganik gibelatzen.

4. Filistindarrek erran zuten: Zer da bekhatuarentzat bihurtu behar dioguna? Ihardetsi zuten:

5. Filistindarren herri araldean nonbrearen arabera, egizkitzue bortz gibelaldeko zilho urhezko eta bortz arratoin urhezkoak, zeren zauri bera izatu baita zuen baithan eta zuen satrapen baithan. Eta zuen gibelaldeko zilhoen iduriak egingen dituzte, eta zuen lurra xahutu duten arratoinenak, eta goretsiko duzue Israelgo Jainkoa, eta beharbada bere eskua altxatuko du zuen gainetik, zuen jainkoen eta zuen lurraren gainetik.

6. Zertako gogortzen dituzte zuen bihotzak Egiptoak egin izan duen bezala, eta Faraonek bezala? Faraonek, joa izan zen ondoan, ez othe zituen utzi Israeldarrak, zeinak goan baitziren?

7. Orai beraz har zazue eta egizue orga berri bat; bi behi umedun, uztarrian egundaino ezarriak izan ez direnak, uztar zatzue orga hari, eta hekien aratxeak etxean herts zatzue.

8. Eta hartuko duzue Jaunaren arkha eta orgetan ezarriko; gero bekhatuaren alderat eman dituzten gauzak sahetsean ezarriko diozkatzue khutxatto batean, eta utz zazue goan dadien.

9. Eta begiratuko duzue: baldin bere lekhura daraman bidez igaiten bada, Bethsamesi buruz, bera izanen da izurri handi hau eman darokuna; baina ez badu harat egiten, jakinen dugu ez gaituela horren eskuak ukitu, baina gerthakari bat izatu dela.

10. Horrela egin zuten beraz; eta harturik bi behi, umeak errapean zituztenak, uztartu zituzten orgari, eta hekien aratxeak etxean hertsu.

11. Eta orgetan ezarri zituzten arkha eta khutxa, zeinak barnean baitzuten urhezko arratoinak eta gibelego zilho itxurak.

12. Bada, behiak xuxen zihoazen Bethsamesera daraman bidez, eta bides urhats batean egiten zuten, aitzinerateginez eta orroaka. Filistindarren, satrapak berriz Bethsameseko mugetaraino jarraitzen ziren.

13. Bada, Bethsamesarrak ogi ephaiten ziren haranean. Begiak altxaturik, ikhusi zuten arkha, eta bozkariatu ziren ikhusi zutenean.

14. Eta orgak ethorri ziren Josue Bethsamesarraren landara eta han gelditu ziren. Toki hartan bazen harri handi bat; hautsi zituzten orgen zurak, eta hekien gainean behiak ezarri zituzten holokaustetan Jaunari.

15. Lebitarrek jautsi zituzten arkha eta haren sahetsean zen khutxatto, zeinaren barnean baitziren urhezko gauzak, et harri handiaren gainean ezarri zituzten. Eta egun hartan Bethsameseko gizonak holokaustak Jaunari eskaini ziozkaten eta bitimak imolatu.

16. Filistindarren bortz satrapek ikhusi zuten hori, eta egun berean Akaronera bihurtu izan ziren.

17. Haukiek dira, bada, Filistindarrek Jaunari hobenarentzat bihurtu zituzten gibelego zilho urhezkoak: Azotek bat, azak bat, Askalonek bat, Jethek bat, Akaronek bat;

18. Eta hainbertze urhezko arratoin nola hiri baitzen Filistindarren bortz herri araldeetan, hiri harrasidunetik herri harrasigabekoraino, eta Abel-handiraino, zeinaren gainean ezarri baitzuten Jaunaren arkha, egungo eguna arteo Josue Bethsamesarraren landan dena.

19. Bada, Jaunak, zeren bere arkhari Bethsamesarrek begiratu zioten, jo zituen hirur hogoi eta hamar aitzindari eta berrogoi eta hamar mila gizon populu xehetik. Eta populua auhenetan egotu zen, Jaunak hanbateko izurriaz jo zuelakotz jendea.

20. Eta Bethsamesarrek erran zuten: Nor egonen ahal da Jainko Jaun saindu hunen aitzinean? eta gu ganik noren baithara iganen dute?

21. Eta Kariathiarimtarrei gizonak igorri zituzten, ziotelarik: Filistindarrek bihurtu dute Jaunaren arkha, jauts zaizte, eta eramazue zuen ganat.

## VII. KAP.

1. Kariathiarimgo gizonak ethorri ziren beraz, gibelerat eraman zuten Jaunaren arkha, eta ezarri zuten Gabaan, Abinadaben etxean; eta Eleazar, haren semea, kontsekratu zuten, Jaunaren arkharan zaintzeko.



2. Eta gerthatu zen, Jaunaren arkha Kariathiarimen egotu zen egu-netik, egunak eguna ekharri zuela (ezen jadanik hogoigarren urthea zen); eta Israelen etxe guzia sosegutan egon zela Jaunaren gerizapean.

3. Bada, Israelen etxe guziari mintzo zelarik, Samuelek erran zuen: Zuen bihotz guziz Jauna gana bihurtzen bazarete, zuen artetik khen zatzue jainko arrotzak, Baal eta Astaroth; zuen bihotzak aphain zotzue Jaunari, hura bakharrik zerbitza zazue, eta atheraturen zaituztete Filistindarraren eskutik.

4. Israelgo semeek irazi zituzten beraz Baal eta Astaroth, eta Jauna bakharrik zerbitzatu zuten.

5. Eta Samuelek erran zuen: Israel guzia bilaraz zazue Masphathera, zuentzat othoitz dezadan Jauna.

6. Eta Masphathera bildu ziren, ura ekharri eta Jaunaren aitzinean ixuri zuten: barur egin zuten egun hartan, eta han erran zuten: Jaunaren alderat bekhatu egin dugu. Eta Samuelek Masphathen juiatu zituen Israelgo semeak.

7. Filistindarrek nabaditurik Israelgo semeak Masphathera bildu zirela, Filistindarren satrapak igan ziren Israelera. Israelgo semeek aditu zutenean hori, Filistindarren beldurrak hartu zituen.

8. Eta Samueli erran zioten: Gure Jainko Jauna gana deihadarretik ez bara, itzur gaitzan Filistindarraren eskuari.

9. Bada, Samuelek hartu zuen esneko bildots bat; Jaunari oso-oso eskaini zioen; Samuelek Jaunari Israelentzat deihadar egin zioen, eta entzun zuen Jaunak:

10. Bada, gerthatu zen, Samuelek holokausta eskaintzen zuenean, Filistindarrek gudua hasten zutela Israelen kontra: baina egun hartan Jaunak harrabots ikharagarri batekin ihurtzuria karraskarazi zuen Filistindarren gainera, eta harritu zituen eta lurra jo zuten Israelen aitzinean.

11. Eta Israelgo gizonek, Masphathetik ilkhirik, Filistindarren ondotik egin zuten eta jo zituzten Bethkarren-pean den lekhuraino.

12. Bada, Samuelek harri bat hartu zuen eta ezarri Masphathen eta Senen artean, eta lekhu hura deithu zuen Laguntza-harri, eta erran zuen: Hunaraino lagundu gaitu Jaunak.

13. Filistindarrak aphaltuak izan ziren, eta etziren gehiago abiatu Israelgo mugen iragaitera. Ezen Samuelen egun guzietan Jaunaren eskua jaikia egotu zen Filistindarren gainera.

14. Filistindarrek Israeli hartu izan ziozkaten hiri guziak, Maeh bihurtuak izan ziren beren eremuekin, Akarondik Jetheraino: eta Israel athera-

tu zuen Filistindarren eskutik; eta bakea zen Israelen eta Amorrhearraren artean.

15. Halaber Samuelek Israel juiatzen zuen bere biziko egun oroz;

16. Eta urthe guziz goaten zen inguruan Bethelera, Galalara eta Masphathera, eta lekhu erran horietan juiatzen zuen Israel.

17. Gero itzultzen zen Erramathara, ezen han zuen bere etxea; eta han ere juiatzen zuen Israel; halaber han altxatu zioen aldare bat Jaunari.

## VIII. KAP.

1. Bada, egin izan zen, Samuel zahartu zenean, bere semeak juie ezarri zituela Israelen.

2. Haren seme zaharrenaren izena zen Joel, eta bigarrenaren izena Abia. Bersabeen juie ziren.

3. Eta haren semeak etziren haren bide beretan ibili; baina makhurrerat egin zuten jaramankeriaz; dohainak onhetsi zituzten, eta zuzentatunari bidegabe egin zioten beren juiamenduetan.

4. Beraz Israelgo zahar guziak bildurik, Samuelen gana ethorri ziren Erramathara.

5. Eta erran zaroten: Huna non zahartu zaren, eta zure semeak ez dabilta zure bidez. Bertze jendaia guziek duten bezala, errege bat ezar guzu gure juiatzeko.

6. Solasa etzen Samuelen gogarako izatu, erran zutelakotz: Errege bat iguzu gure juiatzeko. Samuelek othoitz egin zioen Jaunari.

7. Jaunak erran zioen ordean: Entzun zazu populuaren mintzoa erraten darotzun guzietan; ezen etzare zu hastantzen dutena, baina bai ni, ez nadientzat horien gainean erregina.

8. Egiptotik atheratu ditudan egunetik eta orai arteo egin izan dituzten egitate guzien arabera, nola utzi binaute eta Jainko arrotzak zerbitzatu baitituzte, hala egiten darotzute zuri ere.

9. Orai beraz entzun zazu horien mintzoa: baina argi zatzu eta aitzinetik errozute horien gainean erreginatuko den erregearen zuzena zer izanen den.

10. Hargatik Samuelek errege bat galdatau zioen populuaren erran ziozkan Jaunaren solas guziak,

11. Eta erran zioten: Hau izanen da zuei manatuko duen erregearen zuzena: Hartuko ditu zuen semeak eta orga-lasterretan ezarriko ditu, eta zaldizko egingen ditu eta bere orga-lasterraren aitzinean ibilaraziko ditu;



12. Ezarriko ditu batzu mila gizonen buruko, bertzeak ehun gizonen; batzu bere lurren lantzeko, bertzeak uzten biltzeko; bertze batzu bere harmen eta orga-lasterren egiteko.

13. Zuen alabak ere ezarriko ditu usain gozo egiten, jateko xuxentzen eta ogi egiten.

14. Halaber hartuko ditu zuen landa, mahasti eta olibadi hoberenak, eta bere zerbitzariari emanen diozkate.

15. Zuen uztetako eta mahastietako gozoen hamarrenak ere altxatuen ditu, bere ebakiei eta zerbitzariari emateko.

16. Halaber zuen muthilak, neskatoak, gizon-gazte hoberenak eta astoak hartuko ditu, eta bere lanetan ezarriko ditu.

17. Hartuko ditu orobat zuen arthaldeetako hamarrenak, eta zeronek izanen zarete haren zerbitzuko.

18. Eta egun hartan dei eginen duzue zeronek hautatu duzuen zuen erregearen kontra, eta Jaunak etzaitzute orduan entzunen, zeren zeronek galdata duzuen errege.

19. Populuak ordean etzuen entzun nahi izan Samuelen solasa, baina erran zuten: Ez, errege bat izanen da gure gaineko.

20. Eta gu ere izanen gure bertze populuak bezala: eta gure errege juiatuko gaitu, gure aitzinean ibiliko da, eta gure gerletan guretzat gudukatuko da.

21. Samuelek aditu zituen populuaren solas guziak, eta Jaunaren beharrietara ekharri zituen.

22. Jaunak ordean Samueli erran zioen: Entzun zazu horien solasa, eta errege bat gainean ezar zozute. Eta Samuelek Israelgo gizonei erran zioeten: Zein bere hirira goan bedi.

## IX. KAP.

1. Benjaminen bazen gizon bat Zis deitzen zena, zeina batten Abielen semea, Abiel Serorrena, Seror Bekorathena, Bekorath Aphiarena, Aphia Jeminirena, eta indarrez hazkarra zen.

2. Eta seme bat bazuen Saul deitzen zena, gizon eder eta tantaia, eta Israelgo seme guzietan etzen hura baino handiagorik; sorbaldetarik eta goiti ageri zen populu guziaren gainetik.

3. Bada, Saulen aita Zisen asto urrixak galdu ziren, eta Zisek Saul bere semeari erran zioen: Muthiletarik bat har zazu zurekin, eta jaikirik zoazi eta astoak bilha zatzu. Haukiek Efraimgo mendia gaindi iragan ondoan,

4. Eta Salisako lurra gaindi, astoak khausitu gabe, halaber iragan ziren Salimgo lurretik, eta etziren han: gero jo zuten Jeminiko lurra barna, eta etzituzten batere khausitu.

5. Baina Supheko lurrera ethorri zirenean Saulek erran zioen berekin zuen muthilari: Zato, bihur gaitezen, beldurrez-eta ene aita, astoak utzirik, gutaz grinatua izan dadien.

6. Muthilak erran zioen: Huna, Jainkoaren gizon bat bada hiri hortan, gizon aiphatua; harek erran guziak, hutsik gabe gerthatzen dira. Goazen beraz orai horrat; beharbada zerbait argi eman daroku hunat erakharri gaituen urhatsaren gainean.

7. Saulek bere muthilari erran zioen: Goazen berehala, baina zer eramanen diogu Jainkoaren gizonari? goan da gure murtxiletako ogia; Jainkoaren gizonari emateko ez dugu ez jatekorik, ez bertzerik.

8. Muthilak berriz ihardetsi zioen Sauli, eta erran: Huna estater ziharrezko baten laurdena ene eskuan khausitu dela; eman dezogun Jainkoaren gizonari, argi gaitzan gure bidearen gainean.

9. (Behiala Israelen hunela mintzaten zen Jaunaren konsultatzer goaten zena: Zatozte, goazen ikhusearen gana. Ezen orai profeta aiphatzen dena, lehenago ikhustea deitzen zen.)

10. Eta Saulek bere muthilari erran zioen: Ona da zure solasa. Zato, goazen. Eta Jainkoaren gizona zagoen hirira goan ziren.

11. Eta hiriko patarra gora zihoazelarik, atzeman zituzten neskak batzu urketara atheratzen zirenak, eta erran zioeten: Hemen da ikhustea?

12. Haukiek ihardetsi zioeten: Hemen da, huna zuen aitzinean, higi zaizte; ezen hirira egun ethorria da, zeren egun baita populuaren sakrifizioa lekhu goran.

13. Hirian sartzean, berehala khausituko duzue igan dadien baino lehen lekhu goran jatera; ezen populuak ez du janen hura ethorri arteo, zeren berak benedikatzan baitu bitima, eta gero janen dute deithuak direnek. Orai igan zaizte beraz, zeren egun aurkhituko baituzue.

14. Hirira igan ziren. Eta hiriaren erditik zihoazelarik, Samuel agertu zen hekien bidera atheratzen zela, lekhu gorara igaiteko.

15. Bada, Jaunak Samueli gauza agertu zioen Saul ethorri baino egun bat lehenago, erraten zioelarik:

16. Oraiko oren huntan berean, bihar zure gana igorriko dut gizon bat Benjamingo lurretik, eta hura buruzagi gantzutuko duzu Israelgo ene populuaren gainean; eta ene populua atheratuko du Filistindarren eskutik; zeren begiratu baitiot ene populuari, ezik haren oihua heldu izan da ene gana.



17. Samuelek ikhusi zuenean Saul, Jaunak erran zioen: Huna nik erran darotzudan gizona, bau erreginatuko da ene popularen gainean.

18. Bada, Saul Samueli hurbildu zitzaioen athearen erdira, eta erran zioen: Erakhuts dizadazu, othoi, non den ikhuslearen etxea.

19. Eta Samuelek erran zioen Sauli: Ni naiz ikhuslea; ene aitzinean igan zaite lekhu gorara, egun jan dezazun enekin, eta bihar goizean utziko zaitut; eta bihotzean dituzun guziak erranen darozkitzut.

20. Eta herenegun galdu dituzun astoez ez izan grinarik, zeren atzemanak baitira Eta norentzat izanen dira Israelen diren hoberen guziak? ez othe dira zuretzat eta zure aitaren etxe guziarentzat?

21. Bainan Saulek ihardetsi zioen: Ez othe naiz Jentiniren semea, Israelen leinu ttipienetik? eta ene ahaidegoa ez othe da Benjaminen leinuko familia guzietan azkena? zertako beraz iharduki darotazu solas hori?

22. Samuelek harturik Saul eta bere muthila, sarrarazi zituen barazkariko salhara, eta lekhu eman zioeten komitatuak zirenen buru-buruan; ezen baziren hogoi eta hamar bat gizonen ingurua.

23. Eta Samuelek erran zioen jateko xuxentzaileari: Ekhartzu eman darotzudan eta bazterrerat ezartzeko manatu zaitudan zathia.

24. Jateko xuxentzaileak beraz hartu zuen sorbalda bat eta Saulen aitzinean ezarri zuen. Eta Samuelek erran zioen: Horra zer gelditu den, ezar zazu aitzinean eta jan zazu, zeren berariaz zuretzat begiratua izan baita, populua deithu dudanean. Saulek egun hartan Samuelek in jan zuen.

25. Lekhu goratik hirira jautsi ziren, eta Samuel Saulekin mintzatu zen hegaztegiko salhan. Saul etzan zen salha hartan eta lo egin zuen.

26. Goizean jaiki zirenean, argitzen hari zuen, eta Samuelek Saul deithu zuen salhan, zioelarik: Jaiki zaite, eta goatera utziko zaitut. Saul jaiki zen, eta biak ilkhi ziren, erran nahi da hura eta Samuel,

27. Eta hiriaren behereko burura jausten zirelarik, Samuelek erran zioen Sauli: Errozu zure muthilari dihoala gure aitzinean, eta iragan dadie-la; zu ordean zaude aphur bat, Jaunaren hitzaz jakintsun egin zaitzadan.

## X. KAP.

1. Bada, Samuelek hartu zuen olio untzitto bat eta Saulen buruaren gainera hustu zuen; musu eman zioen eta erran: Huna non Jaunak gantzutu zaituen buruzagitzat bere primantzaren gainean, eta haren populua bere inguruko etsaien eskuetarik atheratuko duzu. Eta huntarik ezagutuko duzu Jaunak buruzagitzat gantzutu zaituela.

2. Egun ene ganik goanen zarenean, bi gizon atzemanen ditutzu Erraehelen hobiaren ondoan, Benjamingo mugetan, hegoaldetik, eta

erranen darotzute: Aurkhituak dira astoak, zeinen bilhatzera goan baitzare; eta astoak utzirik, zure aita zuetaz da grinetan, eta dio: Zer eginen dut ene semearentzat?

3. Eta handik goan zaitekeenean eta aitzinago iragan, heltzen zarenean Thaborreko haritzera, han atzemanen zaituzte hirur gizonak, Jauna gana Bethelera igaiten direlarik; batek bizkarrean izanen ditu hirur pittika, bertze batek hirur ogi-ophil, eta bertzeak pitxer bat arno.

4. Eta agur egin ondoan, emanen darozkitzute bi ogi, eta zuk hartuko dituzu hekien eskutik.

5. Gero ethorriko zare Jainkoaren munhora, non baita Filistindarren guardia; eta han hirian sarthu zaitekeenean, zure bidean izanen duzu profeta-multzo bat, gainetik jausten direla profetisatuz, eta hekien aitzinean maniurra, atabala, xirola eta gitarra.

6. Eta Jaunaren izpiritua zure baithan jautziko da, eta hekiekin profetisatuko duzu, eta bertze gizon bat eginen zare.

7. Ezagutkari horiek oro gerthatu zaizkiketzunean, egizu zure eskuetara helduko dena, zeren Jauna zurekin izanen baita.

8. Ni baino lehen jautsiko zare Galgalara (ezen ni ethorriko naiz zure gana), sakrifizio bat eskaint dezazun eta bakezko bitimak imola: zazpi egun egonen zare ene begira, zure gana ethor nadien arteo, eta nik erakhusiko darotzut zer egin.

9. Beraz sorbalda itzuli zuenean Samuelen ganik goateko, Jaunak bihotza aldatu zioen bertze batetara, eta ezagutkari hekiek oro egun hartan gerthatu zitzaizkon.

10. Eta erran den munhora heldu zirenean, hara non profeta-multzo bat Saulek atzeman zuen bidean; Jaunaren izpiritua jauzi zen haren baithan, eta Saulek hekien erdian profetisatu zuen.

11. Bada, aitzinean ezagutu zuten guziek, ikhustenez profetekin zela eta profetisatzen zuela, elkharri erran zuten: Zer gerthatu zaio Zisen semeari? Profeten arteko othe da Saul ere?

12. Eta han zen batek ihardetsi zioen bertze bati, zioelarik: Eta nor da horien aita? Hargatik hitz hau iragan zen erran-zaharretara: Saul ere profeten arteko othe da?

13. Bada, profetisatzetik gelditu zen, eta ethorri zen lekhu gorara.

14. Saulen osabak erran zioeten Sauli eta bere muthilari: Nondik heldu zarete? Ihardetsi zuten: Asto bilhatzetik; eta hekiek ez atzemanen, izatu gare Samuelen gana.

15. Eta osabak erran zioen Sauli: Eza-gutaraz dizadazu zer erran darotzun Samuelek.



16. Eta Saulek erran zioen bere osabari: Erran daroku astoak atzemanak direla. Bainan erregetasuneko solasaz etzioen aiphatu Samuelek berari erran zioena.

17. Samuelek populua Jauna ganat deithu zuen Masphara.

18. Eta Israelgo semeei erran zioeten: Hau dio Israelgo Jainko Jaunak: Nik atheratu dut Israel, eta itzurrazai zaituztet zuek Egiptoarren eskuari, eta atsekabeztatzen zinituzten errege guzien eskuari.

19. Zuek ordean egun hastandu duzue zuen Jainkoa, zeinak bakharrik atheratu baitzaituztete zuen gaitz eta hestura orotarik; eta erran duzue: Batere; bainan errege bat ezar zazu gure gainean. Orai beraz Jaunaren aitzinean jar zaizte leinuka eta familiaka.

20. Samuelek Israelgo leinu guzien gainera arthiki zuen zortheta, eta erori zen Benjaminen leinura.

21. Gero arthiki zuen Benjaminen leinuan eta familietan, eta erori zen Metriren familia, eta azkenekotz Zisen seme Saulen gainera. Bilhatu zuten beraz, eta etzen khausitu.

22. Eta gero Jauna kontsultatu zuten, hean Saul ethorriko zen harat. Jaunak ihardetsi zuen: Hara etxean gordea dagoela.

23. Laster egin zuten beraz, eta erakharri zuten handik; eta populuaren erdian jarri zenean, sorbaldetarik eta goiti populu guzia baino gorago zen.

24. Samuelek erran zioen populu guziari: Garbiki ikhusten duzue Jaunak hautatu duena, ezen ez da populu guzian bertze bat hunen idurikoa. Eta populu guziak oihu egin zuen, zioelarik: Bizi bedi errege.

25. Bada, Samuelek irakhurtu zuen errege legea, iskribatu zuen liburu batean eta Jaunaren aitzinean ezarri. Gero Samuelek igorri zuen populu guzia, zein bere etxera.

26. Saul ere goan zen bere etxera, Gabaara; eta harekin goan zen armadaren pharte bat, hainak zeinen bihotzak ukitu baitzituen Jainkoak.

27. Bainan Belialen semeek erran zuten: Salba othe gaitzazke horrek? Eta erdeinatu zuten, eta etzioten emaitzarik ekharri; bainan Saulek ez adi-tuarena egiten zuen.

## XI. KAP.

1. Handik hilabete baten buruan bezala, gerthatu zen, Naas Amontarra igan zela, eta gerlan abiatu zela Jabes Galaaden kontra. Eta Jabestar guziek erran zioten Naasi: Batasunera har gaitzatu eta zerbitzatu zaitugu.

2. Naas Amontarrak ihardetsi zioten: Huntan eginen dut zuekin batasun, iraziko baitarotzuet guziei eskuineko begia, eta ezarriko zaituztet Israel guziaren laidagarri.

3. Ejabesko zaharrek erran zioten: Emagutzu zazpi egun, mandatarien igortzeko Israelgo bazter orotara; eta gure atde atherako denik ez bada izaten, ilkhiko gare zure gana.

4. Berriketariak ethorri ziren beraz Gabaara, Saulen hirira, eta solas horiek erran zituzten populuaren aitzinean. Eta populu guzia oihuz eta marraskaz hasi zen.

5. Eta hara Saul non landatik heldu zen bere idien ondotik, eta erran zuen: Zer du populu horrek nigar egiteko? eta erran ziozkaten Jabesko gizonen solasak.

6. Saulek solas hekiek entzutearekin, Jaunaren izpiritua jauzi zen haren baithan, eta gogorki biztu zen haren hasarrea.

7. Bere bi idiak harturik puskakatu zituen, eta berri-ekharleekin igorri zituen Israelgo bazter orotara, zioelarik: Nor-ere ilkhiko eta Sauli eta Samueli jarraikiko ez baita, horrelaxe egina izanen zaiote haren idiei. Jaunaren beldurra sarthu zen beraz populan, eta oro atheratu ziren gizon bakhar bat bezala.

8. Saulek begietan iragan zituen Bezeken, eta Israelgo semeetarik baziren hirur ehun mila gizon, eta Judatik hogoi eta hamar mila.

9. Eta ethorri ziren berriketariei erran zuten: Hunela erranen diozute Jabes Galaaden diren gizonak: Bihar iguzkia berotuko denean izanen da zuen librantza. Berri hori eraman zioten Jabestarrei, zeinak bozkariotan sarthu baitziren.

10. Eta Amontarrei erran zioeten: Bihar ilkhiko gare zuen gana; eta eginen darokuzue atsegin dukezuen.

11. Biharamuna ethorri zenean, Saulek hirur andanetan ezarri zuen populua; goiz lehenean sarthu zen etsaien kanpetan, eta hilka haritu zitzaioen Amoni iguzkia berotu arteo; eta ondarrak barraiatuak izan ziren halaz non hekiatarik ez baitziren bia elkharrekin gelditu.

12. Eta populuak Samueli erran zioen: Zein da erran duen hura: Saul erreginatuko othe da gure gainean? Igutzue halako gizonak, eta hilen ditugu.

13. Saulek erran zuen: Egun huntan ez da nihor heriotzetan ezarriko, zeren Jaunak egun egin baitu Israelen librantza.

14. Samuelek ordean populuari erran zioen: Zatozte eta goazen Galgalara, eta han berriz egin dezagun erregeren izendatzea.

15. Eta populu guzia Galgalara goan zen; han Saul errege egin zuten Jaunaren aitzinean Galpalan, eta han bakezko bitimak imolatu zituzten



Jaunaren aitzinean. Eta han Saulek eta Israelgo gizon guziek erabili zituzten bozkalentzia handiak.

## XII. KAP.

1. Bada, Samuelek erran zioen Israel guziari: Huna non entzun dudan zuen boza, erran izan daroztatzen guzien arabera, eta errege bat ezarri dut zuen gainean.

2. Eta orai errege dabila zuen aitzinean. Ni berriz, zahartu eta zuritu naiz: bada ene semeak zuen bardinera jautsiak dira: nola ene haurtasunetik egungo eguna arteo zuen aitzinean egotu bainaiz, huna non naizen orai ere.

3. Errazue nitaz Jaunaren eta haren Kristoren aitzinean, heian hartu dudanez nihoren idia edo astoa; heian nihor beltzatu dudan, heian nihori bortxa egin diodan, heian norbaiten eskutik emaitzarik onhetsi dudan, eta neronek laidoztatuko dut hori, eta bihurtzape eginen darotzuet.

4. Ihardetsi zuten: Ez gaituzu ez beltzatu, ez zaphatu, eta ez duzu nihoren eskutik emaitzarik batere onhetsi.

5. Samuelek erran zioeten: Lekhuko da Jauna zuen eta ene artean, eta haren Kristo lekhuko da egun, deusere ez duzuela atzeman ene eskuan. Eta ihardetsi zuten: Lekhuko da.

6. Samuelek erran zioen populuari: Jauna, zeinak egin izan baititu Moise eta Aaron, eta gure arbasoak erakharri baititu Egiptoko lurretik, lekhuko da.

7. Ager zaitze beraz orai jazar dezazuedan Jaunaren aitzinean harek zuentzat eta zuen aitentzat erabili dituen urrikaltzape guziez;

8. Nola Jakob sarthu zen Egiptoan eta zuen aitek Jauna ganat deihadar egin zuten; eta nola Jaunak igorri zituen Moise eta Aaron; nola atheratu zituen zuen aitek Egiptotik, eta jarri lekhu huntan.

9. Ahantzi zuten beren Jainko Jauna, eta harek eman zituen Sisararen, Hasorgo armadako buruzagiaren eskuetara, eta Filistindarren eskuetara, eta Moabeko erregeren eskuetara, eta gudukatu ziren hekien kontra.

10. Bainan gero deihadar egin zuten Jauna gana, eta erran zuten: Bekhatu egin dugu, Jauna utziz eta Baal eta Astaroth zerbitzatuz; orai beraz athera gaitzatzu gure etsaien eskutik, eta zu zerbitzaturen zaitugu.

11. Eta Jaunak igorri zituen Jerobaal, Badan, Jephte eta Samuel, eta atheratu zaituztete zuen inguruko etsaien eskutik, eta deskantsuan egotu zarete.

12. Bada ikhuxirik Naas, Amonen semeen errege zuen kontra ethorri zela, erran darotazue: Ez, bainan errege batek manatuko gaitu; gure Jainko Jauna erreginatzen zen arren zuen gainean.

13. Orai beraz hemen duzue zuen errege, hautatu eta galdatu duzue; horra non Jaunak eman darotzueten errege.

14. Baldin Jaunaren beldur izaten bazarete, zerbitzaten baduzue, entzuten baduzue haren hitza, eta samurrarazten ez baduzue Jaunaren ahoa, izanen zarete ongi, zuek eta zuei manatzen duen erregea, zuen Jainko Jaunari jarraikiz.

15. Bainan ez baduzue entzuten Jaunaren hitza, eta bihurtzape erakartzuten badituzue haren solasak, Jaunaren eskua jarriko da zuen gainean, zuen aiten gainean izatu den bezala.

16. Bainan orai berean zaudete begira eta ikhuzazue Jaunak zuen aitzinean egitera dihoan gauza handi hau.

17. Ez othe da orai ogi biltzeko aroa? Bada, dei eginen diot Jaunari, eta emanen ditu ihurtzuriak eta uriak, eta jakinen eta ikhuxiko duzue, zein gaizki handia egin duzuen Jaunaren aitzinean, errege bat buruzagi galdatuz.

18. Eta Samuelek dei egin zioen Jaunari, eta Jaunak egun hartan eman zituen ihurtzuriak eta uriak.

19. Populu guzia Jaunaren eta Samuelen beldur handi izatu zen, eta orok Samueli erran zioten: Zure zerbitzarietzat othoitz egiozu zure Jainko Jaunari, hil ez gaitezen, ezen gure bekhatu guzien gainera gaizki egin dugu errege bat guretzat galdatuz.

20. Samuelek ordean populuari erran zioen: Ez izi; gaizki hori guzia egin duzue; halere ez ihes egin Jaunari, bainan Jauna zuen bihotz guziaz zerbitza zazue.

21. Berautzue makhurtzetik gauza hutsetara zeinak deusetako baliatuko ez baitzaizkitzue eta hesturatik zuen atheratzeko ez baitira izanen, hutsak direlakotz.

22. Eta Jaunak, bere izenaren handia gatik, ez du bere populua bazterrerat utziko, zeren Jaunak zin egin baitu zuetaz eginen duela bere populua.

23. Bada, urrun ni ganik horrelako bekhatua Jauna baithan, geldituko bainaiz zuentzat othoitz egitetik, eta irakhatsiko darotzuet bide ona eta zuzena.

24. Jaunarentzat beldur izan zaitzete beraz, eta zerbitza zazue zintasunean eta zuen bihotz guziz; ezen ikhuxi dituzue zuen gainean egin dituen sendagaila espantagarriak.



25. Bainan gaixtakerian irauten baduzue, zuek eta zuen erregea orobat galduko zarete.

### XIII. KAP.

1. Urtheke haur bat zen Saul erreginatzen hasi zenean, eta bi urthez erreginatu zen Israelen gainean.

2. Saulek hirur mila gizon hautatu zituen Israeldik, eta bi mila ziren Saulekin Makmasen, Bethelgo mendian, eta mila Jonathasekin Gabaa Benjamingoan: gainerako populua igorri zuen, zein bere olhara.

3. Jonathasek jo zuen Filistindarren guardia Gabaan zena. Filistindarrek hori aditu zuteneko, Saulek turuta joarazi zuen bere lur guzian, zioelarik: Hebrearrek entzun bezate.

4. Eta Israel guziak aditu zuen hunelako omena: Saulek jo du Filistindarren guardia. Eta Israel altxatu zen Filistindarren kontra. Populu guziak beraz Galgalan oihu egin zuen Saulen ondotik.

5. Filistindarrak bildu izan ziren Israelen kontra gudu emateko, hogoi eta hamar mila orga-laster, sei mila zaldizko, eta gainerako jende xehea, itsas-bazterrean legarra bezain usu. Igan ziren eta Makmasen kanpatu, Bethabenen iguzki-haize alderat.

6. Israeldarrek beren buruak ikhusi zituztenean hestutuak, (ezen populua lotsatua zen), gorde ziren zilhoketan eta gordegailuetan, gerdetan ere eta har-zilho eta urtegiatan.

7. Bada, Hebrearrek Jordanea iragan zuten Gadeko eta Galaadko lurretan. Eta Saul Galgalan zelarik oraino, hari jarraikitzen zen populu guzia ikharan jarri zen.

8. Zazpi egunez begira egotu zen, Samuelen manuaren arabera; Samuel etzitzaioen Galgalara ethorri, eta populua haren ganik barraiatu zen.

9. Saulek erran zuen beraz: Ekhar dizadatzue holokausta eta bitima bakezkoak. Eta eskaini zuen holokausta.

10. Holokausta eskeintzen akhabatu zuenean, hara Samuel non heldu zen, eta Saul bidera atheratu zitzaioen agur egitera.

11. Samuelek erran zioen: Zer egin duzu? Saulek ihardetsi zuen: Nola ikhusi baitut populua ene ganik barraiatzen zela; eta etzizela, egun berezian arabera, agertu; eta Filistindarrak Makmasera bilduak zirela,

12. Erran izan dut: Filistindarrek ene gana jautsiko dira Galgalara, eta ez dut oraino jabaldu Jaunaren begithartea. Premiak bortxaturik eskeini dut holokausta.

13. Samuelek erran zioen Sauli: Zoroki egin duzu, eta zure Jainko Jaunak eman darozkitzun manamenduak ez ditutzu begiratu. Hori egin ez

bazindu, Jaunak orai bethi guziko gogortuko zuen Israelen gainean zure erreinua;

14. Bainan zure erreinuak ez du gehiago iraunen. Jaunak bere gogoren araberako gizon bat bilhatu du; eta Jaunak manatu dio izan dadien haren populua gaineko buruzagi, zeren ez dituzun Jaunak manatuak begiratu.

15. Bada, Samuel jaiki zen, eta Galelatik igan zen Gabaa Benjamingora. Eta gainerako populua igan zen Saulen ondotik gerla ematen ziren populua bidera, Galgalatik ethorritz Gabaara, Benjamingo mendian. Saulek khondatu zuen populua, eta harekin khausitu ziren sei ehun gizonen ingurua.

16. Saul eta Jonathas, haren semea, eta hekiekin khausitu zen populua Gabaa Benjamingoan ziren: eta Filistindarrak Makmasen jarriak zauden.

17. Filistindarren kanpetarik hirur andana atheratu ziren harrapaketara. Bat zihoan Efrako bidez Saulen lurreko alderat;

18. Bertze bat, berriz, Bethorongo bidez; eta hirugarrena itzuli zen Seboimgo haraneko muga gaineko biderat, mortuko parrean.

19. Bada, harotzik etzen khausitzen Israelgo lur guzian; ezen Filistindarrak harotzik uztekin begiratu ziren, beldurrez Hebrearrek egin zetzazten ezpatak edo lantzak.

20. Israel guzia jausten zen beraz Filistindarretara, zeina bere golde, haitzur, haizkora eta jorrairen zorrotzaraztera.

21. Hargatik goldeen, haitzurren, hirur-hortzekoen eta haizkoren ahoak khamustuak ziren; etzen akhuloetaraino zorrotzekoak etzirenik.

22. Eta guduko eguna ethorri zenean, ez ezpata bat, ez lantza bat etzen khausitu Saulekin eta Jonathasekin zen populu guziaren eskuan, Saulez eta Jonathas haren semeaz landan.

23. Bada, Filistindarren armada atheratu zen Makmasera igaitekotzat.

### XIV. KAP.

1. Egun batez gerthatu zen Jonathasek, Saulen semeak erran zioela muthil gazte, bere ezkutariari: Zato, goazen toki horren haindian den Filistindarren kanpetara. Bada, etzioen bere aitari holakorik batere aiphatu.

2. Bizkitartean Saul Gabaako azken buruan zagoen, Magronen zen mingranaondo baten azpian, eta harekin zen populua, sei ehun gizonen ingurutsua zen.



3. Eta ephodoa zen Akias, Akitoben semearen eskuetan, Akitob baitzen Ikaboden anaia, Ikabod Phineesen semea eta Phinees Heli, Jaunaren aphez Silon izatuarena. Eta populuak etzakien norat goan zen Jonathas.

4. Jonathas Filistindarren kanpetara hari zen patarren artean baziren bi aldeetarik bi harri xut, handik eta hemendik hortzak iduri balute bezala atheratzen zirenak; bat deitzen zen Boses eta bertzea Sene.

5. Harri-kotorretarik bat agertzen zen ipharretik Makmasen parrean, eta bertzea hegoatik Gabaaren parrean.

6. Eta Jonathasek erran zioen muthil gazte, bere ezkutariari: Zato, iragan gaitezen ingurebakigabe horien kanpetara, heian Jauna gure alde hariko denez; ezen Jaunari etzaio gaitzago garhaitzea, edo haintzekin, edo gutirekin.

7. Ezkutariak ihardetsi zioen: Egizu nahi duzun guzia; jo zazu gogok ematen darotzun lekhura, eta nahi duzun toki guzietan zurekin izanen naiz.

8. Jonathasek erran zioen: Huna non goazen gizon horietara. Agertuko gaitzaizkotenean,

9. Hula mintzatzen bazaizkigu: Zaudezte gu zuen gana heldu arteo; geldituko gare gure lekhuan, ez gare hekien gana iganen.

10. Ordean erraten badarokute: Igan zaizte gure gana, iganen gare, zeren Jaunak gure eskuetara eman baititu; hortarik ezagutuko dugu.

11. Biak agertu ziren beraz Filistindarren guardiari, eta Filistindarrek erran zuten: Horra Hebrearrak non atheratzen diren gordeak zauden zilhoetarik.

12. Guardiako gizonak mintzatu ziren Jonathasi eta haren ezkutariari, eta erran zioeten: Igan zaizte gure gana, erakhutsiko darotzuegu gauzatto bat. Eta Jonathasek erran zioen bere ezkutariari: Igan gaitezen, jarraik zakizkit, ezen Jaunak Israelen eskuetara arthiki ditu.

13. Jonathas igan zen beraz, eskuz eta zangoz zarrapoka, eta eskutaria haren ondotik. Etsaietarik batzuek lurra jotzen zuten Jonathasen aitzinean, eta ezkutariak hiltzen zituen bertzeak haren ondotik.

14. Hori izan zen Filistindarren lehenbiziko sarraskia, zeinetan Jonathasek eta bere ezkutariak hil baitzuten hogoi bat gizon, idi-pare batek iraultzen ohi duen golde bat lurren erdiaren eremuan.

15. Orduan sendagaila bat gerthatu zen kanpetan eta bazterrak gaindituta Filistindarren kanpetako populu harrapaketara atheratu zen guzia harridurak jo zuen; lurra asaldutan eman zen, eta Jaunaganikako sendagaila bat bezala gerthatu zen.

16. Eta Saulen begiralari, Gabaa Benjamingoan zirenak, begiak eman zituzten alde hartara, eta ikhusi zituzten gizonak, batzu lurrean hilak, eta bertze batzu alde orotara ihes.

17. Eta Saulek erran zioten berekilako gizoni: Bilha zaizte eta ikhusazue gutartekorik nor goan den. Eta bilhatu zirenean, khausitu zen Jonathas eta bere ezkutaria etzirela han.

18. Saulek Akiasi erran zioen: Hurbil zazu Jaunaren arkha (ezen egun hartan Jainkoaren arkha han zen Israelgo semeekin).

19. Eta Saul aphezarekin mintzo zelarik, asaldu handi bat altxatu zen Filistindarren kanpetan; eta emeki-emeki handituz zihoan eta garbikiago ihardesten zuen. Eta Saulek aphezari erran zioen: Bil zazu eskua.

20. Gero Saulek oiuhu bat egin zuen, eta harekin zen populu guziak harekin batean, eta goan ziren guduko lekhuraino eta hara non etsaiek batak bertzearen kontra ezpata itzuli zutelara, eta sarraski bat gaitza egin zela.

21. Eta bi edo hirur egun hartan Filistindarrekin ziren eta hekien kanpetara igan ziren Hebrearrak ere itzuli ziren, Saulekin eta Jonathasekin ziren Israeldarrekin izateko.

22. Efraimgo mendian gordeak ziren Israeldar guziak halaber, aditurik Filistindarrek ihes zihoazela, gudura beren lagunetara bildu ziren. Eta Saulekin baziren hamar mila gizonen heina.

23. Jaunak egun hartan salbatu zuen Israel. Gudua hedatu zen bada Bethabeneraino.

24. Egun hartan Israelgo gizonak elkhar gana bildu ziren. Bada Saulek populuari zin egin zioen, ziolarik: Madarikatua arratseraino ogirik janen duena, ene etsaietarik asperkunde athera dizadan arteo. Eta populu guziak etzuen ogirik jan.

25. Armada guzia ethorri zen oihan batera non ezitia lurraren gainean hedatua baitzen.

26. Populua oihanean sarthu zen; ezitia zurrutaka agertu zen, eta nihork etzioen eskua hedatu, ezik populua erregek egin zinaren beldur zen.

27. Bada Jonathasek etzuen aditu haren aitag populuari zin egin zioenean; hedatu zuen eskuan zadukan zigor baten mokoa, eta busti zuen ezti-breska batean eta eskua ahora ekharri, eta haren begiak dirdiran eman ziren.

28. Populutik gizon batek itzulirik erran zioen: Zure aitag zin batez hertsu du populua, dioelarik: Madarikatua gizona, egun ogirik janen duena (bada populua ahitua zen).





29. Jonathasek erran zuen: Ene aitak lurra nahasi du, ezen ikhusi duzue zeronek ene begiak dirdiratzten abiatu direla, ezti hortarik guti bat dastatu dudanz geroztik.

30. Zenbatez beraz populua etzen gehiago hazkartuko jan izan balu bere etsaiei atzemanikako harrapakinetik. Ez othe zen Filistindarren sarraskia handiagoa izanen?

31. Egun hartan beraz Filistindarrak jo zituzten Makmasetik Ayaloneraino. Bainan populua gogorki akhitsu zen;

32. Harrapakinari lothu zen; hartu zituzten ardiak, idiak eta aratxeak, eta han berean hil; populuak jan zituen odolarekin.

33. Bada, Sauli berria ekharri zioten populuak Jaunaren alderat bekhatu egin zuela, haragia odolarekin jenez. Saulek erran zuen: Legea hautsi duzue; orai berean anbil zazue harri handi bat ene ondora.

34. Eta Saulek erran zuen: Barraia zaizte populuaren eta errozue zeinak bere idia eta aharia erakhar ditzala ene gana; hil zatzue harri hunen gainean, jan zazue eta ez duzue Jaunaren alderat bekhatu eginen odolarekin jenez. Hargatik populu guziak erakharri zuen gaua arteo zeinak bere idia, eta han hil zituzten.

35. Bada, Saulek aldare bat altxatu zioen Jaunari, eta orduan hasi zen lehenbiziko aldarearen egiten Jaunari.

36. Saulek erran zuen: Gabaz jauz gaitezen Filistindarren gainera, sarraski etzagun argitu arteo, eta ez dezagun horietarik utz gizon bakhar bat. Populuak ihardetsi zioen: Egizu zure begietan ongi dela iduritzen zarotzun guzia. Eta aphezak erran zuen: Jainkoari hunat hurbil gaitezen.

37. Eta Saulek kontsultatu zuen Jauna: Jarraikiko natzaiote Filistindarrei? arthikiko ditutzu Israelen eskuetara? Eta Jaunak etzuen egun hartan ihardetsi.

38. Saulek erran zuen: Hurbilaraz zatzue hunat populuko aitzindari guziak: jakin eta ikhus zazue noren ganik heldu den egun bekhatu hau.

39. Zin egiten dut Jaunaz, Israelen salbatzaileaz, Jonathas ene semeaz egin izan bada, hilen dela eta ez dudala gibelerat eginen. Populu guzitik nihork etzioen horren gainean jazarri.

40. Eta Israel guziari erran zioen: Berez zaizte alde batera, eta ni ene seme Jonathasekin izanen naiz bertzean. Populuak ihardetsi zioen Sauli: Egizu zure iduriko ongi dena.

41. Orduan Saulek erran zioen Israelgo Jainko Jaunari: Israelgo Jainko Jauna: Argi gaitzatu; nolaz ez duzu egun ihardetsi zure zerbitzariari? Heian bekhatu hau heldu den ene ganik, edo Jonathas ene semea ganik, erakhuts dizaguzu; edo gaizkia zure populuaren bada, emozu sain-

duespena. Eta Jonathas eta Saul hartuak izan ziren, populua ordean garbi atheratu zen.

42. Saulek erran zuen: Zortea arthikazue ene artera eta Jonathas ene semearen artera, eta Jonathas atzemana izan zen.

43. Saulek erran zioen beraz Jonathasi: Aithor dizadazu zer egin duzun. Jonathasek aithortu zioen eta erran: Eskuan nuen zigorraren mokoaz dastatu dut ezti izpi bat, eta huna beraz non hiltzen naizen.

44. Saulek erran zuen: Jaunak hau egin biazat eta hori gainetik, heriotzez hiltzen ez bazare, Jonathas.

45. Eta populuak erran zioen Sauli: Hilen othe da bada Jonathas, Israel hain harrigarriki salbatu duena? Gaixtakeria bat da hori. Zin egiten dugu Jaunaz ez dela hunen burutik lurrera ile bat eroriko, zeren egun Jaunarekin haritu baita. Populuak atheratu zuen beraz Jonathas, etzedin hila izan.

46. Eta Saul itzuli zen gibelerat, eta etzuen egin Filistindarren ondolik; Filistindarrak goan ziren beraz beren tokietara.

47. Saulek bere erreinua gogorturik Israelen gainean, haren etsai guzien kontra guduka hari zen inguruan, Moaben, Amonen semeen, Edomen, Sobako erregeen eta Filistindarren kontra, eta norat-nahi itzuli zedin, garaitiar ilkhitzen zen.

48. Armada bat bildurik, jo zuen Amalek, eta Israel atheratu larrutua zadukatenen eskuetarik.

49. Saulen seme ziren Jonathas, Jesui eta Melkisia, eta haren bi alaben izenak ziren, Merob zaharrenaren izena, eta Mikol gazteenaren izena.

50. Eta Saulen emaztearen izena zen Akinoam, Akimaasen alaba; eta haren armadako buruzagiaren izena zen Abner, Ner deitzen zen Saulen aitaldeko osabaren semea.

51. Ezen Zis zen Saulen aita, eta Abnerrena Ner, Abielen semea.

52. Bada Saulen egun orotan gerla hazkar bat zen Filistindarren kontra. Saulek ikhusten zuenean gizon bat bihoziduna eta gerlakotzat ona, bere lagun hartzen zuen.

## XV. KAP.

1. Samuelek erran izan zioen Sauli: Jaunak igorri nau zure gantzutzeraz erregetzat Israelgo bere populuaren gainean; adi zazu beraz orai Jaunaren hitza.

2. Hau dio armadetako Jaunak: Khondata ditut Amalekek Israeli egin izan diozkanak oro, nola bidean jazarri zioen Egiptotik igaiten zelarik.



3. Zoazi beraz orai, jo zazu Amalek, eta herrauts zatzu haren izate guziak. Ez bezozu barkha, eta haren gauzetarik deuseren lehiarik ez har; bainan hil zatzu gizonetik emaztekira, ttipiak eta bulharreko haurreraino, idiak, ardiak, kameluak eta astoak.

4. Hargatik Saulek manatu zuen populua, eta khondatau zituen bildotsak bezala, berrehun mila oinezko, eta hamar mila gizon Judakoak.

5. Eta Saul ethorri zenean Amaleken hirira, zelatak ezarri zituen errekan.

6. Eta Saulek erran zioen Zinearrari: Zoaz, gibela zaite eta jauts Amaleken ganik, beldurrez-eta horrekin baltsan ezar zaitzadan; ezen zuk urrikari izan dituztu Israelgo semeak oro Egiptotik igaiten hari zirenean. Eta Zinearra atheratu zen Amaleken erditik.

7. Eta Saulek jo zuen Amalek Hebilatik heldu arteo Surreraino, zeina baita Egiptoaren parrean.

8. Eta bizirik hartu zuen Agag Amalekeko errege; jende xehe guzia ordean hil zuen ezpataren ahoaz.

9. Saulek eta populua guphidetsi zituzten Agag, eta ardizko eta idizko arthalde hoberenak, ahariak, soinekoak eta gauza ederrak; etzituzten xahutu nahi izan bainan zer-ere baitzen putruskarik eta tzarrik, hekiek izan ziren xahutuak.

10. Bada, Jaunak bere hitza Samueli adiarazi zioen, erraten zioelarik:

11. Urriki dut Saul errege ezarririk, zeren utzi bainau eta ene manuak ez baititu bethe. Samuel atsekabetan jarri zen, eta gau guzia Jaunari heia-goraz egotu zen.

12. Samuel gauaz jaiki zenean, goizean goateko Saulen gana, Samueli berria ekharri zioten Saul Karmel gainera ethorri zela; han trionfazko arranbela bat egin zuela, eta itzulirik iragan zela eta jautsi Galalara. Samuel ethorri zen beraz Saulen gana, eta Saulek holokausta bat eskaintzen zioen Jaunari Amaleketik ekharri zuen harrapakinetakoa pikinetarik.

13. Eta Samuel Saulen gana ethorri zenean, erran zioen Saulek: Jaunak benedikata bezaitza, Jaunaren hitza bethe dut:

14. Samuelek ihardetsi zuen: Zer dira bada arthaldetako orroa ene beharrietara heltzen diren horiek, eta entzuten ditudan idien marruma horiek?

15. Saulek erran zioen: Amaleketik erakharri dituzte: alabainan populua guphidetsi ditu ardi eta idi hoberenak, zure Jainko Jaunari imolatzekotzat; gainerakoak ordean hil ditugu.

16. Bada, Samuelek erran zioen Sauli: Utz nezazu, eta erranen darotzut nola gabaz mintzatu zaitan Jauna. Saulek ihardetsi zioen: Mintza zaite.

17. Eta Samuelek erran zuen: Zure begietan ttipi zinelarik, Israelgo leinuetan etzare buruzagi egin? eta Jaunak Israelen gaineko erregetzat gantzutu zaitu.

18. Jaunak bidera manatu zaitu, eta erran izan darotzu: Zoazi eta Amalektar gaixtaginak hil zatzu, eta gudukaturen dituztu, guziak hil arteo.

19. Zertako beraz ez duzu entzun Jaunaren mintzoa, bainan harrapakinera bihurturik, egin duzue gaizkia Jaunaren aitzinean?

20. Saulek erran zioen Samueli: Baitabada, entzun izan dut Jaunaren mintzoa, ibili naiz Jaunak igorri nauen bidez, erakharri dut Agag Amalekeko errege, eta hil ditut Amalektarrak.

21. Populua ordean harrapakinetik hartu ditu ardiak eta idiak, bertze hilak izan direnen pikainak, bere Jainko Jaunari Galalan imolatzekotzat.

22. Samuelek ihardetsi zioen: Jaunak holokaustak eta bitimak nahi othe ditu, eta ez othe du nahiago Jaunaren hitzari erortzea? Alabainan jauspena hobea da bitimak baino; entzutea, hobeki aharien bilgorraren eskaintzea baino.

23. Bihurri egitea, aztikeriako bekhatua bezala da; eta ez onhetsi nahi izatea, da idolatriako gaizkia bezala. Beraz zeren eragotzi duzun Jaunaren hitza, Jaunak eragotzen zaitu zu, errege etzaitzentzat izan.

24. Eta Saulek erran zioen Samueli: Bekhatu egin dut, hautsi dudalokotz Jaunaren manamendua eta egin zure hitzaren kontra, populua beldurrez, eta haren bozari begiratzeko.

25. Bainan orai ekhar zazu ene bekhatua, eta itzul zaite enekin, adora dezadan Jauna.

26. Samuelek erran zioen Sauli: Ez naiz zurekin itzuliko, eragotzi baituztu Jaunaren manua, eta Jaunak eragotzi baitzaitu etzaitzentzat errege izan Israelen gainean.

27. Eta Samuel itzuli zen goateko. Bainan Saul lothu zitzaioen kapa hegaletik, zeina hautsi baitzen.

28. Eta Samuelek erran zioen: Jaunak egun zure ganik ebaki du Israelgo erregetasuna, eta zu baino hobea den bati erran izan dio.

29. Bada Israelen trionfatzen denak ez du barkhatuko, eta urrikiak ez du hautsiko, ezen ez da hura gizona, urrikitan sartzeko.

30. Eta Saulek erran zioen: Bekhatu egin dut, bainan orai ohore bihur dizadazu ene populuko zaharren eta Israelen aitzinean, eta enekin itzul zaite adora dezadan zure Jainko Jauna.

31. Samuel itzulirik beraz jarraiki zen Sauli, eta Saulek adonatu zuen Jauna.



32. Eta Samuelek erran zioen: Ene aitzinera erakhar zazu Agag, Amalekeko errege. Eta erakharri zioten Agag, zeina baitzen hainitz gize-na eta ikharan baitzagoen. Eta Agagek erran zuen: Herio latzak behar othe darot horrela bizia khendu?

33. Samuelek erran zioen: Nola hire ezpatak haurrik gabe ezarri baititu emaztekiak, hala hire ama emaztekien artean izanen duk haurrik gabe. Eta Samuelek zathikatu zuen Jaunaren aitzinean Galgalan.

34. Bada Samuel goan zen Erramathara; Saul berriz bere etxera Gabaara igan zen.

35. Eta Samuelek etzuen gehiago ikhusi Saul bere heriotzeko eguneraino; halarik-ere Samuelek deithoratzen zuen Saul, Jaunak urriki zuela-kotz errege ezarririk Israelen gainean.

### XVI. KAP.

1. Eta Jaunak erran zioen Samueli: Noiz arteo deithoratuko duzu Saul, nik irazi dudanean ez dadien errege izan Israelen gainean? Bette zazu zure adarra olioz, eta zato igor zaitzadan Isai Bethlehemtarra gana, ezik haren semeetarik bat hautatu dut erregetzat.

2. Samuelek erran zuen: Nola goanen naiz? Saulek ezen adituko du, eta hilen nau. Eta Jaunak erran zioen: Arthaldetik har zazu aratxe bat, eta errazu: Jaunari imolatzera ethorri naiz.

3. Isai deithuko duzu sakrifiziara, eta nik irakhatsiko darotzut zer egin, eta gantzutuko duzu nik erakhutsiko darotzudana.

4. Samuelek egin zuen beraz Jaunak erran zioen bezala. Bethlehemera ethorri zen, eta hiriko zaharrak haren bidera heldu zirelarik miretsiak, erran zioten: Bakearekin sartzen zakizkigu?

5. Ihardetsi zuen: Bai, bakearekin. Ethorri naiz Jaunari imolatzera. Sainduets zaitetze, eta zatozte enekin imolatzera. Sainduetsi zituen beraz Isai eta bere semeak eta sakrifiziara deithu zituen.

6. Eta sarthu zirenean, ikhusi zuen Eliab, eta erran zuen: Jaunak aitzinean othe du bere Kristo?

7. Eta Jaunak erran zioen Samueli: Ez bezazu horren begitharteari begira, ez-eta horren irazkiaren luzetasunari, eragotzi dut hori; nik ez dut juiatzen gizonaren adimenduaren arabera; gizonak ageri dena ikhusten dute, bainan Jaunak bihotzari begiratzen dio.

8. Isaik Abinadab deithu zuen Samuelen aitzinera. Hunek erran zuen: Jaunak hori ere ez du hautatu.

9. Isaik beraz erakharri zioen Sama, zeintaz Samuelek erran baitzuen: Jaunak ez du hautatu hau ere.

10. Hargatik Isaik erakharri zituen Samuelen aitzinera bere zazpi seme; eta Samuelek Isairi erran zioen: Jaunak ez du horietarik hautatu.

11. Eta Samuelek erran zioen Isairi: Horiek dira bada zure seme guziak? Hunek ihardetsi zuen: Gelditu da oraino muthikotto bat, eta ardiak alhatzen ditu. Samuelek erran zioen Isairi: Bilha igorrazu eta erakhar zazu, ezik ez gare mahaineratuko hura ethor dadien baino lehen.

12. Isaik bilha igorri zuen beraz, eta erakharri zuen. Bada, gorraستا zen, itxura ederrekoa, eta propia begithartez. Eta Jaunak Samueli erran zioen: Jaiki zaitte, gantzu zazu, ezen hori bera da.

13. Samuelek hartu zuen beraz olio-adarra, eta gantzutu zuen bere anaien erdian; eta egun hartarik eta aitzina Jaunaren izpirituak Dabiden gainera egin zuen; eta Samuel xutiturik goan zen Erramathara.

14. Bada, Jaunaren izpiritua gibelatu zen Saulen ganik, eta izpiritu gaixtoak higitzen zuen Jaunaren oldetik.

15. Eta Saulen zerbitzariak berari erran zioten: Huna non Jaunaganikako izpiritu gaixtoak zerabilzkan.

16. Baldin gure jaunak atsegin badu, zure aitzinean diren zure zerbitzariak bilhatuko dute gitarra jotzen dakien gizon bat, gitarra jo dezan, Jaunaganikako izpiritu gaixtoa lothuko zaitzunean, eta arinkiago jasan dedazun.

17. Saulek erran zioten bere zerbitzariari: Bilha darotazue beraz nor-bait gitarra ongi jotzen duena, eta erakhar darotazue niri.

18. Hekietarik batek ihardetsi zioen: Ikhusi izan dut bada Isai Bethlehemtarraren seme bat, gitarra jotzen dakiena, gizon guziz hazkarra eta gerlaria, umoa bere solasetan, eta gizon ederra; eta harekin da Jauna.

19. Saulek Isairi igorri ziozkan beraz mandatariak, zioelarik: Bidal darotazu Dabid, zure semea, alhapidetan dena.

20. Hargatik Isaik asto bat hartu zuen kargatua ogiz, gorgoila bat arnoz eta bere ahuntzetako pittika batez, eta Sauli igorri ziozkan bere seme Dabidez.

21. Dabid ethorri zen Saulen gana, eta agertu zen haren aitzinera. Saulek hainitz maithatu zuen, eta Dabid egin izan zen haren ezkutari.

22. Saulek gaztiatu zioen Isairi: Dabid geldi bedi ene aitzinean, ezen grazia aurkhitu du ene begietan.

23. Beraz Jaunaren izpiritu gaixtoak Saul hartzen zuen guziez, Dabid lotzen zen gitarrari eta eskuz jotzen zuen, eta Saul berebaitzaratzen zen, eta arinago zuen, ezik izpiritu gaixtoak haren ganik gibelerat egiten zuen.



## XVII. KAP.

1. Bada Filistindarrak, beren armada gudura bildurik, ethorri ziren Soko Judakora, eta Sokoren eta Azekaren artean kanpatu ziren, Domingo mugetan.

2. Arren Saul eta Israelgo semeak bildu ziren Tirrimintineko haranera, eta armada lerrokatu zuten Filistindarren kontra gudukatzeko.

3. Filistindarrak zauden mendi baten gainean alde batetik, eta Israel ere mendi baten gainean zagoen bertze aldetik; eta harana zen hekien artean.

4. Eta Filistindarren kanpetarik atheratu zen gizon bat, sortzez bazterrekoa, Goliath deitzen zena, Jethekoa, gora zena sei besoz eta zehe batez.

5. Kobrezko kaska bat zuen buruan, eta gerruntze eskatatu bat soinean; bada gerruntzearen phisua zen bortz mila siklo kobrezkorena.

6. Kobrezko ixtergainetakoak zituen ixterretan, eta kobrezko erre-dola batek gordetzen zioen soina.

7. Haren lantzako zura zen ehaileen ehunetako zehermena iduri; haren lantzako burdinak bazituen sei ehun siklo burdinazko, eta haren ezkutaria haren aitzinean ibiltzen zen.

8. Eta Israelgo andanen aitzinean baratuz oihu egiten zuen, eta erraten zioeten: Zertako heldu zarete gudukotzat aphaundurik? Ez othe naiz Filistindarra eta zuek Saulen zerbitzariak? Hauta zazue zuetarik gizon bat, eta jauts bedi buruz-burukako gudura.

9. Enekin guduka ahal badadi, eta hiltzen banau, zuen gathibu izanen gare; bainan nausitzen banaiz eta hiltzen badut, zuek izanen zarete gure gathibu, eta zerbitzatuko gaituzue.

10. Eta Filistindarrak erraten zuen: Egun jazarri diotet Israelgo armadei: Athera darotazue gizon bat, eta enekin buruz-buru guduka bedi.

11. Eta Saulek eta Israeldar guziek adituz Filistindarraren horrelako solasak, harritzen eta ikharatzen ziren hainitz.

12. Bada, aitzinean aipatu den efratar gizon Bethlehem Judako haren semea zen Dabid; gizon hura Isai deitzen zen eta bazituen zortzi seme, eta Saulen egunetan zahartua zen eta adin handitan bertze gizonen artean.

13. Haren hirur seme handienak Saulen ondotik goan ziren gudura. Haren hirur seme gerlara goan zirenak deitzen ziren, zaharrena Eliab, bigarrena Abinadab, eta hirugarrena Sama.

14. Dabid zen ttipiena. Bada hirur zaharrenak Sauli jarraiki zirenean,

15. Dabid Saulen ganik bihurtu eta etxerat ethorri zen, bere aitaren arthaldea alhatzeko Bethlehemem.

16. Bada Filistindarra ethortzen zen goizean eta arratsean, eta hori egin zuen berrogoi egunez.

17. Eta Isaik bete Seme Dabidi erran zioen: Har zatzu zure anaientzat ephi bat garagar-buru xigor eta hamar ogi horiek, eta laster egizu kanpetara zure anaien gana.

18. Hamar zimitzetako gaina horiek eramanen diozkatzu hekien aitzindariari; ikhusiko duzu zure anaiak ongi direnez, eta jakinen duzu norekin diren Jerrokatuak.

19. Bada, Saul, eta Isairen semeak, eta Israeldar guziak Tirrimintineko haranean ziren gudutan Filistindarren kontra.

20. Dabid jaiki zen beraz goizean, eta arthaldea zaintzera eman zuen, eta kargaturik goan zen, Isaik manatu zioen ezala. Ethorri zen Magalara eta armadara, zeinak, gudura atheraturik, arthiki baitzuen guduko oihua.

21. Ezen Israel lerrotan jarria zen, eta Filistindarrak ere bertze aldetik xuxenduak ziren.

22. Dabidek beraz ekharri zituen gauzak utzirik pusken zainari, guduko tokira jo zuen, eta galdatzen zuen heian guziak ongi zihoazen bere anaientzat.

23. Eta hekiekin mintzo zetarik oraino, Filistindarren kanpetarik agertu zen igaiten Goliath deitzen zen Jetheko Filistindar bazterreko hura; eta Dabidek aditu ziozkan erraten leheneko solas berak.

24. Bainan ikhusi zutenean gizon hura, Israeldar guziek ihes egin zuten haren aitzinetik, haren beldur handiz.

25. Eta Israeldar norbaitek erran zuen: Ikhusi duzue igan den gizon hori? Israelen axutkatzera igan da ezen. Erregek bada aberastasun handiz aberastuko du gizon hori hilen duena, eta bere alaba ezkontzaz emanen dio, eta zergarik gabe ezarriko du haren aitaren etxea Israelen.

26. Eta Dabidek erran zioten harekin ziren gizonen: Zer emanen zaio Filistindar hori hilen, eta Israeldik laidoa khenduko duen gizonari? Zer da ezen Filistindar ingurebakigabe hori Jainko biziaren armadaren axutkatzeko?

27. Eta populuak solas bera errepikatzen zioen, erranez: Hulako sariak izanen ditu hori hilen duen gizonak.

28. Eliab, haren anaia zaharrenak aditu zuenean bertzeekin solasean, samurtu zen Dabiden kontra, eta erran zioen: Zertara ethorri haiz? eta zertako utzi dituk gure ardi bakhar hekiek mortuan trebes. Ezagutzen ditiat nik hire hanpuruseria eta bihotz xirtxila: gudua ikhusi nahiz jautsi haiz hi.



29. Eta Dabidek erran zuen: Zer egin dut? Mintzatzea ez othe da haizu?

30. Eta haren ganik aphur bat baztertu zen bertze alde batera, eta erran zituen elhe berak. Populuak ihardetsi zioen leheneko solas bera.

31. Bada Dabidek erran hitzak adituak izan ziren, eta Saulen aitzine-  
ra helduak.

32. Erregeren aitzinera erakharria izan zen, eta Sauli erran zioen: Horren gatik ez bedi ikhara nihoren bihotza; ni, zure muthila, goanen naiz eta gudukatuko dut Filistindarra.

33. Saulek erran zioen Dabidi: Etzare gai Filistindar horri buru egi-  
teko, ez-eta horren kontra gudukatzeke; ezen haur bat zare eta hori gaz-  
tedanik gerla-gizona.

34. Dabidek ihardetsi zioen Sauli: Zure muthilak alhatzen zuen bere  
aitaren arthaldea; lehoin bat edo hartz bat ethortzen zen, eta ahari bat era-  
manen zuen arthaldearen erditik;

35. Eta ni jarraitzen natzaioeten, jotzen nituen eta puska ahotik  
khentzen nioten; eta oldartzen zitzaizkitan, eta zintzurretik lotzen natzaio-  
ten, ithotzen eta hiltzen nituen.

36. Ezen hola nik, zure muthilak, hil ditut lehoin bat eta hartz bat:  
hargatik Filistindar ingurebakigabe hori ere izanen da hekietarik bat beza-  
la. Goanen naiz orai berean, eta khenduko dut populuaren laidoa; ezen  
nor da Filistindar ingurebakigabe hori ausartatzeko Jainko biziaren arma-  
daren madarikatzera?

37. Eta Dabidek erran zuen berriz: Lehoinaren eta hartzaren aztapa-  
rretik atheratu nauen Jaunak, atheratuko nau berak Filistindar horren  
eskuetarik. Saulek erran zioen beraz Dabidi: Zoaz, eta Jauna bedi zurekin.

38. Saulek bere puskak jauntzi ziozkan Dabidi; kobrezko kaska eza-  
rri zioen buruan, eta gerruntzea soinean.

39. Soinekoaren gainetik ezpata gerrian ezarririk, Dabid abiatu zen  
heian harmaturik ibil othe zitakeen, ezik etzen ohitua. Eta Dabidek erran  
zioen Sauli: Ez naiteke ibil hula, zeren ez baitut ohikunderik. Utzi zituen  
harma hekiek;

40. Hartu zuen bere makhila, bethi bere eskuetan zuena, eta ur-erre-  
kan hautatu zituen, bortz harri legunenetarik; ezarri zituen bere artzain-  
murtxilan zeina berekin baitzuen; habala eskuan hartu zuen eta goan zen  
Filistindarrari buruz.

41. Bada Filistindarra heldu zen, bere ezkutaria aitzinean, eta  
Dabiden kontra hurbiltzean,

42. Filistindarrak begiratu zuenean eta Dabid ikhusi, nardatu zitzaio-  
en; ezen Dabid gaztea zen, gorrasta eta begithartez ederra.

43. Filistindarrak erran zioen: Zakhurra othe nauk ni, hi ene sana  
makhilarekin ethortzeko? Eta Filistindarrak Dabidi bere jainkoez burho  
arthiki zioen.

44. Eta Dabidi erran zioen: Hurbil hakit, eta hire haragiak emanen  
ditiat zeruko hegastinei eta lurreko ihiziei.

45. Dabidek, berriz, erran zioen Filistindarrari: Hi, heldu haiz ene  
gana ezpatarekin, lantzarekin eta erredolarekin; ni ordean heldu natzaik  
armadetako Jaunaren izenean, egun axutkatu ditukan Israelgo armaden  
Jainkoaren izenean.

46. Jaunak arthikiko hau ene eskuetara, hilen haut eta khenduko daiat  
burua; eta Filistindarren kanpetako hilak emanen ditiat egun zeruko  
hegastinei eta lurreko ihiziei, lur guziak jakin dezantzat Israelen dela  
Jainkoa,

47. Eta bilkhu hunek guziak ezagut dezan ez duela Jaunak ez ezpa-  
taz, ez lantzaz salbatzen: ezen harena da gerla, eta arthikiko zaituztete  
gure eskuetara.

48. Beraz Filistindarra abiatu zenean, eta heldu baitzen eta hurbiltzen  
hari Dabidi, Dabid ere ernatu zen eta laster egin zuen Filistindarraren kon-  
tra gudukatzerara.

49. Eskua murtxilan sarthu zuen; harri bat hartu zuen, eta habalaz  
inguruka erabilirik arthiki zuen eta Filistindarra jo belharrean. Harria bel-  
harrean sarthu zen, eta Filistindarra mustupilka erori zen lurrera.

50. Dabid habalaz eta harriaz nausitu zen Filistindarrari, eta jo ondo-  
an hil zuen. Eta nola Dabidek ezpatarik ez baitzuen eskuan,

51. Laster egin zuen, jarri zen Filistindarraren gainean, hartu zuen  
haren ezpata eta maginatik atheratu; eta hil zuen eta burua moztu zioen.  
Bada, Filistindarrek ikhustenez beren gerlaririk gogorrena hila zutela, ihe-  
sari eman ziren.

52. Israelgo eta Judako gizonak jaikirik, oihuka hasi ziren eta  
Filistindarren ondotik jo zuten haranera ethorri arteo eta Akarongo  
atheetaraino, eta Filistindarretarik erori ziren sastakaturik Saraimgo  
bidean eta Jetheraino eta Akaroneraino.

53. Israelgo semeak, Filistindarrei jarraiki ondoan, itzulirik gibelerat,  
sarthu ziren hekien kanpetan.

54. Dabidek, berriz, Filistindarraren burua harturik, eraman zuen  
Jerusalemara; bainan haren harmak bere olhan ezarri zituen.



55. Bada, Saulek Dabid Filistindarraren kontra atheratzen ikhusi zuen ordu berean, erran zioen Abnerri, bere armadako buruzagiari: Zer iraulgitarik jausten da gizon-gazte hori, Abner? Eta Abnerrek ihardets zuen: Zure arimaz, errege, balin badakit.

56. Erregek erran zioen: Galda zazu noren seme den muthil gazte hori.

57. Eta Dabid bihurtu zenean Filistindarra hilik, Abnerrek hartu zuen eta Saulen aitzinera sarrarazi, Filistindarraren burua eskuan.

58. Saulek erran zioen Dabidi: Noren odoletik zare, gizon-gaztea? Eta Dabidek ihardetsi zioen: Zure zerbitzari Isai Bethlehemtarraren semea naiz.

### XVIII. KAP.

1. Dabid Sauli mintzatzetik gelditu zenean, gerthatu zen Jonathasen bihotza Dabiden bihotzari estekatu zela, eta Jonathasek Dabid maithatu zuen bere burua bezala.

2. Saulek egun hartan hartu zuen Dabid, eta etzuen utzi bere aitaren etxera itzultzera.

3. Bada Dabidek eta Jonathasek batasun egin zuten elkharrekin, ezen Jonathasek bere burua bezala maite zuen.

4. Hargatik Jonathasek erauntzi zuen soinean zuen athorra eta Dabidi eman zioen, eta bere bertze soinekoak ere bai, bere ezpata eta arranbelaraino, eta gerriko uhaleraino.

5. Dabid halaber, norat-nahi igor zezan Saulek, orotara atheratzen zen, eta umoki zerabilan. Saulek ezarri zuen gerlako gizon batzuen buruan, eta ongi ikhusia zen populu guziaz, eta guziz Saulen zerbitzariez.

6. Bada, Dabid, Filistindarra hilik bihurtzen zelarik, emazteki guziak atheratu ziren Israelgo hiri guzietarik, kantuz eta dantzan Saulen bidera, bozkariozko atabalekin eta zistrekkin.

7. Eta emaztekiek kantatzen zuten dostatuz eta erranez: Saulek hil ditu mila, eta Dabidek hamar mila.

8. Baina Saul samurtu zen hainitz, eta solas hori desgogaran izatu zen haren begietan. Eta erran zuen: Dabidi eman diozkate hamar mila, eta niri eman darozkitate mila; zer du orai eskas erregetasuna bera baizik?

9. Egun hartan eta geroztik Saulek etzioen beraz begi onez begiratzen Dabidi.

10. Bada, biharamunean Jainkoaren izpiritu gaixtoak hartu zuen Saul, eta profetisatzen zuen bere etxearen erdian, eta Dabidek gitarra eskuz jotzen zuen, egun oroz bezala. Saulek lantza eskuan zadukan,

11. Eta hartaz eman zioen Dabidi, harrasiarekin josiko zuelako ustean; baina Dabidek bazterrerat egin zioen bi aldiz.

12. Saul Dabiden beldurretan jarri zen, Jauna harekin zelakotz, eta bere ganik gibelatu zitzaioelakotz.

13. Saulek beraz Dabid urundu zuen bere ganik, eta ezarri zuen mila gizonen aitzindari; eta hura ilkhitzen eta sartzen zen populuaren aitzinean.

14. Bere bide guzietan ere umoki zerabilan, eta Jauna harekin zen.

15. Hargatik Saulek ikhusririk guziz umoa zela, itzalgaizten hasi zitzaioen.

16. Baina Israel guziak eta Judak maite zuten Dabid, ezen hekien buruan sartzen eta ilkhitzen zen.

17. Eta Saulek erran zioen Dabidi: Huna Merob, ene alaba zaharrena; hau emanen darotzut emaztetzat; bakharrik, izan zaitezi bihozduen, eta guduka zaite Jaunaren gerletan. Baina Saulek bere gogoarekin egiten zuen: Ene eskua ez bedi jauts horren gainera, baina bai Filistindarra.

18. Dabidek ordean erran zioen Sauli: Nor naiz ni, edo zer da ene bizia, edo ene aitaren ethorkia Israelen, erregeren suhi egin nadietzat?

19. Baina ethorri zenean ordua, Merob, Saulen alaba, Dabidi ematekoa, Hadriel Molatharrari emaztetzat emana izan zen.

20. Bada, Mikol, Saulen bigarren alabak maithatu zuen Dabid. Eta hori erran zioten Sauli eta haren gogarako izan zen.

21. Saulek erran zuen: Mikol emanen diot, izan dadien horren galgarrri, eta Filistindarren eskua izan dadien horren gainean. Eta Dabidi erran zioen Saulek: Egun ene suhi izanen zare bi gauzetan.

22. Saulek hunela manatu zituen bere zerbitzariak: Dabidi mintza zaizte ene ixilik bezala, erraten diozuelarik: Huna erregeren gogarako zarella, eta haren zerbitzari guziak maite zaituzte. Orai beraz izan zaite erregeren suhi.

23. Saulen zerbitzariak solas horiek oro ekharri zituzten Dabiden beharrietara. Eta Dabidek ihardetsi zuen: Erregeren suhi izatea guti dela iduritzen othe zaitzue? Ni gizon bat naiz beharra eta ttipia.

24. Saulen zerbitzariak itzuli ziren, zioetelarik: Hulako solasetan mintzatu da Dabid.

25. Eta Saulek erran zuen: Hunela mintza zaizte Dabidi: Erregek ez du ezkontari beharrik, baizik-ere nahi ditu Filistindarren ehun buztanmoko, erregeren etsaiez asperkunde egina izan dadietzat. Bada, Saulek gogoan zerabilkan Dabid arthikitzea Filistindarren eskuetara.

26. Eta Saulek erran hitzak haren zerbitzariak Dabidi heldu ziozkatenean, solasa Dabiden gogarako izatu zen, erregeren suhi egitea gatik.



27. Eta handik egun gutirik barnean, Dabid jaiki zen eta goan berepeko zituen gizonekin. Hil zituen berrehun gizon Filistindarretarik; ekharri zituen hekien buztan-mokoak eta erregeri khondatu, haren suhi izateko. Hargatik Saulek emaztetzat eman zioen Mikol bere alaba.

28. Saulek ikhusi eta ezagutu zuen Jauna Dabidekin zela. Bada Saulen alaba Mikolek maite zuen Dabid.

29. Eta Saul hasi zen Dabiden beldur handiagoan sartzen; eta Saul egunetik egunera Dabiden etsai egin zen.

30. Eta Filistindarren aitzindariak atheratu ziren; baina ilkhitzen hasi zirenetik, Dabid umokiago zerabilan Saulen zerbitzari guziak baino, eta haren izena ospe handitan jarri zen.

### XIX. KAP.

1. Bada Saulek mintzatu zituen Jonathas, bere semea, eta bere zerbitzari guziak, Dabid hil zezatentzat. Baina Jonathas, Saulen semeak xitki maite zuen Dabid;

2. Eta Jonathasek Dabid jakintsun egin zuen, erraten zioelarik: Saul ene aita zu hil beharrez derabila; horren gatik zure burua begira zazu, othoi, goizetik, itzalirik egon zaite eta zaude gorderik.

3. Eta ni ilkhirik egonen naiz ene aitaren aldean, zu aldaratua zaudelarik; zutaz mintzatuko naiz ene aitari; eta zer-ere ikhusiko baitut, erranen darotzut.

4. Jonathas beraz Dabiden alde mintzatu zitzaioen Saul bere aitari, eta erran zioen: Oi errege ez bezozu hobenik egin zure zerbitzari Dabidi, ezen ez da zure alderat hobendun jarri, baina haren egintzak zuretzat hainitz onak dira.

5. Bere bizia menturretan ezarri izan du, Filistindarra hil du, eta Jaunak haren eskuaz harrigarri den bezala salbatu du Israel: zerorrek ikhusi duzu, eta boztu zare. Zertako beraz jazartzen diozu hobenik gabe den odolari, hilarazi nahiz Dabid, zeinak ez baitu gaizkirik egin?

6. Saulek hori entzun zuenean, eztitua izan zen Jonathasen solasez, eta zin eginez erran zuen: Ala Jainkoa! Dabid hila ez baita izanen.

7. Hargatik Jonathasek deithu zuen Dabid, eta solas horietaz oroz jakintsun egin zuen. Jonathasek Dabid agerrarazi zuen Saulen aitzinera, eta haren baithan izan zen lehen izatu zen bezala.

8. Bada, berriz biztu zen gerla, eta atheraturik Dabidek gudu eman zioten Filistindarrei; sarraski handitan ezarri zituen eta ihes egin zuten haren aitzinetik.

9. Eta Jaunaren izpiritu gaixtoa jarri zen Saulen baithan. Eta bere etxean jarria zagoen, lantza eskuan, eta Dabidek gitarra eskuz jotzen zuen.

10. Eta Saulek nahi izan zuen lantzaz harrasiari josi; Dabid itzali zen Saulen aitzinetik; lantza ordean, ukhaldia hutsegini, harrasian sarthu zen. Dabidek ihes egin zuen eta gau hartako itzuri zen.

11. Saulek beraz igorri zituen bere guardiak haren etxera, haren zaintzeko gau hartan, eta biharamun goizean hiltzeko. Dabid hortaz jakintsun egina izan zen Mikol, bere emazteaz, zeinak erran baitzioen: Gau huntan itzurtzen ez bazare, hilen zare bihar.

12. Jautsi zuen leiho batetarik; goan zen, ihes egin zuen eta itzuri zen.

13. Orduan Mikolek gizon-itxura bat hartu zuen eta ohearen gainean ezarri; buruan eman zioen ahuntz-larru bat bere ilearekin, eta soinekoetz estali zuen.

14. Bada, Saulek igorri zituen agerrarazleak, Dabiden hartzera, eta ihardetsia izan zitzaioeten eri zela.

15. Saulek berriz igorri zituen mezulariak Dabiden ikhustera, zioelarik: Ekhar darotazue bere ohean, hila izan dadientzat.

16. Eta mezudunak ethorri zirenean, gizon-itxura atzeman zen ohean, eta ahuntz-larrua haren buruan.

17. Eta Saulek erran zioen Mikoli: Zertako enganatu nauzu hola, eta ihes egitera utzi duzu ene etsaia? Mikolek ihardetsi zioen Sauli: Zeren berak erran baitarot: Utz nezazu, bertzela hilen zaitut.

18. Bada, ihes eginik Dabid itzuri zen; Samuelen gana ethorri zen Erramathara, eta Saulek egin ziozkan guziez jakintsun egin zuen. Samuel eta biak goan ziren eta Naiiothen egotu ziren.

19. Eta berria Sauli ekharria izan zitzaioen, erraten ziotelarik: Hara Dabid Naiioth Erramathakoan dela.

20. Saulek igorri zituen beraz guardiak Dabiden hartzera; hekiek ikhusi ondoan profeta-multzo bat profetisatzen hari zirenak, eta Samuel hekien buruan jarria, Jaunaren izpiritua lothu zitzaioeten berei halaber, eta berak ere profetisatzen hasi ziren.

21. Berri hori ekharria izan zenean Sauli, igorri zituen bertze mezulari batzu; baina hekiek ere profetisatu zuten. Eta berriz ere Saulek igorri zituen mezulari hirugarrenak, zeinek orobat profetisatu baitzuten. Saul hasarre handitan sarthurik,

22. Bera ere goan zen Erramathara, heldu zen Sokon den urtegi handiraino, eta galdatu zuen eta erran: Zein lekhatan dira Samuel eta Dabid? Ihardetsi izan zitzaioen: Naiioth Erramathakoan dira.



23. Eta goan zen Naioth Erramathakora, eta berari ere lothu zitzaioen Jaunaren izpiritua, eta bidean zihoan, eta profetisatzen zuen Naioth Erramathakora heldu arteo.

24. Bere burua biluzi zuen bere soinekoetarik, Samuelen aitzinean profetisatu zuen bertzeekin, eta biluzia lurrean egotu zen egun hura eta gabaz: Hartarik atheratu zen errana: Saul ere profetekin othe da?

## XX. KAP.

1. Bada, Dabidek Erramathan den Nayothetik ihes egin zuen, eta goanik mintzatu zen Jonathasen aitzinean: Zer egin dut? zer da ene gaizkia, eta zer hoben dut zure aitaren alderat, hura ene biziaren ondotik ibiltzeko?

2. Jonathasek erran zioen: Urrun hortarik, etzare hilen; ezen ene aitak ez du deusere eginen, ez handirik, ez ttipirik, niri lehenik aiphatu gabe. Ene aitak gauza hori baxharra gorde othe darot bada? ez, ez da holakorik izanen.

3. Eta berriz Dabidi zin egin zioen. Eta Dabidek erran zuen: Zure aitak segurki badaki zure begien aitzinean grazia aurkhitu dudala, eta erran duke: Jonathasek ez beza hori jakin, atsekabetan jar ez dadientzat. Eta gehiago dena, Jaunaz eta ene arimaz (hala erran dezadan), ni eta heriotzea urhats batek berezten gaitu.

4. Jonathasek ihardetsi zioen: Zernahi erran dizadazun, eginen dut zuretzat.

5. Dabidek erran zioen Jonathasi: Huna bihar dela hilabethearen lehena, eta ni, azturaren arabera, erregeren aldean jartzen ohi naiz jateko; utz nezazu beraz landetan gordetzera hirugarren eguneko arratsa arteo.

6. Eta zure aitak begiraturik bilhatzen banau, ihardetsiko diozu: Dabidek othoiztu nau utz nezan laster batez goatera Bethlehemo bere hirira, zeren haren leinutar guziek han baitituzte ospe handitako sakrifizioak.

7. Erraten badu: Ongi, zure zerbitzariak bakea izanen du; bainan samurtzen bada, jakizu haren aiherra gairaino heldua dela.

8. Har zazu beraz zure zerbitzariak urrikalpen hau, zeren nahi izan baituzu nik, zure zerbitzariak, zurekin egin nezan Jaunaren batasuna. Bainan gaizki zerbait ene baithan balin bada, zeronek hil nezazu, eta zure aitaren aitzinera ez benezazu sarraraz.

9. Jonathasek erran zioen: Urrun hori zu ganik; ezen ez daiteke gertaha, baldin garbiki ezagutzen badut ene aitaren aiherkundeak gairaino egina dela, ez darotzudala erranen.

10. Dabidek ihardetsi zioen Jonathasi: Nork ekharriko darot berria, zure aitak nitaz gogorki ihardesten balin badarotzu?

11. Dabidi erran zioen Jonathasek: Zato, ilkhi gaitezen bazterraldetara. Eta landetara ilkhi zirenean biak,

12. Jonathasek erran zioen Dabidi: Israelgo Jainko Jauna, bihar edo etzi jakin ahal badezat ene aitaren erabakia, eta baldin zerbait onik balin bada Dabidentzat, eta ez badiot berehala norbait igortzen, eta jakintsun ez badut egiten,

13. Jaunak Jonathasi hau egin bezo eta hura gainetik. Bainan baldin ene aitaren aiherkundeak irauten badu zure kontra, helduko dut zure beharria, eta utziko zaitut goatera bakean, eta Jauna bedi zurekin, ene aitarekin izatu den bezala.

14. Bizi izaten banaiz, egin dizadazu Jaunaren urrikalpena; eta baldin hila izaten banaiz,

15. Ez bezazu ene etxearen gainetik khen zure urrikalpena bethi guziraino, Jaunak errotrik jauzarazi ditukeenean Dabiden etsai guziak, zein bere aldian lurretik: Jaunak khen beza Jonathas bere etxetik, eta asperkunde athera beza Dabiden etsaietarik.

16. Jonathasek batasun egin zuen beraz Dabiden etxearekin, eta Jaunak asperkunde atheratu zuen Dabiden etsaietarik.

17. Eta Jonathasek berriz ere zin egin zioen Dabidi, maite zuelakotz; ezen nola maite baitzuen bere arima, hala maite zuen Dabid.

18. Jonathasek erran zioen: Bihar da hilabethearen lehena, eta bilhatuko zaituztete.

19. Eta zure jarlekhua hutsa ageriko da etzi arteo. Jautsiko zare beraz zalhuki, eta ethorriko zare gorde behar zaren tokira lanean haritzea zilhegi den egunean, eta Ezel deitzen den harriaren aldean jarriko zare.

20. Eta nik harri haren aldetik igorriko ditut hirur gezi, eta arthikiko ditut xurira hari banintz bezala.

21. Muthil bat ere igorriko dut, diodalarik: Habil eta ekhar daroztak geziak.

22. Muthilari erraten badiot: Hitaz hunatago dituk geziak, harzkik; zato ene gana, zeren bakea baitukezu, eta, ala Jainkoa! gaitzik batere ez baita zuretzat izanen. Baldin ordean huneta mintzaten banaiz muthilari: Hitaz haratago dituk geziak; zoaz bakean, zeren Jaunak bidaltzen baitzaitu.

23. Bainan zuk eta nik erran dugun solasaz, Jauna zure eta ene artean izan bedi bethi guziko.

24. Dabid gorde zen beraz landan, eta ethorri zen hilabethearen lehena, eta errege jarri zen ogiaren jateko.





25. Eta errege (ohitzaren arabera) jarri zenean bere jarlekhuian, zeina baitzen, harrasiaren ondoan, Jonathas xutitu zen, eta Abner jarri zen Saulen sahetsean, eta Dabiden lekhua hutsa agertu zen.

26. Eta Saulek etzuen deusere aiphatu egun hartan; ezen uste izan zuen Dabid, beharbada, lohi gerthatu zitakeela egun hartan, eta xahutu-gabea.

27. Eta hilabetea hasiz gerozko bigarren egunak argitu zuenean, berriz ere Dabiden tokia hutsa agertu zen. Eta Saulek erran zioen Jonathas bere semeari: Zertako Isairen semea ez da ethorri ez atzo, ez egun, jatera?

28. Sauli ihardetsi zioen Jonathasek: Hertxatuki othoiztu nau utz nezan Bethlehamera goatera.

29. Eta erran darot: Utz nezazu zeren ospe handitako sakrifizio bat hirian bada, ene anaietarik batek deithu nau: orai beraz grazia aurkhitu badut zure begien aitzinean, goanen naiz berehala eta ikhusiko ditut ene anaiak. Aria hortaz ez da ethorri erregeren mahainera.

30. Bada Saul hasarretu zen Jonathasen kontra, eta erran zioen: Gizonari bere lotzen den emaztekiaren semea, ez othe dakit maite dukala Isairen semea hire ahalketan eta hire ama laidagarriaren ahalketara?

31. Ezen Isairen semea lurraren gainean biziko den egun oro, ez haiz segurean izanen ez hi, eta ez hire erreinua ere. Hargatik orai berean igorrak haren bilha, eta erakhar darotak, ezik herioaren Seme duk hura.

32. Jonathasek ihardetsi zioen bere aita Sauli: Zertako hilen da? zer egin du?

33. Eta Saulek lantza hartu zuen hari sartzeko. Ezagutu zuen Jonathasek bere aitaren baithan asmu xedatu bat zela Dabiden hiltzea.

34. Jonathas mahainetik xutitu zen beraz hasarrearen hasarrez, eta jan gabe egotu zen hilabetearen bigarren egunean. Ezen damu-min hartu zuen Dabiden gainean, bere aitak ahalkea eman baitzioen.

35. Eta goizak argitu zuenean, Jonathas goan zen landara Dabiden aldearen arabera, eta muthiko xume bat hartu zuen berekin.

36. Eta erran zioen bere muthilari: Habil eta ekharzkitzadak nik igortzen ditudan geziak. Eta muthikoa lasterka goan ondoan, bertze gezi bat igorri zuen muthikoa baino urrunago.

37. Hargatik muthikoa goan zen Jonathasek gezia igorri zuen lekhu-  
ra, eta Jonathasek gibeletik oihiu egin zioen muthikoari eta erran: Hara, hantxe da gezia hire haindian.

38. Eta Jonathasek muthikoari gibeletik berriz oihiu egin zaroen, zio-  
elarik Higi hadi laster, ez trika. Muthikoak beraz bildu zituen Jonathasen  
guziak eta ekharri ziozkan bere nausiari;

39. Eta batere etzakien zer hari zen ezen Jonathasek eta Dabidek  
bakharrik zakiten gauza.

40. Jonathasek beraz muthikoari eman ziozkan bere harmak eta  
erran zioen: Habil eta eramanzkik hirira.

41. Eta muthikoa goan ondoan, Dabid atheratu zen bere tokitik,  
zeina hegoaldera baitzagoen, eta lurrera eroririk, Jonathas adoratu zuen  
hiruretan; eta bata bertzea besarkatzen zutelarik, elkharrekin nigar egin  
zuten, Dabidek ordean gehienik.

42. Jonathasek erran zioen beraz Dabidi: Zoaz bakean; bethe bedi  
biek Jaunaren izenean zin egin duguna, erraten gindularik: Jauna izan  
bedi zure eta ene artean, zure ondokoen eta ene ondokoen artean bethi  
guziraino.

43. Eta Dabid xutitu zen eta goan, eta Jonathas sarthu zen hirira.

## XXI. KAP.

1. Bada, Dabid ethorri zen Nobera, Akimelek aphezaren gana.  
Akimelek harritu zen Dabiden ethortzeaz. Erran zaroen: Nolaz zare bak-  
harrik eta nihor gabe zurekin?

2. Akimelek aphezari ihardetsi zaroen Dabidek: Erregek eman izan  
darot manu bat, eta erran darot: Nihork ez beza jakin zertara igorria zaren  
nitaz eta nolako manamenduak eman darozkitzudan ezik-eta ene gizonak  
mezutuak ditut halako eta hulako lekhuera.

3. Orai beraz eskuan balin baduzu zerbait, bortz ogi edo atzematen  
duzuna, indazu niri.

4. Eta Dabidi ihardestean, aphezak erran zioen: Ez dut ogi ardura-  
korik eskuan, bainan bakharrik ogi saindua zure gizonak xahu dira, bere-  
ziki emaztekietarik?

5. Dabidek ihardetsi zioen aphezari eta erran: Egiatzki emaztekiez  
denaz ber, begiratzen gare atzotik eta herenegundik, atheratu garenetik,  
eta gizonen puskak xahu ziren; bada, bide hori lohitu da, bainan egun  
xahutua izanen da puskez den bezenbatean.

6. Aphezak eman zioen beraz ogi sainduetsia; ezik han etzen ogirik,  
ez bazen bakharrik proposizioneko ogiak, Jaunaren aitzinetik aldaratuak  
izan zirenak, ogi beroen ezartzeko.

7. Bada, egun hartan han bazen Jaunaren tabernaklean gizon bat,  
Saulen muthiletarik; haren izena zen Doeg Idumearra, artzainen buruzagia.



8. Eta Dabidek Akimeleki erran zioen: Balin bazindu hor zure eskupean lantza edo ezpata bat? zeren ene ezpata eta harmak ez ditut enekin ekharri, alabainan erregeren manuak premia zuen.

9. Aphezak ihardetsi zioen: Tirrimintineko haranean hil zinduen Filistindar Goliathen ezpata huna non dela; kapa batean inguratua da ephodoaren giblean; hau nahi baduzu hartu, har zazu hemen ez da alabainan hortaz bertzerik. Eta Dabidek erran zuen: Ez da bertze bat hori bezalakorik, indazu hori.

10. Dabid jaiki zen beraz, eta egun hartan ihes egin zuen Saulen begiei, eta goan zen Akis, Jetheko erregeren gana.

11. Eta Akisen zerbitzariak ikhusi zutenean Dabid, erran zioten Akisi: Ez othe da hori Dabid, lurreko errege? ez othe zioten horri dantzatzu kantatzen: Saulek hil ditu mila, eta Dabidek hamar mila?

12. Bada, solas horiek bihotzera sarthu zitzaizkon Dabidi, eta hainitz beldurtu zen Akisez, Jetheko erregez.

13. Eta bere begithartea noratbait itzulikatu zuen hekien aitzinean; erortzen zen hekien eskuetara, andarka jotzen zituen athearen sahetsak, eta heldorra zarioen bizarrera.

14. Eta Akisek erran zioten bere zerbitzariak: Ikhusen duzue gizon hori zoroa dela; zertako erakharri duzue ene aitzinera?

15. Ala eskas ditugu erhoak, hori sarrarazteko, ene aitzinean erhoke-ria egitera? hori sarthu behar da ene etxean?

## XXII. KAP.

1. Dabid goan zen beraz handik, eta ihes egin zuen Odolamgo zil-hora. Haren anaiek eta haren aitaren etxe guziak aditu zutenean hori, harat jautsi izan ziren haren gana.

2. Eta hesturan, zorren azpian eta gaitziduretan ziren guziak bildu ziren haren gana; egina izan zen hekien buruzagi, eta baziren harekin lau ehun gizonen ingurua.

3. Dabid goan zen handik Masphara, zeina baita Moab-herrian, eta Moabeko erregeri erran zioen: Ene ait-amak egon beitez, othoi, zuekin, jakin dezadan arteo nitaz zer egingen duen Jaunak.

4. Eta utzi zituen Moabeko erregeren aitzinean, eta haren baithan egotu ziren, Dabid gaztelu hartan egotu zeno.

5. Gad profetak Dabidi erran zioen: Ez egon gaztelu huntan; zoazi Judako lurrera. Eta Dabid goan zen, eta ethorri zen Hareteko oihanara.

6. Saulek nabaditu zuen agertu zirela Dabid eta harekilako gizonak. Bada Saul Gabaan zagoanean, eta Erraman den oihan batean zelarik, lantza eskuan eta bere zerbitzari guziez inguratua,

7. Erran zioten berekin zituen zerbitzariak: Adi zazue orai, Jeminiren semeak; landak eta mahastiak zuei orori emanen othe darozkitzute Isairen semeak? mila gizonen eta ehun gizonen buruzagi ezarriko othe zaituztete guziak,

8. Oro ene kontra elkhar-hartuak izateko, eta niri berrien ez emateko, guzi noiz-ere ene semeak berak batasun egin baitu Isairen semeekin? Bat ez da zuetarik ene zorigaitzaz urrikaltzen denik, eta albiste bat emanen darotanik, ene semeak eraikarazteraino ene kontra ene zerbitzaria, egun arteo zelata hedatzen hari zaitana.

9. Bada, Doeg Idumearrak, han zenak eta Saulen zerbitzarietarik lehenbizikoak ihardetsi zioen: Ikhusi izan dut Isairen semea Noben, Akitoben seme Akimelek aphezaren baithan.

10. Akimelekek harentzat Jauna kontsultatu izan du, eta jatekoak eman diozka, eta Goliath Filistindarren ezpata ere eman izan dio.

11. Erregek beraz Akitoben seme Akimelek aphezaren bilha igorri zuen, eta Noben ziren haren aitaren aphezen etxe guziaren bilha; eta guziak ethorri ziren Saulen gana.

12. Akimeieki erran zioen Saulek: Adi zazu, Akitoben semea. Hunek ihardetsi zioen: Badantzut, Jauna?

13. Eta Saulek erran zioen: Zergatik ene kontra elkhar-hartu duzue zuk eta Isairen semeak, eta nolaz eman diozkatzu ogiak eta ezpata bat, eta harentzat kontsultatu duzu Jainkoa, hura ene kontra altxatzeko, bethi orai arteo zelatak hedatuz?

14. Akimelekek erregeri ihardetsi zioen: Eta nor da zure zerbitzari guzietan hain fidelik nola Dabid, erregeren suhia, zure manura abiatzen dena eta zure etxean ospez bethea dena?

15. Egund hasi othe naiz harentzat Jainkoaren kontsultatzen? Nabarmendurarik (urrun ni ganik) erregek har ez beza bere zerbitzariaren gainean horrelako gauzaz, ene aitaren etxe guzian: ezen zure zerbitzariak egiteko hortaz ez du, ez guti, ez aski, jakitaterik batere izatu.

16. Erregek erran zioen: Heriotzez hilen zarete, Akimelek, zu, eta zure aitaren etxe guzia.

17. Eta erregek bere inguruko manupekoei erran zioeten: Bihur zaitetze eta hil zatzue Jaunaren aphezak; ezen horien eskua Dabidekin da, zakitelarik ihes egin zuela, ez darotatet albisterik eman. Bainan erregeren zerbitzariak etzuten eskua hedatu nahi izan Jaunaren aphezen gainera.



18. Erregek Doegi erran zioen: Bihur zaite zu, eta jauz zaite aphezen gainera. Eta Doeg Idumearra bihurturik, jauzi zen aphezetara, eta egun hartan hil izan zituen, laur-hogoi eta bortz gizon lihozko ephodoaz jauntziak.

19. Gero ezpataz jo zuen Nobe, aphezen hiria, hilez gizonak eta emaztekiak, haurrak eta bulharrekoak, idiak, astoak eta ardiak.

20. Ordean Akitoben seme Akimeleken seme bat, Abiathar deitzen zena, itzuririk, Dabiden gana ihes egin zuen,

21. Eta berria ekharri zioen nola Saulek hil izan zituen Jaunaren aphezak.

22. Dabidek erran zioen Abiatharri: Banakien egun hartan, Doeg Idumearra han zenaz geroztik, Sauli hutsik gabe berria emanen zioela; ni naiz hobendun zure aitaren etxeko guzien heriotzeaz.

23. Zaude enekin, ez izan beldurrik; baldin nihor balin badabila ene biziaren ondoan, zure bizia ere bilhatuko du, eta enekin batean begiratu-ko zare.

### XXIII. KAP.

1. Berria ekharri zioten Dabidi, erraten ziotelarik: Horra non Filistindarrek sethiatzen duten Zeila eta ezkabatzetarik bihiak badaramatzate.

2. Dabidek kontsultatu zuen beraz Jauna, zioelarik: Goanen othe naiz, eta Filistindar horiek joko othe ditut? Jaunak ihardetsi zioen Dabidi: Zoazi, Filistindarrak joko ditutzu, eta Zeila salbatuko.

3. Eta Dabidekin ziren gizonak erran zioeten: Iklusazu hemen Judean gaudezelarik, beldurretan bizi garela; eta zenbat gehiago Zeilara goaten bagare Filistindarren armaden kontra.

4. Dabidek berriz kontsultatu zuen beraz Jauna. Jaunak ihardetsi zioen: Jaiki zaite eta zoazi Zeilara, ezen nik ezarriko ditut Filistindarrak zure eskuan.

5. Dabid bere gizonekin goan zen beraz Zeilara, gudukatu zituen Filistindarrak, hartu ziozkaten beren aziendak, eta sarraski gaitzaz jo zituen; eta begiratu zituen Zeilarrak.

6. Bada Abiathar, Akimeleken semea, ihes zihoanean Dabiden gana Zeilara, jautsi izan zen ephodoa berekin idukiz.

7. Bada Sauli berria ekharria izan zitzaioen Dabid Zeilara ethorri zela; eta Saulek erran zuen: Jainkoak ene eskuetara arthiki du, eta hertsia da sarthu denaz geroztik atheak eta gakhoak dituen hiri batean.

8. Eta Saulek populu guziari manu eman zioen gudura jauts zadien Zeilara, eta sethia zetzan Dabid eta haren lagunak.

9. Dabidek jakin zuenean Saul ixilka hari zela haren galtzeko bideen aphaizten, erran zioen Abiathar aphezari: Jauntzazu ephodoa.

10. Eta Dabidek erran zuen: Israelgo Jainko Jauna, zure zerbitzariak aditu du Saul Zeilara ethortzeko xuxentzen hari dela, ene gatik hiriaren xahutzeko xedetan.

11. Zeilarek haren eskuetara arthikiko othe naute? eta Saul ethorriko othe da, zure zerbitzariak aditu duen bezala? Israelgo Jainko Jauna, argi zazu zure zerbitzaria. Jaunak ihardetsi zuen: Saul ethorriko da.

12. Eta Dabidek erran zuen: Zeilarek emanen othe gaituzte, ni eta enekin diren gizonak, Saulen eskuetara? Jaunak ihardetsi zuen: Emanen zaituztete.

13. Dabid jaiki zen beraz, eta sei ehun gizonen heina harekin, eta Zeilatik atheraturik, bazterrez-bazter zabilzan, ez-jakinez norat egin. Sauli berria eramana izan zitzaioen ihes egin zuela Dabidek Zeilatik eta itzuri zela; hargatik Saulek bere baithan gorde zuen ilkhitzeko xedea.

14. Bada Dabid egoten zen mortuan toki hazkarrenetan, eta egotu zen Zipheko mortuko mendian, mendi oihantsuan. Saul halere bethi haren ondoan zabilan, bainan Jaunak etzioen eskuetarat eman.

15. Eta Dabidek ikhusi zuen Saul atheratu zela haren bizia beharrez. Bada Dabid Zipheko mortuan zagoen, oiha-pean.

16. Jonathas, Saulen semea, jaiki zen; goan zen Dabiden gana oiha-nera, hazkartu zuen haren bihotza Jainkoa baithan, eta erran zioen:

17. Ez izan beldurrik, ezen ene aita Saulen eskua ez da zure gainera helduko; erreginaturen zare Israelen gainean, eta ni bigarren izanen naiz zure ondotik; eta ene aita Saulek berak badaki hori.

18. Batasun egin zuten beraz biek elkharrekin Jaunaren aitzinean. Dabid gelditu zen oihaanean eta Jonathas itzuli zen bere etxera.

19. Ziphtarrak igan ziren bada Saulen gana Gabaara, eta erran zioten: Ez othe dakizu Dabid gordeka dagoela gure tokian oiha-neko lekhu segurenetan, Hakilako munhoan, zeina baita mortuko eskuin-aldean?

20. Orai beraz zure bihotzak jausteko lehia izatu duen bezala, jauts zaitzi; ordean hura erregeren eskuetara ematea gure egitekoa da.

21. Eta Saulek ihardetsi zuen: Jaunak benedika betzazte, zeren urrikaldu zaretan ene zorigaitzari.

22. Zoazte beraz, othoi; ardura handienarekin ibil zaitzete urhats hortan, artharekin bilha zaitze, eta begiz har zazu hura dabilan tokia, edo



hean nork ikhusi dukeen han; ezen ustea badu, nik amarrurekin zelatak hedatzen diozkadala.

23. Ikhusi eta begizta zatzue haren gordegailu guziak, zeinetan gor-detzen baita; ene gana bihur zaizte berri segurekin, goan nadientsat zue-kin; eta luphean sarthua balitz ere, bilhatuko dut hura Judako zokho guzietan.

24. Eta Ziphtarrak jaikirik, beren tokira goan ziren Saulen aitzinean. Bada Dabid eta bere gizonak ziren Maongo mortuan, zelhaietan Jesimongo eskuinalderat.

25. Saul goan zen beraz bere lagunekin haren bilhatzera; berri hori ekharria izan zitzaioen Dabidi, eta berehala jautsi zen gerendara, eta Maongo mortuan zagoen. Saulek aditu zuenean hori, Dabidi jarraiki zen Maongo mortura.

26. Saul zabilan mendi-mazelan alde batetarik, eta Dabid eta bere gizonak ziren mendi-mazelan bertze aldetik. Bada Dabidek etsitzen zuen Saulen begitharteari itzurtzea, zeren Saulek bere gizonekin inguratzen baitzituen Dabid eta bere lagunak ustei batek bezala.

27. Eta berri-ekharle bat ethorri zitzaioen Sauli, zioela: Higi zaite, eta zato, zeren Filistindarrak sarthu baitira zure lurrean.

28. Utzirik beraz Dabiden ondotikako urhatsa, Saul itzuli zen, eta goan zen Filistindarren bidera. Hargatik deithu zuten lekhu hura Berez-harri.

#### XXIV. KAP.

1. Dabid handik igan zen beraz eta egotu zen Engadiko lekhurik segurenetan.

2. Saul bihurtu zenean, Filistindarren ondotik izanik, berria ekharri zioten, ziotelarik: Hara Dabid Engadiko mortuan dela.

3. Saulek harturik beraz hirur mila gizon Israel guzian hautatuak, goan zen Dabiden eta haren lagunak bilhatzera, nahiz harkadi gaitzenezan, basahuntzentzat baizik ibilkizun ez direnetan.

4. Eta ethorri zen bidean khausitzen diren ardi-hespil batzuetara: eta han bazen zilhoka bat, zeinetan Saul sarthu baitzen bere egin-beharretara. Bada Dabid eta bere lagunak zilho haren barnean gordeak zauden.

5. Eta Dabidi erran zioten bere zerbitzariak: Huna egun hura, zeine-taz Jaunak erran izan baitarotzu: Zure etsaia zure eskuetara emanen dut egin diozozuntzat atsegin dukezuna. Dabid jaiki zen beraz, eta ixilik ebaki zuen Saulen kapako hegala.

6. Gero Dabidi bere baithan urrikitu zitzaioen zeren moztu zuen Saulen kapako hegala.

7. Eta erran zioeten bere lagunei: Jaunak begira nezala egitetik ene nausiari, Jaunaren kristori horrelakorik, ezartzetik hunen gainean ene eskua, zeren Jaunaren kristo baita.

8. Dabidek bere solasez hautsi zituen bere gizonak eta etzituen utzi Saulen gainera altxatzera. Bada Saul zilhokatik atheraturik bazihoan abiatu bidean.

9. Eta Dabid ere jaiki zen, eta zilhotik ilkhirik, Sauli gibeletik oihu egin zioen, zioelarik: Jauna, ene erregea. Saulek gibelerat begiratu zuen; eta Dabidek, lurreraino makhurtuz, adoratu zuen,

10. Eta Sauli erran zioen: Zertako entzuten ditutzu gizonak erraten darotzutenak: Dabid zuri gaizkia egin beharrez dabila?

11. Huna non egun zure begiz ikhusi duzun Jaunak ene eskuetara eman zaituela harpean; eta zure hiltzea gogoratu zait; bainan guphidetsi zaitu ene begiak; ezik erran dut: Ez dut eskua hedatuko ene nausiaren gainera, zeren Jaunaren kristo baita.

12. Eta hobeki, ene aita, ikhusazu eta ezagutazu zure kaparen izkina ene eskuan; ezik mozten nuenean zure kapako hegala, ez dut nahi izan ene eskua zure gainera hedatu. Begira zazu eta ikhusi etzela ene baithan ez gaizkia, ez tzarkeria, ez-eta zure alderako bekhatua; zuk ordean ene bizia-ri zelatak hedatzen diozkatzu, hura niri khendu nahiz.

13. Jaunak juia beza zure eta ene artean, eta Jaunak asper beneza zu ganik; bainan ene eskua ez bedi zure gainean izan.

14. Erran-zaharrak dioen bezala: Tzarretarik ilkhiko da tzarkeria, ene eskua ez bedi beraz izan zure gainean.

15. Noren ondotik zabilta, oi Israelgo errege? nor bilhatzen duzu? zakhur hil bati, kukuso bati zarraizkio.

16. Jauna izan bedi juie, eta zure eta ene artean juia beza; Jaunak ikhusi eta juia betza ene ariak, eta zure eskuetik ilkhi beneza.

17. Bainan Dabidek Sauli ihardukitzen ziozkan solas horiek akhabatu zituenean, Saulek erran zuen: Ez othe da hau, ene Seme Dabid, zure mintzoa? Eta Saul hasi zen marraskaz eta nigarrez;

18. Eta Dabidi erran zioen: Ni baino zuzenagoa zare; zuk ezik ongia egin darotazu, eta nik zuri gaizkia bihurtu.

19. Egun agertu ditutzu zuk niri egin ongiak; alabainan Jaunak ezarri nau zure eskuan, eta ez nauzu hil.



20. Ezen zein da gizona, bere etsaia atzematen duenean, uzten duena bere bide onean? Bainan Jaunak niri egun egin darotazunaren ordaina bihur bezazu.

21. Eta orai, nola baitakit errege izatekoa zarela segurki, eta Israelgo erreinua zure eskuetan egotekoa dela,

22. Jaunaz zin egin dizadazu ez duzula ene ondotik ene odola galduko, eta ez duzula ene izena ene aitaren etxetik ezezatuko.

23. Eta Dabidek zin egin zioen Sauli. Saul goan zen beraz bere etxera; eta Dabid eta bere lagunak igan ziren toki seguragotara.

### XXV. KAP.

1. Bada, hil izan zen Samuel, eta Israel guzia bildu izan zen, eta deit-horatu zuen eta ehortzi bore etxean Erramathan. Eta Dabid jaikirik jau-tsi izan zen Pharango mortura.

2. Bada, gizon bat bazen Maongo mortuan, eta haren ontasuna Karmelen zen. Gizon hura aberats handi zen; bazituen hirur mila ardi eta mila ahuntz; eta gerthatu zen haren arthaldea mozten hari zela Karmelen.

3. Bada, gizon haren izena zen Nabal, eta haren emaztearena Abigail; eta emazteki hura zen guziz umoa eta ederra: haren gizona, berriz, zen gogorra, guziz gaixtoa eta maltzurra; bada, Kaleben odoletikakoa zen.

4. Dabidek mortuan aditu zuenean beraz Nabalek bere arthaldea mozten zuela,

5. Igorri zituen hamar gizon-gazte, eta erran zioten: Karmelera igan zaizte, zoazte Nabalen gana, eta ene izenean agur egingen diozue bakezko solasekin.

6. Eta erranen diozue: Bakea ene anaiei eta zuri, eta bakea zure etxean; zure izate guziari bakea.

7. Aditu dut zure artzain, mortuan gurekin zirenak, mozten hari dire-la: ez diotegu behinere bidegaberik ekharri, eta nihoiz etzaiote arthaldetik bururik eskastu, gurekin Karmelen egotu izan diren guzian.

8. Galda zozute zure muthilei, eta erranen darotzute. Orai beraz zure zerbitzariak grazia aurki bezate zure begietan; ezen egun onean ethortzen gare; eskura heldu zaitzuna emozute zure zerbitzariari eta zure seme Dabidi.

9. Dabiden muthilak heldu izan zirenean, solas horiek oro erran ziozkaten Nabali Dabiden izenean, eta ixildu ziren.

10. Bainan Nabalek ihardetsi zioten: Nor da Dabid? eta nor da Isairen semea? egungo egunean bazterrak bethe dira beren nausien ihes dabilzan sehiz.

11. Hartu behar othe ditut beraz ene ogiak, ene urak eta ardi-moz-taileentzat hil ditudan azienden haragiak, eta eman nongoak diren ez daki-dan gizon batzuei?

12. Hargatik Dabiden muthilak itzuli ziren beren bidez eta bihurtu-rik ethorri ziren, eta Dabidi ekharri ziozkaten Nabalek erran solas guziak.

13. Orduan Dabidek erran zioten bere muthilei: Zeinek bere ezpata ezar beza gerrian. Eta batbederak ezarri zuen bore ezpata gerrian, eta Dabidek ere berea gerrian eman zuen, lau ehun gizonen heina jarraiki zen Dabidi, eta berrehun gelditu ziren pusken zain.

14. Bada, Abigaili, Nabalen emazteari, berria ekharri zioen bere mut-hilearik batek, zioelarik: Huna non Dabidek mortutik mandatariak igorri dituen, gure nausiarri goraintzien ematera, eta gaizki hartu ditu.

15. Gizon horiek behar bezain onak izatu dira guretzat, eta ez bide-gabe-egile; eta mortuan horiekin bizi izatu garen guzian, ez da deusere galdu:

16. Harrasi bat bezala ziren guretzat hala gabaz nola egunaz, horien baithan arthaldeak alhatu ditugun guzian.

17. Horren gatik begira eta buruan erabil zazu zer egingen duzun, zeren zure gizonaren eta zure etxearen kontrako aiherra gain gainera heldua da; eta bere Belialen seme bat da, halai non nihor ez baitakioke mintza.

18. Abigail higitu zen beraz; hartu zituen berrehun ogi, bi zahagi arno, bortz ahari erre, bortz sato garagar xigortu, ehun floka mahats mer-latu, eta ehun zare piko merlatu, eta ezarri zituen asto gainetan.

19. Eta erran zioten bere muthilei: Zoazte ene aitzinean; huna non jarraikiko natzaitzuen gibeletik; bainan etzioen deusere aiphatu Nabal bere senharrari.

20. Asto baten gainera igan zenean beraz, eta mendi beheerera jaus-ten zelarik, Dabid eta bere gizonak jausten ziren haren bidera; Abigailek laster egin zioten aitzinera.

21. Eta Dabidek erran zuen: Egiazki alferretan begiratu ditut mor-tuan gizon horrenak ziren guziak, eta horren izate guzietarik ez da deu-sere galdu; eta niri ongiarentzat gaizkia bihurtu darot.

22. Jainkoak Dabiden etsaiei hau egin bezote eta hori gainetik, horre-nak diren guzietarik harrasiari gernua ixurtzen dioen bat uzten badut bihar goiza artean.

23. Bada Abigailek ikhusi zuenean Dabid, berehala jautsi bere asto-tik: Dabiden aitzinean bere burua arthiki zuen ahuspez, eta adoratu zuen lurretik.



24. Eta erori zen haren oinetara, eta erran zioen: Gaizki hori, ene jauna, izan bedi ene gainean; zure neskatoa, othoi, mintza bedi zure beharrietara, eta entzun zatzu zure sehiaren solasak.

25. Ene errege jaunak ez beza, othoi, erorraraz bere bihotzeko gaitzidura Nabal tzar horren gainera; zeren, bere izenaren arabera, zoroa baita, eta zorotasuna da horrekin; baina nik, zure neskatoak, ez ditut, ene jauna, ikhusi zure muthil igorri ditutzunak.

26. Orai beraz, ene jauna, bizi bedi Jauna, eta bizi bedi zure arima, ezik Jaunak etzaitu utzi odolean sartzera, eta begiratu darotzu eskua. Eta orai Nabal bezala egin beitez zure etsaiak, eta ene jaunari gaizkia bilhatzen diotenak.

27. Horren gatik onhets zazu zure neskatoak bere jaunari ekharri dioen ongi-ethorri hau, eta emozuete, zuri, ene jaunari jarraikitzen diren muthilei.

28. Barkha zazu zure neskatoaren hobena; ezik Jaunak zuri, ene jaunari altxatuko dio iraupenezko etxe bat, zeren Jaunaren guduak gudukatu baitituztu, ene jauna; gaizkia beraz ez bedi zu baithan khausi zure bizitzeko egun orotan.

29. Ezen baldin norbait altxatzen bada zure kontra, zure arima beharrez, ene Jaunaren arima begiratu izanen da bizidunen moltzoan bezala, zure Jainko Jauna baithan; bada zure etsaien arima birundaka erabiliko da, habalaren oldarrean eta inguraldietan bezala.

30. Noiz-ere beraz Jaunak egin baitakizketzu zuri, ene jaunari, zuretzat erran izan dituen ongi guziak, eta buruzagi ezarri zaitukeenean Israelen gainean,

31. Hau ez da zuretzat izanen urrikibidetan, ez-eta ene jaunarentzat bihotzeko beharduretan, ixuri duelakoan hobenik ez duenaren odola, edo zerorrek zure burua aspertu duzulakoan; eta noizere Jaunak ongiz gaindituko baitu ene jauna, orhoituko zare orduan zure neskatoaz.

32. Dabidek Abigaili ihardetsi zioen: Benedika bedi Israelgo Jainko Jauna, egun ene bidera igorri zaituena, eta benedika bedi zure ahoko bitza;

33. Benedikatua izan bezaitenzi zu, egun odolera goatetik, eta ene burua en eskuz aspertzetik begiratu nauzuna.

34. Bertzela, ala Israelgo Jainko Jauna! ni zuri gaitz egitetik begiratu nauena, baldin ez bazine laster ene bidera ethorri, etzen bihar goiza argitu arte huntan harrasiari gernua ixurtzen duenik geldituko Nabalen etxean.

35. Dabidek hartu zituen beraz Abigailen eskutik harek ekharri izan ziozkanak oro, eta erran zioen: Zoaz bakean zure etxerat; huna non entzun dudan zure hitza, eta onhetsi zure begithartea.

36. Bada, Abigail itzuli zen Nabalen gana: eta hara barazkari handi bat zuela etxean, iduri errege-barazkari bat, eta Nabalen bihotza harro zen, ezen bera hordi-handi zagoen. Abigailek etzioen ez guti ez aski deusere aiphatu biharamun goiza arteo.

37. Baina argitzeko, Nabalek bere arnoa zebatu zuenean, bere emazteak erran ziozkan oro, eta Nabalen bihotza barnean hil zen eta egin harri bat bezala.

38. Eta hamar egun iragan zirenean, Jaunak jo zuen Nabal, eta hil izan zen.

39. Dabidek Nabal hil zela aditu zuenean, erran zuen: Benedika bedi Jauna, Nabalenganikako ene laidoa xahutu duena, eta bere zerbitzaria gaizkitik begiratu duena; eta Jaunak Nabalen tzarkeria bihurrarazi du haren buruaren gainera. Dabidek igorri zuen beraz Abigailen gana, eta mintzatu zitzaioen hura emaztetzat hartzeko.

40. Dabiden zerbitzariak ethorri ziren Abigailen gana Karmelera, eta mintzatu zitzaizkon hunela: Dabidek zure gana igorri gaitu, zu bere emaztetzat hartu nahiz.

41. Xutiturik, Abigail lurrean ahuspez adoran eman zen, eta erran zuen: Huna zure neskatoa, sehi bat bezala izan bedi ene jaunaren zerbitzarien oinen garbitzeko.

42. Eta berehala jaikirik, Abigail igan zen asto baten gainera, eta bortz neskata, haren andreorenak, goan ziren harekin, eta jarraiki zen Dabiden mezulariei; eta egin zen haren emazte.

43. Dabidek halaber emaztetzat hartu zuen Akinoam Jezrahelgoa, eta biak izan ziren haren emazte.

44. Saulek ere Mikol, bere alaba, Dabiden emaztea, eman izan zioen Phalti Laisen semeari, zeina baitzen Galimgoa.

## XXVI. KAP.

1. Eta Ziphtarrak Saulen gana ethorri. ziren Gabaara, ziotelarik: Huna Dabid gordea dela Hakilako munhoan, zeina baita mortuaren parrean.

2. Eta Saul jaiki zen eta jautsi Zipheko mortura, eta harekin hirur mila gizon Israelgo hautetarik, Dabiden bilhatzeko Zipheko mortuan.



3. Eta Saul kanpatu zen Hakilako Gabaan, zeina baita mortuaren parrean, bidearen gainean. Bada, Dabid mortuan egoten zen. Eta ikhusirik Saul haren ondoan ethorri zela mortura,

4. Bidali zituen ikhusketariak, eta jakin zuen arras segurki ethorria zela.

5. Eta Dabid ixilik jaiki zen eta Saul zen tokira ethorri. Ikhusi zituean non lo egiten zuten Saulek eta Abnerrek, Nerren semeak, erregeren armadako buruzagiak, eta Saul lo bere olhan, eta gainerako jende xehea haren inguruan,

6. Dabidek erran zioten Akimelek Hethearrari, eta Abisairi, Sarbiaren seme, Joaben anaiari: Nor jautsiko da enekin Saulen kanpetara? Abisaik ihardetsi zuen: Ni jautsiko naiz zurekin.

7. Dabid eta Abisai goan ziren beraz gabaz populura, eta atzeman zuten Saul etzana eta lo bere olhan, eta haren lantza lurrean landatua haren buruko aldetik; Abner, berriz, eta populua lo erregeren inguruan.

8. Eta Abisaik erran zioen Dabidi: Jaunak egun zure etsaia zure eskuetan ezarri du. Orai beraz lantza ukhaldi batez lurrean zilhatuko dut, eta bigarrenik ez da beharko.

9. Dabidek Abisairi ihardetsi zioen: Berautzu hiltzetik; ezen nork bere eskua Jaunaren kristoren gainera hedatuko du, eta hobengabe izanen da?

10. Eta Dabidek erran zuen: Ala Jainkoa! Jaunak ez badu berak jotzen, edo heriotzeko eguna ez bazaio heldu, edo gudura jautsirik ez bada galtzen, biziko da.

11. Jaunak begira beneza eskua hedatzetik Jaunaren kristoren gainera: orai beraz buruaren ondoan duen lantza, eta ur edateko untzia har zatzu eta goazen.

12. Dabidek eraman zituen beraz lantza eta ur edateko untzia, Saulen buruaren ondoan zena, eta goan ziren: eta nihor etzen izan ikhusi eta aditu zituenik, eta iratzarri zenik, zeren Jaunaganikako lo bat hekien gainera erori baitzen.

13. Eta Dabid bertze aldera iraganik, gelditu ondoan urrunetik mendi-bizkar batean, eta konpasu handi bat hekien artean izan zenean,

14. Dabidek oiuhu egin zioten populuari, eta Nerren seme Abnerri, zioelarik: Abner, ez othe duzu ihardetsiko? Eta Abnerrek ihardetsi zuen: Nor haiz hi, oihuka hari haizena eta erregeren asaldatzen?

15. Eta Dabidek Abnerri erran zioen: Ez othe zare gizona? eta nor da zure idurikorik Israelen? Zertako beraz ez duzu zaindu zure errege jauna? Ezen ostetik norbait sarthu da zure errege jaunaren hiltzera.

16. Ez da ontsa, zuk egin duzuna. Ala Jauna! zuen jauna, Jaunaren kristo begiratu ez duzuenak, herioaren seme zarete. Ikhusazu beraz orai non den erregeren lantza, eta non den haren buruaren ondoan zen uruntzia.

17. Saulek, bada, ezagutu zuen Dabiden mintzoa, eta erran zuen: Mintzo hori ez othe da zurea, ene seme Dabid? Dabidek ihardetsi zioen: Ene mintzoa da, oi ene errege jauna.

18. Eta erran zuen oraino: Zertako ene jauna dabila bere zerbitzariaren ondotik? Zer egin dut? edo zer gaizki da ene baithan?

19. Orai beraz, ene errege jauna, entzun zatzu, othoi, zure zerbitzariaren hitzak: Ene kontra subermatzen zaituena Jauna balin bada, usain gozotan har beza sakrifizioa; bainan ordean gizasemeak badira, madarikatuak dira Jaunaren aitzinean, hainek egun binaute egotzi, Jaunaren primantzan ez nadiantzat egon, diotelarik: Habil, zerbitzazkik jainko arrotzak.

20. Eta orai ene odola lurrera ez bedi ixur Jaunaren aitzinean, Israelgo errege atheratu delakotz kukuso baten ondoan, mendietan epherri bilhatzen den bezala.

21. Saulek ihardetsi zuen: Bekhatu egin dut; itzul zaite, ene seme Dabid; ezik nihoiz-ere ez darotzut gehiago gaizkirik eginen, zeren egun zure begiek guphidetsi duten ene bizia: ageri da ezik zoroki haritu naizela, eta asko gauzaz jakintsun ez nintzela.

22. Eta Dabidek hunela ihardetsi zuen: Huna erregeren lantza; erregeren muthiletarik bat athera bedi, eta har beza.

23. Jaunak, bere zuzentasun eta zintasanaren arabera, sarizatuko du bakhotxa; ezen egun Jaunak ene eskuan ezarri zaitu, eta ez dut ene eskua hedatu nahi izan Jaunaren kristoren gainera.

24. Eta nola egun zure bizia guphide handi izatu baita ene begietan, hala ene bizia ere izan bedi Jaunaren begietan, eta begira beneza hestura orotarik.

25. Saulek erran zioen beraz Dabidi: Benedikatua izan bezedi, Dabid, ene semea; egiten abiatzen duzuna, eginen duzu; eta zure ahalak ahal izanen du. Bada, Dabid goan zen bere bidean, eta Saul itzuli zen bere lek-hura.

## XXVII. KAP.

1. Eta Dabidek egin zuen bere gogoan: Egund bat edo bertze eroriko naiz Saulen eskuetara. Ez othe da hobe ihes nohan eta itzur nadien Filistindarren lurrera, Saulek etsia har dezantzat, eta utz dezan ene bilhaztea Israelgo bazter orotan? Ihes eginen diot beraz haren eskuari.



2. Eta Dabid jaiki zen, eta goan zen bera, eta sei ehun gizon harekin, Akis, Maoken seme Jethen errege zenaren gana.

3. Eta Dabid Akisekin Jethen egotu zen, bera eta bere gizonak; gizon bakhotxa eta bere etxea; Dabid eta bere bi emazteak, Akinoam Jezraheldarra, eta Abigail Nabal Karmelekoaren emaztea.

4. Sauli berria ekharri zioten Dabidek Jethera zuela ihes egin, eta etzen gehiago haren ondoan ibili.

5. Bada, Akisi erran zioen Dabidek: Grazia aurkhitu badut zure begietan, lekhu bat emana izan bekik bazterralde huntako hirietarik batean, han egin dezadan ene egoitza; ezik zertako zure zerbitzaria zurekin egonen da errege-hirian?

6. Horren gatik Akisek egun hartan eman zioen Sizeleg, eta aria hortaz Sizeleg egina izan da Judako erreinuko egungo eguna artean.

7. Bada, Dabid Filistindarren lurrean egotu izan zen egun guziak heldu izan ziren lau hilabetherara.

8. Eta Dabid igan zen, eta haren gizonak ere bai, eta harrapakinak egiten zituzten Jesuritik, eta Jerzitik, eta Amalektarretarik; ezen herri heketako egoiliarak ziren, behiala Surretik Egiptoko lurrera heltzen zirenak.

9. Eta Dabidek lur hura guzia jotzen zuen, eta etzuen ez gizonik, ez emaztekirik bizirik uztea; eta harturik ardiak, idiak, astoak, kameluak eta soinekoak, itzultzen zen eta Akisen gana ethortzen.

10. Bada, Akisek erraten zioen: Noren gainera egin duzu oraiokan? Dabidek ihardesten zuen: Judako hegoaldera, eta Jerameelgo hegoaldera, eta Zeniko hegoaldera.

11. Dabidek ez gizon bat, ez emazteki bat etzuen bizirik uzten, ez-eta Jethera erakhartzen, erranez: Beldur izateko litake gure kontra mintza litezen. Hola haritu zen Dabid, eta hori izan zen haren legea Filistinherrian egotu zeno.

12. Akisek sinheste hartu zuen beraz Dabid baithan, zioelarik: Bidegabe handiak egin diozka bere populu Israeli: izanen da beraz enetzat bethiko zerbitzari.

### XXVIII. KAP.

1. Gerthatu zen, bada, orduko egunetan Filistindarrek bildu zituztela beren armadak eta Israeli gerla emateko eginbidetan jarri zirela; eta Dabidi erran zioen Akisek: Jakizu segurki orai zu eta zure gizonak enekin atheratuko zaretela gerlara.

2. Dabidek ihardetsi zioen Akisi: Orai jakinen duzu zer eginen duen zure zerbitzariak. Eta Akisek Dabidi erran zioen: Eta nik ene buruaren zain ezarriko zaitut bethi.

3. Bada, Samuel hil izan zen, eta Israel guziak deithoratu zuen, eta ehortzi zuten Erramathan, bere hirian. Eta Saulek bere lurretik egotzi zituen gaizkinak eta aztiak.

4. Filistindarrak bildu ziren, eta ethorri, eta kanpatu ziren Sunamen. Saulek ere bildu zuen Israel guzia, eta Jelboera ethorri zen.

5. Saulek ikhusi zituen Filistindarren kanpak, izitu zen eta haren bihotza ikharatu zen hainitz.

6. Kontsultatu zuen Jauna, zeinak ez baitzioen ihardetsi ez ametsez, ez aphez, ez-etare profetez.

7. Eta Saulek erran zioten bere zerbitzari: Pithona duen emazteki bat bilha darotazue, eta goanan naiz haren gana, eta haren bidez errekei eginen dut. Eta bere zerbitzariak ihardetsi zioten: Pithona duen emazteki bat bada Endorren.

8. Aldatu zituen beraz bere soinekoak, eta bertzeen soinekoak jauntzi zituen, eta goan zen bera, eta bi gizon berekin; ethorri ziren gabaz emaztekoa gana, eta erran zioen: Pithonaz asma dizadazu eta ilkhiazar erranen darotzudana.

9. Eta emaztekiak ihardetsi zioen: Huna badakizu zenbatetarainokoa egin dituen Saulek, eta nola bere lurretik ezeztatu dituen gaizkinak eta aztiak. Zertako beraz zelatak hedatzen diozkatzu ene biziari, hila izan nadientzat?

10. Eta Saulek zin egin zioen Jaunaz, zioelarik: Ala Jauna! gauza huntu bidegaberik batere gerthatzen bazaitzu.

11. Eta emaztekiak erran zioen: Nor ilkhiazariko darotzut? Saulek ihardetsi zioen: Eraik darotazu Samuel.

12. Baina emaztekiak ikhusi zuenean Samuel, oihu handi bat egin zuen, eta Sauli erran zioen: Zertako nauzu enganatu? ezen zu zare Saul.

13. Erregek erran zioen: Ez izan beldurrik; zer ikhusi duzu? Emaztekiak Sauli ihardetsi zioen: Jainkoak ikhusi ditut luphetik igaiten.

14. Saulek erran zioen: Nolakoa da? Ihardetsi zuen: Gizon-zahar bat igan da, eta kapa bat du soinean. Saulek ezagutu zuen Samuel zela, eta gurthu zen ahuspez lurrera, eta adoratu zuen.

15. Bada, Samuelek erran zioen Sauli: Zertako asaldatu nauzu ene eraikitzeke? Saulek ihardetsi zioen: Hestura gaitzean naiz: Filistindarrek gudu emanen darotate, eta Jainkoa gibelatu da ni ganik, eta ez nau entzun





nahi izan, ez profeten bidez ez-eta ametsenez; zu deithu zaitut beraz, irakats dizadazuntzat zer egin behar dudan.

16. Eta Samuelek erran zioen: Zertako hari zaizkit galdeka, Jauna zu ganik gibelatu denean eta zure partidaren gana iragan?

17. Ezen Jaunak eginen darotzu ene arartekoz mintzatu den bezala, iraziko du zure eskutik erreinua, eta zure suhi Dabidi emanen dio,

18. Etzarelakotz ethordun izatu Jaunaren hitzari, eta ez duzulakotz Ameleken gainera jautsarazi haren hasarreko sumindura: hargatik Jaunak egun egin darotzu jasaiten duzuna.

19. Eta Jaunak Israel ere zurekin batean emanen du Filistindarren eskuetara; eta bihar, zu eta zure semeak enekin izanen zarete; Jaunak halaber Israelen kanpak ezarriko ditu Filistindarren eskuetan.

20. Saul han berean lurrera erori zen zabal-zabala; ezik Samueten solasek ikharatu zuten; eta indarrik etzen haren baithan, zeren ogirik ez baitzuen jan egun hartan guzian.

21. Orduan emazteki hura hurbildu zitzaioen Sauli (ezik Saul hainitz nahasia zen), eta erran zioen: Huna zure neskatoa jautsi da zure erranera, ene bizia menturan ezarri dut, eta entzun ditut erran daroztatzun solasak.

22. Orai beraz zuk ere adi zazu zure neskatoaren hitza, ogi-ahamen bat ezarriko dut zure aitzinean, janez indar har dezazun eta bidea egin ahal dezazun.

23. Saulek etzuen nahi izan, eta erran zuen: Ez dut janen. Baina bere zerbitzariak eta emaztekiak bortxatu zuten; eta azkenekotz, hekien erranak entzunik, xutitu zen lurretik eta jarri ohearen gainean.

24. Bada emazteki harek alhako aratxe bat etxean bazuen, eta higitu zen, eta hil zuen hura; eta irina harturik orhatu zuen, eta erre zituen airisak,

25. Eta ezarri zituen Saulen eta haren zerbitzarien aitzinean. Jan zute-nean, xutitu ziren, eta gau hura guzia bidean ibili ziren.

### XXIX. KAP.

1. Filistindarren armada guziak bildu ziren beraz Aphekera. Israel ere kanpatu zen Jezrahelen zen ithurri baten inguruan.

2. Bada, Filistindarren satrapak bazoazen ehunen eta milen buruan; Dabid ordean eta bere gizonak azken armadan ziren Akisekin.

3. Eta Filistindarren aitzindariak Akisi erran zioten: Zer nahi dute Hebrear horiek? Eta Akisek ihardetsi zioten Filistindarren aitzindariak: Ez duzue ezagutzen Dabid, Israelgo errege Saulen zerbitzari izana? Bada asko egun edo urthe enekin dela, eta ez dut erratekorik den gutiena

horren baithan khausitu, ene gana ihes egin izan duenetik eta egungo eguna arteo.

4. Baina Filistindarren buruzagiak samurtu zitzaizkon, eta erran zioten: Gizon hori gibelerat itzul bedi, eta egon ezarri izan duzun tokian, eta ez bedi gurekin jauts gudura, beldurrez-eta gure kontra jaik dadien gudutan hasi gaiztekeenean; ezen nola eztiaraziko du bertzela bere nautsia, ez bada gure buruei jazarritz?

5. Ez da hori Dabid, zeinari dantzariak kantatzen baitzioten, erranez: Saulek hil ditu mila, eta Dabidek hamar mila?

6. Akisek deithu zuen beraz Dabid, eta erran zioen: Ala Jauna! zuzena baitzare, eta prestua ene begietan, zure sar-ilkhiak enekin izatu dira kanpetan, eta ez dut zu baithan gaizkirik ttipiena atzeman ene gana ethorri zaren egunetik eta egungo eguna arteo: baina etzare satrapen gogarako.

7. Itzul zaitte beraz, eta zoazi bakean, eta ez betzatu eri Filistindarren satrapen begiak.

8. Dabidek erran zioen Akisi: Zer egin dut bada? eta zer khausitu diozu zure zerbitzariari zure aitzinera agertu izan naizen egunetik eta orai arteo, ni ez nadietzat ethor eta guduka errege ene nautsiaren etsaien kontra?

9. Akisek ordean ihardetsi zioen Dabidi: Badakit, ene begietan pres-tua zare Jainkoaren aingerua bezala: baina Filistindarren satrapak erran dute: Ez bedi gurekin ethor gudura.

10. Jaiki zaitte beraz goizik, zu eta zure nautsiaren zerbitzari zurekin ethorri direnak; eta gabaz jaiki zaitzen ondoan, argitzen hasiko duenean, bideari Loth zaitte.

11. Hargatik Dabid eta bere gizonak gabaz jaiki ziren, argitzean bideari lotzeko, eta Filistindarren lurrera bihurtzeko. Filistindarrak, berriz, igan ziren Jezrahelera.

### XXX. KAP.

1. Bada, Dabid Sizelegera hirugarren egunean ethorri zenean, Amalektarrek arte hartan Sizelegen gainera oldar egin zuten hegoaldetik, eta jo zuten Sizeleg, eta sutan ezarri.

2. Emaztekiak handik gathibu eraman zituzten eta xehe eta larri populu guzia. Etzuten nihor hil, baina berekin eraman zituzten eta goan ziren beren bidean.

3. Beraz Dabid eta bere gizonak hirira ethorri zirenean, eta suak errea atzeman zutenean, beren emazteak, semeak eta alabak gathibu eremanak,



4. Dabid eta harekin zen populua abiatu ziren oihuka, eta nigar egin zuten, nigarra hekien baitan agortu arteo.

5. Dabiden bi emazteak ere, Akinoam Jezraheldarra, eta Abigail, Nabal Karmelegoaren emaztea, gathibu eramana ziren.

6. Atsekabe gaitzak hartu zuen Dabid, ezik harrikatu nahi zuen populua, zeren gizon baxhotzak bihotza uhertua baitzuen bere seme-alaben gatik. Bainan Dabidek indar hartu zuen bere Jainko Jauna baithan.

7. Eta erran zioen Akimeleken seme Abiathar aphezari: Hurbil dizadazu ephodoa. Eta Abiatharrek ephodoa hurbildu zioen Dabidi.

8. Eta Dabidek Jauna kontsultatu zuen, zioelarik: Goanen naiz ohoin horren ondotik, eta atzemanen ditut, ala ez? Jaunak ihardetsi zioen: Zoaz ondotik, ezen atzemanen ditutzu dudarik gabe, eta khenduko diozute harrapakina.

9. Dabid goan zen beraz, bera eta harekin ziren sei ehun gizonak ere, eta heldu ziren Besorreko errekaraino; eta batzu nekhearen gatik baratu ziren.

10. Bainan Dabid bera jarraiki zen lau ehun gizonekin; ezen berrehun gelditu zioen, nekhearen gatik Besorreko erreka ezin iragan zutenak.

11. Eta egiptoar gizon bat atzeman zuten larrean eta erakharri zioten Dabidi: eta eman zioten ogia jatera eta ura edatera,

12. Eta halaber piko merlatuzko zare batetarik puxka bat eta bi floka mahats merlatu. Eta hekiek jan zituenean, gizona itzuli zen bere baithara, eta indarra bihurtu zitzaioen: ezik hirur gau-egunez etzuen ez ogirik jan, ez urik edan.

13. Dabidek erran zioen beraz: Norena haiz, edo nongoa, eta norat hoa? Ihardetsi zuen: Egiptoar muthil bat naiz, amalektar gizon baten gathibua, bainan ene nausiak utzi nau, zeren herenegun eritzen hasi naizen.

14. Ezik oldar egir izan dugu Zeretheko hegoaldera, eta Judaren kontra, eta Kaleben hegoaldera, eta suz erre dugu Sizeleg.

15. Eta Dabidek erran zioen: Eraman ahal nezakek saihera hartara? Ihardetsi zuen: Zin egin dizadazu Jainkoaz ez nauzula hilen ez-eta ene nausiaren eskuetara emanen, eta nik eramane zaitut saihera hartara. Eta Dabidek zin egin zioen.

16. Egiptoarrak eramane zuenean, hara non Amalaktarrak etzanak zauden bazter orotan, jaten eta edaten hari zirela, besta-egun bat zelebratzen balute bezala, Filistin-herritik eta Judako lurretik hartu zituzten harrapakin guziaren eta buluzkinen gatik.

17. Eta Dabidek jo zituen arrats hartarik biharamun arratsa arteo, eta hekiarik etzen nihor itzuri, ez bazen laur ehun gizon-gazte, kamelueta-ira iganik ihes-egin zutenak.

18. Dabidek athera zituen beraz Amalektarrek hartu guziak, eta athera zituen bere bi emazteak.

19. Eta ttipitik handiraino deusere etzen galdu, nahiz alaba eta buluzkinetarik; eta ebatsiak izanak, Dabidek oro gibelerat ekharri zituen.

20. Hartu zituen arthalde guziak eta azienda larria, eta bere aitzinean eragin zioten. Eta orok zioten: Hau da Dabiden harrapakina.

21. Bada, Dabid ethorri zen, nekheak geldiarazirik ezin jarraiki zitzaizkoen berrehun gizonetara eta Besorreko errekan egoteaz manatu zituenetara. Haukiek ilkhi ziren Dabiden eta harekin zen populua aitzinera. Dabid hurbildu zen hekietara eta begiharte onarekin agur egin izan zioten.

22. Dabidekin goan izan ziren gizonetan gerthatzen ziren gaixtagin eta gizatar guziek erran zuten: Zeren ez diren gurekin ethorri, irazi dugun harrapakinetik ez diozute batere emanen; bainan baxhotxari aski izan bekizkio bere emaztea eta hurrak: hekiek hartu-eta, itzul beitez.

23. Dabidek erran zuen ordean: Anaiak, ez duzue hola eginen Jaunak eman darozkigunez; begiratu gaitu eta gure eskurtara arthiki ditu gure kontra atheratu izan diren ohoinak.

24. Nihork etzaitzute entzunen solas horren gainean; ezen gudura jautsi denak eta pusken zain gelditu denak, zathi bera izanen dute, eta orobat bereziko zaiote.

25. Eta hori egina izan zen egun hartarik eta aitzina, jarria eta erabakia eta lege bat bezala Israelen orai arteo.

26. Dabid Sizelegera ethorri zen beraz, eta harrapakinetik emaitzak bidali ziozkaten Judako zahar bere ahaideei, zioelarik: Jaunaren etsaien harrapakinetik benedizioea har zazue.

27. Igorri zuen Bethelen zirenei; Erramothan hegoalderat; eta Jetherren,

28. Aroerren, Sephamothan eta Esthamon,

29. Errakalen, Jerameelgo hirietan eta Zentko herietan,

30. Araman, Asango aintziran eta Athaken,

31. Eta Hebronen, eta Dabid bera eta bere gizonak egotu izan ziren lekhetan.



### XXXI. KAP.

1. Bada, Filistindarrek gudu ematen zioten Israeli, eta Israeldarrek ihe-segin zuten Filistindarren aitzinean, eta hilak erori ziren Jelboeko mendian.
2. Eta Filistindarrak jauzi ziren Saulen eta haren semeen gainera, eta jo zituzten Jonathas, Abinadab eta Melkisua, Saulen semeak.
3. Eta Saulen gainera erori zen guduko indar guzia. Arranbelariak jarraiki zitzaizkon eta sakhi gaitza egin zioten arranbelariak.
4. Orduan Saulek erran zioen bere ezkutariari: Athera zazu zure ezpata eta jo nezazu, beldurrez ethor ditezen ingurebakigabe horiek eta hil nezaten nitaz trufa eginez. Eta ezkutariak etzuen nahi izatu, ezik laz-tura gaitzak harritua zen; hargatik Saulek hartu zuen ezpata, eta bere burua gainera arthiki zuen.
5. Haren ezkutariak hori ikhusi zuenean, erran nahi da Saul hila zela, berak ere bere burua ezpata sarthu zuen eta harekin hil zen.
6. Hil izan zen beraz Saul, eta haren hirur seme eta haren gizon guziak halaber egun hartan.
7. Bada, haranaz haindian eta Jordanearen bertze aldean ziren Israeldarrek ikhusi zutenean Israelgo gizonak ihesegin zutela, Saul hil zela eta haren semeak ere, utzi zituzten beren hiriak eta ihesari eman ziren; eta Filistindarrak ethorri ziren, eta han egin zuten beren egoitza.
8. Gerthatu zen bada biharamunean, Filistindarrak ethorri zirela hilen biluztera, eta atzeman zituzten Saul eta bere semeak Jelboeko mendian etzanak.
9. Sauli burua moztu zioten eta bere harmetarik biluzi zuten; eta igorri zuten Filistindarren lurrera inguruan, berriaren ematera jainkordeen tenploan eta populuetan.
10. Eta Saulen harmak ezarri zituzten Astarothen tenploan, haren gorputza, berriz, dilindan Bethsango harrasian.
11. Hori aditu zutenean Jabesgalaadtarrek, Filistindarrek Sauli egin ziozkaten guziak,
12. Bihotz gehienik zutenak oro jaiki ziren, bidean ibili ziren gau guzia eta hartu zituzten Saulen gorputza eta haren semeenak Bethsango harrasitik; ethorri ziren Jabes Galaadera, eta han erre zituzten.
13. Eta hartu zituzten hekien hezurak, eta ehortzi zituzten Jabeseko oihanean, eta zazpi egunez barur egin zuten.

## ERREGEAK II. LIBURUA

### I. KAP.

1. Bada, gerthatu zen, Saul hil ondoan, Dabid itzuli zela Amaleken sarraskitik, eta bi egun egotu zela Sizelegen.
2. Eta hirugarren egunean agertu zen gizon bat Saulen kanpetarik heldu zena, soinekoak xehaturik eta burua herrautsez estalia; eta Dabiden aitzinera ethorri zenean, ahuspez erori zen eta adoratu zuen.
3. Eta Dabidek erran zioen: Nondik heldu zare? Ihardetsi zioen: Israelgo kanpetarik ihes egin dut.
4. Dabidek erran zioen: Zer gerthatu da? erradazu. Hunek ihardetsi zuen: Populuak gudutik ihesari eman du, eta hainitzak populutik hilak erori izan dira; eta Saul ere eta Jonathas haren semea hilak dira.
5. Eta Dabidek erran zioen berria ematen zioen gizon-gazteari: Nondik dakizu Saul eta Jonathas haren semea hilak direla?
6. Berria ekhartzen zuen gizon-gazteak ihardetsi zuen: Gerthatu naiz Jelboeko mendira goatera, eta Saul bere lantzaren gainean bermatua zagoen. Bada, orga-lasterrak eta zaldizkoak hurbiltzen hari zitzaizkon.
7. Eta gibelerat itzulirik, ikhusi nau eta deithu. Ihardetsi diodanean: Huna non naizen,
8. Erran darot: Nor haiz hi? Eta ihardetsi diot: Amalektarra naiz.
9. Eta erran darot: Jar hakit gainean eta hil nezak, zeren oinhazeak bainaduka, eta ene bizi guzia enekin da oraino.
10. Gainera goanik, hil dut; banakien ezik etzaitkeela xahupen handi haren ondoan bizi gehiago. Hartu ditut haren buruan zen diadema, eta eskumuthurrekoa besotik, eta hunat ekharri ditut zuri ene jaunari.
11. Dabidek orduan hartu eta xehakatu zituen bere soinekoak, eta harekin ziren gizon guziek orobat;
12. Deithorean eta nigarretan egotu ziren, eta barur egin zuten arrats arteo, Saulen gainean, Jonathas haren semearen gainean, Jaunaren popularen eta Israelen etxearen gainean, zeren ziren erori ezpataren azpira.
13. Eta Dabidek berria ekharri zioen gizon-gazteari erran zioen: Nongoa haiz? Hunek ihardetsi zuen: Gizon arrotz amalektar baten semea naiz.
14. Eta Dabidek erran zioen: Nolaz ez haiz lotsatu hire eskua hedatzeaz Jaunaren kristoren hiltzeko?



15. Eta Dabidek deithurik bere zerbitzarietarik bat, erran zioen: Athor, jauz hakio gainera. Hunek jo zuen Amalek tarra, eta hil.

16. Era Dabidek hari erran zioen: Hire odola hire gain, ezen hire ahoa hire kontra mintzatu duk, erratean: Nik hil dut Jaunaren kristo.

17. Gero Dabidek deithorea Saulen gainean eta haren seme Jonathasen gainean hunelako hitzez egin zuen.

18. (Eta manatu zuen Judari bere semeei arranbelan irakhats zezoten, Justuen liburuan iskribatua den bezala.) Eta erran zuen: Oi Israel, orhoit bekizkitzu zure bizkar gainetan sarraskiturik hil direnak.

19. Israel, aiphu handitakoak zure mendietan izan dira hilak: nola erori dira hazkarrak?

20. Berautzue heda berria Jethen, berautzue barraia Askaloneko karrika-izkinetan, beldurrez boz ditezen Filistindarren alabak, beldurrez ingurebakigabeen alabak jauz ditezen bozkarioz.

21. Jelboeko mendiak, ez ihintza, ez uria ez beitez eror zuen gainera, eta zuen landak ez beitez izan pikainetakoak; zeren han izan den arthikia hazkarren erredola, Saulen erredola, Saul olioaz gantzutua izan ez balitz bezala.

22. Hilen odoletik, hazkarren gizenetik, Jonathasen gezia ez da egundaino gibelerat itzuli, eta Saulen ezpata ez da alferrik bihurtu.

23. Saul eta Jonathas maithagarri eta eder beren bizitzean, heriotzean ere ez dira bereziak izatu. Arranoak baino lasterragoak ziran, eta lehoinak baino borthitzagoak.

24. Israelgo neskatxak, nigar egizue Saulen gainean, zeinak eskarlataz jaunzten baitzintuzten gogoen erdian, zeinak urhezko edergailuak ekhartzea baitzaizkitzuen zuen aphaintzeko.

25. Hazkarrak nola erori dira guduan? nola hil izan da Jonathas zure bizkar gainetan?

26. Zure minez nago, ene anaia Jonathas, guziz ederra, maithagarria emaztekien amodioaren gainetik. Nola ama batek maite baitu bere seme baxharra, nik hala maite zintudan zu.

27. Nola erori dira hazkarrak? nola galdu dira gerlako harmak?

## II. KAP.

1. Gero beraz Jauna kontsultatu zuen Dabidek, zioelarik: Iganen othe naiz Judako hirietarik batera? Jaunak ihardetsi zioen: Igan zaite. Dabidek erran zuen: Norat iganen naiz? Eta Jaunak ihardetsi zioen: Hebronerat.

2. Dabid igan zen beraz, eta harekin haren bi emazteak, Akinoam Jezraheldarra, ta Abigail, Nabal Karmelekoaren emaztea.

3. Eta Dabidek bere etxerat eraman zituen berekilako sei ehun gizonak ere, eta Hebrongo hirian egotu ziren.

4. Eta Judako gizonak ethorri ziren, eta han gantzutu zuten Dabid, erregina zedintzat Judako etxearen gainean. Berria Dabidi ekharria izan zitzaioen, Jabes Galaadeko gizonak ehortzi zutela Saul.

5. Dabidek beraz mezulariak igorri ziozkaten Jabes Galaadeko gizonak, eta erran zioeten: Jaunaz benedikatuak izan betzaiztete, urrikalmendu hori zuen nausi Saulez hartu duzuenak eta hura ehortzi duzuenak.

6. Eta orai Jaunak bihurturen darotzue urrikalmendu eta egia; nik ere ordean esker bihurturen darotzuet, zeren egin duzuen egintza hori.

7. Indarza beitez zuen eskuak, eta izan zaitezte bihotzotasunaren seme; ezik hil den arren Saul zuen jauna, Judako etxeak gantzutu nau bere gainean errege.

8. Bainan Abnerrek, Nunen semeak, Saulen armadako buruzagiak, hartu zuen Isboseth Saulen semea, eta kanpen erdira eraman zuen,

9. Eta errege ezarri Galaaden gainean, Jesuriren, Jezrahelen, Efraimen, Benjaminen eta Israel guziaren gainean.

10. Isboseth, Saulen semea, berrogoi urthetan zen erreginatzen hasi zenean Israelen gainean, eta bi urthez erreginatu zen. Bada Judako etxea baxharrik jarraitzen zen Dabidi.

11. Eta Judako etxeari manatuz, Dabidek Hebronen eman zituen egunak, heldu izan ziren zazpi urthe eta sei hilabethetara.

12. Abner Nerren semea, eta Saulen seme Isbosethen gizonak kanpetarik Gabaonera ethorri ziren.

13. Bada Joab, Sarbiaren semea, eta Dabiden gizonak hekien bidera atheratu ziren Gabaongo arraintegiraino. Eta batera bildu zirenean, jarri ziren parrez-par, batzu arraintegiaren alde batetik, eta bertzeak bertzetik.

14. Eta Abnerrek erran zioen Joabi: Zenbait gizon-gazte jaiki beitez eta guduka gure aitzinean. Eta Joabek ihardetsi zuen: Jaiki beitez.

15. Beraz jaiki eta atheratu ziren hamabi Benjamindik, Saulen seme Isbosethen aldekoetarik, eta hamabi Dabiden aldekoetarik.

16. Eta zein bere khideari burutik lothurik, ezpata sahetsetik sarthu zioen etsaiari, eta oro batean erori ziren; eta toki hura deithua izan zen Hazkarren landa Gabaonen.

17. Eta gerla bat aski gogorra atheratu zen egun hartan: Abner eta Israelgo gizonak ihes igorriak izan ziren Dabiden zerbitzariez.



18. Eta han ziren Sarbiaren hirur semeak, Joab, Abisai eta Asael. Bada, Asael lasterkari bat zen guziz zalhua, oihanetan dauden orkhatzeta-rik bat bezala.

19. Eta Asael Abnerren ondotik zihoan, eta etzen ez eskuin, ez ezker aldaratu Abnerri jarraitzea utziz.

20. Hargatik Abnerrek bere gibelerak begiratu zuen, eta erran zioen: Ez haiz Asael? Hunek ihardetsi zuen: Ni nauk.

21. Eta Abnerrek erran zioen: Egizak eskuin, edo ezker, eta loth hakio gizon-gazte horietarik bati, eta hiretzat harzik buluzkinak. Bainan Asaelek etzuen nahi izan utzi haren hertsatzea.

22. Eta berriz ere Abnerrek erran zioen Asaeli: Gibelerat egizak, ez benezakaian bortxa hi ene lantzarekin lurrari jostera, eta gero ene begit-hartea ezin altxatuko diat hire anaia Joaben aitzinean.

23. Hunek solas hortaz etzuen izan axolarik eta etzen nahi izan baz-tertu. Abnerrek bereez, lantza itzulirik, itxazakhian jo zuen eta alderen bertze sarthu zioen. Asael han berean hil zen; eta hura erori eta hil zen lekhuari iragaiten ziren guziak baratzen ziren.

24. Bada, ihes zihoan Abnerren ondotik jarraitzen zirelarik Joab eta Abisai, iguzkia etzan zen; eta haranaren parrean, mortuko bidean Gabaonen den Ixtuneko munhora heldu ziren.

25. Eta Benjaminen semeak Abnerren gana bildu ziren, eta multzo batean jarririk, bizkargune batean baratu ziren.

26. Abnerrek Joabi oihu eginik erran zioen: Oro hil arteo sarraskitik ez othe duk baratuko hire ezpataren ahoa? Ala ez dakik nolakoa den etsia- ren gaitza? Noiz arteo ez diok populuari erranen utz dezan bere anaiei jarraitzea?

27. Joabek ihardetsi zioen: Ala Jauna! mintzatu izan bahintz, popu- luak goizetik utzi zukeen bere anaieri jarraitzea.

28. Joabek turuta jo zuen beraz; armada guzia baratu zen, eta etziren gehiago Israeli jarraiki eta gudu ematetik gelditu ziren.

29. Bada, Abnerrek eta bere gizonek zelhaiak barna jo zuten gau har- tan guzian; Jordanea trebesatu zuten, eta Bethoron guzia iraganik, kanpe- tara ethorri ziren.

30. Bada, Joabek, Abnerren ondotikako urhatsak utzirik, bildu zuen populu guzia; eta Dabiden zerbitzarietarik eskastu ziren, Asael gabe, hemeretzi gizon.

31. Bainan Dabiden zerbitzarietarik jo zituzten Benjamindik eta Abnerrekin ziren gizonetarik, hirur ehun eta hirur hogoi, eta hekiek hil ziren.

32. Asael ekharri zuten, eta bere aitaren hobian ehortzi zuten Bethlehemen. Eta gau guzia ibili ziren Joab eta harekin ziren gizonak, eta argi-zirrintako Hebronera heldu izan ziren.

### III. KAP.

1. Gerla luze bat egina izan zen beraz Saulen etxearen eta Dabiden etxearen artean; Dabid aitzinatuz eta bethi hazkarragotuz, Saulen etxea, berriz, egun oroz aphalduz.

2. Eta semeak sorthu zitzaizkon Dabidi Hebronon: eta haren zaha- rrena izan zen Amnon, Akinoam Jezraheldarrarenganikakoa;

3. Eta haren ondotik Keleab, Nabal Karmelekoaren emazte Abigailenganikakoa; eta hirugarrena Absalom, Maakaren semea. Maakaren aita baitzen Tholmai Jesurreko errege;

4. Laugarrena Adonias, Hagithen semea; bortzgarrena Saphathia, Abitalen semea;

5. Eta seigarrena Jethraam, Dabiden emazte Eglaren semea: horiek sorthu zitzaizkon Dabidi Hebronon.

6. Saulen etxearen eta Dabiden etxearen artean gerla zelarik, Nerren seme Abnerrek hotsematen zioen Saulen etxeari.

7. Bada Saulek izan zuen ohaide bat Errespha deitzen zena, Ayaren alaba. Eta Isbosethen Abnerri erran zioen:

8. Zertako sarthu zare ene aitaren ohaidea gana? Gogorki samurtu- rik Isbosethen hitzea, Abnerrek erran zuen: Judaren kontra egun zakhur- buru bat othe naiz ni, Saul zure aitaren etxeaz, haren anaia eta ahaidez urrikalpen hartu dudana, eta Dabiden eskuetara eman etzaitudana? eta egun zu zare ene baithan bilha zabilzana emazteki baten gainetik jazarriz!

9. Jainkoak Abnerri hau egin bezo, eta hura gainetik, baldin Jaunak nola zin egin Dabidi, hala ez badut harekin egiten,

10. Erregetasuna Saulen etxetik aldaratua izan dadientzat, eta altxa- tua izan dadien Dabiden tronua Gaelen gainean, eta Judaren gainean, Danetik Berfabearaino.

11. Eta Isbosethen hitz bat ezin ihardetsi zioen, zeren haren beldur baitzen.

12. Abnerrek beraz mandatariak igorri ziozkan Dabidi, haren orde ziotenak: Norena da lurra? eta erran zezatentzat: Adiskidantza enekin egizu, eta ene eskua zurekin izanen da, eta zure gana bihurrazaziko dut Israel guzia.

13. Dabidek ihardetsi zuen: Ederki; zurekin adiskidantza egingen dut; bainan gauza bat galdatzen darotzut, diodalarik: ez duzu ene begit-hartea



ikhusiko, erakhar dezazun artean Mikol Saulen alaba; eta hola ethorriko zare eta ikhusiko nauzu.

14. Eta Dabidek berri-eramaileak igorri ziozkan Isbosethi, Saulen semeari, zioelarik: Bihur darotazu Mikol ene emaztea, ezkontzaz izatu dudana Filistindarren ehun buztan-moko truk.

15. Isbosethek igorri zuen beraz haren bilha, eta khendu zioen bere senhar Phaltieli, Laisen semeari.

16. Eta Phaltiel bazihoakion nigarrez ondotik Bahurimeraino; eta Abnerrek erran zioen hari: Habil eta itzul hadi. Phaltiel itzuli zen.

17. Abnerrek halaber solasa eman zioten Israelgo zaharrei, zioelarik: Atzo nola herenegun nahi zinduten Dabid erregina zedin zuen gainean.

18. Orai egizue beraz, zeren Jauna hunela mintzatu baita: Dabid ene zerbitzariaren eskuaz atheratuko dut Israelgo ene populua Filistindarren aztaparretik eta bere etsai guzienetarik.

19. Eta Abner mintzatu zen Benjamini ere. Eta Hebronera goan zen Dabidi erratera nolakoa zen Israelen eta Benjamin guziaren nahikundea.

20. Dabiden gana Hebronera ethorri zen hogoi gizonekin; eta Dabidek eman zioten barazkari bat Abnerri eta harekin ethorri ziren hogoi gizonei.

21. Abnerrek erran zioen Dabidi: Jaikiko naiz Israel guziaren biltze-ko zure gana, ene jaun eta erregearen gana; batasun eginen dut zurekin, eta orori manatuko diozute zure arimako lehiaren arabera. Dabidek beraz igorri zuenean Abner, eta hau bakean goan ondoan,

22. Berehala ethorri ziren Dabiden zerbitzariak eta Joab, ohoin batzu hilik eta harrapakin handi bat eginik. Bada, Abner etzen Dabidekin Hebronan, zeren orduko Dabidek igorri baitzuen, eta bakean bideari eman baitzen.

23. Eta Joab eta harekin zen armada guzia ethorri ziren gero. Hargatik Joabek jendeen ahotik izan zuen berri hau: Abner, Nerren semea, ethorri izan da erregeren gana; erregek igorri du, eta bakean goan da.

24. Joab agertu zen erregeren aitzinera eta erran zioen: Zer egin duzu? Huna non Abner ethorri den zure gana: zertako utzi duzu? eta goan, eta itzuli da.

25. Ez dakizu Abner, Nerren semea, zure enganatzera ethorri dela, zure sar-ilkhien jakitera eta egiten ditutzun guzien ezagutzera?

26. Beraz Dabiden ganik atheraturik, Joabek mandatariaik igorri zituen Abnerren gibeletik, eta gibelerat ekharrarazi zuen Sirako urtegitik, Dabiden jakin-gabean.

27. Abner Hebronera itzuli zenean, Joabek bazterrera eraman zuen athearen erdira, maltzurkerian mintzatzeko; eta han Abner jo zuen itxazhian, eta hil zen Joaben anaia Asaelen odolaren asperkundetan.

28. Dabidek jakin zuenean gauza ordukoz egina, erran zuen: Bethi guziko Jaunaren aitzinean garbi naiz, eta ene erresuma ere, Nerren seme Abnerren odoletik;

29. Haren odola eror bedi Joaben buruaren gainera eta haren aitaren etxe guziaren gainera; Joaben etxean ez bedi behinere eskas izan hazi-jariaduna, legentsua, ardatz-idukitzailea, ezpataren azpian eroriko dena eta ogia eskas izanen duena.

30. Joabek eta haren anaia Abisaik hil zuten beraz Abner, Abnerrek gudian hil zuelakotz hekien anaia Asael Gabaonen.

31. Eta Dabidek erran zioen Joabi eta harekin zen populu guziari: Hauts zatzue zuen soinekoak, eta zakhuak jauntz zatzue, eta deithorea egizue Abnerren hilotsetan. Bada, Dabid erregea jarraitzen zen hil-khuxari.

32. Eta Abner ehortzi ondoan Hebronan, boza altxatu zuen Dabidek, eta nigarrez egotu zen Abnerren hobiaren gainean; eta populu guziak ere nigar egin zuen.

33. Eta erregek Abner deithoratuz eta nigarrez, erran zuen: Abner ez da hil gizon uzkurak hiltzen ohi diren bezala.

34. Zure eskuak ez dira estekatuak izatu, eta zure zangoak ez dira burdinez josiak izatu; bainan erori zare hala nola nihor erortzen ohi baita tzarkeriako semeen aitzinean. Eta populu guziak batean deithoratuz, nigar egin zuen Abnerren gainean.

35. Eta oste guzia ethorri zenean janhariaren hartzeko Dabidekin, egun argi zelarik oraino, Dabidek zin egin zuen huneletan: Jainkoak hau egin biazat eta hura gainetik, baldin iguzkia sarthu aitzinean dastatzen badut ogia edo bertze zerbit.

36. Populu guziak aditu zuen, eta haren gogarako izan ziren erregek populu guziaren aitzinean egin zituenak oro.

37. Eta populu guziak eta Israel guziak ezagutu zuten egun hartan, Nerren seme Abnerren heriotzea etzela erregeren ganik ethorri.

38. Halaber erregek erran zioten bere zerbitzariari: Etzarete jakin gabe buruzagi bat eta guziz handia egun erori dela Israelen.

39. Eta ni gantzutua naiz errege, bainan ez oraino gohortua; bada, Sarbiaren seme haukiek gogorrrak zaizkit: Jaunak sarizta beza gaizkiaren egilea bere gaixtakeriaren arabera.



#### IV. KAP.

1. Bada, Isbosethen, Saulen semeak, aditu zuen nola Abner hila izan zen Hebronon, eta haren eskuek indarra galdu zuten, eta Israel guzia asal-datu zen.

2. Eta Saulen semearen zerbitzuan baziren bi ohoin-buruzagi; bat deitzen zen Baana eta bertzea Errekad, Erremon Berotharraren semeak, Benjamingo semeetarik; ezen Beroth Benjamingotzat ekharria izatu da.

3. Eta Berotharrak ihes goan ziren Jethaimera, eta han arrotz bizi izan dira orai arteo.

4. Bada, Saulen seme Jonathasen seme bat bazen zangotarik hebaina; ezen bortz urthe zituen Jezraheldik Saulen eta Jonathasen heriotzearen berria ethorri zenean. Hargatik bere unhideak hartu zuen eta ihesari eman zen; eta ihes goateko laster egiten zuelarik, erori zen haurra eta maingu gelditu; eta izena zuen Miphiboseth.

5. Beraz Erremon Berotharraren semeak, Baana eta Errekad ethorri zirenean, egunaren beroenean sarthu ziren Isbosethen etxean, zeina eguerditan lo baitzagoen bere ohearen gainean. Etxeko emazteki athalzaina, ogi garbitzen hari zelarik, lohakartu zen.

6. Errekab eta Baana haren anaia etxera ixilik sarthu ziren, ogi-buruak hartzen zituztelarik; Isboseth ixtazakhian jo eta ihes egin zuten.

7. Eta etxera sarthu zirenean, Isboseth ohe gainean lo zagoen bere gelan; jo eta hil zuten; eta haren burua harturik, gau guzian goan ziren mortuko bidez.

8. Isbosethen burua Dabidi ekharri zioten Hebronera, eta erran zioten erregeri: Huna Isbosethen burua, Saul zure etsai zure bizia bilhatzen zuenaren semearena; eta Jaunak egun ene errege Jaunari asperkunde eman dio Saulez eta haren odolekoez.

9. Eta Dabidek ihardestean Erremon Berotharraren semeei, Errekab eta haren anaia Baanari, erran zioten: Bizi bedi Jauna, ene bizia hestura orotarik atheratu duena!

10. Nola berria ekharri zarotana, erranez: Saul hil da, ustez berri on bat ekhartzen zarotan, hartu eta hil baitut Sizelegen, sari bat zuelarik merezi berri harentzat;

11. Orai zenbatez hobeki, gizatar batzuek hil dutenean gizon hobengabe bat, bere etxean, bere ohearen gainean, bilhatuko dut zuen baithan haren odola, eta iraziren zaituztet lurraren gainetik?

12. Hargatik Dabidek manaturik bere zerbitzariei, hil zituzten; eta hekien eskuak eta zangoak mozturik, arraintegitik dilindan ezarri zituzten

Hebronon; eta Isbosethen burua hartu zuten eta Abnerren hobian ehortzi Hebronon.

#### V. KAP.

1. Eta Israelgo leinu guziak Dabid gana ethorri ziren Hebronera, ziotelarik: Huna non garen; zure hezurak eta zure haragiak gare.

2. Atzo eta herenegun, Saul errege zenean gure gainean, zu zinen Israel gudura zineramana eta handik erakhartzen zinduena; eta zuri erran izan zarotzun Jaunak: Zuk alhatuko duzu Israelgo ene populua, eta zu izanen zare Israelen gainean buruzagi.

3. Israelgo zaharrak ere halaber ethorri ziren erregeren gana Hebronera, eta Dabid erregeak hekiekin batasun egin zuen Hebronon Jaunaren aitzinean, eta Dabid errege gantzutu zuten Israelen gainean.

4. Hogoï eta hamar urthetako gizon-gaztea zen Dabid erreginatzen hasi zenean, eta erreginatu zen berrogoï urthez.

5. Zazpi urthez eta sei hilabetez Hebronon erreginatu zen Judaren gainean; Jerusalem, berriz, erreginatu zen hogoi eta hamahirur urthez Israel guziaren eta Judaren gainean.

6. Eta errege eta harekin ziren gizon guziak Jerusalemera goan ziren, Jebusear lur hartako egoiarraren kontra. Eta Jebusearrez errana izan zitzaioen Dabidi: Ez haiz hemen sarthuko itsu eta mainguak irazi arteo, ziotelarik: Dabid ez da hemen sarthuko.

7. Dabidek ordean hartu zuen Siongo gaztelua, zeina baita Dabiden hiria.

8. Ezen Dabidek egun hartan prezio bat eskaini zuen Jebusear bat joko zuenarentzat, eta hegaztegiatoko xurrutak ukituko zituenarentzat, eta Dabiden bizia higuin zuten itsuak eta mainguak iraziko zituenarentzat. Hargatik da erran-zaharra: Itsua eta maingua ez dira tenploan sarthuko.

9. Eta Dabidek bere egoitza egin zuen gazteluan, eta hura deithu zuen Dabiden hiria; eta etxeak egin zituen inguruan Melotik hasirik eta barnera.

10. Eta aitzinatuz eta berhatuz zihoan, eta armadetako Jainko Jauna harekin zen.

11. Hiramek ere, Tirreko erregek, bidalkinak igorri ziozkan Dabidi, eta zedro-zura, eta zur-lantzaileak, eta harri-lantzaileak harrasietako; eta egin zuten Dabiden etxea.

12. Dabidek ezagutu zuen Jaunak Israelen gainean errege onhetsi zuela, eta haren erreinua altxatu zuela Israelgo bere populua gainean.



13. Dabidek beraz, Hebrondik ethorri ondoan, hartu zituen oraino ohaideak eta, emazteak Jerusalemdik; eta bertze semeak eta alabak sorthu zitzaizkon Dabidi.

14. Eta haukiek dira Jerusalemen sorthu zitzaizkon semeen izenak: Samua, Sobab, Nathan, Salomon,

15. Jebahar, Elisua, Nepheg,

16. Japhia, Elisama, Elioda eta Eliphaleth.

17. Filistindarrek beraz entzun zuten Dabid erregetzat gantzutua izan zela Israelen gainean, eta guziak igan ziren Dabidi jazartzeko. Dabidek entzun zuenean hori, gaztelura jautsi zen.

18. Bada, Filistindarrak ethorririk hedatu ziren Erraphaimgo haranean.

19. Dabidek Jauna kontsultatu zuen, zioelarik: Iganen othe naiz Filistindarretara? eta ene eskuetara emanen dituzu? Jaunak Dabidi ihardetsi zioen: Igan zaite, zeren Filistindarrak zure eskuetara arthikiko baitituz.

20. Dabid ethorri zen beraz Baalpharasimera, eta han jo zituen Filistindarrak, eta erran zuen: Jaunak ene aitzinean barraiatu ditu ene etsaiak, urak barraiatzen diren bezala. Hargatik lekhu haren izena emana izan zen: Baalpharasim.

21. Filistindarrek han utzi zituzten beren jainkoen moldeak, eta Dabidek eta bere gizonek hartu zituzten.

22. Eta berriz ere Filistindarrak igan ziren, eta Erraphaimgo haranean hedatu ziren.

23. Dabidek kontsultatu zuen Jauna: Iganen naiz Filistindarretara, eta ene eskuetara emanen dituzu? Jaunak ihardetsi zioen: Ez igan horiei buruz, baina horien gibeletik ingurua egizu, eta horietara ethorriko zare udareen parretik;

24. Eta udareen gainean aditzen duzunean dabilan norbaiten harrobtsa, gudua hasiko duzu; zeren orduan Jauna ilkhiko baita zure aitzinean Filistindarren kanpen xahutzera.

25. Hargatik Dabidek egin zuen Jaunak manatu zioen bezala, eta Filistindarrak jo zituen Gabaatik Jezerrera heldu arteo.

## VI. KAP.

1. Bada, Dabidek Israeldik bildu zituen berriz hautak oro, hogoi eta hamar mila gizon.

2. Dabid jaiki zen, eta goan ziren hura eta Judako gizonetarik harekin zen populu guzia, ekhartzeko Jainkoaren arkha, zeinaren gainera dei

egiten baitzaio armadetako Jauna haren gainean kerubinen artean jarria denaren izenari.

3. Jainkoaren arkha orga berrien gainean ezarri zuten; eta ekharri zuten Gabaan zagoen Abinadaben etxetik. Ozak eta Ahiok, Abinadaben semeek eragiten zioten orga berriei.

4. Eta Jainkoaren arkha ekharri zutenean Abinadaben ganik, harek Gabaan zaintzen zuen etxetik, Ahio arkhaen aitzinean zihoan.

5. Eta Dabid eta Israel guzia Jaunaren aitzinean soinu jotzen hari ziren zurezko tresna guziez, gitarrez, lirez, atabalez, zistrez eta zinbalez.

6. Baina heldu ondoan Nakonen larrainera Ozak eskua hedatu zuen Jainkoaren arkhaen gainera eta iduki zuen, idiak uztarka hari zirelakotz, eta makhurraz baitzuten.

7. Eta Jaunaren hasarrea Ozaren kontra biztu zen eta jo zuen bere ozartasuna gatik; Oza han berean hil zen Jainkoaren arkhaen aldean.

8. Dabidek atsekabe izatu zuen, zeren Jaunak jo zuen Oza, eta egungo eguna arteo toki hura deithua da Ozaren gaztiga-lekhu.

9. Dabid egun hartan Jaunaren beldurraz hartua izan zen, eta erran zuen: Nola Jaunaren arkha ene etxera sarthuko da?

10. Eta etzuen bere etxera aldaratu nahi izan Jaunaren arkha Dabiden hirian; baina ezarri zuen Obededom Jetherraren etxean.

11. Eta Jaunaren arkha hirur hilabetez egotu zen Obededom Jetherraren etxean; eta Jaunak benedikatu zituen Obededom eta haren etxe guzia.

12. Berria errege Dabidi ekharria izan zen Jaunak Obededom eta haren izate guziak benedikatu zituela, Jainkoaren arkhaen kariaz. Dabid goan zen beraz eta Jainkoaren arkha ekharri zuen bozkariotan Obededomen etxetik Dabiden hirira; eta Dabidekin baziren zazpi dantzari-andana eta aratxe bat bitimatzat.

13. Eta Jaunaren arkha ekhartzen zutenek sei urhats egin zituztenean, idi bat eta ahari bat imolatzen zituen.

14. Eta Dabid bere indar guziez dantzan hari zen Jaunaren arkhaen aitzinean; eta Dabidek liho-harizko ephodo bat zuen soinean.

15. Eta Dabidek eta Israelen etxe guziak bozkariotan eta turutak joz bazeramaten Jaunaren lekhukotasuneko arkha.

16. Eta Jaunaren arkha Dabiden hirian sarthu zenean, Mikol Saulen alabak leihotik begiraturik, ikhusi zuen errege Dabid dantzan eta jauzia Jaunaren aitzinean, eta erdeinatu zuen bere bihotzean.





17. Eta Jaunaren arkha sarthu zuten eta bere lekhuana ezarri, Dabidek hedatu zioen olharen erdian; eta Dabidek eskaini zituen Jaunaren aitzinean holokaustak eta bakezko bitimak.

18. Eta holokausten eta bakezko bitimen eskaintzea akhabatu zuenean, populua benedikatu zuen armadetako Jaunaren izenean.

19. Eta Israelgo oste guziari, hala gizonkiei nola emaztekiei, bakhotxari eman zioten ogi-ophil bana, idiki erre okhel bana, eta irina olioan frigitua; eta populu guzia goan zen, zein bere etxera.

20. Dabid itzuli zen bere etxearen benedikatzera; eta Mikol, Saulen alaba, atheraturik Dabiden bidera, erran zaroen: Zein ospetsu izatu den egun Israelgo errege, bere burua agertzen zuenean bere zerbitzarien neskatoen aitzinean, eta biluzi da, triatuetako dostetarietarik bat biluzten balitz bezala!

21. Dabidek Mikoli ihardetsi zaroen: Zure aita eta haren etxe guzia baino nahiagoz hautatu nauen Jaunaren aitzinean, eta Jaunaren populua buruzagi Israelen izateaz manatu nauenaren aitzinean

22. Dantzatuko naiz, eta egin naizen baino ahalago jarriko; eta ttipi izanen naiz ene begietan; eta aiphatu dituzun neskatoen aitzinean ospetsuago agertuko naiz.

23. Hargatik haurrik etzuen izatu hil arteo Mikolek, Saulen alabak.

## VII. KAP.

1. Bada, gerthatu zen errege bere etxean jarri zenean, eta Jaunak alde orotarik bakea eman zaroenean bere etsai guzien ganik,

2. Erran zaroela Nathan profetari: Ez duzu ikhusten zedrozko etxe batean nagoela, eta Jainkoaren arkha larruen erdian ezarria dela?

3. Eta erregeri erran zioen Nathanek: Zoazi, egizkitzu bihotzean dituzun guziak, zeren Jauna zurekin baita.

4. Eta hara non gerthatu zen gau hartan Jauna Nathani mintzatu zela huneletan:

5. Zoaz eta errozu ene zerbitzari Dabidi: Hau dio Jaunak: Zuk eginen othe darotazu egoteko etxe bat?

6. Ezen ez naiz etxetan egotu Israelgo semeak Egiptoko lurretik atheratu ditudan egunetik eta orai arteo; bainan tabernaklean eta olha batean nindabilan.

7. Israelgo seme guziekin iragan ditudan lekhuetan, Israelgo leinuetarik bati, Israelgo ene populua alha dezan manatu diodanari mintzatu othe natzaio, diodalarik: Zertako ez darotazuet egin zedrozko etxe bat?

8. Eta orai hau erranen diozu ene zerbitzari Dabidi: Nik hartu zaitut alhapideetarik ardien ondotik zinabiltzanean, izan zintezan Israelgo ene populua gainean buruzagi.

9. Zurekin izatu naiz ibili zaren edozein tokitan eta zure aitzinetik xahutu ditut zure etsai guziak; eta zure izena egin dut handi, lurrean diren handien izenaren bethe.

10. Eta lekhu bat segurtatuko diot Israelgo ene populuari, eta han jarriko dut, eta han eginen du bere egoitza, eta ez da gehiago asaldua izanen; eta gaixtakeriaren semeak ez dira berriz abiatuko hari atsekabe ematera aitzinean bezala,

11. Juieak Israelgo ene populua gainean ezarri ditudan egunetik; eta zure etsai guziatarik bakea emanen darotzut, eta Jaunak agintzen darotzu eginen darotzula etxe bat.

12. Eta zure egunak betheak ditazkeenean, eta zu zure aitekin lokhartua, zure ondotik eraikiko dut zure odola, zure ganik sorthuko den seme bat, eta gogortuko dut haren erreinua.

13. Hura izanen da ene izenari etxe bat altxatuko dioena, eta bethi guziraino gohortuko dut haren erreinuko tronua.

14. Ni izanen natzaio aitatzat, eta hura semetzat izanen zait zerbait eginen badu gaizki, gartzigaturen dut gizon azoteaz, eta gizasemeen zauriez.

15. Bainan ene urrikalpena ez diot khenduko, khendu izan diodan bezala Sauli, zeina irazi baitut ene begietarik.

16. Eta gothor izanen dira zure etxea eta zure erresuma bethi guziraino zure begien aitzinean, eta zure tronua bethi gogor egonen da.

17. Hitz horien ororen arabera, eta agerpen horren guziaren arabera, hola mintzatu zen Nathan Dabidi.

18. Bada, Dabid erregea sarthu eta jarri zen Jaunaren aitzinean, eta erran zuen: Nor naiz ni, Jainko Jauna, eta zer da ene etxea, zuk hunen gora altxatu bainauzu?

19. Bainan hori ere guti iduritu zaitzu begietan, oi Jainko Jauna, baldin mintzatzen ez bazinen halaber zure zerbitzariaren etxeaz ethorkizun guziko: ezen hori da Adamen legea, oi Jainko Jauna.

20. Zer erran dezake beraz Dabidek gehiago, zuri mintzatzeko? Ezik, oi Jainko Jauna, badakizu nor den zure zerbitzaria.

21. Zure hizaren gatik eta zure bihotzaren arabera egin dituztu sendagaila horiek, halaz non ezagutarazi baitiozkatzu zure zerbitzariari.

22. Horren gatik handietsia zare, Jainko Jauna, zeren ez baita zure idurikorik, ez-eta zutaz landan Jainkorik, gure beharrez aditu ditugun orotan.



23. Eta Israelgo zure populua bezalakorik non da lurraren gainean jendaki bat, zeina gatik Jainkoa goan baita hura bere populutzat berrestoera, eta bere izenaren aiphutan ezartzera, eta hekiei egitera sendagailak eta gauza ikharagarriak lurraren gainean, zure populuaren aitzinean, zeina atheratu baituzu Egiptotik, hango jende eta jainkoa ganik?

24. Ezen Israelgo zure populua seguratu diozu zure buruari bethiko populutzat: eta zu, oi Jainko Jauna, jarri zakiozkite Jainkotzat.

25. Orai beraz, Jainko Jauna, atheraraz zazu bethi guzian zure ahoko hitza zure zerbitzariaren gainera eta haren etxearen gainera, eta egizu erran izan duzun bezala,

26. Zure izena bethi guziraino izan dadientzat handietsia, eta errana izan dadien: Armadetako Jauna da Israelgo Jainkoa. Eta zure zerbitzari Dabiden etxea Jaunaren aitzinean gothor egonen da,

27. Zeren zuk, armadetako Jauna, Israelgo Jainkoa, jakintsun egin baituzu zure zerbitzariaren beharria, erranez: Etxe bat eginen darotzut. Horren gatik zure zerbitzariak khausitu du bere bihotza, zuri othoitz huntuaz othoitz egiteko.

28. Orai beraz, Jainko Jauna, Jainkoa zare, eta zure hitzak izanen dira egiak; ezen zuk erran diozkatzu gauza on horiek zure zerbitzariari.

29. Has zaite beraz eta benedika zazu zure zerbitzariaren etxea, bethi guzian zure aitzinean izan dadien; zeren zu mintzatu baitzare, Jainko Jauna, eta zure benedizioneaz benedikatua izanen baita egun eta bethi zure zerbitzariaren etxea.

### VIII. KAP.

1. Bada, gerthatu zen horiez geroz, Dabidek jo zituela Filistindarrak, eta aphaltu zituen, eta Dabidek Filistindarren eskutik khendu zuen zergaren lokharria.

2. Eta jo zituen Moabitarrak, eta lurrean etzanarazirik sokha batez neurtu zituen; neurtu zituen bi sokha, bat hiltzeko, eta bertzea bizirik uzteko. Eta Moab egina izan zen Dabiden zerbitzari zergaren azpian.

3. Eta Dabidek Adarezer, Errohoben semea, Sobako errege, jo zuen, goan izan zenean Ufratako ibaiaren gainean bere nausitasunaren hedatzera.

4. Eta haren aldekotarik harturik hamazazpi ehun zaldizko eta hogoi mila oinezko, Dabidek zainak ebaki ziozkaten orgetako zaldi guziei; bainan hekietarik begiratu zituen ehun orga-laster.

5. Damaseko Siriarrak ere ethorri ziren laguntza ekhartzera Sobako errege Adarezerri; eta Dabidek Siriaretarik jo zituen hogoi eta bi mila gizon.

6. Dabidek zaintzaileak ezarri zituen Damaseko Sirian; Siria egina izan zen Dabidenpeko zergaren azpian; eta Jaunak begiratu zuen Dabid abiatu zituen urhats guzietan.

7. Dabidek hartu zituen Adarezerren zerbitzariak zituzten harma urhezatuak, eta Jerusalemera ekharri zituen.

8. Eta Betetik eta Berothetik, Adarezerren hirietarik, errege Dabidek hartu zuen kobreketa handi bat.

9. Bada, Thouk, Ematheko erregek, aditu zuen Dabidek xahutu zuela Adarezerren indar guzia,

10. Eta Thouk Joram, bere semea, igorri zuen Dabid erregea gana, agur egitera, harekin bozkariotuz, eta eskerren bihurtzera, Adarezer garhaitu eta jo zuelakotz: ezen Adarezer Thouen etsaia zen: eta Joramek eskuetan bazituen urhezko untxiak, zilharrezkoak eta kobrezkoak.

11. Errege Dabidek hekiek Jaunari kontsekratu ziozkan berepekotu zituen jendaia guzietarik sainduetsi zituen urhe eta zilharrekin,

12. Siriatik, Moabetik, Amonen semeetarik, Filistindarretarik, Amaleketik, eta Adarezer, Errohoben seme Sobako erregeren buluzkine-tatik.

13. Dabidek halaber, Siria harturik heldu zelarik, bere buruari izen bat egin zioen Gaztegiatoko haranean, hemezortzi mila gizon hilik.

14. Eta Idumean ezarri zituen zaintzaileak eta guardia jarri zuen. Idumea guzia Dabiden azpiko egina izan zen, eta Jaunak begiratu zuen Dabid abiatu zituen urhats guztetan.

15. Eta Dabid erreginatu zen Israel guziaren gainean: Dabidek halaber juiatzen zuen eta justizia bihurtzen zioen bere populu guziari.

16. Eta Joab Sarbiaren semea, zen armadako buruzagi; Josaphat, Ahiluden semea, zen ageriez kargutua;

17. Sadok, Akitoben semea, eta Akimelek, Abiatharren semea ziren aphez, eta Saraias zen iskribau;

18. Banaias, Joiadaren semea, zen Zeretharren eta Pheletharren manatzaile, eta Dabiden semeak ziren aphez.

### IX. KAP.

1. Eta Dabidek erran zuen: Uste duzue norbait gelditu dela Saulen etxetik, urrikalmendutan har dezadan Jonathasen gatik?



2. Bada, bazen Saulen etxeko gizon bat Siba deitzen zena. Erregeek bere gana deiturik, erran zaroen: Zu zare Siba? Eta harek ihardetsi zuen: Ni naiz, zure muthil.

3. Eta erregeek erran zuen: Ez othe da norbait gelditzen Saulen etxetik, harekin egin dezadan Jainkoaren urrikalpena? Sibak erregeri erran zaroen: Gelditzen da Jonathasen seme bat, zangoz herbala.

4. Eta erregeek erran zuen: Non da? Sibak erregeri ihardetsi zaroen: Huna, Makir, Amielen semearen etxean da Lodabarren.

5. Dabid erregeak igorri zuen beraz eta Lodabarretik erakharrarazi zuen hura, Makir Amielen semearen etxetik.

6. Bada, Saulen seme, Jonathasen semea, Miphiboseth, Dabiden gana ethorri zenean, ahuspez erori eta adoran eman zen. Eta Dabidek erran zaroen: Miphiboseth? Hunek ihardetsi zuen: Huna zure muthila.

7. Dabidek erran zaroen: Ez izan beldurrik, zeren zure gainera ekharriko baitut ene urrikalmendua zure aita Jonathasen kariaz; bihurtuko darozkitzut zure aitaso Saulen lurra oro, eta zuk ogia ene mahainean janen duzu bethi.

8. Miphibosethek adoratzuz ihardetsi zaroen: Nor naiz ni zure muthila, ni bezalako zakhur hil bati begiratu baitiozu?

9. Hargatik Dabidek deithu zuen Siba, Saulen muthila, eta erran zaroen: Zure nausiaren semeari eman diozkat Saulenak izan diren gauza guziak eta haren etxe guzia.

10. Lant zozue beraz lurra zuk, zure semeak eta zure sehiek; eta zure nausiaren semeari jatekoak ekharriko diozkatzu haz dadientzat: bainan Miphibosethek, zure nausiaren semeak ene mahainean janen du bethi ogia. Bada, Sibaren semeak hamabortz baziren, eta sehiak hogoi.

11. Eta Sibak erregeri erran zaroen: Errege ene jauna, nola zure muthilari manatu baitiozu, hala eginen du zure muthilak; eta Miphibosethek ene mahainean janen du, erregeren semeetarik batek bezala.

12. Bada Miphibosethek bazuen seme bat haurttoa, Mika deitzen zena: Sibaren etxe guziak, berriz, zerbitzatzen zuen Miphiboseth.

13. Eta Miphibosethek bere egoitza Jerusalemen egiten zuen, zeren bethi erregeren mahainean janen baitzuen, eta zen bi zangoetarik maingu.

## X. KAP.

1. Bada, horiez geroztik, Amonen semeen erregea hiltzera ethorri zen, eta Hanon haren semea erreginatu zen haren ondotik.

2. Eta Dabidek erran zuen: Urrikalpen ekharriko diot Hanon, Naasen semeari, haren aitak niri urrikalpen ekharri izan darotan bezala.

Dabitek igorri zuen beraz bere zerbitzarietz gozakari ematera Hanoni aitarren heriotzeaz. Bainan Dabiden zerbitzariak Amonen semeen lurrera ethorri zirenean,

3. Amontarren aitzindariak erran zaroten beren nausi Hanoni: Uste duzu zure aitari ohore bihurtzeko Dabidek zure gana igorri dituela gozakari-ekharleak, eta Dabidek bere zerbitzariak ez dituela zure ganat igorri bilhaketako xedez, hiriaren begiztatzeko eta hunen xahutzeko?

4. Hargatik Hanonek hartu zituen Dabiden zerbitzariak, murriztu zitoten bizarraren erdia, soinekoen erdiak hautsi iphurdi-mazeletaraino, eta gero igorri zituen.

5. Berri hori ekharria izan zenean Dabidi, igorri zuen hekien bidera, ezen gizonak ahalke hainitz itsusian ezarriak ziren, eta Dabidek gaztiatu zaroeten: Zaudezte Jerikon zuen bizarra luza dadien arteo, eta orduan ethorriko zarete.

6. Bada, Amonen semeek ikhustenez irain egin zaroetela Dabidi, igorri zuten Errohobeko eta Sobako Siriaretara eta saritan erakharri zituzten hogoi mila oinezko, eta mila gizon Maaka erregea ganik, eta hamabi mila gizon Istoben ganik.

7. Dabidek aditu zuenean hori, igorri zituen Joab eta gerlarien armada guzia.

8. Amonen semeak atheratu ziren beraz eta lerrotan jarri ziren atherko sartzearen aitzinean; Sobako eta Errohobeko Siriarrak, berriz, eta Istob eta Maaka zelhaiean ziren berez.

9. Joabek ikhusririk beraz gudua bere kontra aitzinetik eta gibeletik xuxendua zuela, Israelgo hoberen guzietan hautatu zituen gizonak, eta lerroak xuxendu zituen Siriarraren kontra.

10. Eta gainerako populua eman zaroen bere anaia Abisairi, zeinak xuxendu baitzituen lerroak Amontarren kontra.

11. Eta Joabek erran zaroen: Baldin Siriarrak nausitzen bazaizkit, zatozkit laguntzara; eta berriz, Amonen semeak nausitzen bazaizkitzu, nik lagunduko zaitut.

12. Izan zaite bihotzeko gizon, eta guduka gaitezen gure populua- rentzat eta gure Jainkoaren hiriarentzat: Jaunak, berriz, eginen du haren begietan ongi dena.

13. Beraz Joab eta harekilako populua guduari lothu ziren Siriarraren kontra, eta haukiek berehala ihesari eman ziren haren aitzinetik.

14. Amonen semeek berriz, ikhusririk Siriarrak ihes egin zutela, berek ere ihesegin zuten Abisairaren aitzinetik eta hirira sarthu ziren. Eta Joab itzuli zen Amontarretarik eta Jerusalemara ethorri zen.



15. Siriarrek beraz ikhusirik erori zirela Israelen aitzinean, batera bildu ziren.

16. Eta Adazerrek igorri zuen ibaiaz haindian ziren Siriarretara, eta erakharri zuen hekien armada. Sobak, Adazerren armadako buruzagia, zen hekien aitzindari.

17. Berri hori Dabidi ekharria izan zenean, bilarazi zuen Israel guzia, iragan zuen Jordanea eta ethorri zen Helamera. Siriarrek lerrotan jarri ziren Dabiden kontra, eta gudu eman zaroeten.

18. Bainan Siriarrek ihes egin zuten Israelen aitzinetik. Dabidek hartu zituen zazpi ehun orga-laster eta hil berrogoi mila zaldizko: jo zuen Sobak armadako buruzagia, eta hau berehala hil zen.

19. Bada, Adazerren laguntzara ethorriak ziren errege guziek ikhusirik Israelez garhaituak zirela, izitu ziren, eta berrogoi eta hemezortzi mila gizon ihesari eman ziren Israelen aitzinean. Eta bakea egin zuten Israelekin, eta haren zerbitzuko jarri ziren; eta geroztik Siriarrek beldur izan ziren laguntza emateko Amonen semeei.

## XI. KAP.

1. Bada, gerthatu zen urthe-buruan, erregeak gerletara ilkhitzen ohi diren muga, Dabidek igorri zituela Joab eta bere zerbitzariak harekin, eta Israel guzia; eta larrutu zituzten Amonen semeak, eta sethiatu zuten Erraba; bainan Dabid Jerusalem gelditu zen.

2. Horiek hola zoazelarik, Dabid gerthatu zen bere ohetik jaikitza eguerdi ondoan, eta harat-hunaka zabilan errege etxeko zabaltzan; eta bere parrean ikhusi zuen emazteki bat mainhatzen hari zela bere zabaltzan: bada, emazteki hura hainitz zen ederra.

3. Erregek igorri zuen beraz jakitera nor zen emazteki hura. Berria ekharri zioten hura zela Bethsabee, Eliamen alaba, Urias Hethearraren emaztea.

4. Dabidek gizonak igorririk, erakharri zuen; eta jauregira sarthu zenean, erregek lo egin zuen harekin; eta Bethsabee berehala sailduetsi zen bere lohikeriatik.

5. Eta bere etxera bihurtu zen izorra gerthaturik. Eta berria bidali zaroen Dabidi, eta erran zuen: Izorra gerthatu naiz.

6. Bada, Dabidek norbait igorri zuen Joaben gana, zioelarik: Bidal dizadazu Urias Hethearra. Eta Joabek Urias igorri zaroen Dabidi.

7. Eta Urias ethorri zen Dabiden gana. Dabidek galdatu zaroen hea ongi ziren Joab eta populua eta nola zihoan gerla.

8. Eta Dabidek erran zaroen Uriasi: Zoazi zure etxera eta garbi zatzu zangoak. Urias ilkhi zen erregeren etxetik, eta ondolik igorria izan zitzaioen erregeren jatekotik.

9. Bainan Uriasek erregeren jauregiko athe aitzinean lo egin zuen bere nausiaren bertze zerbitzariekin, eta etzen goan bere etxera.

10. Eta berria ekharri zaroeten Dabidi, ziotelarik: Urias ez da bere etxean izatu. Eta Dabidek Uriasi erran zaroen: Etzare bidetik heldu? zertako etzare goan zure etxera?

11. Uriasek ihardetsi zaroen Dabidi: Jaunaren arkha, eta Israel, eta Juda olhetan daudezi, eta Joab ene nausia, eta ene jaunaren zerbitzariak lurraren gainean egoten dira; eta ni sarthuko naiz ene etxera jatera eta edatera; eta lo eginen dut ene emaztearekin? zure biziaz eta zure arimako biziaz, ez dut holakorik eginen.

12. Dabidek erran zaroen beraz Uriasi: Zaude hemen egun ere, eta bihar igorriko zaitut. Uriasek egun hura eta bihamuna eman zituen Jerusalem.

13. Dabidek deithu zuen bere aitzinean jatera eta edatera, eta hordiarazi zuen. Arratsean ilkhirik, Uriasek bere ohean lo egin zuen bere jaunaren bertze zerbitzariekin, eta etzen bere etxean sarthu.

14. Goiza ethorri zen beraz, eta Dabidek gutun bat egin zioeten Joabi, eta Uriasen eskuz igorri zuen,

15. Gutunean iskribatzen zuelarik: Ezar zazue Urias gerlan, gudua hazkarrenik den tokian, eta han utz zazue, joa izanik hil dadientzat.

16. Beraz Joabek hiria sethioan zadukalarik, Urias ezarri zuen non-ere baitzakien zirela gizonik borthitzenak.

17. Eta gizonak hiritik atheraturik gudukatzen ziren Joaben kontra, eta Dabiden zerbitzarien armadatik izan ziren hilak erori zirenak, eta Urias Hethearra ere hil izan zen.

18. Joabek igorri ziozkan beraz Dabidi guduko berri guziak.

19. Eta berri-ramaileari manatu zaroen, zioelarik: Gerlako solas guziak akhabatu diozketzunean erregeri,

20. Ikhusten baduzu samurtzen dela, eta erraten badu: Zertako hurbildu zarete harrasiari gudukatzeko? ala ez dakizue hainitz gezi harrasi gainetik arthikitzen dela?

21. Nork jo zuen Abimelek, Jerobaalen semea? Etzen emazteki bat izan ihara-harri puska bat haren gainera harrasitik arthiki zuena, eta hura Thebesen hil zuena? zertako hurbildu zarete harrasiaren ondora? erranen duzu: Urias Hethearra ere, zure zerbitzaria, hil izan da.



22. Berri-eramailea abiatu zen beraz, ethorri zen eta Dabidi erran ziozkan Joabek manatu guziak.

23. Eta berriketariak erran zaroen Dabidi: Etsaiak nausitu zaizkigu, eta atheratu dira gure kontra kanpora: Guk ordean oldar eginik, jarraiki gatzazkiote hiriko atheraino.

24. Eta harrasi gainetik arranbelariak geziak arthiki dituzte zure zerbitzariei; erregeren zerbitzariarik zenbait hilak izan dira, eta Urias Hethearra ere, zure zerbitzaria hila da.

25. Dabidek erran zaroen berriketariari: Hau errozu Joabi: Gauza horrek ez bezaitza harri; gerlak ezen asko aldarte ditu; ezpatak batean hau xahutzen du, eta bertzean hori. Hiriaren kontra haskar zatzu zure gerlariak haren xahutzeko, eta gogoa bero zozute.

26. Bada, Uriasen emazteak aditu zuen Urias, bere senharra, hila zuela, eta deithoratu zuen.

27. Eta dolua iragan ondoan, Dabidek igorri zuen bilha, eta sarrarazi zuen bere etxean. Dabiden emazte egina izan zen, eta seme bat eman zaroen. Bainan Jaunari gaitzitu zitzaioen Dabiden egitatea.

## XII. KAP.

1. Jaunak igorri zaroen beraz Dabidi Nathan; eta Nathan Dabiden gana ethorri zenean, erran zaroen: Bi gizon baziren hiri batean, bat aberatsa, eta bertzea beharra.

2. Aberatsak bazituen hainitz ardi eta idi.

3. Beharrak, berriz, etzuen deusere ardi ttipetto bat baizik, erosi eta hazten zuena, eta haren etxean haren semeekin handitu zena, haren ogitik janez, haren edateko untzitik edanez eta haren bulharrean lo eginez; eta alaba bezala zuen.

4. Bada, aberatsari norbait arrotzik ethorri zitzaioen batez, hunek bere ardiarik eta idietarik hartzeko guphidez, ethorri zitzaioen arrotzari barazkariaren emateko, hartu zuen gizon beharraren ardia, eta jatekoak xuxendu ziozkien ethorri zitzaioen gizonari.

5. Dabidek, gizon harentzat hats gaixtoan hasarreturik, erran zaroen Nathani: Ala Jauna! gizon hori herioaren seme baita.

6. Ardi batentzat lau bihurtuko ditu zeren egin duen lan hori, eta ez da guphidetsia izanen.

7. Orduan Nathanek Dabidi erran zaroen: Zu zare gizon hura. Hau dio Israelgo Jainko Jaunak: Israelen gainean errege gantzutu zaitut, eta nik atheratu zaitut Saulen eskuetarik;

8. Eman darozkitzut zure nausiaren etxea eta zure nausiaren emazteak eskuetara, eta eman darotzut Israelgo eta Judako etxea; eta horiek guti badira, berhatuko darozkitzut hainitz handiagoak.

9. Zertako beraz erdeinatu duzu Jaunaren hitza, ene aitzinean egiteko gaizkia? Ezpataz jo duzu Urias Hethearra, haren emaztea zure emaztetzat hartu duzu, eta bere hil duzu Amonen semeen ezpatarekin.

10. Hori delakotz, ezpatak ez du behinere zure etxetik gibel eginen, zeren nauzun erdeinatu, eta Urias Hethearraren emaztea hartu duzula kotz zure emazte izateko.

11. Hau dio beraz Jaunak: Huna non zure gainera zure etxetik eraikiren dudan gaitza, eta zure begien azpiak hartuko ditut zure emazteak eta bertze bati emanen, eta harek iguzki hunen argitan hekiekin lo eginen du.

12. Zu ezik gordeka haritu zare, nik ordean gauza hori eginen dut Israel guziaren aitzinean eta iguzkiaren aitzinean.

13. Eta Dabidek erran zaroen Nathani: Jaunaren kontra egin dut bekhatu. Nathanek ihardetsi zaroen: Jaunak halaber aldaratu du zure bekhatua: etzare hilen.

14. Hargatik, zeren Jaunaren etsaiak burhoka hariarazi ditutzun egitate horren bidez, heriotzez hilen da sorthu zaitzun semea.

15. Eta Nathan itzuli zen bere etxerat. Hala-hala Jaunak jo zuen Dabidek Uriasen emaztea ganik izatu zuen semea, eta etsitua izan zen.

16. Dabidek Jauna othoiztu zuen haurttoarentzat; barur egin zuen, eta lekhu berezera sarthurik, lurrera arthiki zuen bere burua.

17. Haren etxeko zaharrenak ethorri zitzaizkon, hertxatzen zutelarik lurretik jaikitza: etzuen nahi izan, eta etzuen hekiekin hazkurrik hartu.

18. Bada, zazpigarren egunean haurra ethorri zen hiltzera; eta Dabiden zerbitzariak lotsa ziren haurra hil zelako berriaren ematera; ezik erran zuten: Huna haurra bizi zelarik oraino, mintzatzen ginarozkien eta gure solasa etzuen entzuten: zenbatez gehiago ez da atsekabeztaturen, erraten badiogu: Haurra hila da?

19. Beraz Dabidek bere zerbitzariak ikhusi zituenean ahapetik mintzatzen, ezagutu zuen haurttoa hila zela; eta bere zerbitzariei erran zaroeten: Hil da haurra? Haukiek ihardetsi zaroeten: Hil da.

20. Dabid jaiki zen beraz lurretik, garbitu eta gantzutu zen; eta soinekoa aldaturik, sarthu zen Jaunaren etxean; adoratu zuen eta ethorri zen bere etxera, eta galdatu zuen ogia aitzinera eman zezoten, eta jan zuen.

21. Bada, bere zerbitzariak erran zaroeten: Nondik heldu da zuk eginen duzuna? Haurraren gatik, oraino bizi zenean, barur egin duzu eta nigarrez zinauden; berriz, haurra hil ondoan, jaiki zare eta ogia jan duzu.



22. Dabidek ihardetsi zuen: Haurraren gatik, bizi zelarik oraino barur eta nigar egin dut; erraten nuen ezik: Nork daki hea Jaunak emanen darotan eta bizirik geldituko den haurra?

23. Bainan orai hila denaz geroztik, zertako egin barur? Bizira bihurraziko ahal othe dut? lehenago ni goanen naiz haren gana; bainan hura ez da ene gana itzuliko.

24. Eta Dabidek gozakari eman zioen bere emazte Bethsabeeri; sartu zen haren gana eta harekin lo egin zuen. Bethsabee seme batez erdi zen, eta izena eman zaroen Salomon, eta Jaunak maithatu zuen hura.

25. Eta Dabidi igorri zaroen Nathan profeta, eta haurra deithu zuen Maithagarri Jaunari, Jaunak maite zuelakotz.

26. Bada, Joabek gudukatzen zuen Errabath Amonen semeena, eta sethiatzen zuen errege-hiria.

27. Eta Joabek Dabidi igorri ziozkan berriketariak, zioelarik: Gudu egin dut Errabathen kontra, eta Uretako hiria hartu hurrana da.

28. Orai beraz bil zazu populuaren gainerakoa, eta sethia zazu hiria eta har zazu; beldurrez-eta nik xahutzen badut hiria, garhaizia ene izenean ekharria izan dadien.

29. Hargatik Dabidek bildu zuen populu guzia, eta goan zen Errabathen kontra; eta gudukatu ondoan, hartu zuen.

30. Amontarren erregeren burutik hartu zuen diadema, zeinak baitzuen urhezko talendu baten phisua, eta baitzituen harri baliosenatarik, eta ezarria izan zen Dabiden buruan. Eta halaber hiritik eraman zuen harrapakin guziz handia.

31. Hango jendeak ere ilkhiazirik, zerraz ebakarazi zituen, orga burdinaztatuak iraganarazi ziozkaten gaintetik, kanibetez phuskakatu, eta adrailu-labe batera arthiki zituen: hola egin zaroeten Amonen semeen hiri guziei. Eta Dabid eta armada guzia Jerusalemara bihurtu ziren.

### XIII. KAP.

1. Bada, horiez geroztik gerthatu zen, Amnonek, Dabiden semeak, itsutuki maithatu zuela Dabiden bertze Seme Absalomen arreba guziz ederra, Thamar deitzen zena;

2. Eta hanbatetaraino maite zuela, non haren minez eri baitzen, zeren-eta dontzella zelakotz, gaitz iduritzen baitzaroen zerbait eder etzenik harekin egitea.

3. Bada Amnonek bazuen adiskide bat, Jonadab deitzen zena, Dabiden anaia Semaaren semea, gizon hainitz umoa.

4. Hunek erran zaroen: Erregeren semea, nolaz egunetik egunera mehatzen hari zare? zertako ez darotazu agertzen? Amnonek erran zaroen: Thamar, ene anaia Absalomen arreba, maite dut.

5. Jonadabek ihardetsi zaroen: Etzan zaite zure ohean, eta egizu eria-rena; eta zure aita ethorriko denean zure ikhustera, errozu: Thamar, ene arreba, ethor bedi, othoi, niri jatekoaren ematera eta xuxentzera, jan dezadan haren eskutik.

6. Haratik Amnon ohatu zen, eta hasi zen alegia eri egiten; eta errege haren ikhustera ethorri zenean Amnonek erran zaroen erregeri: Ene arreba Thamar, othoi, ethor bedi ene begien aitzinean bi edarittoren egitera, eta jatekoa haren eskutik har dezadan.

7. Etxera Thamarren bilha igorri zuen beraz Dabidek, zioelarik: Zato zure anaia Amnonen etxera, eta xuxen zozu jatekoa.

8. Thamar ethorri zen bere anaia Amnonen etxera. Hau ordean etzana zagoen. Thamarrek irina harturik, orhatu zuen eta urtharazirik, haren begien aitzinean egosarazi zituen edariak.

9. Eta egosi zuena harturik, ixuri zuen eta Amnonen aitzinean ezarri. Amnonek etzuen hartu nahi izan, eta erran zuen: Ilkhiazatzue guziak hemendik. Eta ilkhiazazi zituztenean guziak,

10. Amnonek erran zaroen Thamarri: Ekhar zazu jatekoa gelara, jan dezadan zure eskutik. Thamarrek hartu zituen beraz egin zituen edariak, eta gelara eraman ziozkan bere anaia Amnoni.

11. Eta jatekoa eskaini zioenean, Amnon lothu zitzaioen, eta erran zioen: Zato, ene arreba, etzan zaite enekin.

12. Hunek ihardetsi zioen: Ez benezazu bortxa, ene anaia, ezen hori ez da Israelen zilhegi; ez egin holako zorokeriarik.

13. Nik ezen ezin jasanen dut ene laidoa, eta zu Israelen izanen zare zoroen lerroko. Zertako hobeki etzare erregeri mintzatzen, ez nau zuri ukhatuko.

14. Etzituen ordean onhetsi nahi izan haren othoitzak, bainan indarka nausituz, bortxatu zuen eta harekin etzan zen.

15. Eta Amnonek hastio izan zuen ezin-bertzeko higuintza batez, halai non higuintza zeintaz higuintzen baitzuen orduan handiagoo baitzen aitzinean maithatzeko amodioa baino. Eta Amnonek erran zioen: Jaiki hadi eta habil.

16. Thamarrek ihardetsi zioen: Ni iraziz orai egiten duzun gaizkia handiagoo da aitzinean egin duzuna baino. Eta etzuen aditu nahi izan;

17. Bainan deithurik bere zerbitzuko muthila, erran zioen: Emak hori ene ganik kanporat, eta athea hertsok gibelatik.



18. Thamar jauntzia zen soineko luze batez, ezen halakoak erabiltzen zituzten erregeren alaba dontzella zirenek. Amnonen muthilak kanporat eman zuen beraz, eta athea hertsu zioen gibeletik.

19. Thamarrek burua hautsez estali zuen; bere soineko luzea phorokaturik, eta eskuak buruaren gainean ezarririk, bazihoan izkolaka.

20. Bada, Absalom bere anaiak erran zioen: Zer? Amnon, zure anaia, etzan da zurekin? Bainan orai, arrebak, ixil zaite, zure anaia da: horren gatik ez bezazu atsekabetan ezar zure bihotza. Hamar egotu zen beraz bere anaia Absalomen etxean hiraduraz ihartzen.

21. Dabid erregeak aditu zuenean hori, atsekabe handia hartu zuen, eta etzuen atsekaberik nahi izan ezarri Amnonen izpirituan, xitki maite baitzuen eta bere seme zaharrena zuelakotz.

22. Bada, Absalomek etzioen ez ongi, ez gaizki, deusere aiphatu Amnoni; ezen Absalomek Amnoni herrakunde zadukon bortxatu zuelakotz Thamar haren arrebak.

23. Bada, handik bi urtheren buruan gerthatu zen Absalomen ardiak mozten zituztela Baalhasorren, zeina baita Efraimgo ondoan; eta Absalomek deithu zituen erregeren Seme guziak.

24. Eta ethorri zen erregeren gana, eta erran zioen: Huna zure zerbitzariaren ardiak mozten direla; errege bethor, othoi, bere zerbitzariekin bere zerbitzariaren gana.

25. Erregek ihardetsi zioen Absalomi: Ene semea, ez bezazu othoitzik egin ethor gaitezen guziak, eta zure bizkar izan gaitezen. Bainan nola Absalomek hertxatzen baitzuen, eta ez baitzen nahi izan goan, benedikatu zuen.

26. Eta Absalomek erran zioen: Baldin ez baduzu ethorri nahi, bederen ene anaia Amnon ethor bedi, othoi, gurekin. Eta erregek ihardetsi zioen: Ez da goan dadien premiarik.

27. Beraz Absalomek hertxatu zuen, eta Dabidek utzi zituen harekin Amnon eta errege seme guziak. Eta Absalomek eman zuen barazkari bat, errege barazkaria bezalakoa.

28. Bada, Absalomek manatuak zituen bere muthilak, erraten zuelarik: Begia idukazue noiz arnoak atzemanen duen Amnon, eta nik erranen darotzuetan: Jo zazue eta hil. Ez izan beldurrik, ezen nik darotzuet manatzen: har zazue indar eta izan zaizte gizon bihozduinak.

29. Absalomen muthilek egin zuten beraz Amnonen kontra, Absalomek manatu zioeten bezala. Eta errege seme guziak jaikirik igan ziren zein bere mandoetara eta ihesari eman ziren.

30. Eta oraino bidean zihoazelarik, haro hau heldu zitzaion Dabidi: Absalomek hil ditu erregeren seme guziak, eta bat baxharra ere ez da gelditu.

31. Errege jaiki zen berehala, hautsi zituen bere soinekoak, eta erori zen ahuspez lurrera, eta harekin ziren zerbitzari guziek hautsi zituzten beren soinekoak.

32. Bainan Dabiden anaia Semaaren seme Jonadabek erran zioen: Errege ene Jaunak ez beza uste izan errege seme guziak hilak direla: Amnon da baxharrik hila, zeren zen Absalomen ahoan gelditua, haren arrebak Thamarri bortxa egin zioen egunetik.

33. Orain beraz errege ene Jaunak ez beza elhe hori ezar bere bihotzaren gainean, erranez: Erregeren seme guziak hilak dira! zeren Amnon baxharrik baita hila.

34. Bada, Absalomek ihes egin zuen. Eta guardian zagoen muthilak begiak altxatu zituen eta begiratu zuen: eta hara non jende-multzo handi bat heldu zen mendi-mazelako bide zeherraz.

35. Orduan Jonadabek erran zioen erregeri: Huna non diren erregeren semeak; zure zerbitzariak erran bezala gerthatu da.

36. Eta hura mintzatetik gelditu orduko, erregeren semeak ere agertu ziren, eta sartzean oihuz eta nigarrez hasi ziren; erregek ere eta haren zerbitzari guziek nigar egin zuten marraska guziz handitan.

37. Bada, ihes eginik Absalom goan zen Amiuden seme Tholomai, Jesurreko errege gana. Eta Dabidek egun oroz deithoratu zuen bere semea.

38. Absalom, berriz, ihes egin eta Jesurrera goan ondoan, han egotu zen hirur urthez.

39. Eta errege Dabid baratu zen haren ondotik ibiltzetik, zeren gozatu baitzaroen Amnonen heriotzeko mina.

#### XIV. KAP.

1. Bada, Joabek, Sarbiaren semeak, ezagaturik erregeren bihotza Absalomen alderat bihurtua zela,

2. Thekuara norbait igorri zuen eta handik erakharri zuen emazteki zuhur bat; eta erran zioen: Egizu dolamenetan bazina bezala, jauntz zazu doluko soina eta etzaitzela olio gantzuz, aspaldian hil bat deithoratzten duen emazteki iduri izan zedintzat.

3. Eta sar zaitezire erregeren aitzinera, eta mintzatuko zaizkio hunelako hitzetan. Eta Joabek ahoan ezarri ziozkan solasak.



4. Thekuar emaztekoa sarthu zenean beraz erregeren gana, erori zen lurrera haren aitzinean, adoratu zuen eta erran zion: Errege, begira neza-zu.

5. Eta erregek erran zaroen: Zer egiteko duin? Hunek ihardetsi zuen: Ai! emazteki alhargun bat naiz; ezen hil zait ene senharra.

6. Eta zure neskatoak bi seme zituen; elkharren artean samurtu dira landan, eta nihor etzen debeka zetzakeenik; eta batek jo du bertzea eta hil izan du.

7. Eta huna non zure neskatoaren kontra jaikirik, ahaidego guziak erran duen: Iguzu bere anaia jotea, bera hil dezagun hil duen anaia-biziarentzat, eta xahu dezaguntzat premia. Eta bilhatzen dute gelditu zaitan inharraren hiltzea, ezezta ditezen ene senharraren izena eta haren ondoregoa lurraren gainean.

8. Erregek emaztekiari erran zioen Zoaz zure etxerat, eta nik manuak emanen ditut zuretzat.

9. Thekuar emaztekiak ihardetsi zioen: Errege ene jauna, gaizkia ene gainean eta ene aitaren etxeraren gainean izan bedi; bainan errege eta bere tronua izan beitez garbi.

10. Eta erregek erran zuen: Ene aitzinera erakhar zazu jazarriko darotzuna, eta ez du gehiago eginen zure ukitzera.

11. Emaztekiak erran zuen berriz Errege orhoit bedi bere Jainko Jaunaz, odolaren aspertzeko ahaideak berha ez ditezen, eta ez dezaten hil ene semea. Erregek ihardetsi zuen: Ala Jauna! lurrera ile bat ez baita zure semearen burutik eroriko.

12. Emaztekiak erran zuen beraz: Zure neskatoak ene jaunari hitz bat erran ahal bezo. Dabidek erran zioen: Mintza zait.

13. Erregek atheratu du solas hori, eta nolaz populuaren kontra asmatu du bertze gauza hau, non bekhatu egiten baitu eta bereetarikako irazia bihurrazten ez baitu?

14. Guziak hiltzen gare, eta lurlean barriatzen gare bihurtzen ez diren urak bezala: Jainkoak ez du nahi arima bat gal dadien, bainan luzakor da, beldurrez arras gal dadien hastandua dena.

15. Orai ethorri naiz beraz, ene errege jaunari populuaren aitzinean solas horren erratera. Eta zure neskatoak erran du Mintzatuko natzaio erregeri, hea nolazbait erregek eginen duen bere neskatoaren errana.

16. Erregek beharria eman du bere neskatoaren atheratzeko, Jaunaren primantzatik ni eta ene semea batean ezeztatu nahi gintuzten guzien eskutik.

17. Erran beza beraz zure neskatoak Ene errege jaunaren hitza bethe bedi sakrifizio bat bezala. Ezen, nola Jainkoaren aingerua, hala da ene errege jauna, zeina ez solas eztiak, ez borthitzak ez baitute khordokutzen; hargatik da zurekin zure Jainko Jauna.

18. Eta ihardestean erregek erran zioen emaztekiari: Ez bezadazu gorde galdatzen darotzudan gauza. Eta emaztekiak erran zioen: Mintza zait, errege ene jauna.

19. Joaben eskua ez othe da zurekin hautan orotan? Emaztekiak ihardetsi zuen eta erran: Arimaz egia, ene errege jauna, ez da ez eskuin, ez ezker ene errege jaunari eman diozkadan hautarik orotarik; ezen zure zerbitzari Joabek berak manatu darot, eta berak ezarri ditu solas haukiek guziak zure neskatoaren ahoan.

20. Solas hunen itxura itzul nezan, Joab zure zerbitzariak manatu darot hori: bainan zu, oi ene errege jauna, Jainkoaren aingeruak duen bezala zuhurtzia, zuhur zare gauza guzien aditzeko lurraren gainean.

21. Eta erregek erran zioen Joabi: Jabalia naiz, eta onhetsi dut zure solasa; zoaz beraz eta itzularaz zazu Absalom, ene semea.

22. Eta lurrerat ahuspez eroririk, Joabek adoratu zuen eta errege benedikatu; eta Joabek erran zuen: Egun zure zerbitzariak ezagutu du, grazia aurkhitu dudala zure aitzinean, ene errege jauna; ezik onhetsi duzu zure zerbitzariaren hitza.

23. Joab jaiki zen beraz, Jesurrera goan zen eta Jerusalemera erakharri zuen Absalom.

24. Bainan erregek erran zuen: Bere etxera bihur bedi, eta ez beza ikhus ene begithartea. Hargatik Absalom itzuli zen bere etxera eta etzuen ikhusi erregeren begithartea.

25. Bada Israel guzian etzen gizon bat Absalom bezain ederra eta ongi irazkia zenik; oinetik bururaino etzen haren baithan errateko bakhar bat.

26. Eta ileak mozten zituenean (urthean behin mozten zituen, ilaiak nekhatzen zuelakotz), haren buruko ileek phisatzen zuten berrehun siklo, phisu ezagututa.

27. Bada, Absalomi sorthu zitzaizkon hirur seme, eta alaba bat, Thamar deitzen zena eta irazki ederrekoa.

28. Absalom egotu zen Jerusalemen bi urthe, eta etzuen ikhusi erregeren begithartea.

29. Hargatik igorri zuen Joaben gana, hura bidaltzeko erregeren aitzinera. Joabek etzuen nahi izan goan Absalomen gana. Eta Absalomek igorri zuenean bigarren aldiko Joaben gana, Joab etzitzaion goan nahi izan.





30. Absalomek erran zioten bere zerbitzariari: Badakizue, ene landaren aldean Joaben landa garagar-uzta duena: zoazte beraz eta su emozue. Absalomen zerbitzariak su eman zioten beraz uzta. Eta Joaben zerbitzariak ethorririk, soinekoak hautsirik, erran zuten: Absalomen zerbitzariak erre dute landaren zathi bat.

31. Eta Joab jaiki zen, eta ethorri zen Absalomen gana eta erran zuten: Zergatik zure zerbitzariak erre dute ene uzta?

32. Absalomek ihardetsi zioen Joabi: Bidali izan dut zure gana, othoiztuz ethor zintezan ni gana, zu igortzeko erregeri eta hari errateko: Zertako ethorri naiz Jesurretik? hobe nukkeen han egonik; errekeitzen zaitut beraz ikhus dezadan erregeren begihartea. Baldin oraino orhoit bada ene gaizkiaz, hil beneza.

33. Hargatik, erregeren aitzinera agerturik, Joabek ekharri ziozkan horiek guziak. Eta Absalom deithua izan zen eta agertu zen erregeren aitzinera; lurrari ahuspez adoratu zuen Dabiden aitzinean; eta erregek musu eman zioen Absalomi.

## XV. KAP.

1. Beraz, horiez geroztik, Absalomek egin zuen orga-laster bat, eta hartu zituen zaldizkoak eta berrogoi eta hamar gizon haren aitzinean goaten zirenak.

2. Eta goizean jaikirik, egoten zen athe aitzinean, eta egiteko zuten gizonak, erregeri justiziaren galdatzera ethortzeko, bere gana deitzen zituen eta erraten zioten: Zein hiritako zare? Harek ihardestean erraten zuten: Zure zerbitzaria da Israelgo hulako leinukoa.

3. Eta Absalomek erraten zioen: Zure solasak onak eta zuzenak iduritzen zaizkit. Bainan ez da nihor zure entzuteko erregez ezarririk. Eta erraten zuten:

4. Nork ezarriko nau juie lurrean, ene gana ethor ditezen egiteko duten guziak, eta zuzenki juia detzadan?

5. Bainan agur egitera norbait hurbiltzen zitzaioenean, hedatzen zioen bere eskua, eta lothurik musu ematen zioen.

6. Eta hola egiten zuen Israelgo guziei, justiziara heldu zirenei, erregez entzunak izateko, eta Israelgo gizonen bihotzak biltzen zituen.

7. Bada, berrogoi urtheren buruan, Absalomek erran zioen Dabid erregeaki: Goanen naiz, eta Hebronon betheko ditut Jaunari egin diozkadan botuak.

8. Ezen zure zerbitzariak, Jesur Siriakoan zelarik, botu egin zuen erranez: Baldin Jaunak bihurrarazten banau Jerusalemara, Jaunari sakrifizio bat eskainiko diot.

9. Eta Dabid erregeak erran zioen: Zoaz bakean. Absalom jaiki zen eta goan zen Hebronera.

10. Bada, Absalomek ikhusliarrak igorri zituen Israelgo leinu guzietara, zioelarik: Aditzen duzuen bezain sarri turuten durrunda, erran zazu: Absalom erregetu da Hebronon.

11. Bada, Absalomekin Jerusalemetik goan ziren berrehun gizon deithuak, bihotz laioarekin zihoazelarik, eta gauzaren jakitaterik batere gabe.

12. Absalomek halaber erakharrarazi zuen Akitophel Siloarra Dabiden kontseilaria, Jiloko bere hiritik. Eta bitimak imolatzeko zioelarik, hitzhartze hazkar bat egin izan zen, zeren populua alde orotarik ethorri berhatzen hari baitien Absalomekin.

13. Beraz, berrikerari bat Dabidi ethorri zitzaioen zioelarik: Bere bihotz oroz Israel guzia jarraitzen zaio Absalomi.

14. Eta Dabidek erran zioten bere zerbitzari, Jerusalemen harekin zirenei: Jaiki zaizte, ihes egin dezagun; ez ginduke ezen Absalomen ganik itzurbiderik; laster egizue atheratzera, beldurrezeta ethorririk atzeman gaitzan, eta zorigaitza gure gainera erorraz dezan, eta hiria jo ezpataren ahoaz.

15. Zerbitzariak erregeri erran zioten: Edozein gauza mana diazagun gure errege jaunak, gogotik betheko dugu guk, zure zerbitzariak.

16. Errege ilkhi zen beraz oinez eta haren etxe guzia ere. Erregek utzi zituen hamar emazteki ohaide etxearen zaintzeko.

17. Errege oinez atheraturik Israel guziarekin baratu zen etxetik urrun.

18. Haren zerbitzari guziak ibiltzen ziren haren aldean; Zeretharren eta Pheletharren andanak, eta Jethar guziak gerlari hazkarrak, sei ehun oinezko Jethik jarraiki zitzaizkoenak, goaten ziren erregeren aitzinean.

19. Bada, erregek erran zioen Ethai Jetharrari: Zertako heldu zare gurekin? itzul zaite, eta zaude erregerekin, zeren arrotza baitzare eta zure lekhotik atheratua.

20. Atzo ethorria zare, eta egun bortxatua izanen zare gurekin atheratzera? ni ordean goanen naiz goan behar dudana tokira: itzul zaite, eta zure anaiak gibelerat eraman zatzu, eta Jaunak emanen darozkitzu urrikalpena eta egia, khar eta zintasan agertu duzulakotz.



21. Ethaiek erregeri ihardetsi zaroen, zioelarik: Bizi bedi Jauna, eta bizi bedi ene errege jauna! edozein tokitan izan zaite±en, ene errege jauna, ala hilean, ala bizian, zure zerbitzaria han izanen da.

22. Eta Dabidek erran zioen Ethairi: Zato eta iragan zaite. Eta Ethai Jetharra iragan zen, eta harekin ziren gizonak ere, eta gainerako sende guzia.

23. Eta guziak nigar marraskaz hari ziren, eta populu guzia iragaiten zen. Erregek ere iragan zuen Zedrongo erreka, eta populu guzia bazohan mortuko alderat begiratzen duen bidez.

24. Bada, Sadok apheza ere ethorri zen, eta harekin lebitar guziak, Jainkoaren batasuneko arkha zakhartela, eta phausatu zuten Jaunaren arkha; eta Abiathar igan zen, hiritik atheratu zen populu guzia bildu arteo.

25. Erregek erran zioen Sadoki: Hirira bihur zazu Jainkoaren arkha: baldin Jaunaren aitzinean grazia aurkhitu badut, gibelerat erakharriren nau, eta berriz erakhutsiren darozkit hori eta bere tabernaklea.

26. Ordean erraten badarot: Ez haiz ene gogarako: Jaunaren nahiarri nago, egin beza ongi zaioen.

27. Eta erregek erran zioen Sadok aphezari: Oi ikhustea, bakean itzuli zaite hirira, eta Akimaas, zure semea, eta Jonathas Abiatharren semea, zuen bi semeak zuekin izan beitez.

28. Huna non gordeko naizen mortuko zelhaietan, zuen ganik solas bat ene argitzera ethor dakidan arteo.

29. Sadokek eta Abiatharrek beraz Jainkoaren arkha bihurtu zuten Jerusalemara, eta egotu ziren han.

30. Bada, Dabidek igaiten zuen Olibetako patarra, eta igaitean nigarrez zohan ointhsuts eta burua estalirik; eta harekin zen populu guzia ere burua estalirik, nigarrez igaiten zen.

31. Bada, Dabidi ekharri zioten berria Akitophelek ere Absalomekin zin egin zuela, eta Dabidek erran zuen: Jauna, zora zazu, othoi, Akitophelen oharmena.

32. Eta Dabid heldu izan zenean mendiaren bizkarrera, Jauna adortu gogo zuen tokira, hara non ethorri zitzaioen Kusai Arakitarra, soinekoa hautsirrik eta burua lurrez bethea.

33. Eta Dabidek erran zioen: Baldin enekin heldu bazare, poxelu izanen zaizkit.

34. Bainan hirira bihurtzen bazare, eta Absalomi erraten badiozu: Errege, zure zerbitzari naiz; zure aitaren zerbitzari izatu naizen bezala, orobat zerbitzatuko zaitut; urmariatuko ditutzu Akitophelen asmuak.

35. Bada zurekin ditutzu Sadok eta Abiathar aphezak, eta erregeren etxetik adituko ditutzun solas guziak, helduko diozkatzuet Sadok eta Abiathar aphezai.

36. Eta hekiekin dira hekien bi semeak, Akimaas, Sadoken semea, eta Jonathas, Abiatharren semea; eta hekietaz helduko daroztatuzue adituko ditutzuen gauza guziak.

37. Beraz Kusai Dabiden adiskidea hiria ethortzearekin, Absalom ere sarthu zen Jerusalemen.

## XVI. KAP.

1. Dabidek mendi-bizkarra iragan zuenetik laster, haren bidera agertu zen Siba, Miphibosethen zerbitzarta, bi astorekin, zeinak kargatuak baitziren berrehun ogiz, mahats merlatuzko ehun flokaz, piko merlatuzko ehun otharrez eta zahagi bat arnoz.

2. Erregek Sibari erran zioen: Zer dira horiek? Sibak ihardetsi zuen: Astoak erregeren zerbitzarien azpiko, ogiak eta pikoak zure muthilek jateko, eta mortuan norbait ahitzen bada, arnoa hari emateko.

3. Eta erregek erran zioen: Non da zure nausiaren semea? Sibak erregeri ihardetsi zuen: Jerusalemen gelditu da, zioelarik: Israelgo etxeak bihurtuko darot egun ene aitaren erresuma.

4. Eta erregek Sibari erran zioen: Zureak izan beitez Miphibosethenak ziren guziak. Eta Sibak ihardetsi zuen: Errege, ene jauna, othoizten zaitut grazia aurkhi dezadan zure aitzinean.

5. Dabid erregea ethorri zen beraz Bahurimeraino; eta hara non atheratzen zen handik Saulen etxeko ahaidegoko gizon bat, Semei deitzen zena, Jeraren semea eta ilkhirik heldu zen eta burhoka hari zen,

6. Eta harriak arhikitzen ziozkatzen Dabidi eta Dabid erregearen zerbitzari guziei. Bada populua oro eta gerlari guziak zihoazen erregeren eskuinetik eta ezkerretik.

7. Eta errege madarikatzean, hunela mintzo zen Semei: Habit, gizon odolkoia, Belialen gizona.

8. Jaunak bihurtu darok Saulen etxeko odol guzia, jabetu haizelakotz haren orde haren erreinuaz, eta Jaunak hire seme Absalomen eskuan ezarri dik erreinua; eta huna non hire tzarkeriek lehertzen hauten, odolkoia bat haizelakotz.

9. Bada, Abisaik, Sarbiaren semeak erran zioen erregeri: Zertako zakhur hil horrek madarikatzen du errege ene jauna? goanen naiz eta moztuko diot burua.



10. Erregek ihardetsi zioen: Sarbiaren semea, zer da zure eta ene artean? utzazu, madarika dezan; Jaunak ezik manatu dio madarika dezan Dabid, eta nor da ausartatuko dena erraitera, zertako egin duen hola?

11. Eta erregek Abisairi eta bere zerbitzari guziei erran zioten: Huna non ene semea, ene sabeletik ilkhi dena, dabilan ene biziaren ondoan; orai beraz zenbatez hobeki Jeminiren semea! Utzazue, madarika dezan Jaunaren manamenduaren arabera;

12. Eta beharbada Jaunak begiratuko dio ene atsekabeari, eta beharbada Jaunak ongia bihurtuko darot egungo madarizionearen alderat.

13. Hargatik Dabid bazohan bere bidean, eta haren lagunak harekin. Semei ere mendi-bizkarrez sahetsetik, Dabiden parrean zihoan, haren kontra madarizioneka eta harrika, eta herrautsa besa-gainka barraiatuz.

14. Beraz errege eta harekin populu guzia nekheak ehoak ethorri ziren eta Bahurimen indar hartu zuten.

15. Absalom, berriz, eta haren populu guzia, eta Akitophel ere harekin, Jerusalem sarthu ziren.

16. Eta Absalomen gana zenean Kusai Arakitarra, Dabiden adiskidea, erran zioen: Agur, errege, agur, errege.

17. Absalomek ihardetsi zioen: Hori da hire eskerra hire adiskidearen alderat? zertako ez haiz goan hire adiskidearekin?

18. Kusaiek ihardetsi zioen Absalomi: Ez, zeren hainarena izanen bainaiz, zeina hautatu baitute Jaunak eta populu hunek guziak, eta Israel guziak, eta harekin egonen naiz.

19. Bainan, hau ere erran dezadan, noren zerbitzatzera heldu naiz? ez naiz erregeren semea gana heldu? nola zure aitaren manuko izatu bainaiz, orobat izanen naiz zure manuko.

20. Bada Absalomek Akitopheli erran zioen: Iklusazue zer egin behar dugun.

21. Eta Akitophelek erran zioen Absalomi: Sar zaitenzi zure aitak etxearen zaintzera igorri dituen bere ohaideetara; arren-eta, Israel guziak aditzen dienean laidoztatu duzula zure aita, hekien eskuak gogor ditezen zurekin.

22. Absalomen olha hedatu zuten beraz zabaltzan, eta bere aitaren ohaideetara sarthu zen Israel guziaren aitzinean.

23. Bada ordu hekietan Akitophelek ematen zituen kontseilu guziak, nahiz Dabidekin zenean, nahiz Absalomekin, ziren norbaitek Jainkoa kontsultatzen balu bezala.

## XVII. KAP.

1. Akitophelek erran zioen beraz Absalomi: Hautatuko ditut hamabi mila gizon, eta jaikirik goanen naiz gaur Dabiden ondotik;

2. Eta jauzten naizelarik haren gainera (ezen nekhatua da eta indar gabe), joko dut; eta harekin den populu guzia ihesari emanen denean, errege joko dut bere asalduan.

3. Eta populu guzia gibelerat erakharriko dut, gizon bakhar bat bihurtzen ohi den bezala; ezik zuk bilhatzen duzuna gizon bat da, eta populu guzia bakean izanen da.

4. Solas hori Absalomen eta Israelgo zaharrenen guzien gogarako izatu zen.

5. Bizkitartean Absalomek erran zuen: Deith zazue Kusai Arakitarra, eta dugun adi zer erranen duen harek ere.

6. Eta Kusai ethorri zenean Absalomen gana, Absalomek erran zioen: Hunelako solasa atheratu du Akitophelek; egin behar dugu, ala ez? zer diozu?

7. Kusaik ihardetsi zioen Absalomi: Ez da ona Akitophelek oraikotan eman duen kontseilua.

8. Eta Kusaik erran zuen berriz: Zuk ezagutzen duzu zure aita, eta badakizu harekin diren gizonak hazkarrenetarik direla, eta gogoa mindua, umeak galdurik oihanean errabiatua dabilan hartz ama bat iduri; eta zure aita ere gizon gertaria da, eta ez da baratuko populuarekin.

9. Beharbada orai gordea dago zilhoka batean, edo berezi dukeen lekhu batean; eta hastetik zuretarik norbait xahutzera heldu bada, guziek adituko dute, eta erranen dute: Sarraski bat egina izan da Absalomi jarraitzen zen populan.

10. Orduan hazkarrenak berak, lehoiak bezalako bihotza dutenak, izialdurak erkhituko ditu; ezen Israelgo populu guziak badaki zure aita bihoz duna dela, eta bihoz duna direla harekilako guziak.

11. Bainan ene iduriko hau da ona: Israel guzia zure gana bil bedi Danetik Bersitheeraino, ezin khonda ditakeen itsasoko legarra bezala: eta zu izanen zare hekien erdian.

12. Eta jauziko gare Dabiden gainera khausituko den edozein lekhu-tan; eta estaliko dugu, ihintza lurrerat erortzen ohi den bezala, eta harekin diren gizonetarik ez dugu utziko bat bakharra ere.

13. Hiri zenbaitetara sarthua bada, Israel guziak hiri hura sokhaz inguratuko du eta erre kara anbiduko dugu, hartarik harri-kozkor bat ere ez dadien khausi.



14. Eta Absalomek eta Israelgo gizon guziak erran zuten: Kusai Arakitarraren oharmena hobea da Akitophelena baino. Bada, Jaunaren nahiaz urmariatua izan zen Akitophelen asmu ona, Jaunak Absalomen gainera erakhar zezan zorigaitza.

15. Eta Kusaik erran zioten Sadok eta Abiathar aphezei: Hulako eta hulako kontseilua Akitophelek eman diote Absalomi eta Israelgo zaharrei; eta nik holako eta holakoa eman dut.

16. Orai beraz igorrazue berehala, eta gaztia zozue Dabidi, diozuelarik: Ez bezedi gau hau geldi mortuko zelhaietan, bainan luzamenik gabe iragan zaite, beldurrez-eta errege gal dadien, eta harekin den jendea ere bai.

17. Bada, Jonathas eta Akimaas Erroiengo ithurriaren ondoan zauden; neskato bat goan zen eta berria heldu zioten, eta haukiek bideari eman ziren haren eramateko errege Dabidi, ezen etzitazkeen ikhusiak izan eta ezin sar zitazkeen hirian.

18. Bizkitartean muthil batek ikhusi zituen, eta erran zioen Absalomi; bainan haukiek urhatsa zalhaturik, sarthu ziren Bahurimen gizon baten etxean, zeinak baitzuen bere etxe-sartzean phutzu bat, eta haren barnera jautsi izan ziren.

19. Etxeko emaztekiak, berriz, hartu zuen sailhal bat, eta hedatu zuen phutzuaren ahoan, garagarra idorrazzten balu bezala; eta hola gauza gordea izan zen.

20. Absalomen gizonak ethorri zirenean etxera, emaztekiari erran zioten: Non dira Akimaas eta Jonathas? Eta emaztekiak ihardetsi zioten: Ur xorta bat dastatu-eta, iragan dira zalhuki. Eta etzituztenean khausitu, bilhariak itzuli ziren Jerusalemera.

21. Goan zirenean, haukiek igan ziren phutzutik, eta bideari jorik, berria ekharri zioten Dabidi eta erran: Xuti zaizte eta hibaia iragan zazue, zeren hunelako kontseilua eman baitu Akitophelek zuen kontra.

22. Dabid jaiki zen beraz eta harekin zen populu guzia ere, eta Jordanea iragan zuten argitu artean; eta bakhar bat ere etzen gelditu hibaia iragan etzuenik.

23. Bada Akitophelek, ikhusirik egitekoa etzela haren erranetik goan, harbalda ezarri zioen bere astoari, jaiki zen eta goan bere etxera eta bere hirira, eta bere egitekoak xuxendurik, urkhatuz hil zen, eta ehortzia izan zen bere aitaren hobian.

24. Bada, Dabid ethorri zen kanpetara, eta Absalomek iragan zuen Jordanea, berak eta Israelgo gizon guziek harekin.

25. Absalomek Amasa ezarri zuen Joaben orde armadaren buruan. Amasa zen Jetra deitzen zen Jefraeldar gizon baten semea; Jetra ezkondua

zen Naasen alaba Abigailekin, zeina baitzen Sarbiaren ahizpa eta Sarbia Joaben ama.

26. Eta Israel kanpatu zen Absalomekin Galaadeko lurrean.

27. Eta Dabid kanpetara ethorri zenean, Subi, Naasen semeak, Errabath Amongoak; Amihelen seme, Makir Lodabarrak, eta Berzelai Erroielim Galaadekoak

28. Eskaini ziozkaten oheak, sailhalak, lurrezko untziak, ogia, garagara, irina, garagar xigorra, baba, dilista, ilhar frigitua,

29. Eztia, burra, ardiak eta aratxe gizenak; eta Dabidi eta harekin zen jendeari eman zioten jatera; ezen burura ethorri zitzaioeten, populua mortuan gosez eta egarriz ahitua zitakeela.

### XVIII. KAP.

1. Dabidek beraz, bere jendea begizaturik, haren manatzeko ezarri zituen ehun gizonetako eta mila gizonetako aitzindariak;

2. Armadaren heren bat ezarri zuen Joaben manuen azpian, bertze heren bat Abisai, Sarbiaren seme Joaben anaiaren azpiko, eta azken herena Ethaien azpiko; Ethai baitzen Jetharra. Eta erregek erran zioen armadari: Ni ere atherako naiz zuekin.

3. Eta armadak ihardetsi zuen: Etzare ilkhiko; ezen ihesari eman bagineza, ez luke hekientzat gutaz deus handirik erran nahi; heren bat ere gutarik erortzen balitz, hortaz axola guti lukete; zeren zu hamar milentzat ikhusia baitzare bakharrik. Hobe da beraz hirian egon zaitezen guri laguntza emateko.

4. Erregek erran zioten: Nola ere ongi iduritzen baitzaitzue, hala eginen dut. Errege jarri zen beraz athean, eta populua ilkhitzen zen bere andanetan, ehunka eta milaka.

5. Eta erregek manu eman zioten Joabi eta Ethairi, zioelarik: Begira darotazue ene seme Absalom. Eta populu guziak aditzen zuen errege aitzindari guziei ematen Absalomen begiratzeko manua.

6. Populua zelhaiera atheratu zen beraz Israelen kontra, eta gudua eman zen Efraimen oihanean.

7. Eta han Israelgo populua Dabiden armadaz xehakaturia izan zen, eta egun hartan egin zen sarraski bat gaitza, hogoi mila gizonena.

8. Eta han gudua barraiatua izan zen lur guziaren hedaduran, eta oihanak populutik iretsi zituenak hainitz gehiago izan ziren, ezenez egun hartan ezpatak sarraskitu zituenak.

9. Bada, gerthatu zen Absalom, bere mandoaren gainean jarririk, buruz buru egin zituela Dabiden zerbitzariak; mandoa sarthu zen haritz



handi eta adartsu baten azpira; Absalomen burua haritzean lothu zen, eta bere zeruaren eta lurraren artean dilindan gelditurik, haren azpiko mandoa aitzinerat iragan zen.

**10.** Bizkitartean norbaitek ikhusi zuen hori, eta Joabi berria eman zaroen, zioelarik: Absalom ikhusi dut haritz batetik dilindan.

**11.** Joabek erran zaroen berria ekharri zaroen gizonari: Ikhusi baduk, zertako ez duk lurrarekin josi, eta nik emanen narozkian hamar siklo zilharrezkoak eta gerriko uhal bat?

**12.** Hunek Joabi ihardetsi zaroen: Eskuetara eman bazinezazkit mila zilharrezko ere, ez nezake eskua ezar erregeren semearen gainean; ezen, guk aditzen dugularik, erregek manatu darotzue zuri, Abisairi eta Ethairi, zioelarik: Begira darotzue ene seme Absalom.

**13.** Eta ene biziaren kontra ozarki egin izan banu, erregeri ezin gordea izanen zen hori, eta zu jarriko zinen hari buruz?

**14.** Joabek erran zaroen: Ez diat hik bezala eginen, bainan hire aitzinean joko diat. Joabek eskuan hartu zituen beraz hirur lantza, eta bihotzean sarthu ziozkan Absalomi; eta nola haritzari lothua higitzen baitzen oraino,

**15.** Joaben hamar ezkutari gaztek laster egin zuten, eta joka hil zuten.

**16.** Joabek gero turuta jo zuen; eta populua atxiki zuen, etzadien goan Israeldar ihes ziozinen ondolik, ostea nahiz guphidetsi.

**17.** Absalom eraman zuten; oihanean zilho handi batera arthiki zuten eta harri-meta gaitz bat haren gainean ezarri zuten; Israel guziak, berriz, bere olhetara ihes egin zuten.

**18.** Bada, Absalomek altxatu zuen beretzat, bizi zenean oraino, Erregeren haranean den harroin bat, ezen erran zuen: Semerik ez dut, eta hau izanen da ene izenaren orhoitgailua. Bere izena eman zioen orhoitkari hari, eta egungo eguna arteo Absalomen eskua deitzen da.

**19.** Bada, Akimaasek, Sadoken semeak, erran zuen: Laster eginen dut, eta erregeri eramanen diot berria, bere zuzena bere etsaien eskuetarik bihurtu dioela Jaunak.

**20.** Joabek ihardetsi zioen: Etzare berri-eramaile izanen egun huntan, bainan bertze batez berri eramaten hariko zare; ez dut nahi zuk hel dezazun egun berria, zeren den hila erregeren semea.

**21.** Eta Kusiri erran zioen Joabek: Zoaz eta erregeri ikhusi duzuna errozu. Kusek agur egin zioen Joabi eta lasteregin zuen.

**22.** Bainan berriz ere Akimaas Sadoken semeak erran zioen Joabi: Zer makhur da ni ere Kusiren ondolik goaten banaiz? Eta Joabek erran

zioen: Zer nahi duzu laster eginik, ene semea? etzare berri onaren eramaile izanen.

**23.** Hunek ihardetsi zuen: Zer litake bada, laster egin baneza? Eta Joabek erran zioen: Laster egizu. Akimaasek beraz, laburzakako bide batetik lasterka, iragan zuen Kusi.

**24.** Bizkitartean Dabid jarria zagoen bi atheen artean; athaburuan harrasi gainean zen begiralariak, berriz, begiak altehaturik, ikhusi zuen gizon bakhar bat lasterka.

**25.** Eta oiuhu eginik erregeri albiste eman zioen, eta erregek erran zuen: Bakharrik bada, berri ona da horren ahoan. Bada, gizona laster higitzen eta hurbilago heltzen zelarik,

**26.** Begiralariak ikhusi zuen bertze gizon bat lasterka, eta gainetik oiuhu eginez, erran zuen: Agertzen zait bertze gizon bat bakharrik lasterka. Eta erregek erran zuen: Hori ere berri-ekharle ona da.

**27.** Eta begiralariak erran zuen berriz-ere: Begiratzen diot lehenbiziakoaren lasterrari; Akimaas, Sadoken semearen lasterra iduri du. Eta erregek erran zuen: Gizon prestua da, eta berri onaren ekhartzera heldu dena.

**28.** Bada, Akimaasek oiuhu eginez, erran zioen erregeri: Agur, errege. Eta errege adoratzuz lurrera gurthurik haren aitzinean, erran zuen: Benedika bedi zure Jaunko Jauna, zeinak hertsu baititu ene errege jaunaren kontra eskuak altxatu dituzten gizonak.

**29.** Erregek erran zuen: Ongi da ene seme Absalom? Akimaasek ihardetsi zuen: Joab, zure zerbitzariak, oi errege, igorri duenean zure zerbitzaria, asaldu handi bat ikhusi dut; bertzerik ez dakit.

**30.** Erregek erran zioen: Iragan zaite eta zaude hor. Eta hura iragan zenean eta gelditua zagoelarik,

**31.** Kusi agertu zen, eta heltzean erran zuen: Berri ona ekhartzen dut, ene errege jauna; ezik Jaunak egun zure alde erabaki du zure kontra jaiki diren guzien kontra.

**32.** Erregek, berriz, erran zioen Kusiri: Ongi da ene seme Absalom? Kusik ihardetsi zioen: Ene errege jaunaren etsaiak oro eta haren kontra gaizkikotzat jaikitzen diren guziak Absalom bezala egin beitez.

**33.** Hargatik errege atsekabez bethea igan zen atheko gelara, eta nigarrari eman zen. Eta hara-hunaka zabilalarik, hunela mintzo zen: Ene seme Absalom, Absalom, ene semea! nork emanen darot hil nadien zuretzat! Absalom, ene semea, ene seme Absalom



## XIX. KAP.

1. Bada, Joabi berria ekharri zioten errege nigarrez eta bere semearen deithoratzten hari zela;

2. Eta egun haren garhaizia populu guziari deithoretara bihurtu zitzaion; ezen populuak aditu zuen erraten egun hartan: Errege bere semearen minez dago.

3. Eta populua egun hartan baztertu zen hirira sartzeko, hala-nola garhaitua eta gudutik ihes dohan populu bat bazterka itzultzen baita.

4. Bizkitartean erregek burua estali zuen eta heiaigoraka erraten zuen: Ene seme Absalom, Absalom, ene semea, ene semea!

5. Bada Joab etxera erregeren gana sarthurik, erran zuen: Ahalkea eman diozu egun zure zerbitzari guzien begitharteari, salbatu dituzten ondoan zure bizia, zure seme alaben bizia, zure emazteen bizia, zure ohai-deen bizia.

6. Maite ditutzu hastiatzen zaituztenak, eta maite zaituztenak hastio ditutzu; eta erakhtsi duzu egun axolarik ez duzula ez zure aitzindariez, ez zure zerbitzariez: ezagutu dut egun seguratuki, baizik-eta Absalom bizi baliz, eta guk guziek leher egin baginu, orduan izanen zinduela atsegin.

7. Orai beraz jaiki zaite, ilkhi zaite, eta mintzatuz, gogo bat emozue-te zure zerbitzariari; ezik Jaunaz zin egiten darotzut, ez balin bazare atheratzen, bat bakharra ez dela gaur zurekin geldituko, eta hori zuretzat gaixtoago izanen da, ezenez zure gaztetasunetik orai arteo zure gainera ethorri izan diren zorigaitz guziak.

8. Errege jaiki zen beraz eta athean jarri zen; eta populu guziari heldua izan zen errege athean jarria zela; eta ostea oro ethorri zen erregeren aitzinera. Israelek, berriz, ihes egin zuen bere olhetara.

9. Populua ere guduka hari zen Israelgo leinu guzietan zioelarik: Erregek irazi gaitu gure etsaien eskuetarik, berak atheratu gaitu filistin-darren eskuetarik; eta orai gure lurretik ihes dabila Absalomen gatik.

10. Bada, Absalom, erregetzat gantzutu ginduen, gerlan hil izan da; noiz arteo egonen zarete ixilik, eta ez duzue errege erakharriko?

11. Dabidek, berriz, gaztiatu zioten Sadok eta Abiathar aphezei, zioelarik: Mintza zaizte Judako zaharrenei, erranez: Zertako heldu zarete azkenik errege bere etxerat erakharrazteko? (ezen Israel guziaren solasa heldu zen erregeren gana bere etxera.)

12. Ene anaiak zarete, ene hezurra eta ene haragia; zertako zarete azkenak erregeren erakharrazten?

13. Amasari ere errozue: Ez othe zare ene hezurra eta ene haragia? Jainkoak hau egin bezat eta hura gainetik, ez bazare ene aitzinean izaten bethi armadako buruzagi Joaben orde.

14. Eta Judako gizon guzien bihotza ixurazazi zuen, gizon bakhar batena bezala; eta erregeri bidali zaroeten, ziotelarik: Bihur zaizte, zu eta zure zerbitzari guziak.

15. Eta errege itzuli zen; ethorri zen Jerusalemeraino, eta Juda guziak egin zuen Galgalaraino, erregeren bidera goateko, eta hari Jordanea iraganarazteko.

16. Bada Semei Jeraren semea, zeina baitzen Jemini Bahurimtarren semea, higitu zen eta Judako gizonekin ethorri Dabid erregearen bidera,

17. Mila Benjaminsar, eta Siba Saulen etxeko zerbitzariarekin; eta hunek bere hamabortz semeak, eta hogoi muthilak berekin zituen; eta Jordanera jauzirik erregeren aitzinean,

18. Ubiak iragan zituzten, Erregeren etxea erakartzeko, eta haren manuen bethetzeko. Bada, Semei, Jeraren semea, ahuspekaturik erregeren aitzinean, Jordanea iragan zueneko,

19. Erran zioen: Ene jauna, ez bezadazut jazar ene gaizkiaz, eta ez bezedi orhoit zure zerbitzariaren irainaz, Jerusalemetik, ene errege jauna, ilkhi zinen egunekoaz, eta, oi errege, ez bezazu hori zure bihotzaren gainean ezar.

20. Ezen nik, zure zerbitzariak, ezagutzen dut ene bekhatua, eta horren gatik egun, lehena ethorri naiz Josepen etxe guzitik eta jautsi naiz ene errege jaunaren bidera.

21. Bainan Abisai, Sarbiaren semeak, ihardetsi zuen: Solas horien gatik. ez othe da hil behar Semei, Jaunaren kristo zeren duen madarikatu?

22. Eta Dabidek erran zuen: Zer da zure eta ene artean, Sarbiaren semea? zertako zerbitzatzen zaizkit egun Satanetan? egun hil behar othe da, bada, gizon bat Israelen? ala ez dakit egun egina naizela Israelen gainean errege

23. Eta erregek erran zioen Semeiri: Etzare hilen. Eta zin egin zioen.

24. Miphiboseth ere, Saulen semea, erregeren bidera jautsi zen, zangoak garbitu gabe eta bizarra moztu gabe; eta bere soinekoak etzituen xuritu errege ilkhi zen egunetik, bakean bihurtzen zen eguneraino.

25. Eta Jerusalemera ethorri zenean erregeren gana, erregek erran zioen: Zertako etzare enekin ethorri, Miphiboseth?

26. Ihardetsi zioen: Ene errege jauna, ene zerbitzariak erdeinatu nau; nik, zare zerbitzariak, erran diot xuxent zezadan asto bat, eta gainera iganik goanen nintzela erregerekin; ezen ni, zure zerbitzaria, maingua naiz.



27. Gehiago dena, zure zerbitzari naizenaren kontra iratxikika haritu da ene errege jauna zarenaren aitzinean. Bainan zu, ene errege jauna, Jainkoaren aingerua bezala zare, egizu atsegin duzuna.

28. Ezen ene aitaren etxeak ez du ene errege jauna ganik bertzerik merezitu, heriotzea ez bada; eta zuk zure zerbitzaria ezarri duzu zure mahainera deitzen zintuenen artean. Beraz zer errateko zuzen duket? edo zer erran dezoket erregeri?

29. Erregek ihardetsi zioen beraz: Zertako mintzaturen zare gehiago? erran dudana egina da; zuk eta Sibak erdizka egizkitzue ontasunak.

30. Miphibosetek ihardetsi zioen erregeri: Har betza guziak ere, ene errege jauna bakean itzuli denaz geroztik bere etxera.

31. Berzelai Galaadtarra halaber jautsirik Erroielimdik, errege iragan zuen Jordanean, eta hibaitik urrunago ere jarraikitza zagoen.

32. Bada, Berzelai Galaadtarra hainitz zaharra zen, erran nahi da, laur hogoi urthetan, eta harek berak ekharri izan ziozkan erregeri jatekoak, kanpetan egoten zenean, ezen hainitz aberatsa zen.

33. Hargatik erregek erran zioen Berzelairi: Zato enekin Jerusalemensean soseguz enekin phausatzera.

34. Berzelai erregeri ihardetsi zioen: Zenbat dira ene biziko urtheen egunak, ni erregerekin Jerusalemensean igaiteko?

35. Laur hogoi urthetan naiz egun: ene usnak gai dira ezagutzeko gozoa eta khiretsa? edo zure zerbitzariari janak eta edanak gozorik eman dezokete? edo gehiago adi detzazket gizonen eta emaztekien kantuak? zertako zure zerbitzaria izanen da ene errege jaunaren bizkar?

36. Zure zerbitzariak zurekin bide poxi bat eginen du Jordanetik aitzina: ez dut holako aldatzapen beharrik,

37. Bainan othoizten zaitut bihur dadien zure zerbitzaria; hilen naiz ene hirian, eta ehortziko naute ene ait-amen aldean. Kamaam ordean zure zerbitzari da; hau zurekin goan bedi, ene errege jauna, eta huni egiozu ongi iduritzen zaitzun guzia.

38. Hargatik erregek erran zioen: Enekin iragan bedi Kamaam, eta nik eginen diot zure gogarako den guzia, eta galdatuko darozkidatzunak oro ardietsiren ditutzu.

39. Eta populu guziak eta erregek Jordanea iragan zutenean, erregek musu eman zioen Berzelairi eta benedikatu zuen; eta hau bere lekhura itzuli zen.

40. Errege iragan zen beraz Galgalan, eta Kamaam harekin. Bada, Judako populu guziak erakharri zuen errege, eta Israelgo populutik etzen han gerthatu haren bat baizik.

41. Hargatik Israelgo gizon guziek erregeren gana laster eginik, erran zioten: Zertako ebaska erakharri zaituzte gure anaia, Judako gizonak, eta Jordanea iraganarazi diote erregeri eta bere etxeari, eta Dabiden gizon guzietan harekin?

42. Eta Judako gizon guziek ihardetsi zioten Israelgo gizonen: Zeren hurbilago dugun errege. Zertako samurtzen zarete gauza horren gainean? ala erregeren ganik jan dugu zerbait, ala emaitzak eginak izan zaizku?

43. Eta Israelgo Judako gizonen ihardetsi zioten: Hamarretan gehiago naiz erregeren baithan, eta Dabid gehiago da enea zuena baino. Zergatik egin darotazue irain, eta ez darotazue lehenik gaztiatu, gibelerat erakhar nezan ene erregea? Eta Judako gizonen gogorki ihardetsi zioten Israelgo gizonen.

## XX. KAP.

1. Gerthatu ere zen han bazela Belialen gizon bat, Seba deitzen zena, Bokriren semea, Jeminitarra; eta turuta jo zuen, eta erran: Dabiden baithan ez dugu pharterik, ez-eta primantzarik Isairen semearen baithan. Israel, itzul hadi hire olhetara.

2. Eta Israel guzia Dabiden ganik berezi zen, eta Sebari, Bokriren semeari jarraiki izan zen. Bainan Judako gizonak beren erregeari iratxikiak egotu ziren Jordanetik Jerusalemensean.

3. Eta errege heldu izan zenean bere etxera Jerusalemensean, hartu zituen bere hamar ohaideak, etxearen zain utzi izan zituenak, toki hertsiki batean ezarri zituen eta jatekoak ematen ziozkatzen. Etzen gehiago hekiek gana hurbildu, bainan hertsikiak egotu ziren beren heriotzeko eguneraino, alharguntasunean biziz.

4. Bada, erregek erran zioen Amasari: Bil darozkidatzu hirur egunik barnean Judako gizon guziak, eta zu ere han khausi zaitezi.

5. Amasa goan zen beraz Judaren bilaraztera, eta egotu zen erregek manatu zioen baino gehiago.

6. Bada, Abisairi erran zioen Dabidek: Orai Sebak, Bokriren semeak, atsekabe gehiago emanen daroku ezenez Absalomek. Har zatzu beraz zure nausiaren zerbitzariak, eta Sebari zoazkio ondotik, beldurrez-eta atzeman detzan hiri hazkartuak, eta itzur dakigun.

7. Joaben gizonak ilkhi ziren beraz harekin, eta Zeretharrak ere, eta Pheletharrak; eta gizon bizkor guziak Jerusalemetik atheratu ziren Sebaren, Bokriren semearen ondotik goateko.

8. Gabaonen den harri handira zirenean, Amasa heldu zela aitzinera ethorri zitzaioeten. Bada, Joab jauntzia zen bere soinekoaren neurriko



athorra hertsu batez, eta zuen gainetik gerruntzeraino dilindan, bere maginana, ezpata bat egin den-gutiena higituz athera eta hartaz jo zaitekeen bezala.

9. Joabek beraz Amasari erran zioen: Agur, anaia. Eta esku ezker hartu zuen Amasaren kokotsa, musu emateko itxuran.

10. Bada, Amasa etzen oharu Joaben ezpatari: Joabek sakhitu zuen Amasa sahetsetik eta haren hertzeak ixuri zituen lurrera, eta etzioen eman behar izan bigarren ukhaldirik, eta Amasa hil zen. Joab, berriz, eta Abisai, haren anaia, goan ziren Bokriren seme Sebaren ondolik.

11. Bizkitartean, nola Amasaren gorputzaren aldean gelditu baitziren Joaben lagunetarik zenbait, erran zuten: Huna Dabidek Joaben orde buruzagi izatea nahi izan duena.

12. Bada, Amasa odolez estalia bidearen erdian etzana zagoen. Norbaitek ikhusi zuen populu guzia gelditzen zela haren ikhusteko; Amasa aldaratu zuen bazter batera eta estali zuen kapaz, iragaileak geldi etzitezen haren gatik.

13. Hura beraz bidetik aldaratua izan zenean, iragaiten ziren Joabi jarraitzen ziren guziak, Seba, Bokriren semearen ondolik goateko.

14. Bada, Seba Israelgo leinu guzietan iragan zen Abelan eta Bethmaakan; eta gizon hauta guziak haren gana bilduak izan ziren.

15. Hargatik Joab eta bere lagunak ethorri ziren eta sethioan zadukaten Abelan eta Bethmaakan; hiria inguratu zuten trentxadaz, eta sethiatua zen hiria. Joabekin zen oste guzia hari zen harrasiaren eragoztera.

16. Eta hiriko emazteki zuhur batek oihera egin zuen: Adi zazue, adi zazue; errozue Joabi: Hurbil zaite hunat eta mintzatuko naiz zurekin.

17. Joab emaztekiari hurbildu zenean, erran zioen hunek: Joab zare? Eta Joabek ihardetsi zioen: Ni. Emaztekia hunela mintzatu zitzaioen: Adi zatzu zure neskatoaren hitzak. Harek ihardetsi zioen: Aditzen dut.

18. Eta berriz emaztekiak erran zuen: Hau zioen erran-zahar batek: Galdegiten dutenek, Abelan galda bezate; eta horrela goaten ziren.

19. Ez othe naiz, ni egia Israelen ihardesten dudana? eta zuk bilhatzen duzu hiriaren eragoztea eta ama bat Israelen xahutzea? Zertako errekarar arthikitzen duzu Jaunaren primantza?

20. Joabek ihardetsi zioen: Urrun, urrun hori ni ganik; ez dut ez errekaratzen, ez-eta eragozten.

21. Gauza ez da hola, bainan Efraimgo mendiko gizon batek, Sebak, Bokriren semea deitzen denak, bere eskua altxatu du Dabid erregearen kontra: hura bakharra iguzue, eta hiritik gibelerat eginen dugu. Eta emaz-

tekiak Joabi erran zioen: Huna, bada, haren burua harrasitik arthikiko zaitzu.

22. Emaztekia goan zen beraz populu guziaren erdira, eta zuhurki mintzatu zitzaioeten; eta Sebaren, Bokriren semearen burua mozturik, arthiki zioten Joabi. Hunek turuta jo zuen, eta hiritik gibelerat goan ziren eta zeinek bere olhara egin zuen: Joab, berriz, Jerusalemera itzuli zen erregeren gana.

23. Joab izan zen beraz Israelgo armada guziaren buruzagi; Banaias, Joiadaren semea Zeretharren eta Pheletharren buruzagi;

24. Aduram, berriz, leinuetako buruzagi; Josafat, aldiz, Ahiluden semea, ageriaz kargutua;

25. Siba, berriz, iskribau; arren Sadok eta Abiathar, aphez;

26. Eta Ira Jairtarra zen Dabiden aphez.

## XXI. KAP.

1. Halaber Dabiden egunetan, hirur urthez lerroan gosete bat gertatu zen, eta Dabidek kontsultatu zuen Jaunaren oraklea. Jaunak ihardetsi zuten: Hori da Saulen gatik eta haren etxe odolkoia gatik, hil dituelakotz Gabaontarrak.

2. Beraz erregek Gabaontarrak deithurik, erran zaroeten, (bada Gabaontarrak etziren Israelgo semeen etsaiak, bainan Amorhear ondar batzuek, eta Israelgo semeek zin egin izan zaroeten, eta Saulek kharrez, jo nahi izan zituen, Israelgo eta Judako semeen orde bezala.)

3. Dabidek erran zaroeten beraz Gabaontarrei: Zer eginen darotzuet eta zer izanen da zuen bidegabearen medeapena, benedika dezazuentzat Jaunaren primantza?

4. Gabaontarrek ihardetsi zaroeten: Ez dugu bilhatzen ez zilharrik ez urherik, bainan Saul eta haren etxea ditugu bilhatzen, eta ez dugu nahi Israeldik gizon bat izan dadien hila. Erregek erran zaroeten: Zer nahi duzue beraz egin dezazuedan?

5. Haukiek ihardetsi zaroeten erregeri: Bidegabeki lehertuak eta ehoak erabili gaituen gizona xahutu behar dugu, bat bakharra haren odolkorik geldi ez dadien Israelgo mugen barnean,

6. Eman bekizkigu zazpi gizon haren semeetarik, gurutzefika detzogun Jaunari Gabaa Saulenean, lehenago Jaunaren hautatua izatu denarenean. Eta erregek erran zuen: Emanen ditut.

7. Eta erregek guphide izan zuen Miphiboseth, Jonathas, Saulen semearen semea, Dabiden eta Saulen seme Jonathasen artean izatu zen zina gatik Jaunaren izenean.





8. Erregek beraz hartu zituen Armoni eta Miphiboseth, Saulen ganik Erresphak, Ayaren alabak izan zituen bi semeak, eta Saulen alaba Mikolen bortz seme, Berzelai Molathikoaren seme Hadrielen ganik izanak.

9. Eman zituen Gabaontarren eskuetan. Haukiek gurutzefikatu zituzten mendian Jaunaren aitzinean; eta zazpi gizon hunek hil ziren batean uztako lehenbiziko egunetan, garagarrraren uzta hastearekin.

10. Bada, Ayaren alaba Erresphak zurdatz bat harturik harriaren gainean hedatu zuen bere ohetzat, hilabethearen hastetik eta zerutik uria hekien gainera eror zadien arteo; eta etzituen egunaz xoriak utzi hekien zirtzikatzera, ez-etare gabaz ihiziak.

11. Heldua izan zen Dabidi zer egin zuen Erresphak, Ayaren alaba Saulen ohaideak.

12. Eta Dabid goan zen, eta hartu zituen Saulen hezurak eta haren seme Jonathasenak Jabes Galaadeko gizonen ganik, zeinek ebatsi baitzituzten Bethsango karrikatik, non Filistindarrek dilindan ezarri baitzituzten, Saul Jelboen hil izan zutenean.

13. Eta ekharri zituen handik Saulen hezurak eta haren seme Jonathasenak; eta gurutzefikatuen hezurak bildurik,

14. Ehortzi zituzten Saulen eta haren seme Jonathasen hezurrekin Benjamingo lurrean, elkharren aldean, Zis, Saulen aitaren hobian; eta erregek manatu guziak egin zituzten, eta gero Jainkoa berriz lurrari begit-hartez jarri zen.

15. Bada, Filistindarren gudua berritu zen Israelen kontra. Dabid jautsi zen, eta haren zerbitzariak harekin, eta guduka hall ziren Filistindarren kontra. Dabid ahitzen hari zelarik,

16. Jesbibenob, Arapharen odolekoa, zeinaren haizkorako burdinak phisu baitzituen hirur ehun untza, eta zeinak ezpata berria baitzuen gerrian, abiatu zen Dabiden jotzera.

17. Bainan Abisai, Sarbiaren semea, laguntzara ethorri zitzaioen, eta Filistindarra jo eta hil zuen. Orduan Dabiden gizonen zin egin zuten, zio-telarik: Oraidanik etzare gehiago gurekin gerlara ilkhiko, iraungi ez dezazun Israelgo argia.

18. Bi arren gerla bat ere Goben izan zen Filistindarren kontra: orduan Sobokai Husatikoak jo zuen Saph Arapharen errotikakoa, diganteen odoletik.

19. Hirugarren gerla bat izan zen oraino Goben Filistindarrekin, han Saltusen seme Adeodatok, Bethleemtar ehaileak hil baitzuen Goliath Jetharra, zeinaren lantzako zura baitzen ehaileen zeihermena iduri.

20. Laugarren gerla Jethen izan zen. Han izan zen gizon bat tantaia, zeinak sei erhi baitzituen eskuetan eta zangoetan, erran nahi baita, hogoi eta lau erhi, eta zen Arapharen odolekoa.

21. Eta burhokatu zuen Israel; bainan Jonathanek Dabiden anaia Samaaren semeak hil izan zuen.

22. Horiek laurak Arapharen ganik sorthuak ziren Jethen, eta erori ziren Dabiden eta haren zerbitzarien eskuen azpian.

## XXII. KAP.

1. Bada, Dabidek Jaunari kantatu ziozkan kantika huntako hitzak, Jaunak itzuri zuenean bere etsai guzien eskuetarik eta Saulen eskutik.

2. Eta erran zuen: Jauna da enepeko harria, ene indarra, ene salbatazaila.

3. Jainkoa da ene habea, haren baithan izanen da ene igurikitza. Hura da ene geriza, ene itzurpeneko adarra; hura da ene goratzailea, ene iheslekhu: oi ene itzurlea, itzuriko nauzu gaixtaginkeriari.

4. Dei eginen diot Jaun laudagarriari, eta ene etsaietarik izanen naiz maldatua.

5. Ezen herioaren hesturek inguratu naute, harritu naute Belialen uharrek.

6. Ingurakatu naute ifernuko lokharriek, herioaren arteek atzeman naute.

7. Ene atsekabeen dei eginen diot ene Jaunari, deihadar ene Jainkoari; bere tenplotik entzunen du ene mintzoa, eta ene oihua haren beharrira helduko da.

8. Laztu eta ikharatu da lurra; mendiez erroak iharrosi dira eta khor-dokatu, hasarre baitute Jauna.

9. Haren mizpiretarik igan da khea, iretsiko ditu haren ahoko kheak; ikhatzak khaldatu ditu.

10. Ezkaili ditu zeruak eta jautsi da; hedoia zuen oin-pean.

11. Igan da kerubinen gainera eta hegaldatu da; jauzi da haizeen hegalean gainera.

12. Ilhunbeak jarri ditu bere gordegailuaren inguruan, zeruetako hodoietarik urak bahatuz.

13. Haren begitharteko simistak khaldatu ditu suko ikhatzak.

14. Jaunak zerutik arthiki du ihurtzuria, Guziz-Gorak adiarazi du bere mintzoa.

15. Arthiki ditu bere geziak, eta haizatu ditu etsaiak; igorri du simista, eta erre ditu.



16. Eta itsasoaren ondarrak agerian jarri dira, eta biphilean lurraren erroak, Jaunaren dixiduz, haren hasarreko hatsaz.
17. Zeru-goratik hedatu darot eskua, eta bere ganat hartu nau, eta atheratu nau ur-uharren erditik.
18. Itzuri nau ene etsai gaitzari eta hastio nindutenei, ikhusi baitu ni baino hazkarrago zirela.
19. Bere itzalera bildu nau ene atsekabeko egunean; Jauna jarri da ene habe.
20. Zabalera atheratu nau eta libratu, zeren bainintzen haren gogarako.
21. Jaunak emanen darot ene zuzentasunaren arabera; ene eskuen garbitasunaren arabera bihurturen darot.
22. Ezen begiratu ditut Jaunaren bideak, ez naiz gaixtoki ibili ene Jainkoaren kontra.
23. Alabainan haren erabakiak begien aitzinean iduki ditut oro, eta haren manuetarik ez naiz baztertu.
24. Perfet izanen naiz harekin batean, eta begiraturen naiz ene tzar-tasunetik.
25. Eta Jaunak emanen darot ene zuzentasunaren arabera, bihurtu- ren darot ene eskuen garbitasunaren arabera haren begien aitzinean.
26. Saindu izanen zare sainduarekin, eta perfet perfetarekin.
27. Xahu izanen zare xahuarekin, eta tzarrarekin tzartuko zare.
28. Goratuko ditutzu apha! gaixoak, zure begiak apha!duko ditu gora direnak.
29. Zeren zu baitzare, oi Jauna, ene argia; eta zuk, Jauna, argituko ditutzu ene ilhunpeak.
30. Zure indarraz jauntzirik laster eginen dut, ene Jainkoaz lagundu- rik jauziko ditut harrasiak.
31. Xahu dira Jainkoaren bideak, Jaunaren hitza suaz garbitua bezala da; hura da haren baithan beren igurikitza dadukaten guzien erredola.
32. Nor da Jainko ezenez Jauna? nor da hazkar ezenez gure Jainkoa?
33. Hura da indarrez jauntzi nauen Jainkoa, enetzat zelhaitu duena bide perfet bat;
34. Ene oinak zalhutu dituena orenen bardin, lekhu goretan jarri nauena;
35. Ene eskuei gudukatzen irakhatsi diotena, ene besoak kobrezko arranbela iduri orhatu dituena.
36. Jauna, gerizatu nauzu zure erredola salbagarriaz, zure ontasunak hedatu nau urrunera.

37. Ene oinen azpian urhatsa luzatu duzu, eta ene oinek ez dute amor eginen.
38. Ondotik goanen natzaiote ene etsaiei, herrautsiren ditut, eta ez naiz bihurturen xahutu ditudan arteo.
39. Xahutuko ditut eta phorroskatuko, jaik ahal ez ditezen; ene oin- pera eroriko dira.
40. Indarrez jauntzi nauzu guduko, ene azpira makhurtu ditutzu niri bihurtzen zarozkitanak.
41. Ihes igorri ditutzu ene etsaiak, higuin nautenak, eta herrautsiko ditut.
42. Helka hariko dira, eta nihor etzaiote helduko; deihadar eginen diote Jaunari, eta Jaunak ez ditu entzunen.
43. Lurreko herrautsa bezala eginen ditut, karriketako lohia bezala oinkaturen ditut, eta zathikatuko ditut.
44. Begiratuko nauzu ene populuaganikako makhurretarik; jendaien buruzagitzat zainduko nauzu; ezagutzen ez dudana populu bat hariko da ene zerbitzatzen.
45. Arrotzaren semeek bihurri eginen darotate; bainan mintzaturen natzaiote, adituko dute ene hitza eta ene nahira eroriko dira.
46. Arrotzaren semeak goan dira ura bezala, hestutuak dira beren hesturetan.
47. Bizi bedi Jauna, benedika bedi ene Jainkoa; goretsia izanen da Jainko hazkarra, ene begiralea.
48. Zuk, Jainkoa, aspertzen nauzu, zuk arthikitzen ditutzu populuak ene azpira.
49. Zuk itzurtzen nauzu ene etsaiei, zuk altxatzen nauzu ene jazarlez gorago, zuk ilkhiko nauzu gizon gaixtoaren aztaparretik.
50. Hargatik aithor emanen darotzut jendaietan, eta kantaturen dut zure izenaren ospatzeko;
51. Erranen dut zer sendagailaz itzuri duzun errege, zer urrikalpena izan duzun Dabid zure kristoz eta haren ondoregoaz bethi eta bethiraino.

### XXIII. KAP.

1. Haukiek dira, berriz, Dabiden azken hitzak. Erran du Dabidek, Isairen semeak, erran du gizonak, Jakobon Jainkoaren kristo ezarria izatu denak, Israelgo maniurrari handiak:
2. Jaunaren izpiritua ene ahoz mintzatu da, haren hitzak ene mihian izatu dira.



3. Israelgo Jainkoa mintzatu zait, Israelgo hazkarrak erran darot: Zuzentasunean eta Jainkoaren beldurrean erregina bedi gizonen gainean erreginatzen dena.

4. Iduri argi-begia, iguzkia jaikitzen denean, goizean lanhorik gabe dirdiratzten du, uritean lurretik sortzen den belharra du iduri.

5. Ene etxea Jainkoa baithan etzen hanbatekoa, Jaunak enekin egin zezantzat patu bat bethierekoa, guzien artean sendoa eta ezin khordokatu. Ezen hura izan da ene geriza guzia, eta ene nahia; eta nahikunderik ez dut izan, burutu ez dudarik.

6. Baina lege hausleak iraziko dira eskuz khentzen ez diren elhoriak bezala.

7. Eta norbaitek hekiek ukitu nahi baditu, eskura har betza burdin-haiotza eta zurezko makoa, eta sutan ezarririk laharrek erreak izanen dira ezdeustu arteo.

8. Huna Dabiden hazkarren izenak. Alkhian jartzen zena, hiruren arteko buruzagi guziz zuhurra, zureko biphi guziena iduri zuelarik, zortzi ehun gizon hil zituen oldar-aldi batez.

9. Haren ondotik, haren aitaldeko osabaren semea, Eleazar Ahoharra, Filistindarrek eskarnio egin zutenean, eta gudukatzeko bildu zirenean Dabidekin ziren hirur hazkarren erdikoa.

10. Eta Israelgo gizonei nausitu zirenean, bera gelditu zen eta Filistindarrak jo zituen, eskua ethendu arteo, ezpataren gainean gogortu zitzaioen arteo; eta Jaunak itzurpen handia egin zuen egun hartan; eta populu ihes goan zena, bihurtu zen hilei buluzkinen khentzera.

11. Haren ondotik heldu zen Sema, Ayeren semea, Ararikoa. Filistindarrak bildu ziren kanpetara: bazen han landa bat dilistaz bethea; eta populuak Filistindarren aitzinetik ihes egin zuenean,

12. Hura gelditu zen landaren erdian, zaindu zuen eta jo zituen Filistindarrak; eta Jaunak itzurpen handia egin zuen.

13. Bertze behin lehenago jautsi ziren hirurak, hogoi eta hamarren artean lehenbiziko zirenak, eta uztaroan Dabiden gana ethorri ziren Odolamgo zilhora, eta Filistindarrak ziren kanpatuak Diganteen haranean.

14. Dabid gazteluan zen; eta orduan Filistindarren kanpak Bethlehemen ziren.

15. Dabidek gutizia bat izatu zuen, eta erran zuen: Oi norbaitek eman balezat Bethlehemgo athearen aldean den urtegiiko uretik edatera!

16. Hirur hazkarrak jauzi ziren beraz Filistindarren kanpetara, atheratu zuten ura Bethlehemgo urtegitik, athearen aldean zenetik, eta Dabidi

ekharri zioten; hunek ordean etzuen nahi izan edan, baina Jaunari ixuri zaroen,

17. Zioelarik: Jaunak begira beneza horren egitetik! edan behar othe nuke goan diren gizon horien odola eta biziaren mentura? Etzuen beraz edan nahi izatu. Hori egin zuten hirur guziz hazkarrek.

18. Eta Abisai, Sarbiaren seme Joaben anaia, zen hiruren buruzagi. Harek altxatu zuen bere lantza hirur ehun gizonen kontra eta hil zituen. Aiphu handitan zen hiruren artean,

19. Deithatuena hiruren artean, eta hekien buruzagia, baina hirur lehenbiziko hekien bardinera etzen heldu izan.

20. Banaia Kapseelgoak, gizon guziz hazkar Joiadaren semeak, egin-tza handiak atheratu zituen: berak hil zituen Moabeko bi lehoinak; eta elhurte batez, urtegi baten erdira jautsirik, lehoi bat hil izan zuen.

21. Harek berak hil zuen egiptoar gizon bat, ikhustekoa zena eta lantza eskuan zadukana. Egiptoarrari goanik zigor bat eskuan, lantza bortxaz khendu zioen, eta bere lantzaz hil izan zuen.

22. Horiek egin zituen Banaiasek, Joiadaren semeak.

23. Eta aiphatua zen hogoi eta hamarren arteko hirur hazkar deithatuenetan: halere etzen heldu lehenbiziko hiruretara, Dabidek hartu zuen bere kontseilari ixiltzat.

24. Hogoi eta hamarretan ziren Asael, Joaben anaia; haren aitaldeko osabaren semea, Elehanam Bethlehemgoa;

25. Sema Harodikoa, Elika Harodikoa,

26. Heles Phaltikoa, Hira, Akzesen seme Thekuarra;

27. Abiezer Anathothekoa, Mobonai Husatikoa,

28. Selmon Ahoharra, Maharai Netophatharra,

29. Heled, Baanaren semea, hura ere Nethophatharra; Ithai, Erribaien semea, Benjaminen semeen Gabaathekoa;

30. Banaia Pharathonarra, Hedai Gaasko errekaokoa,

31. Abialbon Arbatharra, Beromiko Azmabeth,

32. Salaboniko Eliaba, Jonathan, Jasenen semea;

33. Sema Ororikoa, Ayam Arortarra, Sararren semea;

34. Elipheleth, Aasbai Makatiarren semea; Eliam Jeloarra, Akitophelen semea;

35. Hefrai Karmelekoa, Pharai Arbikoa,

36. Igaal Sobakoa, Nathanen semea; Boni Gadikoa,

37. Selek Amonikoa, Naharai Berotharra, Sarbiaren seme Joaben ezkutaria;

38. Ira Jethritarra, Gareb, hura ere Jethritarra;



39. Urias Hethearra; orotara hogoi eta hamazazpi.

#### XXIV: KAP.

1. Eta berriz biztu izan zen Jaunaren hasarrea Israelen kontra, zeren Dabid ekharria izan zen erratera: Zoazte eta athera zazue zenbat populu den Israelen eta Judan.

2. Eta erregek erran zioen Joabi, bere armadako buruzagiari: Iragan zaite Israelgo leinu guzietan Danetik Bersabeeraino eta populua khonda zazue, jakin dezadan zenbat den.

3. Joabek ihardetsi zioen erregeri: Zure Jainko Jaunak berha dezala zure populua orai den bezenbatez, eta oraino berriz ehunetan gehiago ene jaun erregearen aitzinean; baina ene jaun erregeak zer nahi du hola-ko gauzatik?

4. Bada erregeren solasak gaina eraman zioten Joaben eta armadako aitzindarien hitzei; eta Joab eta armadako aitzindariak erregeren aitzinetik atheratu ziren Israelgo populuaren khondatzera.

5. Eta Jordanea iragan zutenean, ethorri ziren Aroerrera, hiriaren eskuineko aldera, hiri hura baita Gaden haranean.

6. Jazerren gaindi iragan ziren Galaadera eta Hodfiko lur beherera, eta ethorri ziren Daneko oihanetara. Ingurua egiten zutelarik Sidongo ondolik,

7. Iragan ziren Tirreko harrasiaren aldean, Hebearren eta Kanearren lur uzian, eta ethorri ziren hegoaldera Bersabee Judakora.

8. Eta lur guzia iragan ondoan, Jerusalemera ethorri ziren bederatzita hilabete eta hogoi egunen buruan.

9. Joabek erregeri eman zioen beraz populuko nonbrearen khondua, eta khausitu ziren Israeldik, zortzi ehun mila gizon, ezpata zerabilkatenak; eta Judatik, bortz ehun mila gudulari.

10. Bada, bihotzak egin zioen Dabidi, populua khondatua izan zen ondoan, eta Dabidek erran zioen Jaunari: Bekhatu handia egin dut hortan; baina othoi, Jauna, barkha zazu zure zerbitzariaren gaizkia, zeren zorokeria handiz egin izan baitut.

11. Eta Dabid jaiki zen goizean, eta Jaunak bere hitza entzunarazi zioen Gad profetari, Dabiden ikhuseari, zioelarik:

12. Zoaz eta errozu Dabidi: Hau dio Jaunak: Hirur izurritarik hauta emana zaitzu; hekiarik bat, nahi duzuna hauta zazu, igor dezazudan.

13. Dabiden gana ethorriarik, Gad huneletan mintzatu zitzaioen: Edo zazpi urthez gosetea ethorriko zaitzu zure lurrera; edo hirur hilabetez ihes ibiliko zare zure etsaien aitzinean, eta hekiek ondolik izanen ditutzu;

edo izurritea hirur egunez izanen da zure lurrean. Orain beraz zure gogotak egizkitzu eta ikhuzazu zer ihardetsiko diodan bidali nauenari.

14. Eta Dabidek Gadi erran zioen Hesturetan naiz; baina hobereana da eror nadien Jaunaren eskuetara (ezen urrikalpen handiak dira haren baithan), gizonen eskuetara baino.

15. Eta Jaunak izurritea Israelera igorri zuen goizetik ephe berezi guziko, eta populutik hil ziren, Danetik Bersabeeraino, hirur hogoi eta hamar mila gizon.

16. Eta Jaunaren aingeruak bere eskua Jerusalemen gainera hedatu zutenean haren xahutzeko, Jauna urrikaldu zitzaioen hango atsekabeari, eta populua jotzen zuen aingeruari erran zioen: Askia da; idukazu orai zure eskua. Bada Jaunaren aingerua Areuna Jebusearraren larraineko ondoan zen.

17. Eta Dabidek ikhusi zuenean aingerua populuaren jotzen, erran zioen Jaunari: Ni naiz bekhatu-egilea, nik egin dut gaizki; haukiek ardi batzu dira, zer egin dute? itzul bedi, othoi, zure eskua ene kontra, eta ene aitaren etxearen kontra.

18. Bada, Gad egun hartan ethorri zen Dabiden gana eta erran zioen: Igan zaite eta aldare bat Jaunari egiozu Areuna Jebusearraren larrainean.

19. Eta Dabid igan zen, Jaunak Gadi manatu hitzaren arabera.

20. Areunak begiraturik, ikhusi zituen errege eta haren zerbitzariak heldu zitzaizkoela.

21. Eta ilkhirik, begithartez lurrera agur egin zioen erregeri, eta erran zuen: Nolaz heldu da ene jaun erregea bere zerbitzaria gana? Dabidek ihardetsi zioen: Heldu naiz zure larrainaren eroatera eta Jaunari aldare baten egitera, geldi dadiantzat populuaren dabilan heriotzeketa.

22. Areunak erran zioen Dabidi: Har beza ene jaun erregeak, eta atsegin duen bezala eskeint beza: horra idiak holokaustako, orgak eta iduztarriak egurtzat.

23. Errege Areunak guziak eman ziozkan erregeri eta Areunak erregeri erran zioen: Zure Jainko Jaunak onhets beza zure botua.

24. Erregek ihardetsi zioen: Ez zuk nahi duzun bezala, baina dirutan erosiko darozkitzut, eta ez diot ene Jainko Jaunari holokausta urrurik eskainiko. Dabidek erosi zituen beraz larraina eta idiak berrogoi eta hamar siklo zilharrezkotan.

25. Dabidek aldare bat han altxatu zioen Jaunari, eta eskaini ziozkan holokaustak eta bakezko bitimak. Jauna lurrari begithartez jarri zen, eta izurria geldiarazi zuen Israeldik.



## ERREGĒAK

### III. LIBURUA

#### I. KAP.

1. Errege Dabid zahartu zen eta adin handitan zen; eta soinekoz estal zezaten arren, ezin bero zaitekeen.
2. Bere zerbitzariak erran zaroeten beraz: Gure errege jaunari bilhatuko diogu neskak gazte dontzella bat erregeren aitzinean egoteko, haren berotzeko, eta haren sahetsean lo eginez gure jaun erregearen berotzeko.
3. Israelgo eremu guzietan bilhatu zuten beraz neskak gazte eder bat; khausitu zuten Abisag Sunamtarra, eta erregeren gana ekharri zuten.
4. Bada, neskak hainitz ederra zen, erregerekin lo egiten zuen eta zerbitzatzen zuen. Bainan erregek etzuen ezagutu.
5. Bada; Adonias, Hagithen semea, altxatzen zen, zioelarik: Ni erregeinatuko naiz. Eta hartu zituen orga-lasterra, zaldizkoak eta berrogoi eta hamar lasterkari bere aitzinean ibiltzeko.
6. Aitak etzaroen behinere jazarri, erranez: Zertako egiten duzu hori? Absalomen ondotik sortzez bigarrena zen, eta hura ere hainitz zen ederra.
7. Hitzetan zen Sarbiaren seme Joabekin eta Abiathar aphezarekin, zeinak Adoniasen alderdia laguntzen baitzuten.
8. Bainan Sadok apheza, Banaias, Joiadaren semea, Nathan profeta, Semei, Errei eta Dabiden armadako indarra etziren Adoniasekin.
9. Bada, Adoniasek imolaturik ahariak, aratxeak eta bitima gizen guziak Zohelheko harriaren ondoan, zeina baitzen Erroiengo ithurriaren aldean, deithu zituen bere anaia guziak erregeren semeak, eta Judako gizon guziak erregeren zerbitzukoak.
10. Etzitzen ordean deithu Nathan profeta, Banaias, hazkar guziak eta Salomon bere anaia.
11. Hargatik Nathanek erran zaroen Bethsabee Salomonen amari: Aditu duzu Adonias, Hagithen semea errege dela? eta Dabidek gure jaunak ez daki.
12. Orain beraz zato, begira zaite ene erranari, eta itzur zatzu zure bizia eta zure seme Salomonena.
13. Zoaz eta alfer zaite errege Dabiden aitzinera eta errozu: Errege ene jauna, ez darotazu zin egin niri zure neskatoari, ziniolarik: Salomon

zure semea erregeinatuko da ene ondotik eta hura jarriko da ene tronuan? Zergatik beraz erregeinatzen da Adonias?

14. Eta han zu erregeri mintzo zarelarik oraino, ethorriko naiz ni zure ondotik, eta osatuko dut zure solasa.
15. Beraz Bethsabee erregeren gana gelara sarthu zen. Bada errege hainitz zahartua zen eta Abisag Sunamtarrak zerbitzatzen zuen.
16. Bethsabee gurthu zen eta adoratu zuen errege. Erregek erran zaroen: Zer nahi duzu?
17. Bethsabee ihardetsi zaroen: Zure Jainko Jaunaz zin egin diozu zure neskatoari: Salomon zure semea erregeinatuko da ene ondotik, eta hura jarriko da ene tronuan.
18. Eta huna non orain Adonias erregeinatzen den, zuk, ene errege jauna, ez dakizularik.
19. Hil ditu idiak, eta bitima gizen guziak, eta asko ahari, eta deithu ditu erregeren seme guziak, Ahiathar apheza ere eta Joab armadako aitzindaria. Bainan Salomon zure zerbitzaria ez du deithu.
20. Bizkitartean, ene errege jauna, Israel guziaren begiak zure gainean daude, erakhuts diozozuten zure ondotik zure tronuan jarri behar dena, ene errege jauna.
21. Eta gerthatuko da, ene errege jauna loharkatuko denean bere aitekin, ni eta ene seme Salomon hobendun izanen gara.
22. Bethsabee erregerekin mintzo zelarik oraino, ethorri zen Nathan profeta.
23. Eta erregeri erran zioten: Hemen da Nathan profeta. Eta erregeren aitzinera sarthu zenean, eta lurrera gurthuz adoratu zuenean,
24. Nathanek erran zuen: Ene errege jauna, zuk erran duzu: Adonias erregina bedi ene ondotik, eta hura jar bedi ene tronua gainean?
25. Ezik jautsi da egun, imolatu ditu idiak, bitima gizenak eta asko ahari, eta deithu ditu erregeren seme guziak, armadako aitzindariak, eta Abiathar apheza ere; eta jaten eta edaten dutelarik haren aitzinean, erran dute: Bizi bedi gure errege Adonias!
26. Ez gaitu deithu ni, zure zerbitzaria, ez Sadok apheza, ez Banaias Joiadaren semea, ez-eta Salomon, zure zerbitzaria.
27. Ene errege jauna ganik atheratu othe da gauza hori, eta ez darotazu erran niri, zure zerbitzariari, nor zen tronua gainean jarri beharra ene errege jaunaren ondotik?
28. Huneletan ihardetsi zuen Dabid erregeak: Ene gana deith zazue Bethsabee. Erregeren aitzinera sarthu zenean Bethsabee, eta haren aitzinean xutik gelditu,



29. Erregek zin egin zuen eta erran: Ala Jauna, ene bizia hestura orotarik atheratu duena!

30. Nola Israelgo Jainko Jaunaz zin egin izan baitarotzut, niolarik: Salomon zure semea erreginatuko da ene ondotik, eta hura jarriko da ene orde ene tronua gainean, hala eginen dut egun.

31. Eta Bethsabeek, begithartea lurrera gurthurik, adoratu zuen errege, zioelarik: Dabid ene jauna bizi bedi bethi guziraio!

32. Dabid erregeak erran zuen berriz: Ene gana deith zatzue Sadok apheza, Nathan profeta eta Banaias Joiadaren semea. Haukiek erregeren aitzinera sarthu zirenean,

33. Erran zaroeten erregek: Zuekin har zatzue zuen nausiaren zerbitzariak, Salomon ene semea ezar zazue ene mandoaren gainean, eta eramazue Jihonera.

34. Han Sadok aphezak eta Nathan profetak erregetzat gantzu bezate Israelen gaineko; eta joko duzue turuta, eta erranen duzue: Bizi bedi Salomon erregea

35. Eta iganen zarete haren ondotik; jarriko da ene tronua gainean, ene orde erreginatuko da, eta manatuko diot buruzagi izan dadien Israelen eta Judaren gainean.

36. Banaias Joiadaren semeak erregeri ihardetsi zaroen, zioelarik: Halabiz; orobat mintza bedi ene jaun erregearen Jainko Jauna.

37. Ene jaun erregearekin izan den bezala, Salomonekin orobat izan bedi Jauna, eta hunen tronua gorago altxa beza oraino ezen-eta Dabid ene jaun erregearen tronua.

38. Jautsi ziren beraz Sadok apheza, Nathan profeta, Banaias Joiadaren semea, Zeretharrak eta Pheletharrak; Salomon ezarri zuten errege Dabiden mandoaren gainean, eta Jihonera eraman zuten.

39. Sadok aphezak tabernakletik hartu zuen olioko adarra, eta gantzu zuen Salomon. Eta turuta jo zuten, eta populu guziak oihu egin zuen: Bizi bedi errege Salomon!

40. Eta haren ondotik igan ziren oste guzia eta turuta-joile multzu bat; eta bozkario handiz bozten ziren guziak, eta lurak ihardesten zituen hekien oihuak.

41. Bada, Adoniasek eta harek deithuak izan ziren guziak aditu zituzten otsak, barazkaria akhabatu orduko. Turutaren durrundak entzunik, Joabek erran zuen: Zer erran nahi dute hiriko oihu eta harramantz horiek?

42. Oraino mintzo zelarik, ethorri zen Jonathas, Abiathar aphezaren semea, eta erran zaroen Adoniasek: Sar zaitte, ezen gizon bihozdun bat eta berri onak ekhartzen ditutzuna zare.

43. Adonias ihardetsi zaroen Jonathasek: Ez, errege Dabid gure jaunak ezen Salomon ezarri du errege.

44. Harekin igorri ditu Sadok apheza, Nathan profeta, Banaias Joiadaren semea, Zeretharrak eta Pheletharrak, eta ezarri dute Salomon erregeren mandoaren gainean.

45. Eta Sadok aphezak eta Nathan profetak erregetzat gantzutu dute Jihonen. Gero handik igan dira bozkariatuz, eta hirian ez da bertze harramantzik: hori da zuek aditu duzuen otsa.

46. Eta gehiago dena, Salomon erregeren tronuan jarria da.

47. Erregeren zerbitzariak sarthu dira eta benedikatu dute errege Dabid gure jauna, diotelarik: Jainkoak handiaraz beza Salomonen izena zure izenetik gorago, handiets beza hunen tronua zure tronua gainetik. Errege adoran egotu da bere ohean,

48. Eta erran du: Benedikatu Israelgo Jainko Jauna, eman darotana ene begiz ikhustea ene semea ene tronuan egun jarria.

49. Adoniasek deithuak izanak ziren guziak ikharatu ziren beraz, jaiki ziren eta goan zein bere alde.

50. Adonias, berriz, Salomonen beldurrez, jaiki zen, eta goan zen, eta lothu zen aldareko adarrari.

51. Berria Salomoni ekharri zaroeten, ziotelarik: Huna Adonias errege Salomonen beldurrez, aldareko adarrari lothu dela, diotelarik: Errege Salomonek egun zin egin bezat ez duela ezpataz hilen bere zerbitzaria.

52. Eta Salomonek erran zuen: Gizon prestu izatu bada, ez da haren ile bakhar bat lurrera eroriko; bertzela ordean tzarkeria atzemana bada haren baithan, hilen da.

53. Errege Salomonek igorri zituen beraz gizonak eta erakharrarazi zuen aldaretik; Adonias sarthu zen eta adoratu zuen errege Salomon. Eta Salomonek erran zaroen: Zoaz zure etxera.

## II. KAP.

1. Bada hurbildu ziren Dabiden hiltzeko egunak, eta hunela mintzatu eman ziozkien bere manamenduak bere seme Salomoni:

2. Sartzen naiz lur guziaren bidean; egizu hazkarretik eta gizon izan zaitezi

3. Begira zatzu zure Jainko Jaunaren manamenduak, ibil zaitezentzat haren bideetan eta zain ditzatzun haren zeremoniak, manamenduak, era-



bakiak eta lekhukotasunak, Moisen legean iskribatuak diren bezala, jakin dezazun zer hari zaren eta norat hari zaren.

4. Jaunak bethe dezan niri eman izan darodan hitza, zioelarik: Baldin zure semeek idukitzen badituzte beren bideak, eta zintasunean ibiltzen badira ene aitzinean, beren bihotz guziz eta arima guziz, zure odoleko gizonak ez darotzu huts eginen Israelgo tronuan.

5. Zuk ere badakizu zer egin darodan Joabek, Sarbiaren semeak, zer egin daroeten Israelgo armadako bi buruzagiei, Abner Nerren semeari, eta Amasa Jetherren semeari, zeinak hil baititu; bakean gerlako odola ixuri du, eta hartaz busti ditu gerrian zuen uhala eta zangoetan zituen oinetakoak.

6. Eginen duzu beraz zure zuhurtasunaren arabera, eta ez duzu bakean utziko bere zahartzearen akhabatzera.

7. Bainan esker idukiko diozute Berzelai Galaatarraren semeei, eta zure mahainean janen dute: ezen bidera ethorri zaizkit zure anaia Absalomen aitzinean ihes nindabilanean.

8. Orobat zurekin duzu Semei, Jeraren semea, Bahuringo Jeminitarra, zeinak madarizione tzarrenaz madarikatu bainau, kanpetara nindohalarik; bainan ene bidera jautsi zelakotz, iragan nuenean Jordanea, Jaunaz zin egin nioen, erraten nuelarik: Etzaitut ezpataz hilen.

9. Zuk ez bezazu jasan hobenik ez balu bezala. Bada gizon zuhurra zare jakiteko zer egin behar diozun, eta horren buru zuritua odolarekin jautsaraziko duzu hobira.

10. Dabid lohartu zen beraz bere arbasoekin, eta ehortzia izan zen Dabiden hirian.

11. Berrogoi urthe dira Dabid Israelen gainean erreginatu zen egunak: Hebronen erreginatu zen zazpi urthez; Jerusademen, hogoi eta hamahirurez.

12. Arren Salomon bere aita Dabiden tronuan jarri zen, eta haren erreinua gohortu zen hazkarki.

13. Adonias Hagithen semea ethorri zen Salomonen ama Bethsabee baithara. Bethsabeek erran zaroen: Bakezko asmuekin heldu zare? Ihardetsi zuen: Bai, baketiarki.

14. Eta erran zuen bertzalde: Solas bat dut zurekin. Bethsabeek ihardetsi zaroen: Mintza zaite. Eta Adoniasek

15. Erran zuen: Badakizu erreinua enea zela, eta Israel guziak bore erregetzat ekharri ninduela: bainan aldatua izan da erreinua eta ene anaia-rena egina; ezen Jaunak haren eskuetan ezarri du.

16. Orai beraz galde bakhar batez egiten darotzut othoitz; ez biazadazu begithartea ahalka. Bethsabeek erran zaroen: Mintza zaite.

17. Eta Adoniasek erran zuen: Othoi mintza zakizko errege Salomoni (ezik deusere ezin ukha diazakezu) eman dezadan Abifag Sunamtarra emaztetzat.

18. Bethlabeek ihardetsi zaroen. Ongi, erregeri zuretzat mintzatuko natzaio.

19. Bethsabee ethorri zen beraz errege Salomonen gana, Adoniasentzat hari mintzatzeko. Errege xutitu zen haren bidera, adoratatu zuen eta jarri zen bere tronuan: erregeren amarentzat ekharri zuten bertze tronu bat, eta jarri zen erregeren eskuinean.

20. Eta erran zaroen Salomoni: Galde ttipitto batez dut zuri othoitz egiteko, ez bezazu ahalka ene begithartea. Erregek ihardetsi zaroen: Ene ama, galda zazu; ezen ez da zuzen begithartea bazterrerat emanaraz dezazudan.

21. Bethsabeek erran zuen: Abifag Sunamtarra zure anaiari emaztetzat eman bekio.

22. Errege Salomonek ihardetsi zuen, eta erran zaroen bere amari: Zertako galdatzen duzu Abifag Sunamtarra Adoniasentzat? erreinua ere galda zazu harentzat; ezen ene anaia da ni baino zaharragoa, eta eskuan ditu Abiathar apheza eta Joab Sarbiaren semea.

23. Hargatik errege Salomonek Jaunaz zin egin zuen, zioelarik: Hau egin biizat Jainkoak eta hura gainetik, baldin Adoniasek hitz hori ez badu bere biziaren kontra atheratu.

24. Eta orai, ala Jauna, khoroa seguratu darotana, eta ene aita Dabiden tronuan ezarri nauena, eta ene etxea egin duena berak erran bezala, egun hila izanen dela Adonias.

25. Eta errege Salomonek igorri zuen Banaias, Joiadaren semea, zeinak sarraskitu baitzuen Adonias, eta hau hil izan zen.

26. Abiathar aphezari ere erran zaroen erregek: Zoaz Anathothera zure lurretara; herioaren gizona zare segur, bainan egun etzaitut hilen, zeren duzun Jainko Jaunaren arkha erabili ene aita Dabiden aitzinean, eta zeren nekhea jasan duzun ene aitak erabili dituen guzietan.

27. Salomonek hastandu zuen beraz Abiathar, etzedin izan Jaunaren aphez, eta bethe zedintzat Jaunak Silon Heliren etxearen gainean erran zuen hitza.

28. Bada, berria ethorri zitzaioen Joabi, zeina Adoniasen alderat itzuli baitzen, etez Salomonenerat. Joabek ihesegin zuen beraz Jaunaren tabernaklera eta lothu zen aldareko adarrari.



29. Errege Salomon jakintsun egina izan zen nola Joabek ihes egin izan zuen Jaunaren tabernaklera, eta aldarearen ondoan zela. Salomonek igorri zuen beraz Banaias, Joiadaren semea, erranik: Zoaz, eta hil zazu.

30. Banaias goan zen Jaunaren tabernaklera, eta Joabi erran zaroen: hau dio erregek: Ilkhi hadi. Eta hunek ihardetsi zuen: Ez naiz ilkhiko; bainan hemen hilen naiz. Banaiasek erregeri ekharri zaroen solas hori, zioelarik: Hau erran du Joab eta hau ihardetsi darot.

31. Erregek erran zaroen: Egizu erran duen bezala, hil eta ehortz zazu, eta khenduko duzu ene ganik eta ene aitaren etxearen gainetik Joabek ixuri duen odolohengabea.

32. Eta Jaunak haren odola haren buruaren gainera bihurtuko du, zeren hil dituen bi gizon zuzen, bera baino prestuagoak, eta ezpataz sarraskitu, ene aita Dabiden jakingabea, Abner Noeren semea, Israelgo armadako buruzagia, eta Amasa Jetherren semea, Judako armadako buruzagia.

33. Eta hekien odola itzuliko da Joaben buruaren gainera eta haren ondoregoaren gainera menderen mende. Aldiz, Dabidi eta haren ondoregoari, eta etxeari, eta tronuari Jauna ganik bakea izan bekiote bethi guziraio.

34. Banaias, Joiadaren semea, igan zen beraz, eta Joabi oldar eginik, hil izan zuen; eta ehortzi zuen bere etxean mortuan.

35. Erregek ezarri zuen Banaias, Joiadaren semea, armadaren buruan Joaben orde, eta Sadok Abiatharren orde jarri zuen aphez.

36. Erregek halaber igorri zuen Semeiren deitzera, eta erran zaroen: Etxe bat egizu zuretzat Jerusalem, zaude hartan eta ez handik ilkhi harat eta hunat.

37. Bainan egun batez atheratzen bazare, eta Zedrongo erreka iragaiten baduzu, jakizu egun hartan hila izanen zarela; zure odola zure buruaren gain izanen da.

38. Semeik erran zaroen erregeri: Solasa ona da; nola mintzatu baita ene errege jauna, hala eginen du zure zerbitzariak. Hargatik Semei Jerusalemen egotu izan zen asko egunez.

39. Bainan gerthatu zen hirur urtheren buruan, Semeiren gathibuek ihesegin zutela Jetheko errege Akis Maakaren semea gana; eta berria ekharria izan zitzaioen Semeiri Jethera goan zirela haren gathihuak.

40. Semei jaiki zen, harbalda ezarri zaroen bere astoari, jo zuen Jethera Akisen gana bere gathihuen gibelerat galdatzera eta hekiek erakharri zituen Jethetik.

41. Bada, Salomon jakintsun egina izan zen Semei Jerusalemetik Jethen izatu zela eta itzulia zela.

42. Eta igorriarik haren bilha erran zaroen: Ez othe darotzut Jaunaz zin egin eta aitzinetik erran: Egun batez ilkhirik, ibiltzen bazare hor edo hemen, jakizu hilen zarela? Eta ihardetsi darotazu: Ona da entzun dudan solasa.

43. Zertako beraz begiratu ez ditutzu Jaunaren zina eta nik zuri eman manamendua?

44. Eta erregek Semeiri erran zaroen: Badakizu gaizki guzia, zeintaz zure bihotzak lekukotasun egiten baitarotzu eta ene aita Dabidi egin diozuna; Jaunak zure tzarkeria bihurrarazi du zure buruaren gainera.

45. Eta errege Salomon izanen da benedikatua, eta Dabiden tronua sendo bethi guziraino Jaunaren aitzinean.

46. Hargatik erregek manatu zuen Banaias, Joiadaren semea; zeinak ilkhirik, jo baitzuen Semei; eta hil izan zen.

### III. KAP.

1. Erreinua gogortu zen beraz Salomonen eskuetan, eta odoleko lokharriz batu zen Egiptoko errege Faraonekin; ezik haren alaba emaztetzat hartu eta Dabiden hirira erakharri zuen, akhaba zetzan arteo bere etxea eta Jaunaren etxea eta Jerusalemen inguruko harrasia.

2. Bizkitartean populuak lekhu goretan imolatzen zituen bitimak, zeren ez baitzitzaioen ordu arteo tenplorik altxatu Jaunaren izenari.

3. Bada, Salomonek maithatu zuen Jauna, eta bere aita Dabiden manuen arabera zerabilan, lekhat imolatzen zuela lekhu goretan, eta han baltsamuak erretzen zituela.

4. Hargatik Gabaonera goan zen, han imolatzekotzat; hura zen ezik lekhu goretan aiphatuena. Salomonek Gabaonen mila bitima aldare gainean eskaini zituen holokaustetan.

5. Bada Jauna Salomoni agertu zitzaioen gabaz ametsetan, erraten zioelarik: Galda zazu nik ematea nahi dukezuna.

6. Eta Salomonek ihardetsi zuen: Urrikalpen handia hartu diozu zure zerbitzari Dabid ene aitari, ibili den bezala zintasunean eta zuzenean eta zure alderako bihotz leialen; iduki diozu zure urrikalpen handia, eta seme bat eman diozu haren tronuan jarria dena, egun den bezala.

7. Eta orai, Jainko Jauna, erreginarazi duzu zure zerbitzaria ene aita Dabiden orde; ni, berriz, haur gazte bat naiz, ene sar-ilkhiak ezagutzen ez ditudana.





8. Eta zure zerbitzaria zuk hautatu duzun populua erdian da, populu nihonerekoa, khonda eta zenbat den har ez ditakeena, ostearen handia gatik.

9. Zure zerbitzariari emanen diozu beraz bihotz bat ethorkorra, juia ahal dezantzat zure populua eta berez ongia gaizkitik; ezen nork juiatuko ahal du populu hori, zure populu horrenbat handia?

10. Solas hori gogaragari izan zen Jaunaren aitzinean, Salomonek galdatu zuelakotz horrelako gauza.

11. Eta Jaunak Salomoni erran zaroen: Zeren gauza hori galdatu duzun, eta ez dituzulakotz galdatu ez egun luzeak, ez aberastasunak, edo zure etsaien biziak, baina galdatu baituzu zuhurtzia zuzenaren berezteko;

12. Huna non egin darotzudan zure galdegitzaren arabera, eta eman darotzut bihotz bat zuhurra eta argitua, hanbatetaraino non, aitzinean zure idurikorik izan ez baita, eta zure ondotik ere jaikiko ez baita.

13. Baina bertzalde eman darozkitzut galdatu ez dituzun hekiek, erran nahi da aberastasunak eta ospea, halai non ez baita lehenagoko egun orotan erregeetan nihor izatu denik zure iduriko.

14. Bada, ibiltzen bazare ene bideetan eta zaintzen badituztu ene manu eta manamenduak, zure aitak egin dituen bezala, bizitze luze bat emanen darotzut.

15. Beraz Salomon atzarri zen eta ezagutu zuen ametsetan zela; eta Jerusalemera ethorri zenean, eman zen Jaunaren batasuneko arkharren aitzinean, eskaini zituen holokaustak eta bakezko bitimak, eta barazkari handi bat eman zaroeten bere zerbitzariari.

16. Orduan bi emazteki lilitxo ethorri ziren erregeren gana, eta xutik jarri ziren haren aitzinean.

17. Hekietarik batek erran zuen: Othoizka narotzu, jauna, ni eta emazteki hau ginauden etxe berean, eta erdi izan naiz hunen baithako gelan.

18. Bada, ni erdi naizenetik hirugarren egunean, hau ere erdi da; eta elkharrekin ginen, eta nihor bertzerik etzen gurekin etxean, gu biak baizik.

19. Emazteki hunen semea gabaz hil izan da, ezen lotan zelarik itho du.

20. Eta gau ortzikara baten minean jaikirik, ni zure neskato naizenaren sahetsetik hartu du ene semea eta ezarri du bere bulharrean; aldiz, bere seme hila eman du ene galtzarrean.

21. Goizean jaiki naizenean ene semeari dithiaren emateko, iduritu zait hila; eta artha gehiagorekin begiraturik argi garbitan, atzeman dut etzela ni erdi nintzen haurra.

22. Bertze emaztekiak ihardetsi zuen: Ez dun hik dionan bezala, baina hire semea hil dun, eta enea bizi. Bertzeak bertze aldera zioen: Gezurra dion, ezen ene semea dun bizi, eta hirea hila dun. Eta horreletan hizkatzen ziren erregeren aitzinean.

23. Orduan erregek erran zuen: Hunek dio: Ene semea bizi da, eta hirea hila dun. Eta horrek ihardesten du: Ez, hire semea hila dun; enea, berriz, bizi.

24. Erregek erran zuen beraz: Ekhar darotazue marrauz bat. Eta marrauza ekharri zutenean erregeren aitzinera,

25. Erran zuen: Haur bizia bi zathi egizue; emozuete batari erdi bat, eta bertzeak bertze erdia.

26. Baina semea bizia zuen emaztekiak erregeri erran zaroen (ezen barnea lastu zitzaioen bere semearen gainean): Othoi, jauna, haurra bizi-rik emozue horri, eta etzazuela hil. Bertzeak zioen aitzitik: Ez bedi izan ez hiretzat, ez enetzat, baina zathi bedi.

27. Erregek ihardetsi eta erran zuen Emozue huni haur bizia, eta ez bedi hil; ezen hau da horren ama.

28. Horreletan Israel guziak entzun zuen erregek nola bihurtu zuen bere erabakia, eta erregeren larderia hartu zuten, ikhususirik Jainkoaren zuhurtasuna haren baithan zela erabakien egiteko.

#### IV. KAP.

1. Bada, errege Salomon Israel guziaren gainean zen erreginatzen;  
2. Eta haukiek ziren bere azpiko zituen aitzindariak: Azarias, Sadok aphezaren semea;

3. Elihoreph eta Ahia, Sifaren semeak, iskribau; Josafat, Ahiluden semea, agerietan;

4. Banaia, Joiadaren semea, armadako buruzagi; Sadok eta Abiathar berriz, aphez.

5. Azariasek, Nathanen semeak manatzen zituen erregerekin egoten zirenak. Zabud, Nathanen semea, zen aphez, erregeren adiskide;

6. Ahifar etzeko buruzagi; eta Adoniram, Ahdaren semea, zergen gaineko.

7. Eta Salomonek bazituen Israel guziaren gainean hamabi aitzindari, zeinek bizikaria ekhartzen baitzaroeten erregeri eta haren etxeari; ezen bakhotzak urthean hilabete batez ematen zituzten behar ziren gauzak.

8. Huna hekien izenak: Benhur Efraimgo mendian,

9. Bendekar Makzefen, Salebimen, Bethsamesen, Elonen eta Bethananen;



10. Benhefed Aruboth; Sokho eta Ephergo lur guzia ere harenak ziren;
11. Benabinadab, zeinarena baitzen Nephathdor guzia; emaztetzat zuen Tapheth, Salomonen alaba.
12. Banak, Ahiluden semeak manatzen zuen Thanaken, Maiedon eta Bethsan guzian, zeina baita Sarthanako ondoan, Jezraelgo behereko aldean, Bethlandik Abelmehulara, Jekmaango parrean.
13. Bengaher zen Erramoth Galaaden; berepeko zuen Aboth-Jair Manaferen semearena, Galaaden; Argobeko lur guzian, zeina baita Bafanen, hura bera zen buruzagi hirur hogoi hiri handitan, harrasizatuak eta kobrezko hagekilakoak zirenetan.
14. Ahinadab, Adoren semeak manatzen zuen Manaimen;
15. Akimaafek Nefthalin; hunek halaber ezkontzaz zuen Basemath Salomonen alaba.
16. Baana, Husiren semea zen buruzagi Aserren eta Baloth;en;
17. Josafat, Pharuen semea, Isakarren;
18. Semei, Elaren semea, Benjaminen;
19. Gaber, Urien semea, Galaadko lurrean, Amorhear errege Sehonon eta Bafango errege Ogen lurrean, aurkhintza hartan ziren guzian gainean.
20. Juda eta Israel ezin khondatuak ziren; baziren itsasoko legarra bezenbat: janez, edanez eta bozkariotan bizi ziren.
21. Bada Salomonek, Filistindarren lurreko ibaitik Egiptoko mugaraino bere azpiko zituen erresuma guziak, zeinek eskaintzen baitziozkat-ten beren emaitzak eta zerbitzatzen baitzuten bere biziko egun guzietan.
22. Salomonen etxeko behar ziren, egun bakhotx, hogoi eta hamar koro irin zethahatu eta hirur hogoi koro irin eho,
23. Hamar idi gizendu, hogoi idi alhapidetako eta ehun ahari, sarthu gabe ihizitikako oren, basahuntz, basidi eta hegastin gizenduak.
24. Ezik berepeko zituen ibaiaz hunaindiko eremu guzia, Thaphfatik Gazaraino, eta toki hekiatiko errege guziak, eta bakea zuen alde orotarik inguruan.
25. Salomonen bizi guzian, Judan eta Israelen batbedera deusen bel-durrik gabe zagoen, bere mahatsaren eta pikoaren azpian Danetik Bersaheeraino.
26. Salomonek bazituen zalditegiak, berrogoi mila orgetako zaldirent-ztat eta hamabi mila azpiko zaldirentzat.

27. Lehenago aiphatu hamabi aitzindariak hazten zituzten; errege Salomonen mahaineko behar zena ere artha handirekin ekhartzen zuten bere orduan.
28. Halaber zaldien eta azienden garagarra eta lastoa eramaten zuten errege zen lekhura, izatu manuen arabera.
29. Jainkoak Salomoni orobat eman ziozkan zuhurtasuna, umotasun handi bat, eta izpirituko hedadura bat, itsas-bazterrean den legardia bezain zabala.
30. Eta Salomonen zuhurtziak Egiptoarren eta iguzki-sorthaldekoen zuhurtzia gaihentzen zuen.
31. Gizon guziak baino zuhurrago zen; zuhurrago Ethan Ezraharra baino, Maholen seme, Heman, Kalkol eta Dorda baino; eta aiphatan zen inguruetakoa jendaia orotan.
32. Halaber Salomonek egin zituen hirur mila parabola, eta haren kantikak izatu ziren mila eta borts.
33. Eta mintzatu zen zuhaitz guziez, Libanen den zedrotik, harrasitik ilkhitzen den hisoporaino, eta abereez, hegastinez, zierpeez eta arrainez.
34. Eta Salomonen zuhurtziaz aiphatzen aditzen zutenak, populu guzietarik eta lurreko errege guzien ganik ethortzen ziren haren zuhurtziaz argitzera.

## V. KAP.

1. Hiramek, Tirreko erregek, bere zerbitzariak igorri zituen Salomonen gana: ezen nabaditu zuen Salomon gantzutua izan zela errege bere aitaren orde; zeren egundainotik Hiram Dabiden adiskidea izatu baitzen.
2. Bada Salomonek Hiramen gana igorri zuen hitz haukiekin:
3. Badakizu ene aita Dabiden nahikundea, eta nola etxe bat ezin altxatu duen bere Jainko Jaunaren izenari, inguruko gerla dixiduen gatik, bere etsaiak zango hatzaren azpian Jaunak eman ziozkan arteo.
4. Bainan orai ene Jainko Jaunak deskantsua eman darot inguruan; eta ez dut ez etsaiaren, ez astrugaitz beldurrik.
5. Hargatik burutan dut tenplo haten altxatzea ene Jainko Jaunaren izenari, Jaunak ene aita Dabidi manatu dioen bezala, erranez: Zure seme, zure orde zure tronuan emanen dudanak altxatuko dio etxe bat ene ize-nari.
6. Mana zazu beraz zure zerbitzariak enetzat ebak detzaten Libango zedroak, eta ene zerbitzariak zureekin izan ditezen: zure zerbitzariantzat berriz, emanen darotzut galdeginen duzun sari guzia; badakizu ezen nola



ene populuan ez den gizon bat Sidondarrek bezala dakienik zur ebakitzten.

7. Hiramek aditu zituenean beraz Salomonen solasak, handizki hoztu zen, eta erran zuen: Benedika bedi egun Jainko Jauna, Dabidi eman daroena seme bat guziz zuhurra populu handi horren buruko.

8. Eta Hiramek Salomoni igorri zaroen erratera: Entzun ditut zuk gaztiatu guziak: eginen dut zure nahi guzia zedruez eta izaiez denaz.

9. Ene zerbitzariak Libandik eta itsasora ekharriko dituzte; nik untzitan igorriko ditut zuk bereziko darotazun lekhuraino, eta han leihorrean ezarriko ditut, zuk handik hartuko ditutzu, eta behar dena eman darotazu ene etxeari jatekoaren emateko.

10. Hargatik Hiramek Salomoni ematen zaroen nahi zuen bezenbat zedroki eta izaiki.

11. Salomonek, berriz, Hirami ematen ziozkan hogoi mila koro ogi, haren etxearen hazkurrizat, eta hogoi koro olio garbienetik: Hirami Salomonek horiek ematen ziozkan urthe bakhotx.

12. Halaber Jaunak Salomoni zuhurtzia eman zaroen agindu zaroen bezala: eta bakea zen Hiramen eta Salomonen artean, eta biek batasun egin zuten.

13. Errege Salomonek Israel guzian langileak hautatu zituen, eta hogoi eta hamar mila gizon ziren bereziak.

14. Libanera aldizka igortzen zituen hamar mila hilabete oroz, halaz non bi hilabete egoten baitziren beren etxeetan: eta Adoniramek zuen erabilkunde horien gainean manamendua.

15. Salomonen haxeketariak ziren hirur hogoi eta hamar mila, eta harri-atheratzaieak mendian laur hogoi mila,

16. Sarthu gabe lan bakhotxeko aitzindariak, zeinak baitziren hirur mila eta hirur ehun, populuari eta lanean hari zirenei manatzen zutenak.

17. Eta erregek manatu zaroeten har zetzaten harri handiak, harri garastiak, tenploko asentuentzat, eta eskuaira zetzaten.

18. Salomonen eta Hiramen harginek aphaindu zituzten; Giblostarrek, berriz, xuxendu zituzten tenploaren egiteko zurak eta harriak.

## VI. KAP.

1. Gerthatu zen beraz Israelgo semeak Egiptotik ilkhi ziren laur ehun eta laur hogoigarren urthean, Salomonen Israelen gaineko erregetasuneko laugarren urthean, zioko hilabetehean (zeina baita bigarren hilabetea), Jaunari egiten hasi zitzaioela etxea.

2. Bada, errege Salomonek Jaunari altxatzen zaroen etxeak bazituen hirur hogoi beso luzara, hogoi beso zabalera eta hogoi eta hamar gorara.

3. Tenploaren aitzinean lorio bat bazen hogoi besoren luzetasuneko, tenploaren zabaltasuneko neurriaren arabera, eta hamar beso zituen zabalera tenpluaren aitzinaldean.

4. Eta tenploari egin ziozkan leiho zehierrak.

5. Tenploko harrasiaren gainean inguruan altxatu zituen hirur selharu, etxearen harrasietan, tenploaren eta oraklearen inguru guzian, eta hegalak egin zituen inguruan,

6. Azpiko selharuak bazituen bortz beso zabalera, erdikoak sei, eta hirugarrenak zazpi. Lazak, berriz, ezarri zituen etxearen kanpotik inguruan, etzitezentzat sarthuak izan tenploko harrasietan.

7. Jaunaren etxea egin zenean, harri aphainduz eta akhabatuz egina izan zen; eta ez mailuka, ez haizkora, ez edozein burdin-tresna etzen tenploan entzun egiten hari zenean.

8. Sahetsetikako erdiko athea zen etxearen eskuineko aldean; eta inguruka zohazen mail batzuetarik igaiten zen erdiko selharura, eta erdikotik gainekora.

9. Salomonek etxea egin eta akhabatu zuen; zedrozko bobedaz ere estali zuen etxea.

10. Eta etxe guziaren gainean egin zuen selharu bat bortz beso gora zena, eta zedrokiz estali zuen etxea.

11. Eta Jauna mintzatu zitzaioen Salomoni, zioelarik:

12. Ikhusten dut altxatzen duzun etxea: ene manamenduetan ibiltzen bazare, ene erabakien arabera egiten baduzu eta ene manuak begiratzen baditutzu, hekien arabera ibiliz, idukiko darotzut zure aita Dabidi eman diodan hitza.

13. Israelgo semeen erdian eginen dut ene egoitza eta ez dut bazterrerat utziko Israelgo ene populua.

14. Salomonek egin zuen beraz tenploa eta akhabatu zuen.

15. Harrasiak barnetik egin zituen zedrozko oholez, galtzadatik harrasiaren gainekora, eta bobedaraino estali zituen zedrokiz, eta galtzada estali zuen izaiazko oholez.

16. Eta tenploko zolako alderdia hertsu zuen hogoi besotan zedrozko oholez galtzadatik gainekora, eta oraklearen etxe barnea egin zuen sailduren saildutzat.

17. Beraz tenploak berak berrogoi beso zituen orakleko atheraino.

18. Eta etxe guzia barnetik zedroz jauntzia zen, thornuan eginikako lanekin, uztardura lanketatuekin, eta bernuzadura kanporat egiten zute-



nekin. Oro zedrozko oholez estaliak ziren, eta harrasian nihon etzitakeen harririk ager.

19. Oraklea, berriz, egin zuen tenploaren erdian, lekhu barneean, han ezartzeko Jaunaren batasuneko arkha.

20. Bada, orakleak hogoi beso zituen luzara, zabalera eta gorara; eta estali eta jauntzi zuen urhe garbinez; eta aldarea ere zedroz estali zuen.

21. Oraklearen aitzinean ere etxea estali zuen urhe garbientik, eta urhezko xaflak iratziki zituen urhezko itzez.

22. Eta tenploan deusere etzen urhez estalirik etzenik; orakleko aldarea ere urhez estali zuen.

23. Oraklean egin zituen oliba-zurez bi kerubin hamar besoren goratasuna zutenak.

24. Kerubinaren hegal batek bortz beso zituen, eta kerubinaren bertze hegalak bortz beso: hori da, hamar beso zituztela hegal baten mokotik bertzearen mokoraino.

25. Bigarren kerubina ere hamar besokoa zen, neurri orobatekoan; eta langintza bera zuten bi kerubinek.

26. Erran nahi da kerubin batek hamar besoren goratasuna bazuela, eta bigarren kerubinak orobat.

27. Kerubinak ezarri zituen barneko tenploaren erdian: kerubinek, berriz, hegalak hedatzen zituzten, eta hegal batek ukitzen zuen harrasia, eta bigarren kerubinaren hegalak ukitzen zuen bertze harrasia: bertze bi hegalek, berriz, tenploaren erdian elkhar ukitzen zuten.

28. Kerubinak ere urhez estali zituen.

29. Eta tenploko harrasi guziak inguru-inguru lanketatu zituen asko zizeladuraz eta thornuzko laiez; eta egin zituen hekietan kerubinak, adarkadurak eta pintadurak, harrasitik kanporat egiten eta ilkhitzen bezala zirenak.

30. Tenploko galtzada ere urhez estali zuen barnean eta kanpoan.

31. Eta orakleko sartzean egin zituen oliba-zurez athetto batzuek eta habeak bortz izkinetakoak.

32. Eta bi atheak egin zituen olibakiz; kerubin eta adar-itxurak eta lorekadurak, hainitz atheratzen zirenak hekietan bernuzatu zituen, eta estali zituen urhez; urhez estali zituen, hala kerubinak, nola adarrak eta bertzeak.

33. Tenploko sartzean olibakiz egin zituen lau izkinetako habeak,

34. Eta bi athe izaikiz bi aldeetarik: athe bakhotxa bikhuna zen, eta idekitzen zen bi zathiek elkhar idukitzen zutelarik.

35. Bernuzatu zituen kerubinak, adarrak eta lorekadura hainitz ilkhitzen zirenak; eta guziak urhe-xaflaz estali zituen erregelarekin eta eskuairarekin moldatuz.

36. Barneko ezkatatza egin zuen hiru lerro harri legunduz eta zedroz zurezko lerro batez.

37. Jaunaren etxeko asentuak jarriak izan ziren laugarren urthean, zioko hilabethean;

38. Eta hamekagarren urthean, buleko hilabethean (hura da zortzigarren hilabethea), akhabatua izan zen etxea bere lan guzian eta bere tresneria guzian. Salomonek hura egin zuen zazpi urthez.

## VII. KAP.

1. Bere etxea, berriz, hamahirur urthez egin zuen Salomonek, eta azken akhabantzaraino eraman zuen.

2. Egin zuen halaber Libango oihaneko etxea, zeinak luzara ehun beso baitzituen, zabalera berrogoi eta hamar beso, eta gorara hogoi eta hamar beso; eta lau ibiltoki zedrozko habeen artean; ezik zedro-zurak habetzat lantharazi zituen.

3. Zedrozko oholez bobedatu zuen gaina oro, zeina berrogoi eta bortz habez jasana baitzen. Lerro bakharrak zituen hamabortz habe,

4. Bata bertzearen parrean ezarriak,

5. Eta elkharri begira zaudenak, habeen artean bardina zelakotz hutsarte. Habeen gainean baziren lau hegitako lazak, oro z bardinak.

6. Eta egin zuen lorio bat habeekin berrogoi eta hamar beso zituena luzara eta hogoi eta hamar zabalera; eta bertze lorio bat, lorio handiaren parrean, habeekin, eta trebesadura bat habeen gainean.

7. Egin zuen tronuko lorioa ere, zeinetan baitzen tribunala, eta zedroz estali zuen azpitik gaineraino.

8. Eta lorioaren erdian bazen etxetto bat orobat lanthua, zeinetan jartzen baitzen juiatzeko. Egin zuen halaber Faraonen alabarentzat (zeina emaztetzat hartu baitzuen Salomonek), etxe bat lorio hura bezala lanthua.

9. Guziak eginak ziren, asentutik harrasien gainera, eta kanpoaldean lorio handiraino, harri ederrenez zeinak moldura eta neurri batean zerratuak baitziren hala barnetik nola kanpotik.

10. Asentuak ere harri ederrez ziren, hamar besoko edo zortzi besoko harri handiz.

11. Eta gainetik ziren harri eder batzu, neurri batean ebakiak, eta orobat zedroz estaliak.



12. Lorio handiena biribila zen, harri pikatuzko hirur lerroz egina, eta zedro lantuzko lerro batez; eta hala zen Jaunaren etxe barneko lorioan eta etxe sartzeko lorioan ere.

13. Errege Salomonek igorri ere zuen eta Tirretik ethorrarazi zuen Hiram,

14. Zeina baitzen Nefthaliren leinuko emazteki alhargun baten eta tirrar aita, baten semea, kobrea lantzen zuena, eta zuhurtziaz, aditzaz eta jakitatez bethea kobrezko lan guzien egiteko. Ethorri zenean errege Salomonen gana, egin zuen haren lan guzia.

15. Egin zituen kobrezko bi habe, habe bakharra hemezortzi beso gora; eta hamabi besoko uhal batek inguratzen zuen habe bakhotxa.

16. Egin zituen halaber kobre urthuz bi buru habeen gainean ezartzeko, buru bat borts beso gora zena, eta bertze burua ere borts beso gora;

17. Eta ziren lanketatuak sare bat bezala, eta gatheak bezala, zeinak ederrezteko langintza batez elkharri lotzen baitziren. Bi habe-buruak urthuak ziren; buru bateko sareak bazituen zazpi uztarri-lerro, eta bertze buruarenak bertze hainbertze.

18. Eta egin zituen habeak eta inguruan bi uztarri-lerro, mingraren gaineko aldean zirenak, buruen estaltzeko. Orobat egin zaroen bigarren buruari.

19. Lorioan, berriz, habe gainetan ziren buruak, liliak bezala lant-huak, lau besokoak ziren.

20. Eta oraino habeen gainean, sareen azpitik, baziren bertze buru batzu, habearen neurriaren araberakoak, eta bigarren buruaren inguruan berrehun mingrana lerroka.

21. Bi habeak xutik ezarri zituen tenploko lorioan; eta xutitu zue-nean, eskuineko habea, deithu zuen Jakin; orobat xutitu zuen bigarren habea eta deithu zuen Booz.

22. Habeen gainean ezarri zuen lilien arara egin lana, eta habeetako lana akhahatua izan zen.

23. Urthuz egin zuen halaber itsaso bat, hamar besokoa bazter bate-tik bertzera, inguruz biribila: haren goratasuna borts besokoa zen, eta hogoi eta hamar besoko sokhatto batek birundatzen zuen inguruan.

24. Eta haren inguruan hamar besoka zihoan lanketadura bat, ezpaina behera, itsasoa inguratuz: lanketadurazko bi lerro urthuz eginak ziren.

25. Itsasoa jarria zen hamabi idiren gainean, zeinetarik hirurek begiratzen baitzuten ipharrera, hirurek mendebalera, hirurek hegoara eta hirurek iguzki-haizera; eta itsasoa zagoen idi hekien gainean, zeinen gibel guziak barneko aldean gordetzen baitziren.

26. Hirur erhiren loditasuna zuen untziak, eta haren ezpaina zen xata baten ezpaina bezala eta lili zabaldu baten hostoa bezala: bi mila bato idukitzen zituen.

27. Egin zituen hamar oin kobrezkoak, oin bakhotxa lau beso luze, lau beso zabal eta hirur beso gora.

28. Oinetako lana bera leguna zen, eta lanketadurak baziren iratxikiguneetan;

29. Khorottoen eta ezpartzaduren artean baziren lehoinak, idiak eta kerubinak, eta iratxikiguneetan gainetik orobat; era azpitik, lehoinak, idiak eta kobrez uhalak bezala dilindaka.

30. Oin bakhotxak bazituen lau arroda eta kobrezko haxak: eta lau izkinetan, untziazen azpian, baziren ostikoak bezala urthuz eginak eta elkharri begira zaudenak.

31. Untziazen ahoa ere buruetan sartzen zen gainez; kanporat agertzen zena, biribil zen guzia; beso batekoa zen, eta orotara bazuen beso bat eta erdi. Habeen izkinetan, berriz, baziren asko lanketadura, eta erdietako habearteak etziren biribil, bainan lau izkinetakoak.

32. Oinaren lau izkinetan ziren lau arrodak ere, elkharri lothuak ziren oinaren azpitik: arroda bakharra beso bat eta erdi gora zen.

33. Arrodak, berriz, ziren orga-lasterretan izaten ohi diren bezalakoak; eta hekien haxak, besoak, phaldoak eta buhuinak, oro urthuz eginak ziren.

34. Eta orobat oin bakhotxaren lau izkinetan ziren ostikoak, gai bertik urthuak nola oina, eta hari iratxikiak ziren.

35. Oinaren gainean, berriz, beso erdiko biribilgune bat bazen, halako molde egina non untzia haren gainean bermaraz baitzitateen, eta ber-nuzadura eta lanketadura asko moldetakoak ber-beretik eginak bazituen.

36. Hiramek egin zituen halaber kobrez ziren habe-arte hekietan eta izkinetan lehoinak, zuhamu-adarrak eta kerubin batzu, gizona xutik dagoen phatxadan bezala, ez baitzuten iduri han zizelatuak, bainan bai inguruan ezarriak.

37. Horreletan egin zituen hamar oinak, gai batetik urthuak, neurri batean eta lanketaduraz elkharren idurikoak.

38. Egin zituen halaber hamar unti kobrezkoak; unti bakharrak zaduzkan berrogoi bato, eta gora zen lau besoz; eta ezarri zuen unti bakhotxa oin baten gainean, zeinak hamar baitziren.

39. Hamar oinak ezarri zituen, borts tenploaren eskuin alderdian, eta borts ezkerrean; itsasoa, berriz, eskuin aldean iguzki-haizearen parrean hegoari huruz.



40. Hiramek beraz eginik bertzak, duphinak eta untziak, Jaunaren tenploan akhabatu zuen errege Salomonen lan guzia.

41. Harek egin zituenak ziren bi habe, eta buruetako sokhak bi haben buruen gainean, eta bi zare haben buruen gainean ziren bi sokhen estaltzeko;

42. Lau ehun mingrana bi sareetan, bi mingrana-lerro, haben gainean ziren buruetako sokhak estaltzen zituzten sare bakhotxean;

43. Hamar oin eta hamar unti oinen gainean;

44. Itsaso bat eta hamabi idi itsasoaren azpiko;

45. Bertzak, duphinak eta untziak. Hiramek errege Salomoni Jaunaren etxeko egin ziozkan tresna guziak kobre ederrenez ziren.

46. Erregek urtharazi zituen hekiek Jordaneko zelhaiean, lur buztintsu batean, Sokothan eta Sarthanen artean.

47. Salomonek ezarri zituen unti guziak beren tokietan; eta hainbertze ziren non ez baitzitakeen erran kobreaken phisua.

48. Salomonek egin zituen Jaunaren etxeko tresna guziak, urhezko aldarea, proposizioneko ogien ezartzeko urhezko mahaina,

49. Urhezko ganderailuak, bortz eskuin eta bortz ezker, oraklearen aitzinean, urhe garbiz; eta gainean lili loreak bezalako batzu eta urhezko kriseluak; urhezko suhatsak,

50. Legarrak, hirurhortzekoak, xatak, xurruak eta isentsuntziak urhe garbienetik. Sainduren sailduko etxe barneko ateen erroak, eta tenploko etxeko ateenak ere urhez ziren.

51. Eta Salomonek akhabatu zuen Jaunaren etxekotzat egiten zuen lan guzia. Ekharri zituen haren aita Dabidek sailduetsi zituen zilharra, urhea eta untziak, eta Jaunaren etxeko khutxetan ezarri zituen.

### VIII. KAP.

1. Orduan bildu ziren Israelgo zaharrenak sortzez, leinuetako aitzindariekin, eta Israelgo semeen familietako buruzagiak errege Salomonen gana Jerusalemera, ekhartzekotzat Jaunaren batasuneko arkha Dabiden hiritik, erran nahi da Siondik.

2. Israel guzia errege Salomonen gana bildu zen, besta-buruan, ethanimgo hilabethean, hura baita zazpigarren hilabethea.

3. Israelgo zahar guziak ethorri ziren eta aphezek hartu zuten arkha.

4. Eraman zituzten Jaunaren arkha eta batasuneko tabernaklea, eta tabernaklean ziren saildutegiko tresna guziak; eta aphezek eta lebitarrek zakharten arkha.

5. Errege Salomon, berriz, eta haren gana bildu zen Israelgo oste guzia bazohan harekin arkha aitzinean, eta imolatzen zituzten ardiak eta idiak, ez baititake erran zenbat ez zer baliotakoak.

6. Aphezek ekharri zuten bere lekhura Jaunaren batasuneko arkha, tenploko oraklera, sailduren saildura, kerubinen hegaleen azpira;

7. Ezen kerubinek hegaleak hedatzen zituzten arkha aitzinean, etziren kanporatagotik ageri, eta han egotu dira egungo eguna arteo.

8. Eta nola hagak atheratzen baitziren, eta hekien muthurrak agertzen baitziren saildutegitik kanporat oraklearen aitzinean, etziren kanporatagotik ageri, eta han egotu dira egungo eguna arteo.

9. Bada arkhan etzen deus bertzerik bi har-lauzak baizik Moisek han ezarri zituenak Horeben, Jaunak Israelgo semeekin batasun egin zuenean, Egiptoko lurretik atheratzen zirelarik.

10. Eta gerthatu zen, aphezak saildutegitik ilkhi zirenean, lanho batek bethe zuela Jaunaren etxea;

11. Eta aphezak etzitazkeen egon eta etzezazketen beren eginbideak bethe lanhoaren gatik, ezen Jaunaren ospeak bethe zuen Jaunaren etxea.

12. Orduan Salomonek erran zuen: Jaunak erran izan du lanhoan egiten zuela bere egoitza.

13. Etxe hau egin darotzut egoitza, zure tronu mendeen mendetaraino iraunkortzat.

14. Eta erregek itzuli zuen begithartea, eta benedikatu zuen Israelgo baldarna guzia; ezik hara bildua zaroen Israelgo baldarna guzia.

15. Eta Salomonek erran zuen: Benedikatua Israelgo Jainko Jauna, bere ahoz ene aita Dabidi mintzatu dena, eta haren baithan bere hitza bethe duena, dioelarik:

16. Ene Israelgo populua Egiptotik atheratu dudana egunetik hunat, ez dut Israelgo leinu guzietarik hiri bat hautatu, hartan niri etxerik egiteko eta ene izena han izateko; bainan hautatu dut Dabid ene Israelgo populua buruzagitzat.

17. Ene aita Dabidek etxe bat nahi izan zaroen altxatu Israelgo Jainko Jaunaren izenari.

18. Bainan Jaunak ene aita Dabidi erran zaroen: Zure baithan erabili duzunean etxe bat ene izenari altxatzeko asmua, ongi egin duzu hori bera gogoan erabiltzea.

19. Halarik-ere ez darotazu zuk altxatuko etxea; bainan zure semeak, zure erraietarik ilkhiko denak, harek altxatuko dio etxea ene izenari.



20. Jaunak egintzetara ekharri du atheratu zuen hitza: hartu dut ene aitaren lekhoa, eta jarri naiz Israelgo tronuan, Jaunak agindu bezala; eta etxea altxatu diot Israelgo Jainko Jaunaren izenari.

21. Hau berezi diot lekhusat arkhari, zeintan baita Jaunarekilako batasuna, gure aitekin egin zuena Egiptoko lurretik ilkhi zirenean.

22. Orduan Salomon xutik gelditu zen Jaunaren aldarearen aitzinean, Israelgo baldarnak ikhusten zuela; eskuak zerura hedatu zituen,

23. Eta erran zuen: Israelgo Jainko Jauna, ez da ez zeru gainean, ez lur behean zure iduriko Jainkorik, oi zu, batasun eta urrikalpen begiratzon diozuten, beren bihotz guziz zure aitzinean ibiltzen direnei.

24. Zuk zure zerbitzariari ene aita Dabidi iduki diozu agindu diozuna; zure ahoz duzu agindu eta zure eskuz akhabatu egungo egunak erakusten duen bezala.

25. Orai beraz, Israelgo Jainko Jauna, iduk diozozu zure zerbitzariari Dabidi ene aitari agindu diozuna, zinaroenean: Ez da ene aitzinean eskastuko zutarikako ondorea Israelgo tronuan jarriko dena, baldin bizkitartean zure semeek atxikitzen badute beren bidea, ene aitzinean ibiltzeko zu ene begien azpian ibili zaren bezala.

26. Eta orai, oi Israelgo Jainko Jauna, egintzetara ethor beitez, zuk zure zerbitzariari ene aita Dabidi erran izan diozkatzun hitzak.

27. Uste izateko othe da bada Jainkoa lurraren gainean dagoela? ezen baldin zeruak eta zeruetako zeruak ezin bazaduzkate, zenbatez gutiagorik egin dudan etxe hunek?

28. Bainan begira zozute, oi erre Jainko Jauna, zure zerbitzariaren othoitzei eta errekeiei; entzun zazu zure zerbitzariak egun eskaintzen darozkitzun himnoa eta othoitza,

29. Zure begiak gau eta egun idekiak izan ditezentzat etxe hunen gainera; etxearen gainera, zeintaz erran izan baituzu: Hor izanen da ene izena; entzun dezazuntzat zure zerbitzariak lekhu huntan eskaintzen darotzun othoitza;

30. Entzun detzatzuntzat zure zerbitzariaren eta zure Israelgo populuaren othoitza, edozein gauza galda dezazuten toki huntan; entzun detzatzun zure egoitza zerukoan, eta entzun ondoan, begithartez jar zakiozkiten.

31. Baldin gizon batek bekhatu egiten badu bere lagunaren alderat, eta zin zerbait balin bazuen zeinak hersten baitzuen; eta zure aitzinera, zure aldarera, zure etxera zinaren gatik heldu balitz;

32. Zuk entzunen duzu zerutik, eta juiatuko ditutzu zure zerbitzariak, tzarra kondenatuz eta haren tzarkeria haren buruaren gainera erorrazaz; zuzena garbituz, eta hari bere zuzentasunaren arabera emanez.

33. Israelgo zure populuak bere etsaien aitzinean ihes egin baleza (ezen zure alderat bekhatu egingen du), eta penitentzia eginez eta zure izenari aithor emanez ethor baleitez, othoitzei eta errekei bazintezate etxe huntan,

34. Entzun zazu zerutik, barkha zozu bere bekhatua Israelgo zure populuari eta itzularazkitzu haukien arbasoei eman izan daroetetzun lurrera.

35. Zeruak hertsia izaten balitz eta uritzen ez balu haukien bekhatuen gatik, eta othoizten zaituztelarik lekhu huntan, zure izenari barkhamendu eske jar baleitez beren oinhazeen bidez;

36. Entzun zazu zerutik eta barkha zazu zure zerbitzariaren eta Israelgo zure populuaren bekhatuak; erakhuts diozozute bide ona zeinetaz ibili behar baitira, eta uria igorrazu zure populuari gozatzera eman diozun zure lurraren gainera.

37. Lurraren gainera athera baleitez gosetea, edo izurritea, edo aireko usteldura, edo ilhinda, edo xartala, edo herdua; baldin etsaiak zure populuak hesturretan ezar baleza hunen atheak sethiatuz; zerbait zauri, zerbait erkhidura,

38. Zerbait xahutze edo gaizkinkeria hel balekio edozein gizoni Israelgo zure populuari; orduan baldin norbaitek ezagut baleza bere bihotzeko zauria eta eskuak heda baletzazu etxe huntan,

39. Entzun zazu zerutik, zure egon-lekhutik, berriz jar zeraizkio begithartez, eta hala egiozu non batbederari emanen baitiozu bere bideen arabera haren bihotza ikhusten duzun bezala (ezen zu zure bakharra giza-seme guzien bihotza ezagutzen duzuna),

40. Zure beldur izan ditezentzat, gure aitei eman daroetzun lurraren gainean biziko diren egun orotan.

41. Bertzalde arrotza, Israelgo zure populutikakoa ez dena, zure izena gatik urrungo lurretik ethorriko denean (ezen non-nahi entzunen da aiphatzen zure izenaren handiaz, zure eskuaren hazkarraz, zure besoaren

42. Hedaturaz), ethorriko denean beraz arrotza, eta lekhu huntan othoitzei egun dukeenean,

43. Entzunen duzu zeruan, zure egoitzako ortzian, eta egingen ditutzu arrotzak othoizka galdatu guziak, lurreko populu guziek ikhas dezatzuntzat zure izenaren beldur izaten, Israelgo zure populuak bezala, eta froga dezatzuntzat zure izena deithua dela nik altxatu dudan etxe hunen gainera.



44. Zure populua gerlara atheratuko denean bere etsaien kontra, igorri dituketzun bidean, zure othoizteko itzuliko dira berezi duzun hiriko alderat eta nik zure izenari altxatu diodan etxeko alderat,

45. Eta zerutik entzunen ditutzu haukien othoitzak eta errekeiak, eta zuzena bihurtuko diozute.

46. Bekhatu egiten badute zure alderat (ezen ez da gizonik bekhatu egiten ez duenik), eta samurturik arhikitzen baditutzu beren etsaiei, eta gathibu eramanak badira urrun edo hurbil etsaien lurrera,

47. Beren bihotzetan urrikitan sartzen badira gathibutasuneko lekuan, eta itzuliz errekeitzen bazaituzte beren gathibutasunean, diotelarik: Bekhatu egin dugu, tzarki haritu gare, gaixtaginkerian ibili gare;

48. Eta zure ganat beren bihotz guziz eta bere arima oroz itzultzen badira, beren etsaien lurrean, zeinetara gathibu eramanak izan baitira; eta othoizten bazaituztete itzulirik haukien aitei eman diozuten lurreko aldera, hautatu duzun hiriko, eta nik zure izenari altxatu diodan tenploko aldera,

49. Entzunen ditutzu zerutik, zure tronuko ortzitik haukien othoitzak eta errekeiak; zuzena bihurtuko diozute,

50. Jabalduko zeraizkio zure populua zure alderat bekhatu egin duenari, eta hunen gaizki guziei, zeinetaz hautsi baitute zure legea, eta beratuko ditutzu haukiek gathibu daduzkatenen bihotzak, haukiez urrikalmentu har dezatentzat.

51. Ezen zure populua eta zure primantza dira, Egiptoko lurretik, burdin-labearen erditik zuk atheratuak.

52. Zure begiak idekiak egon beitez zure zerbitzariaren eta Israelgo zure populua othoiztari, eta entzun betzatzu othoizka eskatuko darozkitzuen orotan.

53. Ezik zerorrek zure primantzatzat berezi ditutzu lurreko populua guzien ardetik, oi Jainko Jauna, zerorrek erran izan duzun bezala, Moise zure zerbitzariaren ahoz, gure arbasoak Egiptotik eraiki ditutzunean.

54. Bada, gerthatu zen Salomonek Jauna othoiztean, othoitz eta errekei hau akhabatu ondoan, jaiki zela aldarearen aitzinetik; ezen bi belhaunez lurrerat egin zuen eta eskuak zerurat hedatu zituen.

55. Xutitu zen beraz eta Israelgo baldarna guzia goraki benedikatu zuen, erranez:

56. Benedika bedi Jauna, Israelgo bere populuari phausua eman diena, bere agintza guzien arabera. Hitz bakhar bat ez da erori harek bere zerbitzari Moisen arartekoz agindu on guzietarik.

57. Gurekin izan bedi gure Jainko Jauna, gure aitekin izatu den bezala, gu bazterrerat utzi eta bulkhatu gabe.

58. Bainen bere alderat malguaraz betza gure bihotzak, haren bide guzietan ibil gaitezen eta begira detzagun haren manamendu, zeremonia eta gure aitei manatu diozkatene erabaki guziak.

59. Eta ene solas haukiek zeinetaz errekeika haritu bainaiz Jaunaren aitzinean, gau eta egun hurbil bekizkio gure Jainko Jaunari, egun oroz zuzena egin dezotentzat bere zerbitzariari eta Israelgo bere populuari;

60. Lurreko populua guziek jakin dezaten Jauna bera dela Jainkoa, eta hartaz landan bertzerik ez dela.

61. Gure hihotza ere oso izan bedi gure Jainko Jaunarekin, ibil gaitentzat haren erabaketan, era begira detzagun haren manamenduak, egun egiten ditugun bezala.

62. Erregek beraz eta Israel guziak harekin bitimatzat imolatzen zituzten Jaunaren aitzinean.

63. Salomonek Jaunari imolatu ziozkan bakezko bitimatatzat hogoi eta bi mila idi, eta ehun eta hogoi mila ardi hil zituen; eta erregek eta Israelgo semeek lehen aldia eman zioten Jaunaren tenploari.

64. Erregek egun hartan sainduetsi zuen Jaunaren etxe aitzinean zen lorioa; ezen han eskaini zituen holokausta, sakrifizioa eta bakezko bitimen bilgorra, zeren Jaunaren aitzinean zen kobrezko aldarea ttipiegia baitzen eta ez baitzezakeen iduk holokausta, sakrifizioa eta bakezko bitimen bilgorra.

65. Salomonek egin zuen beraz orduan aiphamen handitako besta bat, eta Israel guziak harekin, uste handia ethorririk Ematheko sartzetik eta Egiptoko ibairainodanik gure Jainko Jaunaren aitzinera, zazpi egunez, erran nahi baita hamalau egunez.

66. Eta zortzigarren egunean gibelerat bidali zituen populua, zeinak errege benedikatu goan baitziren beren olhetara bozkalentzietan eta bihotzak goihererik Jaunak bere zerbitzari Dabidi eta Gaelgo bere populuari egin zuzkatene ongi guziez.

## IX. KAP.

1. Bada gerthatu zen Salomonek egiten akhabatu zituenean Jaunaren tenploa, errege jauregia eta gogoan hartu eta egin nahi izan zituen guziak,

2. Jauna bigarrenetoz agertu zitzaioela, Gabaonen lehen agertu zitzaioenean bezala.

3. Eta Jaunak erran zaroen: Entzun ditut ene aitzinean egin dituzten othoizta eta errekeia; sainduetsi dut etxe hori, zeina altxatu baitarotazu, hortan ezar dezadantzat bethi guziko ene izena; eta ene begiak eta bihotza egun oroz hor izanen dira.





4. Zu ere ene aitzinean ibiltzen bazare, zure aita ibili izan den bezala, zuzentasunean eta bihotzeko lañotasunean; egiten badituztu nik zuri manatu guziak, eta begiratzen badituztu ene legeak eta erabakiak,

5. Zure erreinuko tronua egun eta bethiko ezarriren dut Israelen gainean, zure aita Dabidi agindu izan diodan bezala, niolarik: Zure odoleko gizonak ez du eskas eginen Israelgo tronuan.

6. Bainan gogo gaixtoz zeihertzen bazarete zuek eta zuen semeak, niri ez jarraikiz, eta ez begiratu ezene manamenduak eta nik zuei manatu zeremoniak; eta goaten bazarete, zerbitzatzin eta adoratzin badituztue jainko arrotzak;

7. Khenduko dut Israel eman diodan lurraren gainetik eta ene izenari sainduetsi diodan tenploa iraziko dut ene aitzinetik; eta Israel errankizun eta irrigarritan izanen zaroete populu guziei.

8. Eta irakasbide izanen da etxe hortan gaindi iraganen dena baldituko da, eta hixtu eginen du, eta erranen du: Zertako Jaunak horrela egin izan daroete lur horri eta etxe horri?

9. Eta ihardetsiko daroete: Zeren utzi duten heren Jauna, Egiptoko lurretik horien aitak athera dituen, eta jarraiki direlakotz jainko arrotzei; eta adonatu eta zerbitzatu dituztelakotz: horra zertako Jaunak horien gainera jautsarazi dituen ondiko haukiek guziak.

10. Bada hogoi urtheren buruan Salomonek egin zituenean bi etxeak, erran nahi da Jaunaren tenploa eta errege jauregia,

11. (Tirreko errege Hiramek Salomoni emanez zedrozko eta izaiatzko zurak eta urhea, fixu izan zuen guziaren arabera), Salomonek orduan Hirami Galileako lurrean eman ziozkan hogoi hiri.

12. Hiram Tirrekoa ilkhi zen Salomonek eman ziozkan hirien ikhusteko, bainan etzuten atzeman haren begiei.

13. Eta erran zuen: Anaia, horiek dira niri eman daroztatzun hiriak? Eta lekhua deithu zuen Kabul-lur, orai arteo dirauen bezala.

14. Hiramek halaber Salomoni igorri ziozkan ehun eta hogoi talendu urhezko.

15. Hori da dirua errege Salomonek xahutu zuena Jaunaren tenploa, eta errege jauregia, eta Melo, eta Jerusalemeko harrasiak, eta Hefer, eta Mayedo eta Gazer egitean.

16. Faraon Egiptoko errege igan zen, hartu eta erre zuen Gazer; hil zuen han egoten zen Kananearra eta hiri hura eman zaroen dotetzat bere alaba Salomonen emazteari.

17. Salomonek beraz berritu zituen Gazer, Bethoron behere,

18. Baalath eta Palmira mortuko lurrean.

19. Eta zituen herri guziak, harrasirik gabe zirenak hazkartu zituen, eta orga-lasterretako hiriak ere, eta zaldizkoen hiriak, eta Jerusalemen altxatu nahi izan zituen guziak, eta Libanen eta bere manamenduko lur guzian.

20. Amornearretarik, Hethear, Pherezear, Hehear eta Jebusearretarik gelditu izan zen populu guzia, Israelgo umeetarik ez direnak,

21. Hekien seme gelditu zirenak lekhuari, erran nahi da Israelgo semeak ezin xahutu zituztenak, Salomonek zergatu zituen, egungo eguna arteo diren bezala.

22. Etzuen ordean Salomonek esku-lanetan ezarri Israelgo semeetarik nihor-ere, bainan gerla-gizon, haren ministro, armadetako aitzindari eta buruzagi, orga-lasterren eta zaldizkoen manatzeko ziren.

23. Salomonen lan guzietako baziren ezarriak bortz ehun eta berrogoi eta hamar aitzindari, populuaren beren azpiko zutenak eta lan xedatueta manatzin zutenak.

24. Bada Faraonen alaba Dabiden hiritik Salomonek egin zaroen bere etxera ethorri zen. Erregek orduan altxatu zuen Melo.

25. Salomonek halaber urthe guziz hiruretan eskaintzen zituen holo-kaustak eta bakezko bitimak altxatu zuen aldarearen gainean, eta baltsamuak Jaunaren aitzinean erretzen zituen. Tenploa akhabatua zen.

26. Errege Salomonek untzidi bat ere egin zuen Asiongaberren, zeina baita Ailatheko ondoan, itsaso Gorriko bazterrean, Idumeako lurrean.

27. Eta Hiramek untzidi hartan itsasgizonak eta itsasketan jakinak bere zerbitzarietarik Salomonen zerbitzariekin igorri zituen;

28. Eta Ophirra goanik, errege Salomoni ekharri zaroten lau ehun eta hogoi talenduren urhea handik hartua.

## X. KAP.

1. Entzunik Salomonen omena Jaunaren izenean, Sabako erregina ere ethorri zen, asmakaritan haren frogatzera.

2. Eta Jerusalemeko sarthurik lagunketa handi batekin, aberastasun askorekin, eta baltsamu, urheketa gaitz bat eta harri baliosak zakharzten kamelu batzuekin, ethorri zen errege Salomonen gana, eta erran zarozkien bere bihotzean zituenak oro.

3. Eta Salomonek argitu zuen aitzinera eman zarozkien solas guzien gainean, eta hitz bakhar bat etzen izan erregeri gordea gelditu zitakeenik eta zeinari ez baitzuen ihardetsi.

4. Bada, Sabako erreginak ikhustearrekin Salomonen zuhurtzia guzia eta harek altxatu etxea,



5. Haren mahaineko janhariak, zerbitzarien egon-lekhuak, hekien araldeak eta soinekoak, eta hango edaraleak, eta Jaunaren etxean eskaintzen zituen holokaustak, etzen gehiago bere baithan.

6. Eta erregeri erran zaroen: Egia da ene lurrean entzun izan dudana

7. Zure solasez eta zure zuhurtziaz; eta ez nituen sinhesten niri erraileak, neroni ethorri arteo eta ene begiz ikhusi arteo; eta frogatu dut egia-  
ren erdia ere etzarotedala erran. Zure zuhurtzia eta zure egintzak nik omenka adituak baino handiagoak dira.

8. Dohatsu zure gizonak! eta dohatsu zure zerbitzariak, bethi zure aitzinean daudezinak, eta zure solas zuhurra aditzen dutenak!

9. Benedika bedi zure Jainko Jauna, zeinaren gogarako izatu baitzare, eta zeinak Israelgo tronuaren gainean eman baitzatu, Jaunak Israel maithatu duelakotz bethi guziko, eta errege ezarri baitzaitu zuzenari eta zuzentasunari beren bidea emateko.

10. Beraz Sabako erreginak, Salomoni eman ziozkan seietan hogoi talendu urhezkoak, baltsamuketa handi bat eta harri baliosak. Egundaino geroztik ez da ekharri izan hanbat baltsamu nola Sabako erreginak eman baitzizozkan errege Salomoni.

11. (Halaber Hiramen untzi Ophirretik urhea zakhartenek, zuhamu usain oneko keta handi bat eta harri baliosak ekharri zituzten Ophirretik.

12. Zur usaindun hekietarik erregek egin zituen Jaunaren tenploko eta errege jauregiko tenposak, eta kantarien gitarrak eta lirak. Halako zuhamu usaindunik ez da orai arteo egundaino ekharri ez-etare ikhusi).

13. Errege Salomonek, berriz, Sabako erreginari eman ziozkan nahi izan zituen eta hari galdatu guziak, bertzalde zirelarik, bere baitharik eskaini ziozkanak errege bizartasun zinezko batekin. Erregina itzuli eta bere zerbitzariekin goan zen bere lurrera.

14. Salomoni, urthe baxhotx, ekhartzen zaroeten urhearen phisua, sei ehun eta hirur hogoi eta hamar urhezko talendurena zen.

15. Erran gabe zergazaleek, tratulariek, puska-saltzaileek, Arabiako errege guziek eta lurreko buruzagiek ekhartzen zaroetena.

16. Errege Salomonek halaber egin zituen berrehun erredola urhe garbienetik. Erredola bakharraren xaflentzat eman zituen sei ehun siklo urhezko.

17. Eta egin zituen hirur ehun erredola motx urhe frogatuz. Erredola baxhotxa estalia zen hirur ehun mina urhezkoz. Erregek ezarri zituen Libango oihaneko etxean.

18. Errege Salomonek egin zuen orobat boliazko tronu handi bat eta estali zuen urhe gorriz.

19. Tronuak bazituen sei mail; gaina biribil zuen gibelean; bazituen bi esku bi aldeetarik jarlekhuza zadukatenak, eta bi lehoin zauden bi eskuen aldean;

20. Eta hamabi lehoinkume zauden mailen gainean, sei alde batetik eta sei bertetik. Ez da nihongo erresumetan egin halako lan bat.

21. Untzi guziak ere zeinetan edaten baitzuen errege Salomonek, urhezkoak ziren, eta Libango oihaneko etxean tresna guziak urhe garbienetik ziren. Zilharra etzen ikhusia eta deus guti zen prezatua Salomonen egunetan,

22. Zeren erregeren untziak Hiramen untziekin itsasoz Tharsisera goaten baitziren hirur urthetarik behin, eta handik ekhartzen zituzten urhea, zilharra, elefant-hortzak, ximinoak eta paunak.

23. Errege Salomonek gairitu zituen beraz lurreko errege guziak bere aberastasunez eta zuhurtasunaz.

24. Eta lurra zagoen guzia Salomonen begithartea ikhusi nahiz, entzutea gatik Jainkoak haren bihotzean ezarri zuen zuhurtzia.

25. Eta batbederak ekhartzen ziozkan emaitzak, zilharrezko eta urhezko untziak, soinekoak, gerlako harmak, baltsamuak ere, eta zaldiak eta mandoak, urthe oroz.

26. Salomonek bildu zituen orga-lasterrak eta zaldizkoak; orga-laster-  
rrak igan ziren hamalau ehunetara, eta zaldizkoak hamabi miletara; eta ezarri zituen hiri hazkartuetan, eta erregerekin Jerusalem.

27. Eta hala egin zuen, non dirua Jerusalem harria bezain nasai baitzen; eta hainbertze zedro bazela, nola bazterretan sortzen diren fikomorak.

28. Egiptotik eta Koatik zaldiak erakhartzen ziozkaten Salomoni. Ezen erregeren tratulariek erosten zituzten Koatik, eta erakhartzen ziozkaten prezio xedatu batean.

29. Egiptotik sei ehun zilharrezko siklotan atheratzen ziren lau zaldi, eta zazpitan hogoi eta hamar siklotan zaldia. Eta Hethearren errege guziek eta Siriakoek horreletan saltzen zituzten zaldiak.

## XI. KAP.

1. Bada, errege Salomonek maithatu zituen asko emazteki arrotz, Faraonen alaba, eta Moabitar eta Amontar emaztekietarik, Idumear, Sidondar eta Hethearretarik,



2. Zeinen jendakiez Jaunak erran izan baitzaroeten Israelgo semeei: Etxarete sarthuko horien emaztekietara, eta horietako gizonak ez dira sarthuko zuen emaztekietara, ezik den segurena da horien emaztekiek zeherraziren dituztela zuen bihotzak beren jainkoei jarraikiaraz zetzazten. Salomon hekiei josi zen beraz maitekeria suharrenez.

3. Izatu zituen zazpi ehun emazte erregina bezala, eta hirur ehun ohaide; eta emaztekiek zehertu zaroeten bihotza.

4. Zaharra zen jadanik, emaztekiek bidez gaizkiratua izan zenean haren bihotza, jainko arrotzei jarraitzeko. Eta haren bihotza etzen osoki xahu bere Jainko Jaunaren aitzinean, nola haren aita Dabiden bihotza.

5. Bainan Salomonek adoratzen zituen Astarthe Sidondarren jainkosa, eta Molok Amontarren jainkoaizuna.

6. Eta Jaunaren aitzinean gogaragarri etzena egin zuen Salomonek, eta etzuen behar zena egin Jaunari jarraitzeko bere aita Dabid bezala.

7. Salomonek orduan egin zuen tenplo bat Kamosi, Moabitarren jainkordeari, Jerusalemen parrean den mendian, eta Moloki Amontarren jainkordeari.

8. Eta horrela egin zaroeten emazte arrotz guziei, zeinek isentsua erretzen eta bitimak imolatzen baitzizkaten beren jainkoei.

9. Jauna hasarretu zitzaioen beraz Salomoni, zeren haren gogoa zehertu zen Israelgo Jainko Jauna ganik, zeina bi aldiz agertu baitzitzaioen,

10. Eta zeinak bere ahoz manatu baitzaroen etzedin jainko arrotzei jarraik. Eta Salomonek Jaunak manatu zaroena etzuen begiratu.

11. Hargatik Jaunak erran zaroen Salomoni: Hori egin duzulakotz, eta zeren ez dituzun begiratu enekilako batasuna eta nik zuri eman manamenduak, urraturik zure erresuma zathituko dut, eta zure zerbitzari bati emanen darot.

12. Halarik-ere zure aita Dabiden gatik ez dut hori zure egunetan eginen; zure semearen eskuan eginen dut.

13. Ez diot ere erresuma guzia khenduko; bainan Dabid ene zerbitzaria gatik eta Jerusalem hautatu dudana gatik, leinu bat emanen diot zure semeari.

14. Bada Jaunak etsaitzat Salomoni eraiki zaroen Adad Idumearra, errege odolekoa, Edomen egoten zena.

15. Ezen Idumean zenean Dabid, eta Joab, armadako buruzagia igan zenean hilak zirenen ehortzera, eta Idumean gizonki zen guzia hil zuenean,

16. (Ezik sei hilabetez han egotu ziren Joab eta Israel guzia Idumean gizonkiak oro hil zetzazten arteo),

17. Adad ihes goan zen bera eta Idumea haren aitaren zerbitzariarik zenbait harekin, Egiptoan sartzeko. Bada, Adad haur ttipittoa zen.

18. Madiandik jaiki ondoan, Pharanera goan ziren, Pharango gizonetarik hartu zituzten eta sarthu ziren Egiptoan Egiptoko errege Faraonen gana, zeinak Adadi eman baitzizkian etxe bat, bizikariak eta lur baten manamendua.

19. Eta Adadek hainitz begitharte ona atzeman zuen Faraonen baithan, hanbatetaraino non Faraonek emaztetzat eman baitzaroen bere emazte Taphnes erreginarene ahizpa propia.

20. Taphnesen ahizpak seme bat eman zaroen Jenubath deitzen zena, eta Taphnesek hura hazi zuen Faraonen etxean; eta Jenubath Faraonen baithan egoten zen haren semeekin.

21. Adadek Egiptoan nabaditu zuenean Dabid bere aitekin lokhartu zela, eta Joab armadako buruzagia, hila zela, Faraoni erran zaroen: Utz nezazu goan nadien ene lekhetara.

22. Eta Faraonek erran zaroen: Zeren eskasa duzu hemen zure tokietara goatera bilhatzeko? Bainan Adadek Thardetsi zuen: Deusere; ordean utz nezazu othoi.

23. Jainkoak Salomoni etsaitzat eraiki zaroen halaber Errazon Eliadaren semea, ihes egin zena bere nausiari, Adarezer, Sabako erregeri

24. Errazonek gizonak bildu zituen haren kontra, eta egin zen ohoinburuzagi, Dabidek hiltzen zituenean; eta Damesara goan ziren, han egotu ziren, eta Errazon Damasene errege ezarri zuten.

25. Israelen etsai izan zen, Salomon bizi izan zeno; eta holako bidegabea eta aiherra Adadek ekharri zizkian Israeli.

26. Nabathen semeak ere Jeroboam Efrathar Saredakoak, Salomonen zerbitzariak, zeinaren ama Sarba deitzen baitzen eta alharguna baitzen, eskua altxatu zuen erregeren kontra.

27. Eta huntarik ethorri zen haren bihurritza erregeren kontra, zeren Salomonek egin zuen Melo eta zelhaitu zuen bere aita Dabiden hiriko lezea.

28. Bada Jeroboam indar eta ahaletako gizona zen; eta Salomonek ikhusirik gizon-gazte horren baithan gaitasun eta berenazko ethortza ona, ezarri zuen Josepen etxe guziko zergen buruko.

29. Orduan gerthatu zen beraz Jeroboam ilkhi zela Jerusalemetik, eta bidean atzeman zuela Ahias profeta Silotarra, kapa berri batez estalia: bada, biak bakharrik ziren kanpoan.

30. Abiasek harturik soinean zuen kapa berria, hamabi zathitan hautsi zuen.



31. Eta Jeroboami erran zaroen: Har zatu hamar phuska, ezen hau dio Israelgo Jainko Jaunak: Huna non Salomonen eskutik urratuko dudan erresuma, eta zuri emanen datozkitzut hamar leinu.

32. Bada, Dabid ene zerbitzaria gatik geldituko zaizko leinu bat eta Jerusalemeko hiria, Israelgo leinu guzietarik hautatu dudana;

33. Zeren utzi nauen eta adoratu dituen Astarthe Sidondarren jainkosa, Kamos Moabitarren jainkoa eta Molok Amonen semeen jainkoa; eta zeren ez den ene bideez ibili, zuzentasuna begiratzeko ene aitzinean, ene manamenduak eta erabakiak, bene aita Dabidek bezala.

34. Ez dut halarik-ere erresuma guzia haren eskutik khenduko, baina aitzindari utziko dut bere biziko egun orotan Dabid ene zerbitzaria gatik, zeina baitzen ene hautukoa, zeinak begiratu izan baititu ene manu eta manamenduak.

35. Khenduko dut ordean erresuma horren semearen eskutik eta zuri emanen darozkitzut hamar leinu.

36. Horren semeari berriz, leinu bat emanen diot, argi bat bethi geldi dakioen ene zerbitzari Dabidi ene aitzinean Jerusalem, ene izena han egon dadientzat hautatu dudan hirian.

37. Baina zu hartuko zaitut; zure arimak lehiatzen dituen guzien gainean erreginatuko zare eta Israelen gainean izanen zare errege.

38. Entzuten badituztu beraz nik manatuko darozkitzudan guziak, ene bideetan ibiltzen bazare eta ene aitzinean zuzen dena egiten baduzu, ene manu eta manamenduak begiratzuz, Dabid ene zerbitzariak egin izan duen bezala, zurekin izanen naiz, etxe bat eginen darotzut sendoa, Dabidi egin diodan etxea bezalakoa, eta emanen darotzut Israel.

39. Eta hortan atsekabe emanen diot Dabiden odolari, ez bizkitartean bethi.

40. Salomonek beraz nahi izan zuen Jeroboam hilarazi; Jeroboam jaiki zen, ihes egin zuen Egiptora, Sefak Egiptoko erregeren gana, eta Egipton egotu izan zen Salomon hil arteo.

41. Salomonen gainerako hitzak berriz, eta harek egin zituen guziak eta haren zuhurtzia, hara iskribatuak direla Salomonen egunetako egintzetako liburuan.

42. Hura Israel guziaren gainean Jerusalem erreginatu zen egunak heldu ziren berrogoi urthetara.

43. Eta Salomon bere arbasoekin lokhartu zen; ehortzia izan zen bere aita Dabiden hirian, eta Erroboam haren semea erreginatu zen haren orde.

## XII. KAP.

1. Bada, Erroboam Sikemera ethorri izan zen, ezen harat bildua zen Israel guzia hura errege ezartzera.

2. Baina Jeroboamek, Nabathen semeak, Egipton zelarik oraino Salomon erregearen aitzinetik ihes, aditurik haren hil-herria, bihurtu zen Egiptotik.

3. Mandatariak igorri ziozkaten eta deithu zuten Jeroboam eta Israelgo oste guzia ethorri ziren beraz eta Erroboami mintzatu ziren erranez:

4. Zure aitak uztarririk gogorrena ezarri daroku gainean. Hargatik aphur bat guti zazu orai zure aitaren manamenduko gogortasun handitik, eta gure gainean ezarri duen uztarriaren dorphetasunetik, eta guk zerhitzatuko zaitugu.

5. Erroboamek erran zaroeten: Zoazte hirugarren eguna arteo, eta itzul zaizte ene gana. Populua goan zenean,

6. Erroboam erregeak batzarre bat iduki zuen bere aita Salomonen aitzinera biltzen ziren zaharrekin hura bizi zelarik, eta erran zuen: Zer kontseilu ematen darotzue, populu horri ihardets dezodantzat?

7. Haukiek erran zaroten: Populu horri egun jausten bazaizkio, amor ematen badiozu eta bere galdea onhesten, eta solas eztiak ematen badiozkatzu, bethiko izanen da zure zerbitzuan.

8. Erroboamek bazterrerat utzi zuen zaharrek eman zaroten kontseilua, eta behartu zituen harekin haziak eta harekin egoten ziren gizon-gazteak,

9. Eta erran zaroeten: Zer kontseilu ematen darotzue ihardesteko populu horri, zeinak erran baitarot: Axit zazu zure aitak gure gainean ezarri duen uztarria?

10. Harekin haziak izan ziren gizon-gazteek ihardetsi zaroten: Hula mintza zaite populu horri, zeina mintzatu baitzaitzu, zioelarik: Zure aitak dorphetu du gure uztarria, zuk arin gaitzatu. Hula mintza zakizkiote: Ene erhirik xikiena lodiagoa da ene aitaren bizkarra baino.

11. Diozue ene aitak uztarri dorphea ezarri duela zuen gainean; eta nik dorpheagotuko dut oraino zuen uztarria; ene aitak azoteaz jo zaituztete, eta nik harrobiz joko zaituztet.

12. Beraz hirugarren egunean Jeroboam eta populu guzia Erroboamen gana ethorri ziren, errege mintzatu bezala, erran zuenean: Itzul zaizte ene gana hirugarren egunean.

13. Eta erregek, bazterrerat utzirik zaharrek eman zaroten kontseilua, gogorki ihardetsi zaroen populuari,



14. Eta gizon-gazteen kontseiluaren arabera mintzatu zitzaioen, erranez: Ene aitak dorphetu du zuen uztarrria; nik berriz, dorpheagotuko dut oraino; ene aitak azoteaz jo zaituzte; nik berriz, harrobiz joko zaituztet.

15. Eta erregek etzuen populua onhetsi, zeren haren ganik aldaratu baitien Jauna, bere hitzari bide emateko, Ahas Silontarraren arartekoz Jeroboam Nabathen semeari erran izan zaroenari.

16. Hargatik populua ikhusirik erregek etzituela nahi izan entzun, ihardetsi zaroen erranez: Zer ikhusteko dugu Dabiden baithan? edo zer primantza Isairen semearen baithan? Israel, habil hire olhetara; Dabid, ikhusak orai hire etxea. Eta Israel goan zen bere olhetara.

17. Bainan Erroboam Judako hirietan egoten ziren Israelgo seme guzien gainean erreginatu zen.

18. Erroboamek igorri zuen beraz Aduram, zergen buruko zena; eta Israel guziak harrikatu zuen eta hil zen. Bada Erroboam erregea berehala igan zen bere orga-lasterrera eta ihes egin zuen Jerusalemara.

19. Eta Israel berezi zen Dabiden etxea ganik egungo eguna arteo.

20. Bada, gerthatu zen Israel guziak aditu zuenean Jeroboam itzuli zela, igorri zuela haren bilha, eta batera bildurik deithu zutela eta errege ezarri Israel guziaren gainean. Judaren leinu bakharra baizik etzen Dabiden etxeari jarraiki.

21. Bainan Erroboam ethorri zen Jerusalemara; bildu zituen Judako etxe guzia eta Benjaminen leinua, ehun eta lau hogoi mila gizon hautak, Israelen etxearen gudukatzeko eta erresuma bihurtzekotzat Erroboami Salomonen semeari.

22. Orduan Jauna mintzatu zen Semeiasi, Jainkoaren gizonari, erraten zaroelarik:

23. Mintza zakizkiote Erroboami, Salomonen seme Judako erregeri, Judako eta Benjaminigo etxe guziari eta populuko gainerakoei, erraten diozutelarik:

24. Hau dio Jaunak: Ez bezaizte igan, ez-eta guduka Israelgo zuen anaien kontra; gizona bere etxera itzul bedi, ezen hau guzia ene eskutik heldu da. Entzun zuten Jaunaren hitza, eta bidetik itzuli ziren Jaunak manatu zaroeten bezala.

25. Bada Jeroboamek altxatu zuen Sikemgo hiria Efraimgo mendian, eta han egin zuen bere egoitza. Gero handik ilkhirik altxatu zuen Phanuel,

26. Eta Jeroboamek egin zuen bere baithan: Erresuma orai bihurtuko zaio Dabiden etxeari,

27. Populu hau igaiten bada, Jerulalemen Jaunaren etxean sakrifizio egitera; eta populua hunen bihotza itzuliko zaio bere jaunari, Erroboam Judako erregeri, eta ni hilen naute eta bihurtuko dira haren gana.

28. Eta bere baithan egonik, egin zituen bi aratxe urhezko, eta populari erran zaroen: Ez bezaizte igan Jerusalemara gehiago: Israel, huna zure jainkoak Egiptoko lurretik atheratu zaituztenak.

29. Ezarri zituen bat Bethelen eta bertzea Danen;

30. Eta hori izan zen bekhatu bide bat, ezik populua aratxearen adoratzeraz goaten zen Daneraino.

31. Eta tenploak egin zituen lekhu goretan, eta aphezak populuko azkenetarik, Lebiren seme etzirenetarik.

32. Besta-buru bat ezarri zuen zortzigarren hilabethean, hilabethearen hamabortzgarreneko, Judan zelebratzen zen bestaren arara. Eta orobat egin zuen Bethelen, aldarera iganek, egin zituen aratxeei imolatzeko; eta Bethelen ezarri zituen aphezak egin zituen lekhu goretako.

33. Eta bere oldetara berezi zuen zortzigarren hilabeteke hamabortzgarren egunean, Bethelen altxatu zuen aldarera igan zen; eta besta egin zioten Israelgo semeei, eta aldarera igan zen isentsuaren erretzera.

### XIII. KAP.

1. Eta hara non Jainkoaren gizon bat Judatik Bethelera ethorri zen Jaunaren hitzean, Jeroboam aldarean xutik zelarik eta isentsua arthikitzen zuelarik.

2. Eta oiuhu egin zuen Jaunaren izenean aldarearen kontra, eta erran zuen: Aldarea, aldarea, hau zioek Jaunak: Huna non Dabiden etxeari seme bat sorthuko zaioen Josias deithuko dena, eta hire gainean imolatuko ditik orai hire gainean isentsua erretzen duten aphezak, eta gizon-hezurak hire gainean erreko ditik.

3. Eta orduan ezagutkari bat eman zuen, zioelarik: Hau izanen da ezagutkaria Jauna dela mintzatu: Horra aldarea urratuko dela, eta hortako hautsa barraiatuko.

4. Erregek aditu zuenean aldarearen kontra Bethelen Jainkoaren gizonak goraki atheratu zuen solasa, aldaretik eskua hedatu zuen, zioelarik: Har zazue. Eta ihartu zitzaioen haren kontra hedatu zuen eskua, eta ezin bildu zuen bere ganat.

5. Aldarea ere urrutu zen, eta hautsa aldaretik barraiatu zen, Jainkoaren gizonak Jaunaren izenean aitzinetik eman zuen ezagutkariaren arabera.



6. Eta erregek erran zaroen Jainkoaren gizonari: Errekei zazu zure Jainko Jaunaren begithartea, eta othoitz egizu enetzat bihur dakidan ene eskua. Jainkoaren gizonak othoiztu zuen Jaunaren begithartea eta erregeri bihurtu zitzaioen bere eskua eta egin zen aitzinean izana zen bezala.

7. Bada, erregek erran zaroen Jainkoaren gizonari: Zato enekin etxera barazkaitera, eta emanen darozkitzut dohainak.

8. Eta Jainkoaren gizonak ihardetsi zaroen erregeri: Eman bazinezat ere zure etxearen erdia, ez naiz zurekin ethorriko, eta ez dut ogirik janen, ez urik edanen lekhu huntan,

9. Ezik hula zait manatua, mezutu nauen Jaunaren hitzean: Ez duzu hor ez ogirik janen, ez urik edanen, eta etzare ethorri bidez itzuliko.

10. Goan zen beraz bertze bide batez eta etzen itzuli Bethelera ethorri zen bidez.

11. Bada, Bethelen egoten zen profeta zahar bat zeinari ethorri baitzitzizkon bere semeak, eta erran ziozkaten egun hartan Jainkoaren gizonak Bethelen egin zituen egintza guziak; eta beren aitari khondatu ziozkaten erregeri erran zituen solas guziak.

12. Eta aitak erran zaroeten: Zein bidez goan da? Bere semeek erakutsi zioten bidea zeintaz goan baitzen Judatik ethorri zen Jainkoaren gizona.

13. Eta bere semeei erran zaroeten: Xuxen darotazue ene astoa. Haukiek harbalda ezarri ondoan, igan zen gainera.

14. Goan zen Jainkoaren gizonaren ondotik; atzeman zuen tirrimintin baten azpian jarria eta erran zaroen: Zu zare Jainkoaren gizona Judatik ethorri zarena? Ihardetsi zuen: Bai, ni naiz.

15. Eta erran zaroen: Zato ene etxera ogiaren jatera.

16. Hunek ihardetsi zuen: Ez naiteke itzul, ez zurekin ethor, eta ez dut toki huntan ez ogirik janen, ez urik edanen;

17. Ezen Jauna mintzatu zait Jaun hitzaz, zioelarik: Ez duzu ogirik janen, ez urik edanen, eta etzare itzuliko goanen zaren bidez.

18. Bertzeak erran zaroen: Ni ere zu iduri profeta naiz; eta aingeru bat mintzatu zait Jaunaren hitzaz, dioelarik: Itzularaz zazu zurekin zure etxera, ogia jan dezan eta ura edan dezan. Enganatu zuen,

19. Eta erakharri zuen berekin. Jan zuen beraz ogia haren etxean, eta ura edan zuen.

20. Eta mahainean jarriak zirelarik, hura gibelerat erakharri zuen profetari mintzatu zen Jauna.

21. Eta hunek oihuz erran zaroen Judatik ethorri zen Jainkoaren gizonari: Hau dio Jaunak: Jaunaren ahoari zeren etzaren izan ethordun; zeren ez duzun begiratu zure Jainko Jaunak eman manua;

22. Zeren itzuli zaren, ogia jan eta ura edan ditutzun, Jaunak ez ogirik jateaz ez-eta urik edateaz manatu darotzun lekhu, zure gorputza hil-eta ez da eramana izanen zure arbasoen hobira.

23. Jan eta edan zuenean, bere astoari harbalda ezarri zaroen gibelerat erakharri zuen profetarentzat.

24. Eta goan zenean, lehoi batek atzeman eta hil zuen, eta haren gorputza bidearen gainean etzana gelditu zen. Astoa berriz, haren ondoan zagoen, eta lehoina gorputzaren aldean.

25. Eta hara non iragaiten ziren gizon batzuek ikhusi zuten gorputza bidean etzana eta lehoina haren aldean jarria. Eta ethorri ziren, eta berria hedatu zuten profeta zahar hura egoten zen hirian.

26. Bertzea bidetik gibelerat erakharri zuen profeta hunek aditu zuenean hori, erran zuen: Jainkoaren gizon bat da, Jaunaren ahoari ethordun izan ez dena, eta Jaunak lehoinari eman dio; eta lehoinak phorrokatu eta hil du, Jaunak erran dioen hitzaren arabera.

27. Bere semeei erran zaroeten: Xuxen darotazue asto bat. Haukiek astoari harbalda ezan ondoan,

28. Eta profeta zaharra goan zenean, bertzearen gorputza bidean etzana atzeman zuen, eta leoina eta astoa gorputzaren aldean. Lehoinak etzuen gorputzetik jan, eta etzioen astoari minik egin.

29. Profetak hartu zuen beraz Jainkoaren gizonaren gorputza, ezarri zuen astoaren gainean, eta itzulirik ekharri zuen bera egoten zen hirira, haren deithoratzeko.

30. Haren gorputza ezarri zuen bere hobian, eta deithoratu zuten, erranez: Ai! ai! ene anaia!

31. Deithoratu zutenean, profeta zaharrak bere semeei erran zaroeten: Hila izanen naizenean, ehortz nezazue Jainkoaren gizona ehortzia den hobian: horren hezurren aldean ezar zatzue ene hezurak.

32. Ezen horrek Jaunaren izenean aitzinerat atheratu hitza Bethelen den aldairearen eta Samariako hirietan diren lekhu goretako tenplo guzien kontra gerthatuko da segurki.

33. Horiez geroztik, Jeroboam etzen bihurtu bere bide guziz tzarretik, bainan aitzitik populuko azkenenatarik egin zituen lekhu goretako aphezak; nahi zuten orok bethetzen zuten haren eskua, eta lekhu goretako aphez egiten ziren.



34. Aria hortaz bekhatu egin zuen Jeroboamen etxeak, eta eragotzia izan zen, eta lurraren gainetik xahutua.

#### XIV. KAP.

1. Orduko egunetan eritu zen Abia, Jeroboamen semea.
2. Eta Jeroboamek bere emazteari erran zaroen: Jaiki zaite eta soinekoz alda, ezagut etzezatzen Jeroboamen emaztea zarela; eta zoazi Silora non egoten baita Ahias profeta, zeinak erran izan baitarot populu hunen gainean erreginatzekoa nintzela.
3. Halaber eskuan har zatzu hamar ogi, ophil bat eta untzi bat ezti bezetha, eta haren gana zoazi; ezen harek erranen darotzu zer gerthatuko zaroen haur huni.
4. Erran bezala egin zuen Jeroboamen emazteak. Jaikirik goan zen Silora, eta ethorri zen Ahiasen etxera. Hunek ordean etzezakeen ikhus, adinaren handiz lanbrotu zitzaizkoelakotz begiak.
5. Bada Jaunak erran zaroen Ahias: Huna non Jeroboamen emaztea sartzen den bere seme eri duenaren gainean zure kontsultatzeraz. Hau eta hau erranen diozkatzu. Beraz nola sartzen baitzen eta nor zen gordetzen baitzuen,
6. Athetik sartzean zangoz egin zuen harrabotsa aditu zuen Ahiasak, eta erran zuen: Sar zaite Jeroboamen andrea; zertako egiten duzu alegia bertze bat? ni berriz, berri txar emaile igorria natzaitzu.
7. Zoaz eta Jerohoami errozu: Hau dio Israelgo Jainko Jaunak: Zeren goratu zaitudan populuaren erditik, eta eman izan darotzudan buruzagitasuna Israelgo ene populuaren gainean;
8. Eta urratu dudan Dabiden etxearen erreinua; eta etzaren izatu Dabid ene zerbitzaria bezala, zeinak begiratu baititu ene manamenduak, eta jarraiki baitzait bere bihotz guziz, ene aitzinean gogaragarri zena eginez;
9. Baina zeren egin duzun gaizki gehiago zure aitzinean izatu diren guziek baino, eta egin dituzun jainko arrotzak eta urthuak, ni hasarrearazteko; eta zeren ni zure gibelerat arthiki nauzun;
10. Hargatik huna non nik ondikoak erorraraziko ditudan Jeroboamen etxearen gainera; joko ditut Jeroboamenganikakoak, harrasiari gernua ixurtzen duena, eta hertsia dagoena, eta azkena Israelen, eta xahutuko ditut Jeroboamen etxearen ondarrak, hala nola xahutzen ohi baitira zikhinak garbitasuna egin arteo.
11. Jeroboamenganikakoak hirian hilen direnak, zakhurrek janen dituzte; bazterretan hilen direnak berriz, zeruko hegastinek iretsiko dituzte, ezik Jauna da mintzatu.

12. Zu beraz jaiki zaite eta zoazi zure etxera; eta zangoa hirian sartzen duzunean berean, haurra hilen da.
13. Israel guziak deithoratuko eta ehortziko du; ezik hura bakharra izanen da Jeroboamenganikakoetarik hobira sarthuko dutena, zeren begitharte egin baitio Israelgo Jainko Jaunak Jeroboamen etxean.
14. Bada Jaunak Israelen gainean ezarri du errege bat, Jeroboamen etxea joko duena egun halako batez, eta halako ordu batez.
15. Eta Jainko Jaunak joko du Israel, khanabera urean iharrosten ohi den bezala; eta Israel khenduko du horien arbasoei eman izan daroeten lur on huntarik, eta hibaiaz haindian haizatuko ditu, zeren dituzten lukuak egin Jaunaren hasarrearazteko.
16. Eta Jaunak emanen du Israel Jeroboamen bekhatuen gatik, Jeroboamek bekhatu egin eta Israeli eginarazi duelakotz.
17. Jaiki zen beraz Jeroboamen emaztea, goan zen eta ethorri zen Thersara; eta hura etxeko athelasean sartzearekin, haurra hil izan zen,
18. Eta ehortzia izan zen. Israel guziak deithoratu zuen, Jaunak bere zerbitzari Ahias profetaren ahoz erran izan zuen hitzaren arabera.
19. Bada, Jeroboamen gainerako egintzak, nola gudukatu eta nola erreginatu zen, iskribatuak dira Israelgo erregeen egunetako egintzen liburuan.
20. Eta Jeroboam erreginatu zen egunak heldu izan ziren hogoi eta bi urthetara; eta lokhartu zen bere arbasoekin, eta Nadab haren semea erreginatu zen haren orde.
21. Bada, Erroboam Salomonen semea Judan erreginatu zen. Berrogoi eta bat urthe zituen erreginatzen hasi zenean. Hamazazpi urthez erreginatu zen Jerusalem, Jaunak bere izenaren ezartzeko Israelgo leinu guzietarik hautatu zuen hirian. Haren ama Naama Amontarra deitzen zen.
22. Eta Judak gaizkia egin zuen Jaunaren aitzinean. Egin zituzten bekhatuez Jauna gehiago samurrarazi zuten hekien aitek beren guziez hasarrearazi zuten baino.
23. Ezik aldareak egin zituzten, eta jainko-moldeak, eta lukuak, munho gora guzietan eta zuhaitz hostotsu guzian azpian.
24. Eta lur hartan izan ere ziren emagizonak, eta Jaunak Israelen aitzinean xahutu zituen jendaien tzarkeria guziak egin zituzten.
25. Erroboamen erreinuko bortzgarren urthean, Sesak Egiptoko errege igan zen Jerusalem.
26. Hustu zituen Jaunaren etxeko khutxak eta erregeren khutxak; bazter guziak larrutu zituen, eta Salomonek egin urrezko erredolak ere eramane zituen.



27. Errege Erroboamek hekien orde egin zituen kobrezko erredolak eta ezarri zituen erredolarien aitzindarien eskuetan, eta errege-etxeko athe aitzinean zain egoten zirenen eskuetan.

28. Eta errege sartzen zenean Jaunaren etxean, aitzinean goateko kargua zutenek ekhartzen zituzten eta gero bihurtzen zituzten erredolarien harmategira.

29. Eta Erroboamen gainerako egintzak eta egin zituen guziak iskribatuak dira Judako erregeen egunetako egintzen liburuan.

30. Eta bethi gerla izan zen Erroboamen eta Jeroboamen artean.

31. Erroboam lokhartu zen bere arbasoekin, eta hekiekin ehortzia izan zen Dabiden hirian. Haren amaren izena zen Naama Amontarra. Abiam haren semea erreginatu zen haren orde.

### XV. KAP.

1. Beraz Jeroboam Nabathen semearen erreinuko hemezortzigarren urthean, Abiam erreginatu zen Judaren gainean.

2. Hirur urthez erreginatu zen Jerusalem. Haren amaren izena zen Maaka, Abesalomen alaba.

3. Haren aitak hartaz lehenago egin zituen bekhatu guzietan ibili zen; eta bere bihotza etzuen bere Jainko Jaunaren aitzinean garbi, Dabid haren aitaren bihotza izatu zen bezala.

4. Bainan bere Jainko Jaunak Dabid gatik argi bat eman zaroen Jerusalem, seme bat ondotik ematean Jerusalem gohortzeko;

5. Dabidek egin zuelakotz Jaunaren begietan zuzen zena, eta bere biziko egun guzietan etzelakotz harek manatu orotarik makhurtu, Urias Hethearraren gainean baizik.

6. Bizkitartean Erroboamen eta Jeroboamen artean gerla izan zen, Erroboamen biziko epe guzian.

7. Abiamen egintza eta egin zituen guziak ez othe dira iskribatuak Judako erregeen egunetako egintzen liburuan? Eta gudu bat eman zen Abiamen eta Jeroboamen artean.

8. Eta Abiam bere aitekin lokhartu zen eta Dabiden hirian ehortzi zuten. Asa haren semea erreginatu zen haren orde.

9. Beraz Israelgo errege Jeroboamen hogoigarren urthean erreginatu zen Asa Judako errege,

10. Eta berrogoi eta bat urthez erreginatu zen Jerusalem. Haren amaren izena zen Maaka Abesalomen alaba.

11. Eta Asa zuzen ibili zen Jaunaren aitzinean, Dabid bere aita bezala.

12. Bere lurretik khendu zituen emagizonak, eta xahutu zituen bere aitek eginikako jainkordeen lohikeria guziak.

13. Bertzalde urrundu zuen orobat bere ama Maaka, etzadiantzat buruzagi izan Priaporen sakrifizioetan, eta hari kontsekratu zaroen lukuan; eragotzi zuen haren zilhoa, phorrokatu haren idola izigarria eta erre Zedrongo errekan.

14. Lekhu gorak etzituen eragotzi. Halarik-ere Asaren bihotza haren bizi guzian xahu izan zen Jaunaren aitzinean;

15. Eta Jaunaren etxerat ekharri zituen haren aitak sainduetsi eta botuz eman zituen zilharra, urhea eta untiak.

16. Bada gerlate izan zen Asaren eta Israelgo errege Baasaren artean bizi izan zireno.

17. Baasa Israelgo errege igan ere zen Judara, eta altxatu zuen Errama; nihor ez ilkhi, ez sar ahal zedin Asa Judako erregeren aldekoetarik.

18. Hargatik Arak harturik Jaunaren etxeko khutxetan eta errege-etxeko khutxetan gelditu zen urhe eta zilhar guzia, ezarri zuen bere zerbitzarien eskuetan, eta igorri zaroen Damasen egoten zen Siriako errege Benadad Tabremonen semeari. Tabremon baitzen Hesionen semea. Eta gaztiatu zaroen:

19. Batasun bada zure eta ene artean, hala nola zure aitaren eta ene aitaren artean; hargatik igorri darozkitzut emaitzak, urhea eta zilharra; eta galdegiten dut ethor zaitezzen eta alferretara bihur dezazun Israelgo errege Baasarekin duzun batasuna, eta harek ene gatik gibelerat egin dezan.

20. Benadadek onhetsirik Asa erregearen galdea, bere armadako buruzagiak igorri zituen Israelgo hiriatar, eta jo zituzten Ahion, Dan, Abel-etxe Maakarena eta Zeneroth guzia, erran nahi baita Nefthaliren lurra oro.

21. Baasak aditu zuenean hori, utzi zuen Erramaren altxatzea eta Thersara bihurtu zen.

22. Bada, Asa erregeak mezua igorri zuen Juda guzira, zioelarik: Nihor ez bedi aitzakietan geldi. Eta Erramatik eraman zituzten harriak eta zurak zeinetaz Baasak egin baitzuen Errama, eta hekietaz Asa erregeak egin zituen Gabaa Benjaminen eta Maspha.

23. Eta Asaren gainerako egintza guziak, haren bihotzotasun guziak, eta egin zituenak oro, eta altxatu zituen hiriak ez othe dira iskribatuak Judako erregeen egunetako egintzen liburuan? Eta bere zahartzean zangoak hebaindu zitzaizkon.





24. Eta lokhartu zen bere aitekin, eta hekiekin ehortzia izan zen Dabid bere aitaren hirian. Eta Josafat haren semea erreginatu zen haren orde.

25. Nadab berriz, Jeroboamen semea Israelen gainean erreginatu zen Asa Judako erregeren bigarren urthean, eta bi urthez erreginatu zen Israelen gainean.

26. Jaunaren aitzinean gaizki dena egin zuen; ibili zen bere aitaren bideetan eta bekhatuetan zeinetaz Israel bekhatutara erorrarazi baitzuen.

27. Bainan Baasa Ahiasen semeak, Isakarren etxeakoak zelatatu eta hil zuen Jebethonen, zeina Filistindarren hiri bat baita; ezen Nadabek eta Israeldarrek orduan sethiatzen zuten Jebethon.

28. Baasak hil zuen beraz Nadab, Asa Judako erregeren hirugarren urthean, eta erreginatu zen haren orde.

29. Eta erregetu ondoan, jo zuen Jeroboamen etxe guzia; haren odolikorik etzuen bakhar bat ere utzi, guzia xahutu arteo, Jaunak bere zerbitzari Ahias Silontarraren arartekoz erran zuen hitzaren arabera,

30. Jeroboamek egin zituen bekhatuen gatik eta zeinetaz bekhatu eginarazi baitzaroen Israeli, eta Israelgo Jainko Jauna hasarrearazi zuen tzarkeria gatik.

31. Nadaben gainerako egintzak berriz, eta harek egin zituen guziak, iskribatuak ez othe dira Israelgo erregeen egunetako egintzen liburuan?

32. Eta gerlate izan zen Asaren eta Israelgo errege Baasaren artean hekien biziko egun oroz.

33. Aita, Judako erregeren hirugarren urthetik, Baasa Ahiasen semea erreginatu zen hogoi eta lau urthez Thersan Israel guziaren gainean.

34. Gaizkia egin zuen Jaunaren aitzinean eta ibili zen Jeroboamen bidean eta bekhatuetan, zeinetaz Israeli bekhatu eginarazi bai tzaroen.

## XVI. KAP.

1. Bada, Jaunaren hitza Baasaren kontra atheratu zen Jehuri, Hananiren semeari, erranez:

2. Herrautsetik goratu eta ene Israelgo populuaren gainean buruzagi ezarri zaitudalakotz, zu ordainez ibili zare Jeroboamen bidean, eta bekhatutan erorrarazi duzu Israelgo ene populua, hekien bekhatuez ene samurrarazteko.

3. Huna nik ebakiko dudala Baasaren ondoregoa eta haren etxeo ondoregoa, eta zure etxea eginen dut Nabathen seme Jeroboamen etxea egin dudana bezala.

4. Basaaren odolekoetarik hilen dena hirian, zakhurrek janen dute; eta bazterretau hilen dena, zeruko hegastinek dute iretsiko.

5. Baasaren egintzak berriz, eta egin zituen guziak, eta haren guduak, ez othe dira iskribatuak Israelgo erregeen egunetako egintzen liburuan?

6. Baasa lokhartu zen beraz bere arbasoekin; Thersan ehortzia izan zen, eta Ela haren semea erreginatu zen haren orde.

7. Bainan Hanariren seme Jehu profeta baithan Jaunaren hitza atheratu zenean Baasaren kontra, eta haren etxearen kontra, eta Jaunaren aitzinean egin zituen gaizki guzien kontra, Jaunaren hasarrearazteko bere eskuetako egintzez bilhaka zedintzat Jeroboamen etxea bezala; horren gatik hilarazi zuen, erran nahi baita, Baasak Jehu profeta Hananiren semea.

8. Asa, Judako erregeren hogoi eta seigarren urthetik, Ela Baasaren semea bi urthez Therfan erreginatu zen Israelen gainean.

9. Eta haren kontra bihurtu zen Zانبri haren zerbitzaria, zaldizkoen erdian buruzagia. Bada Ela Therfan edaten hari eta hordia zen Therfako buruzagi Arfaren etxean.

10. Zانبri beraz gainera jauzirik, jo eta hil zuen, Judako errege Asaren hogoi eta zazpigarren urthean, eta erreginatu zen haren orde.

11. Eta erregetu eta haren tronuan jarri zenean, Baasaren etxe guzia jo zuen, eta hartarik etzuen utzi harrasiari gernua ixurtzen zuenik, ez-eta ahaiderik, ez adiskiderik.

12. Eta Zانبrik xahutu zuen Baasaren etxe guzia, Jaunak Jehu profetaren arartekoz Baasari erran zaroen hitzaren arabera,

13. Baasaren eta haren seme Elaren bekhatu guzien gatik, bekhatu egin zutelakotz eta Israeli eginarazi, Israelgo Jainko Jauna beren zorokeriez samurraraziz.

14. Elaren egintzak berriz, eta harek egin zituen guziak ez othe dira iskribatuak Israelgo erregeen egunetako egintzen liburuan?

15. Judako errege Asaren hogoi eta zazpigarren urthean, Zانبri zazpi egunez erreginatu zen Thersan. Bada, armadak sethiatzen zuen Jebethon Filistindarren hiria.

16. Aditurik Zانبri bihurtu zela eta errege hil zuela, Israel guziak errege egin zuen Amri, zeina baitzen Israelgo armadaren buruzagi orduan kanpetan.

17. Amri igan zen beraz Jebethonetik eta Israel guzia harekin, eta sethiatzen zuten Thersa.

18. Bainan Zانبrik ikhustenez hiria hartua izatera zohala, jauregian sarthu zen, eta bere burua erre zuen errege-etxearekin, eta hil zen



19. Egin zituen bekhatuen erdian, Jaunaren aitzinean gaizkia eginez, eta Jeroboamen bidean ibiliz, eta haren bekhatuan zinetaz Israel bekhatu erorrarazi izan baitzuen.

20. Eta Zanbriren gainerako egintza, zelata eta dorphekeriak ez othe dira iskribatuak Israelgo erregeen egunetako egintzen liburuan?

21. Orduan populua bi zathitan berezi zen; populuaren erdi bat jarraitzen zen Thebniri Jinethen semeari, hura errege ezartzeko; eta berze erdia Amriri.

22. Bainan Amrirekin zen populua nausitu zen, Thebniri Jinethen semeari jarraitzen zen populuari; hil zen Thebni, eta Amri erreginatu zen.

23. Judako errege Asaren hogoi eta hamekagarren urthetik, Amri hamabi urthez erreginatu zen Israelen gainean; Therfin erreginatu zen sei urthez.

24. Somerren ganik Samariako mendia erosi zuen bi talendu zilharrezkotan. Han egin zuen hiri bat Samaria deithu zuen mendiaren jabe Somerren izenetik.

25. Bada Amrik gaizkia egin zuen Jaunaren aitzinean, eta hura baino lehen izatu ziren guzien gainetik, tzarki haritu zen.

26. Ibili zen Nabathen seme Jeroboamen bide guzian eta haren bekhatuetan, zinetaz Israel bekhatu erorrarazi baitzuen, bere zorokeriez hasarrearazteko Israelgo Jainko Jauna.

27. Eta Amriren gainerako egintzak eta erran zituen guduak ez othe dira iskribatuak Israelgo erregeen egunetako egintzen liburuan?

28. Amri lokhartu zen bere arbasoekin, eta ehortzia izan zen Samarian, eta Akab haren semea erreginatu zen haren orde.

29. Bada, Akab Amriren semea Israelen gainean erreginatu zen Judako errege Asaren hogoi eta hemezortzigarren urthean. Akab Amriren semea erreginatu zen Samarian hogoi eta bi urthez.

30. Eta Akabek Amriren semeak gaizkia Jaunaren aitzinean egin zuen, hura baino lehen izan ziren guzien gainetik.

31. Etzitzaioen aski izatu Jeroboam Nabathen semearen bekhatuetan ibiltzea; gehiago dena emaztetzat hartu zuen Jezabel, Sidondarren errege Ethbaalen alaba. Eta goan zen eta zerbitzatu eta adoratu zuen Baal.

32. Eta Baalen aldarea ezarri zuen Samarian altxatu zuen Baalen tenploan.

33. Landatu zuen luku bat; eta Akab berhatuz goan zen bere lanean, Israelgo Jainko Jauna samurraziz haren aitzinean izatu ziren Israelgo errege guzien gainetik.

34. Haren egunetan, Hiel Bethelgoak altxatu zuen Jeriko. Abiram bere seme zaharrenaren gainean ezarri zituen hartako asentuak, eta hartako atheak ezarri zituen Segub bere azken semearen gainean, Jaunak Nunen seme Josueren ahoz erran zuen hitzaren arabera.

## XVII. KAP.

1. Eta Galaadeko egoiliarretarik batek Elias Thesbearrak erran zarenen Akabi: Bizi bedi Israelgo Jainko Jauna zeinaren aitzinean bainaiz, ez baita urthe haukietan ez ihintzik, ez uririk izanen, ez badira ene ahoko solasetik erortzen.

2. Eta Eliasi atheratu zitzaioen Jaunaren hitza, erraten zaroena:

3. Ilkhi zaite hortik eta zoaz iguzki-haize alderat; gorde zaite Karitheko errekan, Jordaneko parrean denean,

4. Eta han errekan edanen duzu, eta beleei manatu daroet han haz zaitzaten.

5. Goan zen beraz, eta egin zuen Jaunaren erranaren arabera; eta goanik jarri zen Karitheko errekan, Jordaneko parrean denean.

6. Beleek ere ogia eta jakiak ekhartzen ziozkaten goizetan, eta orobat ogia eta jakiak arratsetan, eta errekatik edaten zuen.

7. Bainan egunen buruan, erreka agortu zen; etzen ezik uritu lurra-  
ren gainera.

8. Eliasi atheratu zitzaioen beraz Jaunaren hitza, erraten zuelarik:

9. Jaiki zaite; zoaz Sidondarren Sareptara, eta han egonen zare; ezen han haz zaitzan manatu diot emazteki alhargun bati.

10. Jaiki eta goan zen Sareptara. Hiriko athera ethorri zenean, agertu zitzaioen emazteki alhargun bat, egur biltzen hari zena; deithu zuen eta erran zaroen: Indazu untzi batean ur xorta bat, edan dezadan.

11. Eta emaztekoa bilha zihoalarik, gibeletik oihu egin zaroen: Ogi ahamen bat ere, othoi ekhar darotazu eskuan.

12. Hunek ihardetsi zuen: Bizi bedi zure Jainko Jauna, zeren ez baitut ogirik, ahurraz atxik ahala irin baizik pitxer batean eta olio ikhin bat olio-untzian; eta orai biltzen ditut bi xixtapur, sar nedin eta hura xuxen dezadan enetzat eta ene semearentzat, eta janik hil gaitezen.

13. Eliasek erran zaroen: Ez lotsa, bainan zoaz eta egizu erran duzun bezala; lehenik ordean egizu enetzat irintto hartarik hautspeko ophil ttipitto bat, eta ekhar darotazu; zuretzat berriz eta zure semearentzat eginen duzu gero.



14. Ezen hau dio Jaunak Israelgo Jainkoak: Pitxer-irinak ez du eskas egingen eta olio-untzia ez da behehituko, Jaunak lurraren gainera uria emanen duen eguna arteo.

15. Emaztekoa goan zen eta Eliasen hitzaren arabera egin zuen. Eta Eliasek jan zuen, eta harek eta haren etxeak ere bai, eta egun hartarik,

16. Pitxer-irinak etzuen eskas egin eta olio-untzia etzen behehitu, Jaunak Eliasen arartekoz erran zuen hitzaren arabera.

17. Bada, gerthatu zen geroztik emazteki familiako ama haren semea eritu zela, eta gaitza hain zen borthitza, non hatsa ez baitzen muthikoan gelditu.

18. Emaztekiak erran zaroen beraz Eliasi: Zer da zure eta ene artean, Jainkoaren gizona? ala ethorri zare ni gana ene gaizkien orhoitzapenaren berritzera eta hil dezazun ene semea?

19. Eta Eliasek ihardetsi zaroen: Indazu zure semea. Eta hura hartu zuen haren altzotik, eraman zuen bera egoten zen gelara eta bere ohearen gainean ezarri zuen.

20. Eta Jaunari deihadar egin zaroen eta erran zuen: Ene Jainko Jauna, emazteki alhargun hau, zeinaren baithan ahal bezala hazten bainaiz, atsekabeztatu othe duzu bada hunen semea hilez?

21. Eta etzan zen eta hiruretan neurtu zuen bere burua haurraren gainean, eta Jaunari oihu egin zaroen, eta erran zuen: Ene Jainko Jauna, haur hunen arima bihur bedi, othoi, hunen gorphutzeroa.

22. Eta Jaunak entzun zuen Eliasen mintzoa; eta haurraren arima haren baithara itzuli zen eta birphiztu zen.

23. Eliasek hartu zuen haurra, bere gelatik eraman zuen etxe behere-ra, eman zaroen bere amari eta erran zaroen: Horra non duzun zure semea bizi.

24. Eta emaztekiak erran zaroen Eliasi: Orai huntan ezagutu dut Jainkoaren gizona zarela zu, eta Jaunaren hitza egiazkoa dela zure ahoan.

### XVIII. KAP.

1. Handik asko egunen buruan, Jauna Eliasi mintzatu zitzaioen, hirugarren urthean, erraten zaroelarik: Zoaz eta zure burua erakhutsozu Akabi, aria eman dezadan lurraren gainera.

2. Elias goan zen beraz bere burua Akabi erakhustera. Bada gosete muthiria zen Samarian.

3. Eta Akabek deithu zuen Abdias, bere etxe-arthatzailea. Bada, Abdias Jaunaren beldur handi zen;

4. Ezik noiz-ere Jezabelek hiltzen baitzituen Jaunaren profetak, Abdiasek hartu zituen ehun profeta; gorde zituen bi zilhoketan, berrogoi eta hamar batean eta berrogoi eta hamar bertzean, eta ogiz eta urez hazi zituen.

5. Akabek erran zaroen beraz Abdiasi: Zoaz bazterretako ithur-ur guzietara eta haran guzietara, hean atzeman dezakegun belharrik, eta itzuru zaldiak eta mandoak detzazkegun, eta aziendak oro hil ez ditezen.

6. Beren artean berezi zituzten lekhuak, hekien ingurakatzeko; Akab zihuan bide batez, eta Abdias bertze bide batez bere alde.

7. Eta Abdias bidean zelarik, Elias ethorri zitzaioen aitzinera. Ezagutu zuenean Abdiasek, erori zen ahuspez eta erran zaroen: Zu zare, Elias ene jauna?

8. Hunek ihardetsi zaroen: Ni naiz. Zoaz eta errozu zure nausiar: Elias hemen da.

9. Eta Abdiasek erran zuen: Zer egin dut bekhatu, ni zure zerbitzaria ezar nezazun Akaben eskuetan, harek ni hiltzeko?

10. Bizi bedi zure Jainko Jauna, zeren ez baita ez jendakirik, ez erri-nurik, zeinetara ene nausiak ez baitu zure bilhatzera igorri; eta orok ihardestenez: Ez da hemen, errekeitu ditu errege bakhotxa eta populuak, etzinelakotz nihon atzematen.

11. Eta orai diotazu niri; Zoaz eta errozu zure nausiar: Elias hemen da.

12. Eta zure ganik urrundu naitekeenean, Jaunaren izpirituak eramane zaitu nik ez dakidan lekhu batera; eta Akabi hurbildurik, emanen diot berria, eta nik zu ez khausitzenez, harek hilen nau. Bizkitartean zure zerbitzaria haurretik Jaunaren beldur da.

13. Ez othe zaituzte jakintsun egin, zu ene jauna, nik egin nuenaz Jezabelek hiltzen zituenean Jaunaren profetak, nola gorde nituen Jaunaren profetarik ehun gizon zilhoketan, berrogoi eta hamar batean, eta berrogoi eta hamar bertzean, eta nola hazi nituen ogiz eta urez?

14. Eta orai diozu: Zoaz eta errozu zure nausiar: Elias hemen da, harek gero ni hiltzeko?

15. Eliasek ihardetsi zaroen: Ala armadetako Jauna, zeinaren aitzinean bainaiz; egun agertuko natzaio Akabi.

16. Abdias goan zen beraz Akaben bidera, eta heldu zaroen gerthatu zena. Eta Akab Eliasen bidera ethorri zen.

17. Eta ikhustearekin erran zaroen: Zu zare Israel nahasten duzun hura?



18. Eliasek ihardetsi zuen: Ez dut nik Israel nahasi, bainan bai zuk eta zure aitaren etxeak, Jaunaren manamenduak bazterrerat utzi dituzuenek eta Baali jarraiki zaretenek.

19. Guzien gatik, igor zazu orai, eta ene gana, Karmelgo mendira bilaraz zatzu Israel guzia, eta Baalen lau ehun eta berrogoi eta hamar profetak, eta lukuetakoa lau ehun profetak, Jezabelen mahainetik jaten dutenak.

20. Akabek igorri zuen Israelgo seme guzietara, eta bilarazi zituen profetak Karmelgo mendira.

21. Bada, Elias populu guziari hurbildurik, erran zuen: Noiz arteo bi aldeetara egingen duzue maingu? Baldin Jauna bada Jainko, jarraik zakiozkite; Baal balin bada ordean jainko, zohazkiote ondotik. Eta populuak etzioen hitz bat ihardetsi.

22. Eta Eliasek populuari berriz erran zaroen: Ni gelditu naiz Jaunaren profeta bakharra; Baalen profetak ordean badira lau ehun eta berrogoi eta hamar.

23. Eman bekizkigu bi idi, eta hekiek berentzat bat hauta bezate, eta phuskaturik ezar bezate egurren gainean, bainan ez bezate azpitik surik eman: eta nik phuskatuko dut bertze idia eta egurren gainean ezarriko dut, bainan ez dut azpian surik emanen.

24. Zuen jainkoen izenak deith zatzue, eta nik deithuko dut ene Jaunaren izena: eta suaz entzumen gaituen Jainkoa, hura bera Jainko izan bedi. Populu guziak ihardestean erran zuen: Solasa guziz ona da.

25. Eliasek erran zaroeten beraz Baalen profetei: Hauta zazue idi bat, eta lehenik egizue, gehiago zaretelakotz; deith zatzue zuen jainkoen izenak eta surik azpitik ez eman.

26. Haukiek hartu ondoan eman zaroeten idia, xuxendu zuten, eta goizetik eguerdiraino hari ziren Baalen deitzen, erranez: Baal, entzun gaitzatzu. Bainan etzen mintzorik agertzen eta nihork etzuen ihardesten; eta egin zuten aldarearen gainetik iragaiten ziren.

27. Eta orduko eguerdi zelarik, Eliasek trufatzen zituen, erranez: Gorago oihu egizue; ezik jainko da, eta beharbada solasean dago, edo trika-lekhu zenbaitetan, edo bidean, edo lo dago segura, atzarrarazi behar da.

28. Deihadarka hari ziren beraz, eta beren azturaren arabera kharmitxak egiten zituzten beren buruei kanibetez eta lantzetez, odolez eztaite arteo.

29. Bainan eguerdi iragan ondoan, eta eginahalka hari zirenei sakrifizioa eskaintzen ohi den ordua ethorri zitzaizoten, eta etzen mintzorik aditzen, nihork etzuen ihardesten eta nihork etzitzen othoitz egileak entzuten.

30. Eliasek erran zaroen populu guziari: Zatozte ene gana. Eta populu hurbiltzearekin haren gana, xuxendu zuen urratua izana zen aldarea.

31. Eta hartu zituen hamabi harri Jakobean semeen leinuetako non-brearen arabera, Jakob zeinari mintzatu baitzitzaioen Jauna, zioelarik: Israel izanen da zure izena.

32. Harriekin aldare bat altxatu zuen Jaunaren izenean, eta ixtun bat egin zuen, bi hildoren zabalean bezala aldarearen inguruan.

33. Egurra xuxendu zuen, idia phuskatu eta egurren gainean ezarri.

34. Eta erran zuen: Urez lau pegar bethe zatzue eta ixur holokaustaren eta egurren gainera. Eta erran zuen berriz: Hori egizue bigarren aldiko. Bigarrenekoan egin zutenean, erran zuen: Hirugarren aldiko ere hori bera egizue. Eta hirugarrenekoan egin zuten,

35. Eta ura zurrufan zihoan aldare inguruan, eta ixtunaren erreka bethea zen.

36. Eta holokaustaren eskaintzeko ordua ethorri zenean, hurbildurik Elias profetak erran zuen: Abrahamen, eta Isaaken, eta Israelen Jainko Jauna, erakhutsazu egun Israelen Jainkoa zu zarella, eta ni zure zerbitzaria, eta zure manuen arabera egin ditudala haukiek oro.

37. Entzun nezazu, Jauna, entzun; ikhas dezan populu hunek zu zarella Jainko Jauna, eta zuk berritan itzuli ditutzula haukien bihotzak.

38. Eta Jaunaren sua erori zen, eta erre zituen holokausta, eta egurrak, eta harriak, eta herrautsa ere, edaten zuelarik ixtunean zen ura.

39. Hori ikhusi zuenean, populu guzia ahuspez erori zen, eta erran zuen: Jauna bera da Jainkoa, Jauna bera da Jainkoa.

40. Eta Eliasek erran zaroeten: Har zatzue Baalen profetak, eta horietarik bat bakharra itzur ez bedi. Hartu zituzten ondoan, Eliasek eraman zituen Zifongo errekarra eta han hil zituen.

41. Eta Eliasek erran zaroen Akabi: Igan zaite, jan eta edan zazu, ezik bada uri handi baten harrabotsa.

42. Akab igan zen jatera eta edatera. Elias, berriz, igan zen Karmel gainera, eta lurrera gurthurik, begithartea ezarri zuen bere belhaunen artean.

43. Eta erran zaroen bere muthilari: Igan zaite eta itsas-aldera begira zazu. Igan zenean eta begiratu zuen ondoan, hunek erran zuen: Ez da deusere. Eta? Ziasek erran zaroen berriz: Zazpi aldiz bihar zaite.

44. Eta zazpigarrenean, hara hedoi ttipitto bat gizonaren oin-hatza iduri igaiten zela itsasotik. Eliasek erran zuen: Igan zaite eta errozu Akabi: Uztar zatzu zaldiak orga-lasterrari, eta jauts zaite, uriak ez atzemateko.



45. Eta alde batera eta bertzera itzultzen zelarik, hara non zerua beltz-beltza egin zen, eta hedoiak, eta haizea eta uhar handi bat egin ziren. Akab beraz orga-lasterrera iganik Jezrahelera goan zen;

46. Eta Jaunaren eskua Eliasen gainean jarri zen; eta Elias, gerria tintaturik, Akaben aitzinean lasterka zihoan, Jezrahelera heldu zen arteo.

### XIX. KAP.

1. Bada, Akabek Jezabeli erran ziozkan Eliasek egin zituen guziak eta nola ezpatatz profeta guziak hil zituen.

2. Eta Jezabelek Eliasi gizon bat igorri zaroen, zioelarik: Jainkoek hau egin bezadate eta hura gainetik, baldin bihar tenor huntako hire arima ezartzen ez badiat hekietarik bakhoxaren arima bezala.

3. Elias izitu zen beraz, eta xutiturik gogoak ematen zaroen toki guzietara abiatu zen. Ethorri zen Bernabee Judakora eta han utzi zuen bere muthila,

4. Eta egun baten bidean ibili zen mortuan. Eta orre baten azpian jarri ondoan, hil zedin galdatu zaroen bere biziari, eta erran zuen: Aski dut, Jauna, ene bizia har zazu, ezen ez naiz ene arbasoak baino hobea.

5. Bere burua arthiki zuen eta lohakartu zen orrearen itzalpean. Eta hara non ukitu zuen Jaunaren aingeru batek, eta erran zaroen: Jaiki zaite eta jan zazu.

6. Eliasek begiratu zuen, eta hara haren buruaren ondoan hautspeko ogi bat eta untzi bat urez bethea. Jan zuen beraz eta edan, eta berriz lokhartu zen.

7. Eta bigarrenkotzat itzulirik Jaunaren aingeruak ukitu zuen eta erran zaroen: Jaiki zaite eta jan zazu, ezik bide handia egiteko gelditzen zaitzu.

8. Jaiki ondoan, jan eta edan zuen, eta hazkurri haren indarrean ibili zen berrogoi gau-egunez Horebeko Jaunaren mendiraino.

9. Eta harat heldu zenean, zilhoka batean egon zen; eta hara non Jauna mintzatu zitzaioen, eta erran zaroen: Elias, zer hari zare hor?

10. Hunek ihardetsi zuen: Kharrez gartua naiz armadetako Jainko Jaunarentzat, Israelgo semeek bazterrerat utzi dutelakotz zurekilako bata-suna; hautsi dituzte zure aldareak, ezpatatz hil dituzte zure profetak; ni bakharra naiz gelditua, eta ene biziaren ondoan dabilta, hau niri khendu nahiz.

11. Eta Jaunak erran zaroen: Ilkhi zaite eta xutik zaude mendian Jaunaren aitzinean. Eta hara Jauna iragan zela; eta haize handi muthiri bat jaiki zen mendiak gainazpikatuz, eta harkadiak phorroskatuz Jaunaren

aitzinean, eta Jauna etzen haize hartan; eta haizearen ondotik ethorri zen lur-ikhara bat, eta Jauna etzen ikhara hartan;

12. Eta ikhararen ondotik su bat, eta Jauna etzen su hartan. Suaren ondotik ethorri zen haize mehe baten xixtua.

13. Eliasek aditu zuenean hura, begithartea kapaz estali zuen, eta ilkhia zilhokako ahoan xutik gelditu zen; eta hara mintzo bat hari erraten zaroena: Zer hari zare hor, Elias? Eta hunek ihardetsi zuen:

14. Armadetako Jainko Jaunarentzat kharrez gartua naiz, Israelgo semeek bazterrerat utzi dutelakotz zurelikako patua; hautsi dituzte zure aldareak, ezpatatz zure profetak hil dituzte; ni bakharra naiz gelditua, eta ene biziaren ondotik dabilta, hau niri khendu nahiz.

15. Eta Jaunak erran zaroen: Zoaz eta itzul zaite zure bidez mortua barna Damasera; eta harat heldu zaretekeenean, Hazael errege gantzu zazu Siriaren gaineko;

16. Eta Jehu Namsiren semea errege gantzutuko duzu Israelen gaineko; Eliseo, berriz, Saphaten semea, zeina Abelmeulakoa baita, zure orde profeta gantzutuko duzu.

17. Eta gerthatuko da, Hazaelen ezpatari itzuriko dena, haina Jehuk hilen duela; eta Jehuren ezpatari itzuriko dena, haina Eliseok hilen duela.

18. Eta enetzat begiratu ditut Israelen zazpi mila gizon, zeinen belhaunak Baalen aitzinean gurthu ez baitira, eta hura adoratu ez duten aho guziak eskuari musu emanez.

19. Elias handik goan zen beraz, eta atzeman zuen Eliseo Saphaten semea hamabi idi uztarrirekin iraulden hari zela, eta bera zen hamabi idi uztarrirekin iraulden hari zirenatarik bat. Eta Elias haren gana ethorri zenean, bere kapa ezarri zuen haren gainean.

20. Idiak berehala utzirik, Eliseo goan zen Eliasen ondotik eta erran zaroen: Besarka biatzat, othoi ene ait-amak, eta hala jarraikiko natzitzu. Ihardetsi zaroen: Zoaz eta bihur zaite; ezik egin darotzut niri zagokitana.

21. Eliasen ganik itzulirik, Eliseok idi-pare bat hartu eta hil zuen; idien haragiak goldearen zurarekin erre zituen, populuari eman ziozkan, eta jan zituzten. Eta xutiturik goan zen, eta Eliasi jarraiki zen eta zerbitzatzen zuen.

### XX. KAP.

1. Bada, Benadadek, Siriako erregek, bildu zituen bere armada guzia, eta hogoi eta hamabi errege bere gana, eta zaldizkoak, eta orga-lasterrak; eta iganik gudukatzen eta sethiatzen zuen Samaria.

2. Eta Akabi, Israelgo erregeri, hirira berri-eramaileak igorririk,



3. Erran zuen: Hau dio Benadadek: Hire zilharra eta hire urhea, hire emazteak eta hire seme maiteenak eneak dituk.
4. Israelgo erregek ihardetsi zuen: Oi errege ene jauna, diozun beza-lak zureak gare ni eta ditudanak oro.
5. Berriketariak berriz ethorririk, erran zaroten: Hau dio Benadadek, zure gana igorri gaituenak: Emanen daroztak hire zilharra, hire urhea, hire emazteak eta hire semeak.
6. Bihar beraz mugi huntako bereko hire gana igorriko ditiat ene zerbitzariak, eta ikhartuko ditie hire etxea, eta hire zerbitzarien etxeak; eskue-tara hartuko ditie nahi dituzten guziak eta eramanen ditie.
7. Bada, Israelgo erregek deithu zituen lurreko zaharrak oro, eta erran zarooten: Ohartemazue eta ikhusazue zelatak hedatzen darozkigula; ezen igorri izan du ene gana ene emazteen eta ene semeen arietan, eta urhe eta zilharren arietan, eta ez dut ezetzik eman.
8. Eta zaharrek orok eta populu guziak erran zaroten: Ez entzun, ez onhets haren erranik.
9. Hargatik ihardetsi zarooten Benadaden bidalkinei: Errozuete ene errege jaunari: Zeinen ariaz hastetik igorri baitarotazu niri zure zerbitzariari, hainak eginen ditut oro; bainan gauza hau ezin dezaket.
10. Eta gibelerat goanik, bidalkinek Benadadi heldu zaroten solasa. Hunek igorri zituen berriz eta erran zuen: Jainkoek hau egin bezadate eta hura gainetik, Samariako herrautsa aski izaten bada niri jarraikitzen zaitan populu guziaren ahurren bethetzeko.
11. Eta ihardestean Israelgo erregek erran zuen: Errozuete: Gerrickatua denak gerrickatua ez denak baino espantu gehiago erabil ez beza.
12. Gerthatu zen bada, Benadadek aditu zuenean solas hori, bera eta erregeak itzalpetan edaten hari zirela, eta bere zerbitzariari erran zarooten: Ingura zazue hiria. Eta inguratu zuten.
13. Eta huna profeta batek, Israelgo errege Akaben gana hurbildurik, erran zaroela: Hau dio Jaunak: Ikhusi duzu naski oste gaitz hori guzia? huna bada nik egun non arthikiko dudan zure eskura, jakin dezazuntzat ni naizela Jauna.
14. Eta Akabek erran zuen: Nortaz? Profetak ihardetsi zaroen: Hau dio Jaunak: Herrialdetako aitzindarien oinezko muthilez. Akabek erran zuen: Nork abiatuko du gudua? Eta harek ihardetsi zuen: Zuk.
15. Akabek khondatau zituen beraz herrialdetako aitzindarien muthilak, eta atzeman zituen berrehun eta hogoi eta hamabi; hekien ondolik khondatau zuen populua, Israelgo seme guziak, zazpi mila.

16. Eguerditan ilkhi ziren. Bada, Benadad hordia edaten hari zen bere itzalpean, eta harekin hogoi eta hamabi erregeak, haren laguntzara ethorri zirenak.

17. Herrialdetako aitzindarien muthilak berriz, buru-buruan atheratuak ziren. Hargatik Benadadek igorri zuen ikhustera. Ikhusleek berria ekharri zaroten, ziotelarik: Samariatik ilkhirikako gizon batzu dira.

18. Benadadek erran zarooten: Edo ethor ditezen bake egiteko ariaz, edo gudukatzeke ariaz, bizirik atzeman zatzue.

19. Beraz herrialdetako aitzindarien muthilak ilkhiak ziren eta gaine-rako armada ondolik zihoan.

20. Bakhotxak hil zuen parrera ethortzen zitzaioen gizona; Siriarrak ihesegin zuten, eta Israel jarraiki zitzaioeten. Benadadek ere, Siriako erregek, zaldi baten gainean bere zaldizkoekin ihes egin zuen.

21. Eta atheraturik Israelgo erregek jo zituen zaldiak eta orga-laster-rak, eta sarraski gaitza egin zioen Siriari.

22. (Bada, profeta hurbildurik Israelgo erregeren gana, erran zaroen: Zoaz eta hazkar zaitte, eta jakizu, eta ikhusazu zer hari zaren; ezik heldu den urthean Siriako errege zure kontra iganen da.)

23. Siriako erregeren zerbitzariak berriz, erran zaroten beren nausiarri: Mendietako jainkoak dira hekien jainkoak, hortako nausitu zaizkigu; bainan hobe da zelhaietan guduka gaitezen hekien kontra, eta garhaituko ditugu.

24. Zuk beraz gauza hau egizu: Errege guziak zure armadatik urrun zatzu, eta hekien orde aitzindariak ezar zatzu;

25. Zure soldadoetarik hil direnen nonbrea berri zazu, eta zaldiena leheneko zaldien araura, eta orga-lasterrena lehenago izan ditutzunen araura; eta etsaien kontra zelhaietan gudukatuko gare, eta ikhusiko duzu garhaituko ditugula. Sinhetsi zuen hekiek errana eta hala egin zuen.

26. Beraz urthea iragan ondoan, Benadadek khondatau zituen Siriarrak, eta Aphekera igan zen Israeli gudu emateko.

27. Bada, Israelgo semeak ere khondatauak izan ziren, eta jatekoak harturik abiatu ziren beren aldetik, eta kanpatu ziren etsaien parrean, bi ahuntz arthalde ttipitto iduri; Siriarrak berriz, lurra bethetzen zuten.

28. (Eta hurbildurik Jainkoaren gizon batek erran zaroen Israelgo erregeri: Hau dio Jaunak: Siriarrak erran dutelakotz: Mendietako Jainkoa da Jauna, ez da haranetako Jainkoa, oste handi hori guzia arthikiko dut zure eskuetara, eta jakinen duzue ni naizela Jauna.)



29. Batzuek eta bertzeek zazpi egunez lerroak xuxendu zituzten elkharren parrean; zazpigarren egunean berriz, guduari lothu ziren, eta egun batez Israelgo semeek hil zituzten Siriarretarik ehun mila oinezko.

30. Gelditu zirenek berriz, Aphekera, hirira ihes egin zuten. Eta harra-si bat erori zen hogoi eta zazpi mila gizon gelditu zirenen gainera. Bada, Benadad ihes sarthu zen hirira, gela-zokho batean zen gordegailura.

31. Eta bere zerbitzariak erran zaroten: Aditzea dugu Israelgo erregeak barkhazale direla; hargatik zakhuak ezar detzagun soinean eta sokhak lephoetan, eta ilkhi gaitezen Israelgo erregeren gana; biziak utziko darozkigu behar bada.

32. Zakhuak soinean ezarri zituzten eta sokhak lephoetan, ethorri ziren Israelgo erregeren gana eta erran zaroten: Zure zerbitzari Benadadek dio: Bizia utz biazazut, othoi. Eta harek ihardetsi zuen: Bizi bada oraino, ene anaia da.

33. Gizonek hori oneko alderat hartu zuten; eta berehala solasa ahotik khendu zaroten eta erran: Benadad zure anaia da. Erregek ihardetsi zaroeten: Zoazte eta erakhar zazue ene gana. Benadad atheratu zitzaioen beraz, eta Akabek bere orga-lasterrera iganarazi zuen.

34. Hunek erran zaroen: Ene aitak zureari hartu diozkan hiriak bihurtuko ditut; plazak zuretzat Damasen egizkitzu, ene aitak Samarian egin izan dituen bezala, eta ni zurekin batasunez josirik goanen naiz zure ganik. Akabek beraz egin zuen harekin batasun eta utzi zuen goatera.

35. Orduan profeten semeetarikako gizon batek bere lagunari erran zaroen Jaunaren izenean: Jo nezazu. Bainan hunek etzuen jo nahi izan.

36. Erran zaroen: Zeren ez duzun nahi izan entzun Jaunaren hitza, huna non goanen zaren ene ganik eta lehoin batek hilen zaitu. Eta haren ganik urrunduxe zenean, lehoin batek atzeman eta hil zuen.

37. Bertze gizon bat ere atzemanik, erran zaroen: Jo nezazu. Hunek jo zuen eta sarraski egin.

38. Profeta goan zen beraz eta atheratu zen erregeren bidera, eta herrautsa egarriz ganbiatu zituen musua eta begiak.

39. Eta errege iragaiten zelarik, erregeri oihu egin eta erran zaroen: Zure zerbitzaria ilkhi da hurbiletik gudukatzeraz; eta gizon batek ihes egin baitzuen, norbaitek erakharri darot eta erran: Begira zazu gizon hau; hau itzurtzen bada, zure biziak ihardetsiko du hunenarentzat, edo emanen duzu zilharrezko talendu bat.

40. Bada, nahasia izanez, alde batera eta bertzera itzulika mindabilarik, betbetan gizona ez da agertu. Eta Israelgo erregek erran zaroen: Zerorrek eman duzu zure erabakia.

41. Bainan harek berehala garbitu zuen bere begitharteko herrautsa, eta Israelgo erregek ezagutu zuen profetearik zela.

42. Hunek erran zaroen: Hau dio Jaunak: Heriotzea zure eskutik merezi zuen gizon bat igorri duzulakotz, zure biziak harenarentzat ihardetsiko du eta zure populuak haren populuarentzat.

43. Israelgo errege itzuli zen beraz bere etxerat, entzutea erdeinatuz, eta hasarre handi ethorri zen Samariara.

## XXI. KAP.

1. Horien ondotik, egun hekietan, mahasti bat bazen Naboth Jezraeldarrarena, zeina Jezraelen baitzen, Akab Samariako erregeren jauregiaren aldean.

2. Akab Nabothi mintzatu zen beraz erraten zaroelarik: Indazu niri zure mahastia, baratzearentzat enetzat egin dezadan baratze bat, zeren hurbil baitut eta ene etxearen alde-aldean, eta haren orde emanen darotzut hobea den mahasti bat; edo hobe duzula uste baduzu, zer-ere balio baituke eta hura dirutan emanen darotzut.

3. Nabothek ihardetsi zaroen: Jaunak begira beneza zuri ematetik ene arbasoenganikako ondorea.

4. Akab beraz bere etxerat ethorri zen guzia gaitzitua eta hortzak karraskatuz Naboth Jezraeldarraren hitzaren gainean, zeren erran zaroen: Ez darotzut emanen: ene arbasoenganikako ondorea. Eta bere burua art-hikirik bere ohearen gainera, begithartea zokhoko aldera itzuli zuen, eta etzuen jan.

5. Bada, Jezabel bere emaztea ethorri zitzaioen, eta erran zaroen: Zer da hori? nondik heldu zarotzu gogoko beltzura hori? zertako ez duzu jaten?

6. Akabek ihardetsi zaroen: Mintzatu dut Naboth Jezraeldarra eta erran diot: Indazu dirutan zure mahastia; edo, nahiago baduzu, horren ordain mahasti hobe bat emanen darotzut. Eta harek erran darot: Ez darotzut ene mahastia emanen.

7. Akabi erran zaroen beraz bere emazte Jezabelek: Eskudantzia handitako zare eta manamendu ederra derabilkazu Israelgo erresuman. Jaiki zaite, jan zazu eta etzaitzela grina; nik emanen darotzut Naboth Jezraeldarraren mahastia.

8. Hargatik gutun batzu iskribatu zituen Akaben izenean eta haren zigiluaz jo zituen, eta igorri zituen Naboth hirian harekin egoten ziren zaharrei eta lehenbizikoei.



9. Bada, hau zen gutun hekien ihardukpena: Barur bat mana zazue eta Naboth jarraraz zazue populuko lehenbizikoen artean;

10. Haren kontra bil zatzue Belialen bi seme, gezurrezko lekhototasunez erranen dutenak: Nabothek Jainkoa eta errege burhoztatu ditu. Eta ilkhiaz zazue eta harrika, eta horreletan hil bedi.

11. Nabothen herritarrek, zaharrek eta lehenbizikoek harekin hirian egoten zirenek, egin zuten Jezabelek manatzen zaroeten bezala, eta harek hekiei igorri gutunetan iskribatua zen hezala.

12. Barura manatu zuten eta Naboth jarrarazi zuten populuko lehenbizikoen artean.

13. Eta erakharririk bi gizon, debruaren bi seme, haren kontra jarrarazi zituzten; eta haukiek, erran nahi da debruaren bi gizonak, Nabothen kontra populuaren aitzinean lekhototasun hau atheratu zuten: Nabothek Jainkoa eta errege burhoztatu ditu. Gauza horren gatik hiritik ilkhiaz eta harrika hil zuten.

14. Jezabelen gana igorri zuten, gaztiatuz: Naboth harrikatua izan da eta hila da.

15. Jezabelek berriz, aditu zuenean Naboth harrikatua eta hila zela, Akabi erran zaroen: Jaiki zaite eta goza zazu Naboth Jezraeldarraren mahastia, zeina ez baitarotzu nahi izan onhetsi eta dirutan erran; Naboth ezen ez da bizi, bainan hila da.

16. Akabek aditu zuenean hori, erran nahi da Naboth hila zela, jaiki zen eta jausten zen Naboth Jezraeldarraren mahastira hartaz jabetzekotzat.

17. Beraz Jaunaren hitza heldu zitzaioen Elias Thesbearrari, zioelarik:

18. Jaiki zaite, eta jauts Akab Israelgo errege Samarian denaren bide-ra; hara non jausten den Naboth mahastira, hartaz jabetzeko;

19. Eta huneletan mintza zakizkio: Hau dio Jaunak: Hil duk, eta oraino hilaren onaz jabetu haiz. Eta horren ondotik erranen duzu: Hau dio Jaunak: Zakhurrek Nabothen odola milikatu duten toki hortan, milikatuko dute hire odola ere.

20. Eta Akabek erran zaroen Eliasi: Zertan atzeman nauzu zure etsai? Eliasek ihardetsi zuen: Atzeman diat saldua haizela gaizkiaren egiteko Jaunaren aitzinean.

21. Huna non gaitza hire gainera jautsaraziko dudan, eta ebakiko diat hire ondoregoa, eta Akabenganikakoak hilen ditiat harrasiari gernua ixurtzen duena, eta maingua, eta azkena Israelen.

22. Eta hire etxea emanen diat, Jeroboam Nabathen semearen etxea bezala, eta Baasa Ahiasen semearen etxea bezala, zeren haritu haizen ene hasarrearaztera, eta bekhatu eginarazi diokan Israeli.

23. Jezabelez halaber mintzatu zen Jauna, zioelarik: Zakhurrek janen dute Jezabel Jezraelgo landan.

24. Baldin hirian hiltzen bada Akab, zakhurrek janen dute; bainan bazterretan hiltzen bada, zeruko hegastinek janen dute.

25. Etzen beraz bertze bat izatu Akab bezalakorik, zeina saldua baitzen gaizkiaren egiteko Jaunaren aitzinean; ezik bere emazte Jezabelek tarritatu zuen.

26. Eta hanbat hatsgarri egin zen, non Jaunak Israelgo semeen aitzinean xahutu zituen Amorhearrek egin jainkomoldeei jarraitzen baitzen.

27. Hargatik Akabek aditu zituenean hitz horiek, phorroskatu zituen bere soinekoak, zurdatzaz estali zuen bere larrua, barur egin zuen eta zakhuan lo, eta burua aphalduzik ibili zen.

28. Eta Jaunaren solasa Elias Thesbearri atheratu zen, zioelarik.

29. Ez othe duzu Akab ene aitzinean aphaldua ikhusi? zeren beraz aphaldua den ene gatik, ez dut haren egunetan jautsaraziko gaitza, bainan haren semearen egunetan eroraraziko dut gaitza haren etxearen gainera.

## XXII. KAP.

1. Iragan ziren beraz hirur urthe gerlarik gabe Siriaren eta Israelen artean.

2. Bainan hirugarren urthean, Josafat Judako errege jautsi zen Israelgo erregeren gana.

3. (Eta Israelgo erregek bere zerbitzariet erran zaroeten: Ez dakizue gurea dela Erramoth Galaadekoa, eta nagikerian gaudela hura Siriako erregeren eskutik hartu gabe?)

4. Eta Josafati erran zaroen: Heldu zare enekin gudukatzera Erramoth Galaadekora?

5. Josafatek ihardetsi zaroen Israelgo erregeri: Ni naizena zare zu ere; ene populua eta zure populua bat dira; ene zaldizkoak zure zaldizkoak dira. Eta Josafatek erran zaroen Israelgo erregeri: Egund bilha zaite, othoi, zer den Jaunaren solasa.

6. Israelgo erregek beraz profetak bildu zituen, lau ehun gizonen ingurua, eta erran zaroeten: Goan behar othe naiz Erramoth Galaadekoan gudukatzera, ala geldirik egon behar naiz? Haukiek ihardetsi zuten: Igan zaite eta Jaunak hura erregeren eskura emanen du.

7. Bainan Josafatek erran zuen: Ez da hemen Jaunaren profeta zenbait, haren bidez galda dezagun?

8. Eta Israelgo erregek Josafati ihardetsi zaroen: Gelditu da gizon bat, zeinaren bidez Jaunari egin baitetzozkegu galdeak; bainan higuintzetan dut





nik, zeren ez baitarot ona profetisatzen bainan bai gaixtoa. Hura da Mikeas, Jemlaren semea. Josafatek erran zaroen: Errege, ez hola mintza.

9. Israelgo erregek deithu zuen beraz bere ebakietarik bat, eta erran zaroen: Higi hadi Jemlaren seme Mikeasen erakhartzera.

10. Bada, Israelgo errege eta Josafat Judako errege jarriak zauden zein bere tronuan, erregetasuneko soinekoz jauntziak, Samariako athe-sartzean den larrainean; eta profeta guziek hekien aitzinean profetisatzen zuten.

11. Eta Sedeziasek Kanaanaren semeak egin zituen burdinazko adar batzu, eta erran zuen: Hau dio Jaunak: Haukietaz harrotuko duzu Siria, guzia xahutu arteo.

12. Eta profeta guziek orobat profetisatzen zuten, erranez: Igan zaite Erramoth Galaadekora, eta zoaz zorionean; eta Jaunak emanen du erregeren eskuetara.

13. Berri-eramalea, berriz, Mikeasen deitzera goan zena, mintzatu zitzaioen, zioelarik: Huna profeten erranek hitz batean onak agintzen diozkatela erregeri; zure solasa ere izan bedi beraz hekienen iduri, eta onak agin zatzu.

14. Mikeasek ihardets zaroen: Ala Jauna! Jaunak zer-nahi erran diazadan niri, hura erranen dut.

15. Hargatik erregeren gana ethorri zen, eta erregek erran zaroen: Mikeas, goan behar othe gare Erramoth Galaadekoan gudukatzera, ala utzi behar dugu? Mikeasek ihardetsi zaroen: Igan zaite, eta zoaz zorionean; eta Jaunak hura erregeren eskuetara emanen du.

16. Erregek ordean erran zaroen: Berriz eta berriz errekeitzen zaitut, Jaunaren izenean, egia dena baizik ez diazazudan erran.

17. Eta Mikasek ihardetsi zaroen: Israel guzia ikhusi dut mendietan barraiatua, artzainik ez duten ardiak iduri. Eta Jaunak erran du: Horiek nausirik ez dute; zein bere etxera bakean itzul bedi.

18. Israelgo erregek Josafati erran zaroen beraz: Ez darotzut erran ez darotala niri profetisatzen ona, bainan bethi gaixtoa?

19. Bainan Mikeasek erran zuen gainetik: Hori gatik entzun zazu Jaunaren solasa: Ikhusi dut Jauna bere tronuan gainean jarria, eta zeruko armada guzia haren aitzinean eskuinetik eta ezkerretik.

20. Eta Jaunak erran du: Nork bilduko du Akab igaitera, eta eror dadien Erramoth Galaadekoan? Eta batek erran du hulako solasa eta bertzeak halakoa.

21. Bainan izpiritu bat atheratu da, eta xutik jarri da Jaunaren aitzinean, eta erran du: Nik bilduko dut Akab. Jaunak erran dio: Noletan?

22. Eta harek ihardetsi du: Ilkhiko naiz, eta gezurrezko izpiritu izanen naiz haren profeta guzien ahoan. Eta Jaunak erran du: Bilduko duzu, nausituko zatzai; ilkhi zaite, eta egizu horrela.

23. Orai beraz Jaunak gezurrezko izpiritua eman du hemen diren zure profeta guzien ahoan, eta Jaunak gaixtoa erran du zure kontra.

24. Bada, Sedeziasek Kanaanaren semea hurbildu zen, eta Mikeas jo zuen mathelan, eta erran zaroen: Jaunaren izpirituak utzi naiz beraz eta hiri mintzatu zaik?

25. Eta Mikeasek ihardetsi zaroen: Ikhusiko duk egun hartan, gelazokhotan ibiliko haizenean gorde nahiz.

26. Eta Israelgo erregek erran zuen: Har zazue Mikeas, eta egon bedi Amon hiriko buruzagiaren baithan, eta Ameleken seme Joasen baithan,

27. Eta hekiei errozute: Hau dio erregek: Gizon hau ezar zazue preso; eta haziko duzue dohakaitzeko ogitik eta atsekabeko uretik, bakean ethor nadin arteo.

28. Eta Mikeasek erran zuen: Baldin bakean itzultzen bazara, Jauna ez da ene ahoz mintzatu. Eta erran zuen: Populuak, adi zazue guziek.

29. Beraz Israelgo errege eta Josafat Judako errege igan ziren Erramoth Galaadekora.

30. Eta Israelgo erregek Josafati erran zaroen: Harmak har zatzu, jauntz zatzu zure soinekoak eta sar zaitezi gudura. Bainan Israelgo erregek aldatu zuen bere jaunzkura eta gudura sarthu zen.

31. Bada Siriako erregek manu eman zaroeten orga-lasterretako hogoi eta hamabi aitzindari, erraten zuelarik: Ez guduka ez ttipi ez handi edozeinen kontra, baizik-ere Israelgo errege bakharraren kontra.

32. Orga-laslerretako aitzindariak ikhusi zutenean beraz Josafat, uste izan zuen Israelgo errege zela, eta oldar eginik gudukatzen ziren haren kontra; eta Josafatek oiuhu egin zuen.

33. Orga-lasterretako aitzindariak ezagutu zuten etzela Israelgo errege eta haren ganik bertzetara egin zuten.

34. Bizkitartean gizon batek arrabela hedatu zuen, gezia itsura igortzen zuelarik, eta gerthakariz jo zuen Israelgo errege birien eta urdailaren artean. Eta hunek erran zaroen bere orgazainari: Itzul zak eskua eta armadatik athera nezak, sakhi gaixto bat hartua bainaiz.

35. Egun hartan eman zen beraz gudua, eta Israelgo errege bere orga-lasterrean Siharren kontra jarria zen, eta arratsean hil zen, ezen sakhitik odolak zarioen orga-lasterrean barnera;

36. Eta kridatzaileak, iguzkia etzan baino lehen, armada guzian turuta jo zuen, erranez: Nor bere hirira eta lurrera itzul bedi.



37. Errege berriz, hil zen, eta Samariara eraman zuten; eta errege Samarian ehortzi zuten.
38. Haren orga-lasterra eta zaldien hedeak garbitu zituzten Samariako arraintegian, eta zakhurrek milikatu zuten haren odola, Jaunak erran hitzaren arabera.
39. Eta Akaben gainerako egintzak, eta harek egin zituenak oro, eta harek egin zuen boliazko etxea, eta altxatu zituen hiri guziak, ez othe dira iskribatuak Israelgo erregeen egunetako egintzen liburuan?
40. Akabek lo egin zuen beraz bere aitekin, eta Okozias haren semea erreginatu zen haren orde.
41. Josafat berriz, Asaren semea, Judaren gainean erreginatzen hasi zen Israelgo errege Akaben laugarren urthean.
42. Hogoï eta hamabortz urthe zituen erreginatzen hall zenean, eta hogoi eta bortz urthez erreginatu zen Jerusalem. Haren amaren izena zen Azuba Salaien alaba.
43. Bere aita Asaren bide berberaz ibili zen, hartarik etzen makhurtu eta Jaunaren aitzinean zuzen zena egin zuen.
44. Halarik-ere etzituen khendu lekhu gorak, ezik populuak oraino sakrifikatzen zuen eta isentsua gainetan erretzen.
45. Josafatek bakea izan zuen Israelgo erregerekin.
46. Josafaten gainerako egintzak berriz, eta harek erabili zituen lanak eta guduak, ez othe dira iskribatuak Judako erregeen egunetako egintzen liburuan?
47. Baina haren aita Asaren egunetan gelditu ziren emagizonen ondarrak, lurretik khendu zituen.
48. Eta etzen orduan errege ezarririk Edomen.
49. Errege Josafatek berriz, untziak egin zituen, Ophirra urheketa goan zitezen; baina ezin goan ziren, zeren Asiongaberren hautsiak izan baitziren.
50. Orduan Okofiasek Akaben semeak Josafati erran zaroen: Ene zerbitzariak zureekin itsasoz goan beitez. Eta Josafatek etzuen nahi izan.
51. Eta Josafat bere arbasoekin lokhartu zen, eta ehortzi zuten bere aita Dabiden hirian. Joram haren semea erreginatu zen haren orde.
52. Bada Okozias Akaben semea erreginatzen hasi zen Israelen gainean Samarian, Josafat Judako erregeren hamazazpigarren urthean eta bi urthez erreginatu zen Israelen gainean.
53. Gaizkia egin zuen Jaunaren aitzinean, eta ibili zen bere ait-amen bidean, eta Israeli bekhatu eragin zaroen Nabathen seme Jeroboamen bidean.
54. Baal zerbitzatu zuen halaber eta Israelgo Jainko Jauna samurrarazi zuen, haren aitak egin zituen guzien arabera.

## ERREGEAK IV. LIBURUA

### I. KAP.

1. Akab hil ondoan, Moab atheratu zen Israelen azpikotasunetik.
2. Eta Okozias, Samarian bere egoitza egiten zuen selharuko griletarik erori zen, eta eritu zen; eta mezulariak igorri zituen, erraten zaroetelarik: Zoazte, galda zozue Beelzebuthi, Akarongo jainkoari, hean bizirik itzuriko ahal naizen oraiko ene eritasun huntarik.
3. Bada, Jaunaren aingerua Elias Thelbearri huneltan mintzatu zitzaioen: Jaiki zaite, eta zoaz Samariako erregeren mezularien bidera, eta errozute: Jainkoa ez othe da Israelen, zuek goateko Beelzebuthen, Akarongo jainkoaren kontsultatzeraz?
4. Horren gatik hau dio Jaunak: Igan haizen ohetik ez haiz jautsiko, baina heriotzez hilen haiz. Eta Elias goan zen.
5. Mezulariak itzuli ziren Okoziasen gana. Hunek erran zaroeten: Zertako bihurtu zarete?
6. Eta hekiek ihardetsi zaroten: Gizon bat atheratu zaiku aitzinera eta erran daroku: Zoazte eta itzul zaitezte bidali zaituzten erregearen gana, eta erranen darozue: Hau dio Jaunak: Jainkoa ez othe zen Israelen, hik igortzeko Beelzebuth Akarongo jainkoaren kontsultatzeraz? Horren gatik igan haizen ohetik ez haiz jautsiko, baina heriotzez hilen haiz.
7. Erregek erran zaroeten: Aitzinera atheratu zaitzuen eta solas horiek erran darozkitzuen gizon harek nolako begithartea eta zer jaunzkura zituen?
8. Haukiek ihardetsi zuten: Gizon iletsu bat zen eta gerria larruzko uhal batez tinkatua zuen. Erregek erran zuen: Elias Thesbearra da.
9. Eta haren sana igorri zituen berrogoi eta hamar gizonen aitzindari bat eta hunen azpiko ziren berrogoi eta hamar gizonak. Hau igan zen Eliassen gana, eta Elias mendi gainean jarria zagoelarik, erran zaroen: Jainkoaren gizona, erregek jauts zaitezen manatzen darotzu.
10. Eliasek ihardetsi zaroen: Baldin Jainkoaren gizona banaiz, zeruko sua jauts bedi eta erre betzazte zu eta zure berrogoi eta hamar gizonak. Hargatik sua jauts zen zerutik eta iretsi zituen hura eta harekin ziren berrogoi eta hamarrak.



11. Okoziasek berriz igorri zuen berrogoi eta hamar gizonen bertze aitzindari bat, eta berrogoi eta hamar gizonak harekin. Hunek erran zaroen Eliasi: Jainkoaren gizona, hau dio erregek: Jauts zaite eta laster.

12. Eliasek ihardetsi zaroen: Jainkoaren gizona balin banaiz ni, zeruko sua jauts bedi eta erre betzazte zu eta zure berrogoi eta hamar gizonak. Zerutik jautsi zen beraz sua eta iretsi zituen hura eta haren berrogoi eta hamar gizonak.

13. Berriz ere Okoziasek igorri zituen berrogoi eta hamar gizonen hirugarren aitzindari bat, eta harekin ziren berrogoi eta hamar gizonak. Hau ethorri zenean, belhauniko jarri zen Eliasen aitzinean, errekeitu zuen eta erran zaroen: Jainkoaren gizona, urrikari izan zatzu othoi ene bizia eta zure berrogoi eta hamar zerbitzari enekin direnenak.

14. Huna non sua zerutik jautsi den eta iretsi dituen lehenbiziko bi aitzindariak eta hekietarik bakhotxarekin ziren berrogoi eta hamar gizonak. Bainan orai othoizten zaitut urrikal zaitezen ene bizinari.

15. Bada, Jaunaren aingerua Eliasi mintzatu zen, zioelarik: Jauts zaite horrekin, ez izan beldurrik. Jaiki zen beraz, eta harekin jautsi zen erregeren gana,

16. Eta erran zaroen: Hau dio Jaunak: Zeren bidali ditukan gizonak Beelzebuth Akarongo jainkoaren kontsultatzera, Israelen Jainko bat ez balitz bezala hari galde bat egin ahal izateko; hori gatik igan haizen ohe hortarik ez haiz jautsiko, bainan heriotzez hilen haiz.

17. Okoziasek hil zen beraz Eliasek erran zuen Jaunaren hitzaren arabera, eta Joram haren anaia erreginatu zen haren orde, Judako errege Josafaten seme Joramengarren urthean; ezen Okoziasek etzuen semerik.

18. Okoziasek erabili zituen gainerako egintzak berriz, ez othe dira iskribatuak Israelgo erregeen egunetako egintzen liburuan?

## II. KAP.

1. Bada gerthatu zen, Jaunak Elias xirimola batean zerurat altxatu nahi izan zuenean, Elias eta Eliseo Galgalatik heldu zirela.

2. Eta Eliasek erran zaroen Eliseori: Jar zaite hemen, zeren Jaunak Betheleraino igorri bainau. Eliseok ihardetsi zaroen: Bizi bedi Jauna, eta bizi bedi zure arima, etzaitut utziko. Eta Bethelera jautsi zirenean,

3. Bethelen ziren profeten semeak Eliseori atheratu zitzaizkon eta erran zaroten: Ez othe dakizu Jaunak egun zure nausia altxatuko duela zure ganik? Hunek ihardetsi zaroeten: Bai, badakit; zaudezte ixil.

4. Eliasek berriz erran zaroen Eliseori: Jar zaite hemen, zeren Jaunak Jerikora igorri bainau. Eta hunek ihardetsi zaroen: Bizi bedi Jauna, eta bizi bedi zure arima, etzaitut utziko. Eta Jerikora heldu zirenean,

5. Jerikon ziren profeten semeak Eliseori hurbildu zitzaizkon eta erran zaroten: Ez othe dakizu Jaunak egun zure nausia zure ganik altxatuko duela? Eta erran zuen: Bai, badakit; zaudezte ixil.

6. Eliasek berriz ere erran zaroen Eliseori: Jar zaite hemen, zeren Jaunak Jordaneraino igorri bainau. Hunek ihardetsi zuen: Bizi bedi Jauna, eta bizi bedi zure arima, etzaitut utziko. Beraz biak elkarrekin goan ziren.

7. Eta profeten semeetarik berrogoi eta hamar gizon jarraiki zitzaizkon eta urrunera hekien parrean gelditu ziren; haukiek berriz, elkarrekin zauden Jordanearen hegian.

8. Eta Eliasek bere kapa biribilkatu zuen; hartaz jo zituen urak, zeinak bi adetara berezi baitziren, eta biak iragan ziren agorretik.

9. Eta iragan zirenean, Eliasek erran zaroen Eliseori: Galda zazu zernahi duzun nik egin dezazudan, zure ganik altxatu izan nadien baino lehen. Eta Eliseok ihardetsi zuen: Zure izpiritu bikhuna, othoi, ene bait-han egin bedi.

10. Eliasek erran zaroen: Gauza gaitza galdatzen duzu; bizkitartean ikhusten banauzu zure ganik altxatu izaten naizenean, zurea izanen da galdatu duzuna; bainan ikhusten ez banauzu, ez duzu izanen.

11. Eta aitzina zihoazelarik eta bidean solasean hari zirelarik, hara non suzko orga batek eta suzko zaldi batzuek berezi zituzten elkar ganik, eta Elias xirimola batean zerura igan zen.

12. Eliseok berriz, ikhusten zuen eta oihu egiten zaroen: Ene aita! ene aita! zu, Israelgo orga-lasterra eta haren orgazaina. Eta etzuen gehi-go ikhusi; eta hartu zituen haren soinekoak eta bi zathitan urratu zituen.

13. Eliasi erori zitzaioen kapa altxatu zuen; eta gibelerat itzulirik, gelditu zen Jordanearen bazterrean,

14. Eta Eliasi erori zitzaioen kapaz urak jo zituen; bainan etziren berezi. Eta erran zuen: Orai non da bada Eliasen Jainkoa? Eta jo zituen urak eta alde batera eta bertze berezi ziren, eta Eliseo iragan zen.

15. Bertze aldetik Jerikon ziren profeten semeek berriz, hori ikhuserik, erran zuten: Eliasen izpiritua Eliseoren gainean gelditu da. Eta haren bidera ethorriarik, lurrean ahuspez adoratu zuten.

16. Eta erran zaroten: Huna zure zerbitzariekin badira berrogoi eta hamar gizon hazkarrak, zeinak goan baititazke eta bilha baitezakete zure nausia, zeren beharbada Jaunaren izpirituak altxatu baitu mendi baten gainera edo zenbait haranetara. Eliseok erran zaroeten: Ez bezazue igor.



17. Bainan bortxatu zuten onhets zezan eta erran zezan arteo: Igorrazue. Eta igorri zituzten berrogoi eta hamar gizon zeinek hirur egunez bilhatu ondoan, ez baitzuten khausitu.

18. Eta Eliseoren gana bihurtu ziren. Bada, Eliseo Jerikon egoten zen, eta erran zaroeten: Ez othe darotzuet erran: Ez bezazue igor?

19. Hiriko gizonak ere Eliseori erran zaroten: Jauna, hiri huntako egoitza hainitz ona da, zerorrek ikhusten duzun bezala, jauna; bainan urak dira hainitz tzarrak eta lurra agorra.

20. Eta Eliseok ihardetsi zaroeten: Ekhar darotazue untzi berri bat, eta gatza ezar zazue haren barnean. Hura ekharri zutenean,

21. Goan zen ithurrira, hartara arthiki zuen gatza eta erran zuen: Hau dio Jaunak: Onthu ditut ur haukiek eta ez dira haukietan izanen gehiago ez heriotzea, ez-eta agortasuna.

22. Urak onthuak izan ziren beraz orai arteo bezala, Eliseok erran zuen hitzaren arabera.

23. Bada, handik Bethelera igan zen. Eta bidea gora zihoalarik, haur ttipiak hiritik atheratu ziren eta trufatzen zuten erranez: Goiti, khartzoila; goiti, khartzoila.

24. Hunek begiraturik ikhusi zituen, eta Jaunaren izenean madarika-tu zituen. Eta bi hartz ilkhi ziren oihanetik, eta phorroskatu zituzten berrogoi eta bi haur.

25. Eliseo berriz, handik goan zen Karmelgo mendira, eta handik Samariara itzuli zen.

### III. KAP.

1. Bada, Joram Akaben semea Israelen gainean Samarian erreginatzen, Judako errege Josafaten hemezortzigarren urthean. Erreginatzen hamabi urthez.

2. Eta gaizkia egin zuen Jaunaren aitzinean, ez ordean bere ait-amek bezala; khendu zituen ezik haren aitak eginikako Baalen moldeak.

3. Bizkitartean iratxikia egotu zen Nabathen seme Jeroboamen bekhatu, Israeli bekhatu eragin zaroetenei, eta etzen hekietarik aldaratu.

4. Bada, Mesak Moabeko erregek arthalde hainitz hazten zuen, eta Israelgo erregeri pagatzen ziozkan ehun mila bildots eta ehun mila ahari beren ileekin.

5. Eta Akab hil zenean, hautsi zuen Israel go erregerekin zuen patua.

6. Orduan errege Joram ilkhi zen beraz Samariatik, eta khondatau zuen Israel guzia.

7. Eta Judako errege Josafaten gana igorri zuen, zioelarik: Bihurtu zait Moabeko errege; haren kontra gudura zato enekin. Hunek ihardetsi zuen: Ethorriko naiz; enea dena zurea da, ene populua zure populua da, ene zaldiak zure zaldiak dira.

8. Eta erran zuen: Zein bidetarik iganen gare? Eta harek ihardetsi zuen: Idumeako mortutik.

9. Beraz Israelgo errege, Judako errege eta Edomgo errege goan ziren, eta zazpi egunez bideaz inguruan jo zuten, eta urik etzen armada-rentzat eta hekiei jarraikitzen ziren aziendentzat.

10. Eta Israelgo erregek erran zuen: Ai! ai! ai! Jaunak hirur errege bildu gaitu, Moaben eskuetara arthikitzeke.

11. Eta Josafatek erran zuen: Ez othe da hemen Jaunaren profetarik, haren bidez Jaunaren errekeitzeko? Eta Israelgo erregeren zerbitzariatarik batek ihardetsi zuen: Hemen da Eliseo, Saphaten semea, ura Eliasen eskuetara ixurtzen zuena.

12. Eta Josafatek erran zuen: Haren baithan da Jaunaren hitza. Eta harengana jautsi ziren Israelgo errege, Josafat Judako errege eta Edomgo errege.

13. Eliseok ordean erran zaroen Israelgo erregeri: Zer ikhusteko da zure eta ene artean? zoaz zure aitaren eta amaren profetetara. Eta Israelgo erregek erran zaroen: Zertako Jaunak bildu gaitu hirur errege haukiek, Moaben eskuetara arthikitzeke?

14. Eta Eliseok ihardetsi zaroen: Bizi bedi armadetako Jauna, zeinaren aitzinean bainaiz. Judako errege Josafaten begitharteari ahalkea ematea izan ez balitz, ez narotzun segur beharria emanen, ez-eta begiratu ere ez narotzun.

15. Bainan orai erakhar darotazue maniurrari bat. Eta maniurrariak kantatzen zuelarik, Jaunaren eskua Eliseoren gainean jarri zen, eta Eliseok erran zuen

16. Hau dio Jaunak: Lats agortu hunen errekan egizkitzue asko zilho.

17. Ezen hau dio Jaunak: Ez duzue ikhusiko ez haizerik, ez uririk, eta erreka hau urez betheko da, eta edanen duzue, zuek, eta zuen muthilek, eta zuen abereek.

18. Eta hori guti da Jaunaren aitzinean; hortaz bertzalde, Moab ere ezarriko du zuen eskuetan.

19. Eta xahutuko ditutzue hiri hazkartu guziak, eta hiri hauta guziak; ebakiko ditutzue fruitutako zuhamu guziak, tapatuko ditutzue ithurriak oro, eta landa on guziak harriz estaliko ditutzue.



20. Gerthatu zen beraz biharamun goizean, sakrifizioa eskaintzen ohi den tenorean, urak ethorri zirela Edomgo bideaz, eta urez bethe zen lurra.

21. Moabitar guziek berriz, aditurik erregeak igan zirela hekiei gudu ematera, bildu zituzten uhalaz gerrikatuak zirenak oro, eta jarri ziren mugetan.

22. Eta goiz lehenean jaikirik, eta orduko iguzkia atheratua zelarik uren parretik, Moabitarrek bertze aldetik urak ikhusi zituzten odola bezala gorri,

23. Eta erran zuten: Ezpatatikako odola da hori; elkhar gudukatu eta elkhar hil dute erregeek: Moab, orai harrapakinera hoa.

24. Eta goan ziren Israelgo kanpetara. Bada Israel jaiki zen eta Moab jo zuen, eta Moabitarrek Israeldarren aitzinean ihes egin zuten. Garaitiatak ethorri ziren beraz, eta xahutu zuten Moab-herria.

25. Herraustu zituzten hiriak; harriak batbederak arthikiz, landa hoberenak oro bethe zituzten; tapatu zituzten ithurri guziak; ebaki zituzten fruitutako zuhamu guziak, halaz non lurrezko harrasirik baizik ez baitzen xutik gelditu; eta hiria inguratua izan zen habalariez, eta zathi handi batean joa.

26. Moabeko erregeek ikhusi zuenean hori, erran nahi da etsaiak nau-situ zirela, hartu zituen ezpata zerabilkaten zapi ehun gizon, Edomgo erregeri jauz zitezentzat, eta ezin egin zuten.

27. Orduan harturik bere seme zaharrena, bere ondotik erreginatze-kotan zuena, harrasiaren gainean holokaustetan eskaini zuen; eta buhakaizdura handi bat jauzi zen Israelen, eta berehala Israeldarrak urrundu ziren haren ganik, eta beren lurrera bihurtu ziren.

#### IV. KAP.

1. Bada, amazteki batek, profeten amazteetarik zenak, Eliseori oihu egiten zaroen, erranez: Ene gizona, zure zerbitzaria, hil izan da; eta zuk badakizu zure zerbitzaria Jaunaren beldurti izatu dela; eta orai huna haren hartzedurua ene bi semeen hartzera dathorrela bere gathibu egitekotzat.

2. Eliseok erran zaroen: Zer nahi duzu egin dezazudan? Erran dizadazu zer duzun etxean? Eta hunek ihardetsi zuen: Zure neskatoak deuse-re ez du etxean olio xorta bat baizik, zeintaz gantzutzen bainaiz.

3. Eliseok erran zaroen: Zoaz, maileguz zure hauzo guziei galda diotzuete untzi hutsak, eta ez guti.

4. Eta sar zaitte, eta zure athea herts zazu, zu eta zure semeak barrean zaretekeenean; eta olio hartarik untzi hekietan orotan ezar zazu; eta betheak ditazkeenean, eramanen ditutzu.

5. Hargatik amaztekoa goan zen, eta athea hertsu zuen bere gainera eta bere semeen gainera; semeek untziak aitzinera ekhartzen ziozkaten, eta harek olio barnera ematen zaroeten.

6. Eta untziak betheak izan zirenean, bere seme bati erran zaroen: Ekhar dizadazu untzia oraino. Eta hunek ihardetsi zaroen: Ez dut. Eta olio gelditu zen.

7. Bada amaztekoa ethorri zen eta Jainkoaren gizona horietaz jakintsun egin zuen: Hunek erran zaroen: Zoaz, olio sal zazu, eta zure hartzeduruari berea bihur zozu; zu berriz, eta zure semeak gainerakoaz bizi zaitzte.

8. Bada, egun batez gerthatu zen Eliseo Sunamen iragaiten zela. Bazen han handietarikako amazteki bat, zeinak iduki baitzuen ogiaren jaten. Eta nola maiz iragaiten baitzen handik, haren gana aldaratzen zen ogiaren jatera.

9. Hunek bere senharrari erran zaroen: Ohartzen naiz Jainkoaren gizon saindu bat dela gure baithan maiz iragaiten den gizon hori.

10. Egin diozogun beraz gela ttipi bat, eta hartan ezar diotzogun ohe bat, mahain bat, alkhi bat eta ganderailu bat, han egon dadientzat gure gana ethorriko denean.

11. Egun batez beraz Eliseo ethorriarik aldaratu zen gela hartara eta han phausatu zen.

12. Eta erran zaroen Jieziri bere muthilari: Deith zazu sunamtar andre hori. Muthilak deithurik, ethorri zenean Eliseoren aitzinera,

13. Hunek muthilari erran zaroen: Errozu: Gauza guzietan arthatsuki zerbitzatu gaituzu, zer nahi duzu egin dezazudan? baduzu zerbaitekitekoko eta nahi duzu erregeri edo armadako buruzagiari mintza nakioten? Hunek ihardetsi zuen: Bakean bizi naiz ene populuaren erdian.

14. Eta Eliseok erran zuen: Zer nahi du bada egin diozodan? Eta Jiezik ihardetsi zaroen: Ez bezedi bilha, ezen haurrik ez du eta horren senharra zahartua da.

15. Hargatik Eliseok manatu zaroen deith zezan; eta deithua izan zenean eta athearen aitzinean gelditu zenean,

16. Erran zaroen: Oraiko urthe muga eta oraiko oren berean, biziak laguntzen bazaitu, sabelean izanen duzu seme bat. Bainan harek ihardetsi zuen: Ez, othoi, ene jauna, Jainkoaren gizona, ez gezurrik erran zure neskatoari.



17. Eta emaztekoa haur batez amatu eta erdi zen Eliseok erran denboran eta oren berean.
18. Bada, haurra tarrotu zen. Eta halako egun batez, ilkhi eta goan zen batez bere aita gana, uzta-biltzaileetara,
19. Aitari erran zaroen: Min dut burutik, min dut burutik. Eta hunek muthil bati erran zaroen: Har zazu eta eraman bere amari.
20. Harek hartu eta eraman zaroenean bere amari, amak bere altzora hartu zuen eguerdi arteo, eta hil zen.
21. Bada, ama igan zen, eta ezarri zuen Jainkoaren gizonaren ohe gainean, eta athea hertsu zuen; eta ilkhirik,
22. Bere senharra deithu zuen eta erran zaroen: Muthiletarik bat eta asto bat igor zatzu, othoi, enekin, goan nadien Jainkoaren gizona ganaraino, eta itzul nadien.
23. Hunek ihardetsi zaroen: Zertako zoazi haren gana? Ez da egun hilabetearen lehena, ez larunbata. Emazteak ihardetsi zuen: Goanen naiz.
24. Astoari harbalda ezarrarazi zaroen, eta manatu zaroen muthilari: Eragiozu eta higi zaite; ez niri astiz egon bidean, eta egizu nik manatzen darotzudana.
25. Bideari lothu zen beraz, eta Jainkoaren gizona gana ethorri zen Karmelgo mendira. Jainkoaren gizonak ikhusi zuenean hari buruz heldu zela, Jiezi bere muthilari erran zaroen: Horra sunamtar andre hura.
26. Zoazkio beraz bidera eta errozu: Gauzak ongi dohazi zure inguruan, zure senharraren eta semearen inguruan? Emaztekiak ihardetsi zuen: Bai, ongi.
27. Eta Jainkoaren gizonaren gana mendira ethorri zenean, besarkatu zituen haren oinak; eta Jiezi hurbildu zen haren aldaratzeko. Eta Jainkoaren gizonak erran zuen: Utzazu; ezen atsekabetan da hunen bihotza, eta Jaunak gorde izan darot eta ez darot agertu.
28. Emaztekiak erran zaroen: Semerik galdatu izan othe darot ene jaunari? ez othe darotzut erran: Ez nitaz trufa?
29. Eliseok erran zaroen Jieziri: Tinka zazu gerria, ene makhila eskuan har zazu eta zoaz. Gizonik buruz-buru egiten baduzu, ez agurririk egin; eta norbaitek agur egiten badarotzu, ez biozozu ihardets; eta ene makhila ezar zazu haurraren begithartearen gainean.
30. Bainan haurraren amak erran zuen: Bizi bedi Jauna eta bizi bedi zure arima, etzaitut utziko. Eliseo jaiki zen beraz eta jarraiki zitzaioen emaztekiari.

31. Jiezi berriz, hekien aitzinean goan zen, eta makhila ezarri zuen haurraren begithartearen gainean; bainan ez mintzoa, ez tentua etzitzaitzikon bihurtu. Itzuli zen bere nausiaren bidera eta berria ekharri zaroen zioelarik: Haurra ez da birphiztu.
32. Eliseo sarthu zen beraz etxera, eta hara non haurra hila zaroen etzana haren ohean.
33. Sarthurik athea hertsu zuen bere gainera eta haurraren gainera, eta othoiztu zuen Jauna.
34. Eta igan eta etzan zen haurraren gainean; ezarri zituen bere ahoa haren ahoaren gainean, bere begiak haren begien gainean, bere eskuak haren eskuen gainean, eta bera makhurtu zen haren gainera; eta berotu zen haurraren haragia.
35. Eta itzulirik, etxean hara-hunaka ibili zen behin, eta igan zen berriz eta etzan haurraren gainean, eta haurrak zazpi harrosin egin zituen eta begiak ideki.
36. Eliseok deithu zuen Jiezi eta erran zaroen: Deith zazu sunamtar andre hori. Deithua izan ondoan, sarthu zen Eliseoren gana. Hunek erran zaroen: Har zazu zure semea.
37. Goan zitzaioen Eliseori, bere burua haren oinetara arthiki zuen eta lurraren gainean adoratu zuen; eta hartu zuen bere semea eta ilkhi zen.
38. Eta Eliseo Galgalara itzuli zen. Bada, gosetea zen lurrean eta profeten haurrak Eliseorekin egoten ziren; eta erran zaroen bere muthiletarik bati: Ezar zazu eltze handi bat, eta jatekoa egos zozute profeta semeei.
39. Eta hekietarik bat ilkhi zen bazterretara landetako belharretarik biltzera; atzeman zuen oihanetako mahats-aihen iduri bat, hartarik bildu zituen basa khuiattoak, bethe zuen bere kapa, eta itzulirik xehatu zituen jatekoaren eltzera, etzakien ezik zer ziren.
40. Eman ziozkaten beraz lagunei jatera. Eta dastatu zutenean errekitutik, oihuka hasi ziren erranez: Jainkoaren gizona, herioa eltze huntan da. Eta ezin jan zuten.
41. Eliseok erran zaroeten: Ekhar dizadazue irina. Eta ekharri zaroenean, ezarri zuen eltzean, eta erran zuen: Ixur zazue orori jan dezaten. Eta etzen gehiago uhertasunik batere izan eltzean.
42. Bada, Baalsalisatik norbait ethorri zen, pikainetako ogiak Jainkoaren gizonari ekhartzen ziozkana, hogoi garagar-ogi, eta ogi-bihi berria bere murtxilan. Eta Eliseok erran zuen: Emozuete populuari jatera.
43. Bere zerbitzariak ihardetsi zaroen: Zer da hori ehun gizonei aitzinera emateko? Eliseok berriz, erran zuen: Emozu populuari jatera, ezik hau dio Jaunak: Janen dute eta soberakina geldituko da.



44. Hargatik zerbitzariak aitzinera eman zaroeten; populuak jan zuen, eta Jaunaren hitzaren arabera, soberakina izan zen.

### V. KAP.

1. Naaman Siriako erregeren armadako buruzagia, gizon hainitz handia eta ikhusia zen bere nausiaren baithan; hartaz ezik Siria salbatu zuen Jaunak. Bada, gerlaria eta aberatsa zen, bainan legentsua.

2. Eta Siriatik ohoin batzu ilkhi ziren, eta Israelgo lurretik gathibu eraman zuten nexka gaztetto bat, zeina baitzen Naamanen andrearen zerbitzuan.

3. Hunek erran zaroen bere etxekandreari: Oxala ene nausia goan balitz Samarian den profeta gana! harek laster sendatuko zuen bere legetetik.

4. Hargatik Naaman sarthu zen bere jaunaren aitzinera eta berri hori eman zaroen, zioelarik: Hula eta hula mintzatu da Israelgo lurreko neskatxa bat.

5. Siriako erregek erran zaroen: Zoaz eta gutunak igorriko diotzat Israelgo erregeri. Naaman bideari lothu zenean, hamar zilharrezko talendu eta sei mila urhezko diru eta hamar aldagarri berekin hartu zituen.

6. Israelgo erregeri gutunak ekharri ziozkan, hunelako hitzetakoak: Gutun hau eskura hartu dukezunean, jakinen duzu Naaman ene zerbitzaria bidali darotzudala bere legenetik senda dezazun.

7. Eta Israelgo erregek gutunak irakurtu zituenean, bere soinekoak urratu zituen eta erran zuen: Jainkoa othe naiz ni, bizia khen eta eman ahal izateko, niri igorri darotanaz geroz gizon bat legenetik sendatzera? ohartemazue eta ikhus ene kontra makhurbideketa derabilala.

8. Eliseok Jainkoaren gizonak aditu zuenean hori, erran nahi da Israelgo erregek soinekoak urratu zituela, igorri zaroen erranez: Zertako hautsi ditutzu soinekoak? Siriarra ethor bekite eta jakin beza Israelen profeta bat badela.

9. Naaman ethorri zen beraz bere zaldi eta orga-lasterrekin eta gelditu zen Eliseoren athe aitzinean.

10. Eliseok hau gaztiatu zaroen: Zoaz eta zazpitan garbi zaite Jordanean; sasualduko da zure haragia, eta xahu eginen zare.

11. Naaman hasarre zihuan gibelerat, zioelarik: Uste nuen ilkhiko zitzaidala, eta gelditurik deithuko zuela bere Jainko Jaunaren izena, bere eskuaz ukituko zuela legenaren tokia eta sendatuko ninduela.

12. Abana eta Pharthar Damasko hibaia ez othe dira Israelgo ur guziak baino hobeak ni hekietan garbitzeko eta xahu egiteko? Gibelaz itzulirik beraz, eta gaitziturik zihoalarik,

13. Bere zerbitzariak hurbildu zitzaizkoen eta erran zaroten: Aita, baldin profetak gauza gaitz bat erran balarotzu, segur egin behar izanen zinduen; zenbatez beraz hobeki erran darotzunaz geroztik orai: Garbi zaite eta xahu geldituko zare?

14. Naaman jautsi eta garbitu zen zazpi aldiz Jordanean Jainkoaren gizonaren hitzaren arabera, eta haren haragia bihurtu zen haur ttipi baten haragia bezala, eta xahutua izan zen.

15. Eta bere inguruko lagun guziekin itzulirik Jainkoaren gizona gana, ethorri eta eman zen haren aitzinean, eta erran zaroen: Egiazki badakit lur guzian bertze Jainkorik ez dela, Israelen dena baizik. Hargatik othoizten zaitut zure zerbitzariari onhets diotzotzun bere eskerrak.

16. Eta Eliseok ihardetsi zaroen: Bizi bedi Jauna zeinaren aitzinean bainaiz; ez baitut deusere hartuko. Eta nola bortxatzen baitzuen, etzuen niholere onhetsi.

17. Eta Naamanek erran zaroen: Nahi duzun bezala. Bainan, othoizten zaitut, utz zazu zure zerbitzaria lur huntarik bi mando karga hartzera; ezen hemendik aitzina, zure zerbitzariak ez diote holokaustarik edo bitimarik eskainiko jainko arrotzei, baizik-ere Jaunari.

18. Ordean huntaz bakharrik zure zerbitzariarentzat othoizt biazazu Jauna; ene nausia adoratzera sarthuko denean Erremonen tenplora, ene eskuaren gainean bermatuz, Erremonen tenploan adoratzeko badut, hura adoran izanen den lekhu berean, Jaunak gauza hori barkha dizadan niri zure zerbitzariari.

19. Eliseok erran zaroen: Zoaz bakean. Naaman goan zen beraz haren ganik lurreko aro ederrenean.

20. Eta Jiezik, Jainkoaren gizonaren muthilak erran zuen: Ene nausiak guphidetsi du Naaman Siriar hori, horrek ekharrietarik ez baitio hartu. Ala Jauna! laster eginen diot gibeletik, eta zerbait izanen dut horren ganik.

21. Eta Jiezi jarraiki zen Naamanen gibeletik. Harek ikhusi zuenean lasterka heldu zitzaioela, orga-lasterretik jautsi zen haren bidera, eta erran zaroen: Ongi dohazi oro?

22. Jiezik ihardetsi zuen: Ongi. Ene nausiak igorri nau zure gana, dioelarik: Profeten semeetarik bi gizon-gazte orantxe ethorri zaizkit Efraimgo menditik: emotzute zilharrezko talendu bat eta bi aldagarri.



23. Eta Naamanek erran zuen: Hobe da har detzatzun bi talendu. Eta bortxatu zuen, eta bi zakhutan lothu zituen bi talendu zilharrezkoak eta bi aldagarriak, eta bizkarrera eman ziozkaten bere bi muthili, zeinek eraman baitzituzten Jieziren aitzinean.

24. Arratsa ethorri zenean, hekien eskuetarik hartu eta etxean ezarri zituen; eta utzi zituen gizonak eta goan ziren.

25. Bera berriz, sarthurik jarri zen bere nausiaren aitzinean. Eliseok erran zaroen: Nondik heldu zare, Jiezi? Hunek ihardetsi zuen: Zure zerbitzaria ez da nihon izatu.

26. Eta Eliseok erran zaroen: Ez othe zen han ene izpiritua gizona orga-lasterretik zure bidera itzuli denean? Orai beraz hartu duzu dirua eta hartu ditutzu soinekoak erostekotzat olibadi, mahasti, ardi, idi, muthil eta neskato.

27. Baina Naamanen legena lothuko zaitzue zuri, eta zure ondoregoari bethi guziraino. Eta Jiezi Eliseoren ganik ilkhi zen legenez elhurra bezain zuri.

## VI. KAP.

1. Bada, profeta semeek Eliseori erran zaroten: Huna lekhu hau, zeinetan zure aitzinean egoten baikare, guretzat hertsu da.

2. Goazen Jordaneraino, eta bakhotxak oihanetik geiak har detzagun, guretzat egon-lekhu baten egiteko. Eliseok erran zuen. Zoazte.

3. Eta hekietarik batek erran zaroen: Zu ere zato beraz zure zerbitzariekin. Ihardetsi zuen: Ethorriko naiz.

4. Eta goan zen hekiekin. Jordanera ethorri zirenean, zurak ebakitzen zituzten.

5. Bada, gerthatu zen, batek geia ebaki zuenean, haizkorako burdina urera erori zitzaioela; eta oihiu egin zuen eta erran: Ai! ai! ai! ene jauna, maileguz hartua nuen hori.

6. Eta Jainkoaren gizonak erran zuen: Norat erori da? Eta bertzeak erakhutsi zaroen lekhu. Eliseok egur bat ebaki zuen, eta arthiki zuen harat, eta burdina igeri agertu zen.

7. Eliseok erran zuen: Har zazu. Bertzeak eskua hedaturik, hartu zuen.

8. Bada Siriako errege gerlan hari zen Israelen kontra, eta bere zerbitzariekin batzarre iduki zuen, zioelarik: Zelatak ezar detzagun hulako eta halako tokitan.

9. Hargatik Jainkoaren gizonak Israelgo erregeri bidali zaroen, zioelarik: Berautzu toki hortan iragan, Siriarrak zelatetan baitaudezi hor.

10. Beraz Israelgo erregek igorri zuen Jainkoaren gizonak erran lekhu eta hartaz jabetu zen lehenbizikorik, eta bere burua Siriaretarik begiratu zuen behin baino gehiagotan.

11. Horren gatik nahasia izan zen Siriako erregeren bihotza; eta bere zerbitzariak bilazaririk, erran zaroeten: Zertako ez darotazuet erakhusten nor den Israelgo erregeren baithan saltzen nauena?

12. Eta bere zerbitzarietarik batek ihardetsi zaroen: Ene jaun erregea, ez da holakorik, baina Israelen den Eliseo profetak argitzen du Israelgo errege zure batzarrean egiten ditutzun solas guziez.

13. Erregek erran zaroeten: Zoazte eta ikhusazue non den, gizonak igor ditzadan harat eta atzeman dezadan. Eta berria ekharri zaroten, zioelarik: Hara, Dothanen da.

14. igorri zituen beraz harat zaldiak, orga-lasterak eta armadako biphilenak. Haukiek gabaz ethorririk, inguratu zuten hiria.

15. Bada, argitzean jaikirik eta ilkhirik, Jainkoaren gizonaren zerbitzariak ikhusi zituen armada hiriaren inguruan, eta zaldiak, eta orga-lasterak. Eta berria ekharri zaroen, zioelarik: Ai! ai! ai! nausia, zer eginen dugu?

16. Baina Eliseok ihardetsi zaroen: Ez izan beldurrik, gehiago dira gurekilakoak horiekilakoak baino.

17. Othoitzean egonik, Eliseok erran zuen: Jauna, idekatzu hunen begiak, ikhusi dezan. Eta Jaunak ideki zituen muthilaren begiak, eta ikhusi zuen; eta hara mendia zaldiz eta suzko orga-lasterrez bethea Eliseoren inguruan.

18. Bizkitartean etsaiak ethorri zitzaizkon, eta Eliseok Jauna othoiztu zuen erranez: Jauna, itsu zazu, othoi, jendaia hori. Eta Jaunak itsutasunez jo zituen, ikhusi etzezaten, Eliseoren hitzaren arabera.

19. Eliseok berriz, erran zaroeten: Ez da hau bidea, ez-eta hori hiria; jarraik zakizkidate, eta erakhutsiko darotzuet zuek bilhatzen duzuen gizona. Eraman zituen beraz Samariara;

20. Eta Samarian sarthu zirenean, Eliseok erran zuen Jauna, idekatzu haukien begiak, ikhusi dezaten. Jaunak ideki zituen hekien begiak eta ikhusi zuten Samariaren erdian zirela.

21. Eta Israelgo erregek hekiek ikhusi zituenean, Eliseori erran zaroen: Ene aita, hilen othe ditut?

22. Eliseok ihardetsi zuen: Ez, ez hil; ez ditutzu ezen hartu zure ezpata eta arranbelaz, horien hiltzeko; baina ogia eta ura emotzute aitzinera, jan eta edan dezaten eta beren nausia gana goan ditezen.





23. Jateko xuxendu pharrasta handi bat emana izan zitzaioeten; jan zuten eta edan zuten; eta erregek igorri zituen beren nausia gana. Handik harat Siriako ohoiak etziren gehiago ethorri Israelgo lurrera.

24. Bada, horiez geroz, gerthatu zen Siriako errege Benadadek bildu zuela bere armada guzia, igan zela eta sethiatzen zuela Samaria.

25. Gosete handi bat jarri zen Samarian; eta hain luzez sethiatua izan zen hiria, non asto baten burua saltzera ethorri baitzen lau hogoi zilharrezkotan, eta kabo laurden bat uso-ongarri bortz zilharrezkotan.

26. Israelgo errege harrasian iragaiten zelarik, emazteki batek oihu egin zaroen zioelarik: Salba nezazu, ene errege jauna.

27. Erregek ihardetsi zaroen: Jaunak etzaitu salbatzen; nik nondik salba zaitzaket? larrainetik, ala dolharetik? Eta erregek erran zaroen: Zer nahi duzu? Hunek ihardetsi zuen:

28. Emazteki hunek erran darot: Emazu zure semea jan dezagun egun, eta bihar janen dugu enea.

29. Erre dugu beraz ene semea eta jan dugu. Eta biharamunean erran diot: Emazu zure semea, jan dezaguntzat. Horrek bere semea gorde du.

30. Erregek aditu zuenean hori, urratu zituen bere soinekoak, eta iragaiten zen harrasian, eta populu guziak ikhusi zuen larruaren gainean jauntzia zuen zurdatzat.

31. Eta erregek erran zuen: Jainkoak hau egin biazat eta hura gainetik, baldin egun Saphaten seme Eliseoren burua gelditzen bada haren sorbalden gainean.

32. Bada, Eliseo jarria zagoen bere etxean, eta zahar batzu jarriak ziren harekin. Erregek gizon bat igorri zuen beraz aitzinean; eta hura ethor zadien baino lehen, Eliseok erran zaroeten zaharrei: othe dakizue gizon hiltzailearen seme horrek igorri duela ene buruaren moztera? zaudzte beraz erne; mandataria ethorriko denean, hertsazue athea eta etzazuela sartzerat utz; ezik horra haren nausiaren oinen harrabotsa haren gibeletik.

33. Oraino mintzo zelarik, agertu zen haren gana heldu zen mandataria. Eta erran zuen erregek: Horra zenbateko ondikoak ditugun Jauna ganik: zer igurikiko dut gehiago Jauna ganik?

## VII. KAP.

1. Bada, Eliseok erran zuen: Entzun zazue Jaunaren hitza. Hau dio Jaunak: Bihar tenore huntako, gaitzeru bat irin zethabatu estater batean, eta bi gaitzeru garagar estater batean izanen dira Samariako athean.

2. Aitzindariarik batek, zeinaren eskuaren gainean bermatzen baitzen errege, ihardetsi zuen Jainkoaren gizonari eta erran zaroen: Baldin Jaunak zerutik erauntsiak igor baletza eta, izan ahal othe lizate zuk diozun bezalakorik? Eliseok ihardetsi zaroen: Zure begiz ikhusiko duzu, eta hartarik ez janen.

3. Bada hiriko athe sartzean baziren lau gizon legentsu; elkharri erran zuten: Zer nahi dugu hemen egonik hil gaitezen arteo?

4. Hirira sarthu nahi badugu, gosez hilen gare; hemen balin bagaudezi, hiltzea da guretzat; zatozte beraz, ihesegin dezagun Siriarren kanpetara; urrikari izaten bagaituzte, biziko gare; hil nahi bagaituzte ordean, hilen gare ez gutiago ez gehiago.

5. Ilhuntzean jaiki ziren beraz Siriarren kanpetara goateko. Eta Siriarren kanpen burura heldu zirenean, nihor etzuten han khausitu.

6. Ezen Jaunak Siriarren kanpetan adiarazi zuen orga-laster, zaldi eta armada gaitz baten harramantza, eta elkharren artean erran zuten: Israelgo erregek gure kontra saritan erakharri ditu Hethearren eta Egiptoarren erregeak, eta gainera ethorri zarozkigu.

7. Jaiki ziren beraz eta ilhunpetan ihesari eman ziren; eta kanpetan utzi zituzten beren olha, zaldi eta astoak, eta ihesari eman ziren, beren bizien bakharrik salbatzeko gogoarekin.

8. Legentsu hekiek ethorri zirenean beraz kanpen burura, olha batean sarthu ziren, eta jan zuten eta edan; hartu zituzten gero urhe, zilhar eta soinekoak; goan ziren eta gorde zituzten; eta berriz ethorri ziren bertze olha batera, eta handik ere phuskak eramanik gorde zituzten.

9. Eta elkharri erran zuten: Ez dugu ongi egiten; ezik egun hau berri oneko eguna da. Ixilik egoten bagare eta goiza ethorri arteo berria ez badugu eman nahi, tzarkeriatzat jazarria izanen zaiku. Zatozte, goazen, eta berria eraman dezagun erregeren korrallera.

10. Eta hiriko athera heldu zirenean, han zirenei erran zaroeten: Izatu gare Siriarren kanpetan, eta han ez dugu gizon bakhar bat khausitu, baik-ere zaldiak eta astoak estekatuak, eta olhak landatuak.

11. Athal-zainak goan ziren beraz eta berria eraman zuten erregeren jauregiaren barnera.

12. Errege jaiki zen gabaz eta bere zerbitzariei erran zaroeten: Nik diozuet zer egin darokuten Siriarrak: Badakite goseteak hertsatzen gaituela, eta hargatik ilkhi dira kanpetarik, eta bazterretan gordeak daude, diotelarik: Hiritik atheratu ditazkeenean, bizirik hartuko ditugu, eta orduan izanen dugu hirian sartzeko ahala.



13. Bainan zerbitzariarik batek ihardetsi zaroen: Har detzagun hirian gelditu diren bortz zaldiak (ezen horiek baizik ez da Israelgo oste guzitik, bertzeak janak dira), eta atheraturik, ikhusketara goan gaitzke.

14. Erakharri zituzten beraz bi zaldi, eta erregek igorri zituen gizonak Siriarren kanpetara, erraten zaroetelarik: Zoazte eta ikhusazue.

15. Siriarren ondotik goan ziren beraz Jordaneraino; eta hara non bide guzia bethea zen soinekoz eta phuskaz Siriarek beren asalduan art-hiki zituztenez. Eta gibelerat itzulirik berriketariak jakintsun egin zuten errege.

16. Eta ilkhirik, populuak biphildu zituen Siriarren kanpak; eta Jaunaren hitzaren arabera, irin zethabatu jarri zen estater batean gaitzerua, eta garagarra estater batean bi gaitzeru.

17. Bada, erregek hiriko athean ezarri zuen aitzindari hura, zeinaren eskuaren gainean bermatzen baitzen. Eta jende murrak zango-pean lehertu zuen eta hil zen, Jainkoaren gizonak erran bezala, errege haren gana jautsi zenean.

18. Eta gerthatu zen Jainkoaren gizonak erregeri erran hitzaren arabera, erran zuenean: Bi gaitzeru garagar estater batean izanen dira, eta gaitzeru bat irin zethabatu estater batean, bihar tenore huntan berean Samariako athean.

19. Eta aitzindari harek ihardetsi zaroenean Jainkoaren gizonari, eta erran zaroenean: Jauna zerutik erauntsiaka hari balitz ere, zuk diozunik egin othe lizate? Eta Jainkoaren gizonak erran zaroen: Zure begiz ikhusiko duzu, eta ez duzu hartarik janen.

20. Gerthatu zen beraz aitzinerat erran izan zaroen bezala, eta populuak hura athean zangoz lehertu zuen, eta hil zen.

### VIII. KAP.

1. Bada, Eliseo mintzatu zen emazteki hari zeinaren semea phitzarazi baitzuen, eta erran zaroen: Jaiki zaite, eta zoazte zu eta zure etxeoak, eta atzemanen duzun lekhuana ibil zaite; ezen Jaunak gosetea deithu du, eta zazpi urthez ethorriko da lurraren gainera.

2. Emaztekoa xutitu zen eta egin zuen Jainkoaren gizonaren hitzaren arabera; eta bere etxeoekin goanik, luzez ibili zen Filistindarren lurrean.

3. Eta zazpi urtheak bethe zirenean, emaztekoa bihurtu zen Filistindarren lurretik; eta ilkhi zen erregeri galdatzera bihur ziotzoten bere etxea eta landak.

4. Errege orduan mintzo zen Jiezirekin Jainkoaren gizonaren muthilarekin, zioelarik: Erran ditzadak Eliseok egin dituen sendagaila guziak.

5. Eta harek erregeri khondatzen zaroelarik nola Eliseok phiztu zuen hil bat, agertu zen emaztekoa, zeinaren semea phiztu baitzuen, erregeri errekeika bere etxearen eta bere landen gatik. Eta Jiezik erran zuen: Ene errege jauna, hori da emaztekoa eta hori da horren semea Eliseok phiztu duena.

6. Eta errege galdeka haritu zitzaioen emaztekiari, eta hunek khondatu zuen gauza. Erregek eman zaroen bere ebaki bat, zioelarik: Emazteki huni bihur zotzik hunenak diren guziak, eta landetako mozkin guziak lurra utzi duen egunetik eta orai arteo.

7. Damaserat ere ethorri zen Eliseo, eta eri zagoen Benadad Siriako errege; eta berria ekharri zaroten erranez: Hunat ethorria da Jainkoaren gizona.

8. Eta erregek Hazaeli erran zaroen: Har zatzu zurekin emaitzak eta zoaz Jainkoaren gizonaren bidera, eta haren bidez argi zaite Jauna ganik, erranez: Itzur othe naiteke ene eritasun huntarik?

9. Hazael goan zen beraz haren bidera, berekin zituelarik emaitzak eta Damaseko on guziak, berrogoi kameluren haxeak. Eta haren aitzinean baratu zenean erran zaroen: Zure seme Benadadek, Siriako erregek, igorri nau zure gana, dioelarik: Sendatuko ahal othe naiz ene gaitz huntarik?

10. Eliseok ihardetsi zaroen: Zoaz, errozu: Sendatuko zare. Bada, Jaunak erakhutsi darot heriotzez hilen dela.

11. Eta Jainkoaren gizona trikatu zen Hazaelekin; eta nahasi zen, begithartean ageri izateraino; eta nigar egin zuen.

12. Hazaelek erran zaroen: Ene jauna zergatik dago nigarrez? Eta Eliseok ihardetsi zuen: Zeren baitakizkit Israelgo semeei eginen diozkatzuten ondikoak. Suz erreko ditutzu hekien hiri hazkarrak, eta ezpataz hilen ditutzu hekien gizon-gazteak, eta lehertuko ditutzu hekien haur ttipiak, eta urratuko emazteki izorrak.

13. Hazaelek erran zuen: Zer naiz bada, ni, zure zerbitzaria, zakhur bat, hanbateko gauzaren egiteko? Eta Eliseok erran zaroen: Jaunak erakhutsi darot Siriako errege izanen zarela.

14. Hazael itzuli zenean Eliseoren ganik, ethorri zen bere nausia gana. Hunek erran zaroen: Zer erran darotzu Eliseok? Eta ihardetsi zuen: Erran darot: Osagarriera bihurtuko zare.

15. Biharamuna ethorri zenean, Hazaelek hartu zuen estalgi bat, urez busti eta erregeren begithartearen gainera hedatu zuen; eta errege hil zen ondoan, Hazael erreginatu zen haren orde.



16. Israelgo errege Akaben seme Joramen bortzgarren urthean, eta Josafat Judako erregeren egunetan, Joram, Judako errege Josafaten semea, erreginatu zen.

17. Hogoï eta hamabi urthe zituen erreginatzen hasi zenean eta zortzi urthez erreginatu zen Jerusalem.

18. Eta ibili zen Israelgo erregeen bideetan, Akaben etxea ibili zen bezala; ezik Akaben alaba zuen emaztea; eta gaizki dena egin zuen Jaunaren aitzinean.

19. Bainan Jaunak etzuen Juda xahutu nahi izan, bere zerbitzari Dabiden kariatz, agindu zaroen bezala, argi bat emanen zaroetela bethi hari eta haren semeei.

20. Haren egunetan Edom berezi zen, Judaren azpiko ez izateko, eta errege bat ezarri zuen bere gainean.

21. Eta Joram Seirara ethorri zen, eta haren orga-laster guziak harekin. Jaiki zen gabaz, jo zituen Idumearrak, zeinek inguratu baitzuten, eta jo zituen orga-lasterretako aitzindariak; populua berriz, bere olhetara ihes goan zen.

22. Edom berezi zen beraz, Judaren azpiko ez izateko, geroztik orai arte hala ez den bezala. Orduan berezi zen Lobna ere.

23. Bada, Joramen gainerako egintzak, eta harek egin guziak, ez othe dira iskribatuak Judako erregeen egunetako egintzen liburuan?

24. Eta Joram lokhartu zen bere arbasoekin; hekiekin ehortzia izan zen Dabiden hirian; eta haren orde erreginatu zen Okozias haren semea.

25. Israelgo errege Akaben seme Joramen hamabigarren urthean erreginatu zen Okozias, Judako errege Joramen semea.

26. Okoziasek hogoï eta bi urthe zituen erreginatzen abiatu zenean, eta urthe batez erreginatu zen Jerusalem. Haren ama, Athalia deitzen zen, Israelgo errege Amriren alaba.

27. Eta Akaben etxearen bideetan ibili zen, eta Jaunaren aitzinean gaizki dena egin zuen, Akaben etxeak bezala, ezik Akaben etxeko suhi zen.

28. Halaber goan zen Akaben seme Joramekin, Siriako errege Hazaelen kontra Erramoth Galaadekoan gudukatzer, eta Siriarrek sakhi bat egin zaroeten Jorami.

29. Hau sendatzer, ethorri zen Jezrahelera, zeren sakhi bat egin baitzaroeten Siriarrek Erramoth gudukatzen zelarik Siriako errege Hazaelen kontra. Berriz, Okozias, Judako errege, Joramen semea, Jezrahelera jautsi zen Akaben semearen, Joramen ikhustera, Joram han baitzagoen eri.

## IX. KAP.

1. Bada, Eliseo profetak deithu zuen profeta semeetarik bat, eta erran zaroen: Tinka zazu gerria, eskuan har zazu olio-untzi hau, eta zoazi Erramoth Galaadekora.

2. Eta haran heldu zaretekeenean, ikhustiren duzu Jehu, Josafaten semea, Josafat baita Namsiren semea; eta sarthurik, ilkhiaziko duzu bere anaien erditik, eta gela baten barnera eramanen duzu.

3. Eta olio-untzia dadukazularik, haren buruaren gainera ixuriko duzu, eta erranen duzu: Hau dio Jaunak: Israelen gaineko errege gantzutu zaitut. Eta athea idekiko duzu, eta ihes egingen duzu, eta etzare han egonen.

4. Profeta seme gizon-gaztea goan zen beraz Erramoth Galaadekora,

5. Eta han sarthu zen. Hara berriz, armadako aitzindariak jarriak zaudela. Eta Jehuri erran zaroen: Aitzindaria, solas bat dut zuretzat. Eta Jehuk erran zaroen: Gutarik orotarik norentzat? Eta harek ihardetsi zuen: Zuretzat, oi aitzindaria.

6. Jehu xutitu eta gela batean sarthu zen; eta gizon-gazteak olio ixuri zuen haren buruaren gainera, eta erran zuen: Hau dio Israelgo Jainko Jaunak: Errege gantzutu zaitut Jaunaren Israelgo populua gaineko,

7. Eta joko duzu zure nausi Akaben etxea. Eta aspertuko dut ene zerbitzari profeten odola eta Jaunaren zerbitzari guzien odola, Jezabelen eskutik.

8. Eta galduko dut Akaben etxe guzia; eta Akaben ganikakoak hilen ditut harrasiari gernua ixurtzen duena, eta maingua eta Israelen azkena.

9. Eta emanen dut Akaben etxea, hala-nola Nabathen seme Jeroboamena, hala-nola Ahiasen seme Baasarena.

10. Halaber zakhurrek janen dute Jezabel Jezrahelgo landan, eta ez da izanen nork ehortziko duen hura. Eta athea ideki zuen eta ihesari eman zen.

11. Jehu berriz, ilkhi zen bere nausiaren zerbitzarietara. Haukiek erran zaroeten: Ongi doazi oro? zertara ethorri zaitzu zoro hori? Jehuk erran zaroeten: Badakizue nor den gizona eta zer erran duen.

12. Hekiek ihardetsi zuten: Hori ez da egia, bainan zerorrek erraguzu. Jehuk erran zaroeten: Hau eta hau erran darozkit, eta erran du: Hau dio Jaunak: Errege gantzutu zaitut Israelen gaineko.

13. Xutitu ziren berehala; zeinek bere kapa harturik, ezarri zuten Jehuren oinen azpian, juie-alkhiaren itxuran, turuta jo zuten eta erran zuten: Erregetu da Jehu.



14. Beraz Namsiren semearen semea, Jehu, Josafaten semea, zinaz josi zen Joramena kontra. Bada, Joramek eta Israel guziak Erramoth Galaadekoa sethiatua zadukaten Siriako errege Hazaelen kontra.

15. Eta Joram Jezrahelera itzulia zen bere sakhiatarik sendatzeko, Siharrek jo zutelakotz guduan hari zelarik Siriako errege Hazaelen kontra. Eta Jehuk erran zuen: Zuen gogarako bada, nihor ez bedi ihes ilkhi hiritik, ez dadien goan berriaren ematera Jezraheiera.

16. Eta igan zen, eta Jezrahelgo bideari lothu zen: ezik Joram han eri zagoen, eta Okozias Judako errege jautsia zen Joramena ikhustera.

17. Jezrahelgo dorrearen gainean jarria zen zainak ikhusi zuen beraz Jehuren andana heldu zela, eta erran zuen: Ikhusten dut gizon-multzo bat. Eta Joramek erran zuen: Har zazu orga-laster bat eta bidera igorrazu, eta goanen denak erran beza: Ongi doazi oro?

18. Orga-lastererra igan zena goan zen beraz Jehuren bidera eta erran zuen: Hau dio erregek: Baketuak dira oro? Eta Jehuk ihardetsi zuen: Zer du bakeak zurekin ikhusteko? zoaz aitzina eta gibeletik zatozkit. Zainak halaber berria eman zuen, zioelarik: Berriketaria goan zaiote, eta ez da gibelerat itzultzen.

19. Joramek igorri zuen bigarren orga-laster bat, eta haren gainean zena heldu zen Jehuren lagunetara, eta erran zuen: Hau dio erregek: Bakea da? Eta Jehuk ihardetsi zuen: Bakeak zer du zurekin ikhusteko? Egizu aitzinat eta gibeletik jarraik zakizkit.

20. Bada, zainak berria eman zuen: Goan da hekietaraino, eta ez da gibelerat itzultzen. Heldu denaren urhatsak berriz, iduri du Jehuren urhatsa, Namsiren semearena, ezik zalhuki heldu da.

21. Eta Joramek erran zuen: Zaldiak uztar zatzue ene orga-lasterrari. Eta uztartu zituzten, eta Joram Israelgo errege, eta Okozias Judako errege, zein bere orga-lasterretan ilkhi ziren Jehuren bidera, eta atzeman zuten Naboth Jezraheldarraren landan.

22. Joramek ikhusi zuenean Jehu, erran zaroen: Bakea da, Jehu? Eta hunek ihardetsi zaroen: Zer bake? zure ama Jezabelen lohikeriak eta sorginkeria guziak freitetan dira oraino.

23. Joramek berriz, eskua itzuli zuen; eta ihes abiatzean, Okozias erran zaroen: Zelatak, Okozias.

24. Bainan Jehuk arranbela eskuaz hedatu zuen, eta Joram jo zuen sorbalden artean, eta gezia ilkhi zen bihotzetik, eta berehala Joram erori zen bere orga-lasterretik.

25. Eta Jehuk erran zaroen Badazer aitzindariari: Har zazu eta Naboth Jezraheldarraren landara arthikazu; orhoit naiz ezen, zu eta ni

orga-lasterrean jarririk, horren aita Akaben ondotik ginoazilarik, Jaunak dixidu hau altxatu zuela haren gainera, erranez:

26. Ala! bihurturen baitarozkiat landa hortan berean, dio Jaunak Naboth odol atzo ikhusi dudanaren ordaina, eta haren semeen odolaren ordaina, Jaunak erraten du. Orai har zazu beraz eta arthikazu landara, Jaunaren hitzaren arabera.

27. Bada, hori ikhuserik, Okozias Judako errege etzeko baratze bidez ihes zihoan. Jehu jarraiki zitzaioen eta erran zuen: Hori ere jo zazue bere orga-lasterrean; eta jo zuten Gabergo patarrean, zeina Jeblaamgo ondoan baita. Okozias ihes egin zuen Maiedora, eta han hil izan zen.

28. Eta bere zerbitzariak ezarri zuten bere orga-lasterrean; Jerusalem era eman zuten, eta hobian bere arbasoekin ehortzi zuten Dabiden hirian.

29. Akaben seme Joramena hamekagarren urthean erreginatu zen Okozias Judaren gainean.

30. Eta Jehu Jezrahelera ethorri zen. Bada Jezabelek haren sartzea aditurik, sardaz thindatu zituen bethondoak, burua edergailuz bethe zuen, eta begiratu zuen leihotik

31. Jehu athetik sartzen zenari, eta erran zuen: Bakea izan othe ditake Zanbriekin, bere nausia hil duenarekin?

32. Eta Jebuk begiak altxatu zituen leihora, eta erran zuen: Nor da hori? Eta bizpahirur ebakik gur egin zaroten.

33. Eta Jehuk erran zaroeten: Arthikazue gain-behera. Eta arthiki zuten, eta harrasia odolez fharrastatu izan zen, eta zaldiek lurrean oinkatu zuten.

34. Eta Jehu sarthu zenean jatera eta edatera, erran zuen: Zoazte, ikhusazue madarikatu hura, eta ehortzazue errege alaba delakotz.

35. Eta haren ehorzteko goan zirenean, ez zuten bertzerik khausitu buru-hezurra, zangoak eta esku-muthurrak baizik.

36. Itzulirik berria ekharri zaroten Jehuri, eta Jehuk erran zuen: Jaunaren hitza da, bere zerbitzari Elias Thesbearren ahoz erran duena, zioelarik: Jezrahelgo bazterrean zakhurrek janen dituzte Jezabelen haragiak.

37. Jezabelen haragiak gorotza lurraren gainean bezala izanen dira Jezrahelgo bazterrean, halaz non iragaiten direnek erranen baitute: Hori da Jezabel hura?



## X. KAP.

1. Bada, Samarian baziren Akaben hirur hogoi eta hamar seme. Jehuk iskribatu zituen beraz gutunak eta Samariara igorri zituen hiriko lehenbizikoei, zaharrei eta Akaben unhidaitai, zioelarik:

2. Gutun haukiek izanen dituzten bezain sarri, zuen nausiaren semeak, orga-lasterrak, zaldiak, hiri hazkarrak eta harmak eskuetan dituzuenek,

3. Zuen nausiaren semerik hobeena eta nahi duzuen hauta zazue, eta bere aitaren tronuan ezar zazue, eta zuen nausiaren etxearentzat gudu egizue.

4. Hekiek izitu ziren handizki eta erran zuten: Bi erregek ezin iharduki dute Jehuren aitzinean, eta gu nola gai izanen gare hari buru egiteko?

5. Jehuren gana bidali zituzten beraz jauregiko zainak, hiriko buruzagiak, zaharrak eta unhidaitak, zioetelarik: Zure zerbitzari gare; zer-nahi mana dizaguzun, eginen dugu, eta ez dugu gure gainean erregerik ezarriko. Zure gogarako den guzia egizu.

6. Jehuk berriz iskribatu ziozkaten bigarren gutunak, zioelarik: Ene aldeko bazarete, eta ene manamendua onhesten baduzue, buruak khen zotzute zuen nausiaren semei, eta bihar oren huntako bereko ene gana zatozte Jezrahelera. Bada, erregeren haurrak, hirur hogoi eta hamar seme, hiriko lehenbizikoen baithan hazten ziren.

7. Eta Jehuren gutunak unhidaitetara ethorri zirenean, hartu zituzten erregeren semeak eta hil zituzten hirur hogoi eta hamarrak, eta hekien buruak saskitan ezarririk, Jehuri igorri ziozkaten Jezrahelera.

8. Berriaren ekharlea ethorri zen eta Jehu jakintsun egin zuen zioelarik: Ekharri dituzte erregeren semeen buruak. Jehuk ihardetsi zuen: Bi murrutan ezar zatzue bihar goiz arteo atheko sartzearen aldean.

9. Eta argitu zuenean, ilkhi zen; eta populu guziaren aitzinean jarririk, erran zuen: Zuzenak zarete. Baldin nik zin egin badut lagunekin ene nausiaren kontra, eta hil izan badut, nork hil ditu haukiek oro?

10. Ikhusazue beraz orai ez dela Jaunaren hitzetarik bat lurrerat erori, Jaunak Akaben etxearen gainean erran dituenetarik, eta Jaunak egin du bere zerbitzari Eliasen ahoz erran izan duena.

11. Jehuk jo zituen beraz Akaben etxetikako Jezrahelen geldituak ziren guziak, haren aitzindari burukoak, ezagunak eta aphezak, bat bakar hara gelditu etzen arteo.

12. Eta jaiki zen, eta ethorri zen Samariara; eta bidean artzain-xola batera heldu zenean,

13. Atzeman zituen Judako errege Okoziasen anaiak, eta erran zaroeten: Nor zarete zuek? Haukiek ihardetsi zuten: Okoziasen anaiak gare, eta jaitsi gare erregeren semei eta erreginaren semei agur egitera.

14. Jehuk erran zuen: Bizirik har zatzue. Bizirik hartu zituztenean artzain-xolaren aldeko urtegi batean zintzurak egin ziozkaten hekiei, berrogoi eta bi semeri, eta etzen hekietarik bat bakharra gelditu.

15. Eta handik goan zenean, atzeman zuen Jonadab Errekaben semea, bidera heldu zitzaioela, eta agur egin zaroen. Jehuk erran zaroen: Zure bihotza zuzen da, ene bihotza zurearen alderat den bezala? Eta Jonadabek ihardetsi zuen: Bai, hala da. Jehuk erran zaroen: Hala bada, indazu eskua. Hunek eskua eman zaroen. Jehuk bere ganat iganarazi zuen orga-lasterrera,

16. Eta erran zaroen: Zato enekin, eta ikhusazu ene kharra Jaunaren alderat. Eta bere orga-lasterrean jarrazirik,

17. Samariara eraman zuen. Eta Akab ganikakoetarik Samarian geldituak ziren guziak jo zituen azken bakharreraino, Eliasen ahoz Jaunak erran hitzaren arabera.

18. Bada, Jehuk bilarazi zuen populu guzia, eta erran zaroen: Akabek guti bat ohoratu du Baal, bainan nik ohoratuko dut gehiago.

19. Orai beraz ene ganat deith zatzue Baalen profeta guziak, haren zerbitzari guziak, eta aphezak oro; ethorriko ez denik bat bakharra izan ez bedi, ezik sakrifizio handi bat dut Baali egiteko. Edozeinek huts egin dezan, ez da biziko. Bada, amarruz hola mintzo zen Jehu, galtzekotzat Baalen adoratzailak.

20. Eta erran zuen: Baali besta-buru bat sainduets zazue. Deithu zituen gizonak,

21. Eta igorri zituen Israelgo eremu guzietara, eta Baalen zerbitzari guziak ethorri ziren; ethorri etzenik bat bakharra etzen gelditu. Eta sarthu ziren Baalen tenploan; eta Baalen etxea bethea zen buru batetik bertzera.

22. Eta aphez-soinekoen artha zutenei erran zaroeten Jebuk: Soinekoak ekhar zotzute Baalen zerbitzari guziei. Eta ekharri ziozkaten soinekoak.

23. Eta Jonadabekin Errekaben semearekin Baalen tenploan sarthurik, Jehuk erran zaroeten Baalen adoratzailaei: Bilha zaizte eta ikhusazue zuekin izan ez dedin Jaunaren zerbitzarietarik nihor, bainan Baalen zerbitzariak izan zaitezten bakharrak.

24. Sarthu ziren beraz bitimen eta holokausten egiteko. Bada Jehuk kanpoan xuxendu zituen laur hogoi gizon, eta erran zaroeten: Eskuetara



emanen darozkitzuedan gizonetarik bat bakharra itzurtzen bada, uzlearen bizia izanen da harenaren ordain.

25. Bada holokausta akhabatua izan zenean, Jehuk hunela manatu zaroeten soldadoei eta aitzindariari: Sar zaizte, eta jo zatzue, eta bat itzur ez bedi. Soldadoek eta aitzindariak jo zituzten beraz ezpataren ahoaz eta arthiki zituzten kanporat; eta goan ziren Baalen tenploko hirira.

26. Baalen moldea tenplotik atheratu zuten, phuskakatu eta erre zuten.

27. Baalen tenploa orobat urratu zuten, eta haren orde priaztegiak egin zituzten, egun arteo dirautenak.

28. Horreletan Jehuk Baal Israeldik xahutu zuen.

29. Halarik-ere Jehu etzen gibelatu bekhatuetarik zeinetaz Jeroboamek Nabathen semeak bekhatu eragin baitzaroen Israeli, eta Bethelen eta Danen ziren urhezko aratxeak etzituen bazterrerat utzi.

30. Bada, Jaunak Jehuri erran zaroen: Zeren arthatsuki egin duzun zuzen eta ene begietan gogaragarri zena, eta Akaben etxearen kontra egin dituzulakotz ene bihotzean ziren guziak; zure semeak laugarren belhaueraino jarriko dira Israelgo tronuan.

31. Baina Jehuk Israelgo Jainko Jaunaren legean bere bihotz guziaz ibiltzeko artha etzuen begiratu; etzuen ezik gibelerat egin Israeli bekhatu eragin zaroen Jeroboamen bekhatuetarik.

32. Jauna orduan Israelez unhatzen hasi zen; eta Hazaelek jo zuen Israel bere muga guzietan.

33. Jordanetik iguzki-haize alderat jo zituen Galaadeko lurra oro, eta Gaden lurra, eta Errubenena, eta Manaserena, Aroerdik, zeina Arnongo erreka gainean baita, eta Galaad eta Basan.

34. Bada, Jehuren gainerako egintzak, eta harek egin zituen guziak, eta haren bihotzotasuna, ez othe dira iskribatuak Israelgo erregeen egunetako egintzen liburuan?

35. Eta Jehu lokhartu zen bere arbasoekin, eta ehortzi zuten Samarian; eta Joakaz haren semea erreginatu zen haren orde.

36. Bada, Jehu Israelen gainean Samarian erreginatzeke egunak heldu izan ziren hogoi eta zortzi urthetara.

## XI. KAP.

1. Athalia berriz, Okoziasen ama, bere semea hila ikhustenez, jaiki zen eta errege ondorego guzia hil zuen.

2. Baina Josabak, Joram erregearen alabak, Okoziasen arrebak, harturik Joas Okoziasen semea, ebatsi zituen hura eta haren unhidea salha-

tik, hiltzen hari zituzten erregeren semeen erditik; eta gorde zuen Athaliaren begietarik, hila izan etzedintzat.

3. Joas bere unhidearekin sei urtez gordea egotu zen Jaunaren etxean; eta Athalia erreginatu zen Judako lurraren gainean.

4. Bada, zazpigarren urthean Joiadak igorri zuen ehuntarien eta soldadoen bilha, eta hekiek harturik Jaunaren tenploan sarrarazi zituen, eta hekiekin batasun egin zuen; eta Jaunaren tenploan zin-eraginik, erakhutsi zaroeten erregeren semea.

5. Eta manatu zaroeten, zioelarik: Huna zer egin behar duzuen:

6. Zuetarik heren bat sar bedi asteko eta zain beza errege-etxea; bertze heren bat izan bedi Surreko athean; eta azken herena erredolarien egoitzako gibeleda athean izan bedi; eta Mesaren etxea zainduko duzue.

7. Eta zuetarikako bi andanek, astetik ilkhiko diren guziek zain beza-te Jaunaren etxea erregeren inguruan.

8. Eta harmak eskuetan errege inguratuko duzue; nihor sartzen bada ordean tenploko hersgunean, hila izan bedi; eta errege sartzean eta ilkhitzean harekin izanen zarete.

9. Ehuntariak egin zuten Joiada aphezak manatu zaroetzten guzien arabera; eta bakhotxak harturik zeinek bere gizonak asteko sartzen zirenak, astetik ilkhitzen zirenekin, ethorri ziren Joiada apheza gana.

10. Hunek eman zaroetzten lantzak eta tenploan ziren errege Dabiden harmak.

11. Guziak xutik jarri ziren, harmak eskuetan, erregeren inguruan, tenploaren eskuineko aldetik, aldarearen eta tenploaren ezkerreko alde-raino.

12. Eta Joiadak agertu zuen erregeren semea, eta haren gainean ezarri zituen diadema eta legeko liburua; eta errege egin zuten eta gantzutu zuten, eta eskuak joz, erran zuten: Bizi bedi errege

13. Bada, Athaliak aditu zuen lasterka heldu zen populuaren haroa, eta Jaunaren tenploan sarthu zen jende-murruetara.

14. Ikhusi zuen errege tronuan jarria ohitzaren arabera, eta haren aldean kantariak eta turutariak, eta lekhuko populu guzia bozkariotan eta turuta jotzen; eta urratu zituen bere soinekoak eta oihu egin zuen: Zimarkhua! zimarkhua!

15. Joiadak berriz, armada manatzen zuten ehuntariei manatu zaroeten eta erran: Eraman zazue tenploko hersguneetarik kanporat, eta horri jarraikiko zaioen edozein, ezpataz joa izan bedi. Ezik aphezak erran zuen: Jaunaren tenploan hila izan ez bedi.



16. Eskua gainean ezarri zaroeten eta herrestatu zuten zaldien sartze-ko bidez jauregiaren ondoan, eta hila izan zen.

17. Joiadak batasun egin zuen beraz Jaunaren artean, eta erregeren artean, eta popularen artean, populua Jaunarena izan zedin, eta erregeren eta popularen artean.

18. Eta populua Baalen tenploan sarthu zen, eta eragotzi zituzten haren aldareak, eta itxurak xehakatu; Mathan ere, Baalan apheza, aldarearen aitzinean hil zuten. Eta aphezak Jaunaren etxean zainak ezarri zituen.

19. Hartu zituen ehuntariak eta Zeretheko eta Pheletheko andanak, eta lekhuko populu guzia; eta Jaunaren etxetik eraman zuten errege; eta erredolarien atheko bidez jauregira ethorri ziren, eta errege jarri zen erregeen tronuan.

20. Eta lekhuko populu guzia bozkariotan sarthu zen, eta hiria deskantsatu zen. Athalia berriz, ezpataz hila izan zen errege-etxean.

21. Joasek zazpi urthe zituen erreginatzen hasi zenean.

## XII. KAP.

1. Jehuren zazpigarren urthean erregetu zen Joas eta berrogoi urthez erreginatu zen. Haren amaren izena zen Sebia Bersabeekoa.

2. Joasek zuzen zena Jaunaren aitzinean egin zuen Joiada aphezaz irakhatsia izan zeno.

3. Etzituen bizkitartean khendu lekhu gorak; ezik oraino populuak imolatzen eta lekhu goretan isentsua erretzen zuen.

4. Eta Joasek erran zaroeten aphezei: Diru kontsekratu guzia Jaunaren tenplora ekharria izanen dena iragaiten direnez, arima-ordain eskaintzen dena, eta zeinek bere baitharik eta bere bihotzeko oldez ekhar-tzen duena Jaunaren tenplora;

5. Hura har bezate aphezek, zeinek bere aldian, eta behar den beza-la tenploa xuxen bezate, zerbait erreberritu beharrik ikhusten badute.

6. Baina aphezek Joas erregearen hogoi eta hirugarren urthea arteo etzituzten egin tenploko erreberripenak.

7. Joas erregeak deithu zituen Joiada aphez-handia eta bertze aphezak, eta erran zaroeten: Zertako ez ditutzue tenploko erreberripenak egi-ten? Ez bezazue gehiago beraz dirua iduk zeinek zuen aldian, baina bihur zazue tenploaren erreberritzeko.

8. Aphezei debekatu zaroeten dirurik handik harat popularen ganik hartzea, eta tenploaren berritzea.

9. Eta Joiada aphez-handiak hartu zuen khutxa bat, gainetik zirritu bat ideki zaroen eta ezarri zuen aldarearen ondoan, Jaunaren etxean sartzen

zirenen eskuinetik, eta atheak zaintzen zituzten aphezek hartan ezartzen zuten Jaunaren tenplora ekhartzen zen diru guzia.

10. Eta ikhusten zutenean diru sobera zela khutxan, erregeren iskribaua eta aphez-handia igaiten ziren, eta ixurtzen eta khondatzen zuten Jaunaren etxean khausitzen zen dirua.

11. Eta hura bere nonbre eta phisu arauka ematen zuten Jaunaren etxeko langileen aitzindariei; haukiek phartitzen zaroeten hura Jaunaren etxean lanean eta erreberritzen haritzen ziren zur-lantzaile eta harginei,

12. Eta harriak ebakitzen zituztenei, zuren eta eskuairatzen ziren harrien erostekotzat, halai non osa zedin Jaunaren etxearen erreberripena, etxearen xuxentzeko behar ziren gauza guziez.

13. Jaunaren tenploko pegar, hiruhortzeko, isentsuntzi, turuta eta edozein zilharrezko eta urhezko untziak etziren bizkitartean egiten Jaunaren tenplora ekhartzen zen dirutik.

14. Hura ezik Jaunaren tenploaren erreberritzeko ematen zen lana egiten zutenei.

15. Eta xehetasunik etzitzaioeten galdatzen dirua hartzen zutenei langileei phartitzekotzat, baina erabiltzen zuten, beren gaineko sinhestea berme.

16. Aldiz hobenarentzateko dirua eta bekhatuarentzateko dirua etzi-ren tenplorat ekhartzen, aphezentzat zirelakotz.

17. Orduan Hazael Siriako errege igan zen eta gudukatzen zuen Jeth; hiria hartu zuen eta burua itzuli Jerusalemera igaiteko.

18. Horren gatik Joasek Judako erregek hartu zituen sainduetsiak ziren guziak, Judako errege haren arbasoek, Josafatek, Joramek eta Okoziasak kontsekratu zituztenak, eta berak eskaini zituenak; eta Jaunaren tenploko khutxetan eta errege jauregian khausitu ahal izan zuen diru guzia; igorri zaroen Hazaeli Siriako erregeri, eta hunek gibelerat egin zuen Jerusalemetik.

19. Joasen gainerako egintzak berriz, eta egin zituenak oro, ez othe dira iskribatuak Judako erregeen egunetako egintzen liburuan?

20. Bada, haren zerbitzariak jaiki ziren, elkhar hartu zuten zin batean eta Joas hil zuten Meloko etxean, Selako patarrean.

21. Ezen Josakarrek Semaathen semeak, eta Jozabadek Somerren semeak, haren zerbitzariak, jo zuten, eta hil zen. Dabiden hirian bere aitekin ehortzi zuten, eta Amasias haren semea erreginatu zen haren orde.



### XIII. KAP.

1. Judako errege Okoziasen Seme Joasen hogoi eta hirugarren urthean, Joakaz Jehuren semea Israelen gainean Samarian erreginatu zen hamazazpi urthez.

2. Gaizkia egin zuen Jaunaren aitzinean, eta bekhatu hekiei jarraiki zen zeinetaz Nabathen semeak Jeroboamek bekhatu eragin baitzaroen Israeli, eta etzen hekiatarik aldaratu.

3. Eta Jaunaren hasarrea phiztu zen Israelen kontra, eta arthiki zuen egun oroz Siriako errege Hazaelen eskura, eta Hazaelen seme, Benadaden eskura.

4. Bainan Joakazek errekeitu zuen Jaunaren begithartea, eta Jaunak entzun zuen; ikhusi zuen ezik Israelen hestura, zeren ehoak ezarri baitzitu Siriako erregek.

5. Eta Jaunak salbatzaile bat eman zaroen Israeli, eta Siriako erregeren eskuatarik atheratua izan zen; eta Israelgo semeak, beihala bezala bakean egotu ziren beren olhetan.

6. Halarik-ere, Israeli bekhatu eragin zaroen Jeroboamen etxearen bekhatuetarik etziren gibelatu; ezen lukua gelditu zen Samarian.

7. Eta populutik Joakazi etzitzaizkon gelditu berrogoi eta hamar zaldizko baizik, hamar orga-laster eta hamar mila oinezko; ezik Siriako erregek xahutu eta ogi-jotzetako herrautsa bezala ezarri zituen.

8. Joakazen gainerako egintzak berriz, eta haren bihotzoitasuna eta harek egin zituen guziak, ez othe dira iskribatuak Israelgo erregeen egunetako egintzen liburuan?

9. Joakaz bere arbasoekin lokhartu zen, eta ehortzi zuten Samarian; eta Joas haren semea erreginatu zen haren orde.

10. Judako errege Joasen hogoi eta hamazazpigarren urthean erreginatu zen Joas Joakazen semea Israelen gainean Samarian hamasei urthez.

11. Eta gaizkia egin zuen Jaunaren aitzinean; eta Israeli bekhatu eragin zaroen Nabathen seme Jeroboamen bekhatuetarik etzen aldaratu, bainan hekietan beretan ibili zen.

12. Joasen gainerako egintzak berriz, eta harek egin zituen guziak, eta haren bihotzoitasuna, eta nola gudukatu zuen Amasias Judako errege, ez othe dira iskribatuak Israelgo erregeen egunetako egintzen liburuan?

13. Eta Joas bere arbasoekin lokhartu zen. Jeroboam berriz, haren tro-nuan jarri zen. Eta Joas Samarian ehortzia izan zen Israelgo erregeekin.

14. Bada, Eliseo hiltzeko gaitzetik eri zen; eta Joas Israelgo errege jautsi zen haren gana, eta nigar egiten zuen haren aitzinean, eta erraten zuen: Ene aita! ene aita! Israelgo orga-lasterra! orga-lasterreko zaina!

15. Eta Eliseok erran zaroen: Ekhar zatzu arranbela bat eta geziak. Eta ekharri ziozkanean arranbela eta geziak,

16. Erran zaroen Israelgo erregeri: Eskua ezar zazu arranbelaren gainean. Eta eskua ezarri zuenean, Eliseok bere eskuak ezarri zituen erregeren eskuen gainetik,

17. Eta erran zuen: Idekazu iguzki-haizerako leihoa. Eta ideki zuenean, Eliseok erran zuen: Igorrazu gezi bat. Eta igorri zuen. Eliseok erran zuen: Jaunaren salbamenduko gezia, eta Siriarren kontra salbamenduko gezia! Siria joko duzu Apheken, xahu dezazun arteo.

18. Eta erran zuen: Har zatzu geziak. Erregek hartu zituen, eta Eliseok erran zaroen berriz: Jo zazu geziaz lurra. Eta hiruretan jorik, gelditu zenean,

19. Jainkoaren gizona samurtu zitzaioen eta erran zaroen: Jo bazindu bortz aldiz, edo seiez, edo zazpiz, herrausteraino joko zinduen Siria; bada orai, hiruretan joko duzu.

20. Eliseo hiltzen beraz eta ehortzi zuten. Urthe berean berriz, ohoin batzu ethorri ziren Moabetik lekhu hartara.

21. Eta hil baten ehorztera zihoazen gizonek ikhusi zituzten ohoinak, eta hila arthiki zuten Eliseoren hobira. Gorphutzak ukitu zituenean Eliseoren hezurak, gizona phiztu zen, eta zangoen gainera xutitu zen.

22. Beraz Hazaelek Siriako erregek Israeli jasaiteko eman zaroen Joakazen egun guzietan.

23. Jauna urrikaldu zitzaioten Israeldarrei, eta bihurtu zen hekien gana, Abrahamekin, Isaakekin eta Jakobekin zuen batasunaren gatik. Etzituen nahi izan galdu, ez-eta alde bat irazi oraidinokoan.

24. Bada, Hazael Siriako errege hil izan zen, eta Benadad haren semea erreginatu zen haren orde.

25. Eta Joasek Joakazen semeak Hazaelen seme Benadaden eskutik hartu zituen Hazaelek haren aita Joakazen eskutik gerlako zuzenez hartu zituen hiriak. Hirur aldiz jo zuen Joasek, eta Israeli hiriak bihurtu ziozkan.

### XIV. KAP.

1. Israelgo errege Joakazen seme Joasen bigarren urthean erreginatu zen Amasias, Judako errege Joasen semea.

2. Hogoi eta bortz urthe zituen erreginatzen hasi zenean; hogoi eta bederatzia urthez erreginatu zen Jerusalem; haren amaren izena zen Joadan Jerusalemekoa.

3. Zuzen zena egin zuen Jaunaren aitzinean, ez bizkitartean bere aita Dabidek bezala. Bere aita Joasek bezala egin zituen oro,





4. Lekhat hau bakharrik, lekhu gorak etzituela khendu, ezik oraino populuak lekhu goretan imolatzen zuen eta isentsua erretzen zuen.

5. Erregetasuna ardietsi zuenean, bere aita erregea hil zaroeten bere zerbitzariak jo zituen.

6. Bainan hiltzaile hekien semeak etzituen hil Moisen legeko liburuan iskribatua denaren arabera, eta Jaunak manatu bezala, erran zuenean: Aitak ez dira hilen semeen gatik, eta semeak ez dira aiten gatik hilen; bainan zein bere gaizkia gatik hilen da.

7. Harek jo zituen hamar mila Idumear Gaztegiatoko haranean, eta gerlan hartu zuen Petra, eta izena eman zaroen Jektehel, oraidinokoan bezala.

8. Orduan Amasiasek bidalkinak igorri ziozkan Joasi Joakazen semeari, Joakaz baitzen Israelgo errege Jehuren semea; eta gaztiatu zaroen: Zato eta dugun elkhar ikhus.

9. Joasek Israelgo erregek Amasiari Judako erregeri hau gibelerat gaztiatu zaroen: Libango astokharloak Liban gaineko zedroari igorri zaroen, zioelarik: Ene semeari zure alaba emaztetzat emozu. Eta Libanen diren oihan abereak iragan ziren eta astokharloa lehertu zuten.

10. Edom jorik nausitu zaizkio eta bihotza hantu zaitzu. Goza zazu zure ospea eta jar zaitte zure etxean; zertan zabilta gaitzaren ondoan, lurra jo dezazun othe, eta Judak ere zurekin batean?

11. Eta Amasiasek etzuen onhetsi; eta Joas igan zen, eta elkhar ikhusi zuten Joasek eta Amasiasek Judako erregek Bethsamesen Judako hirian.

12. Eta Juda joa izan zen Israelen aitzinean, eta zeinek bere olhara ihes egin zuen.

13. Joasek berriz, Israelgo erregek, Bethsamesen hartu zuen Amasiak Judako errege Joasen semea, Joas Okoziasen semea baitzen, eta eraman zuen Jerusalemara. Lurrerat arthiki zuen Jerusalemeko harrasia, Efraimgo athetik izkinako athera, lau ehun besotan.

14. Eta hartu zituen Jaunaren etxean eta erregeren khutxetan khausitu ziren urhe, zilhar eta untzi guziak, eta bahiak, eta Samariara itzuli zen.

15. Joasen gainerako egintzak berriz, eta bihotzotasuna zeinarekin gudukatu baitzen Judako errege Amasiaren kontra, ez othe dira iskribatuak Israelgo erregeen egunetako egintzen liburuan?

16. Eta Joas lokhartu zen bere aitekin eta Samarian ehortzi zuten Israelgo erregeekin; eta Jeroboam haren semea erreginatatu zen haren orde.

17. Amasiak berriz, Judako errege, Joasen semea, Joas Israelgo errege Joakazen semea hil ondoan, bizi izan zen hamabortz urthez.

18. Eta Amasiaren gainerako egintzak, ez othe dira iskribatuak Judako erregeen egunetako egintzen liburuan?

19. Eta haren kontra zin-hartze bat egin zen Jerusalem; bainan harek Lakisera ihes egin zuen. Eta haren ondotik Lakisera igorri zuten, eta han hil zuten.

20. Ekharri zuten zaldien gainean, eta Jerusalem ehortzi zuten bere aitekin Dabiden hirian.

21. Bada, Judako populu guziak Azarias hartu zuen hamasei urthetan, eta errege ezarri zuten bere aita Amasiaren orde.

22. Harek altxatu eta Judari bihurtu zaroen Elath, bere arbasoekin errege lokhartu zen ondoan.

23. Judako errege Joasen seme Amasiaren hamabortzgarren urthean, Jeroboam, Joas Israelgo erregeren semea, Samarian erreginatatu zen berrogoi eta bat urthez.

24. Gaizki zena egin zuen Jaunaren aitzinean. Israeli bekhatu eragin zaroen Nabathen seme Jeroboamen bekhatu guzietarik etzuen gibel egin.

25. Harek lehen bezala ezarri zituen Israelgo mugak, Ematheko sartzetik mortuko itsasoraino, Israelgo Jainko Jaunak erran zuen hitzaren arabera, Jonas profeta Amathiren semearen ahoz, zeina Jethekoa baitzen, Opherren.

26. Ezen Jaunak ikhusi zuen Israelen atsekabe guziz uherra, eta guziak erkhituak zirela presondegian hertsia zirenetaraino, eta populuko azkenetaraino, eta nihor etzela Israeli laguntza ekhartzen zaroenik.

27. Eta Jaunak etzuen egin Israelen izenaren ezeztatzera zeruaren azpitik, bainan salbatu zituen Jeroboam Joasen semearen eskuz.

28. Jeroboamen gainerako egintzak berriz, eta harek egin zituenak oro, eta haren bihotzotasuna guduetan, eta nola Israelera bihurtu zituen Damas eta Emath Judakoak, ez othe dira iskribatuak Israelgo erregeen egunetako egintzen liburuan?

29. Eta Jeroboam lokhartu zen bere arbaso Israelgo erregeekin, eta Zakarias haren semea erreginatatu zen haren orde.

## XV. KAP.

1. Israelgo errege Jeroboamen hogoi eta zazpigarren urthean erreginatatu zen Azarias, Judako errege Amasiaren semea.

2. Hamasei urthetan hasi zen erreginatzen, eta berrogoi eta hamabi urthez erreginatatu zen Jerusalem; haren amaren izena zen Jekelia Jerusalemekoa.



3. Jaunaren aitzinean gogaragarri zena egin zuen, haren aita Amasiasek egin zituen ororen arabera.
4. Bizkitartean etzituen lekhu gorak eragotzi; populuak imolatzeko zuen oraino eta isentsua erretzen lekhu goretan.
5. Bada, Jaunak jo zuen errege, eta legentsu izatu zen bere heriotzeko eguna arteo, eta etxe huts batean berez egoten zen. Joathanek berriz, erregeren semeak, manatzen zuen jauregia eta juiatzen erresumako populua.
6. Azariasen gainerako egintzak berriz, eta egin zituen guziak, ez othe dira iskribatuak Judako erregeen egunetako egintzen liburuan?
7. Eta Azarias lokhartu zen bere aitekin, eta Dabiden hirian ehortzi zuten bere arbasoekin, eta Joathan haren semea erreginatu zen haren orde.
8. Judako errege Azariasen hogoi eta hemezortzigarren urthean, Zakarias Jeroboamen semea Israelen gainean erreginatu zen Samarian sei hilabetez.
9. Gaizki zena Jaunaren aitzinean egin zuen, haren arbasoek egin zuten bezala; Israeli bekhatu eragin zaroen Nabathen seme Jeroboamen bekhatuetarik etzuen gibel egin.
10. Bainan Selumek, Jabesen semeak, haren kontra zin-hartze bat egin zuen; agerriki jo eta hil zuen, eta haren orde erreginatu zen.
11. Zakariasen gainerako egintzak berriz, ez othe dira iskribatuak Israelgo erregeen egunetako egintzen liburuan?
12. Hau da Jaunak Jehuri erran zaroen hitza, zioenean: Zure semeak laugarren belhauneraino jarriko dira Israelgo tronuan. Eta hala egin zen.
13. Selum, Jabesen semea, Judako errege Azariasen hogoi eta hemezortzigarren urthean erregetu zen, eta hilabete batez erreginatu zen Samarian.
14. Eta Manahem, Gadi Thersakoaren semea, igan zen; ethorri zen Samariara, eta jo zuen Selum Jabesen semea Samarian, eta hil zuen, eta erreginatu zen haren orde.
15. Selumen gainerako egintzak berriz, eta haren zin-hartze zelaten hedatzekoa, ez othe dira iskribatuak Israelgo erregeen egunetako egintzen liburuan?
16. Orduan Manahemek jo zituen Thapsa, eta barnean ziren guziak, eta hango eremuak Thersako ondolik, ezik etzieten nahi izan ideki; hil eta urratu zituen emazteki izorra guziak.
17. Judako errege Azariasen hogoi eta hemeretzigarren urthean, Manahem Gadiren semea Israelen gainean hamar urtez erreginatu zen Samarian.

18. Eta Jaunaren aitzinean gaizki zena egin zuen; Israeli bere egun guzietan bekhatu eragin zaroen Nabathen seme Jeroboamen bekhatuetarik, Manahemek etzuen gibel egin.

19. Phul Asiriarren errege Israelgo lurrera ethorri zen, eta Manahemek mila zilharrezko talendu eman zarozkien, lagungarri izan zakiontzat eta gogor ziozon bere erreinua.

20. Manahemek Israelen gainean zergatu zuen diru hura ahaldun eta aberats guziei, berrogoi eta hamar zilharrezko siklo zergatu bakhoxka, ematekotzat Asiriarren erregeri; eta Asiriarren errege gibelerat itzuli zen, eta etzen Israelgo lurrean egotu.

21. Manahemen gainerako egintzak berriz, eta harek egin zituenak oro, ez othe dira iskribatuak Israelgo erregeen egunetako egintzen liburuan?

22. Manahem lokhartu zen bere arbasoekin, eta Phazeia haren semea erreginatu zen haren orde.

23. Judako errege Azariasen berrogoi eta hamargarren urthean, Phazeia Manahemen semea Israelen gainean erreginatu zen Samarian bi urtez.

24. Eta Jaunaren aitzinean gaizki zena egin zuen; etzen gibeldu Nabathen seme Jeroboamen bekhatuetarik, zeinak Israeli bekhatu eragin baitzaroen.

25. Bada, haren armadako aitzindariak, Phazeek, Erromeliaren semeak, zin-hartze bat egin zuen haren kontra; Samarian, errege-etxeko dorrean, Argobeko eta Arieko ondoan, jo zituen hura, eta berrogoi eta hamar gizon Galaadtarren semeetarik harekin; eta hil zuen Phazeia eta erreginatu zen haren orde.

26. Phazeiaren gainerako egintzak berriz, eta harek egin zituenak oro, ez othe dira iskribatuak Israelgo erregeen egunetako egintzen liburuan?

27. Judako errege Azariasen berrogoi eta hamabigarren urthean, Phazee Erromeliaren semea Israelen gainean erreginatu zen Samarian hogoi urtez.

28. Eta Jaunaren aitzinean gaizki zena egin zuen; Israeli bekhatu eragin zaroen Nabathen seme Jeroboamen bekhatuetarik etzen gibeldu.

29. Israelgo errege Phazeen egunetan Theglathphalasar Asurgo errege ethorri zen; hartu zituen Aion, Abel-Etxe Maakarena, Janoe, Zedes, Asor, Galaad, Galilea, eta Nefthaliren lurra oro, eta hango egoiliarrak Asiriara eraman zituen.

30. Bada, Oseek Elearen semeak zin-hartze bat egin zuen, eta zelatak hedatu ziozkan Phazeeri Erromeliaren semeari; jo zuen eta hil; eta



Oziasen seme Joatham hogoigarren urthean, erreginatu zen Phazeen orde.

31. Phazeen gainerako egintzak berriz, eta harek egin zituenak oro, ez othe dira iskribatuak Israelgo erregeen egunetako egintzen liburuan?

32. Israelgo errege Phazeen, Erromeliaren semearen bigarren urthean, erreginatu zen Joatham, Judako errege Oziasen semea.

33. Hogoï eta bortz urthe zituen erreginatzen hasi zenean, eta hamasei urthez erreginatu zen Jerusalem. Haren amaren izena zen Jerusa Sadoken alaba.

34. Jaunaren aitzinean gogaragari zena egin zuen; bere aita Oziasek egin zituen guzien arabera erabili zen.

35. Bizkitartean etzituen khendu lekhu gorak; populuak oraino imolatzaren zuen eta lekhu goretan isentsua erretzen. Joathamek egin zuen Jaunaren etxeko athe goren.

36. Joatham gainerako egintzak berriz, eta harek egin zituenak oro, ez othe dira iskribatuak Judako erregeen egunetako egintzen liburuan?

37. Egun hekietan hasi zen Jauna Judarat igortzen Errasin Siriako errege, eta Phaze Erromeliaren semea.

38. Eta Joatham lokhartu zen bere arbasoekin eta hekiekin ehortzia izan zen bere aita Dabiden hirian; eta Akaz haren semea erreginatu zen haren orde.

## XVI. KAP.

1. Phaze Erromeliaren semearen hamazazpigarren urthean errege-tu zen Akaz, Judako errege Joatham semea.

2. Akazek hogoï urthe zituen erreginatzen hasi zenean, eta hamasei urthez erreginatu zen Jerusalem. Bere Jainko Jaunaren aitzinean gogaragari zena etzuen egin bere aita Dabidek bezala.

3. Baina Israelgo erregeen bidez ibili zen; eta gehiago dena, bere semea ere kontsekratu zuen, sutik iraganaraziz, Jaunak Israelen aitzinean haizatu zituen jendaïen idolatiarkeriaren arabera.

4. Imolatzaren zituen halaber bitimak eta isentsua erretzen lekhu goretan, eta munho gainetan, eta edozein zuhaitz hostotsuren azpian.

5. Orduan Errasin Siriako errege, eta Phaze Erromeliaren semea, Israelgo errege, gudukatzeraz igan ziren Jerusalem; eta sethioan zadukatelatik Akaz, etzuten halere ahal izan zahutu.

6. Errasinek Siriako erregek orduan hartu zuen gibelerat Aila Siriakoa, eta Juduak khendu zituen handik; eta Idumearrak ethorri ziren Ailara, eta han egin zuten beren egoitza egundinokoa.

7. Bada Akazek bidalkinak igorri ziozkan Theglathphalasarri, Asiriarren erregeri, zioelarik: Ni zure zerbitzari eta zure seme naiz; igan zaite eta itzur nezazu Siriako erregeren eskutik eta Israelgo erregeren eskutik, zeren ene kontra baitira altxatu.

8. Eta bildu ondoan Jaunaren etxean eta errege khutxetan aurkhitu ahal izan zuen dirua, emaitzak egorri ziozkan Asiriarren erregeri.

9. Theglathphalasar jautsi zen haren nahira; Damasera igan zen, larrutu zuen hiria, eta hango egoiliarak Zirenera eramane zituen; Errasin ere hil zuen.

10. Akaz erregea Damasera goan zen Theglathphalasarriaren erregeren bidera; eta ikhusi zuenean Damaseko aldarea, errege Akazek Crias aphezari igorri ziozkan haren moldea eta itxura, hartako langintza guziaren arabera.

11. Eta Urias aphezak aldare bat egin zuen errege Akazek Damastik manatu guzien arabera; eta hala egin zuen Urias aphezak, errege Akaz Damastik ethor zedin artean.

12. Eta errege Damasetik ethorri zenean, ikhusi zuen aldarea, eta ohoratu zuen; eta igan zen, eta imolatu zituen holokaustak eta bere sakrifizioa.

13. Eta libazioneak egin zituen, eta aldarearen gainean eskaini zituen bakezko bitimen odola ixuri zuen.

14. Jaunaren aitzinean zen kobrezko aldarea berriz, khendu zuen tenploko aitzindegitik, eta aldarearen lekhutik, eta Jaunaren tenploko lekhutik, eta ezarri zuen aldare berriaren sahetsetik ipharrerat.

15. Halaber Akaz erregeak Urias aphezari manu eman zaroen, zioelarik: Aldare handienaren gainean eskaini zatzu goizetako holokausta eta arratsetako sakrifizioa, erregeren holokausta eta sakrifizioa, eta lurreko populu guziaren holokausta, eta hekien sakrifizio eta libazioneak; eta aldare horren gainera ixuriko duzu holokaustako odol guzia eta bitimako odol guzia; kobrezko aldarea berriz, egonen da nik nahiko dudanerakoz.

16. Urias aphezak egin zuen beraz Akaz erregeek manatu guzien arabera.

17. Bada, Akaz erregeak khendu zituen oin lanketatuak eta hekien gainean ziren untziak; itsasoa jautsi zuen jasaiten zuten idien gainetik, eta ezarri zuen harrizko galtzadaren gainean.

18. Larunbateko musaka ere, tenploan egin zuena, eta erregeren kanpotikako sartzea, tenploaren barnera aldaratu zituen, Asiriarren erregeren gatik.

19. Akazen gainerako egintzak berriz, ez othe dira iskribatuak Judako erregeen egunetako egintzen liburuan?



20. Eta Akaz lokhartu zen bere aitekin, eta hekiekin ehortzi zuten Dabiden hirian; eta Ezekias haren semea erreginatu zen haren orde.

### XVII. KAP.

1. Judako errege Akazen hamabigarren urthean, Osee Elaren semea Israelen gainean Samarian erreginatu zen bederatzi urthez.

2. Gaizkia egin zuen Jaunaren aitzinean, baina ez hura baino lehen izan ziren Israelgo erregeek bezala.

3. Salmanasar Asiriarren errege igan zen haren kontra, eta Osee egina izan zen harenpeko eta zerga pagatzen zaroen.

4. Eta Asiriarren erregek atzeman zuenean Oseek Suari Egiptoko erregeri bidalkinak igorri ziozkala, bihurtzeko oldez, Asiriarren erregeri ez pagatzeko zergak, urthe oroz egiten ohi zuen bezala, sethiatu eta este-katurik presondegira igorri zuen.

5. Irauli zuen Israel guzia; eta Samariara iganik sethiotan iduki zuen hirur urthez.

6. Bada, Oseeren bederatzigarren urthean Asiriarren erregek hartu zuen Samaria eta Israeldarrak eraman zituen Asiriara, eta ezarri zituen Halan eta Haborren, Gozango hibaia bazterrean, Mediarren hirietan.

7. Eta hori gerthatu zen, Israelgo semeek bekhatu egin zutenean beren Jainko Jaunaren kontra, (zeinak atheratu baitzituen Egiptoko lurretik eta Egiptoko errege Faraonen eskuetarik,) adoratu zituztelakotz jainko arrotzak.

8. Ibili izan ziren Jaunak Israelgo semeen aitzinean xahutu zituen jendakien azturen arabera, eta hekien arara egin zuten Israelgo erregeen manuz.

9. Israelgo semeek damuztatu zuten beren Jainko Jauna beren egitate tzarrez, eta lekhu gorak egin zituzten beren hiri guzietan, zainen dorretik hiri hazkarturaino.

10. Eta jainko-moldeak eta lukuak egin zituzten munho gora guzietan, eta zuhaitz hostostu guzien azpian.

11. Eta han aldare gainetan isentsua erretzen zuten, Jaunak hekien aitzinetik xahutu zituen jendaien arara; eta Jauna samurrazaz, egiten zituzten tzarkeriarik handienak.

12. Eta adoratu zituzten gauza lohiak, zeinetarik Jaunak manatu baitzioten begira zitezen.

13. Eta Jaunak Israelen eta Judan lekhukotasunak hartu zituen profeta eta ikhulse guziez, zioelarik: Bihur zaitezte zuen bide galduetarik; begira zatzue ene manamenduak eta zeremoniak, zuen arbasoei eman

dioztatedan lege guziaren arabera, eta gaztiatu darotzuedan bezala ene zerbitzari profetez.

14. Hekiek etzuten entzun, baina burua gogortu zuten beren aiten arara zeinek ez baitzuten beren Jainko Jaunari nahi izan ethorkortasunik ekharri.

15. Eta arbuiatu zituzten haren legeak, eta hekien arbasoeikin egin izan zuen batasuna, eta Jaunak egin lekhukotasunak; eta zorokeriei jarraiki ziren eta zoroki haritu; eta jarraiki ziren beren inguruko jendakiei, zeinetaz Jaunak manatu baitzaroeten etzezaten egin hekiek egiten zuten bezala.

16. Eta bazterrerat utzi zituzten beren Jainko Jaunaren manamendu guziak; egin zituzten berentzat bi aratxe urthu eta lukuak; adoratu zuten zeruko izarrerria guzia: Baal zerbitzatu zuten;

17. Beren semeak eta alabak suaz kontsekratu zituzten; aztikeriak eta asmagintzak erabili zituzten, eta beren buruak Jaunaren aitzinean gaizki egiteari eman zituzten, haren hasarrearaztea gatik.

18. Jauna hasarre gaitzean eman zitzaioen Israeli, eta irazi zuen bere begithartearen aitzinetik, eta etzen gelditu Judako leinua bera bakharra baizik.

19. Ordean Judak berak ere etzituen begiratu bere Jainko Jaunaren manamenduak, baina ibili zen Israelek erabili zituen makhurretan.

20. Eta Jaunak bulkhatu zituen Israelen odoleko guziak, atsekabetan ezarri zituen, eta larrutzen zituztenen eskuetara arthiki zituen, bere begithartearen aitzinetik iraz zetzan arteo.

21. Abiadura izan zen, Israel Dabiden etxetik berezi zen ordutik, eta Jeroboam Nabathen semea bere gainean errege ezarri zuenetik; Joroamek ezik aldaratu zuen Israel Jauna ganik eta bekhatu handira erorarazi zuen.

22. Israelgo semeak ibili ziren Jeroboamen bekhatu guzietan, eta etzuten hekietarik gibel egin,

23. Jaunak Israel bere begithartearen aitzinetik iraz zezan arteo, bere zerbitzari profeta guzien ahoz erran zuen bezala; eta Israel bere lurretik Asiriara eramana izan da egungo eguna arteo.

24. Bada, Asiriarren erregek, Babilonatik, Kuthatik, Abaktik, Emathetik eta Sepharbaimdik jendeak erakharri zituen; eta Samariako hirietan ezarri zituen Israelgo semeen orde; Samaria gozatu zuten, eta beren egoitza egin zuten hanga hirietan.

25. Eta han egoten hasi zirenean, etziren Jaunaren beldur; eta Jaunak hekietara igorri zituen lehoinak zeinek hiltzen baitzituzten.



26. Eta Asiriarren erregeri berria ekharri izan zaroen, eta erran zaroen: Lekhuz aldatu eta Samariako hirietan egoitzaz ezarri dituzun jendakiek ez dakitzate lekhuko Jainkoaren legeak; eta Jaunak hekien gainera igorri ditu lehoinak; eta huna non lehoinek hiltzen dituzten, ez dakitelakotz lekhuko Jainkoaren legea.

27. Asiriako erregek berriz, manatu zuen, zioelarik: Handik gathibu erakharri dituztuen aphezatarik bat eramazue harat; bihoa, eta hekiekin egon bedi, eta irakhats biotzoztete lekhuko Jaunaren legeak.

28. Samariatik gathibu eramanak izan ziren aphezatarik bat ethorri zenean beraz, egoitza Bethelen egin zuen, eta irakasten zaroeten nola adora Jauna.

29. Jendaki bakhotxak lanthu zuen bere jainkoa eta ezarri zituzten Samariarrek egin tenplo goretan, eta jendaki bakhotxak zeinek bere egoitzako lekhuan.

30. Babilondar gizonek egin zuten ezik Sokothbenoth; Kutear gizonek berriz, Nerjel; eta Emathekoek Asima.

31. Bada, Hebearrek egin zituzten Nebahaz eta Tharthak. Bainan Sepharbaimdarrek suz erretzen zaroetzeten beren haurrak Adrameleki eta Anameleki Sepharbaimgo jainkoei;

32. Eta oro-gatik Jauna adoratzan zuen. Lekhu goretako aphezak berriz, populuko azkenetarik egin zituzten, eta beren tenplo goretan ezarritzen zituzten.

33. Eta Jauna adora zezaten arren, beren jainkoak ere zerbitzatzen zituzten, zein tokitarik Samariara erakharriak izan baitzien eta hango arara.

34. Ohitza zaharrari jarraitzen dira orai arteo; ez dira Jaunaren beldur, eta ez dituzte begiratzen haren zeremonia, erabaki, lege eta manamenduak, Jaunak eman zaroetzenak Israel deithu zuen Jakoben semeei,

35. Zeinekin egin baitzuen batasun, eta zeinei manu egin baitzarooten, zioelarik: Ez bezaizte jainko arrotzen beldur izan; ez betzatzue ez adora, ez zerbitza, eta ez bezozuete imola;

36. Bainan zuen Jainko Jauna, Egiptoko lurretik indar handian eta beso hedatuaz ilkiarazi zaituztena, haren izan zaitezte beldur, hura adora eta hari imola zazue.

37. Halaber, zuentzat iskribatu dituen zeremoniak, erabakiak, legea eta manamenduak begira zatzue egun oroz bethetzeko; eta ez izan jainko arrotzen beldur;

38. Eta zuekin jo duen patua ez bezazue ahantz; ez betzatzue jainko arrotzak zerbitza.

39. Bainan zuen Jainko Jaunarentzat izan zaitezte beldur, eta harek atheraturen zaituztete zuen etsai ororen eskuetarik.

40. Hekiek ordean etzuten entzun, bainan beren ohitza zaharraren arabera hari ziren.

41. Jendaki horiek beraz Jaunaren beldur ziren, bainan ez gutiago beren jainko-moldeak zerbitzatzuz; ezik hekien semeek eta ilobasoek, nola egiten baitzuten hekien aitek, hala egiten dute egungo eguna arteo.

## XVIII. KAP.

1. Israelgo errege Elaren seme Oseeren hirugarren urthean, erregetu zen Ezekias, Judako errege Akazen semea.

2. Hogoi eta bortz urthe zituen erreginatzen hasi zenean; eta hogoi eta bederlatzi urthez erreginatatu zen Jerusalemen. Haren amaren izena zen Abi Zakariasen alaba.

3. Jaunaren aitzinean ongi zena egin zuen, bere aita Dabidek egin zituen guzien arabera.

4. Harek barraiatu zituen lekhu gorak, phorroskatu jainko-moldeak, ebaki lukuak eta xehakatu Moisek egin zuen kobrezko sugea; ezik ordu arteo Israelgo semeek isentsua erretzen zaroten; eta deithu zuen Nohestan.

5. Israelgo Jainko Jauna baithan zuen bere urikitza; hargatik ez da hartaz geroz Judako errege guzietan haren idurikorik izatu, ez-etare haren aitzinean izan zirenetan.

6. Iratxiki zen Jaunari eta etzituen utzi haren urhatsitk, eta bethe zituen Jaunak Moisi eman manamenduak.

7. Horren gatik zen Jauna harekin, eta zuhurki goaten zen egiten zituen orotan. Asiriarren erregeri ere bihurtu zitzaioen, eta etzuen zerbitzatu.

8. Ezekiasek jo zituen Filistindarrak Gazaraino, eta hekien eremuak oro, zainen dorretik hiri harrasizaturaino.

9. Ezekias erregearen laugarren urthean, zeina baitzen Israelgo errege Elaren seme Oseeren zazpigarrena, Salmanasar Asiriarren errege igan zen Samariara eta sethiotan ezarri zuen,

10. Eta hartu zuen. Ezik hirur urtheren buruan, Ezekiasen seigarren urthean, hori da Israelgo errege Oseeren bederatzigarrena, Samaria hartua izan zen.

11. Eta Asiriarren erregek Israeldarrak eraman zituen Asiriara, eta ezarri zituen Halan eta Haborren, Gozango hibai bazterrean Mediarren hirietan;



12. Zeren ez baitzuten entzun beren Jainko Jaunaren mintzoa, bainan bai hautsi harekilako patua; eta etzutelakoz ez entzun, ez egin, Moisek Jaunaren zerbitzariak manatu zarozkiten guziak oro.

13. Ezekias erregearen laugarren urthean, Senakerib Asiriarren errege igan zen Judako hiri hazkar guzietara eta hartu zituen.

14. Orduan Ezekiasek Judako erregek Lakisera bidalkinak igorri zarozkien Asiriarren erregeri, zioelarik: Huts egin dut, urrun zaite ni ganik, eta jasanen dut ene bizkar emanen duzun guzia. Hargatik Asiriarren erregek hirur ehun zilharrezko talenduz eta hogoi eta hamar urhezko talenduz manatu zuen Ezekias Judako errege.

15. Eta Ezekiasek eman zuen Jaunaren etxean eta errege khutxetan aurkhitua izan zen diru guzia.

16. Orduan Ezekiasek hautsi zituen Jaunaren etxeko bi athe-alderdiak, eta berak iratziki ziozkaten urhe-xaflak, eta Asiriarren erregeri eman zarozkien.

17. Bainan Asiriarren erregek Tharthan, Errabsaris eta Errabsazes indar handirekin Lakistik Jerusalemera igorri zituen Ezekiasen gana. Haukiek igan zirenean, ethorri ziren Jerusalemera baratu ziren Bolazainaren landako bidean den gaineko arraintegiko ixtunaren ondoan.

18. Eta deithu zuten errege. Bada, Eliazim Helziasen semea, erregearen etxegizona, Sobna iskribaua, eta Joahe agerizaina Asaphen semea ilkhi ziren hekietara.

19. Eta Errabsazesek erran zaroeten Errozue Ezekiasi: Hau dio errege handiak, Asiriarren erregek: Zer da ustekeria hori zeinaren gainean bermatzen baihaiz?

20. Beharbada gudu egiteko bidetan jartzea amestu duk. Zeri zatxi-kok hire pheskiza, bihurtzera ausartatzekotzat?

21. Ala duk hire igurikitza Egiptoarra baithan, khanaberazko makhila hautsi hartan? Haren gainean bermatuko den gizonari khanabera hautsia sarthuko zaiok eskutik eta zilhatuko zio. Horra zer den Faraon Egiptoko errege, haren peskizan egoten direnentzat.

22. Erraten bazinarotate: Gure Jainko Jaunaren baithan dugu gure ustea ez othe da hura bera zeinaren lekhu gorak eta aldareak urratu baititu Ezekiasek, Judari eta Jerusalemeri manatur: Aldare hunen aitzinean adoratuko duzue Jerusalemen?

23. Iragan zaitezte beraz orai Asiriarren errege ene nausia gana, eta emanen darozkitzuet bi mila zaldi eta ikhusazue ahal dituzketzuen hekien igaileak.

24. Eta nola buru egin zinezakete ene nausiaren zerbitzari ttipienen arteko satrapa baten aitzinean? Ala Egiptoaren gainean dadukazue zuen peskiza, hango orga-laster eta zaldizkoen gatik?

25. Jaunaren nahia gabe igan othe naiz lekhu huntara, hunen xahutzera? Jaunak erran darot: Igan zaite lur hortara eta xahu zazu.

26. Bada Eliazim Helziasen semeak, Sobnak eta Joahek Errabsazesek erran zaroeten: Othoizten zaitugu mintza zakizkigun guri zure zerbitzari siriaraz, mintzaia hori ongi aditzen baitugu, eta etzakizkigun juduaraz mintza, harrasi gainean den populuak aditzen duelarik.

27. Eta Errabsazesek ihardetsi zaroeten, erranen zuelarik: Hire nausia gana eta hire gana igorri othe naik ene nausiak solas haukien egitera, eta ez hobeki harrasi gainean jarriak diren gizonetara, zeinak zuekin jan beharko baitute beren ongarrria eta edan beren gernua?

28. Hargatik Errabsazes xutik jarri zen, juduaraz oihu egin zuen, eta erran zuen: Adi zatzue errege handiaren Asiriarren erregeren hitzak.

29. Hau dio erregek: Berautzue zora zetzazten Ezekiasen, ezik ene eskuari ezin itzurraziren zaituztete.

30. Ez biazazuete ustekeriarik eman Jaunaren gainean, erranez: Jaunak atheratuko gaitu atheketarik, eta ez du hiri hau arthikiren Asiriarren erregeren eskura.

31. Berautzue Ezekiasen entzutetik. Ezen hau dio Asiriarren erregek: Enekin egizue zuentzat on dena, eta ene ganat ilkhi zaitezte, eta zeinek bere mahastitik eta bere pikotik janen du, eta zuen urtegiatarik edanen duzue,

32. Ethon nadien arteo, eta eraman zaitzatedan zuen lurraren iduriko bertze lur batera, lur aberats eta arnotsu batera, lur ogitsu eta mahastitsua, oliba, olio eta ezti lurrera, eta biziko zarete eta etzarete hilen. Ez bezazue entzun Ezekias, zeinak enganatzen baitzaituztete, erranez: Jaunak atheraturen gaitu.

33. Jendaietako jainkoek athera othe dute beren lurra Asiriarren erregeren eskutik?

34. Non da Ematheko jainkoa? non da Arphadekoa? non dira Sepharbaimgo, Anako, Abako jainkoak? ene eskutik atheratu othe dute Samaria?

35. Jendakietako jainko guzietan zein dira beren tokia ene eskuatarik atheratu dutenak, Jaunak ene eskutik Jerusaleme athera ahal izateko?

36. Hargatik populuia ixilik egotu zen, eta etzuen deusere ihardetsi; ezik erregeren ganik hartua zuten hari ez ihardesteko manua.



37. Soinekoak hautsirik Ezekiasen gana ethorri ziren beraz Eliazim erregeren etxegizona, Sobna iskribaua eta Joahe agerizaina, Asaphen semea; eta heldu ziozkaten Errabsuzesen hitzak.

### XIX. KAP.

1. Ezekias erregeak aditu zituenean hekiek, urratu zituen bere soinekoak; estali zen zakhu batez eta Jaunaren etxean sarthu zen.

2. Eta igorri zituen Eliazim erregeren etxegizona, Sobna iskribaua eta aphezetarikako zaharrak, zakhuz estalirik, Amosen seme Isaias profeta gana.

3. Haukiek erran zaroten: Hau dio Ezekias: Atsekabezko, madarizonezko eta burhozko eguna egun hau! haurra erditzapeneko ordura ethorri, eta minetan denak erditzeko indarrrik ez.

4. Zure Jainko Jaunak aditu ditu naski Errabsazesen solas guziak; bere nausiak Asiriarren erregek bidali du Jainko biziaren burhoztatzera, eta zure Jainko Jaunak aditu dituen hitzez irain egitera. Othoitz egiozu beraz aurkhitzen diren ondarrantzat.

5. Ezekias erregearen zerbitzariak goan ziren beraz Isaiasen gana.

6. Eta Isaiasek ihardetsi zaroeten: Hau erranen darozue zuen nau-siari: Huna zer dioen Jaunak: Ez izi aditu dituzten hitzez, ni Asiriarren erregeren muthilek burhoztatu nautenez.

7. Huna non igorriko diodan izpiritu bat, eta adituko du berri bat, eta itzuliko da bere lurrera, eta han ezpataren azpira arthikiko dut.

8. Errabsazes itzuli zen beraz, eta Asiriarren errege atzeman zuen Lobna sethiotan zadukala; ezik aditua zen Lakisetik gibelerat egin zuela.

9. Eta aditu zituenean Tharakaz Ethiopiako erregez erraten zutenak: Huna, ilkhi da zure kontra gudukatza; eta haren kontra abiatu zenean, bidalkinak Ezekiasi igorri zarozkan, zioelarik:

10. Hau errozue Ezekiasi Judako erregeri: Ez beheza zora hire Jainkoak, zeinaren baithan baituk hire ustea; eta ez bezak erran: Jerusalem ez da Asiriarren erregeren eskura emana izanen.

11. Herorrek ezen aditu duk Asiriarren erregeek zer egin daroeten lur guziei, nola larrutu dituzten: hi bakharra izanen othe haiz itzuriko haizena?

12. Jendaien jainkoak itzuri othe dituzte ene arbasoek larrutu dituztenak oro, erran nahi Gozan, eta Haran, eta Erreseph, eta Edenen semeak, Thelasarren zirenak?

13. Non dira Ematheko errege, eta Arphadeko errege, eta Sepharbaimgo hiriko, Abako eta Anako errege?

14. Ezekias bidalkinen eskutik izatu zituenean gutunak eta irakurtu zituenean, igan zen Jaunaren etxera, eta hedatu zituen Jaunaren aitzinean,

15. Eta haren aitzinean othoitz egin zuen, zioelarik: Israelgo Jainko Jauna, kerubinen gainean jarria zarena, zu zare lurreko errege guzien Jainko bakharra; zuk egin ditutzu zerua eta lurra.

16. Ukhur zazu beharria, eta entzun zazu; Jauna, zabal zatu begiak, eta ikhusazu; adi zatu Senakeriben solasak oro, igorri izan baitu, gure aitzinean Jainko biziaren burhoztatzera.

17. Egjazki, Jauna, Asiriarren erregeek xahutu dituzte jendaiak eta guzien lurak,

18. Eta surat igorri dituzte hekien jainkoak; ezik etziren jainko, bainan gizonen eskuetarikako zurezko eta harrizko lanak, eta ezeztatu dituzte.

19. Orain beraz, oi gure Jainko Jauna, itzur gaitzatu haren eskuari, dezatentzat lurreko erresuma guziek jakin zu bakharrik zarella Jainko Jauna.

20. Bada, Isaiasek Amosen semeak Ezekiasen gana igorri zuen, zioelarik: Hau dio Israelgo Jainko Jaunak: Entzun dut Asiriarren errege Senakeriben gainean egin darotazun othoitz.

21. Hau da Jaunak hartaz erran duen hitza: Eskarnio eta irain egin darozkitzu, Siongo alaba garbia; zure gibeletik burua gorgoinatu du, Jerusalemeko alaba.

22. Nor madarikatu, nori burho arthiki diok? noren kontra goratu duk mintzoa, goititu dituk hire begi ahalkegabeak? Israelgo Sainduaren kontra.

23. Hire muthilen ahoz burho arthiki diok Jaunari; erran izan duk: Ene orga-lasterrezko elemeniarekin igan naiz mendi gainetara, Libanaren kaskora; hango zedro gorak eta izai luzeenak ebaki ditut. Sarthu naiz haren azken mugetaraino, eta haren karmeleko oihana.

24. Nik ebaki dut. Edan ditut ur arrotzak, eta ur hertsi guziak agortu ditut ene oinen urhatsen azpian.

25. Ez othe duk, bada, entzun nik hastetik egin dudana? Aspaldiko egunetarik egin nuen asmu hori eta orai dut burutu; eta gerlarien hiri hazkarrak izanen dira munhoak bezala murriztuak.

26. Eta barnean jarriak zirenak, eskuak indarrrik gabe, ikharatu eta nahasi dira, faundu dira bazterretako belharra bezala, hegaztegiatan sortu belharra, zohitu baino lehen ihartzen den bezala.

27. Banakizkian hire egon-lekhua, hire ilkhitzea, hire sartzea, hire bidea, hire ene alderako fhuliak.



28. Erhotu haiz ene kontra, eta hire hanpuruskeriaren burrunba igan duk ene beharrietara: hargatik ezarriko daiat erretzun bat sudur-mizpiretan eta burdin-ziri bat ahoan, eta ethorri bidez igorri haut gibelerat.

29. Bainan zuretzat, Ezekias, hau izanen da ezagutkaria: Aurthen jan zazu atzemanen duzuna; heldu den urthean berriz, bere baitharik ethorriko dena; eta hirugarren urthean erain zazue eta bil zazue; mahastiak landa zatzue, eta jan hekietako mahatsak.

30. Eta Judako etxetik geldituko den guziak, erroak beheiti igorriren ditu eta fruituak goiti.

31. Ezik Jerusalemetik kanporat hedaturen dira gelditzen direnak, eta Siongo menditik salbatuko direnak: armadetako Jaunaren kharrak eginen du hori.

32. Hortakotzat hau dio Jaunak Asiriarren erregez: Hiri huntan ez da sarthuko, gezi bat huntara ez du igorriko, huntan ez da erredola nausituko, trentxadak ez du iguratuko.

33. Ethorri bidez hura goanen da eta hiri huntan ez da sarthuko, dio Jaunak.

34. Gerizatuko dut hiri hau eta salbatuko dut ni gatik eta Dabid ene zerbitzaria gatik.

35. Gau hartan gerthatu zen beraz Jaunaren aingerua ethorri zela, eta Asiriarren kanpetan hil zituela bederatzitan hogoi eta bortz mila gizon. Eta jaiki zenean argitzean, Senakeribek ikhusi zituen hilen gorphutz guziak, eta gibelerat itzulirik goan zen;

36. Eta Senakerib Asiriarren errege bihurtu zen eta gelditu zen Niniben.

37. Eta Nefrok bere jainkoa adoratzan zuelarik tenploan, Adramelekek eta Sarasarrek bere semeek ezpatatz hil zuten, eta Armeniarren lurrera ihes goan ziren, eta Asarhadon haren semea erreginatatu zen haren orde.

## XX. KAP.

1. Orduko egunetan, Ezekias eritu zen hiltzeko heineraino; eta Amosen semea Isaias profeta ethorri zen haren gana, eta erran zaroen: Hau dio Jaunak: Manatzeko ditutzunak egizkitzu zure etxean: ezik hilen zare, etzare biziko.

2. Erregek burua itzuli zuen zokhoko alderat, eta Jauna othoiztu zuen, zioelarik:

3. Othoi, Jauna, orhoit zaite othoi, nola zure aitzinean ibili naizen zintasunean eta bihotzeko garbitasunean, eta zure aitzinean gogaragarri zena egin dudala. Eta-bada, Ezekias nigar uharretan egotu zen.

4. Eta Isaiasek ezkabatzaren erdia iragan gabe, Jaunaren hitza egin zitzaioen, zioena:

5. Bihur zaite eta errozu Ezekiasi ene populuaren buruzagiari: Hau dio Dabid zure aitaren Jainko Jaunak: Entzun dut zure othoitza eta ikhusi ditut zure nigarrak; eta sendatu zaitut, eta hirur egunen buruko iganen zare Jaunaren tenplora.

6. Eta zure egunak hamabortz urthez berhatuko ditut; eta oraino atheratuko zaituztet zu eta hiri hau Asiriarren erregeren eskutik, eta gerizatuko dut hiri hau ni gatik eta Dabid ene zerbitzaria gatik.

7. Eta Isaiasek erran zuen: Ekhar zazue zare bat piko. Ekharri zute-nean, ezarri zuen erregeren zauriaren gainean, eta sendatua izan zen.

8. Bada, Ezekiasek erran izan zaroen Isaiasi: Zer izanen da ezagutkaria Jaunak sendatuko nauela, eta hirugarren eguneko iganen naizela Jaunaren tenplora?

9. Isaiasek ihardetsi zaroen: Hau da Jauna ganikako ezagutkaria, Jaunak egintzetan ezarriko duela erran duen hitza: nahi duzu itzala igan dadien hamar marraz, ala gibela dadien bertze hainbertze ozkaz?

10. Eta Ezekiasek erran zuen: Errex da itzala hamar marraz aitzina dadien; ez dut hori egin dadien nahi, bainan bai gibelerat itzul dadien hamar ozkaz.

11. Hargatik Isaias profetak dei egin zaroen Jaunari, eta hamar ozkaz gibelerat bihurrarazi zuen itzala orduko jautsi zituen hamar marraz gaindi Akazen orenean.

12. Orduko egunetan, Baladanen seme Berodak Baladanek Babilondarren erregeak gutunak eta emaitzak igorri zarozkien Ezekias, aditu izan zuen ezik Ezekias eri izatu zela.

13. Ezekias berriz, hekien ethortzeaz boztu zen, eta erakhutsi zarozten bere usain-on, urhe, zilhar, eta baltsamu guziak; gantzugailuak ere eta bere untziak, eta bere khutxetan izan ahal zetzazkeenak oro. Bere etxean eta bere eskuan zituenetarik etzen deusere izan hekiei erakhutsi etzarotenik.

14. Bada, Isaias profeta ethorri zitzaioen errege Ezekiasi, eta erran zaroen: Zer erran dute gizon horiek? edo nondik ethorri zaizkitzu? Ezekiasek ihardetsi zaroen: Urrungo lurretik ethorri dira ni gana, Babilonatik.





15. Eta Isaiasek erran zaroen: Zer ikhusi dute zure etxean? Ezekiasék ihardetsi zuen: Ene etxean ditudan guziak ikhusi dituzte; deusere ez da ene khutxetan erakhutsi ez diotzatedanik.

16. Hargatik Isaiasek erran, zaroen Ezekiasi: Adi zazu Jaunaren hitza:

17. Huna non ethorriko diren egunak, eta Babilonara eramanak izanen dira zure etxean direnak oro eta zure arbasoek egun arteo bildu izan dituztenak; ez da deusere geldituko, dio Jaunak.

18. Bertzalde berriz, zu ganik ilkhirikako semeetarik, zuk bizia emanetarik, eramanak izanen dira, eta ebaki Babilonako erregeren jauregian izanen dira.

19. Isaiasi ihardetsi zaroen Ezekiasék: Zuzena da niri erran darotazun Jaunaren hitza; bakeak eta egiak iraun bezate ene egunetan.

20. Ezekiasen gainerako egintzak berriz, eta haren bihotzotasun guzia, eta nola egin zituen arraintegi bat, eta ixtun bat, eta nola sarrarazi zuen ura hirira, ez othe dira iskribatuak Judako erregeen egunetako egintzen liburuan?

21. Eta Ezekias lokhartu zen bere arbasoekin, eta Manase haren semea erreginatatu zen haren orde.

## XXI. KAP.

1. Hamabi urthe zituen Manasek erreginatzen hasi zenean, eta berrogoi eta hamar urthez erreginatatu zen Jerusalem. Haren ama deitzen zen Haphsiba.

2. Eta gaizkia egin zuen Jaunaren aitzinean, Jaunak Israelgo semeen aitzinetik xahuta zituen jendakien jainkordeak adoratur.

3. Eta bihurtu zen, eta egin zituen lekhu gorak haren aita Ezekiasék urratu, zituenak; eta aldareak altxatu zarozkien Baali, eta lukuak egin zituen, Israelgo errege Akabek egin zituen bezala, eta adoratu eta imolatu zuen zeruko izarrerria guziari.

4. Eta aldareak egin zituen Jaunaren etxean, zeintaz Jaunak erran baitzuen: Jerusalem ezarriko dut ene izena.

5. Eta Jaunaren tenploko bi lorioetan aldareak egin ziozkan zeruko izarrerria guziari.

6. Sutik iraganarazi zuen bere semea, ! asmagintzan haritu zen eta hegastin zelataketan, pithonak egin zituen eta usnaginak usutu, Jaunaren aitzinean gaizkiaren egiteko, eta haren hasarrearazteko.

7. Egina zuen lukuko jainko-moldea ezarri zuen halaber Jaunaren tenploan, zeinetaz Dabidi eta Salomoni haren semeari erran baitzaroeten

Jaunak: Tenplo hortan eta Jerusalem, zeina hautatu baitu Israelgo leinu guziatarik, ezarriko dut ene izena bethi guzikotz;

8. Eta Israeli ez darot gehiago oina higiaraziko horien aitei eman izan darotedan lurretik; baldin bizkitartean begiraten badituzte nik manatu daroetadan guziak, eta ene zerbitzari Moisek eman daroeten legea osoki.

9. Hekiek ordean etzuten entzun; baina Manasek bildu zituen gaizkiaren egitera Jaunak Israelen aitzinetik xahutu zituen jendakien gainetik.

10. Eta Jauna mintzatu zen bere zerbitzari profeten ahoz, erranez:

11. Zeren Manasek Judako errege egin dituen tzarkeria nihonereko handien horiek, horrek baino lehen Amorhearrek egin dituztenez gehiagokoak, eta bere lohikerietan khutsarazi duelakoz Juda;

12. Horien gatik hau dio Israelgo Jainko Jaunak: Huna non ondikoak erakharriren ditudan Jerusalemere eta Judaren gainera, hanbatetaraino non entzunen dituzten guziei beharri biak hixtuka hariko baitzaizkote.

13. Eta Jerusalem gainera hedatuko ditut Samariako sokha eta Akaben etxearen karga; ezeztatuko dut Jerusalem, oholetako iskribua ezeztatzen ohi den bezala; eta xahutuz, berriz eta berriz hariko naitzaio xahukariaz gainetik.

14. Ene primantzaren ondarrak berriz, utziko ditut, eta arthikiko ditut beren etsaien eskuetara; eta nork larru eta nork biluz, beren ixterbegien eskuko izanen dira;

15. Zeren ene aitzinean egin duten gaizkia, eta Egiptotik horien aita atheratu diren egunetik hunat, ez diren baratu ene samurraztetik.

16. Manasek, bere bekhatuez bertzalde, zeinetaz, Jaunaren aitzinean gaizkiaren egiteko, Judari bekhatu eragin baitzaroen, gainerako berriz, hainitz eta hainitz odol hobengabe ixuri izan zuen, Jerusalem kokorerraino bethe zezan arteo.

17. Manaseren gainerako egintzak berriz, eta harek egin zituenak oro, eta haren bekhatua, ez othe dira iskribatuak Judako erregeen egunetako egintzen liburuan?

18. Eta Manase lokhartu zen bere arbasoekin eta ehortzia izan zen bere etxeko baratzean, Ozaren baratzean; eta Amon haren semea erreginatatu zen haren orde.

19. Amonek hogoi eta bi urthe zituen erreginatzen hasi zenean; bi urthez erreginatatu zen Jerusalem: haren ama deitzen zen Alesalemeth, Jetebako Harusen alaba.

20. Amonek Jaunaren aitzinean egin zuen gaizkia haren aita Manasek egin izan zuen bezala,



21. Eta ibili zen, haren aita ibili zen bide ber-beraz; eta zerbitzatu zituen haren aitak zerbitzatu lohikeriak, eta adoratu zituen.

22. Bazterrerat utzi zuen bere arbasoen Jainko Jauna, eta etzen ibili Jaunaren bidean.

23. Eta zelatak hedatu zaroetzten bere zerbitzariak, eta errege hil zuten bere etxean.

24. Bada, populuak jo zituen errege Amonen kontra zin-hartze egin zuten guziak; eta erregetzat Josias haren semea ezarri zuten haren orde.

25. Amonen gainerako egintzak berriz, ez othe dira iskribatuak Judako erregeen egunetako egintzen liburuan?

26. Eta ehortzi zuten bere hobian, Ozaren baratzean; eta Josias haren semea erreginatzen zen haren orde.

## XXII. KAP.

1. Josias zortzi urthetan hasi zen erreginatzen, eta hogoi eta hameka urtez erreginatzen zen Jerusalemen. Haren ama deitzen zen Idida, Besekateko Hadaiaren alaba.

2. Josiasek egin zuen Jaunaren aitzinean gogaragarri zena, eta ibili zen bere aita Dabiden bide guzietan; etzen ez eskuinerat, ez ezkererat zehertu.

3. Bada, Josiasek, bere erregetasuneko hemezortzigarren urthean, igorri zuen Saphan, Asliaren semea, Mesulamen ilobasoa, Jaunaren tenploko iskribaua, erraten zaroelarik:

4. Zoaz Helzias aphez-handia gana, batera ezar dadien Jaunaren tenplora ekharria den diru guzia, tenploko athalzainek populuaren ganik bildu dutena;

5. Jaunaren etxeko aitzindariez emana izan bedi langile-nausiei, eta haukiek pharti bezote Jaunaren tenploan lanean hari direnei, tenploko erreberripenen egiteko;

6. Hala nola zurginei eta harginei eta harrasietako arrailadurak xuxentzen dituztenei; zurak eta harrobiarik harriak eros ditezen Jaunaren etxearen berritzeko.

7. Ez bekiote guzia-gatik hartzen duten dirua khonda, baina izan bezate beren eskuan eta beren zuzentasunaren gain.

8. Bada, Helzias aphez-handiak erran zaroen Saphan iskribauari: Jaunaren etxean aurkhitu dut legero liburua, eta Helziasek liburua eman zaroen Saphani, zeinak irakurto baitzuen.

9. Saphan iskribaua ethorri zen gero erregeren gana, eta jakintsun egin zuen manatu zituenez, eta erran zaroen: Zure zerbitzariak bildu dute

Jaunaren etxean aurkhitu den dirua; eta eman izan dute lanetako buruzagiez phartitua izan dedin langile-nausiei.

10. Saphanek halaber erran zaroen erregeri: Helzias aphezak eman darot liburu bat. Saphanek liburua irakurto zuenean erregeren aitzinean,

11. Eta errege aditu zituenean Jaunaren legero liburuko hitzak, urratu zituen bere soinekoak:

12. Eta manatu zituen Helzias apheza, Ahikam Saphanen semea, Akobor Mikaren semea, Saphan iskribaua eta Asaias erregeren zerbitzaria, zioelarik

13. Zoazte eta kontsulta zazue Jauna ene gainean, populuaren gainean eta Juda guziaren gainean, aurkhitua den liburu hortako hitzak darontzotenez, ezen Jaunaren hasarrea gure kontra phiztua da, gure aitek entzun ez dituztelakotz liburu hortako hitzak, manatua zarokun guziaren egiteko.

14. Hargatik Helzias apheza, Ahikam, Akobor, Saphan eta Asaias goan ziren Holda profetesana, zeina baitzen Selumen emaztea, eta Selum Thekuasen semea eta Araas soineko-zainaren ilobasoa; eta Holda egoten zen Jerusalemen, bigarren hirian; eta mintzatu zuten.

15. Holdak ihardetsi zaroeten: Hau dio Israelgo Jainko Jaunak: Ene gana igorri zaituztetinari errozue:

16. Hau dio Jaunak: Huna non erakharriren ditudan lekhu hunen gainera eta hor dagodezenen gainera, Judako errege legero liburuan irakurto dituen ondiko guziak;

17. Bazterrerat zeren nauten utzi, eta jainko arrotzei imolatu dutelakotz, ni hasarrearaziz beren eskuetako lan orotan, eta ene gaitzidura phiztuko da lekhu hunen gainera eta ez da iraungiren.

18. Baina Judako erregeri, zeinak bidali baitzaituztete Jaunaren kontsultazera, hunela erranen diozue: Hau dio Israelgo Jainko Jaunak: Entzun dituzulakotz liburuko hitzak,

19. Eta laztu delakotz zure bihotza, eta aphaldu zarelakotz Jaunaren aitzinean, aditu ondoan lekhu hunen eta huntako egoiliarren kontrako hitzak, erran nahi da oren harrigarri eta madarikagarri bilhakaturen direla; eta zeren urratu dituzun zure soinekoak eta nigar egin duzun ene aitzinean, nik ere entzun zaitut, dio Jaunak;

20. Hargatik bilduko zaitut zure arbasoetara, eta bakean bildua izanen zare zure hobira, zure begiek ikhus ez detzaten lekhu hunen gainera erorraraziko ditudan ondiko guziak.



### XXIII. KAP.

1. Eta erregeri ekharri zaroezten Holdak erranak. Erregek igorririk, Judako eta Jerusalemeko zahar guziak bildu ziren haren gana.

2. Eta errege igan zen Jaunaren tenplora, eta harekin Judako gizon guziak eta Jerusalemegoen zirenak oro, aphezak, profetak, eta ttipi eta handi populu guzia. Eta guziek aditzen zutelarik, erregek irakurtu zituen Jaunaren etxean aurkhitua izan zen batasuneko liburuko hitzak oro.

3. Eta errege xutik eman zen mail baten gainean, eta Jaunaren aitzinean patu egin zuen Jaunaren ondotik ibiltzeko eta begiratzeko haren manamenduak, lekhukotasunak eta zeremoniak, bihotz guziz eta arima oroz, liburu hartan iskribatuak ziren batasuneko hitzei beren bideak athezaraztekozat. Eta populuak onhetsi zuen patua.

4. Eta erregek manatu zaroeten Helzias aphez-handiari, eta bigarren urhatseko aphezari eta athalzainei Jaunaren tenplotik arthik zetzazten, Baalentzat eta lukuko, eta zeruko izarrerria guziarentzat eginak izan ziren untiak; eta erre zituen Jerusalemenez kanpoan, Zedrongo haranean, eta herrautsak Bethelera eraman zituen.

5. Eta Judako erregeek Judako hirietan eta Jerusalemeko inguruan lekhu goretan imolatzen haritzeko ezarri usnaginak xahutu zituen, eta halaber Baali, iguzkiari, ilhargiari, hamabi ezagutkariei eta zeruko izarre-ria guziari isentsua erretzen zutenak.

6. Eta Jaunaren tenplotik Jerusalemek kanporat, Zedrongo haranera eramanarazi zuen lukua; han erre zuen, herrautsetan ezarri, eta populuaren hobien gainera arthiki.

7. Urratu zituen halaber Jaunaren etxean ziren emagizonen xoxak, zeinentzat amaztekiek ehotzen baitzuzten lukukotzat xola iduri batzuek.

8. Bilarazi zituen Judako hirietako aphezak oro, eta Gabaatik Bersabeeraino lohitu zituen lekhu gorak zeinetan aphezak imolatzen baitzuten; eta atheetako aldareak urratu zituen, hiriko buruzagi Josueren athe-sartzean, zeina baitzen hiriko athetik ezkererat.

9. Bizkitartean lekhu goretako aphezak etziren igaiten Jaunaren aldarrera Jerusalemen, bainan ogi airisa jaten zuten beren anaiekin.

10. Erregek lohitu zuen orobat Topheth, Enomen semearen haranean dena, nihork bere semea edo alaba suaz etzezon Moloki kontsekra.

11. Khendu zituen halaber Judako erregeek iguzkiari eman zaroezten zaldiak, Jaunaren tenplo sartzean zirenak, Nathanmelek ebakiaren salharan aldean, zeina Pharurimen baitzen; iguzkiaren orgatzoak berriz suan erre zituen.

12. Aldareak ere, Akazen gelako hegaztegi gainean zirenak eta Judako erregeek eginak, eta Manasek Jaunaren tenploko bi lorioetan egin zituen aldareak, urratu zituen erregek; eta handik laster egin zuen, eta hekien hautsak Zedrongo errekan barraiatu zituen.

13. Erregek lohitu zituen orobat lekhu gorak, Jerusalemen zirenak Gaizbideko mendiaren eskuin alderat, eta Salomon Israelgo erregek altxatuak Astarothi Sidondarren jainkordeari, eta Kamosi Moabeko gaizbideari, eta Melkoni Amonen semeen izigarrikeriari.

14. Xehakatu zituen jainko-moldeak eta ebaki lukuak, eta hekien tokiak hilhezurrez bethe zituen.

15. Bertzalde Bethelen zen aldarea ere, eta Israeli bekhatu eragin zaroen Nabathen seme Jeroboamek egin zuen lekhu gora, aldare hura eta lekhu gora biak urratu zituen, erre zituen eta herraustu, eta oihana ere erre zuen.

16. Eta itzulirik, Josiasek han ikhusi zituen mendian ziren hobiak; eta gizonak igorri zituen; hartu zituzten hezurak hobietarik eta aldarearen gainean erre; eta erregek lohitu zuen aldare hura, Jaunak erran hitzaren arabera Jainkoaren gizonaren ahoz, zeinak aitzinetik gauza horiek erran baitzituen.

17. Eta erregek erran zuen: Zer da ikhusten dudan hobi hori? Eta hiri hartako egoiliarrek ihardetsi zaroeten: Hobi hori da Jainkoaren gizonarena, zeina Judatik ethorri baitzen eta aitzinetik erran baitzituen Bethelako aldarearen gainean egin dituzun gauza haukiek.

18. Eta Josiasek erran zuen: Utzazue, nihork ez betza uki horren hezurak; eta haren hezurak ukitugabeak gelditu ziren Samariatik ethorri zen profetaren hezurrekin.

19. Bertzalde, Samariako hirietan ziren lekhu goretako tenplo guziak, Israelgo erregeek Jaunaren ifrentziarazteko egin zituztenak, Josiasek urratu zituen, eta hekiei egin zaroezten Bethelen egin zituen lan berak.

20. Eta hil zituen aldareen arthatzeko ziren lekhu goretako aphez guziak; eta gizon-hezurak erre zituen aldareen gainean, eta Jerusalemera bihurtu zen.

21. Eta populu guzia manatu zuen, zioelarik: Bazkoa zuen Jainko Jaunari egiozue, batasuneko liburu huntan iskribatua denaren arabera.

22. Ezik etzen halako Bazkorik egin Israel juiatu zuten juien egunetarik, eta Israelgo eta Judako erregeen egunetarik,

23. Nola Josias erregearen hemezortzigarren urthean Bazko hura Jerusalemegina izan baitzitzaioen Jaunari.



24. Josiasek khendu zituen pithonak ere, eta aztiak, eta jainkoezuenen moldeak, eta lohikeriak, eta izigarrikeriak, Judako lurtean eta Jerusalemen izatu zirenak; beren bidea emateko legeko hitzei, Helzias aphezak Jaunaren tenploan aurkitu liburuan iskribatuak zirenei.

25. Josiasen aitzinean ez da izatu haren iduriko erregerik, Jaunaren gana bihurtu denik bere bihotz oroz, bere arima guziz eta bere ahal osoz, Moisen lege guziaren arabera; eta geroztik ere ez da jaiki hura bezalakorik.

26. Guzien-gatik, Jauna etzen aldaratu bere hasarreko hatsetik zeintaz biztu baitzen haren hasarrea Judaren kontra, aria hekien gatik zeintaz tarritatu baitzuen Manasek.

27. Hargatik Jaunak erran zuen: Juda ere khenduko dut ene begien aitzinetik Israel khendu izan dudana bezala; arbuiatuko ditut Jerusalem, hautatu dudana hiri hori, eta tenploa zeintaz erran izan bainu: Ene izena hor izanen da.

28. Josiasen gainerako egintzak berriz, eta harek egin zituen guziak ez othe dira iskribatuak Judako erregeen egunetako egintzen liburuan?

29. Orduko egunetan, Faraon Nekaok Egiptoko errege igan zen Asiriarren erregeren kontra, Ufratako hibai aldera. Errege Josias atheratu zitzaioen bidera; eta gudu eman zaroenean, hila izan zen Maiedon.

30. Bere zerbitzariak hila eraman zuten Maiedotik, eta ekharri zuten Jerusalem, eta bere hobian ehortzi zuten. Populuak hartu zuen Joakaz Josiasen semea; gantzutu eta bere aitaren orde errege ezarri zuten.

31. Joakazek hogoi eta hirur urthe zituen erreginatzen hasi zenean, eta hirur hilabetez erreginatzen zen Jerusalem. Haren ama deitzen zen Amital Lobnako Jeremiasen alaba.

32. Joakazek gaizkia egin zuen Jaunaren aitzinean, haren arbasoek egin zituzten guzien arabera.

33. Eta Faraon Nekaok Errablan, Ematheko lurtean, lokharriz lothu zuen, Jerusalem etzedintzat erregina; eta lurra ehun zilharrezko talenduz eta urhezko talendu batez xedatu zuen.

34. Eta Faraon Nekaok Eliazim Josiasen semea ezarri zuen errege bere aita Josiasen orde; eta izena aldatuz, Joakin deithu zuen. Joakaz berriz, hartu eta eraman zuen Egiptora, eta han hil zen.

35. Joakinek Faraoni urhea eta zilharra eman zarozkien, lurra zergatu ondoan buruka, Faraoni emateko haren manamenduaren arabera; eta bakhotxari bere ahalaren arabera galdatuz, lurteko populua ganik atheratu zituen hala urhea nola zilharra Faraon Nekaori emateko.

36. Joakinek hogoi eta bortz urthe zituen hasi zenean erreginatzen, eta hameka urthez erreginatzen zen Jerusalem. Haren ama, Errumako Phadaiairen alaba, Zebida zen deitzen.

37. Eta Joakinek Jaunaren aitzinean gaizkia egin zuen, haren arbasoek egin zituzten guzien arabera.

#### XXIV. KAP.

1. Haren egunetan igan zen Nabukodonosor Babilonako errege, eta Joakin azpikotua izan zitzaioen hirur urthez, eta gero bihurtu zitzaioen.

2. Eta Jaunak igorri zarozkien ohoiak Siriatic, eta ohoiak Moabetik, eta ohoiak Amonen semeetarik; eta Judan sarrarazi zituen haren xahutzera, Jaunak bere zerbitzari profetez erran hitzaren arabera.

3. Bada, hori gerthatu zen, Jaunaren manuz Judaren kontra, Manasek egin zituen bekhatu guzien gatik,

4. Eta harek ixuri zuen odol hobengabea gatik, eta Jerusalem bethe zuelakotz garbi zirenen odolez; hori gatik Jaunak etzuen nahi izan begit-hartez itzuli.

5. Joakinen gainerako egintzak berriz, eta harek egin zituenak oro, ez othe dira iskribatuak Judako erregeen egunetako egintzen liburuan? Eta Joakin lokhartu zen bere arbasoekin.

6. Joakin haren semea erreginatzen zen haren orde.

7. Egiptoko erregek etzuen gehiago egin bere lurretik ilkhitzera; ezik Babilonako erregek, Egiptoko errekatik Ufratako hibairaino, hartu zituen Egiptoko erregeren azpiko izan ziren guziak.

8. Joakinek hemezortzi urthe zituen erreginatzen hasi zenean, eta hirur hilabetez erreginatzen zen Jerusalem. Haren ama, Elnathan Jerusalemekoaren alaba, Nohesta deitzen zen.

9. Joakinek gaizkia egin zuen Jaunaren aitzinean, haren aitek egin zuten guzien arabera.

10. Orduan, Nabukodonosor Babilonako erregeren zerbitzariak igan ziren Jerusalem, eta hiria trentxadaz inguratua izan zen.

11. Nabukodonosor Babilonako errege hirira bere zerbitzariekin ethorri zen haren hartzeko.

12. Eta Joakin Judako errege Babilonako erregeren ganat ilkhi zen, bera eta bere ama, eta bere zerbitzariak, eta bere aitzindariak, eta bere ebakiak; eta Babilonako erregek hartu zuen bere erreinuko zortzigarren urthean.

13. Eta handik eraman zituen Jaunaren etxeko khutxa guziak eta errege-etxeko khutxak; eta Salomonek Israelgo errege Jaunaren tenplo-



an egin zituen urrezko untzi guziak, Nabukodonosorrek hautsi zituen, Jaunaren hitzaren arabera.

14. Eta eraman zituen Jerusalemeko guzia, eta aitzindari guziak, eta armadako gizon hazkarrak oro, hamar mila gathibutzat, eta ofiziale eta zilhargin guziak; eta nihor etzen izan utzirik, tokiko populuko beharrak baizen.

15. Halaber eraman zituen Babilonara Joakin erregea eta erregeren ama, eta erregeren emazteak, eta haren ebakiak; eta lekhuko juieak ere gathibu eraman zituen Jerusalemetik Babilonara.

16. Eta Babilonako erregek gathibu eraman zituen Babilonara gizon hazkarrak oro, zazpi mila, ofizialeak eta zilharginak mila, oro gizon hazkarrak eta gerlariak.

17. Eta erregetzat ezarri zuen Joakinen orde Mathanias haren osaba; eta izena eman zaroen Sedezias.

18. Sedeziasek hogoi eta bat urthe zituen erreginatzen hasi zenean, eta hameka urthez erreginatzen zen Jerusalemen. Haren ama, Jeremias Lobnakoaren alaba, Amital deitzen zen.

19. Eta Sedeziasek gaizkia egin zuen Jaunaren aitzinean, Joakinek egin zituen guzien arabera.

20. Eta Jauna hasarretuz zihoan Jerusalemen eta Judaren kontra, bere begithartearen aitzinetik arthik zetzan arteo. Eta Sedezias urrundu zen Babilonako erregeren ganik.

## XXV. KAP.

1. Gerthatu zen bada, haren erregetasuneko bederatzigarren urthean, hamargarren hilabetearen, hilabetearen hamarrean, Nabukodonosor Babilonako errege, bera eta bere armada ethorri zirela Jerusalemera eta inguratu zutela hiria; eta trentxadak egin zituzten haren inguruan.

2. Eta hiria hertsia eta trentxadaz inguratua egotu zen Sedezias erregearen hamekagarren urthea arteo,

3. Hilabeteheko bederatzigarren eguna arteo; eta gosetea nausitu zen hirian, eta populuak ogirik etzuen.

4. Eta hiriko harrasia alde batetik urratua izan zen; eta gerlako gizon guziek gabaz ihes egin zuten, bi harrasien artean, erregeren baratzearen ondoan den atheko bidez. Bada, Kaldearrek hiria inguruan sethiatzen zuten. Sedezias ihes egin zuen beraz mortuko zelhaietara daraman bidez.

5. Eta Kaldearren armadak jo zuen erregeren ondotik, eta Jerikoko ordokian atzeman zuen; eta harekin ziren gerlari guziak barraiatu ziren, eta utzi zuten.

6. Kaldearrek atzemanik beraz errege, Erreblathara eraman zuten Babilonako erregeren aitzinera. Nabukodonosorrek eman zaroen bere erabakia.

7. Sedeziasen semeak hilarazi zituen haren aitzinean, eta berari leherarazi zarozkien begiak; eta burdinaz lothurik, Babilonarat eraman zuen.

8. Bortzgarren hilabetearen, hilabetearen zazpigarren egunean, hori baita Babilonako erregeren hemeretzigarren urthean, Nabuzardan armadako buruzagia, Babilonako erregeren zerbitzaria, Jerusalemera ethorri zen.

9. Erre zituen Jaunaren etxea, eta errege-etxea; eta zer-ere baitzen Jerusalemen etxerik, oro suz erre zituen.

10. Eta armadako buruzagiarekin zen Kaldearren armada guziak errotik arthiki zituen Jerusalemen inguruko harrasiak.

11. Eta Nabuzardanek, armadako buruzagiak, eraman zituen hirian gelditu zen populu ondarra, eta Babilonako erregeren gana ihes egin zutenak, eta gainerako jende xehea.

12. Eta lekhuko erromesetarik utzi zituen mahastien eta lurren lantzaiak.

13. Berriz, Kaldearrek hautsi zituzten Jaunaren tenploan ziren kobrezko habeak eta hekien oinak, eta Jaunaren tenploan zen itsasoa, eta kobrea eraman zuten guzia Babilonara.

14. Eraman zituzten orobat kobrezko duphinak, gatheluak, hirurhortzekoak, edateko untziak, xurruak eta kobrezko tresna tenploan zerbitzatzen ziren guziak.

15. Armadako buruzagiak eraman zituen halaber isentsuntziak eta xatak; nola urhezkoak ala zilharrezkoak;

16. Erran nahi da bi habe, oinak eta itsasoa, Salomonek Jaunaren tenploan eginak. Neurrigabekoa zen untzi guzien kobreaken phisua.

17. habe bakharrak hemezortzi besoren luzetasuna zuen, eta haren gaineko buruak hirur besoren luzetasuna; eta habe buruko sarea eta mingranak kobrez ziren oro. Bigarren habeak orobateko edergailuak zituen.

18. Armadako aitzindariak eraman zituen halaber Saraias lehenbiziko apheza, eta Sophonias bigarren apheza, eta hirur athalzainak;

19. Eta hiriko ebaki bat, gerlako gizonen manatzeko zena; eta bortz gizon erregeren aitzinean xutik egoten zirenetarik; eta Sopher, armadako



aitzindari bat, populutikako soldado gazteak irakasten zituena; eta hirur hogoi gizon populu xeheirik hirian atzemanak izan zirenak.

20. Hekiek harturik, Nabuzardanek, armadako buruzagiak, Babilonako erregeri eramana zarozien Erreblathara.

21. Eta Babilonako erregek jo eta hil zituen Erreblathan, Ematheko lurrean; eta Juda bere lurretik eramana izan zen.

22. Judako lurrean gelditu zen populuari berriz, Nabukodonosorrek, Babilonako erregek, utzi zuenari, aitzindaritzat eman zaroen Godolias, Ahikamen semea, Saphanen ilobasoa.

23. Eta soldado aitzindari guziek eta hekiekin ziren gizonek aditu zutenean hori, erran nahi da Babilonako erregek Godolias ezarri zuela buruzagi, Ismahel Nathaniasen semea, Johanam Kareeren semea, Saraia Thanehumeth Netophatharraren semea, Jezonias Maakathiren semea, eta beren lagunak ethorri ziren Godoliasen gana Masphara.

24. Godoliasek zin egin zaroeten berei eta beren lagunei, erranez: Ez bezaizte beldur izan Kaldearren zerbitzatzeko; zaudezte lur huntan, zerbitzatzeko Babilonako errege, eta ongi atherako zaitzue.

25. Bainan handik zazpigarren hilabetearen gerthatu zen Ismahel Nathaniasen semea, errege-odoleko zen Elisamaren ilobasoa, ethorri zela hamar gizonekin; eta jo zituen Godolias, zeina hil baitzen, eta Masphan harekin ziren Juduak eta Kaldearrak.

26. Eta ttipi eta handi, populu guzia jaikirik, eta soldadoen aitzindariak Egiptora goan ziren, Kaldearren beldurrez.

27. Bada, gerthatu zen Joakin Judako errege eramana izan zenetik hogoi eta hamazazpigarren urthean, hamabigarren hilabetearen, hilabetearen hogoi eta zazpigarren egunean, Ebilmerodakek Babilonako erregek, erreginatzen hasi zen urthean, presondegitik atheratu zuela Joakin.

28. Eztiki mintzatu zitzaioen, eta haren tronua ezarri zuen, harekin Babilonan ziren erregeen tronua baino gorago.

29. Eta aldatu ziozkan presondegian izan zituen soinekoak, eta bethi haren aitzinean jaten zuen ogia bere biziko egun oroz.

30. Bizigarria ere seguratu zaroen, eta hura hutsik gabe erregez mana zitzaioen egun oroz bere biziko egun guzietan.

## PARALIPOMENAK I. LIBURUA

### I. KAP.

1. Adam, Seth, Enos,
2. Kainan, Malaleel, Jared,
3. Henok, Mathusale, Lamek,
4. Noe, Sem, Kam eta Japhet.
5. Japheten semeak: Gomer eta Magog. Madai eta Jaban, Thubal, Mosok eta Thiras.
6. Gomerren semeak: Aszenez, Erriphath eta Thogorma.
7. Jabanen semeak berriz: Elisa, Thar-sis, Zethim eta Dodanim.
8. Kamen semeak: Khus eta Mefraim, Phut eta Kanaan.
9. Kusen semeak berriz: Saba eta Hebila, Sabatha, Erregma eta Sabathaka. Eta Erregmaren semeak: Saba eta Dadan.
10. Eta Kusek izan zuen Nemrod, eta hau hasi zen lurrean ahaldun izaten.
11. Mefraimek berriz, izan zituen Ludim eta Anamim, Laabim eta Nephthuhim,
12. Eta Phetrusim eta Kasluim, zeinetarik ilkhi baitziren Philisthiim eta Kapthorim.
13. Kanaanek berriz, izan zituen Sidon bere seme zaharrena, Hetheo ere,
14. Eta Jebuseo, eta Amorheo, eta Jerjeseo,
15. Eta Hebeo, Arazeo eta Sineo,
16. Aradio, Samareo eta Hamatheo.
17. Semen semeak: Elam eta Asur, Arphaksad eta Lud, Aram eta Hus, Hul, Jether eta Mosok.
18. Arphaksadek berriz, izan zuen Sale, zeinak izan baitzuen Heber.
19. Bada, Heberri sorthu zitzaizkon bi seme; baten izena zen Phaleg, lurra haren egunetan zathitua izan zelakotz; haren anaiaren izena zen Jektan.
20. Jektanek izan zituen Elmodad eta Saleph, Asarmoth eta Jare,
21. Adoram ere, Huzal eta Dekla,
22. Hebal ere bai, eta Abimael, eta Saba, eta oraino
23. Ophir, Hebila eta Jobab: horiek oro Jektanen seme ziren.
24. Sem, Arphaksad, Sale,



25. tieber, Phaleg, Erragau,
26. Serug, Nakor, Thare,
27. Abram, hura bera da Abraham.
28. Abrahamen semeak: Isaak eta Ismahel.
29. Eta huna hekien ondoregoak: Nabaioth Ismahelen Seme zaha-  
rena, eta Zedar, eta Adbeel, eta Mabsam.
30. Eta Masma, Duma, Masa, Hadad, Thema,
31. Jetur, Naphis eta Zedma: horiek dira Ismahelen semeak.
32. Abrahamek Zetura bere ohaidea ganik izan zituen semeak:  
Zamran, Jeksan, Maelan, Madian, Jefbok eta Sue. Jektanen semeak: Saba  
eta Dadan. Dadanek semeak: Asurim, Latusim eta Laomim.
33. Madianen semeak: Epha, Epher, Henok, Abida eta Eldaa: horiek  
oro Zetura ganikako semeak.
34. Bada, Abrahamek izan zuen Isaak, zeinaren seme izan baitziren  
Esau eta Israel.
35. Esauren semeak: Eliphaz, Errahuel, Jehus, Ihelom eta Kore.
36. Eliphazen semeak: Theman, Omar, Sephi, Gathan, Zenez,  
Thamna eta Amalek.
37. Errahuelen semeak: Nahath, Zara, Sama eta Meza.
38. Seirren semeak: Lotan, Sobal, Sebeon, Ana, Dison, Eser eta  
Disan.
39. Lotanen semeak: Hori eta Homam. Thamna zen berriz, Lotanen  
arriba.
40. Sobalen semeak: Alian, Manahath, Ebal, Sephi eta Onam.  
Sebeonen semeak: Aya eta Ana. Anarenak: Dison.
41. Disonen semeak: Hamram, Eseban, Jethran eta Karan.
42. Eserren semeak: Balaan, Zaban eta Jekan. Disanenak, Hus eta  
Aran.
43. Haukiek dira erregeak Edomen lurrian manatu dutenak, Israelen  
semeen gainean erregerik izan zedin baino lehen: Bale Beorren semea; eta  
zen haren hiriaren izena, Denaba.
44. Bada, Bale hil zen eta haren orde erreginatu zen Jobab, Zare  
Bofrakoaren semea.
45. Eta Jobab hil izan zenean, haren orde erreginatu zen Husam  
Themantarren lurtekoa.
46. Husam ere hil zen, eta erreginatu zen haren orde Adad Badaden  
semea. Harek jo zuen Madian Moaben lurrian, eta haren hiriaren izena  
zen Abith.

47. Eta Adad hil izan zenean, haren orde erreginatu zen Semla  
Mareskakoa.

48. Semla ere hil izan zen, eta erreginatu zen haren orde Saul  
Errohobothekoa, Errohoboth baita hibai-bazterrean.

49. Saul ere hil zen, eta haren orde Balanan Akoborren semea erre-  
ginatu zen.

50. Hau ere hil zen, eta hunen orde erreginatu zen Adad, zeinaren  
hiria Phau deitzen baitzen, eta zeinaren emaztea deitzen baitzen  
Meetabel, Matreden alaba, eta Matred zen Mezaaben alaba.

51. Bada, Adad hil ondoan, Edomen hasi ziren buruzagi izaten erre-  
geen orde: Thamna buruzagia, Alba buruzagia, Jetheth buruzagia,

52. Oolibama buruzagia, Ela buruzagia, Phinon buruzagia,

53. Zenez buruzagia, Theman buruzagia, Mabsar buruzagia,

54. Magdiel buruzagia, Hiram buruzagia. Horiek izan ziren Edomen  
buruzagi.

## II. KAP.

1. Bada, Israelen semeak ziren: Erruben, Simeon, Lebi, Juda, Isakar,  
Zabulon,

2. Dan, Josep, Benjamin, Nefthali, Gad eta Aser.

3. Judaren semeak: Her, Onan eta Sela. Horiek hirurak sorthu ziren  
Sueren alaba Kananearen baten ganik. Bada, Judaren seme zaharrena, Her,  
tzarra izan zen Jaunaren aitzinean eta Jaunak hil zuen.

4. Thamarrek berriz, Judaren erreinak, haren ganik izan zituen  
Phares eta Zara. Judaren seme guziak beraz izan ziren bortz.

5. Pharesen semeak berriz: Hefron eta Hamul.

6. Zararen semeak berriz: Zamri, Ethan, Eman, Kalkal eta Dara,  
orotara bortz.

7. Karmiren semeak: Akar zeinak Israel nahasi baitzuen anathema-  
ren ohointzaz.

8. Ethanen semeak: Azarias.

9. Hefroni sorthu semeak, berriz: Jerameel, Erram eta Kalubi.

10. Bada, Erramek izan zuen Aminadab. Aminadabek berriz, izan  
zuen Nahason Judaren semeen buruzagia.

11. Nahasonek izan zuen Salma, zeina ganik sorthu baitzen Booz.

12. Boozek berriz, izan zuen Obed, zeinak izan baitzuen Isai.

13. Hunek izan zuen berriz, lehenbiziko semea Eliab, bigarrena  
Abinadab, hirugarrena Simaa,

14. Laugarrena Nathanael, bortzgarrena Erradai,



15. Seigarrena Asom, zarpigarrena Dabid.
16. Hekien arrebak izatu ziren Sarbia eta Abigail. Sarbiaren semeak: Abisai, Joab eta Asael, hirur.
17. Abigailek izatu zuen Amasa, zeinaren aita Jether Ismaheldarra baitzen.
18. Bada, Kalebek Hefronen semeak emazte bat hartu zuen Azuba deitzen zena, zeinaren ganik izan baitzuen Jerioth; eta haren semeak izan ziren Jaser, Sobab eta Ardon.
19. Eta Azuba hil ondoan, Kalebek emaztetzat hartu zuen Efratha, zeinak eman baitzaroen Hur.
20. Hurrek berriz, izatu zuen Uri, eta Urik Beseleel.
21. Horiez geroz Hefron ezkondu zen Makirren alabarekin, Makir baitzen Galaaden aita; hirur hogoi urthe zituen hura hartzean, eta haren ganik izan zuen Segub.
22. Segubek ere izatu zuen Jair, eta hau hogoi eta hirur hiren nausi izatu zen Galaadeko lurrean.
23. Jesurrek eta Aramek hartu zituzten Jairgo hiriak; Kanath ere eta hango herriak, hirur hogoi hiri; horiek oro Makirren Galaaden aitaren semeak.
24. Bada, Hefron hil zenean, Kalebek emaztetzat hartu zuen Efratha. Hefronek emaztetzat izan zuen Abia ere, zeinak eman baitzaroen Ashur Thekuaren aita.
25. Jerameelen ganik berriz, Hefronen seme zaharrena ganik sorthu ziren Erram haren seme zaharrena, Buna, Aram, Asom eta Akia.
26. Jerameelek hartu zuen bertze emazte bat ere Aura deitzen zena, zeina izan baitzen Onamen ama.
27. Eta Jerameelen seme zaharren Erramen seme izatu ziren Moos, Jamin eta Akar.
28. Onamek berriz, izan zituen semetzat Semei eta Jada. Semeiren semeak berriz, ziren Nadab eta Abisur.
29. Abisurren emaztea berriz, deitzen zen Abihail, zeinak eman baitzarozkien Ahoban eta Molid.
30. Nadaben semeak berriz, izatu ziren Saled eta Aphaim. Saled berriz, hil zen haurrik izan gabe.
31. Aphaimek berriz, izan zuen Jesi, Jesik Sesan, eta Sesanek Oholai.
32. Semeiren anaia Jadaren semeak berriz: Jether eta Jonathan. Bainan Jether ere hil zen haurrik izan gabe.
33. Jonathanek berriz, izan zituen Phaleth eta Ziza. Horiek izan ziren Jerameelen semeak.

34. Sesanek berriz, etzuen izan semerik, bainan alabak, eta egiptoar gathibu bat Jeraa deitzen zena.
35. Eta hari emaztetzat eman zaroen bere alaba bat, zeinak eman baitzaroen Ethei.
36. Etheik berriz, izan zuen Nathan eta Nathanek Zabad.
37. Zabadek halaber izan zuen Oflal, eta Malek Obed.
38. Obedek izan zuen Jehu, eta Jehuk Azarias.
39. Azariasek izan zuen Heles, eta Helesek Elasa.
40. Elasak izan zuen Sisamoi, eta Sisamoiak Selum.
41. Selumek izan zuen Ikamia eta Ikamiak Elisama.
42. Huna berriz, Jerameelen anaia Kaleben semeak: Mesa haren seme zaharrena, Zipheko buruzagia, eta Hebronon aitaren Maresaren semeak.
43. Hebronon semeak berriz: Kore, Taphua, Errezem eta Sama.
44. Samak berriz, izan zuen Erraham Jerkaamen aita; eta Errezemek izan zuen Samai.
45. Maon Samairen semea zen, eta Maon Bethsurren aita.
46. Ephak berriz, Kaleben ohaideak, izan zituen Haran, Mosa eta Jezez. Bada, Hatanek izan zuen Jezez.
47. Berriz, Jahadairen semeak: Erregom, Joathan, Jesan, Phaleth, Epha eta Saaph.
48. Maakak Kaleben ohaideak izan zituen Saber eta Tharana.
49. Saaphek berriz, Madmenaren aitak izan zuen Sue Makbenaren aita eta Gabaaren aita. Aksa berriz, Kaleben alaba zen.
50. Haukiek ziren Kaleben semeak, Hur Efratharen seme zaharrena ganikakoak: Sobal Kariatharimen aita,
51. Salma Bethlehem aita, Hariph Bethgaderren aita.
52. Bada, Sobalek Kariatharimen aitak, Phausa-lekhuren erdiaren gainean ikhusteko zuenak, semeak bazituen.
53. Kariatharimen iraulgitik atheratzen dira Jethritarrak, Aphutharrak, Sematharrak eta Maserarrak. Haukietarik ilkhi dira Saraitarrak eta Esthaoldarrak;
54. Salmaren semeak, Bethlehem eta Netophathi, Joaben etxeko khorok; eta Phausa-lekhuren erdiaren jabea, Sarai;
55. Jabesen zauden iskribauen ahaidegoak, kantatzen eta musika jotzen zutenak, eta olhetan egoten zirenak. Hekiek dira Zinearrak, ethorriak Kaloren ganik, zeina baitzen Errekaben etxearen aita.





### III. KAP.

1. Haukiek dira berriz, Dabidi Hebronon sorthu zitzaizkoen semeak: zaharrena, Amnon, Akinoam Jezraeldarra ganikakoa; bigarrena, Daniel, Abigail Karmeldarra ganikakoa;

2. Hirugarrena, Absalom, Maakaren, Jezurreko errege Tholmairen alabaren semea; laugarrena, Adonias, Agithen semea;

3. Bortzgarrena, Saphatias, Abitalen semea; seigarrena, Jethraham, bere emazte Eglaren semea.

4. Sei seme sorthu zitzaizkoen beraz Hebronon, non erreginatu baitzen zazpi urthe eta sei hilabetez. Jerusalem berriz, erreginatu zen hogoi eta hamahirur urtez.

5. Bada, Jerusalem ere sorthu zitzaizkoen semeak, Simaa, Sobab, Nathan eta Salomon, laurak Betsabee Amielen alaba ganik;

6. Jebaar, Elisama,

7. Eliphaleth, Noie, Nepheg, Japhia,

8. Elisama, Eliada eta Elipheleth, bederatziz;

9. Horiek oro Dabiden semeak, aipatu gabe ohaideen ganikakoak; arrebetzat izan zuten Thamar.

10. Salomonen seme zen, berriz, Erroboam, zeinaren seme Abiak izan baitzuen Asa. Hunen ganik sorthu zen Josafat,

11. Joramen aita; Joramek izan zuen Okozias, zeina ganik athera baitzen Joas;

12. Eta hunen seme Amasiasek izatu zuen Azarias. Azariasen seme Joathanek

13. Izan zuen Akaz Ezekiasen aita, eta Ezekiasen ganik sorthu zen Manase.

14. Eta Manasek izan zuen Amon, Josiasen aita.

15. Bada, Josiasen semeak izatu ziren Johanan zaharrena, bigarrena Joakin, hirugarrena Sedezias eta laugarrena Selum.

16. Joakinen ganik sorthu ziren Jekonias eta Sedezias.

17. Jekoniasen seme izatu ziren Asir eta Salathiel,

18. Melkiram, Phadaia, Seneser, Jezemia, Sama eta Nadabia.

19. Phadaiairen ganik atheratu ziren Zorobabel eta Semei. Zorobabelek izan zituen Mosolam eta Hananias, eta Salomirh hekien arreba;

20. Halaber Hasaban, Ohol, Barakia, Hasadia eta Josabhesed, bortz.

21. Hananiasen seme zen, berriz, Phaltias Jeseiasen aita; Jeseiasen seme zen Erraphaia, eta hunen seme berriz, Arnan, zeinaren ganik sorthu baitzen Obdia Sekeniasen aita.

22. Sekeniasen seme zen Semeia, zeinak baitzituen sei seme: Hatus, Jegaal, Baria, Naaria, Saphat.

23. Naariak baitzuten hirur seme: Elioenai, Ezekias eta Ezrikam.

24. Elioenaien seme ziren Oduia, Eliasub, Pheleia, Akub, Johanan, Dalaia eta Anani, zazpi.

### IV. KAP.

1. Judaren semeak: Phares, Hefron, Karmi, Hur eta Sobal.

2. Erraiak berriz, Sobalen semeak izan zuen Jahath, zeina ganik sorthu baitziren Ahumai eta Laad. Horiek dira Saratharren ahaidegoak.

3. Etamen ondoregoa ere hau da: Jezrahel, Jesema eta Jedebos; eta hekien arrebaren izena zen Asalephuni.

4. Phanuel berriz, Jedorren aita zen, eta Ezer Hosarena; horiek dira Hurren semeak, Efratharen seme zaharrenarenak Bethlehemen aitarenak.

5. Asurrek Thekuaren aitak izan zituen bi emazte Halaa eta Naara.

6. Naarak eman zarozkien Oozam, Hepher, Themantarrak eta Ahastharrak; horra Naararen semeak.

7. Eta Halaaren semeak dira Sereth, Isaar eta Ethnan.

8. Bada, Kosek izan zituen Anob eta Soboba, eta Arumen seme Aharehelen ondokoak.

9. Bada, Jabes bere anaiak baino aipatuagoa izan zen; bere amak Jabes deithu zuen, zioelarik: Hori zeren oinhazetan izan dudana.

10. Eta Jabesek Israelgo Jainko Jaunari dei egin zaroen, zioelarik: Balinba, Jauna, zure benedizioez nauzu benedikaturen, eta ene mugak zabalduren ditutzu, zure eskua enekin izanen da, eta utziren ez nauzu maltzurkeriaren azpian lehertzera. Eta Jaunak onhetsi zaroen bere othoizta.

11. Bada, Kalebek Suaren anaiak izan zuen Mahir, zeina izan baitzen Esthonen aita.

12. Esthonek berriz, izan zituen Bethrapha, Phese eta Tehina, zeina izan baitzen Naasen hiriko aita; horiek dira Errekako gizonak.

13. Zenezen seme ziren, berriz, Othoniel eta Saraia. Othonielen semeak berriz, Hathath eta Maonathi.

14. Maonathik izan zuen Ofra; Saraiak berriz Joab, Langileen haraneko aita; ezik han ziren langileak.

15. Jephonen seme Kaleben haurrak berriz: Hir, Ela eta Naham. Eta Elaren semea, Zenez.

16. Jalelelen semeak berriz: Ziph, Zipha, Thiria eta Asrael.

17. Eta Ezraren semeak: Jether, Mered, Epher eta Jalon; bertzalde izan zituen Maria, Samai eta Jefba Esthamoren aita.



18. Halaber Judaia haren emaztea erdi zen Jaredez Jedorren aitaz, Heberrez Sokoren aitaz, eta Ikuthielez Zanoeren aitaz. Bada horiek dira Bethiaren ondokoak, Bethia Faraonen alaba Meredekin ezkondu zenarenak.

19. Eta haren emaztea, Odaia, Zeilaren aita Naham deitzen zenaren arreba, bi semeren ama zen, Garmi eta Esthamo, zeina Makathiko baitzen.

20. Simonen semeak berriz: Amnon, Errina Hananen ganik izana, eta Thilon. Eta Jefiren semeak: Zoheth eta Benzoheth.

21. Judaren seme Selaren semeak Her Lekaren aita, eta Laada Maresaren aita, eta Zineko etxean liho hauta lantzen zutenen ahaidegoak;

22. Eta Iguzkia geldiarazi zuena, eta Gezurraren gizonak, eta Segura eta Erretzailea, Moaben aitzindari izatu eta Lahemera bihurtu zirenak. Horiek dira beihalako solasak.

23. Hekiek dira baxeregileak, Landaretan eta Berhoetan zaudezenak, erregeren baithan haren lanetan, eta han beren egoitza egin izan dutenak.

24. Simeonen semeak: Namuel, Jamin, Jarib, Zara eta Saul,

25. Zeinaren seme baitzen Selum, Selumena Mapfan, eta Mapsamena Masma;

26. Masmaren semeak: Hamuel, Hamuelena Zakur, Zakurrena Semei.

27. Semeik izan zituen hamasei seme eta sei alaba: bainan haren anaiek etzuten izan haur hainitz, eta ahaidego guzia ezin heldu izan zen Judaren haurren bardinera.

28. Bada, beren egoitza egin zuten Bersabeen, Moladan, Hasarsuhalen,

29. Balan, Asomen, Tholaden,

30. Bathuelen, Horman, Sizelegen,

31. Bethmarkabothan, Hasarsusimen, Bethberain eta Saarimen. Horiek dira hekien hiriak Dabid erregearen egunetaraino.

32. Hekienak ziren oraino bortz hiri edo hiriska, Etam, Aen, Erremon, Thoken eta Asan,

33. Eta hiri horien inguruetako herri guziak Baaleraino. Hori da hekien egon-lekhua eta egoitzen xehatzapena.

34. Mosobab, Jemlek, Josa Amasiaren semea,

35. Joel, Jehu Josabiaren semea, (Josabia Saranaren semea baitzen eta Saraia Asielena),

36. Elioenai, Jakoba, Isuhaia, Asaia, Adiel, Ismiel, Banaia,

37. Eta Ziza Sepheiren semea baitzen, Sephei Alonena, Alon Idaiarena, Idaia Semrirena eta Semri Samaiarena;

38. Horiek dira aitzindari aipatuak beren ahaidegotan, eta ezkontzaz beren etxea berhatu zuten handizki.

39. Eta goan ziren Gadorren sartzekotzat, haranaren iguzki-haize alderaino, eta beren arthaldeentzat alhapideak bilhartzeko.

40. Atzeman zituzten alhapide goriak eta hainitz onak, eta bazter bat zabala, deskantsua eta gizena, zeinetan beihala jarri izan baitziren Kamen odolekoak.

41. Gorago beren izenez deithu ditugunak ethorri ziren beraz, Ezekias Judako erregeren egunetan; jo zituzten han atzeman ziren olhak eta egoiliarrak, eta hil zituzten eta hekien orde egungo eguna arteo han egin dute beren egoitza, zeren alhapide guziz goriak han atzeman baitzituzten.

42. Simeonen semeetarik halaber bortz ehun goan ziren Seirgo mendira, aitzindari zituztelarik Phaltias, Naarias, Erraphaias eta Oziel Jesiren semeak;

43. Eta xahutu zituzten Amalektarretarik itzuri ahal ziren ondarrak, eta hekien orde han egin dute beren egintza egungo eguna arteo.

## V. KAP.

1. Huna Errubenen haurrak, Israelen seme zaharrenarenak (ezik hura zen haren zaharrena; bainan lohitu zutelakotz bere aitaren ohea, haren zuzenak emanak izan ziren Israelen seme Josepen haurrei, eta Erruben ez da zaharrentzat ezagutua.

2. Bada, Juda zen bere anaian artean gerlariena, haren odoletik ilkhi ziren aitzindariak; zaharrenaren zuzenak ordean Josepi dira ezagutuak).

3. Huna beraz Errubenen haurrak, Israelen seule zaharrenarenak: Enok, Phalu, Efron eta Karmi.

4. Joelen semea Samaia, Samaiarena Gog, Gogena Semei,

5. Semeirena Mika, Mikarena Erreia, Erreiarena Baal,

6. Baalena Beera, zeina gathibu eraman baitzuen Thelgathphalnasarrek Asiriarren erregek eta aitzindari baitzen Errubenen leinuan.

7. Haren anaiek eta ahaidego guziak berriz, familiaka khondatzean, Jehiel eta Zakarias zituzten aitzindari.

8. Bala Azazen semea (Azaz Samaren semea baitzen eta Sama Joelena), Aroerren jarri zen Neboraino eta Beelmeoneraino.

9. Halaber bere egoitza egin zuen iguzki-haizeko aurkhintzaren alde rat mortuko sartzearaino eta Ufratako hibairaino. Ezik abereketa gaitzaren jabe zen Galaadeko lurrean.



10. Bada Saulen egunetan Agartarrak gudukatu zituzten, eta hekiek hilik hekien orde beren egoitza hekien olhetan egin zuten, Galaadetik iguzki-haizeko alderat begiratzen duen aurkhintza guzian.

11. Gaden semeek berriz, hekien lurraren parrean egin zuten beren egoitza, Basango lurtean Selkaraino.

12. Joel zen buruan eta Saphan ondoko; Janai berriz, eta Saphat Basanen aitzindari.

13. Hekien anaiak berriz, beren ondoregoen etxeen arabera: Mikael, Mosolam, Sebe, Jorai, Jakan, Zie eta Heber, zazpi.

14. Haukiek ziren Abihailen semeak, Abihail baitzen Huriren semea, Huri Jararena, Jara, Galaadeka, Galaad Mikaelena, Mikael Jesesirena, Jesesi Jedorena, Jedo Buzena.

15. Halaber hekien anaiak ziren Guniren seme Abdielen haurrak, beren etxetako familietan buruzagi zirenak.

16. Eta beren egoitza egin zuten Galaaden eta Basanen, eta hango herrietan eta Sarongo hiripe guzietan, mugetaraino.

17. Hekiek oro khondatuak izan ziren Judako errege Joathanen egunetan eta Israelgo errege Jeroboamen egunetan.

18. Errubenen eta Gaden semeak eta Manaseren leinu erdikoak gizon gerlariak ziren, erredolak eta ezpatak zakharztenak, arranbela hedatzen zutenak eta gudukan jakinak; berrogoi eta laur mila zazpi ehun eta hirur hogoi atheratzen ziren gerlara.

19. Gudukatu ziren Agartarren kontra; haukiei berriz, Iturtarrek, Naphisekoek eta Nodabekoek

20. Laguntza eman zaroeten. Eta Agartarrak eta hekiekilako guziak hekien eskuetara arthikiak izan ziren, zeren Jaunari dei egin baitzaroeten gudian hari zirelarik; eta Jaunak entzun zituen, haren baithan sinhetsi zutelakotz.

21. Eta hartu zituzten etsaiek gozatu guziak, berrogoi eta hamar mila kamelu, berrehun eta berrogoi eta hamar mila ardi, bi mila asto eta ehun mila gizon.

22. Asko erori ziren oraino sakhiturik, ezik Jaunaren gerla zen. Hekien orde egotu ziren han, Asiriara eramanak izan ziren arteo.

23. Manaseren leinu erdiak ere lurraren gozamina izan zuen Basango mugetarik Baal-Hermoneraino, Sanirreraino eta Hermongo mendiraino, zeren hainitz baitziren.

24. Eta haukiek izan ziren hekien etxeko ahaidegoaren buruzagiak: Epher, Jesi, Eliel, Ezriel, Jeremia, Odoia eta Jehiel, gizon guziz hazkar eta ahaldunak, aitzindari aiphatuak beren odolekoetan.

25. Bainen utzi zuten beren arbasoen Jainkoa, eta Jainkoak hekien aitzinetik xahutu zituen hango populuen jainkoen ondotik lohitu izan ziren.

26. Eta Israelgo Jainkoak hekien kontra phiztu zituen Asiriarren errege Phulen gogoa eta Asurgo errege Thelgathphalnasarren gogoa; eta handik khendu zituen Erruben, Gad eta Manaseren leinu erdia, eta eraman zituen Lahelara, Haborrera, Arara, eta Gozango hibaira, egungo eguna arteo.

## VI. KAP.

1. Lebiren semeak: Jerson, Kaath eta Merari.

2. Kaathen semeak: Amram, Isaar, Hebron eta Oziel.

3. Amramen semeak: Aaron, Moise eta Maria. Aaronen semeak: Nadab, Abiu, Eleazar eta Ithamar.

4. Eleazarrek izan zuen Phinees, eta Pkineesek Abisue.

5. Bada, Abisuek izan zuen Bokzi, eta Bokzik Ozi.

6. Ozik izan zuen Zaraias, eta Zaraiasek Meraioth.

7. Berriz, Meraiothek izan zuen Amarias, eta Amariasek Akitob.

8. Akitobek izan zuen Sadok, eta Sadokek Akimaas.

9. Akimaasek izan zuen Azarias: Azariasek Johanan.

10. Johananek izan zuen Azarias: hura bera da apheztasuneko eginbideak bethe zituena Salomonek Jerusalemen altxatu zuen tenploan.

11. Azariasek berriz, izan zuen Amarias, eta Amariasek Akitob.

12. Akitobek izan zuen Sadok, eta Sadokek Selum.

13. Selumek izan zuen Helzias, eta Helziasek Azarias.

14. Azariasek izan zuen Saraias, eta Saraiasek Josedek.

15. Bada, Josedek ilkhi zen Jaunak atze-herritara Nabukodonosorren eskuz khendu zituenean Judako eta Jerusalemeko egoiliarak.

16. Lebiren semeak ziren beraz Jerson, Kaath eta Merari.

17. Haukiek dira Jersonen semeen izenak: Lobni eta Semei.

18. Kaathen semeak: Amram, Isaar, Hebron eta Oziel.

19. Merariren semeak: Moholi eta Musi. Haukiek dira berriz, Lebiren ondoregoak hekien familien arabera:

20. Jerfonen semea Lobni, Lobnirena Jabath, Jabathena Zama,

21. Zamarena Joah, Joahena Ado, Adorena Zara, Zararena Jethrai.

22. Kaathen semeak: Aminadab haren semea, Aminadaben semea Kore, Korereña Asir,

23. Asirrena Elkana, Elkanarena Abiasaph, Abiasaphena Asir.



24. Asirrena Thahath, Thahathena Uriel, Urielena Ozias, Oziasena Saul.
25. Elkanaren semeak: Amasai, Akimoth
26. Eta Elkana, Elkanaren semeak: Sophai, Sophairena Nahath,
27. Nahathena Eliab, Eliabena Jeroham, haren semea Elkana.
28. Samuelen semeak: Baseni zaharrena eta Abia.
29. Merariren semeak berriz: Moholi, Moholirena Lobni, Lobnirena Semei, Semeirena Oza,
30. Ozardia Samaa, Samaarena Hagia, Hagiarena Asaia.
31. Horiek dira Dabidek Jaunaren etxeko kantarien gaineko ezarri zituenak, arkha han ezarria izan zenetik;
32. Beren eginbidearen bethetzeko, lekhukotasuneko tabernaklearen aitzinean kantatzen zuten, Salomonek Jerusalemen Jaunaren etxea egin arteo; eta eginbidetan sartzen ziren, zein bere lerroan.
33. Haukiek dira berriz, hekien semeekin izaten zirenak, Kaathen semeetarik, Heman kantaria Johelen semea, Johel Samuelena,
34. Samuel Elkanarena, Elkana Jerohamena, Jeroham Elielena, Eliel Thohurena,
35. Thohu Suphena, Suph Elkanarena, Elkana Mahathena, Mahath Amasairena,
36. Amasai Elkanarena, Elkana Johelena, Johel Azariasena, Azarias Sophoniasena,
37. Sophonias Thahathena, Thahath Asirrena, Asir Abiasaphena, Abiasaph Korenena,
38. Kore Isaarrena, Isaar Kaathena, Kaath Lebirena, Lebi Israelena.
39. Haren anaia zen Asaph, haren eskuinean jartzen zena; Asaph zen Barakiasen semea, Barakias Samaarena,
40. Samaa Mikaelena, Mikael Basaiasena, Basaias Melkiasena,
41. Melkias Athanairena, Athanai Zararena, Zara Adaiarena,
42. Adaiia Ethanena, Ethan Zamarena, Zama Semeirena,
43. Semei Jethena, Jeth Jersonena, Jersun Lebirena.
44. Merariren semeak berriz, hekien anaiak, ezker alderat ziren, Ethan Kusiren semea, Kusi Abdirena, Abdi Malokena,
45. Malok Hasabiasena, Hasabias Amasiasena, Amasias Helziasena,
46. Helzias Amasairena, Amasai Bonirena, Boni Somerrena,
47. Somer Moholirena, Moholi Musirena, Musi Merarirena, Merari Lebirena.
48. Lebitar hekien anaiak halaber ezarriak ziren Jaunaren etxeko tabernakleko eginbide orotako.

49. Aaronek ordean eta haren semeek erretzen zuten isentsua holo-kaustetako aldarearen gainean eta usain-onetako aldarearen gainean, sainduren saildunok lan orotan; eta Israelentzat othoitz egiteko ziren, Jainkoaren zerbitzari Moisek manatu zuen guzien arabera.

50. Haukiek dira berriz, Aaronen semeak: Eleazar haren semea, Phinees Eleazarren semea, Phineesena Abisue,

51. Abisuerena Bokzi, Bokzirena Ozi, Ozirena Zarahia,

52. Zarahiarena Meraioth, Meraiothena Amarias, Amariasena Akitob,

53. Akitobena Sadok, Sadokena Akimaas.

54. Eta haukiek dira hekien egoitzak herrietan eta herrien mugetan, erran nahi da Aaronen semeenak, Kaatharren ahaidegoen arabera; ezen hekiei zorthean gerthatu zitzaizkoten.

55. Hekiei eman zaroezten beraz Hebron Judako lurrean, eta hartako hiripeak inguruan;

56. Bainan hiriko bazterraldeak eta herriak emanak izan ziren Kalebi, Jephonen semeari.

57. Bada, Aaronen semeei eman izan zaroezten ihes-lekhutako hiriak, Hebron eta Lobna bere hiripeekin;

58. Jether ere eta Esthemo beren hiripeekin, halaber Helon eta Dabir beren hiripeekin,

59. Asan ere eta Bethsemes beren hiripeekin;

60. Benjamingo leinutik berriz, Gabee eta hango hiripeak, Almath bere hiripeekin, Anathoth ere bere hiripeekin; orotara hamahirur hiri hekien familien arabera.

61. Kaathen odoleko gainerako umeei berriz, Manaseren leinu erditik eman zaroezten hamar hiri.

62. Bada, Jersonen semeek beren familien arauka izan zituzten hamahirur hiri Isakarren leinutik, Aserren leinutik, Nefthaliren leinutik eta Manaseren leinutik Basanen.

63. Merariren semeei berriz, beren familien arauka, zorthean eman zaroezten hamabi hiri Errubenen leinutik, Gaden leinutik eta Zabulonon leinutik.

64. Israelgo semeek lebitarrei eman zaroezten halaber hiriak beren hiripeekin.

65. Hiri hekiek zorthez eman zituzten Judaren semeen leinutik, Simeonen semeen leinutik eta Benjaminen semeen leinutik, eta beren ize-nez deithu zituzten.



66. Kaathen semeen odoleko zirenei ere eman zaroezten, eta baziren hekien zedarrietako hiriak Efraimen leinutik.

67. Eman zaroezten beraz ihes-lekhutako hiriak, Sikem bere hiripeekin Efraimgo mendian, eta Gazer bere hiripeekin;

68. Jekmaam ere bere hiripeekin, eta Bethoron orobat;

69. Halaber Helon bere hiripeekin, eta Jethremon ara berera.

70. Kaathen semeen odoleko gainerakoei eman zituzten oraino Manaseren leinu erditik Aner eta bere hiripeak, Baalam eta bere hiripeak.

71. Jersonen semeei berriz, Manaseren leinu erditik emanak izan ziren Gaulon eta bere hiripeak Basanen, Astharoth eta bere hiripeak;

72. Isakarren leinutik, Zedes eta bere hiripeak, Dabereth bere hiripeekin,

73. Erramoth ere eta bere hiripeak, eta Anem bere hiripeekin;

74. Aserren leinutik berriz, Masal bere hiripeekin, Abdon orobat,

75. Hukak ere eta bere hiripeak, eta Errohob bere hiripeekin;

76. Nefthaliren leinutik berriz, Zedes Galilean eta bere hiripeak, Hamon bere hiripeekin, eta Kariathaim bere hiripeekin.

77. Merariren seme gainerakoei berriz, emanak izan zaroezten Zabulonon leinutik, Erremono eta bere hiripeak, Thabor bere hiripeekin;

78. Jordanez haindian halaber, Jerikoren parrean, Jordaneko iguzkihaize aldetik, Errubenen leinuan, Bosor mortukoa bere hiripeekin, Jasa bere hiripeekin,

79. Kademoth ere bere hiripeekin, eta Mephaat bere hiripeekin;

80. Eta halaber Gaden leinutik Erramoth Galaadeko eta bere hiripeak, Manaim bere hiripeekin,

81. Eta oraino Hefebon bere hiripeekin, eta Jezer bere hiripeekin.

## VII. KAP.

1. Isakarren semeak berriz: Thola, Phua, Jasub eta Simeron, laur.

2. Tholaren semeak: Ozi, Erraphaia, Jeriel, Jemai, Jebsem eta Samuel, beren ondoregoetako etxeen buruak. Dabiden egunetan, khondatuak izan ziren hogoi eta bi mila eta sei ehun gizon guziz gothorrek Tholaren odoletikakoak.

3. Oziren semeak: Izrahia, zeinaren ganik sorthu baitziren Mikael, Obadia, Johel eta Jesia, bortz ahaidego-buru.

4. Eta berekin izan zituzten, beren familien eta haur hainitzen bidez, hogoi eta hamasei mila gizon gothorrenetarik, gudukotzat gerrikatuak; ezik asko emazte eta seme izan zituzten.

5. Haukien anaiak halaber, Isakarren ondorego guzia hartuz, khondatuak izan ziren laur hogoi eta zazpi mila gudukatzeko guziz hazkarrak.

6. Benjaminen semeak: Bela, Bekor eta Jadhel, hirur.

7. Belaren semeak: Esbon, Ozi, Oziel, Jerimoth eta Urai, bortz familia-buru, eta gerlari guziz hazkarrak; haukien nonbrea, hogoi eta bi mila eta hogoi eta hamalaur.

8. Bekorren semeak berriz: Zamira, Joas, Eliezer, Elioenai, Amri, Jerimoth, Abia, Anathoth eta Almath; horiek oro Bekorren semeak.

9. Khondatuak izan ziren ahaidegoka familien buruak hogoi mila eta berrehun gerlari guziz hazkarrak.

10. Jedihelen semeak berriz: Balan. Balanen semeak berriz: Jehus, Benjamin, Aod, Kanana, Zethan, Tharsis eta Ahisahar.

11. Horiek oro Jedihelen semeak, familia-buruak, gizon guziz gothorrek, eta hamazazpi mila eta berrehun gerlako gizon.

12. Sepham eta Hapham ziren Hirren semeak, eta Hasim Aherren seme zen.

13. Nefthaliren semeak berriz: Jasiel, Guni, Jefer eta Selum, Balaren semeak.

14. Manaseren seme zen Esriel, eta haren ohaide siriar batek izan zuen Makir, Galaaden aita.

15. Makirrek berriz, emazteak hartu zaroezten bere seme Haphimi eta Saphani. Arreba bat izan zuen Maaka deitzen zena. Salphaad deitzen zen berriz, haren ilobasoa, eta Saiphaadi alabak sorthu zitzaizkon.

16. Maakak Makirren emazteak izan zuen seme bat eta deithu zuen Phares; Pharesen anaia berriz, deitzen zen Sares; eta Saresen seme ziren Ulam eta Errezen.

17. Ulamen seme zen berriz, Badan. Horiek dira Galaaden semeak, Galaad baitzen Makirren semea, eta Makir Manaserena.

18. Haren arreba Erreginak berriz, izan zituen Gizon ederra, Abiezer eta Mohola.

19. Semidaren seme ziren berriz, Ahin, Sekem, Lezi, eta Aniam.

20. Efraimen semeak berriz: Suthala, Bared haren semea, Thahath haren semea, Elada haren semea, Thahath haren semea, Zabad hunen semea,

21. Suthala hunen semea, Ezer eta Elad hunen semeak; bainan Jetheko lekhuko umeek hil zituzten, hekien onthasunez jabetzera sarthu zirelako.

22. Hargatik Efraim hekien aita nigarrez egotu zen asko egunez, eta haren anaiak ethorri ziren haren minaren gozatzeraz.



23. Eta sarthu zen bere emaztea gana, zeina amatu baitzen eta erdi zen seme batez, eta deithu zuen Beria, bere etxeko ondikoen erdian sortu zelakotz.

24. Berriz, haren alaba izan zen Sara, zeinak altxatu baitzituen Bethoron-behere, Bethoron-garai eta Ozensara.

25. Haren semeak ziren oraino Errapha, Erreseph eta Thale, zeinaren ganik sortu baitzen Thaan.

26. Thaan izan zen Laadanen aita; Laadan Amiudena, eta Amiud Elisamarena;

27. Elisamaren ganik sortu zen Nun, eta hunek izan zuen Josue.

28. Hekien gozameneko eta egoitzetako izan ziren Bethel hari zatxikoztenekin, Noranen iguzki-haize alderdia, Gaaergo mendebaleko aurk-hintza eta hari zatxikoztenak, Sikem ere hari zatxikoztenekin Azaraino eta Azari zatxikoztenak.

29. Halaber hekienak ziren Manaseren leinuko alderat, Bethsan eta haren itxikikoak, Thanak eta haren itxikikoak, Maiedo eta haren itxikikoak, Dor eta haren itxikikoak; lekhu hekietan egotu izan ziren Israelen seme Josepen urneak.

30. Aserren semeak: Jemna, Jesua, Jesui, Baria eta Sara hekien arreba.

31. Bariaren semeak berriz: Heber eta Melkiel; hura bera zen Barsaithen aita.

32. Heberrek berriz, izan zituen Jeslat, Somer, Hotham eta Suaa hekien arreba.

33. Jeslaten semeak: Phosek, Kamaal eta Asoth; horiek dira Jeslaten umeak.

34. Somerren semeak berriz: Ahi, Erroaga, Haba eta Aram.

35. Haren anaia Helemen semeak berriz: Supha, Jemna, Seles eta Amal.

36. Supharen semeak: Sue, Harnapher, Sual, Beri, Jamra,

37. Bosor, Hod, Sama, Salusa, Jethram eta Bera.

38. Jetherren semeak: Jephone, Phaspha eta Ara.

39. Olaren semeak berriz: Aree, Haniel eta Erresia.

40. Horiek oro Aserren umeak, familia-buruak, aitzindarien buruzagi hautak eta guziz gothorak; gerlan ibiltzeko adinera helduak zirenak hekien artetik, ziren hogoi eta sei mila.

### VIII. KAP.

1. Benjaminek berriz, izan zituen Bale bere zaharrena, Albel ondo-koa, Ahara hirugarrena,

2. Nohaa laugarrena, Errapha bortzgarrena.

3. Baleren seme ziren Adar, Jera, Abiud,

4. Abisue, Naaman, Ahoe,

5. Bertze Jera, Sephuphan eta Huram.

6. Haukiek dira Ahoden semeak, Gabaan egoten ziren familien buruak, Manahathera eramanak izan zirenenak:

7. Naaman, Akia eta Jera; hunek berak aldarazi zituen lekhuaz, eta izan zituen Oza eta Ahiud.

8. Bada, Saharaimek haurrak izan zituen Moab-herrian, bazterrerat utzi ondoan Husim eta Bara bere emazteak;

9. Bere emazte Hodes ganik izan zituen, berriz, Jobab, Sebia, Mosa, Molkom,

10. Jehus, Sekia eta Marma. Horiek dira haren semeak, beren familien buruak.

11. Mehusimek berriz, izan zituen Abitob eta Elphaal.

12. Elphaalen semeak berriz: Heber, Misaam eta Samad; hunek altxatu zituen Ono eta Lod eta hekien itxikiak.

13. Baria berriz, eta Sama ziren Ayalonen zauden familietako buruak; haukiek irazi zituzten Jetharrak.

14. Eta Ahio, Sesak, Jerimoth,

15. Zabadia, Arod, Heder,

16. Mikael, Jespha eta Joha ziren Bariaren semeak.

17. Zabadia, Mosolam, Hezezi, Heber,

18. Jesamari, Jezlia eta Jobab ziren Ephaalen semeak.

19. Jazim, Zekri, Zabdi,

20. Elioenai, Selethai, Eliel,

21. Adaia, Baraia eta Samarath ziren Semeiren umeak.

22. Jespham, Heber, Eliel,

23. Abdon, Zekri, Hanan,

24. Hanania, Elam, Anathothia,

25. Jephdaia eta Phanuel ziren Sesaken umeak.

26. Samsari, Sohoria, Otholia,

27. Jersia, Elia eta Zekri ziren Jerohamen umeak.

28. Horiek ziren Jerusalem bere egoitza egin zuten familietako aitak eta buruak.

29. Abigabaonek berriz, Gabaonen egin zuen bere egoitza, eta haren emaztearen izena Maaka zen.

30. Haren seme ziren Abdon zabarrena, Sur, Zis, Baal, Nadab,

31. Jedor, Ahio, Zaker eta Mazeloth.



32. Mazelothek izan zuen Samaa. Beren egoitza Jerusalemen egin zuten beren anaiekin, beren anaien parrean.

33. Nerrek berriz, izan zuen Zis, Zisek Saul; Saulek izan zituen Jonathas, Melkisia, Abinadab eta Esbaal.

34. Meribaal berriz, Jonathasen semea zen, eta izan zuen Mika.

35. Mikaren semeak: Phithon, Melek, Tharaa eta Ahaz.

36. Ahazek izan zuen Joadak; Joadak izan zituen Alamath, Azmoth eta Zamri; Zamrik berriz, izan zuen Mosa.

37. Mosak izan zuen Banaa, zeinaren seme izan baitzen Errapha; hunen ganik ilkhi zen Elasa, zeinak izan baitzuen Asel.

38. Haukiek dira berriz, Azelen sei semeen izenak: Ezrikam, Bokru, Ismael, Saria, Obdia eta Hanan; horiek oro Aselen semeak.

39. Haren anaia Eseken semeak berriz: Ulam zaharrena, Jehus ondo-koa, Eliphalet hirugarrena.

40. Eta Ulamen semeak ziren gizon guziz hazkarrak, indar handikoa eta arranbelariak; asko seme eta ilobaso zutenak, zazpitan hogoi eta hamarretaraino. Horiek oro Benjaminen umeak.

### IX. KAP.

1. Horra beraz Israel guziaren xehatzapena, eta guziak zenbat ziren iskribatua izan da Israelgo eta Judako erregeen liburuan; eta Babilonara eramana izan ziren beren tzarkeria gatik.

2. Bada, beren gozamenetan eta beren hirietan egotera lehenbizikori ethorri zirenak, Israeldarrak, aphezak, lebitarrak eta Nathindarrak ziren.

3. Jerusalemen egotu ziren Judaren semeetarik, Benjaminetarik, Efraimentarik ere eta Manaserentarik:

4. Othei Amiuden semea, Amiud Amriren seme baitzen, Amri Omrairena, Omrai Bonirena, Boni Pharesen semeetarik, eta Phares Judaren semea;

5. Asaia Siloniren seme zaharrena eta bere umeak;

6. Zararen semeetarik berriz, Jehuel eta hekien anaiak, sei ehun eta laur hogoi eta hamar;

7. Benjaminen umeetarik berriz: Salo Mosolamen semea, Mosolam baitzen Oduiaren seme eta Oduia Asanarena;

8. Jobania Jerohamen semea; Ela Oziren semea, Ozi baitzen Mokoriren seme; Mosolam Saphatiasen semea, Saphatias baitzen Errahuelen seme, eta Errahuel Jebaniasena;

9. Eta hekien anaiak familiak, bederatzi ehun eta berrogoi eta hama-sei. Haukiek oro familietako buruak beren arbasoen etxeetan.

10. Aphezetarik berriz: Jedaia, Joarib eta Jakin;

11. Azarias ere Helziazzen semea, Helzias baitzen Mosolamen seme, Mosolam Sadokena, Sadok Meraiothena, eta Meraioth Akitob Jainkoaren etxeko aphez-handiarena.

12. Adaias berriz, Jerohamen semea, Jeroham Phasurren seme baitzen, eta Phasur Melkiasena; eta Maasai Adielen semea, Adiel baitzen Jezraren seme, Jezra Mosolamena, Mosolam Mosolamithena, Mosolamith Emerrena;

13. Halaber hekien anaiak, beren familietako buruak, hamazazpi ehun eta hirur hogoi, indar handienekoak Jaunaren etxeko eginbideen bethetzeko.

14. Lebitarretarik berriz, Semeia Hasuben semea, Hasub baitzen Ezrikamen seme, Ezrikam Hasebiarena, eta Hasebia Merariren semeetarik;

15. Halaber Bakhakar zurgina, Galal eta Mathania Mitharen semea, Mitha Zekreren seme baitzen eta Zekri Asaphena;

16. Obdia Semeiasen semea, Semeias Galalen seme baitzen, eta Galal Idithunena; Barakia Asaren semea, Asa baitzen Netophatiko hiripeetan egotu zen Elkanaren seme;

17. Athalzainak berriz, Selum, Akub, Telmon eta Ahimam, eta Selum beren anaia zuten buruzagi.

18. Ordu arteo Lebiren semeetarik aldizka zain egoten ziren erregeen athean iguzki-haizerat.

19. Selum berriz, Koreren semea, Kore baitzen Abiasaphen seme eta Abiasaph Korereana, bere anaia guziekin eta bere aitaren etxearekin: hekiek dira Koretarrak eginbideetako lanen artha zutenak, tabernakleko atheetako zainak; eta hekien familiek aldizka zaintzen zuten Jaunaren kanpetako sartzea.

20. Bada, Phinees Eleazarren semea zen hekien buruzagi Jaunaren aitzinean.

21. Berriz, Zakarias Mosolamiaren semea lekhukotasuneko tabernaklearen atheko athalzaina zen.

22. Horiek oro, atheen zaintzeko bereziak, berrehun eta hamabi ziren, beren hirietan iskribuz hartuak. Dabidek eta Samuel ikhustek kargutan ezarriek ziren, beren fedearen ariaz,

23. Hala berak, nola beren semeak, Jaunaren etxeko atheetan eta tabernaklean, zein bere aldiko.



24. Athalzainak lau haizeetara jartzen ziren, erran nahi da iguzki-haizera, mendebalera, ipharrera eta hegoara.
25. Hekien anaiak berriz, beren herrietan zauden, eta zein bere larunbatetan ethortzen ziren, bere aldiaren bethetzera.
26. Lau lebitar hekiek zuten ikhusteko athalzain guzien gainean eta Jaunaren etxeko salhen eta khutxen gainean.
27. Eta Jaunaren tenploko inguruan zituzten beren egon-lekhuak, goizetan atheak beren orduetan idekitzeko.
28. Hekien odoletikakoak ziren hala-ber tenploan erabiltzen ziren tresnen kargua zutenak; tresnak ezik khondatuz ematen eta bihurtzen ziren.
29. Saindutegiko tresnen kargua zutenetarik ziren irinaren, arnoaren, olioaren, isentsuaren eta baltsamuen artha zutenak.
30. Aphez semeak ziren berriz, baltsamuetarik urrin-onak xuxentzen zituztenak.
31. Mathathias lebitarra, Selum Koretarraren seme zaharrena zen kargutua paderan erretzen zirenez.
32. Hekien anaietarik Kaathen semeetarik ziren berriz, proposizio-neko ogien kargua zutenak, bethi berriak larunbat bakhotzeko xuxent zetzaten.
33. Horiek ziren kantarien buruzagiak lebitarren familien arabera tenplo inguruko salhetan egoten zirenak, gau eta egun noiznahi beren eginbideak bethe zezatentzat.
34. Lebitarren aitzindariak, beren familietako buruzagiak, Jerusalemen egotu ziren.
35. Gabaonen egotu ziren berriz, Jehiel Gabaongo aita, eta haren emaztea Maaka deitzen zena.
36. Abdon haren seme zaharrena, Sur, Zis, Baal, Ner, Nadab,
37. Jedor, Ahio, Zakarias eta Mazeloth,
38. (Eta Mazeloth Samaanen aita zen); horiek Jerusalemen egotu ziren beren anaiekin, beren anaien parrean.
39. Nerrek berriz, izan zuen Zis, Zisek Saul, Saulek Jonathas, Melkisua, Abinadab eta Esbaal.
40. Meribaal berriz, Jonathasen seme zen, eta Meribaalek izan zuen Mika.
41. Mikaren semeak berriz, Phithon, Melek, Tharaa eta Ahaz.
42. Ahazek izan zuen Jara Jarak izan zituen Alamath, Azmoth eta Zamri; Zamrik berriz, izan zuen Mosa.

43. Mosak berriz, izan zuen Banaa; hunen seme Erraphaiak izan zuen Elasa, zeina ganik sorthu baitzen Asel.
44. Aselek berriz, izan zituen sei seme hunela deithuak: Ezrikam, Bokru, Ismahel, Saria, Obdia, Hanan: horiek dira Aselen semeak.

## X. KAP.

1. Bada, Filistindarrek gudua zuten Israelekin; Israelgo gizonek ihesezin zaroeten Filistindarrei eta sarraskitan erori ziren Jelboeko mendian.
2. Eta Filistindarrek Saulen eta haren semeen ondotik egitean, hurbildu ziren eta hil zituzten Jonathas, Abinadab eta Melkisua Saulen semeak.
3. Gudua gaiztu zen Saulen kontra; arranbelariak atzeman eta geziz sakhitu zuten.
4. Eta Saulek erran zaroen bere ezkutariari: Athera zazu zure ezpata eta hil nezazu, beldurrez ethor ditezen ingurebakigabe horiek eta nitaz trufa ditezen. Haren ezkutaria berriz, beldurrak harritua zen eta etzuen nahi izan hori egin. Saulek hartu zuen beraz ezpata eta haren gainera art-hiki zuen bere burua.
5. Haren ezkutariak ikhusi zuenean hori, erran nahi da Saul hila zela, bera ere bere ezpataren gainera jauzi zen eta hil zen.
6. Beraz Saul, haren hirur seme eta haren etxe guzia batean hil ziren.
7. Zelhaietan egoten ziren Israeldarrek ikhusi zutenean hori, ihesari eman ziren; eta Saul eta bere semeak hil ondoan, utzi zituzten beren hiriak eta hor-hemenka barraiatu ziren. Filistindarrak ethorri ziren eta hiri hekietan egin zuten beren egoitza.
8. Biharamunean beraz, Filistindarrek hilen buluzkinak altxatzen zituztelarik, atzeman zituzten Saul eta bere semeak Jelboeko mendian eroriak.
9. Errege biluzirik, burua moztu eta harmak khendu zarozten; eramane zuten gero beren lurrera, inguruan erabiltzeko, eta jainkordeen tenploetan eta populuei erakhusteko.
10. Haren harmak berriz, beren jainkoaren tenploan kontsekratu zituzten, eta burua Dagonen tenploan itzatu zuten.
11. Jabes Galaadeko gizonek aditu zutenean hori, erran nahi da Filistindarrek Saulen gainean egin zituzten guziak,
12. Gizonik bihotzoiak guziak jaiki ziren, hartu zituzten Saulen eta haren semeen gorphutzak, ekharri zituzten Jabesera, Jabesen zen haritzaren azpian ehortzi zituzten hekien hezurak, eta zazpi egunez barur egin zuten.





13. Saul hil zen beraz bere tzarkerien gatik, hautsi zuelakotz eta ez begiratu Jaunak eman zaroen manamendua, bertzalde ere emazteki pithondun baten kontsultatzen izan zelakotz,

14. Eta Jauna baithan etzuelakotz iduki bere peskiza. Horren gatik Jaunak hilarazi zuen, eta haren erresuma eman zaroen Dabidi, Isairen semeari.

## XI. KAP.

1. Israel ouzia Dabiden gana Hebronera bildu zen beraz, zioelarik: Zure hezurak eta haragia gare.

2. Eta lehenago ere, Saul oraino errege zelarik, zu zinen Israel ilkhiarazten eta bihurrarazten zinduen; ezik zuri erran zarotzun zure Jainko Jaunak: Zuk alhatuko duzu Israelgo ene populua, eta zu izanen zare haren gainean buruzagi.

3. Israelgo zaharrenak adinez ethorri ziren beraz guziak erregeren gana Hebronera, eta Dabidek hekiekin batasun egin zuen Jaunaren aitzinean; eta Israelen gainean erregetzat gantzutu zuten, Jaunak Samuelen arartekoz erran zuen hitzaren arabera.

4. Gero Dabid eta Israel guzia goan ziren Jerusalemara; hura da Jebus, non baitzauden Jebusearrak lekhuko egoiliarak.

5. Eta Jebusen zaudenek erran zaroten Dabidi: Ez haiz hemen sartuko. Bada, Dabidek hartu zuen Siongo gaztelua, zeina baita Dabiden hiria.

6. Eta erran zuen: Jebusearra lehenik joko duena izanen da aitzindari eta buruzagi. Joab Sarbiaren semea igan zen beraz lehen-lehena eta aitzindari egina izan zen.

7. Bada, Dabidek gazteluan egin zuen bere egoitza, eta hargatik da deithua Dabiden hiria.

8. Eta hiri bat egin zuen inguruan Melotik itzuli guzia egin arteo. Joabek berriz, hiriaren gainerakoa altxatu zuen.

9. Eta Dabid zihoan aitzinatuz eta berhatuz, eta harekin zen armadetako Jauna.

10. Haukiek dira Dabiden gizon guziz hazkarretan lehenbizikoak, Israel guziaren gainean erregetzen lagundu zutenak, Jaunak Israeli erran izan zaroen hitzaren arabera.

11. Haukiek ziren Dabiden hazkarrak: Jefbaam, Hakamoniren semea, hogoi eta hamarren aitzindaria; hura zen aldi batez bere lantza altxatu zuena hirur ehun gizonen gainera eta guziak sakhitu zituena.

12. Haren ondotik Eleazar Ahoharra, haren osabaren semea, hirur garaieen artean zena.

13. Hura gerthatu zen Dabidekin Pesdomimen Filistindarrak harat bildu zirenean gudura; eta toki hartako bazterraldea garagarrez bethea zen, eta populuak ihes egin zuen Filistindarren aitzinean.

14. Hirur garaiak gelditu ziren bazterraren erdian, eta zaindu zuten; eta Filistindarrak jo zituztenean, Jaunak garhaizia handia eman zaroen bere populuari.

15. Berriz, hogoi eta hamarretarik hirurak jautsi ziren harkadi batera, zinetan baitzen Dabid Odolamgo zilhoko ondoan, Filistindarrak Erraphaimgo haranean kanpatu zirenean.

16. Bada, Dabid gazteluan zen, eta Filistindarren guardia Bethlehemen zen.

17. Eta Dabid egarriz zagoen eta erran zuen: Ai! norbaitek eman balezat Bethlehemo atean den urtegiko uretik!

18. Hirur horiek beraz goan ziren Filistindarren kanpen erditik, ura hartu zuten Bethlehemo atean den urtegitik eta Dabidi ekharri zaroten edatera. Dabidek etzuen nahi izan, bainan nahiago izan zaroen Jaunari ixuri,

19. Zioelarik: Urrun ni ganik holakorik egin dezadan ene Jainkoaren aitzinean, eta edan dezadan gizon haukien odola! ezik beren bizien galtzeko zorian ekharri darotate ur hori. Aria hortaz etzuen nahi izan edan. Horra zer egin zuten hirur garaiek.

20. Abisai, Joaben anaia, zen hiruretarik lehena; harek bere lantza hirur ehunen kontra altxaturik sakhitu zituen, eta zen hiruren artean aiphu handitan,

21. Eta deithatu hirur bigarrenen artean, eta hekien aitzindaria; halarik-ere etzen heldu hirur; garaietara.

22. Banaias Kabseelgoak, Joiadaren semeak, (Joiada baitzen gizon guziz hazkarra, asko egintza eder egina), hil zituen Moabeko bi Arielak; hura jautsi zen elhurte batez urtegi baten erdira eta han hil zuen lehoin bat.

23. Harek berak hil zuen egiptoar gizon bat, bortz beso luze zena, eta zeinak baitzuen lantza bat ehaileen zeihermena iduri. Zigor batekin jautsi zen haren gana, khendu zaroen eskuko lantza, eta bere lantzaz bil izan zuen.

24. Hori egin zuen Banaiasek Joiadaren semeak zeina aiphu handitan baitzen hirur hazkarren artean,



25. Eta lehenbizikoa hogoi eta hamarren artean. Halarik-ere etzen hirur garaietara heldu izan; bainan Dabidek hartu zuen bere beharriko.
26. Armadan berriz, gizon bihotzoiak ziren Asael Joaben anaia, eta haren aitaldeko osaba, Elkanan Bethlehemgoa;
27. Samoth Aroritarra eta Heles Phalonitarra;
28. Ira Thekuarra, Akzesen semea, eta Abiezer Anathotharra;
29. Sobokai Husathitarra, Ilai Ahoharra,
30. Maharai Netophatharra, Heled Baanaren semea Netophatharra,
31. Ethai Erribairen semea Gabaatharra, Benjaminen semeetarikoa, Banaia Pharathontarra,
32. Hurai Gaasko erreka, Abiel Arbatharra, Azmoth Bauramitarra, Eliaba Salabonitarra;
33. Asem Jezonarraren semeak, Jonathan Araritarra Saieren semeaz,
34. Ahiam Araritarra Sakarren semea,
35. Eliphai Urren semea,
36. Hephher Mekeratharra, Ahia Phe-lonitarra,
37. Hefro Karmeltarra, Naarai Asbaireren semea,
38. Joel Nathanen anaia, Mibahar Agaraireren semea,
39. Seleke Amonitarra, Naharai Berotharra, Sarbiaren seme Joaben ezkutaria;
40. Ira Jethritarra, Gareb Jethritarra,
41. Urias Hethearra, Zabad Oholiren semea,
42. Adina Errubentarra Sizaren semea, Errubentarren buruzagia, eta hogoi eta hamar harekin;
43. Hanan Maakaren semea, Josafat Mathanitarra,
44. Ozia Astarotharra, Sama eta Jehiel Aroritarra, Hothamen semeak;
45. Jedihel Samreren semea eta Joha haren anaia, Thosarrak;
46. Eliel Mahumitarra, Jeribai eta Josai Elnaemen semeak; Jethma Moabitarra, Eliel, Obed eta Josiel Masobiarrak.

## XII. KAP.

1. Haukiek ere Dabiden gana Sizelegera ethorri ziren, Saulen, Zisen semearen ihes zabilalarik oraino; eta ziren gerlari hazkarrenetarik eta hoberenetarik,
2. Arranbelan zakitenak, bi eskuez habalarekin harriak, eta arranbelarekin geziak arthikitzen zituztenak; Benjamintarrak ziren Saulen anaientarik.
3. Lehenbizikoa Ahiezer, eta Joas, Samaaren semeak, Gabaatharrak; Jeziel eta Phalet Azmothen semeak, Baraka, eta Jehu Anathotharrak,

4. Samaia Gabaondarra, hogoi eta hamarren artean bihotzoiak, eta hogoi eta hamarren aitzindaria; Jeremias, Johanan eta Jezabad Gaderotharrak;

5. Eluzai, Jerimuth, Baalia, Samaria eta Saphatia Haruphitarrak;
6. Elkana, Jesia, Azareel, Joezer eta Jesbaam Karehimarrak;
7. Joela ere eta Zabadia, Jedorreko Jerohameri semeak.
8. Gaditik halaber iragan ziren Dabiden gana, mortuan gordeka zabilanean, gizon batzu guziz hazkarrak eta gerlari guziz onak, erredola eta lantza erabiltzen zituztenak; hekien begithartek iduri zuen lehoiaren begithartea, eta zalhuak ziren mendietan orkhatzak bezala.
9. Lehena zen Ezer, bigarrena Obdias, hirugarrena Eliab,
10. Laugarrena Masmana, bortzgarrena Jeremias,
11. Seigarrena Ethi, zazpigarrena Eliel,
12. Zortzigarrena Johanan, bederatzigarrena Elzebad,
13. Hamargarrena Jeremias, hamekargarrena Makhanai.
14. Horiek Gaden semeetarik ziren; aitzindari ziren armadan; ttipienak ehun soldado manatzen zituen eta handienak mila.
15. Horiek dira Jordanea, lehenbiziko hilabethean, iragan zutenak, bazterretara gaindi egiten ohi duen mugan; eta ihes igorri zituzten haranetan egoten zirenak iguzki-haizeko eta mendebaleko aurkhintzetan.
16. Benjamindik ere eta Judatik ere baziren ethorri zirenak Dabid egoten zen gatzelura.

17. Dabid atheratu zen hekien bidera, eta erran zaroeten: Baketiarki heldu bazarete ene gana, ene laguntzea gatik, ene bihotza zuei iratxiki bedi; bainan ene etseiek igorririk, niri zelata hedatzera heldu bazarete, tzarkeriarik ene eskuetan ez delarik, gure arbasoen Jainkoak ikhus eta erabaki beza.

18. Izpirituek ordean bethe zuen Amasai, hogoi eta hamarren artean buruzagi zena, eta erran zuen: Zureak gare, oi Dabid! zurekilako gare, Isairen semea! bake, bake zuri, eta bake zure laguntzaileei! ezen zure Jainkoak laguntzen zaitu. Dabidek bere ganat hartu zituen beraz eta aitzindari ezarri zituen bere andanetan.

19. Manasetik berriz, Dabiden gana iragan ziren batzu, Filistindarrekin Saulen kontra heldu zelarik gudukatzerara. Etzen ordean hekien baltsan gudukatu; zeren Filistindarren aitzindariak, elkharren artean egonik, gibelerat igorri baitzuten, ziotelarik: Gure buruen galtzeko zorian itzuliko da bere nausi Saul gana.



20. Sizelegera itzuli zenean beraz, Manasetik haren gana iragan ziren Ednas, Jozabad, Jedihel, Mikael, Ednas, Jozabad, Eliu eta Salathi, mila gizonen aitzindari zirenak Manasen.

21. Haukiek laguntza Dabidi eman zaroten ohoinen kontra, ezik oro gizon biphilenetarik ziren, eta armadan aitzindari eginak izan ziren.

22. Bertzalde, egun oroz baziren Dabiden gana heldu zirenak haren laguntzera, jar zedin arteo aralde handi bat, Jainkoaren armada iduri.

23. Hau da Dabiden gana, Hebronon zelarik, ethorri ziren armadako aitzindarien araldea, Saulen erresuma haren eskuetara erakartzeko, Jaunaren hitzaren arabera:

24. Judaren semeetarik, sei mila eta zortzi ehun gizon, erredola eta lantza zakhartenak, gudurako hautak;

25. Simeonen semeetarik, zazpi mila eta ehun gizon gudukatzeko hazkarrenetarik;

26. Lebiren semeetarik, lau mila eta sei ehun;

27. Joiada ere, Aaronen odolekoen buruzagia, eta harekin hirur mila eta zazpi ehun gizon;

28. Halaber Sadok, berenez bihotz handiko gizon-gaztea, eta haren aitaren etxea, hogoi eta bi aitzindari;

29. Benjaminen semeetarik berriz, Saulen anaietarik, hirur mila; ezik hekietarik gehienak Saulen etxeari jarraikitzen ziren oraino;

30. Efraimen semeetarik berriz, hogoi mila eta zortzi ehun, indar handieneko gizonak, haren leinutarretan aiphatuak.

31. Manaseren leinu erditik hemezortzi mila, zein bere izenekoekin ethorri ziren Dabid errege ezartzera;

32. Isakarren semeetarik ere gizon argituak, denborak ezagutzen zituztenak Israeli zer egin behar zuen manatzeko, berrehun aitzindari; gainerako hekien leinu guzia berriz, hekien erranari jarraikitzen zen.

33. Zabalondik berriz, gudura ilkhitzen zirenak eta guduko harmez jauntzirik lerrotan jartzen zirenak, berrogoi eta hamar mila laguntzera ethorri ziren, ez maltzurkeriako bihotzarekin;

34. Nefthalitik berriz, mila aitzindari, eta hekiekin hogoi eta hamazazpi mila gizon erredola eta lantzarekilakoak;

35. Danetik ere, hogoi eta zortzi mila eta sei ehun gizon, gudurako xuxenduak;

36. Eta Aserdik, berrogoi mila gudurat ilkhitzen eta lerroetarik axutka haritzen zirenak;

37. Jordanez handitik berriz, Errubenen eta Gaden semeetarik, eta Manaseren leinu erditik, seietan hogoi mila, gerlako harmak soinean.

38. Gizon gerlari horiek oro, gudurat abian Dabiden gana bihotz garbiekin ethorri ziren Hebronera, Dabid errege ezartzekotzat Israel guziaren gainean; ordean bertze Israeldar guziek ere gogo bat zuten Dabid egin zedintzat errege.

39. Eta hirur egunez egotu ziren han Dabid baithan, jaten eta edaten zutelarik; ezen beren anaiek behar zirenak xuxendu zarozkiten.

40. Eta hurbilekoek eta urrunagokoek ere Isakarreraino, Zabuloneraino eta Nekhaliraino, astotan, kamelutan, mandotan, iditan, ogiak ekhartzen zituzten jateko; irin, piko, mahats merlatu, arno, olio, idi, ahari, orotarik nasaizia handia ekhartzen zuten; ezik bozkalentzia zen Israelen.

### XIII. KAP.

1. Bada, Dabidek batzarre egin zuen milatariekin, ehuntariekin eta aitzindari guziekin;

2. Eta erran zaroen Israelgo baldarna guziari: Nik erraten darotzuedana zuen gogarako balin bada, eta gure Jainko Jauna ganik heldu balin bada, Israelgo bazter guziatara igor diozoguten gure bertze anaiei, aphez eta lebitar hirietako hiripeetan egoten direnei, bil ditezen gure gana,

3. Gure Jainkoaren arkha gutara erakhar dezaguntzat; ezik hura bilhatu gabe utzi izan dugu Saulen egunetan.

4. Eta oste guziak ihardetsi zuen hala egin zedin, ezik solasa populu guziaren gogarako izan zen.

5. Dabidek Israel guzia bildu zuen beraz, Egiptoko Siharretik Ematheko sartzerraino, Jainkoaren arkha Kariathiarimdik erakartzeko.

6. Eta Dabid eta Israelgo gizonak oro igan ziren Kariathiarirngo munhora, zeina Judan baita, handik ekhartzeko Kerubinen gainean jarria den Jainko Jaunaren arkha, zeintan deitzen baita haren izena.

7. Jainkoaren arkha orga berri batean ezarri zuten Abinadaben etxetik ekhartzeko. Berriz, Ozak eta haren anaiak eragiten zaroten orgari.

8. Bada, Dabid eta Israel guzia beren ahal guziaz hari ziren bozkariozko kantiketari, gitarrak, maniurrak, atabalak, zinbalak eta turutak joz.

9. Bainen Kidonen larrainera heldu izan zirenean, Ozak eskua hedatu zuen arkharen atxikitzeke; ezik idi batek, zalapartaka hasirik, aphur bat makhurrarazi zuen.

10. Hargatik Jauna hasarretu zen Ozaren kontra eta jo zuen, ukitu zuelakotz arkha; eta Oza han berean hil zen Jaunaren aitzinean.

11. Dabid atsekabetan gelditu zen, Jaunak Oza hil zuelakotz; eta toki hura deithu zuen oraidinokoan bezala Ozaren hil-lekhu.



12. Orduan Jainkoaren beldurrak hartu zuen, eta erran zuen: Nola sarraraz dezaket ene etxean Jaunaren arkha?

13. Aria hortaz etzuen eraman bere egon-lekhura, erran nahi da Dabiden hirira, bainan aldaratu zuen Obededom Jetharraren etxera.

14. Jainkoaren arkha hirur hilabetez egotu zen beraz Obededomen etxean, eta Jaunak benedikatu zituen haren etxea eta haren izate guziak.

#### XIV. KAP.

1. Hiramek Tirreko erregek bidalkinak igorri zarozkien Dabidi, eta zedro zurak, eta harrasi eta zur lantzaileak etxe baten egiteko.

2. Dabidek ezagutu zuen Jaunak erregetzat onhetsi zuela Israelen gainean, eta haren erregetasuna altxatua zela haren Israelgo populuaren gainean.

3. Dabidek halaber Jerusalem hartu zituen bertze emazte batzu, eta izan zituen semeak eta alabak.

4. Haukiek dira Jerusalem sorthu zitzaizkon haurren izenak: Samua, Sobab, Nathan, Salomon,

5. Jebahar, Elisua, Eliphalet,

6. Noga, Napheg, Japhia,

7. Elisama, Baaliada eta Eliphalet.

8. Bada, Filistindarrek aditurik Dabid Israel guziaren gainean errege gantzutua izan zela, igan ziren guziak haren bilhatzeko. Dabidek aditu zuenean hori, atheratu zitzaioeten bidera.

9. Bada, Filistindarrak heldu zirelarik, Erraphaimgo haranean barraiatu ziren.

10. Eta Dabidek Jauna kontsultatu zuen, erranez: Iganen othe naiz Filistindarretara, eta ene eskuetara arthikiko othe ditutzu? Eta Jaunak erran zaroen: Igan zaite, eta eskuetaratuko darozkitzu.

11. Eta Baalpharasimera igan zirenean, Dabidek han jo zituen, eta erran zuen: Jainkoak ene etsaiak ene eskuz barraiatu ditu, urak barraiatzen diren bezala. Eta aria hortaz lekhu hura deithua izan zen Baalpharasim.

12. Filistindarrek han utzi zituzten beren jainkoak, eta Dabidek manatu zuen erreak izan zitezen.

13. Bertze aldi batez orobat Filistindarrak sarthu eta haranean barraiatu ziren.

14. Eta Dabidek berriz ere kontsultatu zuen Jainkoa, eta Jainkoak erran zaroen: Ez hekien ondolik igan; gibelerat egizu hekien ganik, eta udareen parretik goanen zare hekien kontra.

15. Udareen gainean dabilanaren harrabotsa adituko duzunean, orduan ilkhiko zare gudura. Jainkoa ezik zure aitzinean atheratua da, Filistindarren kanpen jotzeko.

16. Dabidek egin zuen beraz Jainkoak manatu zaroen bezala, eta Filistindarren kanpak jo zituen Gabaondik Gazeraraino.

17. Eta Dabiden izena barraiatu zen lekhu guzietara, aita Jaunak haren beldurra eman zaroeten jendaia guziei.

#### XV. KAP.

1. Erregek halaber beretzat egin zituen etxeak Dabiden hirian; Jainkoaren arkhari xuxendu zaroen lekhu bat, eta olha bat hedatu zuen harentzat.

2. Dabidek erran zuen orduan: Jainkoaren arkha erabiltzea etzaio zil-hegi nihori, baizik-ere lebitarrei, zeinak Jaunak hautatu baititu haren erabiltzeko eta bere zerbitzatzeko bethi guziraino.

3. Israel guzia Jerusalemara bilarazi zuen Jainkoaren arkha erakhartzekotzat xuxendu zaroen bere tokira.

4. Ethorrazazi zituen halaber Aaronen semeek eta lebitarrak.

5. Kaathen semeetarik, Uriel zen buruzagi; haren anaiak baziren sei hogoi;

6. Merariren semeetarik, Asaia buruzagi, haren anaiak hameketan hogoi;

7. Jersonen semeetarik, Joel buruzagi, haren anaiak seietan hogoi eta hamar;

8. Elisaphanen semeetarik, Semeias buruzagi, haren anaiak berrehun;

9. Hebronon semeetarik, Eliel buruzagi, haren anaiak laur hogoi

10. Ozielen semeetarik, Aminadab buruzagi, haren anaiak ehun eta hamabi.

11. Dabidek deithu zituen Sadok aita Abiathar aphezak eta Uriel, Asaia, Joel, Semeias, Eliel eta Aminadab lebitarrak,

12. Eta erran zaroeten: Zuek, lebitar-familien buruzagiak zaretenak, xahu zaitezte zuen anaiekin, eta Israelgo Jainko Jaunaren arkha ekhar zazu, harentzat aphaindua den lekhu

13. Beldurrez-eta, nola Jaunak lehenbiziko aldian jo baigintuen han etzineztelakotz, hala oraikoan ere jo gaitzan, haizu ez den zerbait eginez.

14. Sainduetsi ziren beraz aphezak eta lebitarrak, Israelgo Jainko Jaunaren arkharan ekhartzeko.



15. Eta Lebiren semeek arkha hagetan soin gainera hartu zuten, Moisek, Jaunaren hitzaren arabera manatu bezala.

16. Eta Dabidek lebitarren buruzagiei erran zaroeten, beren anaietarik ezar zetzaten kantatzeko musikako tresnekin, erran nahi da nabla, lira eta zinbalekin, zeruetaraino helarazteko zat bozkalenzietako harrabotsak.

17. Ezarri zituzten beraz lebitarrak: Heman Joelen semea; eta haren anaietarik, Asaph, Barakiasen semea; Merariren seme hekien anaietarik berriz, Ethan Kasaiaren semea,

18. Eta hekien anaiak hekiekin; eta bigarren lerroan, Zakarias, Ben, Jaziel, Semiramothe, Jahiel, Ani, Eliab, Banaias, Maasias, Mathathias, Eliphalu, Mazenias, Obededom eta Jehiel, athalzainak.

19. Bada, Heman, Asaph eta Ethan kantariet kobrezko zinbalak jotzen zituzten.

20. Zakariasek berriz, Ozielek, Semiramothe, Jehielek, Anik, Eliabek, Maasiasek eta Banaiasek nablen gainean kantatzen zituzten mistioak.

21. Mathathiasek berriz, Eliphaluk, Mazeniasek, Obededomek, Jehielek eta Ozaziuk zortzi zurdetako gitarrekin kantatzen zituzten trionphazko kantuak.

22. Konenias berriz, lebitarren aitzindaria, kantarien buruko zen, kantuen abiatzeko; ezik hainitz jakina zen.

23. Barakias eta Elkana ziren arkhako athalzain.

24. Sebeniasek berriz, Josafatek, Nathanaelek, Amasrik, Zakariasek, Banaiasek eta Eliezer aphezak turutak jotzen zituzten Jainkoaren arkha aitzinean; eta Obededom eta Jehias ziren arkhako athalzain.

25. Beraz Dabid, Israelgo zaharrak eta armadako aitzindariak bozkariotan goan ziren Jaunaren batasuneko arkha eramateko Obededomen etxetik,

26. Eta nola Jainkoak lagundu baitzituen Jaunaren arkha zakharten lebitarrak, imolatu zituzten zazpi zezen eta zazpi ahari.

27. Bada, Dabidek, arkha zaramaten lebitar guziek, kantariet eta Konenias kantarien nausiak jauntziak zituzten liho hautazko soinak; Dabidek bazuen hala-ber lihozko ephodo bat.

28. Eta Israel guziak bozkariotan zaraman Jaunaren batasuneko arkha, adarrak, turutak, zinbalak, nablak eta gitarrek joz.

29. Eta Jaunaren arkha Dabiden hirira zenean, Mikolek Saulen alabak, leihotik begira zagoelarik, ikhusi zuen Dabid erregea arkha aitzinean dantzatzen eta bozkarioz heldu zela, eta bere baithan nardatu zitzaioen.

## XVI. KAP.

1. Ekharri zuten beraz Jainkoaren arkha, eta Dabidek hedatu zioen oiharen erdian ezarri zuten, eta Jainkoaren aitzinean imolatu zituzten holokaustak eta bakezko bitimak.

2. Dabidek akhabatu zuenean holokausten eta bakezko bitimen eskaintzea, Jaunaren izenean benedikatu zuen populua.

3. Guziei aldiska, gizonetik emastekira eman zaroezten ogi-ophil bana, idiki erre zathi bat eta irin olioan frigitua.

4. Lebitarrak ezarri zituen Jaunaren arkha aitzinean zerbitzatzeko, Israelgo Jainko Jaunaren egintzez eskerren bihurtzeko, haren ospatzeko eta haren laudorioen kantatzeko.

5. Asaph zen buruzagi eta Zakarias haren ondoko; gero berriz Jahiel, Semiramothe, Jehiel, Mathathias, Eliab, Banaias eta Obededom; Jehiel maniurren eta liren jotzeko; Asaph berriz zinbalen jotzeko;

6. Banaias eta Jaziel aphezak berriz, Jaunaren batasuneko arkha aitzinean baratu gabe turuta jotzeko.

7. Egun hartan, Dabidek ezarri zituen Asaph buruzagi eta haren anaiak Jaunaren ospatzeko.

8. Ospa zazue Jauna eta dei egiozueharen izenari; ezagutaraz zatzue populueta haren eginkariak.

9. Egizkiotzue kantuak eta maniurra-soinuak; ezagutaraz zatzue haren sendagaila guziak.

10. Gorets zazue haren izen saindua; bozkariotan jar bedi Jauna bilhatzen dutenen bihotza.

11. Bilha zatzue Jauna eta haren indarra; bilha zazue bethi haren begithartea.

12. Orhoit bekizkitzue haren sendagailak, haren ezagutkariak eta haren ahoko erabakiak,

13. Haren zerbitzari Israelen ondoreak, Jakob haren hautetsiaren umeak.

14. Hura da gure Jainko Jauna; haren erabakiak lur guziaren gainera hedatzen dira.

15. Orhoit zaitezte bethi guzian harekilako batasunaz eta harek ondokoen ondokoei bethikotzat eman hitzaz,

16. Abrahamekin hartu izan duenaz, eta Isaakekilako haren zinaz.

17. Eta hura legetan eman dio Jakobi, eta bethiereko patutan Israeli,

18. Ziolarik: Emanen darotzut Kanaango lurra; hura izanen da zure primantza.

19. Noiz-ere guti, ttipi eta atze baitziren hartan.



20. Eta jendakitik jendakira eta erre-suma batetarik bertze populu batera ibili ziren;
21. Eta nihor etzuen utzi hekiei bidegabe ekhartzera, bainan hekien ariaz erregeak larderiatu zituen.
22. Begira zaitezte ene kristorik ukitzetik, begira ene profetei zimarkhurik egitetik.
23. Jaunari kantikak diotzotzue kanta, lurreko gizon guziek; egunetik egunera ezagutaraz zazue haren ganik ethorri zaikun itzurtzeko zoria.
24. Jendaki orotan ezagutaraz zazue haren ospea, populu guzietan haren sendagailak;
25. Zeren handi baita Jauna, guziz goihesgarri, eta jainko guzien gainetik ikharagarri;
26. Ezik jendaki guzien jainkoak molde batzu dira, bainan Jaunak egin ditu zeruak.
27. Aitor eta gorespina dira haren aitzinean, indar eta bozkarioa hura den lekhuana.
28. Populuzko familiak, Jaunari agur ekhar diozozue; Jaunari ekhar diozozue bere ospearen eta indarraren aithorra.
29. Jaunari bihur diozozue haren izenari zor zaroen ospea; har zatzue bitimak, zatozte haren aitzinera, gur zakiozkite Jaunari bere edertasun sainduan.
30. Lurra oro ikhara bedi haren aitzinean; ezik harek asentuen gainean jarri du gogor.
31. Goihera beitez zeruak, bozkarioz jauz bedi lurra; populu guzietan erran bedi: Jauna da erregetu.
32. Itsasoak eta haren barnekoek adiaraz betzate bozkariozko burrunbak; bazterrak eta hekietan direnak atseginez iharros beitez.
33. Oihanetako zuhaitzek orduan goretziko dute Jauna, zeren lurraren juiatzera den ethorri.
34. Aithor bihur diozozue Jaunari, zeren ona baita, zeren bethi irauten baitu haren urrikalpenak.
35. Eta errazue: Salba gaitzatu, Jainko gure salbatzailea; batera bil gaitzatu, athera gaitzatu jendaietarik, aithor ekhar diozogun zure izen sainduari, boz gaitezen zure kantuetan.
36. Benedika bekio Israelgo Jainko Jaunari bethitik bethiraino; eta populu guziak erran beza: Halabiz, eta Jaunari biotzo kanta aheriak.
37. Dabidek han utzi zituen beraz Jaunaren batasuneko arkahren aitzinean Asaph eta bere anaiak, baratzerik gabe beren eginbideak bethetzatentzat arkahren aitzinean, egun oroz, eta zeinek bere aldian.

38. Athalzain ezarri zituen, berriz, Obededom eta haren hirur hogoi eta zortzi anaiak, eta Obededom Idithunen semea, eta Hosa.
39. Aldiz, Sadok aphez-handia eta haren anaia aphezak ezarri zituen Gabaonen zen lekhu goran, Jaunaren tabernaklearen aitzinean,
40. Holokausten eskaintzeko holokaustetako aldarearen gainean, gelditu gabe goiz-arrats, Jaunak Israeli eman legean iskribatuak diren guzien arabera.
41. Haren ondotik ziren Heman, Idithun eta bertze hautetsiak, deituaak ziren aldietan Jaunari aithor emateko, kantatuz: Bethikoa baita Jaunaren urrikalpena.
42. Hemanek eta Idithunek halaber jotzen zituzten turuta, zinbalak eta bertze musikak Jaunaren kantuetan; Idithunen semeak berriz, ezarri zituen athalzain.
43. Gero populua itzuli zen bere etxeetara, eta Dabid bere etxearen benedikatzera.

## XVII. KAP.

1. Bada, Dabidek bere jauregian zuenean bere egoitza, Nathan profetari erran zaroen: Huna non nagoen ni zedrozko jauregian, eta Jaunaren batasuneko arkha berriz larru-olha batean.
2. Eta Nathaneke ihardetsi zaroen Dabidi: Bihotzean dituzten guziak egizkitzu, ezik zurekin da Jainkoa.
3. Bainan gau hartan Nathani atheratu zitzaioen Jaunaren hitza, zio-elarik:
4. Zoaz eta errozu Dabid ene zerbitzariari: Hau dio Jaunak: Ez darotazu zuk eginen etxerik ni hartan egoteko.
5. Ezik ez naiz etxetan egotu Israel eraiki dudana egunetik orai arteo, bainan lekhuaz aldatuz bethi, olhan egotu naiz ni,
6. Israel guziarekin egonez. Ene populua arhatzeaz manatu nituen juietarik bati ere mintzatu othe natzaio, erranez: Zertako ez darotazue zedrozko etxe bat altxatu?
7. Hargatik orai erranen diozu ene zerbitzari Dabidi: Hau dio armadetako Jaunak: Arthaldeari alhapideetara jarraitzen zinenean, nik hartu izan zaitut, Israelgo ene populua buruzagi izan zintezentzat.
8. Eta goan izan zaren toki guzietan ni zurekin izatu naiz; zure etsai guziak hil izan ditut zure aitzinean eta zure izena egin dut lurraren gainean goresten dituzten handietarik batenaren iduri.



9. Lekhu bat eman darot Israelgo ene populuari; hartan gogortuko eta egonen da; handik ezin jauzaraziko dute, eta gaixtakeriako semeek ez dute lehertuko hastetik bezala,

10. Israelgo ene populuari juieak eman diotzadan egunetarik; eta lurreratu ditut zure etsai guziak.

11. Eta zure egunak bethe ditazkeenean, eraikiren dut zure hazia zure ondotik; hura izanen da zure semeetarik, eta gogorturen dut haren erreinua.

12. Hura izanen da niri etxea altxatuko darotana, eta haren tronua bethiko gogorturen dut.

13. Hari aita bat bezala izanen natzaio, eta hura seme bat bezala izanen da enetzat; eta ez dut haren gainetik aldaratuko ene urrikalpena, aldaratu izan dudana bezala zure aitzinean izatu denaren gainetik,

14. Eta ene etxean eta ene erreinuan bethi guziko jarriren dut, eta haren tronua menderen mendetan gogor egonen da.

15. Nathan Dabidi mintzatu zitzaioen hitz horien ororen arabera, eta agerpen horren guziaren arabera.

16. Eta errege Dabid ethorri eta jarri zenean Jaunaren aitzinean, erran zuen: Nor naiz ni, Jainko Jauna, eta zer da ene etxea, horrelakorik niri egiteko?

17. Bainan hori guti zaiote oraino zure begiei, eta hargatik zure zerbitzariaren etxeaz mintzatu zare ethorkizuneko gauzetan ere, eta gizon guzien gainetik ikhugarri egin nauzu, Jainko Jauna.

18. Zer iritxik dezake gehiago Dabidek, horrela ospatu duzunetik zure zerbitzaria eta horrela orhoitu zarenetik hartaz?

19. Jauna, zure zerbitzariaren ariaz, zure bihotzaren arabera, egin duzu handiespen hau guzia, eta nahi izan duzu ezagutuak izan zitezen hanbat sendagaila.

20. Jauna, nihon ez da zure idurikorik, eta ez da zu baizen bertze Jainkorik, gure beharriek aiphatzen aditu dituzten guzietan.

21. Ezik zein da zure Israelgo populua bezalako bertze bat, lurrean jendaia bakharra, zeinari goan baitzaio Jainkoa libratzera, hartarik bere populua egiteko, eta bere indarraren handiaz eta izialdurez jendakiak iraitzeko, Egiptotik atheratu zuen populua aitzinetik?

22. Eta Israelgo zure populua zure populutzat ezarri duzu bethiko, eta zu, Jauna, jarri zare haren Jainko.

23. Orai beraz, Jauna, zure zerbitzariari eta haren etxearen gainean erran izan duzun hitza, bethiko gogor bedi, eta egizu mintzatu zaren bezala.

24. Iraun beza zure izenak eta goretsia izan bedi menderen mendetan; eta errana izan bedi: Armadetako Jauna da Israelgo Jainkoa, eta haren zerbitzari Dabiden etxea bethiko iraupenetan dago haren aitzinean.

25. Ezik zuk, ene Jainko Jauna, jakintsun egin duzu zure zerbitzariaren beharria, altxaturen zindueta haren etxea; eta hori gatik atzeman du zure zerbitzariak zuri othoitz egiteko gogoa.

26. Orai beraz, Jauna, zu zare Jainko; zuk agindu darozkitzu zure zerbitzariari hanbateko onak.

27. Abiatu zare zure zerbitzariaren etxearen benedikatzan, bethi zure aitzinean izan dadien; ezik, Jauna, zuk benedikatu, bethi guziko izanen da benedikatua.

### XVIII. KAP.

1. Bada, horiez geroz, gerthatu zen Dabidek jo eta aphaldu zituela Filistindarrak, eta Jeth eta hari zatxikoten lekhuak khendu zituen Filistindarren eskuetarik,

2. Moabitarrak ere jo zituela eta berepeko ezarri, Dabidi zergak pagatuz.

3. Orduko egunetan, jo zuen halaber Adarezer Sobako errege, Hematheko aurkhintzetan, noiz ere goan baitzen bere erreinuaren heda-tzera Ufratako hibaieraino.

4. Dabidek hartu zarozkien beraz mila orga-laster, zazpi mila zaldizko eta hogoi mila oinezko; eta orga-lasterretako zaldi guziei ebaki zarozten zainak, lekhat ehun orga-lasterretakoei, zeinak beretzat begiratu baitzituen.

5. Damasko Sirierra berriz, Adarezerri Sobako erregeri laguntza ematera ethorri zen; bainan Dabidek jo zituen haren hogoi eta bi mila gizon.

6. Soldadoak ezarri zituen Damasén, Siria guziak ere zerbitza zezan eta zerga paga zezontzat. Eta Jaunak lagundu zuen ibili zituen urhats guzietan.

7. Dabidek hartu zituen halaber Adarezerren zerbitzarian urhezko gezi-untziak, eta ekharri zituen Jerusalemara.

8. Thebathetik eta Kunetik Adarezerren hirietarik hartu zuen asko kobre, zeinetaz Salomonek egin baitzituen kobrezko itsasoa, habeak eta kobrezko untziak.

9. Thouk, Hematheko erregek aditu zuenean hori, erran nahi da Dabidek jo zuela Adarezerren, Sobako erregeren armada guzia,



10. Errege Dabidi igorri zaroen Adoram bere semea bakearen galdegitera, eta hari erakustera bere bozkarioa, zeren jo eta garhaitu zuen Adazerer; ezik Thou Adazererren etsai zen.

11. Errege Dabidek Jaunari kontsekratu zarozkien urhezko, zilharrezko eta kobrezko untziak, jendaia guziet hartu zaroetzten urhe eta zilharrekin, hala Idumearrei, Moabitarrei eta Amontarrei, nola Filistindarrei eta Amalektarrei.

12. Abisaik berriz, Sarbiaren semeak, hemezortzi mila Idumear jo zituen Gaztegietakoa haranean.

13. Idumean zainak ezarri zituen, Idumea Dabiden azpiko egon zadientsat, eta Jaunak atheratu zuen Dabid ibili zituen urhats guzietan.

14. Dabid erreginatatu zen beraz Israel guziaren gainean, eta populua zuzenki juiatzen zuen bere erabakietan.

15. Joab Sarbiaren semea zen armadako buruzagi, eta Josafat Ahiluden semea agerizain.

16. Sadok berriz, Akitoben semea eta Ahimelek Abiatharren semea ziren aphez-handi, eta Susa iskribau.

17. Banaia aldiz, Joiadaren semea, zen Zeretharren eta Pheletharren aitzindari; bainan Dabiden semeek zuten lehenbiziko urhatsa erregeren aitzinean.

### XIX. KAP.

1. Bada, Naas Amontarren errege ethorri zen hiltzera, eta haren semea haren ondotik erreginatzera.

2. Eta Dabidek erran zuen: On izanen naiz Hanonen Naasen semearen alderat, ezen ongi egin izan darot haren aitak. Eta Dabidek bidalkinak igorri zarozkien gozagarri ematera haren aitaren heriotzearen gainean. Bidalkinak Amonen semeen lurrera heldu izan zirenean, Hanoni gozagarri ekhartzeko,

3. Amonen semeetako aitzindariak erran zaroten Hanoni: Uste dukezu beharbada Dabidek zure aitaren ohoretan igorri izan duela zuri gozagarri ematera, eta etzare ohartzen haren zerbitzariak zure lurraren ikhukatzera, begizatzaera eta ikhartzera ethorri direla.

4. Hanonek beraz Dabiden zerbitzariet ilea eta bizarra murriztu zarozkien, hekien soinekoak moztu zituen iphurdi-mazeletarik zangoetaraino, eta igorri zituen gibelerat.

5. Goan zirenean eta Dabidi gaztiatu zaroetenean hori, erregek igorri zuen hekien bidera (ezik laido handia jasan zuten), eta manatu zaro-

ten Jerikon geldi zitezen bizarra luza zakioten arteo, eta orduan ethor zitezen.

6. Bada, Amontarrak ikhustenez irain egin zarotela Dabidi, hala Hanonek nola gainerako populuak mila zilharrezko talendu igorri zituzten, Mesopotamiatik, Maakako Siriatik eta Sobatik beren gana erakhartzeko orga-lasterak eta zaldizkoak.

7. Erakharri zituzten hogoi eta hamabi mila orga-laster eta Maakako errege bere populuarekin. Haukiek ethorri zirenean kanpatu ziren Medabako parrean. Amontarrak ere beren hiriatarik bildurik, ethorri ziren gerlara.

8. Hori aditu zuenean Dabidek, igorri zituen Joab eta bere gizon hazkarren armada guzia.

9. Amontarrak atheraturik, lerrotan jarri ziren hiriko athearen ondolan, laguntza ematera ethorri ziren erregeak berriz, berez jarri ziren zelaian.

10. Joabek beraz ezagutuz aitzinetik eta gibeletik izan behar zuela gerla, hautatu zituen Israel guzitik gizonik hazkarrenak, eta Siriarren kontra egin zuen.

11. Gainerako populua berriz, bere anaia Abisairen eskuan ezarri zuen, eta haukiek goan ziren Amonen semeen kontra.

12. Eta Joabek erran zuen: Siriarrek garhaitzen banau, laguntza eginen darotazu; baldin berriz, Amonen semeak nausitzen bazaizkitzu, ni laguntzera ethorriko natzaitzu.

13. Egizu bihotzetik, egigun gizonki gure populuarentzat eta gure Jainkoaren hirientzat; Jaunak eginen du aldiz haren begietan ongi dena.

14. Joab eta harekin zen populua goan ziren beraz Siriarren kontra gudura, eta ihes igorri zituzten.

15. Bada, Amonen semeek ikhustenez Siriarrek ihesi, berak ere Joaben anaia Abisairen ihes eman ziren, eta sarthu ziren hirira. Eta Joab Jerusalemara itzuli zen.

16. Siriarrek ikhuserik Israelen aitzinean erori zela, bidalkinak igorri zituen, eta hibaiaz haindiko Siriarra erakharri zuen. Sophak, Adazererren armadako buruzagia zen bekien manatzaille.

17. Dabidi ekharri zaroetenean berri hori, bildu zuen Israel guzia, Jordanea iragan zuen, eta jauzi zen etsaien gainera, haren kontra gudukatzene zirenei parrean-par xuxendurik lerroak.

18. Bainan Siriarrek ihes egin zaroen Israeli: Dabidek hil zituen zazpi mila gizon orga-lasterretakoak, berrogoi mila oinezko eta Sophak armadako buruzagia.





19. Adarezerren zerbitzariak berriz, Israelez garhaituak zirela ikhuserik, Dabiden gana iragan ziren eta haren azpiko jarri; eta handik-harat Siriarrak etzaroeten gehiago Amontarrei laguntzarik eman nahikatu.

## XX. KAP.

1. Bada, gerthatu zen urthe-buruan, erregeak gerletara abiatzen ohi diren mukan, Joabek bildu zituela armada eta tropetako indarra; larrutu zuen Amonen semeen lurra, goan eta sethiatu zuen Erraba. Eta Dabid Jerusalemen zagoen, Joabek Erraba hartu eta herrautsi zuenean.

2. Dabidek berriz, Melkomi burutik khendu zaroen khoroa, eta hartan aurkhitu zituen urrezko talendu bat phisura eta harri guziz baliosak; hekietaz beretzat egin zuen diadema bat eta bertze asko buluzkin ere hiritik eraman zituen.

3. Hirian zen populua ilkhiazi zuen, eta hekien gainetik iraganarazi zituen lera eta orga burdinaztatuak, halai non xehakatuak eta lehertuak izanen baitziren. Dabidek orobat egin zaroeten Amontarren hiri guziei, eta Jerusalemara bihurtu zen bere populu guziarekin.

4. Gero Gazerren eгина izan zen Filistindarren kontra gerla bat, zeintan Sobokai Husathiarrak hil baitzuen Saphai Erraphaimen odoletikakoa, eta aphaltu zituen etsaiak.

5. Filistindarren kontra egin zen bertze gerla bat ere, zeintan Bethlehemgo Adeodadok Oihanaren semeak, hil baitzuen Jetheko Goliathen anaia, zeinaren lantzako zura baitzen ehaleen zeihermena iduri.

6. Gerthatu zen oraino Jethen bertze gerla bat, zeintan khausitu baitzen gizon bat ikharagarri handia, sei erhi zituena, erran nahi da orotara hogoi eta lau. Hura ere Errapharen odolekoa zen.

7. Ahapaldikatu zuen Israel, eta Dabiden anaia Samaaren semeak Jonathanek hil zuen. Horiek dira Jethen Errapharen semeak Dabiden eta haren zerbitzarien eskutik goan zirenak.

## XXI. KAP.

1. Bada, Satan altxatu zen Israelen kontra, eta lehiarazi zuen Dabid zenbat Israeldar zitakeen khondaraztera.

2. Eta Dabidek erran zaroeten Joabi eta populuko buruzagiei: Zoazte eta Israel Bersabeetik Daneraino khonda zazue, eta khondua ekhar darotzazue jakintsun egin nadientsat.

3. Joabek ihardetsi zuen: Jaunak zure populua orai denetik ehunetan berha beza; ene errege jauna, ez othe dira guziak zure zerbitzariak? zertako bilhatzen du ene jaunak Israeli bekhatutzat iratxikia izanen zaroena?

4. Bainan erregeren hitza garaiago izan zen; eta Joabek, ilkhirik, inguratu zuen Israel guzia eta bihurtu zen Jerusalemara.

5. Dabidi eman zaroen iragan zituen guzien nonbrea, eta Israelen nonbre guzia atzeman zen hemeka ehun mila gizon ezpatadunena; Judatik berriz, laur ehun eta hirur hogoi eta hamar mila gelari.

6. Joabek etzituen Lebi eta Benjamin khondatau, ezik gogo bortxara bethetzen zuen erregeren manua.

7. Bada, manatua izan zena Jainkoaren desgogarako izatu zen, eta jo zuen Israel.

8. Eta Dabidek Jaunari erran zaroen: Hori egitean bekhatu handia egin dut; aldara zazu othoi zure zerbitzariaren gaizkia, zoroki haritu naitzelakotz.

9. Eta Jauna Gadi Dabiden ikhusleari mintzatu zen erranez:

10. Zoaz, mintza zakizkio Dabidi, eta errozu: Hau dio Jaunak: Ematen darotzut hirur gauzetarik hauta, nahi duzuna hauta zazu, eta eginen darotzut.

11. Gad Dabiden gana ethorri zenean, erran zaroen: Hau dio Jaunak: Hauta zazu nahi duzuna:

12. Edo hirur urthez gosetea; edo zu hirur hilabetez zure etsaien ihes ibiltzea, hekien ezpatari ezin itzuriz; edo hirur egunez Jaunaren ezpata eta izurritea lurraren gainera erortzea, eta Jaunaren aingerua Israelgo eremu guzietan hilka haritzea. Ikhusazu beraz orai zer ihardetsiko diodan bidali nauenari.

13. Dabidek erran zaroen Gadi: Athekek hertsatzen naute alde orotarik; bainan hobe dut Jaunaren eskura erortzea ezenez gizonenetara, zeren handiak baitira haren urrikalpenak.

14. Jaunak izurritea igorri zaroen beraz Israeli, eta Israeldik erori ziren hirur hogoi eta hamar mila gizon.

15. Aingeru bat Jerusalemeko igorri zuen halaber haren jotzera, eta herioaz jotzen hari zelarik hiria, Jaunak ikhuserik, eta urrikaldu zen gaitzaren handiaz; eta aingeru joileari erran zaroen: Aski da, bara bedi zure eskua. Bada, Jaunaren aingerua Ornan Jebusearraren larraineko ondoan zen.

16. Eta Dabidek begiak altxaturik, ikhuserik, zuen Jaunaren aingerua xutik zeruaren eta lurraren artean, ezpata biluzia eskuan Jerusalemen kon-



tra itzulia; eta Dabid eta Israelgo zaharrak, zurdatzak soinean, lurrera ahuspez erori ziren.

17. Eta Dabidek erran zaroen Jainkoari: Ez othe naiz ni populuaren khondatzea manatu dudana? Ni naiz bekhatu egin dudana, nik egin dut gaizkia; zer merezitu du populu hunek? Ene Jainko Jauna, othoi zure eskua bihur bedi ene gainera eta ene aitaren etxearen gainera, bainan zure populua ez bedi izan joa.

18. Orduan Jaunaren aingeruak manatu zaroen Gadi Dabidi erran zezon igan zadien eta Jainko Jaunari aldare bat altxa zezon Ornan Jebusearraren larrainean.

19. Dabid igan zen beraz, Gadek Jaunaren izenean erran zaroen hitzaren arabera.

20. Ornanek eta haren lau semeek harekin begiratu eta ikhusi zute-nean Jaunaren aingerua, gorde ziren; ezik orduan ogi jotzen hari ziren larrainean.

21. Dabid Ornanen gana heldu zelarik beraz, Ornanek ikhusi zuen, larrainetik bidera goan zitzaioen, eta lurrean ahuspez adoratu zuen.

22. Eta Dabidek erran zaroen: Indazu zure larraineko lekhu hori, hor Jaunari altxa diozodan aldare bat eta gaitza populutik gibela dadien, eta dirutan har zazu larrainaren balioa.

23. Ornanek berriz, ihardetsi zaroen Dabidi: Har zazu, eta hortaz nahi duena egin beza ene errege jaunak; ene idiak ere holokaustarako ematen ditut, lerak egurretako eta ogia sakrifiziotzat; guziak gogo onez emanen ditut.

24. Errege Dabidek erran zaroen: Ez da horrela izanen, bainan horren balioaren dirua emanen darotzut; ezik ez dut bahar hori zuri khen-du, eta horreletan Jaunari holokausta urruak eskaini.

25. Dabidek Ornani eman ziozkan beraz lekhuarentzat sei ehun siklo phisu zuzenekoak,

26. Eta aldare bat altxatu zuen han. Eskaini zituen holokaustak eta bakezko bitimak, deithu zuen Jaunaren izena, eta Jaunak entzun zuen, sua zerutik jautsaraziz holokaustako aldarearen gainera.

27. Jaunak manatu zuen aingerua, eta hunek ezpata ezarri zuen magin-nan.

28. Berehala beraz Dabidek ikhusirik Jaunak entzun zuela Ornan Jebusearraren larrainean, bitimak han imolatu zituen.

29. Bada, Moisek mortuan egin izan zuen Jaunaren tabernaklea eta holokaustetako aldarea Gabaongo lekhu goran ziren orduan.

30. Dabid ezin goan zen aldareraino, han Jaunari othoitz egitera, ezen ikharak harritu zuen ikhustean Jaunaren aingeruaren ezpata.

## XXII. KAP.

1. Eta Dabidek erran zuen: Hau da Jaunaren etxea, eta hau da Israelen holokaustetako aldarea.

2. Manatu zuen bil zitezen Israelgo lurreko proselita guziak eta hekiatarik ezarri zituen harri atheratzen eta aphaintzen, Jaunaren etxearen egiteko.

3. Dabidek halaber burdina hainitz xuxentarazi zuen atheetako itzetzat, uztardura eta bilguneentzat, eta nihonereko kobreketa bat.

4. Sidondarrek eta Tiriarrak Dabidi ekhartzen ziotzaten zedro zuren balioa ere ezin jo zitakeen.

5. Eta Dabidek erran zuen: Ene seme Salomon haurttoa da eta erphila; Jaunari egin nahi diodan etxea berriz, halakoa izan behar da, non lekhu orotan aiphatuko baita; xuxenduren darozkiot beraz premia direnak. Hargatik hil baino lehen xuxendu zituen behar ziren guziak.

6. Eta deithu zuen Salomon eta manatu zaroen etxe bat egin zezon Israelgo Jainko Jaunari.

7. Dabidek erran zaroen Salomoni: Ene semea, ene nahia izan da ene Jainko Jaunaren izenari etxe baten altxatzea.

8. Bainan Jauna mintzatu izan zait zioelarik: Hainitz odol ixuri duzu, asko gerla erabili duzu; hanbat odol ene aitzinean ixuri ondoan, ezin eginen dukezu etxerik ene izenari.

9. Sorthuko zarotzun seme bat, izanen da osoki baketierra; ezik eginen dut bere etsai guziatarik inguruan bakea izan dezan; eta horren gatik deithua izanen da Baketierra; eta haren egun orotan, bakea eta phausua emanen ditut Israelen.

10. Harek ene izenari altxatuko dio etxea; hura izanen zait semetzat, eta ni izanen natzaio aitatzat; eta egun eta bethiko gogorturen dut haren erreinua Israelen gainean.

11. Orai beraz, ene semea, Jauna zurekin izan bedi, dohatsu egin bezaitza, eta zure Jainko Jaunari etxea egiozu, berak zutaz erran izan duen bezala.

12. Jaunak halaber eman biazatzu zuhurtzia eta adimendua, Israel mana eta zure Jainko Jaunaren legea begira detzatzuntzat.

13. Ezik, baldin begiratzen badituztu manamendu eta erabakiak, Israeli irakhastea Jaunak Moisi manatu dituenak, orduan goanen ahal zare aitzinatuz. Indar har zazu, gizonki egizu, ez bezedi ez izi, ez-eta ikhara.



14. Huna non nik ene behartasunean xuxendu ditudan Jaunaren etxearen egiteko premia direnak; ehun mila urhezko talendu, eta zilharrezkoak miletan mila; kobre eta burdinaketa bat nihonerekoa, ezik hanbategia da non ezin baititake zenbat den erran; zurak eta harriak xuxendu ditut behar izanen diren guzietako.

15. Halaber baduzu langileketa bat, hargin, harri-pikatzaile, zur-lantzaila, eta nolanhiko lanen antzetsuki egiten hobekien dakiten gizonak,

16. Urhez eta zilharrez, kobrez eta burdinaz, zeinetarik erran ahal baino gehiago baita. Jaiki zaite beraz, eta egizu, eta Jauna zurekin izanen da.

17. Dabidek halaber Israelgo aitzindari guziei manatu zaroeten lagun ziozoten Salomon bere semea.

18. Ikhusten duzue, zioen, zuen Jainko Jauna zuekin dela; phausua eman darotzuela inguruan; zuen etsai guziak zuen eskuetara arthiki dituela, eta lurra hezia dagoela Jaunaren eta haren popularen aitzinean.

19. Zuen bihotz arimez egizue beraz zuen Jainko Jaunaren bilhatzera. Jaiki zaizte, eta Jainko Jaunari altxa diozozue saindutegi bat, hartan sartzeko Jaunaren batasuneko arkha eta Jaunari kontsekraturikako tresnak, Jaunaren izenari eginen zaroen etxean.

### XXIII. KAP.

1. Dabid beraz zahartu eta egunez bethe zenean, Israelen gainean errege ezarri zuen Salomon bere semea.

2. Bilarazi zituen Israelgo aitzindari guziak, aphezak eta lebitarrak.

3. Lebitarrak khonduak izan ziren hogoi eta hamar urthetarik eta goiti, eta khausitu ziren hogoi eta hemezortzi mila gizon.

4. Hekietarik hogoi eta lau mila izan ziren hautatuak eta Jaunaren etxeko eginbideetara phartituak. Kargudun eta juie baziren berriz, sei mila.

5. Aldiz athalzainak ziren lau mila, eta bertze hainbertze kantari, Jauna kantatzen zutenak, Dabidek kantetarako egin izan zituen tresnen gainean.

6. Eta Dabidek ezarri zituen zein bere aldietan Lebiren semeen etxeen arabera, erran nahi da Jersonen etxea, Kaathena eta Merarirena.

7. Jersonen semeak: Leedan eta Semei.

8. Leedanen semeak: zaharrena Jahiel, Zethan eta Joel, hirur.

9. Semeiren semeak: Salomith, Hosiel eta Aran, hirur: horiek dira Leedanen familietako buruzagiak.

10. Semeiren semeak berriz: Leheth, Ziza, Jaus eta Baria: horiek dira Semeiren umeak, lau.

11. Bada, Leheth zen zaharrena, Ziza bigarrena. Jausek berriz, eta Baria etzituzten izan hainitz hanr; hargatik izan ziren khonduak familia eta etxe bakhar bateku.

12. Kaathen semeak: Amram, Isaar, Hebron eta Oziel, lau.

13. Amramen semeak: Aaron eta Moise. Aaron berezia izan zen, sainduren sainduan eginbideen bethetzeko bethi guzian, berak eta bere semeek, eta isentsua erretzeko Jaunari hari zihokioen moldean, eta haren izenean bethi eta bethi popularen benedikatzeko.

14. Jainkoaren gizon Moisen haurrak ere Lebiren leinuan izan ziren khonduak.

15. Moisen semeak: Jersom eta Eliezer.

16. Jersomen semeak: Subuel zaharrena.

17. Eliezerren semeak berriz: Errohobia zaharrena, eta Eliezerrek etzuen bertze semerik. Errohobiaren semeak berriz, hainitz berhatu ziren.

18. Isarren semeak: Salontith zaharrena.

19. Hebronon semeak: Jeriau zaharrena, Amarias bigarrena, Jahaziel hirugarrena, Jekmaam laugarrena.

20. Ozielen semeak: Mika zaharrena, Jesia bigarrena.

21. Merariren semeak: Moholi eta Musi. Moholiren semeak: Eleazar eta Zis.

22. Bada, Eleazar hil zen; etzuen semerik izan, bainan-bai alabak, eta beren anaiek, Zisen semeek hartu zituzten emaztetzat.

23. Ikusiren semeak: Moholi, Eder eta Jerimoth, hirur.

24. Horiek dira Lebiren semeak beren ahaidego eta familien arabera, buruzagiak, Jaunaren etxeko eginbideak aldizka bethetzen zituztenak, baxhotzak khonduak izan zen lerroan, hogoi urthetarik eta goiti.

25. Ezik Dabidek erran zuen: Israelgo Jainko Jaunak bere populuari bethikotzat eman diozki phausua eta bere egon-lekhua Jerusalem.

26. Lebitarrek ez dute gehiago tabernaklearen eta hango eginbideetako tresna guzian eramaterik izanen.

27. Dabiden azken manamenduen arabera, Lebiren semeak khondutuko dira hogoi urthetarik eta goiti.

28. Aaronen semeen manuko izanen dira Jaunaren etxeko eginbideetan, tenploko sartzeetan, salhetan, xahu-lekhuetan, saindutegian eta Jaunaren tenploko eginbideei darraitzoten lan guzietan.

29. Aldiz, aphezak izanen dute artha proposizoneko ogiez, irinezko sakrifizioaz, ophil airisez, paderaz, xigorketaz eta phisu neurri guziez.



30. Lebitarrak berriz, goizetan, eta arratsetan orobat, egon beharko dira Jaunari aithor ematen eta kantuen kantatzen,

31. Nahiz Jaunaren holokausten eskaintzetan, nahiz larunbatetan, hilabethearen lehen egunean eta bertze besta-buruetan, nonbre manatuaren eta gauza baxhotxari zor zaioen zeremonien arabera, bethi Jaunaren aitzinean.

32. Begiraturako dituzte batasuneko tabernaklearen gaineko manamenduak, saildutegiko legea eta Aaronen seme beren anaien alderako jauspena, Jaunaren etxean beren eginbideen bethetzeko.

#### XXIV. KAP.

1. Bada, huna nola bereziak izan ziren Aaronen semeak. Aaronen semeak: Nadab, Abiu, Eleazar eta Ithamar.

2. Bainan Nadab eta Abiu, haurrak gabe hil ziren beren aita baino lehen; eta Eleazarrek eta Ithamarrek bethe zituzten aphezetasuneko eginbideak.

3. Dabidek berezi zituen beraz zein bere aldi eta eginbideetarako Sadoken familia Eleazar ganik jautsia, eta Ahimeleken familia Ithamar ganik jautsia.

4. Bainan gizon buruzagietan hainitz gehiago khausitu zen Eleazarren seme ezenez Ithamarrenik. Hargatik Dabidek berezi zarozten buruzagiak Eleazarren semei hamasei familien araura; eta Ithamarrenei, beren zortzi familia eta etxeen araura.

5. Bi aldeetako familiak berriz, beren artean zortera berezi zituen: ezik saildutegiko aitzindariak eta Jainkoaren gauzetakoak ziren hala Eleazarren semeetarik, nola Ithamarrenetarik.

6. Nathanaelen semeak, Semeiasek, lebitar iskribauak, iskribuz eman zituen erregeren eta buruzagien aitzinean, Sadok aphezaren eta Abiatharren seme Ahimeleken aitzinean, eta aphez-familia eta lebitar-familietako buruzagien aitzinean ere; hartuz behin Eleazarren etxea bertzeen buruko zena, gero Ithamarren etxea, zeinak bertze batzu baitzituen bere azpiko.

7. Bada, lehenbiziko zortea atheratu zen Joaribena, bigarrena Jedeirena,

8. Hirugarrena Harimena, laugarrena Seorimena,

9. Bortzgarrena Melkiarena, seigarrena Maimanena,

10. Zazpigarrena Akosena, zortzigarrena Abiarena,

11. Bederatzigarrena Jesuarena, hamargarrena Sekeniarena,

12. Hamekagarrena Eliasibena, hamabigarrena Jazimena,

13. Hamahirugarrena Hopharena, hamalaugarrena Isbaabena,

14. Hamabortzgarrena Belgarena, hamaseigarrena Emerrena,

15. Hamazazpigarrena Hezirrena, hemezortzigarrena Aphsesena,

16. Hemeretzigarrena Pheteiarena, hegoigarrena Hezekielena;

17. Hogo eta batgarrena Jakimena, hogo eta bigarrena Gamulena,

18. Hogo eta hirugarrena Dalaiarena, hogo eta laugarrena Maaziaarena.

19. Horiek ziren hekien aldiak, beren egitekoen arabera, Jaunaren etxean sartzeko eta beren aita Aaronen manuen azpian, ohitzaren arabera egitekotzat Israelgo Jainko Jaunak manatu bezala.

20. Bada, Lebiren semeetarik gelditu zirenak ziren: Amramen semeetarik, Subael; eta Subaelen semeetarik, Jehedeia.

21. Errohobiaren semeetarik, Jesias zen buruzagi.

22. Isaarren seme zen Salemoth, Salemothena Jahath.

23. Jahathen seme zaharrena zen Jeriau, bigarrena Amarias, hirugarrena Jahaziel, laugarrena Jekmaan.

24. Ozielen seme zen Mika, Mikarena Samir.

25. Mikaren anaia zen Jefia, Jefiaren seme Zakarias.

26. Merariren semeak: Moholi eta Musi. Oziauren semea, Beno.

27. Merariren seme ziren halaber Oziau, Soam, Zakur eta Hebri.

28. Moholiren seme zen, berriz, Eleazar zeinak ez baitzuen haurrik.

29. Jerameel berriz, Zisen seme zen,

30. Musiren seme ziren Moholi, Eder eta Jerimoth. Horra Lebiren semeak beren familier etxean arabera.

31. Haukiek ere zorte egin zuten beren anaiekin, Aaronen semeekin errege Dabiden aitzinean, eta Sadoken, eta Ahimeleken, eta aphez eta lebitar-familietako buruzagien aitzinean. Ala zaharrenak ala gazteenak, oro bardin zortekak berezten zituen.

#### XXV. KAP.

1. Dabidek eta armadako aitzindariak berezi zituzten beraz Asaphen, Hemanen eta Idithunen semeak kantatzeko gitarren, maniurren, eta zinbalen gainean, beren lerroaren arabera bethez bereziak zituzten eginbideak.

2. Asaphen semeetarik: Zakur, Josep, Nathania, eta Asarela, Asaphen semeak, buruko zutela Asaph erregeren manuaren arabera kantatzen zuena.

3. Idithunen semeak berriz: Idithun, Godolias, Sori, Jeseias, Hasabia eta Mathathias, sei, buruko zutelarik beren aita Idithun, gitarra-



ren gainean kantatzen zuena, eta Jaunari aithor eta laudorio ematen zutenen buruzagia.

4. Hemanen semeak: Bokziau, Mathanim, Oziel, Subuel, Jerimoth, Hananias, Hanani, Eliatha, Jedelthi, Erromemthiezer, Jesbakafa, Melothi, Othir, Mahazioth.

5. Horien guzien aita zen Roman, erregeren ikhustea Jainkoaren solasetan, Jaunaren botherearen goresteke. Eta Jainkoak Hemani eman ziozkan hamalau seme eta hirur alaba.

6. Guziak, erran nahi da Asaphen, Idithunen eta Hemanen semeak ziren bereziak, zain bere aitaren azpian, erregeren manuaren arabera Jaunaren etxeko eginbideetan, Jaunaren tenploan kantatzeko zinbalen, maniurren eta gitarren gainean.

7. Bada, hekiek beren anaiekin, irakhaste guziak, Jaunaren kantikak irakhasten zituztenak, heltzen ziren berrehun eta laur hogoi eta zortzitara.

8. Eta zahar edo gazte, jakintsu edo jakingabe, orok bardinetik zortean arthiki zituzten beren aldiak.

9. Lehenbiziko zortea atheratu zitzaioen. Josepi zeina Asaphen aldeko baitzen; bigarrena Godoliasi eta haren hamabi seme eta anaiei;

10. Hirugarrena Zakurri eta haren hamabi seme eta anaiei;

11. Laugarrena Isariri eta haren hamabi seme eta anaiei;

12. Bortzgarrena Nathaniasi eta haren hamabi seme eta anaiei;

13. Seigarrena Bokziauri eta haren hamabi seme eta anaiei;

14. Zazpigarrena Isreelari eta haren hamabi seme eta anaiei;

15. Zortzigarrena Jesaiari eta haren hamabi seme eta anaiei;

16. Bederatzigarrena Mathaniasi eta haren hamabi seme eta anaiei;

17. Hamargarrena Semeiasi eta haren hamabi seme eta anaiei;

18. Hamekagarrena Azareeli eta haren hamabi seme eta anaiei;

19. Hamabigarrena Hasabiasi eta haren hamabi seme eta anaiei;

20. Hamahirugarrena Subaeli eta haren hamabi seme eta anaiei;

21. Hamalauugarrena Mathathias eta haren hamabi seme eta anaiei;

22. Hamabortzgarrena Jerimoxi eta haren hamabi seme eta anaiei;

23. Hamaseigarrena Hananiasi eta haren hamabi seme eta anaiei;

24. Hamazazpigarrena Jesbakasari eta haren hamabi seme eta anaiei;

25. Hemezortzigarrena Hananiri eta, haren hamabi seme eta anaiei;

26. Hemeretzigarrena Melothiri eta haren hamabi seme eta anaiei;

27. Hogoigarrena Eliathari eta haren hamabi seme eta anaiei;

28. Hogoi eta batgarrena Othirri eta haren hamabi seme eta anaiei;

29. Hogoi eta bigarrena Jedelthiri eta haren hamabi seme eta anaiei;

30. Hogoi eta hirugarrena Mahaziothi eta haren hamabi seme eta anaiei;

31. Hogoi eta laugarrena Erromemthiezerri eta haren hamabi seme eta anaiei.

## XXVI. KAP.

1. Aldiz, athalzainen berezgoak: Koretarretarik Meselemia, Koreren semea, Asaphen semeetarikakoa;

2. Meselemiaren semeak, Zakarias zaharrena, Jadhel bigarrena, Zabadias hirugarrena, Jathanael laugarrena,

3. Elam bortzgarrena, Johanan seigarrena, Elioenai zazpigarrena.

4. Obededomen semeak, Semeias zaharrena, Jozabad bigarrena, Joaha hirugarrena, Sakar laugarrena, Nathanael bortzgarrena,

5. Anuel seigarrena, Isakar zazpigarrena, Pholathi zortzigarrena; ezik Jaunak benedikatu zuen.

6. Haren seme Semeiri sorthu zitzaizkon semeak, familietako buruzagiak; ezik gizon guziz hazkarrak ziren.

7. Semeiasen seme ziren beraz Othni eta haren anaia gizon guziz hazkarrak, Erraphael, Obed, Elzabad, Eliu ere eta Samakias.

8. Horiek oro Obededomen semeetarik; berak, beren seme eta anaia, guziz hazkarrak lanen egiteko, hirur hogoi eta bia Obededomen ganikakoa.

9. Meselemiaren semeak berriz, eta anaia guziz hazkarrak, hemezortzi.

10. Aldiz, Hosa ganikakoa, erran nahi da Merariren semeetarik: Semri buruzagi (ezik etzuen izatu seme zaharrenik, eta hargatik bere aitak Semri ezarri zuen buruzagi),

11. Bigarrena Heizias, hirugarrena Tabelias, laugarrena Zakarias; Hosaren seme horiek eta anaia, orotara hamahirur.

12. Horiek izan ziren bereziak athalzain bezala; zainen aitzindariak, hala nola beren anaia, zerbitza zitezentzat bethi Jaunaren etxean.

13. Athe bakhotxekotzat beraz zortea bardin arthiki zaroeten nahiz handiei, nahiz ttipiei familiaka.

14. Zortea beraz Selemiasi eman zaroen iguzki-haizeko aldea. Ipharreko alderdia berriz, haren seme Zakarias, gizon guziz zuhur eta jakinari erori zitzaioen zortean.

15. Obededom eta bere semeak ziren aldiz hegoalderat, eta etxeko aurkhintza hartan zen biltzarra.



16. Sephim eta Hosa ziren mendebalerat, goiti goateko biderat daraman athearen ondoan. Eta guardia guardiaren parrean zen.

17. Iguzki-haizeko alderdian baziren sei lebitar; eta ipharrean lau, egun bakhotx; hegoaldean eta biltzarra zen aurkhintzan, baziren orobat lau birazka, egun bakhotx.

18. Mendebalerat ere athalzainen xoxetan bidearen gainean, baziren lau, birazka xoxetan.

19. Horiak ziren athalzainen berezpenak, Koreren eta Merariren semeenak.

20. Akias zen, berriz, Jainkoaren etxeko khutxen eta phuska sainduen zaintzeko.

21. Jersoniren seme Ledanen haurrak: Ledanen ganik heldu ziren familia-buru haukiek, Ledan, Jersoni eta Jehieli.

22. Jehieliren semeak: Zathan eta haren anaia Joel, Jaunaren etxeko khutxa-zainak,

23. Amramtarrekin, Isaartarrekin, Hebrondarrekin eta Oziheltarrekin.

24. Subaelek berriz, Jersomen semeak, Jersom Moisen seme baitzen, khutxen gainean zuen ikhustekoa.

25. Haren anaia Eliezerren seme zen Errahabia, Errahabiarena Isaias, Isaiasena Joram, Joramena Zekri, eta Zekrirena Selemith.

26. Selemithen berak eta bere anaiek zaindu behar zituzten sainduen phuskak, Dabid erregeak, familietako buruzagiek, milatariek, ehuntariak eta armadako buruzagiek sainduetsiak,

27. Gerletarik eta gduetako buluzkinetarik tenploaren eta hango tresnen egiteko kontsekratu zituztenak.

28. Gauza horien sainduesleak ziren Samuel ikhusea, Saul Zisen semea, Abner Nerren semea eta Joab Sarbiaren semea. Halakorik sainduesten zituzten guziek Selemithen eta haren anaien eskura zakharzten.

29. Isaartarrek zituzten buruzagi Konenias eta bere semeak, kanpo-lan Israeli begiratzeko zirenetako, populuaren argitzeko eta juiatzeko.

30. Bada, Hasabias Hebrondarra eta haren anaiak, hamazazpi ehun gizon guziz hazkarrak ziren Israelen buruko Jordanez haindian mendebaleko alderat, Jaunaren lanetan eta erregeren zerbitzuan.

31. Jeria izan zen Hebrondarren buruzagi hekien familien eta ahai-degoen arabera. Dabiden erregetasuneko berrogoigarren urthean khondatauak izan ziren eta khausitu ziren Jazer Galaadekoan gizon guziz hazkarrak,

32. Eta hekien anaia adin hobeenekoak bi mila eta zazpi ehun familia-buruzagi. Bada, Dabid erregeak Errubentarren, Gadarren eta Manaseren leinu erdiaren gaineko ezarri zituen Jainkoaren eta erregeren ikhusteko guzietan.

## XXVII. KAP.

1. Bada, Israelgo semeak nonbre-arauka, familia-buruzagiek, militariak, ehuntariak, kargudunak errege zerbitzatzeko zutenak andanaka, sartuz eta ilkhiz urthean zein bere hilabeteetan, hogoi eta lau mila ziren aldirian.

2. Lehenbiziko hilabeteetan, lehenbiziko andana manatzen zuen Jesboamek Zabdielen semeak, eta azpiko zituen hogoi eta lau mila gizon.

3. Pharesen iraulgitik zen, eta lehenbiziko hilabeteetan armadan aitzindari guzien buruzagi.

4. Dudia Ahoharrak zuen bigarren hilabeteiko andana, eta haren ondokoa deitzen zuen Mazeloth, zeinak manatzen baitzuen hogoi eta lau mila gizonetako armadaren zathi bat.

5. Hirugarren hilabeteetan, hirugarren andanaren buruzagi zen Banaias Joiada aphezaren semea; eta bere andanan bazituen hogoi eta lau mila gizon.

6. Hura zen hogoi eta hamarren arteko Banaias hazkarren hura, hogoi eta hamarren garaia. Amizabad haren semeak manatzen zuen haren andanari.

7. Laugarrena zen, laugarren hilabeteetan, Asahel Joaben anaia, eta ondoko zuen Zabadias bere semea. Haren andanan baziren hogoi eta lau mila gizon.

8. Bortzgarren buruzagia, bortzgarren hilabeteetan, zen Samaoth Jezertarra; eta haren andanan baziren hogoi eta lau mila gizon.

9. Seigarrena, seigarren hilabeteetan zen Hira Akzes Thekuarraren semea; eta haren andanan baziren hogoi eta lau mila gizon.

10. Zazpigarrena, zazpigarren hilabeteetan, zen Heles Phalonitarra Efraimgo semeetarikakoa; eta haren andanan baziren hogoi eta lau mila gizon.

11. Zortzigarrena, zortzigarren hilabeteetan, zen Sobokai Husathiarra, Zarahiren odolekoa, eta haren andanan baziren hogoi eta lau mila gizon.

12. Bederatzigarrena, bederatzigarren hilabeteetan, zen Abiezer Anathotharra, Jeminiren semeetarikakoa; eta haren andanan baziren hogoi eta lau mila gizon.



13. Hamargarrena, hamargarren hilabethean, zen Marai, Netophatharra berenez, eta Zarairen odolekoa, eta haren andanan baziren hogoi eta lau mila gizon.

14. Hamekagarrena, hamekagarren hilabethean, zen Banaia Pharathondarra, Efraimgo semeetarikakoa; eta haren andanan baziren hogoi eta lau mila gizon.

15. Hamabigarrena, hamabigarren hilabethean, zen Holdai Netophatharra, Gothonielen odoletikakoa, eta haren andanan baziren hogoi eta lau mila gizon.

16. Bada, Israelgo leinuen buruetan ziren: Errubentarretan, Eliezer buruzagia, Zekriren semea; Simeondarretan, Saphatias buruzagia, Maakaren semea;

17. Lebitarretan, Hasabias, Kamuelen semea; Aarondarretan, Sadok;

18. Judan, Eliu Dabiden anaia; Isakarren, Amri, Mikaelen semea;

19. Zabulondarretan, Jesmaias, Abdiasen semea; Nefthalitarretan, Jerimoth, Ozrielen semea;

20. Efraimgo semeetan, Osee, Ozaziuren semea; Manaseren leinu erdian, Joel, Phadaiairen semea;

21. Manaseren leinu erdi Galaadekoan, Jado, Zakariasen semea; Benjaminen berriz, Jasiel, Abnerren semea;

22. Aldiz Danen, Ezrihel, Jerohamen semea. Horiek ziren Israelgo semeen buruzagiak.

23. Bada, Dabidek etzuen nahi izan hogoi urthez azpikoak khondatzea, Jaunak erran zuelakotz Israel ostekaturen zuela zeruetako izarrak bezala.

24. Joab Sarbiaren semea hasi zen khondatzen, eta etzuen akhabatu, zeren gauza horren gainera Jaunaren hasarrea jauzi baitzen Israelen. Hargatik ez da khondatuek izan zirenen nonbrea ekharria Dabid erregearen egunetako egintzen liburuan.

25. Bada, erregeren khutxen artha Asmothek zuen Adielen semeak; bainan hirietan, herrietan eta dorreetan ziren khutxen gainean Oziasen semeak Jonathanek zuen ikhusteko.

26. Ezri Keluben semea zen, berriz, lur-lanetako eta lurra lantzen zuten laborarien gaineko;

27. Semeias Erromathiarra mahastizainen gaineko; Zabdias Aphoniarra arnotegien gaineko;

28. Balanan Gadertarra bazterretan ziren olibadien eta pikodien gaineko; Joas oliotegien gaineko.

29. Saronen alhatzen ziren arthaldeen gaineko ezarria izan zen Setrai Sarondarra, eta idien gainean haranetan Saphat Adliren semea;

30. Kameluen gaineko berriz, Ubil Ismaeldarra; astoen gaineko Jadies Meronatharra;

31. Ardien gaineko Jaziz Agartarra. Horiek guziak ziren errege Dabiden izatearen gaineko buruzagiak.

32. Berriz, Jonathan, Dabiden osaba, gizon umo eta jakina, kontseiluko zen; hura eta Jahiel Hakamoniren semea ziren erregeren semeekin.

33. Akitophel ere erregeren kontseiluko zen; eta Kusai Arakitarra zen erregeren adiskidea.

34. Joiada Banaiasen semea, eta Abiathar, Akitophelen ondotik ziren. Erregeren armadako buruzagia berriz, Joab zen.

### XXVIII. KAP.

1. Bada, Dabidek Jerusalemara bilarazi zituen Israelgo lehenbizikoak, leinuetako buruzagiak, tropetako aitzindariak errege zerbitzatzen zutenak, militariak, ehuntariak, erregeren izate eta ontasunen gaineko zirenak, bere semeak ebakiekin, handiak eta armadako gizonik gertarientak.

2. Errege jaiki zen, eta xutik ooren aitzinean, erran zaroeten: Ene anaiak eta ene populua, adi nezazue: Izatu dut gogoan tenplo baten egitea, hartan ezartzeko Jaunaren batasuneko arkha, gure Jainkoaren oinetako alkhia; eta haren egiteko xuxendu ditut oro.

3. Bainan Jaunak erran izan darot: Ez darozu zuk ene izenari altxaturen etxerik, zeren zaren gerla-gizona, eta odola ixuri duzulakoz.

4. Bainan Israelgo Jainko Jaunak hautatu izan nau ni ene aitaren etxe guzitik, bethikotzat Israelen gainean errege izateko; Judatik ezen hautatu ditu buruzagiak. Bada, Judaren etxean ene aitaren etxea du hautatu; eta ene aitaren semeatarik ni nahi izan nau berezi Israel guziaren erregetzat.

5. Bertzalde ene semeatarik (ezik Jaunak asko haur eman izan darozkit), ene seme Salomon hautatu du, jarrarazteko zat Jaunaren erresumako tronuaren gainean Israelen.

6. Eta erran izan darot: Zure seme Salomonek altxaturen ditu ene tenploa eta ene phausa-lekhua; ezik hura dut ene semetzat hautatu, eta ni aitatzat izanen natzaio.

7. Haren erreinua gogorturen dut bethi guziraino, irauten badu ene manamendu eta erabakien bethetzen orai bezala.

8. Orai beraz Israelgo baldarna guziaren aitzinean, gure Jainkoak aditzen duelarik, derrazuet: Begira zatzue eta bilha gure Jainko Jaunaren



manamenduak oro, lur gori hau goza dezazuen, eta zuen ondotik menderen mendetaraino zuen semeei utz dezazuentzat.

9. Eta zuk, Salomon ene semea, ezagut zazu zure aitaren Jainkoa, eta zerbitza zazu bihotz xahu eta gogo oso batekin; ezik, Jaunak ikhartzen ditu bihotzak, eta badakizki gogo guzietako berriak. Hura bilhatzen baduzu, aurkhituren duzu: bainan uzten baduzu, bethiko iraziren zaitu.

10. Orai beraz Jaunak hautatu baitzaitu bere saindutegiko etxearen altxatzeko, loth zaite bihotzekin eta akhaba zazu.

11. Gero Dabidek bere seme Salomoni eman zaroen lorioaren, tenploaren, untzitegien, jateko salhen, gela gordeen eta propiziatoriaren xehatzapena;

12. Eta oraino lorio gogoan hartu zituen guziena, khutxategien eta gauza sailduen lekhuen inguruko salhena;

13. Aphezen eta lebitarren berezpenak Jaunaren etxeko lan guzietan eta Jaunaren tenploko zerbitzuan erabiltzeko tresna guzietan;

14. Untzi bakhotxaren urhea phisura; zilharra ere phisura untziei zihoakotena beren zerbitzuaren arabera;

15. Urhezko ganderailuentzat ere eta hekien kriseluentzat, urhea ganderailu bakhotxaren eta kriseluen neurriaren arabera. Eman zuen orobat zilharrezko ganderailuentzat eta hekien kriseluentzat, bakhotxak behar zuen neurriaren arabera phisua zilharretan.

16. Halaber eman zuen proposizioneko mahainentzat urhea hekien neurrien arabera, eta orobat zilharra zilharrezko bertze mahainentzat.

17. Bihortzekoentzat ere, xatentzat eta urhe garbientetikako isentsuntzientzat, eta urhezko lehointtoentzat urhea berezi zuen lehointto bakhotxak behar zuen neurriaren arabera. Zilharrezko lehointentzat halaber zilhar-phisua berezi zuen neurri araua.

18. Eman zuen aldiz isentsuaren erretzeko aldarearentzat urherik garbiena, hartarik beretik eginak izan zitezen kherubinak orga-laster bat iduri, hegala hedatuz Jaunaren batasuneko arkha estaltzen zutela.

19. Eta erran zuen: Horiek oro Jaunaren eskuaz iskribatuak ethorri zaizkit, molde horrek irakhats zetzaztantzat egiteko diren guziak.

20. Dabidek berriz ere erran zaroen Salomon bere semeari: Gizonki hari zaite, emazu bihotzez eta egizu; ez izan beldurrik, ez izi; ezen ene Jainko Jauna zurekin izanen da; etzaitu ez igorriko ez utziko, Jaunaren etxeko zerbitzuaren lan guzia akhabatu dukezun arteo.

21. Huna aphezen eta lebitarren andanak; lagunduko zaituzte Jaunaren etxeko zerbitzu guzietan, eta hartara jarriak dira, eta nahiz handiek, nahiz ttipiek, orok badakite zuk manatzeko dituzun guzien egiten.

## XXIX. KAP.

1. Eta errege Dabidek baldarna guziari erran zaroen: Jainkoak ene seme Salomon hautetsi du, haur mamorra zelarik oraino; ezik lana handia da, ez da alabainan gizon batentzat egiteko egoitza, bainan Jainkoarentzat.

2. Ni berriz, ene ahal guziet haritu naiz Jaunaren etxekotzat behar diren guzien biltzen, urhea urhezko tresnentzat, zilharra zilharrezkoentzat, kobrea kobrezkoentzat, burdina burdinazkoentzat, zurak zurezkoentzat, oniz harriak, eta antimonioa bezalakoak, eta asko karantzetakoak, eta harri balios orotarik, eta Paroseko marmola nasaiki.

3. Eta ene Jainkoaren etxeko eskaini ditudanez bertzalde, ene mozkinetik ematen dut urhea eta zilharra ene Jainkoaren tenploa egiteko, aiphatu gabe etxe sailduarentzat xuxenduak direnak:

4. Hirur mila urhezko talendu Ophirreko urhetik, eta zazpi mila talendu zilhar frogatuenetik, tenploko harrasi ederzatzeko.

5. Eta non-ere lana urhezkoa baita, langileen eskuz urhez egin bedi, eta non-ere zilharrezkoa baita, zilharrez egin bedi; eta nihor balin bada bere baitharik eskaini nahi duenik, bere eskua egun bethe beza, eta nahi duena Jaunari eskaint biozo.

6. Hargatik familietako buruzagiek, Israelgo leinuetako handiek, milatariek, ehuntariak eta erregeren ontasunetako aitzindariak egin zituzten agintzak.

7. Eta eman zituzten Jaunaren etxeko lanentzat bortz mila talendu urhezkoak, eta hamar mila solido; hamar mila talendu zilharrezkoak; hemezortzi mila talendu kobrezkoak, eta ehun mila burdinazkoak.

8. Eta zeinak ere baitzuen etxean harri baliosik, hainak eman zituen Jaunaren etxeko khutxetara, Jahiel Jersondarraren eskuz.

9. Populu guzia boztu zen agintzak gogo onez egitean, zeren bihotz oroz eskaintzen baitzituzten Jaunari, eta errege Dabid ere bozkario handitan sarthu zen.

10. Eta Jauna benedikatu zuen oste guziaren aitzinean, eta erran zuen: Benedikatua zare Israelgo Jainko Jauna, gure aita, egundainotik bethi guziraino.

11. Zuri, Jauna, handitasuna; zuri ahal, ospe, garhaiziak; zuri laudorio; ezik zeruan eta lurrean diren guziak zureak dira; zuri, Jauna, erregetasuna; zu zare handi guzien gainetik handi.

12. Zureak dira aberastasunak, eta zurea ospea; zu zare jaun guzien gainean, zure eskuan dira indarra eta ahala, zure eskuan handitasuna eta guzien gaineko buruzagitasuna.





13. Orai beraz, gure Jainkoa, aithor bihurtzen darotzugu, zure izen ospetsuari ematen diogu gorespen.
14. Zer naiz ni, eta zer da ene populua, emaitza haukiek oro guk zuri egin ahal izateko? zureak dira guziak; zure eskutik hartua ematen darotzugu zerorri.
15. Ezik, gure aitzineko guziak bezala, arrotz eta bideant batzu gare zure aitzinean. Gure egunak, itzal bat iduri dohazi lurraren gainean, trikatzerik gabe.
16. Oi gure Jainko Jauna, zure izen sainduari etxe baten egiteko meta-tu ditugun ontasuntze haukiek, zure eskutik heldu dira, eta zureak dira guziak.
17. Badakit, ene Jainkoa, bihotzak haztatzen ditutzula, eta lainotasuna duzula maite: hargatik ni ere ene bihotzeko lainotasunean boztu naiz haukien ororen eskaintzean, eta bozkario handirekin ikhusi dut, hemen gerthatu den zure populua, zuri bere emaitzen egiten.
18. Gure arbaso Abrahamen, Isaaken eta Israelen Jainko Jauna, menderen mendetaraino haukien bihotzetan gogor zazu xede hori, eta haukien gogoak bethi guzian iraun beza zure ganako agurrean.
19. Ene seme Salomoni halaber emozu bihotz bat osoki garbia, begira detzan zure manamendu, lekhukotasun eta zeremoniak, eta bethe detzan guziak, eta altxa dezan zure tenploa, zeinaren geiak xuxunduak baititut.
20. Gero Dabidek erran zaroen baldarna guziari: Benedika zazue gure Jainko Jauna. Eta baldarna guziak benedikatu zuen bere arbasoen Jainko Jauna; eta gurthu ziren eta adoratu zuten Jainkoa, eta gero errege.
21. Jaunari bitimak imolatu zaroezten; eta biharamunean holokaustetan eskeini zituzten mila zezen, mila ahari, mila bildots, beren libazionekin, zeremonia guzieren arabera, Israel guziarentzat nasaizia handitan.
22. Eta egun hartan bozkario handirekin jan eta edan zuten Jaunaren aitzinean. Eta bigarren aldiko gantzutu zuten Salomon Dabiden semea. Salomon erregetzat gantzutu zaroeten Jaunari eta Sadok aphez-handitzat.
23. Salomon Jaunaren tronuan jarri zen erregetzat Dabid bere aitarren orde, eta hori guzieren gogarako izatu zen, eta Israel guziak nausitzat ezagutu zuen.
24. Aitzindari guziek halaber, handiek eta Dabid erregearen seme guziek eskua eman zuten, eta Salomon erregearen-peko jarri ziren.
25. Jaunak beraz Salomon altxatu zuen Israel guziaren gainera, eta haren erreinuari eman zaroen hanbateko ospea, non halakorik izatu ez baitzuen lehenago Israelgo errege batek ere.
26. Dabid Isairen semea erreginatu zen beraz Israel guziaren gainean.

27. Berrogoi urthez erreginatu zen Israelen gainean; Hebronon erreginatu zen zazpi urthez, eta Jerusalemen hogoi eta hamahirur urthez.
28. Eta hil zen zahartze on batean, egunez, ontasunez eta ospez bethea. Salomon haren semea erreginatu zen haren orde.
29. Bada, Dabid erregearen egintzak, hala lehenbizikoak nola azkenak, iskribatuak dira Samuel ikhusearen liburuan, Nathan profetaren liburuan eta Gad ikhustearen liburuan.
30. Hekietan dira halaber, Israelen eta lurreko erresuma guzietan, Dabid errege zelarik iragan ziren gerthakariak, haren erreinukoak eta denborakoak eta haren garhaiziak.



## PARALIPOMENAK

### II. LIBURUA

#### I. KAP.

1. Salomon Dabiden semea gogortu zen beraz bere erreinuan; harekin zen haren Jainko Jauna eta ospe handitan ezarri zuen.

2. Eta Salomonek manatu zituen Israel guzia, milatariak, ehuntariak, aitzindariak, Israel guziko juleak eta familietako buruzagiak;

3. Eta oste guziarekin goan zen Gabaongo lekhu gorara, non ere baitzen Jainkoaren batasuneko tabernaklea, Moisek Jainkoaren zerbitzariak mortuan egin izan zuena.

4. Bada, Dabidek Kariathiarimdik ekharri izan zuen Jainkoaren arkha aphaindu zaroen tokira eta zeintan landatu baitzuen olha bat, hura baitzen Jerusalem.

5. Beselelek, Uriren semeak, Hurren ilobasoak egin kobrezko aldaera ere han zen Jaunaren tabernaklearen aitzinean. Salomon eta baldarna guzia hartara goan ziren.

6. Salomon kobrezko aldarera igan zen Jaunaren batasuneko tabernaklearen aitzinean, eta haren gainean imolatu zituen mila bitima.

7. Hara berriz, non gau berean agertu zitzaioen Jainkoa, erraten zaroelarik: Galda zazu zer nahi duzun eman dezazudan.

8. Salomonek ihardetsi zaroen Jainkoari: Urrikari handitan izatu duzu ene aita Dabid, eta ni haren orde errege ezarri nauzu.

9. Orai beraz, Jainko Jauna, bethe bedi ene aita Dabidi eman izan diozun hitza, zuk ezen errege egin nauzu zure populu handiaren gainean, zeina ezin khondatuzkoa baita hala nola lurreko herrautsa.

10. Indatzu niri zuhurtzia eta adimendua, sar eta ilkhi nadien zure populuaren aitzinean, ezik nork behar-bezala jua dezake zure hunenbatetako populua?

11. Eta Jainkoak Salomoni erran zaroen: Zeren hori zure bihotzari izan den gogaragarririk; eta ez dituzun galdatu aberastasunak, ontasunak eta ospea, ez-eta higuin zaituztenen biziak, ez-etare bizitze dute bat; bainan ziren dituzun galdatu zuhurtzia eta jakitatea gai izatea gatik juiatzeko ene populua, zeinaren gainean errege ezarri baitzaitut;

12. Zuhurtzia eta jakitatea emanak zaizkitzu; aberastasunak aldiz, ontasunak eta ospea ere emanen darozkitzut, haletan non ez zure aitzinean,

ez zure ondotik erregeetan bakhar bat ez baita zure idurikorik izanen.

13. Salomon beraz Gabaongo lekhu goratik ethorri zen Jerusalem, batasuneko tabernaklearen aitzinera, eta erreginatzen Israelen gainean.

14. Orga-lasterrak eta zaldizkoak bildu zituen; bazituen hamalau ehun orga-laster, eta hamabi mila zaldizko; eta ezarri zituen orga-lasterretako hirietan eta Jerusalem erregerekin.

15. Erregek urhea eta zilharra Jerusalem hedatu zituen, izatearen handiz, harriak bezala eta bazterretan sortzen diren zedroak sikomorak bezala.

16. Zaldiak berriz, Egiptotik eta Koatik erakharriak ziren erregeren traturariez, zeinak goaten baitziren eta prezio batean erosten baitzizuten,

17. Lau zalditako uztarria sei ehun siklo zilharrezkotan, eta zaldi bakharra zazpitan hogoi eta hamar siklotan; erospinak orobat egiten ziren Hethearren erresuma guzietan eta Siriako erregeen baithan.

#### II. KAP.

1. Bada, Salomonek burutan hartu zuen tenploa Jaunaren izenari, eta beretzat jauregi baten egitea.

2. Khondatu zituen hirur hogoi eta hamar mila gizon haxeak soinka ekhartzeko, laur hogoi mila mendietan harrien xuxentzeko, eta hirur mila eta sei ehun hekien manatzeko.

3. Halaber bidalkinak igorri zarozkan Hiram Tirreko erregeri, zioelarik: Nola egin izan baituzu ene aita Dabidekin, eta igorri baitiozkatzu zedro zurak beretzat altxa zezan jauregi bat, zeintan baitut nik ere ene egoitza,

4. Hala egizu enekin, tenplo bat altxa diozodan ene Jainko Jaunaren izenari, hura kontsekra dezadan, Jaunaren aitzinean erretzeko isentsua, khe eragiteko baltsamuei, ogiak bethi eskaintzeko, eta Israeli manatuak diren holokausten egiteko goiz-arrats, larunbatetan ere, hilabeteetako lehen egunean eta gure Jainko Jaunaren besta-buruetan menderen mender.

5. Ezen nik egin gogo dudan tenploa handia da; handi da alabainan gure Jainkoa jainko guzien gainetik.

6. Nor daiteke beraz gai hari dihoakion tenplo baten altxatzeko? Baldin zeruak eta zeruetako zeruak ezin iduk ahal badezakete hura, zer naiz ni hari tenplo baten egiteko? bainan huntako bakharrik izanen da, isentsuaren erretzeko Jaunaren aitzinean.



7. Igor dizadazu beraz gizon jakin bat, urhe, zilhar, kobre, burdina, purpura, eskarlata eta moredinezko lanetan ezagutzen dena, eta lanketaduren zizelatzen dakikeena, Judean eta Jerusalem enekin diren langile haukiekin, zeinak bilarazi baititu ene aita Dabidek.

8. Halaber igor daroztatzu Libango zedro, orre eta pino zurak, bada-  
kit alabainan zure zerbitzariak Libango zuren ebakitzen jakinak direla, eta ene zerbitzariak zure zerbitzariekin izanen dira,

9. Zur hainitz xuxentzekotzat niri. Ezik nik egin gogo dudan tenploa guziz da handia eta ederra.

10. Ordainez nik zurak ebakiko dituzten langile, zure zerbitzariak emanen diotzotet jateko hogoi mila koro ogi eta bertze hainbertze koro garagar, hogoi mila metreta arno eta hogoi mila sato olio.

11. Hiramek berriz, Tirreko erregek Salomoni igorri ziozkan gutunetan erran zuen: Zeren Jaunak maithatu duen bere populua, hargatik erreginarazi zaitu haren gainean.

12. Eta zioen bertzalde: Benedika bedi Israelgo Jainko Jauna, zerua eta lurra egin dituen, errege Dabidi seme bat zuhurra, argitua, adimendutsua eta umoa eman dioena, egitekotzat tenplo bat Jaunari eta jauregi bat beretzat.

13. Bidali darotzut beraz Hiram, ene aita; gizon umoa eta guziz jakina,

14. Danen leinuko emazteki baten semea, eta zeinaren aita Tiriarra baitzen; zeinak baitaki urhez, zilharrez, kobrez, burdinaz, marmolaz, zuhez, purpuraz, moredinez, liho hautaz eta eskarlataz lanegiten, eta zeinak baitaki nola-nahiko lanketaduren egiten, eta laneko behar diren guzien antzetsuki asmatzen, zure langileekin haritzeko eta ene jaun Dabid zure aitaren langileekin.

15. Beraz, ene jauna, zure zerbitzariak igor diotzotzute agindu daro-  
eztetzun ogi, garagar, arno eta olio.

16. Guk aldiz, Libango zuretarik ebakiko ditugu behar dukezun guzia, itsasoz untzitan Jopera ekharriko ditugu; zuri izanen zaitzu gero hekiek Jerusalem era matea.

17. Salomonek khondatu zituen beraz Israelgo lurrean ziren proselita guziak, haren aita Dabidek athera zuenaz geroztik hekien khondua, eta aurkhitu ziren zazpitan hogoi eta hamahirur mila eta sei ehun.

18. Hekietarik hirur hogoi eta hamar mila ezarri zituen soinka haxe erabiltzeko, laur hogoi mila harriak mendietan aphaintzeko, eta hirur mila eta sei ehun populua lanei jarraitzeko.

### III. KAP.

1. Salomon hasi zen Jaunaren etxearen egiten Jerusalem Moriako mendian, zeina haren aita Dabidi erakhutsia izan baitzitzaioen, Dabidek Ornan Jebusearraren larrainean xuxendu zuen tokian.

2. Bada, egiten hasi zen bere erregetasuneko laugarren urthean, bigarren hilabetean.

3. Eta haukiek dira Salomonek arthiki zituen asentuak Jaunaren etxearen egiteko, luzara hirur hogoi beso, lehengo neurriaren arabera, eta zabalera hogoi beso.

4. Berriz, aitzinaldean lorioa, luzara hedatzen zena tenploaren zabal-  
tasunaren neurrian, hogoi besotakoa zen; aldiz haren goratasuna sei hogoi besotakoa zen; eta Salomonek barnetik urhe garbinez urheztatu zuen.

5. Etxe nausia ere estali zuen izai-oholez, eta orotan iratxiki zituen urhe garbinezko xafalak; eta hekietan bernuzatu zituen hostadurak eta gathetto batzu bezala bata bertzearen barnean sartzen zirenak.

6. Tenploaren zola guziz ederki galtzadatu zuen marmola baliosenetik.

7. Bada urhea, zeintarikako xaflez estali baitzituen etxe, laz, habe, harrasi eta atheak, nihon zen garbiena zen; eta harrasietan kerubinak bernuzatu zituen.

8. Sainduren sailduko etxea ere egin zuen; luzara hartzen zuen ten-  
ploaren zabaltasuna, hogoi beso; zabaltasuna orobat hogoi besokoa zuen; eta estali zuen urhe-xafalaz, sei ehun talenduz bezala.

9. Itzeak ere egin zituen urhez, halaz non itze bakhotxak berrogoi eta hamar siklo phisu baitzituen; gelak ere urhez estali zituen.

10. Egin zituen halaber sailduren sailduko etxean bi kerubinen moldeak eta urhez estali zituen.

11. Kerubinen hegalak hogoi besotan hedatzen ziren, halaz non hegal batek borts beso baitzituen eta jotzen baitzuen etxeko harrasia; eta bertze hegalak baitzituen borts beso eta ukitzen baitzuen bigarren kerubinen hegala.

12. Bigarren kerubinen hegalak orobat borts beso zituen eta jotzen zuen harrasia, haren bertze hegalak borts beso zituen eta bertze kerubinen hegala ukitzen zuen.

13. Beraz bi kerubinen hegalak zabalduak zauden eta hogoi besotan hedatzen ziren; berak aldiz, xutik zauden zangoen gainean eta hekien begitharteak kanpoko etxerat itzuliak ziren.

14. Egin ere zuen moredin, purpura, eskarlata eta liho hautazko bela bat, eta kerubinak ehoarazi zituen hartan.



15. Tenploko athearen aitzinean egin zituen halaber bi habe hogoi eta hamaborts beso gora zirenak, eta hekien buruek borts beso zituzten.

16. Gathettoak, saildutegikoak bezala egin zituen; habeen buruen gainetik ezarri zituen; eta ehun mingrana egini, gathettoen artean ezarri zituen.

17. Habe hekiek tenplo-lasean jarri zituen, bat eskuinetarik eta bertzea ezkerretarik; eskuinetarik zena deithu zuen Jakin, eta ezkerrekoa Booz.

#### IV. KAP.

1. Egin zuen halaber kobrezko aldare bat, hogoi besoz luze zena, hogoi besoz zabal eta hamar besoz gora.

2. Itsaso bat ere urthu zuen, hamar besotakoa ezpainetik ezpainera, inguruz biribila; borts besoren goratasuna zuen, eta hogoi eta hamar besotako sokha batek inguratzen zuen haren itzulia.

3. Haren azpian baziren idi-itxura batzu, eta kanpotik hamar besotarik hamar besotara lanketadura batzuek bi lerrotan bezala itsasoaren sabela inguratzen zuten. Bada idiak urthuz eginak ziren.

4. Eta itsasoa bera jarria zen hamabi idiren gainean, zeinetarik hirurek ipharrera begiratzen baitzuten, bertze hirurek mendebalera, bertze hirurek hegoara eta gainerako hirurek iguzki-haizera, itsasoa zutelarik gainean ezarria; berriz, idien gibelak barneko alderat zauden itsasoaren azpian.

5. Aldiz haren loditasunak bazuen zehe baten heina, eta haren ezpaina zen edateko unti baten ezpaina bezala edo lili zabaldu batena bezala; hirur mila metreta idukitzen zituen.

6. Egin zituen orobat hamar unti; eta ezarri zituen borts eskuinetarik eta borts ezkerretarik, hekietan garbitzeko holokaustatzat eskaintzeko ziren guziak; aphezak berriz, itsasoan garbitzen ziren.

7. Hamar urhezko ganderailu ere egin zituen, manatua izan zen moldearen arabera; eta ezarri zituen tenploan, borts eskuinetarik eta borts ezkerretarik.

8. Egin zituen oraino hamar mahain, eta ezarri zituen borts eskuinetarik eta borts ezkerretarik; eta egin zituen ehun gorgoila.

9. Egin zituen, berriz, aphezen lorioa eta basilika handi bat, eta basilikan atheak, kobrez estali zituenak.

10. Itsasoa berriz, eskuinaldean ezarri zuen iguzki-haizetik hegoara buruz.

11. Hiramek egin zituen bertzalde berzak, bihurtzekoak eta gorgoila; eta akhabatu zuen erregeren lan guzia Jainkoaren etxean,

12. Erran nahi da bi habe, epistiliak eta buruak, eta sare-iduri batzu buruak estaltzen zituztenak epistilien gainetik.

13. Egin zituen halaber laur ehun mingrana eta bi sare, halako moldez non bi lerrotan mingranak bata bertzeari, epistiliak eta buruak estaltzen zituzten sareko gatheetz iratxikitzen baitziren.

14. Orobat egin zituen oinak eta oinen gainean ezarri zituen untiak;

15. Itsaso bat, itsasoaren azpiko hamabi idiak ere,

16. Bertzak, bihurtzekoak eta gorgoila. Salomoni Hiram haren aitak kobre garbienetik egin ziozkan Jainkoaren etxeko tresna guziak.

17. Erregek, Jordaneko ephaitza batean Sokoten eta Saredatharen artean, buztin-lurrean urtharazi zituen.

18. Ezin khondatuzkoa zen, berriz, untzien ostea, halai non kobreak phisua ez baitzen jakina.

19. Hola Salomonek egin zituen Jainkoaren etxeko tresna guziak, urhezko aldarea eta mahainak, eta hekien gainean proposizioeko ogiak;

20. Ganderailuak ere beren kriseluekin urhe garbienez, oraklearen aitzinean argitzeko, azturaren arabera;

21. Eta halako lore-iduri batzu, kriseluak eta urhezko suhatsak. Oro urhe garbienetik eginak ziren.

22. Baltsamuntziak ere, isentsuntziak, gorgoila eta xurruak urhe garbienetik egin zituen. Barneko tenploko atheak, erran nahi da sailduren saildukoak lanketatuak ziren; eta tenploko atheak kanpotik urhez ziren. Horreletan akhabatu zen Salomonek Jaunaren etxean egin zuen lan guzia.

#### V. KAP.

1. Salomonek ekharri zituen beraz haren aita Dabidek botuz eman guziak; eta zilhar, urhe eta unti guziak Jainkoaren etxeko khutxetan ezarri zituen.

2. Gero Jerusalemara bilarazi zituen Israelgo zaharrak leinuetako aitzindari guziak eta Israelgo semeen familietako buruzagiak, Jaunaren batasuneko arkha ekhar zezatentzat Dabiden hiritik, zeina baita Sion.

3. Hargatik Israelgo gizon guziak erregeren gana ethorri ziren zazpi-garren hilabeteke besta-egunean.

4. Eta Israelgo zahar guziak ethorri zirenean, lebitarrek hartu zuten arkha,

5. Eta ekharri zuten tabernakleari zatxeizkon tresna guziekin. Aphezak berriz, lebitarrekin ekharri zituzten tabernaklean ziren saildutegiko untiak.



6. Aldiz errege Salomonek, Israelgo bilkhu guziak eta arkharen aitzinera bildu ziren guziek ahariak eta idiak khonda ahal baino gehiago imolatzeko zituzten, hanbatekoa zen ezik bitimen ostea.

7. Aphezak Jaunaren batasuneko arkha ezarri zuten bere tokian, erran nahi da tenploko oraklean, sainduren sainduen kerubinen hegalean azpian;

8. Halako moldez non kerubinek beren hegalek hedatzen baitzituzten arkha phausatua zen lekhuren gainera, eta estaltzen baitzuten arkha bere hagekin.

9. Eta nola arkharen erabiltzeko hagak luzegixeak baitziren, hekien muthurrak ageri ziren oraklearen aitzinean; bainan kanporatxago zenak ezin ikhus zetazkeen. Han izan da beraz arkha bethi egungo eguna arteo.

10. Arkhan etzen deus bertzerik bi har-lauzak baizen, Moisek Horeben ezarriak, Jaunak Israelgo semei legea eman zaroetenean Egiptotik ilkhitzen zirelarik.

11. Aphezak aldiz ilkhi zirenean saindutegitik (ezen han aurkhitu ahal izan ziren guziak sainduetsiak izan ziren, eta oraino orduan aldiak eta zerbitzuen itzuliak etziren hekien artean bereziak),

12. Hala lebitarrek nola kantariak, erran nahi da Asaphen azpian, Emanen azpian eta Idithunen azpian zirenek, hekien seme eta anaiek, liho hautez jauntsirik, jotzen zituzten zinbalak, maniurrak eta gitarrak, alda-rearen iguzki-haizeko aldean, eta hekiekin batean ehun eta hogoi aphezak jotzen zituzten turutak.

13. Guziek beraz batean kantatuz turutez, bozez, zinbalez, organoez eta asko musikako tresnez, eta bozak gora altxatuz, otsak urrunera adiarazten zituzten, halaz non hasi zirenean Jaunaren laudatzen eta erraten: Jaunari aithor bihur diozozue, zeren den ona, zeren bethikoa den haren urrikalpena; Jainkoaren etxea lanho batez bethe zen,

14. Eta aphezak etzaitezkeen egon eta etzezazketen bethe beren eginbideak lanhoaren gatik; ezik Jaunaren gloriak bethe zuten Jainkoaren etxea.

## VI. KAP.

1. Orduan Salomonek erran zuen: Jaunak agindu zuen hedoian eginen zuela bere egoitza.

2. Nik berriz, etxe bat egin diot haren izenari, hartan egon dadientzat bethi guzian.

3. Eta erregek itzuli zuen begithartea eta benedikatu zuen Israelgo oste guzia (ezik ostea xutik zagoen begira); eta erran zuen:

4. Benedika bekio Israelgo Jainko Jaunari, zeinak egintzetan ezarri baitu ene aita Dabidi eman zioen hitza erranez:

5. Ene populua Egiptoko lurretik atheratu dudan egunetik, ez dut Israelgo leinu guzietan hiri bat hautatu, han etxe bat egin zakion ene izenari; eta ez dut bertze gizon bat hautatu, ene Israelgo populuaren buruzagi izateko;

6. Bainan hautatu dut Jerusaleme, ene izena han izan dadientzat, eta hautatu dut Dabid, hura Israelgo ene populuaren gainean errege ezartzeko.

7. Eta ene aita Dabiden nahia izan zenean Israelgo Jainko Jaunaren izenari etxe baten egitekoa,

8. Jaunak erran zaroen: Zeren hau izan baita zure nahia, ene izenari etxe baten altxatzekoa, ongi egin duzu zinez horrelako nahia izatea;

9. Bainan ez duzu zuk altxatuko etxea, bai ordean zure Seme zure ganik sorthuko denak; hura izanen da ene izenari etxea altxatuko daroena.

10. Jaunak bethe du beraz eman zuen hitza; eta ni jaiki naiz ene aita Dabiden orde; jarri naiz Israelgo tronuan, Jaunak erran zuen bezala, eta etxea darot altxatu Israelgo Jainko Jaunaren izenari.

11. Huntan ezarri dut arkha, zeinetan baita Jaunarekilako patua, Israelgo semeekin egin zuena.

12. Salomon xutik eman zen beraz Jaunaren aldarearen aitzinean, Israelgo populu guziaren parrean, eta hedatu zituen eskuak.

13. Ezik Salomonek kobrezko egonlekhu bat egin zuen bortz beso luzara, bortz beso zabalera eta hirur beso gorara zituena, eta basilikaren erdian ezarri zuen. Haren gainean xutik egon zen; eta gero belhaunikaturik, eta eskuak zerura altxatuz,

14. Erran zuen: Israelgo Jainko Jauna, ez da zure iduriko Jainkorik ez zeruaren ez-etare lurrean; zu zare batasun eta urrikalpen idukitzen diotzozutena zure zerbitzari zure aitzinean beren bihotz oroz ibiltzen direnei;

15. Zu, ene aita Dabidi zure zerbitzariari begiratu diotzotzuna agindu zinarozkien guziak, eta bethe ditutzuna zure ahoko hitzak, oraiko orduak erakhusten duen bezala.

16. Orain beraz, Israelgo Jainko Jauna, iduk diotzotzuz zure zerbitzari ene aita Dabidi agindu diotzotzunak erranez: Ez da ene aitzinean eskastuko zure odoleko gizona, Israelgo tronua gainean, jarriko dena; baldinetaria bizkitartean zure semeak egoten badira beren bideetan eta ene legean ibiltzen badira, zu ene aitzinean ibili zaren bezala.

17. Eta orain, Israelgo Jainko Jauna, gogor bedi zure zerbitzari Dabidi eman diozun hitza.



18. Sinhesgarri othe da bada Jainkoa gizonekin lurraren gainean egoten dela? Baldin zeruak eta zeruetako zeruek ez bazaituztete idukitzen, zenbatenaz gutiago nik egin dudan etxe hunek!

19. Bainen huntako bakharrik egina da, begira diozozutentzat zure zerbitzariaren othoitzari eta haren errekeiari, ene Jainko Jauna; eta entzun detzatzuntzat zure zerbitzariak zure aitzinean ixurtzen dituen othoitzak;

20. Gau eta egun begiak idek detzatzun etxe hunen gainera, zure izena deithua izanen dela agindu duzun lekhuaren gainera;

21. Entzun dezazun zure zerbitzariak huntan egiten darotzun othoitzak; eta entzun detzatzun zure zerbitzariaren eta Israelgo zure populuaeren othoitzak. Edozeinek othoitz egin dezazun lekhu huntan, entzun zazu zure egon-lekhotik, erran nahi da zeruetarik, eta begithartez jar bezaizkio.

22. Baldin norbaitek bere lagunaren alderat egin baleza bekhatu, eta haren kontra zin egitera jarria heldu balitz, eta bere burua etxe huntan burhoz herts baleza aldarearen aitzinean;

23. Zuk entzunen duzu zerutik, eta zuzena erabakiko daroezu zure zerbitzariari; gaixtaginari bihurtuko diozu bere bidea bere buruaren gainera, eta aspertuko duzu zuzena, hari bere zuzentasunaren arabera eman.

24. Baldin Israelgo zure populua bere etsaiez garhaitua balitz (ezik zure alderat bekhatu eginen dute) eta itzulirik penitentzia egiten badute, errekeitzen badute zure izena eta lekhu huntan othoitz egiten badute,

25. Zuk entzunen ditutzu zerutik, begithartez jarriko zaizkio Israelgo zure populuari, eta bihurraziko ditutzu hekiei eta hekien aitei eman daroezuten lurrera.

26. Baldin zerua hertsia izanez, uririk erortzen ez bada populuaeren bekhatuen ariaz, eta othoizten bazaituzte toki huntan, zure izenari aithor eman ez eta beren bekhatuetarik bihurtuz, jo ditutzun ondoan,

27. Entzun zatzu, Jauna, zerutik; zure zerbitzariari eta Israelgo zure populuari barkha diotzotzute beren bekhatuak; irakhats diozozute bide ona zeintan sarthu behar baitira, eta zure populuari gozatzera eman diozun lurrari uria emozu.

28. Lurraren gainera atheratu badira gosetea, izurritea, herdoa, lanhadura, xartalak eta harrak; etsaiek, bazterrak larruturik, sethiatzen badituzte hiriko atheak, eta gaitz eta eritasun guziek hertsatzen badute populua;

29. Baldin Israelgo zure populutik norbaitek, ezagutuz bere zauria eta eritasuna, othoitz egiten badu eta eskuak etxe huntan hedatzen baditu,

30. Zuk entzunen duzu zerutik, erran nahi da zure egoitza goratik; begithartez jar zakizkio, eta bakhoxari bihur diozozu hainaren bihotzean

ezagutzen ditutzun bideen arabera, zuk ezen bakharrik ezagutzen ditutzu gizasemeen bihotzak,

31. Zure beldur izan ditezen eta zure bideetan ibil ditezen, gure aitei eman diozuten lurraren gainean bizi diren egun guziz.

32. Israelgo zure populutikakoa ez den arrotz bat urrungo lurretik heldu balin bada, zure izenaren handiaren ariaz, zure esku hazkarraren eta beso hedatuaren ariaz, eta lekhu huntan adoratzan bazaitu;

33. Zuk entzunen duzu zerutik, zure egoitza guziz sendotik, eta egiten ditutzu arrotz harek galdatu darozkiketzun guziak, lurreko populu guziek jakin dezaten zure izena, zure beldur izan ditezen hala-nola Israelgo zure populua, eta ezagut dezaten zure izena deithua izan dela nik altxatu dudan etxe hunen gainera.

34. Baldin zure populua gerlara ilkhitzen bada bere etsaien kontra zuk bidali dukezun bideaz, adoratu zaitu, hautatu duzun hiri hau den alderdirat itzuliz eta nik zure izenari altxatu diodan etxe alderat,

35. Zuk entzunen ditutzu zerutik hekien othoitzak eta errekeiak, eta asperturen ditutzu.

36. Bainen baldin zure alderat bekhatu egin badute (ezik ez da gizonik bekhatu egiten ez duenik), eta samurtua bazare hekien kontra, eta etsaien eskuetara arthikitzen baditutzu, eta gathibu eramanak badira urrungo edo hurbileko lurrera,

37. Eta gathibu eramanak izan diren lurrean, beren baithan sarthurik, penitentzia egiten badute, beren gathibutasuneko lurrean, erraten dutelarik: Bekhatu egin dugu, tzarki haritu gare, zuzen-kontran ibili gare;

38. Eta zuk bidali ditutzun beren gathibutasuneko lurrean, zure gana beren bihotz oroz eta arima guziz bihurturik, adoratzan bazaituzte itzuliz hekien arbasoei eman diozuten lurreko alderat, hautatu duzun hiriko eta nik zure izenari altxatu diodan etxe alderat;

39. Zuk hekien othoitzak entzunen ditutzu zerutik, erran nahi da zure egonlekhu sendotik, eta emanen diozu zuzenari bide, eta barkhatuaren diozu zure populuari, zenbat-nahi den bekhatore;

40. Ezik zu zare ene Jainkoa; zabal beitez, othoi, zure begiak, eta zure beharriak atzarriak egon beitez lekhu huntan egiten den othoitzari.

41. Orai beraz, Jainko Jauna, jaiki zait zure phausuko lekhu, zu eta zurekin zure indarreko arkha; zure aphezak, Jainko Jauna, inguratuak izan beitez zure laguntza begiragarriaz, eta zure sainduak boz beitez zure ongietan.

42. Jainko Jauna, ez biozozu ahalkea eman zure kristoren begitharteari, orhoit zaitenzi zure zerbitzari Dabidi egin diozkatzun ongietan.



## VII. KAP.

1. Salomonek akhabatu zuenean bere othoitzza, zerutik jautsi zen sua, eta iretsi zituen holokaustak eta bitimak, eta Jaunaren maiestateak bethe zuen tenploa.

2. Eta Jaunaren tenploan ezin sar zaitezkeen aphezak, Jaunaren maiestateak bethe zuelakoz Jaunaren tenploa.

3. Israelgo seme guziek ere ikhusten zituzten sua eta Jaunaren gloria tenploaren gainera jausten, eta ahuspez eroriz harrizko galtzadaren gainera, adoratu eta laudatu zuten Jauna, ziotelarik: Jauna zein den on! haren urrikalpenak mendeetaraino badirau!

4. Erregek berriz, eta populu guziak bitimak imolatzten zituzten Jaunaren aitzinean.

5. Errege Salomonek hil zituen beraz bitimak, idietarik hogoi eta bi mila, aharietarik sei hogoi mila; eta erregek eta populu guziak egin zuten Jainkoaren etxeko kontsekrazioa.

6. Apezak berriz, beren eginbideetan zauden, eta lebitarrek musikako tresnen gainean kantatzen zuten errege Dabidek Jaunaren laudatzeko egin kantu hau: Zeren bethierekoa den haren urrikalmendua. Tresnen gainean kantatzen zituzten Dabiden himnoak; aphezak berriz, hekien aitzinean turutat jotzen zituzten, eta Israel guzia xutik zagoen.

7. Salomonek halaber sainduetsi zuen lorio-erdia Jaunaren tenploaren aitzinean, ezik han eskaini zituen holokaustak eta bakezko bitimen bilgorrak, egin izan zuen kobrezko aldareak ezin jasan, zetzazkelakoz holokaustak, sakrifizioak eta bilgorrak.

8. Salomonek orduan egin zuen beraz zazpi egunez besta, eta harekin batean Israel guziak, bilkhu gaitzak, Ematheko sartzetik Egiptoko errekarainotik ethorriak.

9. Eta zortzigarren egunean egin zuen baldarnaren besta, aldarearen kontsekrazioa egin zuelakoz zazpi egunez, eta zazpi egunez bestaburua zelebratu.

10. Beraz zazpigarren hilabeteke hogoi eta hirugarren egunean, populuak igorri zituen beren olhetara, atseginez eta bozkarioz betheak Jaunak Dabidi, Salomoni eta Israelgo bere populuari egin ziozkaten ongiez.

11. Salomonek osatu zituen Jaunaren etxea, errege-etxea eta bere gogoan hartu zituen guziak egiteko Jaunaren tenploan eta bere jauregian, eta orotan zorion izan zuen.

12. Bada, gabaz Jauna agertu zitzaioen, eta erran zaroen: Entzun izan dut zure othoitzza, eta lekhu hau enetzat hautatu dut sakrifizioko etxetzat.

13. Baldin hersten badut zerua eta uririk ez bada erortzen, manatzen eta igortzen badituzte xartalak lurraren iresteko, eta ene populura bidaltzen badut izurritea;

14. Bainan bere baitharaturik, ene populuak, zeinaren gainera deithua izan baita ene izena, othoizten banau, bilhatzen badu ene begithartea, eta bere bide guziz tzarretarik gibelatuz, penitentzia egiten badu; nik ere entzunen dut zerutik, barkhatiar izanen natzaiote hekien bekhatuei, eta sasualduko dut hekien lurra.

15. Ene begiak halaber idekiak egonen dira eta ene beharriak atzariak lekhu huntan othoiztuko nauenaren othoiztari.

16. Ezik lekhu hau hautatu eta saindutu dut, ene izena hemen egon dadientzat menderen mendetan, ene begiak eta bihotza hemen egon dituzten ethortzekoak diren egun orotan.

17. Zu ere ene aitzinean ibiltzen bazare, Dabid zure aita ibili den bezala; egiten baduzu nik manatu darozkitzudan guzien arabera, eta begiratzen badituzte ene zuzenak eta ene erabakiak;

18. Eraikiren dut zure erresumako tronua, zure aita Dabidi agindu diodan bezala, niolarik: Zure odolean ez da gizona eskastuko Israelen gainean buruzagi izateko.

19. Bainan baztertzen bazarete, uzten badituzte ene zuzenak eta eman darozkitzuedan manamenduak, eta urrundurik zerbitzatzen eta adoratzten badituzte jainko arrotzak,

20. Iraiziren zaituztet eman izan darotzuedan ene lurretik; ene izenari kontsekratu diodan etxe hau khenduren dut ene begietarik, eta ezarriren dut populu guzien irrigarri eta irakasbidetzat.

21. Eta etxe hau errankizunetan izanen da hemen iraganen diren guzientzat, eta erranen dute harrituz: Zergatik Jaunak hunela egin daroete lur huni eta etxe huni?

22. Eta ihardetsia izanen zaroete: Zeren utzi duten beren arbasoen Jainko Jauna, Egiptoko lurretik erakharri zituena; zeren hartu, adoratu eta zerbitzatu dituzten jainko arrotzak; horren gatik ondiko haukiek oro erori zaizkote gainera.

## VIII. KAP.

1. Bada, hogoi urthe bethe ondoan, Salomonek Jaunaren tenploa eta bere jauregia altxatu zituenaz geroztik,



2. Salomonek berritu zituen Hiramek eman zarozkien hiriak, eta heketan egoitzaz ezarri zituen Israelgo semeak.
3. Goan zen halaber Emath Subakora eta hartaz jabetu zen.
4. Mortuan altxatu zuen Palmira, eta bertze hiri guziz hazkar batzu egin zituen Emathen.
5. Orobat egin zituen Bethoron-garai eta Bethoron-behere, hiri harrasiztatuak, athe, haga eta zerrapodunak;
6. Balaath ere, eta Salomonenak ziren hiri guziz hazkarrak oro, eta orga-lasterretako eta zaldizkoen hiri guziak; Salomonek nahi izan eta burutan hartu zituenak oro egin zituen Jerusalem, Libanen eta bere azpiko lur guzian.
7. Hethear, Amorhear, Pherezear, Hebear eta Jebusearretarik gelditu ziren guziak, Israelgo odoletik etzirenak,
8. Hekien seme eta ondokoetarik Israeldarrek hil etzituztenak, Salomonek zergaren azpian ezarri zituen, egungo eguna arteo bezala.
9. Aldiz Israelgo semeetarik etzuen ezarri erregeren lanetan zerbitzatzeko; ezik hekiek ziren gerla-gizonak, lehenbiziko aitzindariak, orga-lasterretako eta zaldizkoen buruzagiak.
10. Berriz, errege Salomonen armadako buruzagiak, populuari manatzen zutenak, hamabitan hogoi eta hamar ziren.
11. Faraonen alaba berriz, Dabiden hiritik harentzat egin zuen jauregira eraman zuen. Ezik erregek erran zuen: Ene emaztea ez da egonen Dabid Israelgo erregeren etxean, sailduetsia delakoz etxe hura zeren hartan sarthu izan den Jaunaren arkha.
12. Orduan Salomonek Jaunari holokaustak eskaini zarozkien, lorioaren aitzinean Jaunari altxatu zaroen aldarearen gainean,
13. Hartan sakrifizioak eskaintzekotzat egun oroz, Moisen manamenduaren arabera, larunbatetan, hilabeteen lehenbiziko egunean, eta besta buruetan urthean hirur aldiz, erran nahi baita Airisen bestan, Asteetako bestan eta Tabernakletako bestan.
14. Eta aphezak ezarri zituen beren oinbideetako karguetan, haren aita Dabidek manatu bezala; eta lebitarrak, zein bere lerroan Jaunaren laudatzeko, eta aphezen aitzinean zerbitzatzeko, egun bakhotxeko ohitzaren arabera; eta athalzainak bereziak ziren bezala, batzu athe batean eta bertzeak bertzean; ezik hala manatu zuen Dabidek, Jainkoaren gizonak.
15. Hala aphezak, nola lebitarrak etziren urrunago goan erregek eman zarozten manamendu guzietarik eta khutxen zaintzeko eginbideetarik.

16. Salomonek gei guziak xuxenduak izan zituen, Jaunaren etxeok asentua abiatu zuen egunetik eta hura akhabatu zuen eguna arteo.

17. Orduan Salomon goan zen Mongaberrera eta Ailathera, Edomen lurrean den itsaso Gorriko bazterrera.

18. Hiramek berriz, bere zerbitzarien bidez igorri ziozkan untziak eta itsasketan jakinak ziren gizonak. Salomonen zerbitzariekin goan ziren Ophirra; handik hartu zituzten laur ehun eta berrogoi eta hamar talendu urhezkoak, eta errege Salomoni ekharri zarozten.

## IX. KAP.

1. Sabako erreginak ere entzun zuenean Salomonen omena, asmakari batzuz haren frogatzera Jerusalemara ethorri zen, ontasan handiekin eta kamelu batzuekin, zeinek ekhartzen baitzituzten baltsamuak, urhe hainitz eta harri baliosak. Eta Salomonen gana ethorri zenean, bihotzean zituen guziak erran ziozkan.

2. Eta Salomonek eman zaroen, erreginak aitzinera ezarri ziozkan guzien argitasuna, eta etzen deusere izan hari ezin argitu zaroenik.

3. Erreginak ikhusi ondoan Salomonen zuhurtzia eta harek egin zuen etxea,

4. Haren mahaineko janhariak, haren zerbitzarien egoitzak, karguak eta soinekoak, haren edaraleak eta hekien soinekoak, eta Jaunaren etxean imolatzin zituen bitimak, etzen, harrituaren handiz, gehiago bere baithan.

5. Eta erregeri erran zaroen: Egia da ene lekhuana zure dohain eta zuhurtasunaz entzun nuen solasa.

6. Erraileak ez nituen sinhesten, nerorri ethorri naizen arteo, ene begiek ikhusi duten arteo, eta frogatu dudana arteo zure zuhurtziaren erdia doidoia erran izan zarotedala; zure berthuteez omena garhaitu duzu.

7. Dohatsu zure gizonak! dohatsu zure zerbitzariak, noiznahiden zure aitzinean bizi direnak eta zure zuhurtzia entzuten dutenak

8. Benedika bedi zure Jainko Jauna, bere tronuaren gainean zure Jainko Jaunaren errege ezarri nahi izan zaituena. Zeren Jaunak maite duen Israel eta nahi duen hartaz izan bethi zerbitzatu, hargatik haren gainean ezarri zaitu errege, zuzenari eta zuzentasunari beren bideen emateko.

9. Eman zarozkien aldiz erregeri sei hogoi urhezko talendu, baltsamuketa handi bat eta harri guziz baliosak; eta ez da halako baltsamurik izatu, nola Sabako erreginak errege Salomoni eman zarozkanak.

10. Hiramen zerbitzariak Salomonen zerbitzariekin ekharri zituzten halaber Ophirretik urhea, usain oneko zurak eta harri guziz baliosak.





11. Eta heketarik, erran nahi da zur usaindunetarik erregek mailak egin zituen Jaunaren etxean eta errege-etxean, eta kantariei ere gitarrak eta maniurrak; eta halako zuhamurik ez da egundaino Judako lurrean ikhusi.

12. Errege Salomonek berriz, Sabako erreginari eman zarozkien nahi izan eta galdatu zituenak oro, eta harek ekharri izan zarozkienak baino hainitz gehiago. Eta erregina bere zerbitzariekin itzuli zen bere lurrera.

13. Bada, errege Salomoni urthe oroz ekhartzen zaroeten urheak bazuen sei ehun eta hirur hogoi eta sei talendu urhezkoen hazta,

14. Sarthu gabe asko jendakietako bidalkinek eta tratulariek ekhartzen ohi zarotena, eta Arabiako errege guziak eta lurretako satrapek Salomoni ekhartzen zarozten urhea eta zilharra.

15. Errege Salomonek egin zituen beraz berrehun lantza sei ehun siklo urhezko, zeinak ematen baitziren lantza bakhotxeko;

16. Hirur ehun erredola urhezko ere hirur ehun siklo urhezko, zeinetaz estaltzen baitzen erredola bakhotxa; eta erregek ezarri zituen har-mategian, zeinak baitzuen zuhazti bat inguruan.

17. Erregek egin zuen halaber boliazko tronu handi bat, eta hura urhe garbienaz estali zuen,

18. Tronura igaiteko sei mailak ere eta oinpeko urhezko alkhia, eta bi aldetako besoak, eta bi lehoin besoen ondoan zaudenak,

19. Eta bertze hamabi lehointto ere, sei mailen gainean bi aldeetarik zaudenak. Ez da halako tronu bat izan nihongo erresumetan.

20. Erregeren mahaineko untzi guziak ere eta Libango oihaneko etxeoak urhe garbienetik ziren. Zilharra ezik orduko egunetan ezdeusentzat idukia zen,

21. Zeren erregeren untziak Hiramen zerbitzariekin Tharsisera goaten baitziren hirur urthetarik behin, eta handik ekhartzen zituzten urhea, zilharra, bolia, ximinoak eta paunak.

22. Horreletan errege Salomon lurreko errege guziez gorago heldua izan zen ospe eta aberastasunetan.

23. Lurreko errege guziak lehiatzen ziren Salomonen begithartearen ikhustera, entzutea gatik Jaunak haren bihotzean ezarri zuen zuhurtzia;

24. Eta urthe oroz emaitzak ekhartzen zarozten, zilharrezko eta urhezko untzi, soineko, harma, baltsamu, zaldi, eta mandoak.

25. Salomonek bazituen oraino bere zalditegietan berrogoi mila zamari, hamabi mila orga-laster eta hamabi mila zaldizko, eta hekiek ezarri zituen orga-lasterretako hirietan, eta errege zen lekhuana Jerusalem.

26. Haren nausitasuna hedatzen zen errege guzien gainera Ufratako ibaietik Filistindarren lurreraino eta Egiptoko mugetaraino.

27. Eta dirua Jerusalemen harria bezain arrotz ezarri zuen, eta zedroak, bazterretan sortzen diren sikomorak bezala.

28. Halaber zaldiak erakhartzen zarozten Egiptotik eta lekhu guzietarik.

29. Salomonen gainerako egintzak berriz, nahiz lehenak, nahiz azkenak iskribatuak dira Nathan profetaren erranetan, Ahias Silotarraren liburuetan, eta Ado ikhusleak Jeroboam Nabathen semearen kontra izan zuen agerpenean.

30. Aldiz Salomon berrogoi urthez erreginatzen Jerusalem Israel guziaren gainean;

31. Lokhartu zen bere arbasoekin, eta ehortzi zuten Dabiden hirian. Erroboam haren semea erreginatzen haren orde.

## X. KAP.

1. Bada, Erroboam goan zen Sikemera, ezik Israel guzia harat bildu zen haren ezartzera errege.

2. Hori aditu zuenean Jeroboamek, Nabathen seme Egipton zenak (ezik harat ihes egina zen Salomonen aitzinetik), itzuli zen berehala.

3. Deithu zuten, eta ethorri zen Israel guziarekin, eta Erroboami mintzatu ziren ziotelarik:

4. Zure aitak uztarri gogorregiaren azpian zaphatu gaitu; zuk arinkiago mana gaitzatu zure aitak baino, zeinak nekhe gaitza gainera erran baitaroku; arin zazu aphur bat gure karga, zerbitza zaitzaguntzat.

5. Hunek erran zuen: Hirur egunen buruan itzul zaitezte ene gana. Eta populua goan zenean,

6. Biltzar egin zuen zaharrekin, haren aita Salomon oraino bizi zelarik haren aitzinera biltzen zirenekin, eta erran zaroten: Zer kontseilu ematen darotazue ihardets diozodan populuari?

7. Haukiek erran zaroten: Baldin populu huni aurkhitzen badiozu eta solas eztiz gozatzen badituztu, noiznahiden zure zerbitzuko dirazteke.

8. Bainan harek bazterrerat utzi zuen zaharren errana; eta harekin haziak eta haren lagun bizi ziren gizon-gazteekin abiatu zen hortaz mintzatzen.

9. Eta erran zaroeten: Zer iduritzen zaitzue? edo zer ihardetsi behar diot populu horri, zeinak erran baitarot: Arin zazu zure aitak gure gainean ezarri duen uztarria?

10. Haukiek ihardetsi zuten gizon-gazte batzuek eta harekin atseginpean haziak izan zirenek bezala, eta erran zuten: Hunela mintzatuko zare populu erran darotzunari: Zure aitak dorphetu du gure uztarria, zuk arin



zazu; eta hunela ihardetsiko diozu: Ene erhirik ttipiena ene aitaren gerria baino lodiago da.

11. Ene aitak gainera eman darotzue uztarri dorphea eta nik phisu dorpheagoa ezarriko dut; ene aitak azoteez jo zaituztete, nik berriz, harrobiez joko zaituztet.

12. Beraz Jeroboam eta populu guzia Erroboamen gana ethorri ziren hirugarren egunean, manatu zaroeten bezala.

13. Eta erregek bazterrerat utzirik zaharren errana, ihardetsi zuen gogorki:

14. Gizon-gazteen nahiaren arabera erran zuen: Ene aitak uztarri dorphea eman darotzue, nik dorpheagotuko dut; ene aitak azoteez jo zaituztete, nik berriz, harrobiez joko zaituztet.

15. Eta etzen erori populuaren othoitzetara; ezik Jaunaren nahia zen bethe zedin Jeroboami Nabathen semeari Ahias Silotarraren arartekoz eman zuen hitza.

16. Populu guziak berriz, erroer gogorki mintzatzenez, hau erran zaren: Ez dugu zathirik Dabid baithan, ez-eta ikhustekorik Isairen semea baithan Israel, itzul hadi hire olhetara, eta zuk, Dabiden etxea alha zazu. Eta Israel goan zen bere olhetara.

17. Erroboam erreginatatu zen beraz Judako hirietan egoten ziren Israelgo semeen gainean.

18. Eta Erroboam erregeak bidali zuen Aduram, zergen gaineko buruzagia, eta Israelgo semeek harrikatu zuten hura, eta hil zen. Erroboam erregea berriz, herresaka igan zen bere orga-lasterrera, eta Jerusalemara ihes egin zuen.

19. Eta Israel Dabiden etxetik berezi zen egungo eguna arteo.

## XI. KAP.

1. Bada, Erroboam ethorri zen Jerusalemara, eta bildu zuen Judako eta Benjamingo etxe guzia, ehun eta laur hogoi mila gizon gerlari hautak, Israelen gudukatzeke, eta bere erreinua bere eskuetaratzeko.

2. Baina Jauna mintzatu zen Semeiasi Jainkoaren gizonari, zioelarik:

3. Errozute Erroboami, Salomonen seme Judako erregeri, eta Judan eta Benjaminen den Israel guziari:

4. Hau dio Jaunak: Ez igan eta ez guduka zuen anaien kontra; bakhotxa bere etxera bihur bedi, zeren hau ene nahitik egin baita. Aditu zute-nean Jaunaren hitza, itzuli ziren eta etziren goan Jeroboamen kontra.

5. Erroboamek berriz, Jerusalemen egin zuen bere egoitza, eta hiri harrasidunak altxatu zituen Judan.

6. Berritu zituen Bethlehem, Etam eta Thekue;

7. Bethsur ere, Soko eta Odolam,

8. Halaber Jeth, Maresa eta Ziph,

9. Aduram ere, Lakis eta Azeka,

10. Orobat Saraa, Ayalon eta Hebron, Judan eta Benjaminen ziren hiri guziz hazkarrak.

11. Eta harrasiz hertsitu zituenean, aitzindariak eman zituen hekietan eta jatekotegiak, erran nahi da olioarentzat eta arnoarentzat.

12. Bertzalde hiri bakhotxean egin zuen erredolentzat eta lantzentzat harmategi bat, eta artha handiz hazkartu zituen, eta Judaren eta Benjaminen gainean manatu zuen.

13. Aphezak berriz, eta lebitarrak, Israel guzian zirenak, haren gana ethorri ziren beren egon-lekhu guzietarik,

14. Beren hiripeak eta gozamenak utziz, eta Judara eta Jerusalemara iragan ziren, Jeroboamek eta haren hurrek irazi zituztelakotz Jaunaren aphezatasuneko eginbideak etzetzaten bethe.

15. Jeroboamek bere lekhu goretako, debruentzat eta berak egin araxteentzat ezarri zituen aphezak.

16. Baina Israelgo leinu guzietarik ere beren bihotza eman zutenak Israelgo Jainko Jaunaren bilhatzen, Jerusalemara ethorri ziren beren bitimen imolatzera beren arbasoen Jainko Jaunaren aitzinean.

17. Hazkartu zuten Judako erresuma, eta lagundu zuten Erroboam Salomonen semea hirur urthez, ezik hirur urthez baizen etziren ibili Dabiden eta Salomonen bideetan.

18. Erroboamek berriz, emaztetzat hartu zuen Mahalath Dabiden seme Jerimoth alaba; hartu zuen Abihail ere Eliaben alaba, Eliab Isairen seme baitzen;

19. Abihailen ganik izan zituen hirur seme, Jehus, Somoria eta Zoom.

20. Hunen ondotik hartu zuen Maaka Absalomen alaba, zeina ganik izan baitzituen Abia, Ethai, Ziza eta Salomith.

21. Bada, Erroboamek Maaka, Absalomen alaba, maithatu zuen bere bertze emazte eta ohaideen gainetik; ezik hartu zituen hemezortzi emazte, eta ohaideak berriz, hirur hogoi; eta izatu zituen hogoi eta zortzi seme eta hirur hogoi alaba.

22. Aldiz aitzineko ezarri zuen Abia Maakaren semea bere anaia guzian buruzagi; ezik hura errege egiteko asmua zerabilkan,

23. Zeren zuhurrago eta gaiago baitien bere anaia guziak baino, zeinak barriatuak baitziren Judako eta Benjamingo eremu guzietan eta hiri



hazkar orotan; eta erregek eman zaroeten jatekoa nasai eta harrarazi zaroetzen emazte asko.

## XII. KAP.

1. Erroboamen erresuma hazkartua eta gogortua izan zenean, erregek Jaunaren legea utzi zuen eta Israel guziak harekin.

2. Bainan Erroboam errege bortzgarren urthean, Sesak, Egiptoko errege, Jerusalemera (Jaunaren kontra bekhatu egin zutelakotz), igan zen.

3. Hamabi ehun orga-lasterrekin eta hirur hogoi mila zaldizkorekin; eta Egiptotik harekin ethorri zen populu xehea, erran nahi Libiarrak, Trogloditak eta Ethiopiarrak, ezin khondatauak ziren.

4. Sesakek Judan hartu zituen hiririk hazkarrenak eta Jerusalemearaino ethorri zen.

5. Bada Semeias profeta Erroboamen aitzinera agertu zen eta Judako aitzindariari, zeinak Sesaken ihes Jerusalemera bilduak baitziren, eta erran zaroeten: Hau dio Jaunak: Zuek utzi nauzue, eta nik ere utzi zaituztet Sesaken eskuetara.

6. Israelgo aitzindariak eta erregek, lurrera eroririk, erran zuten: Zuzena da Jauna.

7. Jaunak ikhusi zuenean jautsia zela hekien buruiopea, bere hitza Semeiasi adiarazi zaroen, zioelarik: Zeren aphaltuak diren, ez ditut galduko; laguntza aphur bat emanen daroet, eta ene hasarrea ez da Jerusalemen gainera jautsiko Sesaken bidez.

8. Bainan halarik-ere Sesak zerbitzatuko dute, jakin dezaten zein den urrun ene zerbitzutik lurreko erregeen zerbitzura.

9. Horren gatik Sesakek Egiptoko errege Jerusalemetik gibelerat egin zuen, Jaunaren etxeko khutzak eta errege-etxekoak husturik; berekin eraman zituen oro eta Salomonek egin zituen urhezko erredolak ere.

10. Erregek hekien orde, kobrezkoak egin zituen eta eman zaroetzen jauregiko sartzea zaintzen zuten erredolarien aitzindariari.

11. Eta errege Jaunaren etxera sartzen zenean, erredolariak ethortzen ziren eta hartzen zituzten, eta gero berriz eramaten zituzten harmategira.

12. Eta nola aphaltu baitziren, Jaunaren hasarrea hekien ganik aldaratu zen eta etziren alde bat xahutuak izan, zeren-eta egintza onak ere aurkhitu baitziren Judan.

13. Erroboam erregea hazkartu zen beraz Jerusalemen eta erreginatzen zen. Berrogoi eta bat urthe zituen erreginatzen hasi zenean, eta hamazazpi urthez erreginatzen zen Jerusalemen, Jaunak bere izenaren jartzeko,

Israelgo leinu orotarik hautatu zuen hirian. Haren ama deitzen zen Naama Amontarra.

14. Aldiz gaizkia egin zuen, eta bere bihotza etzuen aphaindu Jaunaren bilhatzeko.

15. Bada Erroboamen egintzak, lehenak eta azkenak, iskribatuak eta artharekin xehatuak dira Semeias profetaren eta Ado ikhustearen liburuetan. Erroboamek eta Jeroboamek bethi gerla izan zuten elkharren artean.

16. Eta Erroboam bere arbasoekin lokhartu zen, eta ehortzi zuten Dabiden hirian. Eta Abia haren semea erreginatzen zen haren orde.

## XIII. KAP.

1. Jeroboam erregearen hemezortzigarren urthean, Abia erreginatzen zen Judaren gainean.

2. Hirur urthez erreginatzen zen Jerusalemen. Haren ama, Uriel Gabaakoaren alaba, Mikaia deitzen zen. Eta gerla zen Abiaren eta Jeroboamen artean.

3. Abiak gudura egin zuenean, gizon gerlarienetarik eta hautetarik laur ehun mila zituelarik; Jeroboamek lerrotan ezarri zituen zortzi ehun mila gizon, hekiek ere hautak eta gerletarako hazkarrenetarik.

4. Abia gelditu zen beraz Semerongo mendian eta erran zuen: Adi zazue, Jeroboam eta Israel guzia.

5. Ez othe dakizue Israelgo Jainko Jaunak gatzeko patuz bethikotzat Israelgo erreinua eman duela Dabidi, berari eta bere semeei?

6. Eta Jeroboam Nabathen semea, Salomon Dabiden semearen zerbitzaria, jaiki eta bihurtu da bere nausiaren kontra.

7. Eta haren gana bildu dira nihongo gizon ezdeusak eta Belialen semeak, eta garhaitiar atheratu dira Salomonen seme Erroboamen kontra. Bainan Erroboam gizon antzegabe eta bihotz beldurtikoa zen, eta ezin egin zaroeten buru.

8. Eta zuek diozue orai ihardetsiko ahal duzuela Jaunaren erresumari, Dabiden semeen bidez gozatzen duenari, ditutzuelakoan populu oste handi bat eta Jeroboamek jainkotzat egin darozkitzuelako urhezko araxeak.

9. Iraizi dituzte Jaunaren aphezak Aaronen semeak, eta lebitarrak, eta zuentzat aphezak egin dituzte lurreko jendaia guzien arara. Edozein ethor dadien eta bere eskua kontsekra dezan zezen gazte baten eta zazpi ahariren sakrifizioan, jainko ez diren batzuen aphez egiten da.



10. Bainan gure Jauna, bazterrerat uzten ez duguna, Jainkoa da; Aaronen semeetarikako aphezak zerbitzatzen dute Jauna, eta lebitarrek beren lerroa dadukate.

11. Holokaustak ere goiz-arratz egun oroz eskaintzen diozkagu; balsamua legeko manamenduen arabera da egina; ogiak mahain guziz xahu baten gainean dira eskainiak; gure baithan dira urhezko ganderailua eta bere kriseluak, ilhuntzean bizteko bethi; ezen guk gure Jainko Jaun, zuek bazterrerat uzten duzuenaren manamenduak begiratzen ditugu.

12. Beraz gure armadako buruzagia Jainkoa da, eta haren aphez, turutak jotzen dituztenek zuen kontra durrundaratzen dituzte. Israelgo semeak, berautzue zuen arbasoen Jainko Jaunaren kontra guduka, zeren ez baitzaitzue ontsa helduko.

13. Horiek erraten zituelarik Jeroboamek gibelean hedatzen zarozkien zelatak. Bera etsaien parrean zagoelarik, Juda bere armadaz oharkabean inguratzen zuen.

14. Eta Judak begiraturik, ikhusi zuen gerla aitzinetik eta gibeletik heldu zitzaioela, eta Jaunari oihu egin zuen; eta aphezak hasi ziren turutez durrundaka.

15. Judako gizon guziak abiatu ziren orroaka; eta hara non hekiek oihu egiten zutelarik, Jainkoak harritu zituen Jeroboam eta Israel guzia, Abiari eta Judari buruz jarriak zirenak.

16. Israelgo semeak Judaren ihes eman ziren, eta Jaunak arthiki zituen haren eskura.

17. Abiak eta haren populuak egin zuten beraz sarraski gaitza, eta Israeldik bortz ehun mila gizon hazkarrek lurra jo zuten fakhiturik.

18. Israelgo semeak egun hartan aphalduak izan ziren, eta Judako semeak handizki hazkartuak, beren arbasoen Jainko Jauna baithan iduki zutelakotz beren phekiza.

19. Jeroboam ihes zohalarik, Abia ondotik jarraiki zitzaioen, eta haren hirietarik hartu zituen Bethel bere lekhuekin, Jesana bere lekhuekin eta Efron ere bere lekhuekin.

20. Eta geroztik Jeroboamek ezin buru egin zuen Abia bizi zeno; Jaunak jo zuen eta hil izan zen.

21. Beraz Abiak, bere erreinua hazkarturik, hartu zituen hamalaur emazte, eta izan zituen hogoi eta bi seme eta hamasei alaba.

22. Berriz, Abiaren urhatsen eta egintzen gainerako solasak, artha handirekin Ado profetaren liburuan iskribatuak dira.

#### XIV. KAP.

1. Bada, Abia lokhartu zen bere arbasoekin, eta Dabiden hirian ehortzi zuten; eta haren orde erreginatu zen Asa haren semea, zeinaren egunetan lurra bakean egotu baitzen hamar urthez.

2. Asak aldiz egin zuen ongi eta bere Jainkoaren begietan gogaragarri zena; herraustu zituen lekhu gorak eta jainko arrotzen aldareak,

3. Phorroskatu jainko-moldeak eta lukuak ebaki;

4. Eta Judari manatu zaroen bere arbasoen Jainko Jauna bilha zezan, eta begira zetzan legea eta manamendu guziak;

5. Judako hiri guzietarik khendu zituen jainkoaizunen aldareak eta tenploak, eta bakean erreginatu zen.

6. Hiri hazkarrak ere Judan altxatu zituen, deskantsuan zelakotz; eta haren egunetan, Jaunak bakea emanez, etzen batere gerlarik biztu.

7. Horreletan, Judari erran zaroen: Detzagun altxa hiri horiek, ingura detzagun harrasiz, hazkar detzagun dorrez, athez eta zerrapoz, oro gerletarik bakean daudeno, bilhatu dugulakotz gure arbasoen Jainko Jauna, eta inguruan bakea eman darokulakotz. Jo zuten beraz lanari, eta etzen trabarik batere izatu.

8. Bada, Asak bere armadan izan zituen hirur ehun mila gizon erredola eta lantzadunak Judatik; Benjamindik berriz, berrehun eta laur hogoi mila erredolari eta arranbelari, horiek oro gizon hazkarrenetarik.

9. Bada, Zara Ethiopiarra hekien kontra atheratu zen bere armada-ekin, hamar ehun mila gizon eta hirur ehun orga-lasterrekin, eta Maresaraino ethorri zen.

10. Asa berriz, goan zitzaioen bidera, eta gerlakotzat lerroak xuxendu zituen Sephatako haranean, zeina Maresako ondoan baita.

11. Dei egin zaroen Jainko Jaunari eta erran zuen: Jauna, zuri bardin zaitzu, ala lagunt gutiak, ala hainitzak: lagunt gaitzatzu beraz, gure Jainko Jauna; ezik gure sinhestea zutan eta zure izenean izanez ethorri gure oste hunen kontra. Jauna, zu zare gure Jainkoa; gizona zure kontra garai izan ez bedi.

12. Hargatik Jaunak Ethiopiarrek harritu zituen Asaren eta Judaren aitzinean, eta Ethiopiarrek ihesari eman ziren.

13. Asa eta harekin zen populua ondotik jarraiki zitzaizkoten Jeraraino; eta Ethiopiarrek hilak erori ziren, zeren Jaunak sarraskituz xahutuak izan baitziren, haren armada guduka hari zelarik. Judako semeek hartu zuten beraz buluzkin asko.



14. Jo zituzten Jerararen inguruetakoa hiri guziak, ezen ikhara handiak hartu zituen oro; larrutu zituzten hiriak eta harrapakin handia ekharri zuten.

15. Ardien hespilak ere xahaturik, nihonereko azienda eta kameluke-ta bat hartu zuten, eta Jerusalemara bihurtu ziren.

### XV. KAP.

1. Bada Azarias Odeden semea, Jaunaren izpiritua haren baithan jau-zirik,

2. Atheratu zen Asaren bidera eta erran zaroen: Asa, Juda eta zu, Benjamin, adi nezazue: Jauna zuekin izatu da, zuek harekin izatu zarete-lakotz. Baldin hura bilhatzen baduzue, aurkhituren duzue, ordean uzten baduzue, utziko zaituzte.

3. Egun asko iraganen dira Israelen egiazko Jainkoa gabe, aphez irak-haslerik eta legerik gabe.

4. Eta noiz-ere beren hesturan itzuliko baitira Israelgo Jainko Jauna gana eta hura bilhatuko baitute, aurkhituren dute.

5. Orduan ez da bakerik izanen ez ilkhitzen denarentzat, ez sartzen denarentzat; baina alde orotarik lastura sarthuko da lurretako egoiliarren baithan;

6. Ezik populua populuaren kontra, hiria hiriaren kontra gerlan hari-ko dira, zeren Jaunak nahasiko baititu nihonereko hesturan.

7. Zuek beraz hazkar zaitezte, zuen eskuak ez beitez eror; ezen zuen nekhearentzat izanen da sari.

8. Asak aditu zuenean hori, erran nahi da Odeden seme Azarias profetaren hitzak eta profezia, indar hartu zuen, eta jainko-moldeak khendu zituen Judako lur orotik eta Benjamingotik, eta Efraimgo mendiko hiri hartu zituen guziatarik, eta berriz erabili zuen Jaunaren lorioaren aitzinean zen Jaunaren aldarea.

9. Bilarazi zituen Juda eta Benjamin guzia eta hekiekin Efraimgo, Manaseko eta Simeongo arrotzak; ezik Israeldik askok, ikhusirik harekin zela haren Jainko Jauna, haren gana ihes egin zuten.

10. Eta Jerusalemara ethorri zirenean, hirugarren hilabethean, Asaren erregetasuneko hamabortzgarren urthean,

11. Jaunari egun hartan imolatu zarozten, ekharri izan zituzten buluzkin eta harrapakinetik zazpi ehun idi eta zazpi mila ahari.

12. Eta errege, azturaren arabera sarthu zen batasunaren gogortzera, bihotz oroz eta arima guziaz bilha zezatentzat beren arbasoen Jainko Jauna.

13. Eta erran zuen: Baldin norbaitek bilhatzen ez badu Israelgo Jainko Jauna, hil bedi, ttipienetik handieneraino, gizonetik emaztekiraino.

14. Eta goraki Jaunari zin egin zaroten bozkarioz, turuta-durrundaz eta adar-soinuz,

15. Judan ziren guziek burho arthikiz; ezik beren bihotz oroz zin egin zuten, eta beren nahi guziz bilhatu zuten Jauna, eta aurkhitu zuten; eta Jaunak bakea eman zaroeten inguruan.

16. Asa erregeak halaber bere ama Maaka khendu zuen erregetasuneko manamendutik, luku batean egin zuelakotz Priaporen iduria, zeina phorroskatu baitzuen Asak, eta phusketan ezarririk Zedrongo errekan erre.

17. Bada, lekhu gorak utziak izan ziren Israelen oraino; halarik-ere Asaren bihotza garbi izan zen haren bizi guzian.

18. Eta haren aitak eta berak botuz eman zituztenak, zilhar, urhe eta asko untzi eta tresneria, ekharri zituen Jaunaren etxera.

19. Gerlarik berriz, etzen izatu Asaren erregetasuneko hogoi eta hamabortzgarren urthea arteo.

### XVI. KAP.

1. Baina haren erregetasuneko hogoi eta hamaseigarren urthean, Baasa Israelgo errege Judara igan zen, eta Errama harrasi batez inguratzen zuen, Asaren erresumakorik nihor etzedin segurtasunean ez ilkhi, ez sar.

2. Asak beraz Jaunaren etxeko khutxetarik eta errege etxeko khutxetarik hartu zituen zilharra eta urhea, eta Benadad Siriako errege Damasene egoten zenari igorri zarozkan, zioelarik:

3. Bada zure eta ene artean batasun, ene aita halaber eta zure aita eskuz-esku bizi izan dira; hargatik zilhar eta urhe bidali darotzut, arren-eta Israelgo errege Baasarekin duzun batasuna hautsirik, gibelaraz dezazun hura ene ganik.

4. Hori jakinik, Benadadek Israelgo hirietara egorri zituen bere armadetako buruzagiak; hauiek jo zituzten Ahion, Dan, Abelmaim eta Nefthaliko hiri harrasidunak oro.

5. Baasak aditu zuenean hori, utzi zuen Erramaren altxatzea, eta lanetik gibelatu zen.

6. Errege Asak berriz, Juda guzia hartu zuen, eta Erramatik eraman zituzten Baasak hiriaren altxatzeko xuxendu zituen harriak eta zurak, eta Asak hekiatarik egin zituen Gabaa eta Maspha.

7. Orduan ethorri zen Hanani profeta Judako erregeren gana eta erran zaroen: Zeren sinheste izan duzun Siriako errege baithan, eta ez



zure Jainko Jaunaren baithan, horren gatik zure eskutik itzuri da Siriako erregeren armada.

8. Ethiopiarrek eta Libiarrak ez othe ziren hainitz gehiago beren orga-laster, zaldizko eta nihonereko osteaz, zeinak, Jaunaren baithan zinduelakotz sinhetsi, eskuetaratu baitzarozkitzun?

9. Ezik Jaunaren begiak lurrari guziari daudezi begira; eta hainei eman ten daroete indar, zeinek bihotz garbiz sinhesten baitute haren baithan. Zoroki ibili zare beraz, eta horren gatik gerlak zure kontra oraidanik biztuko dira.

10. Eta Asa ikhuslearen kontra samurturik, preso eman zezaten manatu zuen; ezik borthizki horren gainean gaitzitua izan zen, eta populutik asko ordu hartan hilarazi zituen.

11. Bada, Asaren lehenbiziko eta azken egintzak, Judako eta Israelgo erregeen liburuan iskribatuak dira.

12. Asa ere, bere erregetasuneko hogoi eta hemeretzigarren urthean, oinetako oinhaze guziz borthitz batetarik eritu zen; eta bere gaitzean etzuen Jauna bilhatu, baina midikuen antzeari sinheste gehiago ekharri zaroen.

13. Eta lokhartu zen bere arbasoekin, eta hil zen bere erregetasuneko berrogoi eta batgarren urthean.

14. Eta ehortzi zuten, Dabiden hirian eginarazi zuten hobian; ezarri zuten bere ohearen gainean, zeina bethea baitzen baltsamuz eta baltsamuginek antzerekin aphaindu zituzten usain gozoz, eta haren gainean erre zuten faza handitan.

## XVII. KAP.

1. Bada, haren orde erreginatatu zen Josafat haren semea, eta Israeli garaia eraman zaroen.

2. Soldadoak eman zituen Judako hiri harrasiz inguratuak ziren guzietan; eta zainak ezarri zituen Efraimgo mendiko hirietan, haren aita Asak hartu zituenetan.

3. Eta Jauna Josafatekin izan zen, bere aita Dabiden lehenbiziko bideetan ibili zelakotz, eta etzuelakotz Baalen baithan ezarri bere phekiza,

4. Baina-bai bere aitaren Jainkoa baithan, eta haren manamenduetan ibili zelakotz, eta ez Israelen bekhatuetan,

5. Jaunak erregetasuna haren eskuetan gogortu zuen; Juda guziak emaitzak egin zarozkan Josafati, eta nihonereko aberastasunetan eta ospe handitan jarri zen.

6. Eta haren bihotzak Jaunaren bideen ariaz khar bero bat harturik, lekhu gorak ere eta lukuak Judatik khendu zituen.

7. Bada bere erregetasuneko hirugarren urthean, igorri zituen bere azpiko aitzindarietarik Benhail, Obdias, Zakarias, Nathanael eta Mikeas, Judako hirietan irakhastera;

8. Eta hekiekin lebitarrak, Semeias, Nathanas, Zabadias, Asael, Semiramoth, Jonathan, Adonias, Thobias, eta Thobadonias, lebitarrak, eta hekiekin Elisama eta Joram aphezak.

9. Eta Jaunaren legeko liburuak eskuan, populuari irakhasten haritzen ziren Judan; Judako hiriak inguratzen zituzten, eta argitzen zuten populua.

10. Hargatik Jaunaren beldurra, Judako inguruan ziren lurretako erresuma guzietan jarri zen, eta etziren Josafati gerla egitera ausartatzen.

11. Baina Filistindarrek bere Josafati ekhartzen zarozten emaitzak eta diruzko zerga; Arabiarrek halaber ekhartzen zarozten aziendak, zazpi mila eta zazpi ehun ahari eta bertze hainbertze akher.

12. Horreletan Josafat indarretan sarthu zen eta ospe gorenera heldu izan zen. Judan dorre arara etxeak eta hiri harrasizatuak altxatu zituen.

13. Lan hainitz erabili zuten Judako hirietan: gizon gerlari eta hazkarrak baziren halaber Jerusalem.

14. Hau zen hekien nonbrea, bakhotxaren etxe eta familiak: Judan armadako aitzindariak; Ednas buruzagi, eta harekin hirur ehun mila gizon hazkarrenetarik.

15. Haren ondotik lehenbiziko, Johanan, eta harekin berrehun eta laur hogoi mila gizon.

16. Haren ondotik berriz, Amasias Zekriren semea, Jaunari kontsekratua, eta harekin berrehun mila gizon hazkar.

17. Haren ondotik heldu zen Eliada, gerlari gaitza, eta harekin berrehun mila gizon arranbela eta erredoladun.

18. Haren ondotik berriz, Jozabad, eta harekin ehun eta laur hogoi mila soldado biphil.

19. Horiek oro erregeren eskupean zauden, bertzalde zirelarik Juda guzian harrasidun hirietan ezarri zituenak.

## XVIII. KAP.

1. Josafat beraz izan zen aberats eta ospe handitan, eta Akabekin batasun egin zuen.

2. Handik zenbait urtheren buruan, haren gana jautsi zen Samariara. Akabek haren ethortzeari hil zituen hainitz idi eta ahari harentzat eta



harekin ethorri zen populuarentzat; eta bildu zuen Erramoth Galaadekora igaitera.

3. Eta Israelgo errege Akabek erran zaroen Josafati Judako erregeri: Zato enekin Erramoth Galaadekora. Hunek ihardetsi zaroen: Zu eta ni, zure populua eta ene populua, orobat gare; zurekin izanen gare gerlan.

4. Eta Josafatek erran zaroen Israelgo erregeri: Orai berean kontsul-ta zazu othoi Jaunaren nahikaria.

5. Israelgo erregek bilarazi zituen beraz laur ehun profeta eta erran zaroeten: Erramoth Galaadekora gerla egitera goan behar othe dugu, ala phausuan egonen gare? Eta hekiek ihardetsi zuten: Zoaz, eta Jainkoak erregeren eskuetara emanen du.

6. Eta Josafatek erran zuen: Ez othe da hemen Jaunaren profetarik, haren ganik ere argi gaitezen?

7. Israelgo erregek Josafati ihardetsi zaroen: Bada gizon bat, zeinaren bidez galda baitezakeguke Jaunaren nahikaria; baina higuin dut nik, zeren ez baitarot ongirik profetisatzen, baizik-ere gaizkia bethi. Hura da Mikeas Jemlaren semea. Eta Josafatek erran zuen: Ez hola mintza, errege.

8. Israelgo erregek deithu zuen beraz bere ebakietarik bat, eta erran zaroen: Berehala deith zazu Mikeas Jemlaren semea.

9. Bada, Israelgo errege eta Josafat Judako errege, zein bere tronuan jarriak zauden, erregeak bezala jauntziak; eta jarriak ziren Samariako athearen aldeko larrainean, eta profeta guziak profetisatzen hari ziren hekien aitzinean.

10. Sedeziasek berriz, Kanaanaren semeak egin zituen burdinazko adarrak, eta erran zuen: Hau dio Jaunak: Haukietaz harrotuko duzu Siria, leher dezazun arteo.

11. Eta profeta guziek orobat profetisatzen zuten, eta erraten zuten: Igan zaite Erramoth Galaadekora, eta ongi atherako zare, eta Jaunak erregeren eskuetara arthikiren ditu.

12. Aldiz, Mikeasen deitzera goan zen mandatariak erran zaroen: Huna non profeta guzien erranak hitz batean diren erregeri helkari onez berri emateko; othoizten zaitut beraz zure solasa ere izan ez dadien hekienaz bertzelakoa, eta helkari onak agin detzatzun.

13. Mikeasek ihardetsi zaroen: Ala Jauna! zer-nahi erran dizadan ene Jainkoak, hura erranen dudala.

14. Ethorri zen beraz erregeren gana. Erregek erran zaroen: Mikeas, Erramoth Galaadekora gerlara goan behar othe dugu, ala phausuan egonen gare? Hunek ihardetsi zaroen: Igan zaitezte, ezik oro ongi helduren zaizkitzute, eta etsaiak zuen eskuetara arthikiak izanen dira.

15. Eta erregek erran zaroen: Berriz eta berriz Jaunaren izenean errekeitzen zaitut, ez dizadazun niri erran egia bera baizik.

16. Eta Mikeasek erran zuen: Israel guzia ikhusi dut mendietan barraiatua, hala nola artzainik ez duten ardiak; eta Jaunak erran du: Horiek nausirik ez dute, zein bere etxera bakean bihur bedi.

17. Eta Israelgo erregek Josafati erran zaroen: Ez othe narotzun erran etzarodala horrek deus onik profetisatuko, baina gaixtoak direnak?

18. Aldiz, Mikeasek erran zuen: Adi zazue Jaunaren hitza: Jauna ikhusi dut bere tronuan jarria, eta zeruko armada guzia harekin eskuinetik eta ezkerretik.

19. Eta Jaunak erran du: Nork bilduko du Akab Israelgo errege, Erramoth Galaadekora igan dadien eta han eror? Eta bat hula mintzo baitzen eta bertzea hala,

20. Izpiritua aitzinatu zen; baratu zen Jaunaren aitzinean, eta erran zuen: Nik bilduko dut. Jaunak erran zaroen: Nola bilduko duzu?

21. Izpirituak ihardetsi zuen: Ilkhiko naiz eta gezurrezko izpiritu bat izanen naiz haren profeta guzien ahoan. Eta Jaunak erran du: Bilduko duzu eta gaihenduko zare; ilkhi zaite eta egizu hola.

22. Orai beraz, huna non Jaunak gezurrezko izpiritua eman duen zure profeta guzien ahoan, eta Jaunak zorigaitzak agindu ditu zuretzat.

23. Sedeziasek berriz, Kanaanaren semea hurbildu zen eta Mikeas mat-helan jo zuen, eta erran zuen: Zein bidez Jaunaren izpiritua ene ganik iragan duk hiri mintzatzeko?

24. Mikeasek ihardetsi zuen: Zerorrek ikhusiko duzu egun hartan zeinetan gelaz-gela gorde nahiz ibiliko baitzare.

25. Bada Israelgo erregek manu eman zuen, zioelarik: Mikeas har zazue, eta eramazue hiriko buruzagi Amonen gana eta Ameleken seme Joasen gana.

26. Eta erranen diozute: Hau dio erregek: Gizon hau igorrazue preso; ogi izpi bat eta ur xorta bat emanen diozkitzue, bakean bihur nadien artean.

27. Mikeasek erran zuen: Bakean bihurtzen bazare, ez da Jauna ene baithan mintzatu. Eta erran zuen berriz: Populuak, adi zazue guziek.

28. Israelgo errege eta Josafat Judako errege Erramoth Galaadekora igan ziren beraz.

29. Eta Israelgo erregek Josafati erran zaroen: Ene soinekoa aldatuko dut eta hala goanen naiz gudura; zuk berriz, zure soinekoak jauntzatzu. Eta Israelgo errege soinekoa aldatu ethorri zen gerlara.



30. Bada, Siriako erregek bere armadako aitzindarien manu eman zaroten, zioelarik: Ez gudu egin ttipienaren edo handienaren kontra, baik-ere Israelgo errege bakharraren kontra.

31. Hargatik armadako aitzindariak, Josafat ikhusi zutenean, erran zuten: Israelgo errege da hori. Eta gudukatuz inguratu zuten. Baina Josafatek oihu egin zaroen Jaunari, zeinak lagundu baitzuen, eta hekiek urrundu zituen haren ganik;

32. Ezik zaldizkoen aitzindariak utzi zuten ikhusi zutenean etzela Israelgo errege.

33. Gerthatu zen bada, populutik norbaitek gezi bat itsura arthiki zuela eta Israelgo errege jo zuela sorbalden eta lepho-zakhiaren artean. Eta Akabek bere orga-zainari erran zaroen: Itzulak eskua eta gudutik athera nezak, zeren sakhitua bainaiz.

34. Eta perla egun hartan akhabatu zen. Bada Israelgo errege bere orga-lasterrean zagoen Siriarrei buruz ilhuntea arteo, eta iguzkia sartze-ko mugan hil izan zen.

### XIX. KAP.

1. Josafat berriz, Judako errege, bere etxera bakean itzuli zen Jerusalemara.

2. Bidera ilkhi zitzaioen Jehu Hananiren semea eta erran zaroen: Gaixtaginari ematen diozu laguntza eta adiskidantzaz batzen zare Jauna higuin dutenekin; horren gatik merezi zinduen Jaunaren sumindura;

3. Baina egintza onak aurkhitu dira zu baithan, lukuak khendu dituzulakotz Judako lurretik, eta zure bihotza aphaindu duzulakotz zure arbasoen Jainko Jaunaren bilhatzeko.

4. Josafat egotu zen beraz Jerusalemen, eta berriz atheratu zen populura Bersabeetik Efraimgo mendiraino eta berriz deithu zituen beren arbasoen Jainko Jauna ganat.

5. Judako hiri hazkar guzietan, tokiko juieak lekhu bakhotxean ezarri zituen.

6. Eta manu ematean juieei, erran zaroeten: Ikhusazue zer hari zareten, ez duzue ezik gizon erabakia egiten, baina Jaunarena; eta zuek juaizu guzia zuen gain izanen da.

7. Jaunaren beldurra zuekin izan bedi, eta arthatsuki egizkitzue oro; ez da ezen gure Jainko Jauna baithan ez zimarkhurik, ez nor-nor-den berezgorik, ez emaitza goserik.

8. Jerusalemen ere Josafatek ezarri zituen lebitarrak, aphezak eta familia-buruzagiak Israeldik, Jaunaren juiamendua eta zuzenbidea emateko hango egoiliarrei.

9. Eta manatu zaroeten erranez: Horrela egizue Jaunaren beldurrean fidelki eta bihotz osoki xahuarekin.

10. Zuen anaia beren hirietan daudezenen zerbait gora-behera ahaidegoaren eta ahaidegoaren artean zuetara ethorriko denean, non-nahi ihardukipen zerbait balin bada legeaz, manamendu batez, zeremoniez, garbitzapenez, argi zatzue zuen anaiak, ez dezaten Jaunaren alderat bekhatu egin, eta haren hasarrea ez dedien jauts zuen gainera eta zuen anaien gainera: horrela eginez beraz ez duzue bekhatu eginen.

11. Bada, Amarias apheza, zuen aphez-nausia, jarriko da Jainkoari dagozkioen gauzetan erabakitzeko; Zabadias berriz, Ismahelen semea, Judaren etxean buruzagi dena, erregeren alderako eginbideari dagozkioen egitekoen gainean erabakitzeko izanen da; eta zuen aitzinean izanen dituzue lebitar irakhasleak. Egizue bihotzez, ardurarekin hari zaitezte zuen eginbideetan, eta Jauna zuekin izanen da ongitan.

### XX. KAP.

1. Horiez geroz, Moaben semeak, Amonen semeak eta hekiekin Amontarretarik bildu ziren Josafaten kontra, hari gudu emateko.

2. Berri-ekharleak ethorri ziren eta Josafat jakintsun egin zuten, ziotelarik: Oste handi bat zure kontra heldu da itsasoz haindiko leihorretarik eta Siriatik, eta hara non jarriak dauden Asasonthamarren, zeina Engadikoa baita.

3. Bada, Josafat, beldurrak harritia, eman zen guzia Jaunaren othoiztera, eta Juda guziari barur bat manatu zaroen.

4. Eta Juda guzia bildu zen Jaunaren othoiztera, eta oro beren hirietarik ethorri ziren halaber haren errekeitza.

5. Eta Josafat xutik jarriarik Judako eta Jerusalemeko baldarnaren erdian, Jaunaren etxean, lorio berriaren aitzinean,

6. Erran zuen: Gure arbasoen Jainko Jauna, zu zare zeruko Jainkoa eta jendaki guzien erresumetako nausia; zure eskuan dira indarra eta ahala, eta nihork zuri buru egin ez dezake.

7. Gure Jainkoa, ez othe dituztu zuk Israelgo zure populuaren aitzinean hil lur huntako egoiliarrak, eta hau bethikotzat eman zure adiskide Abrahamen ondoregoari?

8. Eta huntan egoitza egin dute, eta hemen zure izenari saindutegi bat altxatu dute, ziotelarik:





9. Baldin gure gainera erortzen badira gaitzak, juiamenduko ezpata, izurritea eta gosetea, zure aitzinean jarriko gare etxe huntan, zeinetan zure izena deithua baita; eta gure atsekabeetan zuri eginen darotzugu deihadar, eta entzunen eta itzurraziren gaituzu.

10. Huna beraz orai Moaben eta Amonen semeak eta Seirgo menditarrak, zeinetarik ez baitzinduen onhetsi iragan zadien Israel, Egiptotik ilkhitzen zenean, bainan horietarik baztertu zen eta etzituen hil:

11. Horiek bertzela hari dira, eta egin-ahalak daramatzate gure khentze-zuk eman izan darokuzun gozamenetik.

12. Gure Jainkoa, ez othe ditutzu bada juiatuko? Ezik ez da gure bait-han indar aski, oste horri buru egin ahal izateko. Bainan nola ez baitakigu zer egin behar dugun, hau bakharrik zaiku gelditzen, gure begiak zure alderat itzultzea.

13. Bada, Juda guzia Jaunaren aitzinean zaroen beren haur, emazte eta bulharreko umeekin.

14. Han zen, berriz, Jahaziel Zakariasen semea, Asaphen semeetarikako lebitarra, Zakarias baitzen Banaiasen seme, Banaias Jehielena, Jehiel Mathaniasena; eta ostearen erdian Jaunaren izpiritua jautsi zen Jahazielen gainera;

15. Eta erran zuen: Juda, eta Jerusalemen zaudeztenak, eta zuk, errege Josafat, orok adi zazue: Hau darotzute Jaunak erraten: Ez izan beldurrik, oste hortaz ez bezaiztete ikhara, gudu hau ezen ez da zuena, bainan-bai Jainkoarena.

16. Bihar jautsiko zarete horien kontra, ezik iganen dira Sis deitzen den patarra gora, eta aurkhituko ditutzue Jeruelgo mortuko parrean den erreka buruan.

17. Etzarete zuek izanen gudukatuko zaretenak; bainan bakharrik zaudezte gogor, eta Jaunaren laguntza zuen gainean ikhusiko duzue, oi Juda eta Jerusalem. Ez izan beldur, ez ikhara; bihar ilkhiko zarete horien kontra, eta Jauna zuekin izanen da.

18. Josafat beraz, eta Juda, eta Jerusalem dar guziak ahuspez erori ziren Jaunaren aitzinean eta adoratu zuten.

19. Kaathen eta Koreren semeetarikako lebitarrek goraki zeruetaraino laudatzen zuten Israelgo Jainko Jauna.

20. Eta biharamunean jaiki zirenean, ilkhi ziren Thekueko mortua barna; eta abiatu ziren ondoan, Josafatek, hekien erdian xutik, erran zaroten: Adi nezazue, Judako gizonak, eta zuek orok, Jerusalem darrak, sinheste izan zazue zuen Jainko Jauna baithan, eta deuseren beldurrik ez duke zue; sinheste izan zazue haren profetetan, eta oro ongi helduko dira.

21. Populuari kontseilu eman zaroen, eta Jaunaren kantatzaileak ezarri zituen, hura lauda zezaten beren andanetan, eta armadaren aitzinean ibiltzeko, eta boz batez erran zezaten: Aithor bihur diozozue Jaunari, zeren bethikoa den haren urrikalpena.

22. Eta laudorioen kantatzen abiatu zirenean, Jaunak itzuli zituen hekien amarruak hekien beren kontra, erran nahi da Amonen, Moaben eta Seirgo mendiko umeenak, zeinak ilkhi baitziren Judari gudu ematera, eta joak izan baitziren.

23. Ezik Amonen eta Moaben semeak jaiki ziren Seirgo menditarren kontra, hekiek hil eta xahutu nahiz; eta lan hori egin zutenean, elkharren kontra ere bihurturik, bata bertzea sakhika hil zuen.

24. Bada, Juda ethorri zenean mortuari begira dagoen bizkarrera, urrundik ikhusi zuen aurkhintza guzia han-harat hilez bethea, eta nihor etzela heriotzeari itzuri ahal izan zenik.

25. Josafat ethorri zen beraz eta populu guzia harekin hilen buluzkinen altxatzera. Asko puska atzeman zuten hilen artean, soinekoak ere eta untzi baliosenak, eta hartu zituzten, halaz non oro ez baitzezazketen ekhar, ez-etare, harrapakinaren handiaren handiz, buluzkinak hirur egunez eraman.

26. Laugarren egunean berriz, Benedizioneko haranera bildu izan ziren; ezik, zeren han benedikatu zituen Jaunak, lekhu hura deithu zuten Benedizioneko harana orai arteo bezala.

27. Eta Jerusalemera bihurtu ziren Judako gizon guziak, Jerusalem darrak eta Josafat hekien buruan, bozkario handitan, Jaunak beren etsaietarik bozkalentzia eman zaroetelakotz.

28. Jerusalemera eta Jaunaren etxera sarthu ziren, gitarrekin, maniu-rrekin eta turutekin.

29. Bada, Jaunaren beldurra erori zen inguruetako erresuma guzien gainera, aditu zutenean Israelen etsaien kontra gudukatu zela Jauna.

30. Eta Josafaten erresuma phausuan egotu zen, eta Jainkoak bakea eman zaroen inguruan.

31. Josafat erreginatzen zen beraz Judaren gainean, eta hogoi eta hamabortz urthe zituen erreginatzen hasi zenean; aldiz, hogoi eta bortz urthez erreginatzen zen Jerusalem; eta haren ama, Selahiren alaba, Azuba deitzen zen.

32. Eta bere aita Asaren bidez ibili zen, eta etzen hartarik makhurtu, Jaunaren aitzinean gogaragarri zena egiten zuelarik.

33. Halarik-ere etzituen khendu lekhu gorak, eta populuak etzuen oraino bere bihotza bere arbasoen Jainko Jauna ganat itzuli.



34. Josafaten gainerako egintzak berriz, lehenak nola azkenak, iskribatuak dira Jehu Hananiren semearen solasetan, Israelgo erregeen liburuetan sarthu zituenetan.

35. Hekiez geroz Josafatek Judako errege adiskidantzak egin zituen Israelgo errege Okoziasekin, zeinaren eginkariak baitziren guziz tzarrak.

36. Eta baltsako izatu zen egitekotzat untzia Tharsisera, goanen zirenak, eta untziketa bat egin zuten Asiongaberren.

37. Baina Eliezer, Maresako Dodauren semeak profetisatu zaroen Josafati, zioelarik: Zeren batasun izan duzun Okoziasekin, Jaunak urratu ditu zure lanak; untziak phorroskatuak dira, eta ezin goan dira Tharsisera.

### XXI. KAP.

1. Bada, Josafat bere arbasoekin lokhartu zen, eta hekiekin Dabiden hirian ehortzi zuten; eta Joram haren semea haren orde erreginatu zen.

2. Hunek anaia zituen Josafaten semeak, Azarias, Jahiel, Zakarias, Azarias, Mikael eta Saphatias, horiek oro Judako errege Josafaten semeak.

3. Beren aitak emaitza handiak egin zaroezten urhetan eta zilharretan eta bizitzeko moldeak hiri guziz hazkar batzuekin Judan eman zaroezten; Jorami berriz, zaharrena zelakotz, erreinua eman zaroen.

4. Joram beraz bere aitaren tronura igan zen; eta bere burua gogortua ikhusi zuenean, ezpataz hil zituen bere anaia guziak eta Israelgo lehenbizikoetarik zenbait.

5. Joramek hogoi eta hamabi urthe zituen erreginatzen hasi zenean, eta zortzi urthez erreginatu zen Jerusalem.

6. Israelgo erregeen bidez ibili zen, Akaben etxeak egin zuen bezala; ezik Akaben, alaba zen haren emaztea, eta gaizkia egin zuen Jaunaren aitzinean.

7. Jaunak halere etzuen galdu nahi izan Dabiden etxea, harekin egin izan zuen batasunaren ariaz, eta agindu zuelakotz argi bat emanen zarotela bethi guzian hari eta haren semei.

8. Orduko egunetan bihurtu zen Edom, Judaren azpiko ez izatea gatik; eta errege bat ezarri zuen bere gaineko.

9. Eta Joram goan zenean bere azpiko aitzindariekin eta berekin zituen zaldizko guziekin, jaiki zen gabaz, eta Edom zeinak inguratu baitzuten, eta haren zaldizkoen aitzindariak oro jo zituen.

10. Halarik-ere Edom egungo eguna arteo bihurtuz egon da, Judaren azpiko ez izatea gatik. Lobna ere orduan atheratu zen Joramen eskupetik. Ezik Joramek bazterrerat utzi zuen bere arbasoen Jainko Jauna.

11. Bertzalde lekhu gorak ere egin zituen Judako hirietan, eta Jerusalemdarrak khutsarazi eta Juda bekhatura erorrarazi zituen.

12. Bada Elias profeta ganik ekharriak izan zitzaizkon gutunak, zeinetan iskribatu baitzen: Hau dio zure aita Dabiden Jainko Jaunak: Zeren ez haizen ibili hire aita Josafaten bideetan eta Asa Judako erregeren bideetan,

13. Baina ibili baihaiz Israelgo erregeen bidez, eta khutsarazi baitituk Juda eta Jerusalemdarrak, Akaben etxeari jarraikiz; hil baitituk bertzalde hire anaiak, hire aitaren etxea, hi baino hobeak zirenak;

14. Huna non Jaunak joko hauen zauri gaitz batez, hire populu, seme, emazte eta izate guziarekin.

15. Hi berriz, eri egonen haiz sabeleko gaitz guziz gaixto batetarik, hire barnekoak emeki emeki egun oroz athera ditezen arteo.

16. Jaunak beraz Joramen kontra jaikarazi zituen Ethiopiarren mugakhide diren Arabiarren gogoia eta Filistindarrena.

17. Eta igan ziren Judako lurrera, eta larrutu zuten, eta eraman zituzten erregeren etxean khausitu izan zen izate guzia, eta bertzalde haren semeak eta emazteak; eta etzitzaioen semerik gelditu Joakaz baizik, zeina sortzez gazteena baitzen.

18. Eta horien guzien gainera, Jaunak jo zuen sabeleko gaitz ezin sendatuzko batez.

19. Eta eguna egunari jarraikiz eta denbora goanez, bi urtheren itzulia bethe zen. Eta gaitz luzeak hiratur, halaz non barnekoak ere arthikitzen baitzituen, gaitzak eta biziak batean eskas egin zaroten. Eta gaitz gaixtoenetik goan zen; eta populuak etzuen ehortzi erretzapeneko ohi-tzaren arabera, haren arbasoei egin zaroezten bezala.

20. Hogoi eta hamabi urthe zituen erreginatzen hasi zenean eta zortzi urthez erreginatu zen Jerusalem. Eta makhur ibili zen, eta Dabiden hirian ehortzi zuten, baina ez erregeen hobian.

### XXII. KAP.

1. Bada, Jerusalemdarrek Okoziasekin haren seme ttipiena errege ezarri zuten haren orde; ezen kanpetan sarthu ziren arabiar ohoinek hil zituzten haren anaia zaharren guziak, hura baino lehenago sorthu zirenak; eta Okoziasekin, Judako errege Joramen semea, erreginatu zen.

2. Berrogoi eta bi urthe zituen Okoziasek erreginatzen hasi zenean, eta urthe batez erreginatu zen Jerusalem; eta haren ama, Amriren alaba, Athalia deitzen zen.

3. Baina hura ere Akaben etxearen bideetarik sarthu zen; ezik bere amak ekharri zuen tzarki egitera.



4. Gaizkia egin zuen beraz Jaunaren aitzinean Akaben etxeak bezala; ezen, bere galpeneko, hekiek izan zituen kontseilari, bere aita hil ondoan.

5. Hekien erranetik ibili zen. Eta Israelgo erregerekin, Akaben seme Joramekin, Erramoth Galaadekota goan zen, Siriako errege Hazaeli gerla egitera; eta Siriarrek sakhitu zuten Joram.

6. Hau Jezrahelera itzuli zen sendatzera; ezen sakhi asko hartu zituen erran den guduan. Beraz Judako errege Okozias, Joramem semea, jautsi zen ikhustekotzat Joram Akaben semea, Jezrahelen eri zagona.

7. Ezik Okoziasen kontra Jaunaren nahia izan zen ethor zadien Joramem ikhustera; eta ethorri zenean, harekin bidera ilkhi zakion Jehuri Namsiren semeari, zeina gantzutu baitzuen Jaunak Akaben etxearen ahutzeko.

8. Beraz Jehuk ezeztatzen zuelarik Akaben etxea, atzeman zituen Judako printzeak, Okoziasen anaien semeak, hura zerbitzatzeko zutenak, eta hil izan zituen.

9. Okozias bera ere bilhaturik, atzeman zuen Samarian gordea zagoela; eta bere aitzinera erakharri zaroetenean, hil zuen, eta ehortzi zuten hura, zeren zen Josafaten semea, bere bihotz oroz Jauna bilhatu zuenarena; eta etzen gehiago zerbaitek ustekeria izateko, Okoziasen odoleko norbait erreginatuko zela;

10. Ezik haren ama Athaliak ikhusirik bere semea hila zuela, jaiki zen eta hil zituen Joramem etxeko errege odolekoak ziren guziak.

11. Bainan Josabethek, erregeren alabak, hartu zuen Joas Okoziasen semea, eta erregeren semeak biltzen hari zituztelarik, ebatsi zuen hekien artetik, eta bere unhidearekin gorde zuen oheetako gelan; Josabeth aldiz, hura gorde zuena, errege Joramem alaba zen, Joiada aphez-handiaren emaztea, Okoziasen arreba; eta hargatik Athaliak etzuen hil Joas.

12. Aphezekin Jaunaren etxean gordea izan zen, lekhuaren gainean Athalia erreginatatu zen sei urtheetan.

### XXIII. KAP.

1. Bada, zazpigarren urthean, Joiadak indar harturik, beretu zituen ehuntariak, erran nahi Azarias Jerohamen semea, Ismahel Johananen semea, Azarias Obeden semea, Maasias Adaiaren semea eta Elisaphat Zekriren semea, eta patu bat egin zuen hekiekin.

2. Eta Juda inguratuz, lebitarrak eta familietako buruzagiak bildu zituzten Judako hiri guzietarik, eta Jerusalem-era ethorri ziren.

3. Oste guziak beraz erregerekin batasun egin zuen Jaunaren etxean, eta Joiadak erran zaroeten: Huna erregeren semea erreginatuko dela, Jaunak Dabiden semeen gainean erran izan duen hitzaren arabera.

4. Huna zer eginen duzuen:

5. Larunbatean zuetarik heldu diren aphez, lebitar eta athalzainen heren bat egonen da atheetan, heren bat berriz, erregeren jauregiko alderat, eta heren bat Asentukoa deitzen den athean; aldiz gainerako populua egonen da Jaunaren etxeko lorioetan.

6. Eta nor-nahi bertzerik ez bedi sar Jaunaren etxean, baizik-ere aphezak eta lebitarretarik eginbideen bethetzen hari direnak; horiek sartuko dira bakharrak, sainduetsiak baitira; eta populuaren gainerako guziak zainduko du Jaunaren etxea.

7. Lebitarrek berriz, zeinek beren harmekin, ingura bezate errege, (bertze nihor tenploan sartzen bada, hila izan bedi), eta izan beitez erregeren inguruan, nahiz sartzen, nahiz ilkhitzen denean.

8. Lebitarrek beraz eta Juda guziak egin zuten, Joiada aphez-handiak manatu guzien arabera; eta zeinek beren gizonak hartu zituzten, hala larunbaten aldira heldu zirenak, nola astea betherik ilkhi behar zirenak; ezik Joiada aphez-handiak, elkharri aste bakhoxka jarraitzen ohi ziren andanak etzituen goaterat utzi.

9. Joiada aphezak ehuntariei eman zaroezten Dabiden lantza, erredola eta erredola motxak, Jaunaren etxean kontsekratu zituenak.

10. Eta populu guzia, ezpatak eskuetan, ezarri zuen erregeren inguruan, aldarearen eta tenploaren aitzinean, tenploko eskuin-aldetik ezkerreko alderaino.

11. Eta erakharri zuten erregeren semea; buruan ezarri zaroten diadema eta eskura eman zaroten legea zadukan liburua eta errege ezarri zuten. Joiada aphez-handiak bere semeekin gantzutu zuen halaber; zorion agiankatu zaroten eta oiuhu egin zuten: Bizi bedi errege!

12. Athaliak hori aditu zuenean, erran nahi da lasterka zabiltzanen eta errege laudatzen zutenen haroa, Jaunaren tenplora populuaren gana sartu zuen.

13. Eta ikhusi zuenean errege tenplo-sartzean mail baten gainean xutik, eta lekhuako populu guzia bozkariotan, turuta durrundaka eta bertze asko tresnez jotzen, eta oihuz laudatzen, hautsi zituen bere soinekoak eta erran zuen: Zimarkhua! zimarkhua!

14. Bada, Joiada aphez-handia ehuntarietara eta armadako aitzindarietara ilkhirik, erran zaroeten: Eramazue tenploko hersguneetarik harat,



eta kanpoan ezpataz hila izan bedi. Eta aphezak manatu zuen etzedin hil Jaunaren etxean.

15. Eta lephotik lothu zitzaizkon; eta errege-etxeke zaldien athetik barnera sarthu zirenean, han hil zuten.

16. Joiadak berriz, bere eta populu guziaren eta erregeren artean batasun egin zuen, Jaunaren populu izatekotzat.

17. Hargatik populu guzia Baalen tenploan sarthu zen eta herraustu zuen; haren aldareak eta itxurak phorroskatu zituen; Mathan ere, Baalen apheza, aldareen aitzinean hil zuten.

18. Aldiz, Joiadak Jaunaren etxean kargudunak ezarri zituen, aphez eta lebitarren esku-peko, zeinak Dabidek Jaunaren etxean berezkatu baitzituen, Jaunari holokausten eskaintzeko, Moisen legean iskribatua den bezala, bozkariotik eta kantuz, Dabiden manuaren arabera.

19. Jaunaren etxeke atheetan ere athalzainak ezarri zituen, edozein gauzaz lohi zena barnerat sar etzedintzat.

20. Eta hartu zituen ehuntariak eta gizonik hazkarrenak, populuko lehenbizikoak eta lekhuko jende xehe guzia, eta Jaunaren etxetik jautsara zi zuten errege, eta errege-etxean sarrarazi zuten athe nausiaren erditik eta errege-alkhian ezarri zuten.

21. Bozkariotan sarthu zen lekhuko populu guzia eta hiria phausuan jarri zen. Athalia berriz, espataz hila izan zen.

#### XXIV. KAP.

1. Joasek zazpi urthe zituen erreginatzen hasi zenean, eta berrogoi urthez erreginatu zen Jerusalem; haren ama deitzen zen Sebia Bersabeekoa.

2. Eta Jaunaren aitzinean ongi zena egin zuen Joiada apheza bizi izan zeno.

3. Aldiz Joiadak harrarazi zarozkan bi emazte, zeinen ganik izatu baitzituen semeak eta alabak.

4. Gero Joasen gogoko izan zen Jaunaren etxean erreberitzapenak egitea.

5. Aphezak eta lebitarrak bildu zituen, eta erran zaroeten: Ilkhi zaitzte Judako hirietara, eta urthe oroz Israel guzia ganik dirua bil zazue zuen Jainkoaren tenploko berritzapenen egiteko, eta hori egizue zalhuki. Bainen lebitarrak nagikiegi haritu ziren.

6. Eta erregek deithu zuen Joiada buruzagia, eta erran zaroen: Zergatik ez duzu artha izan bortxatzeaz lebitarrak Judatik eta Jerusalemetik ekhartzera dirua, Moisek Jaunaren zerbitzariak manatu izan

duena, Israelgo jende guziak ekhar dezan lekhukotasuneko tabernaklearentzat?

7. Ezik Athaliak, inpio tzarrak, eta haren semeek larrutu dute Jainkoaren etxea, eta Jaunaren etxean kontsekratuak izan ziren gauza guzietarik berregindu izan dute Baalen tenploa.

8. Erregek beraz manaturik, khutxa bat egin zuten eta ezarri zuten Jaunaren etxeke athearen ondoan kanpoko aldetik.

9. Eta Judan eta Jerusalemen oihu egin izan zen bakhotxak Jaunari ekhar zezon, mortuan Moisek Jainkoaren zerbitzariak zergatu dirua.

10. Eta buruzagiak eta populua bozkariotan jarri ziren guziak; sarthu ziren eta ekharri zuten Jaunaren khutxara dirua, eta hanbat ezarri zuten, non bethe baitzuten.

11. Eta erregeren aitzinera lebitarren eskuz khutxaren ekhartzeko ordua ethortzen zenean (ezik diru hainitz bazela ikhusten zuten), erregeren iskribaua eta aphez-handiak berezten zuena sartzen ziren eta khutxan zen dirua husten zuten; gero khutxa eramaten zuten bere lekhura; horrela egun oroz egiten zuten, eta bildua izan zen nihonereko dirutzea,

12. Zeina eman baitzaroeten erregek eta Joiadak Jaunaren etxeke lanen kargua zutenei; eta haukiek hartarik sariak ematen zaroetzen harriaphaintzaileei eta lan bakhotxetako langileei, Jaunaren etxearen berritzeko; eta burdin eta kobre lanetan hari zirenei ere, erortzen hasia zenaren gogortzeko.

13. Eta lanean hari zirenek antzetsuki egin zuten, eta harrasietako hirrikadurak hekien eskuz tapatuak ziren; Jaunaren etxea leheneko heinean ezarri zuten eta gogorki egonarazi zuten.

14. Eta lanak oro akhabatu zituztenean, erregeren eta Joiadaren aitzinera ekharri zuten gainerako dirua. Hartarik eginak izan ziren tenploko eginbideetako tresnak, holokaustetakoak, xatak ere eta urhezko eta zilharrezko bertze untiak; eta Joiada bizi izan zen guzian holokaustak gelditu gabe eskaintzen ziren Jaunaren etxean.

15. Bada, Joiada zahartu zen egunez bethea, eta seietan hogoi eta hamar urthetan zelarik hil izan zen.

16. Dabiden hirian erregeekin ehortzi zuten, Israeli eta haren etxeari ongia egin izan zuelakotz.

17. Aldiz, Joiada hil ondoan, Judako buruzagiak sarthu ziren eta adoratu zuten errege, zeina, hekien agurrek biguindurik, hekien nahietara erori baitzen.



18. Jaunaren, beren arbasoen Jainkoaren tenploa bazterrerat utzi zuten, eta zerbitzatu zituzten lukuak eta jainkomoldeak. Bekhatu horren gatik Jaunaren hasarrea biztu zen Judaren eta Jerusalemen kontra.

19. Igortzen zaroetzten profetak, Jaunaren gana bihur zitezen, eta hekien hitzak etzituzten entzun nahi.

20. Horren gatik Jainkoaren izpirituak bethe zuen Zakarias Joiadaren semea; eta populuaren aitzinean jarri zen, eta erran zaroeten: Hau dio Jainko Jaunak. Zertako hausten duzue Jaunaren manamendua? etzaitzue ongi atheratuko. Zertako utzi duzue Jauna, harek ere zuek uzteko?

21. Haukiek bildu ziren haren kontra; Jaunaren etxeko lorioan harrikatu zuten erregeren manuaren arabera.

22. Errege Joas etzen orhoitu Zakariasen aitak, Joiadak harentzat izan zuen urrikalpenaz, baina hilarazi zuen haren semea. Eta hunek hiltzerakoan erran zuen: Ikhus eta bilha beza Jaunak.

23. Eta urthea iragan zenean, Siriako armada igan zen Joasen kontra, Judara eta Jerusalemara ethorri zen, hil zituen populuko aitzindariak oro, eta harrapakin guzia Damasera erregeri igorri zaroen.

24. Eta halere, nahiz Siriar guti ethorri zen, Jaunak hekien eskuetara oste gaitz bat arthiki zuen, zeren bazterrerat utzi zuten beren arbasoen Jainko Jauna; eta Joasen gainean halaber laido handiak erabili zituzten Siriarrek.

25. Eta goatean, hiradura handitan utzi zuten; haren zerbitzariak berriz, haren kontra jaiki ziren, Joiada aphezaren semearen odola nahiz aspertu; bere ohean sakhitu zuten, eta hil zen; eta Dabiden hirian ehortzi zuten, ez ordean erregeen hobietan.

26. Bada, hari zelatak hedatu ziozkatena ziren Zabad, Semaath Amontarraren semea, eta Jozabad, Semarith Moabitarraren semea.

27. Aldiz, haren semeen egitekoak, eta haren-pean bildu izan zen dirutze guzia, eta Jaunaren etxearen erreberripena, Erregeen liburuan art-hatsuki iskribatuak dira; Amasias berriz, haren semea, haren orde erreginatu zen.

## XXV. KAP.

1. Amasias hogoi eta bortz urthetan zen erreginatzen abiatu zenean, eta hogoi eta bederatzi urthez erreginatu zen Jerusalemen. Haren ama deitzen zen Joadan Jerusalemekoa.

2. Ongia egin zuen Jaunaren aitzinean, ez bizkitartean bihotz osoki garbiarekin.

3. Eta iduritu zitzaioenean bere erreinua gothortua, zintzurak eginarazi zaroetzten haren aita erregea hil zuten zerbitzariak.

4. Baina hekien semeak etzituen hilarazi, iskribatua denaren arabera Moisen legeko liburuan, zinetan Jaunak manatu baitu, dioelarik: Aitak ez beitez hil semeen gatik, ez-eta semeak beren aiten gatik; baina bat bedera bere bekhatua gatik hil bedi.

5. Amasiasek beraz Juda guzia bilarazi zuen; xuxendu zituen familia-ka, eta ezarri zituen ehuntariak eta milatariak Juda guzian eta Benjaminen; hogoi urthetarik eta goitikoak zenbat ziren atheratu zuen, eta atzeman zituen hirur ehun mila gizon-gazte gerlarat ilkhitzen zirenak, lantza eta erredola zakhartenak.

6. Israeldik ere saritan hartu zituen ehun mila gizon hazkar, ehun talendu zilharrezkotan.

7. Baina Jainkoaren gizon bat ethorri zitzaioen eta erran zaroen: Oi errege, ez bedi zurekin ilkhi Israelgo armada; ezik Jauna ez da Israelekin, ez-eta Efraimgo seme nihorekin.

8. Baldin uste baduzu armaden indarraren gainean daudezila gerlak, Jaunak etsaiez garhaitaraziko zaitu, alabainan Jaunari dihoakio edo laguntzea, edo ihes igortzea.

9. Eta Jainkoaren gizonari erran zaroen Amasiasek: Zer izanen da bada Israelgo soldadoei eman darozkatedan ehun talenduez? Jainkoaren gizonak ihardetsi zaroen: Jaunak badu nondik zuri eman ahal horiek baino hainitz gehiago.

10. Hargatik Amasiasek berezi zuen Efraimdik ethorri zitzaioen armada, bere tokira itzul zedintzat; eta haukiek Judaren kontra samur handi, itzuli ziren beren lekhura.

11. Bada, gogoia ondurik Amasiasek, eraman zuen bere populua; goan zen Gaztegiatiko haranera eta Seirgo hamar mila gizon jo zituen;

12. Eta bertze hamar mila hartu zituzten Judako semeek; erakharri zituzten harkaitz baten muthurrera, erroizua behera anbildu zituzten, eta lehertu ziren guziak.

13. Baina Amasiasek gudura berekin ez eramatekotzat gibelerat igorri zuen armada hura, Judako hirietara hedatu zen, Samariatik Bethoroneraino, eta hirur mila gizon hilik, harrapakin handi bat egin zuen.

14. Amasiasek berriz, Idumearren sarraskiaren ondotik, eta Seirgo semeen jainkomoldeak eramanik, beretzat hartu zituen jainkotzat, eta adoratzan zituen eta isentsua erretzen zaroeten.



15. Haratik Amasiasek kontra samurturik, Jaunak igorri zaroen profeta bat, zeinak erran baitzaroen: Zertako adoratu ditutzu jainko batzu, beren populua zure eskutik ezin itzurrarazi dutenak?

16. Eta profetak horiek erran ziozkanean, ihardetsi zaroen: Erregeren kontseilaria othe zare? zaude phausuan, hilaraz etzaitzadan. Eta profetak gibelerakoan, erran zuen: Badakit Jaunak zure hiltzea hartu duela gogoan, gaizki hori egin duzulakotz, eta gaineko, ez duzulakotz ene errana onhetsi.

17. Amasiasek beraz Judako erregek, gogoeta txarrenetarik bat egirik, igorri zaroen Joasi, Joakazen seme, Jehuren ilobasoari, Israelgo erregeri, zioelarik: Zato, dugun elkhar ikhus.

18. Eta Joasek berri-emaileak gibelerat bidali zituen, erraten zuelarik: Libanen den astakharloak Libango zedroa gana igorri zuen, zioelarik: Zure alaba ene semeari emaztetzat emozu. Eta hara non Libango oiha-nean ziren basabereak iragan ziren eta astakharloa lehertu zuten.

19. Erran duzu: Jo dut Edom. Eta horren gatik zure bihotza hanturaz goititu da. Jar zaite zure etxean; zertako bilha zure gaitza, ala erortzeko, zu, eta Juda zurekin?

20. Amasiasek etzuen nahi izan entzun, Jaunaren nahia baitzen hura etsaien eskuetara arthikitzea, Edomen jainkoen ariaz.

21. Joas Israelgo errege igan zen beraz, eta elkharri jarri ziren bekhoz-bekho. Amasias berriz, Judako errege Bethsamesen zen.

22. Eta Juda erori zen Israelen aitzinean eta ihes egin zuen bere olhetara.

23. Bada Joasek, Israelgo erregek, Bethsamesen hartu zuen Amasias, Judako errege, Joasen semea, Joakaz baitzen Joasen aita, eta eraman zuen Jerusalemara; urratu zuen hango harrasia Efraimgo athetik Izkinako atheraino laur ehun besotan.

24. Jainkoaren etxean, Obededomen baithan eta errege-etxeko khutxetan ere atzeman zituen urhe, zilhar eta untzi guziak, eta bahi zaudenen semeak ere Samariara eraman zituen.

25. Bada, Amasias, Joasen semea, Judako errege, hamabortz urthe bizi izan zen, Joas, Joakazen semea, Israelgo errege hil ondoan.

26. Amasiasek gainerako egintzak berriz, lehenagokoak eta azkeneakoak, iskribatuak dira Judako eta Israelgo erregeen liburuan.

27. Hura Jauna ganik gibelatu zen ondoan, zelatak hedatu ziozkaten Jerusalemen. Eta nola Lakisera ihes egin baitzuen, gizonak igorririk, han hil zuten.

28. Eta zaldi gainetan gibelerat ekharririk, Dabiden hirian bere arbasoekin ehortzi zuten.

## XXVI. KAP.

1. Bada, Juda guziak hartu zuen Ozias, hamasei urthe zituen, eta bere aita Amasiasek orde errege ezarri zuen.

2. Harek berri zuen Ailath eta bihurtu zuen Judaren azpira, errege lokhartu zen ondoan bere arbasoekin.

3. Oziasek hamasei urthe zituen erreginatzen hasi zenean, eta berrogoi eta hamabi urthez erreginatzen zen Jerusalemen. Haren ama deitzen zen Jekelia Jerusalemekoa.

4. Jaunaren begietan zuzen zena egin zuen, haren aita Amasiasek egin zituen guzien arara.

5. Eta Jauna bilhatu zuen bizi izan zeno Zakarias, argiduna eta Jainkoaren ikhuslea; eta nola Jauna bilhatzen baitzuen, Jaunak orotan bidatu zuen haren urhatsa.

6. Ilkhi zen beraz eta gudukatu zituen Filistindarrak; Jetheko, Jabniako eta Azoteko harrasiak urratu zituen; eta hiri hazkarrak ere egin zituen Azoteko eta Filistindarren lurretan.

7. Eta Jainkoak lagundu zuen Filistindarren kontra, Gurbaalen egoten ziren Arabiarren kontra eta Amontarren kontra.

8. Eta Amontarrek Oziasi emaitzak ekhartzen ziozkaten; eta Egiptoko baztererraino hedatu zen haren izena, haren garhaizia usuen ariaz.

9. Oziasek dorreak Jerusalemen altxatu zituen Izkinako athearen gainean, Haraneko athearen gainean, eta gainerakoak harrasiaren alderdi berean, eta hazkartu zituen dorre hekiek.

10. Dorreak altxatu zituen halaber mortuan, eta urtegi asko egin zituen, arthalde hainitz zuelakotz, hala bazterraldetan, nola mortuaren hedaduran; mahastiak ere eta mahastizainak bazituen mendietan eta Karmelen; ezik lurreko lanei emanikako gizona zen.

11. Aldiz, haren gerlarien armada, gduetara atheratzen zirenean, Jehiel iskribauaren, Maasias irakhaslearen, eta Hananias erregeren azpiko buruzagietarik zenaren manamenduan zen.

12. Eta aitzindari guziak, gizon hazkarren familiaka, bi mila eta sei ehunetara heltzen ziren.

13. Eta hekien azpiko armada guzia heltzen zen hirur ehun eta zazpi mila eta bortz ehun gizonetara, zeinak gerletako onak baitziren, eta erregerentzat gudukatzen baitziren etsaien kontra.



14. Oziasek halaber hekieztat, erran nahi armada guziarentzat egi-narazi zituen erredolak, lantzak, kaskak, bulhar-aitzinekoak, arranbelak eta harri arthikitzeo habalak.

15. Eta Jerusalem egin zituen asko tresna-mota, dorreetan eta harrasi-izkinetan ezarri zituenak, gezi eta harri handi arthikitzeo; eta haren izena urrunera ilkhi zen, zeren Jaunak laguntzen baitzuen eta eman baitzaroen indar.

16. Bainan indarretan sarthu zenean, bihotza hantu zitzaioen bere galgarri, eta utzi zuen bere Jainko Jauna ganako artha, eta Jaunaren tenploan sarthurik, isentsua erre nahi izan zuen baltsamuetako aldarearen gainean.

17. Haren ondotik berehala sarthu zen Azarias aphez-handia eta harekin laur hogoi aphez gizon larderia handienekoak.

18. Erregeri buru egin eta erran zaroeten: Jaunaren aitzinean isentsua erretzea, eginbide hori etzaitzu emana, Ozias; bainan hori aphezena da, erran nahi da Aaronen seme hortarako kontsekratuak izan direnena; ilkhi zaite saindutegitik; ez arbuia, zeren Jainko Jaunak ez baitarotzu ospetan erakhutsiko.

19. Eta Oziasek hasarreturik, esku batez zadukala isentsuntzia isentsua-ren erretzeko, aphezak dixidatzen zituen. Eta ordu berean legena haren belharrean atheratu zen, aphezen aitzinean, Jaunaren tenploan, baltsamuetako aldarearen gainean.

20. Eta Azarias aphez-handiak eta gainerako bertze aphez guziek begiratu zaroetenean, legena ikhusi zuten haren belharrean, eta berehala irazi zuten; bainan berak ere ilkhitzera laster egin zuen, zeren han berean Jaunaren zauriari ohartu baitzen.

21. Errege Ozias legentsu izatu zen beraz bere heriotzeko eguneraino, eta etxe berezi batean egotu zen, Jaunaren etxetik irazarazi zuen legez naz maldatua. Bada, Joatham haren semeak hotseman zaroen erregeren etxeari eta juiatzen zuen lekhuko populua.

22. Berriz, Isaias profetak, Amosen semeak iskribatu zituen Oziasen gainerako egintzak, nahiz lehenak, nahiz azkenak.

23. Eta Ozias bere arbasoekin lokhartu zen, eta erregeen hobietako landan ehortzi zuten, zeren zen legentsua; eta Joatham haren semea erregeginatu zen haren orde.

## XXVII. KAP.

1. Joathamek hogoi eta bortz urthe zituen erregeginatzen hasi zenean eta hamasei urthez erregeginatu zen Jerusalem. Haren ama, Sadoken alaba, Jerusa deitzen zen.

2. Jaunaren aitzinean zuzen zena egin zuen, bere aita Oziasek egin zituen guzien arara, lekhat etzela Jaunaren tenploan sarthu, eta populua bekhatura linburtzen zen oraino

3. Harek altxatu zuen Jaunaren etxeko athe gora, eta lan handiak egin zituen Ophelgo harrasian.

4. Judako mendietan egin zituen hala-ber hiriak, eta oihanetan gazteluak eta dorreak.

5. Gudu egin zuen Amonen semeen erregearen kontra; garhaitu zituen, eta Amonen semeek orduko egunetan eman zarozten zilharrezko ehun talendu, hamar mila koro ogi eta bertze hainbertze koro garagar; horiek eman zarozten Amonen semeek bigarren eta hirugarren urthean.

6. Eta Joatham indarretan sarthu zen, bere bideak bere Jainko Jaunaren aitzinean zuzen eraman zituelakotz.

7. Joatham gainerako egintzak berriz, haren gudu guziak eta lanak, Israelgo eta Judako erregeen liburuan dira iskribatuak.

8. Hogoi eta bortz urthe zituen erregeginatzen hasi zenean, eta hamasei urthez erregeginatu zen Jerusalem.

9. Joatham lokhartu zen bere arbasoekin; Dabiden hirian ehortzi zuten, eta Akaz haren semea erregeginatu zen haren orde.

## XXVIII. KAP.

1. Akazek hogoi urthe zituen erregeginatzen hasi zenean, eta hamasei urthez erregeginatu zen Jerusalem. Etzuen bere aita Dabidek bezala zuzen zena egin Jaunaren aitzinean.

2. Bainan Israelgo erregeen bidetan ibili zen, eta bertzalde jainkomoldeak urthu zituen Baalenzat.

3. Harek erre zuen isentsua Benenomgo haranean, eta bere semeak suaz garbitu zituen, Jaunak Israel ethortzean hil zituen jendaian ohitzaren arabera.

4. Imolatzen zuen halaber eta usain onak erretzen zituen lekhu gortan, munhoetan eta zuhaitz hostotsu guzien azpian.

5. Eta bere Jainko Jaunak arthiki zuen Siriako erregeren eskuetara, zeinak jo baitzuen, eta haren erresumatik harrapakin handi bat hartu eta Damaserat eraman baitzuen. Israelgo erregeren eskura ere arthikia izan zen eta zauri handiaz joa.



6. Eta Phazeek, Errmeliaren semeak, Judatik hil zituen egun batez sei hogoi mila, oro gizon gerlariak, bazterrerat utzi zutelakotz beren arbasoen Jainko Jauna.

7. Orduko egun beretan, Zekrik, Efraimgo gizon ahal handitako batek, hil zituen Maasias erregeren semea, Ezrikam haren etxeko buruzagia, eta Elkana ere erregeren ondotik bigarren zena.

8. Eta Israelgo semeek beren anaietarik hartu zituzten berrehun mila emazteki, haur eta neskatxa, eta nihonereko harrapakina, eta hura Samariara eraman zuten.

9. Egun hekiez han bazen Jaunaren profeta bat Oded deitzen zena, zeina ilkhi baitzen Samariara heldu zen armadaren bidera, eta erran zarotzen: Huna non zuen arbasoen Jainko Jaunak, Judaren kontra hasarrez, arthiki dituen zuen eskuetara, eta latzki hil ditutzue halaz non zeruetara jo baitu zuen gogorkeriak.

10. Bertzalde Judako eta Jerusalemeko umeak zuen muthil eta neskatotzat nahi ditutzue azpiratu, ez baita hori egiteko lana; ezik hortan bekhatu egin duzue zuen Jainko Jaunaren alderat.

11. Bainan adi zazue ene errana eta bihur zatzue zuen anaietarik erakharri ditutzuen gathibuak, zeren Jaunaren hasarre gaitza zuen gainera jaustera baitihoa.

12. Hargatik Efraimgo semeetarik lehenbizikoak, Azarias Johananen semea, Barakias Mosolamothan semea, Ezekias Selumen semea eta Amasa Adaliren semea, jarri ziren gudutik heldu zirenen aitzinean,

13. Eta erran zarotzen: Ez ditutzue hemen sarraraziko gathibuak, beldurrezeta bekhatu egin dezagun Jaunaren alderat. Zertako nahi ditutzue gure bekhatuak berhatu eta gure hoben zaharrak mukhurrutu? ezik handia da bekhatua, eta Jaunaren hasarreko khea sugartzera dihoa Israelen gainera.

14. Eta gerlako gizonak, aitzindarien eta oste guziaren aitzinean, gibelerat igorri zituzten harrapakina eta hartu zituztenak oro.

15. Eta aixtian aiphatu ditugun gizonak ethorri ziren, eta gathibuak harturik eta has ziren guziak, buluzkinetarik jauntzi zituzten; eta soinekoz eta oinetakoz jauntzi, janaz eta edanaz berotu, eta nekhearen gatik gantzutu eta arthatu zituzten ondoan, ezin ibil zitazkeenak eta hebainduak ziren guziak, zamari gainetan ezarri zituzten, eraman zituzten beren anaietara, Jerikora, Palmetako hirira, eta berak Samariara itzuli ziren.

16. Orduko egunetan, errege Akazek Asiriarren erregen bidali zaroen laguntza galdez.

17. Eta Idumearrak ethorri ziren, Judatik haintzak hil zituzten, eta harrapakin handia hartu zuten.

18. Filistindarrak ere zelhaitako hirietan eta Judako hegoaldean barraiatu ziren, eta hartu zituzten Bethsames, Ayalon eta Gaderoth, Soko ere, Thamnam eta Gamzo beren herrieekin, eta hekietan egotu ziren.

19. Ezik Jaunak behehitu zuen Juda, Akazen, Judako erregeren ariaz, bere laguntzaz gabetu baitzuen erdeinatu zuelako zena.

20. Eta Jaunak haren kontra erakharri zuen Thelgathphalnasar Asiriarren errege, zeinak eman baitzaroen atsekabe, eta nihoren enferrarik gabe larrutu baitzuen lekhua.

21. Beraz Akazek biluzi zituen Jaunaren etxea, erregeen eta aitzindarien etxeak, eta emaitzak egin zarozkan Asiriarren erregeri, eta halere etzi-tzaioen batere baliatu.

22. Eta ororen gainera, bere hesturako orduan, errege Akazek berak bere eskuz berhatu zuen Jaunaren alderako erdeinua.

23. Damaseko jainkoei, bere joilei, imolatu zarozten bitimak eta erran zuen: Asiriarren erregeen jainkoek laguntzen dituzte hekiek; nik bitimez jabalduko ditut, eta alde izanen ditut: noiz-ere aitzitik hekiek baitziren haren eta Israel guziaren galgarri.

24. Hargatik Akazek Jainkoaren etxeko untzi guziak harturik eta xehakaturik, hertsi zituen Jainkoaren tenploko atheak, eta aldareak egin zituen Jerusalemeko izkina guzietan.

25. Judako hiri guzietan ere aldareak egin zituen isentsuaren erretzeko, eta hasarretzera ekharri zuen bere arbasoen Jainko Jauna.

26. Haren gainerako egintzak berriz, haren lehenbiziko lanak eta azkenak, oro iskribatuak dira Judako eta Israelgo erregeen liburuan.

27. Eta Akaz bere arbasoekin lokhartu zen, eta Jerusalemeko hirian ehortzi zuten, ezik etzuten Israelgo erregeen hobietan onhetsi. Eta Ezekias haren semea erreginatatu zen haren orde.

## XXIX. KAP.

1. Ezekias erreginatzen hasi zen beraz hogoi eta bortz urthetan zelarik, eta hogoi eta bederatzi urthez erreginatatu zen Jerusalem. Haren ama, Zakariasen alaba, Abia deitzen zen.

2. Jaunaren aitzinean gogaragarri zena egin zuen, Dabidek, haren aitak egin zituen guzien arabera.

3. Bere erregetasuneko lehenbiziko urthean eta lehenbiziko hilabethean, ideki eta berritu zituen Jaunaren etxeko atheladak.





4. Eta erakharri zituen aphezak eta lebitarrak, eta bilarazi zituen iguzki-haizeko plazara.
5. Eta erran zaroeten: Adi nezazue, lebitarrak, eta sainduets zaitezte; zuen Jainko Jaunaren etxea xahu zazue, eta lohikeria guziak khien zatzue saindutegitik.
6. Gure aitek bekhatu egin dute, eta gaizkia gure Jainko Jaunaren aitzinean egin dute, hura bazterrerat utziz; Jaunaren tabernakletik itzuli dituzte begitharteak eta gibela erakhutsi darote.
7. Sartzean ziren atheak hertsu dituzte, hil dituzte argiak, isentsua ez dute erre, eta holokaustak ez dituzte Israelgo Jainkoaren saindutegian eskaini.
8. Hargatik Jaunaren hasarrea subermatua izan da Judaren eta Jerusalem gainera. Eta asalduei, hiltzeketei eta trufei eman ditu, zero-rrak zuen begiz ikhusten duzuen bezala.
9. Eta tzarkeria horren ariaz, gure aitek ezpataren azpira erori dira, eta gure seme, alaba, emazteak eramanak izan dira gathibu.
10. Orain gogarako da batasun egin dezagun Israelgo Jainko Jaunarekin, eta gure ganik aldaratuko du bere hasarrearen hatsa.
11. Ene semeak, ez izan axolagabe: Jaunak hautatu zaituztete haren aitzinean egoteko, hari eginbideen bihurtzeko, haren zerbitzatzeko eta hari isentsuaren erretzeko.
12. Orduan jaiki ziren lebitarrak: Kaathen umeetarik, Mahath Amasairen semea, eta Joel Azariasen semea; aldiz Merariren semeetarik, Zis Abdiren semea, eta Azarias Jalaleelen semea; Jersomen umeetarik berriz, Joah Zemaren semea, eta Eden Joahen semea;
13. Elisaphanen umeetarik berriz, Samri eta Jahiel; Asaphen umeetarik halaber, Zakarias eta Mathanias;
14. Hemanen umeetarik berriz, Jahiel eta Semei; aldiz Idithunen semeetarik, Semeias eta Oziel.
15. Eta bildu zituzten beren anaiak; sainduetsi ziren, eta erregeren manuaren eta Jaunaren manamenduaren arabera, sarthu ziren Jainkoaren etxearen xahutzero.
16. Aphezak ere Jaunaren tenploan sarthu ziren haren sainduestera; barnean lohirik aurkhitu zituztenak oro, athe-sartzera khendu zituzten, eta lebitarrek kanporat Zedrongo errekarera eraman zituzten.
17. Bada, lehen hilabeteke lehenbiziko egunean hasi ziren xahutzen, eta hilabete bereko zortzigarren egunean sarthu ziren Jaunaren tenploko lorioan; zortzi egunez tenploa xahu egin zuten, eta hilabete bereko hamaseigarren egunean, hasi lana akhabatu zuten.

18. Gero Ezekias erregearen aitzinera agertu ziren, eta erran zaroten: Sainduetsi dugu Jaunaren etxe guzia, holokaustetako aldarea eta hango untiak, proposizioneko mahaina ere eta hartako tresnak,
19. Eta errege Akazek bere erregetasuneko denboran, arnegatu zuen ondoan, likhistu zituen puskak oro; eta hara guziak atheratuak daudela Jaunaren aldare aitzinera.
20. Eta Ezekias goizik jaikirik, hiriko buruzagiak oro bildu zituen, eta Jaunaren tenplora igan zen.
21. Eta elkarrekin eskaini zituzten zazpi zezen, zazpi ahari, zazpi bildots eta zazpi akher bekhatuarentzat, erresumarentzat, saindutegiaren-tzat eta Judarentzat; eta erregek Aaronen seme aphezari erran zaroeten, Jaunaren aldarearen gainean eskaint zetzaztela.
22. Aphezek hil zituzten beraz zezenak; odola hartu eta ixuri zuten aldarearen gainean; hil zituzten ahariak ere, eta hekien odola aldarearen gainean ixuri zuten; eta imolatu zituzten bildotsak, eta ixuri zuten odola aldarearen gainean.
23. Hurbilarazi zituzten bekhatuarentzateko akherrak erregeren eta oste guziaren aitzinean, eta eskuak eman zaroezten gainera;
24. Aphezek imolatu zituzten, eta odolaz ihintzadura egin zuten aldarearen aitzinean Israel guziaren xahupenerako; ezik erregek manatu zuen holokausta Israel guziarentzat eta bekhatuarentzat egin izan zedin.
25. Lebitarrak ezarri zituen halaber Jaunaren etxean, zimbalekin, maniurrekin eta gitarrekin, Dabidek, Gad ikhuselek eta Nathan profetak xedatu zuten bezala; ezik Jaunaren manamendu bat zen, bere profeten arartekoz egin.
26. Eta lebitarrak eman ziren Dabiden musikako tresnak eskuan, eta aphezak turutekin.
27. Ezekias ek manatu zuen holokausta eskaint zezaten; hasi ziren Jaunaren laudorioen kantatzen, turuten durrundarazten, eta Dabidek Israelgo erregek xuxendu zituen asko tresnen jotzen.
28. Aldiz oste guzia adoran zagoelarik, kantariak eta turutak zituzte-nak beren eginbideetan ziren, holokausta akhabatu arteo.
29. Eta eskaintza akhabatu zenean, errege gurthu zen eta harekin ziren guziak ere, eta adonatu zuten Jauna.
30. Ezekias ek eta buruzagiak lebitarrei manatu zaroeten Jauna lauda zezaten Dabiden eta Asaph ikhuselearen kantikekin; eta laudatu zuten bozkalentzia handitan, eta belhaunikaturik adonatu zuten.
31. Ezekias ek berriz, hau erran zuen oraino: Jaunarentzat bethe dituzte zuen eskuak; hurbil zaizte, eta bitimak eta laudorioak eskaint zatzue



Jaunaren etxean. Oste guziak beraz, bihotz jainkotiar batekin eskaini zituen bitimak, laudorioak eta holokaustak.

32. Bada, hau izan zen osteak eskaini zituen holokausten nonbrea: hirur hogoi eta hamar zezen, ehun ahari eta berrehun bildots.

33. Eta Jaunari sailduetsi zarozten sei ehun idi eta hirur mila ardi.

34. Aphezak berriz, guti ziren, eta etziren aski holokausten larrutze-ko; hargatik beren anaia lebitarrek lagundu zituzten, lana akhabatu eta aphezak sailduetsiak izan zitezen arteo: ezik ohitza errexagoz sailduets-ten dira lebitarrak aphezak baino.

35. Izatu zen beraz hainitz holokausta, bakezkoen bilgor eta holo-kausten libazione; eta osoan ezarriak izan ziren Jaunaren etxeko ohoreak.

36. Eta Ezekias eta populu guzia boztu ziren, Jaunaren zerbitzua berriz ezarria zelakotz; ezik bat-batean hartu zuen horren egiteko gogoa.

### XXX. KAP.

1. Ezekiasek halaber Israel guziari eta Judari bidali zaroeten, eta gutu-nak iskribatu zaroezten Efraimi eta Manaseri, Jerusalemera ethor zitezen Jaunaren etxera, eta Israelgo Jainko Jaunari egin ziozoten bazkoa.

2. Beraz erregek, buruzagiek eta baldarna guziak Jerusalemen biltzar eginik, erabaki zuten bazkoa bigarren hilabetean eginen zutela.

3. Alabainan bere orduan ezin egin zuten, behar zen bezenbat aphez etzelakotz izan sailduetsirik, eta populua etzelakotz oraino bildua izan Jerusalemera.

4. Eta solasa erregeren eta oste guziaren gogarako izan zen.

5. Eta erabaki zuten mezulariak igorriko zituztela Israel guzira Bersabeetik Daneraino, ethor zitezen eta Israelgo Jainko Jaunari bazkoa Jerusalemen egin ziozoten; ezik askok etzuten egin legez manatua den bezala.

6. Eta erregeren eta buruzagien manuz gutunekin mezulariak goan ziren Israel guzira eta Judara, erregek manatu zaroeten bezala oihi eginez: Israelgo semeak, Abrahamen, Isaaken eta Israelen Jainko Jauna gana bihur zaitezte, eta Asiriarren eskuari itzuri diren ondarrretara itzuliren da Jauna.

7. Ez bezazue egin zuen aita, anaiek bezala, zeinak beren arbasoen Jainko Jauna ganik gibelatu baitira, eta harek, ikhusten duzuen bezala, heriotzeari arthiki ditu.

8. Berautzue gogor zuen buruak zuen aitek bezala; eskuak emotzue-ten Jaunari, eta bethikotzat sailduetsi duen saildutegira zatozte; zerbitza

zazue zuen arbasoen Jainko Jauna, eta zuen gainetik aldaratuko du bere hasarrearen hatsa.

9. Ezik baldin zuek Jauna gana bihurtzen bazarete, zuen anaiek eta semeek urrikalpena aurkhituren dute gathibu eraman dituzten nausien aitzinean, eta lekhu huntara itzuliren dira; ezik urrikalmendutsu eta bark-hatiar da zuen Jainko Jauna, eta ez du bere begithartea zuen ganik aldaratuko, bihurtzen bazarete haren gana.

10. Mezulariak arin zihoazen beraz hiritik hirira Efraimgo eta Manaseko lurak gaindi Zabuloneraino; eta hekiek trufatzen eta eskarniatzen zituzten.

11. Bizkitartean Aserretik, Manasetik eta Zabulondik, bakhar batzuek onhetsirik errana, Jerusalemera ethorri ziren.

12. Judan aldiz, Jaunaren eskua haritu zen hekien baithan, orori bihotz bat emateko, Jaunaren hitza bethe zezaten, erregeren eta buruzagien manuaren arabera.

13. Eta populutze handiak bildu ziren Jerusalemera, airisetako besta-buruaren egitera bigarren hilabetean.

14. Eta jaikirik urratu zituzten Jerusalemen ziren aldareak; eta jainkomoldeei isentsuaren erretzeko erabiltzen zirenak oro phuskaturik, Zedrongo errekarar arthiki zituzten.

15. Bada, bazkoa imolatu zuten bigarren hilabeteako hamalagarren egunean. Aphezek ere eta lebitarrek, noizbait beren buruak sailduetsirik, Jaunaren etxean eskaini zituzten holokaustak.

16. Eta jarri ziren beren lerroan, xedatua zen bezala eta Moise Jainkoaren gizonaren legearen arabera; aphezek berriz, lebitarren eskutik hartzen zuten ihintzaduraren egiteko odola,

17. Oste handi bat bazelakotz sailduetsia etzena; eta hargatik lebitarrek imolatu zaroeten bazkoa ernatu etzirenei beren buruak Jaunari sailduestera.

18. Efraimdik, Manasetik, Isakarretik eta Zabulondik ethorri populutik askok, etzirelarik sailduetsiak, bazkoa jan zuten, ez iskribatua denaren arabera; eta Ezekiasek hekientzat othoitz egin zuen, erraten zuelarik: Jauna ona da, begithartez jarriko da

19. Beren arbasoen Jainko Jauna beren bihotz oroz bilhatzen dute-nei; eta ez darote jazarriko ez direla sailduetsiak.

20. Jaunak entzun zuen, eta jabaldu zitzaioen populuari.

21. Eta Israelgo seme, Jerusalemen aurkhitu zirenek, zazpi egunez egin zuten airisetako besta, bozkario handitan eta egun oroz Jauna laudatuz, eta lebitarrek eta aphezek ere bai, hekien karguari zihoazen tresnak joz.



22. Eta Ezekias bihotzera mintzatu zaroeten Jaunaren gaineko gauzetan ongi aditzen ziren lebitarrei; eta bestako zazpi egunetan jan zuten, bakezko bitimak imolatuz eta beren arbasoen Jainko Jauna laudatuz.

23. Eta oste guziaren gogarako izan zen bertze zazpi egun ere bestazea, eta hala egin zuten bozkalentzia handitan.

24. Ezik Ezekiasek Judako erregek populuari eman zarozkan mila zezen eta zazpi mila ardi; buruzagiak berriz, populuari mila zezen eta hamar mila ardi eman zarozten. Aphezetarik beraz multzo handia izan zen sailduetsia.

25. Eta bozkarioz gaintutua izan zen Judako populu guzia, hala aphezak eta lebitarrak, nola Israeldik ethorri ziren jendetze guziak, Israelgo lurreko proselitak ere eta Judan egoten zirenak.

26. Eta Jerusalemen hanbateko besta bat egin zen, non halakorik ez baitzen hiri hartan izatu Salomon, Israelgo errege, Dabiden semearen egunez geroztik.

27. Azkenean, aphezak eta lebitarrak jaiki ziren populua benedikatzeko zutelarik, eta entzuna izan zen hekien boza, eta othoitz heldu izan zen zeruko egoitza sailduraino.

### XXXI. KAP.

1. Eta bestak, ohitzen arabera eginak izan ziren ondoan, Judako hirietan aurkhitu zen Israel guzia ilkhi zen, eta phorroskatu zituzten jainkomoldeak, ebaki lukuak, urratu lekhu gorak, herrautsi aldareak, ez bakarrik Juda eta Benjamin guzikoak, bainan oraino Efraim eta Manasekoak, errothik arthiki arteo; eta Israelgo semeak oro bihurtu ziren beren gozamen eta hirietara.

2. Bada, Ezekias ek aphez eta lebitar multzoak ezarri zituen andanaka, zein bere eginbidean, erran nahi da hala aphezak nola lebitarrak holo-kaustetako eta bakezkoetako, zerbitza zezaten, aithor eman eta kanta Jaunaren kanpetako atheetan.

3. Aldiz erregeri zihoakon, haren beraren izatetik eskaint zitezen bethi goiz-arrats holokaustak, larunbatetan ere eta hilabeteen lehen egunetan eta bertze besta-buruetan, Moisen legean iskribatua den bezala.

4. Halaber manatu zaroen Jerusalemen zaroen populuari, aphezei eta lebitarrei eman ziozoten beren zuzena, Jaunaren legeko egitekoetan alde bat hari ahal zitezen.

5. Hori populua beharrietara heldu izan zenean, Israelgo semeak asko pikain eskaini zituzten, ogi, arno eta olioarenik, eztiarena ere; eta lurra ekhartzen dituen guzien hamarrenak eskaini zituzten.

6. Halaber Judako hirietan zauden Israelgo eta Judako semeek eskaini zituzten idien eta ardien hamarrenak, eta beren Jainko Jaunari botuz eman zaroezten gauza sailduetsien hamarrenak; eta oro ekhartzearekin, egin zituzten meta haintz.

7. Hirugarren hilabetean hasi ziren meten egiten eta zazpigarren hilabetean akhabatu zituzten.

8. Eta Ezekias eta buruzagiak sarthu zirenean, ikhusi zituzten metak, eta benedikatu zituzten Jauna eta Israelgo populua.

9. Ezekias ek aphezei eta lebitarrei galdatu zaroeten, zertako zauden metak hala.

10. Azarias aphez-handiak, Sadoken odolekoak, ihardetsi zaroen, zio-klarik: Pikainak Jaunaren etxean eskainiak izaten abiatuz geroztik, jan dugu eta ase gare, eta haintz gelditu da, Jaunak benedikatu duelakoz bere populua; eta ondarren nasaizia da ikhusten duzun hori.

11. Ezekias ek manatu zuen beraz bihitegiak antola zetzazten Jaunaren etxean. Hori egin zutenean,

12. Zuzenki sarthu zituzten nahiz pikainak, nahiz hamarrenak eta botuz emanak zirenak oro. Hekietaz berriz, izan zen kargutua Konenias lebitarra, eta bigarrentzat, Semei haren anaia;

13. Eta hunen ondolik, Jahiel, Azarias, Nahath, Asael, Jerimoth, Jozabad, Eliel, Jesmakias, Mahath eta Banaias, Koneniasen eta haren anaia Semeiren azpiko, Ezekiasen eta Azarias Jainkoaren etxeko aphez-handiaren manuz, hekiek baitzuten orotan ikhusteko.

14. Berriz, Kore lebitarra Jemnaren semea, iguzki-haizeko athearen zaina, zen kargutua nor bere oldera Jaunari eskaintzen zituenez, pikainez eta sailduren sailduan kontsekratzen zirenez.

15. Eta haren azpiko ziren Eden eta Benjamin, Jesue eta Semeias, Amarias ere eta Sekenias, aphezen hirietan, zuzenki beren zathiak emateko beren anaiei, ttipiei eta handiei,

16. Bertzalde hirur urthetarik goitiko muthikoei, Jaunaren tenploan sartzen ziren guziei; eta hekien arthako ziren, zerbitzuko eta bertze eginbideetako behar zirenak egun oroz eta beren aldietan,

17. Aphezentzat familiaka, eta lebitarrentzat hogoi urthetarik eta goiti, beren lerro eta andanetan.

18. Eta oste guziari, hala emazteei nola hekien haurrei, muthiko edo neskei, zuzen ematen zaroeten jatekoa, sailduetsiak ziren gauzetarik.

19. Aaronen semeetarik ere baziren bazterraldetan eta hiri bakhotxe-ko hiripetan gizonak ezarriak, aphez eta lebitarretarikako gizonki guziei beren zathiak ematen zarozkatenak.



20. Ezekiasék beraz Juda guzian egin zituen erran ditugunak oro, eta bere Jainko Jaunaren aitzinean egin zuen on, zuzen eta egia zena,

21. Jaunaren etxeko zerbitzuko egitekoetan, lege eta zeremonien arabera, bere Jainkoa nahiz bilhatu bere bihotz oroz; hala egin zuen eta ongi goan zen.

### XXXII. KAP.

1. Horien ondoan, eta horrela zuzenki egin zirenean, ethorri zen Senakerib Asiriarren errege; Judan sarthu zen eta hiri hazkartuak sethiatu zituen, hekiek hartu nahiarekin.

2. Ezekiasék ikhusi zuenean hori, erran nahi da Senakerib ethorri zela, eta gerlako indar guzia Jerusalem kontra bihurtzera zohala,

3. Biltzar eginik aitzindariekin eta gizonik zuhurrenekin, hea tapatu-koto zituzten hiriz kanpoan ziren ithurburuak; eta oro hitz hortako izanik,

4. Oste handi bat bildu zuen, eta tapatu zituzten ithurri guziak eta aurkhintzaren erditik iragaiten zen ur-erreak, ziotelarik: Ethortzen badira Asiriarren erregeak, ur nasaiziarik aurki ez bezate.

5. Altxatu zuen halaber, antzetsuki hariz, urratua izan zen harrasi guzia; gainean altxatu zarozkan dorreak, eta kanpotik bertze harrasi bat; Dabiden hirian berritu zuen Melo, eta egin zituen nola-nahiko harmak eta erre dolak.

6. Armadan glerariei eman zaroezten aitzindariak; guziak bilarazi zituen hiriko atheko plazara, eta hekien bihotzari mintzatu zen, zioelarik:

7. Gizonki hari zaitezte, egizue hazkarretik; ez ikhara; Asiriarren erregearen eta harekin den oste guziaren beldurrik ez izan; ezen harekin baino gurekin hainitz gehiago bada.

8. Ezik harekin haragizko beso bat da; gurekin, gure Jainko Jauna, zeina baita gure laguntzailea eta gure alde gudukatzen dena. Ezekias Judako erregeren horrelako solasek hazkartu zuten populua.

9. Horiek egin ziren ondoan, Senakeribek Asiriarren erregek bere zerbitzariak Jerusalemara igorri zituen (ezik berak bere armada guziarekin Lakis sethiatzen zuen), Judako errege Ezekiasi eta hirian zen populu guziari, zioelarik:

10. Hau dio Senakeribek Asiriarren erregek: Jerusalem sethiatuak zaretenek noren gainean bermatzen duzue zuen peskiza?

11. Ezekiasék ez othe zaituzte enganatzen, gosez eta egarriz zuen hilarazteko, jazarriz zuen Jainko Jaunak Ahriarren erregeren eskutik atheratuko zaituztetela?

12. Ez othe da hori Ezekias hura, haren lekhu gorak eta aldareak urratu dituena; Judari eta Jerusalemari manu eman daroetena, zioelarik: Aldare bakhar baten aitzinean adoratuko duzue eta hartan erreko duzue isentsua?

13. Ez othe dakizue, nik eta ene aitek zer egin diotegun lurreko populu guziei? jendaietako jainkoak izatu othe dira beren lekhuaren atheratzeko ene eskutik?

14. Ene aitek larritu dituzten jendaki guzien jainkoetarik zein da bere populua ene eskuetarik atheratu ahal izan duena, zuen Jainkoak ere zuek esku huntarik athera ahal izateko?

15. Ezekiasék ez bezaitzate beraz engana; haizezko elhe batzuz ez bezaitzate tutulika, ez sinhets hori. Ezen nihongo jendaki eta erresumetako jainkorik ez bada izatu bere populuaren ene eskutik eta ene aiten esku-tarik atheratzeko, holetan zuen Jainkoak ezin atheratuko zaituztete ene eskutik.

16. Senakeriben zerbitzariak bertze asko ere erasi zuten Jainko Jaunaren eta haren zerbitzari Ezekiasen kontra.

17. Gutunak halaber iskribatu zituen, Israelgo Jainko Jaunaren kontra burhoz betheak, eta erran zuen haren gatik: Nola bertze jendaien jainkoak ez baitira izatu beren populuaren ene eskutik atheratzeko, Ezekiasen Jainkoak ere bere populua ezin atheratuko du esku huntarik.

18. Eta oraino, juduaraz oihu handitan mintzo zitzaioen Jerusalemeko harrasi gainean zagoen populuari, hekien izitzeko eta hiriarren hartzeko.

19. Jerusalemeko Jainkoaz mintzatu zen, hala-nola gizonen eskuzko lanak diren lurreko populuaren jainkoez.

20. Beraz Ezekias erregeak eta Isaias profetak, Amosen semeak, othoitz egin zuten burho horien kontra, eta zeruraino heldu zuten beren deihadarra.

21. Eta Jaunak bidali zuen aingeru bat, Asiriarren erregeren armada-gizon hazkar, glerari eta aitzindari guziak jo zituena; eta Senakerib laidotsuki bihurtu zen bere lekhu. Eta bere jainkoaren tenploan sarthu zelarik, bere sabeletik ilkhirikako hurrek ezpataz hil zuten.

22. Eta Jaunak Ezekias eta Jerusalem darrak itzuri zituen Senakerib Asiriarren erregeren eta bertze guzien eskutik, eta bakea eman zaroeten inguruan.

23. Askok halaber bitimak eta sakrifizioak Jerusalemara ekhartzen zarozten Jaunari, eta emaitzak Ezekiasi, Judako erregeri, zeina, horien ondotik, ospetan goratua izan baitzen jendaia guzien begietan.



24. Egun hekiez, Ezekias eritu zen hiltzeko heineraino, eta othoitz egin zaroen Jaunari. Jaunak entzun zuen eta ezagutkari bat eman zaroen.

25. Bainan Ezekias ek izan zituen ongien arabera bihurtu etzuen, zeren hantu baitzen haren bihotza, eta Jaunaren hasarrea biztu zen haren kontra, Judaren eta Jerusalemen kontra.

26. Gero ordean, nahiz hura, nahiz Jerusalem darrak, aphaldu ziren, hantu zitzaioelakoz bihotza, eta hargatik Jaunaren hasarrea etzen hekien gainera jautsi Ezekiasen egunetan.

27. Bada, Ezekias aberats eta aiphu handitan izan zen; bildu zituen zilhar eta urheketa handiak, harri baliosak, baltsamuak, harma-mota orotarik eta balio handiko untiak;

28. Bete zituen bihitegiak, arnotegiak eta oliotegiak; abere guzientzat bazituen heiak, eta hespilak arthaldeentzat.

29. Beretzat egin zituen hiriak; ezik nihonereko ardi eta abere arthaldeak bazituen, Jaunak ontasun gaitzak eman zarozkalakoz.

30. Ezekias hura bera da, Jihonen gaineko ithurria tapatu zuena, eta urak lupherat aldaratu zituen Dabiden hiriko mendebal-alderat; eta ongi atheratu zen burutan hartu zituen lan guzietan.

31. Bizkitartean igorriak izan zitzaizkonean Babilonako lehenbiziko-etarik bidalkinak, lurraren gainean erthatu zen sendagailaz galdegitera, Jainkoak utzi zuen, frogatua izan zedin, eta alfer zitezentzat haren bihoztean ziren guziak.

32. Bada, Ezekiasen gainerako egintzak eta haren ongieginak iskribatuak dira Isaias profeta Amosen semearen ikhuspenean, eta Judako eta Israelgo erregeen liburuan.

33. Eta Ezekias lokhartu zen bere arbasoekin, eta Dabiden semeen hobien gaineko aldean ehortzi zuten; eta Juda guziak eta Jerusalem darrak orok zelebratu zituzten haren hilotsak; eta Manase haren semea erregina-tu zen haren orde.

### XXXIII. KAP.

1. Manasek hamabi urthe zituen erreginatzen hasi zenean eta berrogoi eta hamabortz urthez erreginatu zen Jerusalem.

2. Bainan gaizkia egin zuen Jaunaren aitzinean, Jaunak Israelen aitzinean xahutu zituen jendaien izigarrikerien arabera.

3. Eta Jauna ganik itzulirik, berritu zituen haren aita Ezekias ek urratu zituen lekhu gorak; Baali aldareak altxatu zarozkien, lukuak egin, eta zeruko izarrerria guzia adonatu eta zerbitzatu zuen.

4. Aldareak egin zituen halaber Jaunaren etxean, zeintaz Jaunak erran baitzuen: Jerusalem izanen da bethi guziko ene izena.

5. Bada, aldare hekiek, Jaunaren etxeko bi lorioetan, zeruko armada guziari altxatu zarozkien.

6. Bere semeak ere suan iraganarazi zituen Benenomgo haranean; ametsei begiratzen zen, jarraitzen zen zelatei, gaizkinkeriak erabiltzen zituen, berekin bazituen magoak eta xarmatzaileak; eta gaizki hainitz egin zuen Jaunaren aitzinean, haren samurrarazteko.

7. Jainkomolde bat ere eta itxura urthu bat ezarri zituen Jainkoaren etxean, zeintaz Jainkoa Dabidi eta haren seme Salomoni mintzatu baitzen, zioelarik: Etxe huntan eta Jerusalem, zeina Israelgo leinu guzietarik hautatu baitut, bethi guziko ezarriko dut ene izena.

8. Eta Israeli ez darot oina higiaraziko horien arbasoei eman diotedan lurretik; halaz bizkitartean non begiratuko baitituzte Moisen artekotz eman daroeztan legea, zeremoniak eta erabakiak.

9. Manasek beraz Juda eta Jerusalem darrak bildu zituen gaizkiaren egitera, Jaunak Israelgo semeen aitzinean xahutu zituen jendaki guzientz gainetik.

10. Eta Jauna mintzatu zitzaioeten hari eta haren populuari, eta etzuten entzun nahi izan.

11. Hartako gaineratu ziozkaten Ahriarren erregearen armadako buruzagiak, eta Manase hartu zuten, eta eskuak eta zangoak burdinaztatuturik, Babilonara eraman izan zuten.

12. Hesturak atzeman zuen ondoan, othoiztu zuen bere Jainko Jauna, eta handizki penitentzia egin zuen bere arbasoen Jainkoaren aitzinean.

13. Othoiztu eta minki errekeitu zuen, eta Jaunak entzun zuen haren othoizta, eta hura Jerusalem bere erresumara bihurrarazi zuen, eta Manasek ezagutu zuen Jauna bera zela Jainko.

14. Horiez geroz harrasi bat egin zuen Dabiden hiriaren kanpotik, Jihonen mendebalerat, haranean, Arrainen athe sartzetik Opheleraino, eta borthizki goratu zuen hura, eta armadako aitzindariarik ezarri zituen Judako hiri hazkar guzietan.

15. Iraizi zituen jainko arrotzak eta Jaunaren etxeko jainkomoldea; Jaunaren etxeko mendian Jerusalem berak egin aldareak ere, eta oro hiriz kanporat arthiki zituen.

16. Berritu zuen halaber Jaunaren aldarea, holokaustak eta bakezko bitimak eskaini eta esker onak bihurtu zituen, eta Judari manatu zaroen zerbitza zezan Israelgo Jainko Jauna.



17. Halarik-ere populuak lekhu goretan imolatzen zuen oraino bere Jainko Jaunari.

18. Manaseren gainerako egintzak berriz, haren othoitza bere Jainkoari, eta ikhulseek hari Israelgo Jainko Jaunaren izenean erraten zarozten hitzak ere, Israelgo erregeen egintzetan idukiak dira.

19. Haren othoitza ere eta nola entzuna izan zen, haren bekhatu guziak eta eskarnioak, tokiak halaber zeinetan altxatu baitzituen lekhu gorak eta egin lukuak eta jainkomoldeak, penitentzia egiteko aitzinean, Hozairen liburuan iskribatuak dira.

20. Manase lokhartu zen beraz bere arbasoekin, eta bere etxean ehortzi zuten; eta haren orde erreginatzen Amon haren semea.

21. Amonek hogoi eta bi urthe zituen erreginatzen hasi zenean, eta bi urthez erreginatzen Jerusalem.

22. Gaizkia egin zuen Jaunaren aitzinean haren aita Manasek egin izan zuen bezala; eta Manasek eginikako jainkomolde guziei imolatu zarotzen eta zerbitzatu zituen.

23. Eta Jaunaren begitharteari etzaroen agurrik ekharri, haren aita Manasek ekharri zaroen bezala; bainan bekhatu hainitz handiagotara erori zen.

24. Eta nola haren zerbitzariak elkarrekin haren kontra zin hartu baitzuten, hil izan zuten bere etxean.

25. Bada, populuko oste gainerakoak, Amon sakhitu zutenak hilik, Josias haren semea ezarri zuten errege haren orde.

#### XXXIV. KAP.

1. Josiasek zortzi urthe zituen erreginatzen hasi zenean, eta hogoi eta hameka urthez erreginatzen Jerusalem.

2. Jaunaren aitzinean zuzen zena egin zuen eta bere arbaso Dabiden bideetan ibili zen; etzen makhurtu ez eskuin ez ezker.

3. Bada, bere erregetasuneko zortzigarren urthean, haurra zelarik oraino, bere arbaso Dabiden Jainkoaren bilhatzen abiatu zen; eta erreginatzen hasita hamabigarren urthean, Juda eta Jerusalemeko garbitu zituen lekhu gora, luku, jainkomolde eta itxura zizelatuetarik.

4. Haren aitzinean urratu zituzten Baalen aldareak; eta hekien gainean ezarriak izan ziren itxurak phorroskatuak izan ziren; lukuak ere art-hiki eta jainkomoldeak xehakatu zituen; eta hekiei imolatzen ohi izan zutenen hobien gainera barraiatu zituen puskak.

5. Bertzalde aphezzen hezurak erre zituen jainkomoldeen aldareen gainean, eta xahutu zituen Juda eta Jerusalem.

6. Eta oraino Manaseko, Efraimgo, Simeongo eta Nefthaliko hirietan oro urratu zituen.

7. Eta aldareak herrautsi, lukuak eta jainkomoldeak puskakatu eta tenploak oro urratu zituenean Israelgo lur guzian, Jerusalemera bihurtu zen.

8. Beraz bere erregetasuneko hemezortzigarren urthean, lurra eta Jaunaren tenploa orduko xahuturik, igorri zituen Saphan Eseliasen semea, Maasias hiriko buruzagia eta Joha, Joakaz agerizainaren semea, bere Jainko Jaunaren etxearen berritzera.

9. Haukiek goan ziren Helzias aphez-handia gana, eta haren eskutik harturik Jaunaren etxera ekharria izan zen dirua, eta lebitarrek eta athal-zainek Manasetik, Efraimdik eta gainerako Israel guzitik bildu zutena, eta Juda guzitik, Benjamindik eta Jerusalemдарretarik,

10. Jaunaren etxeko langileen buruzagiei eskuetara eman zarotzen, tenploaren berritzeko eta erituak ziren guzian xuxentzeko.

11. Eta hauiek diru hura eman zarotzen langileei eta harginei, erostekotzat harrobi-harriak eta zurak tenploko zureriako eta Judako erregeek urratu zituzten etxeen dornadurako.

12. Hauiek oro zuzenki egiten zituzten. Bada, langileen buruzagiak eta lana hertsatzen zutenak, ziren Jahath eta Abdias Merariren semeetarik; Zakarias eta Mosolam Kaathen semeetarik; oro musika jotzen zakiten lebitarrak.

13. Eta asko lanetako haxeketan hari zirenen gaineko, iskribauak ziren eta athalzain nausiak lebitarretarikakoak.

14. Eta Jaunaren tenplora ekharria izan zen dirua eramaten zutelarik, Helzias aphez-handiak khausitu zuen Jaunaren legeko liburua, Moisen eskutikakoa.

15. Eta Saphan iskribauari erran zaroen: Jaunaren etxean aurkhitu dut legeko liburua. Eta eman zaroen.

16. Eta Saphanek liburua erregeri ekharri zaroen, eta lanetako berriak eman ziozkan, zioelarik: Zure zerbitzariak eskuetaratu diozkatuzten lan guziak egiten hari dira.

17. Jaunaren etxean aurkhitu den dirua bildu dute; eta langileen aitzindariak eta asko lanen egileak emana da.

18. Bertzalde Helzias aphezak eman izan darot liburu hau. Hura erregeren aitzinean irakurtu zuenean,

19. Eta erregek aditu zituenean legeko hitzak, urratu zituen bere soinekoak,



20. Eta manatu zituen Helzias, Ahikam Saphanen semea, Abdon Mikaren semea, Saphan iskribaua ere eta Asaas erregeren zerbitzaria, zio-  
elarik:

21. Zoazte eta Jauna othoitz zazue enetzat eta Israelgo eta Judako ondarentzat, atzeman den liburu hortako hitz guzien gainean; ezik Jaunaren hasarre gaitza ixuri da gure gainera, zeren gure aitek begiratu ez dituzten Jaunaren hitzak, liburu hortan iskribatuak diren guzien egiteko.

22. Beraz Helzias, eta harekin batean erregez manatuak izan zirenak, goan ziren Olda profetesa Setumen emaztea gana, Selum baitzen Thekuathen seme eta hekuath Hafra soin-zainarena. Olda Jerusalemeko bigarrenean egoten zen, eta erran zarozten hari gorago aipatu dituganak.

23. Oldak ihardetsi zaroeten: Hau dio Israelgo Jainko Jaunak: Errozue ni gana bidali zaituzteten gizonari:

24. Hau dio Jaunak: Huna non nik erakharriren ditudan lekhu horren gainera eta horgo egoiliarren gainera, Judako erregeren aitzinean irakurtu den liburu hortan iskribatuak diren madarizione guziak;

25. Zeren utzi nauten bazterrat eta jainko arrotzei sakrifikatu duten, ene hasarrearen jausarazteko beren eskuetako lan guzietz: har-  
gatik ene hasarrea lekhu horren gainera ixuriko da eta ez da iraungiko.

26. Judako erregeri berriz, Jaunaren errekeitzera igorri zaituztetena-  
ri, hunela mintzatuko zarete: Hau dio Israelgo Jainko Jaunak: Nola entzun baitituzu liburu hortako hitzak,

27. Eta beratu baitu zure bihotza, eta Jainkoaren aitzinean aphan-  
du baitzare lekhu horren kontra eta Jerusalemarren kontra erranak diren  
gainean, ene begitharteari agur ekharri baitiozu, hautsi baitituzu zure soi-  
nekoak, eta ene aitzinean nigar egin baituzu, nik ere entzun zaitut, dio  
Jaunak.

28. Ezik laster bilduko zaitut zure arbasoetara eta bakean eraman  
izanen zare zure hobira; eta zure begiek ez dute ikhusiko lekhu horren  
gainera eta horgo egoiliarren gainera jausaraziko dudan gaitza. Hargatik  
erregeri heldu zarozten harek erran guziak.

29. Eta erregek Judako eta Jerusalemeko zaharrak oro bilarazirik,

30. Igan zen Jaunaren etxeka, eta harekin batean Judako gizon guziak  
eta Jerusalemeko egoiliarren, aphezak eta lebitarrak, eta populu guzia tti-  
pitik handiraino. Erregek, hekiek aditzen zutelarik, Jaunaren etxean ira-  
kurtu zituen liburuko hitz guziak;

31. Eta bere jar-lekhuan xutik, patu jo zuen Jaunaren aitzinean, haren  
ondotik ibiltzeko, haren manamendu, lekhukotasun eta zeremoniak bere

bihotz oroz eta arima guziz begiratzeko, irakurtu zuen eta liburu hartan  
iskribatuak zirenen egiteko.

32. Horren gainean zin-eragin zaroeten halaber Jerusalemen eta  
Benjaminen khausituak izan ziren guziei, eta Jerusalemartek onhetsi  
zuten beren arbasoen Jainko Jaunarekilako patua.

33. Josiasek beraz Israelgo semeen lekhu guzietarik irazi zituen izi-  
garrikeriak oro; eta Israelen gelditu ziren guziei zerbitzarazi zaroeten  
beren Jainko Jauna. Hura bizi izan zen, etziren aldaratu beren arbasoen  
Jainko Jauna ganik.

### XXXV. KAP.

1. Gero Josiasek Jaunari egin zaroen bazkoa, zeina imolatua izan bai-  
tzen lehenbiziko hilabethearen hamalagarren egunean.

2. Aphezak ezarri zituen beren karguetan, eta berotu zituen beren  
eginbideak Jaunaren etxean bethetzera.

3. Halaber lebitarrei, zeinen irakaspenetara Israel guzia sainduetsia  
baitzaioen Jaunari, erran zaroeten: Salomon Israelgo erregek, Dabiden  
semeak altxatu izan duen tenploko saindutegian ezar zazue arkha; ez duzue  
alabainan gehiago erabiliko; orai aldiz zuen eginbideak bethe zotzute zuen  
Jainko Jaunari eta Israelgo haren populuari.

4. Zuen etxeka eta ahaidekoka, zein zuen lerroan xuxent zaitetze,  
Israelgo errege Dabidek manatu eta Salomon haren semeak iskribatu  
bezala.

5. Eta saindutegian lebitar familiaka eta andanaka bethe zatzue egin-  
bideak.

6. Sainduetsi zaretan ondoan, imola zazue bazkoa; zuen anaiak ere  
bidetan ezar zatzue, egin ahal izan dezaten, Jaunak Moisen arartekoz  
erran hitzen arabera.

7. Josiasek bertzalde bazkoko besta-buruan aurkhitu zen populu  
guziari eman zarozkien arthaldeetarik eta gainerako aziendetarik hogoi  
eta hamar mila bildots eta pittika eta hirur mila idi ere; horiek oro erre-  
geren ontasunetik.

8. Haren azpiko buruzagiek ere eskaini zituzten beren oldez agindu  
zituztenak oro, hala populuari, nola aphezei eta lebitarrei. Aldiz  
Helziasek, Zakariasek eta Jahielek, Jaunaren etxeko buruzagiek, bazkoa-  
ren egiteko aphezei eman zaroezten nahasteka bi mila eta sei ehun azien-  
da eta bortz ehun idi.

9. Koneniasek berriz, eta Semeiasek eta Nathanaelek, haren anaiak,  
Hasabiasek ere eta Jehielek eta Jozabadek, lebitarren aitzindariak, bertze



lebitarrei bazkoaren zelebrazteko eman zaroetzen bortz mila azienda xehe eta bortz ehun idi.

10. Bestakotzat oro xuxenduak izan ziren eta aphezak jarri ziren beren eginbideetan; lebitarrak ere andanaka, erregeren manuaeren arabera.

11. Bazkoa imolatua izan zen; aphezek beren eskuz egin zuten odol-lezko ihintadura, eta lebitarrek larrutu zituzten holokaustak.

12. Eta berezi zituzten ematekotzat etxeka eta familiaka, eta Jaunari eskaintzekotzat, Moisen liburuan iskribatua den bezala; idietarik ere orobat egin zuten.

13. Eta bazkoa erre zuten suan, legean iskribatua den bezala; bakezko bitimak berriz, bertz, diphina eta eltzetan egosi zituzten, eta zalhuki zathitu zarozten populu guziari.

14. Aldiz xuxendu zituzten gero berentzat eta aphezentzat; ezik holokausten eta bilgorren eskaintzeak iduki zituen ilhundu arteo; hargatik lebitarrek berentzat eta Aaronen seme aphezentzat azkenik xuxendu zituzten.

15. Asaphen seme kantariak berriz, beren lerroan zaudezen, Dabiden eta erregeren profeta Asaphen, Hemanen eta Idithunen manuaeren arabera; athalzainak berriz, athe bakhotxean ernerik zaudezen, halaz non urhats batez ere ez baitziren beren eginbidetik aldaratzen; horren gatik beren anaia lebitarrek xuxendu zaroeten jatekoa.

16. Egun hartan beraz, Jaunaren alderako eginbidea, ohitzen arabera izan zen bethea, bazkoaren egitean, eta holokaustak Jaunaren aldare gainean eskaintzen, errege Josiasek manatu bezala.

17. Eta Israelgo seme han aurkhitu zirenek egin zituzten orduan bazko eta airisetako besta zazpi egunez.

18. Etzen hura iduririkako bazkorik Israelen izatu Samuel profetaren egunez geroztik; eta Israelgo errege guzietarik batek ere etzaroeten bazko bat egin nola Josiasek aphezeti, lebitarrei, Judatik eta Israeldik han aurkhitu ziren guziei eta Jerusalemдарrei.

19. Bazko hura Josiasen erregetasuneko hemezortzigarren urthean izan zen zelebraztua.

20. Josiasek tenploa erreberritu zuen ondoan, Nekao Egiptoko errege igan zen Karkamisen, Ufrata-aldean, gerla egiteko; eta Josias atheratu zitzaioen bidera.

21. Baina Nekaok Josiasi bidalkinak igorririk, erran zaroen: Judako errege, zer da zure eta ene arteko? ez naiz egun heldu zure kontra, baina gudukatzen dut bertze etxe bat, zeinaren kontra laster goateaz manatu

baitarot Jainkoak bara zaite ibiltzetik Jainkoaren kontra, zeina enekin baita, beldurrez-eta hil zaitzan.

22. Josiasek etzuen nahi izan itzuli, ordean Nekaori gerla egiteko eginbidetan eman zen; etzitzen onhetsi Nekaoren ganik Jainkoaren ahotikako solasak, baina goan zen Maiedoko zelhaiean gudukatzera.

23. Eta han arranbelariet jorik, erran zaroeten bere muthilei: athera nezazue gudutik, minki sakhitua bainaiz.

24. Haukiek orga-laster batetik aldatu zuten bertze batera, zeina, erregeen ohitzara, ondotik heldu baitzen; eraman zuten Jerusalemera, eta hil zen. Bere arbasoen hobian ehortzi zuten. Juda guziak eta Jerusalemek deithoratu zuten,

25. Eta gehienik Jeremiasek, zeinaren Josiasen gaineko Deithoreak egungo eguna arteo errepikatuak baitira gizon eta emazteki kantariez, eta hori lege bat bezala egin da Israelen. Kantu hura iskribuz ekharria da Deithoreetan.

26. Josiasen gainerako egintzak berriz, haren ongiegina, Jaunaren legeaz manatuak zirenak,

27. Haren lehenbiziko eta azken egintzak ere iskribatuak dira Judako eta Israelgo erregeen liburuan.

### XXXVI. KAP.

1. Lekhuko populuak beraz hartu zuen Joakaz Josiasen semea, eta bere aitaren orde errege ezarri zuen Jerusalemen.

2. Joakazek hogoi eta hirur urthe zituen erreginatzen hasi zenean, eta hirur hilabetez erreginatu zen Jerusalemen.

3. Baina Egiptoko erregek, Jerusalemera ethorri zenean, khendu zaroen khoroa, eta ehun talendu zilharrezkoz eta urhezko talendu batez zergatu zuen lekhua.

4. Joakazen orde haren anaia Eliakim ezarri zuen errege Judaren eta Jerusalemen gainean, eta izena aldatuz Joakin deithu zuen. Joakaz berriz, berekin hartu zuen eta eraman zuen Egiptora.

5. Joakinek hogoi eta bortz urthe zituen erreginatzen hasi zenean, eta hameka urthez erreginatu zen Jerusalemen; eta gaizkia egin zuen bere Jainko Jaunaren aitzinean.

6. Haren kontra igan zen Nabukodonosor Kaldearren errege, eta burdinetan eraman zuen Babilonara.

7. Eta harat eraman zituen Jaunaren untziak eta bere tenploan ezarri zituen.





8. Joakinen gainerako egintzak berriz, harek erabili zituen tzarkeriak eta haren baithan aurkhitu zirenak, Judako eta Israelgo erregeen liburuan idukiak dira. Aldiz, Joakin haren semea erreginatu zen haren orde.

9. Joakinek zortzi urthe zituen erreginatzen hasi zenean; hirur hila-bethe eta hamar egunez erreginatu zen Jerusalem, eta gaizkia egin zuen Jaunaren aitzinean.

10. Urtheak bere ingurua egin ondoan, Nabukodonosor erregeak igorri zituen soldadoak, zeinek Babilonara erakharri baitzuten, hanbatean eramaten zituztelarik Jaunaren etxeko untzi baliosenak. Aldiz, Judaren eta Jerusalem gainean Sedezias Joakinen osaba ezarri zuen errege.

11. Sedeziasek hogoi eta bat urthe zituen erreginatzen hasi zenean, eta hameka urthez erreginatu zen Jerusalem.

12. Gaizkia egin zuen bere Jainko Jaunaren aitzinean, eta etzuen ahal-katu Jeremias profetaren begitharteak, Jaunaren ahotik mintzo zitzaioelarik.

13. Gibelatu zen halaber Nabukodonosor erregea ganik, zeinak zin eginarazi baitzaroen Jainkoaz. Bere burua eta bihotza gogortu zituen, Israelgo Jainko Jauna gana ez bihurtzea gatik.

14. Eta aphezen buruzagi guziek ere eta populuak legea tzarki hautsi zuten, jendaien izigarrikeria guziei jarraikiz, eta lohitu zuten Jaunak bere buruari Jerusalem sailduetsi zaroen etxea.

15. Bada, hekien arbasoen Jainko Jaunak mezuak igortzen zaroezten bere profeten arartekoz, gauaz jaikiz eta egun oroz atzar emanez, populuari eta bere egoitzari barkhatzea gatik.

16. Bainan hekiek trufatzen zituzten Jainkoaren mandatariak, erdeinu zuten haren erranez, eta irriz jokhatzen zituzten profetak, Jaunaren hasarrea jauts zedin arteo haren populuaren gainera, eta sendagarrik izan etzedin arteo.

17. Ezik hekien gainera erakharri zuen Kaldearren erregea; hekieta-ko gizon-gazteak ezpataz hil zituen bere etxeko saildutegiko etxean; etzi-tzayoten urrikaldu ez morroinari, ez neskatxari, ez zaharrari, ez-eta zaharkituari ere, bainan oro Nabukodonosorren eskuetara arthiki zituen.

18. Eta Jaunaren etxeko untzi guziak, ttipi eta handi, eta tenploko, erregeren eta buruzagien khutxak, oro Babilonara eraman zituen.

19. Etsaiek erre zuten Jaunaren etxea, urratu Jerusalemeko harrasia, erre dorre guziak, eta xahutu zerbait balio zutenak oro.

20. Norbait balin bazen ezpatari itzuririk, Babilonara eramana zerbitzatu zituen errege eta haren semeak, Persiarren erregek manatzeko orduraino,

21. Eta bethe zedin arteo Jaunaren hitza Jeremiasen ahoz errana, eta lurrak zeblebra zezan arteo bere larunbata; ezik alfer egotu zen inkonia-menduko egun orotan, hirur hogoi eta hamar urtheak bethe arteo.

22. Bainan Ziro Persiarren erregeren lehenbiziko urthean, bethe zedintzat Jaunaren hitza, Jeremiasen ahoz errana, Jaunak eraiki zuen Persiarren errege Zioren izpiritua. Ziok bere erre-suma guzian oihu eginarazi zituen eta iskribuz ere igorri hitz haukiek:

23. Huna zer dioen Ziok Persiarren erregek: Zeruko Jainko Jaunak eman izan darozkit lurreko erresuma guziak, eta berak manatu darot tenplo bat altxa diozodan Jerusalem, zeina Judean baita. Zuetarik nor da haren populutikakoa? hainarekin izan bedi haren Jainko Jauna, eta igan bedi.